

Futbola eta hedabideak bikoa nazio nortasunen joko zelai garaikidea:

XIX. mendetik XXI. menderako aingura

Egilea: EKAIN ROJO LABAIEN
Urtea: 2013
Zuzendaria: JOSU AMEZAGA ALBIZU
Unibertsitatea: UPV/EHU
ISBN: 978-8438-498-4

Hitzaurrea

Doktorego tesi honen sortzezko helburua futbolaren eta nazio nortasunen bistako loturari gizarte zientzien baitako arrazoibidea ematea zen. Esan nahi baita, gaurkotasun gai honen gainean sorrarazten diren polemika eta ezbaietatik haratago, teoria euskarriaz eta munduko errealitate ezberdinen alderaketaz eta ondorioztapenez zientziako ezagutza erdiestea. Halaber, egilearen sortzezko ikasketa eremua ikus-entzunezko komunikazioa denez, hedabideen, eta oroz gain, telebistaren parte-hartze giltzarria nabarmendu egiten du ikerketak futbolak nazioak irudikatzeko eta birsortzeko duen ahalmenari dagokionez. Ezina da futbol ekitaldia hedabideak aintzat hartzeke behatzea, eta halaber alderantzizko noranzkoan ere desegokia izango zatekeen futbol jazoeraren tamaina ez kontuan hartzea hedabide garaikideen behaketa egiterakoan. Tesi ikerketak munduko kasuak alderaketa metodologiaz aztertuta ateratako ezagutzak Euskal Herriaren eta Espainiaren hurbileko kasua bidezkotasunez aztertzea ahalbidetzen du amaiera aldera. Ondorioetan azaleratzen da bestalde, futbol guztizko ekitaldia nazio eta estatu oinarritzko politika antolamenduen orainaldia eta bilakaera aztertzeko ikergai bitartekoa ere badela, ikergaia izateaz batera.

Ekain Rojo Labaien
2013

Futbola eta hedabideak biko nazio nortasunen joko zelai garaikidea: XIX. mendetik XXI.menderako aingura

Ekain Rojo Labaien

Tesi zuzendaria: Josu Amezaga Albizu

2013ko maiatza



Futbola eta hedabideak biko nazio nortasunen joko zelai garaikidea: XIX. mendetik XXI.menderako aingura

Ekain Rojo Labaien

Tesi zuzendaria: Josu Amezaga Albizu

Eusko Jaurlaritzaren finantza laguntzarekin eginiko doktorego tesia, Hezkuntza,
Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako
laguntzaren bitartez

2013ko maiatza

Eskerrak

Zilegia eta giza legezkoa da tesi hau gauzatzean sostengua eman didaten guztiei esker ona adieraztea, norbanako lan nekeza izatean askotariko laguntza eman didatenaz behar bezala hemen oroitzea. Hasteko, nire gurasoentzat esker ona adierazi nahiko nuke hemen, beraiek izan baitira nire gorabeherak gehien eragin dietenak. Eskerrik asko nire amari bereziki nire arazoak eta asaldurak ulertzeagatik askotariko gorabeherak ditudan bizitzako une honetan. Babes hori gabe ezina izango zitzaidan lan hau egitea. Mila esker tesia hastean hil zitzaigun amonari ere, beti zeozer berria ikasteko grina sustatu zidanari.

Horrez gain, biziki eskertu nahiko nuke Josu Amezaga nire tesi zuzendariaren laguntza. Berak proposatu eta erraztu zidan tesia egin ahal izateko laguntza jasotzea, eta lau urteotan kanpora joateko nahiz artikuluak argitaratzeko bere babes funtsezkoa izan zait. Baina garrantzitsuagoa izan da niretzat, noski, laguntza eta aholkuak behar izan ditudan aldiro, funtsezkoa den babes eta gidaritzaren hori, jaso dudala. Ezinbestekoa izan zait. Horrezaz gain, asko eskertzen diot tesiaren zuzendaritzan nire lanaren bilakaerari askatasuna eman izana, eta beraz nire barruak agintzen zidan ekarpena egin dudala. Nire ustez, norbanako lana da tesia, kolektiboa baino gehiago, eta zuzendaria edozertarako beti laguntzeko prest egote hutsa, laguntza eskerga da eta ez ohikoa. Mila esker berriro.

Ildo berean, eskertu nahiko nituzke tesia egin ahal izan dezadan laguntza eskaini didaten lagun guztiei. Hainbat izan dira babes edo lanerako laguntza eman didatenak, eta errepikakorra izateko beldurrik gabe, eskerrik asko denoi hor egoteagatik. Halaber, mila esker Leioako unibertsitatean abegi onez laguntzeko prest izan diren irakasle nahiz langile orori. Patxi Azpillaga, Edorta Arana eta irakasle abarri, eta ildo berean, Teresa Martinez Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate saileko Idazkariari ere. Abiadan igaro diren lau urteotan, edozein zalantza edo eskaera izatean hain egoki jokatzegatik, zeina unibertsitateko esparruan bertan, bizipenek irakatsita naute, zinez ez ohikoa dela. Mila esker doktoregai kideei euren izaera atseginatik ere, zeinak bide luze honetan zailtasunak errazten dituen. Ezin aipamenik gabe laga ere komunikazio arloko Leioako euskarazko irakasleen eta doktoregaien artean aldizka eginiko mintegien onura. John K Walton EHUKo Ikerbasqueko historialariari ere esker ona zor diot laguntza handia eman izanagatik, ingelesezko artikulu bat burutzean nagusiki. Thank you very much John!

Azkenik, baina ez garrantzia hurrenkeran azkenak, Aix en Provence Frantziako hiriko egonaldian ezagutu nituen irakasleei esker ona adierazi nahiko nieke. Je tiens à exprimer tout ma gratitude aux professeurs Christian Bromberger et Frederic Saumade. Merci beaucoup de m'avoir accueilli et de m'avoir aidé si gentiment lors de mon séjour à Aix en Provence. Merci Christian de m'avoir consacré votre temps pas mal de fois, et pour les conseils que vous m'avez donnés. Je veux remercier aussi tous les gens qui ont beaucoup facilité ma tâche à Aix en Provence, les autres professeurs de l'IDEMEC et Annie Rinaudo le chef de service à la Maison Méditerranéenne de Sciences de l'Homme pour m'avoir logé si correctement et m'avoir aidé pour tout ce j'avais besoin concernant l'hébergement. Merci aux doctorants que j'y ai rencontrés. Le fait d'avoir présenté mon sujet de thèse lors d'un séminaire de l'IDEMEC à la MMSH en français c'est grâce à vous aussi, au fait d'avoir préparé mon exposé à l'avance avec vous. Merci aussi aux employés de la bibliothèque de la Faculté de Lettres de Aix en Provence. Chez les gens qui travaillent dans ce genre de poste je trouve rarement la simplicité et l'envie d'aider les gens, ni ailleurs en France, ni au Pays Basque, que j'ai remarqué chez ces gens là.

Frantziako egonaldia baino lehen, Bellaterra herrian egoitza duen Kataluniako Unibertsitate Autonomoaren kanpusean egonaldi motzagoa egin nuen, Centre d'Estudis Olímpics Olinpiar Jokoen ikerketa alorraz aritzen den gunean. Bertan ezerren trukean lagundu nindutenei eta bereziki Ferran Amoresi aipamena egin nahiko nioke hemen, tesi lana burutu dudan honetan. Tesian noraezean nenbilenean laguntza oparoa eman zidan eta ikerketa zuzentzeko ikusmira bertako liburutegietan elkartu nuen informazioak eta ezagutzak, eta deusen trukean Ferranek eskaini zidan laguntzari egiazki gogoan izatekoa dut. Eskerrik asko halaber Tallinen Euskal Selektzioak jokatu zuen partidaren karietara egin nuen bidaiari bertako unibertsitatean erraztasunak eman zizkidaten langile orori.

Begirunea agertu nahiko nioke era berean Jose Mari Amorrortu Athletic taldeko kirol zuzendariari ere eta Athleticeko prentsa arduradunari, eurei galdera batzuk erantzun ahal izateko eskakizunari berehalakoan erantzun baitzioten eta Amorrortuk Athleticen kudeaketan hamaika eginkizunen artean tarte egin zidalako. Inguruko beste futbol talde nagusiak eskakizunari entzungor egin zion bezala, bidezkoa da Athleticen abegia hemen goratzea eta Amorrorturena bereziki. Jende eta taldeen handitasuna hor ere neurtzen da.

Funtsean mila esker lagundu didazuen isilpeko laguntzaile guztioi hau burutzen lagundu didazuelako eta hau gauzatu izanarekin poztuko direnei bereziki, eskerrik asko. Ahaztu gabe mila esker Eusko Jaurlaritzari tesi honen egikaritzea bideragarri egiteagatik.

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| Aurkibidea..... | 1 |
| 1-Sarrera eta aurkezpena: Futbola gizarte eta komunikazio zientzien xede zilegi eta sahiestezina | 9 |
| 1.1 Futbola erdigune duen ikerketaren justifikazioa | 10 |
| 1.2 Helburuak eta hipotesiak..... | 13 |
| 1.3 Bideak (Metodologia) | 14 |
| 1.4-Soziologiaren hurbilpena futbolari: Elias eta Dunning abiapuntu | 17 |
| 2-Nazio nortasuna | 23 |
| 2.1-Nazioa | 23 |
| 2.2-Nortasuna..... | 25 |
| 2.3-Ikurren garrantzia nortasun kolektiboetan..... | 27 |
| 2.4-Nazio nortasunak globalizazio garaian | 29 |
| 2.5-Futbola komunitate irudikatuaren ekitaldi kolektibo gisa | 33 |
| 3-Azterketa historikoa | 37 |
| 3.1-Futbolaren sorrera eta hedapena..... | 37 |
| 3.1.1-Industrializazioko aldaketa garaian sortutako futbola | 38 |
| 3.1.2-Bi ardatz: emozioen eta identitate kolektiboaren beharraren asebetea | 42 |
| 3.1.3-Futbol mundutiarraren sortzea eta hedapena eta Mendebaldeko balioen globalizazioa..... | 46 |
| 3.1.4-Hedabideen bultzada hasieratik nazio atxikipenei futbol kontaketa bitarteko: nazio estiloen asmakuntza prentsa aitzindarian..... | 50 |
| 3.1.5-Futbol taldearen hamaikako osaera eta jokatzeko estiloa nazio proiektuaren isla | 53 |
| 3.2-Kirola eta futbola nazioarteko harremanetan: estatuen eremuan oinarritutako historia garaikidea..... | 54 |
| 3.2.1-Erregimen totalitarioen futbolaren eta Olinpiar Jokoen erabilpena gerren artean: Mussoliniren 1934ko Munduko Kopa eta Hitlerren 1936ko Olinpiar Jokoak..... | 62 |
| 3.2.2-Bigarren Mundu Gerraren osteko garaia: Gerra Hotzaren eta kirol boikoten aroan futbol txapelketak eta Olinpiar Jokoak nazioarteko harremanei txertatuta..... | 78 |

| | |
|--|------------|
| 3.2.3- <i>SESB eta Jugoslavia estatu anitzen desagerpen aroa: futbola estatu jaioberrien izaeraren ordezkaria</i> | 88 |
| 3.2.4- <i>XX.mendeko kirola erabaki politikoan mendea</i> | 95 |
| 3.3-Futbola eta nazio eraikuntza: kasuen azterketa | 102 |
| 3.3.1- <i>Europa</i> | 102 |
| 3.3.1.1-Erresuma Batua eta Irlanda aitzindariak: bi estatu eta bost nazio talde edukitzearen bereizitasuna..... | 103 |
| 3.3.1.2-Inglaterra: Futbola nazio nortasunaren eta bere sinboloen eraberritzearen agertokia | 108 |
| 3.3.1.3-Gales: errugbia nazio nortasunaren iturria, futbola gerizpean | 118 |
| 3.3.1.4-Irlandako nortasunaren eta Ipar Irlandako gizarte talkaren isla | 119 |
| 3.3.1.5-Eskozian futbola nazio nortasunen etorkizuneko elkarbizitzaren ardatza | 131 |
| 3.3.1.6-Frantziako taldea etorkinen integrazioan oinarritutako nazio proiektuaren ezbaien agertokia | 145 |
| 3.3.1.6-Frantziako estatu gabeko nazioen, errejioen eta hirien talde adierazpenak: Korsika eta Britainiaren kasua..... | 156 |
| 3.3.1.7-Portugal: 2004ko Europako Kopa nazio nortasun aldarrikapena..... | 165 |
| 3.3.1.8-Alemaniko futbola XX.mendea nazio nortasunaz lotuta: Bernako Miraria, nazio banaketa eta bat egitea | 168 |
| 3.3.1.9-Belgika eta Herbehereetan futbola integrazio erronken isla | 181 |
| 3.3.1.10-Futbolaren sugarrak hartutako Italiako nazio nortasuna | 184 |
| 3.3.1.11-Austria, Bigarren Mundu Gerrako oroitzatik XXI.mendeko nazio proiektuaren eztabaidara..... | 194 |
| 3.3.1.12-Norvegiako futbol nazio nortasuna hedabideen bidezko joera globalek eraginda | 197 |
| 3.3.1.13-Eskandinavian neguko kirolez haratago futbola talde nortasuna sortzeko baliabidea | 202 |
| 3.3.1.14-Baltikoko futbolaren eragin murriztagoa selekzioak garaituak ez diren neurrian: estatu berrien futbol erabilpena eta nazio proiektuen adierazpena | 204 |
| 3.3.1.15-Sobiet Batasunaren oinordetza: estatu nazioaren eraikuntzaren eta barruko nazioen borrokagunea futbola | 205 |
| 3.3.1.16-Jugoslavia ohiean futbol zelaietatik lubakietarako jarraipenezko nazio gatazka | 216 |
| 3.3.1.17-Eslovenia: futbol ekitaldiaren denborazko adiera aldakorra nazionalismoaren helburuen mesedetan | 230 |
| 3.3.1.18-Futbol turkiarra nazio nortasunaren ezbaiak harrapatuta | 232 |
| 3.3.1.19-Grezian 2004ko kirol ospakizunek sustatutako nazio nortasuna | 235 |

| | |
|--|-----|
| 3.3.1.20-Zipre zatitutako uhartean politikak futboleko nazio eraikuntza jarki zuenekoa | 236 |
| 3.3.1.21-Futbol bidezko europar atxikimenduaren eraikuntzaren ahalegina.... | 241 |
| 3.3.2- <i>Hego Amerikako estatueta nazioen eraikuntza Europako enereduari begira eta futboleko oinarritua.....</i> | 245 |
| 3.3.2.1-Mende batez futbolar nazio argentinarrari aintza eginez: 1978ko Munduko Kopaz gairdiko erabilpena..... | 248 |
| 3.3.2.2-Nazioaren nortasuna eta aniztasunaren hautematea aldatu zuen Brasilen futbolaren erabilpenak | 259 |
| 3.3.2.3-Urugain sortzez nortasun kolektiboen adierazpenei lotutako futbol ekitaldia | 266 |
| 3.3.2.4-Nazio nortasuneko une gairurrak Amerikako herrialdeetan..... | 267 |
| 3.3.3- <i>Afrikako kolonizatzaileek irudikatutako mugetan nazioa sortzeko bidelagun nagusia da futbola</i> | 275 |
| 3.3.3.1-Aljeriako estatuaren iragarlea eta geroko euskarria nazio taldea | 284 |
| 3.3.3.2-Tunisiako agintearen nazio mitoa kirol ekitaldiak atondua | 289 |
| 3.3.3.3-Senegalgo futbol taldearen lorpenaren politika erabilpena | 292 |
| 3.3.3.4-Futbolaz irudikatutako nazioaren mugak Liberiako gatazkan | 295 |
| 3.3.3.5-Boli Kostako selekzioa nazio baterazlea bake saioen bidean | 297 |
| 3.3.3.6-Kamerungo ehunka etnia ezberdinen sinbolo itsasgarria | 299 |
| 3.3.3.7-Inoizko gatazka hilgarrietakoa ahazteko bidea Ruandan | 302 |
| 3.3.3.8-Kolonialismo gailua izatetik Kenyako nazio aldarri izatera | 302 |
| 3.3.3.9-Futbol selekzioak Hego Sudanen sorrera azaldu zuenekoa | 303 |
| 3.3.3.10-Angolako Afrikako Kopa Kabindar gatazkaren adierazpena..... | 304 |
| 3.3.3.11-Malawin gizarte garapenezko nazio sortzaile gailua futbola | 306 |
| 3.3.3.12-Apartheid ondorengo errugbiko askapenetik 2010eko Munduko Kopa atontzera Hegoafrika..... | 308 |
| 3.3.4- <i>Asian futbola kolonia agintearen aurkako tresna izatetik globalizazioan mundu agertokia bihurtzera</i> | 318 |
| 3.3.4.1-Judu eta arabiarren auzian futbola nortasun iturri..... | 320 |
| 3.3.4.2-Transjordania eta palestinar nazioen alderaketa Jordanian futbolaren bitartez | 327 |
| 3.3.4.3-Iranen futbola modernitate eta erlijio tradizioaren ezbaian..... | 329 |
| 3.3.4.4-Ekialde Hurbileko herrialdeetan futbola nazioartean eragiteko gailu sinboliko nagusietakoa da..... | 338 |
| 3.3.4.5-Indiako futbola kolonialismotik globalizazioaren menderaldira..... | 341 |
| 3.3.4.6-Futbola Tibeten tradiziozko kulturarentzat mehatxua eta bere burujabetasunarentzat bitartekoa | 346 |
| 3.3.4.7-Txinaren xedea ordezkari eta gizarte aldarrien artean..... | 349 |

| | |
|---|------------|
| 3.3.4.8-Bi estatutan zatitutako Korea nazio aintzinekoaren adiskidetzaz: futbola bereizteko eta elkartzeko erabilia | 355 |
| 3.3.4.9-2002ko Munduko Kopaz eta Japonia eta Korea hurbiltzeko ahaleginaren ekarpenaz | 364 |
| 3.3.4.10-Indonesian nazio sorkuntza eta etnia bereizketa baliabidea futbola .. | 371 |
| 3.3.5-Ozeaniako futbola alboratua izanagatik nazioen agertokia izan da, kirol globalizazioaren adierazgarri | 372 |
| 3.3.5.1-Australia: futbola nazio gutxiengoen integrazioaren estatu eztabaidaren erdian kokatuta | 373 |
| 3.3.5.2-Errugbia hedabideek Zeelanda Berriko ikur burutu zutena | 387 |
| 3.4-Atalaren ondorioak | 389 |

4- Telebista, futbolaren eta nazioaren arteko bitartekari: 2010eko Munduko Koparen erretransmisioa Espainiako eta Frantziako kateetan

| | |
|--|------------|
| 4.1-Futbola eta telebista | 418 |
| 4.1.1-Hedabideen eta kirolen hartuemanen historiako aitzindaria: Riefenstahlen 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoen Olympia filma nazien kirol eta hedabideen bikoaren nazio erabilpenaren isla | 420 |
| 4.1.2-Futbola estadioetako bizipena izatetik nagusiki telebistaren ekoizkin izatera | 429 |
| 4.1.3-Telebistako kirol emanaldiak mundu aisialdiaren ardatzak | 432 |
| 4.1.4-Telebista bidezko estatu-nazioen eraikuntza eta nazioaren intereseko ekitaldien aparteko lege bermea | 437 |
| 4.2-Kasu azterketa: Espainiako emanaldia etengabe emozioa eta identifikazioa sortzen eta Frantziakoa nazio taldearen aldeotasunera mugatzen | 444 |
| 4.2.1-Espainia eta Frantziako emanaldien testuingurua | 447 |
| 4.2.1.1-Prensa idatziaren nazio narrazioa futbol partiden ikus-entzuleria mailak islatutako ekitaldi kolektiboarekin | 454 |
| 4.2.2-Espainiaren partidak nazio auzitzat emanak dira | 476 |
| A) Espainia-Suitza (2010eko ekainaren 16ko 16:00etan) | 479 |
| B) Espainia-Alemania (2010eko uztailaren 7ko 20:30ean) | 485 |
| D) Espainia-Herbehereak (2010eko uztailaren 11ko 20:30ean) | 490 |
| 4.2.3-Frantziako emanaldia taldeko liskarrek eraginda | 495 |
| A) Frantzia-Uruguai (2010eko ekainaren 11ko 20:30ean) | 496 |
| B) Frantzia-Mexiko (2010eko ekainaren 17ko 20:30ean) | 501 |
| D) Frantzia-Hegoafrika (2010eko ekainaren 22ko 16:00etan) | 506 |
| 4.2.3-Erretransmisioen analisiaren ondorioak | 510 |

| | |
|---|-----|
| 5-Espainiar estatuaren kasu azterketa: estatu nazioa futbolean Euskal Herria eta Kataluniaren nazioei alderatuta | 517 |
| 5.1-Anberesko 1920ko Olinpiar Jokoen futboleko ekitaldia abiapuntua..... | 519 |
| 5.2-Euskal nortasuna futbol estiloaz islatzeko bidea..... | 523 |
| 5.2.1-Euzkadi taldearen 1936ko gerra garaiko atzerriko partida biraren nazio adierazpena | 528 |
| 5.3-Berrogei urteko Francoren diktadura: futbolaraz Espainia batua eta garaitsua azaltzeko erabilpena | 533 |
| 5.3.1-Real Madrilaren garaipenak Espainia frankistaren aldekoak | 537 |
| 5.3.2-Espainia nazio anitzaren futboleko iratzarpena 1960ko hamarkadan | 541 |
| 5.3.3-Frankismoaren amaiera: Bartzelonaren garaipen sinbolikoa Madrilaren eta Realaren eta Athleticen arteko ikurriñaren jende agerpena Donostian | 543 |
| 5.4-Demokrazia ereduko konstituzio monarkiak ez du nazio aniztasuna aitortzen, futbolaraz ostera, bai..... | 546 |
| 5.4.1-Euskal klubuen salbuespena: euskal futbolariez nagusiki hornitzea, osaera, talde identitate iturria..... | 549 |
| 5.4.2-Athleticen eta Bartzelonaren 2009ko Espainiako Errege kopa finala: bi nazioaren aniztasuna estatuaren eta bere hedabideen nazio eraikuntzaren aurrean | 553 |
| 5.4.3-Espainiako nazio selekzioaren 2012ko Europako Kopako ospakizuna krisiak azpiratua eta Kataluniaren independentzia herri aldarri jendetsuek inguratuta | 555 |
| 5.5-Euskal nazio taldearen Gabon partiden usadioa eta ofizialtasun xedeko ekimenen muga eta ezbaiak | 558 |
| 5.5.1-Nazio deituran adostasunik ez duen ordezkariak..... | 560 |
| 5.5.2-Kontrajarritako futbol bidezko nazio sentipenak Euskal Herriko alderdi politikoa eta hedabideetan..... | 567 |
| 5.5.3-Euskal Herria Kirola eta ESAIT elkarten saioak Euskal Selekzioaren estatu gabeko izaerari dagozkion mugak eraisteko | 572 |
| 5.6-Euskal Herriko azterketaren ondorioak | 577 |
| 6-Tesi ikerketaren ondorio orokorrak | 581 |
| 7-Tesiaren frantsesezko aldaera laburtua | 591 |
| Résumé de la thèse doctorale | 593 |
| 7.1-Présentation, problématique, objectifs et cadre théorique..... | 593 |
| 7.2-Hypothèse, méthodologie et structure de la thèse | 600 |

| | |
|---|------------|
| 7.3-Analyse et comparaison : l'histoire du football unie aux relations internationales et à la mondialisation | 603 |
| 7.4-L'analyse de l'évolution du couple nation et football à travers la vision des cinq continents | 608 |
| 7.5-Les conclusions de l'analyse comparative | 622 |
| 7.6-Le football propage l'identité nationale à travers la participation indispensable de la télévision | 626 |
| 7.7-Analyse de contenu des émissions des matchs des équipes nationales de l'Espagne et de la France lors de la Coupe du Monde 2010 en Afrique du Sud | 629 |
| 7.8-Analyse de cas du Pays Basque et de l'Espagne : l'État nation face à la nation basque et catalane | 631 |
| 7.9-Conclusions | 639 |
| 8-Informazio iturriak..... | 648 |

1.Atala

Aurkezpena, helburuak eta bideak

1-Sarrera eta aurkezpena: Futbola gizarte eta komunikazio zientzien xede sahiestezina

“Sous les apparences d' un divertissement futile et des faits divers qui lui sont associés se profile donc un des points de vue les plus éclairants sur la vie contemporaine. Langage masculin de référence, transgressant régions et générations, faisant dialoguer le singulier et l'universel, confrontant le mérite et la chance, la justice et la tricherie, "nous" et "les autres", le match de football apparaît bien comme une des matrices symboliques profondes de notre temps. Balançant entre la fête et la guerre, le comique et le tragique, le dérisoire et le sérieux, la fiction et la réalité, le rituel et le show, il condense, en un genre hybride et singulier, les valeurs fondamentales qui façonnent nos sociétés” (Bromberger, 1995: 377)

“Ce faisant, par l' identification – au travers de laquelle se manifeste la résurgence temporaire de la croyance en une société, en une identité passée, présente et à venir – , l' événement sportif conjure le spectre de la dissolution du social, de l' atomisation, qui hante les hommes depuis le début du processus de l' individualisation, spectre auquel sont venues s' ajouter d' autres hantises: peur des collectivités de s' évanouir dans la mondialisation, la construction de grands ensembles internationaux (l' Europe par exemple), les mouvement de population (l' émigration ou l' immigration)” (Yonnet, 2008: 21)

Balio bezate hasiera modura jatorrizko frantsesean idatzitako bi aipuok, futbola, nazio nortasunak eta hedabideak aztertzea helburu daukan doktorego tesi ikerketa honen abiatze gisara. Christian Brombergerrek, bere antropologo izaeratik futbolaren sakoneko esanahia hezurmamitzen du, nire ikuspegitik zentzutasun osoz egin ere. Leporatu izan zaion hutsalkeriazko jarduna izatetik bere burua bereizita, futbolak gaur egungo gizarte modernoan funtsezko balioak hezurmamitzen dituela arrazoitzen du. Ezaugarrien artean gu eta haien bereizketa, identitate kolektiboen guztizko zutabea, eta nazio nortasunena. Berriki zendutako Paul Yonnet bere soziologo herrikideak ildo berean, kirol ekitaldiek identifikazioaren bidez gizarte baten izatean sinesmena berritzen dutela, eta norbanako munduaren gizakien beldurrari aurre egiten diotela azaltzen du. Biak ala biak, ekarpen oparoak eta adierazgarriak dira tesi honen nondik norakoak aurreratzeko. Antropologoa bata, soziologoa bestea, gizarte zientzien alorrok XX.mendearen azkeneko laurdenetik bereziki, jabetu egin dira iraganeko erdeinua azpiratuz, futbola, aisialdiaren eta kirolen azterketa zabalagoaren erdigunean, gizarte modernoan ezagutza jasotzeko behaketarako gune funtsezkoa dela. Gizarte zientzien diziplinen arteko elkarlana eta osaera behar eta merezi du futbolak, soziologia eta antropologiatik hasi eta historia eta komunikazioaren arloraino. Tesi honen egilearen jakintza arloa ikus-entzunezko komunikaziokoa da. Hala ere, ezinbestean aipaturiko ezagutza eremu horietatik hartutako zantzuak agertzen dira ikerketa lanean, nire abiapuntutik futbolaren bidezko nazio nortasunen adierazpenen, eta hedabideen ahaztezinezko bitartekaritzaren ahalik eta azterketa osatuena egin asmoz.

1.1 Futbola erdigune duen ikerketaren justifikazioa

Argi zehaztu behar da, nire ikusmoldea denaz, futbolak ikerketarako eskaintzen duen ahalbidea amaigabea baita, eta ikertzaile bakoitzari abagunea emango dio norbere hausnarketatik eta izandako bizipenetatik hurbiltze bereizitua egin ahal izateko. Tesiaren jorratutako ezagutzek hein berean, irakurleari norbere ondorioak ateratzea ahalbidetuko dio. Neurea, hastapenetik umiltasunez esanda, horietako bat da, haurtzarotik errotutako interesaren zama biribildu duena. Eta tesiaren egikaritzea nire bidaia inizatikoarenarekin parekatuko nuke gainera. Irakurtzen eta ikertzen joan naizen ahala arlo askotan heltzea ahalbidetu didana. Euskal Herrian bereziki, eta baita aski mundu zabalean ere, futbolak ideologia eta politikaren eremuko ezbaiekin txertatzeko duen erraztasunetik aldentuta, horren gabezia badagoen zientzia ekarpena egitea izan da nire helbururik behinekoena.

Ezinbestean norbanako orok mundua ikusteko duen pentsaeratik babestuta, askotariko ezagutza teoriko mardula nire bidelagun hartuta, eguneroko hizpide den futbol ekitaldia ikertzen ahalegindu naiz. Bada onartzen dut sortzez futbol gertakizuna nazio nortasunen adierazpide ikusgarrienetakoa eta sustatzaile nagusi bailitzan ezarrita hautu bat egina dela. Eta aukera horren bidezkoa zilegitzen ahalegindu naiz buru belarri hain zuzen ere luzaroan eginiko ikerketa lanean, funtsean. Halaber, hedabideei buruz aritzean kirola eta futbola aintzat hartzearen ezinbestekotasunaz, eta baita alderantzizko norantzan ere, hau da, bereziki futbolaren gizarte gertakizun izaera hedabideen bitartekaritza begiratzeaz.

Hain justu, ikerketa irrika horrek guztiak eragin du hein handian doktorego tesia historiaren irakurketan eta gizarte zientzialarien ekarpenetan oinarritua egotea. Inondik ere, hainbatek, antropologoek oroz gain, futbolaren hurbiltze enpirikoagoa eta jendearen eguneroko bizipenetara hurbilduko zatekeena hobetsiko zuketena. Aitzitik, nire ezagutza ez da antropologiaren baitakoa ez eta soziologoarena, eta areago, esan bezala, ezagutza teorikoagoaren gabezia hauteman dut hasieratik futbolaz eta nazio nortasunez erraztasun handiaz mintzatu ohi denez. Futbola eta politika, nahiz futbola eta nazioen adierazpenak ez nahastearen hausnarketa eta aldarri egunerokoak eta aurreiritziak horren lekuko. Nire ekarpena edukien baitakoa da metodologia izaerako berrikuntza baino gehiago. Aspaldi datorkidan futbolaren nazio nortasunak gorpuzteko gaitasunarekiko lilurak bultzatu nau hau. Ezkerreko ideologiako pentsalariak maiz aldarrikatu dute futbola agintariak herri xehea limurtzeko eta beraien nahietara makurrarazteko erabilitako Erromatar Inperioko zirkoko ikuskizunaren aldaera garaikidea dela. Beste batzuek negozio izaerak mendean hartu duela gaineratzen dute, eta talde atxikimenduak bateratzeko ahala galdua daukela. Futbolak negozio soila baino gehiago izaten jarraitzen du, osterantzean desagerrarazteko bidean izango zatekeelako, edo erabat eraldatzeko bilakaeran. Nik talde nortasunen eta bereziki nazioen adierazpenarekin uztartzen dut futbolaren funtsa, eta baikortasunezko hausnarketatik plazaratzen dut lotura hori, nazio nortasunak hauspotzearena, indarkeria adierazpenen lekuko izan bada ere. Baina hori futbolaren erantzukizunetik haratago doa. Cornel Sandvossek dioen moduan (2003: 31), futbol zaletasuna oinarritzen da identitate eta identifikazio/norbere isla dualtasunean. Jarraitzaile askok euren zaletasuna beraien izaeraren erdigunezko alderditzat daukate Sandvossek eginiko ikerketari jarraiki. Zentzu horretan, kluba norbere nortasunaren kanpoko jarraipena dela ondorioztatzen du (Ibid., 32). Are esanahi handiagokoa da taldea nazio selekzioa, nazio ordezkari, bihurtzean. Albert Camus idazlearena da “aberria futbol nazio selekzioa da” erabateko baieztapena.

Ildo horretan, nazioak ikusaraztean, eta identitate kolektiboek beharrezkoa duten gutasunaren eta gainontzekoen bereizketa sakontzean etsaigoak hauspotu eta munduko biztanleen arteko mugak indartu ditzakeela azal dezake batek baino gehiagok. Zilegia da hori alderatzea, baina halaber Yonnetek zioen bezala, futbolak irudikatutako gutasunak norbanako gizartearen gizaki beldurraren aurrean aterpea eskaintzen duela adieraztea ere, XIX.mendeko industria iraultzako gizartearen eraldaketan, eta XXI.mendeko gizarte moderno ziurgabeetan eta aingura gabekoetan ondoren. Europaz gaindi, bestalde, Hego Amerikan eta Afrikan inoiz nazio proiektu bateraturik izan ez zen kolonialismo ostean sortutako estatuaren sinboloak bideratzea eta nazioa irudikatzea ahalbidetzen du kirolak. Besteekiko bereiztea ahalbidetzen duen heinean, izan ere, gutasuna sendotzea sustatzen baitu futbol ordezkaritzen arteko alderatzeetan sustraitzen den identifikazioaren bitartez. Esan nahi baita, futbolaz, norberaren moral irizpideei jarraiki irakurketa kritikoa egiterik badagoela, jendearen banaketa sortuko lukeena, eta nazionalismoen munduko banaketa betikotu anaitasunaren kaltetan. Baina baita, oldarkortasunik gabeko komunitate zentzua islatzen duela futbolak XXI.mendean. Albert Camus idazleak arrazoitua da moralaz eta gizakien betebeharreri buruz benekotasunez gehien dakiena futbolari zor diola, funtsean. Munduan 250 milioi pertsonak futbolearen jokatzeko dutela hautematen da, ia 24 gizakirik batek alegia (Manzenreiter, 2008: 414). Nazioarteko ekitaldien inguruan, oster, askoz gehiago elkartzeko dira, hedabideak bitartekari direlarik. Ikuskizunetara bertaratzen diren ikusleak ere zinez gaintzen dituzte hedabideekin jarraitzen dituzten herritarren kopuruak (MacClancy, 1996b: 13). Bada, horien bitartez herrialdeetako populazio handian eragina duten ekitaldiez eta emanaldiez izango dugu arreta ezarrita bereziki ikerketan barrena.

“De hecho puede decirse que, junto con la religión y la guerra, el deporte representa uno de los medios de mayor éxito de movilización colectiva que hayan creado los seres humanos”. (Dunning, 2003: 257)

“What televised sport achieves is the presentation of sport as a form of ritual which heightens the sense of communal links between individuals, and the collective identification of these individuals with the political and cultural community of the ‘nation’” (Blain et al., 1993: 45)

Eric Dunningek gizateriak sortutako elkarretaratze tresna nagusietakoa bailitzan definitzen du kirola, erlijioaren eta gerraren parean. Horien eragina ahuldu egin da XXI.

mendean baterazle indar gisara. Bigarren aipuak gaineratzen du telebistaz norbanakoak nazioarekin identifikatzen direla kirolarekin. Coubertingo Baroiak Olinpiar Jokoen aldi modernoaren sorrera bultzatu zuenean, taldekako kirolak txertatzearen aurka agertu zen, aldarri patriotikoen bitartekoa izango zenaz jabetuta baitzen. Haren borondaterik ez zen gauzatu, ordea, eta zinez aurreikuspena bete egin zen. Dena dela, taldekako kirol ororen gainetik bidezkoa da futbola nabarmentzea eta ikerketa osoaren erdigunetzat aurkeztea, munduko kirolik ezagunena, jarraituena eta partekatuen izateak talde nortasunen, oroz gain nazioen, mailakatzea gertagarri egiten baitu, indarkeriaz bereizitako eremuan.

1.2 Helburuak eta hipotesiak

“What has made sport so uniquely effective a medium for inculcating national feelings, at all events for males, is the ease with which even the least political or public individuals can identify with the nation as symbolized by young persons excelling at what practically every man wants, or at one time in life has wanted, to be good at. The imagined community of millions seems more real as a team of eleven named people. The individual, even the one who only cheers, becomes a symbol of his nation himself” (Hobsbawm, 1992: 143)

Eric Hobsbawm 2012an zendu zen historialariaren esanetan, milioika pertsonen nazioaren komunitate imajinatua 11 jokalariren taldearen deiturapean onenen haragitzen dela dirudi, norbanako oro sinbolo horren bitartez nazioarekin identifikatzeko aietasuna dela medio. Futbola, eta bereziki, nazioarteko selekzioen ekitaldiak aztertzea izango da tesi ikerketaren jomuga norantza horretan, eta bidenabar, futbolaren, nazio nortasunaren eta hedabideen arteko hiruko lotura aztertzea munduan helburua. Ezaguera hori eskuratu ostean, hurbileneko errealitatea, espainiar estatuaren eta Euskal Herriaren gaurkotasuna, begiztatuko da, hedabideen eguneroko albisteetatik eta politikarien eta gizarte eragileen adierazpenen zurrumbilotik babestuta. Izan ere, zinez zabaldua dago kirola politikarekin uztartzea edo nahastearen okerraz ohartarazten dutenen aburua, zeinak tesi honen izaera gaitzetsiko zukeen, abiatzetik futbolaren eta nazio nortasunen lotura zuzenaz diharduen neurrian. Hain justu, teoriez eta askotariko gertaera historiko eta garaikideez lagunduta, okerra dena bi alderdiok bereizi nahia dela argudiatuko dut, funtsean jokabide horrekin

helburu politikoak baliatzen ari dela zernahi dela ere eleduna, eta orotara, esan bezala, saiatuko naiz politikaz eta futbolaz hain lotua den Euskal Herria garaikidearen orainean ideologiaren zamatik ahalik eta urrunen egongo den gizarte zientziazko ekarpena egiten.

Aurreko identitate aingurak ahultzean, modernitatetik eratorritako absolutuaren inguruko ziurtasuna eta erlijioak emandako bermea funtsean, postmodernitate kontzeptu lausoaz definitutako globalizazioaren biziaren garai ezjakinean nazioa eta hurbileko eskualdea, gertuko komunitatea, babes ziurtasun iturria da norbanakoarentzat. Futbola komunitatearen izaeraren, mantentzearen, aldatzen ez denaren sinbolo nagusia bilakatu da, arrazoitu beharrik gabekoa bailitzan, eta gizakiaren sortzezko emozioei lotuta ageria. Nazio mailan bereziki eta eskualdeen mailan eta klub bidez, gertukoa babes iturri da horrela. Eta telebista emankizunik eta bozgoragailurik gabe, beste hedabideen parte-hartzea ahortzi gabe, ezina zatekeen futbolaz nazioa haragitzea erdiestea. Hala, beheko hau da tesi ikerketaren hipotesi gidaria, hertsitasunezko esparrua izateke. Aurrerantzean jorratu eta ebatzi beharrekoa da, baina horren inguruan dauden bestelako eraginak nahiz gertaerak alboratzeke, eta aipaturiko irizpideez aztergaia ahalik eta osoen azaldu nahian.

Estatuari nazioa birsortzeko eta zilegitzeko ahalmena ematen zioten baliabideak eraldatzen ari dira. Iraganean, nazioa haragitzen zuten erlijioa, nazio ekonomia eta XIX. mendean errotutako estatu-nazioaren guztizko hegemonia ahuldu egin dira globalizazio fluxuen hazkundearen azpian. Dena dela, nabarmentzekoa da futbola XIX. mendean hasi zen gisa berean, nazioa eraikitzeko funtsezko baliabidea dela gaur egun ere, telebistaren bitartekaritzarekin. Horrela, futbolaren XIX. mende amaieratik aurrerako arrakasta datza identitate kolektiboak ordezkatzeko ahalean.

1.3 Bideak (Metodologia)

Max Weberren pentsamoldeari jarraiki, gizarte zientzietan objektibotasuna ezina dela dioen pentsamoldea kontuan hartuta hurbiltzen zaio ikerketa jomugari, irizpide eta gogoeta ezberdinetik abiatuta pentsalariek hausnarketa bereziak eta baita kontrajarriak egiten baitituzte, eta zuzenena ikusarazteko zailtasuna dagoelako hain zehatzak ez diren zientzietan. Bada, gabezia hori estali nahian, eta guztiok partekatze moduko ezagutza eraiki asmoz, metodologia konparatiboa eta historiaren azterketa bide nagusiak izango

dira. Bat nator nire tesi zuzendariaren jarraibideekin metodologia bideekin parekatzeaz. Kirolaren baitako eta nazio nortasunen teoriak, hurrena zehaztuko direnak, ikerketaren ipar orratz modukotzat eta zutabetzat hartuak dira. Bidea, kasu, izate eta aldi ezberdinen erkaketa izango da muga epistemologikoak, zientzia ezaguerarenak, gainditzeko xedeaz. Alderaketazko metodologiarekin lehenik eta behin, ideologiaren eraginpeko hausnarketa errazegia saihestea eta zientzia ekarpena burutzea da. Izan ere, aurrez ezarritako xedeak betetzeko erabilitako metodologiak aurkikuntzei baliagarritasuna ematearen funtsa izan behar du, hau da, onartuak diren teknikekin ikerketa sinesgarriak eta baliagarriak egitea. Mugak ere baditu izatez, konparazioak antzeko izaerako ezaugarriak alderatzea eskatzen baitu. Horrezaz gain, analisia zuzentzeko besteren artean, Benedict Anderson, Anthony Smith, Michael Billig, Christian Bromberger, Albrecht Sonntag, Anthony Hobsbawm eta Manuel Castells erabili izanak ezinbestean interpretazio alternatiboak mugatzen ditu.

“Il est vrai que l’ approche comparative interculturelle peut s’ avérer très fertile, notamment lorsqu’ il s’ agit de rendre possible “un regard plus distancié sur la réalité”, regard qui permet “au chercheur de relativiser la doxa interne de la culture dans laquelle il est lui-même pris” . Selon la formule heureuse de Tzvetan Todorov, “le meilleur résultat d’un croisement des cultures est souvent le regard critique qu’ on tourne vers soi” (Sonntag, 2010: 209)

Albrecht Sonntagek kulturen arteko metodologia konparatiboaren abantailaren gainean dihardu, ikertzailea txertatuta dagoen kulturaz gaindiko ikusmira sortzen duena, eta hurbilenari buruzko jarrera kritikoa. Miroslav Hrochi jarraiki, lan egiteko prozedura konplexua da, ezagutza orokortu berrietarako bidea sustatzen duena (2000: 19). John K. Waltonek tesiaren egileari azaldu zionez, konparazioak ez du osoki ezaguera eskuratzen lortzen, ezberdintasunak eta antzekotasunak hauteman arren, ezina baita sarritan horien zergatia ebaztea. Ekarpene berriak jasotzeko baliabidea izateaz gain, galderak sortzea eta ikerketa bide berriak irekitzea balizko egiten du, Waltonek gehitzen duen moduan. Are gehiago, tesiaren egituran ezarri den hurrenkeraz, konparaziozko metodologiari jarraiki, hots, kasu ezberdinen behaketan aurrera egin ahala, egileak atal bakoitzaren bukaeran eta amaieran kokatutako ondorioez gain norbere ondorioak jasotzeko abagunea izango du, eta irakurlearen jarrera aktiboagoa izan daiteke horrenbestez. Tesiaren prozesuaren norabide bereko irakurketa da, eta egilearen maila berean heltzen da azken ezagutzara.

Tesiaren egitura honakoa izango da. Bost atal handitan osatuta dago, eta denetan hirugarrena gainjartzen da, azterketa historikoa eta mundu kasuen azterketa. Lehenengo atala une honetakoa da, ikerketaren oinarriak zehazten dituen. Bigarren atala oinarriko kontzeptuen azalpena, kirol eta nazio nortasunez, hautatutako autoreen teoriari jarraiki. Zehaztapen horiekin mundu osoan zehar futbola nazio nortasunekin nola uztartzen den aztertzea izango da hirugarren ataleko urratsa. Futbolaren bilakaeraz historikoki batetik, eta bereziki banan banan loturaren munduko lehenetsitako herrialde nagusien behaketa bestetik, aukeratuak izan diren bost kontinenteetako herrialdeetako jazoera eta ezaugarri nagusien kontaketa. Hirugarren atal mardularen amaitzean, eta hedabideen eragina beti gogoan izaki, lehen ondorioak izango dira, hurrengo ataletarako teoria balioa dutenak, eta ulertzekoa denez, amaierako ondorioetarako ere erabilgarriak direnak. Grant Jarvie dioen eran, kiroleko ikerlariak teoria, frogaren eta testuinguru orokorraren etengabeko elkarreagin kontuan hartu behar du (Jarvie, 2006: 37). Bestalde, laugarren atalean, futbolaren eta nazio nortasunaren harremanaz gain, biko horrekin hedabideek izan duten hartuena teorian hornituko da, hiru erpinetako lotura ikusarazi. Eta ikerketaren alderdi praktikoaren lehen kasu azterketa dena burutu, 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa hedabideen futbol bitartezko nazio eraikuntzaren ikergai modura hartuta. Espainiako eta Frantziako telebista kateek euren nazio selekzioen partidez egindako eraikuntza aztergai izango da, Euskal Herrian eragin zuzena daukatena. Konparaziozko metodologiak bi herrialdeetako kateen antzekotasun eta ezberdintasunak hautematera zuzenduko du, eta estatuon futbol erabilpenaz eta hedabideen jokabideaz eta eraginaz ezagutza zabalagoa lortzea. Bostgarren atala tesiko bigarren kasu azterketa da. Ordu arte konparazio bidez eratorritako zientzia gogoeta eta gizarte zientzialarien ekarpena, Espainiako eta Euskal Herriko azterketa osotua egiteko erabili du doktoregaiak. Seigarren atala ondorioena da.

Tesiaren amaieran, Nazioarteko Tesiaren betebeharreari jarraiki, tesiaren aldaera laburragoa dago txertatuta frantsesez. Ikerketa osoaren bilakaera eta atalak barne biltzen ditu, eta horren ekarpena bidezkerasunez islatu asmo du, baina ekarpen laburragoan.

1.4-Soziologiaren hurbilpena futbolari: Elias eta Dunning abiapuntu

XX.mendeko azken laurdenean sustraitu zen batez ere kirolaren gizarte behaketa helburu zuen askotariko diziplinako lerroa, aurretik zientzialarien arreta merezi ez zuen aisialdiko eremutat beheratua izan ondoren. Soziologoek, antropologoek, historialariek eta komunikazio zientzietan adituek hartu zuten, besteren artean, kirolean eta futbolean ordu arteko atzerapena estaltzeko ardura. Kirolaren soziologiaren barruan, tesian zehar sarritan aipaturiko Norbert Eliasen eta Eric Dunningen ekarpenak oroz gain nabarmenak dira, eta neronek ere dagokien begirunea igorri nahi izan diet kirol modernoan azterketa abiatzetik bigarren atalean. Inondik ere figurazio deituraz definitzen duten soziologiako hurbiltzea kirolaren eta futbolaren ikerketara gerturatzeko teoria osoa eta funtsezkoa da. Elias eta Dunningen azalpena da kirolaren sorrera Ingalaterran gertatu zela goiko gizarte klaseek boterearen inguruko gatazkak ebazteko indarkeria ohikotasunez erabiltzeari utzi ziotenean. Kirolek minik gabeko gatazka baketsua irudikatu zuten orduan, mimetikoa.

Horiez gain, Grant Jarvie eta Joseph Maguirek (1994) kirolaren eta aisialdiaren soziologiari ekarpenak egin dizkioten soziologiaren ildo nagusiak azaldu zituzten arreta merezi duen lanean. Elias eta Dunningen ekarpenaz batera, lehenik, funtzionalismoak, gizarteko atal bakoitzak osotasunaren mesedetan funtzio eraginkorra betetzen duela dio, eta ildo horretan kirolak gizarteko oinarritzko balioetan eta emozioetan hezitzen dituela norbanakoak. Horrez gain, gaur egungo gizarte konplexu modernoak kirolak elkartzen laguntzen dituela arrazoitzen dute funtzionalistek, eta nazioarteko partidetan taldeekiko identifikazioak indar politiko baterazleak bihurtzen dituela. Nahiz eta aurkako ideologia defendatu, futbolak gizarte funtzioa betetzen duela partekatzen du Umberto Eccok ere. Filosofo italiarraren ikuspegiak eta funtzionalistenak alderdi horretan duten adostasunak tesi honetan sarri azaltzen den futbolaz botereak egiten duen erabileraren gaineko ezbaia aditzera ematen du, eta baita agintearen baliatze horren helmenaren ingurukoa. Eccoren hitzetan, gizarteak bere barneko oreka aurkitzen du, milaka lagun kirolarekin liluratzen bultzatuta, hala beste gauzetaz mintza ez daitezela lortzeko (cfr.Bromberger, 2001: 24-25). Eccok, ezkertiarrek futbolari buruz aritzean maiz egin izan dutenez, ezkortasunez, amarrutat jotzen duena, funtzionalistek baikorki hartzen dute, hots, kirolak eskainitako ahalaren baitako alderdizat, baina biak bat datoz futbolaren gizarte funtzioa aitortzean.

Funtzionalisten abiapuntu baikorraz kontrajarria izaki, soziologia interpretatiboa da Jarviek eta Maguirek aipatzen duten hurrengo soziologiaren ildo, kirola mundutarra, hutsala eta pasio konbultsibotzat duena, eta bi egileon iritziz, bizitzaren alderdi serioari bakarrik erreparatzen diona da, eta modernitatea soilik alderdi ezkorretik ukitzen duena. Liberalismoaren hurbilpena, merkatu askearen abantaila babesten duena, eta marxismo korronea kontrajartzen dira hurrena soziologiaren kirol jorratzean. Jean Marie Brohmen ikuspegia adierazgarria da marxismoaren inguruko pentsalariak kirolaz eta futbolaz oroz gain hezurmamitutako kritika gogorreko gogoeta ezagutzeko. Marc Perelmanekin batera futbola emozio izurriarekin alderatzen zuen liburu argitalpenean adibidez, amaitezineko kritikak egin zizkion futbolari, gizakiaren izaera ezkorra haragitzen duen jarduna izango balitz bezala. Botereak herria lokarazteko aintzinako erromatarren zirkoko ekitaldiaren gisako XX. eta XXI. mendeko jarduera zatekeenaren oinarrizko kritika errepikakorretik eta aski ezagunetik abiatuta, indarkeriarekin eta nazionalismo adierazpen muturrekoekin lotzen dute futbola (Brohm eta Perelman, 2006), gertaera bakanetatik gehiegizkoa den orokortzea eginda. Marxismoaren ikusmoldeetik halaber, futbola kapitalismoaren funtsa munduan barreiatzeko baliabidea da ildo berean, masa ikuskizun oparoena den heinean.

Hurbiltze horiez gain Pierre Bourdieuren boterearen eta ohituraren behaketarena, feminismoarena eta ziurgabetasuna eta aldaketa aroa argitu nahi duten postmodernismo azterketa eta globalizazio eta mendekotasun hurbiltzeak nabarmentzeko modukoak dira. Biarnoko soziologoak kirol eta aisialdi jardunei buruzko azterketa sakona burutu zuen, eta norbanakoen eremu horietako hautuak aurretiaz bideratuak direla ondorioztatu zuen (Bourdieu, 1979: 231). Gizarte klaseen garrantzia faktore eragileen artean nabarmendu zuen Bourdieuk, hau da, kirolen hautua eta esanahia azaltzean. Dena dela, tesi honen egikaritzan, generoaren azterketa, eta horren baitan, feminismoaren kritikaren ekarpena, eta ezjakintasunezko garaia eta globalizazioaren nolakotasuna ukitzen duten soziologia alorrak esanguratsuagoak dira. Izan ere, nazio nortasunak eta futbola uztartu nahi diren neurrian emakumezkoen tartea eta parte-hartzea zehaztu beharrekoa delako alde batetik; eta bestetik globalizazio eta modernitatearen eraldaketaren gisako askotariko ikuspegiak aintzat hartu orainaldiaz gain, epe motz eta ertainera begirako behaketa aurkeztea nahi den neurrian.

Gizarte modernoek azken mende laurdenean jasandako aldaketez ezjakintasuna zehaztu nahirik hainbat ikerlarik postmodernitatea moduko kontzeptu lausoak baliatzen

dituzte, askotariko aldaketa aroaren onarpenetik harago postmodernitatearen zentzuaren inguruan adostasun zabalik ez dagoen arren. Antzera gertatzen da postkolonialismoaren kontzeptuarekin ere. Izan ere, kolonia garaia ondoz ondo menderakuntza harremanak tarteko, lausoa da kolonialismoa eta ondorena bereizten dituen (Bale eta Cronin, 2003: 3). Alberto Meluccik kritikatu du kontzeptu zaharrei zentzu berria esleitu nahi zaiela gizarte modernoaren berritasun egoeraren aurrean gizarte zientzien adituen artean dagoen ezjakintasuna estaltzeko. Teoria oinarrikerik ez dutenez gero, antzuak direla arrazoitzen du (Melucci, 2001: 72-73). Aro ezberdina bizi dugunaren jakituria da denak batzen dituen. Kolonialismo ondorenari dagokionez, munduan denbora eta espazio mugen hausturari lotuta, globalizazio eta menderakuntzazko ikuspegiak kontrajartzen dira neurri batean, eta badute futboleko nahiz kiroleko oro har ere egokitzapenik, kultur ondasunak izanda Mendebaldearen balioak eta mundu ulermena hedatzeko gailuak izan baitziren kirolak, industria aroari uztarturiko lehia eta norbanako nahiz talde mailaketaren beharrezanaren igorleak. Bide horretan, lekuan lekuko bestelako balio oinarrietan errotutako sinismenei gainjarri zitzaizkien kolonialismo aroari uztartuta. Futbolarekin hedatu zen gainera, mundu osora ere, Mendebaldearen politika komunitatea antolatzeke sorkuntza, estatu-nazioa.

Christian Brombergerrek dioen moduan, futbola gizonezkoen mundu kulturaren erreferentzia bakanetakoa izatera iritsi da, denek ulertzen dutena, eta erregioen, nazioen eta belaunaldien aniztasuna gaintzeko gai dena (Bromberger, 1998: 24). Ildo horretan, Dunningek zehazten du (1989a: 324) kirolaren soziologia gutxi aztertutako eremua izan dela aintzat hartuta eta gizonen ikusmoldea oro har soziologian gainjarri denez, ez dela harriztekoa gizonezkoen menderakuntza eta kirol modernoaren izaera patriarkala gutxitan ezbaian jarri izana. Izan ere, futbolari dagokionez, sortzez gizonezkoen nagusitasunezko familia ereduak islatu zuen (Giulianotti eta Robertson, 2009: 14). Emakumeek gizartean jasaten duten beheramendua salatu eta gizonezkoekin parekotasuna aldarrikatzen duen feminismo mugimenduaren barruan hurbilpen ezberdinak izan dira kirolera. Feminismo liberaltzat joa izan denak kirolaren baitan aldaketazko urratsak egiteko abagunea badela defendatzen du, eta beste eremuetan bezala, emakumeen eskubideak gizonezkoen adina bermatzen saia daitezkeela. Muturreko feminismoztat joa denak ordea, kirola eta futbola gaitzesten ditu emakumeen gizonekiko beheramenduaren gizarte ereduaren birsortzailea dela arrazoituta.

Egokia da emakume kirol parte hartzeaz historia zehaztapena egitea. XIX.gizaldi amaieran emakume futbolak lehen loraldia izan zuen, eta milaka ikusle aurrean gertatu ziren partidak. Baina Lehen Mundu Gerraren ondoren euren parte-hartzearen inguruan eztabaida jazo zen. Aurka zeudenek deitoratzen zuten emakumeek sendiko betebeharrak ahazten zituztela eta gorputz adarrak ooren begiradapean azaltzen. Aldekoek bestalde, alderatzen zuten Lehen Mundu Gerran gizonen ustezko betebeharrak burutu zituztelako guda amaitzean kirolean aritzeko ahalbidea zutela emakumeek (Wahl, 1997: 47). Gerran sortutako Ingalaterrako nesken klubek Britainia Handian, Frantzia eta Ipar Amerikan zehar 67 partidako bira egin zuten 1921ean, denen ikusleria batuz 900.000 futbolzaleren kopururaino heltzeraino. Ingalaterrako futbol elkargoak eragotzi egin zuten partidak bere jabetzako zelaietan jokatea, eta funtsean emakumezkoen futbola amilarazi zuen modu horretara (Giulianotti eta Robertson, 2009: 14). 1930eko hamarkadan ia desagertu egin zen, eta 1960ko hamarkada arte ez zen berpiztuko (Wahl, 1997: 47). Gizonen futbolaren itzalpean izan da beti ere, salbuespenak salbuespen, AEB Ameriketako Estatu Batuetan emakumeen futbolak eskuratu duen loria tarteko.

2.Atala

Marko teorikoa: Nazio nortasuna

2-Nazio nortasuna

Ikerketan muina izango den nazioaren eta nazio nortasunen alorrera hurbiltzeko beharrezkoa da hastapenetik teoria zehaztapenak helaraztea, ez bai teorikoen eta ez hain teorikoen, ideologikoen, jomuga izaten jarraitzen baitute gaur egunean horien inguruko kontzeptuek. Ildo berean, ikurren garrantzia nabarmentzea nortasun kolektiboen osaeran eta globalizazio fluxuen hazkundeak ezaugarritzen duten gaur egungo garaiaren izaera azaltzea. Futbola komunitate irudikatuaren ekitaldi kolektibo gisa epaitzeak osatzen du hasierako teoria zehaztapen hau, aitzinetik nazio nortasunen, futbolaren eta hedabideen lanaren hartueman zurruna aditzera ematen duena, hau da, ikerketaren abiapuntu alorra.

2.1-Nazioa

Abiapuntu gisara Benedict Andersonek plazaratutako nazioaren definizioa neure egingo dut, gizarte zientzietan onarpen zabala jasotako teoria izaki, eta futbolaren gizarte adiera aztertzerakoan halaber. Imajinatutako politika komunitatea da nazioa, eta muinean mugatua eta burujabea gisa imajinatua. Irudikatua da nazio txikienaren kideek ere ez dituztelako ezagutuko euren komunitate kide gehienak, ez topatu, ez eta horietaz entzun ere, eta bakoitzaren buruan lekutzen delako euren loturaren irudia. Andersonen hitzetan, aurrez aurreko harremaneko herri txikiaz gaindi komunitate denak imajinatuak dira (Anderson, 1991: 6). Hala ere, irudikatuak direlako ez da beren garrantzia beheratu behar. Etimologikoki nazioa kontzeptuak latinerako jaiotzatik eratorritako esanahia du. Anthony Smithek Andersonen bestelako definizioa plazaratzen du, etno sinbolismotzat

definitzen duen teoriatik nazioaren etnia sorrera lehenetsita. Andersonen imajinatutako komunitateok sortzezko etnia heldulekuaren oinarria izango lukete berak egoki dioenez.

“Izendatutako eta bere burua definitutako giza komunitatea, zeinaren kideek partekatutako oroimenak, sinboloak, mitoak, tradizioak eta balioak ereiten dituzten, lurralde historikoetan edo ama lurretan bizi eta horiei atxikitzen zaizkien, kultur publiko bereizgarria sortzen eta zabaltzen duten, eta usadio partekatuak eta lege komunak bideratzen dituzten” (Smith, 2009: 29-30).

Legediari nazioaren definizioan erreferentzia eginda estatuarekin antzekotasuna iradokitzen du Smith. Izan ere, administrazio bateratzeak eta horren baitan legeenak, eta bereziki estatu hezkuntzak, jendea herrialde bateko hiritar egin zuen. XIX. mendean politika nazioen mailakoa zen, eta funtsean estatua, nazioa eta gizartea bateratu zituzten (Hobsbawm eta Ranger, 1983: 264-265). Horiek hala, Michael Billigek dioen moduan, gizarte zientzietan gizartea berezko izatetzat ematen dute ikerlariak ere, eta are gehiago jakintzat jotzen dute estatu-nazioa dela gizartearen oinarritzko eremua, hau da, gizartea estatu-nazioaren irudira eraikia da (Billig, 1995: 53-54). Horrek ez du esan nahi izaera berdinekoak direnik, baizik eta nazioa eta nazionalismoa berezko izatetzat gizarteratuak direla. Izan ere, Smithen hurrengo zehaztapen hau gehituta, estatua lurralde jakin baten baitan indarraren eta ordainarazpenaren monopolioa duten erakunde publikoen multzoa da, eta nazioak kultura oinordetzaren eta politikaren batuera esan nahi du (Smith, 1997: 13). Billigek dioen moduan, estatu-nazioak burutu ondorenean nazionalismoarekin zer gertatzen den deskribatzeko urratsik ez da egiten. Nazionalismoa berehalakoan ezereztu egingo balitz bezala agerrarazten dela dio (Billig, 1995: 44). Estatu-nazioaren presentzia berezkotzat adierazi nahi da horrela, ezinbestekoa, eta nazionalismoaren egitekoa estatu eraikuntzara mugatuta. Bestalde, nahiz eta nazioen sorkuntza bidean etnia eta kulturaren oinordetzari garrantzia nabarmena aitortu, Smithek zehazten du ez dagoela iragan etnien eta gaur egungo nazioen artean erabateko banan banako jarraipenik, eta hortaz, hainbat nazioen sorkuntza etnia faktoreetatik at uler daitekeela (Smith, 2009: 111). Esan nahi baita nazionalismoen arteko gatazketatik, eta historiaren botere harremanetatik.

Hain zuzen ere, nazionalismoaren ekimenaren garrantzia goraiatu eta iraganeko talde nortasunen funtsa horren indarraren baitan beheratu duena izan da nazio izatearen gogoeta teoriko garaikidean gainjarri den korrante modernistaren ildoak. Eric Hobsbawm

historialariari jarraiki esaterako, nazionalismoek nazioak aitzinetu zituzten. Nazioek ez dituzte estatuak eta nazionalismoak sortzen, bidea alderantzizkoa zatekeen (Hobsbawm, 1992: 10). Ernest Gellnerrentzat nazionalismoa kultura eta politika ezkontzeko saioa da, hots, kultura bati aterpe politikoa hornitzekoa (Gellner, 2009: 58). Nazioa eta estatua berdintzeko saioa da funtsean. Alabaina, nazionalismoak ez lituzke aurretiazko nazioak iratzarriko, ez da horretara mugatzen Gellnerren irudiko. “Nazionalismoak aurretiazko, historiak ondareztat utzitako kultura-ugaritasun edo kultura aberastasuna baliatzen du, baina oso modu hautazkoan, eta sarri askotan, errotik aldatzen ditu kulturok” (Ibid., 72). Tradizioen asmakuntzaren bitartez, nazio nortasunak gizateriaren berezko ezaugarriak, eta areago, betirakoak bailiran sortu zituzten, Michael Billigek gaineratzen duenez, eta nazionalismoa izan zen nazioen mundua berezko bihurtu zuen ideologia (Billig, 1995: 26, 37).

2.2-Nortasuna

Horrela, Eric Hobsbawmentzat argia zen ez dela ahal nahikoa nazionalismoaren aitzindaritza izatea, proto-nazionalismotzat definitzen zuena egotea, nazio nortasunak, nazioak edo estatuak sortu ahal izateko. Kultur, hizkuntza, usadio eta erlijio partekatuak ez dira aski ondorioz nazioa bideratzeko. Izan ere, hark argudiatu zuen txikia dela nazio mugimenduen kopurua, estatuaren jabe izan nahiz izan ez, mugimendu horiek garatzeko ahalmena zuketen giza taldeen kopuruarekin alderatuz. Nazioak estatuaren ezarpenaren ondorio usuago direla zehaztu zuen sortzaile baino gehiago. Dena dela, estatuaren izate hutsa nazioa eraikitzeke nahikoa ez dela gaineratu zuen (Hobsbawm, 1992: 77-78). Izan ere, gizateriako estaturik boteretsuenetakoa, SESB, Sobiet Batasuna, ez zen gauza izan 74 urteko agintearen buruan nazio nortasun berria sortzeko (Castells, 2003: 61). Oro har modernistek, nazioaren sorrera nazionalismoaren bidetik azken hiru mendeetako gizarte baldintza berezietan kokatzen dute, industria kapitalismoaren eta hiritartze bilakaeraren bidetik besteren artean, Smithek lehenesten dituen sortzezko etnia tasunak ahaztu gabe, baina nazionalismo indarraren baitan beheratuta. Goi kultura estandarizatu, homogeen eta zentrotik eutsiak eratzea ahalbidetu zuen aroan lekutzen du Gellnerrek (2009: 71). Smithek berriz, alderatzen du, nahiz eta nazioak politika erakundeez hein batean errotu daitezkeen, epe luzera begira etnia eta kultura osagaiak behar dituztela elkartasunezko komunitatea eratzeke, batik bat alderdi subjektiboetako nazio nortasun zentzuan daukan

eraginagatik. Smithek azaltzen du nazioak ezin direla soilki eliteen proiektuak bailiran hartu, eta kontuan hartu beharra dela elite eta gizarte zabaleko hainbat alderdiren arteko hartuemanaren konplexutasuna, non hiritarrak sinboloekin, mitoekin eta oroitzapenekin eragin nahiko dituzten (Smith, 2009: 20-21). Nazio identitatea ertz askotakoa da, klase, erlijio edo etnia identitateekin batzen da, eta baita ideologiek ere, liberalismoarekin, faxismoarekin edo komunismoarekin, eta ezina da alderdi batera mugatzea eta hiritarrei bide artifizialekin errazki barneraraztea, Smithek arrazoitzen duenez (Smith, 1997: 13). Nazioaren gaineko hausnarketak ere askotarikoak dira, maila berean. Horren lekuko da esaterako, Miroslav Hrochek nazioa definitu zuela estatuen feudalismoaren gizartetik hiritarren kapitalismo gizarterako trantsizioan izandako aldaketan parte gisa, eta horren ondotik patriotismoa gizarte kontzientziaren osagaia bihurtu zela. Modernitateko aroan jarri zuen beraz nazioaren sorrera, baina modernistengandik ezberdinduz, nazionalismoa aitzinetu egin zuela nazio modernoaren izaerak arrazoitzen baitzuen Hrochek (2000: 8).

Ernest Gellnerrek aipatzen duenez, taldeak eratzean eta mantentzean bi alderdi eragin nagusikoak dira, nahia, borondatezko atxikimendu eta identifikazioa alde batetik, eta beldurra, hertsadura eta bortxa bestetik. Hala, norbere identifikazioaren eta itxaropen eta beldurrei eragiten dieten kanpotiko pizgarri positibo eta negatiboen nahastura izango litzateke talde iraunkor gehienen osaera (Gellner, 2009: 69). Norbanakoaren hautuaren eta elitearen zuzendaritzaren eta agintearen artekoa da horrenbestez nazioaren proiektua. Hobsbawmi (1992: 10) jarraiki, nazioak izate bikoitzak dira, funtsean goitik eraikiak, baina behetik aztertu gabe ulertu ezinak direnak, hots herri xehearen bizipenak hartzeke. Anthony Smithen hitzetan, nazioak, estatuetatik ezberdinduz, ezin dira intelektualen edo beste eliteen borondatearen ondorio soilak izan, eta populazio zabalagoaren sostengurik ezean, ezta gizarte giltzarri prozesu sinbolikoak garatu gabe. Herri tradizioak, balioak, memoriak, mitoak eta sinboloak beharrezkoak direla eta nazionalistek xede politikoekin berrasmatzen eta egokitzen dituztela dio (Smith, 2009: 59). Bat nator baieztapenarekin, eta futbolaz nahiz kirolaz uztartzen dela ikusi ahalko dugu. Berrasmatzearen zantzu hori Gellnerren kontrakoa da, aurretiazko talde izaera iradokitzen baitu, eta nazionalismoak egiazki kulturak asmatu edo ezereztan dituela defendatzen baitu Gellnerrek (2009: 64).

Nazioa sortu eta iraupenean, objektibotzat jotako ezaugarriak, ezta subjektiboak, borondatezkoak, ez dira ebazgarriak (Hobsbawm, 1992: 8). Hala etnia nazionalismoaren eta zibikoaren arteko ustezko talka kontrajarria iradokitzen da, Smithek zehazten duen

gisa nazionalismo ekimen orotan egiazki osagai zibiko eta etnikoak nahasten direnekoa (Smith, 1997: 11). XVIII. mendeko nazionalismo etnikoak Johann Herderren pentsaeran izan zuen iturburua, eta Ernest Renanen ustezko nazionalismo zibikoa, frantziar nazio eraikuntzaren irudira azaldutakoa, alderatu zitzaion. Sorbonneko Unibertsitatean eskaini zuen hitzaldian Renanek arrazoitu zuen iraganeko loria eta batera bizitzeko borondatea zirela nazioaren oinarria, lurralde mugen eta arraza eta hizkuntza aniztasunetik haratago. Bere hitzetan, eguneroko plebisituaren modukoa da nazioaren izatea, eta ez luke inoiz benetako interesik izango herrialde bat bere borondatearen kontra atxikitzeko. Nazioen borondatea zatekeen horrenbestez, bidezko baldintza bakarra (Renan, 1882). Iraganeko aintza aipatzen duen heinean historiaren asmakuntza dario neurri batean, etnien nolabait sustraitu nahia alegia, historia pasarte batzuk nahita ahazteko nazio nahiaz zilegitu nahi badu ere geroago, alegia borondatearen arrazoibidearekin lehenetsiz. Eta ezina da esatea nahia izan duten nazio proiektu guztiak historian nazio edo estatu-nazio bihurtu direnik. Horregatik denagatik, Joxe Azurmendik filosofia katedradun euskal herritarrak bereziki sakontzen duen moduan, ez da egokia bereiztea batetik, zibikotzat jo izana den Ernest Renanen eta Frantziatik eratorritako nazionalismo aldaera, eta bestetik, etnikotzat epaitu den Johann Herderren eta alemaniar jatorriko nazionalismo etnikoa (Azurmendi, 2003). Bitasun horrek ere ez du balio horrenbestez nazioa arrazoibidezko gailuekin definitzeko.

2.3-Ikurren garrantzia nortasun kolektiboetan

Estatu-nazioaren mugen barruan naziotasuna eta hizkuntza homogeneous batzeko nazionalismoaren usadiozko helburua ere okerra izan da. Woodrow Wilson AEBetako presidentek Lehen Mundu Gerraren amaierako egitasmoan desegindako inperioetatik autodeterminazio eskubidean errotutako Europa marraztea proposatu zuen, estatu-nazio homogeneousetan oinarritutakoa. Bi gerren arteko epean gutxiengoaren jazarpena izan zen abiapuntu horren arrazoizko ondorioa. Lurralde nazio homogeneousen asmoa ankerrek bakarrik burutu zezaketen, Hobsbawmek ebazten zuen moduan, edo helburu ankerrekin behinik behin (Hobsbawm, 1992: 133-134). Areago, nazio homogeneousoko estatu izaera, historiari erreparatuz gero, fikzioa da Jürgen Habermasentzat (1998: 91). Horrenbestez, borondate hutsa ez, ez eta etnia jatorria ere, ez dira nahikoak nazioen sorrera eta irautea azaltzeko, komunitateen irudikatzea eta hiritarregan maiz eragiten duten hunkipenezko lilura ulertzeko. Anthony Smithen hurrengo arrazoibide honek nazioen asmakuntzaren

zilegitasun beharra eta horiek eskainitako betegaia azaltzen du, eta Andersonek izendatu zituen imajinatutako komunitateak eratzean sinbolo erabilera nabarmentzen du Smithek.

“Sinboloen erabilerak – bandera, moneta, ereserkia, uniformeak, monumentua eta ekitaldiak – oroitarazten die partaideei partekatzen duten ondasunak eta kultur antzekotasunak, eta identitate sentipenak eta baterako partaidetzagatik indartuak eta goratuak senti daitezela bultzatzen du. Atxikipenak eskuratzen dituen taldea bihurtzen da nazioa, oztopo eta zailtasunak gainditzen dituenena” (Smith, 1997: 15)

Elitearen eta herriaren artean zubi bidea eginez hedabideak daude, eta hain zuzen ere horien aitzindaritzak izan zen Benedict Andersonek dioen moduan, XVIII. mendean nazio komunitatea imajinatzen lagundu zuen aldiberekotasun iraultzaren funtsetako bat, eleberria eta egunkaria alegia. Kazetari dagokionez, irakurlea jakitun zen bera egiten ari zen irakurtzeko ekintza euren izateaz sinesmena zuen milaka edo milioika pertsonen errepikatzen zutela aldi berean, zeinen nortasunaren gainean inongo zantzurik ez zeukan (Anderson, 1991: 35). Prentsa, zinema eta irratia bidetik masa hedabide modernoek hedapenak estatuentzat propagandarako baliabide izan zitezela bultzatu zuen, baina Eric Hobsbawmek egoki aipatu zuen eragingarriagoa izan zela nazio sinboloak norbanakoen eguneroko bizimoduan txertatzeko zuten ahalmena, eta pribatuaren eta herri eremuaren eta alderdi publiko eta nazioaren arteko banaketa jausarazterakoan. Hedabideez gain, nazioarteko kirolak pribatuaren eta publikoaren artekoan zubi lana egin zuen XX. mende hasierako hamarkadetan (Hobsbawm, 1992: 142), eta talde nortasunen sinboloak izango ziren neurrian hedabideen ekimenarekin elkartu ziren. Bada, masa kultura, publikoa eta komuna bermatzeko eginkizuna herri gizarteratze agenteen eskuetan zetzan, hezkuntza sistema publikoan eta hedabideetan bereziki (Smith, 1997: 10).

Ildo berean jarraituz, Craig Calhouni jarraiki, harreman zuzenik gabeko jendea politika sinboloen bitartekaritza beren burua komunitateen kide imajinatzerara eramana da, zeina aurretiazko ezaugarri bereizgarriekin, norbanakoen gustuarekin, ohiturekin eta kezkekin hezuramaitzen den. Komunitatetzat hartuak dira kidetasun sentimendu bizia tarteko, interes bateratuagatik eta identitate partekatuagatik. Aldi berean ere imajinatuak direla zehazten du Calhounek herri hurbileko komunitateetatik eta pertsonen zuzeneko harremanak garatzen dituzten erkidegoetatik ezberdintzen baitira (Calhoun, 1991: 108).

Calhounek aurrez aurreko harremanetan oinarrituriko komunitateak eta bitartekotutako harremanetan oinarriturikoak bereizten ditu. Azken hauetan dago nazioa, irudikatutako komunitate gisara. Hobsbawmek eta Rangerrek berretsi egiten dute jendea hiritartasunaz kontziente den pasarte gehienetan sinboloekin eta errito moduko jarduerekin uztartzen denean gertatzen dela, eta horietako gehienak berriak eta asmatutakoak direla: banderak, irudiak, ekitaldiak eta musika (Hobsbawm eta Ranger, 1983: 12). Horiek hala, Craig Calhounentzat irudikapenezko komunitate hauek sortzeko telebistak eta bestelako masa hedabideek ahal eskerga dute, identifikazio eta antagonismorako objektu gisa (Calhoun, 1991: 110-111). Telebistak oroz gain aldiberekotasunaz benekotasunezko bizipenerako tankera igortzen duelako. Zeharkako harremanetan sustraitutako XX.mende amaierako ezaugarri garaikidea nabarmentzen du Calhounek, imajinatutako komunitateen baitakoa.

Sinbolo edo ikurrek identifikazio bitartekoak mahaigaineratzen dituzte, zernahi zeharkako komunitate dela ere, partaide ezezagunen arteko identifikazioa ahalbidetzen dutenak, hedabideen laguntzaz sarri askotan, baita aldi bereko ikuspenaz ere. Nazioaren sorreran dagoen ezezagunen arteko lotura norbanakoen identifikazio kolektiborako iturri diren sinboloekin burutzen da. Sinbolo izaera duten objektu, bandera, jokaera, hizkuntza nahiz bestelakoek bideratzen dute zeharkako harremanen mailako uztarpen sinbolikoa. Tesiaren arreta iturri, jomuga eta ikerketa bitarteko den futbolak inondik ere, sinboloen hedapen tresna izatearen abantaila du, bere ordezkari ahalmenari jarraiki. Hala, biko lehiatzeko aurkaritzak koloreak, armariak, jantziak, elastikoak, nahiz ereserkiak alderatu ditezela egokitzen du, eta abagune horretan identifikazio beharrean dagoen norbanakoak unean unean neurketan dauden alde batenganako identifikazioa eta atxikipena agertzea. Futbolak, gainontzeko taldekako kiroleratik bere burua nabarmenduta, zeharkakoak eta imajinatutakoak diren komunitateei bitarteko oparoa ematen die beharrezkoak dituzten sinboloak bertan hedatu eta eraberritzeko. Are gehiago, ikurrek garrantzia berezia hartua duten gaur egungo informazioaren gizartean.

2.4-Nazio nortasunak globalizazio garaian

Ikerlari askoren begietara nazioak eta nazionalismoa, biak ala biak, modernitate garaiari lotuak daude, eta horrenbestez, postmodernitate garaitzat definitzen den garaian desagertzeko joera izango zuketean. Grant Jarvieren azalpenari jarraiki, XVIII.gizaldiko

berpizkundeak modernitatea uztartu zuen hurrengo ezaugarriak nabarmendu zituen aldi historikoaz: Industria ekoizpena, arrazionaltasuna, zientzia positibista, objektibotasuna eta erabateko egiak, ordena eta egonkortasuna. Hala, postmodernitateak ziurtasun horiek guztiak ezbaian jarri zituen hurrengo garaia erreferentzia egiten dio (Jarvie, 2006: 58). Postmodernitateak definitutako aldaketa aro horren ardatzetako bat globalizazioarena da, inondik ere. Globalizazioa gizartearen elkarrekiko mendekotasun zehatzaren handitzea da, eta mundua osotasuna bailitzan hartzeko kontzientziaren areagotzea (Giulianotti eta Robertson, 2009: 2). Roland Robertsonek globalizazioaren sei aldiko bilakaera azaltzen du, XV. mendeko Amerikaren konkistatik XXI. mendeko ziurgabetasuneko aldira.

Horiek hala, XX. mende bukaera eta XXI. mende hasierako garaiko globalizazio eraginaren handitzeagatik, modernismoaren ikusmoldean oinarritutako hainbat ikerlariek diote indar globalek eta gertuko atxikipenek hainbeste narriatu dutela nazioaren nahiz estatu-nazioaren ahalmena ezen azken bi mende hauetako erdigunezko funtzioa galdua daukatela giza antolaketa politikoan. Hobsbawmen hitzetan, nazioak eta nazionalismoak historian jarraitu egingo dute, baina bigarren mailako betekizuna edukita (Hobsbawm, 1992: 191). Anthony Smithek alderatzen du gutxienik indar globalek estatu-nazioaren homogeneotasuneko ikusmolde klasikoa ordezteko bultzatu dutela, bere barruan dauden etnia komunitateen eta nazioen beharrak egokituko dituen estatu-nazio postklasikoaren norantzan (Smith, 2009: 119-120). Izan ere, gaur egungo globalizazioaren nolakotasuna azaltzeko Roland Robertsonek globalizazio kontzeptua hartu zuen ekonomia eremutik, gizarte eta kultur alorreko bi alderdiko aldaketa adierazteko. Kultura globalen sorkuntza iragarri zuen, zeinean hurbilekoaren eta globalaren arteko bereizketa garbia desagertu egin zen. Futbolera aplikatuta ere bereizitasunaren unibertsalizazioa gisara globalizatu egin zen XIX. eta XX. mendeen arteko aldaketan Robertson eta Giulianottiren esanetan (Giulianotti eta Robertson, 2009: 46-47), eta beraz, homogeneizazioaz gain, aniztasuna eta heterogeneizazioa ere hedatu zen indar globalak gertuko baldintzetara egokitu ahala.

Estatuak indarra galdu du nortasun emale gisa. Ekonomiari eta politikari loturiko arazo handiei aurre egiteko ahalmena galdu du, murriztegia da, eta norbanakoaren ohiko arazo txikiak arduratzeko bestalde, handiegia. Arazoak konpontzeko eskaintzen zuen babesagatik hiritarrek onartzen zioten zilegitasuna kolokan dago horrenbestez. Manuel Castellsi jarraiki, norbanakoak beste iturri batzuetara jotzen du orduan babes bila. Hain zuzen ere, nabarmentzen du irmo altxatu direla globalizazioari erronka jotzen dioten

identitate kolektiboko adierazpenak kultur bereizitasunaren eta jendeak bere bizitzaren eta inguruaren gainean kontrola hartzearen izenean. Batetik, giza harremanak muinetik aldatu nahi dituzten feminismoa eta ekologia gisako mugimendu eragileak leudeke, eta bestetik, erresistentzia aingurak eratzen dituzten aurkaritzazko mugimenduak, besteren artean, Jainkoaren, nazioaren, etniaren, familiaren eta udalerraren izenean. Erdibidean harrapatuta estatu-nazioaren eredua legoke, krisialdian, eta berarekin batera demokrazia politikoaren irizpide garaikidea ere, estatu-nazio subiraian eta ordezkatzailan oinarritu izan den heinean (Castells, 2003: 24). Eredu hori erasan du globalizazioaz gain, estatu-nazioaren eremuaren azpiko etnien iratzarpenak, zeina estatuaren eta etnia nagusiaren ekimen barneratzailearen ondorio izan den (Smith, 1995: 103). Nazionalismoa, sarritan, arriskuan hautematen den identitatearen babesean sortzen den mugimendua dela aintzat hartuta, Manuel Castellsek arrazoitzen duen moduan, globalizazioaren bizitzearen azken hamarkadak nazionalismoaren iratzarpenarenak ere badira, antolatutako estatu-nazioei igorritako erronkan hezurmamitzen dena alde batetik, eta baita bestalde ere naziotasun irizpidean errotutako identitatearen berreraikuntza zabalean, beti ere arrotzat epaitzen denaren aurka aldarrikatua (Castells, 2003: 50). Ildo horretan, estatu-nazioen eraldaketa garaian nazionalismoen iratzarpena gertatu izanak ez du bat egiten mugimendu horren ekimena estatu-nazioaren sorkuntzara mugatzen zuen modernisten teoriarekin. Michael Billigek zentzu horretan ohartarazten du egituratuta dauden estatu-nazioetan etengabean banderen haizatzea eta naziotasun oroitarazpena dagoela. Hala ere, hain txertatua dago, hain jarraikorra da, ezen norbanakoak ez duela modu kontzientean oroitarazlea bailitzan hartzen. Nazionalismo hutsaltzat – *banal nationalism* – definitzen duenaren metonimia irudia ez daugarrez astintzen den bandera kontzientearena, baizik eta, ez kontzienteki eraikuntza publikoan betikotua (Billig, 1995: 8). Hedabideen mezuan oharkapean ezarri ohi diren etengabeko erreferentzia eremuak ere azpimarratzen ditu Billigek, hein batean Benedict Andersonnek azaldutako kazetek sortutako imajinatutako komunitateari jarraiki.

Estatu-nazioak XIX.mendeko testuinguruarekin alderatuz, bestelako egokieran txertatuta daude gaur egun, baita nazionalismoa ere, baina horrek ez du adierazten beren amaiera epe ertainera iragar daitekeenik. Smithek gogorarazten du askotariko aldaketak izanagatik estatu-nazioak izaten jarraitzen duela politika antolakuntzarako nazioartearen aitortpena duen egitura bakarrak. Are gehiago, azken urteetan handiagotu egin da horien kopurua. Etnia arazoak konpontzeko eremu bakarra da era berean, eta estatu-nazioaren iraupena, funtsezko arau orokor gisa, ez da kolokan jarria izan (Smith, 1995: 104-105).

Castellsentzat ere ezin da aurreikusi estatu-nazioa garrantziarik gabea bihurtu denik, eta ezereztuko denik. Biziraun egiten dute historiaren ohiko joeragatik baino gehiago beren baitako nazioen eta herrien defentsa komunitate izaeragatik, fluxu globalen azpian ez galtzeko azken gotorlekuan izaki (Castells, 2003: 338). Aro garaikidearen beste alderdia da, Montserrat Guibernauk dioen moduan, estaturik gabeko nazioen loraldia gertatzen ari dela, ahala baitaukate norbanakoen identitate behar handiagoaren aurrean, leialtasun, solidaritate eta komunitate sentimenduak jaso eta bultzatzeko (Guibernau, 1999: 16).

2008ko finantza krisiak eta osteko ekonomia krisialdiak gardenki ikusarazi du estatu-nazioek ekonomian bederen, behinolako burujabetza galdua dutela, eta krisiaren osteko mundu izaera begiztatzerik ez dago oraindik. Iraganean zuen subiranotasunaren zati handiari uko egin behar izan dio estatuak, ekonomian oroz gain. Europaren kasuan, monetari ere, eta bere mugez gaindiko erabakimenei. Anthony Giddensen arrazoibidean estatu-nazioak oraindik boteretsuak dira, baina beraien nortasunak berrausnartu beharko dituzte. Nazioaz, sendiaz, lanaz, tradizioaz eta naturaz iraganean ziren eran mantenduko ziren gisan hitz egiten jarraitu arren, bestelakoak direla ohartarazten du. Azaleko oskola mantentzen da, baina barnean aldatu egin dira (Giddens, 2000: 31). Jurgen Habermasek Konstituzio patriotismoaren kontzeptua gogora dakar estatu-nazioen eraldaketa garaian. Bere hitzetan, norbere bizimodu mota eta usadioekin identifikazioa abstraktuago bihurtu duen patriotismoak estali du estatua, zeinak nazioari orde, adiera eta oinarri abstraktuei erreferentzia egiten dien, bizimodu askotarikoen bizikidetzeta eta komunikazio baldintzei. Dena den, kultur oinordetzaz elikatu beharra du oinarri horietarako atxikipenak Jurgen Habermasen hitzetan (1998: 101-102). Manuel Castellsek argudiatutako nazionalismoen berpizkundeko garaiarekin kontrajarria dago hein batean Habermasek egitura politikoaz lotzen duen identifikazioa. Castellsekin bat, Giddensentzat ere gertuko nazionalismoak globalizazio fluxuen kontra loratzen dira, estatu-nazio zaharren boterea murrizten doan neurrian (Giddens, 2000: 26). Bada, Konstituzio patriotismoa estatu-nazioen erantzuna izan daiteke goitik eta behetik beren zilegitasuna erasaten duten indarren aurrean, baina esan bezala, talde kultur oinordetzak osatu behar du, Habermasen hitzetan.

Bidenabar, patriotismoaren edo euskarazko abertzaletasunaren eta nazionalismo kontzeptuaren arteko nire abiapuntua azaldu nahi dut hemen, aurrerantzean sinonimoak bailiran hartuko ditudanez. Esaterako, Michael Billigen hitzetan, patriotismoa nazioaren kide izatearen harrotasunetik esleitutako sentipena da, eta ezaugarri baikortzat hartua da,

nazionalismoa muturrekoa, oldarkorra eta ezkortzat joa den bitartean. Dena dela, abiatze hori ontzat emanda ere, ez dago, Billigek esaten duen moduan, jarrera patriotikoa, ustez ona, eta nazionalismoa, txartzat hartua, adimenetik praktikara bereizterik (Billig, 1995: 56-57). Areago, kontzeptuak definitzeko eta bereizteko ildo orokorra da hori. Izan ere, tokian tokiko testuinguruaren eta bilakaera historikoaren arabera, bestelako esanahia har dezakete. Halaber, nortasuna eta identitatea sinonimotzat joko ditut tesian, antropologia eta psikologiaren eremutik ezberdintzen diren arren. Esan nahi baita, nortasuna bereziki norbere jokaera edo aldartearekin lotzen duena, eta identitatea zehatzago, muinekoa eta maiz oinordetzaz eta gizartearen bitartez eraikitakoa zatekeela, genero identitatea kasu. Harluxet entziklopedia hiztegiari jarraiki identitate hitzaren aldaeretako bat da honako hau: Nork bere buruaz duen ezagutza iraunkorra; gizabanako, giza talde, herri edo nazio baten funtsezko ezaugarri-multzoa. Nortasun hitzaren bi aldaera dira hauek: Gizabanako bakoitzaren izaera eratzen duten ezaugarrien multzoa. Horrez gain, beste aldaera bat da pertsona bat besteengandik nolabait bereizten duten eta halako mailan nabarmen izatea dakarten ezaugarrien multzoa. Ondorioz, antzekotasuna ere bada bi kontzeptuen artean, areago identitatea gizarte zientzietan askotariko adieren hitz oro hartzailea den heinean.

Nolanahi ere, Alberto Meluccik dioen moduan, identitateak galdu du dagoeneko osagai edo egitura egonkorra izaki, horren bidez norbanakoak eta taldeak identifikatzen diren muineko izaera. Anizkoiztasuna nabarmendu behar da. Artega iturria eratortzen da ez soilik denboran era egonkorrean norbera identifikatzeko ezinean, baizik eta une jakin batean norberaren alderdi ezberdinetako batekin erabatean identifikatzeko ezintasunean ere (Melucci, 2001: 89). Norbanakoaren identitatea ez ezik, nazioaren nortasuna anitza eta unean unean moldagarria da. Etnia ainguran aurkitu dute biek babesia XXI.mendean, eta nazioarteko futboleko hein handiz, hemendik aurrerako pasarteetan aztertuko denez.

2.5-Futbola komunitate irudikatuaren ekitaldi kolektibo gisa

Tesi ikerketaren teoria esparrua irudikatzen amaitzeko nazioaren, hedabideen eta futbolaren arteko uztarpenaren abiatzea zehaztu behar da. Benedict Andersonen nazioari buruzko azalpena nabarmenduta agertu da lehenago, arrazoizko definiziotzat hautemana eta nazioen sorkuntzan hedabideek izandako berebiziko eraginaren arrazoibidea delako.

Andersonen azalpena zen komunikabide modernoek aitzindarien herritarren aldi bereko kontsumoak komunitate zentzua sorrarazten zuela, telebistak hain zuzen ere handiagotu egin zuen izaera, hautematea eta errealitatea askoz ere hurbilekoagoak bihurtu zituelako, irudiz hornituta. Bada, 1960ko hamarkada berantiarretik abiatuta, futbolak sustatu zuen kontsumo horrek milioika lagunak arretazko ikuspenaren helmena hartzea. Andersonen nazioaren ideia haragitzeko bidean egunkari irakurpenen kontsumo partekatua goraiatu bazuen lurralde baten baitan ezezagunak zirenek antzerako gaiak eta mintzagaiak beren egingo zituztenagatik, telebistaren bitartezko futbol partiden aldibereko hunkipenezko kontsumoa areagoko eraginekoa da, komunitateen arteko erkaketaren eta alderaketaren testuinguruan. Futbolaren hedabideen bitartezko nazio sorkuntza helmenaz konturatzeko egokia da tesian barna, eta hedabideei eskainitako laugarren atalean bereziki, sakonduko den abiapuntu hau aintzat hartzea. Futbol estadioetan bertatik bertara ez ezik, telebista hargailuaren bitartekaritza sinbolo bera partekatzen duten sendikoen nahiz ezezagunen bizipen kolektiboa ahalbidetzen du kirolak, etxean, baina baita tabernetan eta hirietako ekitaldi handietako pantaila erraldoien inguruan ere. Hunkipenezko talde hautematea da, tesi hasierako Yonneten aipuak azaltzen duenez, norbanakoen gizarteaz gizakiak duen beldurra aldentzen laguntzen duena. Emakume, gizonezko, heldu nahiz haurrak batzen ditu nazioaren ideien atzean. Komunitateak partaidetzen dituen eguneroko hizpideak baliatzen ditu futbol ekitaldiak. Gainera nazio atxikimenduetatik haratagokoa da kirolak ahalbidetzen duen imajinatutako komunitatea, askotariko alderaketetan zernahi motako identitate kolektibo haragitzea bideratzen baitu biko aurkaritza sinbolikoa eragin ahala.

Denak darama talde nortasunen sorkuntza sinboloen garrantzia epaitzera eta era horretara nazioak birstortzeko eta zilegitasunaz hornitzeko horien garrantzia hobaritzera. Futbola lehenetsitako komunitate irudikatuaren ekitaldi kolektibo gisa jorratu behar da hemendik aurrerantzean ikerketan barrena, eta hori horrela izan dadin, giltzarria da bere sinbolo izaera eta askotariko jatorriko sinboloak barne hartzeko bere gaitasuna, ereserki ekoizpenetatik hasi eta zale guztiak bateratzen dituen ikur, armari eta banderetara. Oroz gain, zeharkako eta hortaz, imajinatutako, komunitate nagusia aztertuko da, nazioarena, eta hedabideek eta telebistak milioika lagun futbolaz elkartzeko egiten duten berebiziko ekarpena nabarmendu. Futbola nazio nortasunen joko zelaia da, eta futbola gailu oparoa da gainera, estatuak, nazioak eta nazio nortasunak aztertzeko gizarte ikerketa historikoa eta garaikidea burutzeko.

3.Atala

Azterketa historikoa

3-Azterketa historikoa

3.1-Futbolaren sorrera eta hedapena

Gaur egunean mundu globalaren helmenaren tamaina hobekien adierazten duen kirol modernoa, futbola, XIX.mendearen erdialdean sortu zen Ingalaterran. *Association Football* deiturarekin izendatu zuten errugbitik banatu zenean, ordu arte eskuaz jokatzea eta aurkariak jausaraztea baimentzen zuen errugbi kirolak ere futbol deitura baitzeukan. Gaur egun alabaina, ezagun da futbola mundu zabalean oinekin kolpatzen den baloiaren kirola dela, errugbitik bereizita, eta nik gaur egungo esanguraz erabiliko dut esamoldea. Ehun metro luze eta 75 metro zabal inguruko zelaiean, ertz banatan 11 jokalariz osatzen den taldeko atea kokatzen dela, aurkariarenean baloia sartzea xede duen kirol ulertarraz da, garapenaren bidetik aldatzen joan den jokoz kanpokoaren araua salbuetsita. Atearen eta atezainaren eta aurrelariaren artean defentsan ari den jokalaria bat egotea nahikoa da gaur egun beste taldeko aurrelaria baimendutako egokieran egon dadin. 1925ean aldatu zen arau hori, lehenago gehiago behar ziren, eta garapenaren isla zen. Bestalde, 1891. urtean, futbolarekin uztartutako lehia izaerak epailearen lanaren beharra beharrezko egin zuen. Britainia Handian arerioari gailentzeko xedeaz zelairatzen hasiak ziren ordurako futbolariak, dirua jasotzen zuten, eta taldearen alderaketaren baitan atxikimenduen talka ordezkatzeko. Futbolak bere sorreratik bertatik, hau da, XIX.mendearen bigarren erditik aurrera Ingalaterran barrena hedatu zenetik, lurraldearen gaineko atxikipenak sustatzeko baliabide boteretsua zela frogatu zuen (Russell, 1999: 19), estatu horretako eskualdeetan

hasiera batean. 1876ko martxoan 20.000 lagun elkartu ziren Eskozian Galesen kontrako nazioarteko partida ikusteko (Harvey, 2005: 214).

Norbert Eliasek eta Eric Dunningek definitu zutenari jarraiki, Aro Modernoaren asmakuntza izan zen futbola eta ez iraganean askotariko zibilizazioek erabili izan zuten hala nolako baloi itxurako denbora pasa aitzindarien jarraipen edo eboluzioa. Raymond Thomasek, Jean-Luc Chesneauk eta Gerard Duretek *le football* deiturako argitalpenean (1991: 3-10) besteak beste, azteken jokoa, Italiako *calcio* izenekoa eta britainiar irletan oraindik ere ezagun duten *folk football*-a nahiz Frantziako *Soule* aldaera aipatzen dituzte egungo futbolaren lehen urratsak bailiran ¹. Eboluzioaren teoria ezeztatzen dute, ostera, Eliasek eta Dunningek, eta apaltasunez euren abiapuntuaz bat egingo du tesiaren bideak. Norbert Eliasek argudiatzen du industrializazioak eta hiritartze prozesuak eragina eduki zutela kirol ezaugarria zuten aisialdiko erabilpenen garapenean eta zabalpenean, eta are gehiago, aditzera ematen du bi alderdiak europar gizartearen eraldaketa sakonagoaren isla zirela (Elias, 1989: 186). Ebazgarria da, zentzu berean, Sebastien Darbon antropologoak agertutako teoria ere. Lehiakortasun esparruan txertatuta izaki eta antolaketa eta egitura arautuetan, aurretiazko usadiozko jokoekin bereizi egin ziren kirolak. Darbonek berretsi zuen kirol modernoena haustura izan zela, asmakuntza, eta ez eboluzioa (Darbon, 2008: 1). Pierre Bourdieuk ildo berean arbuia zuen kirol modernoak antzinako jaialdiekin, jokoekin eta aisialdiarekin jarraikortasun bidean lotzearen ikuspegi lerroa, eta neurketak eta lehiakortasun funtsak nortasun erabat berriaz hornitu zituela argudiatu zuen.

3.1.1-Industrializazioko aldaketa garaian sortutako futbola

Bada, kiroltzat ditugunak, Aro Modernoko gizarte baldintzen isla eta ondorioak dira, Ingalaterran lehenik eta behin hein handi batean bideratuak. Eliasek teoria ezaguna da ez zela zoria izan indarkeria adierazpenak ohikoak zituzten lurjabe klaseen denbora pasa aski arautugabeak aisialdi baketsuagoetan eta arautuagoetan bihurtu izana, hau da, kirol adierazpenari zentzu moderno eman zioten igarobidea gertatzea. Hain zuzen ere,

¹ Christiane Eisenbergekin oroitzen du beste hainbat autorek eskimalen *Kalagut* izeneko jokoa, errusiarren *lapta*, japoniarren *kemari* zeritzona eta *hornuss* suitzarra, besteren artean, futbolaren aitzindariak izan zirela, eta hala futbola gizateria bezain zehar delako iradokitzen dutela. Futbola egiazki egituratzeko, XIX. mendean erdialdean alegia, aisialdi horiek desagertuta zeudela zehazten du (Eisenberg, 2006: 8-9).

arrazoitzen du aldaketa jazo zela goiko gizarte klase horiek indarkeriari uko egitean, eta gobernuak kontrolpean eduki eta txandakatzeko parlamentu aginte moduak behartutako erarik gorenean euren buruari mugak jartzen ikasten hasiak zirenean aldaketa denboraldi horretan. Beste hitz batzuetan laburtuta, Eliasentzat hartueman nabarmena zen XVIII. mendeko epe berean agintaritza politiko eraren garapen eta egituraren eta Ingalaterrako goi klaseen denbora pasen kirol bilakatze prozesuaren artean (Elias, 1989: 211). Eliasek nahiz Dunningek kirolaren sorrera eta hedapena azaltzen dute gizarteko ezberdintasunak konpontzeko indarkeriaren erabilpena erdeinatzen hasia zen gizateriaren zibilizazioaren eboluzioan txertatutako alderdi gisara, hots, ekimen zibilizatzailean barneratuta balitzan, zeinak boterea partekatzeko eta txandakatzeko parlamentuaren eredia izango zuen beste alderdizat. Arauak adosteko eta betearazteko akordioak usadiozko aisialditik kirolerako igarobidean lehentasunezko garrantzia izango zuen testuinguru horretan. Zibilizazioaren garapenaren erakusgarria zen futbola Erdi Aroan deitura horrekin aipatzen zuten pilota jokoari kontrajarrita. Eliasek eta Dunningek gogorarazten dute Ingalaterrako Erdi Aroko futbolaren aipamenetan errege eta agintarien jokatzeko debekuak gainjartzen zirela, eta orduko joko basatiaren irudia iradokitzen duela horrek (Elias eta Dunning, 1989b: 213). Ekimen zibilizatzailearen emaitza izan, nahiz mundu ikuspegi kapitalistak bultzatutako bizimodu lehiakorren ondorio, onargarria dirudi ebaztea kirol modernoek oro har eta futbolak zerikusi gutxi zutela aurreko mendeetan erabili ohi ziren denbora pasekin.

Ingalaterrako *Public School* zeritzenak, izendapenak bestela iradoki arren izaera pribatukoak zirenak, eta goiko eta klase ertainetako ikasleen heziketarako zirenak, izan ziren geroago futbola eta errugbia bilakatuko ziren kirolen hazia ernetu zutenak, baina Sebastien Darbonek zehazten duenez, alde batetik unibertsitateen jardunari – oroz gain Cambridgekoari – eta bestetik, sortzeko gizarte klub burujabeei, zor zaie egituratzearen mamia eta bi kirol ezberdinetan bereizi izana. Euren kirol zaletasunean jarraitzeko bidea ahalbidetu zieten ikasle ohiei klub sortuberriek. *Public School* izenekoak eurek sustraitu zuten jokatzeko erari oso lotuak zeuden, beste erakundeak behar bezala zituzten maiz, eta ez zeuden beraien artean lehiaketak antolatzeke nahiak jota (Darbon, 2008: 33), eta ildo horretan kirolen arauak bateratzea zailtzen zuten. Aitzitik, Cambridgeko unibertsitateko arauak futbolaren abiatzearen oinarriak izan ziren 1840ko hamarkadan. Cambridgen eta Oxforden hasi ziren klase ertainetako eta goi klaseetako gizonetzko helduak maiztasunez lehen aldiz futbol era berrietan aritzen (Dunning, 2003: 118), *Public School* eskoletatik joandako ikasleak gehienak. Ikuspegi ezberdinak eztabaida iturri ziren. Futbol aldaerak

gizartean hedatu ziren dagoeneko, eta araudiaren beharra agerikoa zen. 1863ko udazken sasoiari Londresko mendebaldeko Freemason' s tabernan sei alditan bildu ziren hamalau klubetako ordezkariak futbolaren arauak hitzartzeko asmoaz. Erakunde ezberdinek kode ezberdina hobesten zutelako kontuan hartuta, araudia bateratuta partida bakoitzaren atarian jokoaren mugak ez adostu behar izatea zuten xede. Areago, denentzako legedia ez ezik, erakunde zaintzailea, FA Football Association deritzona, futbol elkargoa, sortzea onartu zuten. Futbol modernoaren jaiotza ekitaldia zen izatez, erabaki bikoitzak erakundetzea eta hedapena ahalbidetzen baitzuen (Eisenberg, 2006: 9-10). Azken bileran gaur egun ezagun dugun futbolaren eta errugbiaren arteko zatiketa gertatu zen, eskuaz jokatzea eta arerioa jausaraztea arbuiatzen zutenen eta babesten zutenen artean, hots, orduan *football association* gisara ezagun egingo zenaren eta, hala nola, gaur egungo errugbi aldaeraren artekoa. Horrenbestez, futbolaren lehen hamalau lege aitzindariak ipini zituzten, hurrena apurka moldatuko zituztenak (Dietschy, 2010: 40-41) eta Cambridgeko Unibertsitatean 1840tik 1860ko hamarkadara eztabaidatu zuten araudia oinarri zutenak.

Goi klaseen eskumenekoa izatetik 1870. eta 1880. hamarkadetan herri klaseetara igarobidea burutu zuen futbolarik ikusleentzako bertaratzeari uztartutako gizarte adierazpeneko tankera eskuratzera. Herri xehearengan hainbeste arreta piztu zuen ezen klubak dirua ordainarazten hasi zirela partidak ikusi ahal izateko eta denboraren poderioz *herriaren kirola* izena deitura hartu zuela (Dunning, 2003: 124). 1886an IFAB Nazioarteko Futbol Elkarte Kontseilua sortu zen kirolaren hamazazpi legeren betearaztea bermatu asmotan, eta Europan barnako hedapen goiztiarra hasia zenean. Futbolaren sona zabaltzen eragin handikoa izan zen jokoaren eta arauen ulerterratasuna, nahiz eta Christian Bromberger antropologoak kirolaren aurkariari kritikazko begi keinua helaraziz, hain justu ekitaldiak duen garrantzia goraiatuz, munduko huskeriarik handiena bailitzan (Bromberger, 1998: 25-28) definitzean esandakoari jarraiki, ez zen hori arrazoi erabakigarria gertatu futbola herrikoitzean. Sortzezko kokapen zehatzari dagokionean, Ingalaterra ipar-mendebaldeko Lancashire eskualdea giltzarria izan zen, Bolton eta Blackburn hirien arteko ardatzean. Munduko lehen industria iraultzaren sorlekua ez ezik, ikusle kirolaren jaiotzaren lekuko izan zen beraz. Inondik ere lehenak izan zuten eragin zuzenik bigarrena ondorioztatzean. Izan ere, kotoi ekoizpenean oinarritutako industria aro goiztiarrak lehen langileria klase kontsumitzailearen sortzea bideratu zuen XIX.mende amaierarako, eta kirol komertziala ahalbidetutako aisialdi horren erdigunea eta bereizgarria bihurtu zen. Larunbateko egun erdiko beharginen oporraldiak lagundu zuen gizonezkoak lehenengo estadioetara futbol

partidak ikustera bertaratzea emakumeak haurren zaintzapeaz arduratzen ziren bitartean. Sortzez gizonen aldarteari atxikitako kirola izango zen horrenbestez, futbola, eta jende pilaketa kirolari historian barrena leporatutako indarkeria adierazpenak plazaratzen hasi zen.

Ikusleriaren kirola bilakatuta, futbol komertzialaren hedapena eliteen eskoletatik eratorria edo herri usadioen moldatzeetatik bideratua izan zen eztabaidagarria da artean. Esan nahi baita aurreko mendeetan erabili ohi zen, eta indarkeria gertaeren lekukoa zen denbora pasa herrikoia alboratzen ari bazen ere, kirol modernoaren sorburua izan al zen. Adrian Harveyren hitzetan okerra da futbol herrikoari egotzi izan zitzaion basakeriaren ezaugarria, XIX.mendean kode garatuez osatuta zegoela zehazten du, eta nabarmentzen du errugbia eta futbola askotariko eraginez sortuak izan zirela, eskolen hornimen barrutik nahiz kanpotik eratorritakoak (Harvey, 2005: 232). Nolanahi ere, herri futbolaren sona gutxitu zen, eta 1830 eta 1840eko urteetan jazo zen bakantzea, *Public School* zeritzenen baitan gizarte berriari zegokion futbola prestatzen hasiak zirenean, eta piskanaka arauak idatziz plazaratzen ere (Dunning, 2003: 113). Klub asko elizaren inguruan sortu ziren, kristautasun giharren pentsamoldearen inguruan errotuz. Pub-ak ziren, aisialdiko gune zirenez gero, klubak bigarren sortze inguru ohikoenak (Wahl, 1997: 18). Bistan denez, Elizak Erdi Aroko futbol izeneko herri denbora pasekin izan zuen kontrako iritzia aldatu zuen kirol modernoaren etorrerarekin. Gainera, futbola munduan britainiar inperioaren eskutik zabaldu zenean, misiolari kristauek hori erabili zuten bere ikuskera ezartzeko.

Christian Brombergerrek argiki argudiatzen duen moduan, futbolak balioesten ditu, norbanakoaren eraginkortasunaz gain, industria munduaren irudira, haren ekoizkin historikoa izaki, elkartasuna, zereginen zatiketa eta talde plangintza (Bromberger, 1998: 43). Dena dela, industria iraultza ez zen, arestian arrazoitu denez, kirol modernoaren eta futbolaren sorkuntzaren iturburu bakana izan. Askotariko gizarte aldaketek eragin zuten kirol modernoaren loratzea, eta Ingalaterra ipar-mendebaldean bereziki egokiera aproposa jazo zen ekonomiaren hazkundeaz eta aisialdiaren zabaltzeaz haratago. Manchester eta Liverpool hiriak barnean hartzen dituen Lancashire eskualdeko langileria gozamenaren, kitzikaduraren eta herri identitatearen aldarrikapenaren bila ari zen ikusle kirola bihurtu zenaren bidez, kanpotik ekarritako ordezkari profesionalekin izanagatik (Walton, 2012: 10). Futbolarekin batera gainera, cricketa ere gizarte ekitaldia bilakatzea bideratu zuten kotoi ekoizpenean oinarritutako eskualdearen egokieretik.

Estreinako klubetako jokalaria eta zuzendaritzak jokoaren nortasun amateurra betikotzeko eginahalak egin zituzten, garaipenaren garrantzia mugatu eta izaera zuzena edo *fair play* deritzona goraiatu behar zela iritzita. Horrenbestez jokatzeko lanbidea izan zedila arbuiatzen zuten eta zelaietara partidak ikustera zihoan herri klaseetako ikusleria arriskutsutzat beheratzen zuten. Funtsean kirola eliteen esparrukoa izan zedila ziurtatu nahi zuten. Baina ezin izan zuten 1870. hamarkadako diru erabilpena eragotzi. Izan ere, 1880ko hamarkada abiatzean futbola negozio bihurtzen hasia zen (Harvey, 2005: 213). Lehenik futbola ogibide zutenak Lancashireko Eskoziatik joandakoak ziren, eta Londres inguruko *Public School*-etako amateurrez osatutako taldeei Kopa txapelketan gailentzen lagundu zien, Blackburn Olympic-i estreinakoz, hau da, jokatzeko dirurik ez lortzea aldarrikatzen zuten gorako klaseetako klubetako ordezkariak, *Public School*-etako ikasle ohiek osaturikoei. Gizarte elitearen menderakuntza sinbolikoki amaitu egin zen 1883an Blackburnen beharginen garaipenarekin (Wahl, 1997: 25). Edonola ere, eliteak ez zuten futbola alboratu, eta enpresa gizonen klubei eskaintako diru babesa handiagotu zuten. Halaberrez Futbol Elkargoak onartu egin zuen 1885ean kirolaren izaera profesionala, eta 1888. urtean Ingalaterrako liga txapelketa antolatu zuen. Horrela, batezbeste 25.000 ikusle izatera igaro zen Bolton taldea lehiaketaren lehen mende laurdenean. Futbolaren izaera amateurra babesten zuten elitearen eta gainontzekoen gatazka askatua zen jadanik Ingalaterran, eta kirolaren masa izaera burutua zen. Hala eta guztiz ere, aurrerantzean futbola beste lurraldeetara hedatu ahala horietan ere antzeko gatazka errepikatuko zuten. Atzerrian eliteen eta klase ertainen esparrua izateari eutsi zion hainbatetan XX. mendean luzaro jota (Eisenberg, 2006: 13). Bada, *fair play* zeritzon amateur izaeraren jokabidea ezagutarazi zuten britainiarrek munduan zehar, garaipena baino gehiago izatez jokoaren garbitasuna eta kirolaz gaindi ustezko bidezko aldarria aldarrikatzen zuena.

3.1.2-Bi ardatz: emozioen eta identitate kolektiboaren beharraren asebetea

Emozioaren beharrezana eta herri identitate adierazpenarena aipatzen ditu John K. Walton historialariak futbolaren sortze ingurumenari dagokionean, eta biak ala biak funtsezko ideiak dira nire ikuspegitik, eta zentzu horretan baita tesiaren zutabeetakoak ere. Lehenik, gaur egun arte kirolek eta futbolak bereziki izan duten ospearen giltzarria azaltzen du Norbert Eliasek. Kirolek kontraesanezko bi funtzio bateratu behar dituzte.

Giza sentimenduak kontrolpetik aterazi behar dituzte gozotasunez, alegia, gozamenezko emozioa osotasunez iradoki behar dute batetik, eta bestetik, kontrolik gabeko emoziook kontrolpean mantendu ahal izateko nolabaiteko hertsadurak edo mugak bideratu behar dituzte. Eliasentzat kirolak Aro Garaikideko aisialdi askorekin partekatzen du, kontzertu batekin adibidez, sentimenduen gozamenezko kontrol eza kontrolatzeko zeregina (Elias eta Dunning, 1989a: 66). Arazoak konpontzean eta boterea kudeatzean, gizarteak ohiko indarkeria erdeinatu zuenez, eta oro har norbanakoari muga zibilizatzaileak ezarriarazi zizkionez, hark ziurtasuna lortu zuen alde batetik, baina baita gozamenezko sentipenen hala nolako galbidea ere. Kirola izan zen huts horrentzat irtenbideetako bat (Elias, 1989: 202). Oro har jarduera mimetikoek sinesgarritasunezko testuingurua eskainiko lukete, emozioak errazago azaleratzea posible egiten duena, eta nolabaiteko kitzikadurari bide ematen diona bizitza errealekoekin egoerak antzeratuz, baina bere arriskurik edukitzeke. Brombergerrek dioenari jarraiki, gizartea baloiaren inguruko irrikan barneratzen baldin bada, horren arrazoiak datza 90 minutuko laburduran futbol partidak bizitza osoan senti daitezkeen askotariko hunkipenen batura sentiarazten duenean: poza, oinazea, gorrotoa, larritasuna, mirespena eta bidegabekeria hautematea, besteak beste (Bromberger, 1998: 29).

Bigarrenik, Christiane Eisenbergekin XX.mendeaz hitz eginda dioenez (2006: 23), futbolak hobaria erdietsi zuen ordurako gizartearen indibidualizazio joeraz, bilakaera hori mugatzen saiatzen zen bitartean. Futbolak gizarteko geruza guztietara hedatu zen ahala, industria guneean aingura gabeko norbanakoen artean komunitate berriak sortu zituen. Identitate kolektiboak berreraiki zituenez gero, industria gizarte modernoak orekatzen lagundu zuen (Wahl, 1997: 51). Brombergerrek nabarmentzen du futbolaren hedapenak European nahiz munduan antzerako ardatzen bidetik jo zuela. Jardun aristokratikoa zena berehalakoan herri xehearen aisialdia bihurtu zen, eta lantegien beharginentzat, auzune edota industria hiriguneentzat identifikaziorako ardatza bilakatu zen (Bromberger, 1998: 44). Horrenbestez, futbol modernoa bere jaiotzatik bertatik talde nortasunen aldarri eta ordezkartza beharra asetzeari lotu zitzaion. Izan ere, Eric Dunningen esanetan, lurralde arteko kirol ordezkartzailearen eskaria gizarte elkarreraginen egitura modernoan atxikita dago. Industria aurreko gizarteetan ezina zen eskakizun hori azaleratzea, nazio batasun ezagatik, eta garraiobide eta komunikazio bitarteko urriak tarteko, ez zegoelako araudi parekorik ez eta urrundutako inguruetako kirolariak alderatzerik (Dunning, 1989b: 264). Areago, hiriguneetako industrietara lan egitera joandakoek hiriak eta beharginen auzoak

ordezkatzen zituzten futboleko taldeetan lekutu zituzten XIX. eta XX.mendeen bitarteko aldaketan identitate sustrai berriak berenganatzeko ahalbideak (Dietschy, 2010: 61)

Bada, nazionalismoaren eta nazio atxikimendu modernoaren gizarteratzea aisetu zuten baldintzak futbolaren garapenaren arrazoibideak ere izan ziren halaber. Kirolek, eta futbolak bereziki, besteen aurka norbere talde nortasuna bereiztea eta aldarrikatzea ahalbidetzen zuten, multzo nortasunek, eta bereziki nazio nortasunek, ahal bizia hartzen hasiak ziren XIX. eta XX.mendeen arteko igarobidean. Brombergerrek ondorioztatzen duen modura, identitate kolektiboak eta etsaigoak adierazteko lehenetsitako eremua da futbola, eta hain zuzen ere atxikimenduak bideratzeko eta erakusteko ahalean datza bere sonak hein handi batean (Bromberger, 1998: 59). Alfred Wahlek dioen moduan (1997: 26), futbolak herri klaseen interesa erakarri zuenetik eta jendetza neurketetara bertaratu zenetik, jokoaren edertasunaz haratago garaipena lortzea galdegiten zuen, eta langileen talde izaerari lotutako paseen joko nagusitu zen zelaian burgesiaren nortasunari uztartu zitzaion *dribbling game* edo norbanako nortasuneko joko eraren gainetik. Hartara talde nortasunak futbol zelaian islatzea erraztu zuen gogoeta aldaketak, futbola multzo baten talde ahalegina bihurtu zen heinean. Eta bide batez zelaian taldeak irudikatutako joko estiloak berak ordezkatzeko multzoarekin lotura zuzena zuela onartzen zuten.

Ildo berean jarraituz, zentzuzkoa da esatea XIX.mendetik futbol ikusleriak bilatu zuen emozio bizipena eta beharrian ordezkatzailaren asebeta joera beraren bi alderdi liratekeela. Mundu modernoaren arrazoiean oinarritutako pentsaeraren menderakuntzari kontrajartzen zaizkion gizakiaren sortzezko oinarrizko sentipenak direla esan daiteke biak ala biak. Kiroleko irudiek oro har fantasiako munduari erreferentzia egiten diotela azaltzen dute Manuel Garcia Ferrando, Nuria Puig eta Francisco Lagardera soziologoen, zeinean mugarriak eta mitoak lotzen diren gizakiaren oinarrizko edo sortzezko emozio eta sentimenduekin (Garcia Ferrando et al., 2002: 82-83). Eliasek borroka mimetikotzat definitzen du kirola, zeinaren bitartez arrisku gabe gatazkaren emozioaz gozaten duen norbanakoak. Izan ere, era horretara, garaipenaren eta porrotaren arteko itzaropenezko eta beldurrezko sentimenduaren arteko artega hauteman egin dezake, baina iruditeriazko eremuan gauzatzen dira ohikotasunez gaindiko hunkipen bizipenok. Gainera, besteekin baterako adierazpenak diren heinean, gozagarriagoak izan daitezkeela dio Eliasek, baita askatzaileak ere, gizaratean oro har jendea bakandua bizi baita, eta tarte murrizta duelako bere sentipen bizienak taldearen babesean azaleratzeko (Elias eta Dunning, 1989a: 58).

Brombergerrek Elias eta Dunningen argudioari jarraiki, gaineratzen du kirolaren funtsezko balioetako bat emozioak sentiaraztea baldin bada, neurketan alderatzen diren bi aldeetako batekin atxikimendua izatea berebizikoa dela hunkipena mailarik gorenean hautemateko (Bromberger, 1998: 30). Futbolaren muineko balio alderatzaileak eragiten du gardentasunez bere burua eskaintzea talde identifikaziorako eta multzoko partaideen arteko elkartasuna indartzeko, hauteman errazak diren aurkako taldearen eta bere zaleen alderaketan (Dunning, 1989c: 293). Emozioaz gozatzea nahiz talde baten kide sentitzea zentzu horretan pareko bizipenak direla baieztatu daiteke, eta horiek guztiak beste batzuen bitartez, hau da, zeharkako parte-hartzea tarteko dela, gertaera mimetikoarekin, jasotzen ditu norbanakoak. Litekeena da talde nortasunen, eta batik bat, nazioaren adierazpena, XIX.mendeko modernitatetik postmodernitatetzat jotako gaur egungo aldaketa aroa arte futbolaren bidez ondoen burutzea jendeak zeharka, hautatutako ordezkariarekin, gizarte muineko oinarriak plazaratzen dituelako. Lincoln Allisonen ustez, ordea, iradoki daiteke kiroleko emozio mimetikoek segurtasun-balbula bailiran joka dezaketela politika auziei dagokienez, eta hartara sentimendu nazionalistak adierazi eta gogogabetuko lituzketela indartu beharrean (Allison, 2000: 351). Esan nahi baita kirolaren bitarteko neurketarekin norbanakoak berehalako beharrezkoak aseko lukeela eta ez litzatekeela gero politikarekin, bozetako politika hautuetan gauzatuko. Kirolaren eta hauteskundearen arteko igarobidea behatzea konplexutasunez bete da, baina futbol partidetakoa adierazpenak nazionalismo sentipenak murrizten dituztela, horiek asetzen dituzten heinean, irakurketa mugatua eta okerrekoa egitea dela iruditzen zait, futbol nazio aldarriak iraungitze azkarrekoak direla dioen, eta ondorioz, garrantzia gutxiagoak direla ondorioztatzen duen aburuarekin batera. Tesiaren bilakaeran eztabaidagai garrantzitsua izango da aurreiritzi hori, inondik ere.

Gizarte modernoaren kontrolak galdegindako emozioen gainezka kontrolatuaren asetzaren funtzioaz batera, eta gizarte modernoaren identifikazio kolektiborako baliabide nagusietakoa bailitzan sustraitzeaz batera, Dunningek gaineratzen du kirola norbanako askorentzat bizitzari zentzua lekutzeko giltzarrietako bat bilakatu dela (Dunning, 1989b: 266). Erlijioaren garrantziaren galerak oro har XX. eta XXI.mendeen aldaketan utzitako hutsunea betetzera datorrela kirol modernoaren arrazoitzea lekuz kanpokoa ez dela azaltzen du, eta hainbat ikerlarik babesten duten irizpidea da hori. Brombergerrek erlijio errituen eta futbol ekitaldiaren alderaketari dagokionez, zehazten du antzekotasunak plazaratzea egokia izanagatik ezberdintasunak nabarmenak direla. “Futbolak ez du ezertan azaltzen gu nondik gatozen eta norantza goazen, baina nor garen erakusten digu, gure gizarteak

irudikatzen dituzten sakoneko balioak berretsita eta antzerkiaren gisako ikuskizunaren tankera emanda” (Bromberger, 1995: 348-349). Eric Bain-Selbo filosofian eta erlijioan ikerlariak halaber, “sekularismo sakratua” esaera erabilia kirolaren izaera paradoxikoa nabarmentzen du. Gizarte sekularizazioa sustatzen duen bitartean, mitoak sortuta erlijio bizipena indartu duela arrazoitzen du (Bain-Selbo, 2012). Bistan denez, biak alderatzeak erakarri ditu ikerlariak, aski ezberdinak izanagatik, hurbiltzea bidezkoa den adierazgarri.

3.1.3-Futbol mundutiarraren sortzea eta hedapena eta Mendebaldeko balioen globalizazioa

Industria gizartearen sorrerak futbola abiatzeko egokiera prestatu baldin bazuen, iraultza horrek sustatutako munduko merkatu sareen egituratzeak eta kolonia inperioen eratzeak kirolaren hedapena bultzatu zuten (Darbon, 2008: 94). Garraioaren hobekuntza funtsezkoa izan zen. Baporearen asmakuntzak futbolaren garapen goiztiarra aisetu zuen, britainiarrek baloia eta kirol aisialdia eurekin eramaten baitzuten kultur ondarearen eta mundu ikuskeraren alderdia baitzen. Hori horrela, klase gailenen izpirituko kirola, bost kontinenteetan barna hedatua zegoen XX.mende hasierarako. Era berean Mendebaldeko pentsamoldea hedatzea bideratu zuen futbolaren globalizazioak, etengabeko gaitasunen neurketan oinarriturikoa, besteren artean, non hasi berriak ziren kirol lehiaketek eredu eskaintzen zuten gaitasuna epaitzeko (Bromberger, 1998: 43). Lehenik, modernitatearen laborategietan, hots, metropolietan, portuetan eta bestelako industria guneeetan zabaldu zen (Dietschy, 2010: 89). Trenbide sarearen eraikuntzaren baitan ere, Argentinan kasu. Orduan munduan nagusi zen Britainia Handiaren inperioaren menderakuntza bitarteko formalak zirela medio, baina baita eragin ez formalen bitartez ere zabaldu zen kirola, eta inperioaren aginte eraginetik askoz harago ere. Burujabeak ziren lurralde ugari ukitzen zituen, ekonomiaren, salerosketaren eta kulturaren eraginpean eta eragile askoren bidez, misiolarien, merkatarien, industria eta bankuko langileen, ingeniarien, irakasleen nahiz itsas gizonen parte-hartzearen bitartez (Darbon, 2008: 94). Halaber, Britainia Handian hezkuntza jaso zuten gazteek itzuleran futbola ezagutarazi zuten sorterrian. XIX.mende amaieran Industria Iraultzaren ondotik gertatu zen hiritartze prozesuak ehunka milaka laguneko hiriak eratu zituen Hego Amerikan adibidez, eta hara joandako europarrentzat zentzu horretan, futbola kulturen arteko gizarteratzerako hurbileko baliabidea izan zen

(Giulianotti eta Robertson, 2009: 8). Gainera sorterritik urrundutako britainiarrek beren artean futbol partidak antolatzen zituzten euren talde nortasunarekin lotura ez galtzeko.

Futbolak britainiar jatorriko errugbi eta cricketarekin lehia izandako hedapenari dagokionez, interesgarria deritzot Sebastien Darbonek plazaratutako arrazoibidea hemen aipatzeari. Antropologo frantziarren hitzetan, britainiar kolonia agintearen mugen artean lekualdatutako menderatzaile britainiarrak oroz gain kolonia kudeatzaileak eta ardurako zuzendariak ziren, hein handi batean *public schools* zeritzenetatik eta unibertsitateetako prestigiodun hezkuntzatik eratorriak, eta horrenbestez goi klaseen gailentasuna hobesten jarraitzen zuten errugbia eta cricketa gainjartzen zituzten beraien aisialdian. Inperioaren mugetatik kanpo, ostera, salerosketan aritzen zireneka eta goi hezkuntza eduki ez zuten industria beharginena zen britainiar eragina, eta horiek eginaren eginaz futboleka ikasi zuten, profesionalizazioaren bidetik herri klaseetara herrikoitu zen kiroleka, hain zuzen ere. Darbonek dioen moduan, horrek azal lezake zergatik futbola maila handian zabaldu zen Europa eta Hego Amerikan, eta ez hainbeste inperioaren mugen barruan (Darbon, 2008: 95). Britainiar hezkuntza sistemak kristautasun giharren balioetan oinarritu zuen inperioaren ideologia zabaldu zuen kirolen jarduna bidelagun. Misiolariek erantzukizun handia zuten kolonietan ekimen zibilizatzailea bailitza menderatuengan ezartzen zuten hezkuntza zuzentzen, eta baita horrenbestez kiroleka ere, baina behe klaseetako ikasleek kolonietan ere, Britainia Handian gertatu antzera, klubak sortu zituzten eta txapelketak antolatu ere euren aisialdiarekin jarraitzeko, eta eragile nagusiak izan ziren, era berean. Hartara, kirola kolonia inperioaren menderakuntzazko tresna kontzientea eta aurretiaz hausnartutakoa zela ondorioztatzea gehiegizkoa da, Darbonek gaineratzen duenez. Izan ere, britainiarrek ez zuten atsegin beren aisialdiko kirola delako lurraldeko jatorrikoekin partekatzerik, gehienetan euren artean jokatzeka hobesten zuten (Ibid., 306).

Bada, futboleka usadioa izango zen britainiarren mesfidantza testuinguruan jaio zen FIFA erakundea. Nabarmentzekoa da futbolaren hazkundea komunitate politikoaren egitura modernoaren hedapenarekin batera gertatu izana, estatu-nazioen sendotzearekin aldi berean. Europako nazionalismoaren loraldi aroan sortutakoa da FIFA, 1904. urtean. Nazioarteko futbol erakundea 1904ko maiatzaren 21an sortu zuten Belgika, Danimarka, Espainia, Frantzia, Herbehereak, Suedia eta Suitzako ordezkariak, nazioarteko lehiaketa prestatzeka helburu. Dena den, 26 urte baino gehiago itxoin behar izan zituzten ordu arte, 1930eko Uruguako Munduko Kopa ospatu arte hain zuzen ere. XX.mende hastapeneko

nazioarteko kirolaren nolakotasunaren alderdi bikoitza hezurmamitzen zuen erakundeak irudikatutako egiturak. Alde batetik, nazioarteko kirol ekitaldiak maiztasunez areagotuta kooperazioa eta herrien arteko elkar ulertzea sustatzea xede zuten. Bestetik, etengabeko norgehiagoka bultzatzea zeinak kirol merezimenduen arabera nazioen arteko mailaketa plazaratzea ahalbidetuko zuen. FIFAk herrialde bakoitzeko soilki futbol elkargo bakarra aitortzea ebatzi zuen, irudiz izena emandako federazioek euren herrialdeetan futbolaren jardunaren jabetza guztia izan zezaten (Wahl, 1997: 60). Paul Dietschyk dioen moduan (2010: 105), futbolaren erakundetzea zurrunki estatuen esparruan eta hartara politikaren baitan egokitu zen horrela. Nazioen arteko neurketaren bidez estatuetan nazio nortasuna bultzatzeko eta irudikatzeko erronka gainjarri zen ondorioz nazionalismoak eragindako historia aldian ezinbestekotzat har zitekeenez. Nazioartekotzearen baitan nazionalismoa nagusitu zen era horretara futbolaren globalizazioaren onuraduna bailitzan agertuz. Izan ere, Austria Hungaria bezala, nazio ugariz osatutako estatuak ataka berezian jarri zituen futbolaren politikaren hurbileko norabideak. 1912an ospatutako Stockholmeko Olinpiar Jokoetako futbol ekitaldiak FIFAREN lehiaketaren tankera izan zuen. Erakunde horretara atxikitako nazioek eta elkargoek bakarrik aurkez zitzaketen taldeak txapelketarako. Ildo horretan, Bohemiaren eskaera ezetsi egin zuen antolakuntzak federazio baten partaide ez izateagatik, estatu baten jabe ez izateagatik funtsean, Britainia Handiak aldi horretan ere selekzio bakarra izan baitzuen. Txapelketak nazioen arteko neurketa sinbolikorako balio izan zuen. Jokalarien elastikoetan nazio ikurrak aski agerikoak ziren, eta Lehen Mundu Gerra atariko nazionalismo olde oldarkorra futbolaz jabetu zen (Dietschy, 2010: 111). Futbolaren ezagutaraztea indartu zuen Olinpiar Jokoetako nazioarteko lehiaketak, nazioen ohorea babesten zuten 11 jokalariren erkaketaren bidez jasotako sona, funtsean.

Nazioarteko partidak maiztasun handiz antolatzen hasi ziren gerraren atarikoan nazioen aldarrikapenak esangura handikoak zirenean. Hurrengo orrialdeko koadroak, izenburuak adierazten duenez, mintzagai dauzkagun futbolaren hedapenaren giltzarriak laburbiltzen eta egituratzen ditu era ikusgarriagoan. Globalizazioaren eta tokian tokiko nazionalismo adierazpenen arteko futbol gertaeraren biko izaera osagarria, alde batetik, gizonezkoen inguruan errotutako gizarte gertaeraren aipamena bestetik, eta sortzezko hedabideen parte-hartze giltzarria ahortzi gabe ondoren, hasiera hasieratik.

Futbolaren hedapenaren giltzarriak

Globalizazioa

Nazionalismoa

- Garraio bideen iraultzak bideratutako nazioartekotzearen eta Mendebaldeko balioen globalizazio aroaren baitan hedatua.
- Estatu-nazioen hedapenaren beharrezkoak ase zituen futbolak guztiak onartzen zituzten araupean nazioen arteko alderaketa ahalbidetuz. FIFAk futbolaren izaera politikoa eta estatu egituraren baitakoa berretsi zuen hastapenetik
- Gizonen nortasunari loturikoa zen parte-hartzaile eta ikusle modura hasieratik.
- Hedabideen laguntza ezinbestekoa izan zen futbola herri ikuskizuna bilakatzeko.
- Prentsa idatziak hastapenean eta irratia gero indartu zuen 1930eko hamarkadan.

XVI. mendean abiatu zen globalizazioaren areagotze aroari lotua ez ezik, Joseph Maguirek dioen moduan, kirol modernoaren nazioartekotzea nazionalismoaren azaleratzearekin uztartu zitzaion, XIX. eta XX. mendeen artean nazio sentimenduen bizitza gertatu zen heinean, eta etnia izaeran sustraitutako estatu-nazioen sorrera eta tradizioen asmakuntza ildo berean (Maguire, 2000: 365). Nazioarteko elkar ezagutzaren handitzeak eta nazioen inguruko atxikimenduek kultur eremuetan elkarri jarkitzeko nahia piztu zuten. Nazioen burujabetzaren aldarriek eta identifikazioak esanahi berezia eskuratu zuten aro horretan (Giulianotti eta Robertson, 2009), futbola globalizatzen ari zen hastapeneko epean hain zuzen ere. Lincoln Allisonen adierazten du (2000: 345) futbolak, errugbiak eta cricketak nazioen arteko norgehiagokaren pizgarria beharrezkoa zutela eta, era berean, lehiaketa horiek berezko agerpideak zirela nazio identitateentzat, zeinak jendeak horrela berenak egiten zituen. Nazioen arteko mailaketarako edo hierarkiarako eremu sinbolikoak ziren sortzez bada kirol modernoak, eta bi alderdientzat lotura onuragarria izan zen abiatzetik. Lehen Mundu Gerraren ondorenerako futbola munduko herrialde askotan masen kirol nagusitzat hartua zutela aintzat hartuta esanguratsuagoa zen talde eta nazio nortasunekin uztarpena. Ildo horretan, Mike Croninek futbolak hala nolako mundu mailako hizkuntza partekatu gisara bere gain hartua zeukan nazioek indarrak neurtzeko egokiera funtsa era gardenean plazaratu zuen, herrialdeen usadio eta nortasunarekin sortzezko lotura zuten kirolek bereizita. Beste nazio baten aurkako garaipenak euforia modukoa sorrarazten du, nazio harrotasuna eta norbanako izaera taldea babestuz eta nazio koloreek, banderak eta ereserkiak lagundutako sinbolismoaren baitan bateratzea. Irlandako Joko gaelikoen gisako bertakotutako lehiaketek, nazioarteko lehia bideratu ez dutenek, ez dute ahalbide hori eskaintzen, nazioaren izaerarentzat esanguratsuak izanagatik, identitatearen egiazko

azterketa besteekin alderaketan gertatzen delako. “Bestearekiko alderaketa garaitsuaren bitartez azaleratzen da gure izatearen ospakizunezko zentzua” (Cronin, 1998: 171).

3.1.4-Hedabideen bultzada hasieratik nazio atxikipenei futbol kontaketa bitarteko: nazio estiloen asmakuntza prentsa aitzindarian

Futbola XX.mendearen lehen laurdenean masa ekitaldia bilaka zedin, eta arau berdinekin nazioen kirol gaitasunak epaitzeko moduko ondare ezaguna izan zedin, hots, futbolaren eta nazio nortasunen indartzea eta biko harremana hauspotzeko, ezinbestekoa izan zen ikerketa honetan begiz jotako hirugarren erpinaren parte-hartzea, hedabideena. Paul Dietschy historialariak dioen moduan, kirolak nazio taldeen bitartez, masek nazio izaera har zezaten egindako ekarpena antzua izango zatekeen mota askotako egunkarien parte-hartzerik gabe, kazeta handietatik egunkari berezitueta, eta 1920. hamarkadako azken urteetan hasita, irratia bultzada izan ezean. Partida kontaketa emandako funts dramatikoaz gain, kazetariak nazioen estiloak identifikatzen saiatu ohi ziren (Dietschy, 2011: 38). Esan nahi baita nazio taldeen joko moldea nazioaren muineko nortasunarekin berdintzen hasiak zirela, komunitate imajinatua zilegitzen, alegia. Albrecht Sonntagek nabarmentzen du garai hartako kultura alorreko eragileek ere ez zutela kolokan jartzen futbol nazio estiloen kazetariaren asmakuntza, eta horrela ondorioztatzen du hain errota zegoela ezen egitatetzat jotzen zutela ikasketa maila handia zutenek ere. Prentsa idatziak aitzinetik aldarrikatu eta eratu zuen bereizketa nazionalista Sonntagek zehazten duenez irakurleak erakartzeko, eta horretarako hiztegi berezia garatu zuen (Sonntag, 2008: 154-155). Ondorioz, nazioaren nortasunaren eta nazio futbol taldearen jokoaren arteko lotura zuzena, gaur egunean hedabideen bitartez bizi-bizirik dirauena, aspaldian sustraitutakoa dela esan genezake. Europan nahiz Hego Amerikan bereziki antzeman zitekeen, mende hasieran, futbola eta horri lotutako kazetaritza gehien garatu zen lurraldeetan. Gardenki kazetariak kirol ekitaldia bidelagun nazionalismoa hauspotzea onetsi zuten, herritarren artean nazio parte-hartzea eta iruditeria indartzeak zekarkiokeen abantaila zernahi zela ere. Futbol taldeen bidez talde nortasuna ordezkatzeko alderdi nagusietakoa da zelaian estiloen bidez irudikatzen den komunitatearen hala nolako izateko modua. Bestea, geroago hizpide izango den 11 jokalariren multzoak osoki igortzen duen irudia da. Pierre

Lanfranchiren hitzetan, nazio taldeei loturiko jokatzeko moduak maiz estereotipoen eta arraza aurreiritzien ondorio soilak izaten badira ere, asmakuntzak bidenabar, horrek ez du bere esanahia apaltzen, beste nazio bat haragitzen duen taldearen aurrean 90 minutuz herritarrek eurentzat dituzten tasunak agertu behar dituelako (Lanfranchi, 2002: 20). Are gehiago, Brombergerren hitzetan komunitatearen patu edo borondate kolektiboa islatzea helburu dute kazetariak nahiz zaleek futbolariak ustez haragitzen duten nazioaren izatea eraikiaz (Bromberger, 1998: 79).

Kirol prentsaren loraldiaren adierazgarri, besteren artean, hurrenez hurren, *Sport im Wort*, *La Gazzetta dello Sport*, *El Mundo Deportivo*, *France Football* eta *El Grafico* egunkariak kaleratu ziren XX.mendeko lehen laurdenean Alemanian, Italian, Espainian, Frantzia eta Argentinan, azkenerako futbolaren jarraipenari bereziki emanak. Horrela, 1930eko hamarkadako teknika aurrerapenak, argazkiak hedatzeko berrikuntzek tarteko, futbolari esker gizarte eragile tamaina hartzea erdietsi zuten, eta futbolaren ospea areago zabaltzen, inondik ere, kirola ikuskizun bihurtzen (Eisenberg et al., 2004: 259). Gainera, bilakaera aipagarria izan zen kazeta orokorretan kirolari eta futbolari eskainitako geroz eta tarte handiagoa zegoela (Dietschy, 2010: 190). Europan eta Hego Amerikan garatu zen funtsean futbolari loturiko prentsa idatzia, eta etnia, arraza, erlijio, politika eta klase etsaigoen sinbolotzat bitartekotu zuen futbola. Kirol arduradunek prentsaren eginkizuna erraztu eta lagundu zuten eremu askotan behe klaseen joko basatitzat joa zegoen kirola onbideratzeko. Are gehiago, berri emaileak partidetara joan zitezten bidaien eta ostatuen ordainketak beren gain hartzen zituzten klubek. Era berean, hainbat kazeta arduradunek futbol partida eta lehiaketen antolaketan parte-hartze zuzena izan zuten, kirolaren ospea baliatu nahi baitzuten salmentak handiagotzeko. Liga txapelketen sorkuntza ere bideratu zuten ildo horretan. Kirolak bestalde, jendetzen tamainako audientziak ziurtatzen zituen hedabideekin eta horren ondoriozko diru etekinak. Matthew Nicholonek dioen gisara, prentsa idatziaren aroan, elkar hartutako errentagarritasunezko bikoia errotu zuten, euren ekoizkinen audientzia handitzen laguntzen ziena (Nicholson, 2007: 20-21). Ziurtasunez hedabideek nahiz kirolak elkarren beharra zuten, eta atxikimenduak eta talde nortasunak erkatzea baliagarria zen horientzat, eta baita, ezin nabarmentzeke utzi, indarrean zeuden nazionalismoentzat ere. Izan ere, futboleko neurketa garrantzitsuenean, nazio elkartasuna sustraitzen lagundu zuten hedabideen nazio eraikuntza izaerako narrazioek irmotutako sentimenduzko komunitate ahaltsuak bideratuta (Giulianotti eta Robertson, 2009: 10).

Irratiari dagokionean, nahiz eta aitzinetik kirolaren jarraipena bizitu zuen, geldoa izan zen hazkundera klubaren arduradunak beldur baitziren jendea estadioetatik urrunduko ote zuen, eta prentsa idatziak ere aurkaritzat hartu zuen. Telebistaren iritsierak 1950eko urteetan sortu zuen gisako mesfidantza zen. Hori horrela, herrialde gehienetan ospetsuak ziren kirol emankizunak eta kirola hedabide berria ezagutarazteko baliatzen zuten, baina hasieran aldizkako ekitaldiei lotu zitzaion (Nicholson, 2007: 21). Oroz gain son handia hartu zuten irrati bidezko futbol emankizunek lehen Munduko Kopen emanaldiez hasita. Lehenago ere partidaren zuzeneko emanaldiekin hasiak zeuden. Bada, prentsa idatziaren lekukoa hartuta, hura ordezkatu gabe, estatu-nazioen nazio eraikuntzan zeresan handia izan zuen irratiaren berehalakotasunak, batik bat, Alemanian bezala, hargailu ugari ziren herrialdeetan. Telebista kirol erretransmisioen lehen saioak 1930eko hamarkadan egin zituzten. Berlingo Olinpiar Jokoetan lehenik eta behin gizartearen zati murrizta izan zen kirola telebistaz jarraitzeko abagunea izan zuena. Londresko Highbury estadioan burutu zuten Arsenalen lehenengo taldearen eta talde ordezkaren arteko partida egokituz lehen futbol erretransmisioa (Dietschy, 2010: 446). Dena den, 1950eko hamarkada arte ez zen gai izan futbola bidelagun milioika hiritarren ikus-entzuleria batzeko, Bigarren Mundu Gerra atarikoan telebista hargailuak ez baitzeuden aski gizarteratuak, eta gainera klubaren hasierako mesfidantza gainditu behar izan baitzuen futbolak, irratiarekin gertatu bezala, telebistak ikusleak estadioetatik urrunduko zituenaren beldur baitziren. Prentsak futbol bidezko komunitateen ordezkapena sustatu zuen hasieratik, eta hemen beheko koadroak nabarmentzen du norbanakoek nahiz estatu nazioek baliatu zutela futbolak bideratutako errepresentazioa beren lehentasunezko helburuak betetzeko.

Futbolaren eta talde nortasunen uztarpen goiztiarra XX.mende hasieran

Norbanakoak

- Arauek mugatutako munduan gizakiaren sortzezko emozioak kanporatzeko.
- Norbanakotze edo indibidualizazio joerako munduan talde nortasunaren babesa hautemateko, hurbileko mailatik imajinatutako komunitatearen egikaritzaraino.

Estatu nazioak

- Estatu nazioaren zilegitasuna ikusarazteko nazio estiloen eraikuntzarekin, zeina borondate kolektiboaren agertokia zatekeen.
- Beste nazioekin mailakatu eta ereserki eta abarrekin nazio iruditeria sortzeko.

Bi gerren artean partidetakoa ikusleria hirukoiztu egin zen, eta futbolaren elitismo zantzuak desagertu ziren ekitaldi herrikoia bihurtuta. Pierre Lanfranchik dioen moduan,

futbolaren masa ekitaldi bilakaera nazionalismoaren berrindartzearen lekukoa izan zen (Lanfranchi, 2002: 18). Amberesko Olinpiar Jokoetako futbol lehiaketaren finala horren adierazgarria da, non Txekoslovakiako nazio taldeak epailearen erabaki batekin haserre zelaia aurretiaz utzi zuenean, milaka zalek futbol zelaia hartu zuten belgikar banderak astintzen zituztela. Hori horrela, gaur egungo nazioarteko partiden nazio errito ezaugarri batzuk Lehen Mundu Gerra aurretik kaleratu baziren ere, hurrengo hamarkadako lehen urteetan finkatuko zen nazioen neurketen zeremonia tankera, nazio ereserkien ekoizpena oroz gaindi (Dietschy, 2011: 38). Raffaele Polik nabarmentzen du futbolari atzerritarren parte-hartzeari klubetan kuotak ipinita jarritako mugak futbolaren sortze kosmopolititik nazionalismorako igarobidea islatu zuela (Poli, 2006b: 48). Gainera, estatu nazioaren esparruaren irudikapena agerikoa izango zen Europan horien lurraldetasuna adieraziko zuten estreinako liga txapelketen antolakuntzak zirela medio. Gerra osteko giro horretan abiatu ziren lehen nazioarteko futbol txapelketak ere (Lanfranchi, 2002: 18), Munduko Koparen aitzindariak. Estatu-nazioak kirola bere egin zuten, futbola aberria goratzeko baliabidetzat gardenki erabilia zen dagoeneko. Xede horrekin mugatu zuten estreinakoz klubetan atzerritarren parte-hartzea, nazio talde lehiakorra bermatzeko (Poli, 2006b: 49). Hala ere, profesionalizazio bilakaera saihestezina zela eta, eta klubek eraginkortasuna lehentasun gisa izaki, kanpoko jokalaria funtsezkoak bilakatu ziren denboraren joanaz.

3.1.5-Futbol taldearen hamaikako osaera eta jokatzeko estiloa nazio proiektuaren isla

Horiek hala, nazio aldarrien gorakadak eta futbolaren hedapenak ezaugarritutako aldian, futbol klubek, eta nazio taldeek oroz gain, hiritartasunaren gaineko hausnarketa edo ikusmolde nagusiak hobekien futbol zelaietan islatzen hasiak ziren (Lanfranchi, 2002: 18). Esan nahi baita *jus soli* deritzona alde batetik, hots, hiritartasuna jaiotzako lurralde eskubidean oinarritzen duena, eta *jus sanguinis* deritzona bestetik, hau da, norbanakoa nazioaren kide modura aitortua izateko, estatu-nazioei dagokienean, estatu hiritartasuna emateko, haren sendia, odol oinordetzaren bidetik, nazio horren kidea izatea galdegiten duena. Esaterako, frantziar taldeak, integrazioan ezaugarritutako estatuaren hiritartasun ikuspegiari jarraiki, lehenago txertatu zituen atzerritar jatorriko futbolariak, kolonietatik etorritakoak esaterako, nazioaren agertoki bilakatu zen nazio taldean. Nazio taldearen

osaera, eta jokalarien ezaugarriak, hartara, nazio bakoitzak bere buruaz eman nahi zuen irudiaren eta besteek ezagutzea nahi zuten tankeraren erakusgarria zen jadanik. Hartara, Paul Dietschyk ondorioztatzen duenarekin bat eginda, esan daiteke nazio taldearen funts sinbolikoa aztertzeak XIX.mendetik aurrerako nazioaren bilakaeraz eta horretaz eginiko errepresentazioen eboluzioaz jabetzea ahalbidetzen duela, sarritan desitxuratutako irudia eman arren, kirol gailentasun helburuaren, identitate eta politika kezken eta hedabideen eta diru irriken beharizanen arteko orekan plazaratua baita (Dietschy, 2011: 35). Nazio estiloen egunkarien asmakuntzaz gain, nazio taldearen hamaikakoa bera, nazio izaeraren ordezkapen ikurra zen, gutasunaren haragitze mimetikoa nolabait esateko. Bada, lotura zuzena duten bi alderdiak, estiloa, eta osaera, nazio taldearen bitartez jendea nazioarekin identifikatzeko baliabideak ziren, ereserkiez eta banderez inguratutako eta hedabideek sustatutako ekitaldi goiztiarren. Bada, lehenago norbanakoek hiri arrotzetan integratu ahal izateko eta Industria Iraultzaren norbanakotze prozesuan komunitate baten partaide izateko beharizanak bultzatuta futboleko talde nortasun gabezia asetzea bilatzen zutela zehaztu baldin badugu, bestalde estatu nazioek goitik beherakoan nazioa irudikatzea eta zilegitzea zuten helburu, besteekin alderaketa eta mailaketan harrotasunezko partaidetza sortu nahian. Bi alderdietakoa zen horrenbestez, futbolaren erabilpena, estatuarena eta norbanakoarena, nortasun iturri modura. Nolanahi ere, ez da ahantzi behar norgehiagoka bakoitzak ikusleei ahalbidea ematen diela euren nortasunaren alderdietako bat sinboloez bihurtzeko, herri mailakoa, lanekoa nahiz erregio mailakoa (Bromberger, 1998: 59). Ez da bakarrik nazioaren ordezkartzara soilten talde identitateen kirol ordezeen lehiatik eratorritako nortasunaren sorkuntza edo aldizkako biziberritzea. Nolanahi ere, 1920ko hamarkadatik batez ere elkarren berri zuzenki ez zuten komunitate imajinatuen mailan, eta estatu-nazioen eraikuntzan, oroz gain adiera berezia hartu zuten futboleko neurketek.

3.2-Kirola eta futbola nazioarteko harremanetan: estatuaren eremuan oinarritutako historia garaikidea

Nahiz eta gaur egunean oso zabaldua dagoen Italia faxistak eta Alemania naziak kirolaren erabilpen politikoa lehen aldiz era nabarmenean sustatu zutela, egiazki egitura demokratikoa zuten estatuak izan ziren Lehen Mundu Gerraren amaieran, eta 1919ko Versaillesko Itunaren ondorenean, kirola oro har, eta futbola zehazki, funts politikoekin

baliatzen lehenak. Gerraren garaileek galtzaileei inposatu zieten bake akordio horrek ez zuen kirola zeregin horietara zuzenduko zela aurreikusten, baina orduz geroztik hasi zen benetan kirola propaganda gailu eta diplomazia presio gisa bideratzen. “Nor bait harritu al daiteke horrenbestez urte batzuk beranduago estatu totalitarioak estatu demokratikoek emandako ikasgaia ikasteko gai izan baziren”? (Arnaud, 2002: 226). Benito Mussolinik 1922an hartu zuen boterea Erromarainoko Martxaren ostean, eta Adolf Hitler eta alderdi nazia 1933an egin ziren Alemaniako Gobernuaren jabe hauteskundeak irabazita. Horiek hala, 1930eko hamarkadan ondorioztatu eta erabat baliatu zuten bi diktadoreek kirolak talde nortasunak hauspotzeko ematen duen abagunea, bitarteko politikoa bailitzan hein handi batean. Dena den, Lehen Mundu Gerrako garaileak, hots, estatu demokratikoen izaera zutenak izan ziren aitzindariak. Herrialdeotako nazioarteko politika arduradunek galtzaileen aurka abian jarri zuten boikot egitasmoak nazioarteko kirolaren etorkizunean ondorio larriak edukiko zituen azkeneko, eta kolokan jarri zituen bide batez, kirolari esleitu nahi izan zitzaizkion dohain apolitikoak (Ibid., 227). Berlin 1931ko maiatzaren 13an 1936ko geroko Olinpiar Jokoak hartzeko egoitza hautatzeak nazioarteko kirolaren baitan berriro txertatu zuen Alemania, eta aurrerantzean ez zuten nazio erdeinagarritzat joko (Guttman, 2002: 49). Gero nazien botere-hartzeak aldatu zuen hasierako zerumuga.

XX.mendean errotu eta loratu ziren kirol ekitaldien eta eginkizun politikoaren gomuta XIX.mende erdi-amaierako gimnasia talde eta elkarten jardunean ikus daiteke European behinik behin. Belgikan, Frantzia eta Alemanian esate baterako, gimnasiako nazio federazioa patriotismoari lotu zitzaion hastapenetik era zinez agerikoan. Gaztedia helburu militarretarako prestatzea zen gimnasia ekitaldi handien xederik behinekoena. Nazio gimnasia jaialdiak antolatuta, bertako gizartearen sinboloak ikusarazi ohi zituzten besteak beste Belgikan, eta ereserkia entzunarazteko aukera baliatu beti ere (Tolleneer, 1996: 97). XX.mendean sartuta, etekin ekonomikoak lortzera zuzendutako kirolean ere ez zegoen nazio harrotasunaren eta nazio batasunaren agintetik urruntzeko askatasunik. Frantziako Tourraren ikuskizun gogoangarriak izandako uzta ideologikoa aintzat hartu beharra dago esate baterako txirrindularitzaren eremuan. Tourra ez zen soilik ekitaldi komertziala bailitzan atondua izan, hau da, egunkariak saltzeko helburu hutsaz, gailu ideologikoa ere bazen aldi berean, Frantziaren batasunaren adierazpena bere bultzatzaile kontserbadoreen ideiak irudikatuta. Nazioaren ideiarene jabegoa bere egiten saiatu ziren txirrindularitza itzuliaren sona hasiberriarekin (Holt, 1996: 42). Tourrak Frantzia osotik

pasata frantziarrei euren nazioaren aberastasunez irakatsi ahal zien funtsean. Alsazia eta Lorenatik ere igaro zen, Alemaniaren eta Frantziaren arteko auzi arantzatsu garaikidean. Richard Holten esanetan, nazioaren sugarra Lehen Mundu Gerra aurreko urteetan hasi zen futboleant. Orduan sortutako futbol klubak etnia, erlijio eta politika irizpideez jaito ziren. Hala, norbere klubak sortu zituen multzo bat Europako gainontzeko elkarteetatik bereizi zen. Juduek Lehen Mundu Gerraren biharamunean beren futbol klubak sortzeari ekin zioten. Adolf Eichmannek izar horia soinean jantztea behartu baino askoz lehenago, talde judutarrek David Erregearen izarra elastikoari josita jokatzen zuten (Benoit, 2008: 540).

Futbolaren jaitzatik hamarkada batzuetara, mende bukaerarekin batera gauzatu zen Olinpiar Joko modernoan sorrera, eta kirolaren funtzioa nazio identitatean ordezkari modura bizitu egin zen. Nazioarteko Olinpiar Batzordea 1894an sortu zen, eta handik bi urte eskas igaro zirenean, 1896an, ospatu zen Olinpiar Joko modernoan lehenengo aldia, Atenasen, antzinako jokoen sorlekutik hurbil. Coubertingo Baroiari eman dio historiak jokoen biziberritzearen loria. Nolanahi ere, hark aurreikusitako kirol izpiritu ongizateetik eta munduko herrien arteko anaitasuna sustatzeko ahaleginetik urrundu egin zen hein handi batean olinpiar izaera, garai hartako irrika nazionalistak asebeste baitzituen estatu-nazioen errotzearen garaian. Coubertingo Baroiak berak asmatutako laudorio banaketa ekitaldietan, ereserki, bandera eta guzti, sugarra piztu egin zen; hau da, kirola eta nazio nortasunen artekoa, eta kirolarien nortasunon ordezkari itza ahala puztu. Uzta gobernuek jasoko zuten urte gutxi batzuk igarota, joera guztietako agintaritzak ereduak eskuratu ere. Katharine L. Winstanleyk dioten eran, Coubertinentzat Olinpiar Jokoak mundu anaitasuna eta nazioarteko harremanetan borondate ona indartzeko garraiobideak izan behar ziren, zeina gaur egun artean Nazioarteko Olinpiar Batzordearen aldarria den, baina funtsean mezu horrek aurreikusten eta bideratzen du jokoetan politikaren erabilpena (Winstanley, 2009: 7).

Kirolaren bultzatzaileek, batez ere orain gogora ekarritako Coubertingo Baroiak, estatuak erabili zituzten kirolaren hedapen unibertsalerako oinarri gisa. Denbora gutxian unibertso mailako bi gerra jasan beharko zituen munduan norbere estatuaren aldarriaren beharrianak erabilpen hori biko interakzioa izatea eragin zuen: Estatuak kirolarentzat jauzi-ohol modukoak bilakatuko ziren, eta kirolak estatuari kanpo irudia eskainiko zion, beste gailu batzuekin eskuratzen ia ezinezkoa, gaur egun ere (Solar Cubillas, 2007: 97).

Olinpiar Jokoak horrenbestez, sortzetik eta gaurko egunetaraino, aberriaren harrotasuna ikusarazteko ekitaldi berebizikoak izan dira funtsean, beste nazioen aurrean erkatzeko abagunea. Horrela, nazioaren ospeak elite kirolen bitartez nazioarteko lehiaketa behar beharrezkoa du gailentasuna erakutsiko badu. Arnd Krügerren ustetan, 1896an Olinpiar Joko modernoek garaia hasi aurretik ere nazioarteko zenbait lehiaketa ospatzen baziren ere, antolaketa aldetik ez ziren bideratuak nazioaren sona goratzera (Kruger, 1996: 184).

Brian Martinek Olinpiar Jokoei buruzko gogoeta kritikoa eginez, hastapeneko ekitaldi horren inguruan ere hausnarketa ezkorra burutu zuen, aro modernoko lehenengo ekitaldiaren ospakizunak greziar nazionalismoa indartzeko balio izan zuela argudiatuta, eta urte bat beranduago giro horrek Turkiaren aurkako gerra leherrarazi zuela adierazita. Ildo horretan, Martini jarraiki, Olinpiar mugimenduak ez du ahalmenik bakea sustatzeko hasierako helburua errealtate bihurtzeko (Martin, 1996). Era berean, 1908an Londresen ospatutako Olinpiar Jokoak nazionalismoa sustatzeko baliabide tresnak bilakatu ziren. AEB Ameriketako Estatu Batuak eta Britainia Handia atletismoaren eremuan beraien gailentasuna ezartzen ahalegindu ziren, eta ildo horretan, nazio bakoitzaren isla, kemen handiagoa plazaratzen. Urte batzuk beranduago Italiak eta Alemaniak egindako hautu gardenaren parekoa ez izanagatik, izaera demokratikoko estatuak kirola xede jakinekin baliatzen hasiak ziren. Moskuko gobernuak ere, Olinpiar Joko horien irekiera ekitaldian Finlandiako kirol ordezkariak Errusiako banderaren atzean agertu zedila galdegin zuen, Finlandia beraren menpean zegoelako, baina haiek uko egin zioten eskaerari (Matthews, 1980: 43), eta banderarik haizatzeko agertu ziren jokoen hastapenean, beraz. Irlandarrak bestalde, atsekabetuta azaldu ziren euren garaipenak Britainia Handiaren banderapean eta inperio horren loriaren alde zenbatuko zituztelako. Kirol garbiaren mitoa amiltzear zegoen arestitik.

XX. mendeko lehenengo hamarkada igarota, pixkanaka-pixkanaka estatu-nazioen baitan muturreko sugar abertzalea agerikoa zen, eta gatazka politikoak gerra leherrarazi zezakeela pentsatzekoa zen. 1914ko ekainaren 28an Habsburgeko Francisco Fernando, Austria-Hungariako koroaren oinordekoa eta haren emaztea erail zituzten Sarajevon, eta funtsean, Lehen Mundu Gerraren su odolustea piztu zuen azkeneko txinparta izan zen. Ez zen noski gerraren eragilea izan, milioika soldadu lubakietan itoarazi zituen guda sakoneko arrazoi ugari bultzatu baitzuten. Hala, handik urte askotara, beste testuinguru batean, Hondurasen eta El Salvadorren artean gertatutako gerrarekin aldera daiteke hein

batean Lehen Mundu Gerraren lehen hilketa hori. Futbolaren gerra bailitzan ezaguna da gaur egunean ere 1969an Hego Amerikako bi bizilagun etsaien artean gertatutako gerra hura, baina Austria-Hungariako inperioaren oinordekoaren herioarekin gertatu bezala, bi estatuak erkatu zituen futbol norgehiagoka gerra laburra leherrarazi zuen suzia izan zen, eta ez guda horren benetako eragilea. Futbolaren garrantziaren agerpidea bada nolana ere. 1914 eta 1918 bitarteko gatazkan futbolak une batez bakea ezarri zuen elkar hiltzen ari ziren soldadu alemaniar eta ingeles artean. 1914ko Gabon egunez aurreikusita ez zuten partida atondu zuten guda eremuan, eta alemaniarrek gailendu ziren bi herriotako futbol ordezkariak alderatzean etorkizunean errepikatuko zenez. Partidaren amaieran elkar besarkatuko zuten patuak bata bestea hiltzera eman zituen eremuan. Ordu gutxiz iraun zuen futbolaren lilurak eragindako anaitasunak (Alcaide Hernandez, 2009: 68), eta guda berriro piztu zen, 1918ko azaroaren 11an Alemaniak amore eman arte iraun zuena. Historian ezagun egin da Gabon egunean futbolak gerra eten eta bakea eragin zueneko, baina Paul Dietschy historialariak kolokan jartzen du historiaren anaitasun pasarte hori (2010: 118), gertatuaren lekukotzak beti ere bigarren eskukoak izan zirela adierazita, eta asmakuntza edo gerrako propagandaren ondorioa izan zitekeela zehaztu nahi du.

Lehen Mundu Gerra amaituta, 1919.urtean, garaileek garaituei bake baldintzak jartzeko garaia iritsi zen Versaillesko Ituna zeritzon. Arestian aipatu denez, gudaren irabazleek, hots, AEBek, Ingalaterrak eta bereziki Frantziak, bakea inposatu egin zieten Alemaniari eta desagindako Austria-Hungariako inperioari. 1920.hamarkadako Olinpiar Jokoetatik baztertu zituzten galtzaileak, eta horrenbestez, orduko kirol ekitaldi multzo gorenena, nazioarteko politikaren zerbitzura jarri zuten era agerikoan. Erresuma Batutik kirolaren izaera amateur eta berezko nortasuna aldarrikatu zuten hastapenetik, baina 1930eko hamarkadak erakutsiko zuen aipaturiko jarrera irmo hori uste baino lausoagoa zela, eta eurak ere ohartu ziren errealitatearekin topo egitean kontraesanak zuzentasuna baino handiagoak zirela. Benito Mussolinik ordu arte ez zion jaramon handiegirik egin kirolaren erabilpenari, baina handik gerora aski baliatu zuen gainontzekoen irakaspena, eta Alemania naziak Italiako erregimen kideari jarraitu egin zion berehala, boterea hartu bezain laster, Alemania goraiatzeko eta bertako arrazaren gailentasuna mundu guztiaren aurrean ikusarazteko helburu. Italiak 1934ko eta 1938ko Munduko Kopak irabazi zituen futboleko, eta Alemaniak 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoak erabili zituen bere kirolarien garaipen bidez, eta batez ere, behinolako antolaketarik distiratsuen eskainiaz, nazio handitasuna aditzera emateko. Bai Olinpiar Jokoak eta baita 1930.urtean Uruguaian sortu

zen Munduko Kopak ezin izan zuten politika kudeaketaren atzaparretatik eta bi mundu gerren arteko nazio nortasun norgehiagoka itsutik sobera urrundu. ‘Politika kirolek at utzi’ lelo amateurra, horrenbestez, errealitateak erabat ezereztu zuen garai horretarako; izan ere, kirola oro har, eta futbola bereziki, politikatik bereiztea guztiz ezinezkoa zen.

Hori horrela, Alemaniako federazioak, Europako estatu gehienenek bezala, uko egin zion FIFAREN gonbitari, eta hein handi batean lehen Munduko Kopa sortzez ahuldu egin zen. Gainera, nahiz eta nazioarteko futbol erakundeak 1923.urtean Lehen Mundu Gerrako galtzaileak bere magalean onartu zituen, Nazioen Elkartearen ekimenari aurrea hartuz, gudako garaileek galtzaileekin futboleant ere lehiatu ezin zutela gainjartzen zen oraindik. Izan ere, gerra amaitzean Britainia Handiko gobernuak galtzaileekin jokatzeko prest zeuden herrialdeetako futbol elkargoak ere FIFAtik at lagatzea nahi zuen. Areago, Bigarren Mundu Gerra amaituta ere, egoera berdina errepikatu zen 1950eko Munduko Kopan. Erresuma Batuak bitartean, data hori arte ez zuen ezein Munduko Kopa lehietan jokatu – lau txapelketa jokatu ziren lehenago, Bigarren Mundu Gerrarekin halaberrez kirolaren etena heldu arte – futbolaren sorterria izanagatik harrotasun berezia zuelako, eta ohiko bakantze jokabidea futboleant ere agertu baitzuen herrialdeak, mende hasieran kirola munduan atontzen eta zabaltzen hasi zenetik Munduko Kopa erabat sendotu arte.

Politikak kirolaren hazkunde garai goiztiarrean erakarri nahi izan zuen futbola. 1920ko hamarkadaren ostean kirolaren ospea eta sona hainbat erregimenek erabili zuten euren ideologia lau haizeetara barreiatzeko. Nazio taldeen garaipenak propaganda eta mobilizazio tresnak bailiran erabiliko zituzten aurrerantzean beraz. Mussoliniren Italian, horrela, *squadra azzurra*-k 1934ko eta 1938ko Munduko Kopetan lortutako garaipenak faxismoaren demokraziarekiko gailentasunaren isla bezala aurkeztu zituzten (Ramonet, 1999b: 13). Aurretik, 1928.urteko maiatzaren 29an Munduko Kopa sortzea erabaki zuen FIFAK Jules Rimet frantziarraren zuzendaritzapean, gerra ostean hainbat gorabehera izan eta gero. Olinpiar Jokoetan futbola ogibidetzat zutenak onartzen ez zituztenez, hots, amateurismoaren nortasuna betikotzen zutenaz gero, FIFAK norbere txapelketa sortzeko garaia zela ebatzi zuen. Futbolaren heldutasunaren gailurra zen nolabait, 1926ko jokoz kanpokoaren legea malgutzeak ildo berean, hezurmamitu eta tankera modernoaz hornitu zuena (Bueno Alvarez eta Mateo, 2010: 44).

Uruguai jaso zuen lehen antolakuntzaren ohorea. 1924ko eta 1928ko Olinpiar Jokoetako futboleko txapelketak irabazi zituen talde hark, baina nazio talde profesional onenek ez zuten han parterik hartu olinpiar izaeraren ildotik amateurismoa ezinbesteko baldintza izateagatik. Dena den, modu bizian futbolak nortasun profesionala hartu zuen XIX.mende bukaeran hasi eta berehala. Lehenengo Munduko Kopen antolakuntzarekin politika hitzemanak garrantzia handiagoa hartzen hasi ziren. Nazio identitateen, berrien edo balizkoen oinarri bihurtzeko joera hartu egin zuen futbolak. Kirol ekitaldion gizarte oihartzunak norantza horretara eraman zuen nahitaez. Independentziaren mendeurrenari tamaina handiagoa emateko, ahal zen neurrian mundu mailako garrantziaz hornitzeko, agertu zuen hainbesteko seta Uruguaiako elkargoak 1930ean lehenengo Munduko Kopa antolatzeke. Hala, Uruguaiako Gobernuaren eskaerei men egingo zien (Eisenberg et al., 2004: 274). Kazetariak nazio taldearen jokoa nazioari oro har esleitutako ezaugarriekin uztartzen hasiak ziren. Argentinarek, besteren artean, imajinazio handiaz, edertasunaz eta aristokrazia usainaz jokatzeari lotzen zitzaizkien eta uruguaiarrak berriz, zakartasun eta oldarkortasunez aritzeari (Archetti, 1994: 235). Argudiatu izan da estatu handiagoen artean inguratua izatearen nazioaren egoerak eragin zuela babeserako taldeko nortasuna garatu izana herrialdean, eta ildo horretan 11 jokalarien jokoan izaera hori azaldu izana. Esan nahi baita nazio taldeak plazaratutako jokoa eta nazioari aurreikusitako tasunen arteko parekatzea ikusarazten hasi zirela hedabideak nazioarteko futbol aro goiztiarreen ere. Soropileko hamaikakoak oroz gain nazioa haragitzen dueneko ustea sustraitu zuten.

Uruguai antolatzearen, joan-etorrien eta egonaldien dirutza guztia bere gain hartu zuen. Hala ere, soilik Europako lau taldek – Belgikak, Frantziak, Errumaniak eta Jugoslaviak – egin zuten itsasontzi bidezko hamalau eguneko bidaia txapelketan parte hartzeko. Hegazkin bidezko loturak ez zeuden artean nahikoa garatuak. Gainera, lehen hirurek itsas-bidaia elkarrekin egin zuten. Uruguairantz, Argentina eta Brasil bezalako bi erraldoien artean hertsia izaki, bere nortasuna aldarrikatzeko bitarteko paregabea zen. Hala, zoriaren halabehar zoriontsua Munduko Kopa herrialdearen independentziaren mendeurrenean gertatu zela. Uruguai finala ekitaldirako espresuki altxa zuten zelaian irabazi zuen, “Independentziaren Estadioa” izeneko futbol egoitzan. Argentinaren apeta asegabeen aurrean, izan ere, bertako herritar batzuek beren herrialdearen hedapen soila ikusten zuten Uruguain, mezua aski gardena zen. Historikoki Montevideoren autonomia Buenos Aireskoaren aurrean eta haren kalterako eraikia izan zen. Hala, aurrerantzean Uruguai nazio handien parean zegoela azaltzean zetzan, era berean. Pascal Bonifacek

dio 1934ko Italiako Munduko Kopa dela zalantza gabe kirol ekitaldi bat zio politiko eta alderdikoietarako erabili izanaren gailur gorena (Boniface, 2002: 31). Areago, lehiaketa lehenengo aldiz Europan jokatu zenez gero, ekitaldiaren sona eta garrantzia bizitu zen estatu-nazioen baitan. Uruguaiak parte-hartzeari uko egin zion, Europako herrialdeek lau urte lehenago berak hartutako lehiaketari funtsean ezarri zioten boikota mendekatzeko. 1929ko krisiak utzitako zauri ekonomikoa argudiatu zuten europarrek ez parte hartzeko.

SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean ere, futbola Kominternaren bitartekaritzarekin kanpora begira propaganda tresna bilakatu zen. 1926an, Hirschmann FIFako arduraduna ohartu zen Sobiet Batasunak atzerrian birak burutu zituela, Turkian eta baita Mendebaldeko Europan ere. Edonon langileen elkargoetako taldeekin jokatzeko zuten, hau da, Moskun sorrarazitako kirol Internazionalaren afiliatuekin, “Kirol Gorria” zeritzon mugimendu komunistaren ingurukoekin, baina beste talde batzuren kontra ere lehiatzen zen. Beraz, FIFARI eragiten zion horrek, SESBek bere nazioarteko erakundea zabaltzea helburu baitzuen, herrialde guztietako langileak bere magalera erakarriz, eta horiek FIFAREN erako federazio “neutralak” uzteko gogatzeko zituen gainera (Eisenberg et al., 2004: 275). FIFA ustez amore emateen mugaraino heldu zen Sobiet Batasuneko futbolarekin landutako zeharkako harremanei zegokienez. SESB bere barruan txertatzea nahi zuen zernahi kostan. Ahalegin horretatik ez zuen bilatutako ordainik erdietsi, SESB FIFATIK kanpo mantendu baitzen. Nolanahi ere, zeharkako txosten guztiek diote FIFAK ez zuela Nazioarteko Olinpiar Batzordearen pareko komunismoaren kontrako politika indarrean jarri. Bere estrategiak, hau da, munduan hedatzeko zuten goranahiak, arazo ideologikoak gainditzea bilatzera bultzatu zuten beti ere. Edozein modutan, nazioarteko harremanen txartzeak eta estatuen barruko tentsioek egoera konplexuan jarri ohi zuten etengabe. Horrela, batzuetan denboraren joan etorritik kanpo kokatzen zen, Bolivia eta Paraguairen arteko 1932 eta 1936 urte arteko Chacoko gerran bezala. Izan ere, Schricker futbol erakundeko idazkari nagusia entzungor eta mutu mantendu zen bitarte horretan (Ibid., 276). Nahiz eta Rimeten eta Schrickerren FIFAKO biko buruzagitzak etengabe aldarrikatu zuten, SESBek uko egiten zion FIFAREN baitan sartzeari, “burgestzat” jotzen zuelako, eta ez zegoelako prest nazioarteko futbol erakundearen politika neutraltasuna ontzat emateko. Bigarren Mundu Gerrak gizateria berriz odolostu aurreko urteak ziren, zerumuga argirik gabeak.

3.2.1-Erregimen totalitarioen futbolaren eta Olinpiar Jokoen erabilpena gerren artean: Mussoliniren 1934ko Munduko Kopa eta Hitlerren 1936ko Olinpiar Jokoak

Benito Mussolinik ahalegin eskerga burutu zuen, eta haren erregimenak eskura zituen baliabide guztiak erabili zituen 1934.urteko Munduko Kopa Italiak antola zezala erdiesteko. Futbolaren bidez Italiako nazio nortasuna sustatuz, faxismoaren gorentasuna ikusaraztea zen xedea, eta helburua biribiltzeko ezinbestekoa zen, kostala ala kostala, eta bitarteko ez legezkoak eta ez zilegiak baliatu behar baziren ere, talde urdina historiako bigarren Munduko Kopan gailentzea. Lau urte lehenago Uruguaiako Munduko Kopara nazio talde bat bidali ez izana okerreko erabakia izan zela hausnartua zeukan ordurako Benito Mussolinik. Hala, Erroman 1934.urteko futbol ekitaldiaren kariatara eraikitako egoitza “Alderdi Faxistaren estadioa” izendatu zuten. Florentziakoa D baten moduan altxarazi zuten *Duce*-a elearen irudiarekin parekatzeko, eta Turingoari Mussolini deitu zioten huts-hutsean. Hori Enrico del Debbio arkitektoaren apetaren fruitua izan zen, eta Italiako faxismoak Erromako inperioaren iragan loriatsuaren gainean zuen nostalgiaren lekukotza ematen zuen (Boniface, 2002:32). Italiako nazioaren oroimena eta futbolaren ikuskizuna bat eginik ziren. Bistan denez, agintariak aurretiaz dena behar bezala atondu zuen futbol jokoen bidez Italia, eta herrialdeari atxikita, faxismoa, goratzeko. Barrura nahiz kanpora begira, kirolaren liluraren bidez nazio nortasunaren onespina bermatzea zen behinolako xedea. Soropilean jokalariek garaipenaz berrestea besterik ez zen falta.

Mundua krisi ekonomikoak biziki zartatuta zegoen garaian, Italiako buruzagiak finantza berme guztiak hitzeman zituen historiako bigarren Munduko Kopa lehen aldiz Europan jokatu ahal izan zedin. Jokotik eratorritako boterea eta haren abagune politikoa zinez barneratuta zituenaren adierazgarri, inondik ere. Alkandora Beltzekin eta elastiko urdinekin jantzitako Italian jokatu zen txapelketa, eta orotara, hamasei nazio talde ahaleginduko ziren Uruguaiaren loriaren lekukoa hartzen. Lehia Europan izateak eragin zuen erakarpena tarteko, 32 nazio taldek izena eman zuten parte-hartzeko asmoz, eta horietatik erdiak bakandu ahal izateko, joan etorriko sailkatze fase bat igaro behar izan zuen talde bakoitzak. Antolatzailea izanagatik Italiak ere aurretiazko norgehiagoka hori jokatu behar izan zuen Greziaren aurka, baina estuasun handiegirik gabe gainditu zuen

joanekoan dagoeneko 4-0 irabazita. Izan ere, Mussoliniren ahalegin biziei erreparatuta, patua talde urdinaren garaipenaren mesedetan aurrez zehaztuta zegoela pentsa zitekeen.

Aurrekari horiek guztiak aintzat hartuz, *Duce*-aren aginduetara jokalaria italiarrek beren egitekoa halabeharrez bete zuten, eta faxismoari futbolaren bitartez bilatzen zuen zilegitasuna eta oparotasuna eman zioten, nolabait. Historiak oroitarazten ditu besteren artean, partidetan epaileei egindako presioa eta jokalarien gainean ezarritako irabazteko estuasun bizia – Txekoslovakiaren aurka finala galtzekotan jokalariai eurak ere galduta zeudela mehatxatu zituen Mussolinik lehiaren atarian –, txapelketa aurretiazko sailkatze fasean Greziari itzulerako partidari ez lehiatzeko erregimenak diru laguntza eman ziola, eta Hego Amerikako jatorriko bost futbolari legez kanpo nazio taldean txertatu zituela (Jurado, 2010). Austriaren kontrako finalerdian epaileek era eskandalagarrian lagundu zioten beste behin taldeari. Esan daitekeen gutxienezkoa da nazioarteko kirol botereak ez zituela Mussoliniren irrika politikoak oztopatu. Hala, 1934ko ekainaren 10ean Italiako 11 jokalariek finalean *Duce*-ari agur faxista zuzentzeko abagunea izan zuten (Boniface, 2002: 33). Italiak estu eta larri irabazi zion Txekoslovakiako nazio taldeari finalean, 2-1, partidaren ondarrean berdintzea lortu eta gero. Mussolinik atsedendian hitzemandakoa gogoan izango zuen ordurako Vittorio Pozzo urdinen entrenatzaileak: “Jainkoak lagun zaitzala porrot egiten baduzu”. Txapelketaren aurretik ere mehatxu garbia helarazi zion *Duce*-ak Giorgio Vaccaro Italiako Futbol Federazioko presidente eta Italiako Olinpiar Batzordeko kideari. Halako elkarrizketa gorde du bere altzoan historia garaikideak:

-Ez dakit nola egingo duzun, baina Italiak txapelketa hau irabazi beharra dauka.

-Ahal dugun guztia egingo dugu... –ihardetsi zion mendekoak Mussoliniri.

-Ez didazu ongi ulertu jenerala... Italiak Munduko Kopa hau irabazi behar du. Agindua da –ebatzi zuten Italiako agintariak (cfr. Gutierrez, 2011).

Horrek guztiak, ezinbestean, diktadorearentzat Munduko Kopak eta orokorrean futbolak zuen behinolako garrantzia argi azaleratzen du. Irratiak lehen aldiz txapelketan ordezkari zuten hamasei herrialdeetatik hamabirentzat futbolarien partida jarraitzeko parada eskaini zuten Italiatik zuzenean. Egunkariak futbolaz dagoeneko eman ohi zuten informazio zabala irratia zuzeneko emankizunen zirrarekin oparotzen hasi zen, nahiz eta kateen programazioan oraindik bestelako saioak gainjarri, kultur arlokoak nagusiki.

Frantziako 1938ko Munduko Kopan ere berretsi zen futbolaren izaera politikoa, Mussoliniren poz algararako Italiak bigarren Munduko Kopa eskuratu baitzuen iparreko bizilagunaren futbol zelaian, Frantzian, ordukoan era zilegiagoan. *Duce*-ak Venezian egin zien harrera nazioaren ordezkariari, eta futbolariak jantzi faxista jarri zuten soinean ohiko ospakizun argazkia atera aurretik. Maiz kirol izaeratik aldentutako legez kanpoko trikimailuak baliatuta ere, Italiak hamarkada horretan munduko futbol talde onenaren sona lortu zuen. Hain zuzen ere, horrek bultzatu zuen hein batean Ingalaterra, futbolaren sortzailea, adiskidantzazko norgehiagoka bat adostera, nazioarteko talde onenari aurre egiteko egokiera edukitzeko. Nazio nortasunen eta futbolaren arteko ezkontzaren irmoa agertaraziko zuen neurri handi batean Ingalaterra nahastu zuen futbol neurketa horrek.

1932ko abenduan Ingalaterrako futbol federazioak Italia eta Suitzaren gonbiteak onartu zituen denboraldi amaierako itzulian lehiatzeko, eta horrenbestez historian lehen aldiz Ingalaterrako eta Italiako nazio taldeak futbol berdegunean norgehiagokan aritzea ahalbidetuko zuen. Federazioaren jokabideak, hau da, partidak bere ekimenez bideratu izanak Londresko gobernuari lehenago ohartarazi gabe, aditzera ematen zuen Britainia Handian politika eta kirolaren arteko banaketa bazegoela nolabait, Italiarekin alderatuta behinik behin, eta baita kontinente zaharrea bi alorrek uztartu egiten zituzten geroz eta herrialde gehiagorekin erkatuz gero ere. Nolanahi ere, futboleko federazioak hartutako erabakiak luze gabe artega eragin zuen Britainia Handiko gobernuan, askotariko ildoko agintariak zalantza betetik uzteraino. Egiazki, jokatu beharreko norgehiagoka horren gainean gertatutako hartueman ofizial andanek iradoki egin zuten Britainiako kirola, eta futbola ildo horretan, ez zela bertako hiritarrek pentsatzea atsegin ohi zuten bezainbeste politikatik berezia (Beck, 2001: 248). Italiarekiko partidaren tamainak futbola gainditu zuen. Faxismoaren kirolaren manipulazio politikoak egoera eraldatu zuen, eta estatu eta kirolaren arteko banaketa zurrinari luzaroan eustea ezinezko egin zuen (Holt, 2002: 80).

Britainiar gobernuaren parte-hartzea 1933.urteko martxoan hasi zen, Harry Luke Maltako agintariak Kolonia Agintaritzak ohartarazi zuenean britainiarren izen onarentzat Ingalaterrak Italiaren aurka jokatu beharreko norgehiagokan maila ona emateak zuen garrantziaz. Futbolaren hazkunde biziari jarraiki, talde britainiarren gaitasunak, bereziki italiarren aurrean, garrantzia handia zuen maltarrek metropoliak osatuko zuten irudian. Bada, Kolonia Agintaritzak auzia diplomazia altuenean murgiltzen zela ondorioztatuz, Atzerri Agintaritzari eman zion gertaeraren berri. Hark jokatu behar zen partida lehen

aldiz aski berandu ezagutu izanak, eta gainera, hala nolako modu ezustekoan, aditzera ematen du itxuraz Britainia Handian kirolaren eta politikaren artean zegoen banaketa. Futbol federazioaren tankerako gobernuz kanpoko erakundeen nolabaiteko askatasunari begirunea bermatzean bederen bai. Britainiako kirola autonomia zela zioen hautematea urratu nahi ez zuenez, Atzerri Agintaritzak gogo txarrez murgildu zen auzian, batez ere agintariak mundu zabalean berezitasun hori britainiarren balio liberalen adierazgarria bailitzan aurkeztu nahi zutelako, Italiako aginte faxistarekin alderatuta, zeinak kirolaren gaineko soberako politizazioa ezaugarritzat zuen ekitaldi orotan (Beck, 2001: 249).

Nolanahi ere, lehenago ere, 1928an, Ingalaterraren eta Italiaren arteko neurketa baten balizko atarikoan futbolaren eta nazio harremanen arteko pasabidearen lausoa eta iragankortasuna agerikoa egin zen, eta ezinegona sortu zuen agintari britainiarrengan. Thomas Preston Turingo kontsul britainiarrak kontinente barruko herrialdeek futbolaz hartutako burutazio eta egokiera ezberdinak barneratu zituen, eta ondorioz Londresko gobernuak ohartarazi zuen partida oro joko hutsa baino askoz gehiago izango zatekeela. Are gehiago, “nazioarteko mailako garrantziak gertaera” izango litzatekeela zehaztu zuen ordezkariak, ondorio politiko zinez esanguratsuak izango zituena (Ibid., 249-250). Prentsak Atzerri Agintaritzaren mugimenduen berri izan zuen futboleko federazioaren bidetik. Hala, futbol partidek ildo horretan, gobernuaren begietara bederen, nazioaren interesarentzat zuten garrantzia plazaratu zuen *Daily Express* izeneko kazetak 1928ko abenduaren 31ko lerroburu batean. Aurrerantzean egunkari hori Britainiako kirolaren ohiko autonomiaren babesle sutsua bilakatu zen, eta bertako gobernuaren mugimendu “zentsuragabeak” kritikatu zituen futbol norgehiagokak “Britainiako boterearen” “irizpide abstraktuekin” uztartzen zituela arbuiatuz. Lotura ulertezina zela ikusarazi nahi ei zuen.

Lehen Mundu Gerrako galtzaileei, funtsean Alemaniari, kirolean ere eragindako boikot politikotik haratago, britainiarrak pixkanaka-pixkanaka jabetzen hasiak ziren kirolaren ametsetako askatasuna eta aldarrikatutako amateur izaera luzaroan sostengatu ahal ezinak izango zirela, modu duinean bederen. 1930eko hamarkadako giroak zalantza oro uxatuko zuen gainera, eta funtsean argi eta garbi utziko zuen, futbola, eta oro har kirol entzutetsuenak, Olinpiar Jokoen baitan txertatuta, nazioarteko lehia politikorako eragin handikoak zirela. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak kirolaren izaera amateurraren aldeko babes irmoa agertu zuen, eta hartara, FIFA Olinpiar Jokoetatik bereizitako futbol txapelketa antolatzerak bultzatu. Lehiaketa prestatzeko estatuen antolakuntzaren laguntza

funtsezkoa zenez gero, bide eman zion futbola asmo politikoetarako erabiltzeko nahiari (Dietschy, 2010: 149). Horiek hala, nazioarteko futbolak sarri irakatsi zion Londresko Atzerri Agintaritzari kirolak mundu zabalean britainiarren interesak defendatzeko zuen esanguraz, eta azkenerako kirolean ez esku hartzeko jokabide tradizionala moldatu egin behar izan zuen halabeharrez Gobernuak. Ezinezkoa baitzen aurrerantzean partida baten aurrean axolagabekeria ikusaraztea edota neurketaren esangura politikoez ez ohartzea, Peter J. Beckek dioen moduan, batez ere, Ingalaterrako futbol nazio taldeak aurrez aurre jokatzeko zuenean bere propagandaren zati garrantzitsua kirolean sustraitzen zuen estatua ordezkatzeko zuen nazio taldearen aurka (Beck, 2001: 251-252).

1934ko azaroaren 14an jokatu zuten Italiak eta Ingalaterrak Londresko Arsenal taldearen soropilean itzulerako neurketa, aurreko urtean bi herrialdeen artean lehen aldiz jokatuak partidan, Erromako joanekoan, bana egin ostean. Oraindik Britainia Handian jokatuak nazioarteko neurketa polemikoenetakoa bailitzan oroitarazia da bigarren hau, Ingalaterrak Italiari 3-2 irabazi zioneko hura. *Highburyko gudua* bailitzan ezaguna da, izan ere. Hitlerren botere hartzeak Londresko gobernuan artega sortu zuen, eta Defentsa arloan zeuden beharrezkoak aztertzeko gobernu batzorde bat eratu zuten, berriz armatzea begitatzeko, eta ildo berari jarraiki, Alemaniaren hedapenari jarkitzera zuzentzen zen politika mahai gaineratu zuten balizko aliatuak bilatzeko. Horrela, Frantziarekin batera, Italia bihurtu zen interes britainiarren lehenengo jomuga. Hortaz, britainiarrek ez zuten nahi futbol partida bat zela medio krispazio egoera sortzerik, baina hori izan zen, hain zuzen ere, 1934an Londresen gertatutakoa. Mussolinik Italiako taldea hitzaldi suttsua emanaz agurtu zuen, eta jendetza elkartu zen Erromako karraketan zehar partidaren irrati emankizuna entzuteko irrikaz (Holt, 2002: 82). Futbol neurketa soilaren oihartzunaren adierazgarria da gertatutakoa, eta faxismoaren erabilpen politikoaren baitan hedabideak hartzen hasiak ziren garrantziaren zertzelada bat ere eskaintzen du irrati ahotsak sustatu zuen bateraguneak. Inondik ere Mussoliniren gobernuak ikus-entzunezko hedabideen aurrekari goiztiarren laguntzaz, eta futbol lehiaren emozioari elkartuta, ahalik eta jende gehiena Italiako nazio nortasunarekin eta faxismoarekin estu atxikitzea zuen helburu.

Partida gudua bailitzan izendatu zuten gerora hura bertatik bertara ikusi zutenek, ingelesek batik bat jokoan agertu zuten oldarkortasunagatik. Ingelesek hala nahita kirola Italia haserrarazteko erabili nahi izan balute, ezin izango zuketena hobeto egin. Azaroan gertatu zen *Highburyko gudua* ez zen abiapuntu ona, bistakoa denez, Hitlerren aurkako

Stressako fronteko itunentzat, zeina apiril hartan biribiltzekoa zen, baina Italiak Abisinia indarrez eskuratu izanaren nahaste-borrastean hondoratu egin zen. Jakina, burugabea da pentsatzea futbol partida deitoragarria Hitlerren aurkako elkarkidetzaren baten porrotaren erantzulea izan zitekeela. Nazioen Ligako kide zen Abisiniaren aurka Benito Mussolinik agindutako erasoak izan zen Stressako itunak lurperatu zituena. Ildo horretan, era argian Nazioen Ligari britainiarrek emandako babesa izan zen, 1935eko ekainean “bakerako hautestontzietan” modu jendetsuan islatu zena, hausturaren erantzule nagusia. Edozein modutan, Italia eta haren harrokeria faxistaren kontra herritarrek plazaratutako arbuioa – hots, Ingalaterrako nazio kirolaren gaineko gailentasun asmoaren kontrakoa – faktore gehigarria izan zen. Ingalaterrako publikoa ez zegoen prest italiarren nabarmenkeriak begikotasun handiegiarekin onartzeko, futbol zelaiaren barruan nahiz Afrikan izan, eta aurrekaririk gabeko herriaren erantzun jendetsua, Italiarekin ezkutuko akordioaren baten gaineko albisteak argitara atera zirenean, ez zen inor gehiegi harritzekoa izan (Ibid., 83).

Stressako itunak hondoratzea eragin zuen azkenerako orduan piztutako politika zurrunbiloak. Beranduago, 1939an, Bigarren Mundu Gerra lehertzeaz zela, Ingalaterrako eta Italiako taldeen arteko beste lehia batek bi herrialdeen artean adiskidantza sustatuko zuen irrikarekin amets egiten zuen Neville Chamberlain gidari zuen Londresko gobernu bakezale baina zuhurtzia gutxikoak, eta hala, historiaren bilakaerak bere asmoen antzua agertaraziko zuen. Bina egin zuten orduan Milango udaberrian futbolariak adiskidantza partidaren, Bigarren Mundu Gerra irailean hasteko lau hilabete eskas falta zirela. Neville Chamberlainek futbolak Italiarekiko harremanak hobetuko zituen itzaropena bazuen, eta bat eginda, Alemaniaren indar agerpenari aurre egin eta bakea nagusituko zela sinetsita zegoen. Futbolak nazio harremanetan zuen garrantzia aitortu zuen bidez batez jokabide horrekin; are gehiago, bi mundu gerren arteko giro ezin malkartsuagoan. Herrialdearen interesentzat berebizikoa zen, ildo horretan, kirol nagusi horrek eskaintzen zuen nazio nortasunen ordezkariak oparoa egoki probestea. Askotariko erpinetako abagunea, inondik ere, eta futbolaz aritzean ahazten diren adiskidantza eta bake helburuak lehenetsita aldi horretan. Britainiako futbolariak beren herrialdeen mesedetan jokatzen eta golak sartzen zituztela agertzen hasi zen geroz eta gardenago, eta lehian arrakasta izanez gero diru etekin handiagoa lortzeko aukera zuten jokalariek, kirol propagandaren bide eraginkorra jorratuz. Halaber, nahiz eta Ingalaterrako eta Eskoziako futbol federazioek, gobernutik berezitateak izaki, futbolaren esparrura mugatzea hobesten zuten, eta politika kirolek at mantendu behar dela dioen ohiko leloaren aldekoak izan, geroz eta gehiago

behartuko zituen gerraosteko garaiak nazioarteko futbola politikatik bakanduta gertatzen ez dela aitortzera (Beck, 2001: 262). Ondorioz, kirol guztien nolakotasun zerutiarraren babeslerik gartsuenak, hau da, britainiarrak, ohartu ziren jadanik loturaren tinkotasunaz, eta Alemaniak, bitartean, Italiaren bideari ekin zion kirol propagandaren erabilpenean.

Hala, 1936ko Olinpiar Jokoen antolaketa izan zen Adolf Hitlerrek begiztatutako gutiziazko ondasuna. Munduari alemaniar arrazaren gorentasuna adieraztearekin batera alemaniar antolakuntzaren gailentasuna ikusaraztea zen berebiziko jomuga. Bigarrenean bederen, parez pare asmatu zuen nazien gidaritzak. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak bestalde, ez zuen espero 1931n jokoen antolakuntza Berline esleitu zionean, Weimarko Errepublika ahularen hatsik gabeko agintea oraindik ere indarrean zegoenean, bost urte beranduagoko baldintzak hain ezberdinak izango zirenik Alemanian, nazien hazkundera nabarmena izanagatik. Kirol modernoan ezaugarri garrantzitsuenetakoa zen – teorikoki bederen, ez hainbeste hori praktikan gauzatzen zenean – berdintasunarena; ez arraza, ez erlijioa eta ezta ideologia ere ez ziren izan beharko kiroleko gailentasuna baldintzatuko zuten faktoreak. Esan gabe doa berdintasunarena bezalako esamoldeak madarikazioaren pare zirela nazientzat, sortzezko arioen arraza gorentasunaren ideian sinesten baitzuten buru belarri. Horiek hala, 1936ko kirol ekitaldiaren geroak kinka larrian zirudien.

Hala ere, Olinpiar Jokoen antolakuntza batzordeko eledunen ezusterako, Adolf Hitlerrek ez zuen ekitaldiaren prestatze-lanak berehalakoan geldiarazteko agindu, behin-behinean aurrera egin zezatela baimendu zien, ordea, 1933an bere agintaldiaren hasieran izandako hartuemanen. Horrek ez zuen esan nahi iritziz aldatu zuenik, eta bat-batean olinpiar izaerarekin bat egin zuenik. Aitzitik, benetako arrazoia zetzan Joseph Goebbels propaganda ministroa konturatu zela Olinpiar Jokoen abagune ezin hobea eskaintzen zutela alemaniarren bizitasuna eta antolakuntza gaitasuna erakusteko. 1933ko urriaren 5an Hitlerrek lehiaketak jokatu behar ziren egoitzara bisita egin zuen, instalazioen lanak gainbegiratu zituen eta aldarte lirikoa hartu zuen inoizko Olinpiar Joko onenen aukeraz mintzatzean. Bost egun geroago erregimenak erabateko sostengu ekonomikoa eskainiko zuela hitzeman zien antolakuntza batzordeko arduradun harrituei. Nahiz eta abegi oneko anfitrioi bailitzan agertzeko Hitlerren borondateak ezinegon iturri batzuk desagerrarazi zituen, beste zalantza batzuei bide eman zien, ordea. “Arrazoizkoa zenez, Nazioarteko Olinpiar Batzordea aski kezkatuta zegoen Olinpiar Gutunaren eta erregimen berriaren zutabe arrazisten arteko kontraesan eskandalagarriagatik” (Guttman, 2002: 52).

Naziek judutarren aurkako jazarpena indar betean abiatua zuten Olinpiar Jokoen atarian, baina Nazioarteko Olinpiar Batzordearen arduradunei sinestarazi zieten egiazki euren ez zutela judutarren aurkako neurririk hartzen oro har, ez eta bereziki kirolaren eremuan. Errealitatea oso bestelakoa zen. Alemaniak juduek ez zeukaten, salbuespenak salbuespen, jokoetan parte-hartzerik. Hala ere, Alemaniari kaltea eragiteko judutarren ekimena zela babestu zuen Avery Brundage Nazioarteko Olinpiar Batzordeko idazkari nagusi hautatu berriak, nazien aldeko joera jadanik aditzera emanda zuenak. 1935ean AEBetan, Kanadan, Britainia Handian eta Frantzia boikotaren aldeko kanpaina irmoa errotu egin zen. Nolanahi ere, guztiak jabetu ziren AEB Ameriketako Estatu Batuetako kanpainak berebiziko garrantzia zuela, eta Brundagek herrialdeko Olinpiar Batzordeko arduradun gisa esangura handiko zeresana bazuela. Hark beti adierazi zuen kirola eta politika banatu egin behar zirela. Ildo horretan, bere aburuz, arrazoizko ikuspegi batetik erregimen naziari eska zekiokena olinpiar arauak betetzea zen, eta agintari nagusiek hori hitzeman zuten (Guttman, 2002: 58). Brundageren ustez, kirolari amerikarrek ez zuten nahastu behar modu zuri batean “judutar eta nazien arteko gatazka garaikideaz” definitzen zuen auzian. Bere ikusmoldeari jarraituta, arazo orokorra zetzan erregimen naziaren aurka zeudenak ez zeudela olinpiar arauekin gustura, nola edo hala boikot bat nahi zuten nazismoa kolokan jartzeko; hots, jokoak arma politiko gisa baliatzeko asmoa zuten. Juduek eta komunistek boikota egitea nahi zuten zergo, Brundagek ondorioztatu zuen boikot egile denak juduak edo komunistak ziratekeela (Ibid., 59).

Hitler eta Goebbels biziki ahalegindu ziren munduari ikusarazten beren agintea baketsua eta ez kaltegarria zela. Berlingo udako Olinpiar Jokoa olinpiar izaerarako egiazki garaipen handia izan ez baziren, nazientzako propaganda arrakasta izan al ziren bestalde? Galderak ez du erantzun samurrik. Hitlerrek mundua txunditzea bilatzen zuen jokoen gorentasunarekin eta horrela gertatu zen. Instalazioak zinez berealdikoak izan ziren. 1916. urteko jatorrizko Olinpiar Jokoa aurreikusitako “Deutsches Stadium” zeritzona handitu egin zuten 110.000 lagun hartzeko gai izan zedin. Kanpoko olinpiar igerilekuan 18.000 ikuslek gozatu ahal zuten igeriketa lehiez eta jauzi-ohol ikuskizunez. Handikeriazko irudi nabarmen hori era ikusgarrian hauteman daiteke Leni Riefenstahl zinemagileak ekitaldiaren kariatara zuzendutako *Olympia* film ospetsuan, non arrandia egiazki apartekoa den. Goebbelsek filmaren egikaritzan ezarri zuen arretak harritu zuen Riefenstahl, ekoizpenaren aurretiazko ordainketak ere ematea hitzeman baitzion, filmak

arrakasta izatekotan propaganda balio handia izango zuela jota (Riefenstahl, 1991: 167). Kirolaren bitartezko ikus-entzunezkoen limurtze ahalmenaren adibide historikoa da hau.

Allen Guttmani jarraiki, milaka bisitarik Berlindik joatean nazionalsozialismoa hain txarra ez zenaren iritzia barneratu zuten, Olinpiar jokoan ostean. Brundagek azaldu zuen jokoak ez zirela propagandaren garaipena izan, eta esanaren frogarik irmoena zen Jesse Owens amerikar beltza izan zela Berlingo lehiaketetan gehien nabarmendu zen izarra. Ehun metroko lasterkaldian errekorra apurtu zuen 10, 6 segunduko markarekin, eta berrehun metrokoan Olinpiar marka gainditu zuen besteren artean, 20, 7 segundoko denborarekin (Guttman, 2002: 71). Arraza arioaren gailentasun kontzeptu hori irrigarria bihurtzen hasi zen kasik Koreako Kitei Sonek maratoia irabazi zuenean, eta Japoniako igerilariak 1932.urteko balentria errepikatzea erdietsi zutenean – igeriketa eta jauziko Japoniako taldeak, okupatutako Koreako kirolariak barnean hartzen zituenak, urrezko lau domina irabazi zituen, zilarrezko bi eta brontzezko bost –. Litekeena da naziengan nahasmendu gehien sorrarazi zuen emaitza emakumezkoen altura jauzian gertatutakoa izatea. Bergmann judutarra nazio taldetik kanpo utzi zuten naziek aurretiaz, eta beraien atsekaberako, Ibolya Czakek, Hungariako judutarrak, 1, 60 metroko jauziarekin irabazi zuen – Bergmannek zehatz-mehatz jokoan aurretik egindako markarekin – (Ibid., 75).

Esan liteke jokoan antolakuntza handitasunagatik Alemaniako nazio nortasuna eta horren bidetik nazismoaren zilegitasuna zabaldu zituela Hitlerren gobernuak, baina kirol lorpenek ez zutela mundu zabalean arraza arioaren nagusitasuna erakusteko balio izan. Nazismoak bere burua zuritu ahal izateko aukera erabili zuen nazioarteko kontrako ahotsen aurrean, baina kirol lehian ezin izan zuen sobera harrotasunez bete, emaitzak Alemaniarentzat aski oparoak izan baziren ere: Lehen postua dominen sailkapenean, eta lehenengo aldiz AEBen eta Italiaren aurretik, gainera. Naziek behin-behinean bertan behera utzi zuten juduen eta gainerako arerio politikoen jazarpena. Alemaniarrak pozik zeuden jokoekin, lehiaketa handietan arrakasta txikia eskuratu bazuten ere, eta ematen zuen erregimen alemaniarra harremanetarako adeitsuagoa izango zela harreman publiko ariketa etengabearen ondoren (Holt, 2002:96). Zinemaren bidez Olinpiar Jokoan eragina denboran barreiatzeko hautua egin zuten gainera naziek. Era horretara, ekitaldiaren sona eta propaganda politikorako gaitasuna ez zen luzaroan ezereztuko. Nazismoa hondoratu bitartean ez behintzat, eta gaur egun arte ere iraun du Olinpiar Jokoan ikus-entzunezko ekoizpenaren prestutasunak, XX.mendeak utzi zuen zuzendari oparoenetakoaren lanari

eskerrak. Biei ala biei, 1936ko Berlingo kirol ekitaldiari nahiz Leni Riefenstahl *Olympia* filmaren zuzendariari, nazismoaren ondareak lapurtu die loria eta begirunea gizateriaren oroimenean.

Nolanahi ere, historian 1934ko Munduko Koparen jarraipen gisara egokitu da, kirola talde nortasunen indarra elikatzeko erabili zen heinean inongo estalkirik gabe eta era aski gardenean, are gehiago Italia eta Alemania hurrenez hurren kirol ekitaldi horien kokalekuak izan zirela kontuan hartuta. Izan ere, orainaldiko azkeneko Munduko Kopa, Europako Kopa edota Olinpiar Jokoetan antzeman izan dute adituek ekitaldi handi baten hartzaile izateak, delako herrialdearen kirol arrakasta zinez nabarmenegia ez izanda ere, nazioarekiko atxikipen garra suspertzeko abagunea eskaini ohi duela. Bestalde, Berlingo Olinpiar Jokoen aurreko hiru urteetan ere, naziek nazioarteko lehiak hauspotu zituzten, kanpoko bakantzea ekiditeko. Mugez gaindi nazien bandera jakinarazteko ere balio izan zuten neurketok (Kruger, 2002: 136). 1933ko martxoan jokatu zuen nazien aroko lehen partida Alemaniako nazio taldeak. Frantzia hartu zuen historian bigarren aldiz. Hitlerrek boterea hartzeak hala nolako asaldura eragin zuen Europan, eta Frantziako Gobernuak eledunek futbol elkargoari presioa egin zioten zio moralak tarteko partidari boikota egin ziezaion. Hala eta guztiz ere, partida jokatu egin zen eta aparteko istilurik gabe gainera. Hiruna egin zuten bi nazio taldeek 50.000 futbol zaleren begiradapean, Hermann Göring agintari nazia ere han zela. Futbol lehia gutxienekoa zen eta hedabideek ere hala agertu zuten jarraitzaileen portaera egokia goraiapatuta. Hainbestekoa zen adiskidantzazko giroa ezen partidaren ostean eginiko otorduan Jules Rimet FIFAn eta FFF Frantziako Futbol Federazioko presidentek Frantziako Alemaniako nazien inguruko okerreko hautemateak zuzenduko zituela hitzeman zuela (Benoit, 2008: 537). Frantziarren adimenean futbolak zuen eraginaren ezagutza gordeta, Alemaniako buruzagiak kirola beren atzerri politikan txertatzen hasi ziren, eta 1930eko hamarkadan Europako nazioak gogatzeko erabiltzen.

Azpimarratzeko modukoa da Ingalaterrak eta Alemaniak 1935. urteko abenduan Londresen jokatutako futbol norgehiagoka. Alemaniak Britainia Handiko iritzi publikoa limurtzeko Ingalaterrari zuzendutako kultur erasoaldiaren baitan txertatu zuen ekitaldia. Etxekoek 3-0 irabazi zuten eta hedabide ingelesek alemaniar futbol zaleen jokabide ona nabarmendu zuten (Kruger, 2002:137). Londresko gobernuak arazo franko eduki zituen futbol partidaren gertaera kudeatzeko, bertara gerturatu behar ziren milaka jarraitzaile alemaniarren portaeraren inguruan beldur zelako. Futbol partida bertan behera uztearen

ideiak aurrez ezarritako arauak urratuko zituen, bai Britainiako kirolaren tradizio iturriei eta bizitza publiko alorrari zegokionez, eta baita Ingalaterra eta Alemaniaren arteko biko harremanen inguruan². Onargarria izan zitekeen Alemaniarekin adiskidetzea kirolaren ageriko manipulazio batekin erdiestea – britainiar izaerarekin bat ez etorrita ere –, baina oso bestelakoa zen, eta onartezina, diplomazia istilu baten arriskua Gobernuak bere gain hartzea, alemaniarrek mesprezatuta, partida jokatu zela aurrez hitzartu eta gero (Holt, 2002: 86). Batetik, nazioen harremanen eta futbolaren arteko bereizketaren, eta bestetik, kirola adiskidetzarako tresna zilegia bailitzan erabiltzearen artean oreka bilatzeko aski lan izan zuen Londresko gobernuak. Baina futbola azkenean gainjarri zen, eta hasierako beldur denak uxatu zituen. Ez zen istilurik gertatu. Zera jazo zen, Alemaniak 3-0eko porrota eskaintzea hobetsi zuela, aurretiaz emaitza hori izango zela iragarrita (Ibid., 92).

Gobernu britainiarrek kirol ekitaldiekiko independentzia aditzera eman nahian Italiarekiko harremanak gaiztotzeari bide eman bazion, ez zegoen prest 1935ean gauza bera gerta zedin Alemaniako agintearekin. Hasieran ez zuen hausnartu kirolaren barruan estatuak zuen izen ona diplomazia harremanetan aldeko lan tresna bat bezala baliatzerik, hain zuzen ere funtsezko garrantzia zuten mugimendu eztabaidagarrien inguruan. Hala ere, Hitlerrek beste ikuspegi bat zuen. Une horretan britainiarrei begirako hurbilpena hobesten zuen agintariak, haiekiko arraza begirune bat mantentzen zuelako, eta nola edo hala frantziarrendik aldenarazteko (Holt, 2002: 84). Londresko gobernuaren aldetik, mahai gaineratutako estrategia arrakasta handikoa izan zen. Erronka gainditua izan zen Alemaniaren aurrean argiki amore ematen zuela aditzera eman gabe. Atzerri Ministerioa kirolaren balizko garrantzia politikoaz ohartarazia izan zen. Une horretatik aurrera bere strategiaren muina parte-hartze eza ziurtatzeko parte-hartzea izango zen, hau da, auziak askatzea Britainia Handiak kirol gertaerengatik gainontzeko botereak ez laidoztatzeko moduan, eta aldi berean gobernu parte-hartze zuzenetik aski urrunduta mantentzea (Ibid., 92). Futbol partidaren berehalako uzta izan zen 1936ko Olinpiar Jokoei boikota egiteko herrialdearen barruan sortu zen mugimenduari eragindako atsekabea. Talde nazi bati Ingalaterran lehiatzea eragotzi ezin bazitzaion, ezin debekatu orduan Ingalaterrako

² Ingalaterraren eta Alemaniaren arteko futbol partidak eragin zuen protesta uholdea aintzat hartuz, naziek sorterrian, futbol estadio batean, jarraitzaile judutar bat hil zutela nabarmenduta besteak beste, Londresko gobernuarentzat aise askatu ezin zitekeen arazoa bilakatu zen. Adolf Hitlerren agintaritzak azaroan, lehia baino hilabete lehenago, lehia bertan behera uzteko aukera bermatu zuen, baina Britainia Handian ebatzi zuten partida ezerezteko egokiera lehenago baliatu behar izan zutela inondik ere, eta alemaniarrek istiluak izatekotan britainiarrei egozteko prestatzen zeudela. *Sport, Cultural Politics and International Relations: England versus Germany, 1935* Brian Stoddarten artikuluko 41. orrialdean sakondu daiteke xehetasunean.

atletismo taldeari Alemaniara joatea. Britainia Handiko gobernuak Ingalaterra-Alemania partidaren ondorioz agerian kirola politikan nahastearen arriskuak aintzat hartu zituen. Paul Dietschy historialariak dioen moduan (2010: 219-220), naziek atera zuten partida horretatik etekin nabarmenena diplomazia alorrean, kirola eta politika esparru bereiziaz zirela aditzera ematen baitzuten aldarte eta keinu naziak areagotzen zituzten aldi berean. Gero, Londresko gobernuak tentu handiz aritu zen Olinpiar Jokoez ez zitzaten Alemania eta Ingalaterraren hartuemanak urratu, kirol gertaeratik albo batera izaten ahalegintzen zen bitartean.

Kirolaren kultur eta politika kokapenaren inguruan zituzten ikuspegi ezberdinek Alemaniari ahalbidetu zioten politika eremuan britainiarren aurrean abantaila erdiestea, eta futbol partida funtsezkoa zen bide horretan (Stoddart, 2006: 33). Estatu eraikuntzan kirolek zuten baliagarritasunaz erabat gogotuta zegoen 1935eko Alemaniako erregimen hark kirolaz Ingalaterrak zuen zalantzazko jarrera probestu zuen politika negoziazioen eremu zabalagoan abantaila nabaria bermatzeko. Kultur alderdiak, zeinean Alemaniako ideologoek begietan kirola funtsezko osagaia zen, osterantzean onargarriak ez ziren Alemaniako nazioarteko politika estrategientzako influentziazko babesa mantendu zuen. Brian Stoddarten ustez, kirolaren eta politiken arteko harremanaren izaera modernoaren behatzailearentzat zehaztasun batek argia izan behar luke: Alegia, kirolaren, kulturaren eta politiken arteko loturan Alemaniak eginiko ahaleginak kokapen are okerragoan jarri zuela harreman ahaltsu hori arbuizatzeko irrika zuen Ingalaterrako gizartea (Ibid., 44-45).

Agintari naziek nazioarteko kirolari tamaina handiko garrantzia eman zioten, eta kirolariak zera ziren eurentzat: kirol jantzia soinean zeramaten soldaduak, aberriaren alde borrokatzen zutenak. Hain zuzen ere, Benito Mussolini lehena izan zen hain modu argian urte batzuk lehenago futbolarien eta nazio nortasunaren arteko uztarketa azaltzen. Italiako jokalaria nazioaren izatearen zerbitzurako soldaduak ziren beretzat (Ramonet, 1999a: 134). Halaber, atzera begiratuta, garbi ikus daiteke nazio ordezkartzako sistema eraginkorra izan zela kirola nazismoaren garaian, baina baita aurreko hamarkadan ere. Nazismoa indar hori bizitzen ahalegindu zen agintearen mesedetan hein handi batean. Olinpiar Jokoen handitasunaz gain, Hitlerrek ez zuen futbolaren baliagarritasuna behar bezala ustiatu gabe ahazteko asmorik. Nazien buruzagiak futbola gorrotatzen zuela esan ohi da, baina atzerriko kirol horrek jendetzarengan zuen eraginaz limurtuta, propaganda politikoa burutzeko lan tresna egokia izango zela ere ondorioztatu zuela. Erregimenaren

propagandaren zuzendaritza horretan behinolako garrantzia hartu zuen Goebbelsek, eta hark idatzia da honakoa: “Futbol partida bat irabaztea garrantzitsuagoa da jendearentzat Europako ekialdean hiri bat mendean hartzea baino”. Hitlerren alboko agintari leiala zen propaganda ministroa, eta hark esana garrantzia berebizikoa zen beraz. Von Ribbentrop Atzerri ministroaren esanetara, halaber, futbol partidek aukera ematen zuten askotariko eremuetako politikari eta abarrekin hartuemanak bideratzeko. Hartara, Alemaniak 106 neurketa jokatu zituen 1933tik 1942ra, eta horietatik 69 irabazi zituen (Dietschy, 2010: 222).

Britainia Handiaren pare Alemaniak orduan diplomazia funtsetarako erabili zuen futbola Bigarren Mundu Gerraren aurreko urteetan, eta gogoangarria da ildo horretan Ingalaterra adiskidantza – lehiaketa orotik kanpokoa – norgehiagoka batera erakartzeko egindako ahalegina. Londresen 1935.urtean jokaturako partidaren itzulerako neurketa 1938ko maiatzaren 14an gertatu zen Berlinen, eta esangura handiaz hornitutako keinuan Chamberlainen gobernuak bake xedearekin, Berlingo enbaxadorearen bidez, jokalariei galdegin zien nazien agurra egin zezatela partida aurretik. Futbolari guztiak haserrarazi zituen eskaerak, baina politikarien apetaren aurrean men egin zuten Britainia Handiaren eta Alemaniaren arteko giroaren estuasuna ulertarazi zietenean. Izan ere, hartuemanaren sua “Europa pizteko txinparta” baten faltan zegoela adierazi zieten politikariek (Benoit, 2008: 532). Ingalaterrak aurreikuspen onenak gainditu zituen Alemaniari etxetik at 3-6 irabaziz, eta futbolariak eskuarekin nazien agur faxista eginez, areago txunditu zituzten bertaratutako 110.000 alemaniarrek. Ingalaterra asebeste egin zuen norgehiagoka horrek. Futbolaren erregetza berretsi eta Alemaniaren aurrean itxura ona eskaintzea lortua zuen. Partidaren aurretik futbol federazioak Atzerri ministerioaren gutun ez ofiziala jaso zuen Erresuma Batuen prestigioaren onbiderako selekzioak partidaren arrakastazko ekarpena burutuko zuela ziurtatzeko asmoarekin helarazia (Dietschy, 2010: 220-221).

Horrela, beste behin ere, nazio nortasunen baitako harremanetarako baliatua izan zen kirola, eta modu berezian gainera, harreman eta erabilpen hori gehien baztertu zuen gobernuaren bultzada izan baitzuen. Chamberlainen ikuspegitik baliabide oro zilegia eta bidezkoa izan zitekeen Lehen Mundu Gerrako hondamendia berriz gerta ez zedin, baina kirolarekiko britainiarren ohiko jokabide banatzailea azkenerako erabat lurperatu zuen Ingalaterrak hartutako jokabidearekin. Horrenbestez, bi mundu gerren arteko bitartek kirolaren eta nazio nortasunen arteko hartueman aski banaezina betikotu zuela iradoki

daiteke. Futbola Munduko Koparen sonak zuzenduta nazioarteko heldutasunera heltzen hasi zen neurrian, lurreko kirolik entzutetsuena bihurtzeko bidean doitu zen, eta hartara, politikak eta nazio nortasunen aldarrikapenek bereziki bilatzen zuten kidea bilakatu zen. Gizarte eta klase mugak beste ezerk ez bezala zeharkatu ohi zituen masen jarduera, eta halaber kirol ikuskizuna izaki, futbolak abagune ezin hobea eskaintzen zien erregimen faxistei oroz gain kultura masa gizartearen baitan nazio komunitate zentzua eraiki eta sustraitzeko, eta horren bitartez hala nolako legitimitatea eta kontsentsua bideratzeko.

Naziek munduko gainontzeko herrialdeekin erkatuta futbola beren gailentasuna ikusarazteko baliatzeko asmoa zuten era berean, baina hein handi batean ametsa zapuztu zitzaizela esan liteke. Austriak Alemaniarekin bat egiteak munduko futbol nazio talderik indartsuena bihurtu behar zuen hori nazientzat, Austriako jokalariek hamarkada horretan aurretiaz erakutsitako eraginkortasuna aintzat hartuta. Hala ere, militarki behartutako batasunak ez zuen futbol zelaian adiskidetzarik bideratu, eta taldeak bi aldeen arteko bat egitea baino gutxiago zela eman zuen (Hough, 2008: 1292). *Anschluss* eleaz oroitua den prozesua gauzatu eta hilabete gutxira, hau da, Austria nazien III. Reichean baneratu eta berehala, Frantziako 1938ko Munduko Kopan parte hartu zuen taldeak. Ekainaren 4an Suitzari jarkitzeko austriar jatorriko bost jokalariek erabili zituen alemaniar hautatzaileak, baina Sindelar izar juduak uko egin zion nazien erregimena ordezkatzeko taldearen alde jokatzeari. “Futboleko Mozart” ezizenez ezaguna, orduko aurrelari onena bailitzan oroitua da. Bere erabakimenak ez zion lagundu Alemaniari, hasieratik kaleratu baitzuten suitzarrek, bana berdindu eta gero berdinketa hausteko partidari 4-2 irabazita. Suitzarren defentsa zurrunean oinarritutako joko estilo berriari *le verrou suisse* deitura jarri zioten kazetariak, hau da, suitzar hertsidurarena, bere inguruko botere handien arteko gatazka giroan beraren barruan babestu nahiko zukeen herrialdearen nazio nortasunaren izaera futbol zelaian hezurramitzen zela adieraziz.

Sekula ezein kirol ekitaldik ez zuen izango politikaren ikuspegitik horrelako giro artegarik. Bigarren Mundu Gerra piztear izateak, Txinarekin zeukan gerragatik Japoniak sailkatze fasean parterik ez hartzeko erabakiak, eta Espainiako 1936ko gerrak, nahitaez nazio taldea lehiaketatik at utzi zuenak, guztiak ere lehiaketaren garapena hein handian baldintzatu zuen. Zale frantziarrek Italia eta Alemaniako nazio taldeekin etsaigoa agertu zuten batetik, eta Japoniaz gain Austriak ere txapelketan parte hartzeari uko egin behar izan zion bestetik, 1938ko udaberrian egin zuelako bat jada Alemaniaren eta lehiaketarako

sailkatu arren (Solivellas Aznar, 1981: 92). Jules Rimet FIFAREN buruak adierazi zuen futbolak gerra aurreko etsaigo politikoko giroa baretzeko balio ahalko zuela (Boniface, 2006: 99). Jakina denez, Italiarena izan zen berriro garaipena. Mussolinik faxismoaren gailentasuna betikotzeko betebeharra ohartarazi zien jokalariei telegramaz: “Irabazi ala hil”. 1942ko ekitaldia hartzeko hiru herrialdek aurkeztu zuten hautagaitza: Alemaniak, Argentinak eta Brasilek. 1938an, Rimetek, Munduko Koparen sortzailea zenak – artean txapelketak bere izena zuen – epaia atzeratzea onetsi zuen denborari bere bidea egiten uzteko. Beste behin ere, futboleko nazioarteko arduradunek uko egin zioten Alemania jokoz kanpo uzteari. Hala, azkenean Alemanian jokatzea aurreikusita zen txapelketaren ospakizuna Hitlerrek abian jarri zuen gerrak lehertu zuen (Nouveau millénaire, 2006).

Futbola eta politikaren uztarpena garai hura ezaugarritu zuen asalduran sustraitu zen. Zehatz esateko, Bigarren Mundu Gerra garaian Europako futbolari kutsu politikoa zerion nazioarteko harremanen agente bihurtu zelako, propaganda iturri bilakatu zelako, jendetza baketzeko baliabidea ere bai, eta baita herri protestaren bitartekoa ere. 1930eko hamarkadan futbolak aingura bota egin zuen Europako kulturen baitan. Langile klaseko esparrutik atera, eta gizarte klase ezberdinek bere egin zuten parte-hartzaile eta ikusle gisara. Europako gizartearen nortasuna ezaugarritu zuen klubenez neurketan oinarritutako futbolak. “1930eko eta 1940eko urteetan futbola hala nolako familia zabalaren parekoa bilakatu zen” (Benoit, 2008: 534). Macon Benoiti jarraiki, ziur asko futbol talde baten kide sentitzea identitate argiagoa zen, lotura nabariagoa izaki, besteak beste, holandar, alemaniar edo ingelesa izatea baino (Ibid., 535). Horregatik, nazioarteko lehiak jokatzen zituzten futbolariak, alemaniar eta italiarrez gain, ingelesek, austriarrek eta frantziarrek ere, euren nazioaren enbaxadore lana egiten zuten eta haien nazio harrotasuna babesteko egitekoa. 1930eko urteetako auziek eraginda herrialde ezberdinetako hiritarrek nekez egiten zuten topo. Futbola europarren bilgune bakanetakoa zen. Europar bizilagunekiko hiritarrek zuten hautematean eragin handia zuten nazioarteko lehiak.

Bigarren Mundu Gerra lehertzean naziek Europako lurraldeak mendean hartzen zituzten heinean, okupatutako herrialdeetan bizimodua aldatu ez zela aditzera eman nahi izan zuten, gizartea artega ez izateko alegia, eta hartara, maiz, futbol partidak jokatzea baimendu, eta baita sustatu ere, egin zuten lurraldeotan. Wehrmacht alemaniar armadak okupatutako lurraldeetan futbolaren loraldia izan zen. Hala ere, Herbehereetan adibidez, etxeko taldearen eta Alemaniaren arteko partidarik ez zuten egin, alemaniarren kontrako

adierazpenak sortuko zituenaz beldur (Dietschy, 2010: 230). Izan ere, menderatzaileen xedea futbola bidelagun hartuta jendetza baketzea baldin bazen ere, maiz erantzuna hain justu kontrakoa zen, masa protesten agerpena alegia. Bigarren Mundu Gerrak iraun zuen sei urteetan futbola geroz eta tresna garrantzitsuagoa bilakatu zen identitate eta politika sentimenduen adierazpenean. Estadioa dagoeneko jende andanak diktadura erregimenak arbuiatu ahal izateko azken babesgunea bailitzan lekutu zen. Jokoari politikatik eraginda nortasuna sortzeko iturri izatera bideratu zuten futbola, hiritarrak aldi berean klubari eta herrialdeari atxikita. Epe hartako futbola ikertuz gero, ondoriozta daiteke kirola orduko gizarte aztarna baliotsua zela. Hala dio Macon Benoitek: “Nahiz eta Europa gerrak hartu zuen, herrikideak gerra-tokira bidali arren, eta bizilagunak kontzentrazio esparruetara hiltzera eramaten bazituzten ere, futbolak europarrak liluratuta zituen oraindik. Horrek adierazten du gerrak ez zuela Europako gizarteko egunerokotasuna hainbeste eraldatu” (Benoit, 2008: 548). Herrialdearen okupazioaren aurrean herritarren erantzuna ulertzeko ere lagungarria da. Danimarkan eta Herbehereetan kasu menderakuntza nolabait onartu zuten herrialdeetan futbolak jarraitu egin zuen, eta loratu ere bai. Menderatzaileei aurre egin zieten herrialdeetan bestalde, jokoa eten edo erabat geldiarazi zuten. Azken batean, futbolaren joera politikoa hala erabakita burutu zen. “Dena den, futbola politika xedek jomuga hartzetik eratorritako ezusteko ondorioak Europa garaikidean garrantzitsuagoak izan ziren aurretik pentsatutako ondorioak baino” (Ibid.). Esan nahi baita politikaren eta futbol neurketaren lotura bultzatzearen eragina sustatzaileentzat sobera edo jasanezina izan zela maiz Europa garaikidean Benoitzen esanetan. Aintzat hartzeko moduko argudio bidea da, gobernuen erabilpenetik ihesean doazen futbolaren gizarte eraginez ari delako.

FIFAk kalte handirik jasan gabe biziraun zuen Bigarren Mundu Gerra garaian. Nazio auzien eta SESBen gaineko politika burutsuek etorkizuna prestatzea ahalbidetu zioten. Hala ere, neutraltasun eta ez esku-hartze oinarriek giza anaitasunari eta ideologia bakezaleari buruz bere ikusmoldea ez plazaratzera bultzatu zuten. Hitzemanik gabeko politikak Nazioarteko Federazioa humanismotik kanpoko ideologiak onartzera eraman zuen. Jules Rimetek bere agintaldia amaitu zuenean idatzi zituen gogobetetasun hitzok orekatu beharko lirakeke, “elkarrenganako hurbilpena eta ulermena sustatzeko” futbolak duen ahalari buruzkoak alegia (Eisenberg et al., 2004: 280). 1946ko futbol erakundearen biltzarrak Alemania eta Japonia zokoratu zituen, eta herrialdeon ordezkariak egingo zuketzen edozein klub edo talderekin harreman mota oro debekatu egin zuen (Ibid., 281).

3.2.2-Bigarren Mundu Gerraren osteko garaia: Gerra Hotzaren eta kirol boikoten aroan futbol txapelketak eta Olinpiar Jokoak nazioarteko harremani txertatuta

Bigarren Mundu Gerraren aurretik Italiak eta Alemaniak kirola propagandarako baliabidea bailitzan hain nabarmen erabili izanak historiaren joan etorrian eta ondorengo gizaldien oroimenean atxiki du diktadoreen baitakoa dela kirolaren erabilpen politiko ez duina, eta gainontzean hala nola helburu politiko “ez zilegietatik” salbu gelditu dela kirolaren lehia askea. Esan nahi baita muturreko nazionalismoko aginteetatik at kanpo eraginez asketsi dela. Aitzitik, nazio nortasunen eta kirolaren harremana nahita ezkutatu edo azpiratzeko asmoak sustatu du orokortze hori, eta XX.mendeko gertaerei sakonean erreparatu hutsarekin atzeman daiteke erabilpen politikoaren eta kirolaren arteko lotura irmoa. Egitura demokratikoa duten estatuetak politikariak azkar batean murgildu ohi dira futbolaren ubidean nazioarteko lehiaketetako arrakastatik etekina ateratzeko. Lehia handietako finaletan gobernuburu bertaratzea ohiko eginbehar politikoa bilakatu da. Era berean, gobernu liberal hainbatek nazio taldearen kudeaketa edozein ministerioren funtzionamenduaren parekoa bailitzan jorratu dute, eta aldaketa bat eskatu izan dute ildo horretan, arrakasta urrun izan denean (Hough, 2008: 1290). Politikariek eta gobernuak kirola baliatu izan dute, hots, kirola xede politikoekin nahita nahastu izan dute, batetik beren agintearen mesedetan nazio nortasuna hauspotu asmoz, eta bestetik, kanpo etsaien aurrean nazioarteko harremanetan beren interesen alde presioa egiteko. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo boikotak, hau da, mundua bitan zatituta, Gerra Hotzean murgilduta, zela egindakoak, esanguraz beterikoak izan ziren hartara, eta hainbatek jarrera aldakorra ikusarazi zuen nazioarteko harremanen baitako gertaera edo egokiera gisakoen aurrean.

Egiazki, noski, moral eta politika ikuspegiak kirolek banatu ezinak dira, kirola ez baita hutsunezko isolamendu batean gertatzen, baizik eta bizitzari lotutako izatea da. Hortaz, ‘kirola politikatik kanpo utzi’ erregua, kirolaren benetako izaeraren karikatura erromantikoa oinarritua dago: ‘Bizitza kirolek kanpo utzi’ esatearen parekoa izango litzateke (Hain, 1982: 233). Peter Hainek dioen moduan, benetako egitatea da kirola beti politikaz korapilatua izan dela, eta horren zantzu gorenetakoa bailitzan 1936ko Olinpiar Jokoen erregimen naziaren baliatzea zehazten du berak. Nolanahi ere, ondotik zehazten du hartueman hori atzeragokoa dela, Bigarren Mundu Gerra aurreko aldiaren behaketan

hauteman dugunez. Kirolak garrantzia hartzen hasi ahala, eta ekitaldiek negozio interes biziagoak erakartzen asmatu ahala, politikaren betekizuna ere indartzen joan zen. Baina hori onartzea bata da, eta bestea, zinez ezberdina ere, Hainek oroitarazten duen moduan, argudiatzea nolabait kirol “puruaren” urrezko aro bat egon zela, eta garai horretan politikarien azpijoko “zinikoetatik” garbi biziraun zuela (Ibid., 233-234).

SESB Sobiet Batasunaren nazioarteko kirolen inguruko ikuspegi eraldaketaren eta horrenbesteko AEB Amerikako Estatu Batuen aurrez aurreko neurtzeak ezaugarritu zuen aro berria. Bigarren Mundu Gerra aurretik SESBen nazioarteko kirol harremanak langileen erakundeekin antolatutako bilguneetara mugatu baziren, ondoren nazioarteko kirol erakundeekin bat egin zuen, eta aurretiaz salatutako horien oinarriak onartu zituen. Kirola biko munduaren guda esparru sinbolikoa bihurtu zuten horrenbestez, bi botereen artean bereziki, eta baita euren inguruko artean ere, Alemanian kasu. Hegoafrikako *apartheid* erregimenari nazioarteko herrialdeek kirol alorrean jarritako boikota izan zen gerra osteko garaian goi politikaren eta kirolaren arteko uztartzea islatu zuen bigarren alderdi nagusia. Aro horretan hasitako kirolen nazioartekotze azkarrak eta hedabideen teknologiaren garapenak ahalbidetu zuten ekitaldiak diplomaziazko tresna erakargarriak bilaka zitezela. Testuinguru horretan, estatuez gaindiko Olinpiar Batzordearen moduko erakundeak, futbolaren eta kirolaren ingurukoak, nazioarteko politikaren aktore bilakatu ziren (Houlihan, 2000: 214). Hala, bi estatutan zatituta zegoen Alemaniari zegokionean, kirol talde batuen aldeko ildo hartu zuen kapitalismoaren mundu ikuskerak, eta AEBek bultzatutako batasun politikoaren alde jarri zen. Txina eta Taiwanen gatazkan bestalde, non biek nazioaren ordezkariak berentzat galdegiten zuten, bi talde izatea sustatu zuten.

Nazioarteko kirol erakunde gehienek ez daukate antolamendu demokratikoaren izpirituarekin begirunerik, eta Erresuma Batua eta AEBak, besteren artean, erakunde gidaritzaren arduraz hobaritzen dituzte. Hala, Nazioarteko Olinpiar Batzordea horren adibide esanguratsua da, zeinean botoen esleipenean estatu bakoitzak ordezkariak eta botere ezberdina duen. Brian Martinen ustez, hartara, zinez erakunde antidemokratikoa da, estatu kideen ordezkariak osatua, eta nazioarteko lehia politikorako bidea (Martin, 1996). Olinpiar Jokoak hasiera hasieratik politikoak izan zirela berresten du Martinek, politikak estatu antolatzailea zein izango den hautatzean eta zeinek parte har dezakeen erabakitzean baldintzatzen baitu. Gerra Hotzean errotuko ziren boikotek ildo horretan, funts berbera izango zuketean, eta kirolaren kanpoko eragin saihestezina adierazten dute.

Mussolini eta Hitlerretik haratagoko erabilpen politikoa agerikoa zen Bigarren Mundu Gerraren ondorenean, eta baita kirolaren bidezko nazio nortasunen hauspotzea bilakaera berean atxikiz. Estatu-nazio berrien ordezkari eta talde nortasun irrikak, esaterako, futbolaren magalean bilatuko zuen ildo horretan hein handi batean asebetetzea. Izan ere, kirol horren sona areago loratu zen gerraostean hedabideen zabalkundearekin batera, eta estatu berriak sortu ahala munduko plazan agertzeko beharrezana ere nabarmendu zen.

1950eko eta 1960ko hamarkadetan jada FIFAk garrantzia handiagoa eskaini zion nazioarteko erakunde gisa errotzeko asmoari. Testuinguru horretan, politika alorrean, Sobiet Batasunarekin gatazkak eragozteko jarrera hartu zuen. Bere barruko partaideen ahalmenetik etekin handiena ateratzea begiztatzen zuenez gero, bere magalean tinko eta zintzo eutsi behar zion, zernahi kostara, ekialdeko blokeko estatuei. Eginahal hori FIFAk 1945aren ondorengo urte eta hamarkadetan mundu politikan aurre egin behar izan zuen bigarren transformazioaren testuinguruan kokatu beharra dago: estatu-nazioa egitatearen orokortzea. Koloniak izandakoak, estatu handiagotatik zatitutako lurraldeak eta beste komunitate politiko asko, orotara hartuta ehun baino gehiago, estatu-nazio burujabeak bilakatu ziren azkar batean; eredu antzerakoarekin eraikiak, egitura aldetik berdinak, eta nazioen munduko gizartearen parteak bailiran. 1945. urtean jaio zen NBE Nazio Batuen Erakundeak hezurmamitu zuen oinarri hori. Nazioarteko futbol elkargoarentzat, gainera, partaide bihurtu zitezkeen lurraldeak hein handi batean gehiagotu egin ziren, eta aukera are eta handiagoa zen kontuan hartuz gero FIFAn sartzeko onarpena errazago lortzen zela NBEren oniritzia jasotzea baino. NBE Nazio Batuen Erakundeak 1960ean kolonia lurraldeen eta herri horien independentziaren gaineko adierazpena onetsi zuen bitartean, FIFAk ezin hautsizko tradizioari tinko eutsi zion, Lehen Mundu Gerra baino lehenago ere irudikatua, hain zuzen ere, onarpen jokabide eskuzabala plazaratzekoa. Salbuespen gisa, mendeko komunitate politikoetako futbol elkargoak onartzera ere iritsi zen, horiek eskaera egiten bazuten. FIFARA NBEra baino lehen sartu ziren herrialdeen artean hauek ziren: Kenya, Lesotho, Maurizio irla, Nigeria, Sudan, Uganda, Zipre, Malasia, Singapur eta Siria. Hogei urteko tarte horretan nazioarteko futbol erakundeak hasierako berrogei urteekin alderatuz hazkunde bikoitza eduki zuen (Eisenberg et al., 2004: 286). FIFAREN antolaketa erak eta europarren kudeaketa menperatzaileak zalaparta sorrarazi zuten luze gabe, bereziki XX. mendeko bigarren erditik aurrera, herrialde afrikar asko kolonialismo uztarritik askatzen hasi zirenean, eremu politikoan behinik behin. Munduan futbolaren

bidez ezagunak izatea zuten jomuga, nazio aitortzea lortzea alegia, eta xede horretarako Afrikako elkargoetatik gaindi jo beharko zutelako ondorioztatu zuten (Darby, 2005: 885).

Bigarren Mundu Gerra osteko lehen Munduko Kopa, Brasilen 1950ean jokatu, herrialde komunisten parte-hartzerik gabe ospatu egin zen. Jugoslaviak alabaina, Sobiet Batasunarekin hautsi eta bertan parte hartu zuen. Gainontzeko herrialde sozialistetatik bereiztea ahalbidetu zion hautu horrek Belgradi, eta futbolaren bitartez Moskurekiko lerrokadura gabezia agertaraztea (Boniface, 2002: 34-35). Ekialdeko herrialdeak 1954an izan ziren lehenengo aldiz Munduko Kopan. Sobiet Batasunak lau urte gehiagotan zain egotea erabaki zuen, eta Alemaniako Errepublika Demokratikoa 1962an murgildu zen futboleko lehia gorenean. Hain zuzen ere, urte horretan bertan aro maoista malkartsuan baneratu zen Txina Sobiet Batasunarekin 1961ean harremanak eten ostean, eta 1982a bitartean nazioarteko kirol lehiaketetatik at utzi zuen bere burua. Bigarren Mundu Gerra ondorengo Munduko Koparen lau ekitaldiak Brasilen 1950ean, Suitzan 1954an, Suedian 1958an eta Txilen 1962an hartu zituzten. Lau Munduko Kopa lehia horiei zegokienez, Europa eta Hegoamerikaren arteko txandatzearekin batera, eta noski ekitaldia hartzeko herrialdeen ahalmena ere epaitzeaz gain, hartzailea aukeratzekoan irizpide erabakigarria ezarri zen Ekialde eta Mendebaldearen arteko gatazkan izendatutako herrialdea neutrala izan zedila. Gero, 1960ko hamarkadan, Afrikako eta Asiako taldeak bildu ziren mundu mailako futbol norgehiagokara, deskolonizazio prozesuen ostean. Horrez gain, Israelgo estatua 1948an sortu zen, eta 1954. urtean parte hartu zuen estreinakoz Munduko Kopan. Herrialde arabiarrek harekin lehiatzeari uko egin zioten estatu hebrearra aitortzen ez zutelako. Ildo horretan, 1958an, Afrika eta Asia elkartzen zituen sailkatze talde batean Israelek partida ugari irabazi zituen arerioek jokatzea errefusatzeko zutelako. Indonesiak, sailkatze taldeko azken finalean Israeli jarki behar zitzaionean, Tel Avivera jokatzerako joatea baztertu zuen. Bestalde, 1966an Afrikako herrialdeek hartu zuten sailkatze fasean ere ez parte hartzeko ekimena, Munduko Kopan ordezkaritza aski ez zutenaz kexatzeko.

1970ean Mexiko arduratu zen futbol ekitaldi gorenena antolatzeaz. Krisi politiko eta ekonomiko sakonaren zama zuen artean. Hala, 1968an, ehunka ikasle hil zituzten Mexiko Hirian Hiru Kulturen enparantza izenekoan. Egun batzuk beranduago, bertan ospatu ziren Olinpiar Jokoak baliatu zituzten Afrikar jatorria zuten AEBetako bi atletek beren herrialdeko beltzen aurkako arrazakeria salatuz. Tommie Smithek eta John Carlosek, hurrenez hurren, lehen eta hirugarren postuak eskuratu zituzten lasterkako 200

metrokoen finalean, eta historiak belaunaldi bat igarota ere bere hautazko oroimenean arretarekin gorde duen argazkian biak ala biak burumakur ageri dira, eskularru beltzaz nabarmendutako ukabil beltza zerurantz zuzenduta dutela irabazleen podiumean, AEB Ameriketako Estatu Batuetako ereserkia entzuteko une sinbolikoan. Olinpiar Jokoen atariko gertaera odoltsuen ondoren, Munduko Koparen antolakuntzak Mexikori bigarren aukera eskaini zion nolabait. Hala ere, lehiaketa horretan Mexikoren eta Brasilen arteko dema estuan sei hildako eta 500 zauritu utzi zituen futbolak, eta are kezkarriagoa izan zen Brasilek txapelketa irabazi izanaren ondorengo ospakizunaren orbana. Brasilen, Rio de Janeiro aintzat hartuta bakarrik, 74 lagun zendu ziren, eta 2.100 erietxera eraman behar izan zituzten zaurietatik arta zitzaten (Nouveau millénaire, 2006). Izan ere, 1970. hamarkadan futbolari lotutako indarkeria adierazpenen hazkundera eta horren eraginezko heriotza ugariren aldizkako ezbeharrak jazo ziren. Bruselako Heysel estadioan 1985eko Europako Koparen finalean, Juventus eta Liverpool taldeak alderatu zituenean, 39 lagun hil zirenekoa izan zen futboleko indarkeriaren bilakaeraren gailurtzat hartu zena, baina aste batzuk lehenago 56 lagun hil ziren era berean, Ingalaterrako Yorkshire eskualdeko hirugarren mailako partida batean, piztu zen sutean harrapatuta ³ (Dietschy, 2010: 484).

Zoko guztietan barreiatu zen kirolaren bitartez barneko zatiketa sakoneko bezain arantzatsuei sendabidea lekutzea zen beste helmuga nabarmenena. Hedapen bizi horren ondotik futbola agintean betikotzeko bitartekotzat hautematen zuten politikari iruzurtiak zeuden; Kolonbian bezala, droga karteekin harremanak zituzten klubak; eta batzuetan, Ekialdeko hainbat herrialdetan gertatzen zenez, kirol elkargoetako presidentek “goitik” izendatu eta kargugabetzen zituzten, oinarriek izendatu beharrean. FIFAk ez zuen gisa horretako jokabideen aurkako ekimenik hartu, inoiz ez zituen publikoki salatu. Horiek horrela, hasieran era erasokorrean ahotan izandako “politikarik batere ere ez” esaera, ez gaitasun politikoaren frogaren adierazgarri bilakatzen joan zen. Are gehiago, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, giza eskubideen alorrari zegokionean munduko iritzi publikoan sentsibilizazioa hazten zihoan ahala, FIFAre ez esku-hartzeko joera horri atxikitako arazoak handitzen joan ziren. Bilakaera horren lehen gatazka oso esanguratsua 1973ko udazkenean gertatu zen, Txileko eta Sobiet Batasuneko nazio taldeen arteko Munduko Koparako sailkatze partidaren harira. Norvegiagoka 1973ko azaroaren 21ean jokatzekoa

³ Heysel estadioko ezbeharraren erantzuletzat zale ingelesak jo zituenez, Ingalaterrako taldeak Europako txapelketetatik kanporatu zituen UEFAk bost urtetan. Margaret Thatcherren gobernuak berriz, Erresuma Batuko Gobernuak kirol auzietan ez esku hartzeko zuen ohiko jarrera aldatu zuen Ingalaterrako futboleko jarraitzaileei oroz gain esleitu zitzaizen *hooliganismo* edo futbol liskar eragileen jokabidea amaierazteko.

zen Txileko Santiago hiriburuan, estatu kolpe batek herritarren botoek eta Konstituzioak zilegitutako Salvador Allenderen gobernu sozialista hondoratu eta bi hilabete geroago.

1973ko irailaren 11n Pinochet jeneralak Salvador Allende presidentea amilarazi zuen. Bereziki odoltsua izan zen estatu kolpe horrek, AEBen babesaz, ezker batasuneko gobernu lurperatu zuen, hain justu 1970ean demokratikoki aukeratu zutena. Errepresio lazgarriak jarraitu zuen gero, ehunka hilketarekin eta torturaren erabilpen orokorrarekin. Nazioarteko iritzi publikoak zirrara ikusarazi zuen, ezkerrek, berriz, arbuio eta erdeinua. Allenderen milaka jarraitzaile atxilotu egin zituzten, eta askotan nazio estadioan bertan tratatu txarrak eman zizkieten, torturatu egin zituzten alegia. Hala, itzulerako neurketa ez jokatzearabaki zuen Sobiet Batasunak, 1974. urteko Munduko Koparako sailkatzeko azkeneko abagunea bazen ere. Sobietarrek “heriotzaren estadioa” bailitzan ezagun egin zen berdegunean aritzeari uko egin ziotenez gero, FIFAk Txilera bidali zituen Helmut Kaser idazkari nagusia eta Abilio d’ Almeida Brasilgo presidenteordea egoeraren berri bertatik bertara izan zezaten. Hala, nahiz eta 1973ko urriaren 26ko txosten bateratuan Käserrek estadioak atxiloketa gune izaten jarraitzen zuela berretsi zuen, neurketa aldeztatik aurretik hitzartu bezala jokatzeara aholkatu zuen. Hark argudiatu zuen “halaberrez” han zen kazetari batek “sinesgarria” iruditu zitzaien moduan “baztertu” egin zuela estadioan fusilamendu ugari izan zirela zioten zurrumurruen egiazkotasuna. Halaber, gaineratu zuen Pinocheten gobernu berriko Barne ministroak ziurtatu ziola data jakin horretan estadioa “bere berezko egitekorako” erabili ahalko zela berriz ere. Hala ere, nazioarteko prentsari azalpenok onarraraztea konplexua izan zen. Sobietarrek ezadostasuna agertu zuten eta Txilerako bidaia egitea baztertu zuten berriz ere. Jarrera horrek kanporaketatik at utzi zituen, eta 1974. urteko Munduko Kopatik kanporatzea ekarri zien ildo beretik. FIFAk komunismoaren aurka irudikatutako konplotaren adierazgarria zela ondorioztatu zuten sobietarrek (Eisenberg et al., 2004: 287-288). Eurek behinik behin modu horretara ikusarazi zuten futbol erakundearen erabakimenaren nolakotasuna.

Mendebaldeko Alemanian ospatu zen urte hartako Munduko Kopa, ordukoan ere futbolaren egoitza nagusia bihurtuko zen estatuan aldeztatik gertatutako Olinpiar Jokoen biharamunak baldintzatuta. Izan ere, Municheko 1972ko Olinpiar Jokoen Irail Beltza zeritzon erakundeko komando palestinarrek kiroleko ekitaldia baliatu zuen bere helburu politikoetarako, hau da, auzi palestinarra mundu osoaren aurrean ikusarazteko. Kirolaren oihartzuna nazio nortasunen arteko gatazkaren berri emateko erabili nahi izan

zuten. Israelgo nazio taldeko 11 kirolari bahitu zituen taldeak. Municheko aireportuan Alemaniako Poliziako eskudroi bat indarrez taldearen ihesaldia eragozten ahalegindu zen, eta horko tiroketetan hamabi lagun hil ziren, palestinar bahitzaile gehienak eta baita bahituetako israeldar ugari ere. Hori zela eta, bi urte beranduagoko futbol lehiaketan muturreko segurtasun neurriak ezarri zituen Alemaniako Poliziak, gertatu zena ahaztu nahian, armaz jositako poliziak eta miaketa orokortuak tarteko. Kartzelaren pareko giroa dasta zitekeen ondorioz, futbol gertakarian. Hain ziren muturrekoak segurtasun neurriak hainbat behatzailek “Uniformeen Munduko Kopa” izendapenarekin oroitarazi zutela. Espainiar estatuari zegokionean, Municheko Olinpiar Jokoak eta ondorengo Munduko Kopa izan ziren koloreko telebistaren bidez hauteman ahal izan ziren lehenak. Askotan jazotzen denez, kirol ekitaldiok telebistaren teknologia aurrerapenen agertoki izan ziren.

Garai hartako giza eskubideen aldeko politika aldarri berriak nabarmendu ziren beste gatazka FASA Hegoafrikako Futbol Elkargoarekin FIFAk lotutako harremanen inguruan gertatu zen, FASAk herrialde hartako kirol txapelketak *apartheid* sisteman oinarrituz antolatzen zituela aintzat hartuta. Nahiz eta kide denak zuriak ez ziren, soilik horiek gidatzen zuten erakundea, eta taldeak jokalarien azal kolorearen arabera banatuta ziren. CAF izeneko Afrikako Futbol Konfederazioak Hegoafrikako elkargoaren kidetza bertan behera utzi zuen jadanik 1958.urtean, Afrikako Nazioen Koparako talde arraza anitza osatzeari uko egin ziolako. Orduz geroztik CAFeko ordezkariak eta kontinenteko beste elkarte batzuek FIFArekin aurrera hainbat ekimen igorri zituzten FASA elkargoaren kanporatzea erdiesteko. 1961ean beren xedea lortu zuten, baina FIFAk urte beteko epe gehigarria eman zion elkargoari arrazakeria akusazioak okerrak zirela frogatzea. Epe horretan Stanley Rous FIFAk presidentea esan zuen gatazka berari zuzenean eragingo liokeen afera bailitzan hartzen zuela. Rousen aburuz, FASAk araudiak ez zuen FIFAk arraza diskriminazioaz indarrean zuten debekua ezertan erasaten. FASA Hegoafrikako lege eta ohituretan oinarritzen zela, eta horregatik onartu beharra zegoela babestu zuen. 1963ko urtarrilean Hegoafrikako egoera gainbegiratzeko egindako bidaiaren kariatara burututako txostenean hau idatzi zuen: “FIFAk ezin du inongo herriren barne arazoetan esku hartu [...]. FIFA ezin da erabilia izan gobernu bat bere kirol politika aldaraztera behartzeko” (Eisenberg et al., 2004: 288). Inondik ere, esan hori kanpo eraginik gabeko futbolaren burujabetza erabatekoa aldarrikatzen duen pentsamoldearen adierazgarria da.

Jarrera horrekin Rousek etsaigo ugari sortu zituen, ez soilik FIFAREN ordezkari afrikarren baitan, *apartheid*-aren aurkako mugimenduaren sustatzaileen artean ere bai, batez ere argi eta garbi bere ikusmoldea plazaratzen hasi zen heinean, zeinaren arabera, Hegoafrikako arraza beltzeko futbolariak asebeteta zeuden FASA Hegoafrikako Futbol Elkargoaren agintepeko egoerarekin. 1964aren ondoren, federazio hori berriz kanporatu zutenean – ordukoan epe mugagabea –, Rousek isilpean lan egiten segi zuen estatutuen bere interpretazioa gainjarri asmoz. Azkeneko, jokabide horren ondorioei aurre egitea egokitu zitzaion. Izan ere, 1974an FIFAK Frankfurt hirian eginiko bilkuran erakundeko presidentetza galdu zuen, João Havelange brasildarraren aurrean, zeinak zentzu onez *apartheid*-aren gaia bere hauteskunde kanpainan ongi txertatu zuen gertaeren bilakaerari gertutik erreparatu ostean. Hegoamerikarren babesak ez ezik, afrikarren botoek eraman zuten Havelange irabaztera. Azkenik, batzorde exekutiboak aholkatuta, Hegoafrikako Elkargoa betiko kanporatu zuen FIFAK Montrealen 1976.urtean eginiko bilkuran (Ibid., 288-289). *Apartheid*-aren erregimenaren aurkako boikota hedatu egin zen nazioartean, eta nazio nortasunen norgehiagokan kirolak eskura dezakeen ahalmena berretsi zuen. Erregimenaren izen ona erabat desitxuratu zuen alde batetik atzerriko zigorrak, eta beste aldetik, ezinbestean horri itsatsita, Hegoafrikako nortasunaren irudia ere gaiztotu zuen kirolaren indar sinboliko bortitzak. Italian eta Alemanian erregimen totalitarioek nazio nortasuna goratuz beren aginte osoa zilegitzea helburu bazuten, boikotak kontrako bidea egingo zuen Afrikako hegoaldeko herrialdeko nazio izaera munduko ispiluan zartatuta.

Hegoafrikaren auziak FIFAK ebatzi beharreko gai garrantzitsuenen artean kokatu zuen futbola kirol nagusitzat zuten estatuen legitimitate politikoarena, eta adibide horrek politika eraginkorragoa eskatzen zutenak indartu zituen. Hala ere, amaitzetik urrun ziren estatu kideen legitimitate politikoaren inguruko eztabaidak. Izan ere, bi urteren buruan, antzeko gatazka lehertu zen 1978.urteko Munduko Koparen harrerari lotuta. Argentinari txapelketaren antolakuntza esleitu ziotenean, hauteskundeetan herritarrek izendatutako Peronen gobernuak zuzentzen zuen herrialdea. Hala ere, 1976ean, Videla jenerala estatu kolpe baten bitartez boterera iritsi zen, eta haren diktadura militarrek kirol lehiaketa burutzeko azpiegitura egokia eraikitzeke egitekoa “oinordetu” zuen. Argentinan boterea indarrez erdietsi zuen junta odoltsuak bertako Munduko Kopa Videlaren erregimenaren ikurra eta erakusleihoa bilakatzea nahi zuen. Lehiaketa antolatu zuen herrialdearen alde norgehiagoketako epaileek oro har azaldutako aldeotasunak, 1934ko Italiako gomuta oroitarazten zuenak, ez du pentsarazi behar futbolarik naturalki erregimen faxisten oinarri

politikoa bihurtzeko joera duela. Ingalaterra ere adibidez, demokrazia parlamentarioaren sorlekutzat jotzen dena, 1966an epaileen laguntzaz hobaritu zen berdegunean. Iraganean herrialde antolatzaile guztiekin gertatu zen gauza bera, euren agintearen eredia zernahi izanda ere. Aro hori amaitua da dagoeneko, ekitaldian hedabideek daukaten bozgorailu ahalmena dela eta (Boniface, 2002: 39). Epaileen aldekotasunak nabariegia ziratekeen.

1982ko Munduko Kopa bi gertaera apartekoek baldintzatu zuten bereziki egoera geopolitikoari zegokionean. Lehenik eta behin, Aljeriako nazio taldeak izandako maila onak, Alemania 2-1 eta Txile 3-2 azpiratu baitzituen. Aitzitik, ezin izan zuen bigarren fasean parte hartu Alemaniako Errepublika Federalaren eta Austriaren artean lotutako norgehiagoka eskandalagarriagatik. Neurketaren zati oso batean bi taldeek elkarri baloia pasatzen eman zuten denbora arerioa erasotzeko borondaterik izango ez balute bezala. Alemaniak 1-0 irabazi zuen partida, eta bi taldeak sailkatzea ahalbidetu zuen emaitza horrek, Aljeriaren kalterako. Iparraldea ados jarri zen Hegoaldeari aurka egiteko. Baina Alemaniak zeresan gehiago ere emango zuen, Frantziaren kontrako final erdietan, hain zuzen ere. Kirol hutseko bilakaerari erreparatuta norgehiagokak zirrara handia sorrarazi zuen. Berriz ere nazio ezaugarriak azaleratu ziren: Frantzia distiratsua baina makala, eta inoiz adorea galtzen ez duen Alemania eta borondatez aski hornitua. Hala eta guztiz ere, partida osoan Harald Schumacher alemaniarren atezainak Frantziako futbolarien kontra egindako ekintza oldarkor andana nabarmendu zen oroz gain. Alemania gerrazalearen irudia zen berriro orduan gardenki argitara atera zena. Horiek hala, Alemaniako politika arduradunak atsekabetu zituen atezainaren jarrerak, Frantziaren eta Alemaniaren arteko adiskidetzeta hain sendo goratzen zen unean gertatu izanagatik hain zuzen ere, eta baita, ildo horretan, Frantzia eta Alemania bikotearen ekarpena Europako eraikuntzaren motor gisara gorai patzen ari zenean (Ibid., 40). Hala ere, Frantziak penalti saioretan galdu zuen final erdiak, Harald Schumacher atezainak Patrick Battiston atzelari frantziarra kolpatu ostean heldutako porrotak, ez zituen bi herrialdeen arteko harreman orokorrak eraldatu. Atezainaren keinu oldarkorretik harrigarria zena hain justu ekintzaren basakeria zen, oinordekotzako bi etsaien arteko harreman baketsuekin talka egiten zuena. Alemaniako agintariak kezkatuta zeuden Schumacherrek neurri batean beraien integrazio ahaleginak zapuztu zitzakeelako, behinolako basakeriaren itxura berriz plazaratuta. Bi herrialdeek eratutako loturen irmoak istilua ahazten lagundu zuen, edonola ere (Boniface, 2002: 54).

Bestalde, esan beharra dago Espainiak 1982an antolatutako Munduko Kopan talde parte-hartzaileen kopurua hamaseitik 24ra igo zela Hirugarren Munduko estatuen ordezkaritza aldarriak eta UEFAko estatuen boterea uztartu nahirik. João Havelangen zuzendaritzapean FIFAk Asiaren eta Afrikaren ordezkaritza bikoiztea onetsi zuen, hots, kontinente horietako bakoitzeko bi talde izango ziren aurrerantzean Munduko Kopan. Dena den, afrikarrak ez zituen asebate erabakiak, eta europarren mesederako ebazpena izan zela gaitzetsi zuten. Bestalde, FIFAREN ekitaldi gorenean Europaren lehentasunezko tokia bermatua izan bazen ere, hango hedabideek ezkortasunez hartu zuten lehiaketaren eredia zabaltzeko João Havelangek bultzatutako erabakimena. Nolanahi ere, kopuruan handitu ziren txapelketa horietan futbolearen garatze bidean omen zeuden herrialdeetako nazio-taldeek lortutako maila onak adierazi zuen egonkortutako nazioen eta Hirugarren Munduaren arteko aldea nabarmen estutu zela (Darby, 2001: 895-896).

Aro horren testuinguruan, kirola atzerriko herrialde baten ordezkaritza eta haren nazio gorespena urratzeko eta zigortzeko erabiltzean, hots, boikota egitean, kontraesan ugari azaldu zituzten oro har munduko gobernuak, eta askotariko politikarien ikuspuntu eta aburuek. Kirol ekitaldien aurka aritzean hautatzea eta protesta ekintzak zuhurtasunez erabiltzea garrantzia handikoa da. Izan ere, kirola gutxienean, egoerari erreparatu gabe, automatikoki presio politikoen jomuga bilakatzen baldin bada, nazioarteko kirola erabat ezereztuko litzateke orduan, eta protesta horien maiztasunak ekintzok etengabearen beren eraginkortasuna galtzea ekarriko luke. Gainera, beharra badago hipokrisiaren amarauna eta auziaren osotasuna zipriztintzen duen joko bikoitza argitzekoa. Peter Hainek dioen moduan (Hain, 1982: 236), adibidez, arrazoi ugari bazeuden 1980ko Moskuko Olinpiar Jokoei boikota egiteko SESB Sobiet Batasunak Afganistan mendean hartu baino askoz lehenago ere, kontuan hartu izan balitz Moskuko gobernuak erruki gabe zapaltzen zuela bere barne disidentzia. Baina, Jimmy Carter AEBetako presidentea sustatu berri zuen aurkaritza kanpainak, Margaret Thatcherrek zuzenduta Erresuma Batuko Gobernuak hainbesteko grinaz babestuak, laster batean Gerra Hotzeko kokaguneko fronte bilakatu zuen boikot ekimen hori, eta autore berdinari jarraiki, jokabide politiko zinikoa bideratu. Afganistango inbasioa boikota zilegi bihurtzeko aitzakia bakarra izan bazen – eta ezein Mendebaldeko gobernuak ez zuen boikota babestu Errusiak afganiarren aurkako erasoak egin zuen arte – orduan arrazoi aski baziren AEB Ameriketako Estatu Batuak kanporatu edo zigortzeko 1968an, Vietnamen bertako erregimen ahula babesteko indarrez sartuta burutu zuten ekintzagarik (Hain, 1982: 236). Hausnarketari bide ematen dion gogoeta da

autoreak proposatutakoa, eta kirolaren kanpoan dauden erabakimenen nolakotasunaz zertzelada batzuk ematen ditu burutazioaren ondorioaren tankera ere iradokiz. Funtsean kirolaren izaera baliatuz AEBek sobietarrak munduaren aurrean zigor zitzaketen euren arteko harremana gehiegi erasan gabe. 62 estaturen boikota ziurtatu zuen Washingtonek.

Eskuin joerako politikariek egin zuten bereziki deiadarra kirola eta politika bide ezberdinetatik bereiztekoa. Hala ere, ikusgarria da Hainen hitzetan, horien eraldaketa. Hainbat hamarkadatan Hegoafrikak nazioarteko kirol ekitaldietan parte hartzearen aurka zeudenak kritikatu zituzten, baina bat bat-batean jabetu omen ziren politika eta kirola nahastearen bertuteez, 1980.urteko Moskuko Olinpiar Jokoen karietara, hain zuzen ere (Ibid., 232). Nolanahi ere, idazlearen aburuarekin ados egon ala ez, ez da funtsik gabeko arduragabekeria aditzera ematea estatuek kirola beraien mesederako baliatu izan dutela XX.mendean, sarri askotan erabilpen hori estaltzea komeni izan zaien arren. Moskuren aurka mundu kapitalistak deitutako boikotaren harira estatuek nazioarteko harremanetan diplomazia begi keinuak egin zitzaketen mundu esparru batera edo bestera lerratu, eta oro har hartuemanak izan zitzaketen artega handiegirik gabeko giroan (Houlihan, 2000: 219). Lau urte geroagoko Los Angelesko Olinpiar Jokoen Sobiet Batasunak eta haren inguruko estatuek mendekua hartu zuten, eta Ameriketako Estatu Batuetan jokatu behar zen kirol ekitaldiari kaltea eragin zioten. Bi hilabete eskas falta zirela jakinarazi zioten Nazioarteko Olinpiar Batzordeari ez parte hartzeko erabakia hartua zutela, azken uneko neurriak begiztatzeko betarik eman gabe (Solar Cubillas, 2007: 256).

3.2.3-SESB eta Jugoslavia estatu anitzen desagerpen aroa: futbola estatu jaioberrien izaeraren ordezkaria

Espainiako Munduko Koparen urte berean, 1982an, Malvina Uharten auzia zela eta gerra lehertu zen Argentinaren eta Ingalaterraren artean, eta lau urte beranduago, 1986.urteko Mexikoko Munduko Kopako lehia, berdegunean alderatu zituen bi nazio taldeak halabeharrak. Diego Armando Maradonaren izaera jainkotiarrak erabaki zuen norgehiagoka hori. Lehen gola eskuarekin sartu zuen argentinarrak, partidaren ostean “jainkoaren eskua” bailitzan definitu zuen jokaldian. Bigarrenean, mundu osoa liluratuta utzi zuen, Ingalaterrako jokalaria gehientsuenak atzean utzi eta gol ezinezkoa biribilduta. Marokoren arrakastak hezurmamitu zuen halaber futbol ekitaldi hori, egokitu zitzaion

taldeko buru izatea lortu baitzuen Ingalaterra eta Poloniaren aurretik. Horrela, Afrikako estreinako herrialdea bilakatu zen Munduko Koparen taldekako lehen fasean sailkatzen zena. Afrikar taldeen emaitza onek beren ordezkariak egarria zilegitzeko balio zuten FIFAREN begietara. Ondoren, 1990eko Munduko Kopan zaleek Alemaniako taldearen arrakasta bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten Berlingo harresia erori eta hilabete gutxira. Artean bi Alemanien arteko bat egitea finkatu gabe zegoen. Costa Ricak lehen aldiz Italiako Munduko Kopan lortu zuen final-zortzirenetara sailkatzea, eta mugarriak Gobernuarentzat zuen garrantziaren adierazgarri ekainaren 20ko egun horixe nazioaren eguna izendatu zuten. Ekitaldi historikoaren pare goratu zuten garaipena modu horretan (Nouveau millénaire, 2006). Bestalde, 1992ko Suediako Europako Koparen bilakaera eta emaitza Jugoslaviako gerrak erabat baldintzatu zituen. Jugoslaviak futbolearen lehen parte-hartzeko eskubidea lege onez eskuratu zuen sailkatze fasean, baina gerrak eragotzi egin ziren futbolari Suedian jokatzeko. Balkanetako gerra zela eta, kanpoan utzi zuten talde urdina. Suedian, Europako Kopan lehiatzeko txartelik lortu ez zuen Danimarkak hartu zuen Jugoslaviaren lekua, eta zoriaren berezitasunak edota patruaren halabeharrak zirela medio, aurretiaz sailkatzeko moduko gaitasun nahikoa agertu ez zuen talde horrek erdietsi zuen azkenean garaipena, talde bakar batean berriz elkartuta zegoen Alemaniari finalean 2-0 irabazita.

Jugoslavia zigortzeko bitartekoa izan zen futbola. 1992ko Europako Kopatik at utzi zuten Belgradeko gobernu Jugoslaviako gerratearen erantzuletzat jotzen zutelako. Nahiz eta Errusiak epe berean Txetxeniaren aurkako gerrari ekin, ez zuen zigorrik izan. Zigortzea ebatzi zuten, nazioarteko komunitatearentzat Belgraden aurka sinbolikoki oso indartsu jarduteko abagunea zelako, arrisku militarrik bere gain hartu gabe. Erabakiaren izaera gogor pairatu zuten serbiarrek, eta Jugoslavia nazioartetik baztertzeko hartutako beste ebazpen orok adina eragin eduki zuen sinbolikoki. Futbolariak Suedian prestatzen ari ziren, azkeneko fasea jokatu behar zen egoitzan, kanporatzearen berri izan zutenean. 1996. urtean Jugoslaviari berriz baimendu zioten lehiaketetan parte hartzea, eta Brasilen lehenengoz jokatu zuen, lau urtetan edozein norgehiagokatik kanporatua egon eta gero. Miljanic taldeko entrenatzaileak honela hezurmamitu zuen *L'Équipe* kazetan haientzat futbol partidak zuen garrantzia: “Esangura politiko handikoa da gure herriarentzat, eta gure futbolarentzat lasaitu itzela adierazten du. Itzuli gara, eta aurrerantzean iragana ahortzi beharrean gaude. Jokalarien, futbolaren eta jokoaren kontra eginiko terrorismo politikoaren biktima izan gara. Bahituak izan gara, baina bukatu egin da. Askatuak izan

bagina bezala, sentipen hori dugu” (cfr. Boniface, 2002: 55-56). Jugoslavia zatitzearen ondorioz, nazio taldea ere halabeharrez hein handi batean ahuldu egin zen, baina batik bat serbiarrek elikatzen zuten futbol taldearentzat eta orokorrean nazio horren nortasun indartsuarentzat, ezinbestekoa zen, bistan denez, oroz gain, futbol bidezko ordezkaritza mugarri oparoa berreskuratzea. 1950. hamarkada bukaeran kolonialismoaren uztarririk askatzen hasi ziren Afrikako herrialdeek futbolaren bitartez nazioarteko erakustokian txertatzea helburu behinekoenetakoa zuten moduan, beren izatea munduari agertzeko alegia, gauza bera gertatu zen 1990. hamarkadaren hasieran SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunetik ateratako estatuekin eta Jugoslavia ohiko zatiketarekin ere bai. Estatu berriek, nahiz, Serbiak bezala, behinolako loria galdu zuten herrialdeek, futbolak eta kirolak funtsezkoak izaten jarraitzen zutela begiztatu zuten XX. mendearen atarian.

Aro horretan, esan bezala, European amildu ziren askotariko nazioekin osatutako behinolako estatu irmoak. Horrela, inperio nazio anitzen zatiketak estatu berri askoren jaiotzari bide eman izanak Europaren baitan nazio taldeen ugaltzea eragin zuen. Sobietar Batasuneko, Jugoslaviako eta Txekoslovakiako taldeak iraganeko multzoak izango ziren dagoeneko, eta hurrenez hurren hamabost, bost eta bi nazio talderi bide eman zieten ildo horretan. Behaketatik ikus daiteke estatu independente berri horien lehenengo borondate erakuspenen artean zegoela FIFAn sartzeko atxikimendu eskaera, NBE Nazio Batuen Erakundean sartzekoa bezain arrunta eta beharrezkoa bailitzan. Baina, Pascal Boniface nazioarteko harremanetan adituak dioen moduan, nazio taldea ez da izan estatu baten sorkuntzaren ondorio hutsa, ez da horretara mugatzen, nazioa eraikitzen lagundu izan du sarritan. Estatu gazteentzat, zeinetan nazio sentimendua hauskorra eta mehatxatua den, nazio nortasun hori, behar bezala dena baino gehiago, futbolak indartu izan du, batzuetan traumatizatutako komunitatearentzat baterazle bezala jardunda. Hainbatetan nazio taldea estatuaren iragarlea bilakatu da, estatuaren jaiotzaren alde aurretikoa izanda (Boniface, 2002: 64). Independentzia lortu berri duten herrialdeen nazio aldarrikapenetan zeresan handia izan ohi du futbolak. Pavel Katchatrian Armeniako futbol federazioko idazkari nagusiak honela azaldu zuen 1995ean *International Herald Tribune* kazetari egindako adierazpenetan: “Gertatutako guztia eta gero, hots, hainbeste etxe eta bizitzaren galera, gizonek aldageletan herri bat izateko aukera dute”. Kazetariak Armeniako taldeak Ipar Irlandaren eta Portugalen aurka lortutako berdinketen harira hurrengo hau idatzi zuen: “Birsortutako herrialdeentzat puntuak urrezkoak dira. Nazioa islatzen dute, aitortpena erosten dute. Harrotasun handiko iturriak dira”. Ukrainan, Kievko Dynamoren eta nazio

taldearen balentriak nazio harrotasunezko gaiak dira, era berean. 1998.urteko irailaren 5ean Ukraina Errusiari 3-2 gailendu zitzaion “mendeko partida” bailitzan izendatu zuten lehian. Ukrainako federazioaren prentsa arduradunak honako adierazpen hauek eskaini zituen norgehiagokaren gainean: “Futbolaren bidez, gurea bezalako herrialde gazte bat hazi egin daiteke. Gure garaipenetan nazio sentimenduak parte-hartze eskerga du”. Ahal handia izanagatik, ekonomia arloko eta itxi gabeko identitateko arazoak ezagun dauzkan herrialdearentzat – Errusia eta Europako gainontzeko lurraldearen arteko bidegurutzea da –, futbola ziurtasunezko faktorea da (Ibid., 67-68). Bistan denez, denboran oso atzera egin gabe ere, futbolaren erabilpena eta, are gehiago, nazio taldeena argigarria da, nazio nortasunen makulu gisa. Estatu jaioberrien adibide garaikideek horrela diote bederen. Nazioarteko futbol erakustokian beren estatu izaera ikusarazteko egokiera eduki bezain laster, abagune hori berehala baliatu nahi izan baitzuten horren garrantziaz aski jabetuta.

Estatu-nazio berrien adierazpenen eta futbolaren ildoari jarraituta, Grant Jarvieri jarraiki, kirol globalaren aldeko norabideak aditzera eman du globalizazioari atxikitako prozesuek identitateen gaineko aztergaiak erdigunean kokatu dituztela kirolak zenbait herrialderentzat duen garrantzia azaltzerakoan; esaterako, SESB ohiaren amiltzetik eta Jugoslavia bezalako beste Europako iraganeko estatuetatik irtendako herriei dagokienez. XX.mendearen azken zatian mugimendu nazionalista askok borroka egin dute identitate moduak garatu eta sustraitzeko, eta kirola imajinatutako komunitate horiek adierazteko eremu oso ikusgarria bihurtu da, horiek joera abertzalea izan edo izan ez (Jarvie, 2006: 286). Futbola xede horretan oroz gain erreminta nagusia izango litzateke, mugimendu horietan gehienetan gizartean arreta gehien pizten duen kirol ekitaldi jendetsuena baita.

Europako aro politiko gorabeheratsuak futbola baldintzatu zuen, kirola oro har bezala, Jugoslaviako gerraren herioak eta ezinikusiak, eta aipatutako estatu ugari horien sorrerak zirela medio. Futbolean moduan, 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoetarako ere NBE Nazio Batuen Erakundearen zigorra zeukan Jugoslaviak, eta atletek debekatuta zuten bertan parte hartzea, baina NBEren eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearen arteko akordioari jarraiki, beren aberriaren ordezkariarik egin gabe parte hartzen utzi zieten. Jugoslaviarentzako zigor sinboliko gupidagabea, Olinpiar nortasunaren ustezko izaera apolitikoarekin bateratu nahi zuten era horretara. Hala, serbiarrek setiatutako hainbat bosniar kirolarik baino zorte aski handiagoa eduki zuten Montenegroko eta Serbiako kirolariek. Eurak traba handiegirik gabe lehiatu ziren Bartzelonan, NBEk Jugoslaviaren

baitan gelditu ziren lurraldeetako kirolarien aurka debekua ezarri zuen arren. Norbanako gisara parte hartu zuten, jantzi zuria soinean, eta Olinpiar banderapean (Dunning, 2009: 11). Ezereztutako Sobiet Batasuneko hamabost errepubliketako kirolariek, Baltiko itsas ertzeko hirutakoek kenduta, EUN *Équipe Unifiée* edo Bateratutako Taldea zeritzonaren izenean parte hartu zuten 1992ko Olinpiar Jokoetan. Lehenago ere horrela egin zuten Frantziako Albertville hirian ospatutako neguko Olinpiar Jokoetan, ordukoan hamabost errepublika ohietatik sei herrialdek bakarrik talde berdinean elkarrekin lehiatu zuten arren. Bartzelonako uda sasoiko ekitaldi handian, berriz, behinolako hamabi errepublika sozialistetako kirolariek elkarren ondoan jardun zuten. Bestalde, Lituaniako, Letoniako eta Estoniako kirolariek, hots, Baltikokoek, beren izen eta koloreekin parte hartu zuten, 1991n SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunetik irteten lehenak izan baitziren.

Horiek horrela, 1990eko hamarkadako hastapeneko bezalako garai malkartsuan eta nazioen arteko zatiketaren testuinguruan ohi denez, naziotasunen arteko krisi horiek pasioen asaldurara gidatu zituen futbolak Ignacio Ramoneten hitzetan. Nazio emozio sentipen horietatik eratortzen da hark egokitasunez zehazten duen gisara, gainera, estatu-nazio baten independentzia ikurretako bat nazio taldea denaren ideia, ondasun sinboliko eskergaren hartzailea izaki, eta hartara, bertute patriotiko handien sintesia. Ramonetek parekotasun mitikotzat azaltzen duenaren eraginez – hau da, nazio bat, talde bat ideiarenekin sinesmena –, besteak beste, Lituaniak, Georgiak, Eslovakiak eta Kroaziak norbere nazio taldea izatea desio zuten, eta baita Alemaniako Errepublika Federalak eta Alemaniako Errepublika Demokratikoak beren taldeak bakarrean batzea ere (Ramonet, 1999a: 136). Banaketa batetik, bat egitea bestetik, futbolak nazio nortasunen eta jazoera politikoen bilakaera lagundu egin zuen, aldez aurretiaz ere gerta zitekeenaren zantzuak emanez, eta ondorenean identitateen ezberdintasunak eta antzekotasunak sinbolikoki nabarmenduta. Bestalde, 1991tik aurrera emakumezkoen futbolaren Munduko Kopak antolatu zituzten Olinpiar Jokoetako ekitaldiez gain, FIFAREN babesean aurrerantzean. 1970eko hamarkadan eginiko nazioarteko txapelketetan, Mexikon ospatuan oroz gain, 90.000 ikusle izatera heldu ziren partidak, eta Txinan bereziki emakume futbolera dirua bideratzea erabaki zuten XX.mendearen amaizte aldera, Taiwanekin zuten nazioarteko goi politikako lehia kirolean ere jokatzeko (Dietschy, 2010: 504-505). Halaber, inondik ere, emakumeen futbola nazioartean Taiwanetik bereizi eta bere izatea azaltzeko erabili asmo zuen Txinak. Han jaso zuen FIFAREN emakumeen lehen Munduko Kopa ekitaldia.

Bestalde, FIFAk 1994.urteko txapelketarako antolatzaile gisa AEB Ameriketako Estatu Batuak aukeratu izanak futbola munduan zabaltzeko borondatea islatzen zuen. Oraindik ere errotu gabe zegoen herrialde batean sustraitzean zetzan jomuga, munduko estatutik boteretsu eta aberatsenean loratzean, hain zuzen ere. Erronka tamaina handikoa zen, zalantzarik ez. Zoritxarrez, Andres Escobar Kolonbiako atzelaria futbolak piztutako gehiegizko pasioen eta eragin politiko eta ekonomiko handinahien biktima izan zen lehiaketa horretan. AEBen aurka gola eragotzi nahian bere atean gola sartu izanagatik tiroz hil zuten txapelketaren ondorenean. Hiltzailea atxilotu eta gero, ikerketak kirol apustuetan aritzen ziren mafiei leporatu zien hilketaren erantzukizuna, baina ezina izan zen epaiketan usteetatik haratago frogatzea. Jokalariaren hiletara 120.000 lagun inguru bertaratu ziren, orduko Kolonbiako presidente Cesar Gaviria Trujillo buru zela. Afrikak ordezkari bat gehiago eduki zuen AEB Ameriketako Estatu Batuetako futbol lehiaketan, eta era horretara parte-hartze handiagoa eskatuz 1950eko hamarkada amaieran hasitako bidean bere aldarrikapenak apurka-apurka betetzen zihoazen. Are gehiago, garai hartan Afrikako Futbol Konfederazioak sortu zuen Afrikako Nazioen Kopa lau hamarkadatan hazi egin zen, eta heldutasun oparora iritsita kontinente horretatik kanpora ere estatuen identitatearen agertoki bilakatu egin zen. Hasieran hiru nazio taldek bakarrik hartu zuten parte Sudanen jokaturako lehiaketan, baina 1998.urterako hamasei estaturen neurketaren lekukoa bihurtu zen Afrikako Nazioen Kopa, aurretiazko sailkatze fasea eta guzti. Dena den, bistan da, 1968az geroztik bi urtetik behin ospatzen den kontinenteko futbol lehiaketa haratago, Afrikako estatuen ordezkari irrika asebetetzeko sendabide ezinbestekoena Munduko Kopak izaten jarraitzen duela. Izan ere, Hirugarren Mundua ekonomia arloan estatu aberatsen, eta funtsean, kapitalismoaren botere harremanen amaraunean azpiratua dagoen bitartean, futbol ekitaldirik gorenenak bederen, oztopoak oztopo, maila berean lehiatzeko eta beren izatearen tamaina mundu osoari ikusarazteko aukera eskaintzen die.

Europako kontinentera itzulita, Ingalaterrako 1996.urteko Europako Txapelketak futbolaren eta nazioen sakoneko oroitzapenen arteko ubidea oroitarazi zuen. Londresko *Times* egunkari tradizionalistak Ingalaterra eta Alemania aurrez aurre jarri zituen final erdien inguruan Clausewitz enesaera jakina baliatu zuen hitz jokoa egiteko. Autorearen aburuaren arabera, gerra politikaren jarraipena da beste bitarteko batzuekin. Bada, hala, “Futbola gerraren jarraipena beste bitarteko batzuekin” aldatu zuen hurrenkera kazetak. Egunkariaren baliabidearen iturburua 1966.urtean bi herrialdeok erkatu zituen Munduko Koparen finalaren mendekua al zen bakarrik, emaitza eztabaidagarria izan zelako? Edo

Bigarren Mundu Gerraren gomuta ere ba al zen? 1970ean Alemania eta Ingalaterra final laurdenetako partida heroiko batean elkarren aurka aritu baino lehen, 1966ko finalaren ordaina izan zitekeena alegia, Alf Ramsey Ingalaterrako hautatzaileak hau adierazi zuen aldarte lasaiaz: “Zergatik irabaziko digu Alemaniak Leonen – partidaren jokalekua –, 69 urtez zelaian hori egitea lortu ez baldin badu, ezta bi herrialdeen artean gertatutako hiru gerretan ere?” (cfr. Boniface, 2002:48). Futboleko neurketen eta iraganeko gerren arteko parekotasuna plazaratu zuen prestatzaile ingelesak, eta ez da inolaz ere ez ohiko jarrera.

Hamarkadaren hasieran Jugoslaviari jarritako zigor zurrinak eraberrituz Suedia 1998.urtean talde hori berriro Munduko Kopatik kanpo uztea proposatzekotan zegoen, eta horrela eskatuko zuela hausnartu zuen, baldin eta Milosevic presidentek Kosovoko albaniarrekin laster elkarriketak abian jartzen ez zituen. Izan ere, Poliziak hogeitaz hiru hil berri zituen bertan. Nabarmenezkoa da inork ez duela sekula Errusiako Federazioa lehiaketa batetik kanpo uztea proposatu, bere armadak Txetxenian 100.000 lagun baino gehiago erail arren. Halaber, inork ez du Israel mehatxatu lehiaketatik kanpo uztearekin Palestinari independentzia ematen ez baldin badio, edota armadaren errepresioak berdintzen jarraitzen badu. Horrek guztiak ikusarazten du futbolak indar geopolitikoaren harremanak oso gertutik jarraitzen dituela – edo horien aurretik aritzen dela –, eta kirolaren eremuan eta baita auzi estrategikoei dagokienean ere, balizko herrialde baten errudun izaeraren gaineko epaia eta zigorren ebazpena – boikota – gehiago hautematen dela ustezko estatu errudun horren boterearen mendean, hari leporatu ahal zaizkion erantzukizunen baitan baino (Boniface, 2002: 58-59). Gerra Hotzean ezarritako adibideek aditzera ematen dute antzeko egoeratan nazioarteak ezberdin jokatu izan duela; hau da, arbuizatzeko moduko jarrera duena boteretsua denean jokabide bat, hein handi batean biguna eta ekimenik ez hartzea hobetsi duena; eta oso bestelakoa, giza eskubideen aurkako jokabidea duena edo gutxienezko arauak urratu dituen nazioarteko harremanetan ahulagoa denean. Kirola eta futbola arma sinboliko eskerga bezala hobetsi izan dute orduan estatu agintariek.

Frantziako Munduko Kopa, 1998ko uda sasoiaren, etxekoen garaipenaren lekukoa izan zen, eta hango politikariek, gizartearen poz algararen kariatara askotariko jatorriko jokalariez osatutako taldearen osaera baliatu nahi izan zuten aurrerantzean aniztasunean oinarritutako Frantziaren batasuna goratzeko. Behinolako metropolitik kanpoko jokalaria gehiegi zeudela salatu zuen atarikoan eskuin muturrak, baina lorpenak kritika zantzu oro azpiratu zituen. Areago, anaitasun uzta oparoa utzi zuen Frantziarentzat Munduko Kopa

modu horretara irabazteak, futboleak ez ezik oro har ere, jatorri ezberdineko frantziarrak elkartu eta emaitza ona eskura zezaketela ikusarazi baitzuen. Jules Rimet herrikideak sortutako txapelketaren loria Frantziak estreinakoz eskuratu zuen, eta lehenengo aldian izan zen, ildo berean, Munduko Kopak Afrika eta Asiako ordezkariak aldarriak asetzen zituen. Hala, Afrikak bost ordezkari eduki zituen Frantzian jokatuak lehiaren azken ibilbidean eta Asiak lau. Futbolaren hedapena europarrek jarritako oztopo malkartsuak gorabehera egi bihurtzekotan zen, kirolaren sortzeko kontinenteak gidaritzea izanagatik. Izan ere, Sobiet Batasuneko gorabehera politikoez utzitako aztarnen baitan UEFAk bere barneko partaidetza hamasei estatu berrirekin hazten zela hauteman zuen, eta denek ere grina berezia zuten beren nazio identitatea eta izaera independentea nazioarteko kirol lehiaketetan erakusteko (Darby, 2001: 899). Halaber, Paul Dietschyren hitzetan (2010: 502), ekitaldi horretan emakumezko ikus-entzuleriaren hazkundera azalatu zen, futbol, nazio eta telebista hirukoaren lotura berretsiaz. Rimeten Frantziak antolaketaren lekukoa Asiarik eman zion lehenengo aldiz, Japonia eta Hego Korearen arteko biko antolaketari hain zuzen ere. Estreinakoz bi estatu ezberdinek batera atonduko zuten Munduko Kopa.

3.2.4- XX.mendeko kirola erabaki politikoaren mendean

2002ko ekainean jokatu beharreko futbol ekitaldiaren hartzaileari zegokionean, sakoneko diplomazia borroka piztu zen kirolatik at. Berritasunen artean zegoen Kopa ez zela orduko hartan Ameriketara ez eta Europan jokatu, Asian baizik, futbola mundura zabaltzearen sinbolo modura. Bi herrialde lehiatu ziren antolakuntzaren ohorea eskuratu ahal izateko: Japonia eta Hego Korea. FIFAk azkenean erabakia hartu zuen: Bi hautagai horien artekoa izan zedila Munduko Koparen antolakuntza. Michel Platini ez zegoen ebazpenarekin batere ados: “Funtsean erabaki politikoa da, eta hori ez da futbolarentzat ona”, adierazi zuen gaur egun UEFA zuzentzen duen futbol izar ohiak. João Havelangek FIFAREN presidente kargua utzi eta gero bat egin zuen Platiniren aburuarekin eta modu berean biko antolakuntza hankasartzea zela esan zuen. Hautu politikoa izan zen egiazki, Korearen eta Japoniaren arteko hurbiltzea sustatzeko xedearekin. Ohiko etsaiak izaki, demokrazia sustraitzeak, ez eta arrakasta ekonomikoak, ez zuten lortu historiako zauriak ixtea: Batez ere, 1910etik aurrera Japoniak Korea mendean hartu izana eta ondorengo kolonizazio aro luzea, eta Bigarren Mundu Gerra garaian Japoniak 200.000 neska gazte korear, armadarentzat, indarrez, prostituta modura erabili izana (Boniface, 2002: 41-42).

Bestalde, kiroltik kanpoko botere harremanei dagokienez, Munduko Koparen eta Olinpiar Jokoen arreta gune handietatik at bestelako kirol ekitaldietan ere atzeman liteke estatu ezberdinen irizpideetan eta jokabideetan ageriko kontraesana. Hegoafrikak 2003an antolatutako cricket munduko txapelketan paradoxa esanguratsua azalerazi zen Zimbabweko nazio taldearen parte-hartzeaz. *Apartheid* aroan CNA Afrikako Kongresu Nazionalak nazioarteari erregu bizia helarazia zion P. W. Botharen eta F.W. De Klerken gobernuari ekonomia eta kultur presioa eragin ziezaioten. *Apartheid*-aren desagerpena nazioarteko kirol isunek lagundua izan zen, Hegoafrikaren kontra ideia honen lelopean sustatua: “Ezin duzu kirol normalik izan normala ez den gizartean”. Hala, CNAk iragan hurbilean, *apartheid*-aren kontra, nazioarteak Hegoafrikako gobernu kirolaz bakantzea nahi bazuen, koherentea izango bazen, 2003an, Zimbabwerek berretsi beharko zuen. Esan nahi baita, Thabo Mbekiren Hegoafrikako gobernu garaikideak, CNA Afrikako Kongresu Nazionalak zuzenduak, Zimbabweko demokraziaren aldeko borroka babestu beharko zuela, cricket kirol arduradunen eta beste erakundeen gainean bere borondatea agertaraziz, 2003. urteko cricket lehiaketan Zimbabweri gisa bereko zigorrak jartzearaino. Alegia, hamarkada batzuk lehenago berak nazioarteari Botha eta De Klerken gobernuen aurka kirola politikoki erabiltzea eskatu zion bezala, zigor sinboliko gisara, gauza bera egin izan balu Zimbabweko Mugaberen aginteaz. Grant Jarvie dioen moduan, “politika kiroltik kanpo” amateur nortasuneko leloa berreskuratu beharrean konturatu izan balira aldi horretan ere kirola erabat politikari lotutako auzia zela. Ziurtasunez Robert Mugabe presidentearen ustea lotura hori bere onerako baliatzea zen, eta bere aurkariek huts egin zuten hori aldatu nahian (Jarvie, 2006: 168). Kirolaren aldaketa eragiteko gaitasuna ez zuten baliatu. Halaber, nazioarteak auzi bakoitzean, kirola politikan eragiteko erabiltzen duenean, jokabide kontraesankorrak hartu ditzakeenaren berrespina da, hain zuzen ere politikaren baitako arrazoiak eta giltzarriak direla medio.

Europara itzulita, 2004ko Portugalgo Europako Kopak eta 2006ko Alemaniako Munduko Kopak estatu antolatzailearen nazio nortasun nagusia indartzen lagundu zuen hein handi batean. Frantziak erdietsitako laudorio gorenaren parera heldu ez baziren ere, hurrenez hurren Portugalak eta Alemaniak parte-hartze ona izan zuten euren herrialdeek antolatutako lehiaketetan, eta horrek futbolaren bidez, nazioaren aldeko atxikimendua bi alderditatik elikatu eta bikoizten du. Esan nahi baita, nazio taldearen lorpenak eman ohi duen harrotasuna alde batetik, eta antolaketaren eraginez munduaren aurrean herrialdeak erakarri ohi duen arreta beste aldetik. Halaber, 2008ko Beijingko Olinpiar Jokoen bitartez

nazioarekiko atxikipen estua sustatu nahi izan zuen milioika herritarren artean Txinako Gobernuak. Ekitaldiaren hartzailea izendatzean, estatuen interes ekonomikoak hobetsi zituen nazioarteak Txinaren giza eskubideekiko jokabidea aintzat hartzea baino gehiago. Areago, Olinpiar Jokoen esleipenak Gobernuaren jarrera mundu zabalean zilegitu zuela esan daiteke. Beijin 2008 ekitaldiaren aurkariak argudiatu zuten Txinak historian giza eskubideen aurka erabilitako bortxak eta hainbat eskubideren urraketek eragin beharko zutela 2008ko Olinpiar Jokoetarako Txina ez beste edozein hautagaik antolaketa lortuko zuela. Baina, babesleentzat merkatu berriak ustiatzeko gutizia eta Beijinen azpiegitura proiektu kopuru eskerga irudikatzearen beharra Nazioarteko Olinpiar Batzordearentzat erronka gorenak zirela era argian agertu zen, erakundeak ustelkeria auziekin berriz bere burua nahastea eragotzi nahi zuela adierazten zuen bitartean. Bestalde, giza eskubideen ekintzaileek argudiatu zuten Olinpiar lehiaketak ebatzian ingurumen faktoreak kontuan hartzen diren moduan, giza eskubideak ere aintzat hartu behar direla (Jarvie, 2006: 366). Nazioarteko agintariak Txinaren giza eskubideen inguruko jarrera salatzeke hara joango ez zirela mehatxu egin zuten, baina herrialdearekin harreman onak mantentzeak zeukan garrantziaz ohartuta, ez zuten hori bete.

Hegoafrikako 2010eko Munduko Kopak futbolaren eta kirolaren mundu mailako hedapena berrestearekin batera, *apartheid*-a gainditu zuen herrialdea ohoratu zuen, eta bide batez Afrikako kontinentea futbol jokoaren bidez hauspotzeko baliabide duina izan zitekeela aditzera eman zuen FIFAk. Kontinenteko estatu boteretsuenetarikoarentzat ez ezik, Afrika osoaren izen onarentzat eta talde nortasunarentzat zen berebizikoa mundu mailako ekitaldia egoki antolatzeko gai zela agertu ahal izatea, esan bezala, munduaren arreta hilabetez hara zuzenduta baitzegoen. Hegoafrikak bereziki, iragana hustu zuen. Hori horrela, *apartheid*-aren eta nazioarteko estatuek herrialdeari ezarritako kirol zigor mingarriaren harira, herrialde horiek antzeko auzitan erabili zuten irizpide kontrajarriaz hausnarketa egitea egokia eta bidezkoa da. Zigor mingarria zen *Post* Johannesburgoko beltzen kazetak 1970.urteko maiatzaren 24an argitaratutakoaren arabera, Hegoafrikari zorne handiena sortzen zion alderdian erasaten ziolako (Hain, 1982: 239). Hainen ustez, beltzen kontrako *apartheid*-aren bultzatzaileek aurrean zuten krisiaren handitasuna zaila da ulertzen komunitate zuriaren kirolaren inguruko irrikaz ezagutza zuzena izan gabe. Oroz gain errugbian ezarritakoa izan zen arantzatsuena; arraza zurikoen kirol maitatua. Herrialdearen kanpo ordezkariak irentsi zuen nazioarteak gizarte horren gaitza sendatu eta egoera iraultzeko. Bestelako jokabidea izan du maiz, ekimenik ez hartzearena alegia.

Gaur egun, “kirola politikatik kanpo utzi behar da” aburua sostengatzen dutenak lekuz kanpo daude. Barrie Houlihanena da ondorioztapena, eta behaketa zuzena egingo duen edonork bat egin beharko luke. Ebatzitakoaren isla esanguratsuen da, futboletik kanpo izanik ere, Richard Nixon AEBen presidentek ping-ponga edo mahaiko tenisa baliatu izana, saskibaloia gero, 1970.hamarkadan, Txinako Gobernuarekin negoziazioak abian jartzeko diplomaziako tresna giltzarria bailitzan⁴. Lehenengoa saskibaloian nagusi zenez, eta bigarrena mahai tenisean, bestearen kontrako porrotak ez zekarren prestigio kalterik, eta areago, hurbiltzea errazten zuen (Houlihan, 2000: 217). Jeremy McClancyk dioen moduan, ezina da imajinatzea zer izango ziren Olinpiar Jokoak herrialdeen arteko bloke jarrerarik edo norbanakoen aldarririk gabe – 1968an sari banaketan beltzen botere agurra egin zuten AEBetako afrikar jatorriko atleten kasuan adibidez –. Gaur egungoaz alderatuta, ekitaldi osoki ezberdina izango zen (MacClancy, 1996b: 2). Dena den, kirola erabiltzeak alderdi baikorrak ere badituela aski hedatua dago, talde eta nazio nortasunen babeserako heldulekua izateaz gain. Adiskidetzarako lan tresna izan daitekeela sinetsita daude izan ere, hainbat gobernu eta politikari. 1980.hamarkadan murgilduta, Afrikako Kongresu Nazionalaren politikaren elementu giltzarria zen lehenago plazaratutako ideia hau: “Ezin da kirol normala jokatu normala ez den gizartean” (Jarvie, 2006: 115). Gero, 1990eko hamarkadan, Nelson Mandela presidentek ekinaren ekinez nabarmendu zuen kirola izan zela nazioa elkartzeko itsasgarri berriaren zatia. Hori 1995ean Hegoafrikak errugbi munduko txapelketan lortu zuen garaipenean islatu zen, *apartheid* ondorengo aroaren adierazgarria bailitzan goratua izan den lorpenean hain zuzen ere. Futbolak ere, kirolaren baitan batasun ahalmen oparoa duela defendatzen du batek baino gehiagok. Peter Houghen esanetan (2008: 1291), nahiz eta nazioarteko futbola gobernu eta gizarte mailan nazionalismo oldarkorraren pizgarria dela dioen ezagutza asebetetzeko argudio ugari badagoen, Gustafsson – Lars, FIFA nazioarteko futbol erakundea bakearen nobel saria eskuratzeko hautagaitzara aurkeztu zuena – eta Blatter – Joseph, FIFako egungo presidentea – zuzen daude futbolaren izaera bakezalea eta baterazlea agertzen dutenean, estatu eta nazioen arteko harremanak adiskidetzeko futbolak eginikoak alderdi txarrak orekatzen dituelako. Egiatzki Houghen argudiobidea berresteko arrazoiak badaude, tesi honen kasuz kasuko azterketan agertarazten direnak, hau da, futbolaren adiskidetzazko

⁴ Melbourneko 1956.urteko Olinpiar Jokoetan bestalde, nazioarteko harremanetako etsaigoa adierazi zuen kirolak. Sobiet Batasunaren ordezkariak eta Hungariakoa waterpolo jokoan alderatu zituen txapelketak, SESBen armada Budapest hiriburuan iraultza desegitera sartu eta denbora gutxira. Erbestera joandako kirolari hungariarrek irabazitako final erdietako partida “bainu odoltsua” izenarekin ezagun da gaur egun ere, kirolaz gaindiko kirolari eta inguruko arteko borrokek eta geroko liskarrek ezaugarritu baitzuten.

balioa nabarmentzen dutenak. Areago, ezin ahantzi ere, Nelson Mandela Hegoafrikako presidente ohiak bezala, giza eskubideen aldeko ekintzaile diren buruzagi politikoei behin baino gehiagotan esan dutela futbolak jendearen sentimenduei beste ezerk baino gehiago eragiten diela. 1992.urtean Kamerunen aurka jokatu zuen estreinakoz *apartheid* osteko lehen nazioarteko partida Hegoafrikako nazio taldeak, eta 1996an Afrikako Kopa antolatu eta han gailendu zen. Bakea samurtzeaz gainera, nazio nortasun eraberritu eta bateratuei bide egiteko ekarpena badu, behinola gaindiezinak eman zezaketen etsaigoak jokoaren liluraren bidez gainditzen laguntzen duena, 90 minutuko iraupenean hasteko behinik behin bai, eta gerora begirako zutabeak ezarrita.

2012ko Europako Kopa FIFArekin eta UEFArekin ekialderako bidearen estreinako urratsa izan zen, Polonia eta Ukraina herrialde antolatzaileak zituena. Txinan lau urte lehenago gertatu antzera, Mendebaldeko Ukrainari boikota egitearekin mehatxatu zuen, edo agintari nagusiak ez bertaratzearekin bederen. Julia Timoshenko lehen ministro ohi bidegabetzat jotako epaiketaren ondoren boterea bere apetara erabiltzeagatik espetxeratu izana, eta kartzelan tratatu okerra jasan izanaren susmoa piztu zela zigortu nahi izan zuten Europako mendebaldeko goi agintariak, Alemaniako gobernuburu Angela Merkelek eta hautatu berria zen Frantziako presidente François Hollandek tarteko. Halaber, alemaniar nazio taldearen kapitain Phillip Lahmek adierazi zuen Michel Platini UEFAko idazkari nagusiari auziaren gainean ekimena hartzea zegokiola (EFE, 2012b). Blaterrek kritikatu egin zuen boikot mehatxua, eta UEFAk oharrez zehaztu zuen txapelketen antolakuntza soilki kirol irizpideak jarraituz esleitzen zaiola herrialdeei (EFE, 2012a). Kasuan kasuko kirol erakundeen erabakimena kontrajarria izan ohi da, ordea, norantza jakinik gabekoa. Dena dela, europar agintariak Ukrainan izan ziren, Angela Merkel lehen ministroarekin.

Joao Havelangen agintaldian FIFAn txertatutako erakundeentzat arrazismoaren aurkako politika ezarri zuten programa gisa, eta haren oinarrikoaren, Joseph Blaterren, presidentetzan, nazioarteko futbol elkargoak berme programa horren baitan ezarri zituen arrazismo arrazoiak zirela medio ikusleek sortutako istiluak. NBERekin, Unescorekin eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearekin hitzartuta, adostasun honetara heldu ziren. Aurrera begira Munduko Kopa eta beste zenbait lehiaketa garrantzitsuren antolakuntza bakarrik “politikoki onargarriak” ziren herrialdeei eskainiko zitzaizkela. Gainera, egoitza aukeratu ondoren ere azken unea arte antolakuntza ezeztatzeko aukera bermatuta zegoen, egoera politikoan aurretiaz espero gabeko aldaketa larriak gertatuz gero beti ere. Horixe gertatu

zen, hain zuzen ere, esaterako Kroazian 1993.urtean, nazioarteko haurren txapelketaren 41.aldian, eta 1995ean Nigerian, munduko gazteen txapelketan (Eisenberg et al., 2004: 290). Lehenagoko jokabidea neurri batean moldatzea zuen helburu futbol erakundeak, esku-hartze ezaren eta ustezko independentzia politikoaren oinarriagatik berriz ere bere burua ataka larrian ez aurkitzeko. Horrela, aurrerantzean izaera demokratikorik gabeko aginte ereduak eta herrialdeak futbolaren erakusleihatik at uzteko aukera izango zuen. Dena den, herrialde baten zuzendaritza politikoki onargarria den ala ez ebaztea FIFAk buruen hautu subjektibo baten mendean izango zen gerora. Jakina da hautuaren egokiera horretan, alegia, estatu horren boterea bere izaera politikoarekin alderatzean, Txinarekin jazo zenez, lehenengo alderdiak garrantzia handiagoa izango lukeela ebazpena ematean. Ukrainari zegokionez, litekeena da futbola zabaltzea gainjartzea UEFA eta FIFarentzat, Mendebaldeak kanpotik epaitutako ukrainar auzian kirolaren bidez esku hartzea baino.

Nazioarteko lehiaketa ofizialetan aritzeko FIFAk ezarritako betebeharrak

Irizpide ezberdinez egokiera bakoitzean erabakimen desberdina hartu ahal izatea ahalbidetzen du, baina oroz gain estatu-nazioaren egitura politikoa lehenetsita.

FIFAREN 10. artikulua: Onarpena (FIFA, 2012)

-Lehen paragrafoa: FIFAk nazioarteak aitortutako estatu burujabe bakoitzeko federazio bakarra onartzen du bere baitan, bostgarren eta seigarren paragrafoetako salbuespenekin. Bostgarrenak Erresuma Batuko lau elkargo bereziak aitortzen ditu.
-Bigarren paragrafoa: FIFAREN konfederazio batean lehenik onartua egon behar da.
-Seigarren paragrafoa: FIFAN sartzeko eskaera igorri ahalko du oraindik independentzia eskuratu ez, eta bere gaindiko estatuko FIFAKo federazio kidearen oniritzia aurkezten duen erregio baten futbol elkargoak.

UEFA Europar konfederazioaren 5 eta 6. artikulua: Partaidetza (UEFA, 2012)

-Bostgarren artikulua, lehen paragrafoa: UEFA partaidetza aukeran dute Europako kontinentean egonik NBE Nazio Batuen Erakundeak estatu burujabe gisa aitortutako herrialdeetan errotutako futbol elkargoek (2001ekoa da baldintza), beren herrialdeko lurraldean futbol auzien ezarpenaren ardura dutenak. Bigarren paragrafoan zehazten du salbuespenez Europatik kanpoko kideak ere onar ditzakeela. Israel aitortua du.
-Seigarren artikulua, hirugarren paragrafoa: Batzorde Exekutiboak behin behinean onar dezake futbol elkargoa, baina hurrengo Kongresuan behin betiko ebazpena.

Iturriak: FIFAREN eta UEFAREN Interneteko webguneetan eskegitako gaurkotutako legedia.

FIFAN sartzeko eskaerei zegokienez, bat egiteko irizpide zurrun gisara kontuan hartzen hasi ziren, futbol federazio eskatzailearen independentzia politikoaz gain, NBE Nazio Batuen Erakundeak bere estatua aitortu izana. Politikaren mende zen azken epaia

hala ere. Sobiet Batasuna eta Jugoslavia zatitu ostean estatu berri asko sortu izanaren eraginaz bizitu zuen FIFAk elkargoak NBEko estatu baten kideak izan zitezten baldintza hori. Aurreko koadroak modu horretan, FIFAk nahiz UEFAk Europan jarritako araudiaz dihardu. Halaber, 1999an, Nazio Federazioen Batzordea loratu zen, FIFAREN kide ziren federazioen artean telebista emankizunen eskubideetatik eratorritako etekinak banatzeko funtsa duena, besteak beste. Halaber, elkargoak diruz lagunduta kudeaketa eraginkorra sustatzeaz arduratzen da eta federazioetako hauteskundeak behatzeaz. Zigorrekin edo areago, federazio bat kanporatzeaz, mehatxu egin dezake. Gobernuak futbola aintzesten dutenez, FIFAk badaki mehatxuak eraginkorrak direla (Eisenberg et al., 2004: 290-291).

Zilegi da esatea, FIFAk politikari eta administrazioen esku-hartzea ukatzen duen bitartean, eta hori ekiditeko eginahalak egiten dituelarik, futbola on nahiz txarrerako, lan tresna politikoa dela aitortu duela. Esan nahi baita, administrazioaren eragina mugatzea ahalbidea den arren, nazio nortasunekin kirolak betidanik daukan lotura estuan langa bat ezartzea pentsaezina gertatu dela, eta are gehiago, uztarpen irmo horretatik hobaria atera dezakeela. Nazioarteko harremanetan *hard power* deritzon eta botere militarra, gogorra, funtsean erdigunean duen estatuaren mailako ekimenaren aurrean, *soft power* deritzon botere bigunaz mintzo dira nazioarteko harremanetan aditu direnak. Kirolaren ahalmen sinbolikoa bigarren alderdiaren zutabeetakoa da, aldaketa eragilea, eta globalizazioaren bizitzearen aroak XXI.mende hasieran ekarritako iraultzen baitan aparteko esangurari eusten diona, estatu-nazioen XX.mendeko boterearen guneak ahuldu egin diren heinean. Futbola neurri handi batean, eta baita Olinpiar Jokoen ekitaldietan txertatutako kirolak nahiz bestelakoak, nazioarteko harremanetan gertakari eragingarriak dira, eta hain zuzen ere, futbola amaraun sinboliko horren lehenetsitako alderdi gisa agertu nahi izan dut atal honetan. Alegia, beste kirol ekitaldien nazio nortasunen adierazpen eta alderaketarako izaeraren eta politika erabilpenaren testuinguruan ezarrita, arrazoizko toki nagusiarekin.

FIFAk alboan utzi du, gogoetan behintzat, gertaerek baldintzatua, XX.mendean betikotu zuen jokabidea. Orduan, giza eskubideen aldeko eta ongizatearen babeserako aipaturiko jarrera izan arren, kirolari kanpoko eragin politikoetatik at lehentasun osoa emateagatik giza eskubideak urratzen zituzten estatu edo gobernuak ere indartzen zituen kirolak eskainitako aitortza sinbolikoarekin. Hegoafrikako *apartheid*-a eta Argentinako 1978ko Munduko Kopa dira adibiderik adierazgarrienak. Beste behin ere, eta bidezkoa da errepikatzea, futbola eta kirola alde batetik, eta politika eta nazio nortasunak bestetik,

bereizi nahi izatea antzua dela nabarmendu behar da. XX.mendeko bilakaeran sakonera handiegirik gabeko azterketa egitea nahikoa da bikoaren banaezintasunaz ohartzeko, eta futbolak eta kirolek mota guztietako aginte eredu nahiz herrialdeekin eduki duten lotura guztiz irmoa dela baieztatzeko. XX.mendeko kirol modernoan zabalpenetik abiatuta, eta FIFAREN eboluzioari so, izaera amateurren defendatzen zutenak men egin behar izan dute kirolak duen iturburu eta helduleku politikoaren aurrean, funtsean egungo gizarteetan, eta nazioarteko harremanetan kirol jendetsuena denak duen oihartzun eskerga balioetsiz.

Dena den, ezin ahaztu futbola erpin askotako guztizko gizarteko ekintza bilakatu dela, eta ekonomia interesak FIFAREN baitan ere lehentasunezko jomuga direla. Horren lekuko da erakunde horretaz hainbatetan susmo txarra gizarteratu eta gero 2012an Joao Havelange aurreko idazkari nagusia ustelkeria auzietan nahastuta izan zela onartu izana. FIFAK Qatarri 2022ko Munduko Koparen ekitaldiaren antolakuntza esleitu izanak ere polemika sortu zuen, aukeraketaren botazioan eroskeria eta iruzurra gertatu izanaren susmopean. Bestalde, 2012an ere, FIFAK onartu egin zuen ekitaldi nagusietarako arrano begiaren teknologia erabiltzea golen inguruan zalantzak izatean ebazteko. Eboluzioari bide eman zion horrela. Beste kirolekin baino muga gehiago jarri izan dizkio futbolaren antolaketak teknologia erabiltzeari. Emozio, ziurgabetasun eta polemikaz lotutako jokoak erasateko beldur dira arduradunak, eta horrekin lehia eta talde nortasunen ordezkariak.

3.3-Futbola eta nazio eraikuntza: kasuen azterketa

3.3.1-Europa

Egiari zor, ezin bestela, hein batean eurozentrismoaren adurra darion historiaren azaleko gainbegiratua egin ostean, tokian tokiko azterketa sakonagoa egiteko tartea da hau, munduko bost kontinenteetan barreiatutako futbolaren eta nazio nortasunen arteko loturaz gogoeta egitekoa. Hasierako hausnarketa halaberrez Europaren joan etorrian oinarritu da, batetik, futbolak kontinente horretan izan zuelako sorlekua eta langile eta etorkin britainiarrekin bertatik zabaldu zelako mundu osora, eta bestetik, Europa baita Euskal Herriaren bizilekua eta hango ezaugarrien eraginpean dago, ondorioz. Xehetasun hori argituta, kontinentez kontinente, alegia eremu geografikoa oraingoan kronologiari

gainjarrita hezurmamituko da atala, hedabideek bikoteari emandako sonari merezi duen begirunea eta garrantzia aitortuta, futbola eta nazio nortasunen lotunea era agerikoenean azaldu den herrialdeen gaineko adibideak plazaratuz. XX.mendeko hirugarren herenetik batez ere kirolaren azterketak izan zuen loraldiari jarraiki, futbolari bereziki emandako bibliografia oparoan murgildu, eta orain arte ikertu dena hala nola bateratzeko egokiera ere izango da bide batez. Europa izango da guztiaren sorlekua, futbolaren eta hein handi batean gaur egungo nazio nortasunen nolakotasunaren iturburua izan zelako. Kontinente zaharreko herrialdeen adibideak aipatuz, etorkin britainiarren askotariko bidea jarraitzea bailitzan, Ameriketan, Afrikan, Asian eta Australian barneratuko da azterketaren ildoa XXI.mendearen lehenengo bi hamarkadetaraino kirolaren hedapen globala irudikatuta. Ezina da mundu osoko herrialdeen zertzeladetan banan-banan murgiltzea, baina adibide esanguratsu hainbatetan arreta ipinita ideia mamitsuak ondorioztatzeko aukera badago.

3.3.1.1-Erresuma Batua eta Irlanda aitzindariak: bi estatu eta bost nazio talde edukitzearen bereizitasuna

FIFA nazioartean futbol jokoaren nondik norakoaren jaun eta jabe bilakatu baino askoz lehenago, XIX.mendearen azken herenean, kirolaren haurtzaroa bertatik bertara hauteman zuten herrialdeetan txapelketa jendetsuak antolatzen hasi ziren, eta baita garai goiztiarrean nazio futbol federazioak ere. Hain zuzen ere, aurrekari horrek eskainitako zilegitasunarekin Mantxako Itsasartearen bestaldeko bi estatuek era berezian bost nazio talde izaten jarraitu zuten FIFAk futbolaren patuaren gidaritza osoki bere gain hartzean. Erresuma Batuko estatuaren menpe izanagatik, Ingalaterrak, Eskoziak, Galesek eta Ipar Irlandak nazioarteko txapelketetan jokatu ohi dute gaur egun, eta Irlandak, berriz, bere estatua futbol zelaietan ordezkatzeko duen nazio taldea du. Hori dela eta, Britainia Handiko uharterako estatu bakarrean nazioarteko oniritzia erdietsi duten hiru nazio talde daude, eta baita ildo berean klubaren arteko nazioarteko txapelketetara beren ordezkaritza helarazten duten hiru nazio liga ere. Irlandako uharterari dagokionean, hegoaldean nahiz iparraldean esparru bakoitzak norbere liga eta nazio taldea ditu, era berean. Irlanda burujabea da, eta iparraldean Ipar Irlandako futbol elkargoak bideratuta, eta Erresuma Batuko aginte politikoaren mendean bestea. Irlanda 1922an Erresuma Batutik bereizi zenean, bi zatitan bakandu zen uhartea, eta ordu arteko Irlandako futbol elkargoa ere banatu zen ondorioz. FAI federazio berriak Irlanda independentearen futbol emaria zuzentzeko zeregina zuen,

eta XIX.mendean sortutako IFA elkargoa Ipar Irlandako eremuaz arduratuko zen. Dena den, gatazka politikoen ondorio eta iturburu izan zen banaketa hark futbolaren eremuan ere talka bizia sorrarazi zuen. Izan ere, bi federazioek Irlandaren osotasuna ordezkatzeko zutela aldarrikatzen zuten, biek ere Irlanda izena itsatsi zuten futbol elastikoan, eta garai hartan zatitutako bi futbol ligetatik elkarri jokalaria hartzen zizkioten. Hainbat urterako bederen, FIFArekin aginpideak politikoki ebatzi zuten auzia, gerora araubidearen malguak ezinikusiak betikotu arren. Hala, Irlandako elkargoak uharterko 26 konderriren gaineko eskumena ziurtatu zuten bitartean, Ipar Irlandako federazioak bere esparruko eskumena izango zuten bakarrik aurrerantzean. 1950eko hamarkadatik aurrera Ipar Irlandan ezarri zen elkargoak utzi egin zion uhartearen osotasuna ordezkatzeari. FIFArekin aginduz ezin taldek ezingo zuten Irlanda izendapen soila eraman. Horrela, sustraitu zen Irlandako Errepublika, Ipar Irlanda, Eskozia, Gales eta Ingalaterrako nazio taldeen sona.

Erresuma Batua, nazio ekonomiak eta garraiobide onek aski integratutako osaera ekonomikoa eta politikoa sortu zuten estatua zen, eta bertan Galesek eta Eskoziak kultur zentzuan nazio bereizi gisa biziraun zezaketen. Izan ere, kirolen sistemak hobaritu zuten “azpikultura” nazionalismo mota hori “britainiar izaeraren” ideia zabalagoaren barruan. “Etxeko” lau nazioek – Ingalaterrak, Eskoziak, Galesek eta Irlandak – elkarren kontra jokatu zuten futboleant, errugbian eta beste kirol gehienetan; Olinpiar Jokoetan bakarrik gertatu zen arbuioa. Frantziarrek Coubertinen gidaritzapean, eta beste batzuek, uko egin zioten britainiarren talde bateratua ez zen beste eredu bat aitortzeari, hau da, Erresuma Batuaren estatu-nazioaren taldea alegia. “Kirola elkarri jarkitzen zioten kirol nazioekin zatituta egotea ez zen Erresuma Batuko ahultasunaren adierazgarri. Izan ere, batasunari hauspoa ematen zion kirol dimentsioa eskainita, zeinak jarraitzaileei ahalbidetzen zien beren leialtasuna batetik beren “kultur” nazioari eskaintzea eta bestetik estatu federalari, hau da, lehiaketarako esparrua eskaintzen zien izateari” (Holt, 1996: 46-47). Hirugarren munduko herrialdeak bereziki kexu agertu izan dira Erresuma Batuak nazioarteko futbol txapelketetan batik bat, eta beste kirol eremu batzuetan oro har, lau nazio talde ezberdin izateagatik. FIFAk eskaerei entzungor egin die gehienetan, nolana ere, auzia aztertzea hitzeman eta gero. Olinpiar Jokoei dagokienez, 2012ko Londresko ekitaldiaren kariatara futboleant Erresuma Batuko talde bateratua osatzeko ahaleginak izan ziren, Londresko gobernuak sustatuta besteak beste, baina Galesko eta Eskoziako futbol elkargoak beldur ziren pausu horrek futboleant beren identitatea urratuko zuela, FIFAk bestelakoa adierazi arren. Azkenean, kapitain zereginetan gainera, Ryan Giggsek beste galestar batzuekin

Erresuma Batuko taldean jokatu zuen, baina gainontzekoengandik bereizita. Atarian, ez zuten *god save the queen* estatu ereserkia abesten, Gales ordezkaten ez zuela adieraziz. Bestalde, Ipar Irlandako eta Eskoziako jokalaririk ez zen izan Erresuma Batuko taldean.

XX.mendeko lehen zatiaren barruan, Ingalaterrak zuzenduta, Erresuma Batuko⁵ elkargoen FIFA hasiberriarekin borrokatu zuten futbolaren munduan azkeneko agintari eskuduna zein izango zen ebazteko. Borrokaldian azkeneko amore eman zuten, baina nagusiki futbolaren sorterriko federazio horiek IFAB nazioarteko kontseiluaren barruan ordezkarien erdiak edukitzen jarraitu zuten oraindik – hots, lau elkargoetako bakoitzak ordezkari bana, eta gainontzeko laurak FIFAREN eskumenezkoak –, eta erakunde horrek segitzen du gaur egun ere aginpidea izaten jokoaren arauak interpretatu eta eraldatzeko. Futbolaren botere egituretan “Estatu bat baina herrialde ugari” multzo horrek eduki izan duen etengabeko abantailazko kokapena borroka horren ondoriozko ituna da, eta lau nazioek ateratako hitzemanen adierazgarria, lehenetsuneko egoeratik aldendu zituzten eta (Moorhouse, 1996: 70-71). Trukean Bigarren Mundu Gerra ostean FIFAREN agintera makurtu ziren denak ere, aurreko hamarkadetan jokoaren asmatu izanaren harrotasunarekin futbolaren nazioarteko bilakaeratik beren burua bakantzea hobetsi arren. Ingalaterrak, esaterako, denen artean multzorik loriatsuena denak, eta nazio boteretsuena ordezkaten duenak, 1950eko Brasilgo Munduko Kopan parte hartu zuen estreinakoz bi hamarkada lehenago jaio zen futbolaren ekitaldirik gorenean, Txileko selekzioari jarkita, hain zuzen ere. Nazioartean talde britainiarra aurkezteak futbolearen eta bere bidez Erresuma Batuan adierazten den politika eta kultura independentziarentzat mehatxua litzateke. Jokoaren ereduak kudeatuta futbolak zapo britainiar bereizgarriari eusten dio. Nahiz eta FIFAK epaile eta alderdi gisa diharduen arauak interpretatzeko orduan, Britainia Handia da IFABen baitan duen nagusitasuna baliatuta legeak egiten dituen. Estatuaren mailako taldea bateratzeak kolokan ipiniko luke hor lau federazioekin duen ordezkari-tza gailena, elkargo horien herrialdeetan balizkoak arrazoizko asaldura eragiteaz gain, inondik ere. Errugbian eta cricketean bestela jazo ohi da, alegia, bat egitea eta ordezkari-tza partekatu ahal izatea aiseago onartzen dute elkargoen eta herrialdeen⁶. Futbola nazio nortasuneko

⁵ Moorhousek (1996) ingelesezko jatorrizkoan “*United*” *Kingdom* erabiltzen du, hots, “Batua” esamoldea kakotsen artean jarrita. Era horretara, hein handi batean esan nahiko luke futbolak nazio talde ezberdinen bizikidetzarekin nabarmentzen duela itxurazko erresuma batua nazioarteko nazioarteko handiko aniztasuna dagoela. Alegia, estatuaren deiturak adierazitako batasuna herri ezberdinen ezaugarriek zuzentzen dutela.

⁶ Errugbian lau urtez behin Irlanda eta Erresuma Batuko jatorrizko lau nazioetako jokalariek talde berdina osatzen dute *British and Irish Lions* deiturapean eta atzerrian bira egiten dute munduko errugbi multzo nagusiei jarkitzeko. Cricketean bestalde, Ingalaterrako taldeak Gales ere ordezkaten du eta beti izan ditu bere altzoan Galesko jokalaririk batzuk eta baita Eskoziako hainbat ere.

betegiaz gehiago hornitzen dela herrialdeotan ondoriozta daiteke, beste nazio taldeekin alderaketarako prestatzean nazioa gehiago gorpuzten duela bederen, eta funtsezkoagoa bailitzan hautematen dutela hartara.

Futbol klubaren garrantzia identitatearen sinbolo modura XIX.gizalditik datorren egitatea da, Britainia Handian batez ere (Lewis, 2001: 147). Une goiztiarretatik futbolak azaldu zuen lurraldeen baitako atxikipenak sortzeko gailu ahalsua zela. XIX.mendearen amaieran, herriak eta hiriak herritar guztiengandik “aski ezagunak” izan zitezten gehiegi hazi zirenean, herri taldearekiko zaletasunak “hiritartasun sinbolikoa” eskaintzen zuen: Herriko milaka zaleturekin batera egokitzeak, gehienek ere elkar ezagutzen ez zutelarik, jendearen atxikipen sentipena berri zuen (Russell, 1999: 19). XX.mendean Erresuma Batua nazioa eraikitzekeo prozesuan murgildu zen, eta izate hori zer izango zen zehazki berdefinitzean ere. Benedict Andersonen hausnarketari jarraiki nazioak imajinatutako komunitateak badira, orduan ospakizunak, ekitaldiak eta gertakariak beharrezkoak dira imajinazioak elikatzekeo, bereziki unibertsitate adituak ez diren gehiengo handi horren baitan. Erresuma Batuko mendeko herrialdeek agertutako nazionalismo mota berezietan futbolak edukitako zeregina aldakorra izan zen, baina kirolaren izaerak bideratutakoa Erresuma Batuko baldintzen aniztasuna plazaratzea izan zen, eta baita H.F. Moorhousek dioena ontzat emanda, nabarmentzea Ingalaterrako arauen harrokeria. Erresuma Batuko hainbat herrialdetan, kirola definitutako proiektu nazionalista barreiatzen lagundu ahal zuen gailua zen. Beste inguru batzuetan, Moorhousen hitzetan, kirola adierazle etniko konplexua bihurtu zen, emozio botere handiaz hornitua. Bi eremuetan ere populazioaren baitan talde antagonistak definitzen zituen, alegia, katolikoen eta protestanteen zatiketa, eta kultur nazionalismo boteretsua azaleratzen zuen (Moorhouse, 1996: 71).

XIX.mende amaierako eta XX.mende hastapenerako Britainia Handian kirola ez zegoen, esaterako, Frantzian bezainbeste zentralizatua, eta taldeak ez zituzten erabiltzen era berean estatu-nazio bateratuaren egitasmoa sustatzeko. Nahiz eta Britainia Handiko kirolerako sistema federalak azkenerako Frantziako eredu zentralista zurrunaren helburu berdina lor izan zezakeen – hau da, bi egiturak era ezberdinetan nazio komunitate mota bateko partaide sentiaraztea sustatzen – bitartekoak zinez ezberdinak ziren. Frantzian, besteak beste, Provence, Borgoina eta Bretainiako “estatu” historikoen berezitateko kirol egiturak ekidin zituzten. Erregioetako batzordeak atondu zituzten, baina ez zieten inoiz botere handiegirik eman (Holt, 1996: 45). Britainia Handiko kasuan arraza nazionalismo

berriaren hedapenak kirola Frantzia bezala prestakuntza militarrean zuzendu ez bazuen ere, kirolaren eta “nazio eraginkortasunaren” arteko lotura geroz eta onarpen zabalagoa lortzen ari zen (Ibid., 51). Hain zuzen ere, oinarri horretatik abiatuta orduan egituratzen hasi ziren nazioarteko kirol lehiaketetan emaitza onak erdieste nazioarentzat garrantzia gorenekoa bihurtu zen. Besteekiko erkaketan eskuratutako garaipenek norbere taldeko identitateari bizigarria eskaintzen zioten.

Britainia Handiaren barruan kirola da azpiratutako nazioek beren bereizitasuna aldarrikatzeko xedeaz erabili izan duten ardatz nagusietakoa, baina kultur nazionalismo horrek ekimen politiko etengabearen gabezia izan du. Eskoziako Alderdi Nazionalako buruzagi Jim Sillarsek 1992ko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parlamentari kargua galdu zuenean bere herrialdeko jendea “90 minututako abertzalea” zela deitoratu zuen, jarrera nazionalista soilik kirol ekitaldien kariatara azaltzen zuena, eta aginte burujabea aldarrikatzeko nortasun indarra falta zitzaiona. Zalantzarik zen beretzat nazionalismo mota hori noizbait politikoki gauzatu ahal izatea, eta batez ere kultur nazionalismoaren segida zen geroari begira mehatxupean zegoena (Moorhouse, 1996: 71). Moorhousek baliatzen duen eran, kultur nazionalismoa kultura eta hizkuntza partekatuan sustraitzen den talde partaidetza sentimendua da, aldarrikapen politikoetarako igarobidea burutzeke daukana. Esan nahi baita, kirolak kultur nazionalismoaren aldaera modura, Eskoziako Alderdi Nazionalistaren nazionalismo politikoaren alde bozkatzearen ordezkotza gisa balio izan zuela, hartara abertzaleek askotariko kirol ekitaldietan nazioarekiko babesak erakus zezaketen alderdi nazionalistei nahitaez botoa eman beharrik gabe (Jarvie, 2006: 115). Ildo horretan egokitzen da, hain zuzen ere, Eskoziako alderdi nazionalistaren eledunaren atsekabea, futboleko plazaratu ohi den nazio nortasunaren aldarria eta sugar abertzalea hauteskontzietan sarritan era berean gauzatu ez zelako. Dena dela, litekeena da Sillarsek aburua aldatu izana 2007. urtean SNP alderdi independentistak Eskoziako gobernuaren agintaritzat lortu zuenean laboristei hauteskundeetan ozta-ozta gailendu ondoren.

Futbol munduan Erresuma Batuen barruko lau herrialdeek duten ordezkariak apartekoaren gaineko aldizkako mehatxua, gaur egun gehienetan Hirugarren Mundutik eratorritzen dena, Erresuma Batuko kultur nazioek, Eskoziak eta Galesak, harridurarekin hautematen dute. Hala ere, atzeritarrekin borroka hori ez dago erabat amaitua estatuak kopuruan hazten ari diren heinean futbolaren sorterriko federazioen boterea ahuldu dela aintzat hartuz. Urteotan Ingalaterraren eraginaren segurtasuna zartatu da, eta futbolaren

barruan behintzat, ez dirudi bilakaera hori amaitzera doanik. Galesko futbol federazioak berriki norbere futbol liga antolatu egin du, erabateko futbol nazioa bailitza bere burua agertzeko aldarrikapena funts handiagoarekin hornitzeko. Moorhousek dioen moduan, gerta daiteke “estatu bat, herrialde asko” kasu apartekoa geroz eta gehiago behaketaren iturri izatea. Dena dela, bere hitzetan ez du ematen Erresuma Batua eraikitzeke prozesua – futboleant nahiz politikaren arloan – oraindik bukatuta dagoenik (Moorhouse, 1996: 71-72).

3.3.1.2-Ingalaterra: Futbola nazio nortasunaren eta bere sinboloen eraberritzearen agertokia

Chas Critcherrek Ingalaterraren nazio nortasunaz hitz egitean honela azaldu zuen Britainia Handian asmatutako futbolak zuen garrantzia: “Zaila da zerbait aipatzea, gerra eta erregetza salbuetsita, Ingalaterrako taldeak Munduko Kopako azken kanporaketetan lehiatzean bezain era indartsuan nazio identitatea egituratzen duena” (cfr.Merkel, 1999: 61). Irrika patriotikoa eta nazionalista hedabideek islatzen eta elikatzen dute ekitaldion berri ematean, Critcherren ikusmoldea garatuta eta hausnarketa indartuta. Esan beharra dago Ingalaterrako imajinatutako identitatearen ezaugarri nagusiak funtsean hedabideen jardunean metaforikoki plazaratuak izan ohi direla, batetik gerrako hiztegia baliatuz, eta bestetik erregetzaren esaerak erabiliz ere (Crolley eta Hand, 2002: 20). Horrela, “nazio” talde are boteretsuagoa osatu ahal izateko, eta txapelketa handi horietako ataka zailtan garaipenera hurreratzeko – 1966an etxean lortu zuena da Ingalaterrak Munduko Kopan duen laudorio bakarra – Erresuma Batuko lau herrialdeetako jokalaririk denak futbol talde bakarrean batzeko deiadarrek oihartzuna izan dute, gailenena denez gero, Ingalaterran nagusiki. Londresko Olinpiar Jokoetarako ekimena desio horren adierazgarria da, baina baita Ingalaterra bakanduta gainontzeko hiru futbol federazioen aurkaritza ere futbolak munduan emandako aitortpena galtzeko ikarak eraginda. Izan ere, haiei nazio izaeraren bereizitasuna eskaintzen die futbolak nazioartean, eta sobera ausartu gabe esan daiteke futbol zaleen aurrean behinik behin, Erresuma Batuaren agintetik burujabeak lirakeen lurralde bereizituak bailiran azaleratzen direla. Bide batez, nazioarteko harremanetan eta goi politikan ez daukaten ahalbidea eskaintzen die futbolak lehiaketetako oihartzunaren bitartez.

The Guardian Erresuma Batuko kazeta aski formalak hausnarketa honen bitartez ebatzi zuen auzia, 2000ko abenduan garai hartako Erresuma Batuko Barne ministro Jack Strawek talde bateratua antolatzeko abagunea iradoki zuenean (cfr. Boniface, 2002: 14): “Proposamen zentzugabe hori burua galdu duen norbaitengandik etor daiteke bakarrik, eta bere bizitzaren erdia Saturnon edo Amazoniako oihanean eman duen batengandik”. Ez da inoiz arazorik izan gainera, talde ezberdin horietako jokalariei “naziotasuna” nola “esleitu” erabakitzerako garaian, nahiz eta nazio talde guztietan ere hiritartasun bakarra duten: euren pasaporte guztiak ere britainiarrak dira. Bada, lau federazioek akordio bat hitzartu zuten hainbat irizpidetan oinarrituz. Horien artean zeuden jokalariaren sorterrria, gurasoena eta aiton-amonena. Oinarri horiek jarrita, ez da eztabaidarik pizten Erresuma Batuko lau elkargoen artean inongo jokalariri buruz (Boniface, 2002: 14). Horrela, beti ere futbolariak askatasuna dute nazio talde batean edo ondokoan jokatzeko erabakitzeko, Ingalaterrakoa denetan ahaltsuena eta erronka handienak begiz jo ditzakeena izanagatik. Eztabaida iturri nagusia Irlandako Errepublikako selekzioarekin aritzea hautatzen duten Ipar Irlandako futbolari katolikoekin gertatu ohi da, bertako auziaren bereizitasunagatik.

Galdutako inperioaren loriak, Eskoziaren, Galesen eta Ipar Irlandaren eskuetan utzitako eskumen politikoek, Europak batasun politikorantz hartutako erabakimenak eta globalizazioaren bidetik herrialdean sustraitutako immigrazioak Ingalaterrako muineko nazio identitatea berriz hausnartu eta irudikatzeko beharra eragin zuten XX. gizaldiaren eta XXI. mendearen arteko aldaketan. Eskoziako Legebiltzarrak eta Galesko Asanbleak jaso zituzten erabakimen politikoetatik haratago Erresuma Batuko koroak bere barruko bi herrialdeak nazio gisara aitortu zituen oroz gain. Halaber, Ostiral Santuko Akordioak Ipar Irlandako Konstituzioa aldatu eta lurraldeari hainbat esparrutan burujabetza eman zion. Itzulpenak Ingalaterrako izaera, eta ildo berean Ingalaterra eta Britainia Handia, lauso eta adierazgarririk gabe utzi zituen. XVIII. mendetik XX. mendera bitartean, beste jende multzoek euren burua nazio modura imajinatzen zuten bitartean, ingelesek beren inperioaren bitartez irudikatzen zuten euren. Inperioaren galeraren ostean bilakatu zen garrantzitsua ingelesentzat nazioa izatea. Nazioen artean nazioa izatea botere eta eragin galera erabatekoa zen, eta kiroletik at ingelesek ezin dute beraien izaera hori aldarrikatu ere egin (Robinson, 2008: 219). Ingalaterra imajinazioaren baitako izatea da ezer baldin bada, estatu nazioa gorpuzteko erabili ohi diren kultura eta politika erakundeen gabezia duelako. NBE Nazio Batuen Erakundearen zernahi betebeharrak betetzen duela ere Erresuma Batuen zati gisa egiten du. Olinpiar Jokoetan Ingalaterra Britainia Handiko multzoan

lehiatzen da. Horrenbestez, Erresuma Batua eskumenen itzulpenaren osteko garaian Ingalaterra lekutzea ez da egiteko erraza. Ingalaterra nazioarteko kirol eremuan bakarrik da Ingalaterraren adierazlea. Izan ere, bertako futbol, errugbi eta cricket taldeek ez dute Erresuma Batua osotasunean ordezkatzeko, San Georgeren gurutzearen banderak aditzera ematen duen herrialdea baizik. Dena den, kirol guztien artetik futbola da sinbolo oparoa.

Jessica Robinsoni jarraiki, futbola ideiak eta identitateak bideratu eta adierazteko kokagune garrantzitsua da ingelesentzat, ez metafora izateagatik, bitartekoa izateagatik baizik. Ez du erakunde ingeles bereizgarria islatzen, bereizgarria bera da. Ingalaterrako futbolariek ez du Ingalaterra azaltzen, alabaina orainaldian izan dadin burutzen du. Kasik beste ezein eremutan ez da Ingalaterra eta Britainia Handiaren arteko ezberdintzea hain erabatekoa eta gardena. Ingalaterrak ez du adierazpen politiko bereizgarriarik – Erresuma Batukoa da legebiltzarra –, ez du nazio jantzirik, ez eta nazio ereserkerik ere, eta are gehiago, bere zaindari saindua ez da ingelesa ez eta bakarrik bere jabetzakoa. Ingelesek, britainiarrengandik bereizita, nazioarekin elkartu ohi diren kultura edo politika ezaugarri gutxi ditu. Dena dela, kiroltan, eta bereziki futboleant, Ingalaterrako taldeak Ingalaterra ordezkatzeko du, ez Britainia Handia, eta loratzen ari den nazio kontzientzia aztertzearen kokapen nagusia bihurtzen da, hori zernahi izanda ere. Areago, Jessica S.R. Robinsonek dioen moduan, britainiarrekin berdindu beharrean, futboleant, beste edonon ez balitz ere, ingelesak Ingalaterra dira (2008: 221). Ingeles nortasuna ahultzat jo liteke, izan ere, hain luzaroan britainiar izaerarekin parekatuta sustraitu da ezen nazio identitate ingelesa ezin dela britainiar nazio nortasunetik bereizi. Horrek esan nahi du Ingalaterra barruko herri edo erregio mailako nortasunetik ahala eduki dezaketela eurekin bizikidetzaren partekatzen duen hala nolako ingeles nortasun ahula eta gainjartzailea zatikatzeko (Gibbons, 2010: 436). Erregio mailako identitateak ere garrantzitsuak dira Ingalaterran, eta hala zailago egiten dute britainiar izaeraren eta ingeles izaeraren banaketa soila, zeina gaur egungo nazio nortasunaren krisiaren egoeraren erdigunezko alderdia den. Prentsak oro har ere, nazioa goresteaz gain, hurbileko identitate horiek hauspotzen ditu futboleko kontaktetan.

Britainiar eta ingeles izaerak ulertzeko premia da jabetzea Erresuma Batua estatu nazioa baizik nazioen estatu dela. Bereizketa hori argi utzi zuen futbol elkargo ezberdinduen beharrezan. Ingalaterrakoa, Irlandakoa, Galeskoa eta Eskoziakoa, denak ere 1860. eta 1880. hamarkaden bitartean jaio ziren, talde nortasun eta nazio ezberdinen agertoki. Nazioarteko lehen futbol partida Ingalaterrak eta Eskoziak 1872. urtean jokatu

zuten elkarrekin, Britainia Handitik kanpo Argentinak eta Uruguai lehena nazioarteko neurketa burutu baino ia hiru hamarkada aurretik. Futbolari ingelesak selekzioa Queen's Park Eskoziako klubari jarki zitzaion azaroaren 30ean (Dietschy, 2011: 36). Mantxako Itsasarteaz bestaldeko erresuman gisa horretako futbol partidak etsaigoak eta tentsioak bideratzeko eta askatzeko begiztatu zituzten, bereziki eskoziarrentzat eta irlandarrentzat, ingeles inperialismoaren politika eta kultura menderakuntza jasaten baitzuten. Futbolak aurrerantzean, Irlandak independentzia lortu ostean, betekizun garrantzitsua bete zuen Ingalaterra, Eskozia eta Gales nazio ezberdinak zirenean ezagutza bermatzen; ingelesek aldi horretan ingelesak eta britainiarrak gauza bera zirela aski barneratu zuten bitartean (Robinson, 2008: 223). Hedabideek, prentsa idatziak bereziki, ikuspegi hori barreiatzen lagundu zuten 1950eko hamarkadatik hasita luzaroan, Ingalaterrako nazio taldeari arreta berezia ipinita, eta gainontzeko nazio taldeen jarraipena mugatuta, besteak beste. Zaleei ez zieten etengabe parekotasuna oroitaraziko. Erresuma Batuko herritarren gehiengoa ingelesa dela aintzat hartuta hori ez da sobera harriztekoa. Alabaina, Britainia Handiari erreferentzia egin gabeko ingeles nortasuna ez zen luzaroan osatu (Gibbons, 2010: 430).

Inondik ere, Ingalaterrako nazio taldearen mugari handiena sorterriko Munduko Kopan erdietsitako garaipena izan zen. Horrela, Jessica S.R. Robinsonen hausnarketaren arabera, hedabideen arreta jarraipena neurgailutzat erabiliko balitz Britainia Handiaren historiako botere eta menderakuntza adierazpen eragileena eta esanguratsuena islatzeko, aise ondorioztatuko litzateke Ingalaterrak 1966. urtean lortutako garaipena nazioarteko unerik garrantzitsuen izan zela (Robinson, 2008: 220). Munduko Kopa hauteman zuen jende gehienak telebistaren bitartez ikusi zuen. Lehiaketaren kontaketa zabaltasunak eta eraginkortasunak aurreko ekitaldietatik nabarmendu zuten Erresuma Batuan ospatu zena, eta zuzeneko telebista ekitaldi modura epe ertainera edukiko zuen egokiera iradoki zuen. Ildo horretan, telebista britainiarrak, eta bereziki BBC kate publikoak, burututako kontaketa sustatu zuen 1966ko Munduko Txapelketa nazio bizipen partekatu eragilea bilakatzea. Lehiaketarako telebistak erakarri zuen ikus-entzuleria oso handia zen. Bost urtetik goragoko Erresuma Batuko herritarren erdiak baino gehiagok ikusi zuten finala, 30.500.000 lagunek orotara, era oso ezberdinean banatuta: 26.500.000 herritarrek BBC kate publikoa hautatu zuten, eta soilik 4.000.000 lagunek ITV kate komertziala (Mason, 2006: 85). Mendebaldeak txapelketara sailkatu zen Ipar Koreako taldearen ordezkaritza aitortzen ez zuenez, Gerra Hotzeko sakoneko nazioarteko harremanen talkak busti zuen txapelketa, baina horrek ezin zuela ekitaldia kaltetu ebatzi zuten antolatzaileek. Horiek

horrela, nazio ereserkiak atariko neurketan eta finalean bakarrik entzunaraztea hitzartu zuten. Erabakimena erraztu zuen Denis Howell kirolean erantzukizuna zuen Erresuma Batuko Hezkuntza eta Zientzia estatu idazkariak eta FIFAKo presidente Stanley Rousek ereserkiekin batera hautematen zuten nazio sugarraren gehiegizko agerpena arbuiatzen zutela (Ibid., 87). Hartara, Munduko Kopa hala nolako salerosketa murrizteko ekitaldia izan zen, batu jabeko jendetzena, turismo eskasekoa, eta neurrizko abertzaletasunekoa. Ingalaterrako jokalariek ez zuten garaipenezko agerraldirik egin, eta eskainitako ohore eta laudorioetan estatuak ez zuen aintzat hartu futbola oroz gain taldekako kirola zela.

Nolanahi ere, esaterako futbolak lehen aldiz emakumezkoak erakarri zituenaren zantzuak ageri ziren txapelketan. Hala, hastapeneko partidetan ikus-entzule gizonezkoen kopuruak emakumezkoena bikoiztu baldin bazuen, finalak iristean sexuen arteko aldea murriztu egin zen. Garai hura bizi izan zutenek diote 1966ko Munduko Kopan futbola lehen aldiz nazioarentzat osotasunean garrantzitsua izan zela. Hirietako karrika hutsak eta haizatutako Erresuma Batuko *Union Jack* banderen kopuru handia, finala hartu zuen Wembley futbol zelaian eta handik kanpo ere, nabarmendu dituzte aztarna gisa adituek. Egiazki San Georgeren gurutzearen zuri-gorria nekez begiz jo zitekeen inguruan, baina futbol taldeak ordezkaturako nazioari buruzko itauna arrazoizkoa zen. Izan ere, Galesko kazetek oro har Ingalaterraren garaipena goratzen zuten bitartean, eskoziarrek jarraipen txikia egin zioten biharamunean. Litekeena da Eskoziak Erresuma Batuaren mendean galdutako burujabetzaren oroitzapena artean tinko mantentzea, eta politikaren eremuan nazionalismo ahaltsu gidariaren gabezia jasanda, haiek ingelesten harrokeria eta boterea jotzen zutenaren aurkako etsaigoa bizitzako beste hainbat alorretan agertzea, futbolearen nagusiki. Hortaz, Ingalaterra Mendebaldeko Alemaniari polemika eta guzti, finalean 4-2 gailendu zitzaionean, eskoziarrek ez zuten ospatzeko aldarerik, areago ezatseginez jaso zuten oro har albistea. Alabaina, 1966ko Munduko Kopa, eta finala bereziki, ingelesten memoria kolektiboaren zatia bihurtu zen (Mason, 2006: 94). Ingalaterrak mugarrira lortu zuen futbol hooliganismoak herrialdeko harmailak eta munduarekiko isla lausotu baino bi hamarkada lehenago. Nazioaren gehiengoak partekatutako kirol eta kultur unea izan zen, eta irabazi zuena norbanakoa baizik Ingalaterra ordezkatzeko taldea izan zenez, nazioaren memoria kolektiboan irmoago ainguratu zen. Telebistak, arestian esan bezala, berebiziko parte-hartzea izan zuen egikaritze horretan, mahai gaineratutako teknologiak mundu mailako zuzeneko emankizuna eta enparantzetan pantaila erraldoiak plazaratzea ahalbidetu ez zuen arren. Hartara ospakizuna xumea izan zen arranditsua baino gehiago.

Apurka-apurka 1970eko hamarkadan hasita, britainiar nortasun gainjartzailearen eta ingeles nortasunaren arteko ezberdintzea bideratzen hasi ziren hedabideak, 1990eko hamarkada arte kazetariak biak hertsiki uztartu arren, identitateok baliokidetzat agertuta. Bitartean, nazio taldea sostengatzean, *Union Jack* banderen ondoan gero eta ohikoagoa zen Ingalaterraren jatorrizkoa, San Georgeren gurutzearena, astintzea. Hala, 1996.urteko Ingalaterrako Europako Kopan biribilduko zen bilakaera piztu zen, urte hartan betirako osatu zelako futbol ingelesaren eta San Georgeren ikurraren arteko bizikidetzak. Bandera ordu arte eskuin muturreko etnia aburu zurrunarekin lotua izan zen luzaroan, eta ingeles nazio identitate barnerakoiaren berpizkundearen joera, bidez batez, azkeneko Munduko Kopetan ikurra nonahi erabilia adierazi zen (Vincent et al., 2010: 211). Ataka horretan zerikusirik eduki zuen, Joseph Maguirek eta Emma K. Poultonek hezuramaitzen duten moduan, EB Europako Batasunaren mendean eskumenak galdu izanagatik jasandako subiranotasun galbideak, bereziki ingelesaren ni/gu identitateak hainbat eremutan inperioa galtzearen oinazea pairatu berria zuenean. Ingelesek beren “fantasiako ezkutuari” eta talde karismari sortutako zauria onartzekotan zirela, aurrean zuten eskoziar eta galestar identitateen berrindartzea, Eskozia eta Galeserako eskumenen itzulpena 1997an burutu baitzen (Maguire eta Poulton, 1999: 21). Lehiaketa 1966ko garaipenaren 30.urteurrean gertatzeak, eta nazioarteko lehia garrantzitsuan lehen aldiz zoriak multzoan Ingalaterra Eskoziarekin alderatzeak ere zeresana izango zuen San Georgeren bandera zabaltzean, *Union Jack* bandera haizatzeak bi nazioen arteko batasuna islatuko zukeelako gehiago, norberaren nazio izaera nabarmentzea baino. Horrez gain, 1996.urteko Europako Kopak hiritarren eta euren nazioen arteko Ni/gu identifikazio irmoagoa indartzen lagundu zuen, europarrak ere bazirela oroitaraziko zuen gu-identitatearen ezagutza bultzatu beharrean (Ibid., 28). Nazioarekiko atxikipena sustatu zuen beraz, nazioaz gaindiko izateena baino gehiago, hots, Erresuma Batua eta Europako Batasunarekiko lotura lausoagoen aurrean.

Dena den, ziurtasun zantzu gutxi dago futbol jarraitzaileek orain San Georgeren gurutzearen armarrria soilik nazio nortasun ingelesa adierazteko erabiltzen dutela iradoki ahal izateko, eta agerpide gutxi dago era berean argudiatzeko futbol zaleek sinbolo hori nazio kontzientzia bateratua irudikatze baliatzen dutela. Hala, Europarako integrazio aurreratuaren, itzulpenaren – Eskoziari, Galesi nahiz Ipar Irlandari egindako eskumenen esleipena – eta San Georgeren gurutzea bezalako ingeles kultur sinbolo bereizgarrien atxikimendu zabalarekin gertatutako itxurazko eraldaketaren arteko harremanaren izaera oraindik ere zehazteke dago (Gibbons, 2010: 441). Ingalaterrak XX.gizaldiko bigarren

erdian immigrazio olde sakona jaso zuen, eta nazio hibridoa eta aberastasun kulturantza eman zuen emaitzatzat. Nazio futbol taldeak XXI.mendean aniztasunari bide berri eman dio taldearen osieran, baina 1978.urtea arte ez zen jokalaria beltzik izan hamaikakoetan ez eta deialdietan. Viv Anderson izan zen jokatzen lehena, eta John Barnes garaikideak, 1980ko hamarkadako futbolari trebeenetakoak, Liverpoolen ari zenean arrazismo eraso latzenetakoak jasan behar izan zituen. Futbolak alabaina, beste behin ere, Ingalaterrako gizartearen ispilu soila baino gehiago zela erakutsi zuen, eta aldaketarako lan tresna izan zitekeela. Izan ere, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan futbol taldeetan jokalaria beltzen zelairatzea geroz eta arruntagoa zenez, Legebiltzarra arrazismoaren inguruan ikuspegia eraldatzera bultzatu zuen, arrazismoa futboleko legez modu agerikoan mugatzeraino, eta ingelesez askotariko kulturaren nazio ezaugarria ospatzeraino.

Robinsoni jarraiki, ingelesez ezinegon iturri handienetako datza gehiagotzen ari diren arraza ez zuriko kanpotarrak nazioan egokitzeko saioan. AEB Ameriketako Estatu Batuetako *meltingpot* bizikidetzaren eredu eta kanadarren *mosaikoa* berdintzea konplexua litzateke, Ingalaterran nazioaren izatea jatorri etnikoan errotzen delako estatu politikoan baino gehiago. Bada, futbolak kezka horiek bideratzeko gailurik ikusgarriena eskaintzen du, bereziki komunitate zuria altxatzen. Futbolari beltzak Ingalaterraren sinboloarekin bilduta ingeles izaeraren sinbolo bihurtzen dira. Ingalaterrako nazioa eremu kulturantza eta bereziki arraza anitza nola bihurtu daitekeen begiztatzeko prozesu luzean irekitasuna ahalbidetzen du futbolak (Robinson, 2008: 225). Aniztasuna onartua den eta askotariko kulturen jabe den Ingalaterran etnozentrismoa deuseztatua izango litzateke. Hala, futbol federazioak Ingalaterraren eredu horren baitan egon nahi du ulertzeko denez, eta berari dagokion zeregina bete naziotasun “berriaren” kultur sustapen esanguratsuan (Hughson eta Poulton, 2008: 517). Hedabideen bitartekaritzak berebiziko esanahia du inondik ere, baina Ingalaterrako nazio taldeak lehian diren ekitaldi gorenetan beste talde eta herrien aurkako etsaigoa hauspotu izan dute sarritan. Era berezian, Alemaniako nazio taldeak 1996ko Europako Kopan Ingalaterrari eragindako porrotaren karietara herrialdean zehar Alemaniako konpainiei lotutako auto eta eraikinei sortutako kalteak hausnartuta, Nazio Oinordetzaren Hautatutako Batzordearen Komunen Ganbarak tabloide kazetak kritikatu zituen ekitaldiaren prentsaren jarraipenaz txostena plazaratuta, “kazetaritza xenofoboa, chovinista, nazionalista eta patriotismo oldarkorrekoa” egiteagatik. Erakundearen ustez, kazetari jardunak azaltzen zuen neurri batean Alemaniaren aurkako indarkeria. Oraindik hooliganismo eta zaleen jarrera xenofoboaren eta hedabideen lanaren arteko harreman

zuzena berresteko ez da froga enpiriko nahikorik. Hala ere, nazio neurketak inguratu ohi dituzten prentsaren jarraipen biziagoak arerioenganako etsaigoaren bidez nazionalismo oldarkorra agertzeko abagune argiagoarekin uztartuta, oldarkortasuna agertzeko arrisku handiagoa sortzen dute klubaren arteko neurketek baino. Roger Evansek eta Mike Rowek dioten moduan, hedabideen jarraipen nolakotasunean agerikoa den ezberdintasunarekin harreman zuzenean egongo litzateke nazio taldearekiko zaletasuna nazionalismoaz eta xenofobiaz boteretsuagoa bihurtzen duen joera orokorra, zeina sarri indarkeriaz azaltzen den, klubengandako atxikimenduarekin baino gehiago (Evans eta Rowe, 2002: 50).

Dena dela, 1996ko Europako Koparen gaineko Erresuma Batuko telebista kateen jarraipena osotasunean hartuz gero, ez zuten funtsean kazetek bezalako ageriko jarrera nazionalista. Gogoeta hori ondorioztatu zuen, behinik behin, Emma Poultonek azterketa egin eta gero. Izan ere, BBCk eta ITVk egunkariekin alderatuz, ez zuten arerioenganako sentipen ezkorrik. Horrez gain, nazio estereotipoak eta gerraren inguruko erreferentziak bakanak ziren kazetetako edukiekin ezberdinduta. Prentsa idatziak nazio oroitzapen eta mitoak egituratzeko asmoz gudueta garaipenak eta futbolaren baitakoak lotetsi egiten zituen bitartean, telebistako esatariak soilik 1966ko garaipenaren gomuta zuten gogoan. Dena den, plazaratutako iruzkinak eta estudioetan zen taldeak nazioaren “imajinatutako komunitatearekin” “partaidetza” sentimenduak egituratzen laguntzen zutela zirudien, eta horrenbestez, nazioa “benetakoagoa” ager zedila laguntzen zuten (Poulton, 2004: 450). Emma Poultonen ahotan, nazioarteko kirol txapelketetan Ni/gu identitateak hauspotzen direla nabarmentzekoa da, eta ekitaldiok hedabideek eragindako joko abertzaleen gisara hauteman daitezkeela dio. Funtsean, kirolaren kontaktaren bitartez hedabideek esnarazi edo indartu egin ditzakete lokarazita ziratekeen identifikazioak, eta hori burututa, nazioa “imajinatutakoa” baino “benetakoagoa” bihurtu (Ibid., 452). *Three lions* izeneko kantua Ingalaterrako futbol zaleentzat ereserkia bilakatu zen 1996ko Europako Kopatik hasita. Hiru lehoien izenburua Ingalaterrako futbol nazio taldearen ikurretik eratortzen da, eta sortzez jokalaririk multzoak ordezkaturako nazioaren sakoneko sinbolaria da, herrialdearen armataria alegia. Richard I.a ingelesaren erregeak XII.gizaldian bereganatu zuen adierazle hori. Ingelesen beste sinbolo nagusitik, hau da, San Georgeren gurutzetik bereiziz, ez du lurraldea ordezkatzeko, subiranotasuna lurralde horren agintariengan datzala adierazten du funtsean, eta Ingalaterrako erregetzaren muina plazaratzen du hartara. Ingalaterrako nazio taldearentzako ereserkia denez, arrazoizkoa da Erresuma Batutik bakanduta aberri hori goratzea, baina adierazgarria da halaber, horrela ingeles abertzaletasuna sustatzen

duela kantuak. 1966ko gomuta, hiru lehoien ikurra, eta futbola 1996ko aldian sorterrira itzuliko zela aipatzen ditu abestiak, *football' s coming home* lelopean. 2018an Munduko Kopa antolatzeke hautagaitza igorri zuen Ingalaterrak, baina Errusiak makurrarazi zuen.

Futbolak Erresuma Batuko harmailetan sortutako lilura eta muturreko indarkeria adierazpenez haratago, bertako pubetan txapelketa handien kariatara piztutako bizipen kolektiboa ere aipagarria da, Mike Weed Loughborougheko Unibertsitateko irakasleak burutako ikerketa etnografikoari jarraiki. Japonian eta Hego Korean jokatutako 2002ko Munduko Txapelketan izan zuen aztergai, Europako ordutegian goizaldea eta goiz erdia bezalako ordutegi ezerosoetan jokatzen ziren norgehiagoketan bereziki zale ingelesen jokabidea aztertuta. Pubetan sortutako estadio harmailen pareko giroa eta nazio arerioen aurkako deiadarrak nabarmendu zituen. Talde bateratze espontanea izan zen behaketa horren giltzarrietako bat, lehenago inoiz elkar ikusi ez zuen jendea elkarrekin abestu eta txantxak egitera bultzatu zuen egokiera hain zuzen ere, eta aldekotasunaren ikusteko era sortu “jarraitzaile partaideen kidetasuna” aurretiaz ezagun ez zutenen artean. Ondorioz, Weedi jarraiki, kirol behaketaren muineko osagaia berriz adierazi ahalko litzateke. Hala, jokoak ikustean sustraitu ordez, bizipena partekatzean datza funtsean. Beraz, esperientzia hautemateko beharrezko osagai guztiak bateratzen dira pubean, futbol zaleen jarlekuak kasu. “Gertutasuna” bizipenari dagokio, jokoari baino gehiago (Weed, 2006: 91-92).

2006ko Munduko Kopa Alemania eta Europara itzuli zen, eta aurreko ekitaldien bilakaerari jarraituta, nazio hedabideen aztoramena gehiago areagotu zen. Ingalaterraren final laurdenetako azken neurketan, Portugalgo taldearen aurka jokatutakoan, Erresuma Batuko ikus-entzuleen %80k bat egin zuten zuzeneko emanaldiarekin, kazetarien grinari era baikorrean erantzunez. Prentsak, ohi denez, ni/gu izenordeak betikotu zituen, nazio batasunaren zentzua iradokitzeke. Bitartean, Sven-Goran Eriksson Suediako prestatzaile aski kritikatuak – bere sorterriaren gaineko estereotipoekin lotu zuten kazetek sarritan – Ingalaterraren izaera kulturantzira islatu zuen mundu txapelketarako multzoaren osaeran: 23 futbolarietatik zazpi arraza beltzekoak edo mestizoak ziren. Bertako prentsa idatziak esleitutako narrazioetan Ingalaterrako militar heroiko eta politikari entzutetsuei buruzko aipamenak usu ageri ziren, Horatio Nelson almirantearena – Napoleonen aurkako gerran Trafalgargo batailan hil egin zen armadaburu ospetsuarena – eta Britainia Handiko gerra garaia gidatu zuen Winston Churchill lehen ministroarena tarteko, kirol izarren ondoan, batez ere 1966ko talde garaitsuaren partaideen alboan. Horiek denek ere nazio nortasun

adierazleen sorta nabarmenekin imajinatutako komunitatea hornitu zuten. Ingalaterrako nazio taldearekiko babesa gomutarazteko irudikatu zituzten hedabideek narraziok, nazio identitate ingelesaren bitartez aldeketasuna sustatuz, Ingalaterraren historia gomutetara ia modu finkoan hurreratuz ingelesaren imajinatutako komunitate nagusiarekin kidetasun sentipena igortzeko (Vincent et al., 2010: 210). Nazioaren iragana eta oraina irudikatu zituzten bidenabar, biak lotu, eta talde identitatearen zilegitasuna gizarteratu bide batez.

2006.urteko Alemaniako Munduko Kopako leloa *adiskideak egiteko garaia* zen. Adiskidetzaren esangurarekin alderatuz, ostera, Ingalaterrako egunkariak identitateen bereiztea tinkotu zuten, nazioarteko lehien izaera patriotikoa indartuz, eta Ingalaterrako nazio taldearekiko babesa sustatuz eta bertakotuz “gu vs haiek” alderaketan sakonduta. Asmatutako tradizioetan eta Ingalaterrako historiatik eratorritako oroitzapen lotarkietan murgildu ziren era horretara. Britainia Handia itsas zabalaren jaun eta jabe zen garaiko Ingalaterraren iragan mitologiko loriatsuaren “karisma bereziko” irudien sugarra berriz piztea zen euren xedea. Hori eginez imajinatutako komunitatearentzat nazio sentipena egituratzeko eta bateratzeko “fantasiako ezkutuz” hornitu zituzten beraien irakurleak, John Vincentek, Edward M. Kianek, Paul M. Pedersenek, Aaron Kuntzek eta John S. Hillek 2006ko Munduko Kopari buruzko egunkarien jarraipena aztertuta ebatzi zuten (Ibid., 218-219). Ingalaterrako nazio selekzioaren gaineko kazeten kontaktak muineko nazio identitate ingelesaren adierazpen irmoa islatzeko joera izango luke globalizaziotik eratorritako herri, hiri, erregio eta nazioz gaindiko beste identitateen gaindi (Ibid., 219). Nazio identitatea aldakorra dela, eta etengabean garatzen ari dela adierazten du horrek. Nolanahi ere, futbolaren bitartez eta orokorrean kirola dela medio, hedabideetan nazio kontzientzia eraberritua azaleratzen ari denaren zantzua badago ere, ingelesaren izaera ez da inoiz modu bakar batean agertua izan, eta artean ere askotariko erpinekoa izaten dirau. 2006ko txapelketako kontaktan, dena den, Ingalaterrako jokalaria “jokoan ziren abertzaleak bailiran” agertzea etengabe atzemandako gaia zen, batik bat nazio nortasun ingelesaren gaineko ideologia menderatzailean gidatuta. Hori atzeman zuten Vincentek, Kianek, Pedersenek, Kuntzek eta Hillek (Ibid., 220). Gaur egun, iraganaren eta geroaren artean bitartekaritza egiteko hedatua da futbola, Jessica S. R. Robinsonen hitzetan. Bere hitzetan, hala da, era eztabaidaezinean ingelesa den jardunean ingelesak kultura oro bere baitan onartu egingo duten kulturantzazko eta gizarte banaketarik gabeko eremuak bideratzen ari diren heinean (Robinson, 2008: 227).

Futbola, beste herrialde batzuetan sarritan gertatu ohi denez, Ingalaterraren nazio proiektu garaikidearen isla izateaz batera, etorkizunera begira irudikatu nahi den nazio nortasunaren eztabaidaren eta bilakaeraren agertokia da. Nazio taldearen osieran, arraza beltzeko futbolariak ere nagusiki barnean hartuta, 1990eko hamarkadatik ikusgai den, eta gizartearen ispilua den, aniztasuna adibidez, eta Erresuma Batuko estatuaren barruan eta globalizazioaren eraginpean zabaltzen ari den aldaketa aro berriaren eta ezjakinaren testuinguruan. Futbolaren izaera sinbolikoari dario erakustoki ezaugarri horren jabegoa. Ingalaterrak Erresuma Batutik bereiziko duten sinbolo bakanak dituzenez, futboleant hein handian ezartzen du bere identitate ezberdindua agertzeko nahia, hedabideek lagunduta.

3.3.1.3-Gales: errugbia nazio nortasunaren iturria, futbola gerizpean

Nazio identitatea sarritan nahastu egin ohi da etnikoki “purua” den hiritargoaren ideiarekin. Hala ere, estatu-nazio moderno gehienak kultur nahasketak dira. Esaterako, Britainia Handiaren historiak bere oroimenean txertatuta ditu zeltiarren, erromatarren, saxoien eta normandiarren inbasioak – horietako aldi bakoitzak berarekin ekarri zituen kultur hegemonia bateratuagoa inposatzeko saioak – . Gaur egun, Britainia Handiaren ikuspegi anglozentrikoak, kultur ingelesaren hegemonia eraginkorraren ondorioz nagusi denak, Gales, Eskozia eta Irlandako identitateak lausotzeko joera du bazterreko zeltiar esparruan kokatuta, eta identitate ingelesa britainiar mailara goratuta. Hori horrela, eta “Sorterriko Nazioen” artean hizkuntza arloan, legedia bateratua, hezkuntza eta erlijio arloan dauden ezberdintasunak kontuan hartuta ere, Joseph Maguirek eta Jason Tuckek nabarmentzen dute badaudela britainiar identitatearen nortasuna adierazten duten frogak ere (Maguire eta Tuck, 1998: 106)⁷. Futboleant, ordea, beste kiroletan baino gutxiago nabari da britainiartzat hartuak diren herrien arteko batasuna.

Gales aztertuz gero, argi dirudi errugbiak kokagune berezia lortu zuela bertako kulturaren barruan, jantzi bereizgarrian eta hizkuntza errotzen zen antzinako mundutik

⁷ Joseph Maguirek eta Jason Tuckek oroitaraztea egoki den zehaztapen bat txertatzen dute. Britainiar Irlak Ingalaterraz, Eskoziaz, Irlandaz eta Galesaz osatuta dauden bitartean, Erresuma Batuak Ingalaterra, Gales, Eskozia, eta Ipar Irlanda hartzen ditu barnean. Britainia Handia esaerak, azkenik, Ingalaterrari, Eskoziari eta Galesi egiten die erreferentzia. Horiek horrela, “britainiar” identitatea konplexua eta hein handi batean izaera lausokoa dela gaineratzen dute. Nik ere azalpenean bat egin dut definizio horrekin, nahiz eta maiz autore batzuren jatorrizko hitzak bermatzearen Britainia Handia esaeraren erabilpen zabala onartu dudana.

aldendutako eraldatze prozesu zabalagoan txertatuta, hain zuzen ere. Bardoen kulturak beherakada jasan zuenez, eta Galesko hegoaldeak ikazlekuetara etorkin kopuru eskerga erakarri zuela eta, Galesko identitate berria, barneratzaileagoa sortzeko beharra zegoen han. Hala, galestar izaeraren berrasmakuntzarekin parekatzen hasi zen geroz eta gehiago errugbia Galesen, jatorri etnikoan ainguratutako interesari jarraiki, zeina nazionalismo berriaren ezaugarrietako bat zen (Holt, 1996: 47). Gerora ere futbolak baino garrantzia handiagoa hartu zuen horrenbestez identitateen sorkuntzan. Ohi denez, kirol arrakastak errazago egiten du jendetza taldeak ordezkatzeko duen nazio nortasunera gerturatzea, eta zentzu horretan, Galesko errugbi taldea munduko onenen artean dago. Futboleant, ordea, nazio taldeak ez du Munduko Koparako edota Europako Koparako sailkatzeko moduko trebeziarik agertzen, eta laudorio ezak kirol horren oihartzuna hein batean muga dezake. Dena dela, aipatu den moduan, galestarrek ere tinko eutsi izan diote futboleant aitzindari izanak nazioarteko txapelketetan eskaintzen dien begirune eta abantailari, eta taldearen partidak beraien bereizitasunaren ikurraren agertoki bailiran betiketuz dituzte. Galesek 1990eko hamarkadan berezko liga txapelketa sortu bazuen ere, Swansea City, Cardiff City eta Wrexham AFC bertako klub indartsuenek Ingalaterrako txapelketetan jokatzen dute. 2012-2013 futbol sasoiari Swansea Cityk Ingalaterrako Kopa irabazi zuen.

3.3.1.4-Irlandako nortasunaren eta Ipar Irlandako gizarte talkaren isla

Irlandari dagokionean, bi estatutan banatutako uhartean kirolak zeresan berezia izanagatik, hegoko lurraldean aginte politiko burujabearen jabetza izateak halabarrez futbolak eskainitako ordezkartza eta aitortpenaren premia aldatzen du. Ez du gutxiesten dena den. GAA Kirol Gaelikoen Elkarteak esate baterako, kultur ekimen eraginkorraren sustatzailea izan zen, baina nazioarteko erakustokian modu egonkorrean ezartzean huts egin zuenez gero, Irlandako nazioari ostu egin zion moral bultzada eta identitatea sortu ohi duen nazio eraginkortasuna. Irlandako futbol taldeak 1990eko hamarkadan lortutako arrakastarekin alderatuz zeharo ezberdina da. Izan ere, talde hark nazioa berarekin bat egitera bultzatu zuen, 1990eko eta 1994ko Munduko Kopetarako sailkatzea lortuta, eta areago horietan lorpena izan zuela aintzat hartuz (Cronin, 1998: 173-174). Ipar Irlandari dagokionean ere, probintziaren izaeraren adierazle esanguratsuenetakoa da futbola. Hala ere, oro har hartuz, nazioarteko futbolak ez bai modukoa sortzen du irlandar identitateari

dagokionez, nazioarteko eremuan bi ordezkari bereizi izanda irlandar nazionalismoaren tradiziozko definizioaren legitimitatea kolokan jartzen baitu (Hassan et al., 2009: 743). Areago, bi eremu politiko bereizietako talde ordezkariak eta futbol elkargoak nor baino nor ipinita, bien arteko eztabaidak ugaldtu izan dira, nazioarteko txapelketen demetan ez ezik, deialdietarako futbolariak aukeratzean bereziki. Izan ere, Irlandako Errepublikako elkargoak iparraldeko jokalarik katoliko ahaltsuenak erakarri ohi ditu IFA Ipar Irlandako futbol federazioaren asaldura eraginez. FIFAk, hark horrela eskatuta, 2008an auzibideak ebazteko zehaztaperen gehiago eman arren, Ostiral Santuko akordioei jarraiki, Irlandako uhartean jaiotako zernahi pertsonak bere nortasuna irlandartzat edo britainiartzat adieraz lezake, eta ondorioz, Ipar Irlandan jaiotako jokalariek aukera dute hegoaldeko Irlandako Errepublikako taldearekin jokatzeko irlandar hiritartasuna hitzemandu. Hautu hori egin duten futbolariak Ipar Irlandako komunitate katoliko/nazionalistatik ateratu dira beti ere. Soilki esanda, Irlandako Errepublikarekin jokatzeko aukeratzen dute kidetasun handiagoa dutelako horrekin beren jaiotzeko herrialdearekin baino (Hassan et al., 2009: 740).⁸

Aitzitik, faktore ugari batura da Ipar Irlandako futbolari katolikoek azkeneko hautu baldintzatzen duena. Horien artean daude bizi diren erkidegoaren izaera, familia lotura, joera politikoa, norbanako eta nazio nortasuna – gizarte klasearena barne –, kirol pragmatismoa eta azkenik, baina inolaz ere gutxienik, Ipar Irlandan nazionalista batzuek IFARI buruz duten hautematea, zeina oso gutxitan den aldekoa (Ibid., 741). Zehaztaperen handiagoraz geroago sakonduko den moduan, futbol federazioak katolikoak bakantzeko egitasmoa mahaigaineratu zuela ondorioztatu zuten horiek luzaroan. Areago, Windsor Park Ipar Irlandako nazioarteko taldearen futbol partiden egoitza etsaigoaren zelaia izan da gehienetan irlandar jatorriko jokalarientzat, beren nortasunagatik zale protestanteen txistuak jaso izan baitituzte etxekoekin zelairatu direnean. Izan ere, Erresuma Batuen barruan eroso dauden protestanteentzat Ipar Irlandako taldea bultzatzea beren nortasuna ospatzeko unea da, Nuala Morganek dioen moduan (2004). Gainera nazioartean aritzeak katolikoei ahalbidetzen dien onospena handiagoa da Irlandako Errepublikarekin arituta, batez ere 1990eko hamarkadan Italiako eta AEBetako Munduko Kopetarako sailkatzea erdietsi zuenetik. Hegoaldeko taldearekin jokatzeko duten futbolariak Ingalaterrako klub

⁸ Oraingoan jatorrizko aipuari dagokion begirunea eskainita Ipar Irlandaz mintzatzeko “herrialde” hitza erabili badut ere, oro har beste autore batzuk ahotan erabilitako “probintzia” esamoldea hobetsiko dut, eta ildo horretan hura ordezkatzeko duen futbol taldeaz aritzean, “nazioa” kakotsez idatziko dut, Ipar Irlandak naziotzat hartzeko moduko irizpideak betetzen ez dituelako gizartearen zatiketa, eta bertako ustezko izate bereizitua zuzentzeko mugimendu politiko bateratuaren gabezia aintzat hartuta.

distiratsuetan txertatzeko abagunea izaten duten bitartean, Ipar Irlandako hamaikoarekin aritzen direnek talde apalagoen arreta pizten dute. Irlandako Errepublika ordezkatzeko hautatua izatea konplexuagoa izanagatik horrek ez ditu iparreko katoliko asko zapuzten.

Zentzu horretan, David Hassan, Shane McCullough eta Elizabeth Morelandekin bat nator argudiatzen dutenean Irlandako Errepublikako futboleko nazio taldeari atxikita eskuragai den identitatea ez dagoela lurralde marrek jarritako mugen baitan egituratuta, baizik eta izate zabalagoari emozioz lotzen zaizkienen buruan lekutzen dela (Hassan et al., 2009: 744). Nazioarteko ordezkariak bereizituak ez du eragin, gizartearen izaerari, eta XX.mendeko gertaerei dagozkien bereizitasunak tarteko, Ipar Irlandako komunitate katolikoa hegotik bakantzea. Askorentzat *Union Jack* izeneko taldeko bandera izendatu izanak eta *God Save the Queen* deritzona “nazio” ereserkia aukeratu izanak iparraldeko nazionalistek eginiko hala nolako gutxiespena adierazten du. Hala, nazioarteko partidak hartzeko IFAk Linfield futbol klubarekin 99 urteko iraupeneko alokairu ituna izenpetu izana, zeina urte askotan irlandar nazionalismoaren antitesia bailitzan barreiatua izan zen, unionismoaren egitasmoaren adierazgarri are eta gardenagoa zen. Alan Bairnerrek eta Peter Shirlowek diote estadioak ere imajinatutako nazioarentzat sinboloak bilakatzen direla, babestu beharreko ikurrak alegia (Bairner eta Shirlow, 1999: 163) eta Windsor Parki zegokionean, futbol taldea Ipar Irlandaren britainiar subirautzaren sinbolo gisara sustatzeko balio zuen (Hassan et al., 2009: 748-749). Politika, ekonomia eta kulturaren funtsak uztartuta Ipar Irlandako futbolariak Irlandako Errepublikarekin aritzea zergatik hautatzen duen ulertzeko lorratza ematen du.

Derry hiriko futbol taldearen barruan bi “nazio” taldeen arteko hautua burutzeko ahalmena eskaini ostean jokalaria batzuek iparraldearen aldeko atxikipena berretsi zuten, beste batzuk hegoaldeko taldea ordezkatzeko erabaki zuten bitartean. Gizarte ingurumen antzeraketatik eta iturburu politiko parekoetatik eratorrita ere erabakimen ezberdina hartu zuten jokalariek hartara, norbanakoaren nortasunak eta gertuko loturek eragina badutela agertaraziz. 1993an FAIk Manchester Cityn ari zen Alan Kernaghan jokalaria aukeratu izanak IFArekin ezinezona sortu zuten, baina Ingalaterran sorterrria zuenez gero, istiluen tamaina nolabait itzali zen. Iparretik hegora hainbat aldaketa izan dira, baina ezerk ez du sortu Darron Gibson Derryko jokalaria gaztearen ihesak bezalako zalaparta. IFArekin haserraldiak FIFArekin araudia zehazteko eskaera eragin zuen, eta futbolaren arau emaile ahalguztidunak horrela egin zuen, irizpide kontrajarrietarako zirrikitua uzteko lausoaz

egin ere. Ostiral Santuko hitzarmenak Gibsoni askatasuna esleitzen zion talde bat edo bestea ordezkatu ahal izateko, eta horrenbestez FIFAk zehaztapen handiagoa jarri behar izan zuen auzibidean itun politikoen mamia gainjarri gabe, ordea. 2008.urteko ekainean ebatzi zuen futbolari batek herrialde bat ordezkatu ahal izateko delako elkargo horren lurraldean jaioa izan behar zela, bere ama edo aita biologikoa zegokion lurralde horretan sortua izan behar zela, bere amonak edo aitonak delako federazio horren mugen barnean jaiotakoa izan behar zuela, edota elkargo horren baitako lurraldean gutxienez jarraian bi urtez bizitzen egona izan behar zuela. Arazoa zetzan Darron Gibsonek ez zuela FIFAk ezarritako inongo baldintzarik betetzen Irlandako Errepublikarekin lehiatu ahal izateko.

FAI iparraldeko futbol federazioak hamaika aldiz azaldu du FIFAREN araudiaren anbiguotasunetik etekina ateratzeko borondatea, era horretara futboleko gizartean askatu bidean dagoen gatazka betikotzeko arriskua amildu arren. Esaterako artean 21 urtez azpiko Ipar Irlandako taldean sei alditan jokatura zegoen Michael O' Connor deitu zuen maila bereko hegoko talderako, FIFAk aldaketa hori bere araudian baimentzen ez zuen arren. Berriz ere, argiki FIFAREN arauak Irlandako bake prozesu konplexuari lotutako muineko politikek gainditu zituzten. Ataka horretan, eta mundu zabaleko beste hainbat egokierari so ere, erakundea ohartu zen legeek askotariko bidezidorrei tartea uzten ziela, Qatarren Brasilgo futbolari gazteei etxebizitza eta pasaporte emateko eskaintza zabala adibidez, horien dohainak talde ezezagunaren onerako ustiatu nahirik, inondik ere. Hala, David Hassanek, Shane McCullough-ek eta Elizabeth Morelandek elkarlanean osatutako azken gogoeta esanguratsua da oso. Haien ustez, kiroleko "Gerra Hotzak" ez ditu lagako Ipar Irlandako gatazka garaikidearen tamainako hondamenezko ondorioak, denora 3.000 heriotz baino gehiago utzi zituen, baina Irlandako bi erakunde zuzendariek aitortu behar dute talde garaitsuak sortzeko desioaz haratagoko gizarte erantzukizuna dutela. Hartara autore horiei jarraiki, ahalegindu beharko lirateke adostasun eremua eta identitatearen auziaren gainean partekatutako ulermena bilatzen, politika eremuan eginiko ahaleginak islatzeko borondatea erakutsiko lukeena egonkortutako etorkizunerako pausoa emanda, iraganeko tribalismoa atxiki ordez (Hassan et al., 2009: 751). Darron Gibsonen hautuak funtsean baieztatzen du iparraldeko nazionalista batzuk oraindik IFAREN, Ipar Irlandako futbol taldearen eta gizartean duten kokapenaren gainean iritzi ezkorra dutela. Aduon esanetan, IFA eskubide osoz bereak diren jokalariai hautatzeari dagokionez zuzentzarako zurrungoak jar ditzan FIFAREN gainean presioa egiten aritu den bitartean, argudia liteke FIFAk denbora horri etekin handiagoa aterako liokeela Gibsonen erako gazte katolikoek

nazioarteko eremuan beren jaiotzako herrialdea ordezkatzera edo ez egitea erabakitzen dutenean aurrez aurre dituzten oztupoak kenduko balitu (Ibid., 752). Jokalarien hautuak, erabakimenez iturburuek, federazioen jokabideak eta auzibide horiek guztiek utzitako ondorioek oro har aditzera ematen dute futbolak talde nortasunak ordezkatzeko daukan gaitasuna, eta Irlandan nahiz Ipar Irlandan egitasmo politiko kontrajarriari lotzen zaiela.

Nazio bateratua sortzeko etorkizun ametsetan Dublingo gobernuak errugbiaren baliagarritasuna ere goratu du iparraldeko nahiz hegoaldeko irlandarrek batera jokatzen baitute taldean. Uharteko nazio mailako federazio bakarra da. 1921. urteko banaketaren ostean, jokalarien eta jarraitzaileen askotariko ikuspegi politikoei begirunea eskaintzeko errugbiko etxeko partidetan bi ereserki ezberdin jo ohi dituzte: Irlandako Errepublikaren ereserkia, eta hegoa nahiz iparra elkartzen dituen *Ireland's call* deritzona. Ipar Irlandan, komunitate ezberdinetako gizarte taldeek oro har kirolaren kultur garrantziari gorazarre egin izan diote, zatitutako Irlandan nazio eta erlijio auziak eta gatazka zibila orokorrean, adiskidetzera bideratzeko tenorean. Britainia Handiko eta Irlandako gobernuen arteko Ostiral Santuko hitzarmenean bildu zuten. Dena den, futbola ez da gai oraindik ere bere identitatearen barruan langa bitan banatuta dagoen gizartea elkartzeko: Katolikoek eta protestanteen artekoa erlijioaren eremuan, eta irlandar abertzaleen eta unionisten artekoa politikan. Probintzia izaerako kirol antolaketa sektakeria jarrerak islatu ez ezik, horiek hauspotu ditzakeenaren argudio osoa ezinezkoa da kolokan jartzea kirola komunitateen adiskidetzera sustatzeko ere erabil daitekeela aitortuta ere (Bairner eta Shirlow, 1998: 168). Hala, nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duen Ipar Irlandako “nazio” taldearen ekimenak ez du lortu komunitateen haustura ezerezterik. Goratzeko moduko mugarrak begiz jo ditu lurraldeko futbol multzoak historiaren joan etorrian, oroz gain, 1958ko eta 1982ko Munduko Kopetan sailkatuta emaitza onak erdietsita. Apenas 1,5 milioi herritar dituen gizartearentzat “nazio” taldeak eta Europako lehiaketetan haren pare lehiatutako klubek izandako emaitza duinek probintziaren tamainari legokiokeen maila hobetu dute.

Hala ere, nahiz eta kirol oroitzapen horiek askok oso gogoan dauzkaten, hainbat faktorek uztartuta eragin zuten 1970eko hamarkadaren ostean bertako jokoaren gaineko interesa galtzea. Istiluek argi eta garbi zeresana izan zuten jendea futboletik urruntzean, bi komunitateen arteko indarkeria oldea hazi zen heinean partidak ikustera bertaratzeari arriskutsuegia zela iritzi baitzioten. Beste kirol batzuek gutxiago jasan zuten gatazkaren gordina. Ildo horretan, futbolak komunitateen arteko parte-hartzea bideratzearen eragina

aski pairatu zuen. Jokoak nazionalistak eta unionistak elkartu zituen, baina aldi berean euren gorroto sakonak agertu ahal zituzten eremua sortu zuen (Bairner, 2004: 30). Kirol gaelikoak esaterako funtsean nazionalisten gotorlekuak dira, eta protestanteentzat futbol estadioak etsaigoaren eremuak lirateke zernahi komunitaterentzat izan litezkeena baino gehiago. Jokoak ez dira normalean protestante izatearen heldutasuneranzko ibilbidearen bizipenen zatia. Estadioek eta klubek Errepublikaren historiagrafiako heroietatik hartzen dute izena maiz (Bairner eta Shirlow, 1998: 170). Dena den, gizarte aburu ezberdinek talka egiten ez dutenez, iraganean gatazkaren zama ez zen handia izan joko gaelikoetan, ez eta gaur egunean ere indarkeria azpiratua izan denean. Futboleantalkak bizirik dirau.

Batetik, unionistentzat “nazio” futbol taldea beren identitatea ospatzeko aukera izaten da, beste ezein nazio kirol talderekin ez bezala harrotasuna, pasioa eta itxaropena sentitzeko. Bestalde, Irlanda bateratua desio duten abertzaleentzat Ipar Irlandako taldea sostengatzea herrialdearen estatusa onartzearen parekoa da, Irlanda bitan banatu izana zilegitzea eta Irlandako Errepublikarekiko atxikimendua traditza den bezala. Ondorioz, oso katoliko gutxi joaten dira taldearen neurketak ikustera eta are gutxiagok aitortuko lukete “nazio” taldearen aldeko jarrera dutela. Hari loturiko Erresuma Batuen aldeko sinboloak beren etsaigoaren arrazoi nagusienak direla diote (Bairner eta Shirlow, 1999: 160). Gogoeta ez da funtsik gabea. Izan ere Windsor Parkeko harmailtan, Ipar Irlandak etxeko neurketak jokatzen dituen egoitzan, katolikoek aurkako abestiak eta oro har giro gaiztoa agerikoak dira. Hortaz, futbolzale amorratuak ez diren beste katoliko guztientzat debekatutako lurraldea bilakatzen da ia estadioa. Eta jokalariek eurek ere jasaten dute egoeraren zailtasuna. Esaterako, 2003an, Ipar Irlandako prestatzaileak taldean jokatzeo gonbitea luzatu ondoren Glasgowko Celticek jokatzen zuen jokalaria katoliko batek eta haren sendiak mehatxuak jaso zituzten erakunde paramilitar unionista baten aldetik. Ipar Irlandako futbol elkargoak behar zuen babesik eman ez ziola iritzita, atsekabetuta, Neil Lennon izeneko jokalaria bere futbol bizitzaren gailurrean kirola utzi beste abagunerik ez zuela ondorioztatu zuen, bere burua eta sendia babestu ahal izateko (Morgan, 2004).

Gerry Morgan futbolari katoliko ospetsuak protestantismoaren mundu ikuskerak zuzendutako Linfield taldean zelairatuta 1920ko hamarkadan jasandako mehatxu argiek adierazten dute futbolaren eta Ipar Irlandako gizarte zatiketaren arteko lotura luzarokoa dela. Glentoran taldearen aurkako partida atarian gutunez ohartarazi zioten futbolariari neurketa jokatzen bazuen erail egingo zutela. Bada, neurketaren ondorenean gizon batek

tirokatu egin zuen entrenatzaile eta lagunen babesaz atera zenean. XIX.mendean futbola Ipar Irlandan errotu zenean katolikoek mesfidantzarekin hartu zuten ingeles nortasuneko jokoaren etorrera GAA Kirol Gaelikoen Elkarteak sustatzen zuten bitartean. Hala ere, eta erakunde horrek bere altzoko partaideei “kanpotarren” jokoetan aritzea debekatu bazien ere (Dietschy, 2010: 75), pixkanaka protestante langileen komunitateetan hedatu ostean, behargin katolikoek ere bere egin zuten. Gainera, futbolak joko gaelikoen arerio izateari utzi zion mundu izaera hartu zuen heinean, eta hegoaldean independentzia eskuratzean errepublika berriaren ordezkari bihurtzean. Ondorioz, ezereztu egin zen kirolari buruzko katolikoek etsaigo zantzu oro. Hala ere, futbol klubak herritar protestanteak gehiengoak ziren guneetan sortu ziren oroz gain, eta sortzez nahiz gaur egunean ere, nagusi dira Ipar Irlandako futboleak. Ildo berean, gainontzeko nazio erakundeak Dublin hirigunean jaio baziren, futbolekoa Belfasten sustraitu zen 1880.urtean.

Horrela, IFA federazioaren kudeaketan Erresuma Batuekin lotura bermatu nahi zutenek hartu zuten gidaritza hastapenetik, katolikoek kirolarekin antzerako grina agertu arren. 1920ko eta 1930eko egoera malkartsuak eraginda, 1948ko erdialdean eta 1949ko lehenengo hilabeteetan komunitateen hartuemanak areago mikaztu ziren, eta Linfieldeen jatorrizko Windsor Park futbol zelaian gertatutako istiluetan lehertu zen giro hori futbol eremuan, *Boxing Day* izeneko ekitaldiarekin batera alegia. Linfieldek Belfast hiriburuko beste taldea hartu zuen 1948ko abenduaren 27an, Belfast Celtic alegia. Bi klubuen arteko etsaigoa hein handi batean erlijioan eta helburu politiko kontrajarrietan zetzan. Izan ere, Linfieldek protestantismoa eta unionismoa haragitzen bazituen, Belfast Celtic nortasun katolikoa islatzen zuen talde bakanetakoa zen. Neurketa bana amaitu zen, eta epailearen txistuarekin batera jendetzak soropilerak jauzi egin zuen etsaiei oldartu asmoz. Celticeko jokalariek gehienek eta entrenatzaileek kolpe larriak jasan zituzten, eta horietan kaltetuena Jimmy Jones aurrelaria izan zen, hanka hautsita ez baitzuen aurrerantzean inoiz gehiago jokatu. Katolizismoa eta irlandar nazionalismoa ordezkatzeko taldearen elastikoa jantzi arren, Jones protestantea zen. Erasoaldiaren ostean, Belfast Celticeko arduradunen erabakimena berehalakoa eta erabatekoa izan zen: denboraldia bukatzean goi mailako futbola utziko zutela iragarri zuten giro horretan luzaroago jokatu ezin zutela arrazoituz. Nahiz eta bi gerren artean hamalau liga garaipenen mugarria izan, eta Ipar Irlandan talde onenen eta maitatuenen artean egotearen ohorea eduki, Belfast Celticek liga laga zuen, eta ez zen inoiz itzuli. Sektakeria indarrek futboleko lehen biktima eragin zuten (Cronin, 2000: 67). Irlandar nazionalismoaren kirol historia oroitzapenetan txertatu ziren partidak

eta futbol lehiaren ondorioak, eta era horretan, Linfieldekoko futbolariak eta jarraitzaileak Ulsterreko unionismo zapaltzailearen ordezkari gisara oroituak izan ziren aurrerantzean.

Belfasteko talde katolikoa ez zen izan gatazkak azpiratutako talde bakarra. Derry City 1970eko hamarkadan liga lehiaketatik alde egitera behartu zuen 1968an indarkeria garaikidea lehertu ostean, eta desagertzear izan zen. Nahiz eta gehiengoa katolikoa zuen hirian sustraitu, klubaren baitan bi komunitateetako partaideak izateko borondatea eduki zuen ordu arte. Brandywell futbol zelaia funts politikoekin erabili zuten Stormonteko Legebiltzarra amilaraztea helburu 1971eko abuztuan, katolikoek eta irlandar abertzaleen artean desobedientzia zibila sustatzeko atxikimenduak eskuratzeko hain zuzen ere. Hala, besteren artean John Hume etorkizuneko Bakearen Nobel saridunaren esanak entzuteko 7.000 lagun batu ziren. Derry Cityk bertako komunitatearen aldeko babesa azaldu zuen protestanteen aurrean Gobernuaren izaera kolokan jarri zuen bitartean. *Derry Askearen* bihotzetik helarazitako mezuek futbol talde hutsaren erreinutik kendu zuten Derry City, eta jarraitzaile protestante/unionistek eta protestanteek menderatutako futbol elkargoek gorrotatzeko eta erasotzeko moduko taldea bihurtu zuten, Mike Croninek nabarmentzen duenez (2000: 70). Derry hirian futbol zelaiaren inguruan gertatutako liskarrek estadioa harrapatu zuten, klubaren oroimenean tinko itsatsi den 1971ko irailaren 11n. Ballymena United zen larunbat hartako arerioa eta indarkeria baliatu zuten zale batzuen oldarkeria jasan zuena. Soropilera jauzi eta bere egiteaz gain, arerioen autobusari su eman zioten. Gerora Brandywellen jokatzeko debekatu egin zioten ligaren arduradunek eta segurtasun indarrek. Hala, Derrytik 40 kilometrora lekualdatu behar izan zuen etxeko partidetarako egoitza eta horrek bertako asaldurari gehituta ikusleen gutxitzea, jokalaria izarren ihesa eta oroz gain diru galera eragin zuten. Hain beltza zen egoera ezen 1971 eta 1972 futbol sasoiaren taldea hondoa jotzear zegoela. Hurrengo denboraldian Brandywellera itzultzeko oniritzia eman zioten segurtasun indarrek, baina izaera protestanteak gidatutako klubaren gehiengoak uko egin zion itzulera onartzeari eta Derry Cityk Ipar Irlandako lehiaketatik ateratzea ebatzi zuen. Hamarkada bat igarota Irlanda hegoko ligan txertatu zen 1985ean.

Derry Cityren historiak Ipar Irlandako kirola inguratzen duten gizarteko joera garaikide orokorrako asko ukitzen ditu. Derry hirian asaldurak eztanda egin bezain laster gutxiengo katoliko/nazionalistarekin lotutako kluba bihurtu zen. Gizarteko alderdi protestante/unionista nagusiek aurre egin ziotenez, Derry City erasandako identitatearen ikur bilakatu zen – jatorriagatik inork atsegin ez zituela zirudien –. Kluba abertzaletasun

sinbolo bilakatu zen, zeinak bere tokia Irlandako Errepublikan bakarrik aurki zezakeen (Cronin, 2000: 75). Europako Kopako bigarren faserako sailkatu zen ipar irlandar talde bakarra izan zen. Derry Cityren eta Belfast Celticen joanarekin argiago gelditu zen Ipar Irlandan futbolaren gaineko atxikipena funtsean protestante eta unionisten komunitatetik eratorriko zela gerora ere. Dena den, bi taldeok sortutako hutsunea Cliftonville taldeak beteko zuen aldi berean jarraitzaile katoliko/nazionalisten begikoa bilakatuta batetik, eta arerioen erantzun oldarkorra eraginda bestetik. Nazionalismoaren indar sinbolikoa eta erasandako identitatearena bihurtu zen ondorioz. Hala ere, Ipar Irlandako ligak oraindik identitate bat hobesteko bestea, katolikoa, makurrarazi du. Hala, orainaldian, Irlandako Errepublikan futbolarik aurrera begirako nazioa, kultur anitza eta progresista adierazten du, David Hassanen hitzetan. Aitzitik, Ipar Irlandan britainiar izaeraren sinbolo argiagoa izaten ei dirau jokoak, edo bestela esanda, irlandar izaerarik gabea (Hassan, 2006: 344).

Protestanteen eta unionisten barruan, erlijio eta mugimendu politiko horren ikur nagusia Belfast hiriburuko Linfield futbol taldea da. Erresuma Batuko klubaren artean Glasgowko Rangersekin era arrakastatsuan lehiatu izan da osaera etniko muinekoaren eta baztertzailaren ospea eskuratzeko. Biak ere ezagunak dira euren ibilbideko hainbat sasaitan jokalarik katolikoak ez izateko ezarritako irizpideagatik. Linfield Ipar Irlandako talderik boteretsuena da, eta baita Irlandako uharte osoko klub aberats eta bideragarriena ere. Alan Bairnerrek eta Graham Walkerrek zalantza barik diote nazionalisten gogoetan klubaren sektakeriaren, katolizismoaren aurkako jokabidearen eta behinolako indarkeriaren sinboloarekin lotu ohi dela (Bairner eta Walker, 2001: 85). Dena den, beste taldeetako zale protestanteek ere Linfielden aurka gorrotoa agertu ohi dute futboleko Ipar Irlandako unionismoaren benetako ordezkari gisa agertzeko lehia zabalagoaren barruan. Izan ere, futbol talde jakin batzuek babestuta zale gazteak sorterriko lurraldea babesten saiatzen ari dira, eta hori horrela izatea ahalbidetzen duten edota haiek irudikatzen duten bezala izan dadin bideratzen duten tradizioak sostengatzen dituzte atxikimenduaz. ildo berean. Babeserako erantzuna unionistei eragiten dien “jazarpenezko pentsaera” orokorraren alderdia da, zeina eratortzen den beraien inguruan guztia funtsezko aldaketa itzulezina jasaten ari denaren sentipenetik. Horrenbestez, arbasoen tradizioari atxikita mantentzen den kultur erresistentzia eredu da beraiena. Industria zaharrak joanak dira eta horiekin batera haiek sortzen lagundu zuten komunitate zentzua ere. Politikaren garapen guztiak abertzaleen gutxiengoaren aurrean egindako amore emateak bailiran hautematen dituzte. Hala ere, horretatik denetik haratago, futbol klub indartsuenek eta Ipar Irlandako nazio

taldeak tinko eutsi diote protestanteen langile klase kulturaren baitako osagarri modura, haiek ere aldaketaren aurrean gotortuak ez izanagatik. Hala nolako gertaera berritzailea da Linfielden jokalaria katolikoaren parte-hartzea, Irlandako Errepublikatik ekarriak barne (Bairner eta Shirlow, 1998: 173). 1990eko urteetako giroak aldaraziko zuen ikuspegia.

Arestian aipatutako Gerry Morgan erdilaria ez zen iraganean Linfield taldearen elastikoa soinean jantzi zuen futbolari katoliko bakarra izan, baina taldeaz ehundu zuen hartueman luzeari eta oparoari erreparatuta apartekoa izan zen. *Linfield jauna* bailitzan eskuratutako estatusa harritzekoa da klubak urte askotan edukitako irudi orokorrari so, eta bereziki Morganen garaian Windsor Parken gainjarritako katolikoaren kontrako giroa kontuan hartuz gero (Bairner eta Walker, 2001: 93). Morganek tamainako onespina jaso izanak azaltzen du edozein jokalarik ekarpen eraginkorra egin dezakeenean, futbol klub denak, ideologiaren aldetik setatienak direnak ere, erabaki pragmatikoak hartzeko gai direla azkenean. Linfieldek 1990eko hamarkadan hainbat katoliko taldean zelairatu izana bilakaera horren adierazgarria da. Gerry Morganen emariak gailurra 1958.urtean harrapatu zuen, Suediako Munduko Kopan final laurdenetara heldu zen Ipar Irlandako multzoa entrenatzaile karguan zuzendu zuenean. Peter McParland golegilearekin batera horko katoliko bakarra zen. Morganek talde eta jokalarieganako zuen estimuak berezia eman dezake Ipar Irlandako taldea nazionalista gutxi babesten duten eta iparraldeko katolikoek Irlandako Errepublika ordezkatzeari nahiago duten oraingo garaitik behatuta. Morganen kasuak ez ditu inolaz ere Linfieldi egindako kritikak baliogabetzen, baina ez litzateke bere garrantzia gutxietsi behar edota hutsean bazterrean utzi. Besterik ez bada, Alan Bairnerrek eta Graham Walkerrek dioten moduan, Linfielden izaerak oroitarazten du kirolaren, bereziki futbolaren, eta gizartearen arteko harremanen sarea sarri askotan konplexuagoa dela hasierako zantzuek iradoki izan zezaketena baino (Ibid., 96).

Futbolaren eta etsaitutako taldeen identitateen eraikuntzaren arteko elkarrekintza epaitu ahal izateko funtsezkoa da Ipar Irlandan espazioaren kudeaketari lotutako politika hautematea. Izan ere, esaterako “nazio” taldearen etxeko partiden egoitza Windsor Park estadioa da oraindik ere, Belfast hirian protestanteen gehiengoa duen Donegall Road eta Village auzunearen ondoan kokatua dagoena. Linfielden futbol zelaia ere bada, adierazienez, protestanteen artean muturreko taldea izatearen adurra duena. Kokapenagatik eta baita klub berezi batekin duen loturagatik, Windsor Park betidanik etsaiaren lurraldetzat hartua izan da. Estadio gehienak ere protestanteak jaun eta jabe diren auzuneetan altxata

daude, eta hortik datorkie identitate sorkuntzaren balioa. Futbol lehen hartzaileak erlijio egoitzak bilakatu dira ia, bere izateagatik garrantzitsuak, eta baita defendatzeko beharra dagoela hautematen den lurralde politikoaren metafora gisa. Ipar Irlandan, jarraitzaileak protestanteen tokiak babesten ari dira, Windsor Park esaterako, baina baita unionisten imajinatutako komunitatea ere (Bairner eta Shirlow, 2000: 20). Beraien historian irmo errotu diren futbol klubak goratuta garapenen aurkaritza agertarazten dute protestanteek.

Ipar Irlandako Gobernuak eratutako aholkularitza batzordeak 2000 eta 2001. urte bitartean egindako ikerketak lurralde horretarako futbol estrategia eraberritua bideratzea zuen helburu, bere egoera biziberritzea jomuga hartuta. Nahiz eta era agerikoan ez esan, jarraitzaile nazionalista ugari zituzten taldeei berriz tokia egin ahal izatea bilatzen zuten. Hori horrela, hegoaldeko ligara alde egin behar izan zuen Derry Cityri lehiaketara itzul zedin tokia eskaintzea proposatu zuten batzarkideek. Haien ustez, sektakeria indarkeriak eragotzi egin zion futbolari bi komunitateen arteko harremana hobetzeko bitarteko gisa aritzen. Dena den, bi aldeetako hiritarrek jokatu eta behatzen duten kirol nagusi bakarra denez gero, adiskidetzarako lan tresna balizkoa izan daitekeela onetsi zuten. Sektakeria baztertzeko lan egiteko beharra nabarmendu, eta nazio estadio berria eraikitzea aholkatu zuen batzordeak, Windsor Parkek katolikoek baitan sortutako atsekabeagatik. Hala ere, protestanteak oro har ez zeuden gertu nazionalistek hauspotzen zutela hautematen zuten eraldaketari men egiteko, eta bide batez nagusiki beren mundu ikuskeran oinarritu izan zen kirolaren norantzan bira berehalakoan egiteko. Katolikoek, protestanteek ez bezala, harrera txarra izan ohi dute futbol zelai gehienetan. Zale katolikoa izatea ez da inolaz ere hautu erraza izaten. Bistan denez, jarraitzaile gehienek bere erlijioari eta ikusmolde politikoari dagozkien identitateak beraien taldeari eta arerioei esleitzen dizkiete bertan, eta partidetara joan ohi diren jarraitzaile gehienak protestanteak dira, Erresuma Batuz atxikipen irmoa mantentzearen aldekoak. Ez da ahaztu behar horietako futbol zale askok klubarekin duten mirespena euren identitatearen osagarri garrantzitsuena bailitzan hartu ohi dutela. Dena den, argudiatu izan da futbol estadioa bezalako benetako tokiari buruz errotutako maitasuna imajinatutako inguruarekin sortutako maitasunaz eta leialtasunaz uztartuta dagoela halaber, funtsean nazioarekin, hor murgilduta diren jarraitzaileek era horretara ulertuta. Espazio horiek, estadioak, hortaz, Alan Bairnerrek eta Peter Shirlowk diotena ontzat emanda, barne iraultzen eta kanpo gehiegikerien aurka babestu beharreko imajinatutako nazioen metafora gisakoak jazotzen dira (Bairner eta Shirlow, 2000: 23).

IFA Ipar Irlandako futbol elkargoak zailtasunak ditu nazioarteko partida orotan protestanteen kantuak abesten dituzten jarraitzaileen ahotsa isilarazten. Ohartarazpenak igorri arren onenean harreman publikoetan arazoak sortzen jarraitzen du ohitura horrek, eta okerreanean komunitate nazionalistaren baitan min sakona eta etsaigoa pizten. Hala ere, ezina da ukatzea Windsor Parken giroa hein handi batean hobetu dela, eta estadioa soilik protestanteen etxebizitza zela adierazten zuen egitatea eraldatu dela. XX.mendean katolikoek pairatutako gutxiespenak futbolearen ere etorkizuna mesfidantzaz begitatzera bultzatu ditu katolikoak, emandako aurrera pausoei bestelako geroa iradoki arren. Ipar Irlandaren nazioarteko partidak ikusteko hautua oro har burutu gabe dute. Hein handi batean horrek zaildu egiten du Erresuma Batuk uharteko iparraldearentzat bideratutako nazio estadio berriaren egitasmoa. Londresko gobernuaren begietara, katolikoak abegi onez hartu ezean estadio berriaren proiektua ez da bideragarria. Joko gaelikoetarako ere egoitza baliagarria izatea ere nahiko lukete besteren artean agintariak. Dena dela, maiz gertatu ohi denez, espazioaren kudeaketa, hau da, futbol zelaiaren kokapena, eztabaiden iturri da. Belfastko Maze Prison behinolako kartzelaren lurretan egiteko proposamenak haserrea sorrarazi zuen gutxiengo katoliko eta nazionalistaren baitan, 1981.urtean preso errepublikazaleek egindako gose grebaren egoitza izan zelako. Hamar gatibu hil ziren Erresuma Batuko gobernuak izaera politikoa ematea errefusatu zuelako jateari uko egin ostean. Gertaera hark irlandar nazionalismoa suspertu zuen, eta ondorioz, kartzelaren lurrek esanahi berezia dute, errepublikazaleentzat oroimenean tinkotu beharreko gomuta bilakatuta, hain zuzen ere. Nazionalista eta errepublikazaleentzat kezka iturri gehigarria da egitasmoaren babesle giltzarri nagusia IFA izatea, eta kirol askoren estadio berriari buruz geroz eta gehiago “nazio” estadioa deituraz mintzatzea. David Hassanen ustetan, hori gertatzen da, batetik, IFAk bere baitako jarraitzaileen artean sektakeria ezaugarriak kudeatzeko garaian harro ez egoteko moduko erabakimena agertu izan duelako – azken urteetan hori zuzentzeko saioak egin dituen arren – eta bestetik, errepublikazaleentzat “nazio” esakerak garbi zehaztutako ezaugarriak dituelako, eta euren ikuspegitik horrek ez du Ipar Irlandarekin loturarik (Hassan, 2006: 349), Irlandako batasunarekin baizik.

Bake prozesutik haratago kirola ezin da bere politika eta gizarte testuingurutik bereizi Ipar Irlandan. Izan ere, gainontzeko kirolek ez bezala nazio eta erlijio ikuspegiari, eta ondorioz gizarte proiektuari buruzko, gatazka islatzen du. Protestante nahiz katoliko izan, bientzat ere futbolaren sinbolo indarrak oro har, eta Ipar Irlandako selekzioarenak zehatzago, talde nortasunen talka, nazio nortasunena adierazten du, baita hegoaldearekin

eta Britainia Handiarekin lotura konplexua ere. Mike Croninek dioen modura, litekeena da geroko urteetan futbol harmailak Ipar Irlandan lehian dauden identitateen borrokaren azken gotorlekuak izatea (Cronin, 2000: 78). Neurri handi batean Ipar Irlandan agerian gelditzen den erlijio identitateen borroka Eskoziako futbol harmailetan errepikatzen da. Glasgowko Celticen eta Rangersen etsaigoak Ipar Irlandako auzia islatzen du Eskozian. Ez hori bakarrik, Katharine Winstanleyk dioen moduan (2009: 2), areago ere, Eskoziako futbolaren analisia burututa hauteman ahal da kirola Ipar Irlandan den talde nortasunen auzia argitara ateratzeko funtsezko gailua dela. Bi gizarteen arteko lotura irmoa da bada.

3.3.1.5-Eskozian futbola nazio nortasunen etorkizuneko elkarbizitzaren ardatza

“Eskoziako futbolak tokia atzeman zuen Eskoziako Elizaren, Eskoziako armada erregimentuen, hezkuntza eta legedi sistemen eta bertako gobernu aginte bereizgarriaren ondoan, Eskoziako nazioaren sinbolo berriena bihurtzeraino, eta agian emozioz gehien beterikoa ere” (Bairner, 1994: 10). Britainia Handiko iparraldean lekutatuko herrialdean golfak lortu zuen sona tarteko, hango talde identitateetan ere txertatu zen, baina futbolak erdietsi zuen hein handi batean nazio nortasunak bideratzea, nazioarteko neurketei esker batez ere. Eskoziaz mintzatzean ezin nabarmendu gabe utzi Glasgoweko Celtic eta hiri bereko Rangersen arteko talka bizia. Europako txapelketa entzutetsuekin alderatu ezin daitekeen bigarren mailako lehiaketan biak nagusi izan ohi dira, eta horrenbestez sortzez irudikatutako askotariko aurkaritza etsaigo bihurtu da azkenean. Gaur egungo klubekiko atxikimenduari erreparatuz gero, garbia da kirolaren bilakaera gizarte ezberdinen baitan nortasunak egituratzeko bitarteko modura, kasu honetan Eskoziako futbol elkargoaren barruan. Glasgoweko Celtic fede katolikoari lotzen zaio oraindik, eta etorkin irlandarren ondorengoei ildo berean. Glasgoweko Rangers bestalde, oposizio protestantearen ikur eta agertokia da, unionismoaren – Erresuma Batuaren batasun irmoaren aldeko joera duen mugimendua – eta Orange Ordenaren sinbolo ezaguna den bezala.

Ezer baino lehen nabarmendu beharra da Glasgoweko Rangers kluba ekonomian hondoa jota desagertu egin zela 2012ko sasoiaren amaieran. Litekeena da Charles Green izeneko enpresa gizonak The Rangers Football deituraz birsortu zuen klubak funtsean talde aitzindariaren oinordetza hartzea, gizarteko esangurari dagokionean bai, bederen.

4.500 lagunen aurrean jokatu eta berdindu zuen taldeak beheneko mailan lehen partida. 2012ko uztailan eztabaidatzen ari ziren ligaren antolakuntzan, Rangersen talde berriari lehen mailan jokatzeko lagatzearen edo laugarren mailatik hasiaraztea ebatztearen artean. Erabakimena bigarren hautuaren aldekoa izanenez, Glasgowko Celticen eta Rangersen arteko norgehiagoka eta bi klubak inguratzen dituzten gizarte hausnarketen artekoarena aldi batean eten egingo da. Alde batetik, historiaren eraginagatik, Irlanda iparraldearen kolonizazioan, eta ondorioz, Britainia Handiko inperioa altxatzean, Eskoziak edukitako ekimen historikoaren oinordetzagatik, eskoziar askok bat egin zuten Ipar Irlandan erroto ziren unionismoaren aldarriekin. Hori bereziki modu adierazgarrian azaleratu da Orange Ordenari lotuta eta Rangers futbol klubaren testuinguruan. Celticeko jarraitzaile askok bestalde, Ipar Irlandako auziari dagokionean aldarrikapen abertzaleekin bat egiten dute.

Glasgowko Rangersek Erresuma Batuekiko beti adierazi izan duen atxikipen irmoak Eskoziarekiko duen leialtasunaz zalantzak azalerazi izan ditu. Taldearen kolore gorri, zuri eta urdinek zaleek harmailetan astindutako Erresuma Batuko banderakin isla egiten dute. Ezaugarri horrek, Glasgowko taldeak urte askoan hamaikakoan erabilitako jokalaria ingeles andana gehituta, Eskoziako beste taldeetako jarraitzaileak bultzatu ditu Rangerseko futbolariak *Flower of Scotland* "Eskoziako Lorea" herri ereserkia abestuta hartzera. Lehenago, soilik Berwick Rangersekin hartzen zuten jarrera hori futbol zaleek, hau da, Ingalaterrarekin muga-mugan kokatuta egonda Eskoziako ligan lehiatzen duen talde ingeles bakarraren etorreraren kariatara. Glasgow hiriko beste talde handiaren eta bere jarraitzaileen jokabidea ere berezia da. Eskoziako talde gehienetako zaleek oro har bertako nazio taldeari erakutsi izan dioten babesari kontra jarrita, 1990eko hamarkadako galdekizunek nabarmendu zuten Celticeko zaleek Irlandako Errepublikari aldeotasuna eskaintzean bereziak zirela. Ematen du taldearen jarraitzaileen gehiengoarentzat babes hori plazaratzea Celticeko kulturaren txertatuta dagoela, eta horrenbestez, irlandar kultur atxikipen adierazpena da halaber (Bradley, 1998: 130). Eskoziako klub ospetsuenentzat talde eta nazio nortasunek duten zeresana aditzera ematen dute askotariko jarrera horiek guztiek, erlijioak aurreko mendeetatik eratorritako bilakaerarekin hein handi batean, eta gaur egungo auzi politikoek eraginda. Horrela, ez erregioen inguruko ezberdintasunak bakarrik, beste faktore batzuk ere, eta horien artean gizarte taldeen arteko ezinikusia eta gatazka da gehien azaleratzen dena, ahuldu egiten dute futbola nazio batasunaren ardatz nagusi bilakatzeko aldarrikapena. Nazioarteko norgehiagoketan ere, non pentsa zitekeen nazioa goratzeak guztiaren gainetik berebiziko garrantzia izango zuela, Rangersen zale

protestanteak eta Celticeko jarraitzaile katolikoak, hurrenez hurren, Hampden estadioko beraien tokietan egokitzen dira, eta beren atxikimendu banatzaileak plazaratzen dituzte. Kamaren arretaguneetatik urrunduta, eztabaida pizten da klub bakoitzak eta bere zaleek nazioaren interesari eskaintzen dioten leialtasun mailari buruzkoa (Bairner, 1994: 17).

Rangersko jarraitzaileen adierazpenetatik begiztatu daiteke 1980ko hamarkadan nazio taldeari orokorrean babes handiagoa eskaintzen ziotela XXI.mendearen hasieran baino. Igarobide hori zilegitzeko futbol gertaerak aipatzen dituzten arren, badira jokotik kanpoko zioak ere. Funtsean, Rangerseko zaleek iraintzat hartzen dute *Tartan Army* gisa ezagun diren nazio taldeko jarraitzaileengandik hautematen duten ingeles identitatearen aurkako jarrera. Eskoziako nazio taldeak jokaturako futbol ekitaldiak luzaroan izan ohi dira Ingalaterraren eta ingeles izaeraren aurkako jendearen ezinikusi irmoa plazaratzeko etorbideak (Giulianotti, 2007). Richard Giulianottik iradokitzen duenez, *Tartan Army*-ko zaleek jokabide baketsua izaten dute ingelesek kanpoan izan ohi duten oldarkortasun jarrera estereotipoarekin bereizteko, baina Rangersko zaleen britainiar atxikipena dela medio – erabat eskoziarra izan ordez – pentsaezina da jarraitzaile horiek gisa horretara aritzeko beharra sentitzea. Labur esanda, Rangersekoak *Tartan Army*-koen ezberdinak dira beren burua britainiar edo ingeles izaeraren aurkako gisa definitzen ez dutelako, eta horrek eragiten du alkohol kontsumo gehiegizkoak zuzen dezakeela Eskoziaren zaleen artean pentsaezina izango zatekeen eran istiluak eragitera (Millward, 2009). Dena dela, lehenago aipatu denez, Celticeko zaleen artean ere Eskoziako taldearekiko atxikipena gainontzeko taldeen zaleen artean oro har baino murriztagoa da. Liga partidetara jende gehien gogutzen duten klubak izanagatik, bestela gertatzen da nazio taldearen ekitaldiei dagokienez. Nabarmentzekoa da Rangersek eta Celticek astero inoiz baino atxikimendu handiagoa dutenean, Celticen irlandar izaera bermatzeko ekimenak gailurra harrapatzea, eta Rangerseko jarraitzaileen artean unionismoaren agerpenak oldarkortasun intentsitate mugari berria izatea. Bietako ezein klubetan ez da zantzu askorik herrialdeko politikan berriki hain agerikoak diren eskoziar nazionalista joerei buruzkoak (Walker, 2001: 52).

1990. hamarkadako inkestek eman zuten (Bradley, 2002: 181) Eskoziako nazio taldearen jarraitzaileen erdia baino gehiago *Old Firm* deritzonaren, Glasgoweko Celtic eta Rangers bikoaren, zaleetatik kanpoko dela, biok eskoziar futbol zale gehienak batu arren. Celticen zalego erdiak Irlandako Errepublikako taldea onesten du, Rangersekoek esan bezala nazio taldearekin zuten behinolako erabateko atxikimendua alboratu duten

bitartean, hein handi batean eskoziar nazio nortasuna eta haren sinboloak britainiarretik bereizi diren heinean. Iraganean, 1980ko hamarkada iritsi arte, *Union Jack* banderak eta Rangersko futbol zaleen ohiko kantuak arruntak ziren Eskozia sostengatzerakoan. Gaur egun, ordea, eskoziar nazio nortasunean izandako bilakaeraren eraginez, *Union Jack*-a gisako britainiar nortasunaren adierazpenak eskoziar identitatearekin eta nazio taldearen sostenguarekin bateraezinak direla ikusarazten dute eskoziar taldearen zaletu gehienek. Askorentzat britainiar izaerak eskoziar izaeraren disolbatzaile erara eragiten du. Horrez gain, Celticeko zalegoaren irlandar joera ere arbuigarria da Eskoziako selekzioko zale askorentzat. Politikan, jakintzat emana da, katolikoek oro har, eta Celticeko zaleek ere zehazki, laboristei eman ohi dietela babes gehiago orokorrean SNPko abertzaleei baino.

Adierazgarria da Eskozian, Glasgow hirian bereziki, neurri handi batean arrotza den gatazka argitara ateratzea, auzi irlandarra alegia, eta bereizitasun horren iturburua inondik ere irlandarren immigrazio oldeetan datza. Izan ere, behaketen arabera, Celticen zaleen %90 katolikoak dira, eta Eskoziako katolikoek gehiengoa irlandar jatorrikoa da. Beraz, eskoziar askorentzat futbola naziotasunaren ikurra izanagatik gizarte banaketak ekidin egiten du bilakaera hori indartzea. Areago, futbolak bi gizarte ikuspegiren arteko talka bideratzen duen heinean – Celticen eta Rangersen arteko partidei lotutako gizarte adierazpenak Ipar Irlandako gatazkaren adierazpen oparoa dira – zilegi da esatea hein batean herrialdean zatiketa bizitzen duela. Glasgoweko bi taldeen arduradunen benetako helburua hau izan ala ez, biak ala biak Ipar Irlandan eta Eskozian adiskidetzeko premian dauden kristautasunaren etsaitutako bi ikuspegi era estuan atxikita daude. Glasgowko irlandar komunitateak bere izaera agertzen jarraitzeko etorbidea eskaintzen du futbolak, eta baita aldi berean eskoziar nazioak bere burua eraikitzeko abagunea, koherentea eta ezaguterraza izango den eremuan (Winstanley, 2009: 15). Jarraitzaileen bitartez futbolak pasio sakonak sorrarazten ditu, non hainbatek taldearen arrakastak eta porrotak beraien komunitateen, nazioen eta herrialdearen gizarte ospearene neurgailua bailiran hautematen dituzten. Ildo horretan, beraz, Celticen garaipena irlandar nazionalismoaren aldarriaren arrakastatzat itzuliko litzateke Katharine L. Winstanleyk azaltzen duen eran, Rangersen garaipenak Ipar Irlandako unionismoaren aldarriaren indarra eta legitimitatea erakutsiko lukeen bitartean (Ibid., 17). Winstanleyren ustez, Glasgoweko kirol dema Ipar Irlandako gatazkaren ispilu gisa aritzen den heinean aurrerantzean auzi hori betikotzeko eta beste era batera plazaratzeko gai izango da. Ipar Irlandan botere banaketan errotuz eta geroan egitasmo politiko oro bideragarri egiteko hitzarmenean oinarrituta bakea bideratua izan

den arren, gatazkaren gizarte eta kultur alderdiak artean sakonean iraungo dute Eskozian ere, herrialdean bere berezko identitateaz gogoeta erabakigarria gertatzen den bitartean.

Identitate irlandarra eta katolikoa Celtic sostengatzean uztartu egin ziren. Denak darama Eskozian futbolarik hainbesteko garrantzia zergatik duen azaltzera. Komunismoa erori baino lehenago, Albanian bakarrik zen handiagoa partidetara zihoazen herritarren portzentajea. Horrela, futbolarik jaurtitakoak dira hainbat mendetan errotutako erlijioaren inguruko ezberdintasunak, Erreformak menderatzen zuen gizarte batetik abiatuta, baina iraultza katoliko zurrunaren lekuko izan zena. Gizarte horrek XIX.mendean katolikoaren emigrazio jendetsua hauteman zuen; goseteak jotako Irlandatik kalbinismoak eratutako herrialdera, hain zuzen ere. Eskozian 5.000.000 lagun bizi dira egun. Asteburua joan eta asteburua etorri, horietako 100.000 lagun baino gehiago Rangersek edo Celticek parte-hartzen duten partidetara joaten dira (O'Sullivan, 1999). Nahiz eta Eskoziako diasporan Irlandako kultur formak, adierazpenak eta konfiantza 1980ko eta 1990eko urteetan hazi ziren, 1998rako Celticek Britainia Handiko klubaren artean denboraldiko txartel salmenta handiena eduki izanak, eta baita Europakoaren artean kopuru handienetakoa ere, azaltzen du Celtic 1887-1888 urteen bitartean sortu eta mantendu zuten immigrante irlandarren ondorengoentzat erakunde horrek, artean, etengabe, duen garrantzia (Bradley, 1998: 146-147). Bradleyren arabera, futbola Eskozian norbanakoen sozializazio prozesuari eta komunitatearen osaerari uztartuta dago. Irlandar eta britainiarren harremanen historiak finkatu du Eskozian dauden irlandarrentzat, eta modu berean katolikoaren eta irlandarren aurkako jarrera dutenentzat, Celtic futbol kluba irlandar izaeraren definizioa bilakatzea.

Soropiletik at, nazio auziak garrantzia berebizikoa zuen Celticen sortzaileentzat, irlandar jatorrikoentzat oro har zuen bezala. Etorrinen komunitate zabalagoari jarraiki, klubeko arduradunak, jokalariek eta jarraitzaileak, modu berean, politikan barneratu ohi ziren: Irlandako gobernu autonomoa babestuz, Irlandako preso politikoaren askapenaren alde kanpaina eginaz, Boer Gerran eta Hegoafrikan britainiar inperialismoaren islatzat jotzen zutenari aurre eginez, eta eskola katolikoak estatu sistemaren barruan txertatzea eskatzen zutenen aldarrikapena sostengatuz. Hala, irlandar jatorria duten katoliko askori futbolarik inguru oparoa eskaintzen die beste era batera erreprimetuta edo egituratu gabe ziratekeen jarrera politikoak, nazioarekiko leialtasunak eta aurreiritziak ezagutarazteko. Futbol zelaian erdietsitako garaipenengatik lortutako ospea ezin da gutxietsi komunitate horretan askorentzat daukan balioari zor. Izan ere, Joseph M. Bradleyk dioen moduan

(Ibid., 142), adieraz daiteke 1960. hamarkada eta gero Eskoziako komunitate katolikoak gizarte eta politikan izan zuen hobekuntza hein batean eraiki zela Celticek Eskozian eta Europan lortutako arrakastak elikatutako ziurtasunetik. Talde nagusia zen orduan Celtic.

Komunitate irlandar katolikoak sortu eta babestu zuen Celtic, eta hartara izpiritu elkarrekikotasuna zegoen klubaren eta komunitatearen artean. Glasgow hiriko katoliko pobreei laguntzea zen Celticek sortzez zeukan aitortutako egitekoa, horietako gehienak irlandarrak edo irlandar jatorrikoak izaki. Izan ere, XIX.mendearen amaieran, Celticen agerpenak katolikoei ahalbidetu zien osterantzean sarritan baztertzaileak izan ohi ziren gizarte zabalagoaren eremuetan parte hartzea. Etorkin katolikoak Glasgoweko gizartetik baztertuak izan ziren, lanpostu txarrenetan aritzen, soldata murriztena zutenak ziren, eta ekonomiaren gorabeheren arriskuan zeudenak. Halaber, katolizismoaren sinbolo ororen aurkako jazarpena gizartean zizelkatuta zela sortu zen Celtic 1888an, eta berehala eduki zuen arrakasta, futbol zelaian eta kudeaketan. Irlandar eta katoliko gisa sustraituta bere identitateari eutsi zion arren, Celticek etorkin komunitateak zuen integrazio borondatea erakutsi zuen jatorri irlandarra eta katolikoa ez zuten futbolariak ere taldean txertatuta. Hala ere, Eskoziako futbolaren baitan katolizismoaren aurkako mugimendua bizitu egin zen, hain zuzen ere Celticek gizarte, kultur eta politika arloetan hartu zuen oihartzunari erantzunez. Garai horretan finkatutako bilakaera izaki, futbol modernoaren erakustokiak Eskozian adierazpen katoliko eta irlandarren aurkako jarrera agertu ahal izateko eremu ikusgarrietakoa eta agerikoena zela frogatu zuen. Rangers 1872an sortu zen, eta hark ez zuen bizilagunek adinako bat-bateko sonik eskuratu, ez eta protestantismoarekin eta unionismoarekin berehalakoan harreman zuzenik eratu ere. Hori geroago errotuko zen.

Futbola Eskozian haren bidez lotura ideologikoak egiten diren tresna funtsezkoa den heinean, eta kultur adierazpen eta identitate katoliko eta irlandar sekularren gailu garrantzitsuen delako onetsita, Celtic eta bere aldeko sostengua izan ohi dira maiz etsaigo horren lehenetsitako jomugak. Taldearen historiak erakusten du irlandar immigranteen komunitateko kide askok beren irlandar izaera erakunde horren bidez adierazten dutela, talde horrek Irlanda ordezkatzeko duela hautemanda. Beren identitatea agertzeko eremu publikoa eskaintzen die abantaila gisa, baina horrek esan nahi du antagonismoarako eta arbuiorako erakargarri modura ere aritzen dela aldi berean. Hori da halaber, Celtic hain berezi bilakatzen duena, eta hainbeste jarraitzailek adoretua. Eskoziako etnia eta erlijio

zatiketa futbolean nahiz futbol ingurumenetik at adierazia da: futbola beste gizarte eta politika hautemate, mito eta errealitateen jarraipen soila da Bradleyrentzat (1998: 146).

Bestalde, Celticen erabakimenari kontrajarrita, Rangersek protestanteak bakarrik zelairatu izan ditu luzaroan, bere izaera hartara, argitasunez ikusarazita. Areago, 1989an Rangersek taldearen eraginkortasunari traba jartzen ez jarraitzeko beharrak bultzatuta Maurice Johnston futbolari katolikoa, eta Celticeko jokalaria ohia, taldean sartzea erabaki zuenean, eztabaida bizia sorrarazi zuen. Dena den, katolikoek aurkako kantuak eta oro har sektakeria ekimenak apaltzeko ahaleginak bideratu dituzte zaleek eta baita klubeko arduradunek ere. *Blue Order* izeneko multzoak Ibrox zelaitik sektakeria abestiak uxatu eta futbolean errotuak aberastea du helburu. Halaber, 2005eko martxoan zuzendaritzak klubarekin lotzen zen oldarkeria azpiratzeko egitasmoa aurkeztu zuen, abestien baitakoa bereziki. 2006an, ordea, UEFAk Rangers zigortu zuen zaleek Txapeldunen Ligan eragin zituzten istiluengatik eta sektakeria kantuengatik. Eskoziako iritzi publikoan eztabaida zabala piztu zuen gertaerak europar futbol erakundeak herrialde osoan oro har hedatzen zen sektakeria gaitza antzeman baitzuen. Klub mailan bederen talde nortasunen arteko zauria agerikoa da Eskozian, baina horrek ez du nazio taldearen esangura ezerezten.

Eskoziako nazio taldearen jarraitzaile baten honako bizipenak hamaikako horren garrantziaz ohartarazten du: “Eskoziar taldea nire nazionalismoa plazaratzeko erabiltzen dut, bata bestearekin lotuta dago”. Bradleyk adierazpen hori jasota (2002: 183) zehazki Eskoziaren jarraitzailea izatearen eta nazio nortasunaren arteko hartuemanaren gardena adierazi nahi du, eta oro har kirol eta nazionalismoarena. Nazio nortasuna agertzeko ildo sinbolikoa da futbol taldea, SNP Eskoziako alderdi abertzaleko nazionalismo politikoa biribildu daitekeena. Joseph M. Bradleyk ongi hezuramitzen duenez, pasio sutsuaren eta “bestearekiko” erkaketa testuinguruan – unean unekoa gertatu bada ere – iradokitako historia oroimenaren, nazioaren sinbolismoaren eta giza hunkitzearen elkarreragina dira politika edo abertzaletasun emozioak gora ditzaketenak, politika adierazpen irmoagoan gauzatzeko abagunearekin, haren esanetan, bereziki gizartearen ibilbidea eta baldintzak egokiak izatekotan (Ibid., 185). Roddy Forsyth Eskoziako futbolean aditua den egileak modu honetan azaltzen du bi erpinen arteko lotura: kirolak Eskoziako eskoziar izaeraren oihartzun handieneko adierazpena izatea aldarrika dezake, baina are gehiago baita gaur egunean bere nazio identitatearen berrespen bereizgarria izatea ere. Joseph M. Bradleyk aburua bere egin, eta gehitzen du kirol ingurumenak, eta bereziki futbolekoak, eskoziar

izatearen oharmena areagotu dezakeela, eta imajinatutako komunitatearen ideia edukiz hornitzea eskaini ere bai. Bradleyk ikertutako zaleen ia %90ek sinesten zuen eskoziar nazioarteko taldea beren nazio nortasun zentzuarentzat garrantzitsua zela (Ibid., 186). Jarraitzaileek eskoziar nazio nortasunaren sakontzea sentitzen dute futbola osatzen duen sinbolismoan jadanik beren eskoziar izaera agertarazten ohituta diren nazioarteko beste futbolzaleek hartutako ingumenean. Selektzioa eta naziotasun guraria estu lotuta daude Eskozian, uztarpenak nahitaez eremu politikoan gero hautu abertzaleenak sostengatzera gogatu ez dituen arren. Bradleyren ustez, ziurra dirudi Eskoziako nazioarteko futbolaren ingurumenak eskoziar nortasun irmoa daukaten jendea erakarri ohi duela, eta baita bere asmakuntzan laguntzen duela ere. Hala, eskoziar nazioarteko taldea eskoziar identitatea sortzeko, kaleratzeko eta sostengatzeko iturri garrantzitsuenetakoa litzateke (Ibid., 193).

Nazio atxikipen bikoitzaren izaerak – Eskoziakoa eta Britainia Handikoa – berez arazo gutxi sortzen ditu Alan Bairnerren arrazoibidean, gaur egunean aukera mugatuak baitira gizarte modernoetan norbere nazio atxikimendua argi islatu eta hezurramitzeko. Gerrak bakanak dira, eta ez dago prestutasunik, adibidez, bere argudioari jarraiki, hotel erregistroaren administrazio ekintzan. Nazio atxikimenduaren esangura gutxiesten duen heinean ez nator bat Bairnerrekin, baina gero ematen duen ondorioari arrazoizkoa iritzi diot, hots, kirol txapelketek, atxikimenduak agertzeko beste ainguren faltan, eskaintzen duten aukera nabarmentzean. Bairnerrentzat orduan gertatzen da gizonak eta, gutxiago, emakumeak, beraien atxikimenduak aldarrikatzen dituztela. Maila horretan oraindik ere naziotasun bikoitzak arazo gutxi sorrarazten ditu eskoziarrentzat. Nahiz eta eskoziarrek hainbat kirolean Britainia Handiko taldeetan parte hartzen duten, gehienetan, futboleak gertatzen denez, Eskozia ordezkatzeko dute (Bairner, 1994: 11). Ildo horretan, funtsezkoa da nazio taldearen indar sinbolikoa, futbolerako tamainako zaletasuna duen herrialdeari Erresuma Batuaren mendean bada ere bere naziotasuna lau haizeetara barreiatzeko beta eta abagunea ematen baitio. Hala, Bairner bat dator behinola Jim Sillars SNP Eskoziako alderdi abertzaleko buruzagi politikoak plazaratutako irizpidearekin. Alegia, eskoziarrek beren nazionalismoa era erosoagoan eta adierazkorragoan jantzen dutela kirola ikusten dutenean hautu politikoa burutzean baino. “Geldotasun zaratatsua” esamoldearekin N.T. Phillipsonek definitu zuen nazionalismo aldaeraren tinkotzea da ondorioa⁹, Bairnerren

⁹ “Nationalism and Ideology” izeneko artikuluan izendatu zuen N.T. Phillipsonek “geldotasun zaratatsua” bailitzan definitzen zuen nazionalismo aldaera, Bairnerrek hartzen duena. “Government and Nationalism in Scotland”, J.N. Wolfek editore lanetan osatutako liburuan argitaratu zuen artikulua, 1969.urtean.

hitzetan, eta soilik ingelesekiko erresuminak ematen du nazio kontzientzia bateratuaren oinarria. Nolanahi ere, beste indar batzuk oraindik futbolearen oinarritutako nazionalismo politikoaren erritmoa bizkortzea eragin dezakete (Ibid., 24-25). Horiek horrela, Celticen eta Rangersen arteko muturreko lehiak gizarte adiskidetzeari futbolaren eremuan bederen aise helduko ez dela iradokitzen duen arren, herrialdearen etorkizuna irudikatzean, eta nazio nortasunak irmotu eta osatzean premiazko zeresaneko ekitaldia izango da, inondik ere. Ildo horretan, Grant Jarvie eta Graham Walkerrek nabarmentzen dute Eskozian eta Eskoziako gizarte zibilean inongo elkarrizketa ez dela zinez burutuko kirolak gizartean betetzen duen eremua kontuan hartzen ez bada (Jarvie eta Walker, 1994: 8). Askotariko nazioaren definizioaz eta gizartearen nortasunaz mintzo dira bi ikerlariok futbol jazoera bilakaera horretan albo batera utzi ezineko gertaera dela oroitarazten dutenean.

Hainbat ikertzailearen begietara, Eskoziaren irlandar oinordetza alboratua izan da bertako gizarte, kultur eta politika ekarpenak agertzerakoan. Aitzitik, Joseph Bradleyren hitzetan, Glasgowero Celticen besteren artean, populazioaren zati baten irlandar jatorria oroitarazten du. Talde zuri berdearen gaineko behaketak ahalbidetuko luke kirolak, eta bereziki futbolaria, askotariko identitateak gorpuzteko, eraberritzeko eta adierazteko duen trebezia, adierazpen gutxi duten mailakoa, identitateok zernahikoak izanda ere, nazio mailakoak, kultur arlokoak, etnikoak, erlijioaren baitakoak, gizarte arlokoak, politikoak, ekonomiakoak edo komunitatekoak. Hala ere, Bradleyk deitoratzen du hedabideek sarri nahita ahanzi egiten dutela Celticen jatorri irlandarra. Haren hitzetan, kazetek oro har Eskozian dauden identitate eta kultur adierazpenen inguruan asimilaziorako hurbilpena egiten dute, integratzearen joerarekin alderatuz (Bradley, 2006: 1197-1198). Irakurleen gutunetan Celticen zaleek irlandar sinboloak haizutzen dituztelako hainbaten asaldura ageri da; taldeko jarraitzaileek naziotasuna ebazteko ordua dela diote irakurleek. Aidan McGeady Celticen zaleen gazteak sorterrira ordezkatu beharrean bere arbasoen Irlandaren nazio taldearen aldeko hautua egin izanak ere hautsak harrotu zituen. Irlandar nortasuna eskoziar gizartean kolokan jarritako identitatea eta adierazpena da Bradleyren esanetan. Testuinguru honetan, irlandar nortasuna aurkaritzakoa bailitzan ikusia da Eskozia kultur anitza egiten duten identite ugarietako baten gisara hartu beharrean. Irlandar izaerarekin erkatzen duen testuinguruan eskoziar nortasuna ideologikoki hegemonikoa bihurtzen da, zentzuzko identitatea eta ikuspegia, berezkoa eta argia. Aberdeen klubeko jarraitzaileek 2000ko lehenengo urteetan Celticen zaleei “okerreko herrialdean” zirela abestu izanak herri jarrera hori laburtzen du. Bestalde, Bradleyk era gardenean irudikatzen du Celtic:

“Irlandar futbol klubaren eta eskoziar erakundearen arteko eraikuntza hibridoa” (Ibid., 1205). Eskoziako gizartean txertatuta izaki irlandarren oinordetzaz harro den ikurra eta gizarte talde andana, hain justu, geroko Eskozia irudikatzean izaerari eutsi nahi diona.

Komunitate katolikoan hedatutako gogoetatzat hartzen dituen burutazioei kritika egiten die Graham Walkerrek, besteren artean, Joseph M. Bradleyren hausnarketak eta Raymond Boylerenak hein batean ezbaian ezarrita. Eskozian eraldatzen ari diren jarrerei eta iritziei jaramon ez egitea leporatzen die, eta errealtatetik urrundutako epaia ematea. Auzien testuingurua behar adina ez zabaltzeagatik ere kritikatzeko dituzte Walkerrek. Haren esanetan gainera, sektakeria zantzu oro irlandar-katoliko identitatetik bereiztea litzateke oro har ikertzaile katolikoaren abiapuntua, eta ondorioz, ez luke harritzekoa izan beharko beren jardunean sektakeria katolikoa ez aintzat hartzea. Bradleyk islatzen duen eskola ez da Eskoziako gizartearen jarrera eraldaketaz konturatu haren irudiko. Protestantismo kultura menderatzailea eta britainiar kultur gainjartzailearen eragina irudikatzeari okerra deritza Walkerrek eskoziar nortasuna Britainia Handiko monarkia sinboloetatik aldentu dela eta ingelesen aurkako estereotipoak ugaltu direla argudiatuta. Berriz ere aurreiritzi eta diskriminazio urteei loturiko historia arrazoiek azal dezakete katolikoaren komunitatea bere identitate sinboloetara atxikitzen zaien nekazintasuna. “Dena dela, eskoziar gizartean beste hainbatentzat tribalismo mota gisa agertuko litzateke, zeinak protestanteen aldean kontrapisua baino askoz ere gutxiago edukiko lukeen” (Walker, 2001: 49-50). Oraindik protestante identitatea balioesten duten horientzat eta zeinen Rangersekiko leialtasunak bizitza hartzen duen irrika islatzen duen, Celticeko zaleen ildo berean, Bradleyren erako argudioek denboraz kanpokoak dirudite Walkerren ustez. Horientzat ageriko protestante identitateek ez lukete ezelako abantailarik eskoziar bizimoduko eremu gehienetan (Ibid., 51). Walkerren esanetan, *Old Firm* esamoldeaz izendatzen den Glasgowko klub bikote entzutetsuaren gaineko atxikpenak konplexuagoak lirateke. Alegia, Rangers hauspotuta azalduko litzatekeen protestantismoaren nagusitasuna baino haratagokoak. Jarritzaileek bertako prentsa kritikatzeko dute Rangersi buruzko sektakeria irudia barreiatzeagatik, eta kazetariak ingelesaren aurkako etsaigoa sustatzen dutela deitoratzen dute. Bradleyren edo Walkerren ikusmoldea hobetsi beharrik gabe, biek ala biek islatzen dute futbola talde nortasunen adierazpide gardena dela Eskozian, eta horiei hauspoa ematen diela gainera. Celticeko zaleei esaterako, etorkizuneko askotariko gizartean beren nortasun irlandarra atxikitzea eta bermatzea ahalbidetzen die, hainbat gizaldiko nortasun oinordetza gordez.

Bradleyren hitzetan, eztabaidan dagoena da Eskozian asiar, ingeles edo irlandar izaten segitzea onargarria den, sorlekua aintzat hartu beharrik gabe (Bradley, 2002: 192-193). Eskoziar izatearen inguruan eta hori nola gauzatu beharko litzatekeen epaitzean gizartean ideia soila eta bakarra ez dagoela aski argia dela nabarmentzen du. Eskoziar identitatea beste hainbat nortasunen moduan, ezbaian dagoela gaineratzen du Bradleyk. Prozesu hau etenik gabekoa dela islatzen du eskoziar nazio taldearen babesak azkeneko hamarkadetan izandako osaeraren aldaketak, eta baita epe berdin horretan Eskozian izan den britainiar identitatearen ahultzeak ere. Eskoziar nazioarteko futbolaren ingurumenak askotariko identitateen narrazioen errealitatea agertzen du, bere esanetan, jarraitzaileen eta hedabide askoren ikuspegiak Eskoziaren ideiaz homogeneousutasuna ikusarazten duten arren (Ibid., 194). Bestelako identitate ugari eskoziar izaeraren adierazpide onargarrien multzotik maiz baztertuak direla aipatzen du, futboleant nahiz gizartean orokorrean ere. Celticek haragitutako irlandar nazionalismoa eta katolizismoa, eta Rangersek oraindik ere plazaratutako protestantismoa eta britainiartasuna dira horiek, iradokitzen duenez.

XXI.mendearen lehen herenean eskoziarraren definizioa zehatz-mehatz ebaztea lan nekeza dela argi utzi nahi du kirol auzien behaketan adituak. Futbolak frogatzen du Eskozian jaiotako guztiek ez dutela beren burua eskoziar gisa imajinatu nahi, eta egiten badute, euren eskoziar izaeraren nolakotasuna aldatu egin daitekeela etnia, geografia eta erlijio eraginaren arabera, besteak beste. Batasun ideia eta etnia eta nazio bereizitasunaren onarpenarena askotariko etnien gizarte anitzei buruzko eztabaiden bihotzean lekutua da Bradleyren hausnarketari jarraiki. Hark azaltzen du Eskoziako nazio taldearen zalegoak agertzen duela eskoziar izateko ipar orratz modukoak hautemanak daudela, eskoziarra imajinatutako kultur identitatetzat joa den heinean. Hori oro har abiapuntua da gizarte gehienetan non musika, umorea, moda, politika atxikimenduak, historiaren irakurketak edota kirola, denak ere, imajinatutako komunitatean norbere definizioa izateko xedeaz sortuak diren. Dena dela, iraganean adina aurreikusiak edo estandarrak izan ez, eremu globalean eta herri mailan jazotako gizarte eta kultur eraldaketa bizien ondorioz gertatua izaki, ezaugarriok identitate bide anitzean, askotarikoan eta alorretan banatuak diren sartzeko modukoak dira orain. Identitate hibridoaren kontzeptuan errotutako diskurtsoen gorakada gertatu da azken urteetan. Kirolak, bereziki futbolak, Eskozia ulertzen lagundu dezake Bradleyren ustez, bere gizarte, kultur eta politika aniztasunari dagokionez batez ere. Maiz homogeneousotasunean aingura botata duen gizartearen orainalditik identitate anitzen geroaren onarpena igarobidea ere adierazten du hark futbol behaketa baliatuta.

Horrez gain, ezin ahantzi Eskoziako nazio nortasun bizipen ezberdinez eta futbol jokoaren arteko loturaz aritzean hedabideen eragina aipatzea. Hala, kirol ingurumenean nazio identitatea sortzen hedabideen ekimena nabarmentzen du Bradleyk. Estatu gabeko nazio izaeraren bereizitasunean kirola salbuespenezko eremua dela esan liteke. Eskoziak hedabideen ekoizpenaren gainean oso kontrol ahalmen mugatua du, Erresuma Batuen mendean dagoen heinean, eta zentralizazioak oztopoa jartzen dio bertakoen eskumenari. Hala ere, kirolean editore nahiz kazetariak ez ohiko askatasunaren abantaila hauteman dezakete bai ikus-entzunezkoan eta baita idatzizko kazetaritzan ere. Horrela, futbola da hedabideetan lortzen duen oihartzunari eskerrak nazioaren pisu sinbolikoa bere gainean hartzen duena. Eskoziarrek, beste nazio nortasun batzuei jarraiki, joera dute Eskoziako historia eta nortasuna futbol zelaiko ekitaldietan goratzekoa. Maiz herrialde txikiak izan ohi dira, batez ere bizilagun handiagoekin psikologikoki harreman gatazkatsuak dituzten horiek, kirolera arreta gogoangarria bideratzen dutenak adierazkortasun sinbolikoarekin gehituta (Blain eta Boyle, 1994: 128). Hausnarketa hori ontzat emanda, futbolak nazio nortasunak sustatzeko duen ahalmena egiaztatzeko adibide oparoa da Erresuma Batuko iparreko herrialdearena, hegoko estatu-nazioaren indarrak apalduta baitago hein batean, eta estatua izateak ahalbidetzen duen talde burujabetasunaren gabezia futbolak lagatzen dituen askotariko ikurrekin asetzen saiatzen baita nazio talde ofizialaren salbuespenezko abantailarekin. Hala, Eskoziak egiazko botere politikoaren gabezia duen heinean, kirola, ez bakarrik, baina modu oso indartsuan bai, lehia sinbolikoaren agertokia bilakatzen da.

Nolanahi ere, Erresuma Batuko hedabideen mendean, telebistako emankizunetan Eskoziako kirola ezaugarritzen duen ikusezintasuna da Richard Haynesek eta Raymond Boylek nabarmendu nahi dutena, 2007ko lurrazaleko telebista kateen programazioari azterketa egin ostean berretsita. Kirolarekin hainbesteko grina azaltzen duen herrialdean horixe harritzekoa dela arrazoitzen dute. Eskoziako atletek nazioartean arrakasta lortzen dutenean ere Britainia mailako hedabideek jorratzen dituzte ekitaldiok nagusiki, eta bi aditu horiei jarraiki, ingelesez ikusmoldetik abiatzen dira beti ere. Futbol norgehiagokei dagokienez, ezinezkoa da ia Eskoziako zernahi txapelketako neurketa bat doako kateen bitartez jarraitzea. Ingalaterrako Kopako partidak, ostera, zinez aiseago ikus ditzakete eskoziarrek eta baita Txapeldunen Ligakoak ere. Horietan, beti ere Ingalaterrako taldeak gainjartzen dira, *prime time* ordutegian kokatuta, Glasgoweko Celticek edo Rangersek noiz edo noiz Europako futbol txapelketa gorenean jokatu arren. Telebista eskubideen salerosketan merkatu ekonomia arau emaile dela kontuan hartuta, Eskoziako kirolaren

ikusezintasunak badu ekonomia funtsik. Izan ere, Ingalaterrako biztanleria handiarekin alderaezina izaki, ezina da bertan sortzea eskoziar kirola soil-soilean eman ahal izateko moduko eskala ekonomia errentagarririk, hedabide handiak limurtu ahal izateko alegia. Hartara, hedabideetan Eskoziako kirolak duen agerpenaren inguruan hausnartzean, zaila da kultur eta nazio identitateaz eztabaidak bereiztea ekonomia politikatik eta Eskoziako hedabide industriaren egiturazko ahuldade endemikotik (Haynes eta Boyle, 2008: 264).

Are gehiago, klubuen arteko etxeko lehietatik haratago, Eskoziako nazio taldearen partidak ere ikusezintasun horren adierazgarri deigarriak izan dira, XXI.mendeko lehen hamarkada arte bederen bai. BBC telebista publikoak orduan taldeak Eskoziatik kanpo jokaturako partida askoren emanaldi eskubideak zituen, baina Hampden Park estadioan zelairatzen zenean, beren seinalea doan igortzen zuten kateetatik bakandu zen. Zilegi da baieztatzea hedabideen baitako gorabehera horrek nazio taldearen eragina eta horrekiko herri kontzientzia ahuldu zuela, bereziki futbol zale sugartsuak ez ziren herritarrengan, zeinak soilik nazio eta nazioarteko mailako ekitaldi gogoangarriekin bat egiten duten, guztientzat ikusgai direnean. Horrenbestez, bi hamarkadetan barrena Eskoziak egindako partida gogoangarrienetakoa, hots, 2008ko Europako Txapelketarako sailkapen fasean Frantziari etxean 1-0 irabazitakoa, Eskoziako ikus-entzuleen gehiengoaren helmenetik urrundu egin zen. Eskoziak 1998az geroztik txapelketa garrantzitsu orotara sailkatzeko ahaleginetan huts egin duen bitartean, nazio taldeak etxean jokatzen duenean telebista hargailuen gehiengotik kanpo egoteak, taldeko izarren ikusezintasuna eta aitorpen falta areagotu du, zeina 1970eko eta 1980ko hamarkadetan pentsaezina izango zatekeen.

Futbol txapelketa handietako erretransmisioak “telebista ekitaldiak” bailiran joak dira, askotariko demografia audientzia soslaietara heltzen diren programa bakan batzuen parte diren heinean, eta geroz eta zatituagoa dagoen publikoa batzeko ahalmena baitute. Orokorrean, kirolaren eta bereziki futbolaren kultur eta nazio eraginean irudiz hainbeste garrantzia ezartzen duen herrialdean bereziki interesgarria da Eskoziako liga txapelketa bertako telebista hargailuen pantailetan ez agertzeak eta oro har txapelketari eskaini ohi zaion arreta eskasak kritikak ez sorraraztea eta politikarientzat ere oharkabean pasatzea. Emankizunen eskumena osotasunean Erresuma Batuko Hedabideak, Kultura eta Kirola sailaren jabegoa da, eta Haynesen eta Boylen arrazoibideari jarraituta, Eskoziako nazio harrotasun zibikoari horrek eskaintzen dion emakida bakarra Eskoziako Koparen finala 1996eko Emanaldien legean A zerrendan bildutako ekitaldien bermearekin babestea da.

Errugbia eta baita golfa ere, ildo berean, nagusiki ordaindu bidezko hedabideen bitartez helarazten dira ikus-entzuleengana. Nolanahi ere, telebista ekitaldiek islatutako garaian, futbola eta errugbia bezalako talde globalen kirolak izan ohi dira nazioarteko eremuan nazio identitate zabalagoen garraiatzaile bihurtzen direnak, eta bertan Eskoziak azkenaldian ez du gau handiaren arrakastarik erdietsi. Epe ertainera begira, interesgarria izango da aztertzea zer nolako eragina izango duen hedabideen eremuan SNP alderdi nazionalistak Eskoziako agintea hartu izanak edota herrialdearen balizko independentzia aldarrikapenak. Bien bitartean, bertako kirolaren ikusezintasunak onurarik ez dio egingo herrialdeari, eta interes pribatuak hedabideen funtzio publikoaz bateratzea da erronkarik behinekoena. Une giltzarrietan kirolak talde eta nazio ezaugarrietako eta sentipenetako adierazpenak bideratzeko trebezia mantentzen du, baina are eta prozesu konplexuagoa da hedabideek eurek gainezka dagoen merkatuan adierazpen horri lekua egiteko borroka egiten baitute (Haynes eta Boyle, 2008: 267). Dena dela, Haynesek eta Boylek dioten moduan, Eskoziako futbol identitatearen eta hedabideen arteko loturen amarauna eduki analisirako aukera ona da, zeinak herrialde txikien eta presio globalen artean azaleratzen ari diren joerak islatzen dituen. Eskozian ez dagoena nazio identitate aldaera ezberdinen eraikuntzaren garrantziaren galera da, hauek herri hedabideek eraginak nahiz globalek bideratuak izan.

Horrenbestez, Haynesek eta Boylek ondorioztatutakoaren bidetik, gogoetarako kasu horretatik eratortzen den hausnarketa garbia da kirolaren eta hedabideen arteko harremanen etengabeko izaera aldakorrari arreta handiagoarekin behatu beharko diotela ikerlariak, eta ondorioz, saihestu egin beharko dituztela askotariko identitateen gaineko globalizazio prozesuei eta eraginei buruzko irakurketa orokorregiak (Haynes eta Boyle, 1996: 562). Globalizazioak ez du Eskoziako gizartearen bereizitasuna menderatu, ez eta identitateen balioa ezereztu. Halaber, mundu mailako fluxuetatik haratago kirolak nazio nortasunak hauspotzeko gaitasunari tinkotasunez eutsi dio. Aipatutako eskoziar ikerlari nagusiak bat datoz ondorioztatzean, kirola, eta futbola bereziki, berebiziko eremua dela eskoziar nazio identitateen sorta agertzeko, etxean eta nazioarteko lehietan. Barne nahiz kanpo eraginen baldintzapean askotariko eskoziar nazio nortasuna elikatzen du futbolak orainaldian.

3.3.1.6-Frantziako taldea etorkinen integrazioan oinarritutako nazio proiektuaren ezbairen agertokia

“Galdutako, edo gutxienez, erdi ezkutututako nazio identitatea argitara ateratzen lagunduta futbolak Frantziako nazio banderaren urdin, zuri eta gorri koloreekin sinetsi ezinako identifikazioa sorrarazi zuen. Paris 1944.urtean Alemaniaren okupaziotik askatu zutenetik inoiz ez zen frantziar jendea horrelako kopuru eskergan elkarrekin bertaratu”. Nazio taldeak 1998.urteko Munduko Kopan jaioterrian lortu zuen garaipenak gizartean eragin zuen lilura horrela goraiatu zuen Gerard Houllier futbol entrenatzaileak zelaiko bere laneko jakintza arlotik gizarte irakurketa zabalagora jauzia egiteraino (cfr.Dauncey eta Hare, 1999: viii). Hugh Daunceyk eta Geoff Harek oroitarazten duten eran, Frantzia identitate krisialdia jasaten aritu zen XX.mendean hiriguneetako aldiri txiroetako arraza eta kulturen nahasketari uztartuta, zeinak ghettoak bihurtu baitziren. Egoera hori areago zaildu zuen ekonomiaren globalizazioaren hazkundeak – Frantziaren kasuan horretarako beha bedi amerikanizazioa –, baita Vichyri buruz¹⁰ eta Frantziak holokaustoan izandako zeresanaz oroimen kolektiboan adostasunera heltzeko ezinak, eta Aljeriako gerrak laga zuen erresuminak. Hautematea izan zitekeen Munduko Kopa depresio luzearen ostean herrialdea altxatzen ari zela, eta nazio identitateari zegokionez jarraitu beharreko aurrera bidea erakusten ari zela (Dauncey eta Hare, 1999: 217). Hala, Parisko karriketan 68ko Maiatzeko manifestazioetan eta aurkako manifestazioetan baino jende gehiago bildu zen *urdirin*en, alegia nazio taldearen, garaipenaren zoramenak erakarrita, ospakizunetan buru belarri murgiltzeko. Askotariko jatorriko frantziarrak bat eginik, aldirietako baztertutako etorkinen belaunaldiak barne, nazio irudipenezko ospakizun berean. Gerard Houllierren eran, kazetariak ere 1944ko giroaz berdindu zuten 1998ko uztaileko 12ko final ostekoa. Izan ere, gobernu iturrien arabera, 1.500.000 lagun inguru elkartu ziren hiriburuko jaietan.

¹⁰ Doriane Gometek eta Thierry Terretek Alemania naziaren okupazio garaian Alfred Nakache igerilari garaitsu juduak izandako bizipenak gogora dakartzate artikulu honetan : (Gomet eta Terret, 2009) Hasiera batean « Nazio Iraultzak » erabilitako eredueta bat izanagatik, eta gerraren porrotaren ostean Frantzia berriaren jaiotza ezagutarazteko sinboloa izan arren, 1942.urtearen ostean naziek juduen aurkako jazarpena bizitu zuten, Frantziako kirolak independentea eta kirolen giza balioetan errotua izateari utzi zion, eta hedabideek ere bere kirol balentriak aipatzeari utzi zioten. Izarraren irudiaz bereizitako identitate ezberdina izango zuen kazetariarentzat aurrerantzean, judutarrarena. Lehiaketetatik kanporatu zuten, eta kontzentrazio esparruetara eramane zuten kirolak lehenago ematen zion bermea itzali zenean. Nakache bizirik itzuli zen, baina bere emazte eta alaba Birkenau hil egin zituzten naziek. Haien mundu ikuspegia igerilekuan kolokan jartzen zuelako atxilotu zuten behinolako izarra, naziek Bigarren Mundu Gerran garaian sarritan egin zuten.

Munduko Kopako neurketak zuzenean eskaini zituzten frantziar kate denek ordu arteko mugari gailenena ezarri zuten ikus-entzuleen jarraipenari zegokionean. France 2 kanal publikoak urte horretako audientzia gailurrik handiena atzeman zuen, eta France 3 beste kanal publikoak eta TF1 kate pribatuak hurrenez hurren inoizko ikusleria handiena erdietsi zuten futbol ekitaldiari eskerrak (McKeever, 1999: 175). Brasil eta Frantziaren finalak marka denak hautsi zituen telebista audientzia zundaketetan eta frantziar nazio taldeko 11 futbolarien bitartez nazioa irudikatzea ahalbidetu. 20.577.480 ikus-entzulek ikusi zuten norgehiagoka TF1en bidez – denbora tarte horretan telebista ikusten ari ziren frantziarren, hots, audientzia share-aren, %75, 6 eskuratu zuten neurketak – eta Canal + ordaindu bidezko telebista katearekin bat egin zuten beste hiru miloi ikus-entzulek ere (Dauncey eta Hare, 1999: 197). Are gehiago, askok karriketako pantaila handietan eta tabernetan jarraitu zuten estatuko lurralde osoan, estadioetatik at ere futbola jarraitzeko elkarretartzeko errotutako usadioaren bidetik. Esaterako, 50.000 lagunek Paris hegoko Charlety estadioan atondu zuten pantaila handiari eskerrak ikusi zuen Brasilen aurkako finala. Frantziarren %9a oporretan zegoela aintzat hartuta, eta ondorioz haiei galdetzea ezinezkoa zenaz jabetuta, Médiametrie zundaketen enpresak ebatzi zuen populazioaren erdiak gutxi gorabehera partida nolabait ikusi zuela (Ibid). Sekula ez zen iraganean uda hartan adina telebista emankizun ikusi. Munduko Koparen aurretiazko urtean telebista hargailuen salmenta %144 hazi zen Frantzian, eta pantaila zabaleko hargailu salmentak %236eko hazkundera ukan zuen (McKeever, 1999: 175-176). Gizarte oihartzuna erdietsi zuen bada Frantziako Munduko Kopak, eta Hugh Daunceyk eta Geoff Harek dioten moduan, futbolak nazio ospea bereganatzen duenean, modu nabarmenean lagun dezake nazio identitate kolektiboaren baitako narrazioak sortzen (Hare eta Dauncey, 1999: 44).

Lehian parte hartzen zuten taldeen artetik Frantziakoa izaeraz anitzena zen. Hala, Karembeu, Lama, Zidane, Thuram, Djorkaeff, Desailly, Lizarazu eta Barthezez batera, urdinekin zelaraitu ziren Guadalupeko gurasoak dituzten Henry eta Diomede, armeniar jatorriko Boghossian, aita argentinarra daukan Trezeguet eta Senegalen jaiotako Patrick Vieira. Frantziaren garaipena oso azkar uztartua izan zen garapen berri eta baikorrekin, bereziki askotariko kulturekin osatuta dagoen gizartearen onarpena balioetsita. Zinedine Zidane batez ere “integrazio arrakastatsuen” sinboloa bailitzan aintzat hartua izan zen. Labur esanda, Frantziako taldea futboletik haratagoko nazio harrotasun sentimenduekin batu zen John Marksek dioen modura, zeinak indartsuak, baina, ordu arte behar bezala

zuzendu gabeak ziratekeen (Marks, 1999: 53). Bada, Frantziako taldea Errepublikaren integrazio ereduaren adibide baikorra bailitzan goratua izan zen garaipenaren karietara.

Ildo berean jarraituz, John Marksek nazioaren gaineko atxikimenduaren ereduak edo zehatzago aipatzeko, hiritartasunen ikuspegiak, alderatzeko erabiltzen du Frantziako taldea. Bada, futbolari garaileek Ernest Renanen hiritartasunaren eredu ezaguna, zelaian ordezkaturako zuketan etengabeko plebiszitu modura Marks-en hitzetan, Maurice Barresek Frantzian lehenetsitako partaidetza etnikoarekin alderatuta. Esan nahi baita Frantziako hiritartasunaren ikuspegi barneratzaileagoa hautu kontzientea bailitzan, eta zeina ez den etnizitatearen mendekoa izango. Beste era batera esanda, jaiolekuan, hau da, lurrian, oinarritutako naziotasun eskubidea goratuko zuten taldeak islatuta, odolean edo etnialdaren errotutakoa hobetsi ordez. Etorkizunak orain ematen duen jakinduriatik eta Frantziatik kanpoko begiradatik esan genezake garaipen liluraren itzalean frantziar iritzi publikoan gizarte osaeraren inguruan eta nazio identitate barneratzailearen gainean nagusitu ziren kontzeptu baikorren isla dela esamolde hori ere, politikariek eta hedabideek barreiatua. Areago, agintariek ebatzi zuten auzune txiroetako askotariko bizikidetzak arazoei aurre egiteko ere gailua izan zitekeela Zidane loriatsuaren pare etorkinak futbolera erakartzea.

Lionel Jospin lehen ministroak esan zuen nazio taldea aniztasunean sustraitutako nazio batasunaren adibiderik onena zela: Frantziarrak denak, nahiz, lehen, bigarren edo bosgarren belaunaldikoak izan; eta Euskal Herriko, Antilletako, Armeniako, Guyanako, Britainiako, Argentinako, Marseilla hiriko, Italiako, Kaledonia Berriko, Portugalgo eta beste hainbat jatorritakoak izan (cfr. Dauncey eta Hare, 1999: 193-194). Nazio taldearen osaeraren inguruko auzia eztabaida politiko zabalagoaren jomuga bilakatu zen 1996an Ingalaterrako Europako Kopan. Jean Marie Le Penek Frantziako taldea “artifiziala” zela adierazi zuen ordukoan. Besteren artean, Lamouchik, Zidanek, Djorkaeffer, Lizarazuk, Pedrosek, Anglomak, Karembeuk eta Lamak beraien nazio nortasuna komenentziagatik aukeratu zutela deitoratu zuen (cfr. Marks, 1999: 50), nazioarteko txapelketetan aritzeko alegia. Nazioaren ordezkaritza bere gain zuen taldearen hamaikakoetan zeuden hainbat jokalariri “atzerritar” iritzi zien eskuin muturreko bozeramaileak, eta ildo horretan nazio ereserkia abestu nahi ez izatea, eta areago, nola abestu ez jakitea egotzi zien. Christian Karembeuk hala nola korapiloa handiagotu zuen Kaledonia Berriko jatorriaz eta kanak hango talde etniko nagusiaren parte izateaz harrotasuna zuela adierazi eta gero. Izan ere, adierazpenok inondik inora frantziarra sentitzen ez zenaren aldarria liriatekeela gaizki

interpretatu zuten batzuek, berariaz beharbada hainbat sektoretan. Zurrunbiloa apalduko bazen, 1998ko urtarrilaren 21eko *Le Monde* egunkariko alean luze eta zabal idatzi behar izan zuen futbolariak bere sentipenak “Frantziako nazio taldearen elastikoa harrotasunez janztearekin” bateraezinak ez zirela argitzeko (cfr.Crolley eta Hand, 2002: 72). 1998ko Munduko Kopa mugarriak, dena den, 1996ko eskuin muturraren arbuioa azpiratu zuen.

Izan ere, futbola zen batez ere XXI.mendearen atarian Frantziako integrazioaren kirola, G. Dominique Bailletek soziologoak definitu zuen moduan. Hari jarraiki, lehenik eta behin talde gisara ere integrazio eragilea da. Nazio taldea, herrialdeko biztanleriaren mestizajearen isla izaki, denboraren joan etorriarekin, hurrenez hurreneko migrazioez hornitu da; poloniarrek, italiarrek, Magrebekoez eta afrikar beltzek, besteak beste, beren nazio multzoko kide bat Frantziako elastikoa soinean janzten ikusi dute. Horrezaz gain, kirol jarduera denez gero, futbolak atzerriko jatorriko biztanleriak integratzen laguntzen du. Hala, Bailletek ebazten du 1998.urteko Munduko Koparen karietara, frantziar taldea gailentzeak Aljeriako jatorriko Zinedine Zidane futbolariari ahalbidetu ziola Frantzian menderatzailea den politikaren eta hedabideen eremuan integratzea (Baillet, 2001: 166). Ospakizunak etorkinen inguruko hausnarketa adeitsuagoak burutzeko bidea eman zuen, eta ordu arte ezinikusiak izanak bizikidetzara oparoaren zantzuak bihurtzeko egitasmoak. Futbolak aberria goratu egin zuen. Sinbolismoak eta bereziki nazio banderaren ikurrak zeresan bizia izan zuten horretan. Europaren sorkuntzak nazio subiranotasunaren auzia jomugan jarri duen aroan, futbolak nazio identitatearen zutabeetako bat izaten jarraitzen du, Claude Journèsek Frantziako adibidean aingura jarrita nabarmendu nahi duenez. Are gehiago, Zinedine Zidane Aljeriako jatorriko futbolariak, Marseilla hiriko aldiri txiroan hazitakoak, Frantziak garaipena lor zezan eginiko ekarpen eskergak, eta Afrika iparreko jatorriko frantziar gazteen horren ondoriozko mobilizazioak – *beurs* ezizenaz ezagutuak – futbolari integrazio boterea esleitu zioten, ordu arte Frantziako hezkuntza sistemaren erantzukizuna izan zena (Journès, 1999: 159). Parisko eta Marseillako auzune txiroetako etorkinen ondorengoek ere frantziar denekin batera ospatu zuten nazio taldeak irabaztea.

Pascal Bonifaceren arrazoibideari jarraiki Frantziako taldea nazioaren irudia zen, zeina “elkarrekin bizitzeko nahiaren” isla zen, arrazan oinarritutako ideia baino gehiago. Berriro borondatezko atxikimenduaren eta etnia jatorriaren loturaren talka agerikoa zen. Taldeak 1998an erakutsi zuen batez ere Munduko Kopa irabazita, eta 2000ko Europako Kopako lorpenarekin berretsita, mundura arrakastaz zabal zitekeela, eta oldarkortasunik

gabe, eta batik bat, harrokeriarik gabe gailen zitekeela. Nazioarteko harremanetan aditua denak nazioaz berdintzen du gero selekzioaren lorpena: “Munduko Kopan erdietsi zuen garaipenak erakusten du Frantziak ez duela globalizazioarekin beldurtu behar, eta ostera erronkari jarkitzeko prestatuta dela” (Boniface, 2002: 165). Ildo beretik doa *Libération* egunkariak 1998ko uztailaren 10ean plazaratutako artikulua muina ere. Futbolarietako nazioaren kontzeptu frantziarra hezuramaitzen zutela adierazi zuen: “Frantziako jendea beren taldearen aurpegi bitartez konturatzen ari da denok elkar maite dezakegula, eta irabaz genezakeela” (cfr. Crolley eta Hand, 2002: 73). Gizarte eta nazio talde ereduaren gailentasuna goratzen zuen kazetak, “askotariko koloreko taldea Frantzia ezaugarritzen duen mosaikoaren ispilua” dela adierazita. Hori horrela, poz algarak aurrekaririk gabeko batasun adierazpenera bideratu zituen, Luci McKeeverrek oroitzen duen eran, eskuineko jarrerako *Le Figaro* egunkaria eta *L’ Humanité* kazeta komunista. Biek hauteman zuten garaipena Frantziako gizarte arraza anitzeko lorpena zela (McKeever, 1999: 162-163).

Bada, beti ere kirol eremutik nazio proiektuaren eremurako jauzia eginaz, Geoff Harek eta Hugh Daunceyk zioten Frantziaren garaipenak berretsi zuela aurrerantzean mutil handiekin jokatzeko prest zela, alegia, munduko laugarren ekonomia ahaltsuenak Europako politika norantza zuzenduko zuela espero zitekeen ildo berean. Nazioak bere buruarengan aurkitu zuen konfiantza eraberrituaren beste adierazlea litzateke Munduko Kopa. Hartara, futbolak bere bitartekaritza nazio balioen norantza bektore gisa jardun zuen Hare eta Daunceyrentzat (1999: 49). Ildo berean, Munduko Kopan gailentzearekin batera laudorioak edonon loratu aurretik, *urdinen* joko zurrunaren inguruko kritika ugari entzun behar izan zituen Aime Jacquet prestatzaileak. Garaipenak aurreko garaia erabat estali zuen ordea, eta gertatu ohi denez, taldearen joko era nazioaren muineko balioekin asmatu zuten hedabideek. Jacqueten estiloa, arrakasta eta gero, bere jatorri apalekin uztartu zuten kazetek – bi zentzutan, umiltasunaz eta beheko klase sozialaren kidetzaz –, eta halaber lana gogor egiteko borondatea, zintzotasuna, edergaririk gabeko izaera, eta barnealdeko nekazaritza eremuko ezaugarrien isla – *La France profonde* deritzonakoa – berehala hautemanak izan ziren nazioa lot zezaketen XX.mende berantiarreko frantziar balioen errealitatearekin uztartuta (Dauncey eta Hare, 1999: 211).

Garaipenaren ondorenean Frantziako prentsak etengabe heldu zion oinarriko mintzagai honi buruzko eztabaidari: apurtutako Frantziak bateratzeko aitzakia bat behar zuen, eta futbol ospakizunak nazio batasuneko ospakizunak ziren. Garaipenak laga zuen

psikologia eta kultur arloko bigarren ondorioa izan zen munduak eurak maite zituenaren eta betiko galtzaileak ez zirenaren gisakoez ohartaraztea. “Irabazten duen Frantzia”-ren ezagutza izan zuten frantziarrek, eta halaber “Frantzia arraza anitzaren” errealitatearena. Prentsak Aime Jacquet balio zahar “berrien” sinbolotzat izendatu zuen (Ibid., 216). Hala eta guztiz ere, deigarria da lorpenaren euforiak kutsatuta, iruzkin egile gutxik oroitarazi zutela frantziar taldearen barruan aniztasuna ez zela berria, Kopa, Fontaine, Piantoni eta beste hainbaten lekukoa hartu zutelako, hain zuzen ere, Zidane, Djorkaeff, Desailly eta enparauek. Areago, Frantziako Europan lehena izan zen esaterako 1930eko hamarkadan urruneko jatorriko jokalariek beltzak bere nazio taldean zelairatzen. Ezberdintasun nagusia zetzan, Marksek zioen moduan, jatorrien aniztasuna kasu honetan askotariko kulturen integrazioaren argi izpi baikorrak hartua zeukala (Marks, 1999: 55). Askorentzat nazio taldea denborarekin eboluzioa eduki duen Frantziako sinbolo bakanetakoa da, batez ere Afrikako iparraldeko jatorriko jokalariek bere altzoan hartuta. Aljeriako gerra amaitzean Frantziara itzuli ziren *pieds-noirs* zeritzenentzat ere – Aljeria Frantziaren mende zegoela bertan bizi izandako frantziarrentzat – sorterriko gizartean integratu ahal izateko tresna bilakatu zen futbola sarritan. Munduko Kopa lorpenean mugarririk ezarri zuen pentsaera horrek, eta aniztasunean sustraitutako futbolarien belaunaldiak askotariko iritzi emaileei ahalbidetu zien kolorezko Frantziaren integrazioa gosestea, eta bide batez, nabarmenki, nazio harrotasuna plazaratzea, futbol garaipena nazio proiektuarekin uztartu ostean.

Dena dela, jadanik iradoki den moduan, adierazpenak eta hedabideen kontaketa oro har, Frantziak Munduko Kopan lortutako lehen garaipenaren jai giroak baldintzatu zituen, eta joera dute gizarte errepublikanoaren irudikatutako batasun eta integrazioaren gainean estereotipoan eta utopian oinarritutako ikuspegia plazaratzekoa. Ildo horretan, futbolaz Frantziako prentsa idatziak osatzen duen diskurtsoak ideologia funtzioa duela ematen du, Liz Crolleyk eta David Handek dioten bezala: “xedeak kontsentsua sustatzea litzateke aniztasunean batasuna sortzeko frantziar kontzeptu tradizionalen oinarritutako partekatutako irudiaren inguruan” (Crolley eta Hand, 2002: 73-74). Patrick Mignonek, prentsak baino ikuspegi objektiboagoarekin hautemanda, funtsezko ideia gogora ekarri zuen egoeraren nondik norakoa ebazteko, goiko ikerlariok gogora ekarri nahi dutenez: “Uztailaren 12ko ospakizunak egiazki batasunerako deiaren sinboloak ziren, batasuna benetakoa izatetik urrun baitago” (cfr. Ibid). Mignonen hausnarketaren baliagarritasuna eta kritika aldartea inondik inora gutxietsi gabe, nolana ere, posible da esatea *blacks*, *blancs*, *beurs* – beltz, zuri eta afrikar jatorriko frantsesak – zeritzenek zinez hornitutako

arrakasta sinbolikoak zeresana izan zuela Frantzia jarrera aldaketa hastean, eta areago, eskuin muturreko ideiei sona kentzen lagundu zuela. Sintesia eginez, Frantziako nazio taldearen inguruko hitz jariora nazio nortasunaren auzi orokorrari eragiten dioten bi gairi estu uztartzen zaio John Marksen esanetan: lehenik eta behin, eta era nabarienean, gerra osteko Frantziako immigrazio auziei; bigarrenik, estaliagoan, Frantziak eta frantziarrak gerra ondorengo arora egokitzeko eta berritzeko balizko trebeziari. Bigarren arreta tarte horrek eragingo lioke Frantziak bereziki “frantziarrak” diren balioei eutsi ahal dien edo eutsi behar ote dien argitzean datzan arazoari, horiek, Marksi jarraiki, modernizazio eta globalizazio prozesuekin baterazinak ematen dutenean (Marks, 1999: 54). Nabarmendu behar da, zinez, futbol nazio taldea, orain arte ondorioztatu ahal izan dugunez, nazioaren ordezkari hartua denez gero, selekzioaren inguruko solasaldiak nazioaren geroaren gainekoak eta haren muinari buruzkoak bilakatzen direla hedabide eta ikerlarien ahotan.

Futbolak ustez gizarte integrazio itzaropenei helarazi zien bultzadaren tamaina zentzutasunez neurtzeko balio izan zuten garaipen gogoangarrien osteko nazio taldearen ekitaldiek. Hala, 2001. urteko urriaren 5ean Frantzia eta Aljeriaren artean antolatu zuten norgehiagokak frantziar erako integrazioari buruzko eztabaida bideratu zuen. Neurketa amaitzeko ordu laurden eskas falta zela, Frantzia 4 eta 1 gailentzen ari zenean, Aljeriako jatorriko hamarnaka gazte frantziarrek soropilera jauzi egin zuten, eta partidaren etena eragin. Edonola ere, hori baino garrantzitsuagoa izan zen Frantziako ereserkia txistuka hartu zutela askok eta askok. Bozgorailuetatik bi taldeen osaera iragarri zuten unean ere, frantziar jokalaririk denak, Zidane salbuetsita, txistuka hartu zituzten jarraitzaileek. Hala, zilegi da pentsatzea txistu eta oihu egiten zuten horiek Munduko Kopako eta Europako Kopako garaileak 1998an eta 2000an goratzen zituzten berberak zirela. Yvan Gastautek aipatzen duen bezala, aljeriarren eta frantziarren arteko partidak, “identitate iratzarpena” eragin zuen Frantziako aljeriarren artean, eta bereziki immigrazioaren osteko lehenengo, bigarren eta hirugarren belaunaldikoen artean. Frantziar-aljeriar nortasuna hautemateko moduz hautu mingarria egitera, eta hori azaltzera bultzatzen zuen (Gastaut, 2008: 126). Frantziak futbolaren bitartez nazio nortasun atxikimendu soila egitera bultzatzen zituen etorkinen ondorengoak, eta hortaz, integrazioaren askatasuna zegoen estadioan ezbaian.

Bada, hedabideek berehaldiko arreta jarrita zuten neurketan. Partidak eta partida amaitzeko erak adierazpen ugari utzi zituen, baina zelaira jauzi egiteko ekintzak baino gehiago, zeina indarkeriarik gabe gertatu zen, gogorarazi beharrekoak *La Marseillaise*

ereserkiak sorrarazi zituen txistu doinuak dira¹¹. Batzuek egin zituzten asaldura kritikei erreparatzeke, gutxienez ondoriozta liteke Stade de France estadioko harmailetan ziren gazte batzuentzat integrazioa ez zela erabat gauzatu. Bonifacek dioen eran (2006: 165), okerra zen taldearen izaera arraza aniztun soilak berehalakoan etorkinen belaunaldiekin bizikidetzara arazoak ebatziko zituela uste izatea, eta aurretiaz jakina zen arazoak horretan zirauela, baina neurketa oso argigarria izan zen. Nazioarteko harremanetan ikerlaria den aditu frantziarrarentzat askotariko selekzioa pizgarri aparta izango zatekeen futbola zela medio integrazioan eta aniztasunean errotutako gizartea bideratzeko, kontzientzia hartze orokorra eragiteko baliatu izan bazen, eta ez beren burua laudatzeko egokiera atontzeko.

Hala, behinolako koloniaren independentzia gerra gertatu eta mende erdira lehen aldiz lehiatu ziren Frantzia eta Aljeriaren neurketak jendea atseginezko liluratik esnarazi zuen. Ludovic Lestrelin kirol ikasketen ikerlariak dio, kirol handiek, bereziki futbolak, talde mugimendu oso indartsuak sor ditzaketela, baina aldi baterakoak (cfr. Barranguet, 2008). Zentzu onez garaipenaren mendekoak direla zehazten du, Karim Benzema, Eric Abidal eta enparauek askotariko jatorriko taldea osatu baitzuten 2008. urteko Europako Kopan ere, baina porrot goiztiarrak 1998ko izpiritua berreskuratzeko ametsa deuseztatu zuen. Nolanahi ere, benetakotasun uzta ere gelditzen dela zehaztu nahi du, eta nazioaren partaide izatea sentiarazi dezakeela aitortu. Jean-Michel Faure kirol soziologoak areago gaineratzen du 1998. urtean *Beurs* gazteek – Frantzia jaiotako etorkin arabiarren seme-alabek – hau ziotela: “Geu ere frantziarrak gara”. Egunerokotasuneko ohiko zailtasunak berriz azaleratzean, ordea, garaipenezko eta hunkipenezko identifikazio hori itzali zen. Yvan Gastautek bat egiten du berehalako futbol eta nazio ospakizuneko sugarra izatez iragankorra denaren ustearekin eta erronkak iraunkor egitean datzala dio (Gastaut, 2008: 102). Hala ere, nazio garaipenaren ospakizuna oroitzapenean gelditzen dela gaineratzen du egokitasunez Lestrelinen ildo beretik.

¹¹ Zaleek futbol zelaira jauzi egin zutenean soropilean gelditu zen frantziar futbolari bakanetako batek, Lilian Thuramek, horietako bati egindakoa egotzi zion, immigranteen aurka gizartean zeuden aurreiritziak indartzen laguntzen zuela leporatuz. Litekeena da, bestalde, Yvan Gastauti jarraiki, Lionel Jospin orduko lehen ministroak frantziar ereserkiari immigranteen ondorengoek eginiko txistuak gaizki kudeatzeak, eta hartara frantziar nortasunen muineko balioen erdeinuaren eta integrazio ahaleginen bizikidetzan behar zen bezala hautua ebatzi ez izanak, 2002ko presidentetzarako hauteskundeetan hautagai sozialistari bigarren itzulira igarotzea eragotzi ziotela. Hain zuzen ere, Jacques Chirac berriz Errepublikako presidente hautatu berrian, Kopa finalean, Bastiako zale korsikarrek *Marseillaise* ereserkiari txistua jo ziotenean, agintarien harmailak haserre bizian utzi zituen une batez berriro ere futbol partidan hori onartuko ez zuela adierazita.

Etxeko talde etnia anitzak 1998ko uztailearen 12an Munduko Kopako ebazpenean lortutako garaipen erabakigarria frantziar nazioaren eredu berri, barneratzaile eta kultur anitzaren lorpena bailitzan goraipatu zen bitartean, era antzerakoan eraikitako frantziar taldea, modu parekoan ere, Aljeriarekin elkar ulertze berria, eta egiazki postkoloniala, lortu ahal izateko zimenduak ezarriko zituen kirolezko “adiskidantzazko festaren” parte-hartzaile gisa aurkeztua izan zen (Dine, 2002: 503). Ezusteko jazoera berehala eta zabal hartua izan zen kolonialismoaren iragana oraindik bi herrialdeen artean kirol harreman arruntak eduki ahal izateko zama astunegia zenaren zantzu modura. Futbolaren baitako gertaerak horrenbestez, gizarte bilakaerari buruzko euforiazko hausnarketetatik gogoeta ezkorretara igarobidea sustatu zuen iritzi publikoan hiru urte eskaseko bitartean, irabazi izanak nazioaren eta hari atxikitako nortasunaren gorespenezko algara eragin zuenaren isla, inondik ere. Hori horrela, 1998ko zoramenak isilarazi zituen ahotsak azalerazi ziren urdinen garaipenezko ibilbidearen argitasuna itzali zenean. Alain Fienkelkraut filosofo frantziarrak honela hezurmamitu zuen 2005ko azaroaren 18an Israelgo *Haaretz* kazetan Frantziako gizarte inoiz ezereztu ez den aburua: “Jendeak dio Frantziako nazio taldea guztiek miretsia dela *black-blanc-beur* izateagatik. Egiazki, Frantziako taldea gaur egun *black-black-black* da – beltza-beltza-beltza –, eta horrek Europa osoan trufa sortzen du” (Cfr.Lozes, 2010). Nazioarteko lehen porrota baliatu zuten eskuin muturreko eledunek, 2002ko Munduko Kopan Frantzia berehala kanporatu izana, 1998ko lorpenak azpiratuta zuen aburua berriz indarrez agertzeko. Hauek dira Jean-Yves Le Gallou MNR alderdiko bigarren buruzagiaren hitzak: “Danimarkaren garaipena sinbolikoa da, Europako taldea delako, eta erroak dituelako, nazio harrotasuna berreskuratu duen herrialdearen koloreak babesten dituen, zeinak Frantzia grisa eta fikziozkoa kanporatu duen. Gainera, gizarte etnia anitzen gailentasun dogma deuseztatu egin du” (cfr.Alcaide Hernandez, 2009: 46). Nazio taldearen emaitza txarrak eta Aljeriarekiko partidako ereserkiaren txistuak, biak ala biak baliatu zituzten politikariok futbol taldeak islatutako nazio identitatea ukatzeko. Giro horretan, 2002ko Frantziako presidentetzarako hauteskundeetako bigarren itzulira igaro zen eskuin muturreko Fronte Nazionaleko hautagai Jean-Marie Le Pen ezustean.

Garaipen euforia aldiaren – 1998 eta 2000 – osteko aurrekari horietatik denbora luzea igarota ere, frantziar gizarte ereduaren integrazioaren zailtasunaz ohartarazi zuten berriz futbol ekitaldiek. Iraganeko metropoliaren eta koloniaren arteko dema izango zen soropilean, Frantziara etorkizun baikorragoaren bila joandako immigranteen eta haien ondorengoen begiradapean. Frantziak eta Marokok 2007ko azaroan jokaturako partidari

lehenik, eta Frantzia eta Tunisiaren arteko neurketaren karietara ondoren. Biak ala biak Saint Denis Frantziako estadioan izandako adiskidantzazko partidetan gertatu ziren, eta bietan txistu doinuekin egin zieten harrera Errepublikako ereserkiari eta baita izate hori ordezkatzeko zuten jokalariei ere. Tunisiarekiko partida amaitzean, 2008ko urriaren 14ko egun horren ondorean eta futbol lehiak eragindako biharamun luzean, agintariak zinez asaldaturik solastatu ziren. Nicolas Sarkozy Frantziako presidentearen ahotan, gertatua “eskandalugarria” zen. Roselyne Bachelot Kirol ministroak mehatxu bikoitza egin zuen Eliseoan estatuburuarekin bildu ondoren: “Gure nazio ereserkia txistukatzen den partida oro berehala etengo da”, eta “dagokien herrialdeokin adiskidantzazko neurketak bertan behera utziko dira” (AFP, 2008). Are gehiago, Michèle Alliot-Marie Barne ministroak ikerketa abian jartzea galdegin zien auzitegiei, Saint Denis estadioko kameren irudiez lagunduta txistu egin zutenak begiz jotzeko. Erantzuleei estadioan sartzea galaraztea zen agintariaren premiazko helburua. “Nazio ereserki bati txistu egin nahi diotenei eragotzi egin behar zaie partida jarraitzea”, gaineratu zuen François Fillon lehen ministroak, eta Frantziako Futbol Federazioak norgehiagoka bertan behera utzi ez izana deitoratu zuen. Bernard Laporte Kirolerako estatu idazkariak iradoki zuen Frantziak utzi egin beharko ziola Magrebeko nazio taldeen aurka Saint Denisko zelaian jokatzeari, estadioa Parisko aldirietan txertatuta dagoela aintzat hartuta, immigrante ugari bizi diren inguru txiroan. 2005ean hiriburuko aldirietan gertatutako istilu oldearen ostean partidok integrazioaren eztabaida berpiztu zuten.

FN Fronte Nazionale eskuin muturreko alderdiko eledun Jean-Marie Le Penek etorkinen integrazioaren “utopiaren” porrota ezagutarazi zuen, eta “frantziarren aurkako arrazismoaren” erakusgarria: “Ereserkiari txistua jotzen dioten horiek ikusarazten dute frantsesak agiriengatik bakarrik direla, eta gure kulturara atzerriko jendetza integratzea porrota dela, utopia delako” (AFP, 2008). Ereserkiaren aurkako jarreraren agerpenetik oso bestelako hausnarketa erakutsi zuen PCF Frantziako Alderdi Komunistako idazkari nagusi Marie-Georges Buffetek. Egoera txarra pairatzen ari zen jendearen adierazpidea ziren txistuak harentzat, eta Frantzian ongi sentitzen ez zirena: “Beharbada arretaz behatu beharrekoa da zein den arrazoia gizon eta emakumeok, eta gazteak bereziki, [...] *Marseillaise*-a txistukatzeraz bultzatzen dituen” (Ibid). Ereserkia frantziar nortasunaren islatzat hartua da txistukatzearen ekintzan. Esan nahi baita, ereserkiari txistua jotzerako orduan eta frantziar jokalarien aurkako mezuak oihukatzean, Frantzia eta frantziar nazio nortasuna erasatea bilatzen dutela zaleek. Era berean, partidaren osteko adierazpenetan

agerian gelditzen da askotariko eledunen ahotan, futbol ekitaldiaren babesean ereserkiak nazioaren balio gorenaren ordezkariak hartzen duela, eta txistua horregatik laidoztea dela. Ereserkien ekoizpena kirol modernoaren bilakaeran erabat atxiki den osagaia da, batez ere nazioarteko eremuan gauzatzen denean, eta hain justu sortzezko ohikotasun horrek aparteko esangurarik gabeko ezaugarria bailitzan betikotu du. Jakina, arestian adierazi denez, funtsean nazio taldeek nazio nortasunak eta nazioak ordezkatzeko dituztenaren froga dira lotura horiek, ereserkiak nazioaren doinu bidezko sinboloak baitira, eta kasu horretan nazioaren bihotzeko gertaera bat jokoan dagoela hautemanda jotzen baitituzte.

Horiek horrela, hedabideek, prentsa idatziak – paper bidezko salmentan nahiz Interneteko aldaeran – eta telebistako erretransmisioak, nazio taldearen futbol ekarpena epaitzen dutenean jokoaren izaeratik haratago murgildu ohi dira, nazioaren imajinazioa askotariko bideen bitartez elikatzeraino. Prentsa idatziak Frantziako Munduko Koparen mugariaren berri eman zuenean, politikariei jarraiki, bertako gizartearentzat ametsetako metafora bailitzan eraiki zuen futbola. Frantziako taldea gizartearen aurrean plazaratua izan zen, Crolleyk eta Handek ondorioztatu zuten moduan, askotariko jatorriko jendeak helburu bateratuaren bila elkarrekin anaitasunean bizitzeko eta lan egiteko era bailitzan (Crolley eta Hand, 2002: 74). Hedabideek gizartearen maila guztietan, ezberdintasunak ezberdintasun, futbolaren batasunerako hauspoari gorazarrea eman zioten, eta hainbatek ezkutuan zela irizten zioten frantziar nazio nortasuna suspertzeko gailu funtsezkoa zela azaldu zuten Munduko Koparen jarraipen eta kontaktaren bitartez. Hartara, agintarien aburuarekin bat egin zuten kazetariak futbol arloko garaipena identitatearen batasunaren aldeko pizgarria bailitzan goratuz, eta etorkizun baikorragoaren helmena iragarritz. Hein batean une jakin bateko zoramena betikotu nahi izan zuten hedabideek. Dena den, Lilian Thuram Guadalupen jaiotako futbolariaren ahotan, hala nahi edo nahi ez, Frantzia 98ren aurretik eta ondorenean jauzia dago hiritartasun irekiagoaren bidean (cfr. Gastaut, 2008).

Areago, Paul Yonnet berriki zendutako soziologoak oroitarazten zuen moduan, azken urteetan bereziki oroz gain arraza beltzeko futbolariak nazio selekzioaren osakeran gainjarri izanak ez du oro har frantziarrek taldearen gainean duten atxikimendua txikitu, bestelako arrazoiek eragin dute izatekotan. Ordezkatzeko dutenak eta ordezkatzeko dutena bereizten den errepresentazioaren izaerari lotzen zion soziologoak gizarte zuri nagusia islatu gabe ere nazioa plazaratu behar zuen taldearekin atxikipena ez jaitsi izana. Jean

Marie Le Pen eskuin muturreko eleduna eta hurbilekoak zeuden kontra batez ere¹². Ildo horretan, beltzak taldean nagusitu izanak ez du ordezkatzeko duten nortasuna eraldatzen, haiek dira nortasun horretara bideratzen direnak, hierarkia moldatu gabe (Yonnet, 2010: 154). Frantziako selekzioaz arrazoizkoa den Paul Yonneten ikusmolde hori gainontzean erabiliz gero, azalduko luke zergatik jendeak hunkitzen jarraitzen duen sarri eskualdetik edo naziotik kanpo heldutako jokalariek haragitutako futbol taldeen bilakaeragatik.

Nazio taldea 1998tik 2000ra inguratu zuen sugar abertzalearen itzalpean futbol klubek ere talde nortasunak sustatzeko gaitasuna erakutsi izan dute Frantzian, eskualdea edo hiria definitzen lagunduz eta gainontzekoetatik ezberdinduz, talde nortasunen joerak ohi duenez. Ildo horretan, David Handek eta Liz Crolleyk berresten duten moduan, esan daiteke Frantziako futbolari buruzko prentsa idatziaren kontaktak zeresan handia duela erregio eta hiri mailako argiki definitutako identitateak osatzen eta betikotzen (Crolley eta Hand, 2002: 75). Klub batek bere inguruko komunitatearentzat duen adiera aditzera emateko esanguratsua da estatuko iparraldeko Lens taldearen adibidea. Jarraitzaileentzat beren talde nortasunaren oinordetza hurrengo belaunaldiei esku aldatzeko abagunea izan ohi da etxeko partidetara joatea. Horrenbestez, Europako jarraitzaileek oro har egin ohi dutenez, taldearen elastikoa eta lepokoa soinean dutela joateaz gain, Lenseko zale askok beren oinordetzaren eta identitatearen bereizitasuna nabarmentzen dute futbol lehietara meatzarien kaskoak jantzita bertaratuta.

3.3.1.6-Frantziako estatu gabeko nazioen, erregioen eta hirien talde adierazpenak: Korsika eta Britainiaren kasua

Bestalde, prentsa idatziak futbola bidelagun hartuta burutu ohi duen kontaktari dagokionean, aski adierazgarria da era berean Korsikako taldeengan frantziar kazetariak ezarritako begiradaren nolakotasuna. Askok Frantziatik uharteari susmoz eta beldurrez ere erreparatzen diote, eta sentipen hori futbol idazkuntzaren bitartez indartua da, modu atseginean eta ez era hain atseginean, Hand eta Crolleyren hitzetan. Berezi Korsikako talde aintzatsuen, Bastia kluba, eta bere jarraipena erabilia da Korsikako imajinatutako

¹² Ikus bedi Antoine Grynbaumek eta Romain Schneiderrek futbolaren eta politikaren arteko lotura estuez idatzitako liburua (2010: 99). Jean Marie Le Penek egileei adierazi zien selekzio bat nazioaren ordezkari izateko nazioa era homogeen ordezkatu beharra duela talde horrek. Hain zuzen ere, Front National (FN) eskuin muturreko alderdiko buruarentzat frantziarrek taldearekin lotura galdu egin zuten horregatik.

identitateari buruz Frantziako hautemateak berritzeko (Ibid., 79). Mediterraneo Itsasoko uharteko gizartean gizaldi askoren poderioz talde nortasun bereizitua errotu dela zinez onartua dago, eta ildo horretan futbol eremuan hainbatek aldarrikatzen du futbol taldeak bertako jokalariez bakarrik hornitu beharko lirатеkeela multzoa osatzean. Xede nekeza da, ordea, gaur egungo uharteko futbol taldeetan korsikar futbolari bakanak zelairatu ohi baitira abertzaletasunaren baitan futbolari lotuta ikuspegi hertsiena dutenen galbiderako. Hala, Didier Reyk Korsikako futbolaren historiari emandako doktorego tesian arrazoitu zuenari jarraiki, nazioaren izaera edo gutxienik nazio gutxiengoarena, adieraziko zukeen sinboloa elikatzeko ez da sekula sakoneko lanketarik burutu mediterranear herrialdean, nazio selekzio ofiziala egituratzeko bidean (Rey, 2001: 428). 1970. hamarkadan abiatuta autonomistek lehenik eta behin eta nazionalistek geroago futbolaren irudia aldatu zuten, eta 1960ko urteetan kirolaren sinboloaren bidez berriz agertu zen frantziar eta korsikar atxikimenduen arteko gatazka bizitu bide batez, baina ez zuten erdietsi nazio selekzionik errotea, eta klubetan korsikarrik ez egoteak nazioaren irudikapena zaildu egiten du ildo berean. Korsikarrak talde osaeran gutxi izanagatik, Frantziaren zapalkuntzaren kontrako Korsikako nazionalismoa adierazten duelakoan begiztatzen dute Bastia kluba jarraitzaile hainbatek (Hare eta Dauncey, 1999: 49). Alain Orsoni Ajaccio Korsikako beste futbol klub handiko presidentea halaber, burujabetza xede duen Autodeterminazioaren Aldeko Mugimenduaren burua ere bada. Korsikako nazio taldeak 1967ko otsailaren 28an jokatu zuen lehen partida Marseillan, eta Frantziari 0-2 irabazi zion. 1998ko maiatzaren 14an Kamerunen aurka Bastian jokatutako adiskidantzazko partidari 0-1 galdu zuen. 2009ko ekainaren 6an bana berdindu zuen Kongorekin Ajaccion. 2010eko maiatzean, Britainia, Gabon eta Togorekin batera lehiatutako Korsikako Futbol Kopa hartu zuen herrialdean, eta Britainiari 2-0 eta irabaziz eta Gabonekin bana egin eta penaltietan gailenduz irabazi zuen. 2011ko maiatzaren 31n Bulgariari Ajaccion 1-0 irabazita jarraitu zuen nazioarteko FIFAk aitortutako selekzioekin lehiari, eta 2012ko maiatzean atzerriko jokalarien talde bati jarki zitzaion.

Bretainian ere maiztasunez neurketak jokatuko dituen nazio taldea errotea xede dute hainbatek, nazionalistek nagusiki. Orain arte kolore zuri beltzak defendatu dituzten talde ordezkariak 1970ean Lorienteko zeltiar jaialdian sortutako nazio taldea – orduetik partida gutxi eta maiztasun murriztekoak jokatu ditu – eta Europako erregioen arteko lehia amateurrean aritzen dena izan dira. Hiriguneen eta herri txikien arteko bereizketak eta eliza eta estatuaren arteko banaketaren gaineko eztabaidak zipriztindu ohi du klubaren

arteko eremua britainiar batasuna hein batean zailduz. Hori horrela, 2009ko Frantziako Kopako Stade de France soropilean britainiar hirigunea islatzen duen Stade Rennais eta 8.000 biztanle eskaseko herria ordezkatzeko duen Guingamp futbol kluba batzartu ziren, erregio bereko bi talde finalean biltzen zireneko oroitzapena gaurkotuta. Britainiar jaia ahalbidetu zuen futbol lehiak, Saint Denisenera jatorri horretako 80.000 lagun erakarri baitzuten. Maiatzeko Kopako finalaren aurretik, apirilean estadio berdinean ospatu zen Ligako Koparen finalean ere britainiar ordezkariak izan zen. Vannes talde apalak 4-0 galdu zuen Bordeleko Girondinsen aurka, baina bertaratu ziren 40.000 bretoiak eta lehia ondoren herrian txapeldunen pare harrera egin zietenak liluratuta eta aho zapore gozoaz utzi zituen taldearen balentriak. Nolanahi ere, britainiar identitateari buruzko sentipenak eta gogoetak areago hauspotu zituen maiatzeko Kopako finala izan zen. Bi talde bretoi Frantziako Kopako finalean esku emanda, eta bi ereserki ere bai. Bata, Frantziako estatu nazioaren ohikoa, *Marseillaise* izenekoa, partida protokoloan ohi zenez jarriko zutena, eta bestea, *Bro-Gozh* izenekoa, bretoiena, egitarau horretatik kanpo egonik, neurketaren aurretik eskainia izango zena. Ezustean Guincampek 2-1 irabazi zion Rennesko taldeari markagailua iraulita, galtzailea lehenengo mailan goi postuetan izan arren, eta irabazlea bigarren mailako beheko postuetan. Emaizatik haratago ustekabeen artean jarri daiteke Nicolas Sarkozy frantziar presidentearen bertaratzea ere, izan ere, Gobernuak hasieran tradizioa hautsiko zuela eta bretoien finalera joateari uko egingo ziola iragarria baitzuen.

Hedabideen kritiken aurrean 2007ko hauteskunde kanpainan bretoien kontrako adierazpenak nahigabe entzunarazi zituen agintariak atzera egin zuen, eta Errepublikako presidentek egin ohi dutenez Kopako finala jarraitzea erabaki zuen. Ez zen futbolariak agurtzera zelairatu, ordea, baina telebista publikoari eskainitako adierazpenetan bretoien zorianagatik pozik agertu zen, eta agintarien denbora faltarekin zilegitu zuen hasieran ez bertaratzeko hartutako jokabidea. Bi talde bretoien arteko partida hirien harrotasun iturri al zen ala britainiar harrotasunarena? Britainia osoaren ikurra bilakatu bazen, nolakoa? Britainiako Erregio Kontseiluak sustatutako *Bretagne qui es-tu?* – Britainia nor zara? – ekimenaren barruan futbol partidak nortasunean utzitako uztari buruz sarean askotariko aburuei bide eman zieten (Conseil régional de Bretagne, 2009). Bretoi izaera zehazteko eztabaida piztu zen, eta ildo horretan futbol partida kirol soiletik haratagoko identitate sinboloa izan ote zen epaitzekoa. Nortasunaren irudiaren eraberritzea ahalbidetzen zuen batzuentzat onerako nahiz txarrerako. *L'Equipe* kirol kazetak eta Frantziako egunkari salduenak neurketaren karietara azaleko lerroburu nagusia bretoieraz idatzi izana huts-

hutsean nabarmentzeko modukoa zen batzuentzat. *Gwenn-ha-Du* Britainiako banderak eta bretoierak oro har inoizko zabalpenik handia izan zutela goraiatu zuen iritzi emaile batek. Politika eta kirola nahastearen arteko arriskuaz ohartarazita, biak ez nahastea ere politika egitea ihardetsi zion hark beste parte-hartzaile bati hitz jarioaren amaitze aldera. Ikerketarik egin ezean ondoriorik ateratzea ezina dela aitortuta ere, litekeena da futbolak bere egindako sinboloen babesean milaka bretoiek beren nortasuna plazaratu eta indartu zutela ekitaldi horretan. Egun bateko jai giroko hazitik erneko ote den bestelako gaia da. Gaur egun, Frantzia, zaleek euren kluba sostengatu eta nazio taldea baztertzen dutela ematen du Pierre Orlachek plazaratutako iritzi artikuluari jarraiki. Erregioen izaeraren gorakada da funtsean haren esanetan. Hala ere, oroitarazten du Frantziako futbol taldea nazio nortasunaren sinboloetako bat dela (Orlach, 2009). Iritzi emaileak deitoratzen du Frantzia nazio taldearen sostengua emaitza onen arabera dela. Esan nahi baita nazio taldeak jendetza erakartzeko, denen kidetza ahalbidetzeko eta nazio nortasuna agertzeko garrantzia behinekoa duela gizartearen gorentasuna ikusaraziko duen garaipena izatea¹³.

Hiriburuko nortasunaren gaineko berrespena ere agerikoa da futbolaren bitartez Frantziako prentsa idatziaren kontaketa eta zuzendarien jokabidean. Behinola, Charles Bietry izeneko PSG-ko presidenteak entrenatzaile postuan aldaketa egitea zilegitu zuen paristarren izaerarekin bat egingo zuen jokoa egiteko beharrianak eraginda. Nortasun ikusgarriaren, antzezlearen eta dramatikoaren hiriburukoen mitoa indartu egin zen, eta beste behin, Frantziako eremuan sarri jazotzen denez, futbol kluba prentsak agertarazi zuen hori txertatuta zegoen hiriaren imajinatutako identitatearen ezaugarri muinekoen isla bailitzan (Crolley eta Hand, 2002: 85). Futbol klubak oro har delako lurraldearen jarraipenak direlakoan azaltzen ditu prentsak, eta horrenbestez, hiriaren edota eskualde osoaren gainean hautemandako tasunak, balioak eta identitatea islatzen dituzte oro har. Deskribatutako imajinatutako identitate horien osagaietako asko aurretiaz sustraitutako estereotipoak izan ohi dira, kirol kazetariak futbol partiden kontaketeekin hezurramitzen dituztenak. Paris Saint Germain klubaren historia ildo horretan guztietan adierazgarriena da. Hiriburuan izandako taldeen lekukoa hartuta talde boteretsua egitea zuten helburu 1974an lehen mailan kokatu zuten sortzaileek. Hainbatetan, era eraginkorrean aritzeko ezintasunak jota, Parisko alkateek – eta bereziki Jacques Chiracek, kargu horretan urte

¹³ Frantzia eta Italiaren arteko 2006ko Alemaniako Munduko Kopako finalean, Zinedine Zidane izarrak Marco Materazzi atzelariari emandako burukadak islatu zuen txapelketan, 1998ko urte garaitsuan baino 800.000 frantziar gehiagok ikusi zuten finala telebistaz. Ezustean talde urdinak finalerako eginiko bideak berriro ere pantailari so jarri zuen jendea. FIFAREN Interneteko ataritik aterata dago ikus-entzuleria datua.

gehien eman dituenak, 1977tik 1995era alegia – aukera denak baliatu nahi izan zituzten, sinbolikoak barne, herri administrazio edo komunitate gisara Parisen irudia ezartzeko, David Rancek dioen moduan, Paris Frantziako hiriburutzat – eta sinbolotzat – eta nazio gobernuaren egoitatzat zuen irudi soilari kontrajarrita. Hain zuzen ere, kirolak ere, eta futbolak, ildo horretan, eginkizun bereziki garrantzitsua beteko zuen (Ranc, 2009: 61).

Parisko Udalak Frantziako ezein futbol klubek eskura ez duen erakundeen babes ekonomikoaz hobaritzen du Paris Saint Germain, eta hartara, legeak debekatu zuen arte taldeko zuzendaritza kontseiluan ordezkari izan zuen. Klubak, horrela azaltzen dute, Paris ezagun egiten du nazio eta Europako txapelketetan parte hartzearen bidez. Hortaz, Parisko Hiriak kluba sostengatzearen truke hiri onurarako iragarle gisara aritzea jartzen dio baldintzatzat. Besteren artean, Parisko Udalaren ikurra argitalpen guztietan txertatu beharra du, taldeko elastikoak Parisko banderaren koloreak uztartu behar ditu, eta Eiffel Dorrearen logoa agertu. Hamabostero milaka zale paristar bateratzea babesa zilegitzeko arrazoi nagusitzat plazaratu izan ohi da maiz. Hartara, David Rancen azterketari jarraiki, Printzeen Parkea zelaira doazenak ez dira jada erakustaldia jarraitzera doazen ikusleak bakarrik, jarraitzaileak bihurtu dira, eta hori halabeharrez jazo da kluba gutxienez beren identitatearen alderdi baten ordezkari bilakatu delako (Ranc, 2009: 60). Hiri nortasun berezitu sortu berriarentzat sinboloa bihurtu da taldea. Canal + harpidetzazko telebista kateak eskuratu zuen 1991tik 2006ra klubaren jabegoa, eta hiriguneko aldirietan barrena taldearen jarraitzaileak eta hiri nortasuna zabaltzen lagundu zuen. Aldi berean, taldearen jarraitzaileak areagotzeko ere berebizikoa izan zen hiriko berezko identitatearen sorrera.

Bide batez Canal + kateak eta Bernard Tapie Marseillako Olympiqueko 1990eko hamarkadako presidenteak Parisko eta Marseillako futbol taldeen lehia hauspotu zuten, eta sailkapenaren gorenean ez izanda ere, bi zalegoentzat ezinbesteko dema bihurtu zen, eta bi hirien artean aurretiaz ez zegoen etsaigoa irudikatu zuen. Horrela, Paul Dietschy historialariak arrazoitzen du, bi taldeon arteko aurkaritzak kirol funtsaz gain, ekonomia iturburua izan zuela, harpidetzazko telebistaren erakargarritasuna handiagotzeko, eta era berean *L'Équipe* kazetaren salmentak sustatzeko (Dietschy, 2010: 443). Brombergerrek Marseilla eta Napoliko futbol zalegoen antropologia azterketa eginda ondorioztatu zuen krisialdian, edo behinolako handitasuna galtutako narriatutako hirietan horko klubaren baitako atxikimendua eta sugarra bereziki handiagoa dela, kanpotik mesprezatuak direla hautematen duten heinean. Napolin Italia iparraldeko taldeak eta hiriak etsaigoen iturri

dira zaleentzat, eta Marseillan bestalde, Paris eta PSG dira irainen xedeak (Bromberger, 1998: 69). Norbere identitatearen nabarmentzea eta etsaiaren aurrez aurreko talka ohiko baliabideak dira futbola dela medio ere identitate kolektiboa irudikatzeko. PSG taldeko zaleek hein handi batean frantziar nortasuna ere plazaratzen duten bitartean, Marseillako Velodromen nekez ikus litezke frantziar banderak astintzen dituzten zaleak. Itsasaldeko hiriaren izaera kosmopolitaren eta historiako immigrazio aroen isla da, izan ere, OMren, hots, Marseillako Olympiquen, nortasuna. Ildo horretan, hiriko iparreko aldirietako auzo txiroenetako etorkinek eta haien ondorengoek futbol kluba beren nortasunean txertatzen duten bitartean, Parisko aldirietako gazteek ez dute PSG hain hurbileko. Marseillatik at OM jarraitzen duten urruneko zaleen bizipenak doktorego tesian aztertu dituen Ludovic Lestrelin ikerlariari jarraiki, taldea hiriko patuari lotu zaio, eta horren irudikatutako argi izaera agertzen du. “Traupenean ainguratua egonda, marseillar estiloak ordezkatzeko du Marseillak eta bere hiritarrek beren buruari eman nahi dioten irudia eta besteei ikusarazi nahi dietena” (Lestrelin, 2010: 34). Sarri aipatzen den taldearen joko estiloaren eta bere inguruko hiri edo nazioaren imajinatutako identitatearen arteko ordezkapen harremanaz gain, Lestrelini jarraiki, taldea kudeatzeko erak ere bertako nortasuna iradokitzen du.

Marseillan berriki joandako bi etorkin talde bereziki ordezkatuak izan ohi dira: *Pieds Noirs* izenekoak eta 1960ko Magrebeko immigrazioetik eratorritako gazteak. Stade Velodrome zelaira gazte horien bertaratzearen maiztasuna 1980ko hamarkadan hazi zen joera izan zen. Christian Bromberger antropologoaren hitzetan, hori gizartera eta herri hiritartasunera integratzeko erritua bailitzan interpreta liteke, itzulerako ideiak gogatura jarraitzen zuten aurreko belaunaldiek burutu ez zutena (Bromberger, 1995: 220). Jatorri ezberdinek eta gizarte mailaketaren araberrako auzune kokapenek banatutako Marseilla elkartzen du futbol taldeak. Brombergerrek dio gaur egunean nagusiki Afrika iparretik datozen etorkinak aurretik barneratzen direla Marseillan, OMren bidez nagusiki, eta hiri nortasuna bere egin, frantziar nazioan baino. Ezin esan, ordea, taldea iparraldeko auzune txiroenetako etorkinen ordezkaria denik soilki, txartelen prezioa aintzat hartuta¹⁴. Hirian Magrebeko jatorriko 70.000 lagun inguru bizi dira, eta horietatik gehienek Aljeriarekin dute lotura. Bada, Frantziako nazio taldearen bidez aniztasunean bizikidetzera eraikitzeko

¹⁴ Christian Brombergerrek aurrez aurre azalduakoa da hori. Bestalde, 2011ko abenduaren 17an OMren eta Lorient Bretoniako taldeen arteko partidari erreparatu nion Stade Velodromen eta txartelik merkeena 30 eurokoa zen, Espainiako Liga lehiaketan denaren parekoa. Afrikar jatorriko immigraenteen Marseillako iparraldeko auzune txikietan bizi direla kontuan hartuta, ez da erraza horientzat estadioan sartzea, ateen atzekaldeko bihurgune edo kurbetan askotariko jatorriko jendea egokitu arren, gazte zaratsak gehienak.

frantziarrek duten arazo estali ezina Marseillan era bereziki deigarrian azaleratu ohi da. Gobernuak eragindako nazio identitatearen eztabaidaren karietara Jean-Claude Gaudin Marseillako auzapezak, UMP Nicolas Sarkozy presidentearen alderdi bereko eledunak, kirolaren eta nazio nortasunen adierazpenen arteko uztartze frantziarra agerian utzi zuen berriz: “Pozik egongo ginen aljeriar futbol nazio taldearen garaipenagatik musulmanak zoriontsu daudelako. Baina, La Canabière etorbidean 15.000 edo 20.000 lagun biltzean Aljeriako bandera besterik ez da, hori ez dugu atsegin” (cfr. Le télégramme, 2010)¹⁵.

Errugbi jokalariekin alderatuta, futbolariak ereserkia abesteko ohitura gutxiago dutela behatzeak ere asaldura utzi du gizarteko alderdi askotan. Eztabaida iturri nagusia bilakatu da Frantzian nazio nortasunari lotuta futbolarien eta ereserkiari buruzkoa. Paul Yonnet berriki hildako soziologoaren hitzek hezuramaitzen dute esanahia: “Multzo bat ordezkatzan duzunean eta horrek arreta handiz erreparatzen dizunean, eta kolektibo hori sinbolo egiten duen kantua unerik gorenean gailentzen denean, 22 milioi frantziar zure zain egotean eta haragitzen dituen elitea beren aurrean izatean, zure norbanako hautuak ez dira gehiago eremu pribatuaren baitakoak” (Yonnet, 2010: 172). Ikusmoldearekin bat etor daiteke norbera edo errefusatu, baina kirol jarraipenean gainjarri dena da, funtsean, ereserkia partida atarian ezarrita nazio ekitaldia bihurtuta hain zuzen ere. Bestalde, Eric Abidal Lyonen sortutako Martinikako jatorriko jokalaria esana da ereserkiko mezuaz bat ez datorrenez, ez abestea dela bere erabakimena, baina ez duela bere frantsesetasuna kolokan jartzen (Abidal, 2010)¹⁶. Frantziako Gobernuak bideratutako nazio identitateari buruzko gogoetan futbolak zeresan handia zuela azaldu zuen Pierre Orlachek, baloiaren gaurkotasunak Frantziako gizarteari eta bere irudiari buruzko galderak sustatzen baititu. Gobernuaren ekimenak baino Munduko Koparako sailkatzeak nazio nortasunari mesede handiagoa egingo ziola iragarri zuen (Orlach, 2009).

Hegoafrikako 2010eko Munduko Koparen ekitaldiak, ordea, futboletik politikara liskar giroa hedatu egin zuen. Lehenik, Frantziako taldeak Thierry Henryk baloia argiki eskuarekin eraman ondoren erdietsi zuen Irlandaren kontra berdinketaren gola sartzea,

¹⁵ Jean-Claude Gaudinek adierazi zuen Aljeriako banderen ondoan hainbat bandera frantziar begiztatzea nahiko izango zukeela. Albistearen irakurketa baliatuta sarean iruzkina idatzi zuen herritar batek adierazi zuen Bretoniako Guingamp hirian Frantziak eta Feroe Irlek jokatuako partidaren zaindariak Bretoniako banderak sartzea ekidin zutela, eta Gaudinek ustez arbuatzen zuen aniztasun eza bermatzen zutela horiek.

¹⁶ Karim Benzema aurrelariari buruz ere polemika sortu zen 2013ko martxoan Frantzian, *La Marseillaise* ereserkia nazioarteko partidetan sekula ez abestu izana aitortu baitzuen. Lyonen jaiotako eta aljeriar eta kabiliar jatorriko aurrelaria selekzioetik kanporatzeko galdegiteko baliatu zuen egokiera FN Front National eskuin muturreko mugimenduak. Abertzaletasunik gabeko jokalaria ez deitzeko eskatu zion federazioari.

eta azkeneko kanporaketan sailkapena erdieste¹⁷. Paul Yonnet soziologoaren esanetan, nazio selekzioak frantziar nortasuna adierazten du sorterrian, bere buruari begira, nahiz kanpokoen begietara, eta horrenbestez, herritarren nazioaren gaineko atxikimenduagatik desohorea hauteman zuten Henryren amarrua zela medio, eta asaldatuta ziren (Yonnet, 2010: 122). Politikarien eremura bideratu zen ondoren futbol jokia politika auzi eginda. Irlandako Justizia ministro Dermot Ahernek hasteko, eta Brian Cowen lehen ministroak ondoren, protesta egin zuten, eta futbol neurketa berriro joka zedila galdegin. Frantziako Gobernuak, ordea, Nicolas Sarkozy presidentearen eta François Fillon gobernuburuaren ahotan kiroleko federazioen burujabetza eta FIFArek erabakimen autonomoa sostengatu zuten, aurretiaz aurreikusi zitekeen ezer ez aldatzeko erabakia berez babestuta. Ez zuten futbolaren eta futbol elkargoaren eta politikaren arteko bereizketaren aldeko jokabidea berretsiko, ostera, jokalariek Hegoafrikako Munduko Kopan irudi txarra eman eta gero. Izan ere, Raymond Domenech *urdirin* hautatzaileak Hegoafrikako lehiaketan Nicolas Anelka aurrelaria kanporatu zuelako protesta egiteko jokalariek ez entrenatzea erabaki zuten orduan, munduaren arretapean greba egitea alegia, eta Munduko Kopako lehen ligaxkan sailkatzeke Frantziara itzuli eta lasterrera, bertako Legebiltzarrerara deitu zituzten entrenatzailea eta Eliseora Thierry Henry aurrelaria. Laurent Blanc hautatzaile berriak hurrengo deialdietatik at utzi zituen Munduko Kopan aritutako jokalariek guztiak zigor gisa. Alain Fienkielkrautek 2010eko ekainaren 20ean, Frantzia Munduko Kopatik at gelditzeko atarian zegoenean eta liskarrek Frantziako taldea mundu zabalean lotsarazi eta gero, selekzioak “banaketa etnikoa” eta “erlijio banaketa” pairatzen zituela argudiatu zuen hedabideetan. “Frantziar barre egiten dutenen” taldea zela adierazi zuen: “Gaizkile buru txiki horien Frantzia gailentzen bada, hondamena izango da” (Lozes, 2010). Baina bestelakoa zen oro har hedabideetako iritzi publikatua. Esaterako, era honetara plazaratu zuen Claude Imbertek taldeko nazio ordezkariak:

“Frantziarrak direlako. Izan ere, Jean Marie Le Penek eta Georges Frechek era gehiegizkoan nabarmendutako jatorri etnikoak¹⁸ ez du ezertan moldatzen kolorezko futbolariaren gehiengoaren nazio eginkizuna; alegia, hamaikakoan hiru koloredunak – nazio bandera kolore osakerak – ezerezten du bi kolorekoa – arrazen koloreen arteko banaketa –. Denek eurekin daramatzate, Munduko

¹⁷ Sebastien Squillaci defentsaren jokoz kanpokoa izan zen halaber, Thierry Henry baloia eskuaz eraman ostean William Gallas atzelariaren banako gola eta Frantziaren sailkatzea ahalbidetu zuen faltaren atarian.

¹⁸ Immigrazioaz adierazpen polemikoak egiteagatik aski ezagun dira Frantziako bi politikariok. Georges Freche 2010ean zendu egin zen.

Kopan, nazioaren itxaropenak eta etsipenak. Egiteko horrek, telebisten begi ahalguztidunaren bidez oparotasunez agertuak, nazio komunitatean koloreko frantziarren ongizatea laguntzen du ezinbestean” (Imbert, 2010).

Inondik ere futbola hasieratik nazioaren ordezkari bihurtu zen Frantzian, nazioaz aburu ezberdinak kontrajartzea ahalbidetu zuena futbol taldearen nortasunarekin. Gaur-gaurkoa da ere Frantziako nazioarteko jokalarien haztegieta frantziar nazio taldearena ez ezik heldutasunean euren sendiaren jatorriko selekzioa hauta lezaketan jokalaria mugatzeko Frantziako Futbol Elkargoaren ezkutuko asmoa, *Mediapart* izeneko kazetak argitutakoa. Nazio nortasun bikoitza duten jokalarien kopurua haztegietatik mugatzeak nazio anitza mugatuko luke gerokoan. Horrez gain, 2012ko Europako Kopan, Samir Nasri Marseillan jaiotako Aljeriako jatorriko jokalaria Espainiaren aurka partida galdu amaieran kazetari bat iraindu izanak berriro piztu zuen etorkinen integrazioari buruzko eztabaida eta bide batez frantziar onen eta txar edota gaizkile izaerakoen bereiztea. Ezin uka futbolak frantziar nortasunaz aldizkako gogoetak eta ezbaiak hezurmamitu dituela, kolonia menderakuntza aldi arraza beltzeko immigranteak taldean txertatu zituenetik. Bestalde, ez da ahanzi behar Alemaniaren okupazio aroan ere futbolaren lorratzak iraun egin zuela, naziek lehia normaltasun aisialdi gisara hobetsi baitzuten jokalariei Frantzia okupatutik Frantzia askerako igarobidea utziaz. Hala ere, Vichyko gobernuak debekatu egin zuen alemaniarren kontra partidak jokatzea laster, 1941ean (Dietschy, 2010: 230), futbolak menderatzailearen kontrako erkaketetan frantsestasuna elikatuko zukeelakoan. Futbol taldeak abertzaletasuna eta kanpokoarekiko etsaigoa agertzeko tresnak baitziren. Frantzian oro har askatasunen nolabaiteko babes ziren estadioetako harmailak, jendetza biltzeko abagune apartekoak, Vichyko erregimenak jarritako aginte zurrunean onartuak.

Nazio taldea Frantziako immigrazio politiken arrakastaren sinbolotzat ikusarazia izan bazen, alegia integrazioarako metafora gisa, hirietako futbola berriz, hautemandako Frantziaren oinordetza historiko eta geografikoaren aberastasun eta aniztasuna ezagutara emateko erabili izan da, Crolley eta Handen hitzetan (2002: 86-87). Chiracen gobernuak 1998ko lorpena gizarte eta nazio batasunaren mugarriztat barreiatu zuen hara eta hona, baina historiaren ohiko garapenera itzultzeak ordain irmoa eman die frantziarrei, kirol arloan ez ezik gizartearen kohesioari dagokionean ere. Futbolak suspertutako sentipen baterazleak ahalguztidunak eta betiko iraunkorrak ez direla agerian uzten du Frantziako adibideak, baina ez dira hutsalak. Izan ere, Christian Brombergerrek tesi honen egileari

azaldu zionez, “nazioek beharrezkoa duten birsortze sinbolikoa bezalakoa” eskaintzen die Munduko Kopa bezalako garaipenak berarekin dakarren nazio ospakizunak estatuei, aldizka aldizka nazioa irudikatzea eta haragitzea bideragarri egiten duena, eta bide batez frantziar nazio nortasunaren oraineko eta geroko aniztasun erronkak adierazten dituena.

3.3.1.7-Portugal: 2004ko Europako Kopa nazio nortasun aldarrikapena

Antonio de Oliveira Salazarren diktadurak nazien joera hartu zuen herrialdearen kudeaketan, eta kirola nazio mobilizatorako erabili zuen Espainia frankistak egin zuen antzera. 1960.hamarkadan Ginea Bissau eta Angolaren ostean Mozambiken burujabetza lortzeko borrokan hasi zirenean erregimenak 1966ko Munduko Kopan Portugalekin izar bilakatu berri zen Eusebio izeneko Mozambikeko jokalariaen distira baliatu zuen bere agintea zilegitzeko. Horregatik, Italiako klubak eskaintzen aurrean Eusebioen joanaren kontra agertu zen Salazar. Izan ere, Eusebio eta nazio taldeko kideak portugaldar gizarte arraza aniztasun eta berdintasunezkoaren irudia agertzeko erakutsi ohi zituzten kolonien independentzia eskaeren aurrean (Dietschy, 2010: 375).

Orain arte behatutakoari jarraiki esan liteke XX.mendean kirol lehietan lortutako emaitzekin erdietsi zutela neurri batean estatu nazioek ikusgarritasuna. Horren ondotik, 1990eko hamarkadatik abiatuz batez ere baliabide berriak bihurtu ziren ekitaldi horien hartzaile izendatzea, eta txapelketen antolakuntzari eskerrak norbere identitatearen talde aldarrikapenerako herritarren masa mobilizazioak. Nazio adierazpenerako egokiera bat baino gehiago aldi berean uztartzen direnean, herrialde hartzaileen nazio taldeak garaile bilakatzen direnean jazo ohi da hori nabarmenki, tamaina handiko identitate berriaren gertakariarentzat abagunea sortu ohi da. Horixe izan zen 2004ko Portugalgo Europako Kopan gertatu zena, eta baita Frantzian 1998.urteko Munduko Kopan ere. “Hiritartasun identitatearen inguruko adierazpenak Portugalgo txapelketan zinez baldintzatu zituzten ekitaldiaren sustapenean erakunde publikoek izandako parte-hartzeak, merkatu interesek eta hedabideen alorrak zipriztindutako politika, ideologia eta etika dimentsioek, eta era berean Portugalgo taldeak txapelketan lortutako emaitzek” (Marivoet, 2006: 128). Hala, denek ere goratu egin zuten Portugal herrialde boteretsua izan zen historiako epea, hain zuzen ere berriro ere munduko agertokiaren erdigunean bere tokia galdegiteko abagunea

izan zuen espazio-denboraren ardatzean, kirol ekitaldi gorena hartzearen bidez alegia. 2004.urteko Europako Koparekin historia berriz ere nazio agendan txertatu zen, batetik gertaera batzuk nabarmenduta eta beste batzuk itzalarazita; bestetik ikonografiaren eta koreografiaren botere sinbolikoarekin batera estilo eta erretorika baliabideek etekina eman zuten, eta munduaren aurrean Portugalak bere buruaren ordezkari berrindartu zezan pizgarri bezala jokatu zuten, Salome Marivotek dioen eran (2006: 132). Kanpora begira, barnerako batasuneko helburuarekin batera, besteen aurrean, taldearen nortasuna aldarrikatzea behineneko jomuga zen ezbairik gabe norberaren lehiaketaren garapenean.

Ekitaldiaren antolatzaileek eta estatu agintari gorenak – batez ere Errepublikako presidentearen eskutik – nazio kohesioa, autoestimua eta bisitarienganako tolerantzia sustatu asmoz nazio izpirituaren egitekoa etengabe helarazi zioten jendeari, eta horrek guztiak aditzera ematen du Marivoentzat, etika dimentsioa dagoela ekitaldion gizarte eraikuntzari atxikita. Portugalen bere gizarteko alderdi zabaletatik laguntza igorri zuten nazio batasuneko eta abegi oneko izpiritua indartzeko.

“Antzeman daiteke partiden egoitza izan ziren hirietan bertako herritarren eta kanpoko zaleen artean izandako nahasketagatik eta baita txapelketan hiri nagusien enparantzetan Portugalgo garaipenen karietara izandako ospakizun jendetsuengatik, zeinetan paisaia nazioaren kolore berde eta gorriez marraztu zuten, nazio bandera aurrekari gabeko eta ezusteko eran, nazio identitatearen sinbolotzat bereganatzearen bitartez” (Marivoet, : 135).

Esan nahi baita kirol ekitaldia nortasuna biziberritzeko baliatu zutela Portugalen, Frantzia bezala. Halaber, txapelketa hauetan identitate-hiritartasun bikoaz adierazitako ikuspegia ezin da bereizi hedabideek ekitaldi horretaz egindako erretratutik eta horren bitartez igorritako nazio sinboloetatik. Beren selekzioak deskribapen horretan balioesten dituzte, eta kazetariak nazio harrotasunezko gorespen adierazpenak barreiatzen dituzte. Hedabideek egiteko garrantzitsua burutu egin zuten Portugalgo txapelketan bi modutan: zuzenean beren arreta deien bidez edota eremu horretako pertsonaia entzutetsuei ahotsa emanda, eta zeharka, nazio identitateko sinbolismotik hartutako ikonografia baliatuta. Taldeko aldarrikapen eta identitate manifestazio kolektiboekin bat egiteko gonbidapena bailtzan bizi izandako suspertze horrek portugaldar askorengan eragin askatzailea izan zuen, emozio zoraldiak hartu zituen, eta bitartean jendearen adierazpenaren hedabideen

jarraipenak parte-hartzearen eragina areagotzeko eta zabaltzeko balio izan zuen halaber. Hedabideen nahia politikarien apeta abertzalea betearaztea izan, edota abertzaletasuna sustatuz etekin ekonomikoak areagotzea, zernahi izanda ere arrazoaia, futbolaren bidez, eta batez ere Europako Koparen tamainako ekitaldia bidelagun edukita, nazio nortasuna bultzatu zuten Portugalen. Kazetaritzak futbolaren askotariko esangurak eta nortasunen ildokoak bereziki barreiatzeko duen ahala nabarmentzekoa da lehiaketa horretan ere.

Ez da ahantzi behar Europako Kopa ospatu baino hiru hamarkada lehenago ere, askatasunen bermea oinarri duen aginte ereditik urrun zegoen Salazarren erregimenaren garaian, Iberiar Penintsulako Espainia bizilagunean gertatu ohi zenez, ezkertiar ildokoek deitoratu zutela diktadurak *hiru f-ak* bailiran definitu zituztenak erabiltzen zituela jendea bere alde jartzeko. Fatima, erlijioa alegia; futbola eta fadoa, hau da portugaldar musika, ziren limurtzeko erabilitako osagaiok. Futbola askatasunen aldeko borrokatik, edo beste nolakotasuneko politika ekimenetik aldentzeko plazaratu izanaren zantzua eta salaketa azaleratzen dira Portugalgo adibidean. Iberiar Penintsulatik urrundu gabe Espainian 40 urtez agindu zuen diktadura ere antzeratsu irmotu zela argudia liteke, eta kirol lorpenak egunerokotasun zaila ahaztarazteko lilura ametsak edota politika amarruak ziratekeela.

Pascal Bonifaceren ahotan, Portugal beti beldur izan da Espainiak bereganatuko ote duen eta ezberdintze nazionalismoa oso boteretsua izan da bi herrialde horien artean. Nolanahi ere, Europako lehiaketetarako gaizki prestatuko dituen txapelketa ahulagoan harrapatuta gelditzearen beldur, Portugalgo talde garrantzitsuenek eta herrialdearen ikur handienak direnek, Portok, Benficak eta Lisboako Sportingek kasu, Espainiako Ligan jokatzeko nahia iradoki ei dute. Boniface nazioarteko auzietan adituak aipatutako asmoa gauzatuz gero, Espainiak, borroka egin gabe eta portugaldarrek horrela eskatuta hainbat mendez egitea lortu ez duena erdietsiko luke futbolaz: Alegia, Portugal bere eraginpean integratzea (Boniface, 1998: 16-17). Futbolak nazioarteko harremanen barruan, hau da, estatuen babesa duten nazio nortasunen arteko norgehiagokan duen zeresana begiztatzea ahalbidetzen du horrek. Eredu geopolitikoari gagozkiolarik, batzeko ez ezik bereizteko ere balio duela maiz aipatu da jadanik. Nolanahi ere, 2018.urteko Munduko Koparako Iberiako hautagaitza atontzeko gauza izan ziren Espainiako eta Portugalgo Federazioak. Errusia gailendu zenez, ezin jakin biko antolaketak nazio nortasunetan izango zuen uzta.

3.3.1.8-Alemaniko futbola XX.mendean nazio nortasunaz lotuta: Bernako Miraria, nazio banaketa eta bat egitea

Futbolak mundu zabalean nazioa eraikitzeke zuen indarragatik Alemanian kirola gaizki begiztatutako antolamenduen jomuga izan zen herrira heldu eta berehala, guztiek ere joko manipulatzeko helburu zutela, nazio identitatearen zentzu ezberdina sustatzeko asmoak eraginda. Noski naziek behinolako jokoaren dohainak erabili zituzten onargarria jotako sortutako talde nortasuna eraikitzeke, zeinak Alderdi Naziko buruzagiei agintea indartzea eta boterean jarraitzea ahalbidetuko zien. “Alderdi Naziaren ekimenek, batez ere jokoaren alemaniar izaera “gardenari” buruzkoek, sorburuko irizpide arioari jarraiki, jokoaren muina erasan zuten eta geroko bilakaera era berean” (Kassimeris, 2009a: 763). Hala ere, Hitlerren agintaldiak ez zuen futbola beste hainbat kirolen mailan sustatu, eta jokoaren izaera amateurra mantendu zuen joera profesionala hornitu gabe. Izan ere, han ez zuen Britainia Handian sortutako kirolak Italian eta Espainian erdietsi zuen osperik. Nolanahi ere, nazismoak Weimarko Errepublika garaiko kirola indargabetu zuen etnien izaerako kirola eta klub sozialistak, komunistak eta erlijiosoak zituena (Blecking, 2010: 171). 1936ko Olinpiar Jokoetan izan zuen Hitlerrek futbolarekin lehenengo hartueman zuzena, Norvegiaren aurkako nazien olinpiar taldearen partida bertatik bertara ikustera joan baitzen. Nazien gailentasuna erakutsi beharrean norvegiarren garaipena eman zuen lehia hark, eta hala, agintariari aho zapore garratza utzi zion estreinako futbol bizipenak.

Bigarren Mundu Gerraren ondorenean hondamenaren oinazean itoazarrita zegoen gizartea, gerraren galeratik eta suntsipenetik altxa ezinda. Areago, gudaren garaileek eta Gerra Hotzeko bi mundu aburu bateraezinek, bi estatutan, bi esparrutan, hertsiki banatu zuten. Jaltako Konferentziaren biharamuneko bi muturreko munduaren historiaren atala zen. Mendebaldean, munduaren ikuspegi kapitalistarekin eta AEB Ameriketako Estatu Batuekin eta Frantziako Gobernuarekin lerratuko zen Alemaniako Errepublika Federala eraiki zuten, eta ekialdean berriz, SESBen magalean sortutako Alemaniako Errepublika Demokratikoa. Kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko mundu mailako etsaigoaren joko eremu bilakatu zen Alemania bidegurutzean, eta Berlingo harresia ideologia horien arteko banaketaren sinbolo bihurtzearekin batera, langa gaindiezina izango zen 40 urtez alemaniarrentzat. Bada, bertako nazio nortasunaren aldarria erabat azpiratuta zenean, eta gorespen nazionalistak egiteko aukerarik txikiena nazismoaren oroitzapen garratzak aski

uxatzen zuenean, futbolak funtsezko garrantzia izan zuen nazio harrotasuna suspertzea ahalbidetzeko. Nazio taldeen bitartez gizartea amesgaizto horretatik esnarazi zuela esan daiteke, inondik ere Mendebaldean gertatutako ekonomia garapen eskerbaren laguntzaz.

Mendebaldeko Alemaniak 1955ean NATOrekin bat egin zuen eta ekimen horren bidez erakutsi zuen Mendebaldeko sendiak estatu hori bederen bere magalean onartzen zuela. Nolanahi ere, urte bat lehenago erdietsi zuen alemaniarren nazio nortasunak zinez berebizikoa zuen nazioarteko aitortzea. Mundu kapitalistarekin lerratutako Alemaniak ustekabean Suitzako 1954ko Munduko Kopan lortutako garaipena herritarrentzat gerra eta nazismoa ahazten hasteko aukera izan zen. “Hala Mendebaldeko alemaniar gehienek zehatz-mehatz zehaztu dezakete nazioa noiz sortu zen: 1954ko uztailaren 4an, Suitzako Munduko Koparen finalarekin batera” (Gethard, 2006: 52). Futbol mugarririk Bigarren Mundu Gerra galdu izanaren atsekabea ahazten lagundu zien neurri batean. Alemaniak begirunea eta izen ona berreskuratu zituen nazioartean. Hungariako nazio talde aparta gaititu zuen finalean, lau urtetan partidarik galdu gabe zegoena, eta bi aste lehenago, Alemania 8-3ko emaitzarekin makurrarazi zuena. Berealdiko Hungariako talde hura ez zen inoiz Munduko Kopan gailenduko. Bi urte igaro ostean, SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko gerra-gurdiak Budapesten sartu ziren eta nazio taldeko jokalaririk onenek, Puskasek eta Kocsisek tarteko, Hungaria utzi zuten. Mendebaldeko Alemaniak 2-0 gaitzen hasita erdietsi zuen gailentzea, neurketa erabat iraulita. Suitzako hiriburua eurite gogorrek astindu zuen norgehiagokaren garaian, eta jokalaririk balentria areagotu zuen. *Bernako miraria* bailitzan izendatu zuten alemaniarrek ustekabeko garaipena, eta milioika herritar kalera atera ziren ospatzera. Gerraosteko atsekabearen ostean futbolak nazio ospakizunerako aukera eman zien estreinakoz alemaniarrei. Telebista hartzaileak oraindik gizartean hedatu gabe zeudenez gero, tabernak eta saltokietako erakusleihoak izan ziren partida jarraitzeko jarleku bakarrak, eta horiek ekitaldia nazio ikuskizuna izan zedin ahalbidetu zuten. Telebista hargailuen ekoizle batzuek ekoizkin oro saldu zituzten futbol neurketa zela eta. Halaber, futbolak inoiz erakarri gabeko alemaniar askok irratiz jarraitu zuten taldearen garaipena. Herbert Zimmermann esatariaren irratiko kontaketa alemaniar nazio oroimenean txertatu zen. Irratiari eskerrak nazioari susperraldia eskaini zion futbol garaipenak, eta bere buruan konfiantza eraberritua. *Das Wunder von Bern* – euskaratuta, Bernako Miraria – Sonke Wortmann zinema zuzendariak 2003an kaleratu zuen filmak gertaera hori oroituta arrakasta handia izan zuen XXI.mendeko Alemaniako

gizartean (Wortmann, 2003). Filmak ezkutatu zituen adibidez, Peco Bauwens futboleko elkargoko presidentek jokalarien harreran eginiko aldarri nazionalistak (Bonzel, 2012).

Nolanahi ere, politikariek tentuz kudeatu nahi izan zuten garaipenaren zoriona. Konrad Adenauer kantzilerraren CDU alderdiko Deutschland Union Dienst erakundeak era honetara plazaratu zuen garaipenaren uzta: “Txapelketa hau irabaztea mugari aparta izan da, baina ez zaio ikuspegi nazionalistatik erreparatu behar. Joko soila da. Adierazi beharko genukeena da Alemaniako taldeko futboleko 11 jokalarik beste talde bateko 11 futbolari garaitu dituztela, Alemania irabazle izan dela agertu beharrean” (cfr. Boniface, 2002: 35). Gogoeta horretatik eratortzen da herrialdeko politikariek nazismoaren zama astuna gainean zutela artean, eta halaber 1936ko Olinpiar Jokoen erabilpen politikoaren gomuta oroitzapenean nahitaez itsatsirik zutela. Nolabait alemaniarrek barneratu zuten beren boterearen agerpena egin nahi izanak eta gehiegizko nazio aldarriak hondamendia eragin zuela, eta horrenbestez, diplomazia harremanetan zuhur jokatzeari hobetsi zuten. Ildo horretan, ezinbestekoa zuten futbola nazio nortasunaren sustapenerako eta gorespen nazionalistetarako baliatuko ez zutela ikusaraztea. Dena dela, Bigarren Mundu Gerraren ondorenean “nazio” izendapena ohiko hizkuntzatik ezabatua izan zen arren eta erakunde gehienek federazioa adierazten zuten *bundes* izenondoa hartu bazuten ere, Alemaniako nazio talde garaitsuak ez zuten bere izena aldatu, eta gerra aurreko izendapen berari eutsi zion soilik Alemaniako Errepublika Federalarena hartu ordez eta nazio izendapenarekin. Mendebaldeko Alemaniako selekzioak Munduko Kopan izango zuten agintaldi luzearen lehen urratsa izan zen 1954koa. Futbol garaipenen bide arrakastatsu berean ia uztartuta, epe berean Alemaniako Errepublika Federalak hazkunde ekonomiko itzela burutu zuen, gerra errautsetatik hasitako ekonomia Europako ahaltsuena bilakatzeraino. Kirol lorpena nazioarentzat aro berriaren iturburua bailitzan gorde dute askok. “Nazioartean kirol eta politikan bakandua izaki, bere arima nazionalista irmoa hein handian futboleko eta batik bat nazioaren talde ordezkarian egokitu zuen Alemaniak” (Solivellas Aznar, 1981: 108).

Bernako miraria izenaz gordetako futbolaren eta nazioaren mugarrira Ekialdeko Alemanian ere zabal ospatu zuten. Horrela, Albrecht Sonntag esanetan (2008: 240), Mendebaldean eta Ekialdean partekatzen zuten sortzezko mito bakarra zen. Eta, Ulrich Pfeilek arrazoitzen duen modura, urritasuna eta hunkipenen premia zegoen garaian, oso beharrezkoak ziren mirariak eta mito kolektibo berriak, alemaniarren identitate aingura birsortzeko (Pfeil, 2010: 13), nazioaren komunitate imajinatua elikatzeko. Gerora ordea,

kirolak banatu egingo zituen luzaro alde bietakoak. 1955.urtea arte Olinpiar Batzordeak ez zuen Ekialdeko Alemaniako batzordea onartu, eta aitortu zuenean, bertako kirolariek alemaniar talde elkartuan arituko ziren baldintzapean onetsi zuen. 1956ko Melbourneko Olinpiar Jokoetan, hurrena Erromakoetan, eta ondoren Tokyon 1966an ospatu zirenetan, Alemania elkartua irudikatuko zuten. 1965ean Mendebaldeko Alemaniaren pareko gisa aitortu zuen azkenean nazioarteko kirol erakundeak. Ordu arte, Jean Meynaudek dioen moduan (1972: 285), alemaniar talde bateratuen ekimenak helburu politiko argia zuen, hau da, jende zabalaren aurrean kapitalismoaren eremuaren baitako bat egitearen nahia haragitzea. Ekialdeko Alemaniarentzat bere izatea ukatzea zen. Alemaniako Errepublika Demokratikoak izan ere, garrantzia eskerka eskaini zion kirola nazioarteko aitopenen bila eta helburu politikoetarako erabiltzeari. Hori zela eta, esteroideak eta odol bidezko dopina baliatu zuten kirol arduradunek ahalik eta emaitza oparoenak eta ikusgarrienak ziurtatzeko. Nahiz eta kirola propaganda bitarteko gisa erabili, estatu sozialistak ez zuen asmatu futbolearen talde indartsua osatzen. Behin bakarrik lortu zuten bertako futbolariak Munduko Kopan aritzeko eskubidea eskaintzen duen txartela, hain justu Mendebaldeko Alemanian ospatutako txapelketarako sailkatuta. Alemaniako bi estatu arerioen arteko dema bideratu zuen zoriak, tamaina honetako ekitaldietan halabeharrak sortu ohi dituen askotariko erkaketa geopolitiko adierazgarrien norantzan. Bi estatuetako futbol taldeen arteko lehen norgehiagoka eta bakarra izan zen, eta denboraren joan etorriak ahalbidetu zuten hori balizko izan zedila, luzaroan kontrajarritako interesek ezinezko egin baitzuten.

Bi aldeentzat kirola beraien aginte ereduaren gailentasuna erakusteko, munduan entzute ona bermatzeko eta nazio nortasuna sortzeko baliabide garrantzitsua zen. Horrez gain, Alemaniako Errepublika Demokratikoarentzat baliabide egokia zen Mendebaldeko gobernuaren atzerri politikari eta hori gidatzen zuen Hallstein Doktrina zeritzonari aurre egiteko. Irizpide horrek huts-hutsean argiki ebazten zuen Errepublika Federalak ez zuela diplomazia ez eta ekonomia harremanik edukiko Ekialdeko Alemaniaren izate politikoa eta subiranotasuna aitortuko zuen inolako estaturekin (Merkel, 2006: 21-22). 1949an bi estatutan banatu zirenetik Mendebaldeak ez zuen Ekialdearen izaera bereizitua onartu, eta atzerri politika irizpide horretan oinarritu zuen gainera. SPD – sozial demokratik– eta FDP – liberalak – alderdiek 1969an estreinakoz gobernu eratu zutenean norabidea zinez aldatu zuten. Willy Brandt kantzilerrak bi estatu ezberdin zeudela aitortu zen, eta *Realpolitik* izeneko ikuspegiaren bitartez bi Alemanien arteko hurbilpena bideratu zuen 1974ko Munduko Koparen ateetaraino. Ekitaldiaren atarian dimisioa eman behar izan

zuen, bere hurbileko aholkulari batek Ekialdeko Alemaniako espioia zela aitortu ostean. Lehenago, 1972ko Municheko Olinpiar Jokoetan, estatu sozialistak estreinakoz han bere taldea aurkezteko oniritzia ukan zuen, ereserki, bandera, ikur eta guzti; Mendebaldeko Alemania bizilagunean ordu arte debekatuta ziren nazioaren markak alegia. 1960ko eta 1964ko Olinpiar Jokoetan ordezkariak bera zuten biek, eta 1968tik aurrera ezberdindua.

Bi estatuetako agintariek eta oro har alde bateko zein besteko mundu erduetako pentsalariak bat etorri ziren bi hamarkadatan Alemaniako bi nazio taldeen arteko lehia ekiditean. Estatu sozialistako taldea, esan bezala, ez zen inoiz lehiakorra izan eta alboko taldearen aurka galduz gero, kirolaren baitan arrakastak bermatutako nazioaren izen ona galduko zuen. Mendebaldeko Alemaniak ere bazeukan partida eragozteko arrazoibidea: Batetik, Alemaniako Errepublika Demokratikoaren aitortpen nabarmenagoa adieraziko lukeelako estatu independente modura, eta hori luzaroan errefusatu zuen. Bigarrenik, “harresiaren arteko anai arrebeak” batera jokatzek urratu egingo zuen Mendebaldearen ideologiak zioena, hots, Mendebaldeko eta Ekialdeko alemaniarrek Sobiet Batasunaren politika menderatzaileak banatutako familia handia zirela (Ibid., 22). Eboluzioa nabaria zen edonola ere, eta Mendebaldearen hurbilpenak eta Ekialdeak bere izaerari hauspoa emateko zuen beharrak futbol norgehiagoka gertatzea bideragarri egin zuten. Futboleko ohiko ikuskizuna gutxienezkoa zen. Emaitza eta haren kudeaketa zatekeen adierazleena. Berdegunea antzetzoki eta jokoa ikuskizun bilakatu zuten hedabideek eta marketingaren adar goiztiarrek jadanik herrialde askotan, eta baita garden ere Alemanian. Telebistaren koloreetako jarraipen berritzaileak Munduko Koparen aro berria islatu zuen. Behinolako hurbileko futbolaren erkaketa jadanik lurperatua zuen telebista hargailuek irudikatutako masa ekitaldiaren askotariko aldarreak.

Nazismoaren mamua urteen poderioz urrundu heinean alemaniarrek futbolarekin beren nazio nortasuna agertzeko abagunea bereganatu zuten, artean bi estatutan zatituta bazeuden ere. Olinpiar Jokoen bihamunean, 1974ko Munduko Koparen antolatzearen lekukoa hartu zuen eremu kapitalistak. Hala, zoriak horrela ebatzi zuenean, Alemaniako Errepublika Demokratikoak ez zion txapelketan Augusto Pinocheten diktadura erdua ordezkatzeko Txilerekin jokatzeari uko egin, SESBek arrazoi horrengatik sailkatze fasean harekin futbol norgehiagokan aritzea errefusatu bazuen ere. Inondik ere SESBen gogoetarekin bat egingo zuen arren, Ekialdeko Alemaniaren agintearentzat berebizikoa zen futbolaren bitartez nazio sentimendu bereizitua zilegitzea, eta hartara zernahi kosta

Mendebaldeko Alemanian ospatuko zen futbol ekitaldian ordezkariak eduki nahi zuten. Hanburgon ekainaren 22an jazo egin zen bi Alemanien arteko norgehiagoka, lehenengo fasearen amaieran. Biak ala biak liga erako bigarren kanporaketarako sailkatuta zeuden dagoeneko, eta horrenbestez, emaitza ez zen erabakigarria izango. Dena dela, horrek ez zuen alde bateko eta besteko alemaniarren partida ikusteko irrika apaldu. Bada, ezustean estatu sozialistako taldeak irabazi zuen, partidaren ondarrean gola eginda. Alemaniako Errepublika Demokratikoa kapitalismoarekin lerratutako bizilagunei kirolean gailendu izana sozialismoak kapitalismoaren kalterako eskuratu zuen garaipenaren isla bailitzan irudikatua izan zen alde batetik, garaipenaren loria egitura politikoaren nolakotasunetik eratorriko balitz bezala. Bestetik, Mendebaldean, hedabideek erakutsi zuten asalduratik haratago kontrajarritako hautematea zen adierazi zutena. Aterioaren aurrean jasandakoa porrot mingarria izanagatik, txapelketaren hurrengo kanporaketarako ligaxka errazagoa egokitu zitzaion taldeari porrotari eskerrak. Izan ere, Ekialdeko multzoak Herbehereen eta Brasilen kontra bi neurketak galdu zituen, eta Mendebaldeko Alemania berriz, biak irabazita finalerako sailkatu zen. Munduko Kopako inoizko lehia gogoangarrietakoan alemaniarrek talde laranjaren guztizko joko ikusgarria azpiratu egin zuten, 2-1 irabazita.

Nahiz eta *Bernako Mirariak* Alemaniaren nazio nortasuna berregiteko laguntza nabarmena eskaini zuen, Mendebaldeko Alemania sortu eta bost urtetara hain zuzen ere, hogeitau urte geroagoko gertaerek ez zuten soilik ahalegin hori irmotu, areago, beste behin, erakutsi zuten tamainako kirol ekitaldiak gizarte moderno konplexuetan daukan gizarte garrantzia eta kultur boterea. Herbehereen eta Alemaniaren artean sustraitutako etsaigo historikoa nazien okupazio garaitik eratorritzen zen bitartean, Ekialde eta Mendebaldeko Alemaniaren artekoa zinez garaikideagoa zen. Ekialdeko Alemaniaren aurka jokatzeko espero izandako abagunea, eta gauzatutako bakarra, futbolaren eremutik askoz haratago zihoan. Izan ere, Udo Merkelek dioen moduan (2006: 26), alemaniar askorentzat partida hori izan zen banatutako gizartean bizi zirela gogorarazten zien gomutagarririk argiena. Bestalde, nazioartean horrelako kirol arrakastak lortu izanagatik Ekialdeko Alemaniako agintariak ezin izan zuten estatuaren baliabide sorta eskerga baliatuz ere nazio identitate berezituaren ideia gizartean tinkotasunez barnerarazi, ez behintzat kirol lorpenen bidez Mendebaldeko Alemaniaren gidaritzapean ernatu zen batasunerako irrikari gaitzetzeko modukoa. Sorterrian nahiz atzerriari so futbola eta kirola oro har goitik nazio nortasuna indartzeko baliatu izanak ez zuten nahi besteko emaitza oparorik eman. 1965etik 1983ra bitartean hiru erreforma nagusi burutu zituzten Alemaniako Errepublika Demokratikoan

hango futbolaren muineko arazoak eta nazioarteko lehiaketetan izandako arrakasta ezari aurre egiteko (Dennis eta Grix, 2010: 456). Besteak beste, pentsamolde sozialistarekin bateraezinak ziratekeen onurak eman zizkieten jokalariei, ekonomia pizgarriak adibidez. Nolanahi ere, Olinpiar Jokoetan estatuaren izen ona goratzeko aukera handiagoa zuten kirolak hobetsi zituzten, atletismoa adibidez.

Mike Dennisek eta Jonathan Grixek iradokitzen duten moduan, kirolaz eztabaida plazaratuta Ekialdeko Alemaniaren gainean irudikatu daitekeen irudi konposatua eragile ezberdinek beren interesen alde eta boterearen bila ariko ziren diktadura batena da, non hiritarrek kezu agertu eta beren ahotsak entzunarazten zituzten, eta zeinean erregioetako identitateak ernatuak, agertuak eta edozein nazio identitate sozialista zantzuren aurretik kokatuak ziren: labur esanda, ezbaian zegoen diktadura zen (Ibid., 468). Halaber Gerra Hotzeko aroan futbolak bi Alemanientzat zuen etorriaren adierazle dira adibidez, Henry Kissinger AEB Ameriketako Estatu Batuetako agintariak egindako adierazpen hauek. Futbolaz geopolitikaz adina bazekien Kissingerrek, eta biak lotu zituen: “Mendebaldeko Alemaniako taldeak neurketak prestatzen ditu Alemaniako armadaren goi agintaritzak erasoaldia egituratzen duen era berean, xehetasunik txikienari arreta handiena eskainita” (Cfr. Boniface, 2002: 54). Futbola eta gerra, nazio nortasunen eta goi politikaren eremu zabal bezain anitza, kirolik jendetsuenarekin harreman banaezinean lotuta hartara.

Berlingo Harresia 1989. urteko azaroaren 9an eraitsi zuten, Altzairuzko Oihala, Europa eta mundua bitan zatitzen zituen muga ideologiko sakona ere handik gutxira, eta 1990eko urriaren 2an burutu zen bi Alemaniako estatu bereizien bat egitea eta nazioaren batasuna. Hilabete batzuk lehenago, Italiako Munduko Kopan Argentinari final handian irabazita mundu mailako hirugarren txapelketa erdietsi zuen Mendebaldeko Alemaniak. Christian Brombergerrek dioen moduan (2001: 52), odolean oinarritutako nazio ideiarenean isla zen nazio taldearen osaeraren sinbolo izaera, izenaz atzerritar jatorrikoak ziratekeela emango zuten bi futbolari bakarrik zelairatzen zirelako: Littbarski eta Guido Buchwald. Ekialdeko Alemaniak 1990eko irailaren 12an jokatu zuen nazioarteko azkeneko partida. Bruselan gertatu zen, eta alemaniarrek Belgikako taldeari 0-2ko emaitzarekin gailendu zitzaizkien. Batasuna gauzatuta berriz Mendebaldeko Alemaniako jatorrizko taldearekin bat egin zuen. Nazio taldean jokatzeko ekialdeko sorlekua zuten hamasei miloi futbolari gehiago hautatu ahalko zituen taldeak eta garaipenen ildoan betikotzea desio zuen Franz Beckenbauerrek, 1990ean nazio taldearen hautatzaile garaitsua izandakoak, eta herrialde

horretako futbol oparotasunaren garai ikur nagusienak. Nazioaren batasunak eta futbol garaipenak sortutako euforiak, ordea, ez zuen sobera iraun, eta ezkortasunak hartu zuen azkenerako Alemaniako gizartea alderdi guztietan. Hazkunde ekonomiko etengabeak etenaldiari utzi zion lekukoa, eta herritarrek bat egitearen bilakaera okerrekoa izan zela hauteman zuten. Horrela, orduz geroztik bi hamarkada igaro direnean, Helmut Kohlen gobernu kontserbadoreak zuzendutako prozesuaren gainean gogobetetasun eza zabaldua dago. Ekialdeko Alemaniako futbol harmailek parada eskaintzen dute nostalgia aldartea ospatzeko, eta halaber, bigarren mailako hiritarrak bailiran hartzen dituztela jendartearen plazaratzeko. Sarritan gertatzen da, bereziki Mendebaldeko taldeek Ekialdekoen kontra jokatzen dutenean, 1974ko Munduko Kopan bi aldeek Hanburgon izandako neurketari buruz kantuak entzun daitezkeela (Merkel, 2006: 23) ekialdekoen harrotasunaren alde.

Michael Ballack XXI.mende hastapeneko Alemaniako futbolariarik ezagunetakoa Ekialdeko Alemanian sortutakoa zen, eta Mendebaldeko hedabideetako kirol esatariek bere jatorria eta harenganako estereotipoa betiketuz, bi Alemanien arteko zatiketa berriz ere gogora ekarri zuten. Askotan kritikatu zuten zelai barruan lidergoari lotzen zaizkion tasunak ez izateagatik, eta gehienetan argudiatu izan zuten gabezia hori eratoritzen zela Alemaniako Errepublika Demokratikoko politika sistemaren altzoan urtetan eduki zuen hezkuntzatik. Beraz, nahiz eta Gerra Hotza amaituta den, Ekialdeko Alemaniako estatua deseginda eta harresia eraitsirik, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsioak bere horretan diraute oraindik, 1974an zeuden tankeran. Mundu kapitalistak ez zuen asmatu eredu sozialistatik moldatutako Ekialdea bere gizarteko ongizate mailara bateratzen, eta krisia agerikoa izan da Europako motor nagusienean. Ekonomian bezala, futbolearen ere beheraldia jasan zuen nazio-taldeak mende aldaketa gertatu zenean. Hainbatek etorkinen belaunaldiei lekua egiten ez zien talde osaera zurrunari egotzi zioten eraginkortasun eza Frantziaren jatorri anitzeko taldea arrakastatsua zen aroan kontrajarrita, hain zuzen ere. Bestalde, liga txapelketan bakanak dira Ekialdeko Alemaniako behinolako herrialdearen eremutik etorritako taldeak, eta Hansa Rostockek 2005ean maila galdu zuenean, ez zen bat bera ere¹⁹. Futbolearen ere agerikoa zen nazioaren bi zati bereizituen arteko langa hori oraindik ere.

¹⁹ 2006ko Munduko Kopan Mendebaldeko 11 hirik hartu zituzten partidak eta Ekialdeko hiri bakarrak.

Aitzitik, Volker Klupfeil idazlearen ahotan, batasunezko arazoek elkarrenganako gizarte banaketa aburua indartzen dute, non mendebaldekoek ekialdekoak produktibitate faltagatik epaitzen dituzten; eta ekialdekoek bestalde, mendebaldekoek harrokeriarekin begiratzen dietela hautematen duten. Haren aburuz, ordea, banaketa hori ezereztu liteke. Litekeena ei da bat egiteak arazorik sortu ez duen eremu bakarra egotea, hots, kirolena. Klupfeilen irudiko, Alemaniako futbol taldeak Munduko Kopa irabazten badu, denbora laburrean bederen Alemania nazio bat izango da (cfr.Gethard, 2006: 59). Egoki litzateke beraz futbol garaipenaren eta nazio nortasunaren biziberritzearen arteko lotura agertzea, eta harreman hori eskualde mailan futbol klubek bidez ere gauzatzen dela ez da ahantzi behar. Ruhr eskualdea adierazgarria da adituentzat, Alemaniaren industria ekoizpena eta bere garapen ekonomikoa hezur mamitu duen gizartea. Futbol klubek talde nortasunari indarra ematen lagundu diote Europako industria erregio emankorrenean, arazoak arazo.

Politikoki eragingarria izango zen herri antolakuntza sortzeko ez du garatu behar besteko baldintzarik, erregio patriotismo aski indartsurik gabe. Aitzitik, zailtasun horiek denak gorabehera, Ruhr erregioan hauteman daitezke epe luzera begira lurraldearekiko gizarte atxikimendu eta psikologiko oso indartsua sortzen ari diren joerak eta garapenak. Norantza horretan litekeena da maila goreneko antolatutako futbolak garrantzia handia izatea (Gehrmann, 1994: 188-189). Bai Gelsenkirchen hiriko Schalke 04 klubak eta bai Dortmundko Borussia beren hirietan, eta baita erregio osoan barna ere, lortutako sonak futbol zelaian erakutsitako distiran du iturburua. Hala ere, hori ez da Ruhr eskualdeko jendetzaren berotasunaren eragile bakarra. Gisa horretako klubek oihartzunaren jatorria argiago ulertu ahal izateko gizarte inguruaren izaera ezagutu beharra dago. XX.gizaldi hasierako bi taldeon oparotasuna iraganeko gomuta da, baina herritarren oroitzapenean tinko itsatsita dirau, beheko klaseengan batez ere. Horrek adierazten du bertakoentzat bi taldeek duten aparteko esangura, bereziki oro har ospeari eta hango ekonomia jardueri dagokienez. Schalke 04 hasieran “langileen taldea” zen, eta bazuen beste bereizitasunik, hots, kideetako gehienak edo gurasoak Alemania eta Poloniaren arteko muga ingurutik etorritakoak zirela. Langileak izaki, beheneko klasean txertatuta zeuden, eta hala gizarte onespenearen eskalan azpiratuak ziren. Ez hori bakarrik, Alemanian oniritze eskasa duen nazio multzo baten partaideak ziren, hau da, poloniar jatorrikoena. Beraz, klase ertainek gizarte alderditik nahiz nazio partaidetzari zegokionez ere gutxiesten zituzten. Klubaren ondorengo bilakaeran aski garrantzia izan zuen jatorrizko giro horrek. Schalkeren sona eta futbol izarrena baliatzen asmatu zuten naziek, Poloniar gerra adierazi eta Bigarren

Mundu Gerra hastearekin batera poloniar klubak aurkako jazarpena hasi zuten bitartean (Blecking, 2010: 170).

Etengabeko hazkunde ekonomikoaren aroa amaitzean ere Schalke 04 taldearen garrantziak funtsezkoa izaten segi zuen, Gelsenkirchen hiriaren irudia hobetzeko alegia. Kirolak ekimena, emozioa eta energia islatzen ditu jende askorentzat, eta hala, zeresan handikoa da hiriaren izena horri atxikitzea eta balio horiek urrun eta zabal barreiatzea. Gelsenkirchen-Schalke 04 klubak xedeok bete egiten ditu. Hiriko izena erabilita, jende askorengan bere boterea jartzen du, Siegfried Gehrmannek aipatzen duenez (1994: 196). Ildo berean, Dortmund Borussia taldea Europako ikusle batez besteko handiena duena da. 2005ean desagertzeaz izan zen arazo ekonomikoek itota, baina herritarrek ez zuten baztertu behinolako loria galdu arren. Hala, bost urteren buruan berriro Alemaniako liga txapelketa irabazteko gauza izan zen kluba. Bada Europako batasuneko prozesuak nazio ezberdintasunak gainditzeko joera duen neurrian, erregioetan sustraitutako elkarkidetzak zeresan handienekoa izan daiteke kulturaren baitako ezberdintasunak babesteko aldarri modura. Gehrmannek dioena ontzat emanda, argi da Ruhr erregioan futbol profesionala erabakigarria dela herri mailako nortasuna lekutzeko eta egonkortzeko gailu gisa (Ibid., 200).

Mende aldaketarekin batera Alemaniak 2006ko Munduko Kopa hartzeko aukera bere egin zuen. Oroitzapenean 1974ko ekitaldiari beste garai bateko adurra zerion jada. Futbol txapelketari etxean harrera egin aurretik nazio taldeak Japonia eta Hego Koreako 2002ko Munduko Kopako finala jokatu zuen ustekabean. Herrialdearen historian nekez haizatu ziren orduan adina Alemaniako bandera, eta karrika, auto eta jantzietan halako grinaz egokitu. Aurretiaz luzaroan irudika ezinezko eboluzioa biribilduta, 2002. urteko Munduko Kopan bandera hori gizarte klaseak sinesmenak eta arrazak lotu zituen ikurra bilakatu zen. “Askotariko jatorriko horrenbeste jendek ikur abstraktuarekin bat egin ahal izateak berriz ere nazio identitateen sorkuntzan nazioarteko kirol arrakastaren esangura azaltzen du” (Merkel, 2007: 222). Albrecht Sonntagek 2002ko Legebiltzarrerako bozen kanpaina SPD alderdiak bere programan Alemaniak nazioarteko kirolaren gailurrean jarraitzearen beharra aldarrikatu izana nabarmentzen du horren adierazgarri, eta 2006ko ekitaldiaren atarian Legebiltzarrean alderdi gehienek osatutako kirol batzordeak Jurgen Klismann prestatzailearen agerpenaren beharra hauteman izana, nazio taldeak itxuraz egin zuten ahultasunaz kezkatuta zeudelako etxeko lehiaketaren atarian (Sonntag, 2008: 230).

Izan ere, aldi laburrean aldaketa handiak jasan dituen Europako estatu-naziorik gazteenetakoan bizi dira alemaniarrek. 1871n sortu zenetik sei estatu ezberdin egon dira gutxienez Alemania izenarekin, horietako bakoitza berari zegozkion muga, ekonomia, populazio, gizarte eta aginte politiko zinez ezberdinekin. Bada, 2006.urtean, Portugalen eta Frantzian hausnartu bezala, bertan ere futbol ekitaldi nagusiaren etorrera nazioaren gaineko talde nortasuna suspertzeko baliatu zuten. Emozioa eta identitatea nazioarekin sobera ez uztartzeko ardura orokorra zegoen bitartean, edo behinik behin Alemaniaren iragan gorabeheratsua ahaztuaraziko zuen edozerekin arreta berezia izanda, aldi berean askotariko politikariak eta pentsalariak kexu ageri ziren herritarrak oro har estatuarekin eta nazioarekin bilduko zituen bitarteko osasungarri baten gabezia azalerazita (Schrag, 2009: 1087). Hainbat irudiko futbol ekitaldia izan zitekeen irrikaz bilatutako bitarteko baterazlea. Nazio taldeak ezin izan zuen etxean txapelketa lortu, baina hirugarren postua emaitza duina zen halabeharrez gazteei bide ematen hasi zen multzoarentzat. Ohi denez, futbol jarraitzaileetatik haratago gizartea oro har bere taldearen patuari uztartu zitzaion etxeko Munduko Kopan gailentzeko. Eta ez ziren soilik gizonezkoak banderak astintzen zituztenak, emakumezkoek ere maila berean nazioari eragiten zioten, modu berritzailean eta sormen handikoan beren burua nazioaren koloreekin apainduta, nazio bandera gona gisa jantziz tarteko. Albrecht Sonntagek dioen moduan, alemaniar banderaren koloreak bereganatu zituzten herritarrek nonahi 2006ko ekitaldiaren karietara, eta halaber nazio ereserkiaren berraitorpena gertatu zen kirol ingurumenak sustatuta (Sonntag, 2008: 17). David Schragek honela bildu zuen: “Munduko Koparen ospakizuneko giroak ahalbidetu zuen Alemaniako nazioarekiko bultzada sentitzea, barreiatzea eta praktikara eramatea, oroz gain apolitikotzat, positibotzat eta barneratzaitzat jotako bidean” (Schrag, 2009: 1091-1092).

Horrez gain, alemaniarrek harrিতuta laga zituen bertan bizi ziren turkiarrek beren sorterriko banderaz gain bizilekuetan eta saltokietan Alemaniakoa ere kokatu zutelako. Naziotik bakandu zituen estatuan barneratzeko sinboloa bihur zitekeen futbol selekzioa. Turkiarrek gizarte bereizituan bakanduta bizi ziren arren Alemaniako nazioaren ikurrak bere egiten zituztela hautematea zaila zen askorentzat. Turkiar jatorrikoek, Alemaniako immigrante talde handiena diren arren, ez daukate liga txapelketaren maila gorenekoan beren mailari dagokion agerpenik. Beheko mailetan, alabaina, bi Alemaniak batzearekin batera turkiar taldeen kopurua handiagotu egin da. Identitatearen eraikuntza eta gizarte kontrol zeregina dute taldeok, eta alemaniar klubak aurkako neurketetan ordezkartzaren

betebarra ere bai (Blecking, 2010: 172). Turkiar jatorriko jokalarien iritsiera 2010eko Munduko Kopan gauzatuko zen alemaniar selekzioan, baina, 2006ko Munduko Kopan artean antzematen zen hamaikakoaren osieran aniztasun nabariagoa, Lukas Podolski eta Miroslav Klose aurrelari bikoarena tarteko, atzerrian, Polonian, jaiotakoak biak ala biak.

Talde kirolei dagokienean batez ere, herrialdearen bandera astintzea norberaren identitatea elikatzen eta eratzen laguntzen duen ekimena da inondik ere, David Schragek nazionalismo apolitikoaren eredu onargarria edo distantziazko nazio identitatea bailitzan azaltzen duena: Alemania beren naziotzat hartu arren Alemaniako kultur nazioaren kide izatearen sentipena ez duten norbanako horientzat kasik integraziorako funtsa bilakatzen da. Schragi jarraiki mundua nazio nortasunen bidez egituratzea ez da hemen politikotzat hartua ez eta ezbaian jarria ere, futbol nazio taldearekin lotura gauzatu dela barneratzen da bakarrik (Schrag, 2009: 1093). Muturreko nazionalismotik urrunduta nazioarekiko atxikipena agertzeko herritarrek duten baliabide zuhurrago gisara agertzen du Schragek futbol eta nazio taldearekin uztartzea. Alemaniar selekzioak talde nortasuna garatzeko sortutako egokiera era gardenean deskribatzen du. Identitate esentzialistatik eratorritako nazionalismo fanatikoaren ordeztu, Alemania norbere talde gisara txertatzeak nazioarekin jarraitzaile bezala identifikatzea ahalbidetzen du: Alegia, Alemaniaren jarraitzaile izatea norbera Alemaniaren aldeko futbol jarraitzailea izan daitekeen moduan (Ibid., 1094).

Horretaz gain, gizarte kutsuko hainbat marketing kanpainak kirol talde batekiko identifikazioa patriotismoarentzat eredu bailitzan aurkeztu zuten, eta nazio adierazpide modu osasuntsua eta alaia bailitzan. Peter Houghek dioen bezala (2008: 1296), 2006ko Munduko Koparen harrerak aukera eskaini zien alemaniar arruntei abertzaletasunezko ospakizunetarako antzinako mamuak iratzartzearen beldurrik gabe. Txapelketa garaian nazio kirolaren identifikazioaren, edo gutxienik, ezagutzaren, eta komunitateko partaide izateko betebeharren artean harreman zuzenagoaren adibideak bazeuden. Hala, Hessen estatuak alemaniar hiritargoak lortu nahi zuten etorkinei herrialdeari buruzko ezagueren galdekizuna egitea proposatu zuen. Galderen artean ziratekeen Alemaniako futbol nazio taldeari buruzkoak, eta bertako kirolaren historia mintzagai zutenak. Itau horiek delako immigranteak “Alemaniako taldearekin”, hau da, gizartearekin, bat egiteko eta harekin identifikatzeko zuen gurariari buruzko informazioa eman zezaketela erabaki zuten. Esan nahi baita alemaniarren talde nortasunaren iragan kolektiboaren barruan harrera berezia zutela kirol oroitzapenek ere. Eta bien bitartean, 2006ko Munduko Kopak hein batean

jendetzaren nazio adierazpenaren inguruko tabua gaindiarazi zuela aditzera eman zuen. 1936ko Olinpiar Jokoen erabilpen politikoa, eta 1970eko kirol ekitaldi gorabeheratsuen aroak, zerumuga baikorragoari bide eman zion, malkar ekonomikoak hizpide izan arren. Gainera, nazioarenganako atxikipena gizarte zibilaren borondatezko hautuaren ondorioa zen, ez zen era argian edo zuzenean antolatutako estatuaren egitasmoa izan. Estatuak eta enpresa handiek testuingurua jarri zuten, eta herritarrek norbere atxikimendua bideratu. Nazio sinboloekin identifikazio baikorra sortzeko adostasunak, marketing kanpaina aski eraginkorrari erreparatuta behintzat, Alemaniako gizartearen alderdi zabala hartu zuen bere altzoan, nazioarteko kirol kulturaz elkarkidetzan (Schrag, 2009: 1097). Harrotasuna adierazi ohi dute herritarrek Alemaniako taldea ikustean, besteren artean, Mercedesen edo Porscheren gisako ohoratutako Alemaniako marken pare goratuta, Alemaniak maila handiko teknika mugarrietara heltzeko duen gaitasuna munduan zehar hedatzen dutenen neurri berdinean futbol taldea jarrita, hain zuzen ere. Horregatik, 2001ean nazio taldeak Ingalaterra etsaiaren aurka 2002ko Munduko Koparako sailkapen ligaxkan 5 eta 1 galdu zuenean, *Frankfurter Allgemeine* egunkariko kazetari batek deitoratu zuen herrialdea bere indarraren bi ikur nagusiak galtzekotan zela: Alemaniako moneta, markoa, batetik, alemaniar futbol taldearen garaitezintasun sona, bestetik (Alcaide Hernandez, 2009: 43).

2010eko Hegoafrikako Munduko Kopan final erdietaraino heldu zen taldea, eta atzerriko jatorria zuten sendietako jokalaria gehiago agertu ziren hamaikakoetan, taldea gatzetzeko bidean. Horien artetik parte-hartze handia izan zuten turkiar jatorriko Memut Ozilek eta aita tunisiarreko Sami Khedirak. Erdiei ia estatu mugetatik kanpoko jatorria zerien. Bost jokalaria, Marin, Trochowski, Cacau, Podolski eta Klose, herrialdetik kanpo jaiok ziren. 1990eko alemaniar zurruntasunarekin alderatuta jauzi hautemangarria ikusi ahal izan zen nazio taldearen osaeran. Hiritartasunaren izaeran eta gizarteko integrazio eremuan Alemanian izandako eboluzioa aditzera eman zuen futbol hamaikakoak, nazio taldearen osaerak nazio izaeraren muina plazaratzen duela aski onartuta dagoen heinean. Horrenbestez, odolean oinarritutako hiritartasunetik eta etorkinak naziotik baztertzearen eredutik, lurrian, eta jaiolekuan oinarritutako hiritartasunera urratsak egiten hasia dela Alemania adierazten du selekzioak, turkiar jatorriko Alemanian jaiotakoei hiritartasuna emateraino. Alemaniak bezala, naziotasun kode edo irizpide emakida zurruna eduki izan du Suitzak ere, eta 21 urtez azpiko nazio selekzioan eta jokalarien haztegietan kanpoko jatorriko futbolarien geroz eta onarpen zabalagoak adierazten du nazioaren hautematean XXI.mende hastapenean ezinbestean aniztasunerantz eta integrazioerantz eginiko urratsa.

Alemaniarren jatorriko futbolariak ez ezik, Turkia, Albania, Espainia eta Cabo Verdeko aitzineko futbolariak elkartu ziren Suitzak 2010eko Munduko Kopan izan zuen osieran. Alemaniaren adibidea bereziki nabarmentzekoa da nazio nortasunaren bultzadari lotuta, nazismoaren erabilpenetik 2006ko Munduko Koparen herri edo nazio ospakizuneraino.

3.3.1.9-Belgika eta Herbehereetan futbola integrazio erronken isla

1988ko Alemaniako Europako Kopan Herbehereek etxeko taldeari final erdian 2-1 irabazi ziotenean Bigarren Mundu Gerrako askapenaren ondorengo herri adierazpen jendetsuena izan zen Holandako karrketan. Futbolaren eta politikaren lotunea munduan zehar nonahi epaitu duen Simon Kuper kazetariaren hitzetan, alemaniarren aurka nazien okupazio garaiko oroitzapenak berragertu baziren ere, eta zentzu horretan Van Bastenek sartutako bigarren golak Bigarren Mundu Gerrako trauma sendatu zuela ondorioztatzea tentagarria izan daitekeen arren, bi nazio selekzioen arteko futbol neurketa baino lehen nazien gomuta gizartean neurri batean ahaztua zen (Kuper, 2012a: 34). Bi nazio taldeen arteko futbol norgehiagokak areriotasun handikoak ziren aldi horretan, Kuperren ahotan Europako talka handienekoak, eta arrazoizkoa da pentsatzea bi herrialdeen arteko iragan gatazkatsuari erreparatu ziotela holandarrek aurkaritza nabarmentzeko, eta euren aberri aldeotasuna futboleko kaleratzeko. Christian Brombergerrek ohartarazten duenez, oker egongo litzateke behatzailea hitzez hitz hartuko balitu zaleek haizatzen edo oihukatzen dituzten ikur edo mezu muturreko iraingarriak. Etsaigoaren sumindura ez da eratoritzen bakarrik orainak bizitutako iraganeko gorrotoetatik, baita jarraitzailearen arrazoibidetik, zeinak arerioa behertzeko zernahi erabiltzean datzan. Neurrian hartu beharrekoak dira horrenbestez, identitatearen baitako mezuak (Bromberger, 1998: 75, 106), baina inondik ere ez dira horregatik garrantzia murriztekoak, gutasuna eta aurkaritza azaltzen dutenez.

Europaren bihotzean, UEFAk 2000. urteko Europako Kopa atontzeko Belgikaren eta Herbehereen biko antolakuntza hobetsi zuen, Europako futbol erakundeak eta FIFAk oro har aurrerantzean hartuko zuten joeraren berri emanez. Hein batean etsaitutako edo historian barrena hala nolako harreman gatazkatsuak izandako herrialdeak adiskidetzeko baliabidea mahaigaineratzen du futbolak elkarrekiko ekitaldiaren harreraren bitartez, eta Belgika Herbehereetako erresumaren mendean izan zen aroari baikortasunez behatzekoa

bi herrialdeoi dagokienez. Luxemburgorekin batera Benelux deritzon ekonomia batasuna osatzen dute bi herrialdeok gaur egun, eta futboleant ere behinolako batzea aldarre onean oroitara zi zuten ildo horretan. Futbol txapelketak ahalmena dauka iraganeko aurkaritzak berreraiki eta nazio nortasun zentzu ezberdina sustatzeko, lehiatzen den nazio bakoitzari dagokionean, eta Belgikak eta Herbehereek barne zatiketak agertu izan dituzte inondik ere, nazio taldean nahiz etxeko txapelketetan islatzen direnak. Estatu berean bizikidetzaz ailean dauden Valonia eta Flandriaren arteko muineko banaketa batetik, eta askotariko etorkinen integrazioa bestetik. Bigarrena Herbehereen barne arazoa da, Belgikan antzera ere adieraz litekeen arren, baina Belgikan areago estatuaren zilegitasuna ere kolokan da. Belgikako selekzioak ez zituen islatu 1990eko hamarkada arte gizartean txertatu ziren immigrazio oldeak. Hain justu, orduan hartu zuen lehenengoz Kongoko kolonia ohitik joan zen immigrazioa nazioaren ordezkartizat. Mbo eta Emile Mpenza anaiak, Bruselan jaiok izaki, Kongoko jatorria zutenak izan ziren estreinakoak (Poli, 2004). Horrez gain, Belgikako epe hartako jokalaririk ospetsuena, Enzo Scifo erdilaria, italiar jatorrikoa zen.

Ingalaterrako 1996ko Europako Kopan argia egin zen Herbehereen nazio taldeko arraza banaketa. Jokalari beltz eta zurien artean jokoan komunikazio falta ikusarazi zen, alegia kolonietan beren sendiaren jatorria zeukaten arraza beltzekoen eta besteen artean (Kassimeris, 2009b: 1330), eta gizarteko integrazioaren gaitza futbol zelaian ikusarazi zuten bide batez. Izan ere, azken urteetan eskuin muturreko alderdien hazkundeak eta etorkinen kontrako diskriminazioa areagotu izanak bizikidetzaz arazoan berri eman dute. Edgar Davids Surinamen jaiotako erdilariaaren ahotan ildo horretan, 1996ko txapelketan jokalaria beltzek ez zuten taldearen joko ardatzei eta taktikei buruz eginiko eztabaidetan parterik hartzen. Adierazpenon ondotik Guus Hiddink hautatzaileak lehiaketa horretatik kanporatu egin zuen Edgar Davids. Bestalde, nazioaren ikuspegi nagusia islatzen duen selekzioaren hamaikakoaren osaeratik harago, eta futbolak Herbehereetako nazioarekin duen loturari jarraiki, iraganetik orainaldira, multzo laranjaaren eta Alemaniaren arteko partidek oihartzun berezia izan dute futbolaz kanpoko gertaerak direla medio. Izan ere, Alemania nazitik ihesi joandako lagun ugari Herbehereetan gotortu ziren, eta 1970eko hamarkadan NBE Nazio Batuen Erakundeant Israelgo herrialde juduaria babesik handiena eman zion Europako estatua izan zen Herbehereena. Horrez gain, futbol neurketan ere aurkaritzaren tamaina are gehiago gorpuztu egin zuen Alemaniak 1974. urteko Munduko Koparen finalean holandarren *laranja mekanikoa* garaituta. Herbehereetan sona gehien duen taldea ere, Amsterdamgo Ajax, judutarren kluba bailitzan definitu izan da usadioz,

horrela hauteman izan dute denek, hastapenean lehen jarraitzaileak juduen burgesiako kideak baitziren, eta Bigarren Mundu Gerran judutar asko, Jaap Van Praag etorkizuneko presidentea barne, bizirauteko babestu zituelako. Bada, multzo jakin batekin uztartutako talde nortasunaren adurrak garrantzia handiagoa hartuko zuen 1945etik aurrera. Taldeari dagokionean, beste talde askotan bezala, kanpotarren harrera nolakotasuna eztabaidagai duen arazoaz gain, mende aldaketarekin batera klubak bere barruan burututako merkatu egokitzapenek eta zaleen atxikimenduen zalantzek zeresana eman izan dute herrialdean.

Jarraitzaileek normalean hunkipenezko lotura handiagoa izan ohi dute oro har beraien futbol klubarekin, bertako zuzendaritzako buruek negozio ikuspegiarekin hartu beharreko erabakiekin beti bateragarria ez dena. Bi alderdion arteko desadostasun horri Ruud Stokvisiek iritzi dio identitatearen erretorika bailitzan definitzen duena hazteko baldintza garrantzitsua dela. Zaleek beren klubaren benetako izaeraren – identitatearen – eta zuzendaritzak hartutako politika erabakien artean ezberdintasuna nabari dutenean erabiltzen dituzten argudioei dagokio erretorikak (Stokvis, 2008: 497). Ruud Stokvisen esanetan, Ajaxek eta bertako txapelketak orokorrean, Bosman Legeari jarraiki, geroz eta atzerritar gehiagori harrera egin zion arren, Ajax estadioz aldatu zen arren, eta taldearen agintariak errentagarritasun ekonomikora bideratutako erabakimena indartu bazuten ere, taldearekiko jarraitzaileen atxikimendua ez zen urratu, jarraitzaile kopuruan bederen ez. Nolanahi ere, jokalaria ohiek eta zaletuek taldearen ustezko identitatea bermatu asmotan eginiko presioak uzta eman zuen, eta zuzendaritza kontseiluaren buruak dimisioa eman zuen. Adidas arropa egileak taldeen elastikoetan bere egikaritzaren adierazletzat ezarri ohi dituen hiru marrak Ajaxen elastikoan ez jartzea onartu zuen, tradizioaren mesedetan.

Belgikan futbola eta nazio nortasunak elkar gurutzatzen dituen auzia estatuaren izaeraren tamainakoa da bi komunitateen arteko talka hertsia oroitarazita, XXI.mendeko lehen urteetan estatuaren agintaritza ere kolokan jarri duena. XX.mendearen hasieratik frantziar jatorriko eliteak hartu zuen Belgikako futbolaren hegemonia, eta Lehen Mundu Gerra amaitu arte ez zen hasi Flandriako lurretan kirolaren zabalpen bizkorra. Erantzuna eman nahirik frantziar eliteak futbol elkargoa erakunde zurruna bihurtu zuen, frantziar hizkuntzan eta ikuskeran oinarritutakoa, eta flandiarrek hartara euren federazioa atondu zuten, flandriar klubekin osatua. Belgikako federazioak eta FIFAk baztertu egin zituzten bertan murgildutako klubak, eta Valoniatik bereiztea helburu zuten alderdi politikoekin edukitako loturek azkenerako areago bakandu zuten. Hortaz, Belgikako elkargoa bitan

banatzeko hautuak porrot egin zuen, nazio taldera bi komunitateetatik doazen jokalarien kopuruak eztabaida pizten jarraitzen duen arren. Belgikan *Deabru Gorrien* nazio taldea erregetzarekin batera herrialdean egiazki komuna eta baterazlea den osagai azkenetakoa da Pascal Boniface nazioarteko harremanetan adituak dioena ontzat emanda (2002: 72). Herrialdea flandriarren eta valoniarren arteko zatiketak larriki erasaten duen bitartean, luzaroan gobernu osatzea galarazi izan du, futbolak belgikar erresumaren batasunezko azken mugarrietako bat izaten jarraitzen du. Futbol elkargoa nazio mailakoa da oraindik ere, beste hainbat kirolen kudeaketa valoniar eta flandiar federazioen artean banatu den bitartean.

Nazio taldeak berebiziko ekarpena bete izan du banatuta den estatua bermatzen, baina ezinbestean herrialdean agerikoa den banaketa plazaratzen du era berean. Halaber, Belgikako gizartean atzerritarrak integratzea egiteko konplexua da oraindik ere, kirolean giroa adeitsuagoa izanagatik. Estatu modernoan mantentzen diren ikuspegi nazionalista indartsuek, integrazio bide orori erronka botatzen diote, eta herri eta nazio agintarien xedeak zaildu Christos Kassimerisen hitzetan. Futbol jokoa ezagun da nazio eraikuntza errazteko eta gizartean jende guztia txertatzen laguntzeko dauzkan dohainengatik. Hala ere, Belgikan futbol estadioak gizarte ikuspegi onartezinak sarri adierazten eta elikatzen diren politika eremuak bihurtu dira horrez gain (Kassimeris, 2009b: 1333). Gizartearen isla dira inondik ere harmailak, selekzioaren osaera nazio ikuspegi nagusien agerpidea den bezala. Belgika eta Herbehereetan argi dago Kassimerisi jarraiki, nazio taldeek ere ez dutela lortu euren gizarteak haragitzen dituzten zatiketatik ihes egitea. Arrazen arteko tentsioak azaltzen du sarri Herbehereetako nazio taldearen jokalarien lotura; banaketa etnikoek islatzen segitzen dute *Deabru Gorrien* osaera Belgikan (Ibid., 1334). Batasuna burutzeko aski ez izanak, ez du adierazi nahi, ordea, kontaketa egituratu denari jarraiki, futbolaren eta nazio taldearen eragina edota oihartzuna Belgikako nahiz Herbehereetako nazioetan gutxienekoa denik. Talde eta nazio nortasunen isla da, gatazkarena ere hortaz.

3.3.1.10-Futbolaren sugarrak hartutako Italiako nazio nortasuna

“Inoiz ez naiz partida bat galdu ondorenean hain zoriontsu izan. 11 gizakiri bizia salbatu diet. Esan didate italiarrek partidaren atarian *irabazi ala hil* zioen Mussoliniren

telegrama jaso dutela. Eta irabazi egin dute” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 27). Antal Szabo Hungariako taldeko atezainak 1938ko Frantziako Munduko Koparen finalean 4-2 galdu ondoren eginiko adierazpenak dira horiek. 1920ko hamarkadan boterea hartu zuen erregimen faxistak futbolari esleitu zion egiteko garbiaren adierazgarriak dira futbolari italiarren gainean ezinbestean gailen zitezen ezarritako mehatxuak. Adolf Hitler agintari naziaren antzera Benito Mussolini ere ez zen inolaz ere sortzezko futbol zale amorratua, baina hiritarrak limurtzeko dagoeneko eskaintzen zuen egokieraz konturatu zen edonola ere. Italiarrak 1920ko hamarkadan abiatuta futbolari atxiki zitzaizkion sugarra baliatuta, barnean nahiz kanpoan indarraren bitartez ziurtatu ezinezko zilegitasunaz hornitu nahi izan zuen faxismoa. 1934. urteko Munduko Koparen antolakuntza bere egiteko ahalegin guztiak egin zituen ildo horretan Italiak. Futbol ekitaldiaren harrera nahi zuen Suediak hautagaitza bertan behera utzi zuen azkenean, amore ematearen arrazoirik adierazi gabe. Litekeena da faxismoaren kanpo presioen uzta izana. Nahiz eta Europa bi guden arteko krisiaren hondamenak jota zegoen, Mussolinik historiako Munduko Koparen bigarren ekitaldia hartzeko eta balizko galerak estaltzeko FIFA asetzeko moduko finantziazio oro hitzeman zuen. Robert S.C. Gordonek eta John Londonek azaltzen duten gisara, inondik ere bere bihotzean faxismoa mugimendu nazionalista zen, eta iraganeko handitasuna – hots, erromatar inperioarena eta italiar Errenazimentuarena – berrezarrit Italiako nazioa goratzeko bitarteko oro baliatzeko gertu zegoen, nazioarteko potentzia izaeraren zantzu modernoak – Inperioa – bereganatuz, eta Europako arerioen estatusa parekatuz. Kirolak atzerrian nazioaren aintza sustatzen eginkizun giltzarria beteko zuen, batez ere 1930eko hamarkadan (Gordon eta London, 2006: 43). European Erresuma Batuko kirola gainjarri aurretik gimnasia zen XIX. mende bukaeran nazio nortasunarekin lotu zen kirol aldaera. Italian, gizonezko gazteentzat ariketa militarren aurrekoa bailitzan hobetsi zen gimnasia, eta gogotsuki sostengatu zuten indarrerako eta nazioaren batasunerako nazio sugarraren parte bailitzan (Teja eta Impiglia, 2003: 139). Hala, ariketa fisikoak egiazko nazioaren eta zuzenbidezko nazioaren arteko banaketari, eta iparralde eta hegoaldearen artekoari aurre egiteko zeregina zuen, eta nazio batasunerako nazio adierazpena eraikitzekoa.

XX. mende hasieran txirrindularitza bilakatu zen italiarren kirol gogokoena, eta urteek aurrera egin ahala futbolak bere izaera aldatu zuen. *Calcio* deiturarekin izendatu zuten italiarrek futbola Florentziako Errenazimentuko jokoaren deitura hartuz, eta soilki Britainia Handiarekin eta atzerriko beste herrialdeekin lotura zuten gizarte klase altuko ikasle eta merkatarien jokoa izatetik langileen babesa jaso zuen Lehen Mundu Gerrako

atariko urteetan. 1910ean nazio taldeak lehen aldiz jokatu zuen, eta hiru urte soilik igaro zirela, 18.000 lagunek ikusi zuten Italiak Belgikaren aurka Turinen jokatutako neurketa. Urte horietan ez zen *calcio*-a jendetzarik handienak bateratzen zituena, txirrindularitza lasterketak baizik (Teja eta Impiglia, 2003: 141). *Gazetta dello Sport* egunkariak sortu zuen Italiako Giroa Parisko *L' Auto* kazetak Frantziako Tourrarekin egin zuen antzera. salmentak berpizteko. Lehen Mundu Gerra ondoren, gimnasia aldaerek garrantzia galdu zuten Erresuma Batuko kirolak erabat gailendu ziren bitartean, bereziki herrialdeko ipar eta erdialdean. 1920ko hamarkadan futbola zoramenak hartu zuen. Estadio erraldoiak altxatu zituzten, partidetan ehunka mila ikusleren emaria hartzeko. *Tifosia*-k, italiar zale sutsuak, jaio ziren. Futbol Federazioak ligak antolatu zituen jadanik Italiaren osotasuna barnean hartzen zutenak. Futbolak txirrindularitza gainditu zuen negozio gisara jokalaria multzoagatik eta asteburu oro elkartzen ziren zaleengatik, eta berehala zaleen bihotzean barneratu zen. Italiako erregimenak futbola bezalako jarduerak bere borondatez indartu izanak partekatutako identitatearen tradizioa asmatzea zuen jomuga. Horrela, erregimen faxista futbol estadioen eraikuntza masiboa laguntzen hasi zen (Benoit, 2008: 541).

Bereziki 1930eko hamarkadan hasiz erabat nazionalista zen kirol politika atondu zuen erregimen faxistak, kirolaren bidez nazioaren sona ziurtatu nahi zuena. Italiarrek nazioarteko lehiaketetan ahalik eta domina gehien eskuratu behar zituzten beste nazioei agertzeko faxismoa arrakastatsua zela, eta Italia nazio dinamikoa eta modernoa halaber. Gobernuak inbertsio eskerga burutu zuen kirolarien prestakuntzan, eta Bigarren Mundu Gerraren atarian herrialdeko kirolarien urrezko aroa izan zen. Bi hamarkada beranduago SESBen eraginpean ziren ekialdeko Europako herrialdeek Moskuko agintearen eredu islatuz gailentasun adierazpenaren bila kirola erabili zutenekoaren aurrekaria litzateke Italiakoa. Esan nahi baita zernahi kosta kanpokoei jarkita nagusitasuna agertzeko grina. Xehetasun denak behar bezala zaintzeko Benito Mussolinik 1934ko Munduko Koparen antolakuntzaren ardura osoa hartu zuen. Txapelketa guztia zehatz-mehatz begiztatutako ekimen politikoa izan zen. Hala ere, hein batean ekitaldiaren bilakaerak faxismoaren eta bere sinbolo den balizko ustiapenaren mozarrotzea galdegiten zuen, aldi berean italiar publikoari lehiaketaren irudi faxista aurkezten ahalegintzen ziren bitartean (Gordon eta London, 2006: 47). XX.mendearen hastapenean sustraitu ziren kirol egunkarien ostean, 1930eko hamarkadan iratiari bultzada eman zion erregimenak, eta 1933an Alemaniaren aurkako partidaren zuzeneko estreinako emankizuna burutu ondoren, Munduko Koparen inguruan bere erabilpena gizartean barreiatu zen. Italiako ekitaldiaren karietara gainera,

lehen aldiz nazioartean saldu ziren irrati eskubideak. Hedabideek nazioaren aintzarekin berdindu zuten selekzioaren garaipena, eta nazio loria Mussoliniren parte-hartzearekin. Nahiz eta 1861ean elkartu zenetik Italiako erreinuak eta estatu nazioak ibilbide laburra egin zuten, nazio taldearen partidak ikustera bertaratzen zen jendeak “Italia” oihukatzen zuten aldiro, nazioaren imajinazioa sustraitua zen adierazgarri, eta hori gehiago irmotuz.

AEB Ameriketako Estatu Batuen aurkako lehen partidari 7-1 irabazi zuten Italiak, eta futbolari estatubatuarrek italiarrek batera agur faxista eginez ohoratu zuten *duce*-a eta haren agintea zilegitu bide batez. Epaileen alderdikeriari eza ezbaian izan zen final laurdenetan Italia Espainiari gailendu zitzaion partidatik hasita. Bana egin zuten gero, biharamunean berriro errepikatu zuten dema bi nazio taldeek. Bi partidetan Espainiaren gol bana baliorik gabe utzi zuten epaileek, eta bigarren 1-0 irabazi zuten Italiak. Hori zuzendu zuten Rene Mercet epaile suitzarrak bere elkargoak betirako kargutik kendu zuten lehiaren ondoren. Finalerdietan txapelketako faboritok zuten zain Mussoliniren mutilek, Austria arrakastatsua. Hura ere gainditu zuten, ustez jokoz kanpo argian sartutako golaz hobaria lortuta. Agintariak bere bi semeak bidali zituen Italiaren eta Espainiaren arteko bigarren partida zuzenean Florentzian ikustera, eta Italiaren eta Austriaren arteko talka ere ez zuten jarraitu Milanen. Erroman Txekoslovakiak Alemaniari 3-1 irabazi zioneko neurketa ikustea hobetsi zuten. Estadioko bozgorailuetan partida hori amaitu baino lehen iragarri zuten Italiaren garaipena, eta jendetza Mussoliniren ingurura txaloka hasi zen. Hedabideetatik partidak gerrarekin eta nazioaren etorkizunerako mugarrarekin parekatu zituzten, gaur egungo hedabideetan, bederatzi hamarkada eta hainbat gizaldi igarota ere, egin ohi duten moduan. Nolanahi ere, faxismoarekin erabat lerratutako kazetentzat ere ezina izan zen estadioetako harmailen hutsuneak kontaktetan estaltzea. Hedabideentzat, partidetak bertaratutako zalegoak ez zen kirolarietako hauspoa emateari zegokionez bakarrik parte-hartzailea, alegia kirol eremuaz gaindiko ekitaldian txertatuta zeuden. Egunkariak lau haizeetara barreiatu zuten *Duce*-ak lehiaketa hasi aurretik herrialde aurkariengandik erregimenarentzat eta harentzat zilegitasun iturri gisara hartzen zituzten telegramak jaso zituela. Futbola nazioaren alde erabiltzeak bazituen mugak ere. Erregimenak italierazko esamoldeak sortuta eta erabilia bertakotzea helburu bazuen ere, hedabideek ingelesezko esakerak tartekatu zituzten sarri askotan kontaktetan, eta desiatutako izaera hori lausotu. Faxismoak kudeatu ezin izan zuena atzerriko hedabideen jarrera zen. Erresuma Batuko egunkari handienetako berri emailerik ez zen izan Italian ekitaldia jarraitzen, eta kazetek hartara aipamen murrizta egin zioten. Alemanian arreta piztu zuten nazio taldea finalaren

atariraino heldu zelako, baina Frantzian, adibidez, alderantziz gertatu zen hango taldeak lehen kanporaketan porrot egin zuelako. Italiako Munduko Koparen propaganda balioa horrenbestez hein handi batean murriztu zen Italiatik at (Gordon eta London, 2006: 56).

Final erdietan Italiari irabazten lagundu zion Ivan Eklind epaile suediarra berriz izendatu zuen Mussolinik Txekoslovakiaren eta Italiaren arteko final handia zuzentzeko. 50.000 jarraitzaile bertaratu ziren, eta horietatik asko alderdi faxistaren funtzionarioak ziren. Norvegiagokaren aurretik Eklind izan zen Mussolini agurtzera ohorezko palkora igo zen bakarra, eta horrek hein handi batean epailearen jarreraz ohartarazi zituen italiar taldearen arerioak. Hala ere, etxeko taldeak gailentzeko estuasunak izan zituen, eta hain zuzen ere, bertakotutako bi futbolari argentinar izan ziren irabazteko erabakigarrienak. Raimundo Orsik egin zuen berdinketa; eta Enrico Guaitak atondu zuen baloia Schiaviok bigarren gola, eta garaipena bermatu zuena, egin zezan (Ibid., 54). FIFAREN Jules Rimet Kopaz gain, garaileek hura baino sei aldiz handiagoa zen Duce kopa berezia bereganatu zuten garai ikur gisara. Faxismoaren agurra eginez epaileei ateratako argazkiak mundu osora zabaldu ziren txapelketaren zuzentasun eza nabarmentzeko. Alemaniak hirugarren postua eskuratu zuen hirugarren posturako partidari Austriari 3-2 gailenduta, eta taldeko kapitainak Mussoliniren eskuetatik jaso zuen zegokion saria. Alemaniaren eta Italiaren arteko hurbilpena lau egun geroago handiagotuko zen, Hitler lehen aldiz Mussolinirekin batzartzera joan baitzen lehenengoz Veneziara. Italiaren garaipenak herrialdearen irudia eta bere agintariarena goratzeko propaganda abagune aparta eskaini zuen eta erregimena losintzatzekoa. Txapelketa bukaeran, FIFAREN presidentek – Jules Rimetek – idazkari nagusiarekin egunero izan ohi zuen posta-trukean hau zioen: “Sentipena dut Munduko Kopa benetan antolatu duena ez dela FIFA izan, Mussolini baizik”. *Il Duce* ekitalditik indartuta atera zen, eta bere ospea nabarmenki hazi zen, zeinak balio izan zuen faxismoa hala nolako erlijio laikoa bihur zedin (Alcaide Hernandez, 2009: 26). Hala, erregimena arbuiatzen zuen jendearen inguruan ekitaldiaren aurkako ekimena egon zitekeen artean, baina ezin zuen inolaz ere oposizio gisa antolatua izan. Izan ere, 1934. urtea herritarren %99,8ak erreferendumean erregimen faxistaren aldeko botoa eman zuen urtea izan zela aintzat hartuta, oso zaila da ikusmolde hori antolatu zitekeen modua neurtzea, batez ere kirol ikusleen baitan (Gordon eta London, 2006: 58), usadioz esparru askeagoa denean.

Dena dela, oraindik bizirik dirau 1934ko Munduko Kopa zenbateraino izan zen ekitaldi faxista galdetzen duen itauna, erregimen faxistaren magalean gertatu hutsagatik

horrela definitzen duen adierazpenetik haratagokoa. Txapelketa ezin zen alderatu Italian ez nazio mailakoak ezta nazioartekoak ziren masa ekitaldiez, adibidez, 1934ko urriaren 28an, Munduko Kopa amaitu eta lau hilabeteetara hiriburuan ospatu zuten Mussoliniren jarraitzaileen Erromarainoko Martxaren hamabigarren urteurrenarekin. Areago, kirolari dagokionean ere, futbolarik txapelketak iraun zuen egun guztietan ez zuen publikoaren interes osoa menderatu: txirrindularitza lehiaketei – Italiako Giroari – eta Davis Kopari toki zabala eskaini zieten egunkarietan. Edozein modutan, 1934ko Munduko Koparen propaganda arrakasta ukaezinak azpiratuta izan dira. Futbol adituek ekitaldiaren izaera faxista behin eta berriro errepikatu duten arren, txapelketa faxismoaren gaineko historia kontaketatik kanpora mantendu izan da, baita erregimenak herri kulturaren eta gizarte erritoetan eduki zuen eraginari buruz diharduten behaketatik ere (Ibid., 59). Robert S.C. Gordonen eta John Londonen esanetan, analisi sakonagoa beharrezkoa da ekitaldiaren izaera politikoa ebatzi ahal izateko, baina Italia faxistaren erretratuaren adibidea ematen du edonola ere, nazioarteari nahiz barnealdeari begira ere. Nazionalismoak kirol batean aparatu politikoaren parte-hartzearen eragile gisa ez zuen hurrengo ekitaldietan 1934an Italia faxistak esleitutako zereginaren parekorik izango bestalde, Mariano Solivellasek tesian azaldutakoari jarraiki: “Erregimena kontrol eta ikuskapen beharretara mugatzetik oso urrun egon zen, hain justu kontrakoa eginez ekitaldia bereganatu zuen, oro har jada begirune gutxi zuen kirolaren eta politikaren arteko banaketa ziurtatuko zukeen edozein arau hautsita” (Solivellas Aznar, 1981: 89). Italiak 1940ko Olinpiar Jokoak antolatzeko guraria aurkeztu zuen, eta 1944koak hitzeman zizkioten arren, gerrak zapuztuko egingo zuen faxismoaren ordezkartza egarria eta kirolean ezarritako gailentasunezko erronka.

Italiako hedabideek 1938an nazio taldeak Frantziara lortutako Munduko Kopa ere baliatu zuten erregimenaren aintza egiteko. 1937an Frantziaren aurkako adiskidantza partida jokatzeari uko egin zion nazio taldeak Mussoliniren aginduetara, Leon Blumek zuzendutako ezkerreko gobernuari kaltea sorrarazteko. Italia faxistatik ihesi joandakoei babesa eskainia zien Frantziak. Horren ondorioz, eta faxisten ohiko alkandora beltzekin estadioko jendetzaren aurrean agur faxista eginez agertu zirenean, frantziarren txistuak jaso zituzten italiar jokalariek. 1939ko uda amaieran Bigarren Mundu Gerra piztu baino aste batzuk lehenago italiarrek ingelesak hartu zituzten Milango futbol zelaian. Naziekin egin zuten moduan, ingelesek agur faxistarekin ohoratu zituzten italiarrak ere, bi herrien arteko adiskidantzaren adierazpen irrika gisara. Propaganda kolpe giltzarria bailitzan joa da ingeles taldearen diosal faxista (Gordon eta London, 2006: 43). Horiek hala, futbol

jokoan ez ezik, txirrindularitzan ere agerikoa zen ekimen politikoaren eragina. *Ciclisti Rossi* zeritzen taldeak sortu ziren hainbat hiritan esaterako, kirola hegemoniaren bilako borrokaren alderdia zela begiztatzen zuen erlijioeko ekimena alegia. Katolikoek kirolaren aurkako luzaroko aurkaritza baztertzeko urratsa egina zuten. Horrenbestez aurrerantzean ez ziren klase eta nazio alderdiak izango txirrinduaren gainean borroka egiten bakarrak, katolikoek ere kirolaren ahal politikoa aitortua zutenez (Jarvie eta Maguire, 1994: 118). Abiatze aurreiritziak alboratuta bizikletaren erabilpena bizitu zuen Eliza katolikoak, eta Gino Bartali txirrindularitza txapeldun handienetakoa mito bihurtu. Hala, Fausto Coppi txirrindulari loriatsu komunistarekin etsaigoan goratu egin zuten. Toskanako txapelduna zeruetara igoarazi izanak Italiako 1940ko hamarkadako giro politikoarekin lotura irmoa du. Horren lekuko da Bartalik 1948ko Frantziako Tourrean lortutako garaipena Togliatti buruzagi komunistak Italiako agintea hartzeko eginiko saioaren hurrengo egunetan jazo zenean, Bartaliren garaipena lehen orrian jarri zuela prentsa katolikoak, eta ama lurraren salbatzailetzat hartu zutela. *Azione Cattolica* egunkariak hari egotzi zion pedalei eragite hutsaz iraultzaren arriskua ekidin izanaren merezimendua (cfr.Ibid.).

Futbolak nazio batetik bestera jarraikortasun oso ezberdina eduki zuen Bigarren Mundu Gerrak iraun zuen bitartean. Ingalaterrak adibidez lehiaketa denak bertan behera utzi zituen gerrarako soldaduen beharrianak eraginda. Bestalde, Italiak esaterako, ahal izan zuen arte eutsi zion lehiaketari, hain justu 1944an faxismoa jausi, eta alemaniarrek herrialdea mendean hartu zuten arte. Propaganda xedeetarako txapelketak jarraitu egin behar zuela ebatzi zuten faxismoak. Jokalari profesionalak ez zituzten gerrara deitu, eta nazioarteko lehiak jarraitu egin zuten hartara, Mussoliniren erregimenaren kideak ziren herrialdeen futboleko ordezkarietekin, beti ere. Ante Pavelicen Kroaziaren eta Francisco Francoren Espainiaren kontra jokatu zuen Italiako nazio taldeak 1943an gerran amore eman baino lehenago. Gerra osteko giro gorabeheratsuan ere ez zen futbolarenugarra itzaliko. Askorentzat gerrak azpiratu eta zatitutako italiar nazio harrotasuna agertzeko gotorlekua zen kirola (Dietschy, 2010: 237). Futbolaren eragina ezagutzeko aipagarria da hedabideen portaera nolabait epaitzea. 1965eko abenduaren 7an Italiaren Eskoziaren kontrako garaipenaren biharamunean *Corriere della Sera* aldarte serio eta zuhurtziazko egunkariak lerroburu handiekin kontaketa orri ugari hornitu zituen, eta futbolari italiar baten hitzok nabarmendu zituen: “*Azzurri come leoni nella battaglia*” (Meynaud, 1972: 248). Esan nahi baita hark urdinez jantzitako futbolariak gudako lehoiak bailiran agertu zituela, eta baita kazetak islatu ere. 1966ko Munduko Kopan Ipar Korearekin galtzearen

ondorioz lehiaketatik kanpo gelditu ondoren legebiltzarkideen asaldura sorrarazteraino heldu zen italiarren atsekabea. Milioika herritarren izen ona zikindu zuen selekzioagatik Gobernuari azalpenak eskatu zizkieten legebiltzarkideek (Cerrato, 2001: 46). Asaldura zoramena bihurtu zen 1982an. Espainian jokaturako txapelketan hirugarren Munduko Kopa eskuratu zuen nazio taldeak Enzo Bearzoten gidaritzapean. Mussoliniren aginteak ezaugarritu zituen behinolako garaipenak gaurkotu zituen hartara. Nazio harrotasunezko olatuak hartu zituen italiarrak. Marion Cerratok ikerketa lanean esandakoa aintzat hartuz gero, Italian nazionalismoa ahula da, faxismoa hondoratu ostean aski ezereztutakoa, eta ondorengo katolizismoaren eta komunismoaren mundu ikuskera kontrajarrien neurketan bateratu ezina: “Gaur egun nazio izpirituak bizirik iraundako alderdi soila kirol kazeten orrialdeak dira” (Ibid., 47). Nahiz eta nazio taldearen garaipenak italiar gehienek beren egiten dituzten, ospakizunak amaitutakoan patriotismo aldarrikapenak iraungitze laburra dutela arrazoitzen du Cerratok. Oroitzapen kolektiboen gabezia duen herrialdearentzat ez da gutxiestekoa nolana ere futbolak eragindako bizipena. Horrez gain, 1990. urteko ekitaldiaren antolakuntza hartu izanak Italiako nazio nortasuna bateratu zuen, ohi denez.

1984. urtean Diego Armando Maradona argentinarrak Bartzelona utzita Napoliko taldearekin kontratua hitzartu zuenean mende batez txapelketarik lortu ez zuen taldearen emana irauli zuen. “Maradonari eskerrak hegoalde ilunak azkenean bera mesprezatzen zuen iparralde zuria makurtzea erdietsi zuen” (Galeano, 2003: 234). Aberastasun mailei jarraiki, Italiako futboleko iparraldeko taldeak hegoaldekoei gainjarri ohi zaizkie, baina izarraren dohainek ohiko bilakaera aldatu zuten, eta baita Italiako hegoalde txiroagoaren harrotasuna berpiztu ere Napoliko taldearen balentriaren bidetik. Milanen gorroto zuten oro har iparraldearen nagusigoa eten zuen izaera jainkotiarreko futbolariaren ekarpena, eta 1990eko Italiako Munduko Kopan Maradonak baloia ukitzen zuenean txistu egin ohi zioten hainbatek. Italiaren garaipena bailitzan ospatu zuten argentinaren finaleko galera hartara. Napolitik joatea erabaki zuenean lehen jainkotu zutenek ere baztertu egin zuten.

Italian bi talde handi bizikidetzan dauden hiri handietan klub bakoitzari futbolaz gain hiria eta historia hautemateko kontrajarritako irizpideak esleitzen zaizkie. Genoako Sampdoriak, Milango Interrek, Erromako Laziok eta Turingo Juventusek hiriko deitura ezkututzen dute izendapenetik eta hiritik kanpoko futbolzaleen atxikimendua bereganatu ohi dute. Bestalde, Genoak, Milanek, Erromak eta Torinok hurrenez hurren, izendapena ere bidelagun hartuta nortasuna hirikoari hertsiki uztartuta dute. Gainera, gizarte klaseen

baitakoa ere bada alderaketa. Hala, hiriburuan usadioz Erroma beharginek sostengatzen duten bitartean, Lazio taldea aristokrazia eta burgesiako kideek babesten dute bereziki. Torinon halaber, langileak zorigaitzoko Torino taldearen aldekoak dira, eta Juventusen loria aberatsenekin uztartua da. Bada, hiriguneaz haratagoko talde nortasun ordezkariak egin ez ezik mundu ikuskeraren arabera giza taldeak zatitzen ditu futbol atxikimenduak.

Horrez gain, Milanen, Silvio Berlusconi enpresa gizonak Milan futbol taldearen jabetza hartu, eta oroz gain Amsterdamgo Ajaxetik ekarritako Herbehereetako jokalaria onenen dohainak baliatuta 1989an eta 1990ean Europako Kopa irabaztera eraman zuen taldea. Garaipenezko irudia barreiatuta politikarako igarobidea egin zuen Berlusconik futbolaren jauzi-oholetik. FI Forza Italia izeneko mugimendu politiko berria sortu zuen 1993ko abenduan – *azzurra* taldeko partidetan italiar zaleek oihukatzen duten deiarra errepikatzen zuena – eta Liga Norte erregio izaerako alderdiarekin eta Alianza Nacional neofaxistarekin bat eginda PL Polo de la Libertad izeneko multzoa hitzartu zuen 1994ko martxoko Legebiltzarrerako bozetara elkarrekin aurkezteko. Publitaliak lagunduta, hots, bere enpresa multzoko partaideak sostengatuta buru eman zion hauteskunde estrategiari. Bere leloa sinesgarria eta biribila izan zen: “Italiar egingo dugu Milanez egin duguna”. Berlusconik ezagun zuen talde *rossonero*-ak kirol garaipenei esker eskuratu zuen ospea: “Jendeak Italiar oroitzen duena, mafiaren eta pizzaren ostean lehenik burura datorkiena, Milan da” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 71-72). Eskuindarren itunak Legebiltzarrean gehiengo erdietsi zuen, eta Milan futbol klubeko enpresa burua lehen ministro izendatu zuten estreinakoz Italian 1994ko maiatzean. Futbolak hedabideen bitartez italiar askoren bihotzean sortutako diridira baliatu zuen Berlusconik hein handi batean agintea hartzeko.

Areago, Italiako gizarteak oro har futbolarekin duen harreman kartsuak, mundu zabaleko beste hainbat egokieratan gertatu ohi denez, joko eremuaren hertsitasuna luzaz gainditzen du, eta politikarien eta baita Elizaren hizpide bilakatu ildo horretan, gizartean irmo sustraitutako auzia dela aditzera emanda. Juventus eta Milango Interren arteko 1998ko apirilaren 30eko partida azaldutakoaren adierazgarria da. Vaticanoko iratiaren bozgorailua baliaturik Fiorenzo Angelini kardinalak esan zuen Iuliano Ronaldori egin zion falta itsu batek ere ikusiko zuela. Epaileak penaltia adierazi ez izana erabakigarria izan zen partidaren eta baita txapelketan ere, denboraldia amaitzeko hiru jardunaldi eskas falta zirelako. Milango Interren aldeko penaltia adierazi ez eta itzulerako kontra erasoan Juventus aldea ebatzi zuen, eta Interrekoen asaldura zela eta Milangoen jokalaria bat

kaleratu. Hori horrela, Alianza Nacional alderdiko legebiltzarkide Domenico Gramaziok epaileei leporatu zien Juventuseko jabea den FIAT auto enpresaren aginduetara zeudela. Massimo Mauro ezkerreko legebiltzarkideak, eta Juventuseko jokalaria ohiak, haserretuta ihardetsi zion berak ere FIATengandik eskupekoak jaso zituela iraganean. Iraina gehitu zuen gero, eta horrek Gramazio etsai politikoari oldartzera sustatu zuen. Legebiltzarreko langileen hartuemanak eragotzi zuen hedabide denen begiradapean bi legebiltzarkideen arteko borroka gertatzea (Ramonet, 1999b: 12). Futbola Italiako lehentasunezko gizarte auzia dela adierazten du politikarien jokabideak, legebiltzarkideengan deitoragarria den odol beroa plazaratzeaz gain.

Italiako futbola Europan oro har agertutako jokoaren adierazpideetatik ezberdina da. Lehenik, herri patriotismoa – *campanilismo* deritzona – agerikoa da beti mende bat lehenago bakarrik bateratutako herrialdean. Politiken eta arteen baitako era antzerakoan, futbolak nazioan artegak sortzen eta barreiatzen jarraitzen du, eta abagune amaigabeak ematen ditu herri harrotasuna eta chauvinismoa agertzeko (Biasi eta Lanfranchi, 1997: 88). Rocco de Biasi eta Pierre Lanfranchik diote Mendebaldean inon baino gehiago nabari dela Italian politika eta futbolaren lotura, kirol alorrean lehen urratsak egindako politikarien adibideak tarteko. Ez da noski adierazle bakarra, ordea. Italian, estadioetako eremuetan – *curva* edo bihurguneak deritzonetan – osatutako elkartzeko mota bereizgarriak egiten die erreferentzia neurri handi batean politikaren eraginak. Horrela, Erromako bi talde nagusien zalegoari kutsu politikoa dario hein handi batean, bi klub horietako talde neofaxistek jarraitzaile ultrak kontrolpean baitituzte, eta eskuineko muturreko ideologia lehentasunezko futbol erreferentziekin hedatzen baitute. Ildo horretan, sinbolo eta talde nortasunei jarraiki, Milango Interren bigarren elastikoak asaldura adierazpenak sorrarazi zituen 2007an Turkiako Fenerbahçe taldearen aurka jokatu zuenean. Tenpluko zaldunen ordena erlijiosoak gurutzadetan musulmanen aurka borrokatzen zutela erabilitako ikurra oroitarazten zuen futboleko elastikoak, eta erlijio baten gailentasuna irudikatzen zuenez gero, Milango Interri zigorra jartzea eskatu zuten Turkiako hedabideek. UEFAk, ordea, ez zion Interri ezelako zigorrik ezarri. Italiako hedabideei dagokienez, 2006ko Munduko Koparen emankizunak harpidetza telebista kateetara igaro ziren, baina Gobernuak nazio interesaren mesedetan legez bermatu zuen Italiako taldearen garaipeneranzko ibilbidea irekian jarraitu ahal izan zedila. Italiak penalti jaurtiketetan erdietsi zuen bere laugarren Munduko Kopa nazio nortasuneko sentipenen kitzikagarri. Ezker eta eskuineko talkaren

irmoa eta iparraren eta hegoaren langaren tinkotasuna igaro zituen nazioaren taldearen balentriak. Munduko Koparen handitasun globalean denak italiar izaerak elkartu zituen.

Kirol mugarriaren ondoren, Frantziakoen pare hein batean, Italian ere kanpoko jatorriko jokalariei buruzko eztabaida berpiztu egin zuten eskuineko alderdiek, estatuko lurraldean jaiok ez ziren futbolariak nazio taldera ez deitzeko galdegitea aldarrikatuta. Mario Balotelli Ghanan jaiotako aurrelariak, eta Brasilen sortutako Amauri aurrelariak futbolaren bidez estatuaren nazio identitatea plazaratzea arbuiatzen zuten eskuindarrek. Hori horrela, zinez, azaleko gogoetarik egiteke baieztatu daiteke Italian, Frantzian agerian gelditu zenez, nazio futbol taldea nazioaren proiektuaren eta nazio identitatearen ispilua litzatekeela, eta zentzu horretan egiten dutela kritika eskuindarrek. Aski ezberdina da Ferrari auto egilearen testuingurua. Mundu zabalean italiar izaeraren ikur eta agertoki den auto gorriak Bat Formulako lehiaketa gorenean atzerriko gidariak dauzka aspalditik.

3.3.1.11-Austria, Bigarren Mundu Gerrako oroitzatik XXI.mendeko nazio proiektuaren eztabaidara

Mathias Sindelar bere abileziari zor “futboleko Mozart” ezizenaz batailatu zuten aurrelari austriarra nazio heroia bilakatu zen Bigarren Mundu Gerra atariko testuinguru ezin artegagoan. Italiako 1934.urteko Munduko Kopako izar distiratsuenetakoa izan zen austriar taldearen elastikoarekin, eta arerioen atzelariak atzean uzteko zuen trebeziagatik “paperezko gizona” deituraz ere ezagun egin zen. Bere judutar izaerari patuaren aurrean agertu zuen ausardia gehituz, heroi izatetik mito izatera goratua izan zen. Gaur egun ere Vienako Austria klubeko zaleek, eta austriarrek oro har, gogoan dute kirolaria. Horren adierazgarri da XX.mendeko austriar jokalaririk onena izendatu zutela Sindelar IFFHS estatistika erakundearen zerrendan²⁰. Naziak ezereztu zuten milioika lagunetako bat izan zen. Argitzeke dago horiek erail zuten edo emaztearekin batera nazien jazarpena jasan ezinik bere buruaz beste egin ote zuen. Alabaina, futboleko plazaratu zuen “gehiegizko” duintasunak eta nazien ordezkari zion Alemaniako taldearekin ez jokatzeko nahiak eraman zuten heriotzara, judutar nortasunaren zioa alboratu gabe, noski. Jarrera horrek

²⁰ IFFHS Nazioarteko futboleko historia eta estatistika elkargoak osatutako XX.mendeko futbolari onenen zerrendan, austriar onena izendatzeaz gain, mendeko munduko 22.jokalaria onena hautatu zuten Sindelar. <http://www.iffhs.de/?42d03e32a16f43809fa3c17c13c09e20a15ff3c09f32b17f7370eff3702bb0a35bb6e28fc380de43110f83d00e1a> (International Federation of Football History & Statistics)

austriar nazio nortasunaren ikurra bihurtzeraino eramango zuen, ostera. Egiari zor, gaur egun hainbat historialari ez datoz bat eta ukatu egiten dute Sindelar judua zela, mitoaren osagaia izan liteke beraz, baina inork ez du dudan jarri haren austriar nazio harrotasuna.

Sindelarrek min hartuta zegoela jarri zuen aitzakia modura Alemania eta Austria batuko jokariak elkartzen zituen nazien taldeko deialdiei uko egiteko. Hala ere, 1938ko apirilaren 3an, *Anschluss* izeneko bi herrialdeen arteko batasuna ospatzeko antolatutako partidaren Austriako nazio taldearen azken neurketan jokatzeko gonbiteari abegi ona egin zion aurrelariak. Partida atarian, bertaratutako agintari nazien haserrerako, nazien agurra egitea ukatu zuen. Austriarrek Alemaniarekin bat egitearen inguruan epaia eman baino astebete lehenago jokatu zuten norgehiagoka Vienan. Berdinketa irudikatzeko prestatuta zegoen partidaren austriarrak 2-0 gailendu ziren eta Vienako 60.000 ikusleak sugarrarekin ospatzera gogatu zituen, zeinak nazionalismo adierazpenaren aurrean *Reichsportführer* zeritzonak – nazien kirol agintari karguak – harridura agertu zuen (Benoit, 2008: 539). Austriarrek alemaniar bisitarienganako ageriko etsaigoa agertu zuten, *Deutschland Über Alles* alemaniar ereserkia jotzean txistuka hartu zuten, eta Alemaniako nazio taldearen jokariak iraindu zituzten. Hala, harrera horrek austriar hiritarren ustezko atxikipenaren inguruko kezka sortu zuen agintari naziengan. Dena dela, astebete geroago iruzurrezko botazioan austriarren %99,75ek *Anschluss* bat egiteko prozesuaren alde bozkatu zuten.

Partidaren lehen zatian maila apala azaldu zuen Sindelar izarrak; gol aukera zuen aldiro huts egin zuen. Bigarren zatian, ordea, atezainaren aldaratze bat baliatu egin zuen guztizko indarraz Austriaren garaipeneko bigarren gola egiteko. Are gehiago, palkoaren aurrez aurre jarrita nazien begira oldarkorpean dantza eginez ospatu zuen gola. Lehiaren ostean, erasandako austriar nazio identitatearentzat mitoa bilakatu zen bitartean, nazien pentsamoldean desagerrarazi beharreko arriskua zen. Ezkutuan bizi izan behar izan zuen hilabete luzez Gestapo nazien Poliziatik ihesi, 1939ko 22tik 23rako goizaldean karbono monoxido gasaren zantzuekin bere emaztearekin etxean hilik aurkitu zuten arte. Naziek bere buruaz beste egin zuela ebatzi zuten, baina austriarrek ez zuten oro har azalpen hori onetsi, eta euren futbolaririk handiena nazismoaren aurrez aurreko martiria bilakatu zela sinetsita zeuden. Gutxienez 15.000 lagunek parte hartu zuten Vienan haren aldeko hileta elizkizunetan, eta gerrak iraun zuen artean ere haren hilobirako erromesaldiak izan ziren heriotzaren urteurrenen kariatara. Inondik ere, futbolariaren heriotzak izan zuen eraginik Alemaniaren aurkako iritzi publikoa eratzen. Sindelar gudan Austriaren Alemaniarekiko

desobedientziaren sinbolo nagusia bilakatu zen, futbolean nahiz jokotik at ere. Argiki *Anschluss*-ak ez zuen alemaniar selekzioa lagundu, eta litekeena da austriar jokalariek beren aberri berriaren koloreak defendatzeko kemen gutxiago agertarazi izana, egiazki beren aberria babestu izan balute agertuko zuketenaekin alderatuz alegia. Gomutagarria da 1939.urteko Alemaniako txapelketako finalean Vienako Admirak gehiegizko 9-0eko emaitzaz galdu zuela, zeinak aditzera emango lukeen euren hautematen ez zuten titulua erdiesteko hala nolako gutizia eza (Solivellas Aznar, 1981: 93). Alemaniarekin batutako Austrian futbola abertzaleen azken gotorlekua bilakatu zen. Austriarrak Reicheko zale arriskutsu eta sugartsuenak ziren. Nazientzat gerra gaiztotu zen heinean, alemaniarren aurka oldartzen hasi ziren, eta beraien sentipenak ziurtasunez adierazi zitzaizkien eremu bakarra futbol estadioa zen. Gerra garaian austriar taldeek Alemaniako liga txapelketan jokatu zuten, eta alemaniar taldeen kontrako etxeko partidetan liskarrak ohikoak izaten ziren (Benoit, 2008: 546). 1941eko txapelketaren finalean Vienako Rapidek Schalkeri irabazi eta gero hamarnaka mila lagun bildu ziren futbolari harrera egiteko. Hurrengo hilabeteetan ekialdeko frontean borrokatzera deitu zituzten denak (Dietschy, 2010: 207).

Bigarren Mundu Gerrako garaileek hamarkada batez menderatu ostean, 1955ean berreskuratu zuen Austriak estatu burujabe izaera, eta Europako Batasunaren bihotzean txertatuta hartu zuen Suitzarekin batera 2008ko Europako Koparen antolakuntza. EBko Konstituzio egitasmoaren porrotak eragindako Lisboako Itunaren bidezidor politikoaren testuinguruan Europako integrazioaren aurkako ahotsak hedatuta ziren herrialde txikian. Txapelketaren egunerokotasunak estatuko politika krisialdiaz gaindi nazio kontzientzia bateratzea ahalbidetu zuen. Austria lehen fasearen amaieran final laurdenetarako balizko txartela eskuratzeko Alemania etsaiari jarritu zitzaionean, Austriako talde kontzientzian kirol oroitzen giltzarria azalerazi egin zen herrialdean barna: Austriak Mendebaldeko Alemaniari gailenduz Cordoban Argentinako 1978ko Munduko Kopan lortu zuen 3-2ko garaipena. “Egun hartan austriar futbolaren historia berriro idatziko ez bazen ere, nazio narrazioentzat eta hori orainaldian higitzen duten erronkentzat iraganak duen esangura adierazten du” (Karner, 2010: 394-395). Europako Kopak 2008an, batetik, nazionalismo banatzailezko uneak sortu zituen, historiako oroitzenek, estereotipoek eta etsaigoek lagunduta. Bestetik, komunitate etnikoen arteko bizikidetzak sustatu zuen, eta nazioaren gaineko iritzia eraldatu, kolokan jarritako kultur aniztasunaren alde. Christian Karnerrek nolahi ere, txapelketaren iraungizetik geroko iraultza aurreikusteari okerra iritzi dio: “Hala eta guztiz ere, orainaldiko krisiaren inguruko austriar – edo zabalago, europar –

hautemateak ez dituzte azpiratzen aldi berean jazotako identitate nahasteen ospakizunek eta Euro 08 txapelketaren baitako kultur aniztasunaren “bizikidetzako” uneek, ez eta kontrajarritako politika aburuek eta Europaren aldeko ahotsek ere (Ibid., 406). Austriar identitatea ataka zailean dagoela aditzera ematen du Karnerrek, eta futbol txapelketako adierazpenetik, besteren artean, ateratako ondorioak arretaz aztertu beharrekoak direla, baina ekitaldiak nazio nortasunaren hausnarketan egin zuen ekarpena balioetsiz beti ere. Nazien aurkako abertzaletasunaren ikur izatetik XXI.mendeko austriar komunitatearen izaera eztabaidatzeko joko eremu bihurtu da futbola Europako antolaketa bidegurutzean.

3.3.1.12-Norvegiako futbol nazio nortasuna hedabideen bidezko joera globalek eraginda

Futbola Norwegian askotariko faktoreen eta hurrenkera eremuen eraginpean izan da XX.mendeko lehenengo herenean ordu arte neguko kirolen baitan sustraituta zegoen lehiaketan aisialdian erabat hedatu zenetik. Nahiz eta nazioarteko arrakastaren gabezia orokorra izan, eta eskiak eta neguko kirolek sortutako nazio eraikuntza irudien hutsunea eduki, futbola Norwegian garatu egin zen (Goksoyr eta Hognestad, 1999: 202). Areago, lehenik eta behin 1930eko hamarkadan lortutako eraginkortasunari esker, nazio taldeak ordu arte hauteman gabeko sona erdietsi zuen, eta Norwegian futbol tradizioa izatea bide batez. Gerora, 1990eko hamarkadan suspertu zen berriz nazioa ordezkatzeko multzo horrekiko sugarra. Norvegiako adibideak nazionalismoaren aldiei eta funtzioei buruzko auziak azaleratzen ditu. Bertako kirol-nazionalismo harreman amaraunak izandako epe aldakorrek irudikatzen dute naziotasunaren esanahia itxuraldatu eta nazioa garatzen den heinean kirolaren zeregina ere nola aldatzen den, etengabe nazioarteko harreman berriak barneratuta (Goksoyr, 1996: 128). Izan ere, hasteko, 1905ean Suediatik independentzia eskuratu izanak mugarrria ezarri zuen. Kirol ekitaldiekin estatu burujabe gisara azaltzea funtsezkoa iritzi zion agintaritzak berriak, Olinpiar Joko hasiberrietan funtsean. Aurreko hamarkadan dagoeneko, Suediaren baitan gatazka bizitu zenean, Norvegiaren sinboloen sorta ikusarazteko abagunea bilakatu ziren neguko kirola eta Ipar Poloaren esplorazioak. 1905aren osteko hamarkadetan kirolen nazionalismoa beste garai batean murgildu zen. Bilakaera luzean barne identitatea sortzen zuten tokian tokiko tradiziozko kirol batzuek beren aldekotasun funtzioa galdu zuten, erabat baztertuak izan ez ziren arren. Garapen horrek berarekin ekarri zuen kirolen jatorria funtsezko arazoa gehiago ez izatea. Lehen

Mundu Gerra ingurutik, apurka-apurka kirol ingelesak norvegiar kirol mugimenduaren berezko alderdi modura onartuak izan ziren, eta hartara kirolen nazionalismoaren beste aro bat egituratu zuen. Nazioarteko lehen kopuruaren hazkundearekin, futbola, kanpoko jatorriari erreparatu gabe, nazio identifikazio faktore gisa aritu zen (Ibid., 140). Kirolari itsatsitako identitateak ezin zukeen gehiago funtzio nagusia izan, eta *gu* eta *haien* arteko erkaketa sustatuko zuen kontrajarritako elastikoen, banderen, koloreen eta taldeen bidez nazio identifikazioa sortzeraino gauzatuko zen aldaketa. Bi mundu gerren artean indartu zen bilakaera, hain zuzen ere Norvegiako nazio mailako futbolak lehen aro arrakastatsua izan zuenean.

Norvegia ez ezik, Suedia eta Finlandia ere kirola nazio aldarrietarako baliatzen hasiak ziren. Hiruetan burujabetza lortu arteko biderik nekezena eduki zuena izan zenez, Finlandia izan zen kirolaren bitartez nazio aldarrikapena irmoenen bilatu zuena. Ezagun da lehen Olinpiar Joko modernoetatik Finlandiak Errusiatik mapan bereizten eduki zuen arrakasta. Neguko kiroletako nazioaren ordezkariak oro har nazio nortasunen zaindaria izan zitezela espero zuen, baina XX.mendeak aurrera egin ahala irudi horrek garrantzia galdu zuen. Nahiz eta futbolarien lana nazioaren muineko balioei lotuta ez izan, haren ordezkari izan zuten nazio ideia gainean aurkeztutako kanpo etsaiekiko demetan. Oroz gain Norvegiarentzat estatukide izandako Suediaren kontra erdietsitako mugarriak ziren berebiziko garrantzia sinbolikoa zeukatenak. 1938ko Frantziako Munduko Kopan Italia txapelkunaren aurka galdu zuten norvegiarrek, eta handik gutxira naziek mendean hartu zuten herrialdea Bigarren Mundu Gerra lehertu zenean, norvegiarrek neutraltasuna aldarrikatu zuten arren. Naziek kirola beren apetaren arabera moldatu nahi izan zuten, eta zuzendari nazia jarri agintean. Liga lehiaketa ohi bezala hasi zuten menderatzaileek. Partidak gertatuko ziren, eta futbolariak jokatzera behartuta zeuden, baina zaleak uxatu zituzten. Gerrak iraun zuen bitartean, 40.000 lagun hartzeko tokia zuen Osloko Ullevål estadioan hamarnaka lagun elkartzen ziren partidak jarraitzeko. Bergenen 1942ko futbol txapelketako final erdietan soilik 27 lagun jendetza izan zen. Kostaldeko herri bateko futbol klub bati zegokionean, psikiatriko batean bakarrik aurki zitezkeen arerioak. Beste klub batzuek beraien jarduna bertan behera utzi zuten harpidetzen jaitsiera argudiatuta. Horrela, hain arduratuta zeuden alemaniarrek futbol auziagatik ezen Heinrich Himmler Norvegiara joan zela ikertzera. Beren erantzuna norvegiarrentzat basatia izan zen. Izan ere, norvegiar kirolari asko, futbolariak tarteko, Alemaniako kontzentrazio esparruetara erbesteratuak izan ziren (Benoit, 2008: 547). Futbolaren bidez menderatzailearen kontra

antolatu zuten erresistentzia guneak horrela jarraitu zuen, ordea, naziak atzera egin arte. Menderatzaileentzat futbola herritarrak okupazioaren alderdi txarretatik ahazteko gailua zen bitartean, norvegiarrentzat kanpo etsaiaren aurka nortasuna hauspotzekoa zen, maiz errepikatu ohi den kontraesanezko itxurazko norgehiagokan.

Nazio taldearen bigarren loraldia 1990eko urteetan gertatu zen Norvegia 1994ko AEBetako Munduko Koparako sailkatu zen mugariaren inguruan. Etxetik kanpo kritika zorrotzak jaso zituen edertasunik gabeko joko zuzena eginez Herbehereak, Ingalaterra, Polonia eta Turkia zeuden sailkatze fasean arrakasta izan zuen. Jendeak hauteman zuen nazioarteko neurketetan nazioaren ohorea jokoan zegoela, eta nazio sinboloak geroz eta agerikoagoak ziren, eta banderak neurri berean haizatzen zituzten. Nazio atxikimendua ez zuten ezkututzen, baizik eta irmoki plazaratzen zuten. Nazio identifikazio adierazpen horiek politika nazionalismoa kutsu ezkorra hartzen hasi zen aroan jazo ziren, Ekialdeko Europan eta nonahi izandako garapenean (Goksøy, 1998: 41-42). Norvegiar Europako Batasunarekin bat egiteko aukera zen artean nazionalismoa piztu eta eztabaida eragiten zuena. Matti Goksøyrek gogora dakar Norvegiaren egoera aintzat hartuta tesian behin baino gehiagotan azaldu eta eztabaidatuko den ideia. Ikerlariak dio bereziki modernitate berantiarrean, tradiziozko atxikimenduen ahultzeak ezaugarritutako aroan, 90 minutuko nazionalismoan eskainitako identifikazioa erarik onenean egokitzen dela dirudiela. Bere hitzetan, aldi baterako sentimendu mota hori azaleratzen da modernitatearen berehalako beharrezanez erantzuteko, zeinak atxikimendu laburrak eta konpromisorik gabeak, baina halaber indartsuak eta maitasunezkoak behar dituen. Hala, 90 minutuko nazionalismoak ez luke gainontzeko politika auzientzat eraginik – ezta Norvegiar Europako Batasunari buruzko eztabaidak kasu, nazio politika borroka trinkoa zegoen garaian ere (Ibid., 42). Nazio adierazpen iragankor eta loturarik gabearen gauzatzea izango litzateke partida.

Norvegiako 1990eko hamarkadako futbol nazio taldea identitatearen itxuraldatze dinamikoaren adierazgarria da. Komunista ohi baten gidaritzapean lortu zuen arrakasta, eta hark urteko gizona izatearen onespina jaso zuen hedabideengandik. Iragan urruneko Frantziako 1938ko Munduko Kopaz geroztik estreinakoz sailkatu zen taldea 1994an ere Munduko Kopan lehiatzeko. Egiazki, urte hartako lehen erdiak, zeinak Neguko Olinpiar Joko zinez arrakastatsuak eta Mexikoren aurkako Munduko Kopako garaipena barnean hartzen zituen, hainbat adituren ustetan, neurrigabeko bere buruarekiko sinesmena eman zien norvegiarrei. Hala, hainbat iruzkin egilek euren kirol arrakastak ere azaldu zituzten

norvegiarrek Europako Batasunaren kontra bozkatu izana arrazoitzeko; alegia, nazioak izate burujabe gisara aski ona zela frogatuta ei zuela (cfr.Goksøy, 1998: 43). Munduko Kopako lehen partidari Lehen ministroa berbera, Harlem Brundtland, nazio telebistaren estudioetara bertaratu zen ekitaldiaren garrantzia nabarmentzera. Haren iruzkinek inolaz ere ez zuten gutxiestea helburu Norvegia bezalako nazio txiki batentzat Munduko Kopa bezalako egokiera batean parte hartzeak zuen oihartzuna.

Mundu osoan maiz hauteman daitekeenez, futbol taldearen jokatzeko eraren eta nazioaren arteko lotura hizpide zuten hedabideetan, selekzioaren arrakastaren kariatara. 1930eko hamarkadako taldeak “norvegiar” eran jokatu zukeelakoan agertu zuten, eta 1990eko taldearen joko modua irudikatzen bestelako arrazoibidea plazaratu zuten. Izan ere, ondorengo taldearen ordezkariak beraien jokatzeko era ia zientzia esaren bitartez, nazio zehaztapenik gabe, deskribatzen ahalegintzen ziren bitartean, 1930eko taldea ele nazionalista indartsuak erabiliz deskribatzen zen, zeina 1990eko hamarkadan hein handi batean ezberdina zen. Identifikazioa batik bat 1994ko Munduko Koparako sailkapenean hazi zen. Txapelketako aitzineko partidari, esan bezala, lehen ministroak nazio telebistaz bere herrikideei esan zien nazioaren historian mugarria zela. Telebistako iruzkin egileek eta egunkariak jarraitu egin zuten taldearen inguruan publizitate eskerga egiteraino, eta Norvegiako kirolen historian irrika paregabekoa sortzeraino. Arreta ezartzeko modukoa da ildo horretan, Norvegiako nazio taldearen erakargarritasun nabarmena, aurretik inoiz futboleant interes handirik ezarri ez zuen jendea limurtu baitzuen nazioarekin uztartzeak.

Ondoriozta daiteke, Matti Goksøyrek dioenez, futbol taldearen inguruko nazio identifikazioa aldi batekoa izan zela, eta sarri garatu gabea, zeina 1930eko eta 1990eko urteetako nazioarteko arrakasten aldien baldintzapean plazaratu zen. Ikerlariak dio epe luzeko arrakasta izateagatik ospetsu diren Brasilen, Argentinaren eta Italiaren kasuekin kontrajarri beharko litzatekeela Norvegiarena. Zentzutasunez dio Eskandinaviako estatu honen moduko aldizkako garaipenen adibideek kirola inguratzen duten nazio nortasun eraikuntzen une eraginkorrak nabarmendu egiten dituztela, eta horrelako prozesuak nola biribiltzen diren erakusten (Goksøy, 1998: 46). Nolanahi ere, bilakaera hori askotariko faktoreen eraginpean da, eta Norvegiar erabakigarrietakoa globalizazioaren uhinena izango litzateke. Hedabide eta teknologia bitarteko berriek gerturatzen duten munduko eragin oldeen eta gertuko atxikipenen baitan dago modu horretara futboleant errotutako talde nortasuna. Bestelakoan etengabe aldatzen ari diren bizimoduetan jende askorentzat

futbola iraunkorra da. Horrek ez du adierazi nahi futbol nortasunak aldaketarik gabeak eta eraginen aurrean zurrinak direla. Futbol zaleek bidaiak egiten dituzte eta egokitzen dira hedabideen bidez jasotako bulkada berrietara edota futbol unibertso berrietan zehar egindako aurkikuntzen bidez. Horiek hala, Hans Kristian Hognestadek aurreratzen duen bezala, futbola Norvegiar nazioaren esangura ezbaian jarria eta batzuetan ezereztua den alderdia ere izan daiteke, herriko klubaren atxikipenari uztartutako herri patriotismoaren eta Ingalaterrako taldeei nagusiki lotutako atxikimendu transnazionalen arteko anabasan (Hognestad, 2009: 364).

Nazio futbol taldeak bi urtez behin jazotako ekitaldien inguruan mobilizaziorako gaitasun eskerga du, baina ematen du klubaren lehian baino gehiago arrakastaren menpe dagoela. Norvegiako nazio taldea ez da maila goreneko inongo txapelketarako sailkatu 2000 urteaz geroztik, hots, 1990eko urteetako hala nolako epe arrakastatsuen ondoren. Interes eta irrika falta agerikoa da nazioarteko etxeko partidetak doan jendetzaren apala kontuan hartuta, non adiskidantza nazioarteko partidetak edota oihartzun gutxiko sailkapenezko neurketetarako txartelak herri kirol elkarteetarako eta eskoletarako doan ematen dituzten (Ibid., 366-367). Aldizkako futboleko arrakastek gizartearen sakonean utzitako uzta ez da gutxietsi behar, ordea, handiagotzeak ere maiz soberazko gogoetak ondorioztatzea eraman badezake ere. Goksoyrrek Norvegiako ezagutzatik erreparatuta dioen moduan, laburrean bizi izandako uneak luzaroan iraun dezakete nazioaren taldeko oroimenean. (Goksoyr, 1996: 142). Nolanahi ere, hitz jarria sortzen duen eztabaida da, herri mailako atxikimenduei nahiz nazioaz gaindi sortutakoei begiratuta, nazio taldeak Brann futbol klubaren adinako grina pizten al duen ikustea, edo urruneko herri mailan, norvegiar futbolzaleek Ingalaterrarekin eratu duten harremanaren testuinguruan, Arsenal taldearen mailako pasioa ere sorrarazten duen Norvegiako nazio taldeak epaitzea.

“Ez gara Norvegiakoak, Bergenekoak gara”. Aipu horrekin hezuramaitzen dute Brann futbol klubeko zaleek futbolaren inguruan eraikitako beraien nortasunaren izaera. Bergenek bere kabuz hala nolako hiri-estatua izango zatekeenaren entzutea dauka, zeina estatu-nazioarekin eta bere ekonomia eta politika gune den Oslorekin maiz eduki dituen harreman korapilatsuetan gauzatzen den. Artega hori historian barrena mendebalde eta ekialdearen arteko erregio mailako aurkaritzan azaldu izan da, eta agerikoa izan da bide batez literaturan, politikan eta baita berrikiago futbolean ere. Herri kultura garaikidearen testuinguruan, S.K. Brann taldea Bergeneko identitatearen sentimendu eta hunkipenak

adierazteko erdigunezko eremua da Gary Amstrong eta Hans Hognestadi jarraiki (2003: 458). Dena dela, kluba norvegiar beste erregioetako taldeak baino areago Ingalaterrako taldeen gaineko atxikimendu eskergak erasanda dago. Bergenen joera hori lotuta dago ez soilki hedabideek hauspotutako grinarekin, baita Iparreko itsasoko lurretara herriak historian bideratutako begiradarekin ere, eta Ingalaterrarekin Norvegiako Mendebaldeko kostaldetik dagoen gertutasunarekin era berean. Horrela, mugagabeko mapa semiotiko konplexuan atseginez dagoela ematen duen futbol hiri postmodernoaren irudia sortuko luke (Ibid., 465).

Norvegiako nazio mailako testuinguruan Bergenetik joandako jendea “Ez naiz Norvegiakoa, Bergenekoa naiz” esaeratik eratortzen den ordezkari-estereotipoarekin ezaugarritua da. Estatu-nazioak esanahia galdu du hein batean Bergenekoa herritarrentzat gailu sinboliko boteretsu gisara, Norvegiako nazio identitate modernoaren eraikuntza Osloko kultur eta politika erakunde giltzarrietan eta haien inguruan garatzen denez gero. Inondik ere, globalizazioa, nazioa, eta hurbileko eskualde atxikimenduak bateratzen ditu Norvegiako futbolari eta horri uztartutako taldeko nortasunen hausnarketak. Gogoetaren konplexutasunetik haratago futbolak askotariko identitateak ordezkatzeko duen zeregina adierazten du, hedabideen talde nortasunen bultzada islatzeaz gain, nazioaren estiloaren asmakuntza eta arrakasta aldiei loturiko selekzioaren inguruko nazio bat egitea tarteko.

3.3.1.13-Eskandinavian neguko kirolez haratago futbola talde nortasuna sortzeko baliabidea

Norvegian bezala, hurbileko Suedia, Danimarka eta Finlandian ere beha daitezke nazioaren mesederako kirolaren ustiapenak. Arnd Krugerrek dio Alemania kirolak nazio ordezkarietarako baliatzean aitzindaria izan zenaren pentsamoldea zabaldua dagoela, eta atleten prestakuntzarako gobernuaren dirua erabiltzean ere. Hala ere, hark zehaztu nahi du Suediako egoeran, bere historian, azterketa xeheagoa eginez gero, adieraziko zukeela 1912rako Suediaren ahalegina – urte hartan Stockholm hiriburuan ospatu ziren Olinpiar Jokoak – are adibide goiztiarragoa zela (Kruger, 1996: 196). Gaur egunean Suedian ere immigrazioari eta integrazioari buruzko jarrerak eztabaida iturri dira, eta suediar nazio nortasunaren etorkizuneko izaerari buruz kirolean gatazkan parte-hartzen dute ondorioz. Hala, esaterako, nahiz eta *Black Army* jarraitzaile multzoko eledunek eta beste batzuek

AIK futbol taldearen babes partekatuan arreta jarriz kulturen arteko adiskidetzea sustatu ahal izateko saioak egin, *Black Army*-ko partaide askok muturreko eskuineko politika ikuspegiak azalerazi izan dituzte, eta bereziki Suediako immigrante populazio zabalaren arerioak dira (Bairner eta Shirlow, 2000: 19). Bestalde, Danimarkak 1992an irabazitako txapelketak jokoaz gaindiko irakurketa egiteko abagunea eskaini zuen. Joseph Maguirek eta Jason Tuckek adierazia da kirolak nazio kulturekin eta identitateekin duten harreman estuak izatez esan nahi duela kirolak – ekitaldi global handietan funtsean sortzez nazio mailakoak direla zehazten dute bi adituok – erasan egiten duela, eta erasaten jarraituko duela, erregio politika integrazio oro. Adibidez, Danimarkako futbol taldeak Europako Kopan Alemaniaren aurka erdietsitako garaipenaren ondorenean adierazitako emozioak Danimarkak Maastrichteko akordioari erreferendumean emandako ezetzean islatu ziren bi adituontzat (Maguire eta Tuck, 1998: 111). Kirolaren sorburua eta talde nortasunari buruzko gogoetaren ondorioa era horretara plazaratu zuten bi adituok, behinik behin, eta banaketarako futbolak duen ahalmena batasunerakoaz gaindi nabarmendu.

Finlandian hein handi batean Norvegiar behatutako Ingalaterrako futbolarekiko uztarpena antzeman daiteke, hedabideek bizitutako bilakaera, inondik ere. Ildo horretan, 1970eko hamarkadatik aurrera telebistaz gehien ikusitako kirol emanaldien artean ziren Ingalaterrako futbol partidak, sorterriko futboleko hedabideek arreta txikiagoa ezartzen zuten bitartean. Telebistaren eta Interneten berehalakotasunari eskerrak lotura areagotu egin zen, eta futbolzale askok bazter batera utzi zuten Finlandiako lehiaketa apalagoaren jarraipena. Hala ere, 1990eko hamarkadan hasita nazio taldearekiko atxikimendua luzaz indartu zen hainbat arrazoibide zirela medio. Finlandiarrak ez dira jada nazio taldearen partidetara atzerriko izarrak ikusteko bertaratuko, finlandiar taldea sostengatzeko baizik. Hala, argi da HJK taldearen arrakastaren eraginez, nazio taldeak maila hobetzeagatik eta Europako ligetan finlandiar jokalarien elitezko soslaia dela eta, “futbol erokeria” berria azaleratzen ari dela finlandiar jokoan izandako garapenean sustraitua (Heinonen, 2002: 29). Harri Heinonek 2002ko Munduko Koparako sailkapen ligaxkan Liverpoolen nazio taldea hauspotu zuten 1.700 futbolzale finlandiarren bizipena eta esanahia aztertu zuen. Hainbeste jarraitzaile joan izana ustekabekoa izan zela adierazi zuen, eta finlandiar zale ereduaren agertaraztea, nazio taldeari erabat emana, iragartzen zuela. Futbol jokalarien elastiko parekoak janzteko ekintza adierazgarria eta identitate berezien ordezkaria dela oroitzen du, baikorrak, ospakizunekoak edo aurkaritzakoak, zernahi direla ere. Nolanahi ere, futbol zelaian finlandiar jarraitzaile gutxik jantzi zuten finlandiar taldearen elastikoa

edo finlandiar klubena. Beren nazio identitatea azaltzen saiatzeko helburuak bultzatuta, ordea, finlandiar jarraitzaileetako batzuk izotz hockey elastikoak jarri zituzten soinean, askok finlandiar lepokoak jarri edota banderak haizatu zituzten bitartean. Paradoxikoki, Finlandiako jarraitzaileetako batzuk Ingalaterrako taldeetako elastikoak jantzi zituzten, eta horrek beharbada aditzera emango zuen ingeles klub batekiko identifikazioa nazio nortasuna baino biziagoa izan litekeela, bereziki ingeles futbolari emandako finlandiar jarraitzaileei zegokienean. Bestela da hori iraupenezko eskia, eski jauzia eta atletismoa moduko norbanakoen kirolak jarraitzen dituzten finlandiarrekin, zeinek argiago adierazi ohi duten ikurrez beren nazio identitatea.

Futbola berezia izateko arrazoi giltzarrietakoa da finlandiar futbol jarraitzaileak talde ingelesak sostengatzen hazi direla. Finlandiar kulturaren ospakizun bateratuaren edo janzkeraren falta hori egon arren, Harri Heinonek azaltzen du finlandiarrak Anfield Road estadioko goialdeko harmailetan elkartuta, eta finlandiar nazio ereserkia abesten hasi ziren bezain pronto, “imajinatutako komunitatearen” hautematea oso ikusgarria eta jakina bilakatu zela zaleontzat (Heinonen, 2002: 45). Beraien nazio izateaz harrotasuna agertzeko adinako ahala eman zien heinean, nazioarekin bat egiteko tresna hunkigarria bilakatu zen futbola ere finlandiar zaleontzat.

3.3.1.14-Baltikoko futbolaren eragin murriztagoa selektzioak garaitsuak ez diren neurrian: estatu berrien futbol erabilpena eta nazio proiektuen adierazpena

1920. hamarkadan Lituaniak, Letoniak eta Estoniak FIFAn onartutako elkargoa lortu zuten, bi gerren artean estatu izaera zutenaz. 1990. hamarkadan berreskuratu zuten politika burujabetza SESBengandik bereizita, eta hortaz, berehalakoan, baita futbolekoa ere. Euskal Selektzioak Estonian 2011ko maiatzean jokatu zuen adiskidantza neurketari eskerrak Baltikoko futbolaren gizarte eragina bertatik bertara ezagutzeko abagunea izan nuen. Lehen hurbiltzea izanagatik futbola Estonian eta Letonian kirol nagusia ez zenaz jabetu nintzen. Letoniari dagokionez, izotzezko hockeya gailentzen da, nazio selektzioak kanpoko ordezkartzeekin lehiatzean garaipena lortu eta nazio harrotasuna bultzatzea eta. Letoniako futbolaren mugarririk handiena Portugalgo 2004. urteko Europako Koparako sailkatzea izan zen. Estonian antzera gertatzen da. Futbolean beste herrialdeei jarkitzeko

adina ahal ez duenez gero, nazio taldeak ez du jendetzarik erakartzen. Esaterako, Euskal Selekzioak Tallinen jokatu zuen partidari 3.224 lagun elkartu ginen. Nik gehituko nuke Letoniak eta Estoniak beharbada estatuaren babes hormarekin lehen urteak igaro ostean ez daukatela futbolaren ordezkartzaren hainbesteko beharrik, hau da, hasierako kanpo ezagutarazpen hori betea duela jadanik futbolak, askoren begietara Estonia munduan kokatzen lagundu eta gero. Lituaniari dagokionez, saskibaloia da nazioaren harrotasuna elikatzeke zeregina duena, nazio taldeak beste estatu-nazioekin lehiatzean maila handia baitu.

Baltikoko selekzioei dagokienez, interesgarria deritzot Simon Kuper kazetariak gogora dakarren futbolarien jatorriaren auzia aipatzeari. Ezin ahaztu SESBen agintepean milaka errusiar Baltikoko herrialdeetara lanera joan zirela. Letoniako selekzioak harrera txikia izatearen arrazoia horretan zetzan hain zuzen ere. Taldearen gehiengoak errusiar jatorria zuenez, nolabait esanda luzaroagoko letoniar izaera zutenek ez zuten errusiarrek jokatutako selekzioa berena egiten, eta errusiarrek bestalde, ez zuten Letonia deiturako taldearekin hunkipenezko atxikimendurik (Kuper, 2012a: 66). Estonian, bestalde, luzaro jasandako SESBen okupazioak beren burua errusiartzat zutenen kontrako jarrera eragin zuen burujabetza lortzean, eta nazio taldean errusiar jokalaria zelairatzea ekidin zuten horregatik, kirol eraginkortasuna lehenetsi beharrean, osatu nahi zuten nazioaren izaera nabarmenduz. Hala ere, litekeena da Euskal Selekzioaren kontra Estoniak plazaratutako hamaikakoari erreparatuz, non errusiar izen abizenak tartekatzen diren – Pavel Londak atezaina, Sergei Mosnikov, Igor Morozov, Dmitri Kruglov, Sergei Zenjov eta Kostantin Vassiljev – Estoniak aldaketa irudikatu izana, eta ez taldearen eraginkortasuna bultzatu nahirik bakarrik. Errusiar gutxiengoa Estoniako estatu nazioaren proiektuan txertatzeko gizarte adostasunaren isla ere izan daiteke selekzioaren osaera neurri handi batean, eta hartara nazio homogoneoa baizik, gerora integrazioan errotuko den estatuaren adierazle ikusgarria.

3.3.1.15-Sobiet Batasunaren oinordetza: estatu nazioaren eraikuntzaren eta barruko nazioen borrokagunea futbola

Heriotzaren partida deiturarekin mito bilakatu zuen SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko nazio narrazio menderatzaileak Kievko Dynamok 1942ko udan

nazien armadako jokalariez osatutako taldeari irabazitako partida. Luzaroan, hamarkada askotan, betikotu zen taldearen 11 futbolariak naziei irabazi izateagatik, mendeku setaz, berehalakoan erail zituztenaren ustezko gertaera, erasotzaileen aurrean sobietar ohorea bermatzeko futbol zelaian bizia eman zuten heroiak bailiran. Aitzitik, urteak igaro ahala, eta Sobiet Batasuna amildu zen heinean, ikerlariek argitara atera zituzten apurka-apurka abuztuaren 9 hartako benetako alderdi batzuk, eta estatu sozialistak bere ongizaterako desitxuratu zuen mitoa ezereztu zuten bide batez. Futbolarien balentria SESBaren nazio eraikuntzarako baliatu nahi izan zuen erregimenak, egiazki herio anabasak azpiratutako ukrainarren adorea eta nortasuna neurri batean suspertzeko balio izan bazuen ere. Futbol gertaera nazioen ohiko irudikatutako oroimenean txertatzerakoan horrenbestez, SESBak ukrainarrei nortasun oroitzapena ostu zien. Partidan aritu ziren futbolari guztiak zenduta daudenez gero, ezina izango da egun hartako zehaztasun denak ezagutzea, baina besteak beste Johnny K. Lee eta James Riordanen lanari eskerrak muinera heldu da oroitzapena.

1930eko hamarkadan futbolak sona handia bereganatu zuen Sobiet Batasunean. Askorentzat erregimen totalitarioaren laztasunen aurreko lasaigarria zen, eta erbestetik eta atxilotzetik ahazteko bidea (Lee, 2006: 487). Talde entzutetsuenak Moskuko Spartak eta Moskuko Dynamo ziren. Bigarren hori elkarrekin Polizia sekretuak, sindikatuak eta Armada Gorriak sortu zuten estatuaren parte-hartzearen isla. Ukrainan, Kievko Dynamo Europako onenetakoa bailitzan hartua zen Bigarren Mundu Gerra piztu baino lehen, eta errusiar eta ukrainar taldeen arteko talka bortitza zen dagoeneko, batez ere bien arteko ezberdintasun etnikoen ondorioz. Naziak Sobiet Batasunari oldartu izanak futbola eten egin zuen, eta armada menderatzaileak Kiev hartu zuenean, gainontzeko herrikideentzat bezala amesgaiztoa hasi zen. Dynamoko jokalaria asko nazien kontzentrazio esparruetara erbesteratu zituzten, eta horietatik batzuk bakarrik biziraun zuten, eta Ukrainara itzuli. Kieveko hiritarrek gerrak irautean ere futbol zaletasunaz jarraitzen zuten, eta jokalariai sorterrira itzultzean futbol talde berriaren hazia ernatu zen. Hiriburuko hiru zenbakidun okindegian kirol jokalariek babes, jana eta lana atzeman egin zuten. Nikolai Trusevich Dynamoko atezainak jatorri alemaniarreko ogibideko arduradun berria ezagutu eta hark lana eman zionean hasi zen ondorena (Riordan, 2003: 88-89). Naziengandik hobariazko tratua izatearen abantaila zuen alemaniar jatorriagatik, eta futbolzalea zenez, Trusevichi jakinarazi zion taldeko beste jokalariei ere lana emango zuela aurrerantzean futbol taldea berriro antolatzeke. Atezainak Dynamoko futbolariak ez ezik Lokomotivekoak ere bildu

zituen 1942ko udaberrian, eta okinak jokalariei elikadura, eta nazien erasoetatik babesa bermatu zizkien.

Hasiera berria aditzera emanez FC Start deitura ezarri zioten taldeari eta okinak hiriko agintari naziak konbentzitu zituen futbol lehiaketa eratzeko. Ukrainako taldearen garaipenak Kievko hiritarren kemena sustatzen hasi ziren, zeinak laster beren jokalariai okupatzaileen taldeei gailentzen ikusteko txartelengatik dirutza ordaintzeko prest izango ziren. Salneurriak ordaintzea merezi zuen, arerioak potentzia okupatzaileen ordezkariak ziren heinean (Lee, 2006: 488). 1942ko uztailaren 17an FC Startek 6-0ko emaitzarekin jipoitu zuen Alemaniako militarrekin osatutako PSG taldea, eta alemaniarrek ohartarazi zituen gizakien azpiko izakitzat zituztenak euren eta euren aliatuen ordezkariari eragiten zieten beheramenduari buruz. Garaituen adorea eta izpiritu patriotikoa goratzen futbolak hartu zuen eginkizunaz konturatu ziren hartara naziak. Abuztuaren 6an FC Start Flakelf Alemaniako armadaren jokalarien taldeari jarkitu zitzaion²¹, eta nazien atsekaberako 5-3 gailendu ziren ukrainarrak. Inor harrizteke alemaniarrek kontrolatutako Kievko kazetek ez zuten Ukrainako taldeak nazi futbolarien taldearen aurka lortutako garaipena aipatu. Abuztuaren 9rako lehia bera errepikatzea erabaki zuten naziek, ukrainar ahulak eta maiz behar bezala elikatu gabeak garaitzeko. Partidaren aurretik eta atsedendian ere, SSko kide bat Kievko jokalarien aldagelan sartu zen galdu egin beharko zutela sinestarazteko.

Nolanahi ere, alemaniarrentzat mendekuaren partida zena, eta sobietar mitoan herioaren partida bailitzan izendatu zutena, lege onean eta estuasuna aldenduta lehiatu ahal izatea erabaki zuten jokalariek aski hausnartu eta gero. Hastapenean nazien diosala egitea errefusatu zuten, eta sobietar lelo bat oihukatu zuten (Ibid., 489). 3-1 irabazten ari zirelarik, SSko kideak garaipenaren erantzukizunaz ohartarazi zituen jokalariai bigarren zatirean atarian. Partida 5-3 amaitu zen, eta epaileak amaiera 90 minutuak igaro aurretik ezarri zuen. Hala ere, partida indarkeriarik gabe amaitu zen, eta jokalariai jarraitzaileen atseginaren artean etxera itzuli ahal izan ziren. Bestalde, talde ario garaitezeina ukrainar gizaki azpikoen taldearen aurka amildu izana egoera aski ezerosoa zen alemaniarrentzat, areago Kievko hiritarrek nazi menderatzaileenganako erdeinua publiko egin zutelarik. Abuztuaren 16an Rukh nazien aldeko ukrainar taldea 8-0 garaitu zuen FC Startek, eta

²¹ Sobiet Batasunak elikatutako mitoari jarraiki, Luftwaffe nazien aire armadako futbolariak osatzen zuten Flakelf taldea, baina egiazki aire erasoan aurkako soldaduez eratuta zegoela taldea adieraziko luke izenak, sobietar gerra hegazkinen aurka Kieven eta hiriburuaren inguruan pilotatutako multzoa, alegia. (Riordan, 2003: 89).

ondorenean Gestapok futbolari guztiak atxilo hartu zituen. Galdekatu eta torturatu egin zituzten oposizioko ekintzaileak edota gaizkileak zirela aitorrarazteko. Ezein futbolari ez zuen akusazioa onartu. Horietako batzuk lan esparruetara eraman zituzten, eta gosez hil ziren. Beste batzuk, judu izaeragatik erail zituzten. Bizirautea lortu zutenentzat patua ez zen samurra izan. SESBek 1943ko otsailean naziak Ukrainatik aldentu zituenean, Stalinen totalitarismoa itzuli zen, eta FC Starteko futbolariak hori ere jasan behar izan zuten. Gerra amaitu eta berehala NKVD Polizia sekretuak atxilotu egin zituen naziekin elkarlanean aritu izanaz akusatuta. Ehunka futbolari eta milaka kirolari ere antzerako amesgaiztoa jasan behar izan zuten. *Heriotzaren partidako* jokalariek zoria alde eduki zuten. “Kolaboratzaileak” fusilatu beharrean, NKVD-k eta herri agintaritzak komunistak mitoa asmatu egin zuen egiaren zentsuraren trukean (Riordan, 2003: 90).

Hasieran sobietarrek ez zuten aitortu 1942ko udan jazo zena. Egia desitxuratzea gertatu zen hartara, Starteko jokalarien heroi izaera agerikoa zen arren, eta FC Startek alemaniar okupazioan zanpatutako jendearen adoreari eusten laguntzeagatik ukrainarren artean ospe nabaria zuen arren. Sobiet Batasunean soilik estatuak bultzatutako heroismo ekintzak aitortzen ziren. Aparteko beren balentriagatik herrikideek heroizat ohoratutako taldea Kieven askapenaren ondoren beraien estatuak jazartu eta kondenatu egin zituen, norbanakoegiak eta ukrainarrak izateagatik. Sobietarrek ez zuten onartzen jazoera erabat gertatu zen moduan argitzerik, horri lotuta baitzegoen beraien heroien aurka sobietarrek indarkeria eta jazarpena baliatu zituztela (Lee, 2006: 491). Johnny K. Leeren esanetan, gazte horiek Ukrainako hiritarren kemenari eta beraien nazioaren indarrean eta aintzan zuten sinesmenari eginiko ekarpena oso garrantzitsua izan zen. Heriotzaren aurrez aurre egonda egin zuten, biziraupena arriskuan jarrita. Gaur egunean ere gizonon balentria ez dute ahazten ukrainarrek ez eta mundu osoko kirolzaleek (Ibid., 492). Kieven 400.000 lagunetik 80.000ra jaitsi zen biztanleria gerraren ondorioz. Zeniten estadioan jokatutako partidak 90 minutuko iraupenaz gerra ahazten lagundu zien zaleei, eta talde harrotasuna indartzea, futbolak ahalbidetzen duen hunkipenezko ordezkartzaren eta bestearen aurka errotutako alderaketaren bidez. Alegia 11 jokalarien multzoak ordezkatzeko zuten etxe taldearen “gu” nortasunezko irudikapenaren eta menderatzaileen errepresentazio zuzena izateak areago nabarmentzen zuten “etsaien” 11 futbolarien taldearen arteko aurkaritzan. John Huston zinemagileak 1981ean Kieveko partidaren zirrara eta futbolaren eta talde nortasunen ordezkartzaren uztartzea haragitzen zuten *Victory* izeneko filma burutu zuen (Huston, 1981). Kontaketa gertaeratik bereizi egin zen, preso hartutako soldadu aliatuak

baitziren alemaniarrei jarki eta gailendu zitzaizkienak filman. Dena dela, futbol taldeek irudikatutako talde nortasunen atxikimenduen alderaketa hunkigarria aski adierazi zuen.

Andrey Malyukov errusiar zuzendariak 2012an batez ere Errusiako Gobernuaren diru laguntzaz plazaratu zuen *Mamuch* – partida – filmak oster, historiak gordeta bezala gertakaria eta protagonistak zinemara eramanez nahi izan zituen (Malyukov, 2012). Baina aipatutako sobietar ikuspegitik egin zuen, oraingo errusiarren ikuspegitik. Hala, ukrainar pertsonaiak nazien mendeko leialtzat haragitzen dituzte, eta Ukrainan asaldura sorrarazi zuen filmak zenbait gizarte eremutan, Poloniarekin batera antolatu behar zuen Europako Kopa ospatu baino aste batzuk lehenago (Marson, 2012). Ukrainako Gobernuak artega izan zuen filma erakustea debekatu ala ez, alemaniar zaleen aurkako giroa sortuko zuela arrazoituta. Funtsean, Bigarren Mundu Gerratik itxi gabeko gizarte banaketa antzematen da Ukrainan. Mendebaldea Europatik gertuago dago, eta ekialdeak bestalde sobietarren oroimena du hein batean. Dena den, txapelketa antolakuntzari esker, ondorengo ukrainar belaunaldiak herrialdearen nortasun burujabea ezagutu ahal izan zuten, eta 2012. urteko Europako Kopa antolatzearen nazio ohorea erabili Polonia alboko estatuarekin baterako biko antolakuntzan. Europako estatutzat nabarmendu zuen UEFAk Ukraina Europako Batasunaren barnean ez izan arren antolakuntzaren ahalmena helarazita, eta ekialderako bidea irimotu zuen halaber, Errusiaren 2018ko Munduko Koparen harreraz berretsitakoa.

Bigarren Mundu Gerra baino lehen langile erakundeen arteko nazioarteko kirola sustatu zuen Sobiet Batasunak burgesztat deitoratzen zituen gainontzeko lehietatik bere burua bereizita. 1930eko hamarkadako politika gatazka giroak, eta sobietarren kontrako jarrera zuten erregimenen botere hartzeak eragotzi egin zuten nazioarteko langileriaren kirol ekitaldien irimotzea. Bestalde, bi mundu gerren bitarteko aldirian dagoeneko futbola sobietar gizartearen zabaldua zen, kapitalismo bilakaerari uztartutako ekitaldi atzerritarra eta profesionala izanik ere. Milaka pertsona hartzeko moduko estadioak altxa zituzten. Enpresa publikoen eta sindikatuen zaintzapean sortu zituzten klubak, eta sozialismoaren oinarriak alboratzen, futbolari onenak bereganatzeko ostaturia eta abantailak eskaintzen baitzizkieten ezkutuan (Dietschy, 2010: 210). Stalinen agintepean Errusia, Ukraina eta Georgiako izendapenak eta futbol antolakuntza sobietartzea burutu zituzten. Moskuko Dynamok eta Spartakek, beren futbol joko erari esleitutako izaeraz sinbolikoki gatazka aditzera ematen zuten. Lehenak Polizia eta segurtasun indarrak ordezkatzeko zituen, eta bigarrenak klub herrikoien irudia zuen atxikita. Dynamori arrazoizko era ordenatuan

jokatu ohi zuenaren irudia lotu zioten, eta Spartaki, bat-batekotasunean eta norbanako teknika trebezian oinarritutakoa. Spartaken harmailak batik bat eremu askeagoak ziren, eta, futbola orokorrean, biltze eta adierazpen askatasun mugatua duten herrialdeetan ohi denez, aurkaritza agertzeko modu bakanetakoa.

Gerra ostean, mundua Gerra Hotzaren biko ordenarekin betikotu zenean, SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko aginteak ebatzi zuen kirola besteen aurrean gailentasuna erakusteko bitarteko beharrezkoa izan zitekeela. Antzera egin zuten haren eraginpean zeuden estatu burujabeek ere, ohi zutenez. Eredu sozialistaren nagusitasuna kirolaren laguntzaz, besteekiko erkaketan, zernahi kosta, goratzearekin batera, ekimenak bazuen barrura begirako ezinbesteko xederik ere. Esan nahi baita 290 milioiko jendetzaz eta ehun naziotasun adierazpen baino gehiagoz osatutako herrialde eskerga garaipenaren indar sinbolikoaz bateratzea, estatuaren bortxazko indarraren ondoan beti ere. Europatik Asiarako igarobide amaigabeen elkartutako askotariko arrazak, hizkuntzak, usadioak eta erlijioak, etnia ezberdinak oro har, estatu bateratuan uztartzea zuen aginteak helburutzat, hots, nazio eraikuntzako ibilia burutzea. Estatu sozialista denek politika ezegonkortasun eta ekonomia eta gizarte garapeneko arazoei aurre egin behar izan zieten integrazioarako arazoez gain. Kirolak hezkuntza, osasuna, kultura eta politika alorrean daukan oihartzun zabala aintzat hartuta, eta jendea mobilizatzeko duen gaitasuna ahazteke oroz gain nazio eraikuntzaren guraria eta integrazioarena lagun lezake. Litekeena da kirolak beste ezein gizarte jarduerak ez bezala eremu zabalagoetan sartzen denez, gizarte talde ezberdinak elkartzea. Aise ulertu eta gozatzen da, izan ere. Antolatutako kirol lehiaketek gizarte, ekonomia, hezkuntza, erlijio eta hizkuntzaren hesiak igarotzen dituztela ebatzen dute James Riordanek eta Hart Cantelonek (2003: 90), zeina futbolaz mintzatzean ikerlariek maiz darabilten ikuspuntua den. Ildo horretan, Mendebaldeko etorkinek XX.mendearen hastapenean barneratutako kirolek abantaila handiagoa zuten erregioetako tokian tokiko kirolen aurrean. Izan ere, horiek etnia identitate bereziak adierazteko bitartekoak izanak ziren nagusiki. Antolatutako kirol lehiakorrak nazio identitatea adierazteko gailu gisara erabiliak izan ziren. Bada, kirol modernoak izan ziren nazio sozialistek horien gainetik hobetsi zituztenak eta ostean hedatu zituztenak. SESBeko Gobernuak, hala hausnartuta, Mendebaldeko kirolak hiritik landazabalera hedatu zituen, eta europar ingurutik Asiako barnealdera, nazio berrian askotariko jendeak integrazten laguntzeko kirola erabiliz, eta nazio txikiak eta etnia atxikimenduak gainditu zituen patriotismoa sustatzeko (Ibid., 91). Hala, Lincoln Allisonen (2000: 352) nabarmentzen du arte eta kulturaren eremuan bere

altzoko naziotasun agerpenei begirune keinua egin zienez, kirolean ere beste hainbeste gerta zitekeela espero arren, estatu prestigioaren ongizaterako hornitzaile soilak bailiran hartu zituztela. Kirolaren garrantzia sinbolikoaren zantzu gehigarria da ezberdintze hori.

Sobiet Batasuneko kirolariak uda sasoiko eta neguko Olinpiar Jokoetan nagusitu izan ziren Helsinkin 1952an lehenengo aldiz parte hartu zutenetik. Zuzenean estatuaren agindupean zegoen kirola, gizarte sistemetan zeukan erdigunezko tokiaren adierazgarri. Eginahalak egiten zituen agintaritzak kirol neurketetan eredu kapitalistari gainjartzeko, drogen pizgarriak sarri ustiatzeraino. Hala eta guztiz ere, futboleko sobietarrek ez zuten sekula Mendebaldeko klubei erronka jotzerik izan, talde garrantzitsuenak estatu zerbitzu ezberdinean babesean sortuak izan ziren arren; CSKA armadaren kirol kluba esaterako, eta Dynamoren eta zerbitzu sekretuen arteko uztarria kasu. 1952ko Olinpiar Jokoetan Jugoslaviaren kontra galdu izanagatik futbolariak zigortu nahi izan zituen Stalinek, eta zerbitzu sekretuek CSKAren aitzindari CDSAren nagusitasuna amiltzeko baliatu zuten abagunea. Ezagun izango zen aurrerantzean bestalde, CSKA eta Spartak taldeen arteko ezinikusia ere, lehenengoa armadaren jabetzarekin lotua zen bitartean, Moskuko Spartak herriak bere egin baitzuen. Moskuko hiritarrek Spartaki emandako sostenguak berarekin atxikita zeukan komunismoaren egiturari aurkaritza agertu nahia (Houlihan, 2000: 216).

Dynamok Sobiet Batasuneko herrialdetan eta bere eraginpean zeuden estatuetan bultzatu zituen klubak. Herrialde horietan berriz, aurkaritzazko jokabidea beha zitekeen. Identitate zentzuaren sorreran laguntzeko kirolak duen ahala estatu-nazioen barruan ere jazotzen da, bereziki inperio moduko erregimenen barnean dauden herrialdeentzat, eta garatzeko bidean den munduaren eremuan tradiziozko etnia atxikimenduak gainditzeko irrika duten estatu burujabeentzat. Varsoviako Itunean barneratutako estatu txikienetako batzuek, Hungariak eta Txekoslovakiak tarteko, batzuetan kirolaren ustiapenera jo behar izan zuten, SESBen aurrean nazio independentzia aldarrikatzeko bitarteko bideragarri soila izango zenez (MacClancy, 1996b: 12). Ildo horretan, Ladislao Kubala Bartzelonan jokatzen zuen Hungariako izarra bi urteko iraupenarekin zigortu zuen FIFAk erbesteko Hungariako taldean parte hartzeagatik. Jatorri horretako jokalarien emigrazioei politika zentzu handia zeriezaioten Gerra Hotzeko egokieran. Kubala aberria traditu zuen gizon okerrekoa zen hainbatentzat, askatasun sinboloa beste askorentzat (Dietschy, 2006: 81). Ondoren, urte bete baino gehiagoko zigorra ezarri zien SESB Sobiet Batasunak 1956an, Kubalari, Zoltan Czibor eta Sandor Kocsis Bartzelona klubeko bere taldekideei, Ferenc

Puskasi, eta beste hainbat hungariarri, sobietarrek hungariar herri altxamendua zapaldu zutenean beste talde bat antolatu eta partida bira burutu zutelako erbestean. Poloniarri dagokionez ere, ildo berean, Sobiet Batasunaren kontrako nazioarteko futbol partidetan, kanpo etsaiaren aurkakoa, haragitzen zen nazionalismo adierazpide handienetako ²².

Sobiet Batasunaren bizikidetzaren erasaten eta bere barruko talkak handitzen joan ziren 1980ko hamarkadan nabarmenduta. Futbolaren bilakaera jarraitu zutenak ez zituen harrizko gerora etorriko ziren aldarrikapen nazionalista banatzaileak. Txekoslovakian, Bratislavako Slovanen zale eslovakiarren eta Pragako Spartaken jarraitzaile txekiarren arteko istiluek etorkizuneko Txekosloveniaren zatiketa iragartzen zuten. Sobiet Batasun ohiko errepublika ezberdinetako klubuen arteko partidetak talkek eta izaera abertzaleko indarkeriazko gatazka ohikoak ziren, Moskuko Spartaken eta Kievko Dynamoren eta Tbilisiko Dynamoren arteko neurketa osteko zaleen borrokak kasu. Baltikoan, Lituaniak independentzia aldarrikatu ondorenean lehenen hartutako erabakien artean izan zen bere klubak sobietar txapelketetatik ateratzea. Georgiak ere antzerako erabakimena izan zuen handik gutxira. Errumanian bestalde, izaera komunistako erregimena hilzorian zegoela, Nicolae Ceaușesku Bucaresteko Dynamo eta Steaua desegingo zituela mehatxatu zuen nazio taldeak 1990eko Italiako Munduko Koparako sailkapenerako bidean galdu ostean. Azkenean sailkatzea erdietsi zuen, ordea, eta agintariak ez zuen mehatxua bete beharrik izan. Errumaniako bi talderik ospetsuenak ziren horiek artean Gobernuaren jabetzakoak ziren, Dynamo Barne Ministerioarena eta Steaua Defentsarena. Ildo berean, Bulgarian, CSKA armadaren taldea eta Levski Poliziarena lehiatzean artega izan ohi zen derbietan, eta antzera, baina taldeen nortasunak hezurramitzen zituztelako, Budapest Hungariako hiriburuan Ferencváros juduen aurka zen taldea, eta MTK Hungaria judutar nortasuneko kluba aurrez aurre izatean. Nortasunen gatazka agertzeko gune sinbolikoa zen estadioa.

Sobiet Batasuna desegitean kirolaren kontrola, eta bereziki, futbolarena lortzeko hil ala biziko borroka gertatu zen. Lincoln Allisonen egoki arrazoitzen duen eran (2000: 352), kirolaren identifikazio ahal baterazlea ez zen aski izan azkenean SESBen barruko nazioen aurkaritzazko aldarriei aurre egiteko, bestelako identifikazio alorrak, politikaren

²² Horren adierazgarri da 2012ko Europako Kopan Polonian, Varsovia hiriburuan, Errusia eta Poloniako nazio taldeek elkarren aurka jokatu zutenean, bi zalegoen artean txapelketako istilu aipagarrienak gertatu izana atarian. Milaka errusiarrek Sobiet Batasunetik bereizitako Errusia independentea aldarrikatzen zuen nazio eguna ospatu zuten Varsoviako kaleetan, partida baliatuz, XX. mendean sobietarren menderakuntza luzaro jasan zuen poloniar estatuan. Bi aldean artean piztu ziren liskarrak Poliziak geldiarazi zituen.

baitakoak funtsean, ahuldu zirenean. Eredu politikoaren amiltze ekidinezinaz ohartuta, agintari asko berehalakoan negozio gizon bilakatu ziren, eta beren sona eta hartuemanak baliatuz estatuaren enpresak oso salneurri murriztean eskuratu zituzten; horien benetako merkatu balioaren %20 ordaindu zuten pribatizazioaren estalpean. Roman Abramovich Ingalaterrako Chelsea futbol taldea erosi zuen ukrainar jatorriko enpresa gizon aberats ahalguztidunaren tankerako hainbat adibide jazo ziren. Errusiako agintaritzak ez zituen behartu eredu sozialistatik merkatu ekonomiarako igarobidean gizartetik eskuratutako aberastasuna sorterrian atzera inbertitzen, eta esaterako Erresuma Batuko Gobernuak ez zuen Abramovichen diruaren iturriaz moral itaunketa egin. Zenbait oligarka bilioidunek kiroletik kanpoko jarduerak ezkutatzeko estalki gisa dute futbola, eta euren aberastasun eskerga zurrizteko bitarteko modura. 2012an zendu zen Jim Riordanek, ostera, futbolaria izan ostean futbol arloan ikertzaile izandakoak, futbolaren alderdi baikorra oroitu zuen.

“Futbola ez da imajina ezinezko oligarka aberatsen denbora pasa soila; publikoaren baitan gizarte esangura adierazgarriko eginkizuna bete ohi du. Futbolaren eta nazioaren ezkontzak garrantzia handia du errusiarrentzat, zeinak hamabost urtetan askotariko etnien estatuan sobietar hiritarrak izatetik “Ama Errusian” errusiar hiritarrak izatera pasa ziren” (Riordan, 2007: 547).

Liga txapelketan ikusleen beherakada izan zen bi mendeen arteko aldaketan eta hartara, oligarka aberatsen babesik ez zeukaten klubak hondoa jotzeko arrisku handian jarri zituen. Riordanek dioenez, murrizpenaren arrazoietako bat Errusiako beste taldeen aurkako jokoan irrika nazionalistaren gabezia dagoela da, hori beste etnia erregioetako taldeekin partidak jokatzean izan ohi denarekin alderatuz (Ibid., 553).

Sobiet Batasunaren lurraldean Kievko Dynamo eta Tbilisiko Dynamo hurrenez hurren ukrainarren eta georgiarren nazio sugarraren jomuga izan ziren bitartean, Sobiet Batasunaren osteko aroan nazio erakunde gisa iragan funtzioaren hutsuneagatik beraien erakargarritasunari eusteko eginahalak egiten ari ziren. Lincoln Allisonek nabarmendu zuen Tbilisiko Dynamoren 1995eko partida batean soilik berrehun ikusle inguru elkartu zirela 80.000 lagun sar zitezkeen Georgiako hiriburuko estadioan (Allison, 2000: 347). Inondik ere, talde nortasunen ordezkartzaren ahala, eta horien arteko alderaketarena da futbolaren sonaren sorburu nagusietakoa, eta taldeon ezberdintzea are eta ikusgarriagoa izan, sinbolikoki are eta erakargarriagoa da futbolak berdegunean plazaratutako gatazka.

Hori kontuan hartuta iragarriko zuen, inondik ere, 2012an Errusiako liga antolakuntzak sobietar ereduari jarraiki, baina oraingoan estatu burujabeetako klubentzako partidak barnean hartuta, estatuez gaindiko liga lehiaketa sortzeko egitasmoa zuela, eta Ukraina, Armenia eta Bielorrusiako futbol elkargoen oniritzia jaso zuela xede horretarako (EFE, 2012d). Alexei Miller Gazprom Errusiako gas ekoizle handiaren jabeak eta San Petesbourgoko Zenit futbol taldearen babesle nagusia denak hausnartu zuen ideia hori, eta bistan da, liga txapelketaren errentagarritasuna bultzatzeko, jendetzaren nazioaren edo eskualdeen gaineko atxikimendua bideratzen duten talde handien talka komeni zitzaiela jabetu zela. Ikusteke dago UEFAk onartzen ote duen estatuez gaindiko liga txapelketak sortzea, eta hartara estatu-nazioen erara eginiko lehiaketak gainditzea. Baltikoan, Estonia, Letonia eta Lituaniako ligak batzeko asmoa agertu zuten, era berean, bertako elkargo eta klubek. Edonola ere, ustelkeriak ere eragin izango zukeen iraganean Sobiet Batasunaren baitan edo bere eraginpean zeuden estatu berrietan futbol partidetak ikusleen bertaratzearen jaisiera. Bulgarian adibidez, 1994ko Munduko Kopan final erdi-tartean helduta nazio taldeko futbolariak herrikideak liluratu zituzten, baina bertako futbola korrupzioarekin eta mafiarekin lotzen dute Mendebaldeko eledunek. Izan ere, Errusian gertatu antzera, estatuaren jabetzakoak ziren klubak aberats berrien eskuetara pasa ziren mundu ikuskera komunista erori eta gero, eta salerosketa ez zilegiak zuzentzeko bitartekoak bihurtu ziren hainbat egokieratan.

Errusiak 2018ko Munduko Koparen antolakuntza eskuratu zuen, besteren artean, Espainia eta Portugalen arteko biko hautagaitzari eta Ingalaterrakoari gailendu ondoren. Ekitaldia hartzeko inbertsio eskerga eta estadio berritzaile ugariaren eraikuntza hitzeman zituen Errusiak, beti ere futbolaren bitartez munduari zabaltzeko – gainerako hautagaiek dagoeneko Munduko Kopa antolatua zuten – xedearekin, eta hein handi batean ekitaldia hartzeak barneari begira sortzen duen batasuneko lilura bultzatzeko ere. FIFAk futbola eta Munduko Kopa munduan barreiatu eta etekinak areagotzeko zuen guruz bat egin zuen errusiarren irrikak, eta hartara munduko futbolaren zuzendariak antolaketaren diru iturrien jatorriari ez zion jaramon gehiegirik egin. Errusiaren barnean artean badiraute askatu gabeko nazio nortasunen aldarrikapenak, Txetxenian adibidez, eta futbolariek Terek Grozni taldearen bitartez horien berri eman ohi du. Sobiet Batasunaren osteko garaiko gerrak erabat kolpatu zuen futbol taldea ere, eta hainbat urtez Errusiako liga lehiaketatik bakandu zen. Errusiaren aurrez aurreko Txetxeniaren burujabetzarentzat sinbolo bihurtu zen hainbatentzat. Behinolako Ajmat Kadyroc independentziaren aldeko buruak jarrera

osoki aldatu zuen, eta Moskuko gobernuaz adiskidetuta bozetan Txetxeniako presidente izenda zezatela erdietsi zuen. Independentziaren aldeko ekintzaileek ez zioten egindako bira barkatu, eta futbol zelaian bertan ospatutako agintarien ekitaldi batean lehergailua eztandarazita erail zuten Kadyroc, beste bost lagunekin batera. Semeak oinordetu zuen Txetxeniako presidente kargua eta baita Terek Grozni taldearen kudeaketa ere. Taldea Errusiaren erregimenaren aurkako ikurra izatetik haren luzapena izatera igaro zen. Bide horretan errusiar ligako taldeen antzerako jokabidea hartu zuen, futbolari eta prestatzaile atzerritarrei bide ematearena, eta diru inbertsio eskerga mahaigaineratuz kirol emaitzak loratzea bideratu. Futbolaren bitartez jendea lokarazteko erabilpenaren adibidea da hori.

Txetxeniarekin muga egiten duen Dagestango errepublikan Suleiman Kerimov izeneko milioidunak Anzhi izeneko talde ezezaguna Errusiako ligako lehen mailaraino igoarazi zuen, inbertsio eskerga eginda, Samuel Eto' o izarra, besteak beste, erosita. 20 milioi euroko soldata hitzeman zion, eta munduan diru gehien irabazten duen futbolaria bihurtu, bizi maila eskasa, eta bizikidetzat gorabeheratsua duen gizartean. Handik gertu, Kaukasoko eskualde berean, Georgiaren barruan egonik independentzia aldarria burutu duten Hego Osetiak eta Abkhaziak futbol ekitaldiaren oihartzunak oraindik ez daukaten mundu aitortza eskuratzen laguntzea nahi dute, eta beraien futbol nortasunak eraikitzen ahalegintzen dira futbol selekzioen sorrera bidelagun hartuta (Menary, 2011). Munduan Uzbekistan kokatzeaz gain, herrialde hartan agintzen duen Karimov sendiaren helburua berekoiagoa da bestalde, hau da, Bunyodkor izeneko taldea sortuta, eta talde horretarako eta nazio talderako jokalariei eta entrenatzaile ezagunak diruaz limurtuta diktaduratzat joa den aginte eredu zurrunaren irudia gozotzea eta zilegitzea.

Sobiet Batasuneko futbolaren eta nazio nortasunen arteko elkarrekintza ikusteak nazio eraikuntza prozesuan mitoak sortzeko iraganeko futbol ekitaldien desitxuratzeaz dihardu, gizarte talde oso ezberdinak barnean hartzen zituen lurralde eskergan futbolaz eta Mendebaldeko kirolez oro har nazio eraikuntza bideratzeaz, kutsu kapitalista zerien arren, eta kirol horiek erabiliz AEBekin lerratutako munduarekin neurketan gailentasuna agertzeko ahalegin bizia era berean, futboleko gehiegi gauzatu ez arren. Sobiet Batasuna desegin baino lehen, futbol partidek nazio nortasun ezberdinen bizikidetzat zailaz berri eman zuten, eta horiek independentzia eskuratzean etnien arteko neurketak apaldu ziren, eta errusiar futbolak erakargarritasuna galdu. Kirolaren eta futbolaren ahal sinbolikoak gizartearen baitako nazio atxikimendu irmoak ezereztu eta nazio nortasun berria, horien

gainjartzailea, sorrarazteko gaitasun nahikorik ez dutela ondoriozta daiteke era berean, Sobiet Batasunari dagokionean. Gerora, merkatu ekonomiarako aldaketan aberastu ziren norbanakoen inbertsioek, eta korrupzioak, ekonomia ahalmen handiko taldeak altxatzea ahalbidetu zuen eta ekialdeko futbola suspertzea. Diruaren erakargarritasuna ere ontzat eman zuen FIFAk Munduko Kopa han antolatzeko, eta Errusiak bere burua ohoratzeko.

3.3.1.16-Jugoslavia ohian futbol zelaietatik lubakietarako jarraipenezko nazio gatazka

Belgradeko Izar Gorriko eta Split Hajduk kroaziar taldeko futbolariak soropilean elkarrekin negar egin zuten neurketa erdian bozgorailuetatik Titoren heriotza jakinarazi zutenean. “Tito adiskide, zuregatik hitzeman egiten dugu” abestia estadioan entzunarazi orduko bertaratutako 50.000 zaleek ahots goraz bat egin zuten hil berriaren gorazarreko deiadarrarekin. Titoren heriotza Jugoslaviako historian mugarria izan zenez, eta SFRY Jugoslaviako Federazio Errepublikak Sozialistaren amaieraren hastapentzat zinez onartua delako, posible da azaltzea Jugoslaviako trantsizioa Spliteko futbol zelai horretan abiatu zela 1980ko maiatzean (Axboe Nielsen, 2010: 87). Egokiera ontzat emanda, emankorra da Jugoslaviaren, eta bereziki Serbiaren igarobidea futbolaren ikuspegiarekin behatzea.

Luzaroan aginte zurruna ezarri zuen politikariaren osteko aroa epaitzeko komeni da Bigarren Mundu Gerrako iraganera behin-behineko joanaldia egitea, orduko gaitzak berragertu baitziren agintari sozialista hiltzean, gizartean nahiz futbolekin ere bereziki. Kroaziako futbol elkargoa FIFAREN altzoan lehenengo aldiz 1941etik 1945eko bitartean izan zen, naziek Jugoslaviako osotasunetik bakanduta Kroazian erregimen faxista ezarri zutenetik. Garai hartan Alemaniaren, Italiaren eta beren aliatuen kontra neurketak jokatu zituen. Kroazia faxistak 600.000 serbiar baino gehiago hil zituen (Boniface, 2002: 151). Ustaxa izeneko kroaziar faxistek naziekin kolaboratu zuten Titoren partisansoen, juduen eta serbiarren – besteren artean txetnik izeneko milizianoen – kontra. Gerraren ondoren, Titok 35 urteko agintaldian Bigarren Mundu Gerraren inguruko ezkortasun gomuta oro azpiratu zuen, eta legez kanpo ezarri zituen horri buruzko balizko aldarriak. Sozialismo ereduaren baitan batasunezko gizartea bideratu nahian Jugoslaviako partaide nagusienak gerran elkar hil izanaren adiskidetzaren beharra askatu gabe utzi zuen, eta bera hiltzean gordintasun osoz berriro zabaldu zen zauria, lau hamarkada eta bi belaunaldi igarota ere.

Sozialismoaren agintaldi luzean ere politikaren adurra ez zen futbol estadioetatik sobera urrundua. Gizartean berregituraketa abiatzarekin batera Bigarren Mundu Gerra ondoren sortu zituzten Jugoslaviako talderik entzutetsuenak komunismoaren ideologia lerroekin azal litezke. Klub denek izenak eraldatu zituzten, eta beren deitura “burgesak” baztertu agintaritza berriak hobetsitako izendapenen mesedetan: Belgradeko Izar Gorria, Belgradeko Partizan, Zagrebeko Dynamo, FK Sarajevo, Proleter Zrenjanin eta Spartak Subotica²³. FK Sarajevo eta Hajduk Split lirateke salbuespen bakanetakoak. Adriatikoan gerran askatutako Vis uhartean partisoekin neurketa jokatu zuenetik azken talde hori Titoren begikoa bilakatu zen, izan ere. Komunismoak sostengatutako klubak sortzen ari ziren bitartean, erregimen berriak nazionalismo etnikoarekin historiaren joaneko loturak zituztenak indarrez desegitera behartu zituen. Esate baterako, Zrinjski Mostar tradizioz kroaziar nazionalismoaren jarrerako taldea, eta Slavija Sarajevo etnikoki serbiarra zena, biak ezereztara kondenatu zituzten 1945ean, eta Dynamo Zagreb sortu zuten aldi berean hurrenez hurren 1903an eta 1911n jaiotako HASK eta Gradanski debekatu egin zituzten (Mills, 2009: 1196). Hajduk Spliten Torcida zale multzoa ere ilunpera bakandu zuten geroago, kroaziar nazionalismoaren legez kanpo jotako aldarria egiteagatik. Gardena da ezberdintasunak ezerezteko erabakimena, eta SESB eta Stalinen irrika menderatzaileen aurrean bat eginik etnien arteko elkartasun eta batasun handia izan zen. Titok ohartarazi ohi zuen jugoslaviarrek beraien etxean agintzen ez bazuten beste batzuek – sobietarrek – kanpotik etorrita ezarriko zutela agintea (Alcaide Hernandez, 2009: 53). Bada, 1980ko hamarkadan gobernuaren ekimenetik gizartean ezarritako batasuna zartatu zen, eta hori nabari behatu ahal izan zen futbol harmailetako nazionalismo aldarrikapenen zabalpen etengabekoan.

Serbiako kirolzaleen folkloean – kanta, esloganak, banderatoak, banderak eta zutoihalak tarteko – ordu arte noizbehinkakoa eta galarazia izandako etnia identitatearen auzia motibo menderatzailea bilakatu zen 1980ko hamarkada erditik hasita, politikan eta propagandan agertu izanarekin parekatuta, batez ere 1988. eta 1989. urteetan Serbia eta Montenegroko politika giroa hezurmamitu zuten politika mitin populisten garai berean. Jarraitzaileek era berean, “euren herriaren” kide izatearen atxikimendua aldarrikatu nahi zuten, herri serbiarra Izar Gorriarentzat eta Partizanentzat, eta arerioen klubak eta zaleak

²³ Izar Gorriaren eta Proleter izenen jatorri komunista agerikoa da; eta Partizan – Titoren askapen armada arrakastatsuen –, Spartak – Partizanen herri borrokalari ospetsu baten izenetik eratorria –, eta Dynamo – Ekialdeko Europan eta Sobiet Batasunean futbolarekin luzaroan uztartua – ere aski sinbolikoak dira.

beste herrialdeen ordezkartzat hartzen zituzten, beren etsaitzat. Aldi berean, Kroazian, nazio autodeterminaziorantz era bereko eboluzioa ageri zen jarraitzaileengan, erregimen nazionalistaren ezarpenarekin biribildu zen gertaera politikoen bilakaeraren eraginpean halaber (Colovic, 1999: 144). Jugoslaviako harmailetako giro horrek estatuari zegokion patua iragarri zuen neurri handi batean, eta indarkeriaz betetako liskarrak eta erabateko gerra aurreratu zuen azkenerako.

Bandera eta kantu banatzaileak loratu ziren Jugoslaviako herrialde ezberdinetako futbolzaleen eskutik, eta hain zuzen ere orduan jaiotako zaleen multzoek zeresan handia eduki zuten aldarri nazionalisten hedapenean eta geroko gatazkan. Izar Gorrikoek Delije deitura hartu zuten, eta Partizanekoei Grobari zeritzaien. Halaber, Zagreben, Kroazian, Bad Blue Boys izeneko jarraitzaile multzoa jaio zen 1986an, kroaziar nazionalismoaren jarreragatik aski ezaguna (Axboe Nielsen, 2010: 89). Jugoslavia ohiko kazetariak 1980. hamarkadako bigarren zatian eta 1990eko hastapenean nazionalismo histeria hauspotu zuten, eta beren artikuluen bitartez ezkortasuna eta xenofobia indartu zituzten. Europan futboleko kontaktetan usadiozkoa izan den moduan, futbol partidak eta kirola orokorrean deskribatzeko gerrari loturiko metaforak hobetsi zituzten hedabideek. Jugoslavia ohiko bereizitasuna datza esamoldeok urte gutxiren buruan egi bilakatu zirela. Bertako klubek eta jokalariek nazioarteko sona erdietsi zuten, eta Munduko Kopan eta Europako Kopan ongi aritu ziren aldi horretan. Jugoslaviako nazio taldea osaeraz etnia anitza zen, etxeko futbol klub profesionalak ziren moduan. Hala ere, horrek ez zituen zatiketarako irrikak apaldu. Europan oro har, Hego Amerikan eta Afrikan indarkeriak are biziago jo zituen harmailak, baina Balkanetan hobeto antolatuak eta armaz hornituak ziren indarkeriazko erakustaldiak egiteko. Serbiako eta Kroaziako klubak artean batik bat erkatutako taldeen gatazka eremuak bilakatu ziren estadioak. Ordu arte Jugoslavia ohiko estatu bakoitzari atxikita kirol iruzkin egileek jokalariei esleitzen zizkieten eta zabal onartuak ziren etnia estereotipoak garatu egin ziren. Esloveniarrak aurkarien aurrelariak ahitu gabe jazartzen zituzten atzelari apartak ziren. Kroaziarrek goleko abaguneak baliatzeko alemaniarren dohaina zuten. Bosniarrak eta serbiarrak iskin egiten eta paseak ematen sortzaileak ziren bitartean, taktikoki zorrotasunik gabeak ziren (Foer, 2004: 21). Izar Gorrian askotariko jugoslaviar ezberdinek beren trebeziak elkartu zituzten, eta Mendebaldeko Europako talde nagusienei gailendu zitzaizkien. Garaipenezko Belgradeko taldearen aniztasuna ez zen nahikoa izan, ordea, etnia askotako Jugoslaviaren biziraupena bermatu ahal izateko.

Titoren heriotza negar malkoz hartutako Spliteko futbol zelaiko oroitzapenetatik hain justu ia hamarkada bat igaro zenean Zagreben Dynamoren eta Izar Gorriaren artean jokatutako partida laster batean iritsiko zenaren iragarlea izan zen. Kroaziako hiriburuko inguru guztietan Jugoslaviako askotariko etnien estatua amaitzear zegoenaren zantzuak topa zitezkeen. Bi aste lehenago kroaziarrek euren agintaritzarako aukeratu zuten Franjo Tudjman muturreko nazionalista, jeneral ohia eta Belgradeko Partizaneko presidentea izandakoa. Tudjmanek Bigarren Mundu Gerran ehunka mila serbiar hil zituzten ustaxen sinboloak atxiki zituen eta aspaldian lotarututako pasioak berpiztu. Horrez gain, lehenen hartu zuen erabakimenean artean izan zen serbiarrak Kroaziako Konstituzioan beheratzea (Alcaide Hernandez, 2009: 53). Etsaigo berria, edo zehazki esateko, antzinakoa, futbol estadioan agertu ohi zen. Serbiako eta Kroaziako taldeen arteko partidetan jarraitzaileek alderdi bakoitzak eginiko hilketez abesten zuten. Elkarri gerrako krimenak leporatzen zizkioten eta justizia eskatzen. Hala, giro malkartsu horrek eraginda ospatu zen 1990eko maiatzaren 13ko partida gogoangarria. Norgehiagoka erdian urtetan pilatutako gorrotoa lehertu zelako gorde dute Balkanetako oroimen mamitsuan, gizartearen benetako izaera plazaratu zuelako. Izar Gorriaren eta Dynamoren arteko partida, oroz gain, Jugoslaviak bere barneko etnia taldeak 50 urteren ondoren elkarren kontra ageriro borrokan ikusten zituen lehen aldia zen (Foer, 2004: 24). Telebistak zuzenean eskaini zuen egun horretan gertatua eta berehaldiko jazoeraren oihartzuna eman zion.

Izar Gorriko zaleek iragarkien taula erauzi egin zuten, eta “Tudjman hilko dugu” oihuka hasi ziren. Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidentearen aurkako deiadarrak egiten ohituta zeuden Dynamoko etxeko jarraitzaileek harriak jaurtikita erantzun zieten, eta berehala bi zalegoen arteko hesiak ezereztu ziren. Liskarra estadio osoan barreiatu zen, eta Polizia hura kontrolpean izateko gai izan ez zenez, zelairaino ere barreiatu zen. Kroaziarren nazio oroimenean txertatu den keinua eginez Zvonimir Boban Dynamoko jokalariai polizia bati ostikada eman zion Zagrebko zaleen aurkako segurtasun indarren oldarraldiari erantzunez. Kroaziako Polizia 1991ren aurretik serbiar etniakoek mendean zutela hautemanda zegoen, eta horrenbestez Bobanen erasoak jarrera nazionalista zuen (Axboe Nielsen, 2010: 90). Kroaziarrek federazio errepublikarekin zeukaten ezatsegina ikusarazi zuen pasarteak, eta Bobanen keinua independentzia bidea jorratzekotan ari zen Kroaziako nazio folklorea txertatu zen. Izar Gorriko jokalariek zelaian lur hartu zuten helikopteroez atera behar izan zituzten. Partida bertan behera utzi ostean ere, Poliziaren eta hooligan izaerako zaleen arteko borrokak gertatu ziren Zagrebko karriketan. Orotara

61 zauritu larri gertatu ziren, horietatik 27 poliziak. Belgradeko aginteak larrialdi-egoera ezarri behar izan zuen, eta hainbat hedabidek istiluaren egokiera erabili zuen kroaziarren aurkako aburua zabaltzeko, *Borba* kazeta ofizialak lehen orrian Kroaziako hiriburuan “benetako gerra” gertatu zela azaleratzen zuen bitartean. Futbol arduradun, idazle nahiz askotariko behatzaileek zelaian gertatutakoaren garrantziaz ohartarazi zuten. Partidaren adieraren erakusle da, Richard Millsi jarraiki, Dynamoren estadioan Balkanetako gerra ustez hasi zen tokiaren oroitzapena egiteko monumentua altxa zutela, eta orduz geroztik gatazkan hildako Bad Blue Boys Dynamoko futbol jarraitzaileen omenez erromes-lekua bihurtu zela (Mills, 2009: 1201).

Italiako 1990.urteko Munduko Kopan zale kroaziarrek Jugoslaviako ereserkiari txistua jo zioten. Titoren heriotzaren ondorenean Jugoslaviako armada salbuetsiz estatua bateratua mantentzeko itsasgarri bakanak zeuden, eta 1990eko urteetako hasieran, nazio futbol taldeak, komunismoaren garaian indar baterazle gisa ere aritu zenak, kroaziarren sostenguaren zati handia galdu zuen, estatu-nazioa helburu zuenak berezko nazioarteko taldea osatu baitzuen – ez FIFAk ezta UEFAk ere aitortzen ez zutena – 1990ean AEBen aurka lehiatuko zena (Mills, 2009: 1190). Serbiar eta kroaziarren arteko ezinikusiarren beste zantzu bat 1990.urteko irailaren 26an gertatu zen Splitoko Hajduk eta Belgradeko Partizanen arteko partidari. Ordukoan etxeko jarraitzaile kroaziarrek zelaira jauzi egin eta Jugoslaviako banderari su eman zioten. 1990 eta 1991eko futbol sasoia oso aro zaila izan zen beste errepubliketara bidaiatu behar zuten taldeentzat. Splitoko, Zagrebko nahiz Belgradeko zaleek eragindako giroa gerraren atariko artega saihestezina zen (Vrcan eta Lalic, 1999: 177), baita Sarajevon ere. Hala ere, eta hari batean izanagatik, Jugoslaviako futbolak inoizko nazioarteko arrakasta handienak lortu zituen. Izar Gorria Jugoslaviako lehen taldea bilakatu zen Europako Kopa eta kontinente arteko kopa irabazten zituena. Areago, osaeraz aski bertakotua eta anitza zen, Serbiako lau jokalaria, Montenegroko bi, kroaziar bat, bosniar musulman bat, mazedoniar bat eta Errumaniako serbiar bat taldean zeuzkalako. 1991ko martxoaren 29an Italiako Bari hirian ospatu zen Europako Kopako finalean telebista emankizunak Belgradeko taldeko zaleak zeuden aldean zabaldutako bandera serbiar erraldoiaren berri eman zuen. Jugoslaviako banderen hutsunea bestalde, agerikoa zen harmailetan. Areago, Darko Panceb Izar Gorriko aurrelari mazedoniarrek garaipenezko penaltia sartu zuenean zoramenak jotako jarraitzaileen artean bi hatz eta erpuaren serbiar ortodoxoen agurra adierazten zuen bandera handian jarri zuten arreata telebista kamerek (Mills, 2009: 1198). Serbiar nazionalismoarentzat zeresan eskergakoa

da irudia, hirutasuna adierazten du, eta joko amaierako ospakizunetan hainbat futbolarik errepikatu zuten jarraitzaileen adierazpena. Neurketaren ondorenean festa Belgradera ez ezik Kroaziako, Mazedoniako, Esloveniako eta Bosniako hirialdeetara ere barreiatu zen. Dena den, horrek ez zuen esan nahi Izar Gorriaren garaipenaren ospakizunak Jugoslavia osoko tankera zuenik; funtsean Jugoslavia ohiko errepublika guztietan bizitzen zeuden serbiar komunitate oparoen parte-hartzeak azaltzen du atsegina adierazpenaren hedapena.

Jugoslaviako zoko askotatik joandako jokalarien Belgradeko talde anitzak kanpo arerioen aurka erdietsitako mugariak ez zion Jugoslaviako nazioen batasun abaguneari abantaila eman. Izan ere, haren arrakasta ez zen bateraezina muturreko nazionalismoak gidatutako jarraitzaile taldearen izaerarekin. Arkan ezizenarekin gerran ezagun egin zen Zeljko Raznatovicek Izar Gorriko Delije zalegoaren gidaritzaren jabetza bere gain hartu zuen orduan. Mendebaldeko herrialdeetako polizien jomuga zen Arkan, lapurretak eta askotariko indarkeriazko ekintzak burutzeagatik, eta Serbiara itzultzean bertako zerbitzu sekretuekin lotura adostu zuen. Slobodan Milosevic Jugoslaviako Alderdi Komunistako idazkari nagusiari eginbehar konplexuan laguntza eman zion Arkanek, hau da, futbolearen erнатutako nazionalismo eta indarkeriaren bikotik etekina ateratzen. Luzaroan azpiratuta egondako serbiar nazionalismoa hauspotzen ospea eta boterea eskuratu zituen Milosevic jabetuta zegoen, abertzaletasunezko pasioak mendean hartu ezean gerora bere kalterako izan zitekeela. Hain justu Izar Gorriaren estadioa kokagune arriskutsua zen hooliganak politikak hartu baitzituen. Talde hori betidanik izan zen nazionalismoaren gotorlekua. Belgraden armadak Partizan kluba sostengatzen zuen eta Poliziak Izar Gorria. Serbiar nazionalistentzat armada beren helburuentzat etsaia zen. Izan ere, armadaren ideologiari jarraiki serbiar nortasun independentea langileen solidaritatearen eta etnien bizikidetzaren oparoaren aurkako eraso izango zen (Foer, 2004: 26). Milosevicen gobernuaren ustez muturreko nazionalismoak zuzendutako banda kontrolaezinen egoitza bihurtu zen Izar Gorria, eta zuzendaritzan zen Poliziak Arkani egokitu zion zaleen taldeak baretzeko eginbeharra. Hark Delije izeneko zalegoa barne zatitu zuen politika multzo ezberdinen ezinikusia ezereztu zuen. Beren jarrera oldarkorra beste talde etnikoen partaideen aurka bakarrik bideratuko zutela ziurtatu egin zuen Arkanek. Diziiplina zurruna jarri zuen bere gidaritzan eta maila txikieneko indarkeria ekintzak amaiarazi zituen. Izar Gorria serbiar nazionalismoaren zutabea zen ordurako. Bitartean, Franjo Tudjman ahalegintzen ari zen Zagrebeko Dynamo Kroaziako geroko estatu independentearen ikurra bilaka zedin.

Milosevicen serbiarren aldeko presidentetzaren giroan, Kroaziak eta Esloveniak independentzia aldarrikatu zuten 1991ko ekainaren 25ean, eta Serbiak gerraz ihardetsi zuen. Denbora laburrean, 1991ko irailean Mazedonia, eta Bosnia 1992ko irailean, izan ziren burujabetasuna aldarrikatu zuten Jugoslaviako errepublikak. Hedabideek serbiar gutxiengoaren aurka kroaziarrek hasitako jazarpena aditzera ematen zuten lau haizetara, eta horrek nazioaren bihotza ukitzen zuen, serbiarren usadiozko biktimaren sentimendua areagotuz. Serbiako agintariak paramilitarren taldeak antolatzen hasi ziren ezkutuan, eta Arkanen Delije futbol zale taldea eta bere ekimen oldarkorra jendea biltzeko tresna zela agertu zen. Telebistak eskainitako Zagrebko Dynamoren aurkako partidana azalerazi zen moduan, kroaziarren aurka borrokatzea helburu zuten Delije taldekoek, eta Milosevicen gobernuak hooliganen estiloa hobesten zuen. Franklin Foerrek gerran horien garrantzia nabarmenduta dioen moduan, Balkanetan ia ez zen armaden arteko ohiko guda eredurik gertatu. Belgradeko gobernuak behar zuena herritarrak ikaratuko zituen indarra zen, eta hartara musulmanek eta kroaziarrek alde egin zezatela lortu serbiarrek kontrolpean hartu nahi zituzten lurraldeetatik (Ibid., 28).

Jugoslavia ohiko zaleen portaerak argitzen du gizarte krisi latzeko garaian futbol zaletasunaren eta politikaren arteko egiturazko lotura. Ez da zalantzagarririk harmailetatik lubakietara mugimendua jazo zela Kroazian eta Serbian. Arkan Belgradeko Izar Gorriko zaleen buruzagi hiltzailea Tigreak izeneko serbiar paramilitar boluntarioen zuzendaria izango zen gatazkan. Kroaziako eta Bosniako borroketan nahastutakoa izaki, Jugoslavia Ohiako Nazioarteko Zigor Auzitegiak Arkan atxilotzea galdegin zuen gerra krimenen akusaziopean. Gainera, gerra zibila jeneralek edota federazioko armadak hasi izanaren ustea ezeztatu zuen Arkanek, eta Dynamo Zagreben kontrako partidana zaleek hasi zutelaren adierazi (Vrcan eta Lalic, 1999: 176). Izar Gorriaren estadioan, Maracana ezizenarekin ezagun zenean, Delije zalegoko hainbat talderi prestakuntza paramilitarrean irakaspenak eskaini zizkien. Serbiarren boluntarioen gidaritza laster hartu zuen, eta Izar Gorriko muturreko jarraitzaile horiez funtsean hornitutako Tigreen taldea gudan kroaziarren eta musulmanen kontra garbiketa etniko eta sarraski ekintzak burutzen gehien aritu zirenen artean izan zen, beti ere Arkan lema buru zutelarik. Serbiarren 1991ko eta 1992ko lehen erasoaldietan parte hartu zuten, eta berehala lortu zuten ankerkeriaren ospea, besteren artean Mendebaldeko iritzi publikoa serbiarren kontra oldartzea eragin zuena.

Gerra hastapenean zaleen sinbolismoa gatazkako bi aldeetako soldaduek erabili zuten. Lehenengo borroka armatuak kroaziar eta serbiar zale multzoen arteko liskarren jarraipena bailiran deskribatu ohi zituzten parte-hartzaileek. Horrenbestez, ez da sobera harriztekoa beranduago Kroaziako futbol estadioetan eroritako beren kideen omenezko monumentuak eraiki izana. Nazionalismo politikoaren gaineko zale horien aurretiazko hitzemanak gerra sorrarazi zuen, eta hasiera batean bederen gerrako abangoardia bihurtu zituen (Ibid., 177). Horiek hala, Balkanetako Gudara 1980ko hamarkadan estadioetako harmailetan agertutako usadioak eraman zituzten, eta ez zioten futbolzale gisa aritzeari utzi. Ivan Colovic Belgradeko antropologoak ikertua da estadioetan abestutako kantuak frontera eraman zituztela eta letra soilik guda testuingurura txertatzeko moduan egokitu zutela. Izar Gorriko jokalaria Arkanen kanpalekura joan ohi ziren zaurituta ziren zaleei bisita egitera. Vladan Lukic Izar Gorriko kapitainak *Serbia Journal* kazetan hau adierazi zuen futbolaz eta geroko gerraren loturaz: “Marakanako ipar alderdiko gure jarraitzaile leialetako asko Serbiako historiaren orririk ederrenetakoak idazten ari dira” (cfr.Foer, 2004: 29). XX.mendeko azken herena baldintzatu zuen futbolaren indarkeriari buruzko zantzu argia ematen du harmailetatik gerra lubakietarako zale taldeen bilakaera gertatu izanak, baina baita nazio nortasunen defentsan guda eta futbola parekoak direnarena ere.

Richard Mills Jugoslavia ohiko futboleko adituak gerran guda eremu bihurtutako Vukovar hirian futbola nazio nortasunen gatazkekin nahasten zuten aztarnak hauteman zituen gerratik bi hamarkada igaro zirela ere. Jugoslaviako Herri Armadak Arkanen Izar Gorriko paramilitarrekin elkarlanean gunea hiru hilabetetan setiatu zuen dena suntsituta mendean hartu arte. Vukovarko ur dorrearen hondakinen oinarrian B.B.B. hasierakoak irakurri ahal ziren urdinez margotuta erasandako hormigoian, hau da, Bad Blue Boys Zagrebko Dynamoren zale taldearen laburdurak (Mills, 2009: 1188). Kroaziako armada hasiberrian sartzan lehenetakoak izan ziren 1990eko urte goiztiarretan, eta Dynamoko ikur eta bandera eta guzti joan ziren frontera (Vrcan eta Lalic, 1999: 177). Vukobarreko zantzuek Jugoslaviaren amiltzearen garai gorabeheratsuan futbolak, politikak eta gerrak izan zuten loturaren tamaina adierazten dute. Hartuemanaren argitasuna estalkirik gabe azaleratuko zen Vukovarreko setiotik denbora gutxira gertatutako ekitaldi batean, non Arkanek – Zeljko Raznatovic izenez ofizialki ezagunak – eta haren Tigreek Belgradeko derbyan tentuz atondutako ekimena burutu zuten. Gerra ustiapenak erakusteko etorbide gisara baliatu zuten futbol zelaia. Arkan agertu zenean txalo zaparrada gogotsuak; gerra krimenez akusatuta zen gizona heroia bailitzan hartu zuten Belgradeko futbolzale askok.

Richard Millsen hitzetan, Jugoslaviako gerra zibilean futboleko hooligan paramilitarrek burututako ekintzak futbolak eta nazionalismo politikek izan dezaketen hartuemanaren helmenaren tamainaz muturreko adibide asaldagarriak dira (Mills, 2009: 1188-1189).

Politikaren eta gerra egoeraren narriadurak ezinbestean Jugoslaviako futbolaren behin betiko amaiera eragin zuten. Armadak eta estatuak bezala, nazio taldeak ere soilik Serbia eta Montenegroren Jugoslaviako Federazio Errepublika irudikatzen zuen jadanik. 1991ko abuztuan, Kroaziako gatazka armatuaren hazkundearen ondorioz, Jugoslaviako zoruan Europako futbol txapelketetako partidak debekatzea erabaki zuen UEFAk. Gero, 1992ko maiatzean Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren 757 ebazpenari jarraiki, Jugoslavia nazioarteko futbol lehiaketa guztietatik kanporatu zuten FIFAk eta UEFAk (Ibid., 1203). Nazioarteko harremanen eragina argia zen futbolean. Belgradeko agintaritzak eta hedabideek oro har nazioarteko komunitateak Serbiaren aurka egindako jazarpena salatu zuten. Kirol eta futboleko zigorrak gerrako alderdi mingarrienak ziren serbiar futbolzale askorentzat, eta horien nazio nortasuna kaltetu zuten, atzerrian beste nazioei neurtu eta gailentzeko modua ezeztatu baitzieten. Jugoslaviak Suediako 1992ko Europako Kopa irabazi ahal izango zukeen parte-hartzen utzi izan baliote. Jakina denez, Jugoslaviaren ordezkari jokatu zuen Danimarkako nazio taldeak irabazi zuen txapelketa.

Nazioarteak gatazkako ekintzengatik inposatutako bakantze egoeran, eta gerrak eragindakoan, futbolean aritzeak eta talde bat babesteko ekimenak, oroz gain klub hori atzerrian aritzen bazen, nazio aldarrikapenezko edo harrotasunezko ildo berezia hartzen zuen. Kirol kazetariei jarraiki, Izar Gorriak eta bere jarraitzaileek “serbiar izaeraren” eta Serbiaren defentsan ekimena hartzen zuten Belgradetik at, Szegeden nahiz Sofian izan, jokatu behar zuten partidara bertaratzean (Colovic, 1999: 141). 1991an eta 1992an kirol prentsa idatziak, *Zvezdina Revija* kazetak tarteko, Izar Gorriaren tasun garrantzitsuenak bere izaera serbiarrean zetzala azaldu zuen: “Kroaziako serbiarrentzat Izar Gorria beren nazio nortasunaren alderdia da ia! Duela gutxi arte ezina zuten ahots goraz beren etnia identitatea zein zen esatea, baina betidanik adierazi izan dute zein klub babesten zuten”. Ildo berean jarraituta, *Nasa Rec* Kroaziako serbiarren egunkariko azken aleetako batean antzeko hausnarketa irakur zitekeen: “Izar Gorria futbol kluba baino gehiago da, serbiar izaeraren sinboloa da” (cfr. Ibid., 143). Richard Millsek azalduari jarraiki, futbol zaleen baitako nazionalismoaren hazkundera orokorrean Serbiako gizarteko jazoera zabalagoen araberakoa izan zen funtsean, eta ukazina da ildo horretan Izar Gorria azkar egonkortu

zela serbiar nortasunaren sinbolo gailenetakoaren eta arrakastatsuenetakoaren posizioan (Mills, 2009: 1210).

Kroazian bestalde, estatuko agintari Franjo Tudjmannek futboleant parte-hartze politikoa zuzena izan zuen. Kroazia Zagrebeko jarraitzaile sutsua izaki, Tudjmannek ez zuen ezkutatu klubeko jardueren gainean zeukan itzala. Behin baino gehiagotan adierazi zuen Kroazia Zagrebek Kroaziar Errepublikara eta bere gobernuarekin ordezkatu behar zituela nazioarteko futbol eremuan. Jendaurrean galdegin zuen Zagrebko klub nagusiak haren izena aldatzearen beharra, “Dynamo” izatek “Kroazia” izatera, arrazoi politikoa soilak tarteko. Izan ere, bere hitzetan, Dynamo izena mantentzekotan, Mendebaldeari azalduko ziokeen Kroazia boltxebikeen eta Balkanen oinordetzatik erabat askatuta ez zela (Vrcan eta Lalic, 1999: 182). Europar barrena nazio nortasunaren berri adieraztea zen funtsean aldatzeko helburua. Kroaziak estatu burujabe gisara lehen urteetan futboleant lortutako arrakastaren olatuaren erantzukizuna hartuta, Tudjmanek bat egin zuen futbola gerraren jarraipen soilarekin baina beste bitarteko batzuekin zuzendua dela dioen ideiarekin. Kirolak estatu-nazio berriaren nortasunarentzat zuen esanahia goraiatu zuen horrela. Raffaele Polik dioen moduan, Kroaziak funtsean munduaren begietara estatu independente izatera hartu zuen 1998ko Munduko Koparen ondoren, bertan hirugarren postua lortu eta gero (Poli, 2006a: 48). Kroaziari zuzendutako laudorioek serbiar biktimismoa bizitu zuten.

Kroaziak gerratik salbuetsi zituen futbolari onenak nazioari baloiaz fusilarekin eskuan hartuta baino hobekiago zerbitzua ematen ziotela hobetsiz. Gerraren heriotzak ahazteke Miroslav Blazevic izeneko Kroaziako nazio taldeko hautatzaileak era honetara adierazi zuen Frantziaren aurkako 1998ko Munduko Kopako finalerdien atarian futbolarik aberri horrentzat zuen adiera, *L'Équipe* Frantziako kazetari eginiko adierazpenetan: “Kroaziar heroiak naiz. Neroni naiz kroaziar nazio identitatearen sentipena esnarazi zuena Dynamo Zagrebekin 1982an Jugoslaviako txapelketa irabazita. Gurean futbola gizarte gertakaria da. Jabetuta nago horri buruz. Ez da denbora luzea gerratik aterata garelako. Jendeak aita, anaiak, haurrak, etxeak galdu ditu. Nire herri txikia zapuztua dago, baina kuraia du eta itxaropen guztiak ezarriak ditu aurrerantzean gure selekzioan (cfr. Boniface, 2002: 67).

Esloveniar Europako Batasunaren bitartekaritzarekin egun batzuetako borrokan ostean amaitu zen gerra. Kroazian, 1992ko urtarrilaren 15ean Europako Batasunak bere independentzia aitortu zuen, 1995ean bakea berrezarri arte gerrak hiru urte gehiago ere

iraun bazuen ere. Kroaziak urte hartan kontra erasoaldia gauzatu zuenean Arkanek Izar Gorriko estadioaren kanpoaldean bere armada batzartu zuen. Sasinako Bosniako herritik gertu burutu zuen Arkanek erasorik odoltsuenetakoa. *Tigreak* musulmanak harrapatu eta haien etxeak arpilatzera bidali zituen. Kroazian eta Bosnian gerra amaitu zenean, Estatu Idazkaritzaren zenbaketaren arabera, futbol hooliganek hornitutako Arkanen soldaduek gutxienez 2.000 gizon eta emakume erail zituzten zintzurra moztuta, itoazita eta beste hilketekin (Foer, 2004: 31). Nahiz eta haren krimenen gaineko xehetasunak egiaztaturik zeuden, Arkan heroia bailitzan goratu zuten serbiar askok. Areago, gerrak sonaz batera aberastasuna eman zion. Patriotismoak maila handian arpilaketak egiteko aitzakia eman zion. Mafiako kide askok lehenago egin bezala aberastasun iturri hori zilegitzeko irrika zuen ondoren Arkanek. Bereziki, nazioarteko onespina eta mirespen handiagoa lortzea ahalbidetuko zion futbol klub baten presidentea izatea zuen jomuga. Hala, Izar Gorriko zuzendaritzak kluba sal ziezaion bere eskaintzari uko egin zionez gero, norberaren Izar Gorria eratzeko ekinean hasi zen (Ibid.). 1996ko ekainean Belgradeko Obilic taldearen jabetza hartu zuen. Arkanentzat Obilicen erakargarritasuna neurri batean zetzan 1389ko Kosovoko batailan borrokatu zuen zaldun baten izenetik hartu zuela klubak bere deitura. Serbiarrak mendean hartu zituzten gudan orduan, eta serbiarrek beren buruaz daukaten jazartuak izatearen sentipenez nazio narrazioa errotzean une giltzarria izan zen. Bataila haren atarian Obilic zalduna turkiar kanpalekuan barneratu zen ezkutuan eta pozoitutako dagarekin zatzatu zuen Murad sultana. Arkanek izatezko mito hori elikatu zuen Obilic modernoa bailitzan agertuta (Ibid., 32). Futbol eta nazio nortasunen bikoia eta gerrarekin zuen uztardura zuzena eta agerikoa bidelagun izan zituen handinahizko helburuetarako.

Politika harremanez hobarrituz eta Milosevicen zerbitzu sekretuekin zuen kidetza baliatuta Obilic klub boteretsua izan zedin erdietsi zuen (Axboe Nielsen, 2010: 91). Urte betean mailaz igo eta liga irabaztera zuzendu zuen. Futbol entrenatzailearen agiria ere lortu zuen Arkanek, eta bere zelaiko egonaldi hutsak arerioak eta epaileak mehatxupearik zitezkeen balio zuen. Gainontzeko klubak Arkanen eta *Tigreen* jazarpenaren aurrean batu zirenean hark bortxa gutxiago baliatu zuen, eta Obilic ligako erdialdeko postuetan galtzen hasi zen. Futbolaren bidez gizarte aitortzea ez ezik, gerrako aberastasunaz legez kanpoko negozioak egitea zuen helburu. Arkanek jokalaria gazteekin salerosita zigarroen eta narkotikoen trafikotik erdietsitako dirua zuritzeko abagunea zuen. Eredu sozialistatik merkatu ekonomiarako igarobidea baliatu nahi izan zuten hainbatek Jugoslavia ohiean, Sobiet Batasun ohiko errepubliketan oro har jazo bezala, etekinak lortzeko. Testuinguru

horretan, 2000ko ekainean, futbolari atxikitako indarkeriaren beste biktima bat izan zen Arkan, eta berak beste hainbati ezarritako herio patua izan zuen halaber. Arkan hil zuten garaian Milosevicen kontrako gutxiengo oposizio liberalak hura jausaraztea lortu zuen, eta Delije Izar Gorriko zalegoa ondoan izan zuen manifestazioetan. Izar Gorriko zaleek atsegin dute esatea aldaketa politikoa ahalbidetu zutenak beraiek izan zirela. Barrikaden aurrealdean jartzen zirenek eta Gobernuko eraikinetan Milosevicen ustelkeria erakutsiko zuten frogen bila sartzen zirenek Izar Gorriko elastikoa zuten soinean. Areago, batzutan partidetara joateke gelditzen ziren Milosevicen etxetik gertu Poliziari oldartzeko (Foer, 2004: 34).

Milosevic kargutik kenduta ere egoera ez zen asko aldatu Montenegro eta Serbia bakarrik batzen zituen Jugoslaviako federazioan. Politikaren, futbolaren eta antolatutako krimenaren hiruko uztarriak berdin zirauen Zoran Djindjic lehen ministroaren hilketaren ondorengo behin-behineko ikerketaren tartea salbuetsita (Axboe Nielsen, 2010: 93-94). Heriotza horrek asaldura eragin zuen gizartean, eta serbiar gailentasun ustea baztertzeke gaizkileak harrapatu behar zirela aditzera eman zuten ahotsak goratu ziren (Foer, 2004: 38). Sakonean ez zen aldaketarik gauzatu, ordea. Arkanen gorazarreko oroitarriak artean agerikoak ziren, Belgraden, Milosevicen osteko aldian. Futbolari zegokionean, gerrak, nazioarteko zigorrak eta sozialismoaren desagerpenak Jugoslavia ohiko liga txapelketa zabala ezereztu zuten, eta nazio mailako lehiaketa berriek ez zuten behinolako distirarik berreskuratu, ez jokalariei ez eta ikusle kopuruari zegokionez. Areago, gerraren ondoren Kroaziako Olinpiar Batzordeko presidentek egindako iragarpena ere antzua izan zen, hau da, etnia askotariko jendea aurrerantzean harmailetan pilatuko ez zenez gero, zaleen arteko indarkeria amaituko zela zioena. Aipatu behar da harmailetarako itzulera politika, kultur eta kirol testuinguru erabat ezberdinean gertatu zela. Nazio homogeneousuna eta purutasuna jomuga zuten sortutako estatu berriek testuinguru hori aldatu zuten. Futbola orokorrean, eta klub txapelketa bereziki, homogeen bihurtuak eta etnikoki garbituak izan ziren (Vrcan eta Lalic, 1999: 181). Serbiako estatuak 1980ko eta 1990eko urteetan elikatutako eta ustiatutako narrazio nazionalista eta populistei aurre egiteko gogo txarra agertzen jarraitzen zuen. Kroaziar bizilagunari erreparatuta, bertako estatuko bizipenak erakusten zuen zer konplexua izan zitekeen futbol hooliganismoa baretu eta azpiratzea agintetik indartutako garaiaz hobaritu denean (Axboe Nielsen, 2010: 94). Ildo horretan, Kroaziako Barne ministroordeak deitoratu zuen estatu-nazio independentea lortu eta gero ez zegoela arrazoirik jarraitzaileek indarkeriara jo zezaten. Esan nahi baita, Serbian eta

Kroazian askotariko agintariek futbolak ahalbidetutako emozio bizipenen askatasuna eta futbolzaleen sugarra erabili zutela identitateen gatazka leherrarazteko, eta gerra auziaren ebazpena eta gero indarkeria itzaltzeko euren ahalegin oro antzuak izan zirela.

Gogoeta gisa esan beharra dago hooligan moduko futbol jarraitzaileek arazorik gabe aldatu zituztela estadioak eta talde arerioen zaleekin eragindako liskarrak gerrako eremuengatik eta estatu-nazioaren onbidearen izenean eginiko hilketengatik. Dena den, Peter Houghek dioenez, kroaziarrak eta serbiarrak zatiketa eragin zuen gerran borrokatu izango ziratekeen bi aldeetako klub gailenenak futbol zelaian lehiatu izan ez baziren ere. Futbol neurketek diplomazia bakantzeei desafioa jo ohi diete, eta horrenbestez, gatazkak nabarmendu egiten dituzte, sorrarazi beharrean (Hough, 2008: 1293). Bestalde, Richard Millsen hitzetan (2009: 1210), futbolak bere gain hartu behar du neurri batean gatazka eragin izanaren errua. Arkanek gerora adierazi zuen 1990eko maiatzaren 13an Zagreben jokaturako partidari ondorioztatu zuela – egiazki erantzukizun handia bertan izan zuenez gero, orduan ebatzi zuela gainera daiteke – gerra gertatuko zela, eta berehala jarraitzaile taldea gerrarako prestatu zela. Pascal Bonifaceren ahotan, berriz, 1990eko irailaren 26an zendu zen agian estatu komuna sinbolikoki, Hajduk Spliteko eta Belgradeko Partizanen arteko partidari, non Hajdukeko zaleek zelaira jauzi egin eta Jugoslaviako banderari su eman zioten (2002: 66). Srdjan Vrcanek eta Drazen Lalicek oroitarazten dute ia guztia mailarik handienez aldatzen joan zen Balkanetako gizartean bazirudiela jarraitzaileen azpikulturak oinarrian tinko eusten ziola, eta bestelako eremuetatik goitik inposatutako aldaketan inguruan irmo. Zaleen azpikultura gai izan zen zaleen politika atxikimenduari eragiteko politika ildo ezberdinen eta kontraesankorren baitan (Vrcan eta Lalic, 1999: 185). Futbolzale multzoek politikaren inguruan eta nazioen izaeraren inguruan gogoetan zuzenean jarraitzen zuten bada, eta beren berezitasuna eta garrantzia bermatzen. Inondik ere, futbolaren asalduraren eta hunkipenaren eta nazio nortasunen bizipenen artean den ibilgu iraganterraza frogatzen du Jugoslavia ohiaren desagertzearen garaiak, futboleko ekitaldien eremuko sinboloen ustiapenen bitartez hautematea bideragarri egiten duena. Hedabideek biko horren harremanari hauspotzen eta nortasunak indartzen eta alderatzen izan zuten oihartzuna ere ez da ahanzi behar dena den. Imajinatutako nazio ezaugarriei lotutako futbol nazio estiloen sorkuntzaz eta futbol talde garrantzitsuenak nazioarentzat gotorleku edo euskarri nagusitzat aurkeztuta ere. Gerora, gerra gelditzeak ez zuen nazio nortasunen eta erlijio atxikimenduen inguruan eta iraganeko etsaigoen gainean sustraitu zen indarkeriaren giroa amaiarazi, ez gizartean orokorrean, ez eta futbolean ere. Futbola

SESBeko nazio adierazpenekin gertatu zen bezala, etorkizuneko berrikuntzen iragarlea izan zen eragilea baino gehiago.

Gerra amaitu zenetik Partizan eta Izar Gorriko zaleen arteko liskarrak Europako futbol indarkeria adierazpen larrienetakoen artean daude. Serbiar jarraitzaileen aurkako batasun abertzalean errotutako Kroaziako zalego ezberdinen arteko hitzarmen zaharrak eta adiskidetzak ere joanak dira. Bertako txapelketan arruntak dira zaleen taldeen arteko liskarrak. Futboleko jarraitzaileak arerioa behar du, hooliganak etsaia, eta Jugoslaviako txapelketa zaharraren desagertzearen ostean ezinezkoa zen maiztasun handiarekin beste errepubliketako taldeei jarkitzea. Hortaz, areriotasunak barnekoak izan beharko ziren (Mills, 2009: 1208). Edonola ere, Kroazia eta Bosnia Munduko Kopako eta Europako Koparako sailkapenean Serbiako nazio taldearekin egokitzean, giroa etsaigokoa izaten da, arrisku handieneko partidetan kanpoko jarraitzaileei sarrera galarazten dieten arren.

Bosnia-Herzegovinan, zatiketarik bizikidetzarako igarobidea izan zen futboleant. Izan ere, nahiz eta hastapenean nazio eta erlijio atxikimenduek eta gerrako oroitzapenek estatua nabari bereizi zuten hiru egitura politikoetatik hiru futbol liga ezberdin eratorri ziren, futboleant, politikan ez bezala, integrazioa jazo zen. Lehenik kroaziarrek eta gero serbiarrek, bosniar musulmanen ligarekin bat egin zuten, futbol burujabetasuna European lehiatu ahal izateko klub eraginkorren prestakuntzaren alde azpiratu baitzuten. Hala ere, Christian Brombergerrek oroitarazten duenez, 2002ko federazioen bat egiteak ez zituen ezinikusiak desegin. Mostarren esate baterako, Velezh talde musulmanaren eta Zrinjski kroaziarraren arteko neurketak bereziki gatazkatsua den giroan gertatzen dira. Zrinjski taldearen deitura behinola turkiarren kontra erresistentzia irmoa agertu zuen heroiaren izena da (Bromberger, 2005: 38), eta horrenbestez futbol taldeak argiki plazaratu nahi du kolektiboaren iragan mitoari erreferentzia eginez, Bosniako kroaziarren nortasunaren sinbolo gisara bere burua ezagutarazteko nahia. Serbian bitartean, Esloveniako Europako Batasunerantz Balkanentzat irekitako ibilbideari jarraiki, eta berak ere EBren onespina jasotzeko, gizarteant orokorrean eta futboleant zehazki ere, zuzenbidea ezartzeko urratsak egiten ari ziren XXI.mendeko lehenengo hamarkadaren amaieran.

Serbiar nazio taldeant nazionalismoak eta talde izaerak arteant zuen garrantziaren froga eman zuen azkenik, 2012ko maiatzean, Serbiak Espainiarekin Suitzant jokatutako adiskidantzazko partidant, gainontzeko selekzioko kideekin Serbiako ereserkia abestu ez

zuelako Adem Ljajic taldearen partida biratik behin-behinean kaleratu egin zuela Sinisa Mijailovic entrenatzaileak. Jokalari guztiek ereserkia abestera behartzen zituen araudia hitzartua zuten, baina Ljajicek uko egin zion partidaren atarian, eta norbere arrazoiak zituela adierazi zuen gero. Ortodoxoak dira selekzio kideen gehiengoa, eta Ljajic ostera, Bosniatik hurbileko Serbiako hegoaldean jaiotako musulmana da. Jarreraz aldatu arte ez zutela selekziorako deituko jakinarazi zuen Serbiako futbol federazioak, Fiorentinan ari zen etorkizun handiko aurrelaria izanagatik (Telegraph Sport, 2012). Futbolari uztartuta ereserkiaren balio sinbolikoa nabarmendu zuten serbiarrek erabaki horren berri emanda, eta Balkanetako aniztasunean estatu-nazio homogenea ziurtatzeko nahia, bide batez.

3.3.1.17-Eslovenia: futbol ekitaldiaren denborazko adiera aldakorra nazionalismoaren helburuen mesedetan

1960ko eta 1970eko hamarkadetan Eslovenian futbola zokoratua izan zen. Geroz eta ikusle gutxiago joan ohi ziren partidak bertatik bertara begiztatzera, eta futbola kirol basatitzat jo zuten gizartean, neguko kirolak gainjartzen ziren bitartean. Egoera errotik aldatu zen, ordea, 1990eko hamarkadan, non nazio talde jaioberriaren emaitza oparoen ondotik nazio identifikazio alderdirik garrantzitsuena bilakatu baitzen futbola Balkanen estatu berri aberatsenean. Futbolaren onespeneren bilakaera azaldu ahal izateko Pierre Bourdieu soziologoaren pentsaera baliatzea hobetsi zuen Peter Stankovicek. Ikerlariak aditu frantziarraren teoria Esloveniako gizarte baldintzetara moldatu zuen ildo horretan. Bourdieuk zioenez kirolaren esanahiari gizarte taldeen arteko botere banaketa ezberdina natural bihurtzeko joera bazerion, Esloveniaren adibidean nortasun etnikoetan ageri zen botere ezberdinen mailaketa hori, eta futbola horrenbestez hori zen zilegitu, eta naturala bihurtu zuena luzaroan (Stankovic, 2003: 5).

Jugoslavia ohiko Titoren aginte hertsiaeren azpian ere esloveniar nazionalismoak aurkitu zuen bere izaera agertzeko zirrikiturik, kirolean besteren artean. Horrela, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan esloveniar nazionalismoa berpiztu zenean, esloveniar izaera berriro hausnartu zuten, Jugoslavia ohiko gainontzeko nazioetatik bereizteko sinboloak baliatuta. Gorenjsk izeneko erregioiko ikurretan oinarritu zen funtsean nazio nortasuneko adierazpide eraberritua, Jugoslaviaren barruan esloveniarrez eraikitako estereotipoaren ezaugarriak hezurramitzen zituen eskualdea baitzen. Erregio hori menditsua eta neguko

kiroletarako egokia izaki, jarduera horiek hobetsi zituzten herrialdean nazionalismoaren susperraldiaren garaian, eta lotura hori halabeharrezkoa izan ordez nazionalismo horren unean uneko aurkezpenaren adierazgarria zen. Ildo horretan, politika eremu publikoan nazio nortasuna plazaratzeko ezintasunak jota kirola besteren artean eremu esanguratsua bilakatu zen helburu horretarako, eta are gehiago inguruko nazio nortasunekin erkaketan nazionalismoak beharrezkoa duen gailentasun sentipena indartzen sustatu zuen heinean. Hala, beste errepubliketatik bereizteko futbol oinordetza ahortzi zuten, eta ildo horretan sortzeko esloveniarren eta hegoaldeko errepubliketatik joandako immigranteen artean ere banaketa egiteko balio zuen erabakimenak, gainontzean futbola kirol menderatzailea baitzen Balkanetako beste herrialdeetan. Peter Stankovicek dioenez, 1970eko urteetan futbola beharrez oso baliagarria izan zen esloveniar nazionalismo garaikidea sortzeko bitartekoetakoa bailitzan (Stankovic, 2003: 10). Futbolearen azpiratuak zirenez, aurkako bidea jorratuta sustraitu zen nazio nortasunaren inguruko mugimendua, baina 1990eko hamarkadan aldatu zen joera hori eta futbolaren gaineko nazionalismoaren hausnarketa.

Estatuaren independentzia aldarriarekin batera piztutako nazio taldeak arrakasta eduki zuen, eta nazio mitologiaren eraikuntzan txertatu zuten. Taldeko jokalarien erdiak gutxienean Jugoslaviako hegoko errepubliketatik joandako sendietako kideak ziren, eta horrek zaildu egiten zuen, Peter Stankovicen esanetan, nazionalismoak garaipenak bere mesederako erabiltzea. Hedabideen iruzkin egileek oro har jokalarien emaitza oparoak arrazoitzeko horien lan nekaezina bakarrik nabarmentzen zutela deitoratzen zuen hark. Bere esanetan, iparraldeko esleitzen zitzaaien ahalegin bizia, eta hegoaldeko, hau da, Balkanetako hegoko jatorria zutenei aitortu ohi zitzaaien kreatibitatea bateratzen zituen taldeak, eta hori ez aitortzea Zlatko Zahovicek zuzendutako “kanpotarren” sorkuntza eta parte-hartzea ez ikusi nahia zen Stankovicentzat. Esan nahi baita hedabideek “benetako” esloveniarren nortasuna eta soropilean plazaratzen zuten joko era aise uztartu zituztela, eta baita, atzerriko, funtsean Balkanetako gainontzeko herrialdeetako, jatorria zeukaten jokalarien nortasunaren arabera futbola jokatzeko modua irudikatu ere. Esloveniar muineko nortasuna goratu nahirik, “berezko” esloveniarrei egotzitako ahalegina goratu zuten bada kazetariak, etorkinen ekarpena, kreatibitatearena, balioetsi gabe. Futbolaren ordezkari sinbolikoaren bidez, nazio taldearen hamaikakoan, eta ondorioz, nazioaren egunerokotasunean, etorkinen integrazioa onartzeko zailtasunak dituen gizartearen eta nazioaren berri emango zuket. Nazio taldearen osaera eta futbol aldaera barrura nahiz kanpora begira irudikatu nahi den nazioaren erakusgarritzat hartzen dituzte hedabideek.

Futbola nazionalismo mugimenduaren bigarren aldaketan era ezberdinean aritu zen, Esloveniako gizarte egituraren benetako aldaketak ez zituen bideratu – lehenengoak Esloveniako nazio identitate garaikidearen bideratzean parte hartu zuen eta “ekonomia” immigranteak bakantzen –, funtsean ezberdinak ziren eta elkarri kontrajarritakoak ziren esloveniar izaerari buruzko ikuspegien alderaketa gunea bihurtu zen (Stankovic, 2003: 13). Nazioaren osaeraz eta etorkinen integrazioaz eztabaidatzeko bide eman zuen nazio taldearen osaerak, eta oroz gain hegoko errepubliketako jatorriko jokalarien ekarpenak. Esloveniar nazionalismoak futbolaz oro har eginiko erabilpenean datza bi aroen arteko eraldaketak eta nazionalismoak bere helburuetarako sinboloak era ezberdinean irudika ditzakeela ematen du. Futbola baztertuz hasieran, Jugoslaviako gainontzeko herrietatik bereizteko, eta futbola baliatuz ondoren, nazioarteko eremuan estatu txikiari harrotasun iturria eman ziolako. Futbolak sinbolo bitarteko gisa adiera kontrajarria izan zuen beraz. Lehenik kirolari esleitutako esanahia Balkanetako antzekotasunarekin parekatzen zenez, bere izaeragatik baztertu beharra zen, baina Esloveniako independentzia erdietsi zuenean, eta ezberdintzeko hainbesteko beharrezan ez zuenean, nazioarteko aitortzarako gailua bihurtu zen, emandako esanahia galdua zuen, eta besteei jarkitzeko munduko tresna zen.

3.3.1.18-Futbol turkiarra nazio nortasunaren ezbaiak harrapatuta

Kayseri eta Sivaseko Anatolia eskualdeko futbol taldeen arteko 1967ko irailaren 17ko partida eta haren ondorena Turkiako aldi horretako gizartearen irudia ezaugarritu zuen ekitaldietako bat izan zen. Mediterraneo itsasbazterreko estatuan lehenengo aldian neurketa batek heriotza eta zauritu ugari eragiten zituela, 42 hildako orotara eta 300 zauritu larri ere bai. 1965eko hauteskundeetan kontserbadoreak agintera heldu zirenean landa eremuaren boterea jaitsiz hasi zen politikan, ekonomian nahiz gizarte bizimoduan. Hala, baldintza horietan probintzietako burgesia futbola herri mailan baliatzen hasi zen Istanbulgo klubaren hegemoniari erronka botatzeko. Talde berriak egituratzeari eta beren finantza baliabideak bateratzeari ekin zioten nazio mailan arrakasta ziurtatzeko (Akin, 2004: 222). Klubaren eraginkortasuna herriaren ordezkartzean agertutakoa izaki, horren talde nortasunaren mesedetan burutua zen turkiar futbol hasiberrian ere. Taldeek herriaz zuten identifikazioaren adierazle zen alkateek maiz klubetako presidente izan ohi zirela. Berriki garatutako hirietan integrazio gailuak izan ziren klubak etorkinentzat. Futbolak

aurretiaz irudikaezina izandako atxikipen sentimenduaz hornitu zituen hiriak. Nolanahi ere, futbol taldeak ez ziren Istanbulgo hegemoniari erronka egitean erabilitako erreminta soilak. Erregioetako gune izateko norgehiagokan ziren tamaina ertaineko hirien arteko areriotasun sinbolikoak bideratzen lagundu zuten. Bigarren maila sortu zutenean, futbol partidetan gertaera biolento nahiz odoltsuak jazo ziren, eta herrialdean zehar arazo larria bilakatu zen. Epailearen erabaki bat zaleak oldartzeko txinparta izan bazen ere, gizarte, kultura eta ekonomia baldintzek eta ezberdintasunek amildu zuten funtsean Kayserispor eta Sivasspor klubak eta hurrenez hurren Kayseri eta Sivas hirien gatazka. Are gehiago, 1960ko hamarkadan bertan turkiar futbolak nazioaren harrotasunezko adierazlea izateko izaera hartu zuen, eta politikaren eta nazioarteko partiden arteko lotura uztartu egin zen. Horren lekuko da Fenerbahçe turkiar klubak AEK Atenas greziarrarekin alderatu zuen partida, non turkiar hedabideek Zipreko auziarekin mendekatzearekin harremandu zuten norgehiagoka (Bora eta Senyuva, 2011: 37). 1970eko hamarkadatik 1990eko urteetara turkiar nazio taldearen eta klubak norgehiagokek hedabideen arreta handia eduki zuten, eta nazio batasunezko oinarri izan ziren, atzerritarren kontrako gorrotoa indartzen zuten aldi berean. Nazio taldearen futbolariak Turkiaren izen onaren onbidean lehiatzen ziren borrokalari gisa definitzen zituzten hedabideek. Kanpoko etsaien aurka bateratuta barne ezadostasunak gainditzea zuten helburu, futbolak talde nortasunak ordezkatzeko daukan ahalmenaren bidetik. Kurdistanen nazio aldarrikapenei jarki zitzaien ildo berean, orduko harmailetako nazionalismoaren gorakada.

XXI.mendearen atarian Islamaren baitan errotzearen eta Europara hurbiltzearen arteko ezinegonean zegoen turkiar nazio nortasuna, hango futbola nazioarteko eremuan hala nolako emaitza oparoak lortzen hasi zen aroan. Futbola egiazki nazio nortasunaren krisia nabarien hautematen zen eremua bihurtu zen, eta Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko tentsioak eta erregioaren eta nazioarteko mailen artekoak era bortitzenean agertu zirenekoa (Kozanoglu, 1999: 119). Turkiarrei europarrek eta Mendebaldeak baztertzen zituztenaren beheramendu sentipena zeritzaien artean beren nortasuna norantz zuzendu gogoetan ari zirenean. Klubak mailan Marseillaren eta Napoliren moduko beheratutako eskualdeetan antzeman ohi den taldearen inguruko atxikimendu are eta bortitzagoaren parekoa da Turkiakoa. Hala ere, 1980ko eta 1990eko urteetako nazionalismo gailurretik gailu gailu, turkiar futbolak eta zaleek Europari atxikita jarraitzen zuten (Bora eta Senyuva, 2011: 39). Izan ere, Europako nazio taldeen Europako Kopan eta klubak txapelketetan murgilduta ziren beti ere bertako taldeak. Can Kozanogluri jarraiki, nazio identitatearen

krisiak nazioarteko partidak are eta esanguratsuagoak bihurtu zituen. Europa eta Asiaren arteko bidegurutzean turkiarrek beraien buruari euren izaeraz egiten dizkioten galderek ez lukete erantzun argirik, eta gizartearen egun bakoitzeko aldaratearen arabera aldatzen joango lirateke ihardetsiak. Futbola da hartara, bere hitzetan, turkiar gizartearen aldartea sakonen eragiten duena (Kozanoglu, 1999: 125). Estatu-nazioaren nortasuna definitzean futbolaren oihartzunak kanpoko herrialdeekin eta nagusiki europarrekin etengabe lotura bultzatzen duela kontuan hartuta, ezin uka eragin handia duela. Futbolari atzerritarren iritsiera orokortuak eta hedabideen bitartez europar futbolaren ezagutzaren hazkundeak ahalbidetzen du ildo horretan Europarako hurbiltzea, eta kontinente hori Turkiarentzat kanpoko etsaitzat ez hainbeste hautematea.

2000.urteko maiatzean Istanbulgo Galatasarayk UEFA txapelketan erdietsi zuen garaipena adierazgarria izan zen. Galatasaray lizeoari atxikitako kluba 1905.urtean sortu zuten irakasle atzerritarrek. Horrela herrialdeak isolamendua hautsi eta kanpora begira jar zedila nahi zuten turkiarrek. Garaipen hori europar herrialdeekin alderatuz zeukaten gutxiagotasun hautematearen bukaera gisa jo zuten Turkian: “Futbol zelaian Europako edozein talde handi azpira badezakegu, horrek ahalbidetzen du sinets dezagun Europako gainontzekoak bezain onak izan gaitezkeela demokrazian, giza eskubideen bermean eta auzi guztietan. Partida hau futbol partida soila baino askoz gehiago da”. Serif Erol irrati kirol esatariak esandakoak dira hitzok (cfr. Boniface, 2002: 68). Areago, garaipenaren biharamunean Necdet Sezer Turkiako presidente hautatu berriak jendaurrean egin zuen lehen agerpenean esan zuen futbolak azaldu zuela herrialdea alor denetan munduarekin lehiatzeko gertu zegoela. Futbolarien joko moduak nazioaren goentasuna islatu ei zuen. Nazio taldearen osaeraz gain joko estiloa nazio harrotasunezko osagaia zen orduan ere. 2002ko Japoniako eta Hego Koreako Munduko Kopan Turkiako nazio taldea hirugarren sailkatu izanak ildo horretan, nazionalismo olatua sorrarazi zuen herrialdeko karrketan.

Hala ere, Tanil Borak eta Ozgehan Senyuvak diotenez kanpoko taldeen kontrako aurkaritza apaldu den neurrian munduan zehar ohikoa den etxeko futbol taldeen arteko talka eta etsaigoa azaleratu da, eta batasunezko sentipena murriztu horrenbestez. Hartara hedabideak aldizka ahalegintzen dira nazio elkartasun zentzua sortzen Europako taldeen aurkako partiden inguruan (Bora eta Senyuva, 2011: 41-42). Turkiar nazionalismoaren eta futbolaren arteko lotura irmoa da oraindik edonola ere. Partidak nazioaren ereserkiak hasten dira, baita ehunka jarraitzaile baino gehiago elkartzen ez dituzten behe mailakoak

ere. 2005ean Suitzak Turkiako nazio taldea kanporatu berritan Istanbulgo futbol zelaian futbolarien alda geletarako bidean gertatutako liskarrek futbolari herrialdearen izateari lotuta bertakoek ematen dioten muturreko garrantzia azaltzen du, besteak beste.

Turkiako beste presidente batek, Abdula Gulk zeritzonak, Armenia bizilagunera estreinako agintarien izaerako bisita egin zuen Erevango gobernuaren gonbita onartuta, bi herrialdeetako nazio taldeek Hegoafrikako 2010eko Munduko Koparako jokatu behar zuten sailkapenezko partidaren karietara. Turkiako agintariaren joanak kutsu sinboliko eskerga zeukan, bi herrialde bizilagunak diplomazia harremanik landu gabe baitzeuden, Otomandar inperioak Lehen Mundu Gerran hildako ehunka mila armeniarren herioaren oroitzapenak funtsean baldintzatutako bizikidetzaz ezan (Alcaide Hernandez, 2009: 70). Futbol ekitaldia adiskidetzarako baliatzea xede zuten hein batean bi gobernuak, kirolak nekez askatuko bazuen ere bat batean betiko etsaigoa. Harremanak onbideratzeko balio ahal zuen, nolana ere jokoaren gizarte oihartzunak.

3.3.1.19-Grezian 2004ko kirol ospakizunek sustatutako nazio nortasuna

Olinpiar Jokoak iturburura, Atenasera, Olinpiako jatorritik gertu, itzuli izana eta Portugalgo Europako Kopan Greziako futbol nazio taldeak lortutako garaipena uztartu ziren 2004.urteko uda sasoiaren. Herrialdeko nortasuneko bihotzean zizelkatutako jokoen itzulera munduaren aurrean ohoretu zuen Grezia, eta ezustean aurretiaz futbolak eman zion gorespenez bat egin zuen. Portugal herrialde antolatzailearen nazio taldea finalean azpiratuta erdietsi zuten greziarrek futbolaz barne eta kanpo nazio onespina eskuratzea. Horrela, taldeko ospakizunari lotu zitzaion gizartea, nazio ikurren noranahiko agerpena tarteko. Finala herritarren %90ek ikusi zuten telebista emanaldiaren bidez, eta bezperan *Eleftherotypia* izeneko kazetak nazio ereserkiaren letrekin bete zuen azala, futbol lehiak nazioarentzat zuen esanguraren berri bere irakurleei igorri nahian (Sonntag, 2008: 22). Futbolaz gaindi, Olinpiar Jokoen oinordetza, eta kirola oro har ere, nazioaren mesedetan erabiltzen usadio handia atxikita zegoen Greziako historiaren bilakaeran, bereziki XX. mendeko bi diktadura ereduaren aldi historikoan. 1936 eta 1941eko urte bitartean lehenik, Bigarren Mundu Gerraren atariko muturreko nazionalismoaren gorakadak eta gatazkak eraginda, eta 1967 eta 1974 urte arteko militar erregimenaren bestetik. Diktadoreek

kezka gutxi eduki zuten kirola, iragana eta greziar kultura ahalik eta eremu gehienetan ustiatzeko (Van Steen, 2010).

Greziatik mendebaldera, Maltako uhartean bertako nazio nortasuna plazaratzen lagundu izan du futbolak nazioarteko neurketen bidez, italiarren eta Erresuma Batuen menderakuntza luzaro jasandako herrialdean. Britainiarren baitan gerra garaiko defentsa bateratuaren erretorikaren aurkako oposizioa futbolaren bitartez plazaratu zen berriz ere, eta ekitaldi hori nazio narrazioarentzat erdigunezkoa bilakatu da orain (Armstrong eta Mitchell, 1999: 104). Nazio selekzioaren eraginkortasun eskasak futbol zelaitik aldendu izan du jendea batzuetan, baina Italiaren aurkako etsaigoa indartzeko balio izan du, talde horren partidak telebistaz une berean eskaintzen ari zirenean, hain zuzen ere. Futbolaz berezitasuna indartu nahi izan dute maltarrek Gary Armstrongen eta Jon P. Mitchellenen esanetan. Greziatik ekialdera halaber, nortasun banaketaren agertoki da Zipreko uhartea.

3.3.1.20-Zipre zatitutako uhartean politikak futboleko nazio eraikuntza jarki zueneko

Greziar eta turkiar komunitateek elkarlanean CFA Zipreko futbol elkargoa sortu zuten 1934an, eta 1955.urtea arte batera jokatu zuten bien klubek liga txapelketan. Urte hartan uharteko azken txapelketan gailendu zen turkiar komunitateko azkeneko taldeari, Çetinkaya izenekoari, Nicosian Pezoporikos greziar komunitatekoari jarkitzea eragotzi zioten, eta horrek turkiar jatorriko taldeak txapelketa uztera eta beren elkargoa sortzera bultzatu zituen, KTFF deiturakoa (Menary, 2010: 253-254). 1960ean Erresuma Batutik independentzia eskuratu zuen Mediterraneo Itsasoan hiru kontinenteren arteko igarobide giltzarrian egokitutako uharte eta herrialde anitzak. Hamabi urte aurretik FIFAk bere altzoan onartuta zuen Zipreko federazioa, herri burujabea ez izanagatik kolonizazioaren amaierari aurre hartuz. KTFF turkiar zipretarren elkargoak norbere lehiaketa antolatzen segi zuen gero, eta herrialdeak independentzia lortu berrikan Turkiari jarki zitzaion nazio taldea ere osatu zuen. Burujabetasunak ez zuen lortu hartara komunitateen arteko talka apaldu eta futbola batzerik. Gizarte egoera okertuz joan zen heinean, eta komunitateen arteko indarkeria areagotu ahala, turkiar zipretarrak uharteko iparraldean aterpetu ziren funtsean, eta Greziako militarren diktadurak Zipreko agintearen aurka emandako estatu kolpeari ihardetsiz Turkiako armada uhartean indarrez sartu eta osteko gatazkan 6.000

lagun inguru hil ziren. Turkiar jatorrikoak babestu asmoz sartu zen indarkeriaz Turkiako armada. Atenasko militarren agintaritza berriak Zipre osoa Greziara batzea asmo zuen, izan ere. Hortaz, orduz geroztik bi komunitateen artean sakonki zatitu egin zen uhartea. Nikosia hiriburua hegoko greziar jatorrikoen eta iparreko turkiar erkidegoaren artean nabari bereizi zen, eta bien banaketaren adierazle zaintzapeko Marra Berdea irmotu zen, Berlingo Harresiaren garaikide parekoa bailitzan.

Epe luzeko banaketa horretatik haratago KTFF turkiar komunitateko federazioak FIFAn eta UEFAn sartzeko eginahalak egin zituen, baina biek errefusatu egin zituzten eskaerok. Dena dela, 1975eko akordio berezi bati jarraiki, turkiar zipretarren selekzioak besteren artean Saudi Arabiaren, Malasiaren, Libiaren eta Turkia bere babeslearen aurka adiskidantzako neurketak jokatzea ahalbidetu zuten (Menary, 2010: 254). Zortzi urteko iraungitze data izan zuen bermeak. Turkiar erkidegoak 1983an Rauf Denktas presidente nazionalista buru zela alde bakarreko independentzia aldarria egin, eta Turkiak bakarrik aitortuko zuen Iparraldeko Zipreko Turkiar Errepublikaren sorrera iragarri artean. Nahiz eta turkiar zipretar komunitatea nazioartean ordezkatzeko gertu selekzioa bazen, greziar zipretarrek menderatutako hegoaldeko lurraldeko politikarien eta Greziako beren kideen politika presioak ziurtatu zuen taldeak areriorik edukiko ez zuela, eta bakanduta egotea (Kartakoullis eta Loizou, 2009: 1657). Bada, futbolarekin estatu berria zilegitu zezala galarazteko politika eginahal oro egin zuten. Bertako taldearekin jokatze borondatea zuten taldeek ondorioz, atzera egiten zuten nazioarteko futbol erakundeen isunen beldur, Fenerbahçe klub turkiarraren 1990. hamarkadako saioa tarteko. Nicos L. Kartakoullisek eta Christina Loizouk dioten moduan, Zipreko Errepublikak uko egin izan dio luzaroan KTFF elkargoaren – ingelesez CTFA hasierakoekin osatzen da izena Zipreko turkiarren futbol elkargoa adieraziz – hala nolako aginpide ofiziala aitortzeari, uhartearen iparreen, nazioartearen onespentik izan gabe, eta ondorioz legez kanpoko jotako, aldarrikatutako estatuaren hala nolako aitortpena aditzera emango zuelakoan (Ibid.).

Askotariko norbanako eta eragileak bi komunitateen adiskidetzeari saiatu ziren XX.mende amaieran eta XXI.mende aitzinean. FIFAk greziar eta turkiar etnietako talde gazteen arteko bi partida aurreikusi zituen Nikosiako segurtasun eremuko alde banatan, gizarte integrazioa eta bi aldeen arteko elkarrizketa sustatzeko. Partidak ez ziren sekula ospatu gobernu arerioen arteko ezinikusienengatik, baina FIFAk ez zuen etsi futbola bake eta integrazio bidean baliatzeko erabakimen garaikidean. Politika alderdiari dagokionez,

2004ko erreferenduma saio biziena izan zen, baina greziar komunitateak errefusatu egin zuen itunak asebetetzen ez zuela iritzita. Mehmet Ali Talat agintari moderatuak Denktas nazionalistari 2005.urteko apirilko Zipre turkiarreko presidentetzarako bozetan irabazi izanak egokiera hobetu egin zuen, eta iparraldekoen isolamendua bukatzen ahalegindu zen. Talaten ekimenaren bitartez mugen bi aldeetako herritarren pasaera hauspotu zuten, eta baita gatazkak ez atzera eta ez aurrera harrapatutako kirolari eta futbolariena ere.

Politikaren barealdia baliatu zuen KTFF iparreko turkiarren federazioak ausardia gehiagorekin futbolaren bitartez nazioarteko onespena erdiesteko. FIFAk aitortu gabeko nazioen elkartean, NON FIFA NF Batzordean, onartu zuten. Gehienetan zio politikoak tarteko FIFAk bere barruan aitortzen ez dituen nazio taldeentzat abegi oneko erakunde berria da. Nolanahi ere, Zipre turkiarreko futbol elkargoaren eta erakunde horren arteko harremanak okertu ziren, eta NF Batzordeak hurrengo lehiaketan zein taldek parte hartu zezakeenean eragitea egotzi zion Iparraldeko Zipreko Turkiako Errepublikari (Menary, 2010: 256). Izan ere, bertan ziren Turkiarekin luzaroan gatazkan izandako Kurdistango ordezkariak. Dena dela, KTFF futbol elkargoak txapelketa antolatzeko borondate irmoa zuen eta NF Batzordearen lehiaketan parte hartzekotan zirenei bidaia gastuak ordaintzea hitzeman zien. Hartara, 2006.urteko azaroan ELF Berdintasun, Askatasun eta Anaitasun Kopa antolatu zuen Zipreko turkiar erkidegoak. Zortzi taldek hartu zuten parte, besteren artean, antolatzaileez gain, Tibetek, Groenlandiak eta Zanzibar, Gaugazia eta Krimeako erregioetako ordezkariak. Antolatzaileak gailendu ziren arren, Zipreko iparreko 250.000 biztanleetatik soilik mila inguruk ikusi zuten finala zuzenean. Satelite bidezko telebistak itsasoaz bestaldeko Turkiako liga jarraitzera bultzatu izan ditu hein handi batean turkiar zipretarrak. Ligako irabaziak baliatuta soilik antolakuntzak nekez izango zuen kanpoko taldeak etortzera sustatzeko diru nahikorik. Steve Menaryk ebazten duen gisara, zantzu guztiek iradokitzen dute politika nahasi eta futbola baliatzen ari zela Zipre Iparraldeko Turkiar Errepublikaren aitorenaren eta politika itunaren aldeko borrokan (Ibid., 258).

Turkiar zipretar komunitateak ez zuen nazioartearen begietan futbolaren bitartez bere izaeraren berri emateko irrikan amorerik eman, eta bestelako saioak bideratu zituen ahalegin ekonomikoari gehiegi erreparatzeke. Nolanahi ere, helburu horren egikaritzan paradoxikoki aurrera pauso zinez handiagoa ematea ahalbidetu zuena inoiz jazo ez zen partida izan zen. Luton Ingalaterrako kluba uda prestakuntza egoitza batera gonbidatua izan zen, eta Çetinkaya bertako taldearekin adiskidantzako lehia antolatu zuten hartara.

Zipreko Errepublikak eginiko presioen ondorioz partida bertan behera gelditu zen, eta atsekabetuta turkiar zipretar politikariek greziar zipretarrekin zituzten elkarrizketak eten zituzten. ELF Kopako hamabost partida guztiek baino arreta handiagoa jaso zuten lehia hori bertan behera gelditu izanak eta geroko ondorioek nazioarteko hedabideengandik, eta FIFAk ere bere burua auzian murgiltzera eta aitortzen ez zuen turkiar elkargoarekin biltzera behartuta ikusi zuen. Nazioarteko futbol erakundeko eledun Andreas Herrenek adierazi zuen futbolaren laguntzaz epe luzera politika egoera onbideratu zitekeela. Ildo horretan, Steve Menary kazetariak esan zuen Zipreko Iparraldeko Turkiar Errepublikak futbola helburu politikoekin baliatzeko egindako hautuak arrakasta izan zuela (Menary, 2010: 259). Arestitik FIFAk argi utzi zuen irtenbide bakarra Ziprarentzat futbol elkargo bateratua zela, baina hedabideek futbolaren eta talde nortasunen bikoari zuzen-zuzenean lotutako turkiar-zipretarren jokatu ezinari helarazitako premiazko arreta tarteko, aldarte txarrean izanik ere, nahitaez auzi politikoan nahastu behar izatera eragin zuen kiroleko erakundea. Horrenbestez, hein batean, estatu gabeak izateagatik aitortza ez duten nazio taldeei eta elkargoei ustiatu beharreko balizko bidez iradokizuna eskaini zien, hau da, futbolaren bitartez eztabaida politikoa nazioartekotzea lortzea. Hori da Menaryk ebazten duen hausnarketa eta bat nator horrekin, gehienetan politikak bide hori ere moztu arren.

Zipreko Errepublikak kudeatutako uharteko aldean izandako politika aldaketek eta 2008ko otsaileko bozen ondoren izendatutako gobernu berriak herrialdeko gatazka askatzeko beste saio bat burutzeko giro adeitsuagoa ahalbidetu zuten. Hori hala, Nikosia hiriburua zatitzen zuen Marra Berdearen hertsia arindu egin zuten bi aldeek borondate onaren adierazgarri. NBE Nazio Batuen Erakundearen batzarrak 1999ko azaroaren 24an aho batez hitzartu zuen *Kirolaren eta Olinpiar balioen bitartez mundu baketsuagoa eta hobetua eraikitzen* ebazpena. Talde lehiaketan nahiz norbanakoetan kirolak luzaroan nazio, politika, etnia eta kultur ezberdintasunak gaintzeko trebezia erakutsi duela bildu zuen batzarraren 54. bileran hausnartutako oharrak (cfr. Kartakoullis eta Loizou, 2009: 1653). FIFAk antzeko izpiritua garatu zuen futboleko Zipren ere. Aurrerantzean kirolak komunitateen batasunean alde eginiko ahaleginak laguntzeko betebeharra izango zuen Zipre futbola gozesten zuen herrialdea zela kontuan hartuta. Futbol partidetak ikusleen kopurua eta hedabideek eskainitako arreta balioetsita ondoriozta daiteke. Zipre bezalako uharte txikian ere gizarte bizimoduaren alderdi ezinbestekoa bilakatu da futbola. Gizarte gertakaririk handiena da, eta ondorioz Zipreko gizarteko maila guztiak ziprizarintzen ditu (Kartakoullis et al., 2009: 243).

Futbolaren tamainaz jabetuta eta politikaren barealdiak bideratuta, UEFAk eta FIFAk aitortutako CFA Zipreko futbol elkargoko ordezkariak uharte iparraldeko turkiar erkidegoko ordezkariekin bildu ziren futbol integrazioa helburu. Nazioarteko futbolaren erakunde jaun eta jabeak osatutako hitzarmenari oniritzia emanda CFA Zipreko futbola gidatzearen arduraduna zela onartu zuten turkiar zipretarrek, eta nazioarteko erakundeen zuzentarauei men egin behar zirela. Akordioa unean unekoa zela ebatzi zuten, uharteko politika auzia konpontzeko ituna egin artekoa. Bi aldeetako ordezkariak luze etsaitutako etnia gatazkei dagokien moduan, aurreiritziekin ekin zieten elkarrizketei, baina lotutako akordioak irtenbidea erdiesteko borondate handiagoa zegoela ikusarazten zuen. Aitzitik, futbol eremuko ordezkariak ados ziren arren, 2009ko urtarrilaren 4an turkiar zipretarren politika buruak adierazi zuen FIFAren proposamena onartezina zela, eta horrela amaitu zen erakunde horrek eta bi aldeetako futbol elkargoak egindako ahalegina. Hitzarmena ez zen inoiz izenpetua izan. Zipreko futbol elkargoko presidentek deitoratu zuen futbol integrazioa burutzeko saioak politikaren parte-hartzeagatik gelditu zirela bertan behera, turkiar zipretarren integrazio asmoak eta uhartean futbola garatzeko helburuak azpiratuz (Kartakoullis eta Loizou, 2009: 1664). Izan ere, talde nortasunen eta futbol ekitaldiaren ezinezko ezberdintzea adierazi zuen auziak. Turkiar jatorriko zipretarrek beldurra agertu zuten futbolaz greziar jatorriko nortasun bakarreko gizartearen irudia barreiatuko al zen, eta era berean futbolaren bidez bere bereizitasuna agertu ahal izateko ahalmena galduko ote zuen. Greziar nortasuneko zipretarrek nazioa eraikitzeke prest ez zeudela adierazi nahiko luke hein handi batean, eta horrenbestez, naziotasuna nabarmenen agertzen duen eremuan bereizketa mantentzea hobesten zutela. Auzia ebatziko bazen politikak aurreko urratsak egin beharko zituen eta futbolak ondorenean hezurmamituko luke erabakimena.

Hala, bi komunitate batzeko eta elkarren arteko politika tentsioak eta etsaigoak gutxitzeko kirolaren boterea ezin da gutxietsi, baina ez du gatazkak askatzeko ahalmen zerutiarririk. Nicos L. Kartakoullisek eta Christina Loizouk bi Koreen arteko banaketaz alderatzen dute Zipreren (Ibid., 1665), eta baita ezberdintasun nagusia azalera ere: bi aldeetako korearrek nazio izaerak batzen ditu. Korearrak une batean zatitutako nazio beraren kidea dira, eta nazioaren sentipenak indar baterazle erara jardun dezake aldiren batean. Zipren, ordea, nazio kontzeptua ez zen uztarri ahaltsua, ezta uhartearen banaketa jazo aurretik ere, non komunitate bakoitza hurrenez hurren greziar nazioaren edo turkiar nazioaren kidea zenez – euren sorterriarekin, Grezia eta Turkiarekin, lotura handiagoak izaki – elkarren artean nazioa osa zezaketela sinestea ekiditen zien funtsean. Hala, orain

arte kirola ez da gai izan batasunerako diplomazia gailu modura balio izateko, funtsean, bi nazio jatorri ezberdinetatik, elkarren artean gudan izan diren bi aberrietatik, etorritako herritarren artean nazioa eraikitzea erronka handiegia delako, gizartean urratsik ez bada.

3.3.1.21-Futbol bidezko europar atxikimenduaren eraikuntzaren ahalegina

Estatu-nazioen nazio eraikuntza eta estaturik gabeko nazioena ez ezik, Europako Batasunaren goragoko elkartzeko prozesuaren bilakaera aztertzea esanguratsua da kirolean eta futbolean ildo horretan burututako saioak bidelagun hartuta. Izan ere, estatu-nazioen orainaldiko egoera eta onarpena eta globalizazio garaiko estatuz gaindiko bilakaerarena epaitzeko ahalbidea emango digu futbolaren baitako nazio identitateen alor sinbolikoan gainbegiratuta. Lehenik eta behin, 1957an Europaren batasun ekonomikoaren aitzindari izango zen Erromako Ituna adostu baino lehen, Europako kontinente mailako estreinako futbol txapelketak sortu zituzten, ligetako lehiaketan txapelak sortu zituzten arteko Europako Kopa oroz gain. *L'Équipe* Frantziako kirol egunkari entzutetsua izan zen neurri handi batean lehiaketaren sorrera sustatu zuena, kirolaz salmentak areagotzeko helburuak bultzatuta, inondik ere. Europako Kopak hastapenetik, gerra handiek hainbat mendetan zartatutako kontinentearen baitan batasunezko sentimendua eragin zuten, kirol lehiak elkar ezagutza bideratu zuten heinean. Izan ere, Gerra Hotzak bitan zatitutako lurraldea gainditu zuen futbolak, eta Mendebaldeko nahiz Ekialdeko klubak alderatu zituen, Turkia ere barnean hartuta, eta europarrek horrenbestez hala nolako ideia partekatuaren zantzua hartu zuten, lurraldetasuna irudikatzen zuen lehiaketatik abiatuta. Alabaina, herrialdeak ordezkatzeko zituzten klubak arteko partidetan, pentsa zitekeenez, komunitateen arteko etsaigoak ere azaleratu eta bizitu ziren, aldi berean.

Europako herrialdeen politika batasunerako bide konplexuan urratsak egiten ari zirela, kontinenteako erakundeak ohartu ziren bere barruko herrien aniztasunak ezinezko egiten zuela europarrek berehalakoan Europarekin hunkipenezko identifikazioa izatea, eta atxikimendua indartzeko, 1980ko hamarkadan hasita, bandera, ereserkia eta moneta sortu zituzten, eta sinboloon eragina osatzeko kirola baliatzea ebatzi zuten. P. Adonnino izeneko europar legebiltzarkideak zuzendutako Hiritarren Europa deiturako batzordean, proposatu zuten europar erkidegoko txapelketak antolatzea, eta kirol batzuetan europar

taldeak osatzea zeinak erregioak hurbileko lotura zuen munduko lurraldeekin lehiatuko ziren, eta horrez gain, kirol taldeei dei egin zieten nazioarteko lehiaketa aipagarrienetan nazio koloreen alboan europar erkidegoaren ikurra jar zezatela. Funtsean proposamenok aurrera egin ezinik gelditu ziren (Husting, 2008: 125). Hainbat diputatuk aurrerantzean ere Europako Batzordeari eskatu zioten Olinpiar Jokoetarako europar taldea antolatzea, baina golfeko Ryder Cup izeneko txapelketan bakarrik egituratu zen modu jarraikorrean europar taldea, AEB Ameriketako Estatu Batuetako golflarien aurkako lehia, 1979tik aurrera. Futbolean ez da inoiz gauzatu, eta ez dirudi epe ertainera gauzatuko denik ere. Europaren batasun politikorako norantza aski etenda dago, Konstituzioaren eta ordezkogutxieneko Lisboako Itunaren gorabeherak tarteko, eta Europa parez pare jo duen krisi ekonomikoak amilduta. Estatu-nazioek mesfidantzaz begiratzen diote integrazio bideari, eta Alexandre Hustingek dioen bezala (2008: 140), kirolak oro har eta futbolak zehazki, identitate erresistentzia oinarri irmoak izaten jarraitzen dira, zeinak kirol federazioek ez dituzten eskaini nahi europar integrazioaren mesedetan. Alegia, estatu-nazioek beren esparrua eta ahalmen sinbolikoari eutsi nahi diotela, eta nazioarteko futbola gaur egungo aingura garrantzitsuenetakoa denez, ez dutela berehalakoan Europaren eskuetan lagako.

Futbolari eta nazio nortasunei dagokienez, Europako Batasunak aldaketa eragin ez bazuen, Luxenburgon kokatutako Europako Justizia Auzitegiak irauli zuen 1995ean bi alderdion harremana klub lehiaketetan. EBren itunaren 39. artikuluan aurreikusitako europar langileen lekualdatze askea betearazi zien UEFA eta FIFARI Jean Marc Bosman futbolari belgikarraren helegitea ontzat emanez (1995). Hortaz, erakundeok lehiaketetan ezarritako naziotasun kuotak, hots, zegokion estatutik kanpoko europar jokalariei, beste atzerritarrekin batera zehaztutako jokalaria mugak, ezeztatu zituen Bosman legea gisara ezagun egin zen araubideak. Pascal Bonifaceren hitzetan (2006: 133), europar espazio publikoa bizkortu zuela pentsa daiteke. Areago, Hustingek dioen moduan, nahi ala nahi ez, futbol profesionalak europar hiritartasunaren irudia zabaltzen lagundu zuen, epaileen erabakiari men eginda (Husting, 2008: 134). Erabakimenak Europako estatu kideetako futbolari ez ezik, Europarekin itunak hitzartuta zituzten beste herrialdeetako kirolariak ere hobaritu zien, Europa ekialdekoei nagusiki, eta askatasunezko baldintza berak eman zizkien. *Kolpak* eta *Simutenkov* kasuek bideratu zuten hori (Gardiner eta Welch, 2011: 154-155). Latinoamerikako futbolari askok ere europar jatorria baliatuta estatu kideren baten baimena eskuratu ahal izan zuten eskumen berdinekin Europaren barruan mugarik

gabe aritzeko (Poli, 2004). Gainontzeko jokalaririk atzerritarrentzat kuotak mantendu egin ziren, tokian tokian baldintza eta irizpide ezberdinekin.

Oroitu beharra dago XX.mendearen futbolari kanpotarren joanaren aurkako mugak ohikoak izan zirela, eta Italiari dagokionez jazo bezala, sarritan nazio taldeen emaitzen arabera malguagoak edo zurrungoak izaten zirela. 1966an, lehenik, Ipar Korearekin jasandako porrotatik futbolari atzerritarren joana galarazi zuten luzaroan, eta 2002an berriz, Hego Korearekin final zortzirenetan galdu ostean Europaz kanpoko atzerritarren iritsiera debekatu zuen futbol elkargoak. Italiar gazteen hobekuntza bermatzea zeukaten jomuga, eta nazio taldearen eraginkortasuna bermatzea (Husting, 2008: 137). 1930eko hamarkadan, ordea, Benito Mussoliniren Italia ordezkatu zuen nazio taldeak argentinarrak jokalaririk hartu zituen, italiar jatorria zutenak, kirol garaipena lortzeko. *Oriundi* izena hartu zuten. Bada, jokalaririk atzerritarren erabilpena askotarikoa izan zen, nazioaren irudi homogeneoa agertu edo kirol garaipenaz nazio harrotasuna bideratzearen arteko orekan.

FIFAk eta UEFAk epaitegiek hartutako ebazpena aldarte txarrez jaso zuten, eta atzerritarrez betetako taldeen osakerak klubek gertuko emoziozko ordezkaritza eta nazio taldeen ahala erasango zuela kezkatuta neurriak hartu zituzten. UEFAk 2005ean etxean hazitako jokalarien araudia plazaratu zuen, taldeetan kluba txertatuta zegoen elkargoko klubetan hazitako gutxieneko jokalaririk egon zitezkeen. FIFAk ildo berean, 6+5 izeneko araua sustatu zuen, zeinaren arabera, delako klubak sei jokalaririk zelairatu beharko zituen bere federazioko nazio taldean aritzeko modukoak, alegia, estatu-nazio horren hiribarrak izan beharko ziren uneoro zelaian jarritako sei futbolari behintzat. Dena den, Europako Legebiltzarrak eta Batzordeak FIFArekin ekimena 39.artikuluaren aurkako zela adierazi zuten, hots, Bosman ebazpenaren kontrakoa. Joseph Blatter FIFArekin idazkari nagusiak ezezkoa erantzun zuen, klubek zernahi jatorriko europar futbolariak har zitzaketela, eta baldintza bakarrik partida hasterakoan estatuko sei jokalaririk zelairatzea zela. Azkenerako FIFAk atzera egin zuen 2010ean, eta berriro hausnartuko zuela adierazi zuen (Gardiner eta Welch, 2011: 158-159). 2000ko Nizako Itunean eta Lisboako 2007ko hitzarmenean onartzen zen kirola salbuespenezko esparrua zela, eta merkatu asketik bereizgarria izan zitekeela (Giulianotti eta Robertson, 2009: 110). FIFA eta UEFA zirrikituren baten bila ari dira europar legedian jokalaririk prestakuntza lanean eta batez ere nazio identitateari dagokionez eta klubek inguruko herriekin eta eskualdeekin duten loturan desabantailak sor ez daitezkeen. Europako Batzordeak europar kirolaririk artean naziotasunaren gainean

beherapenik onartuko ez zukeela barneratu zuten futbol erakundeek (cfr.Husting, 2008: 138).

UEFAren gutxieneko proposamenak, taldeetan inguruan hazitako gazteak izatea behartzen zuena, arrakasta handiagoa izan zuen. Hainbat liga txapelketetan ezarri zuten. 2012an Europako Batzordea UEFAren etxeko jokalarien araudiaz ebazpena ematekotan zen. Horrela, Joseph Blatterrek eta Michel Platini UEFAko idazkari nagusiak berrezarri nahi zuten futboleko nazio nortasunaren lehentasuna, lurralde horretako naziotik kanpo etorritako jokalariei mugak ezarrita (Giulianotti eta Robertson, 2009: 109). Blatterrek nabarmendu zuen futbolariek babesa behar zuela nazio identitateari begirunea bermatzeko lehiaketetan eta taldeetan. Nazio identitatearen eta lur planetako aniztasunaren artean aberastasun iturria ei zen erdibidea bermatzea galdegin zuen. FIFAko buruaren hitzetan, klubek aspalditik euren hurbileko eta eskualdeko nortasuna galdua daukate (cfr.Husting, 2008: 134-135). 6+5 izeneko araua zilegitzeko FIFAk plazaratutako arrazoibidea nazio taldeak eta nazioarteko lehiaketak indartzea eta bereziki erakunde horrek antolatutako Munduko Kopa defendatzea zen (Gardiner eta Welch, 2011: 160). Raffaele Polik dioen moduan, futbolaren historian sakon ainguratutako nazio mailako erreferenteak bermatu ahal izateko borondatean datza nazioarteko txapelketak, Munduko Kopak oroz gaindi, sorrarazten dituzten salerosketa diru iturriak bermatzeko nahian (Poli, 2004).

Europar nortasunaren eraikuntzari dagokionez, Europako Txapelaldunen Ligaren eredu berriak estatu bakan batzuetako talde boteretsuen parte-hartze nagusia hobesten du, eta herrialde boteretsuen inguruan diren estatuak eta talde txikiagoek ikusgarritasun gutxi dute kontinente mailako gaur egungo txapelketetan. Hustingek dioenez, lehiaketa europar izaera soilki klubak ezaugarritzen dituzten jokalarien izaera kosmopolitan datza (Husting, 2008: 132). Ildo horretan, nazio nortasunez gain, bestelako talde nortasunak bateratzeko ahalmena baduela futbolariek azaltzen du Manchester United taldearen baitan gainean, adibidez, jarraitzaile multzo batek egituratu duen nortasunak. Taldeak 1990eko hamarkadatik ukan zituen kirol lorpenen ondotik, jarraitzaileek Europan barrena bidaia egiteko aukera eduki zuten, eta pixkanaka erregio eta hiri nortasuna errotu zuten. Gizon horientzat euren nortasuna nazioaz gaindi igo beharrean, herri mailara itzularazi zuten (King, 2000: 427). Erregio eta hiriarik atxikitako identitatearen indartzearen berri eman diezagukete, kontinentearen izaeraren ezagutzaz gain hurbileko euskarrian arreta jarrita. 2020ko Europako Kopa, ildo berean, ohi denez herrialde hartzaile batek antolatua izan

beharrean, hamaika estatu ezberdinetako hiri ezberdinen artean antola zedila ebatzi zuen UEFAk 2012ko abenduan, eta urte horretan erakundea sortu zela 60 urte beteko direla ospatzeko eginiko aldaketa bailitzan aurkeztu zuten (Marca, 2012). UEFAko presidente Michel Platini aurkeztu zuen proposamenaren arrazoibidea zernahi dela ere, ekonomia funtsekoa nahiz europar atxikipena sustatzekoa, futbol txapelketa antolakuntza estatuen erakusleho izatetik, behin-behinean gutxienik, hirien edota kontinente osoaren agertoki izatera eskualdatzea gauzatzen zuen egitasmo horrek.

Futbolaren indar sinbolikoaz europar nortasunaren proiektua askotariko hiritarrei sentiarazteko ahalegina oraindik antzua izan da, eta EBren politika integrazioaren hutsa parekatu du. Izan ere, estatu-nazioek oraindik ere Europaren eskuetan kudeaketa ahala uzteko gogo txarra baldin badute, futbolearen areago ez dute urratsik egin euren nortasuna Europaren mesedetan uzteko bidean. UEFA eta FIFA babes horretan laguntzaile dituzte.

3.3.2-Hego Amerikako estatuetako nazioen eraikuntza Europako enereduari begira eta futbolearen oinarritua

Europako botereen XV.mendetik ondorengo menderakuntzatik eratorritako hala nolako muga artifizialetan sustraitutako nazionalismoen irrika zen identitatea eraikitzea, eta jomuga horrekin gorpuztutako askotariko kultura eta historia ereduak eta bizipenak Europaren zuten iturburua bertako indigenen edo afrikar jatorrikoen emarian baino askoz gehiago. Ironia zetzan modu horretan Latinoamerikako gizartean pixkanaka sentimendu abertzaleak indartzen ahalegintzen ari zen bitartean, maiz hori egiten ari zirela europar kulturaren bereganatzearen geroz eta agerpen handiagoaren bitartekoekin, eta zeinaren adierazpen tinkoak ziren atzerriko kirolen are eta erabilpen handiagoa eta baita horrekin baterako hiztegiaren txertapena ere (Arbena, 1996: 222). Latinoamerikarrek XIX.mende amaieran bereziki gorputz hezkuntza, aisialdia eta lehiakortasun kirolak sustatu zituzten. Argudioa balio hezitzaileak zirela zen, ekonomia sustatu eta kooperazioaren komunitate zentzua garatzen zutela, eta noski abertzaletasuna bultzatu ere bai. Futbola XIX.gizaldi bukaeran errotzen hasi zen kontinentean, Argentinan kasu, non britainiar itsas gizonak eta itsasotik barrurako trenbide sarearen eraikuntzan parte hartu zutenek jokatzeko zuten. Buenos Aires inguruko portuetatik barnealdera barreiatu zuten Argentinan trenbidearen

eraikuntzaren ardura zuten britainiar beharginek eta ingeniariak futbola, eta XX.mendea iritsi baino lehen estreinako klubak sortu zituzten (Darbon, 2008: 266).

Era adierazgarrian, kubatarrek ez eta beste ezein iraultza mugimendu abertzalek ere ez zuten proposatu europar edo ipar amerikar kirolak baztertzea nazio nortasuna eta independentzia goratzeko bidea bailitzan. Nolanahi ere, egokierak jazo ziren abertzaleek era ofizialean edo ez ofizialean indigenen edo kreolen kirolak/jokoak plazaratu zituztela euren herrialdeen kultur oinordetzaren gaineko onespina sustatzeko ahaleginen barruan, baina beti ere Mendebaldeko Kirol gainjartzaileen etengabeko ustiapenaren testuinguru zabalagoan (Arbena, 1996: 229). Joseph L. Arbenari jarraiki, egoera paradoxikoa zen latinoamerikarrek Europako kultur ereduak, kirola barne, nagusiki baliatzeko ahaleginak egin zituztelako oinarrian Europakoa zen kontzeptua gauzatzeko, hots, estatu-nazioaren eraikuntza gizarte abertzaleagoaz batera; eta horren denaren helburua europarregandik eta ipar amerikarregandik bereiztea baitzen aldi berean. Bere ikuspegia aintzat hartuta Latinoamerikan nazioak kirolaren bidez eraikitzeke egindako eginahalak eraginkortasun gabeak izan dira funtsean. Kirol lehiaketek jendeari poza eta baita atsekabea ere eman izan diotela aitortzen du hark. Hala ere, kirolak modu esanguratsuan eta bakarrean nazio identitateari eta batasunaren eraikuntzari ekarpena egin diola esatea epe luzean kolokan jartzeko erakoa dela nabarmentzen du. Arbenak gogora dakar kirolak ez dituela bertako ahultasun, mendekotasun eta agian gutxiagotasun sentipenak ezabatu, Latinoamerikako historiako bazterketari egozten dizkionak. Onenean, gizarte, politika, ekonomia, erregio, etnia, erlijio eta erakundeen indarrekin bat egin du kirolak bere ustez, nazio eraikuntza prozesuan laguntzeko (Ibid., 233). Latinoamerikako eta Hirugarren Munduko herrialde askok kirolak Europako eta Ipar Amerikako herrialdeetan eskainitako onurak liluraturik dituela deitoratzen du Arbenak, bide batez. Barneratu beharrekoa da kirolaren inguruko hausnarketa kritikoa inondik ere, baina hemendik aurrera xehetasunez behatuko ditudan kontinente horretako kirolaren eta nazioaren arteko hartuemanek adierazten dute batez ere futbolaren eta estatu-nazio jaioberrien baitako nazio eraikuntzaren arteko harremana Europarekiko mendekotasunetik haratagokoa dela. Esan nahi bata, Europako etorkinek garai goiztiarrenetatik plazaratu zutenetik nazioa egituratzeko eremua bilakatu zela, eta jende askorengan ernatutako sugarraren bidetik Europako agintariak marraztu zituzten muga artean nazio bat imajinatzeke moduko hunkipen sustraia bihurtuko zela futbola.

Hego Amerikako konfederazioa 1916.urtean sortu zen, eta geroko urtean jadanik Amerikako Koparen lehenengo aldia ospatu zen, Munduko Kopa Uruguain abiatu baino hamahiru urte goizago. Erdialdean Panama, Kuba, Nikaragua eta hegoaldean Venezuela salbuetsiz gero, Hego Amerikako herrialde denetan futbola kirol gailenena da. Bereziki brasildar eta argentinarrei dagokienean, eta baita nazio taldeok begiko dituzten milioika latinoamerikarren kasuan ere, futbola da Europa erdiguneari hala nola nagusikeriaz ere erreparatzea ahalbidetzen diena. Identitate krisialdian futbolak nortasun bat eskaintzen die Ezequiel Fernandez Mooresek arrazoitzen duen moduan (2006: 67). Esan nahi baita beren buruaz harro izateko aukera. Mariano Solivellas Aznarrek gardentasunez azaltzen du Munduko Kopen historiaren inguruko tesian barrena gaiaren gaineko aburua, bertako futbolearen abertzaletasunaren auzia argi eta garbi azaltzen dela argudiatuta. “Aberriaren eta nazio futbol taldearen arteko identifikazioa berehalakoa izan zen” (1981: 119). Hala, futbola Britainia Handiko etorkinek eurekin eramandako ondasunen arteko bat bilakatu zen, hastapenean eurentzat eta bertako eliteentzat mugatua, baina pixkanaka-pixkanaka herritar xeheenek ere bertakotu zutena kirolari buruzko etorkizuneko irrikaren aitzindari bihurtuta. Kirolaz nazioa imajinatu ahal izatea ahalbidetuko zuen horrek, eta hedabideek eragin bizia izango zuten horretan, nazioaren nortasuna futbol soropilean islatuko zuen nazio futbol taldearen joko era asmatu eta zabaldu zutelako, 1910. hamarkadatik hasita, baina 1920ko hamarkadan barrena bereziki, hain zuzen ere nazionalismoak, futbola eta prentsa idatzia bakarka nahiz batera indar handia hartzen hasi zirenean.

Argentinan lehenik eta behin tren lantegietako eta ontzioletako langileen artean herri mailako futbol taldeak sortu zituztenean geroko hamarkadetan futbol ekitaldiaren inguruan, jendartean nahiz gizarte zientzialarien artean gailenduko ziren kontrajarritako bi ikuspegi tankera azaleraziko zen. Zenbait eledun anarkistak eta sozialistak arbuia zuten burgesiak grebak saihesteko eta gizarte kontraesanak moztzeko plazaratutako amarrua zela futbola. Munduan futbola zabaltzea zapal dutako herrialdeak haurtzaroan mantentzeko trikimailua izango ei zen. Dena dela, Eduardo Galeano idazleak futbolaz idatzitako liburuan oroitzen du Argentinos Juniors taldea Martires de Chicago deituraz, hots, Chicagoko martiriak izenez, sortu zela, maiatzaren bateko egun batez urkatutako behargin anarkisten omenez. XX.mende hasieran futbolaren etorrera ospatu zuten ezker ideologiako pentsalariak ere izan ziren, kontzientzia lokarazlea bailitzan gaitzetsi ordez. Antonio Gramsci italiar marxistaren hitzok dakartza gogora horren adierazgarri Eduardo Galeanok, non “kanpoaldean burutzen den giza leialtasuneko erresuma” hobetsi zuen.

(Galeano, 2003: 37). Oroz gain kirolaren eta futbolaren gaineko hausnarketa biziak baztertzeko beharra azaltzen du askotariko iritzien jarioak, eta britainiarrek eramandako kirolak kontinenteko nazioen osaeran izandako parte-hartzeari arinki bizkarra ematearen bidegabekeriaz. Brasilen aniztasunean oinarritutako nazio ideian lagundu zuen futbolak.

“Futbola eta aberria beti elkar lotuta daude; eta maiz politikariek eta diktadoreek identitate uztarri horiekin jokatu ohi dute” (Ibid., 38). Galeanok Italiako faxismoaren eta Alemaniako nazismoaren futbolaren baliatzea darabil ahotan adierazpen hori igortzean, baina XX.gizaldiko Hego Amerikako bizipenei ere zuzen badagokie. Diktadura kolpeez gain ustelkeriaz zipriztinez egon da zizelkatuta kontinenteko futbola mende bat baino luzaroagoko historian. Estatuaren arteko neurketetan, Mexiko, Argentina eta Paraguairen adibideak aipatzen ditu Ezequiel Fernandez Mooresek besteren artean, FIFAREN barruko agintaritzan barreiatutako ustelkeria ere plazaratuta (Fernandez Moores, 2006), eta baita Europarako bidea egiten duten ehunka jokalariren bitartekaritzaz hobaria ateratzea nahi duten enpresa gizonen enda ere. Arazo nabariorik gairikoa da nolana ere, futbolariak sorrarazten duten pasioa eta horrek nazioaren emozioarekin duen uztarria, inondik ere.

3.3.2.1-Mende batez futbolaz nazio argentinarrari aintza eginez: 1978ko Munduko Kopaz gairikoa erabilpena

“Gooooo! Gooooo! Negar egin nahi dut! Jainko maitea! Aintza futbolari! Gol izugarria! Diegool! Maradona! Negar egitekoa da, barka iezadazue, Maradona ibilbide gomutagarrian, inoizko jokaldi onenean... Barrilete Kosmikoa... Zein planetatik etorri zara bidean hainbeste ingeles lagatzeko, herria Argentinaren alde oihukatzen estututako ukabilaren parekoa izateko. Argentina 2 Ingalaterra 0. Diegol, Diegol, Diego Armando Maradona... Eskerrik asko jaungoikoari, futbolagatik, Maradonagatik, malkoongatik, Argentina 2 Ingalaterra 0 honengatik”.

Victor Hugo Morales irrati esatari uruguaiarrak hedabide horrek ahalbidetutako emoziozko hauspoaren bitartez argentinarrari helarazitako abertzaletasunezko sugarrak gardenki ikusarazten du Argentinako nazioaren bihotzean futbolak hartutako eskumena. Oroz gain lau urte lehenago Atlantiko Ozeanoko Malvinetako Uharteetan Ingalaterrako

eta Argentinako armadek eginiko gerratik lau urte eskasera 1986ko Mexikoko Munduko Kopako zelaia mendeku eremu sinbolikoa bihurtu zelako, hots, argentinarrek ingelesei galera ordainarazteko aukera²⁴. Esatariaren ospakizun gogoangarriak Munduko Kopetan bereziki Argentinako nazio taldearen inguruan herritarrek adierazitako batasuna aditzera ematen du, eta zortzi urte lehenago, 1978.urteko Munduko Kopan ere, junta militarrek egindako hilketez gaindi gainjarri zen nazio taldearen eta nazioaren funtsen hartuemana.

Futbola oso goiz garatu zen Buenos Aires hiriburuan. Izan ere, bilakaera aintzat hartuta Britainia Handiaren ondoren goiztiarra izan zen (Duke eta Crolley, 2001: 95). Trenbide sareak aurrera egin ahala futbol klubak sortu zituzten beharginek, eta hartara auzoak eraiki aurretik azaleratu ziren taldeak eta gerora horiei lotutako auzo nortasunak. Ohiko futbol klubaren bilakaeraren alderantzizko bidea gertatu zen horrenbestez hiriotan. Argentinako futbolaren oihartzunean ikertu duen Pablo Alabarces soziologoari jarraiki, azaleko nortasun iragankorretik haratago futbolak identitate indartsuak hezurmamitzeko moduko eremu dramatikoak helarazten du. Argentinaren adibidean futbolaren sorkuntzak identitate krisialdiarekin bat egin zuela deritzo, estatu nazioaren hala nolako gaztaroari eta etorkinen joanari lotutakoa (Alabarces, 1999: 78). Esan nahi baita Argentinako nazio identitatea gogoeta eta norgehiagoka auzia zen garaian futbola sona eskuratzen ari zela, eta nortasun iturri bilakatzen ari zela. XX.mendeko lehen hamarkadan etorkinek beren sorterriaz herrimina zuten, eta berezko eskola ereduak garatzen saiatu ziren. Futbolak eta talde jaioberriek nazioan integratzeko ahalbidea helarazi zieten immigranteei. Eduardo P. Archetti berriki zendutako soziologoak zioen moduan, nazio errittoa bailitzan futbolak izandako sona berezko nazio nortasun indartsua finkatzeko ardura handiagoari lotutako giroan ulertu beharra dago (Archetti, 1994: 229). Hasiara batean, taldeek herri mailako eta auzuneetako komunitateekin elkartzun irmoa osatu zuten. Goi klaseen hastapeneko uzkurdura gaudituta, eta baita sozialistek eta anarkistek amarru menderatzaitzat hartu izana igarota, futbola edonon hedatu zen nazio kirola bihurtzeraino. Kirolaren amateur nortasunaren oinarri aristokratikoak baztertu arren horrek ez zuen adierazi nahi gizarte eliteek osoki futbola alboratu zutenik. “Alderantziz, jokoak sustatzen jarraitu egin zuten, politika erreminta gisara erabiltzen, horren bitartez gizarte estatusa irabazteko, eta modu kontzientean izan nahiz izan ez, gizarte kontrolerako bitarteko gisara erabiltzen” (Duke

²⁴ Diego Armando Maradonak gerora jakinarazi zuen partida horrek futbolaz haratagoko esangura handia zuela Argentinako jokalarientzat. “Herrialde bati irabaztea bezala zen, ez futbol talde bati”[...]. “Nolabait guk jokalaria ingelesak gertatu zen guztiaren erantzule egiten genituen, herri argentinarrek pairatu zuenaz” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 42).

eta Crolley, 2001: 100). Sebastien Darbonek, ordea, behe klaseetatik bereizi aldera goi klaseetako partaideek futbola pixkanaka baztertu egin zutela kontrajartzen du, cricketa, tenisa, errugbi eta poloaren alde zokoratu ere (Darbon, 2008: 269). Aldaketa nabari zen.

Futbola 1930eko hamarkadan ogibidea bihurtu izanak are ospetsuagoa egin zuen eta gainera masa hedabideen hedapenez bat egin zuen. 1910eko hamarkada goiztiarretik argentinaren estiloaren mitoa eraikitzen hasi ziren, eta gailentasunezko parte-hartzea eduki zuen idatzizko prentsak, bereziki *El Grafico* aldizkariak, hurrengo hamarkadetan. Kreol futbolearen jokatzeko aldaera, europar jatorriko argentinaren gehiengoaren eta ondorengo nortasunari uztartutako futbolearen aritzeko modua alegia, herrialdeko natur ingurumenak baldintzatua zela plazaratzen zuten, eta horrenbestez kreolen estiloa jaiotzaz atxikitakoa zela sortzekoa, ikasitakoa izan beharrean. Sebastien Darbonek zehazten du estereotipo modura definitzen duen hedabideen asmakuntzak argentinaren nazionalismoa garatzen ari zela garaian nortasuna aldarrikatzea zuela helburu, eta ondorioz britainiarrak baztertzeko. Britainiar eskoletatik karriketarako igarobidea izan zen kreolizazio prozesuan, eta bide batez argentinaren futbolaren sorkuntzan, britainiar jatorriko gabeko etorkinen fluxuetatik eratorritako nahasketa eredu berrira (Ibid., 270-271). Profesionalizazioan ekarpena egin zuen *Crítica* izeneko egunkariak kazetaria bidali zuen Buenos Airesko Boca Juniorsen Europar egin beharreko partida bira zela eta berri emaile gisa ari zedin. Lehen Mundu Gerraren ondorenean nazionalismo mugimenduek kirola ere bereganatu zuten gizarteko beste hainbat alor bezala, eta *Crítica*-k futbolaren sona baliatu nahi izan zuen irakurleko batua eta homogeneousoa osatzeko, hots, Boca Juniorsen atzerri bidaiaren inguruan nazio irudikapena eta kontsentsua sorrarazteko. Hori aztertu ondorenean, Julio Frydenbergek (2006: 87) ondorioztatu zuen *Crítica* egunkariak ezinbesteko ekarpena bete zuela berri emailea bidaltzearekin, futbolaren inguruan argentinaren kirol nazionalismoa azaleratzeko.

Egunkariak eta irriak kirola hedatzen laguntzearekin batera masak kontrolpean izateko eta manipulatzeko baliatzea ere ahalbidetu zuten garai politiko ez egonkorretan, 1930. hamarkadako Agustin Pedro Justo jeneralaren agintean tarteko. Estatuak ligan eta klubetan zuzendaritzan ekimen zuzena hartu izana futbola propaganda politikorako tresna modura erabiltzearen garrantziaz jabetu izanari dagokio. Juan Domingo Peronek futbola herrialdeaz irudi baikorra igortzeko erabili zuen. Kirol arrakastak Peronen arrakastekin hainbeste parekatzen zituzten, ezen Argentinako kirolariek irabazitako dominei Peronen dominak deitura jartzen zieten (Duke eta Crolley, 2001: 103). Benito Mussoliniren ildo

berean, eta faxismoaren erabilera berdinduz, Argentinako lehen kirolariaren izendapena hartu zuen Peronek, eta modernizazio ildoak ez ezik, patriotismoa eta diziplina irakasteko norantza bailitza hauteman zuen kirola (Dietschy, 2010: 253). Nazioarteko txapelketak ospea hartzen hasi ahala, ohi denez, futbolak nazio sentipenak sustatzeko iturburu erara estatuaren arreta areago handitu egin zuen. Estatu futboletik gizarte droga bailitza edo beste batzuetan, demokrazia aroan, boto emailea bailitza hobaria ateratzen ahalegindu zen. River Club and Boca Juniors taldeetako presidentek batez are dirutza baliatu zuten jokalaria onenekin jendetza erakarri eta arrakasta ziurtatu asmotan. Emaizten beharizan handiak ustelkeria eta indarkeria eragingo zuten azkenerako futbol neurketen inguruan. Futbolzale sutsuenek taldea eta kluba babestu ez ezik, klubeko presidentea izan zitekeen politikariaren mesedetan politika ekimena hartu ohi zuten. Politikarien eta zale taldeen arteko harreman zuzena une gorenera heldu zen *Barras bravas* deritzen klubetako zale multzo eragingarri biolentoen garapenerekin (Duke eta Crolley, 2001: 104). Abantailen trukean politikan murgildu ziren, eta jokalaria eta baita klubetako zuzendaritzakoak ere mehatxuen eta erasoen jomuga izan ohi dira gaur egun ere. Areago, 1978ko Munduko Kopa aginteko Junta Militar odoltsua ere *Barras bravas* deiturako futbol gaizkileekin hitzarmena egitera makurtu zen Munduko Kopa indarkeria ekintzekin erasan ez zezaten.

Jorge Rafael Videla militarren diktaduraren buruak 2012ko ikusmiratik aro horri erreparatuta jarrita Argentinarentzat Munduko Kopa hartu izanak zuen etorria errepikatu zuen, hiru hamarkada igarota ere, eta nazio taldeak irabaztea ospakizunaren gehigarria izan zela aditzera eman zuen *Cambio 16* Espainiako aldizkariari kartzelatik eskaintako elkarrizketan: “Irabazi izanaz aparte, herrialdeak denbora motzean antolaketa gaitasuna erakutsi zuen. Munduari erakutsi genion halako nazioarteko ekitaldia antolatzeko gauza ginela eta jakinduria bageneukala” (Videla, 2012). Nazioaren ahalmena barnealdera eta kanpoaldera begira ikusaraztea zen erronka, futbol zelaiko jokoarekin, eta baita, esanahi bereziarekin ere, horretatik kanpoko nazio gaitasunaren frogaren bitartez ere. Ekonomia hondoratua zuen herrialdea izanagatik, antolakuntzak ahalegin handia eskatzen bazuen ere, Videlak Juntak indartu zuen kirol ekitaldiaren prestakuntzaren arrakasta gogorarazi zuen, mundu osoaren arreta herrialdean gertatzen zenari erakarrita, futboleko partidetan, nahiz ezinbestean inguruko agintaritzaren errepresioaren giroan ere.

FIFAk 1966an eman zion Argentinari 1978ko 11. Munduko Koparen harrera²⁵. Jorge Videla jeneralak 1976ko martxoaren 24an estatu kolpea emateko hamarkada luzea falta zen artean, eta Juan Peronen hirugarren agintaldia, bere heriotza eta haren emazte eta presidenteorde Isabel Martinez de Peronen kargu hartzea gertatzekoak ziren. Azken gobernu horrek ez zuen ahalegin bizirik egin herrialdea Munduko Kopa hartzeko atondu ahal izateko, eta batzuek kezka zuten Argentinak ekitaldia antolatzeko helburuan amore eman beharko ote zuen. 1976ko hasieran muturreko gatazka egoerak hartu zuen estatua, ezkerreko taldeen erasoaldiei jarkitzeko talde paramilitarrak sostengatu zituzten estatuak eta Peronen aginteko alderdi barruko muturreko partaideek. Juan Peronen heriotzarekin batera lehertu zen erakundeen krisiak eta ekonomiaren beheraldiak erabat makurrarazita zuten herrialdea. Urteroko inflazio tasa %566.3koa zen. 1976ko martxoan %56ko gailur historikora heldu zen inflazioa. Horrekin batera bost orduro batez beste gertatzen ziren politika zioei lotutako hilketak eta hiru orduro ildo bereko bonbek eztanda egiten zuten (Archetti, 2006: 135). Junta militarrek estatu kolpearekin Nazio berrantolaketa prozesua izenaz deitu zuen agintaldiari ekin zion ezkerreko talde matxinoak azpiratzeko helburu nagusiarekin. Errepresioa, tortura, bahiketa eta hilketa ohiko bihurtu zituzten, eta 30.000 lagun erail zituzten 1976tik 1983ra bitartean. “Militarren parte-hartzera eta indarkeriara ohituta zen herrialdeak ez zuen inoiz tamainako krudelkeria eta basakeria jasan” (Ibid.).

Agintea hartu eta lasterrera, Munduko Koparako prestaketa sustatzeko batzordea eratu zuen Juntak. Estatu kolpea burutu eta hilabete gutxira futbol ekitaldia lehentasun handieneko nazio egitekoa zela esan zuen Videlak, eta horrenbestez Gobernuarengandik erabateko arreta izango zuela. Ikus-entzunezko azpiegitura hobetu eta kolore bidezko telebista ezarri zuten militarrek. Atzerriko kazetariak juntaren hilketen berri ematen ari zirenean bere burua zuritzeko aukera gisa hartu zuten futbol lehiaketa gorena militarrek, eta Argentinako nazio aurrekontuaren %10 helburu horretara zuzendu zuten. Alderaketa eginez gero, lau urte geroago, hots, futbola mundu zabalean are gehiago zabaldu zenean, Espainiak soilik aurrekontu horren herena erabiliko zuen Munduko Kopa antolatzeko. Argentinak ekitaldian erabilitako dirua urtero hezkuntzara zuzentzen zuenaren %40 izan zen (Rein eta Davidi, 2009: 674-675). Ezinbestean kanpo zorra handiagotu egin zuen militarren ekimenak eta gizarte garapeneko funtsezko inbertsioak atzeratu. Inbertsioaren

²⁵ Hain zuzen ere urte horretan Ingalaterran jokaturako Munduko Kopan Hego Amerikako prentsak euren nazio taldeen aurkako epaileen jarrera salatu zuen, eta europarrak haien aurka bat eginda zeudela. Hala, Argentinako jokalariek sorterrian lur hartu zutenean harrera arranditsua egin zieten, eta taldeko kapitaina, Ingalaterraren aurka epaileak kaleratua, nazio banderarekin inguratu zuten (Solivellas Aznar, 1981: 122).

tamainak antolaketa batzordeko militar arduradunen arteko ezinikusiak amilarazi zituen, eta Omar Actis dirua nolabait aurreztearen aldekoa erail egin zuten. Ekonomia ministro Jose Alfredo Martinez de Hozek Videla ohartarazi zuen diru gehiegikerioi buruz, baina haren erantzuna zalantzarik gabea izan zen: “Ehun milioi dolar gehiago balioko balu ere Argentinarentzat onuragarria zatekeen” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 38). Junta jabetu zen FIFA ez zela balio etikoei jarraiki Munduko Txapelketa bertan behera uzteko prest, eta aldizka egiten zituen behaketak antolaketa gaitasuna begiratzekoak zirela, militarrek herritarren aurka oztoporik gabe ezartzen zuten indarkeria oldeari erreparatzeke. Barne oposizioak oro har eta Montoneros talde armatu nagusiak gainera errepresioa jasanda ere ekitaldia ez erasatea ebatzi zuen, Brasileran aldatzeko aukera gauzatu gero ondorio okerragoak zituzkeela pentsatuta, eta atzerritarrak diktadura arbuiatzera bertara joatera gonbidatu zituzten. Juntaren balizko biktimizazioa ere eragotzi nahi zuten bide batez.

Antolakuntza batzordeko militar eledunak, Antonio Merlok, *Somos* egunkarian adierazi zuen munduaren aurrean Argentinaren antolaketa ahalmena ikusaraztea zutela helbururik behinekoena (Archetti, 2006: 137). Alemaniak 1936ko Olinpiar Jokoein eta Italiak 1934. urteko Munduko Koparekin antolakuntza goratuta plazaratu nahi izan zuten gailentasunezko irudia errepikatu nahi zuten, inondik ere, orduz geroztik garaiak aldatu eta belaunaldi batzuk joanak izan arren. Italia faxistarekin nahiz Benito Mussolinirekin berdindu zuen gainera Juntak txapelketako bigarren faseko Peruren kontrako neurketan partida erosi zuela susmoak zabaldu izanak. Finalera heltzeko lau goleko aldeaz irabazi behar zuten argentinarekin, eta 6-0 irabazi zioten jaiotzez argentinarra zen atezaina zuen Peruko taldeari. Militarren xedea aise hautemateko modukoa zen. Munduko Kopa ezin hobeto atontzea eta zernahi kosta argentinaren garaipenarekin biribiltzea. Talde onena osatu ahal izateko saldu ezin zitezkeen edo Europako taldeetatik aske utzi behar ziren futbolarien zerrenda osatu zuten militarrek. Oro har hedabideei erregimenaren hilketei buruz aipamenik ez egiteko emandako agindua – *desagertuak* eufemismo deitura erabili zuen erregimenak, ezkertiar ekintzaileen eta haien ingurukoen aurka militarrek hasitako oldarraldi odoltsuari gizarteak asaldadurarik gabe bizkarra eman ziezaion – eta zentsura kirol kazetaritzara ere barreiatu zen futbol ekitaldiaren karietara. Munduko Kopa baino lehenago oharra helarazi zioten prentsari Argentinako nazio taldearen edozein alderdiri buruzko kritika oro debekatzeko (Smith, 2002: 72). Atzerriko prentsak igorri zezakeen lekukotzari buruz artega zeuden militarrek, oroz gain berri emaileak Juntaren kontrako norbanakoekin elkar zitezkeelako. Amnesty International giza eskubideen defentsarako

erakundeak kazetariei eskatu zien futbol ekitaldiaren berri bertatik bertara mundu osoko hiritarrei ematen zioten bitartean militarren oldarraldiaren krudelkeria ere jakinarazteko. Horrela, atariko hilabeteetan erregimenaren tortura kasuei buruzko salaketen berri eman zuten, baina, batez ere futbol partidei buruz idatzi zuten (Rein eta Davidi, 2009: 677). Hainbat erregimenak limurtu zituen eta bakan batzuek desagertuen egoera azaldu zuten.

Hamabost estaturen talde ordezkariak militarrek kudeatutako ekitaldi jendetsua zilegitu zuten futbol lehiaketatik hurbil kirolek haratagoko hil ala biziko norgehiagoka gertatzen ari zela ahanzturan galarazita, hau da, diktadurak atzemandako lagunen bizi oinazearena. Gobernu aurrerakoiek zuzendutako demokraziak ordezkatu zituzten talde horietako askok, baina ekitaldi horri lotutako ideologia gainjartzaileak futbola eta kirola gizarte zibilari zegozkiola arautu zuen, hots, estatu politika burutazioetatik burujabeak. Futbola politika ez zela eta inoiz izango ez zela adierazi zuten herrialdeotako eledunek (Archetti, 2006: 135-136). Munduko Kopari boikota egiteko hainbat herrialdetan gizarte taldeek bideratutako ekimena erabat kontrakoa zen pentsaeraren gainean sustraitu zen, hau da, kirola politikatik banaezina denaren ikusmoldean. Hala ere, ezkerreko alderdiek ez zuten aho batez inondik inora boikotaren aldeko hauturik agertu, eta SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunak Argentinarekin lotuta zituen lehenetsitako ekonomia harremanek alderdi komunistak, baita Argentinakoa ere, boikotaren aurka lerratu zituen (Rein eta Davidi, 2009: 676)²⁶. Cesar Luis Menotti nazio taldeko prestatzailea Alderdi Komunistako partaidea zen, eta kargua hartu zuenean alderdiaren oniritzia erdietsi behar izan zuen, komunisten estrategiarekin postua bateragarria zela erabaki ostean. Haientzat ezkerreko ekintzaile taldeak ziren etsaiak, ezkerreko iraultza azpiratzea helburu zeukan Junta baino gehiago (Archetti, 2006: 139). Militarrek hautatzailearen adierazpenei ere zentsura ezarri zieten, eta hark bere jardunean soilki herrialdeko futbola babesten zuela aditzera eman zuen. Dena den, taldearen osaeraren izaera nazio ekimenarekin parekatu zuten, berariaz probintzietako, eta oro har barnealdeko, futbolariak hara deitu baitzituen.

Herbehereen kontrako finalaren biharamunean argentinarren jokoaren nortasun bereizgarri garaitsua goraiatu zuten hedabideek europar futbol modernoari kontrajarriz. Kreol – jatorriz europarrak izanik aitzineko kolonietan jaiotako lagunei eta ondorengoei

²⁶ Johan Cruyff garai hartako izar distiratsuenetakoa Argentinako Munduko Kopan jokatzeari uko egin zion eta Junta Militarraren estatu hilketen aurkako protesta keinua bailitzan joa izan zen denbora luzaroan orduz geroztik. Hala ere, Cruyffek 2008an Catalunya Radio irratian esan zuen garai hartan Bartzelonako etxebizitzan gaizkile batzuek bera eta sendia pistolaz mehatxatu izanak bultzatu zuela lehiara ez joatera.

deritzaie, Amerikako gizarteak burujabetzaraino eta baita ondoren ere gidatu zituztenak testuinguru honetan – futbolarien teknika eta trebezia holandarren errobotaren moduko joko moldearekin alderatuz gailendu zela adierazi zuten kazetariak. Tradizioan, kultur jarraipenean eta oinarrietarako itzuleran sustraituta nazio diskurtsoa sortzeko Menottiren ahalegina garaitsua izan zen, Eduardo P. Archetti soziologo eta antropologoari jarraiki (Archetti, 2006: 140). Nazio taldeak adierazitako jokatzeko modua nazioaren bilakaeraz eta oro har haren funtsaz berdindu egin zuten Argentinako hedabideek, munduan zehar toki askotan antzeman daitekeenez, erregimenaren aginduetara nazio taldeak Munduko Kopan erdietsitako lehenengo garaipenaren zoramena igortzen zuten bitartean, futbolaz kanpoko gizarte egoerari bizkarra emanez. Horrela, hedabideen oihartzunak handitutako futbolaren hunkipenak nazionalismo olatua altxarazi zuen. Argentinako prentsak “gu”, “denok”, “argentinarrak” gisako hitzen erabilpen nabarmenarekin nazioaren kolektibo barneratzailearen irudia kaleratu nahi izan zuen. Hartara, ospakizunetan emakumezkoen eta klase herrikoien parte-hartzea frogatzen zuten argazkiez lagunduta erregimenak nahi zuen batasun irudia eman zuen (Dietschy, 2010: 296-297). Herbehereen kontra finalean biribildu ziren estadioetako eta kaleetako zorion agerpenak nazio proiektuaren arrakasta gisa ikusarazi zituzten aginteko militarrek. Jorge Videla jeneralaren ahotan “Argentina, Argentina” deiadarrak eta herrialde osoan haizatutako milioika banderak nazioak bere duintasuna berreskuratu izanaren adierazgarri ziren. Juntak harrotasunez adierazi zuen txapelketak erakutsi zuela partidak ez zituztela soropileko 11 futbolari jokatu 25 milioi argentinarrak baizik (Archetti, 2006: 137). Eric Hobsbawmek arrazoitutako aburua, eta tesi honetako ardatzetako bat dena, hau da, nazioa iraganean eta gaur egunean, modurik agerikoenean 11 jokalarien taldearen bidez agertzen dela dioena, ageri da erregimenaren adierazpenean, eta futbol taldearen patua eta nazio komunitatearena uztartzen duena ere. Irrati eta telebistetako iragarleek futbol ekitaldiaren ereserkian ere txertatua zegoen leloa etengabe kaleratu zuten. Horrela, Munduko Koparen aurka zeudenak edo boikota egiten zutenak ez zituzten aurrerantzean taldea bere egin zuen aberriaren kide bezala onartuko (Rein eta Davidi, 2009: 678).

Juntarentzat garai oparoena izan zen 1978ko ekaina hura, mundu zabalera nazio irabazlearen ideia igorritz erregimena zilegitu zela sinetsita baitzegoen. Halaber, barnera begira futbol taldeak kanpo etsaien aurrean nazioa batu zuela ondorioztatu zuen. Futbola patriotismoa jokoan zegoen eremua zenez gero, lehenetsitako eremua bailitzan finkatu zen. Finalaren ondorengo laugarren egunean Menottiren gogoeta zuzendu zuen Videlak.

Garaipena “gaitasunaz, adoreaz eta diziplinaz” lortu zutela plazaratu zuen, eta ez nazio taldeko prestatzaileak aurretiaz adierazi bezala “teknika trebeziagatik” (Archetti, 2006: 141). Multzoaren irudia indartu nahi zuen inondik ere diktadoreak, nazioa goratu asmoz, norbanako jokalarien futbol mailari gainjarriaz. Xede horretan FIFAk laguntza eskerga eskaini zion diktadura hiltzaileari. Joao Havelange erakundeko presidente hautatu berria Videlarekin batera hartu zuten uneoro telebista kamerek, eta han egindako adierazpenek FIFAk Argentinako erregimena zilegitzen izan zuen adieraz zalantza oro deuseztatzen zuten: “Behingoan munduak Argentinaren benetako irudia ikusi ahal du” (cfr. Galeano, 2003: 175). Finala hartu zuen River Platen futbol estadioetik gertu Armadaren Mekanika Eskola zeritzona zegoen, militarrek bahituak torturatzeko erabili zutena eta Argentinako Auschwitz gisara ezaguna. Era berean, handik kilometro batzutara hegazkinek presoak itsasora jaurtikitzen zituzten, erregimenak *desagertuak* ezizen itxuratuaz izendatutakoak desagerraraziaz. Eduardo P. Archettiren irudiz, Argentinan diskurtso bikoitzean antolatu zen futbolaren gaineko pasioa: tradizioaren narrazioa eta jokatzeko moduan alde batetik, eta komunismoaren eta matxinadaren aurka borrokan ari zen nazio ideologian bestetik. Julio Marinik idatzia da orduetik hiru hamarkada baino gehiago igaro direnean ulertzeke dagoena dela kirolaren inguruko herri maitasuna nola agertu zen garai odoltsu horretan (Archetti, 2006: 145). Izan ere, tortura guneetan gatibu zeuden presoek ere garaipenaren atsegina hauteman zutela diote orduko berri emaileek. Neurri handi batean futbola eta nazionalismoa batzen dituen emoziozko lokarri ez arrazionalak azal lezake erregimenak ildo horretan bere helburua lortu izana. Futbolaren bitartez nazioarteko irudia zuritu ahal izateko militarrek milioi erdi dolar xahutu zuten Burson-Masteller AEBetako harreman publiko aholkularitza enpresaren lanean. Herrialdean bakea nagusi zela ikusarazi behar zuten giza eskubideen aldeko ekintzaileen akusaziopean. Munduko Koparen atarikoan errepresioa areagotzeaz gain, Munduko Kopako ekitaldiak hartu behar zituzten hirietatik euren etxeak uztera behartu zituzten biztanle txiroenak pobrezia amaitu zela adierazteko (Rein eta Davidi, 2009: 675).

Argentinako erregimenak 1978an antolakuntzagatik kanpo onespena jaso zuen, politikaren eta kirolaren arteko banaketa ikusarazi nahi izan baitzuten. Italian faxismoak 1934ko Munduko Kopaz egindako erabilpenaz bereizi zen hein batean bere ideologiaren eta kirolaren arteko lotura lausotuta. “1978an horrelako ahaleginak ondorio oso txarrak ekarriko zituzkeen; Junta Militarrak hain zuzen ere egin zuena izan zen herri oso baten lanaz mintzatzea” (Solivellas Aznar, 1981: 139). Dena dela, batasunezko une gorenetik

haratago Jorge Videlak ez zuen erabat lortu futbolaz herritarrak limurtzerik (Eisenberg et al., 2004: 289). Bata zen futbol garaipena herritarrek nazionalismoarekin uztartzea eta ezberdina herritarrek diktadura neurri berean zilegitzea. Gainera, nazioartean, kirol berri emaileek Argentinako egoera jakitera eman zuten kirol ekitaldiari buruzko informazioa eskaintzeaz gain. Nolanahi ere, gerora ere diktadura ahalegindu zen futbola bere boterea zilegitzeko erabiltzen. Nazio taldeak Munduko Kopan lortutako lehen garaipenetik urte bat pasa ostean Diego Armando Maradona gazteak ezaugarritutako hogeitaz azpikoen Argentinako taldeak ere munduko txapelketa erdietsi zuen Japonian. OEA Ameriketako Estatu Erakundearen batzordeak giza eskubideen egoeraren behaketarako Argentinara egindako bisitaldiarekin bat egin zuen garaipenak, eta hedabideen laguntzaz diktadurak ez zuen abagunea hobaririk gabe alferrik galtzen utzi. Kaleetara ospatzera ateratzeko eta batzordeko kideei benetako Argentinaren berri emateko dei egin zuten hedabideetatik, eta desagertutako lagunen sendien kideek haien lekukotza emateko zain ziren bitartean, kazetariak jendetzaren zoramenari eskaini zioten erabateko arreta. Gazteen nazio taldea sorterrira itzuli zenean Videlak harrera egin zion, eta telebistaz zuzenean eskaini zuten ekitaldia (Alcaide Hernandez, 2009: 41).

Azken futbol garaipen horretatik hiru urte igaro zirenean, 1982ko apirilaren 2an, telebista publikoak Malvinetako uhartedia bereganatzeko Argentinako armadaren saioa zuzenean eman zuenean, futboleko 1978an lortutako garaipenaren irudiekin uztartu zuen zuzenekoak. Taldeko jokalariek, Maradona izar berriak barne, ekimen militarra babestuz agerpena egin zuten. Paul Dietschyk egoki aipatzen duen moduan (2010: 297), Malvina Uharten birkonkistaren inguruan argentinarrak berriz eragitea helburu zuten militarrek, eta britainiar inperialismoaren aurkako borrokaren tankera zuen heinean, baterazlea izan zitekeen. Bidezkoa da ondorioztatzea bata, kirol ekitaldia, zein bestea, guda, erregimena zilegitzeko eta nazioaren iruditeria elikatzeko helburu antzekoak zuten bitartekoak zirela, talde batasunezkoa. Atlantikoan kokatutako uhartediak guda sorrarazi izana arrazoibide sinbolikoan bilatu behar da hiru mila biztanle inguru dituen lurralde txikiaren ekonomia zioetan beharrean. Ekainaren 14an argentinarrak amore eman zuten Erresuma Batuen armadaren aurrean eta Junta Militarren amiltzea eragin zuen. Militarrek hastapenetik amaiera arte baliatu zuten beren mesedetan futbolariek argentinarrengan behinola zabaldu zenetik eragiten duen sugarra eta nazioa islatzeko duen boterea. Ildo berean hedabideen jardunetik etekina atera zuen Juntak herritarrak politika aldarrietatik urruntzeko. Astero sei partida eskaintzera heldu zen eta klubei laguntza ekonomikoa helarazi zien trukean,

estadioetan ikusleak gutxitu zirelako (Ibid., 37). Munduko Kopaz haratagoko baliatzea burutu zuten ondorioz, eta bitartean, apurka-apurka hedabideen boterea handiagotu egin zen futbolean.

Demokrazia 1983.urtean itzuli zen Argentinara, eta Juntako kide denak eta beste hainbat militar goi kargu atxilotuak eta auzitegien aurrera eramanak izan ziren. Hilketak gizarte osoan ezagun egin zirenean atsekaberako eta erantzuleak argitara emateko unea zen, gizarte osoa ere militarrek sustatutako futbol emariak harrapatu bazuen ere. Ezina zen Munduko Txapelketan Juntaren onerako irabazi zuten Menotti prestatzailearentzat eta jokalarientzat ezer esan gabe gertatua iraganean ahaztea. Gehienek ere Menottiren azalpena hobetsi egin zuten: Jendea ordezkatzan zuten, eta jendearentzat jokatzan zuten (Archetti, 2006: 143). Aitzitik, jendeak atsekabez erreparatzen dio nazioaren historiako pasarte iluna islatzen duen taldeari, eta horren lekuko da esaterako, 2003an talde horren loria berrezartzeko eta gorazarre egiteko River Plateko zelaian atondutako ospakizunean hiritarrek bizkarra eman ziotela. “Inoiz ahaztuko ez den garai traumatikoa islatzen dute, eta zeinaren erdian diamante ilun baten gisakoak liriateke, Argentinako futbolaren lehen garaipen handiaren izen eta gorputzak” (Archetti, 2006: 146). Adur ezkorren garaipen hartatik Maradona jainkotuaren gidaritzaz Mexikoko 1986ko Munduko Kopan bigarren ekitaldia irabaziko zuen nazio taldeak Carlos Salvador Bilardo hautatzailea aulkian zela. Menottik 1978.urtean tradizioan errotutako taldea altxarazi zuela nabarmendu bazuen, Bilardorentzat garaipena zen helburu bakarra. Bi ikuspegi on artean futboletik haratago gizarte osoan hedatu den ikusmolde talka bizia izan da nazioaren muineraino iristeraino. Argentinaren gehienentzat dena den, nazio sentipena ezberdin denaren aurrean aurkaritzan garatzen da, beste herrialde batzuekiko eta beste joko ere batzuekiko desberdintasunean haragitzen da arestitik. “Imajinatutako komunitatea, imajinatutako estiloa, beti bakarra bailitza pentsatua da. Zentzu horretan, futbolarik partaidetza kolektiboko zentzuari dei egiten dio: nazioek tradizioak, talde handiak eta heroi handiak beharrezkoak dituzte. Eta gainera, beren dohainak besteek aitortuak izatea behar dute” (Archetti, 1996: 215-216).

Heroien artetik nazio zeruaren jainkoen albora igoarazitakoa Maradona izan zen. Junta Militarrak hasteko bere irudia baliatu zuen, eta Europara jokatzera joatea atzeratu zuen argentinarrengan zuen eragina balioetsita. “Maradona egiazko erromantiko gisara hautemana izan zen, ia muturreko nazionalista bailitza – *chovinista* – eta nazioarteko eremuan nazio harrotasunaren eta ohorearen babesle modura” (Archetti, 1997). Nazioko

inoizko jokalaria onena izatearen dohainak nazio sinbolo bihurtu zuten, eta bere lorpenak eta galerak nazioaren poza eta oinazea eragin ohi zuten aldi berean, futbolak herrialdeko nazio nortasunean duen oihartzunaren adierazgarri. Jose Garriga Zucal antropologoaren aburuz, ordea, futbola ez da aurrerantzean nazio identitateen euskarria, herri identitateen arteko banaketa nagusi den eremua baizik, hau da, auzuneetako edo klubetako nortasuna azaltzen du (Garriga Zucal, 2007: 2). Bere hitzetan, Munduko Kopetako norgehiagoken maiztasunak eta hedabideen eginahalak ahalbidetzen du bakarrik imajinatutako nazio komunitatea hurbilagoa izatea eta jendea futbol nazio taldearen jardunarekin hunkitzea. “Hedabide ekarpenen eraginkortasuna apartekoa da, baina bere arrakastak lau urteko aldizkakotasunaz hilabete batera mugatu ohi dira” (Ibid., 13). Ezina da ukatzea ekitaldi goren horietan azaleratzen dela batez ere futbolari lotutako nazio nortasun adierazpena, hedabideen bidez puztua, eta Argentinan ere bistakoa da, baina horrek ez du esan nahi gainontzean globalizazioak azpiratu duenik, ez eta gailur horiek gutxietsi daitezkeenik, nazioa esanahiez hornitzen duten beharrezko talde bizipenak atontzen dituzten neurrian. Hain handia da futbolaren eta nazio taldearen ahal baterazlea, ezen Juntaren hilketek ere ez zutela desagerrarazi 1978ko Munduko Kopan, Malvinetako hondamenak are gehiago indartu zuen 1986an, eta Maradonaren ezbeharrek ere ez zuten nazio heroia desohoratu.

3.3.2.2-Nazioaren nortasuna eta aniztasunaren hautematea aldatu zuen Brasilen futbolaren erabilpenak

XX.mendeko lehen hamarkadetan Hego Amerikako eliteek pixkanaka europar etorkinekin bat egin zuten futbol jokoaren gaineko liluran, eta oro har Buenos Airesen, Montevideon, Santiagon, Sao Paulon eta Rio de Janeiron hasita jokoa bertakotzeari ekin zioten. Ondoren, futbolaren izaerak lagunduta behe klaseek bere egin zuten, eta gizarte osora hedatu zen. Kirolaz gozatzeko gutxieneko baliabideak erdiesteko erraztasunak, eta arauak aise ikasteko modukoak izateak jende xehearentzat aisialdi egokia bihurtu zuten. Hala ere, Brasilen bereziki, behe klaseen murgiltzea gatazkak inguratua izan zen, boto eskubide gabe zeuden beltzentzat, mestizoentzat eta mulatoentzat oroz gain. Elite zuriak berea hautematen zuen esparruan arrazakeriarekin lotu zuen klase borroka ezberdinaren neurketa. Rio de Janeiroko Amerika klubak 1923an jokalaria beltz bat talderako hitzartu zuenean, bederatzi futbolari zuri protesta gisara handik joan ziren. Hartara, mulatoek eta mestizoek sarritan beren etnia jatorria mozorrotzen zuten, ahal zutenean, jokatzen utz

ziezaieten. Hainbatetan ordea mozorroa ez zen aski, eta beltzei 1921ean Buenos Airesen jokatzekoa zen Hego Amerikako txapelketan Brasil ordezkatzeko laga behar ote zitzaien eztabaida bizia piztu ostean, Eptacio Pessoa herrialdeko presidenteak ebatzi zuen auzia beltzen parte-hartzea debekatuta. Herrialdea nazioarteko txapelketetan zuriak ez zirenek ordezkatzeko Brasilentzat komenigarria ez zela aditzera eman zuen (Natali, 2007: 269). Eduardo Galeanoren hitzetan, aberriaren prestigio arrazoiak tarteko erabaki zuen, baina soropilean jokaturako hiru neurketetatik bi galdu zituen nazio taldeak. Hego Amerikako txapelketa horretan Friedenreichek ez zuen jokatu. “Friedenreich beti berandu irten ohi zen zelaira ordu erdi ematen zuelako aldageletan orbanak zanpatzen, eta Fluminenseko jokalaria mulato bakarrak, Carlos Albertok, aurpegia arrotezko hautsarekin zuritzen zuen (Galeano, 2003: 48). Nolanahi ere, eliteen nagusigoari gainjarrita, kirolaren profesional izaera azkartu zuen lehiakortasun beharrianak oso zail bihurtu zuen klubentzat elitetik kanpoko jokalaria trebeak ez hartzea, eta 1938ko Italiako hirugarren Munduko Koparako dagoeneko Brasilgo taldeko jokalaria entzutetsuenen artean zeuden Leonidas da Silva eta Domingos da Guia futbolari beltz eta txiroak. Etorkizuneko joera iragarriko zuten.

Futbola propaganda funtsetarako erabiltzen hasi ziren Brasilen aro horretan, eta herrialdeko nazio nortasunaren sorkuntzan eta indartzean eragin erabakigarria izan zuen (Alcaide Hernandez, 2009: 32). Nazionalismoaren eta autoritarismoaren arteko nahastea zen Brasil 1920ko hamarkadaren amaieran eta 1930eko lehen urteetan. Errepublikak ez zuen artean estatuaren mugetan nazioa sortzerik erdietsi, besteak beste, erregio mailako identitate indartsuen ondorioz, eta horrenbestez, botere politikoa eskura zuten eliteentzat premiazko egitekoa zen brasildar nazioa eraikitzea. Futbola, ildo horretan, jomuga hori bideratzeko bitartekoa bilakatu zen, eta nazio taldea zen beti ere gauzatzeko adiskiderik komenigarriena. 1938ko Frantziako Munduko Koparen atarian kanpaina irudikatu zuen Gobernuak herritarrek taldearen erronka bere egin zezaten. Selektzioak ordezkatzeko nazioaren patuarekin ahalik eta jende gehienak bat egin zezala zuten helburu (Ibid., 33). Brasilen nazio ideia sustraitzeaz gain estatu-nazioaren mugetatik at Europan aberriaren izen ona defendatzeko ekitaldia zela adierazi zuten kazetek. Brasilek hirugarren postua eskuratu zuen txapelketan, eta berri emaleek barreiatuta, xedea lortu zuen horrenbestez. Getulio Vargasek Portugalgo diktaduraren antzera ezarri zuen geroko agintean futbola nazioa egituratzeko tresna zen. 1942ko dekretu legeak etnia izendapena zeukaten klubak deitura aldatzera behartu zituen, atzerriko nazioei erreferentzia egingo zioten izendapen denak debekatu baitzituen. Rio de Janeiroko eta Belo Horizonteko Palestra Italia taldeek

hurrenez hurren Cruzeiro Esporte Clube eta Sociedade Esportiva Palmeiras izena izango zuten aurrerantzean. Sao Paulon, Sporting Club Germania klubari zegokionez, l'Esporte Clube Pinheiros deitura hautatu zuen (Dietschy, 2010: 260). Faxismoaren gisako *Estado Novo* politika zuzendaritza berriak Munduko Koparen harrera eskatu zuen Brasilentzat.

Kirolaren estatus amateurra bermatu nahi zutenen eta ogibidea bilaka zedin xede zutenen artean lehia bizia zen ideologiaren eremuari lotuta. “Amateurismoaren defentsa – agerikoa edo ezkutukoa izan – osoki zuria izango zen futbolaren defentsa zen, langile klaseei itxia eta hirialdeetako eliteari mugatua” (Gordon eta Helal, 2001: 143). Horrela, 1930eko hamarkadatik 1950eko hamarkadara bitartean gauzatu zen futbol hazkundera profesionalizazioa eta prentsak eta intelektualek futbola masa ekitaldi gisa herri kulturaren ezarri izana eduki zuen iturburuan. Futbolaren eta nazio taldearen osakeraren eztabaidak nazio identitatearen definizioari buruzkoa islatzen zuen inondik ere. Dagoeneko, nazio taldeak gizartearen mamia trinkotzen zuela hautemana zen, eta bere akatsek gizartearen gabeziak ikusaraziko zituela ildo berean. Marcos Natalik dioen moduan, nazioartean nahiz sorterrian arraza ez zuriko futbolarienganako lilura ez zuen soropileko arrakastak bakarrik ahalbidetu, brasildarren joko moldean aparteko izaera zegoen usteak ere, eta hain justu, futbolak eliteen esparrutik toki txiroenetara igarobidea egin zuenean burutu zenaren ziurtasuna zegoen (Natali, 2007: 270). Hego Ameriketara ihauteriek egindako ibilbidearen antzekoa egin zuen futbolak, hau da, Europako jatorrizko aisialditik bertako eliteen jabetzara, eta handik beheko klasetara, non modu sakonean aldatu eta bertakotu zuten. Futbola astiro *futebol* kirola bilakatu zen, atzerriko jatorriko kirola izateagatik hasieran sortutako arbuioak atzean utzita, eta hartara, nazio pasioa bilakatu zen. Baina soilki sugarra baino gehiago zen, Brasilgo historia garaikidean oinarritzako osagaia izan baitzen nekazaritza gizartetik industria eta hiriko gizarterako iraultzan. Horrela, Cesar Gordonen eta Ronaldo Helalen hitzetan, futbola bertako gizarte integratzaile baliabide ahaltsua izan zen, nazio nortasuna irimotzekoa, eta brasildar nortasunaren imajinatutako hainbat ezaugarriren pizgarria ere bai (Gordon eta Helal, 2001: 139). Beheko klaseen arraza partaidetzak kirolean arrakasta erdiesteaz gain, futbola nazioaren sinbolo bihurtu zuenez gero, integrazio helburua eta nazio nortasun baterazlearena bete zuen, nazioaren mugen barruan eta baita mugez gaindi ere, Brasilen izaera bereizitua azaleratuz; hau da, identitateek ohi dutenez elkarrekin parekatuz eta besteengandik ezberdinduz. Elitearen arraza estereotipoak eta gizartearen osotasunean barneratuta zen etnozentrismoa ezereztzen

ekarpena egin zuen ildo berean (Leite Lopes, 1997: 79). Arrazak oraindik ere haientzat zehaztutako pobreziatik irteteko aukera ere izango zen futbola beltz eta mestizoentzat.

Arraza nahasketa eta integrazioa modu baikorrean hartuta erroak botatzen ari zen futbola herrialdeko ekitaldi gorenetakoa bilakatzen ari zen neurri berean. “Izateko modu berezia *futebolean* jasotzen denaren ustea zabal onartu da jokoaren historian. Motzean esanda, gozamenean, jokoan, bat-bateko jardunean, gehiegikerian eta estetika estimuan oinarritzen den izaera da” (Natali, 2007: 273). Jose Sergio Leite Lopes Brasilgo futbola arretaz aztertu duen ikerlariaren hitzetan, futbolak ogibide izatera eman zuen jauziak, hau da, profesionalizazioak, eta horrekin eratorri zen masa izaera ospetsua hartu izanak, nazio nortasuna sortu zuen, futbola bera erdigunean zela, eta jokatzeko modua betikotu zuen: “Biek, estiloak nahiz nazio identitateak erreferentzia puntu gisa daukate Brasilgo arraza nahasketari buruzko eztabaida” (Leite Lopes, 1999: 94). Arraza nahasketa hain zuzen ere, aurretik kolokan jarri ohi zena aski hobetsitako alderdia izango zen batez ere Suedian 1958an Brasilek irabazi zuen lehen Munduko Koparen eraginez. Garrincha eta Pele zelairatzean abiatu zen, izan ere, Brasilen futbol erregetza, estatua futbol eremuan gainontzekoen gaindi ezarri zuena. Futbol geopolitikan Brasil AEBen parekoa litzateke Pascal Bonifaceren ahotan (Fernandez Moores, 2006: 68), eta bost Munduko Koparen jabetza izateak berezko nazio estiloarekin batera herrialdearen harrotasuna haizatzen du.

Kazetariak eta intelektualek brasildar futbol estilo bereizgarria nonahi barreiatu zuten, eta askotariko jatorria zuten jokalariak garaipen bateratuaren bila elkarrekin ari zirela nabarmendu, gizartearen norantza adieraziko luketela igorritz. Aitzitik, herrialdeko nahiz nazioartetik etorritako brasildar jokalari beltz eta mestizoenganako mirespena ere ez zen aski izan arrazakeria ideologia erabat atzean uzteko. Nazio taldeak 1950eko eta 1954ko Munduko Kopetan hurrenez hurren Uruguai eta Hungariaren aurka galdu izana arrazoitzeko arrazakeriari lotutako azalpenak azalerazi ziren, eta arraza nahasketa arraza eta kultur gainbeheraren sortzailea zela salatzen zuten XIX.mendeko teoriak eraberritu ziren (Natali, 2007: 270). Maracanan, futbol estadio batean historiako jendetza handiena batu zuen zelaiko harmailetan, Brasilen sorterriko 1950.urteko Munduko Kopan, nazio taldeak jasan zuen ustekabeko porrotak eragin zuen atzera ere arrazakeriazko aldarriak irmo berragertzea. 1950eko uztailaren 16rako 173.850 lagunek erosita zituzten txartelak Uruguairen aurkako brasildarren garaipena ospatzeko (Dietschy, 2010: 265). Berdinketa aski zuten bertakoek lehen Munduko Kopa erdiesteko, txapelketa ordukoan liga eredian

antolatu baitzuten, eta ez gaur egungo kanporaketen egiturarekin. Bada, irabazten hasi ziren gainera. Baina, Uruguairen bi golek partida irauli zuten, eta aurretiaz antolatutako ospakizun denak zapuztu zituzten. Munduko Kopari bere izena jarri berri zioten FIFAko presidente Jules Rimetek Brasil txapeldunaren omenez idatzita zuen hitz jarioa soinean zuela ia ezkutuan helarazi zion Uruguaiako kapitainari urrezko saria (Galeano, 2003:99). Brasilgo kazetarien hausnarketak porrotaren tamaina kirolak herrialdean eskuratu zuen handitasunaren zantzua ematen duen mailan jarri zuen: “Brasilen historiako tragediarik handiena”, “Gure Hiroshima” (Alcaide Hernandez, 2009: 101). Modu horretakoak izan ziren iruzkin egileen esanak, futbola izenorde barneratzaileak nabarmenduz, eta lehengo gertakariekin alderatuta nazio nortasuna iraganeko eta orainaldiko bilakaeraz uztarturik.

Ildo berean jarraituz, Cesar Gordonen eta Ronaldo Helalen hitzetan, brasildarrek jokaturako Munduko Kopetan argi ikus daiteke identitatearen, nazioaren eta futbolaren arteko batuketa, 1950eko porrotean, eta baita 1958ko, 1962ko eta 1970eko garaipenetan ere. “Nazioaren metafora modura bihurtuta – ‘futbol oinetakoekin dagoen herrialdea’ – futbolaren egitekoa, eta inoiz baino gehiago, nazio taldearena, zetzan Brasilen ustezko handitasuna munduari erakustean: ez zen txapelketak batze hutsa, are gehiago “nazioen artean tokia zizelkatzean zetzan” (Gordon eta Helal, 2001: 146). Pelek eta Garrinck gidaturako jokalariek beltz eta mestizoen uzta izan ziren Brasilgo taldeak 1958 eta 1962ko Munduko Kopetan eskuraturako garaipenak eta 1950eko arrazakeria zalantzak baztertu zituztenak. Arrazen gailentasuna babesten zuten teoriari jarraiki, zibilizazioaren emaria gutxiago jaso zuten beltzek eta mestizoez emozio aldakortasun handiagoa izateko joera zuten lorpenei eta erabakiei zegokienean, eta horrela azaldu zuten kirol arduradun askok ere Maracanan garaipena ospatzear zirela izandako ezusteko porrota (Leite Lopes, 1997: 70-71). Zortzi urte igarota ordea, Suedian lortutako lehen mugarriari aintza egin zioten kazetariak, eta jokalariek goratu zituzten herrialdeko nazioari besteei jarkitzeko moduko harrotasuna esleitu ziotelako, eta nazioa besteen pare jarri zutelako (Natali, 2007: 280). Gizartean hedatuta zeuden arrazakeria aurreiritziak azpiratzen ari zen futbola ondorioz, nazio nortasunaren gaineko unean-unean gizarte hitzarmena eztabaidatzen ari zenean. Presidentearen jauregian harrera atondu zuten berehalakoan Brasilen. Argentinan berriz, milaka argentinarrak futbolariak iraindu zituzten Suedian jasandako porrotetatik. Beti ere, Hego Amerikarren futbolaren irrika eta nazio ideien uztarpena azaltzen du horrek.

Txileko 1962ko Munduko Kopa atarian ere Joao Goulart Brasilgo Errepublikako presidentek jokalariei harrera egin zien, eta lau urte lehenago lortutako saria berritzeak herritarrentzat zuen garrantziaz ohartarazi zituen. Munduko Kopa irabazteak brasildarrei ekonomia arazoak ahazten laguntzen ziela jakinarazi zien, eta futbol zelaiko garaipena herrikideentzat arrosa baino garrantzitsuagoa zela (Solivellas Aznar, 1981: 118). Hain zuzen ere, futbolariek herrian zuen eraginaz hobaria ateratzeko gertu, 1970an agintean zen Emilio Garrastazu Medici jeneralaren diktadura militarrek Brasilek Mexikon lortu zuen hirugarren Munduko Kopa baliatu zuen propagandaz bere agintea zurrizteko eta torturak estaltzeko. Zehazki bost urte iraungo zuen erregimenak erbesteratutakoek deitoratu egin zuten garaipena: “Eskuineko militarrek gutxienez inork eragotziko ez duen bost urteko gobernu agintaldia ziurtatu dute” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 42). Ihauteriek batera futbola arriskurik gabeko dibertsioa zen gobernuarentzat, baina Paul Dietschyk agertzen duen moduan, agintarien aurreikuspenak gainditu zituen ospakizun nazio adierazpenak. Munduko saria eskuratu izanak eragindako pozaren agerpena, Argentinari dagokionean bezala, lehenik eta behin norberarentzat da atsegina, hurbilekoekin partekatzen dena, eta zeinak ez duen halabarrez agintean dagoen boterearekin atxikimendua aditzera eman nahi (Dietschy, 2010: 273). Amarru lokarazletzat epaitzea ekarpena oro har hartu nahi ez izatearen ondorioa izan daiteke horrenbestez, eta giza adimenaren beharrezaren ere.

Ezin uka Medici futboletik hobaria ateratzen saiatu zenik. Diktadurak Brasilen ekonomia hazkundearen ikur eta agertoki izendatu zuen Pele izar mestizoa, eta lorpena ospatzeko martxa sortu zuen, geroago estatu ekitaldietan baliatuko zuena. Hedabideek ospetsu egin zuten, eta 90 milioi biztanleko orduko nazioaren eta taldearen berdinketa iradoki egin zuten. Integrazioan eta batasunean errotutako ideia igorri zieten herritarrei militarrek futbolaren bitartez. Esan nahi baita futbolariek batera eraldatutako nazioaren esanahia estatuak bultzatzen zuela, oroz gain, hemendik aurrerantzean. “Futbola ‘nazio kirola’ izatera irauli izana estatuaren eta nazionalismoaren izaera boteretsua oinarrian zuten kultur, politika eta kirol munduetako agenteek bideratutako historia prozesuaren ekoizkina izan zen” (Gordon eta Helal, 2001: 147). Bitartean, diktaduraren nortasuna eta herrialdearena bereizi zituen jokalarien joko alaiak munduko herritarren begietara. Bestalde, aginte zurrunaren amarru gisa erabilia izateaz gain, Corinthians futbol klubean sortutako Democracia Corinthiana izeneko ezkerreko mugimenduak denen parte-hartzea eta erregimenaren irekiera aldarrikatu zituen futbol jokoaren bidez 1980ko hamarkadan. 1985ean utopia ekimena hondoratu zen Corinthiansen iruzurra egitea leporatuta, baina

besteren artean haren iraultza saioari eskerrak orduan abiatu zen demokraziaren itzulera. Futbola aldaketa egarriak apaltzeko lokarazlea dela diotenen eta aldaketarako bidea dela diotenen arteko ezbaian egokieraren arabera bietarako baliabidea izan litekeela ageri da Brasilen.

Futbolak brasildarrei ahalbidetu zien arrazakeriatik integrazioarako jauzian errotu zen berezko izaerari eustea, olatu modernoek eta kapitalismoari hertsiki atxikitako mundu globalak agindutako bizimodu parekoetatik babestuz. Egunerokotasunean zapal dutako jokoak eta alaitasuna plazaratu ohi dute futbol jokalarien ikuskizunarekin. “Futboleant nahastutako brasildarrak – praktikan edo teorian, futboleaz jokatzeko, mintzatzen edota pentsatzen duten artean – beste eremuetan ia imajinatu ezina den moldearekin irizpide kritikoarekin murgiltzen dira mundu modernoan” (Natali, 2007: 278). Hala ere, 1978ko Munduko Kopan Claudio Coutinhok diziplina bultzatu zuen jokalarien jai giro jokoari gainjarrita diktadura militarrek nazio taldean ezarritako kontrolaren eraginez. Eztabaida aldiro eraberritzen da, bistan denez, aldi berean taldearen jokoari eta nazio ezaugarriei buruzkoa, baina oro har jokalaria beltzek eta mestizoek sorrarazitako joko alaietan betikotu ohi da nazioaren nortasuna eta futbol jokoa. “Gizarteak bere barne erraiak hurkoari hautematea uzten dion hizkuntza bailitzan ikusia da futbola, eta futboleant gertatutako transformazioak, eta hura ordezkaturik den eretan izandako aldaketak gizartearen aldaketek dagozkie” (Gordon eta Helal, 2001: 142). Cesar Gordonen eta Ronaldo Helalen aburuz, gizartearen beste hainbat eremuren gisara futbola hartu duen modernizazioak estadioarena eta elastikoarena bezalako sinboloen esanahia ahuldu du merkatu araubideen mesedetan. Lehenago, iraganean, nazio kirola bilakatu izana futbolak gizarteant zuen funtzio zehatza hautematearen ondoren burututako hautu kontzienteant fruitua izan zela nabarmentzen dute, herrialdearekin, nazioarekin eta jendearekin, hau da, gizarte osagai baterazleekin futbola uztartzeko saioak hezurmamitu zuena. *Futbol herrialdea* bihurtu izana berezko gertaera baizik gizarte eraikuntza dela ahaztu izana deitoratzen dute Gordonek eta Helalek, eta ahaztura horretatik Brasilgo futbolaren krisialdia eratorri dela (Ibid., 154). XX.mendeant Brasilen futbolaren mendea izan bazen, XXI.gizaldiant haren ildoak ikusita gizartearena ere aurreikusit ahalko da globalizazio uhinent kresalpeant. Nazio proiektuarent izaera, hots askotariko arrazent nazio barneratzailea hobestent jarraitzen den adierazit du beti ere.

1998ko Munduko Kopan porrota izan zuen Brasilek finaleant, eta Ronaldo izarra jokatzeko moduan ez zegoen arren Nike arropa enpresarekin lotutako itunak zelairatzera

behartu zuenaren zantzuak Brasilgo Legebiltzarreraino heldu ziren. Futbol eta nazioaren funtsak bizirik dirau hortaz XXI.mendean, merkatu eraginekin bizikidetzan. Merkatua nazioaren sentipenei gailendu egin zitzairen ordukoan. Bestalde, 2002.urteko Munduko Kopa irabaztetik itzuleran, armada hegazkinek hartu zuten taldea zeruan, eta “aberriaren ordezkariatzat” goratu zituen militarren arduradunak (Alcaide Hernandez, 2009: 42-43). Nazio zoramenak ez zuen eragotzi, ordea, urte hartako udazkeneko bozetan herritarrek Brasilgo politikaren norantza aldarazi zuen Luiz Inazio Lula da Silva presidente izateko aukeratu izana. Esan nahi baita ez zuela garaipenak lokartu herritarren aldaketa desioa, sarritan askotariko pentsalariak, ezkertiarrek nagusiki, kirolaren izaera deitoratu arren. 2014an Brasilek antolatuko du Munduko Kopa 1950eko oroitzapena ahazteko asmoaz.

3.3.2.3-Uruguain sortzez nortasun kolektiboen adierazpenei lotutako futbol ekitaldia

Argentina eta Uruguako futbolari ordezkariak 1901ean jokatu zuten Erresuma Batutik kanpoko lehen nazioarteko norgehiagoka. Lehenago, Uruguain, Montevideoko etorkin ingelesek Buenos Aireskoen kontra 1889ean Victoria erreginaren erretratuaren azpian izandako lehia izan zen aitzindaria. 1924 eta 1928ko Olinpiar Jokoetan gailendu zen Uruguako ordezkariak amateur futboleko, eta taldearen aro garaitsuari hasiera ezarri zion 1930.urtean sorterrian bertan atondu zuten lehen Munduko Kopa garaipenak jarraipena emango ziona. “Elastiko urdin argia nazioaren izatearen froga zen, Uruguai ez zen akatsa, futbolak unibertso anonimatuaren itzaletatik erauzi zuen herrialde nemiño hau” (Galeano, 2003: 50). Lurraldetasuna eta harrotasuna eman zizkion bada, futbolak. Eduardo Galeano Uruguako idazleari jarraiki, selekzioak norgehiagoka jokatzen duen aldiro herrialdea hunkipenaz geldiarazi egiten du. Montevideoko bi klub handien arteko erkaketak bestalde, hau da, Nacionalen eta Peñarolen artekoak, futbol lehiatik kanpoko alderdi politiko nagusien biko politika lehia islatzen du (Alcaide Hernandez, 2009: 49), eta kirola eta politika neurketa lotzen ditu Hego Amerikan bereziki ohi denez. Nacional goi eta klase ertainen taldea eta Alderdi Zuriarena bailitzan hartua den bitartean, Peñarol langileen taldetzat joa da, eta Alderdi Gorriaren aldartekoa (Vazquez Henriquez, 1991: 155).

Hartara, 1973tik 1985era Uruguain agintean izan zen diktadurak ere Brasil eta Argentinaren antzera erabili zuen, futbolak eragindako liluraz herritarren mobilizazioak lokarazi ahal izateko. FIFAk ordu arte Munduko Kopa noizbait irabazia zeukaten nazio taldeen artean txapelketa antolatu zuen 1980 eta 1981. urteen arteko Gabon sasoiaren, eta militarren diktadurak agindutako Uruguaiako herrialdeari eman zion *Mundialito* zeritzon txapelketaren harrera. Kolorezko telebista hargailuen iritsiera ahalbidetu zuen Uruguain ere futbol lehiaketaren ospakizunak, politika krisiaren ingurubidean. Sendi ugari ukitzen zituen ehunka preso politikoen kartzelaratzek eragina zen herrialdeko egunerokotasuna futbolak barnean hartutako nazio ospakizunerako deituta zegoenean. Hala ere, lehiaketa atarian militarrek boterean betikotzeko deitutako erreferendumean ustekabea ezezkoa gailendu izanak, ezeztatu egin zuen Uruguaiaren garaipenaz euren ospatzeko militarren asmoa. Azkenean, Uruguaiako selekzioak irabazi zuen lehiaketa, finalean Brasili jarkita, eta diktadurarekin etsaituta zeuden ezkertiarrek ere ospatu zuten garaipena estadioan eta karriketan. Aitzitik, horrek ez zuen esan nahi nazio taldearen garaipenaren lilurak nola edo hala diktaduraren xedea bete zuenik. 1978ko Argentinako txapelketa hurbilekoaren aitzindaritzarekin parekatuta, Uruguain azaleratu zen maiz futbola eta horrek nazioaren aintzarekin duen lotura tokian tokiko aginte ereduaren eta bere erabilpenaren gaindikoa dela. Izan ere, jendetzak futbol zelaira jaistean, Uruguaiaren aldeko *Uruguai, Uruguai!* oihuekin batera *Se va acabar, se va acabar, la dictadura militar* deiadarra goratu zuen, nazioaren garaipenaren zoriona diktaduraren erorketarekin biribilduko zen sinesmenaz. Esan nahi baita, zorionak ez zuela askoren oinazea ahazteko balio izan, eta militarrek ez zutela futbol antolaketa garaisua bidelagun herritarrak apaltzerik lortu. Gainera, 1978ko Mundu Koparen lorpenarekin Argentinan jazo zenez, Uruguain ere 1980ko *Mundialito* txapelketa ahaztu beharrekotzat dute militarren erabilpenaz lotzen baitute berehalakoan. 1985ean gauzatuko zen diktaduraren amaiera. Sebastian Bednarik 2010ean plazaratu zuen *Mundialito* dokumentalaz oroitu daiteke ekitaldi horrek kolokan jarri zuela futbola hiritar ganoragabeak nahi erara lokartu eta moldatzeko amarrua dela (Bednarik, 2010).

3.3.2.4-Nazio nortasuneko une gailurrak Amerikako herrialdeetan

Ildo berean, Atlantiko itsasaldetik Ozeano Bareko ertzerantz jauzia eginaz, Txilen futbolaren eta politikaren hartuemana 1973.urteko militarren estatu kolpearen ondoren

bizitu zen. Augusto Pinocheten aginteak laguntza eman zien Viña del Marreko Everton eta Talcadeko Rangersi klubei hondo jo ez zezaten, eta taldeon zaleak futboletik alden ez zitezen. Estadioetatik kaleetara aldatuta erregimenaren aurkako aldarri eta protestetan murgilduko ziren beldur zen diktadura. Areago, 1981etik 1984ra bitartean herrialdeko talderik entzutetsueneko presidentea izan zen, Santiagoko Colo Colo klubekoa. Perun, bestalde, Argentinaren kontra Liman nazio taldeak 1964an jokatu zuen partidaren futbol lehian inoiz izan den hondamen handienetakoa gertatu zen, kirol nagusiak sortzen duen pasioaren adierazgarri, eta sugar horrek hainbatetan indarkeria adierazpen kudeaezinak sorrarazi ditzakeenaren adierazle. Epaileak Peruko gol baliorik gabe utzi izana aski izan zen jendea oldarrarazteko, eta Poliziaren indar agerpenaren ostean bertaratutakoek ihesi ateratzea erabaki zutenean 300 lagun baino gehiago hil ziren pilaketetan (Galeano, 2003: 191). Nazio taldearen neurketan piztu zen sugarra inondik ere. Limako gobernuak setio egoera ezarri zuen partidaren ondorenean piztutako liskarren ondorioz.

Boliviari dagokionean, AEBetako 1994ko Munduko Koparako sailkapen fasean batasunezko eta harrotasunezko sentipenez hornitu zuen futbol nazio taldeak burututako balentriak herrialdeko ahuldutako nazio nortasuna. Mario Murillo Aliaga soziologoaren hitzetan, nazioaren historiako une gailurretan bakarrik erdietsi zuen Boliviak aniztasuna egituratzeko moduko herri nazio nortasuna. Chacoko gerra eta 1952ko iraultza aipatzen ditu hark, nazio nortasuna errotzeko balio izan zuten jazoerak bailiran, baina, iraungitze bizikoak izan zirela gaineratzen du, eta gizarteko ezberdintasunak askatzeko gauza izan ez zirela. Bada Munduko Koparako 1994ko sailkapenak adur bera izango luke boliviari soziologoaren aburuz. (Murillo Aliaga, 2005: 3). Nazioaren oroitzapenezko pasarteetan txertatzen da horrenbestez futbola gerren eta iraultzen pare. Eduardo Galeanori jarraiki, Boliviako nazio taldearentzat eta hark ordezkatzeko duen herriarentzat ilargira heltzearen modukoa izan zen mugarria, bere eginahalaz Munduko Kopan egotea erdietsi zuelako, eta itsas mailaren urruneko altueran ohituta jokatzeko futbolariei ematen zien hobaritik at garaitu agertu baitzen (Galeano, 2003: 229). Uruguai Montevideon Bolivia garaitu zuenean, epailearen lanari buruzko eztabaida Boliviako Legebiltzarreraino iritsi zen, eta Gobernuak partida balio gabe uzteko ere eskatu zuen. Eginiko prentsaren azterketak eta jendearen lekukotzak adierazten dute Murillo Aliagaren hitzetan, herrialdeko herritarrak beren nazioarekin identifikatu zirela futbol nazio taldeak eragindako olatu baterazlearen eraginez, eta aberri sinboloen adierazpen zabalaz ikusarazi zutela. Halaber, hedabideen parte-hartzeak garrantzia berezia izan zuen futboleko oinarritutako nazio identitatearen

biziberritzean. Heroien mailako nazio aintzako ikuskizuna piztu zuten, futbolaren bidez nazio identitatea sortzea ahalbidetzen duena (Murillo Aliaga, 2005: 6). Irratiak bereziki burutu zuen edozein etxetara eta etxeko ohiko lanekin bateragarri iristeko ekimenetatik.

Besteren artean Espainiaren egoerarekin alderagarria da Mario Murillo Aliagak Boliviari buruz egiten duen gogoeta. Bere ustez, nazio nortasun eraikuntza eraginkorrik ez dagoen herrialdeetan futbolak bizkortasunez naziotasunezko uneak sorrarazi ditzake, baina sakontasunik gabekoak. Hunkipenaz eta sinbolikoki futbolak atxikipen sentipenak erne ditzake, baina, bere esanetan identitate proiektuak eraiki gabe, euskarri irmorik ez dutelako. Nolanahi ere, 1993.urteko bezalako bizipenak luzaroan oroimenean atxikitzen direla zehazten du, eta haien uzta aitortzen du horrenbestez (Ibid.). Ildo berean, futbolak garaipenezko gailur hori zela medio askotariko boliviarreri beren nazioaren ikusmoldeaz bat zetorren komunitatearen irudia irudikatzen utzi zien, eta bertan abegi onez sentitzea. Herritar xehenei ahalbidetu zien gainera estatuko klase langak unean-unean gainditzea.

Ildo berean Kolonbiako nazio taldeak Argentinari Buenos Airesen etxetik kanpo 0-5 irabazita biribildu zuen 1994ko Munduko Koparako sailkatzea, eta gertaerak nazio sugarra azalerazi zuen gizartean. “Behinolako garaipen horretan berriz hedatu zen, baina ordukoan irmoago, naziotasun eraikuntza prozesu ukiezina, identitatearen finkatzearena, futbol oinarritzko mito sortzaileen azaleratzearena eta sinbolo eta baliabide bitartekarien berrespenarena” (Dávila Ladrón de Guevara, 1996: 36). Nazio selekzioak sorrarazitako zoramenak, besteren artean, Andres Escobar atzelariaren hilketa eragin zuen AEBetako Munduko Koparen ostean, Kolonbiako atzelariak bere taldearen atean gola sartzeagatik. Ildo berean, Paraguain ere futbolaren oihartzunak nazioaren alderdi guztiak zipriztintzen ditu, nazio taldeak Hegoafrikako 2010.eko Munduko Kopara arte, azken lau ekitaldietan parte-hartzea erdietsi duen arrakastak lagunduta. Fernando Lugo herrialdeko ezkerreko presidenteak 2009eko irailaren 10a festa eguna izendatu zuen administrazioan, bezperan sailkapena lortu izana ospatu ahal izateko. Lugok soropilean jokalarien ospakizunarekin bat egin zuen gainera. Paraguairen ildo berean, Ekuadorrek ere Munduko Kopan ohiko tokia erdietsi zuen 2002ko eta 2006ko Munduko Kopetan, taldeak jokalaria eraginkorren bila arraza beltzeko jokalariek bere egin zituenean. Kostalde eta barnealdeko eskualdeen arteko talde nortasun haustura gainditzeko lagundu zuten aldi batez bederen ospakizunek.

Bestalde, ezagun da Honduras eta El Salvadorren artean 1969ko uztailaren 14tik 20ra lehertutako gerra, futbolaren gerra gisara oroitua, arma hotsa piztu zuen txinparta 1970eko Mexikoko Munduko Koparako sailkapeneko kanporaketa izan zelako. Joaneko partidari 1-0 irabazi zion Hondurasek El Salvadorri, Hondurasko jarraitzaileek bezperan El Salvadorreko jokalariei loa galarazi ondoren. Azken unean jasotako golak sortutako oinazeagatik, omen, Amelia Bolaños izeneko hemezortzi urteko El Salvadorko gazteak bere buruaz beste egin zuela nabarmendu zuten biharamunean hedabideek, eta aberriari eragindako minagatik jazo zela ikusarazi. Neskaren hileta elizkizunetan Errepublikako presidentea eta nazio taldeko futbolari guztiak izan ziren, eta telebistak zuzenean eman zuten (Alcaide Hernandez, 2009: 61). Ondoren, Honduraskoei itzuleran eginiko harrera are okerragoa izan zen: 3-0ekoa izan zen emaitza El Salvadorren alde, eta Hondurasko jarraitzaileen kontra amildu zen erasoaldian bi lagun erail zituzten. Handik ordu gutxira Amerika erdiko bi herrialdeen arteko muga pasabideak itxita ziren. Futbol kanporaketa ebazteko neurketa Mexikon jokatu zuten, eta El Salvadorrek 3-2 irabazi zuen muturreko segurtasun neurrien artean 1969ko ekainaren 29an. Hondurasko miliziek El Salvadortik joandako nekazari etorkinekin hartu zuten mendekua, eta lurrak kentzen hasi zitzaizkien (Boniface, 2006: 77). Bada, urte horretako uztailaren 14an El Salvadorko armadak airez eta lurrez eraso egin zuen; Hondurasek ihardetsi egin zuen nola edo hala. Gatazkak ehun ordu iraun zuen eta 6.000 hildako eta 20.000 zauritu utzi zituen. Iturburuan inondik ere, futbolaren ordezkari lur jabetzako auzia zetzan. El Salvadorren latifundista handiek 100.000 nekazarik batuta baino hamar aldiz lur sail handiagoa zuten, eta nekazari populazioaren bi herenek ia ez zuten ondasunik. Beharrianak eraginda, Hondurasek jabetzarik gabeko lurretara lekualdatu ziren horietako asko, 300.000 izateraino. Hastapenean Hondurasko Gobernuak ez zuen eragozpenik jarri, baina latifundio handiek bertako nekazariak lurrik gabe utzi zituen heinean El Salvadorko etorkinen aurkako asaldura piztu zen. Izan ere, Hondurasko Gobernuak bere nekazariari eman nahi zizkien immigranteek hartu zituzten lurrak. Horrek El Salvadorko nekazarien itzulera bultzatuko zuen, eta beren gobernuak ez zegoen prest hori onartzeko, nekazaritza matxinadaren beldur. Hondurasko Gobernuak behin eta berriz helarazi zuen eskaera eta El Salvadorrek uko egin. Horrela, bi estatuen arteko harremanak gaiztotu egin ziren eta mugaren bi aldeetan egunkariak, gorrotoa eta irainak hedatu zituzten. Futbolaz gaindikoa artetako eta alderaketako baldintza horietan egokitu zitzairen elkarren kontra lehiatzea El Salvadorko eta Hondurasko nazio taldeei. “Futbolak gerra bat amil dadin hain garrantzitsuak diren chauvinismo adierazpenak eta histeria pseudopatriotikoa areago kiskaltzen lagundu zuen, eta hartara bi herrialdeetako

oligarkiak indartzen” (Kapuściński, 1992: 215). Gerraren ondoren, gatazkak badirau, eta hil egiten du. Bi gobernuen arteko azken ituna ia mende erdi pasata gertatu zen. Futbola agintariak herritarren nazio sugarra beren alde onbideratzeko erabilitako gailua izan zen.

El Salvadorren, 1980ko hamarkadan Jorge *El Mágico* Gonzalez zeritzon jokalaria trebearen dohainak baliatu zituen estatuak etengabeko gatazkek narriatutako nazio ideia artatu eta suspertzeko. Hedabideek jokalaria maila puztu zuten herritarren lemazaina bihur zedin. Talde atxikipenezko sentimendua indartu beharrean El Salvadorretik kanpo arrakasta lortu zuen ikurra izan zen futbolaria (Urbina Gaitan, 2007). Bertatik iparrera, Guatemalan, 1920ko hamarkadan hasita futbola gizarte baterazle nagusietakoa bilakatu zen hedabideek eskainitako arretak sustatuta. Futbola beheko klaseetaraino lekualdatu izanak langileriak eta etnia gutxiengoak nazio iruditerian sartzea ahalbidetu zuen nazio taldeetan parte hartu ahala. Bada, 1950. urteko Amerika Erdialdeko eta Karibeko Jokoek estatuari orduko gobernuaren politika zilegitzeko baliatzeko abagunea eman zioten, non Guatemalako nortasuna izaera indigenarekin eta mestizoekin uztartzen zen aldi berean. Futbolaz gain beste hainbat kirolez osatzen den ekitaldia hartu zuen orduan Guatemalak.

Ildo berean, Costa Ricak 1941. urteko Amerika Erdialdeko eta Karibeko futbol txapelketa partida bakarra galdu gabe irabazi izana hedabideek ustiari zuten bizilagunen gaineko herrialdearen gailentasuna ikusarazteko. Chester Urbina Gaitan adituari jarraiki, gizarte integrazio izaera nabarmenagoa ukan zuen futbolak Costa Rican estatuak nazioa eraikitzekeko homogeneousunean, ezberdintasunen estalpenean eta guztien parte-hartzean oinarritu baitzuen nazio eraikuntza, eta Guatemalak berriz indigena eta mestizoen arteko kultur bereizketan (Urbina Gaitan, 2003: 22). Costa Ricako Gobernuak hamar egunetan aurreratu zuen herrialdeko independentziaren urteurrena 2001ean nazio taldeak AEBei irabazita 2002ko Munduko Koparako sailkatzea erdietsi zuela gomuta horrekin batzeko. Estatu-nazioaren sorkuntza data, bata, iraganekoa, nazioaren oraina eta geroa jokatzen zen gertakizuna eta ospakizuna, bestea. Bien arteko lotura hertsia adierazten du, inondik ere. Esan nahi baita futbol zelaian, eta futbolarien oinetan, XIX. mendean izendatu zuten estatu-nazioaren nortasuna lehian zegoela. Costa Ricaren bereizgarri handietako batek datza gerrak jotako eskualdean armada kentzea barneratu zuela. Bertako naziotasun ikur boteretsuenetakoa da armadaren desagertzea (Sandoval-Garcia, 2005: 215). Usadiozko bortxazko armadaren aldaera baketsua litzateke 11 futbolarien taldea. Horren adierazle da, 2001eko ospakizunarekin batera, 1990eko Italiako Munduko Kopako parte-hartzeak

eta arrakastak nazioaren historia bilakaeran ezarri zuen banaketa. “Aero Costa Ricako iragarki batek oroitzen zuen moduan, Costa Ricako nazioaren sortze datetako bat, 1990. urtea da, selekzioak aurrekaririk gabeko emaitza lortu zuenekoia – Munduko Kopan final zortzirenetarako sailkatu zen – eta bere izena urrezko hizkiekin zizelkatu zuen handien artean – eta munduari jakinarazi zion bide batez Costa Rica badela – .” (Villena Fiengo, 1996: 15). 1948ko iraultza bezala, herri oroimenean txertatu zen nazioartean herritarren alde borrokan diharduen 11 futbolarien lorpena. Hain zuzen ere, mende erdialdeko urte hartan gauzatu zena zen armadaren desagertzea, hura Gobernu berriaren aurka altxatuko zen beldur. Mende erdian kirol armadak hartu zuen nazio balioen babesaren lekukoa. “Costa Rican ez dugu soldadurik, futbol jokalaria bakarririk”. Mezu hori igortzen zuen futbolzaleek partida baten kariatara azaldutako pankartak (Sandoval-Garcia, 2005: 215).

“Futbolaz bizitzean eta hitz egitean Costa Ricako hiritarrek, gordinki eta sutzuki Costa Ricako izaeraren eta nazio jitearen inguruko oinarrizko galderak eta ihardespak mahaigaineratzen dituzte” (Villena Fiengo, 1996: 10). Nazio selekzioan jokalaria beltzen parte-hartzearen hazkundeak Costa Ricako gizartea ezaugarritzen duen etnia aniztasuna ikusarazteko balio dezake. Ildo berean, barneko harrotasuna indartu eta kanpo onespena bideratzeaz gain, ohi denez, futbolak horrez gain komunitate imajinatuaren ezaugarriei buruzko hausnarketa sustatzen du. Hedabideen arretak ahalbidetzen du hori, eta elkarren ezagutza ez duten milaka herritarrek nazio taldearen bitartez partekatutako bizipenak izan ditzatela biribildu. Oro har, Costa Rican naziotasun narrazioaren giltzarri izan diren berdintasunezko eta demokraziaezko osagaiak krisi sakonean daude, eta nazio iruditeriak erakargarritasuna galdu egin du. “Politika eta naziotasunezko kultur ikurrak gaur egun gainbehera ari diren bitartean, futbolak naziotasuna ordezkatzeko irudiekin, erritoez eta kultur materiaz hornitzen du. Futbol lehiaketetan naziotasuna ordezkatu daiteke, baina are garrantzitsuago, bizi egin daiteke” (Sandoval-Garcia, 2005: 228). Mexikon bestalde, nazio taldearen garaipenak Independentziaren Aingeruaren inguruan ospatu ohi dituzte zaleek, herrialdearen izaera modernoaren nahiz estatu-nazioaren sorreraren adierazgarri den oroitarriaren inguruan. Kolonbiak gudagatik 1986ko Munduko Kopa hartu ezin izan zuenez, Mexikok bigarren aldiz antolatu zuen ekitaldia 1972koaren ondoren, eta hartara Munduko Koparen atarian herrialdea astindu zuen lurrikararen ostean adorea piztu zuen, Halaber, giza eskubideei gobernuak emandako begirunea areagotu zuen telebisten bidez herrialdea mundu osoaren arreta gune bihurtu zen heinean kirola nonahi hedatu eta gero.

Futboletik hein batean aldentuta baldin bada ere, Kubak kirolaz oro har eginiko ustiapena esanguratsua da, SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunetik eta haren inguruko Europa ekialdeko estatuen behinolako joeraren eraginpean beti ere. Ideologia eta politika ikuspegiaren gailentasuna plazaratzeko funtsean ekimen irmoa ezarri zuten Kubako agintariek ezkerreko iraultzak 1959.urtean agintea hartu zuenetik, eta estatuak goitik kudeatzen du zuzenean. Herrialde boteretsuagoen menderakuntza jasan ohi dutela deritzaioten garapen bideko estatuentzat bereziki, Kubarentzat esaterako, onespina eta begirunea lortzeko baliabidea da kirola (Chappell, 2001: 193). Nolanahi ere, era berean, nazio kontzientzia eta nazio eraikuntza ere sustatzen hasi zen erregimen ezkertiarra kirol norgehiagokak bidelagun. Behinolako eredu komunistan nahiz lehenagoko faxismoari lerraturako estatuetan bezala, kirolariak nazioaren enbaxadoreak bailiran jotzen dituzte Kuban ere, eta horren mesedetan estatuaren babesa izendapenaren parekoa da. “Kubako Gobernuak bere kirolariak hezten, elikatzen, janzten eta beraien hornikuntza eta bidaiak ordaintzen baliabide kopuru neurrigabea inbertitzen du. Goi mailako atletaren izaerak aukera ematen du bestela kubatar gehienei ukatzen zaizkien kanpoko bidaiak egitekoa” (Ibid., 198-199). Kubatarrek herrialde txikia osatu arren – 11, 2 milioi biztanle dauzka orotara estatuak 2009ko Nazio Batuen Erakundearen datuei jarraiki – bertako kirolariek garaipen entzutetsuak erdietsi dituzte nazioartean azken hamarkadetan. Nazio nortasuna nazioarteko kirol lorpenek eskaintzen duten aitopenen onurez indartzeko Gobernuak egindako saio biziaren fruitua da, inondik ere, eta nazioa kirolaz irudikatzeko nahiarena. Beisbola da AEBekin neurketa baketsua bideratzen duena, arerioaren kirolaren eraginari men eginda, nolanahi ere, eta diplomazia harremanak okerreanean izan direnean ere kirol lehiak bien arteko harremanak erabat ez desagertzea bideratu du. Futbolaren sona, askoz murriztagoa da. Horren adierazle da Kuba 1938an soilik sailkatu zela Munduko Kopako ekitaldirako, estatutik kirolarekin nazioarteko onespina lortzeko eginahalak egin arren.

Horrez gain, SESBen aurkako neurketa sinbolikoaren erdigunean txertatu zuten kirola AEBetan. Horren lekuko da Gerra Hotzaren hasieran Dwight David Eisenhower presidenteak Nixon presidenteordeari galdegin izana AEBak olinpiar kirolean gailendu ahal izateko ekimena abian jartzea. Ondorioz, emakumezkoen kirolei ere bultzada eman zieten (Meynaud, 1972: 252). Ameriketako Estatu Batuek 1994an hartu zuten Munduko Kopa, FIFAk bertakoak futbolera erakartzeko zuen ezkutatu gabeko asmoari jarraituta. Futbolak ekitaldi gorenean amerikar futbolerako ohiko zelaiak beretzat betetzea erdietsi zuen arren, ez zuen ostean herrialdean kirolaren hierarkia iraultzea erdietsi. Batez beste

68.991 lagun izan ziren estadioetan, Italian lau urte aurretik eta Frantzia geroago baino 20.000 lagun inguru gehiago batez beste. Europar ikus-entzuleen ordutegira egokitzeko partidak goizera moldatu zituzten AEBetako lehia ere (Dietschy, 2010: 493). Halaber, nazio taldearen maila hazi ahala futbolaz herritarren ezagutza handituagatik selekzioak bigarren mailako hirietan jokatu ohi ditu nazioarteko partidak sorterrian bertan arrotz ez sentitzeko (Fernandez Moores, 2006: 71). Izan ere, herrialdeko hamar hiritarretatik bik latindar jatorria dute eta arrazoi hori tarteko Mexikoko nazio taldeak urteroko neurketen %80 AEBetako soropiletan jokatzen ditu. Hain zuzen ere izaera horretako immigranteen etorrerak futbol hazkundera lagun lezake. 2010eko Munduko Kopan AEBek Ghanaren kontra jokatu zuten final zortzirenetako partida 19,4 milioi ikus-entzulek jarraitu zuten ESPN kateaz telebistaren bidez. 1994ko Brasilen eta Italiaren arteko Munduko Koparen finalaren audientzia maila igaro zuen ondorioz. Neurria hartzeko, bidezkoa da aipatzea 300 milioi biztanle baino gehiago daudela AEBetan. Emakumezkoen futbolak bestalde, AEBetan, beste herrialdeetan eskuratu ez duen gizarte onespina eta jarraipena atzeman du, hein batean Atlantako 1996ko Olinpiar Jokoen jarraipenak areago indartu zuena. Batez beste 78.000 ikuslek jarraitu zituzten emakumezkoen futbol lehiaketako partidak.

AEBetatik nolabait bereizi nahi duen Kanadari dagokionez, nazioartean kirol sona eta usadiorik gabea izanagatik, 1960ko hamarkadan gobernuak hasi zituen planek nazio nortasuna sustatzeko kirolek zuten eginkizun garrantzitsua aitortu zuten. Osasun eta Ongizate ministroak 1962an Ottawako parlamentuan esan zuen Kanada nazioarteko kirol txapelketetan aritzeak hazten ari zen nazio nortasun sentipena indartzen laguntzen zuela (Meynaud, 1972: 239). Halaber, kanadar ondarearen batzorde iraunkorrak esana da kirolak nazio batasuna garatzeko eragile indartsuak direla (Kartakoullis eta Loizou, 2009: 1653-1654). Arrazoizkoa da pentsatzea beren herrialdeko bizipenean erreparatuta hausnartuko zutela batez ere ondorio hori, AEB Ameriketako Estatu Batuen eraginpean nazio atxikimendua irmoegia ez zela onartuta, inondik ere. Kirolean ere mendekotasuna hauteman izan du Kanadak, eta baita horren berri ematen duten hedabideetan ere. Bere barneko ingeles hiztun eta frantses hiztun komunitatearentzat nazio identitate sinboloak garatzeko abagunea eskaintzen zuten nazioarteko kirol ekitaldiek ildo berean.

Ben Johnson kirolariaren garaipenezko ibilbideak, eta esteroideak erabili izanak eragindako ondorengo beharpenak oroz gain hedabideek kirolarekin nazioa eraikitzeke duten usadioaren moduz zantzuak eskaintzen ditu. Nazio nortasuna eraiki, eraitsi eta

ugaldu egin zuten hedabideek jamaikar atletaren bizipenak erabiliz. “1987an Carl Lewis garaituta eta batez ere Seoulen urrezko domina erdietsita “kanadar” estatusa lortu zuen Johnsonek” (Jackson et al., 1998: 96). AEBetako kirolariak azpiratu izanaz iparraldeko herrialdearen izaera goratu zuen, izan ere. Gernu azterketak esteroideak hartu zituenaren aztarnak atzeman zituenean ordea, immigrante izaera edota jamaikar-kanadar estatusa berreskuratu egin zuen hedabideen begietara, eta ildo berean Brian Mulroney Kanadako lehen ministroak kanadar guztien izenean emandako eskertza ere amaitu zen. Futboletik kanpokoan izanagatik Ben Johnsonen adibidea gardena da kirolaren erabilpenaren baitan.

Zantzu guztiek diote futbolak XX.mendean burujabetza lortu ondorengo urteetan Hego Amerikako nazio nortasunak irudikatzea, sortzea eta hauspotzea ahalbidetu zuela. Bertako eliteen jabetzatik beheko klaseetarako egin zuen eboluzioan gainera, herrialde gehienek osotasunean futbolarekin bat egitea erraztu zuen jokoaren errazak lagunduta, eta gutxiengoak nazioan barneratzea bideratu zuen beste hainbat eremutan pentsaezina izango zatekeen gizarte integrazio bilakaera sustatuz. Hego Amerikan bereziki kirolarenugarra bidelagun beste atsekabeak nazioaren babesean ezkutatu ahal dituzte. Agintariak bada, herritarren pasioaz etekina lortzen saiatu izan dira, gizarte alorreko aldarrikapenak apaltzen, nahiz Hondurasen eta El Salvadorren gisara, euren apetara sugar nazionalistak hauspotzen. Politika edota nazio atxikimenduen eta futbolaren banaketa ezin lausoagoa da Hego Amerikan, Afrikan ere maiz agertzen den antzera, baina horrek ez du esan nahi diktaduren amarru soiltzat beheratu daitekeenik, giza eskubideak zartatu zituzten aginte askok futbolak herritarrengan sortutako lilura beren erregimenaren mesedetan erabiltzea xede eduki arren. Identitate emale eta sortzaile da Brasilen nabarmendu daitekeenez, eta ildo horretan askotariko gizartearen baterazlea. Ipar Amerikan murriztagoa da futbol sona.

3.3.3-Afrikan kolonizatzaileek irudikatutako mugetan nazioa sortzeko bidelagun nagusia da futbola

XX.mendeko lehen urteetan sortu zituzten europar kolonoek hiriguneetan afrikar kontinenteko estreinako futbol klubak. Askotariko ondasunekin batera menderatzaileek kirola, eta nagusiki futbola ezarri zuten, baina aitzinean hangoak kirola egitetik baztertu zituzten. Europar muineko elkargoak egin zituzten eta afrikarrak beren taldeak sortzera

bultzatu. Saharako basamortutik hegoaldera zatiketa are irmoagoa zen neurrian ez zuten kirolera hurbiltzeko aukerarik, baina irakasleei, misiolariei nahiz enpresen jabeei beren ardurapeko norbanakoei jokatzen uztea ahalbidetzen zieten, denbora zerbaitetan baliatu zezaten. Ildo horretan, afrikarrak eskoletan sustraitutako taldeak izendatzeari ekin zioten eta etnien eta tribuen arteko lehen futbol demak piztu zituzten eta gerora herri xehearen eremura erabat zabaldu zen kolonizataileek ekarritako kirola. Lehen Mundu Gerraren atarian eta gatazkaren amaieran bereziki gauzatu zen hedapena. Estadioen eraikuntzari esker jendetzaren ikuskizuna bilakatu zen han ere. Misiolariek eta hezitzaileek futbola afrikarrak kristau balioetan hazteko gailu garrantzitsutzat jo zuten. Halaber, britainiarren mendeko kolonietan bereziki, hirigune jendetsuetan zernahi gizarte asaldura gutxitzeko helburuarekin erabili zuten. Frantziaren eta Belgikaren ardurapeko lurraldeetan ere egin zuten bat kirola aldarrien lokarazle gisa baliatzeko hausnarketarekin (Darby, 2001: 219).

Britainiar kirola hezkuntzan hasita jartzearen eraginez afrikar jokoen oinordetza zabala desagertu egin zen ia azkenerako, baina afrikarrak ez ziren kirol berrien hartzaile soilak. Etorkinen kirolak, futbola nagusiki, usadiozko balioak eta araubideak elkartzeko moldatu zituzten. Aisialdi aldaera berria bereganatzen eraginkorrak izan ziren, eta beren sortzezko atleta izaerari lotuta futbola euren erara bertakotzeko gai izan ziren (Njororai, 2009: 870). Nuno Domingosek dioen moduan, futbol garapenaren behaketa ez da kultur menderakuntzarako estrategian txertatutako gailu gisa jotzera mugatu behar, diplomazia goi karguek baizik futbola soldaduek, merkatariek, trenbideetako langileek, meatzariak nahiz irakasleek eraman zutela kontuan hartuta (Domingos, 2007: 480). Bere ahotan, bi kontinentetako jatorriko kontraesaneko esangurek bat egin zuten hainbatetan europarren kirolen ezarpenean, eta afrikar herri kultura berrian eta aldaketa sakoneko bizimoduan jarri zuten futbola dominazioaren nahiz atxikipenaren arteko hala nolako bidegurutzean. Futbola ez zen kolonietako aginteen begikoa eta errugbia eta cricketa hobetsi zituzten. Afrikarrak, ordea, haren arau askeek liluratu zituen kontinenteko nagusia bihurtzeraino.

Pixkanaka, hezkuntza eremutik at, futbola kolonialismoaren kontra erresistentzia gotorlekua bilakatu zen, eta nazio irrikak sustatzekoa ildo horretan. Halaber, soropilean kolonialismoak jarritako bizimodu hertsitik ihes egiteko eta afrikarren dantzaren joerako alaitasuna plazaratzeko abagunea zuten. Hain zuzen ere, gaur egun arte iraun du Hego Amerikako nazio taldeen antzera afrikarren izaera ere joko era alaiarekin itsasten duen komunitate nortasunezko aburuak. Paul Darbyk zentzutasun osoz oroitarazten du afrikar

elitearen zati bat futbola bidelagun europar nortasunarengana hurbiltzea gertatu zitekeen arren, beheko klaseetaraino hedatzean kolonialismo menderakuntzaren aurkako protesta eremu bilakatu zela. Europar agintepeko azkeneko bi hamarkadetan, hau da, 1940ko eta 1950eko urteetan, Afrikako eliteek eta intelektualek Mendebaldeko inperialismoari luze iritzita futbola iraultza eragiteko eta nazio irrika sorrarazteko pizgarria zela ebatzi zuten, jokoarekin ezberdintasuna eta menderakuntza ere sustatu arren (Darby, 2001: 219-220). Areago, futbolera jendetza gogatu ahala, dagoeneko estadioetako harmailak funtsezkoak bihurtu ziren politikarien, administrazio agintearen eta boterearen kontra ezatsegina eta asaldura kaleratzeko. Estatu Poliziak eta agintariek gertutik zaindutako politika martxen ordezkioak izatera heldu ziren ondorioz kolonialismoaren uztarria lepoan zuten Afrikako herrialdeetan ere estadioetako jendetza elkarretaratzeak (Njororai, 2009: 872). Hirigune handien sorrerak eta ekonomia hazkundeak, Europan bezala, kirolaren sona bizitu zuten. Kongo belgikarrean adibidez, 1957an, hango selekzioa Bruselako Saint-Gilloise taldeaz alderatu zuen futbol partidan, eta europarrek irabazi zutenean, afrikarrek bertaratu ziren europar zaleen aurkako deiadarrak oihukatu zituzten eta euren autoei eraso egin zieten. Koloniako prentsak zurien aurkako etsaigoa nabarmendu zuen, 1960ean independentzia aldarrikapena gauzatuko zuen liskarren atarian alegia (Dietschy, 2010: 315). Britainiar menderakuntzako lurraldeetan ere antzerako jazoerak gertatu ziren kolonialismo garaia amaitzear zegoenean.

Futbola europarren esparru hertsitik zabaldu ahala afrikarrek menderatzailearen onspenezko ospakizunetan europar armadako taldeei jarkitzeko abagunea ere eskuratu zutenean, neurrigabe loratuko zen beldur, europar aginteak hazkundera mozteko ekimena hartu zuen, eta jokalarik ez afrikarrik txertatzera behartu. Afrikako futbolak ez zuen lortu Europako kolonizatzaileek irudikatutako mugetan errotutako herrialdeen independentzia arte zaintzape astunetik askatzerik (Hayatou, 1998: 65). Zurien eta beltzen arteko lehiak debekatzen zituzten hasiera batean beltzen garaipenak menderatzaileen kontra nortasun kolektiboaren pizgarri izango ziren beldur. Musulmanek ere hasieran futbol jokoari eta janzkerari beren nortasunaren aurkaritzat iritzita kirola baztertu ostean 1920ko urteetan futbola bereganatu zutenean, frantziarrak musulmanen eta europarren arteko neurketak eragozten saiatu ziren, Aljerian adibidez²⁷. Hurrena ere Frantziako eta Erresuma Batuko

²⁷ Marokon ere, Casablancan sortutako Wydad Athletic Club taldeak, marokoar musulmanak batez ere zelairatzen zituenak, menderatzailearen aurka erresistentzia islatzen zuen, frantziar joerako marokoarrak ordezkatzeko zituen USM klubaren aurka lortutako futbol garaipenetan oroz gain frantziar aginteari jarkita.

inperioek ez zuten onartzen mendeko kolonien arteko futbol partidek izaera ofiziala izan zezaten, bere mendetik kanpoko nortasunak islatu eta independentzia gurariak sustatuko zituzten beldur. Kolonia agintaritzek kontrako saioak egin bazituzten ere, afrikarrentzat burujabetzarako eragingarri erara errotu zen futbola (Oumarou eta Chazaud, 2010: 41). Sebastien Darbonen hitzetan, nahiz eta Kamerunen, Senegalen eta Malin, besteak beste, kolonialismoari jarkitzeko kirolaren bereganatze nazionalista hori ere atzeman zitekeen, batez ere frantziar inperioaren mendeko Afrika iparraldean baliatu zituzten futbolarekin batera, errugbia eta atletismoa ere iraultza eta askapen helburuarekin (Darbon, 2008: 7). Klub handien arteko partidek hizkuntza, kultura eta erlijioei loturiko atxikimenduak eta etsaigoak bizitu zituzten, eta Europa eta Hego Amerikan XX.mendeko hasieran bezala, futbolak komunitate imajinatuaren sortzea lagundu zuen Afrikan, Paul Dietschyk dioen moduan (2010: 312), eta metropolitik ez ezik beste afrikarregandik bereiztea bideratu. Hain zuzen ere, kolonia aginteek beraien mendeko barrutietan, hots, etorkizuneko estatu nazioetan, etnien eta talde nortasunen arteko ezberdintzea elikatu zuten futbolaren bidez ere, hirigune handietan bereziki, europarren menderakuntzari jarkiko zitzaion bertakoen batasuna aldenarazteko. Etniak adierazten zituzten izendapenak sustatu zituzten hartara, mugatu beharrean.

Bada, XX.mendeko erdialdean erneko zen funtsean afrikar nortasuneko futbola; gainera, adur berria zekiokkeen kirolaren erabilpenari. Lehenago, hein batean afrikarrak europar balioei jarraiki hezteko menderakuntza eragilea baldin bazen, beheko klaseetara barreiatu ahala Aljeriako futbolariak atzerrian egin zuten partida biraren adibidearekin islatzen denez, independentziaren aldeko borrokan zinez ustiatu zuten oihartzun handiko ekarpen sinbolikoa izan zen, independentziaren buruek herrialdez herrialde kirolarekin aurretiaz izandako ezagutzarekin erabili zutena, eta handik hurrena kontinente osoan oro har, futbolaren bidez ezberdintasunez gaindi nazioa eraikitzekoa eta ildo berean mundu zabalean onespina lekutzekoa ere. Bitartean, 1950eko hamarkadan aurrerantzean afrikar futbolak jasan beharko zuen gaitza sortu zen, bizimodu duinagoaren bila Europara joan ohi diren futbolariena, alegia. Frantzia izan zen bere kolonietatik eratorritako jokalaririk klubetan eta aberriaren onurarako bere nazio taldean ere zelairatzen goiztiarrena. Izarren pare goratu zituzten hainbat Europako Bigarren Mundu Gerra osteko harmaila beteetan, eta afrikarren joana areagotu egingo zen inondik ere.

Batik bat britainiar eta frantziar inperioen errautsetatik sortu ziren estatu-nazioek eta independentzia aldarrikapenen biharamunean euren gidaritza hartu zuten diktadorek identitate berria irudikatzeko futbolari premiazko egitekoa jarri zioten. Berehalakoa izan zen horrenbestez politikaren eta futbolaren uztarpena batez ere hiriguneetan kolonizazio garaian kirolak erdietsitako sonaz baliatuta. Nazio mobilizaziorako gailua izateaz gain, baloia nazioarteko aldarrikapenerako erreminta zen. Hain zen nabarmena gobernuen eta futbol kudeaketaren arteko lotura ezen FIFAko idazkari nagusi Stanley Rousek Kongora eginiko bidaian ondorioztatu zuela futboleko elkargoak gobernuen luzapen soilak zirela (Dietschy, 2006: 88). Bereizi beharrekoak diren bi esparrutan gauzatzen hasia zen bada politikaren eragina, nazioaren irudikapenean alde batetik, eta gobernu agintarien parte-hartzean bestetik²⁸. Aurrerantzean ere futbolaren erabilpen politikoa askotarikoa izango zen Afrikan, egunerokotasunean, bozetan, ideologia zehatzaren aldeko ekinean nahiz nazio batasunaren babesean. Britainiarren usadiotik eratorritako futbol eta agintea ubide ezberdinetatik bakantzeko gogoeta horrenbestez baztertu egin zuten laster batean estatu berrietan futbolaren kirolaz gaindiko ahalmen handia lehenestearekin batera. Gobernuen parte-hartze erabatekoa eta partiden hala nolako kudeaketa baliatu zuen FIFAk bertako futbola nazioarteko txapelketetan azpiratzeko eta Munduko Kopetan hartara gutxieneko ordezkarietaz kaltetzeko. Dena den, Etiopia, Sudan, Hegoafrika eta Egipto burujabeen ekimenaz 1957.urtean CAF Afrikako Futbol Konfederazioa sortu izana independentzia lortzeko bidean zeuden herrialdeentzat premiazko jomuga izateaz gain FIFAren aurrean Afrika osoaren eskubideak eta nortasuna aldarrikatzeko funtsezkoa zatekeen. Futbolaren izaera mistikoa erabiltzea zen estatu berrien xedea nazio kohesioa bermatzeko, eta bide batez, erregio aldarri gisa baliatzeko. Hain zen handia jokoak herritarrengan eragindako zirrara ezen identitateen geroarekin uztartuta zela. “Futbolak politika eta nazionalismo goi izendapena eskuratu zuen Afrikan kolonia agintearen azken urteetan eta burujabetza borrokan izan zuen zeregin baliagarriagatik” (Darby, 2005: 885). Era horretan, Afrikako Kopako estreinako aldia kontinente beltzeko nazionalismo berri eta goranahia plazaratu ahal izateko moduko lehenengo eremua izan zen, futbolariak nazioaren ordezkarietza eta kontinente osoaren gidaritza eramatera bultzatu zituena aldi berean. Tado Oumarouk eta Pierre Chazaudek azaltzen duten moduan (2010: 44), nazioen arteko topaketak beraien izatea nabarmentzen du eta euren independentzia berretsi.

²⁸ Kirol ministerioetako eta federazioetako kideek Afrikan nazio taldea osatzen futbolarien hautaketan eragiten dute eta jokariak inposatzen dizkiote hautatzaileari hainbatetan (Oumarouk eta Chazaud, 2010: 58). Europar entrenatzaileen etorrera hobesten dute bestalde, estatu barruko etnia ezberdinetatik kolektibo batekoak besteen gainetik hobetsi ez ditzen. Prestatzaile afrikarren maila apalagatik ere arrazoitzen dute.

Kwame Nkrumah izeneko Ghanako eledun abertzale eta panafrikarrak haragitu zuen FIFAk Munduko Kopetan eskainitako gutxieneko tartearen aurkako kontinenteko ezinegona. Ghanak 1957.urtean independentzia eskuratzearen biharamunean herritarrak naziotasun sentimenduarekin hornitzeko kirolaren ahala aitortu zuen Nkrumahk, tribuen arteko atxikimenduak igarotzeko gai zitekeena, eta gizarte, ekonomia eta politika batera zitzakeena. Afrikan nazio burujabeen nazioarteko nortasunaren adierazpide gisara haren ahalmena onetsi zuen ildo horretan. Nazio batasuna eraikitzeko bidea bailitzan jo zuen hartara Ghanako nazio multzoa, herritarren artean abertzaletasunezko grinak erretzekoa (Darby, 2005: 888). Panafrikanismoa irmo defendatu zuenak, beste kide batzuen artean, 1966ko Ingalaterrako Munduko Koparen aurkako boikota ezarri zuten FIFAk ekitaldian Europatik eta Hego Amerikatik kanpoko nazioen ordezkarietara utzitako aukera bakanen aurrean protesta egiteko. Asiarrek ere bat egin zuten kontinente beltzarekin. Edonola ere afrikanen arteko batasuna sustatzeaz gain estatu eta gizartearen arteko gatazka ere bizitu zuen futbolak independentzien biharamunetik, nazioarteko lehietan muturreko nazioaren harrotasunak indarkeria adierazpenak, ohiko hilketak tarteko, laga baitzituen partidetan. Esaterako, Kongok 1962an Gaboni irabazteak Kongokoen kontra erasoaldia eragin zuen Gabonen, eta gabondarren aurkako Kongon ere (Meynaud, 1972: 250). Paul Dietschyk dioen eran, kirolak nazio identitateak sortzen laguntzen zuen batzuk besteekin erkatuz, ezberdintasunen puzzle gisara eraikiz, erlijio, lurralde, hizkuntza eta ekonomia aldeekin, non alorrotako bakoitza arerioen arabera bereiziki egokituko zen (Dietschy, 2010: 330).

Afrika independentetako agintariek azkar ondorioztatu zuten aurrerantzean kirolari esleitu beharko zioten tamaina. “Nazio identitatearen eraikuntza, herrien duintasunaren berraldarrikapena, kultur eta gaztediaren loratzea futbolaren bidez helduko ziren, nazio nortasunaren eragingarria izaki, baina nazioaren batasunaren gidaria ere bai” (Hayatou, 1998: 66). Estatu berrietan, eta eraikitze lanetan zeuden nazioen baitan, batasun nagusia nazio futbol taldearen inguruan egin ohi da Afrikan. Politika etsaigoak, etnia eta erlijio diferentzia sakonak, erregioen arteko norabide kontrajarriak, desagertu egiten dira nazio taldea futbol zelaian barneratzen denean. Estatu-nazioa elkartzeko partekatutako erroak eta bizipenak ez, eta gizarte taldeen artean ezberdintasunak franko dauden lurraldeetan estatuaren zilegitasuna bermatzeko bitarteko funtsezkoa da futbola, nazioa eraikitzea eta ezberdintasunak apaltzea ahalbidetzen duen neurrian. Horrek ez du esan nahi herrialde bereko erregio aurkarien arteko lehia islatzen duten partidetan indarkeria azalerazi ezin daitekeenik. Izan ere, nazio taldeekin alderatuta herri edo erregioetako klubek banaketa

sustatzen dute batasun eraginkorra ordez (Oumarou eta Chazaud, 2010: 61). Esan nahi baita etnia eta gizarte taldeen nortasunak nabarmendu eta bereizketak sustatzen dituztela klubetan mailan. Nolanahi ere, Afrikari dagokionean gainjarri beharrekoa da ia beste ezer bezala askotariko gizarte ezberdintasun gaindiezinak jarkitzeko gai dela, futbol partiden amaieran euren bizikidetzat aintzat hartzeke osatu ziren lurraldeetan etnien auziak berriz agertu ohi diren arren. Arraza, erlijio, etnia nahiz adin ezberdinetako jendeak liluratzen ditu futbolak, eta telebista hargailuak gizarte alor oro ukitzen duen jazoera bihurtzen du.

Boli Kostako Gaztedi eta Kiroleko ministroak futbolak adiskidetzat eta nazioaren batasunerako duen eginbeharra zehaztu zuen Afrika burujabearen errotutako pentsaeraren isla: “Nazioa eraiki beharra dugu; bai, denaz gain nazioa dago; eta nazioa ez da estatua, estatua baino gehiago da, tribu guztien bat-egitea, pentsatzeko modu komuna da; neure aldetik neure kudeaketak irauten duen bitartean futboletik ahalik eta energia gehienak geureganatzen saiatuko naiz...” (cfr. Augustin, 2006:92)²⁹. Kirolarekin kolonialismoak etorkizunerako utzitako askotariko lurraldeetan imajinatutako komunitatea sorraraztea zen helbururik behinekoena, futbolaren gaineko pasioa baliatuta, erronka partekatuaren inguruan etnia ezberdinak, baita elkarren etsaiak ere, uztartzea alegia. Halaber Afrikako Koparen ekitaldia egonkortuta FIFAko nazioarteko txapelketen bidetik estatuentzat eta kontinentearentzat beharrezko begirunea eta onarpena erdiestea Mendebaldearengandik. Hamarkada luzetako menderakuntza eta bakantzea saihesteko baliatu nahi zuten futbol sinbolikoa bat eginik, eta horiek hala panafrikanismoa futbolaren altzoan jaio zen lehen aldiz, hots, afrikar beharizanen alde herrialdeek elkarlanean aritzeko ekimena, Afrikako Futbol Konfederazioaren gisako estatuez gaindiko erakundeekin nazioartean gauzatu.

Afrikarren betiko dantza eta musika usadioak nahiz magiazo sinesmenak agertu ahal izateko ingurua ere bada futbola, baina tradiziozko ikuspegi horren gaindi europar modernitateari atxikitako ikusmoldea hobetsi zuten agintariek. Independentzia aldarrien ondotik futbola are eta ospetsuago bihurtu zen afrikar herrialde gehienetan tradiziozko jokoen kalterako, zeinak afrikar identitatearen benetako adierazleak ziren Oumarouk eta Chazaudek dioten moduan (2010: 25). Munduaren aurrean futbola baliatuz modernitatea ikusaraztea zuten helburu, europar estatuen nazio adierazpenak parekatzea ildo berean, eta afrikar izaerari lotuta ziren jokoez ez zuten xede hori burutzeko ahalmenik ematen,

²⁹ P. Guillaumek 1974an plazaratutako “Deporte y sociedad en África negra. El Año Africano” deiturako ekarpenetik berreskuratu zuen Jean-Pierre Augustinek Boli Kostako ministroaren adierazpen hori.

ez eta besteekin lehian nazio harrotasuna sustatzekoa ere. Kolonizatzaileen modernitate izaeratik kanpo euren berezko bilakaera gauzatzea ezina egin zitzaien afrikarrei hartara.

Hainbatentzat futbolari dagozkien nazioarteko harremanek kolonizazioa ondoren ere afrikarren menderakuntza betikotu egiten dute, baina beste askorentzat estatuen esku ezarriko luke indar harremanen desoreka hein batean iraultzeko abagunea. Kontinentean 1956an sortutako nazio taldeen Afrikako Koparekin batera, Txapeldunen Liga eta Kopa irabazleen lehiaketa jokatzeko dituzte klubek. Bi urtero ospatzen den Afrikako Kopa da entzutetsuena, 50.000 ikusle baino gehiago hartzeko futbol zelaiak altzaraztea bultzatu duena Afrikako herrialde askotan kolonialismoaren atzaparretatik askatu ostean. 1997tik telebista kateek zuzenean eskaintzen dituzte Txapeldunen Ligako partidak ere izen ona du, baliabidegabeziari loturiko arazoek egitura indargabearekin hornitzen baldin badute ere. Afrikako Kopari harrera egiten dioten herrialde antolatzaileek guztia ongi antolatu nahirik hiriguneak eta azpiegiturak eraberritzeko aitzakiatzat hartzen dituzte ekitaldiak. Adierazgarria da ildo horretan esaterako, 2002.urtean Malik hartu zuen futbol lehiaketa. Munduko herrialderik txiroenetakoa izanagatik eta kotoiaren salneurriaren hondoratzeak bizitutako egonezina pairatu arren, 91,4 milioi euro xahutu zituen Gobernuak kirola, eta futbola bereziki, sustatzeko (Augustin, 2006: 94). Estadioak eraberrituta eta hiriguneak edertuz kanpo irudia hobetzeko erabili izan ohi dute herrialde antolatzaileek, munduko zoko guztietan hasieratik egin ohi izan denez. Areago, gizarte kohesioa ere ahalbidetzen du futbol lehiaketaren hartzaile izateak, eta Europako ekitaldien izaeraren nolakotasuna berdintzen dute era horretara. Futbolak beste eremuetan nekez duten eremua eskaintzen die afrikar herrialdeei, eta hein batean futbolak gaur egun herrien abagune berdintasuna ezartzen duela iradoki daiteke, politika eta ekonomia zioek ebatzen duten arren.

Ildo horretan, Olinpiar Jokoen lorpenen bidez nazioartearen gorazarrea erdiestea afrikarrentzat ia ezina den bitartean, herrialdeen domina zerrendak dagokion lurraldeko aberastasunen eta kirolarientzako azpiegituren tamainarekin elkarreragin zuzena du eta, futbolak baliabide gutxiagorekin nazioarteko arretarekin goratzen du Afrika. Salbuespen modura hartzea zilegi da zentzu horretan. Dena dela, kolonialismotik askatu ondoren ere globalizazio garaiko indar desoreka eta mendekotasuna jasan behar izan dute beti hango estatuek. Hala, Europarako futbolarien joana etengabekoa izan da, CAF Afrikako Futbol Konfederazioko eledunek FIFArean aurrean asaldura agertzeraino. FIFAk nazio taldean jokatu ahal izateko baldintzak zurrundu izanak ez du eragotzi naziotasun bikoitza duten

Europako jokalariek sarri askotan hango nazio taldeen aldeko hautua egitea. 1990eko hamarkadan Afrikako futbolarien ihesa bizitu zen begirale eta bitartekari kanpotarrek bertako egoeraz hobaria ateratzeko ustiakuntza indartu zutenean. Babes araudirik ezean afrikar hasiberrien kontura dirutza egitea zuten jomuga. Are gehiago, Europako klubek haztegiak sortu dituzte Afrikan, askatasun osoz futbolari iaioenak Europako futbolarien hautapenezko beren egoitzetara bideratzeko. Europako klubetan izar bilakatuta afrikar nazio taldeetara itzultzen diren futbolariak beren herrikideei hobetzen laguntzen dietela eta mundu mailan Afrikako selekzioei eraginkorragoak izaten lagundu dietela arrazoitu ohi dute hainbatek. Bestalde, futbolarien ihesaldiak sorterrian nazio talde adierazgarria sorraraztea ezinezko egiten duela alderatzen dute beste hainbatek. Esan nahi baita, ezina izango dela nazio taldearen bitartez gisa horretara nazioaren muineko balioak igortzea. “Kontinentea munduko ekonomia kapitalistaren periferian betikotzen den neurrian argia dirudi mendekotasun harremanen amaraunean mantenduko dela, ez soilik ekonomiaren alorrean, baita futbol industria globalaren baitan ere”. (Darby, 2001: 239). Horrek ez du esan nahi Afrikan nazio taldeen indar baterazlea, hots, etengabe ezberdintasunez gaindi nazioa eraikitze ahala murriztu denik, banakako geroko adibideetan garden ikusarazi ahalko denez. Baina, Afrika erregio osotzat jota, mende Erdiko ataka zailetik irten ezinik dagoela adierazten du, hau da, futbolaren zio funtsezkoa bidelagun duela ere Hirugarren Munduko zapalkuntzaren zama iraultzeko ahalmena eskuratu ezinik dagoela. 2010eko Munduko Koparen antolakuntzarako Hegoafrika hautatu izanak, *apartheid* erregimena gainditu zuen gizarteari gorazarre egiteko ez ezik, Afrika osoko futbolari zuzendutako begi keinua zatekeen, futbola edonora hedatzeko FIFAREN irrikak gidatuta, inondik ere.

Munduko kontinente txiroenean futbolak azaltzen du sakoneko ezberdintasunak ahazterazteko gauza dela eta baita aurrekaririk gabeko nazioak imajinatzen laguntzeko ere. Etorkinek urrunetik ekarritako kirolak liluratu egin zituen afrikarrak eta berena egin zuten. Hiriguneetan alabaina kolonia agintaritzek beraien helburuetarako bultzatu zuten futbolaren bilakaera, menderakuntza betikotu asmoz alegia. Globalizazio prozesuarekin uztartu izan ohi dira kirolen hedapenak, eta futbola esaterako, globalizazioaren adierazle nagusienetakoa bailitzan hartua da mundu osoan aski hedatutako ondasuna den heinean. Dena dela, tinko mantendu den menderakuntza gorabehera bertako herritarrek futbola afrikarren ohituren barruan moldatu dutenez, kontinentean nazio nortasunak indartzeko eta gerran etsaitutako komunitateak bake bidean jartzen saiatzeko ahalmena erdietsi du. Gatazkak ezaugarritutako gizarteetan nazio batasunezko irudia sortzen du 90 minututan.

Kable bidezko telebistaren eta Interneten iraultzak afrikarren helmenean jarri du Ingalaterrako eta Espainiako futbola, bertako kirolaren kalterako, eta txapelketa horien gaineko afrikarren arreta hain handia da ezen 2008 eta 2009ko Europako Txapelaldun Ligaren finalen baitan, hurrenez hurren Chelseak eta Manchesterrek, eta Bartzelonak eta Manchesterrek jokatutako partidak aitzakia hartuta, hainbat hildako izan zirela Nigerian. Simon Kuperrek nabarmentzen du jendeak atxikimenduak kable bidezko telebistarekin eraten baditu eta ez norberaren hiriko futbol estadioko bizipenekin, hurbileko aingura txikiagoa duela eta globalagoa bihurtzen dela (Kuper, 2012a: 25). Afrikan jendea sarri Europako klubak elastikoak soinean dituela ikustea telebistaren iritsieraren ondorioa da ez bairik gabe eta globalizazioaren – hainbatek europarren menderakuntza postkoloniala bailitzan arrazoituko dute – agertokia zentzu horretan. Aintzat hartzeko afrikar kirolaren alderdia da europar futbolaren eraginarena, kontinentearen eta estatu-nazioen nortasun burujabea plazaratzeko eta eraikitzeko gailutzat hartzean neurrizko gogoeta adierazteko.

3.3.3.1-Aljeriako estatuaren iragarlea eta geroko euskarria nazio taldea

Frantziako koloniako agintariak kezkatu erreparatzen zioten 1920ko hamarkadan futbol estadioetan azaleratutako nazionalismoaren baitan eragindako istiluei. Europarrek etnia taldeen arteko bizikidetzak bizitu nahi izan zuten, baina bertako musulmanek beren kirol elkargoak sustatu zituzten Lehen Mundu Gerra osteko hamarkadan, zeinak politika mobilizaziorako lan tresnak bilakatu ziren. Futbola funtsean kolonia kultur hegemoniari aljeriar erresistentzia azaltzeko moduko bitartekoa izan zen. Ildo horretan, musulmanen hainbat taldek euren nortasun nazionalista agertu zuten Aljeriako bandera ez ofizialaren kolore berde, zuri eta gorriko elastikoa soinean ipinita. Halaber, Guelma izeneko futbol klubak beltzez jokatzen zituen norgehiagokak, eta artean era berean egiten du, 1945eko maiatzaren 8an eraildako 45.000 aljeriarren eta kolonialismo garaian oro har hildakoen aurkako protesta gisara. Futbol lehiak politika adierazpenerako, kolonia menderakuntza arbuizatzeko eta aldarri nazionalistak sustatzeko abaguneak bihurtu ziren herrialde osoan zehar (Amara eta Henry, 2004: 7). Ondorioz, frantziarrek komunitateen integrazioarako eta bake biderako mahaigaineratutako kirola politika matxinadarako lan tresnan gauzatu zen koloniaren agintearen aurkako giro zabalak eraginda. Hartara, FLN Nazio Liberazio Fronteak 1954ko azaroaren 1ean frantziar boterearen aurkako altxamendua piztu zuen,

eta futbolera ere zabaldu zen gatazka aro berriaren olatua. Aljeriar eta frantziar jatorriko jokalarien arteko istiluak gertatu ziren 1955ean, eta kolonia agintariek errepresio oldeaz ihardetsi zuten gero FLNk koloniako ligetatik alde egitea galdegin zien bertako klub etnikoei eta nazio askatasunerako armadan izena ematea beren jokalariei. Arabiar eta berber herritarrak futbola aurrerantzean independentziarako gerran gudarostearen zatia bailitzan hartua izango zenaz jabetuta zeudenez, dena atonduta zegoen Aljerreko bataila izendapenaz ezagun egindakoaren baitan, hau da, 1956an eta 1957an FLNk hiriguneetan eragindako bonba leherketen inguruan, europar populazioaren eta azpiegituren aurkako erasoaldiaren karietara futbol estadioak jomuga hartzeko. Hala, 1957ko otsailaren 10eko data adierazgarria izan zen Aljerreko hainbat futbol zelaitan bonbak leherrarazi zituzten -eta aldi berean (Dine, 2002: 499). Aljerian ez ezik Frantzian ere erasoak egin zituzten FLNko ekintzaileek, eta futbol partidetan politikari etsai nagusiak hil zituzten Bachagha Ali Chekal Aljeriako Parlamentuko presidente ohia, kolonia gizartearen babesle sutsua eta Frantzia eta Aljeriaren arteko batasun banaezinaren aldeko gartsua, adibidez, Parisko Colombes estadioan 1957. urteko maiatzaren 26ko kopa finalean. Joera bereko Aljeriako Parlamentuko presidenteorde ohi Ali Chekkal Aljerrek Tolosaren aurka 6-3 galdu zuen partidaren hil zuten ekintzaileek. Futbol ekitaldiak gudaren agertoki bilakatu ziren horrela.

FLNk 1958an futbolak Aljeriaren aldarria nazioarteko erakustokian plazaratzeko izan zezakeen garrantzia balioetsi zuen, eta hartara nazio talde iraultzailea sortzea ebatzi zuen. Aljerian lehiatzen zuten futbolariak matxinatutako armadan borroka egiteko deitu baldin bazituen, Frantzian ari ziren jokalariek profesionalei Aljeriako borrokalarien nazio taldean murgiltzea galdegin zien. Tunisiako erbestean biltzera deitu zituzten futbolariak, Frantziako aberastasunezko lasaitasuna atzean uztera horrenbestez. Aberriaren inguruko betekizunekin uztartu zuten futbol eskaera onartu zutenek (Saadallah eta Benfars, 1985: 69). Abertzaletasunezko zioaz bada, Frantziarekin nazioarteko lehiaketetan arituta ziren futbolariak tarteko hamar jokalarik baiezkoa eman zioten Frantziatik irteteko eskaerari, eta FLNk jokalarien aberriaren aldeko nahari gorazarre egin zion. Europako herrialdean burrunba sortu zuen futbolari aljeriarren ihesak, futbol maila oparoa zeukaten jokalariek baitzeuden horien artean, eta auzia areago ezagutarazi zuen. Aljeriako Iraultzaren futbol enbaxadoreek 57 partida jokatu zituzten gutxienez kanpoan 1958 eta 1962 urteen artean, eta horietako 43 norgehiagoketan gailendu ziren 244 gol sartuta. Aljeriar Errepublikaren etorkizuneko aliatutzat begiztatutako herrialdeetan jokatu zituzten partidak, ekitaldien nortasun politikoa areago nabarmendu zuten ondorioz, Sobiet Batasunean, Txinan, Ipar

Vietnamen eta hainbat arabiar naziotan. FIFAREN zigorrak saihesteko –Marokoko futbol elkargoa behin-behinean kanporatu egin zuen estatu ordezkariarik gabeko, eta hortaz, onartu gabeko, selekzioarekin jokatu zuelako – , arerioak delako herrialdearen sindikatu edo korporazio izaerarekin ari beharko zirela ebatzi zuten aljeriarrek, jokalariai egiazki, herrialde horien nazio taldeen kideak ziren arren. Ekialdeko Europako futbolarien parte-hartzea errazten zuen izan ere, ez baitziren profesionalak eta sindikatuetan izen emanda zeudelako (Meynaud, 1972: 303).

Nahiz eta FIFAK politika izaerako oztupoak ezarri, independentzia aurrekaria izan zen futbol taldea, eta FLNk erbesteko futbol nazio taldearen bidez nazioarteko eremuan ohorezko parte-hartzea erdietsi zuen maila handiko kirol arrakastak bidelagun, eta modu berean independentzia helburu zuten beste nazio batzuentzat jarraitu beharreko eredia bilakatu zuen Aljeriako erbesteko nazio futbol talde iraultzailea. Hala, Mahfoud Amarak eta Ian Henryk dioten moduan, kirol gertaera diplomazia tresna eraginkorra bihurtu zen nazioartean Aljeriaren aldarria sustatzeko (Amara eta Henry, 2004: 8-9). Horiek hala, bitartean independentziaren aldekoek eta Frantziarekin batasuna babesten zutenek futbol estadioak erabili zituzten gerran norbanakoak hiltzeko. Nazio askapenerako ekintzaileek futbolaren kolonia jatorriaz jabetuta ere politika, gizarte eta kultur aitortpena erdiesteko bere erabilera ezinbestekoa zela ondorioztatu zuten. Gerra amaitu ondoren 1962.urtean lortu zuen Aljeriak independentzia eta 132 urteko frantziar okupazioari bukaera ezarri. FLNren gobernuak lehentasunezko zeregina esleitu zien hasieratik kirolei eta petrolio eta gas ustiapenetatik lortutako irabaziekin masa kirola bultzatzeko ahalegina egin zuen, eta azpiegitura eskergak altzarazita nazioarteko kirol ekitaldien harrera bereganatu zuen.

Estatuak kolonia aroaren aurretiazko erregioetako identitateei lotutako zantzuak beheratu behar zituela ondorioztatu zuen estatu-nazioaren nortasuna sendotzeko, eta ildo horretan klubaren izenak aldarazi zituen haiek babesten zituzten konpainien izenak eduki zitzaten erregioetako nortasunen erakusleho izan ordez. Aipatuaren isla da Tizi-Ouzou Kabilia Handiko eskualdeko Jeunesse Sportive de Kabylie klubaren bizipena. JSK aurre hizkiez ezagunak, frantsesez “Kabiliarra naiz” sakoneko esaldia argitzen zuena, bereber nazionalismoa haragitu zuen. Estadioen aterpeak emandako babesa baliatuta amaieran politika ekitaldiek biribiltzen zuten partida, eta agintariak taldeari izena aldatzea agindu zioten aldarrikapen kutsua murrizteko asmoz. Ignacio Ramonetek esana ontzat emanek, futbola politikaren ordezkari gisa erabiltzea etengabekoa izan da Aljerian, eta gogoetaren

bidetik ez dirudi abertzaleentzat FLNk eginiko aldaketak zeresanik izan zuenik, denek onartua baitzen JET Kabiliako nazio taldea zela (Ramonet, 1999a: 131). JET Jeunesse Electronique de Tizi-Ouzou deituraren laburdura zen. 1989an atzera ere sortzezko izena berreskuratu zuen Aljeriar estatuko futbol talderik garaitsuenetakoak³⁰. Boterearen jabe izaki, eta lehenago agintearen aurka erabilitako futbolaren sinbolo ahalaren jakitun ere, Aljeriako Gobernuak iraganeko gailua bere aurka ez oldarrarazteko bermea ezarri nahi zuen, eta beste behin futbolak talde nortasunak sustatzeko duen gaitasuna balioetsi zuen.

Bide batez kirolean eginiko inbertsioek etekina eman zioten 1970eko hamarkada eta 1980ko hamarkadaren arteko ingurubidean. 1975eko Mediterranearen jokoan hartzaile izan zen Aljeria, eta futbol lehiaketan nazio adierazpenak gailurra jo zuen, etxeko taldea Frantzia menderatzaile ohiarenarekin erkatu baitzuen finalean, eta afrikarrek mendekua hartzea ahalbidetu ere, 3-2ko emaitzarekin. Estatuak babestutako *El Moudjahid* kazetak biharamunean garaipen sinbolikoaren tamaina goratu zuen, 70.000 aljeriarrek *Kassaman* nazio ereserkia abestea ahalbidetu ziena (Dine, 2002: 501). Izan ere, FLNk zuzendutako estatuaren egikaritzan nazio harrotasunezko gune garrantzitsua bilakatu zen futbola. Ildo horretan, 1975. urteko mugarriaren lekukoa jaso zuten hurrenez hurren 1978ko Afrikako Jokoetan erdietsitako garaipenak eta 1979an Mediterranearen Jokoetan final erdiotaraino heldu izanak. 1980. urteko Moskuko Olinpiar Jokoetan final laurdenetaraino heldu zen Aljeriako futbol nazio taldea eta final erdiotaraino 1982ko Afrikako Kopan. Dena dela, 1982ko Espainiako Munduko Kopako lehenengo multzoan Mendebaldeko Alemaniako nazio taldeari gailendu izanak aurretiaz egindako guztia gainditu zuen. Gaztedi eta Kirol ministroak esan zuen garaipenak gehiago egin zuela Aljeriako nazioaren alde munduan edozein enbaxadorek baino (Amara eta Henry, 2004: 14). Paul Dietschyk ohartarazten duenez, 1962an independentzia aldarrikapenaren egunean aljeriar gehienek askatasunez hautemandako atseginaren indar parekoa izan zen Munduko Kopako norgehiagokak bi hamarkada geroago sorrarazi zuena (Dietschy, 2010: 328). Nazioaren gaineko atxikipen sentipenari areago hauspoa eman zion futbol mugarriak, eta Mahfoud Amararen eta Ian Henryren esanetan, 1986ko Mexikoko Munduko Koparako futbol taldearen prestaketa herritarrak Aljeriaren politika eta ekonomia zailtasunetatik oharkabetezko estatuarentzat eskura zegoen ideologia baliabide eraginkorra zen (Amara eta Henry, 2004: 14). Nazio

³⁰ JSK Aljeriako kabiliar nortasunaren muina izateaz gain, mundu osoan berber nortasunaren sinboloa da. 1946an sortu baino lehenago Frantziako agintearen debekua jaso zuen, taldearen zutabeek kolonia araudia betetzen ez zuelakoan. Futbola eta politika agintea estu hartuta zeuden betidanik kabiliar taldearen baitan.

nortasunaren liluratik hobaria ateratzeko gertu zegoen estatu administrazioa Afrikan ere agerikoa denez, eta Europan aspaldi errotutako joera bere egin zuen horrenbestez. Aldi berean, dena den, estadioak gizarte eta politika protestarako aukera bakanetakoak ziren Aljeriak independentziaren osteko epean. Lokarazlea eta pizgarria zen aldi berean beraz.

Nazio taldeak futboleko adierazitako joko moldeak nazioari esleitutako nortasun ezaugarriak plazaratzen dituela esan ohi da, eta Aljeriari zegokionez, munduko hainbat zokotan jazotako eztabaida are eta gordinagoa eragin zuen, futbol hamaikakoa estatuak eraikitako nazio imajinazioa eta haren ezaugarriak islatzera behartuta zegoen neurrian. Aljeriako aginteak sozialismoaren jarrera zuenez gero, eta SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunarekin harreman zuzena garatu zuela aintzat hartuta, futbol irakaspen sozialistak ezarri nahi zizkion bertako jokalariei. Hala, 1982ko Munduko Kopa oroituari nazio taldea zuzen gidatu zuen Rachid Mekhloufi entrenatzailea, independentzia gerran patriotismoaren sinbolotzat eta aljeriar iraultzaren enbaxadoretzat hartua izan zena, aski kritikatu zuten agintariak taldea prestatzeko zerabilzkien metodoengatik. Entrenatzaile errumaniar batek hartu zuen ondorioz haren lekua, gobernuaren unean uneko nazioaren ikuspegia futbol soropilean hobeki islatuko zuelakoan. Jokalariak igorritako ezaugarriak aldakorra izan ohi den nazioaren muina egituratzen zuela erabat sinetsita ziren bertako politikariak, eta talde nortasun hori kirol heziketatik bertatik hasi behar zela iritzi zioten.

Bestalde, independentziak emandako burujabetzak ez zituen estadioetako aldarri eta protesta ekintzak azpiratu, gazte askorentzako erregimenaren eta goi klaseen aurrean beren ezinegona azaltzeko aukera bakanetakoak izan baitzen. 1990eko hamarkadan estatu osoan hedatu zen indarkeria uholdeak nolana ere ez zuen futbol federazioa futbol liga etetera bultzatu, eta gertatuak gertatu hedabideek eta zaleek ez zioten futbola behatzeari uko egin. Gogoeta gisara esan beharra dago FLNk bere mesederako erabili zuela futbola gizartean sozialismoaren inguruan jendea elkartzeko alde batetik, eta bestetik, mugetatik at Aljeria independentea munduko komunitatean txertatzeko. Xede bikoitza eskuratzeko nazioarteko kirol lehiaketan antolakuntzak eta bertan garaile izateak piztutako nazioaren inguruko lilura baliatu zuten, eta bide batez horrekin guztiarekin erregimenari gorazarre egin. Oro har Philip Dinek dioen moduan, kolonia epetik nazioaren independentziarako borrokara eta globalizatutako merkatu ekonomiarainoko igarobide konplexua gardenki adierazten du futbolaria, eta politika sinbolo zama azaldu du bidenabar (Dine, 2002: 496).

3.3.3.2-Tunisiako agintearen nazio mitoa kirol ekitaldiak atondua

Europar kolonia aginteak mendekoei ezarritako politika mugak pairatu zituzten 1920ko hamarkadarako futbol klub hasiberriek ere, dagoeneko kirola talde nortasunekin uztartzen zuen loturaren adierazgarri, futbola Afrikan ere jendetza erakartzen hasia zen heinean, eta gizarte ikuskizuna bilakatzen. Afrikar klub islamdarraren deitura hartu nahi zuen tunisiar taldeari, azkenean Club Africain izendapena soilki onartu zionari, koloniak jarritako baldintzak esandakoaren lekukoak dira. Frantziar presidentea izatera behartzen zuen kluba, eta Tunisiako kolore eta ikurrak jantzietan irudikatzeari uko egitera. Horrez gain, 1919an jaio zen Esperance izeneko kluba lehen talde musulmana bilakatu zen, eta bi mundu gerren arteko aldian tunisiar nazionalismoaren ikurra bihurtu zuten (Dietschy, 2010: 309). Hala frantziar agintariak ez zuten atsedetik taldearen jarduerara oztopatu arte.

Sortzez futbola Tunisiako nazionalismoaren hasierako mugimenduaren pizgarria zen moduan, ordutik ia mende bete pasa eta burujabetza lortuta ere, nazioa irudikatzeko eta eraikitzeko gailua da futbolaren ikuskizuna, musulmanek hasieran begi txarrez hartu zutena. 2001ean Mediterranean Jokoei eta 2004ean Afrikako futbol kopari harrera egin zien Tunisiak eta bi ekitaldion antolakuntza baliatu zuen Zine el Abidine Ben Ali estatu buru berriak plazaratutako nazio imajinazio eraberritua zilegitzeko, eta erregimenaren legitimazioa irmotzeko, bide batez. Sorterrian talde nortasuna indartzea eta kanpoaldean nazioarteko begirunea lortzea ziren kirol ekitaldion antolakuntzaz begiztatutako xederik behinekoenak, ohi denez. Afrikako herrialde gehienek ohi zuten, Tunisiako agintariak independentziaren bermea eskuratu bezain laster hobetsi zuten kirolek nazioa elkartzeko taldearen onespenez eskaintzen zuten ahalmena. Horiek hala, Ben Ali 1987an boterea hartu zuenean eta Tunisiaren nazio nortasuna goratzeko behinolako Kartagoren historia loriatsurekin eta Mediterraneo Itsasoko erdiguneko kokapenarekin lotu zuenean, kirol ekitaldien antolakuntza hori guztia errotzeko abagunea zela ondorioztatu zuen. Areago, Konstituzio aldaketa beharrezkoa zuen XXI.mendearen hastapenean botereari eutsi ahal izateko, eta hiritarrak herri galdeketa nola edo hala limurtu behar zituen horretarako. Kirola Tunisiaren gorentasunarekin eta hartara erregimenaren gidaritzarekin parekatzea zuen jomuga horrenbestez Mediterranean Jokoei eta Afrikako Kopari. Driss Abbassi helarazitako azalpena ontzat emanez, bi ekitaldiak abian jarri ziren nazioaren sorkuntza

erreferentziak agertuta. Gakoa zetzan estalkirik gabe Kartago/Afrika eta Mediterraneo Itsasoa nazioaren etnia eta kultur sortzaileak zirela zioen historia hipotesia sostengatzea, eta zeinaren arabera gaur-gaurko Tunisia eraiki zutela argudiatzea (Abbassi, 2007: 205).

Prentsak horrela aparteko garrantzia eman zion 2004ko Afrikako Kopako hasiera ekitaldiari, erregimenak hausnartutako nazio identitatearen moldea eta haren iraganaren irakurketa hezur mamitzen baitzuen. Futbol nazio taldearen gizarte oihartzunak bizitzen zuen ekitaldiaren hedadura ahalmena. Raffaele Polik nazio taldeak Afrikako iparraldeko herrialdean duen oihartzuna xehetzeko 2005eko martxoaren 14an *Tunis Hebdo* asteroko aldizkarian irakurle batek adierazia nabarmendu zuen: “Gure nazio taldeak nazioarteko txapelketa batean jokutzen duenean, ordu arte lokarazitako patriotismo sentipenak pozez beteta esnatzen dira” (cfr.Poli, 2006a: 48). Iraganaren bidez azaltzen dute nazioek beren oraina eta etorkizunerako erabakimena, eta Ben Aliren aginteak horrela azaldu nahi izan zuen herrialdearen aldeko parte-hartze baikorra ere. 2001eko Mediterranearen Jokotarako altxa zuten estadioak Azaroaren 7a jaso zuen agintariak boterea hartu zuen egunari begi keinua eginez. Ildo horretan, aipatzekoa da Driss Abbasiren gogoeta. Kirolak politika eta identitate estrategiak indartzen laguntzen duela dio, eta horiexek aldi berean kirol ekitaldiaren nortasuna hauspotzen dutela (Abbassi, 2007: 209-210). Ildo berean gizonen futbol taldeak kirol lehietan erdietsitako garaipenez gain, emakume kirolarien emaitza onak hartu zituen Tunisiako Gobernuak herrialdearen modernotasuna ikusarazteko.

2001eko futbol taldearen mugarriari 2004ko Afrikako Kopan ere etxeko taldeak irabazitako txapelketak hartu zion lekukoa, eta Tunisia bezalako estatu-nazio gaztea are ezagunagoa bihurtu zuen munduaren aurrean, nazioarteko hedabideek arreta handiagoa eskaini baitzioten futbol ekitaldiari. Gobernuarekin lerratutako prentsak Ben Ali estatu buruaren erantzukizuna nabarmendu zuten garaipenean, eta bigarren independentzia eskuratu izan balute bezala goraiatu zutena Afrikako nazio talde denen artetik gailendu izana. *Kartagoko Arranoak* ezizena hartu zuen taldeak sorterrian nazioaren asmatutako jatorriagatik eta kanpoko kazetariak nortasun ildo hori zabaltzen lagundu zuten afrikar futbol txapelketak iraun zuenean. Abbasik dioen eran, kirol eremua nazio imajinazioa eraikitzeke toki garrantzitsua da iraganaren hausnarketa tarteko. Aberri maitasunari eta nazio atxikimenduzko harrotasun politikoei edukiontzia eskaintzen die kirol ekitaldiak (Abbassi, 2007: 217). Bestalde, Aljeriari buruz aipatuari jarraiki, ezatsegina agertzeko gotorlekuak izan ohi dira futboleko estadioak Tunisian ere, eta baita indarkeria ekintzen

zoritzarrezko agerpideak ere. Horiek hala, herri altxamenduek 2011ko urtarrilaren 14an boterea uztera behartu zuten Zine el Abidine Ben Ali presidenteak futbola gelditu zuen aurretiaz arerioen indarkeriaren beldurra argudiatuta horretarako.

Aljeriatik hegoaldera, Malin, herrialdeak 2002ko Afrikako Kopa atondu zuenean Mamadou Traore izeneko nazio taldeko prestatzaile laguntzaileak futbol nazio multzoak iraganean izandako garrantzia oroitarazi zuen. Bere esanetan, baloiak independentziaren alde batu zuen jendea eta nazio sentimendua azaleratzen lagundu zuen (Boniface, 2002: 66). Ildo berean, Issa Hayatou Afrikako Futbol Konfederazioko presidenteak besteren artean Burkina Faso lurralde kokapenari zegokionean munduan ezagun egiteko futbolak burutu zuen ekarpena nabarmendu zuen eta nazio taldearen itzuli inguruan sorrarazi zen batasunezko mugimendua ere bai (Hayatou, 1998: 68). Etengabea da futbolak identitate sorkuntzari dagokionean betetzen duen funtzio bikoitzari buruzko aitortza, hots, barnean nazio ideiarengatik inguruko baterazlea eta kanpoan besteen aurrean nazioaren ezagutarazlea.

Mediterraneanar itsas bazterrean ekialderantz egin eta Afrika eta Asia biltzen diren tokira gerturatuz gero ere, futbol jokoak lehia eta gatazka argitara ateratzeko ondasuna du. Egipton, Britainia Handiko inperioaren eraginpean zegoen estatu burujabearen laster batean erresistentzia zeregina eskuratu zuen futbolak. Britainiarrek kirolaren egikaritza sustatu zuten horrela Egiptoko alderdi nazionalak eginiko aldarri politikoetatik gaztedia aldentzeko. 1930. hamarkadarako Nadi al-Ahli izeneko kluba egipziar nazionalismoaren gotorleku gisa sustraitu zen, eta beheko klaseetara hedatu zen (Dietschy, 2010: 86). 1934ko Italiako lehiaketan Egiptoko selekzioa izan zen Munduko Koparako sailkatzen zen lehen ordezkari afrikarra. Kontuan izan beharrekoa da garai horretan afrikar taldeak europar elkargoen mendean zirela oro har, eta FIFAREN begietara jokalaria europarrak bailiran joak zirela. Ordurako erresistentziazko eremu modura errotzen hasia zen. Gero, XXI.mende hasieraraino jauzi eginaz, 2010eko Munduko Koparako sailkatzeko lehiaren errepikatu egin ziren 1989ko eta 2001eko sailkatze faseetan Aljeriako nazio taldearekin eta bere zalegoarekin sortutako liskarrak eta etsaigo giroa. Futboleko norgehiagokaren tentsioa kanporatu egin zen lehia horietan denetan, eta bi gobernuen eta gizartearen arteko harremanak okerrarazi zituen. Kairoko autobide batean Aljeriako futbolarien autobusari eraso egin zieten, eta hainbatek zauriak jaso zituzten, Hegoafrikako Munduko Koparako sailkatzeko partidaren (Rincon eta Jurado, 2009). Irizpide guztiei erreparatuta berdinduta zeudenez, FIFAK beste herrialde batean sailkapena erabakitzeko partida jokatzeari agindu

zien gero. Sudanen Aljeriak 1-0 irabazi zion Egiptori. Hain zen handia indarkeria giroa ezen 15.000 polizia inguruk zaindu zutela. Bestalde, herri arabiarretan 2011n piztu zen iraultza giroan egokituta, Egipton 70 lagun inguru hil ziren Al Masry etxeko taldearen eta Kairoko Al Ahlyren jarraitzaileen artean 2012ko otsailean izandako liskarren erruz. Al Masrykoak Mubaraken erregimenaren aldekotzat agertu ziren, eta Al Ahlyren baitan agintearen aurkako iraultzari ekin zioten zaleak zeudenez, iraultzaren ikurra bihurtu zen. Herri borrokari esker agintea hartu zuen musulmanen alderdiak hartara, Hosni Mubarak aurreko presidentearen jarraitzaileei egotzi zien liskarrak eragitea eta gizartean asaldura giroa ezarri nahi izatea. Zernahi izanik ere, futbola gatazka giroaren isla zen inondik ere, hildakoen arrazoia baino gehiago. Esan nahi baita zentzugabea dela futbolari leporatzea ezbeharraren iturburua, sortzailea gizarte zioetan aurkitu behar dela, eta kirola agertokia izango dela, Afrikako gertakizun honetan ere. Gizarte ikuskizun nagusia izateak politika aldaketan erdigunean kokatzen dute, ezbairik gabe.

3.3.3.3-Senegalgo futbol taldearen lorpenaren politika erabilpena

2002ko Japonia eta Hego Koreako Munduko Koparako sailkapenezko partidetan Senegalgo nazio taldeak aparteko eraginkortasuna ukan izanak nazioaren aldeko sugarra handiagotu zuen txapelketak aurrera egin ahala. Ekitaldian parte-hartzeko kirol bermea eskuratu zuenean hiritarrek Dakarreko karrikak hartu zituzten bat bateko ospakizunean, eta Abdoulaye Wade presidenteak Frantziarako bidaia moztu zuen neurri handi batean nazio taldeak sortutako liluraren inguruan bere burua ager zedin. Karriketan hainbesteko jendetza zegoen ezen jokalariek eta presidenteak lau ordu behar izan zituztela aireportua Dakar hiri erdiarekin banatzen duen 25 kilometroko zatia egiteko. El-Hadji Diouf futbol izarraren elastikoa soinean agertu zen presidentea jendaurrean. Orduan herrialde bati gerta zekioken gauza garrantzitsuenetzat jo zuen Senegal Munduko Koparako sailkatu izana (Ralph, 2006: 306). Taldea munduko kirol ekitaldi gorenean jokatzeko prestatzen ari zen bitartean, politikariek, hedabideek eta zaleek han lehiatzeaz hunkituta ziren, eta esangura are handiagoaz hornitu zuen kirol hutsetik aski urrundutako ekitaldia hasierako partidari zoriak Senegal Frantziako nazio taldearekin parekatu izana, hau da, menderatua menderatzaileen ordezkariarekin. Bi herrialdeen arteko harreman ez orekatuen historia adurra zerion horrenbestez futbol neurketari. Bada, Senegalek 1998.urtean gailendu zen

munduko txapeldunen taldeari 1-0 irabazi zionean 1960a arte pairatutako metropoliaren agintaritzaren mendekutzat joa izan zen, eta herritarren ospakizun zoramena sortu zuen, batez ere Independentziaren Plazaren eta Presidentetzaren Jauregiaren inguruan, politika eta nazio imajinazioaren esangura handiko guneetan, hain zuzen ere. Estatu banderaren kolore gorri, hori eta berdez apaindutako txapelek, elastikoez, lepokoek eta banderek betetzen zuten atseginezko eta batasunezko aldarria. Jokalarietako gehienek, Afrikako nazio taldeen ordezkariekin geroz eta arruntagoa denez, Europan jokatzen bazuten ere, herritarrak nazioaren proiektuarekin garaipenezko hunkipenean bateratzea sustatu zuten. Senegalen ordezkariaren estreinako aldia zen Munduko Kopan, eta Abdoulaye Wadek dei argiaz agurtu zituen Asiarako bidea hartu zutenean, nazio nortasunaren gorespena nahiz politikaren erabilera ezin gardenago islatzen zuena: “Joan eta mundua konkista ezazue” (Alcaide Hernandez, 2009: 48).

Jacques Chiracek 1998.urtean Frantziako nazio taldearen garaipenaren karietara ahotan izandako leloa baliatu zuen Wadek Senegalek Hego Korean eta Japonian izateko eskubidea lortu zuenean. Futbol talde garaitsua herrialde ahaltsuarekin berdindu zuten biek. Afrikarrak sustatutako *La Senegal qui gagne* – irabazten duen Senegal – ideiarekin bat egin zuten herritarrek, eta deiadar eta kantu bihurtu zuten kirolaren eta nortasunaren aldarriaren arteko ezkontzaren baitan. Bistan denez, Wadek ez zuen alferrik galdu futbol garaipenak utzitako uzta bere aldeko etekin politikoa bihurtzeko parada, eta bide batez garaipenezko olatuaren aurrean bere izena ezartzekoa. Horren lekuko da esate baterako, taldearen mugarriaren omenez nazio jai eguna izendatu zuela, eta orduan estali gabeko autobusean baloia eskuetan zuela agertu zela (Ralph, 2006: 308). Final laurdenetaraino heltzea erdietsi zuen Senegalek Munduko Kopako lehen parte-hartzean, eta herrialdea ezagutarazten lagundu zuen halabeharrez, eta baita bere agintariaren irudia goratzen ere, nekazarien irabazien galeren arazoa jendearen lehentasunetatik behin-behinean bederen desagertzearaino. Horiek hala, Wadek Parisera 2002ko azaroan egin zuen bidaia batean gizarte auziei buruzko kritiketatik babestu behar izan zuen ikasle senegaldarren aurrean. Bere agintaldiak lorpen handiak eduki zituela esan zuen, eta horien artean txertatu zuen Frantziaren aurka futbol taldeak Munduko Kopan irabazitako partida (Ibid., 313). Bistan denez, futbola lehentasuna zen gobernuarentzat gizartean eragin zuen zirrara hauteman baitzuen, eta futbolak nazioa bere baitan batzeko ahalmena izan zuenez gero, arrakasta horren egikaritzea gobernuaren ekimenarekin uztartu nahi izan zuten. Nazio nortasunaren aldarrikapenezko une gorena indartu zuen bada Wadek futbolarekin batera, bere aginte

makila bermatzeko eta gizarte arazoak azpiratzeko. Zilegia da kirolak orduan lokarazle gisa jardun zuela baieztatzea, baina oroz gain, agintarien erabilpenetik haratago, nazio taldeak herri poz adierazpenak sortu izana gehien nabarmentzekoa da, baita munduko kontinente txiroenean egokituta egoteak betikotutako arazoan ahaztura ere. Sinbolismo biziaren hornitutako unean Frantzia menderatzaile nagusia azpiratzeko gailua ere izan zen.

Senegaletik hegoaldera, Ginean, Ramon Sarrori jarraiki, luzaroan lokartuta izan zen identitate komuna berpiztea ahalbidetu zuen futbol lehiaketak, eta baita lurraldearen osotasunean mugimenduan dauden identitateen etengabeko berrezarpenari adierazpidea eskaintzea (Sarro, 1999: 143). Horrezaz gain, Boli Kosta eta Senegalen arteko politika etsaigoa hozten lagundu zuen 1970ean Conakry hirigunean – Senegalen – antolatutako futboleko norgehiagokak. Bestalde, Afrikako Atlantikoko itsasertzetik hegoaldera bidea eginda, gerrak zartatutako gizarteetan futbolaren sonak ekarri dezakeen berradiskiditzea eta ildo horretan komunitate edo nazio berdinen partaidetzaren sentipena dira aztergai, Sierra Leonan esaterako. Izan ere, futbolaren behaketa garaikideetan *hooliganismo*-aren gaitzak hausnarketa ugari bete dituen bitartean, Afrikan esaterako, alderantzizkoa gerta daitekeela dirudi. Esan nahi baita, futbolak aurretiazko indarkeria endemikoaren iturria moztu dezakeela eta etengabeko gerra heziketatik bereizitako gizarte baketsua sortzeko zutabeak ezarri. Sierra Leonan nahiz Liberian gerretan hezitako adingabeak gizarteratze ohikotik baztertuak izan ziren, eta euren bizitzaren herena baino gehiago heriotik hurbil elkar hiltzen igaro ostean berradiskidetzea zaila zen. Ulermen partekatua eta adierazpide kolektiboen kultur ondasuna ahuldu zuten anarkia borrokan bizipenek Paul Richardsek dioen moduan. “Futbola, aise ulertzen den alorra izaki, merkea eta sona handikoa, kultur edukitik behar beste askea da ezerezetik kooperazio tasunak agertzeko gailu eraginkorra izateko” (Richards, 1997: 155-156). Richardsen ahotan, Sierra Leonako adibideak irauli egiten du futbola indarkeriaren erantzuletzat amiltzen duen zabalduetako hausnarketa, eta indarkeria alde aurretiazkoa denean, futbola muturreko gizarteratze eza eralda lezakeen oinarritzko bideetako bat izan daitekeela adierazten du. Sierra Leonan eta alboko Liberia herrialdean ez ezik, Afrika osora heda daiteke futbola indarkeriak erasandako muturreko etsaigoak baketzeko baliatzeko jomuga, kontinenteko kirol ospetsuena den neurrian, eta nazio taldeen baitan batik bat barne zatiketak gainditzeko hauspo baterazlea duelako, estatuko nazio nortasuna ospakizunezko herri adierazpen jendetsuekin sustatuz, beti ere.

3.3.3.4-Futbolaz irudikatutako nazioaren mugak Liberiako gatazkan

Liberian, Afrikako beste herrialde batzuetan gertatu ohi denez 50.000 ikusleren parte-hartzea erakarri ohi du futbolak nazio taldea jokoan dagoen nazioarteko demetan, eta baita 25.000 ikusle ingurukoa klubaren arteko partida erabakiorrenetan. Herrialdeak ez ohiko egonkortasunezko urteak izan zituen aro garaikidean hein batean Europako ezin herrialde menderatzailek bereganatu ez zuelako. AEBetara bortxaz lekualdatu zituzten esklaboak itzultzean herrialde hartako nortasunari so altxa zuten Liberia. Hala, 1934an Bame deiturako lehen futbol kluba sortu zutenean Afrikako gainontzeko lurraldeetatik bereizita ez zen europar etorkinen jokoaren aitzindaritzan oinarritu, Britainia Handira lanera joandakoek eraman baitzuten futbola sorterrira itzuli zirenean. Arraza eta klaseen arteko etengabeko gatazkak hezurmamitu izan zuen Liberiaren historia, eta 1986.urtean oraindik erabat itzali ez den gerra hasi zen. 1997an gerra eten zenean ume zirelarik guda taldeetan sartu ziren gazteak bizimodu berrira egokitzeke ezintasunaz bete zituen. Beren komunitateari ere eraso egin zioten hainbatetan horietako batzuk, eta gerra aurretiazko gizarte adostasunak erabat hautsita zeuden. Horregatik, premiazkoa zen bizikidetzarako hizkera berriak sortzea, eta hain zuzen ere horretan zetzan kirolak eta futbolak bereziki egin zezaketek ekarpena.

Liberiako politikariek ere futbola beraienezko hobariak lortzeko baliabide gisa erabili izan dute nazio nortasunaren sentipena elikatzeaz gain. William Tubman zeritzon presidentek 1964an County Meet izeneko futbol txapelketa antolatu zuen, futbolarekin nazio nortasuna sustatzea zuen helburu. Zentzu horretan eginiko ahaleginek hala nolako uzta eman zuten 1990eko hamarkadan kirolak gatazka armatua geldiaraztea lortu zuela baieztatu baitaiteke. Izan ere, Gary Armstrongek dioena onetsiz, gerrak iraun artean nazio batasunezko zentzua sorrarazten zuten abagune bakarrak futbol partidak ziren, bakanak eta elkarren artean denboran aski bereziak izanagatik (Armstrong, 2002: 482). Hortaz, politikariek, atzerriko ordezkariak, Elizak eta futbol elkargoak 1992. eta 1993.urteetan futbol txapelketak sustatu zituzten, etsaitutako eskualde ezberdinetako ordezkariak elkar ikus zezaten, eta gerratik kanpo antzerako kezkak eta irrikak zituztela begizta zezaten. Nazioarteko norgehiagokek ere borrokak etetea ahalbidetzen zuten, eta bezperan nahiz biharamunean elkar hilko zuten milaka herritar harmailetan bateratzea. Halaber, George

Weah Liberiako aurrelariak, 1995.urtean munduko futbolari onenari egokitutako sariaz, Urrezko Baloiaz, ohoratu zuten jokalaria, bere ospea nazio taldea herrialdearen batasun giltzarria izan zedin erabiltzeko ekimena hartu zuen. Hauek dira laudorioa jaso eta gero esan zituen hitzak: “Urrezko Baloia gure herrialdean borrokatzen ari diren talde armatu guztiei eskainiko diet. Monrovia elkartuko ditut. Erakutsi dut herrialdearen alde bestela borroka egin daitekeela, gerra egin gabe” (cfr. Boniface, 2002: 54-55). Futbolearen estatua ordezkatzeko, armarik gabe nazioaren alde oldartzea zela zioen hartara futboleko izarrak. Nazioa eta futbola lotzen dituen katea estalkirik gabe xehetzeaz gain, geroko politikari izaeraren zantzuak iragarri zituen Frantziako PSG eta Italiako Milan klubetan aritutako futbolariak. Sorterrian nazio heroia goratu zuten Weah eta itxaropenezko eredu ere bai.

Nazioaren ikur eta agertokia zen, eta munduan norbanako gutxi bezala herria mugiarazteko ahala zeukan. Hala ere, 2001eko uztailan Liberiak etxean Ghanarekin 1-2 galdu izanak eta 2002ko ekitaldian Munduko Kopan estreinako aldiz aritzeko abagunea zapuztu izanak 30.000 lagunengandik jendetzaren asaldura eragin zuen Weah izarraren kontra. Partidaren ostean Poliziak zaindu behar izan zuen etxea, eta futbolariak herri prentsaren bitartez baliatu zuen gerran erkatutako aldeek berradiskidetzarako urratsak egin zituzten. Charles Taylor Liberiako presidentea François Massaquoi zeritzon eledunari egokitu zion Gaztedi eta Kirol ministerioaren ardura, eta hark etsaitutako taldeak gobernuaren inguruan kirolaren bidez batzeko guraria adierazi zuen 1998an emandako elkarrizketan: “Futbolak gorespina eta estatua ematen dio herrialdeari. Futbolearen arrakasta edukitzea funtsezkoa da gure berreraikitzearako. Porrotak geure irudia kaltetzen du” (Armstrong, 2002: 485). Galeraren ondorio txarrak hain agerikoak gertatu ziren ezen George Weah 2002ko Afrikako Kopa garaian adierazi zuela ez zela sorterrira itzuliko Charles Taylor presidentearen gizonen hilko zuten beldur zelako. Bere ospearen agintarien botere zurruna erasan zuen azkenean. Taldearen ordainketek Weah arduratu izan zen luzaro. 2005ean presidentetzarako aurkeztu zen, futboleko sona bidelagun. Era adierazgarrian kanpainan bere ikasketa gabeziaren desabantaila azaleratu zuten aurkariak (Mchombo, 2006: 334).

Politikariek ondorioztatu zuten futbolak bizikidetzari lagunduko bazion eta nazio kontzientzia sortuko bazuen Monrovia hiriburutik kanpoko eskualdeetako ordezkariak ere nolabait erakarri behar zituztela, diru arazoak gaindituta. Futboleko klubek gaztedia gerratik aldentzeko erakarpen ahalmena zuten, eta partidetan elkarrekin aritu ondoren, gazteek gerra egiteko deia jasotzerakoan errefusatzera gogatzekoa. Gary Armstrongek

dioen moduan, deigarria da XIX.mende amaieran eta XX.mendeko lehen hamarkadetan kirola gerrarako prestatzeko bidea zen bitartean, XX.mende amaieran eta gizaldi berria hastean Mendebaldeko gobernuek eta Gobernu Kanpoko Erakundeek kirola eta futbola bereziki gatazkak ekiditeko baliabide gisara aitortu izana. Armstrongi jarraiki, futbolariek une batez politika eta etnia iturriko tentsioak mendera ditzakeen arren, ez da gauza izan Liberian talde guztiak elkartzeko. Matxinatuen eta disidentziaren izaerak erakusten du astintzeko balaioa baino gehiago beharko dela epe luzeko politika irtenbidea eskuratzeko (Armstrong, 2002: 490). Nolanahi ere, mende batean politikariek burutu ez zuten nazio batasunaren erantzukizuna futbolariek esku utzi nahi zuten azkenerako, jokoak herrialde osoan, aberatsak nahiz txiroak, emakumezkoak eta gizonezkoak, musulmanak, kristauak eta animistak liluratsen dituelako, urruneko herrixketan nahiz hiri jendetsuetan. Horiek hala, harrotasuna eman zien futbola jokatzeko, ikusten edo atontzen zuten milaka gazteri.

3.3.3.5-Boli Kostako selekzioa nazio baterazlea bake saioen bidean

Futbola gaur eguneko Boli Kostan batasuneko eta bake bidezko osagaitzat joa da, hein handi batean bake prozesua sustatzeko sarritan politikariek egin dien nazio taldea bidelagun duela. Horrez gain, nazio taldeak bere osaeraren bidez bizikidetzara Boli Kostan egingarria dela azaltzen du abertzaletasun barnerakoia ezartzen baitu askotariko jokalariek taldera deituta. Futbol ordezkaritzaren tamainaren isla da 2006ko Alemaniako Munduko Koparen kariatara Mobio Joseph legebiltzarkideak elefante ezizenaz ezagun ziren futbolariek patua Boli Kostarekin berdintzea. Kazetek, gobernuaren aldekoak nahiz aurkariak izan, 11 jokalariek eginahalak nazioaren etorkizunean sinismena izateko modua eskaintzen zuela aditzera ematen zuten. Herritar askok hautematen dute Andreas Mehlerrek dioenez, futbola dela egiazki jendea batzen duen bakarra (Mehler, 2008: 99-100). Ildo horretan, Didier Drogba aurrelari entzutetsuena aurreko belaunaldiko George Weah liberiarren pareko nazio heroitzat daukate herritarrek, eta agintariak bere itzala baliatzeko gertu izan ohi dira gizartearen limurtu ahal izateko, politika erabilpena tarteko.

Nazioarteko futbol ordezkaritza bere altzoan duen taldearen eta nazioaren artean hobetsitako lotura estuaren adierazgarri da 2000ko Afrikako Koparen ostean kazetariak argitaratu eman zuten albistea. Guei jeneralak, Boli Kostako orduko presidentek, futbol

lehiaketan jasandako atsekabeak bultzatuta nazio taldeko partaide denak militarren gune baten atxilo hartu zituen “herrialdearen ohorea” kaltetu izanagatik (Boniface, 2002: 30). Abertzaletasunezko ikasgaiak eman zizkieten, hedabideek plazaratu zuten, soropilean eraginkortasun nahikoa erakutsi ez zuten futbolarietara. Andreas Mehlerren esanetan, Boli Kostan adinakoa da Ghana hegoko bizilagunean futbolari esleitutako politika aldatzea, herrialde horretako giro baketsuagoak hedabideen gogoeta ezberdinei tartea eskaintzen baldin badie ere. Mehlerren hausnarketari jarraiki, Afrikako herrialdeetan irakurle asko erakartzen ditu prentsaren futbolaren jarraipenak, eta gizarteak duen politika diskurtsoa ezagutzeko zantzuak igortzen ditu era honetara: “Ezagutza, futbol jarraipenean, politika ideologiaren neurritara ekoitzi eta eraberritzen da” (Mehler, 2008: 96). Nazioaren ideien eta futbolaren arteko batasunaz gain hedabideek hori hizpide dutenean lotura areagotzen dutela argitzen du ikerlariak Afrikako herrialdeak jomuga dituela.

“Nazioaren ohorea eta harrotasuna babes ezazue”. Eskaera hori helarazita agurtu zituen, bestalde, John Kufour Ghanako presidentek jokalariek 2006. urteko Alemaniako Munduko Kopan parte hartzea joan aurretik. Lehenago, Munduko Koparako sailkapena eskuratu zutenean, eta Afrikako Kopan lehiatu aurretik, herrialdeko nazioaren bandera gogo betez eta tinkotasunez altxa izanagatik ohoratu egin zituen agintariak. Dena dela, Ghanak kirolaren bitartez nazioaren ongizatearen irrika baino haratagoko erantzukizuna hartzen du bere gain, Nana Akufo-Addo Atzerri ministroak Munduko Koparen baitako giro garatsuan era honetan hezur mamitua: “Ez gaude soilik nazioa ordezkatzeko, Afrika ere bai” (cfr. Mehler, 2008: 100). Panafrikanismo aldarria zen Ghanako eledunarena, eta pentsamolde horrekin bat eginda, hain zuzen ere, Nelson Mandelak ere lau urte geroago ospatu zen Hegoafrikako ekitaldian ghanar jokalariek afaltzera etxera gonbidatu zituen Afrikaren alde futbol zelaiko emaitza onekin egindakoa eskertzeko. Afrikaren sustapena eta herrialdearen gorespina erreferentzia eremu bikoitzak aldiro nahasten dira prentsako adierazpenetan. Hala, Stephen Appiah nazio taldeko kapitainaren esanak nabarmentzen zituen *Heritage* izeneko kazetak. Haren esanetan, taldearen eginahalak historian inoiz ez bezala elkartu zuen Ghanako nazioa, eta egunkariaren editorialak gaineratu zuen taldeak ezberdintasunak gaindiarazi zituela eta nazioaren gorespenezko sentipena lehenetsiarazi zuela (Ibid., 103). Halaber, Kwesi Nyantaki Ghanako Futbol Federazioko presidentek “nazioaren alde hiltzeko jarrera” hauteman zuen futbol jokalarien jardunean (Mehler, 2008: 105). Benedict Andersoni jarraiki (1991), nazionalismo guztien sorrera muinean aurkitzen den hitzeman da nazio komunitate imajinatuaren alde hiltzeko prestutasuna.

Nigeriari dagokionean, XIX. eta XX.mendean britainiarren agindupean egon eta gero, 1960ean eskuratu zuen burujabetza, eta senegaldarrek Frantziarekin egin zutenez, futbola garai horretako beherakuntza mendekatzeko baliatu nahi izan zuten. Nwankwo Kanu izeneko jokalaria Nigeriako herritarrentzat ingelesak 2002ko Munduko Kopatik kanporatzeak zuen garrantzia oroitarazi izana horren adierazle da (Alcaide Hernandez, 2009: 48). Final zortzirenetarako sailkatzeko aukera gutxi zuen Afrikako taldeak, baina ingelesak azpiratzea aski pizgarria bazen, bistan denez, azkenean berdindu egin bazuten ere. Hori baino lehenago, Nigeriak gazteen Munduko Kopa hartzeko igorritako eskaera errefusatu zuen FIFAk bere erregimenaren diktadura izaeragatik. Bada, bi adibide soilok erakusten dute futbolak duen nazio ordezkartzaren ahala nazioarteko txapelketen bidez. 1996ko Atlantako Olinpiar Jokoetako futboleko lehiaketan Nigeriak Argentina finalean azpiratu izanak bestalde, nazio arrakasta ez ezik Afrikak oro har eskuratutako garaipena bailitzan hartu zuten kontinente horretako beste herrialdeetako herritar askok ere. Ildo horretan, Ghanan abiatutako kirolaren bidezko panafrikanismoaren isla da, hots, kolonia aroaren ostean luzatu zen Afrikaren mendekotasuna futbolaren ospeaz irauli nahi duena.

2010eko Munduko Kopan lehen sailkapena igarotzeko gauza izan ez zenez gero, Nigeriako presidente Goodluck Ebele Jonathanek bi urtez nazio taldea nazioarteko lehia orotik baztertzeko asmoa adierazi zuen. Azkenean ez zuen esana berretsi eta Nigeriako selekzioak ez zuen etenik izan. Historian azalerazi izan den joera da futbol selekzioak besteekin erkaketan nazioaren gailentasuna adierazteko moduko mailarik plazaratzen ez duenean, hots, futbolaren ordezkartza ahala era ezkorrean bideratzen duenean, estatuko agintariak aldi batez alboratzea ebazten dutela. XXI.menderaino iritsi da politika jarrera.

3.3.3.6-Kamerungo ehunka etnia ezberdinen sinbolo itsasgarria

Kamerungo Gobernuaren ekimenaren alderdietako bat izan da futbola indartzea nazio batasuna bultzatzeko bidean. Ildo horretan, 1967.urtean legea plazaratu zuen etnia izaerak ezaugarritutako klubak eta elkargoak debekatzeko, etnia desberdinetan errotuta zeuden taldeak ekidin, politika gatazkak saihestu eta nazio batasuna sustatzeko. Horrela, klub batzuk desegin eta futbolariak izaera anitzeko taldeetan txertatu ziren, baina beste klub batzuetako buruek eraldaketa arbuiatu egin zuten, eta agintariak azkenerako atzera

egin. Futbolaren askotariko etnia izaera onartzeko gertu ziren, gizarte ordena bermatuko bazuen, eta nazioarteko lehiaketetan Kamerungo ezen lorpenek erdietsiko ez zuen nazio sentipena eragingo zuen heinean. Paul Nchojik eta Bea Vidacsek nabarmentzen dutenez (1997: 128), bizipen hori ez da gainera inposatua, futbolarik pizten duen berezkoa baizik.

Italiako 1990eko Munduko Kopan mundu osoko telebista hargailuetan ikusi ahal zen futbolarako trebezia plazaratuta, Roger Millak Kamerun ezagutarazi zuen, eta zilegi da esatea hamarkada askotan helburu horretan ahalegindu zen diplomazia lanak adinako oihartzuna izan zuela ekitaldiak ahalbidetutako arreta eskergari eskerrak. Errumaniari bi gol sartu ondoren herrialdea zerbitzatzeaz harro zegoen erreserbako soldadutzat definitu zuen bere burua Millak, futbola eta gerra nazioaren biziraupena defendatzeko egokiera baliokideak izango balira bezala (Ramonet, 1999a: 134). Herritarrentzat nazio multzoak duen zeresanaren tamaina erakusten du halaber 1994ko AEBetako Munduko Koparako selekzioaren prestakuntza sostengatzeko kanpaina bideratu zenean, agintariak zur eta lur utzi zituen arrakasta izan zuela. Kamerunen politika giroa gorabeheraz bete izanagatik, eta hainbat herritarrek euren baliabide eskasak areago murriztu beharko bazituzten ere, taldearen onura gainjarri zuten, eta diru laguntza mardulak eskaini zizkieten herritarrek (Hayatou, 1998: 66). Munduko herrialderik txiroenetakoa da Kamerun. Futbol taldearen inguruko zoramenaren eta nazioarteko lehiaketetan besteekiko aurkaritzan sortzen duen nortasun euskarriaz ohartarazten gaitu horrenbestez herritarren ekimenak. Areago, 200 etnia talde baino gehiagok eta hizkuntza askotarikoek osatua da Kamerungo aniztasuna, eta nazioa batu eta indarkeria aroen ostean berradiskidetzeko moduko itsasgarriak izatea nekeza da. Grant Jarvie dioenez, eta Afrikako beste hainbat herrialdetan ondorioztatu dudanez, 1990eko hamarkadatik aurrera *lehoi* ezizenaz izendatutako nazio taldeak lortu du bakanak diren bizimoduko beste hainbat osagaien neurritan jendea batzean arrakasta izatea (Jarvie, 2006: 187). Munduko gainontzeko herrialdeen pare jarkitzea ahalbidetzen dio futbolarik Kameruni, botere handirik gabeko herrialdeei oro har bezala. FIFAk berriki sortutako 2003ko Konfederazio Kopako finalerdietan Kamerungo jokalaririk bat hil zen arren, Frantziarekin finala jokatu behar zuela ebatzi zuen nazioarteko futbol erakundeak. Bestalde, Samuel Eto'ok hartu zuen XXI. mendean Roger Millaren aginte makila nazio selekzioan, eta mundu mailako izarrak Kamerungo nazioaren aldeko aldarriak Afrikako nortasun deiarrez aldizkatu izan zituen Europako talde onenetan jokatzeak zilegituta.

Afrikako hegoalderantz eginda, gaur egungo Kongoko eta Kongoko Errepublika Demokratikoko herrialdeetan hauteman daitezke futbola eta talde nortasunen birsorpena lotzen dituzten gertaerak, Belgikaren mendeko kolonia aroko garaira atzera eginez esate baterako Kongoko Errepublika Demokratikoari, hau da, behinolako Zaireri, dagokionez. Futbola, eta kirola oro har, kolonizazio gailua bihurtu zen belgikar menderatzaileentzat 1910eko hamarkadan ezarri ondorenean. Herrialdeak independentzia eskuratu zuenean, jokalaria bizimodu hobeak erakarrira Belgika menderatzaile ohiera ez joatea estatuaren lehenetsitako funtsa bihurtu zen, Gobernuko Gaztedi eta Kirol sailak zaindu beharrekoa. Mobutu Sese Seko izeneko jeneralak boterea hartu eta urte batzuetara Zaire izenarekin izendatu zuen ordu arte Kongo zeritzon herrialde burujabea, eta futbolariak bertan geldi zitezten lortzeko legez kanpoko burutazioa asmatu zuen: nazio taldean jokatzeko deitzen zituzten futbolariak betiko gelditzera bultzatzen zituzten. Mobuturen erregimenak nazio aberastasuna bermatzen zuen horrela bere ikuspegitik, futbolariak alde batetik, eta ordu arte herrialdeko ondasunak ustiatzen zituzten europar enpresak bertakotuz bereganatzen zituen diamante eta kobre ustiapenak beste aldetik, maila berean ipiniz³¹. Mendebaldeko Alemanian 1974an jokaturako Munduko Txapelketan Afrikari utzitako toki bakarra bere eginda Zaireko futbol ordezkariak erregimenaren apeta bete zuen, eta hark esker onez Zaireko Errepublikaren aintza eguna izendatu zuen data hura (Dietschy, 2006: 87). Hiru partidatan 14 gol jaso zituen nazio taldeak Munduko Kopan eta ez zuen golik egin. Izan ere, futbolarik muturrezko zoramena piz dezake sarritan, geroko etsipena ezkutuan duena.

Bestalde, behin behinean izanik ere, futbola Kongoko eta Kongoko Errepublika Demokratikoko historian zizelkatuta dagoen indarkeria eteteko gauza izan da noizbait. Pele izar brasildarraren Santos futbol klubak han adiskidantzazko lehiak hitzartu zituen 1969an, hastear zen ondorengo futbol sasoi prestatzeko, eta inoizko munduko futbolari onenetakoa ikusteko gerran etsaituta ziren bi aldeek su-etena hitzeman egin zuten. “Epe laburrean bazen ere, gutxienik gerran zegoen ingurura bakea ekartzea erdietsi genuen”, esan zuen Pelek gerora jazoera hori oroitarazi ziotenean (Alcaide Hernandez, 2009: 67). Futbolarik Afrikan aspalditik izan duen gizarte erakarpen ahalmenaren argigarria da hori, bake bidean baliatu ahal izateko abagunea mahaigaineratzen duena zentzu horretan.

³¹ Mobutu Sese Seko hau esan zien 1966an Belgikatik itzultitako futbolariak: “Deitu bazaitzuten, herrialde handi honen mailako taldea osatzeko helburu bakarrak bultzatuta izan da. Bakoitzak bere alorrean nazio prestijioa duintasunez defendatzeko ahalegin handiena burutu beharra dugu. Eta niretzat kirola ekonomia bezain garrantzitsua da (cfr. Dietschy, 2010: 324).

3.3.3.7-Inoizko gatazka hilgarrienetako ahazteko bidea Ruandan

2003ko Afrikako Kopan Ruandako eta Ugandako nazio taldeak alderatu zituen lehiaketak jokalarien arteko eta jokalarien eta polizien arteko indarkeria ekintzen artean. Ruandako atezain Mohammed Mossik egindako aparteko bi geldiketen aitzakia hartuta 60.000 futbol zaleren jendetzak aldarrikatu zuen atezaina naturaz gaindiko baliabideak erabiltzen ari zela. Ugandako jokalaria eta epaileak ruandarrek atearen atzealdean jarri zuten sorginkeriazko panpina lurpetik atera asmotan zulatzen hasi ziren, eta ordu erdiko geldialdia agindu zuen epaileak. Partida berriz abiatu zen eta Ruandak 1-0 irabazi zuen. Ruanda batuan ospakizunak hasi ziren nonahi. Hamarkada soila lehenago, 1994.urtean, gobernuak sustatutako tutsien etniako 800.000 lagun hilketa gertatu zen hutuen esku. Kolonialismo garaian tutsien agintea hobetsi zuten belgikarrek eta hutuek era odoltsuan mendekua hartu zuten. Nolanahi ere, aipaturiko partidaren amaieran, hutuek eta tutsiek, genozidio egileek nahiz biktimek Ruandako karrketan elkarrekin dantzatu zuten. Paul Kagame orduko Ruandako presidente tutsiarekin batera aireportuan harrera egin zieten nazio selekzioko kapitain hutuari eta gainontzeko futbolari herrialdeko zortzi milioiko populazioaren ia erdiak, 2003ko uztailaren 13an, biharamunean, *The Observer* kazetak azaldu zuenez. Presidenteak une hartan iragarri zuen hurrengo hilabetean hauteskundeak deituko zituela presidentetzarako, boterera iritsi zenetik estreinako aldiz, hain zuzen ere. Jende askok onartu zuen futbolak bakarrik eduki izan zezakeela horrelako eragin bizirik nazio berradiskidetzearen zereginean, munduan etnikoki gehien banatuen eta kaltetuen zegoen herrialdeetako batean (Jarvie, 2006: 187). Kanpoko nazioei jarkitzean, bertakoen batasuna ahalbidetu zuten futbolaren ulerterraztasunak, emozioek eta askotariko ikurrek.

3.3.3.8-Kolonialismo gailua izatetik Kenyako nazio aldarri izatera

Kenyako historiako talde etnikoen aniztasuna eta lausotasuna egituratu nahi izan zuten britainiar menderatzaileek XX.mendean lurralde bakoitzean etnia ezaugarri zehatz batzuk zituzten giza taldeak ezarrita. Hala, metropoliak bere agintea irmotzeko amarrua zen hori, herritarrak elkarren artean banatuta menderakuntza aiseagotzen zuenaz jabetu baitzen. Ildo horretan, futbola europarren inperio hegemonia bermatzeko bitartekoa izan

zen eta baita arraza diskriminazioa bultzatzekoa ere (Njororai, 2009: 869). Etnia, erregio eta klase ezberdintasunak pasa zituen futbolaren sonak, eta askotariko norbanakoengana heltzeko ahalmenak are eta entzutetsuago egin zuten, kirol jardun orotik gaindikoa beti ere. Nazio taldearen partida garrantzitsuek 60.000 ikusle arteko jendetza erakar dezakete gaur egunean eta milioika kenyar gehiago telebista hargailuen bidez ikusten egoten dira. Britainiar menderatzaileek futbolari jarritako zeregina argia izanagatik, bertakoek hori irauli eta euren nazio identitatea sustatzeko kirola bere egiteaz gain, independentziaren aldian erregio eta etnia joera ere errotu zuten. Hiriguneetan futbolak askatasunerako eta identitaterako etorbidea eman zuen. Etnia eta azpietnien sinboloak eta ordezkariak ziren klubak babestu eta hauspotu zituen kolonia Gobernuak, aitzinean aipatutako banaketan hautematen baitzuen agintea errazteko bidea. Esan nahi baita aiseagoa zela Wycliffe W. Simiyu Njoraik dioen moduan, indigenak banatuta zirela agintzea batuta egongo balira baino (Ibid., 873). Herri enpresa gizonak eta azaleratzen ari ziren politikariek taldeekin atxikipen sentimendua lotuta, sostengatu egin zituzten. Izan ere politikari indigenontzat hartueman hori berebizikoa zen, ez soilik beraien etnia nazionalismoa hezur mamitzeko, baizik eta inperio gobernuaren eta haren diskriminazio eredu eta jardunen aurka politika engaiamendua egituratzeko ere bai. Horrez gain, 1963an independentzia eskuratu baino lehen ere, Kenyako futbol elkargoa jaioa zen 1956an, eta nazio taldeak kolonien mailan nazioarteko partidak jokatuak zituen ordurako. Horrek nazio sentipenak sustatu zituen. Futbola inperioaren tresna zen hasieran, zeina bertakoek bereganatu zuten beren etnia eta nazio jarrera indartzeko klubak sorreraz eta nazio taldearen bidez, erresistentzia gisa.

3.3.3.9-Futbol selekzioak Hego Sudanen sorrera azaldu zueneko

Sudanetik independentzia aldarrikatu baino ordu batzuk lehenago Hego Sudanek futbol harmailetako 15.000 pertsonen babesean jakinarazi zuen 2011ko uztailearen 14ko egunez Afrikako erdialdean, Sudango estatuaren hegoaldean, estatu-nazio berria sortua zela. Kenyako lehen mailako ligako Tusker izeneko taldeak 1-3ko emaitzaz irabazi zion nazio taldeari lehenengo partidari, baina, halabeharrez futbolaz askoz haratagokoa izan zen partidaren esangura, hau da, milioika hildako eragindako gerraren ostean estatuaren sorrera frogatzen zuena. Hegoaldeko Sudango futbol elkargo jaioberriak liga txapelketa berria eta klubak sortu eta estadioak eraiki behar ditu kirola egituratu ahal izateko, baina

helbururik behinekoena politikoa zen, hots, CAF Afrikako Futbol Konfederazioaren eta FIFAREN oniritzia jaso ahal izatea nazioarteko lehiaketetan estatu berriaren ordezkaritza plazaratu eta haren berri emateko. 2012ko uztailaren 10ean Ugandaren aurka lehenengo partida ofiziala jokatu zuen, eta bina berdindu. Afrikako Konfederazioaren baimena eta hurrena FIFARENA izan zituen herrialdeak. Budapesteko 2012ko bilkuran FIFAK aldatu egin zuen bere altzoan aitortua izateko gutxienik bi urtetan konfederazio bateko partaide izateko beharrezana, eta hartara, burujabetza eskuratzen duten herrialdeek epe laburrean FIFAN sartzeko abagunea dute. FIFAREN 209. kidea da aurrerantzean Hego Sudan. 2011. urtean NBEREN 193.kidea bihurtu zen. Halaber, nola ez, sortutako estatuan nazioa eraiki ahal izateko bitarteko hunkigarria izan dadin nahi dute futbol selekzioa agintariak. Hala, Frantzia eta Alemania gisako nazioak hein batean lubakietan eraiki ziren moduan, XX. mendean ohi denez 11 futbolariekin hezurmamitu nahi du Hego Sudanek. Teny izeneko ministroaren hitzetan garrantzitsuena estatu berriari futbolak egingo dion ekarpena da: “Erroak sustrai ditzakegu eta nazio ereserkia. Tribu asko elkartzen ari gara, 64 orotara. Nazioa dagoela erakutsi nahi dugu eta nazio berri batean txertatu”(cfr.Montague, 2011).

3.3.3.10-Angolako Afrikako Kopa kabindar gatazkaren adierazpena

Kongotik Angola barruan den Kabinda herrialderako ibilbidean eraso egin zioten 2010eko urtarrilaren 7an Togoko futbolariak Afrikako Kopan parte hartzera zeramatzen autobusari, eta bi hildako eta sei zauritu eragin zituzten gutxienik, Angolako soldaduek garraioa zaintzen bazuten ere. Hilan artean zeuden komunikazio arduraduna eta bigarren entrenatzailea, eta Kobjovi Obilale izeneko atezaina Hegoafrikako Johannesburgo hirira eramane behar izan zuten ebakuntza egitera. Kabindaren burujabetza lortzeko Angolako armadarekin borrokan ari den Flec-PM taldeko ekintzaileek hartu zuten bere gain eraso eta hilketak egin izanaren erantzukizuna, bozeramaileak ekintzaren jomuga futbolariok ordezkari lanetan ari zirela zehaztu nahi izan zuen arren (Prier, 2010a). Ekintzaileen hitzetan, ekitaldia jazo baino bi hilabete lehenago ohartarazi zioten Issa Hayatou Afrikako Futbol Konfederazioko presidenteari eragotzi egin behar zukeela nazio taldeek Kabindako lurraldetik errepidez bidaiatzea, guda eremua zelako. Nolanahi ere, futbol ekitaldiaren nazioarteko oihartzuna zela medio, funtsean ahaztuta zegoen gatazka behin-behinean munduko politikari, aditu nahiz kazetarien arreta gune

bilakatzea eragin zuen indarkeria ekintzak. Futbolariak ikaratuta izaki, txapelketa uztea erabaki zuten aitzinean, baina gero hildakoen omenez eta erasotzaileen ekintza azpiratu nahian lehiaketan jarkitzeko irrika agertu zuten. Aitzitik, Togoko lehen ministro Gilbert Houngbok, debekatu egin zien jokatzeari, eta Togoko banderapean selekzioa zelairatuko balitz gezurrezko ordezkariak burutuko zukeela gaineratu zuten (Sport, 2010). Bitartean Afrikako Kopak oroz gain bere horretan jarraitzea ebatzi zuten CAF Afrikako Futbol Konfederazioak eta Angolako antolakuntzak, eta Kabindan ere futbolari harrera egingo ziotela ziurtatu zuten, segurtasun neurriak indartuz, egin ere.

Angola bezala, 1975. urtea arte Portugalen kolonia izana zen Kabinda. Kongoko Errepublika Demokratikoko zati batek banatzen ditu gaur eguneko Angolako lurralde nagusia eta Kabindako mendekoa. Petroleoa erdiguneko duen politika gatazka da futbol txapelketaren bitartez eta nazioarteko hedabideek eskaintako arreta dela medio guztion aurrera agertu zena. Izan ere, Kabindan ekoizten dituzte egunero Angolan sortzen diren 1,9 milioi petrolio upelak (Prier, 2010b). Hangoentzat abantaila eta amesgaiztoa da aldi berean natur ondarearena. Lurraldeak independentzia erdietsi nahi izan zuen Portugalek Afrikako agintea uztea erabaki zuenean, baina europarrek Kabindak Angolaren barruko probintzia soilak izan beharko zuela iritzi zioten. Afrikako erakundeek aitortuko ez zuten independentzia aldarria egin zuen Kabindak Angolako armadak matxinoak indarrarekin azpiratu zituen arte. SESBen joerako Angolako Gobernuarekin lerratu zen Kuba, aurrez aurre eta petrolio irrikak gogaturik Mendebaldeko botereak eta Zairek independentziaren aldekoen ahaleginak babesten zituzten bitartean. Gerra Hotzaren amaierak horien denek babesa deuseztatu zuen, ordea, eta 2006an Flec independentziaren aldeko mugimenduko adar nagusiak Angolako Gobernuan parte-hartzeko hautua egin zuten. Flec-eko hainbat alderdik, ordea, petrolio korrupzioari egotzi zioten erabakimena eta borrokan jarraitzea erabaki zuten. Flec-PM zeritzon disidentziatzko taldea izan zen hain zuzen ere erasoaren ardura bere gain hartu zuena, beranduago beste independentziaren aldeko talde batek ere erantzukizuna bere gain hartu bazuen ere. Togoko Gobernuak Angolako Gobernuari eta Afrikako Futbol Konfederazioari kritika zurruna igorri zion Kabinda txapelketako gune izendatzeak zekartzan arriskuak gutxiesteagatik. Litekeena da Angolak futbol ekitaldiaz Kabinda herrialdearen jabetza zela nabarmendu nahi izatea, futbolaren oihartzunaren eta sinbolo emariaren indarrak, inondik ere. Erabakiak hondamena eragin zuen azkenerako, eta Afrikak futbol ekitaldietan segurtasuna bermatzeko izango zukeen gaitasunari buruz zalantzak zirenez kontrako argudio gehiago azaleratu zituen Hegoafrikako Munduko

Koparen atarian. Izan ere, nahiz eta FIFAk eta Hegoafrikako Gobernuak bi herrialdeen egoera alderaezina zela arin ikusarazi nahi izan zuten, egunero batez beste izaten diren 57 hilketez mintzo den Hegoafrikako indarkeriaren datuaren gordintasuna ukaezina zen. Munduko Kopa ere muturreko segurtasun neurrien eraginpean jazoko zen ezinbestean.

Nolanahi ere, nabaria ematen du Angolak estatuaren nazio nortasunaren baitako erabakimena hartu zuela Kabinda lehiaketako gune izendatu zuenean. Lurralde hori ere estatuko lurraldetasunaren eta ildo horretan nazioaren parte zela argi utzi nahi izan zuen, ezina baita sinestea Angolako Gobernuak gerta zitekeenaren zantzurik ez izatea. Esan nahi baita arriskuak arrisku estatu-nazioaren aldarrikapena hobetsi zuela futbol ekitaldia baliatuta. Hala ere, lehenago aipatu bezala, esan liteke ekintzaileen hilketek asmoa hein handi batean zapuztu ziotela, ekitaldiaren garapena zartatzeaz gain, gatazkaren muina mundu zabalean plazaratu baitzuen berriz independentzia zaleen ongizaterako. Halaber, kirolaren erabilpen politikoa saihestezina da, pentsaezina baita talde armatuak jokalariei eraso egiten ari zitzaiola ez jakitea. 1972ko Municheko Olinpiar Jokoetan gertatutakoaz aldera daiteke ondorioz, Afrikako Koparekin erasotzaileek atera nahiko politika etekina.

Bestalde, Angolako antolakuntzak europar herrialde hartzaileei jarraiki, ekitaldia baliatu nahi izan zuen kirolaren bitartez estatuaren nortasuna ikusarazteko. Hala, 50.000 biztanle inguruko hainbat estadioren eraikuntza onetsi zuen, angolarren %70ek pobrezia atalasearen azpitik bizirauten duten arren, eta erietxeen beharra premiazkoa izanagatik (Oumarou eta Chazaud, 2010: 66).

3.3.3.11-Malawin gizarte garapenezko nazio sortzaile gailua futbola

Afrikako herrialde gehienetan jazo ohi den antzera, politikariek futbolaren sona erabili izan ohi dute Malawin ere herritarrak eta hautesleak erakartzeko. Hala ere, badira kirolaz gizarte garapena eta bide batez hala nazio eraikuntza bideratzeko baliapenak ere. Sam Mchombok gogora ekartzen duen bezala, herrialdean demokrazia eredu bidezkoa ezarriko bada, ekonomiaren eraginkortasuna behar beharrezkoa du, eta hori erdietsi ahal izateko HIESAren gaineko hezkuntza, jabetzea, aurre hartzea eta sendatzea ezinbestean beharrezko baldintzak dira. Nazio garapenaren inguruko ekimen ororentzako abiapuntua

da hori (Mchombo, 2006: 327). Horiek hala, futbola gaztediaren garapena sustatu asmoz eta komunitate zerbitzurako bitarteko gisa ez ezik, HIESAren aurkako borrokan aritzeko erabili zuten SM Galaxy futbol klubaren sona erabilia, zaindu gabeko sexu harremanen arriskuaz ohartarazita. Futbolaren gizarte eragina nazioaren geroarentzat hobaria erdietsi asmoz mahaigaineratu zuten Malawin, hartara. Pentsak oihartzuna eskaini zion ekimen horri, nahiz eta oro har herrialdeko futbol liga nagusiko taldeengan arreta ipintzen zuen. Horrez gain, gizonen futbola ez ezik, emakumeen futbola ere hauspotu zuen Malawiko ekimenak hiritar osasuntsuen aldeko gizarte ahalegina eginda itxaropenezko etorkizuna irudikatu ahal izateko. Nazioarteko erakundeetatik dirua eskuratuko bazuten plangintzan barneratutako taldeek bazekiten komunitatearen mesederako lana burutu beharko zutela. Mchomboren argudio ildoarekin bat etorrita, esan daiteke futbolaren ospeari Afrikako finantza eta ondasun baliabideen urritasuna uztartuz, kirola helburu anitzak begiztatzeko eta ustiatzeko jomuga eremu egokia bihurtzen dela (Mchombo, 2006: 334). Helburuak askotarikoak lirateke. Politika kanpainetan botoak ziurtatzeko balia daitekeen bitartean, eta jendea elkartzeko, halaber etnia etsaigoak indartzeko eta gatazka sustatzeko erabili liteke. Malawiri dagokionez, herri ekimen independenteari esker futbolarekin sortutako komunitate ahalegina Kenyara zabaltzeko irrika agertu zen geroago, eta Kamerunen ere antzerako saioa egiteko asmoa plazaratu zuten norbanakoek. Bistakoa da, heriotza tasa gazteen mailatik heldutasunera igoarazi ezean, hots, belaunaldien katea ziurtatu ezean, ezinezkoa zatekeela nazioaren geroa ziurtatzea, eta hortaz, futbolak hezkuntzaren bidez gizarte osasuntsuaren aldarria egiten duenez, nazioaren mesederako baliabidea dela.

Malawitik Indiako ozeanoko afrikar itsasertzerantz joanda, Mozambique lekutzen da, Portugalgo kolonia ohia. Nuno Domingosen argudioa ontzat emanda, esan genezake futbolaren arauak norbanakoen eta taldeen keinu bereizgarrientzat tarte handia lagatzen dutela, eta jokoak ez bairik gabe herri joerak bereganatu zituela joko moldeen inguruko hausnarketei bidea eman zekioketenak (Domingos, 2007: 481). Horrela, Mozambiqueko jokalaria batzuk 1940ko hamarkadan metropolira jokatzera joan zirenean aise egokitze moduko eraginkortasuna lortu zutela frogatu zuten, eta bide batez afrikarrek sortzezko ahalmen fisikoak izateaz gain futboleko aritzeko trebezia bereganatua zutela. Europako XX. mendeko jokalaria onenetakoa, Eusebio, Portugalgo nazio taldeko eta Benficako izar distiratsua izana, Mozambiken sortu zen 1942an. Bestalde, 2001eko azaroan Portugalgo eta Mozambiqueko taldeak erkatu zituen lehiak menderatzaile eta menderatu ohien dema islatu zuen. 22 minutu igaro zirenerako, eta Portugal 5-0 irabazten ari zela, partida eten

zuen epaileak Mozambikeko lau jokalaria kaleratu baitzituen eta beste bat min hartuta zegoelako. Mozambikeko bederatziz jokalaria Portugalgo lehiaketan ari ziren jokatzen eta Portugalgo taldean ari zen Abel Javier futbolaria izatez Mozambikekoa zen (Boniface, 2002: 53).

3.3.3.12-Apartheid ondorengo errugbiko askapenetik 2010eko Munduko Kopa atontzera Hegoafrika

Hegoafrikan gehiengo zabala diren arraza beltzeko norbanakoen beherapen aldia *apartheid* izenaz ezagun egin zen 1948 eta 1990.urte bitartean, eta garai hark sortutako menderakuntzaren tamaina hain zen handia eta beltzen giza eskubideen begirunea hain txikia ezen bi hamarkada igaro direla ere Afrika hegoko muturreko gizarteak zama hori gainditzeko zailtasun franko dituela eta izendapen horren esanahiak XXI.mendean aski bizirik dirauela bertan nahiz mundu osoan. Lau hamarkadako bitarte horretan kanpotik joandako kirol jardunek arrazei atxikitako sinbolo izaera eskuratu zuten. Errugbia arraza zurikoen eta batez ere nederlandar kolonizatzaileen oinordekoen, hau da, afrikanerren esparrua izateaz gain, horien talde nortasunean zizelkatu zen. Bestalde, futbola aginteak azpi mailako norbanakoak bailiran jotzen zituen gizartean arraza beltzekoek bereganatu zuten. Zuriak kirol basatitzat jotzen zuten, eta bata zein bestea arraza etsaituekin lerratu ziren urte askotan horrenbestez. Errugbian zuriak eta ia beti afrikanerrak arituko ziren bitartean, futbola beltzen esparrua zen eta zurien klase xumeena hein batean. Afrikaner eliteak gainera, errugbiari eta cricketari ez bezala, britainiar langileriaren ikurra bilakatu zelako begi txarrez erreparatzen zion futbolari. Britainiar jatorriko zurien aurka kolonia sorreraren garaiko gerrako etsaigoa zerion, eta hedabide nagusiek ildo horretan futbola zokoratu zuten (Farred, 2003: 124-125). Hartara, *apartheid*-a ukatzeko sinboloa bihurtu zen futbolearen aritzea. Are gehiago, John Naurighti jarraiki, hiriguneetan futbolak zuen sonak abagune berdingabea helarazten zien politikariei Polizia baimen konplexuak lortu gabe masa entzuleengana zuzentzeko (Nauright, 1999: 199). Beste behin ere harmailak azpiratutako aldarrien babesleku bilakatu ziren eta futbola eta errugbia aginteak zatituta zegoen estatuaren barruan talde nortasun etsaituen isla. Bada, banaketaren ikur izatetik nazio nortasunaren baterazle izateko igarobidea egin zuten errugbiak eta futbolak 1990. hamarkadan. Nelson Mandelak aitzinetik esleitu zien ekitaldioi adiskidetzaren egitekoa, eta errugbia bereziki 1995eko ekainaren 24an *apartheid*-aren amaieraren adierazgarria

bilakatu zen, luzaro *springbocks* zeritzen errugbi jokalaria afrikanerrak eta beraien polo berdea beltzen zapalkuntzaren sinbolo eta gizarte arrazistaren adierazgarri izan ondoren. Egun horretan zuriak ez ezik beltzek ere telebistaren bidez ospatu egin zuten errugbi nazio taldea bihurtu zenak, arraza zuriaren menderakuntzaren ordezkartzaren hertsidura atzean utzita ondorioz, Zeelanda Berriko ordezkariak azpiratu izanak. Chester Williams izeneko mestizoa salbuetsita zuriz osatutako hamabostekoak *Ortzadar Nazioa* bailitzan izendatu zuten aberria hezur mamitu zezan erdietsi zuen Mandelaren politika ahalak.

John Carlin berri emaileak *El factor humano* izeneko liburuan zabal bildu zuen errugbiaren izaera erreparatzeko orduan Hegoafrikan jazotako iraultza, eta garaipenaren biharamuneko *Die Burguer* kazetaren editorialaren edukiarekin hornitu zuen askotariko ekarpenen eta elkarrizketen artean eraldaketa. Egunkariak adierazi zuen kirol bakantzea izan zela politika aldaketa sortu zuen presio eragingarri nagusienetakoa, eta gehitu zuen deigarria zela editorialean Hegoafrika berriaz aurkeztu zuen herrian *Sprinbocks* izeneko jokalariek ezerk baino gehiagok herrialdea batzea. CNA Afrikako Kongresu Nazionala alderdiak erbestean ahalegin eskerga egin zuen, aurretik aipatu dudanez, *apartheid*-aren herrialdea kirolaren oihartzuna kalterako baliatuz nazioartetik bakantzeko, eta batez ere errugbi taldeak 1980ko hamarkadan nazioarteko lehietatik baztertu izanak zartatu zuen zurien gailentasuna. Beltzen oinazeari buruz hausnarketa egiteke politika ezjakintasun zoriotsuan lokarazten zituena zen errugbia CNAren aburuz, eta hori zartatuta gizartean gertatzen zenari buruz gogoeta egitera bultzatu nahi zituen bide batez. Areago, mundu osoan *apartheid*-aren ordezkartzat azaleratu zituzten errugbi jokalaria. Aurrerantzean, Grant Jarvie dioen moduan, XX.mendean hegoafrikar izatearen eta XXI.mendekoaren arteko eraldaketa eta parte-hartzen zuten nazioaren izaeraren iraultza definitzen lagundu zuten kirolariak. Esan nahi baita gizaldi batean zein bestean hegoafrikar izateak adierazi nahi zuena hezur mamitu zuten errugbi jokalariek eta kirolak (Jarvie, 2006: 112). Adu berak ahantzi ezinezko ideia oroitzen du ildo horretan, hots, kirolaren, nazionalismoaren eta nazio identitateen arteko harreman sarearen edukia aldakorra dela denbora irizpideei eta tokiari dagokionean, eta hartara, nazioaren irudia garatzen doan izatea den neurrian, nazio hori eta hori ordezkatzeko kirolak ere alda litezke gizarte, kultur eta politika testuinguruak bultzatuta (Ibid., 111). Horren isla da Hegoafrikan jazotakoa.

Bada, urte batzuk lehenago Pieter Willem Botharen gobernu arrazistarekin hasi zituen hartuemanen ondorio Frederik de Klerk ondorengo presidentearen onespenearekin

Mandelak 1990.urteko otsailaren 11n 27 urteko gatibutza atzean utzi zuen. Orduetik bi urtera Hegoafrikako errugbiko taldeak 11 urteko nazioarteko bakantzea amaitu ahal izan zuen Afrikako Kongresu Nazionalaren oniritziarekin Zeelanda Berriaren aurka jarkita. De Klerken gobernuarekin giza eskubideak bermatuko zituen garai berria hitzartzen ari zen alderdiaren atsekaberako neurketa, lehenaldian bezala, *apartheid*-aren gorespenezko ekitaldia izan zen, garai horretako adurra ziren banderen haizatzea eta arraza zurikoen menderakuntza goratzen zuen ereserkia tarteko. Nolanahi ere, Nelson Mandelak ez zuen aurretiaz zuen pentsaera aldatu, eta 27 urte kartzelan pasa izanaren zilegitasunaz kirola nazio eraikuntzarako erabiltzearen hobariez gogatu zituen alderdikideak (Carlin, 2008: 146-147). *Springbocks* izena mantentzeaz, beltzen eta zurien ereserkiak plazaratzeaz eta jokalarien jantzi berdea iraunarazteaz ere konbentzitu zituen. Zuriak txundituta zeuzkan errugbiak, eta beltzek boto eskubidea eskuratzean, eta gehiengo zabala ziren neurrian, agintera heltzean, zurien aurkako mendekuari ekingo ez ziotela adierazteko funtsezkoa zela iritzi zion Mandelak. Izan ere, kartzelatik ateratzearekin bat batasunerako deia egin bazuen ere, barne gerra piztear izan zen zurien beldurra eta beltzen ezinegona zela eta.

Giuseppe Garibaldi XIX.mendean Italiako estatu nazioaren sorrera bideratu zuen ekintzaile abertzalearen mezua XX.mende amaierako Hegoafrikara ekarriaz, Mandelak *apartheid* zutabeetatik askatutako herrialdea sortzea lortu zuen, eta hurrena zuen zeregin konplexua hegoafrikarrak egitea zen, hau da, estatu bereko hiritarren artean naziokideak egitea menderakuntza-beherapenezko etsaigoko iragan luzea gaindituta. Hain zuzen ere, horretarako erabili zuen errugbiko taldea, zurien gehiengoaren atxikimendua bereganatu asmoz, eta beltzak ere zurien gutizia handieneko ikurrera hurreratzeko, zeina gorrotozko ikurtzat hartzen zuten ordu arte. 1995eko Munduko Koparen antolakuntza eskuratu zuen Hegoafrikarentzat eta François Pienaar kapitainaren kidezarekin errugbiko jokalariek beltzenganako keinuak egin zitatzela erdietsi zuen. Mandelak trukean, jarraitzaile zurien antzokiak ziren errugbi estadioetan, *Springbocks*-en txapela eta poloa jantzi zuen 1995. urteko ekaineko Munduko Kopan eta afrikaner gehiengoaren gorespenezko deiarrekin gozatu ahal izan zuen. Kartzelan zelarik, milioika beltzen antzera, euren menderatzaile zurien atsekabea eragingo zuen errugbi taldearen galera desio zuen. Orainean alabaina, bestelakoa zen talde horri zerion esanahia, bazterkuntza sinboloa batasunezko hunkipen ikurra izan bidean zen, eta presidente kargua zin egin eta urte betera arraza beltzekoek ere bere igarobide bera burutzea lortzear zen zuriak limurtzen zituen bitartean. *Invictus* Hollywoodeko filman Clint Eastwood zinema zuzendariak plazaratu zuen eran (2009),

beltzek eta zuriek elkarrekin ospatu zuten garaipena telebistak herrialde osoan eskaini zuen emanaldia bitarteko. “Bere presidentetzako eginkizun ardatza, hots, nazio berriaren erroak ziurtatzea, hegoafrikarrak egitea, bost urtetan beharrean bakarrean erdietsi zuen” (Carlin, 2008: 315). Mandelaren izpirituari jarraiki, *Talde bat, Herri bat* leloaz definitu zuten Munduko Koparen antolatzaileek *Springbocks* taldearen ekimena, eta behatzaile gehienak bat etorri ziren taldearen sinbolo izaera eskergak arraza ezberdineko hiritarrak komunitate berdinarean partaide sentitzea ahalbidetu zuela garaipenak lagunduta, unean-unean, bederen. Pienaar kapitainak mugariaren ondorengo adierazpenean xehe zuen batasunezko giroa. Estadioko 62.000 ikusleen babesaz gain 43 milioi hegoafrikar eurak sostengatzen ari zirela nabarmendu zuen. Gero, Mandelak eta Pienaarrek eskerrak eman zizkieten elkarri herrialdearen bizikidetzaren alde egindakoagatik. Mandela jakitun zen irabazi izana funtsezkoa zela nazio nortasuna bateratzeko, eta errugbi jokalaria jabetzen zen agintari beltzak adiskidetzaren alde erakutsi zuen aldarte eskuzabalaz. Hegoafrikar sentimendua garatu zuen errugbiaren ospakizunak eta politikak ez eta erlijioak erdietsi ez zuten batasunezko gailurra ahalbidetu zuen milioika herritarren artean. Imajinatutako komunitate berria sortu zuen bide batez, eta aurrerantzean ezberdintasunak hala moduan gainditzea izango zen erronka, ezaugarri parekoak dituzten munduko beste herrialdeen antzeko arazoekin uztartuta. Ordu arte 50.000 nekazari zuriek hamabi aldiz lur jabetza handiagoak zituzten hamalau milioi nekazari beltzek baino. 2010.urtean 34.000 nekazari zuriek ereiteko modukoa zen lur hedaturaren %82 kudeatzen zuten, eta ANC Afrikako Kongresu Nazionalak 2014a bitartean lurren %30 beltzengana eskualdatzeko gurariazko egutegia egingaitza zela hautematen zuten gehienek. *Apartheid*-aren zama oraindik ere astuna da Hegoafrikan, eta horren eraginez beltzen eta zurien arteko ezinikusiek ehunka hildako uzten dituzte urtero, indarkeriagatik ia 20.000 pertsona hiltzen diren lurraldean.

Sorterrian hartutako 1995eko ekitaldian errugbi nazio taldeak irabazi izanak utzi zuen nazio bateratuaren harrotasunezko sentipenetik iratzartzeke, herrialdeak Afrikako Kopa hartu zuen futbolean 1996.urtean. Zulu hizkuntzan *Bafana Bafana* deritzon nazio taldeak ere garaipena eskuratu zuen, eta bide batez mundu osoko ikus-entzuleei telebista bidez utzi zieten arraza ezberdinetako kideen artean agerikoa zen nazio harrotasunezko berrespena hautematea. Futbol garaipenak nazio baten partaide izatearen atxikimendua indartu ohi du munduko zoko guztietan, eta Hegoafrikan antzera gertatu zen, ordukoan betidanik arraza beltzekoen gehiengoak atsegindako kirolean lortutako garaipena medio.

Klase xumeetako zuriak ere berena dute futbola, baina beltzen irudiarekin lotua izan da betidanik, eta horrenbestez elite zuriak alboratu egin izan du (Darbon, 2008: 157-158).

Kirol mugarrion sonaz eta horiek islatutako adiskidetzaz Hegoafrika Afrikako eta nazioarteko eremuan txertatu zen berriro aurreko hamarkadetako irudi txarra atzean utzita. Nazioartean herrialdea gupida gabe zigortzeko baliabide sinbolikoa izateaz gain, futbolak 1980ko hamarkadan biltzea ahalbidetu zien beltz azpiratuei. Izan ere, eskolan nederlandera inposatzeko agintearen hautuak Soweton ikasleen altxamendua piztu zuen 1976an, eta Poliziak protestak isiltzeko ehunka pertsona hil eta gero gobernuak beltzen kontrako neurriak areagotu zituen larrialdi egoera jarri eta karrketan beltzak elkartzea debekatzeraino. Futbola gaizkile bizimodutik aldentzeko irtenbidea zen askorentzat, eta baita hainbatentzat pobreziatik ihes egiteko abagunea, futbol taldeen arreta piztuz gero. John Naurightek dioen moduan, bere ibilbidean Hego Afrikan norberarekiko begirunea, afrikar ekimena, politika borroka, norbanakoaren askatasuna, ihesaldia eta kapitalismoa esan nahi izan ditu futbolak hirietako beltz komunitateetan daukan parte-hartze nagusia dela medio. Halaber, *Bafana Bafana* taldeak nazioartean izan duen eraginkortasunaren hazkundeak sustatuta joko Hegoafrika berriaren arrazen gaindiko nazio identifikazioaren sorkuntzan pizgarri nagusia zinez izan litekeela nabarmentzen du (Nauright, 1999: 200). Antzeman daitekeenez, nazio taldearen emaitza onekin hertsiki lotuta dago naziotasuna eta nazio harrotasuna bultzatzeko futbolaren ahalmena. Nazioarteko ekitaldia hartzeak ere elikatzen du sentipena munduaren begiradapean hautematearen ondorioz, eta hori da 2010eko Munduko Koparen antolakuntzarekin Hegoafrikak bideratu zuena. Alemaniak alde txikiaz menderatu zuen 2006ko ekitaldia atontzeko saioan, eta 2010. urtean FIFAk ekitaldia estreinakoz Afrikara eramatea ebatzi ondoren hegoaldeko herrialdea gailendu zen bertako garapen maila aintzat hartuta, eta erakundeak hein batean herrialdea baketze ahaleginatik saritu nahi zuelako, iraganean afrikar estatuen presioagatik zigortu eta gero.

Thabo Mbeki Hegoafrikako gobernuburuak Joseph Blatter FIFAk presidenteari 2010eko ekitaldiaren hartzailea esleitu baino lehenago igorritako gutunean azaldu zion lehiaketaren antolakuntza jasoz gero helburua zela historialariek etorkizunean une hori gogoratzea Afrika pobrezia eta gatazkek ezaugarritutako mendeetatik askatu zenekoa bailitzan (Desai eta Vahed, 2010: 154). Herrialdearentzat eta kontinente osoarentzat ere ekonomia pizgarria izan zedin nahi zuen. Handik bost urtera ANCK Mbeki bere kargutik kentzea erabaki ostean Kgalema Motlanthe presidenteak adierazi zuen nazioarentzat ez

ezik kontinentearentzat egitasmo garrantzitsuenetakoa zela ekitaldia ongi atontzea, eta batasunezko elkarlanarekin inoizko Munduko Kopa ekitaldi onena antolatzeke erronka plazaratu zuen (Ngonyama, 2010: 168). Munduaren arreta bereganatuta eta gainontzeko herrialdeen antolaketa mailari jarkita, Pretoriako gobernuak nazio gailentasuna biribildu nahi zuen, kirol ekitaldien herrialde hartzaileek erakutsi nahi izan ohi duten aldarte ona nabarmenduz. Izan ere, luzaroan kirolaren bitartez nazioartetik bakanduta egon ondoren, mundu zabalean bere nortasun berria argi eta garbi kokatzeko asmotan kirol ekitaldiak hartzeko irrika ukan zuen ANCren gobernuak, eta hartara lehenago aipatutakoez gain, 1999an Johannesburgoko Afrikako Jokoak hartu zituen, 2003.urtean Munduko Cricket txapelketa, eta 2004an Lur Mutur Hirian Olinpiar Jokoak hartzeko ahalegina egin zuen. Ekitaldi horietatik haratagokoa zen, ordea, Munduko Koparen etorrera, gisa horretako gertaera erraldoiak kudeatu ahal izateak Afrika besteen pare jarriko zuelako antolaketan, azpiegituran eta zerbitzuan. Hegoafrikari hauspoa eman ez ezik, kontinentea bateratzen lagunduko zuen txirotasunetik ihes egiteko irrikan. Izan ere, Afrika osoaren ordezkartza egitean zetzan FIFAr aurkeztutako Hegoafrikaren hautagaitza, hau da panafrikanismo nortasuna zuena. Esan nahi baita futbolar iraganean Afrikako estatu nazio sortu berriak Hegoafrika FIFAtik kaleratzeko elkartu bazituen, bost hamarkada igarota hegoaldeko muturreko herrialdeak oso bestelako baldintzetan haren baitan bildu zitzakeela. Futbola nagusiki kontinente horretako kirolik ospetsuena izateak hautagaitza bateratuaren irudia adierazten laguntzen zuen eta gizarte adiskidetze zioak ikusarazten. Scarlett Cornelissek eta Kamilla Swartek egoki diote gobernuak kirol gertakizunok gizarte eta politika tresna ardatzak bailiran erabiltzeko saioa egin ohi dutela: Hala, alde batetik gobernuaren nazio eraikuntza proiektuak sostengatzeko tresnatzat hautemanak dira, eta bestetik, ekonomia eta garapen pizgarrien modura (Cornelissen eta Swart, 2006). Ildo horretan, Munduko Kopa hartzeko eginiko ahalegin ekonomiko eskergak gerora hobari handiak alderatuko zituela sinetsita zeuden Hegoafrikako agintariak, eta nazio harrotasunezko alderdia eta Ortzadar Nazioaren identitatea elikatzeke ekarpena goraiatu zuten bide batez bestelako inbertsio premiazkoagoak atzeratzeko arrazoitzat. Ekonomikoki epe luzeko inbertsioak, turismoa eta lan postu berriak bideratuko zituela ikusarazi zuten agintariak. Hegoafrikak ia %40ko langabezia zuen artean.

Munduko Koparako 70.000 futbolzale hartzeko moduko estadio berria altxarazi ahal izateke diru inbertsio handia burutu zuten Durbango egoitzan 180.000 lagun inguru ura eta osasun zaintza moduko oinarritzko beharrianak ase gabeko etxoletan bizi ziren,

Hego Durbaneko Ingurumen Aliantzen Komunitateak kaleratutako behaketaren arabera. Horrez gain, Stephen Gelb izeneko ekonomia adituaren esanetan, estadioak eraikitzeke diruaz 90.000 etxebizitza eraiki ahalko ziratekeen urtero 2006tik 2010erako bitartean. Herrialdeko etxerik gabekoen arazo sakonari aurre egiten lagunduko ziokeen ekimenak. Gainera Poliziak etxerik gabekoak eta orokorrean auzune txiroenetako milaka biztanle kanporatu zituen 2010eko ekainean turisten begira helmenetik urrundu eta herrialdearen egoeraz irudi oparoagoa aurkezteko. Horrez gain, futbol egoitzen inguruko etorbideak edertu zituzten inguruko azpiegituren beharrianak aintzat hartzeke. Futbolak hartutako joan etorrietan txiroenak aldendu bazituzten, estadioen inguruko sarbideetan debekatuta zuten sarrera hegoafrikar saltzaileek, FIFARI lotutako enpresen erabateko eskumenezko esparrua izendatu zutelako. Horrela, Ashwin Desai eta Goolam Vahedek (2010: 158) aurretiaz zioten moduan, txapelketa Afrikan jazoko bazen ere, bizipena Mendebaldekoa izango zen. Nazioarteko futbol erakundeak Afrikako usadioen bereizitasunari eskainiko zion begiruneaz zantzu adierazgarria ikusarazi zuen 2010eko urte hasieran txapelketaren hasierako ekitaldiko edukia iragartzean Hegoafrikako hiru musika talde bakarrik aintzat hartuko zituela jakinaraztean. Bertakoek doako bestelako abiatze ospakizuna prestatzeaz mehatxu egin zutenean FIFAREN hala nolako amore ematea izan zen hasiera ekitaldiaren ordutegia lau orduz aurreratzea Hegoafrikako musika talde gehigarriei lekua uzteko.

Halaber, ANCREN helburua lehiaketa Afrikaren anaitasunezko ospakizuna izatea bazen, 2008an Hegoafrikaz kanpoko etorkin afrikarren aurka lurreratu zen xenofobiako ekintzen uholdea aurrekari ezkorra zen. *Apartheid* osteko garaiko aginte demokratikoak ez zuen beltzen gehiengoaren egoera iraultzerik lortu, eta gizarte ezberdintasunek azken batean indarkeria betikotzen zenaren adurra ekarri zuen. Poliziak ere etorkinak sorterrira itzul zitezten saioa egin zuen, giza eskubideen aldeko erakundeek salatu zutenez, eta oro har legez kanpoko amarruak erabiltzea deitoratu zuten. Dena dela, afrikar immigranteen bizipenek adierazten zuten hein batean txapelketarekin batera herrialdearen muturreko abertzaletasuna azaleratzen ari zitekeela afrikar anaitasun ametsaren kalterako. Hala ere, futboleko Hegoafrikako *Bafana Bafana* taldeko mutilez gain, Afrikako gainontzeko bost nazio talde ordezkariak ere herritar askoren atxikimendu handia lortzeak erakusten zuen ohiko estatu antolatzailearen joerarekin ezberdinduta, bertakoek afrikar taldeak ere bere egiten zituztela eta horrenbestez Afrika mailako talde identitatearen aitortza egiten zela.

FIFAk, bestalde, Joseph Blaterren ahotan mundu osoaren begietara azpiegituran eta antolaketan afrikarrek gainditu beharreko azterketan ipini zuen arreta osoa, bertako gizarte baldintzei eta pobrezia erasandako milaka biztanleren oinazeari erreparatzeko. Hegoafrikako futbol eledunek patriotismoa, nazionalismoa eta panafrikanismoa gisako kontzeptuak oroitarazi zituzten, 2010eko ekitaldirako sostengu zabala bereganatzeko eta afrikar ezkorrak zeritzaienak isilarazteko, zeinak, askotariko arrazoiak tarteko, sinetsita zeuden afrikarrak ez zirela gauza izango munduko kirol ekitaldirik entzutetsuenetakoa hartzeko (Ngonyama, 2010: 168-169). Kanpokoek erasandako nazio harrotasun ohoreari dei egiten zioten ildo horretan futboleko xahututako dirutza zilegitzeko. Estatua eta baita kontinente osoa pobreziatik askatuko zuen txinparta izango zelako borondatea ikusarazi zuten era berean Hegoafrikako agintariek, baina FIFArekin eta berari kidegiztutako enpresen kudeaketa ahalguztiduna ikusita, pentsaezina zatekeen ekitaldiak tamainako helburuari bide eman ahal izana, epe luzeko balizko diru iturriari begiztatuta ere (Desai eta Vahed, 2010: 164). Munduko Kopako eredu irauli behar zen horretarako. Testuinguru horretan ezker ildoko iruzkin egileen artean adostasunezko hausnarketa zegoen Munduko Kopako aberatsak areago aberastuko zituela eta erabateko arrakasta gisara aurkeztutako ekitaldia behe mailako klaseen zapalkuntzaren kontura helduko zela, zeinak lan epeak betetzeko ordu gehiago lan egin beharko zituzten, eta beraien etxola auzuneetako kokaguneetatik kanporatuko zituzten bizirauteko beharrezko ondasunik gabe (Ngonyama, 2010: 170). Hegoafrikako Gobernuak FIFArekin hitzartutako mendekotasun baldintzak azaleraziko ziren azkeneko, erakundeak Alemaniako ekitaldiko irabaziak areagotu zituela jakinda.

Beharginei patriotismoa eta historia mugarriz parte hartu izanaren harrotasuna galdegin zien Hegoafrikako Gobernuak, baldintza txarreatatik lan uztea egin zutenean abertzaletasun gabezia eta ekitaldiaren zentzu gorena ez kontuan hartzea leporatu zien bitartean. Joseph Blatter FIFako presidentek ere dei egin zien 2010. urteko ekitaldia ez zapuzteko. 2009an herrialdearen egoerari buruzko jardunean legebiltzarkideen aurrean mintzatu zenean abertzaletasuna eta panafrikanismoa aipatu zituen Motlanthek, eta kirol ekitaldiak behin betiko munduko herritarrek Hegoafrikaz eta Afrikaz zuten hautematea aldatuko zuen itxaropena azaldu zuen, eta horrek oroz gairik garrantzia zuela adierazi zuen. Nazio interesaren eta patriotismoaren izenean gizarte osoaren ardurapean ezarria zen egitekoa, baldintza ez duinetan lan egitera behartutako langileen kargura, esaterako. Desmond Tutu Bakearen Nobel Saridunak Hegoafrika batzen laguntzeko beharrianak bertan dirauela oroitu zuen, eta ekitaldia ezberdintasunak ezberdintasun onuragarria zela

adierazi zuen. 2009.urteko ANC Afrikako Kongresu Nazionalaren hauteskundeetarako adierazpenak aitortu zuen ezberdintasunak hazten ari zirela, eta behartsuenen baldintzak okertzen ari zirelako egoera aldatzeko proposamenak igorri zituen. Dena dela, ANCK ez zuen loturarik egin pobrezia gainditzeko ekimenaren eta 2010eko proiektuan erabilitako diru publiko eskergaren artean. Izan ere, Munduko Kopa lehentasun nagusizat hartua zen, hegoafrikarrentzat ez ezik kontinente osoko afrikarrentzat ere, eta beraz inbertsioa ez zen eztabaidatzeko modukoa (Desai eta Vahed, 2010: 177). Jacob Zuma 2009.urtean presidente izendatutako ANCKo eledunak Munduko Kopa garaian adierazi zuen futbol ekitaldiak nazio harrotasuna “izugarri” piztu zuela. Bidezko da esatea abertzaletasunaz eta panafrikanismoaz gaindiko txapelketaren hausnarketa beharrezkoa dela, hilabeteren baitan bederen berriro ere beltzak eta zuriak sinbolo partekatuaren baitan elkartzea lortu bazuen ere, pobrezia larrienean bizi zirenen premiak ahazten zituen ekonomiaren eredia sustatu zuelako, eta nazio bandera atseginez haizatzeak munduan errenta ezberdintasun handiena duen herrialdeko talka bat batean askatzea pentsaezina zatekeelako. Beltz eta zurien artekoa baino gehiago, arraza horietako partaideen artekoa da orain baliabideetan ezberdintasunik handiena. Dena dela, alderantzizko ikuspegitik errealitateari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da hautematea ezberdintasunak hain larriak izanagatik gehienek ere nazio taldearen patua berena egin zutela, eta lehiaketaren antolatzailearen selekzioa lehen fasean txapelketatik at gelditzen zen estreinako aldia izanagatik, taldeko elastiko horiak nonahi ikusi ahal zirela nazioaren partaidetzazko sentipenak hartutako karrketan. Ostiralak futbolaren egunak izendatu zituzten antolatzaileek, eta jendea *Bafana Bafana* taldearen elastikoak janztera gogutzen zuten, abertzaletasunezko euforia hori sustatzeko.

Agintarien hitzetan Munduko Kopak balio izan zuen nazioarekiko atxikimendua eraberritzeko. Kirola arazoan behin behineko lokarazlea baino gehiago izan daitekeela erakutsi zuen errugbiak 1995ean eta futbolak 1996an, oztopo horiek gizartean sakonean errotuta dauden heinean aldaezinak diruditeanean itxaropenak zapuztu arren. Beltzak eta zuriak ospakizunetan elkartzea pentsaezina zen lehenago, eta ohiko egunerokotasunetik bereizitako kirol gailurrek aldizka hori elikatzea ahalbidetzen dute, bestalde premiazko beharriazetatik diru publikoa urruntzen baldin badute ere. Inondik ere, FIFAk herrialde antolatzailearekin irabazien zati handiagoa partekatzean lekutuko zatekeen irtenbidearen ardatza. Horrez gaindi, Munduko Kopak bederen nazioarteko botere harreman sareetatik gutxietsitako Afrikara erakarri zuen munduko herritarren arreta hilabete batez. Vuvuzela izan zen telebistak mundu zabalera igorritako afrikar ikur nagusietakoa, hau da, partidak

erabateko soinuaz girotzen zituen bertakoen ohiko turuta. 2009an FIFAk berriki sortu zuen Konfederazio Kopan vuvuzelari egindako kritikak bizitu zituzten kazetariak, baina futbol erakundeak ereserkien aurretiazko ekoizpena kaltetu ezean ez zituela debekatuko adierazi zuen. Nazioarteko futbol partidetan estatu-nazioen ereserkiak duten garrantziaz ageriko adierazpena da hori, inondik ere. Konfederazio Kopan Matthew Booth izeneko Hegoafrikako jokalaria zuri bakarrari zaleek zuzendutako deiadarrek atzerriko kazetarien okerra eragin zuen. Oro har beltzek jokatzen zuten kirolean arraza zurikoa izateagatik laidoztatzen zutela ondorioztatu zuten berri emaileek, jokalariai kontrakoa zehaztu zien arte. Ez zen harritzekoa nazio taldean jokalaria zuri bakarra izatea. Lehenago futbolearen aritzeari uko egiten baldin bazioten, 1980ko hamarkadan *apartheid*-eko gobernuak liga bateratu arraza aniztuna ahalbidetu zuenean oraindik gehiago aldendu zirelako. 2010ean ere hainbat zurik Munduko Koparen antolaketa arbuiatzen zuten, futbola atsegin ez eta agintari beltzen arrakastaz mesfidati izaten jarraitzen zutelako. Sakoneko ezinikusiekin ez ezik, munduko estaturik ziurgabeenetakoa izatearen ospe txarraz lehiatu behar izan zuen Hegoafrikak. Muturreko segurtasun neurriek, nolana ere, kezka handirik gabeko ekitaldia ahalbidetu zuten. Faustin Kayumba Nyamwasa Ruandako jeneralaren aurkako afrikar ekintzaileen hilketa saioa salbuespena izan zen, segurtasunaz biziki kezkatuta zeuden agintariak haserrarazi zituena. Oro har, ANCKo agintariak helburua bete zuten Munduko Koparekin, jendetza futbol taldeari esleitutako abertzaletasunarekin hunkitzea erdietsi baitzuten. Ekitaldiaren zama astunena pobrezian itotakoek jasan zuten nolabait.

UNESCOKo kirol eta gaztedirako eledun Marcellin Dallyk dioen moduan, kirola borrokarako arma, lehia politikorakoa, eta deskolonizazioaren biharamunean nazioarte mailako aitormenezko bitartekoa, eta modu horretan, kanpo politikarako tresna izan zen Afrikan. Bilakaerak nazioartea eta munduko iritzi publikoa estatuon ekonomia, gizarte eta politika egoeraz pentsaraztera bultzatu zuen. Kirolaren erabilpen politikoak, Dallyk egoki dioenez, *apartheid*aren aurkako borrokan jo zuen bere gailurra (Dally, 1998: 100). Halaber, besteak beste, kristau, animista eta musulmanen arteko ezinikusiak gainditzea ahalbidetzen du futbolarak pobrezia bakandutako kontinenteari utzitako adierazpenerako bideak. Sam Mchombok Malawiren gainean egindako behaketarako Afrika osoari buruz irudikatutako ikuspegiari egokia deritzot azken hausnarketa modura ebazteko. Afrikako herrialdeak ezaugarritzen dituen etnia heterogeneotasuna dela medio, zeinak batzuetan gatazkara eramanez dituen, gehiago eskuratu dute nazioarteko txapelketetan parte hartzen duten nazio futbol taldeek nazio identitatea sustatzeko, iraungitzen den sentipena baden

arren, politika ahaleginek baino. Mchomboren hitzetan, Olinpiar Jokoetan eta Munduko Kopetan sailkatzea lortzen duten afrikar taldeek egiazki kontinentea elkartu egiten dute (Mchombo, 2006: 320). Panafrikanismoaren pentsaera adierazleekin hauteman ahal izan da hori orain arteko kontaketa, Ghanatik hasita eta Hegoafrikaraino. Horrek ez du esan nahi, ordea, Hegoafrikan hainbatetan muturrera hel zitekeenez, futbolak Afrikan bertako nazionalismoa sustatzen ez duenik. Askotariko baldintzapean egiten du hori, gatazkaren baitan gehienetan, eta baikorki nahiz bazterketa gisa ekoitzi daiteke, gertatu ohi denez.

3.3.4-Asian futbola kolonia agintearen aurkako tresna izatetik globalizazioan mundu agertokia bihurtzera

Munduko herritarren ia bi herenen bizilekua baldin bada ere, futbolak ez du lortu Asian orain arte European eta Hego Amerikan bereziki eskuratutako ospea parekatzerik. Horrek ez du aditzera eman nahi, ordea, munduko kirol jendetsuenaren garrantzia txikia dela, inolaz ere. Ekialde Hurbiletik Ekialde Urruneraino, eskualde bakoitzaren zantzuak eta bereizitasunak tarteko direla, munduko kirolik entzutetsuenak gizarte oihartzuna du, besteren artean 2002ko Japonia eta Hego Korearen Munduko Koparen biko antolaketak hauspotuta. FIFAREN helburua zen merkatu erakargarriak futbolaren baitan txertatzea eta bide batez sortzezko xedea burutzea ere bai, hau da, bere kirola mundu zabalean jartzea. Biak berretsi zituen neurri batean, eta Japoniak eta Hego Koreak Txinarekin bat Ekialde Urrunean eratzen duten ekonomia gune boteretsuan futbolaren zirrara ernatu egin zuen. Futbola ekitaldi handien karietara batez ere nazio nortasunen pizgarria eta nazio osoaren baterazlea izan zitekeela ebatzi zuten 2002ko ekitaldiarekin batez ere, eta gerora ere bai.

Lehenago ere, XX. eta XXI. mendeen arteko aldaketarekin lehiaketa berriak jaio ziren estatu askotan jokalarien maila hobetu, eta hartara, selekzioa nazioaren gailentasun ordezkaria izan zedin. Besteak beste, Txina eta Indiaren tamainako herrialdeek euren ekonomia ahalarekin parekatu nahi dute futbolaren ordezkartzaren duintasuna, bereziki Indiaren futbol maila horretatik oso urrun badago ere. Neurri batean paradoxikotzat har daiteke gaur eguneko beheratzea. Izan ere, britainiar itsas gizon, salerosle, misiolari eta soldaduek futbola Asian barrena XIX.mende amaierako garai goiztiarrean hedatu zuten, Palestinatik Hong Kongeraino, Britainia Handiko inperioaren menderakuntzari jarraiki. Ekialde Hurbileko eta Ekialde Urruneko lurralde ugari metropoliaren eraginpean ziren,

eta horietako askok Europako zenbait futbol elkargo jaio baino lehenago sortu zituzten federazioak XX.gizaldi aitzinean, futbolarekin landutako hartueman goiztiarraren isla. Frantziako eta Herbehereetako kolonizatzaileek halaber, berehalakoan ezagutarazi zuten Asiako Hego Ekialdean futbola. Pascal Gillonek nabarmentzen du elkargoak sortu eta Bigarren Mundu Gerrako ondorenean independentzia eskuratuta Nazioarteko Olinpiar Batzordean eta FIFAn izena arin eman bazuten ere, nazioartearen aitormena bermatzeko egin zutela hein handi batean, eta Asiako herrialdeon ekimena ez zela gerraosteko futbol jardunean burutu (Gillon, 2006: 108), 1970eko hamarkadako suspertzea arte ez bederen.

Ekialde Hurbilean, Israelen sorrerak Bigarren Mundu Gerraren ondoren alboko herrialdeetan sortu zuen etsaigoak batez ere, eta Ekialde Urrunean Gerra Hotzak Ipar eta Hego Korearen artean eragindakoak eta Txinaren eta Taiwanen aurkaritzak erasan zuten futbola nazioarteko politikari lotutako zioekin beti ere. FIFAk Israel hasieran Munduko Koparako sailkapen lehian Afrikako herrialdeekin batera jarri zuen Ekialde Hurbilekoen asaldura saihesteko, baina Egipto, Siria eta Sudanen uko egitea eragin zuen. Europako gunean ezarri zuen bada hurrena bi alditan, eta 1970etik 1978ra Asiako ohiko eremuan kokatu zuen berriro ere, baina Ekialde Urrunekoekin batera, nolahi ere. Hurrengo hiru aldietan Europako sailkapen lehiaketara itzuli zen lehenik Israelgo ordezkariak; hurrena Ozeaniako lehiaketak osatzera, eta 1994an UEFA Europako futbol erakundearekin bat egin zuen eta aldiro eremu horretan lehiatzea finkatu. Bada, Asiako kontinentearen zatia izanagatik, Europako kirolaren eremuan txertatuta dago Israel. Horrek futbolaz gaindiko testuinguruaren eta nazio taldearen ordezkariak ahalaren tamaina erakusten du, futbol taldea estatu-nazioaren izaerarekin parekatzen baitute atzerritarrek, eta ondorioz, kirol arloko herrialdearen islarekin futbol zelaietan batzartuta harremanak zilegitzea errefusatu. Europarekin kultura eta ekonomia loturak areagotzea ere badakar Israelentzat. Bestalde, NBE Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteak Palestinaren burujabetza aitortu aurretik FIFAk bere altzoan onartu zuen 1998.urtean Palestinako nazio taldea, eta 2000.urteaz geroztik Asiako esparruan lehiatzen da. Futbolearen hala nolako burujabetasuna du, beraz.

Koreari dagokionez, 1953an bi estatutan banatu zenetik 1994.urtea bitartean ez ziren soropilean aurrez aurre aritu iparreko eta hegoko talde ordezkariak, sarri batera jokatzeari uko egin baitzioten. Txinaren ordezkariak era berean, Taiwanen eta Txinaren arteko epe luzeko gatazkak baldintzatu zuen aldi luzaroan. Izan ere, 1950 eta 1971 urte bitartean Taiwanek ordezkatu zuen Txina NBE Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun

Kontseiluan, eta bertan sartu zenean Txinak Taiwanen kanporatzea jarri zuen baldintza gisara. Dena dela, kirolean hala nolako bizikidetzat bermatu zuten, bien ordezkarietarako inoiz topo egiteko modua egin zuten arren, 1980ko urteetan txinatar aginteak kirolaren diplomazia bertutea onetsita nazioarteko kirol lehiaketetara itzuli zenean. Gaur egunean Txinako estatuak lau ordezkari ditu AFC Asiako futbol konfederazioaren baitan. Txinaz gain Taiwanek, Hong Kongek eta Macaok ere nazioarteko ordezkariak dute. Munduko Kopetan asiar taldeek oro har izandako emaitza ahulak tarteko direla FIFAk toki gutxi esleitu dizkie lehiaketetan. Aitzitik, erakundeak eta bere babesleek kontinente horretako garapen ahalmena hobesten dute Afrikaz gaindi, hazten dauden botereak diren neurrian.

Britainiarrek mendeko lurraldeetan beren mundu ikuspegia ezartzeko baliabide gisara erabili zuten futbola, Indian adibidez atzerriko agintearen aurkako abertzaletasun bitartekoa bihurtu zen arte. Berriki Palestinaren eta Israelen arteko gatazka, eta Ipar eta Hego Korearen artekoa, eta Japonia eta Korearen arteko auzia askatzeko hunkipenezko sinbolo baterazletzat hartu izan da. Sri Lankan etsaitutako komunitateetako gaztetxoekin futbol talde bateratuak osatuta adiskidetzat suspertzeko ekimena burutu dute europarrek Sri Lankarrak batzen dituen cricketa den arren. Hazten ari diren India eta Txina gisako ekonomia botereen futbol garapenaren zain egon gabe futbolak Asia limurtu du jadanik. Ekialde Hurbilean, Irango bilakaerak hezur mamitzen duenez, futbolak jendea kaleetara bultzatzen du aldiro nazioaren omenezko garaipena mugarik gabe ospatzera, eta baita ildo horretan erlijioaren ikusmolde hertsitik bereiziko den gizartearen eta askatasunaren alde elkarretartzeko. Irango bilakaerak besteak beste herrialde musulmanetan futbolak eskuratu duen sona azaltzen du, herrialde kristauetan ez ezik bertan ere kirola erlijioaren lehiakide bihurtzeraino. Satellite bidezko telebistaren helmenak sustatu du neurri batean herritarren futbol lilura. Ekialde Hurbilean petrolio etekinekin elikatutako klubak baitan sugarra pizten du futbolak, eta Munduko Kopetan emaitza duinak dituzten nazio taldeak lagundu hartara. Areago, 2022ko Munduko Txapelketa Qatarko hautagaitzari eman zion FIFAk. Agintariek nazioaren izen ona zaintzeaz ohartarazten dituzte Asiako futbolariak.

3.3.4.1-Judu eta arabiarren auzian futbola nortasun iturri

Britainiar inperioaren agindupeko Palestinan sortutako nazio taldea 1929.urtean onartu zuen FIFAk lehen aldiz, eta 1948an han Israelgo estatu judua sorrarazi zuten arte izen horrekin jokatu zituen nazioarteko norgehiagokak. Aurrerantzean estatu berriaren

izaera hartu zuen selekzioak, eta arabiar jatorrikoak ordezkatu zituen palestinar nazio taldea 1962an jaio zenetik 1998a arte ez zuen ofizialtzat aitortu FIFAn aginteak, NBEk estatu-naziotzat onartu aurretik egin ere. Lehenengo Intifada hastean, hots, palestinarrek 1987an oldarraldiari ekin ziotenetik, israeldarrek maiz debekatu zituzten futbol partidak, futbola nazio palestinarren aldarrikapenaren bitartekoa izan zedila eragozteko asmotan (Boniface, 2002: 69). 2000ko maiatzaren 25ean Israel eta Palestinako selekzioek partida jokatu zuten Erroman, Israelek Palestina aitortzen zuenaren aurretiazko keinutzat hartua izan zen partidan. Bien arteko harremanak onbideratzeko garaian jazo zen, eta futbolak simbolikoki bultzada eman zion aldeko giro horri. Dena dela, palestinar eta israeldarren arteko gatazkak erakusten duena da, Bonifacek dioen gisara (2006: 97), futbolak ekimen politikoa bultzatu dezakeen arren bere eraginak muga duela, hots, gizartearen borondate politikoa hain justu ere. Horiek hala, 2008.urtean jokatu zuen Palestinak sorterrian lehen neurketa Zisjordaniako lurralde okupatuan. Estatuaren sorreraren iragarlea, edo bederen, aurretiazko garrantziazko urratsa izan daiteke hemen ere nazio talde ofizialaren sorrera. 2011.urteko martxoaren 10ean, Londresko Olinpiar Jokoetarako futboleko sailkapenean jokatu zuen selekzioak etxean lehen lehia ofiziala, Thailandiaren aurkako joan etorriko kanporaketako itzulerako partida, zeina penalti jaurtiketetan galdu zuen. Porrota, ostera, gutxienekoa zela esan zuen Jibril Rajoub futbol elkargoko presidentek. “Funtsezkoena da partidak gure independentzia eta askatasunaren aldeko ahaleginak lagunduko dituela, eta Israelen okupazioa amaiazten. Lehen aldia da porrota garaipen handia izaten dena” (As.com, 2011). Halaber, 2011ko uztailaren 28an Zisjordanian bigarren partida ofiziala jokatu zuen Palestinako selekzioak, Brasilgo 2014ko Munduko Koparako Asia guneko lehenengo joan etorriko aurre kanporaketetan. Thailandiak berriro ere kanporatu zuen.

Palestinar jokalariei atxikimendua hautatzeko ezbaia sorrarazi zien selekzioaren ofizialtasunak. Judu eta arabiarren arteko bizikidetzak malkartsuaren adierazle da futbola. Gizarte juduan onartuak izateko bitartekoa da alde batetik palestinarrentzat, baina baita Israelgo eskuin mutur boteretsuaren kultur ikusmoldeari jarraiki nazio judutik baztertu nahi dituztenaren adierazpidea ere. Aburu talka saihestezina da, izan ere, 1948an Israel jaio zenetik futbola nazio judua eraikitzeke kultur alderdiaren erdigunean ezarri baitzen. Britainiarren agintea jarri aurretiko Palestinako jatorrizko komunitate juduan ere futbola asmo sionista gauzatzeko politika gailua bailitzan ebatzi zuten, gizarteratze sionistaren baliabide gisara eta nazio eraikuntza prozesuaren gidari modura (Ben-Porat, 2001: 139). Juduen komunitatetik kanpo, arabiar naziotasunarekin hertsiki lotu zen futbola ere XX.

mendeko lehen hamarkadetan. Arabiar buruzagiek euren taldeko solidaritatea bizitzeko erabili zuten, eta egipziarren eta siriarren ere zabaldu zuten harremanon xedea.

Bada, Israelen sorreratik lotu zitzaion gero futbola politikari, herrialdeko alderdi guztiak hartzen zituen politikari makurtutako gizarte ereduari jarraiki, eta futbol klubak alderdi politikoen isla bihurtu ziren. Hapoelen irudia laboristekin uztartuko zuten zaleek handik aurrera, Maccabirena burgesiarenarekin eta Beitarrena eskuineko muturrekoekin. 1950eko hamarkadan Israelgo futbola ia osotasunean sionista zen, hots, judutarrentzako estatuaren egitasmoa aldarrikatzen zuena. Nazio taldea arrazoizkoa denez, judu sionista nazio nortasunaren 11 ordezkariak osatua zen. Talde arabiarrek bitartean, behe mailetan parte-hartzen zuten Israel jaioberrian. Ez da ahantzi behar arabiarrei hiritartasuna eman zieten arren behe mailako hiritartzat definitu zituztela. 1980ko hamarkadan gizartearen eta ekonomiaren egoera eraldatu egin zen, ordea, berrikuntzek eta globalizazioek eragin egin zuten, eta horrek futbol ereduari ere iraultza ekarri zuen, politika ardatz zeukanetik merkatuak arautzen zuen lehiaketara, hain zuzen ere. Klubak kudeaketan pribatizazioa nagusitu zen, eta arabiar nortasuneko klubak lehenengo mailara gailendu ziren. Hartara arabiarrek talde juduetan jokatzeko hasi ziren, eta alderantzizko norantzan juduak arabiar nortasuna zuten ere. John Sugdenek zioen moduan, aurrerantzean jokalaririk onenak izatean zetzan lorpena, arraza, etnia edo nazio nortasuna kontuan hartzeke, talde hobeak eta arrakasta oparagoa zekartzalako lotuta (Sugden, 2008: 407). Txapelketaren izaera profesionalari jarraiki, 1989an futbolari atzeritarrei ere jokatzeko baimena eman zieten.

Arabiarren gutxiengoaren ordezkariak eta judutarren gehiengoaren topo egiten zuten ohiko eremua bilakatu zen futbol zelai horrenbestez, eta askotariko jarrerak sortu zituen hartuemanak. Tamir Sorekena orainari buruzko baikortasunaren ikusmoldea da, eta futbola bizikidetzarako lehenesten duena: “Arabiarrek soilki kirol eremua baliatzen hasi ziren gehiengoaz integrazio harremanen egokiera mantentzeko, eta protestak beste aldi batzuetarako lagatzea erabaki zuten”. (Sorek, 2003: 446). Palestinar nazioaren kide izatearen eta Israelgo hiritartasuna izatearen artean sortutako kontraesanezko ezinegona arindu beharra dute arabiarrek, eta futbolariek Israelgo gizartearen beste alderdi publikoak oro har ezaugarritzen dituen etnia irizpideetatik aski bereizita hiritartasunaren integrazio eredu liberala eskaintzen die arabiar nahiz judu gizonezkoek partekatzen duten kultur ondasuna izateagatik. Modu horretara, nortasunaren alderdi zibikoan oinarrituta Israelgo komunitatearen partaide gisa beraien burua imajinatzeak abagune ez ohikoa ematen die

kirolak arabiarrei, bestela behe mailakoak jo dituzten arren. Areago, Sorekek Israelgoari Europako estatuekin alderagarria izan daitekeen futbolaren integrazio gaitasuna deritzo, neurri batean ikuspegi zibikoa etnia ikusmoldeari lehenetsita elkartzen lagun baitezake.

Hedabide judutarrek juduen eta arabiarren arteko elkarkidetzaz sustatu ohi dute, bien bizikidetzaren erakusgarria bailitzan, eta arabiarrek futbol lorpenak eskuratzean bi talde nortasunak estatu berdinen azpian bateragarri diren frogatzat azaldu izan dizkio iritzi publikoari. Arabiar gutxiengoak hedabideen arreta jaso eta bere lekukotza plazara dezakeen aukera murrizetako da kirola. Dena den, bizikidetzaren gaineko norbanako ikuspegi berezia ageri ohi du hedabide juduen kontaketa. Eran Shorrek dioen moduan, palestinar kirolariak etengabe beraien burua zilegitzera behartzen dituzte, kultura judua eta hebreera bereganatzera, eta bide batez kultur bereizitasun zantzuak, bestelako nazio nortasunak edota politika helburuak eta iritziak baztertzeraz (Shor, 2010:9). Horiek hala, bizikidetzaz eta menderakuntzaren kontsentsu ikuspegia agertzen dutenean, hedabideek esanok nabarmentzen dituzte, baina palestinarren identitateaz eta arabiar gutxiengoaren beharrez mintzatzen badira, baztertu egiten dituzte. Palestinarrek ondorioztatu dute politikaz ez aritzea gehiago komeni zaiela, salbuespenak direlako Israelen arabiarrekiko jarrera kritikatzeko duten futbolarien ahotsak jendaurrean hedatzen dituzten erabakiak. Arabiar kirol prentsan bestalde, bi joera nabari dira. Prentsa sekularrak aldi berean nazio nortasun ezberdinaren adierazgarritzat taularatu ohi ditu garaipenak eta oro har futbol alorra integrazioarako bidea bailitzan. Prentsa islamistak, alabaina, islamdar nortasunari lotzen dio osoki futbola. Musulman futbolariak eta zaleak dagokienez, gizarte onarpena bermatzeko aukera dela hautematen dute; eta ondorioz, judutarrak hainbeste asaldatzen dituzten ikurrak ezkutatu ohi dituzte estadioetan. Gainontzean, eremu publikoaren beste ardatzetan pairatzen duten bazterketa modu horretara irauli nahi dute gutxiengoa diren arabiarrek. Hein handi batean, talde nortasunaren isla hautemateko erraza da, harmailak aldarrikapenen bilgune bihurtu ez arren, multzoaren irudi onbera eta otzana ikusarazten baitute gizartea zuzentzen duen gehiengo juduaren aurrean.

Izan ere, arabiarren eta juduen hartuemana ez da futbolearen ere Sorekek aditzera emandakoa bezain baikorra, alde banatako muturrekoek bizikidetzaz errefusatzeko baitute. Horren adibide dira 1986an jaiotako futbol liga islamikoa batetik, futbola arabiarrentzat integrazioarako bitarteko gisa erabiltzeko oro har onetsitako abaguneari uko egiten diona, eta bestetik, eskuin muturraren ideiak gizartean txertatu ahala estadioetan ere XX. mende

amaieran hedatzen hasi zen arabiarren aurkako zaleen kantua ere: “Heriotza arabiarrei”. Muturreko islamistek, erlijio ikusmolde hertsiei jarraiki, mesfidantzaz erreparatzen diote futbolak musulmanen artean lortutako sonari, beti ere Mendebaldeko kulturak limurtuko dituenaren beldur, eta gizartean sakonean jarritako kultur alorra dela jabetuta, ezereztan ahalegindu beharrean bereganatu eta kontrolpean izatea hobetsi zuten Israelen. Kirolik entzutetsuena da, judutarren artean ez ezik arabiarren baitan ere, eta horrenbestez arerio ahalsuegia da asaldurarik sortzeke azpiratzeko. Hain zuzen ere, futbolearen ospean datza Israelgo liga islamiko ezberdinaren bereizitasunaren iturburua, futbola ezagun den ezin musulman herrialdetan ez baitute horrelako ekimenik burutu. Izaera sekularrekin, hau da, erlijioaren eta gizartearen arteko ezberdintzearekin, eta Mendebaldearekin lotua den esparrua sortuta, islamiarren zaintzapean egonik ere, halaber kontraesanak eragiten ditu kudeaketak mugimenduaren baitan (Sorek, 2002: 451). Israelgo Futbol Federazioan arabiar izaerako taldeen kopuruan gailentasun deigarria nabari da gizartean gutxiengoa diren arren, eta arabiar taldeek juduek baino txartel gehiago saltzen dituzte juduen hiriak handiagoak izanagatik. Halaber, telebistako futbol emankizunek ere gehiago erakartzen dituzte palestinarrek – bidezkoa da arabiar eta palestinar izendapenak elkar trukitzea – *rating* datuei erreparatuta juduak baino, eta arabiar herri agintariak sostengu handiagoa ematen diete euren klubei juduek baino. Islamistek eta gainontzeko arabiarrek futbolari dagokionez daukaten jarrera ezberdina ulertu ahal izateko lorratza eskaintzen du Tamir Soreken hausnarketak. Bere ustez, identitate nazionalistek beste nazioekin lehiakortasun topaketak behar dituzte irudiz, beren muineko nortasuna ikusarazteko, baina islamiarren mugimenduarentzat israeldar gizarte hegemonikoarekin topo egitea funtsezko mehatxua da. Baldintza bidegabeak dituen kulturen arteko biltokia bailitzan epaitzen dute, bertan ari diren islamiar identitatearen ukora eramanez (Ibid., 467). Futbola arabiar talde nortasunaren babesleentzat israeldarrekin hala nolako eremu baketsuan erkatzeko abagunea baldin bada, kirolaren izaerarengatik eta horri gehituta, arabiarren artean lortu duen ospeagatik barrutik kudeatu beharreko auzia da islamistentzat. Txapelketa ahula da islamisten liga, erabat Israelgo liga txapelketaren itzalpean dena, eta oroz gain islamaren ikuspegi zurruna barreiatzeko erabiltzen dute antolatzaileek eta baita horrekin bat egiten duten kazeta islamistek ere. Ildo horretan, futbolari sortzez atxiki izan zaion emozioen asaldura arbuiatzen dute, eta baita garaipena jomuga hartutako lehiakortasunezko jarrera ere. Zaleek nahiz jokalariek islamaren mezua lehenetsi behar dute denaren gainetik.

Israelgo hainbat juduk bestalde, ez dituzte arabiarrek bertako hiritartzat onartzen, eta futbol zelaietako ekitaldi publiko jendetsuetan ezinbestean azalera du jarrera horrek. Eskuin muturreko hainbat taldek estalkirik gabe arabiarrek Israelgo lurraldetik alde egin dezatela galdegiten dute, estatu judu baztertzaileren sorkuntzaren aspaldiko ametsa egi bihur dadin. Estadioan kanpoaldetik ekarritako joera agertzen da, eta arabiar multzoaren kontra Israelgo ideologia eta politika pentsamolde batzuen gainean errotutako etsaigoek arabiar jokalariai dituzte jomuga. Hainbat taldetako jarraitzaileek arabiarrek arbuiatzen dituzte euren taldeetan, nagusiki Beitarren modura eskuin muturreko identitatea azaltzen duten futbol taldeen harmailetan. Ez dituzte jokalarion tasunak errefusatzeko, pertsonaren izaera da baztertu nahi dutena. Amir Ben-Poratek esaten duen moduan, ez da norbanako arabiar hurkoa ukatzen dutena, arabiar hiritarren multzo osoa baizik (Ben-Porat, 2008: 10). Futbolari palestinarrek juduen begietara palestinar nazioa ordezkatzeko dute futbol soropilean, eta askorentzat bateraezina da hori taldearen nortasun judu eta sionistarekin.

Izan ere, klubek munduan nonahi zeresan handia izan ohi dute zaleen nortasuna egituratzen. Horren lekuko da beste ertzean Israelgo estadioetan Palestinako nortasuna hezur mamitzen zuen Taibehko Hapoel futbol klubak lehen mailara hazi arteko bidean izandako sinbolo bilakaera. Bi egiteko ezarri zizkioten zale arabiarrek taldeari. Israelgo gizartearen begirunea lortzeko borrokan aritzea bata, eta Israelgo gizartearen arabiar izaerari zegokion sakonekoa bestea. Judutar liberal eta ezkertiarrentzat Taibeh taldeak frogatzen zuen estatu erakunde batzuetan bederen arabiarren integrazioa. Joera nazionalistagoa eta eskuinekoa zutenentzat alabaina, goreneko mailan arabiar taldea izateak arrazakeria eta nazionalismo sugarrentzako jomuga bihurtu zuten, oro har arabiar nortasuneko taldeei jazo zitzaenez (Carmeli eta Bar, 1999). Taldeak estadioetara eraman zuen lehen aldiz juduen eta arabiarren gatazka. Gero, ekonomia arazoaren erruz bigarren mailara jaitsi zen, eta futbolari baten heriotzak biziberritu egin zuen kontraesanekoa eman dezakeen arren. 30.000 biztanleko hiri arabiarrean anbulantzia bakarra zegoen Wahib Jebara izena zuen gaztea artatzeko, eta gainera ezbehar horretan ez zegoen futbol zelaira joateko moduan. Sendagileen berandutzearen erruz hil zen futbolaria, eta arabiarren atsekabea bizitu zuen juduen menderakuntzaren aurrean.

Israeldar judu futbol zaleentzat kluba beraien identitatearen erdigunezko osagaia da, ez jarraitzaile izaerari dagokiona bakarrik, baita israeldar nortasunari dagokiona ere. Usadiozko gizonezkoen esparrua izatetik futbola aldatu da Israelgo emakumezko futbol

jarraitzailearen nortasunaren alderdi garrantzitsua izatera (Ben-Porat, 2009: 892). Lehen ez bezala emakumeek harrera ona dute estadioetan. Oraindik ere gizonek menderatzen dute kirola Israelen ere, baina emakumeek geroz eta askatasun gehiago dute harmailetan nahi erako jarrera izateko. Zailagoa da gutxiengo arabiarreko edo palestinarren taldeko komunitateko emakumeak estadioetan ikustea. Dena dela, israeldarren kirol nagusia da. Hori horrela, klubaren etnia osaeran izandako aldaketak beren identitatean eragina izan dezake. Ben-Poratek dioen moduan, arabiar futbolari batenganako ikara, eta zelaian era horretako futbolariak klubaren elastikoa eta ikurra soinean ipintzea errefusatzeari, babes gailuak dira, jarraitzaile gisara norbere identitatea defendatzeko ez ezik, norberaren judu eta sionista nortasuna babesteko erabiltzen direnak (Ben-Porat, 2008: 11). Estadioetan maiz entzuten den “Heriotza arabiarrei” kantua, gizartearen osotasunetik bertan txertatu dena, hedabideek futbolari eskainitako garrantzia dela medio futbol zelaitik at atzera ere ozen entzuten da. Ildo horretan, Erresuma Batutik futbolarekin sustatutako F4P izeneko adiskidetzeko eta baketze proiektuak XXI. mendeko lehen urteetan etsaitutako alderdietako kideak batzen hala nolako arrakasta izan zuen, baina 2006an bertan behera gelditu zen urte hartako ekitaldia gerra egoera nagusitu zelako, israeldarren eta palestinarren artean, eta baita Libanorekin ere mugaldean. Jokoaz kanpoko baldintzek erasaten dute ondorioz futbolaren integrazioa eta bizikidetzarako pizgarri ahalmena. Edonola ere, klubetan azaleratzen den bazterketarekin hein batean kontrajarrita dago 1976tik arabiar jokalariek Israelgo nazio taldean jokatu izanak, palestinarren kontra muturreko jarrera daukatenean salbu, aurkaritza gutxi izan duela. Futbolariok ere Israelgo bandera gorpuztu behar dute zuri eta urdinez jantzita, eta izaera sionista duen estatuko ereserkiari begirunea agertu. Baina palestinarren parte-hartzearekin nazio taldea Israelen ordezkaria bilakatzen da, ez gehiago juduaren jarraipen soila, ez eta sionismoaren hezur mamitzea ere horrenbestez. Atal honek gardentasunez adierazi du bi komunitateentzat futbola nazio nortasunarekin lotuta dela, eta hein handi batean bien arteko integrazio tankera futbolearen islatuko dela.

Israelgo kirol ospetsuena izanagatik selekzioak txapelketa handietara sailkatzeko duen ezina da oroz gain atsekabe gehien sortzen duena, hedabideetatik taldearen bidea nazioaren patuaz parekatu eta gero. Alina Bernsteinek 2000ko Holandako eta Belgikako Europako Koparako kanporaketa erabakigarrian Israelgo nazio taldeak Danimarkarekin jasandako porrotaren bilakaeran kazetek islatutako atsekabea aztertu zuen, aurretiazko nazio sugarrarekin alderatuta. Aurretik taldea eta nazioa “gu” izenordea erabilita edonon batzen baziren, ondoren, besteren artean, “Israelgo taldea” eta “taldea” esarekin biak

bereizteko joera zegoela ondorioztatu zuen. Aitzitik, jokalariek Danimarkarekin itzulera partidari 5-0 galdu baino lehenagoko bezperan prostitutekin izan zirela zabaldu zutenean “gu” izenordea erabiltzen jarraitu zuen hainbatek gaiari buruzko albisteetan eta iritzizko artikuluetan. Israelgo moral gainbehera orokorrarekin lotu zuten futbolarien jokabidea, eta hartara israeldar futbolariak gizartearen islatzat aurkeztu zituzten (Bernstein, 2007: 661). Dena dela, auziaren jarraipenaren alderdi askotan bereizi egin zituzten nazioa eta jokalarien ustezko moralitate gabeziako jokabidea.

3.3.4.2-Transjordania eta palestinar nazioen alderaketa Jordanian futbolaren bitartez

Bestalde, palestinarrei dagokienez, Israelgo mugatik kanpo, Al-Wihdat izeneko kluba ere palestinar errefuxiatuen erresistentziako gunea eta beraien nazio identitatea agertu ahal izateko gotorlekua bilakatu zen, Jordaniako erregimenari aurre egiteko bidea, era berean. Errefuxiatuen nazio harrotasunaren haragitzea izatera sustraitu zen, eta bide batez, beren politika sentipenak plazaratzeko egokiera gertatzera. Taldeak futbol zelaian eskuratutako arrakastek Palestinaren adurra eta ikurra bihurtu dute iheslarien begietara. Israelen eta estatu arabiarren arteko lehen gerraren ostean 1948an milioi erdi palestinar errefuxiatuen jomuga bihurtu zen, iraganean britainiarren agintaldian Palestinaren parte izandako transjordaniarren herrialdea. 1970etik 1971ra bi nazio nortasunen arteko gerra piztu zen, Wihdat errefuxiatu guneari eta ekintzaile palestinarren eremua zenari gogor egin zioten eraso jordaniarrek, eta porrotaren ondorioz PLO Palestinaren Askapenerako Erakundeak Jordania utzi eta Libanora ihes egin behar izan zuen, eta palestinarren nazio identitatea ezereztu egin zuten Jordaniako agintariak, futbol esparruan salbu. UNRWA Palestinarako NBEren Laguntza eta Lan Agentziak sortu zuen 1956.urtean errefuxiatu gunearien futbol kluba, Al-Wihdat izen bera hartuko zuena. 1975ean Jordaniako futbol lehiaketako lehen mailara igo zen, eta aurrerantzean palestinarren harrotasuna agertzeko bide nagusietakoa bilakatu zen.

Jordaniar erregimenaren errepresioak funtsean futboletik at ez zuen egokierarik utzi nortasuna azaltzeko. Estadioan ideologia erresistentzia egin zezaketen palestinarrek, jendaurrean debekatuta zeuden aldarriak plazaratu, arrazoi horrengatik jazartuak izateko arriskurik pairatu gabe. Palestinar sinboloak deuseztatzen zituzten aldian jarraitzaileek

Wihdaten kolore berde, beltz eta zurien jantzia jarri zuten soinean, palestinar banderaren agertoki. Taldeak geroz eta sostengu gehiago jaso ahala eta palestinar izaeraren agerpide bilakatu ahala, nazio nortasuna barreiatzeko gailuak ziren futbol taldeak aurrerantzean, eta Wihdatek lehiatzen zuenetan indarkeria lehertu ohi zen jarraitzaile transjordaniarren eta palestinarren artean, eta gerra zibilean berriro borrokatu balira bezala zen (Tuastad, 1997: 107). 1980ko hamarkadan lehertu zen batez ere indarkeriazko egoera hori, eta Al-Faisali transjordaniarren futbol talde nagusiak lehen postuetan ageri zen Al-Wihdatekin topo egitean oroz gain. Taldeak 1980ko Jordaniako liga txapelketa lortu zuen, eta festa giroa Jordaniako mugetatik at hedatu zen Israelek okupatutako Zisjordaniako lurraldera, esaterako. Jordaniako palestinarren nazio borrokaren sinbologia izatera heldu zen kluba, eta errefuxiatuen ordezkari mugarrira, Wihdatek errefuxiatuen gunea politika aldarria bailitza berreraikitzea ahalbidetu zuelako. Libanokoen antzera Jordaniako errefuxiatu ezarpenek ospe txarra zuten, eta Al-Wihdaten politika funtsa aurreiritzi hori gainditzean zetzan hein batean. Futbol taldeak soropilean gailentzean nazio eta politika garaipenak bailiran hartzen zituzten errefuxiatuek, palestinar nazioarentzat harrotasun emaleak, eta Wihdatek galtzen zuenean, berriz, Palestinak ere porrot egiten zuela hautematen zuten.

Errefuxiatuak giza laguntzaren hartzaile soilak izatetik, futbol taldeari eskerrak euren nortasuna aldarrikatzera igaro ziren, baina, ohikoa denez, nazio nortasunen talkak gatazka piztu zuen futbolearen ere. Izan ere, 1986ko liskarren eraginez, Al-Wihdat lehen mailatik kanporatu zuten eta izendapena aldatzera behartu. Aitzitik, hiru urteren buruan, hainbat aldaketa tarteko, errefuxiatuek klubaren kudeaketa ahalmena bereganatu zuten, eta jatorrizko izena atzera ere jarri ahal izan zuten (Tuastad, 2010: 28). Jordaniako talde garaitsuen izana da Al-Wihdat, 2005ean, 2007an, 2008an eta 2009an Al-Faisali atzean utzita liga txapelketa irabazita. Gobernuarentzat kontrol baliabidea ere izan zen. Arrisku handiagokoak ziren erregimenarentzat karrika edo errefuxiatu guneko manifestazioak, 1991n Golkoko Gerra hastean tankeak iheslarien asaldura zapaltzera sartzeko ekimena hartzera bultzatu zituen adibidez, futbol zelaietako kontrolpeko oldarkortasun ateraldia baino. Futbol adierazpenak hunkipenezko sinbolo tankera mamitsua zuen edonola ere, palestinarrentzat. 1995an Al-Wihdatek Zisjordania eta Gazan partida bira egin zuenean, Yasser Arafat Palestinako Aginte Nazionaleko eledunak gonbidatu zituen, eta hurrengo esaldi honek agintariak futbol taldeari esleitu zion goreneko garrantzia aditzera ematen du: “Ahotsik ez genuenean Wihdat zen geure ahotsa” (cfr. Tuastad, 1997: 115). Israelen aritzen diren talde arabiarrekin bezala, beste alorretan ezina duten ordezkari ematen

die futbolak Al-Wihdaten bidez palestinarrei, eta nazio begirunea eta nazio harrotasuna aldarrikatzeko testuinguru bakanetakoa igorri. Al-Faisali eta Al-Wihdaten arteko zaleen liskarrek bere horretan diraute Jordaniako nazio nortasunen arteko bizikidetzaren arazoaren isla. 2009ko bozen ostean Israelen eskuineko alderdiek hartu zuten boterea eta Avigdor Lieberman Atzerri ministroak adierazi zuen erlijio ezberdineko bi komunitateek lurralde ezberdinetan bizi behar zutela. Sionismoaren ikusmoldeari jarraiki Israel juduen bizitoki soila bilakatzeko egitasmoak milaka errefuxiatu gehiago Jordaniarantz ihesi bultzatuko zituenaren beldur ziren estatu horretan, eta 2009an milaka palestinarren hiritartasunari uko egiten hasi zen Jordania. Arabiarren artean izua sorrarazi zuen, eta Zarka hirian Al-Faisali eta Al-Wihdatek topo egitean, Al-Faisaliko jarraitzaileek jatorri palestinarreko Rania erreginaren aurkako kantuak abestu zituzten, eta PLO Palestinaren Askapenerako Erakundearen aurkako deiadarrak oihukatu ere. Israelekin palestinarrek Jordania ezarri ahal izateko ezkutuko hitzemanak egin izana egozten zieten futbol zaleek (Tuastad, 2010: 26-27). Ezberdintasunak ezberdintasun, Israelen antzera, Jordaniako bi nazio nortasun nagusien norgehiagokak futbol eremuan borroka eremu sinboliko funtsezkoa du, eta era berean, balizko integrazioaren nolakotasuna ikusarazi ahal du aurrerantzean.

3.3.4.3-Iranen futbola modernitate eta erlijio tradizioaren ezbaian

Modernitatea eta futbola hertsiki lotuta izan dira Iranen Lehen Mundu Gerraren ostean kirola gizartean tinko errotu zenetik. Futbolaren sonak kanpotik etorritako joeren abegi ona eta mundura zabaltzeko nahia aditzera ematen duen bitartean, islamistek hain justu alderantzizkoa aldarrikatu izan dute. 1920ko hamarkadan berritasunaren parekoa bihurtu zen futbola, eta estatuko alor garrantzitsuenetan abegia egin zioten hezkuntzatik abiatuta. Misiolari eskolen, petrolio ustiakuntza industriaren eta militarren bidez heldu zen kirola Irango gizartera mende hasieran, neurri handi batean britainiarren eraginpean. Misiolariek iraniar elitearen semei irakatsi zieten, eta besteek petrolio industrian ikasi zuten. Atzeritarrei jokatzen ikusiaz ikasi, eta horrenbestez, islamiarren ikuskera hertsia erasan zuten, Reza izeneko orduko sha agintari gorenak futbolaren etorreraren aurrean hala nolako erresistentzia plazaratu zuen bitartean. Aurretik, ordea, kleroa edo apaizeria, bertan behera utzi zuen estatu buruak, eta gerora gainera, mesketei lurrak kendu zizkien futbol zelaiak egiteko. Islamiar buruek jokalariei harriska egiteko agindu zuten herrietan,

britainiar taldeekin jokatzen zutelako, eta galtza motzetan arituta Islamaren ikusmolde zurruna betetzen ez zutelako. Ildo horretan, federik gabekotzat iraindu zituzten.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, futbola munduan zabaltzen ari zela, 1950eko hamarkadan eta 1960ko hamarkada hasieran, nazioarteko partida gehienak galdu zituen nazio taldeak, 1962an Irakeko selekzioaren aurkako kutsu politiko handiko lehia barne, zeinak Shah agintariaren eta lehen ministro Ali Aminiren haserrea eragin zuen, futbola dagoeneko nazioaren lurraldetasun mugetatik kanpo irandar nortasunaren adierazpidea eta babeslea zela aditzera emanda. Estatuaren ekimenarekin kirolek oro har, eta futbolak eta nazio taldeak nabarmenki, hobekuntza plazaratu zuten, eta Pakistan, Irak eta Indiako nazio taldeei irabazita 1964ko Tokyoko Olinpiar Jokoetarako sailkapena eskuratu zuen Iranek. Gobernuak ongi etorri harrera egin zien Indiatik itzultzean. Borroka librean lortu ohi zituen nazioarteko garaipenekin erdietsitako izen ona baino murriztagoa zen Iranek futbolearen berri izana, baina hamarkada horretan futbola ere kirol gorena bilakatu zen gizarteko aldaketek hein batean ahalbidetuta. Industria hiriguneak landa eremutik joan ziren milaka etorkinez bete ziren, eta horiek futbola hartu zuten aisialditzat. Neurketak zuzenean ikusteko txartelak erosi ezin zituztenek gainera, telebistaren bidez ikusi ahal zitzaketen partidak, futbola etxeetara helarazten hasia baitzen hedabidea garai horretan. Testuinguru horretan, Iranek 1968an lau urtetik behin ospatzen hasia zen Asiako Kopa hartu zuen, eta Israelgo nazio taldearen aurkako finalean lortutako garaipenak kirolaren sona areagotzean oihartzun handia izan zuen, 1967.urtean Israel eta herrialde arabiarrek etsaitu zituen gerratik hilabete gutxira gertatua, hain zuzen ere (Foer, 2004: 194). Gerra zela eta herrialde arabiarrek boikota egin zioten Israelgo nazioa ordezkatzeko futbol taldeari eta horrekin jokatzea baztertu zuten. Irango Gobernuak, ordea, estatu juduarekin gutxieneko elkarkidetzak mantentzen zuten, eta hala kirolaren eremuan gainontzeko estatu musulmanengandik bereizi eta arabiarren eta israeldarren arteko gatazkan oreka jarrera hartu zuen, kirol ekitaldiaren antolaketaren bidez jakinarazi zuena. Teherango agintariek harreman ona zuten Israelgo estatu juduarekin, baina irandarrek gerran estatu arabiarren aldeko jarrera hartu zuten, eta futbol ekitaldian Israelgo jarraitzaileei oldartu zitzaizkien. Erregimenak futbolaz hartu zuen jokabidea ulertarazteko askotariko irizpideak plazaratu izan dira. Israelen aurkako sentipena urruntzeko nahia iradoki zuten batzuek, eta estatu juduak bere futbol taldeari galtzea agindu ziola adierazi zuten besteek, politikaren baitan aldeko gobernuaren adiskidantzazko begi keinua adierazi nahian. Partidaren izaera bata zein bestea izan futbolaria 2-1 irabazi ostean nazioaren ikurrak izatera gailendu ziren,

eta telebistari eskerrak milioika herritarrek ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izan zuten, futbola benetako masa gertakaria izan zen (Chehabi, 2006: 242), eta hala erregimenaren nortasuna indartu zuen bide batez.

Nazio eta gobernuaren mesedetan nazioarteko futbol ekitaldien ustiapena areago bizitu zuten agintariak 1968ko Asiako Kopako finalaren ondoren. Horren adierazlea da, esate baterako, Teheranek 1974ko Asiako Jokoak antolatzeke hartu zuen erabakimena, Iranen irudia munduan indartu asmoz egin ere. 1973.urtean Israel Siria eta Egiptorekin alderatu zuen gerraren biharamunean Israelgo eta Irango nazio taldeek askotariko kirol ekitaldiak bateratzen zituen ekitaldiko futbol lehiaketan topo egin zuten, eta bi estatuen arteko futbola gaindiko hartuemana berretsi zuten herrialde arabiarrek juduen futboleko ordezkariak jokatu Israelgo zilegitasuna eskaintzeari uko egiten zion bitartean. Horrez gain, Iranen futbolaren, talde nortasunen nahiz politikaren arteko uztarpena agerikoa zen estatu-nazioaren mugen barruan ere. Armadaren eta erregimenaren joerako Taj izeneko futbol taldearen eta intelektualen partaidetza nagusia zuen eta oposizioak babesten zuen Shahin taldearen arteko norgehiagokak islamisten iraultzaren aurreko aroa hezurramitu zuen. Shahin desagertu egin zen baina taldeko jokalariek Perspolis zeritzon kluba sortu zuten oinordetza mantentzeko. Areago, bizitu zen gorrien eta urdinen lehia 1974an liga txapelketa sortzearekin batera. Monarkiak futbolarekin zuen lotura estua zela eta, futbol eremuan agertzen hasiak ziren erregimenaren arerio islamistak neurketa asko geldiarazi zituzten euren aldarriak entzunarazteko. Shah erregetzaren amaiera urteetan oposizioak adierazi zuen erregimenak futbola sustatzen zuela irandarrak politikatik aldentzeko, eta zehatzago islamiarrentzat futbolaren ospea auzi “garrantzitsuetatik” publikoaren arreta urruntzeko Shahren amarruan zetzan (Chehabi, 2006: 243). Baina gizarte klase orotako irandarrak erakarri zituen kirolak, jokoan nahiz ikusle gisara izan, erlijioarekin lotutako norbanakoak barne. 1978an, Argentinan, politikak eragindako Munduko Kopan, lehen aldiz parte hartu zuen Irango nazio taldeak, eta oro har ekitaldia baldintzatu zuen giroari jarraiki, Parviz Qelichkhani orduko irandar jokalaria onenak lehiaketan aritzeari uko egin zion Irango agintearen errepresioa zigortzeko. Erregimenak futbolaz gain, besteak beste, modernitatea, hiritartzea eta industrializazio azkarra bultzatu nahi zituen, eta azkenerako 1979an islamdarren iraultzak estatu kolpea burutu zezan hala nolako abagunea bideratu zuen, horiek hain justu alderantzizko bidea aldarrikatuta hartu baitzuten boterea.

Futbolarentzat, eta oro har kirol guztientzat, aro txarra izango zen aurrerantzean. Mendebaldeko joerako irandar eliteen gehiegizko hedonismo edo atseginkeriari gorroto zioten, eta hainbat kirol behin-behinean desagerrarazi zituzten bitartean, futbolaren sona mesfidantza handiz begiztatu zuten, eta ordu arteko modernizazioaren ikurrari ere itzuli ingurua ematea zuten helburu. Ildo horretan, lehengo erregimenarekin lotura oro apurto nahirik klub pribatu guztiak estatuaren jabetzara eskualdatu zituzten, eta baita deituraz aldatu ere. Ararat izeneko kluba, Teheranen Armeniako nazio gutxiengoa ordezkatzeko zuena, izan zen aginte aldaketa garai horretan kudeaketa pribatuari tinko eutsi zion klub bakanetakoa. Politika pluralitatea desagertu zen heinean kutsu politikoko talde nagusien arteko neurketek tankera hori galdu zuten, baina bien norgehiagoka auzia mantendu zen. Islamiarrek euren kazetetan beren mundu ikuspegi zurrunaren eta futbolaren inguruko zaletasunaren arteko bateraezintasuna kaleratu ohi zuten, eta “amerikar eta britainiarren pare nazioartean liluratu asmoz pailazoarena egitea” bailitzan salatu zuten nazioarteko futboleko esleitutako egitekoa (Foer, 2004: 196). Erljio egitekoak bete ordez aginteko Islamiar Errepublikar Alderdiak 1983an deitoratu egin zuen 110.000 pertsona Irango bi talde nagusiak futbol partidaren txalotu eta oihu egiteko bildu izana. Ikusle kirolak ukatu eta kirol parte-hartzaileak sustatu behar zirela azaldu zuen aginte islamdarrak, eta lehen ministroak inperialismoaren oinordekoa izatea leporatu zion futbolari (Chehabi, 2006: 246). Zinemaren nahiz musikan erregimenak bere ikusmoldetik haratagoko joerak, neurri handi batean Mendebaldeko eraginei loturikoak, azkar ezereztu bazituen ere, ezina izan zitzaion futbolarekin gisako erabakimena berrestea. Irandar gizartearen futbol apeta hain zen handia ezen gobernuak eta erlijio buruzagiak konturatu zirela kirol hori bertan behera uzteak politika arrisku handiegiak eragingo zizkiela, euren sostengua ziren herri klaseak haserraraziko zituzketen, eta horrenbestez kirola beren alde erabiltzea onetsi egin zuten.

Erregimenaren beharginak zaleen artean nahasten ziren futbol zelaietan Islamaren aldeko deiadarrak zaleen ekarpenen artean txertatzeko, baina futbol zaleek trufa egiten zieten, eta gobernuak atzera egin zuen. Jokoari atxikita zeuden islamiar joerarik gabeko eraginak mugatzeari aski iritzi zion azkenerako, eta prentsaren bidez irandarren ustezko muineko balioak eta Mendebaldeko kirolari lotzen zizkieten salerosketa, menderakuntza eta hooliganismoa kontrajarri zituzten. Telebistak partida batzuk atzerapen txiki batekin eman ohi zituen hedabidearen bidez hedatu ahal zitezkeen politika mezuak isilarazteko, eta 1998ko Munduko Kopan, irandar erbesteratuen idatzizko aldarrien beldur, publikoak azaltzen zuten ikuspegiak iraganeko artxibo irudiengatik ordezkatzeko zituen. Gobernuak

futbolaren gizarte eraginari beldurrez erreparatzen zion hein batean. Izan ere, Franklin Foerrek dioen moduan, irandarrek nazioarteko futbola maite dute Mendebaldeko gizarte aurreratu, kapitalista eta ez islamdarrarekin uztartzen baititu (Foer, 2004: 197). Gazteen artean kirol gailena izaten jarraitu zuen erregimen aldaketarekin ere futbolak. Gainera, 1987an legedia arindu zuen Teherango gobernuak eta erabat estali gabeko emakumeen filmen emanaldia ahalbidetu ez ezik, kirol ekitaldien emanaldia ere bideratu zuen. Hala, 1993an kirol hutsezko hirugarren kanala sortu zen. Bitartean, emakumeak estadioetara partidak ikustera bertaratzearen inguruan eztabaida piztu zen agintearen alor ezberdinen artean. Telebistan behatu ahal izatea agintariak emandako gehienezko emakida izan zen emakumeei dagokienez beren ahotan. Kontserbadoreenak igeriketa eta borrokan bezala, futbolearen emakumezkoen debekua jartzearen aldekoak ziren, gizonezko futbolarien janzkeragatik, eta baita zaleek harmailetan agertutako asaldurazko jarreratik babesteko.

Islamdar erregimenak onartu zuen futbola gizarteko kirol entzutetsuena zela, eta Iranen aitzintasun eta usadio askoz handiagoa zuen borroka librearekin alderaketa egin zuen; hain zuzen ere, bigarrenak Irango ustezko balioak adierazten zituela iritzita horixe sostengatzeko Mendebaldearen kultur erasotzat jotzen zuenaren aurrean. Irango borroka librearen oinordetza milaka urtekoa baldin bazen, mende betekoa izan zen futbolarena. Hori horrela, 1990eko urteetan erregimenaren ildo liberaleneko *Salam* kazetak itxi zuten arte kirol atalean futbola nabarmentzen zuen bitartean, *Resalat* kontserbadoreak borroka librea goraipatzen zuen, islamdar kazetek oro har egiten zuten zutenez, futbolari arretoa txikia eskainita. Nolanahi ere, estatuak kirol guztiak hauspotzeko laguntza areagotu zuen, eta futbolak eta nazio taldeak gorakada izan zuten Golkoko gerra amaitutakoan. Pixkanaka-pixkanaka gainera babesleekin eta egitura profesionalekin klub pribatuak sortzen hasiak ziren, eta hein handi batean nazioarteko baldintzetarako igarobidea ageri zen. Politikako auzietatik haratago sakoneko tentsioa sortzen ari zen kultur tradizio eta modernitatearen artean futbola eta borroka librea sinbolo gisa gatazkaren erdigunean zirela. Inondik ere ez du zertan batek bestearen aurkaria izan, baina elkarrekin lehiatzen dira, eta futbolak alde atera dio mende askotan Irango kultur ekoizpenari atxikitako borrokari. Christian Bromberger antropologoaren ikuspegia egokitzen hartuta, esan beharra dago futbolari borrokalariari gailendu izana Iranen izandako bilakaeraren adierazlea dela (Bromberger, 1999:181). Auzia metaforaren tankeratik benetakotasunera igaro zen gainera. Bi kirolen eta haiei lotutako esangura kontrajarrien alderaketa 1997ko maiatzeko presidentetzarako hauteskundeetaraino heldu zen. Nateq Nuri borroka libreko txapeldunekin batera agertu

zen, eta kirolaz zuen atsegina agertu zuen horrela erregimenak babestutako hautagaiak. Futbolari askok Mohammad Khatami hautagaiari eman zioten babes bestalde. Franklin Foerrek dioen eran, futbolaz erreforma irrika zuten irandarren aurrean bere egokitasuna azaldu eta haien aldekotasuna lor zezakeen Mendebaldeaz eta demokrazia adierazpen gehiegi egin beharrik gabe (Foer, 2004: 199). Era horretan hautematen zuten burgesiako gazteek behinik behin hautagaiaren egitasmoa. Khatamik ezustean gehiengo zabalarekin irabazi egin zituen bozak, baina ezin izan zuen eraldaketa handiegirik burutu kleroaren mendean makurtu baitzen nolabait. Horrela, bestelako egokieratan ez ezik Munduko Kopako partiden ondorenean ere herritarrek haserrea plazaratu zuten hauteskundeetan emandako ebazpena Islamaren aginte menderatzailearen baitan azpiratua izan zelako.

Ildo horretan, 1997ko bigarren seihilekoan Irango futbol sugarrak politika adiera hartu zuen, gizarte talde ezberdinen arteko borroka plazaratzen hasi zuen gardentasuna zela medio (Chehabi, 2006: 249). Nazio taldeko entrenatzaile Mayeli-Kohanek, jendeak kontserbadoreen ideologiarekin lotzen zuenak, ez zien utzi Alemaniako liga txapelketan jokatzeko ari ziren taldeko izarretako batzuei 1998ko Munduko Koparako sailkapenezko partidetan parte-hartzen. Seleksioak beherakada nabaritu zuen, eta azaroan Qatarren 2-0 galdu izana estatu auzia bihurtu zen, eta futbola Legebiltzarrean eztabaidagai lehenetsia. Entrenatzailea kargutik bota zuten horren ostean, eta bere ordez Valder Vieira zeritzon brasildar hautatzaileak hartu zuen taldeko zuzendaritza, eta haren gidaritzapean Iranek Australiaren kontra azkeneko kanporaketa gainditu zuen bi partidetan berdindu eta gero. Frantzia 1998ko ekitaldirako sailkatzen zen 32. nazio taldea izan zen Irangoa. Islamaren burutazio hertsian eta Mendebaldetik etorritako modernitatearen aurkako borrokan bere agintaldia sustraitu zuen erregimenak, futbolak kanpoan emandako onespenera irri egin zionak, hark ere futbola izan zuen mintzagai ustez nazioaren gai funtsezkoenak hizketa hizpide diren Legebiltzarrean. Areago, Valder Vierak lortutako mugarria ez zen nahikoa izan karguari eusteko, eta Tomislav Ivic izeneko Kroaziako entrenatzaileak hartu zuen bere lekua. Hala ere, atzera ere kontserbadoreen presioak dimisioa ematera behartu zuen 1998ko maiatzean, Munduko Kopa ospatzeaz zela, eta Jalai Talebi irandarrak hartu zuen azkenean lehiaketan nazio taldea gidatzeko ardura. Politikaren mendekotasuna eta nazio taldeari eledunek aitortutako oihartzuna adierazgarria bada, are eta esanguratsuagoa izan zen Iran 1978ko ekitaldiaren ondoren bigarren aldiz sailkatu izanak jendearengan eragin zuen zorameneko adierazpena, 1997. urteko azaroaren 29aren biharamun luzea alegia.

Nazio taldea Munduko Koparako sailkatu zenaren albisteak hedatu bezain laster ospakizuna lehertu zen irandar erbesteratuen artean eta bereziki sorterrian. Teheran eta probintzietako hiri nagusietako kaleak hartu zituen jendeak, gobernuak eremu pribatura mugatutako atseginezko adierazpenak, publikoan erreprimituta zeudenak, mugarik gabe ekoitzi eta plazaratuta. Jendearen pozezko aldarria ulertzeko Houchang E. Chebabiren arrazoibidearekin bat nator. Haren esanetan, presidentetzarako hauteskondeekin atxikita interpretatu beharra dago gertatua. Khatami aldaketa burutuko zuen ametsarekin boterea hartzera bultzatu zuten hautesle eta herritarrek hilabete batzuren buruan hauteman zuten politika egitura irekiera itotzen ari zela, eta horrenbestez izaeraz abertzalea zen aukera baliatu zuten askatzeko, norbere herrialdearen arrakastaren gaineko poza erregimenak nekez kritikatu ahal izango zuelako (Chehabi, 2006: 249). Teherango hegoaldeko auzo txiroetatik hiriburuko iparraldeko auzune aberatsenetara gailentasunezko abertzaletasun irrikarekin ospatu egin zuten, eta gizarte eta politika ezberdintasunak gainditu ohi dituen munduko lehenak izatearen sinesmenarekin (Bromberger, 1999: 176). Hainbat kazetek futbolaren aurkako kontserbadoreenen iritziaren berri eman zuten berehalakoan, eta ildo horretan kultura beherapena bailitzan deitoratu zuten futbolak eragindako zoramenezko herri jaialdia. Biziraupenerako landu zuen zentzumenari jarraiki, erregimena denborarik galtzeke ospakizunetarako prestatu zen Foerrek dioen moduan, jendeak euforiak hartuta zenean arrazoibidea gal zezakeela kontuan hartuta, eta gaitasun horren ezean matxinada bideratzeko moduko jokabidea eragin zezakeelako (Foer, 2004: 188). Alegia, gobernuak eguneroko jardunean irmoki ezarritako errepresio menderakuntza muga ororen gainetik.

Izan ere, erregimenaren kontrol ezarpen apetaren atsekaberako gizonezkoen gain bereziki hiriguneetako auzune aberatsenetan emakumezko gazteenek ere bat egin zuten festa adierazpenekin. Horietako hainbatek derrigorrezko *hiyab* lepokoa kenduta ospatu zuten gainera. Agintariak Irango jokalariei Melbourneetik itzuleran Dubain beharrianik gabeko geldiunea egitea galdegin zieten, taldearen itzulera atzeratuta ospakizun tamaina apaldu ahal izateko. Bertan milaka erbesteratuk ohore egin zieten dagoeneko. Hiru egun geroago heldu ziren bada, sorterrira. Usadioa eraldatuta harrera Teherango aireportuko iritsieran egin ordez zaleei zuzenean Azadi estadiora joateko eskatu zieten helikopteroz zuzenean bertara eramango baitzituzten futbolariak. Emakumeei, ordea, etxeetan geldi zitezela galdegin zieten erregimenaren hedabideen bitartez, baina bertaratu ziren 70.000 lagunetatik 5.000 inguru emakumeak ziren (Chehabi, 2006: 249). Nazio taldeari eginiko omenaldian, Christian Brombergerrek dioen moduan, sexuen arteko bereizketako horma

zulatu zen jendaurrean. Emakumezko futbol zaleek entzunarazi zuten deiadarra honakoa zen: “Ez al gara nazioaren parte? Festan izan nahi dugu. Ez gara inurriak” (Bromberger, 1999: 183). Iraultza islamistaren zutabeetako bat kolokan jarri zuten aldarriok eta azken batean halaberrez Poliziak estadiora sartzea ahalbidetu izanak. Estadioan bereizitako gune batean ezarri zituen lehenengo 3.000 emakume, eta gainontzeko 2.000 emakumeen protesten aurrean estadioan nonahi sartzen utzi behar izan zien bestela neurritz kanpoko iraultza gertatuko zenaren beldur. Brombergerrentzat diziplina eta moralitate aginpidea publiko ekitaldien eta hitz askearen inguruko beldurrarekin uztartzen ziren erregimenak estadio ospakizunetan ezarri nahi zuen kontrolaren eta errepresioaren iturburuan (Ibid.).

Futbolaren iraultza bailitzan izendatu zuten hainbatek Iran Munduko Koparako sailkatu izanaren ondorenean gertatua. Inondik ere gutxietsi ezina den esanguraren zama izan zuen, orduz geroztik Munduko Koparako sailkapenezko partiden ondoren jendetza karriketara irtengo baitzen politikarekin geroz eta lotura nabariagoa zuten adierazpenak burututa. Franklin Foerren hitzetan hainbesteko garrantzia dute futbolaren baitan sortzen diren ideologia aldarriek ezen futbolaren iraultzak Ekialde Hurbileko geroaren giltzarria duela. Islamaren agintearen aurreko nazio banderaren haizatearekin eta Reza Pahlevi, erbesteratutako sha erregearen ondorengoaren, izena oihukatuta adierazten zuten zaleek islamismoaren erregimena azpiratzeko altxamendu nazionalistaren aldeotasuna (Foer, 2004: 190-191). Borroka libre izan zen Iran 1948an nazioartean lehiatzen hasi zenetik herrialdeko ordezkariari laudorio gehien eman ziona, eta 1998an Teheranen jokatu zen Munduko Txapelketan ere lehena izan zen. Hala ere, luzaroan herrialdeko kultur alorrari lotutako kirolak ez zuen futbol selekzioak Munduko Kopara sailkatu izanak tamainako hunkipenik sorrarazi. Hori horrela, aurretik inperialismoaren amarrutzat luzaroan jotako futbola eta horri gizartean atxikitako sugarra arbuiatu zutenek, ezinbestean nazio taldeak erdietsitako mugarria ospatu zuten gerora jendaurrean, Errepublikako lehendakariak eta Legebiltzarreko presidentek barne. Hainbat ezkertiarrek munduan barrena futbolari eta jokoaren sustatzaileei herritarrak entretenitzea eta politika aldarrien ekimenetik aldentze nahia egotzi izan baldin badiete, ia antzerakoa egotzi zieten islamistek ere, baina, nazio kontsentsuaren aurrean, behin-behinean bederen, amore eman behar izan zuten.

Nazioa ekitaldi gorenean ordezkaturiko zuen taldearen osakerak gainera, soziologia ikasgai oparora emango zuen Brombergerri jarraiki. Izan ere, Azerbaijaneko turkiarrek, Irakekiko gudan erbesteratutako Juzistango arabiarrek, Teherango hegoko auzuneetako

gazteek eta Ararat izeneko armeniar izaerako klubean heldutako futbolariak osatua zen selekzioa. Armeniarrak taldetik baztertu zituzten lehenago irizpide islamista zurrunetik kontrajarrita zen talde nortasuneko norbanakoak izateagatik (Bromberger, 1999: 181). Dena dela, jokalariek oro har bizarririk gabe eta egoki orraztuta jokatu ohi dute, Iranetik kanpoko klubetan euren bizimodua aldatu izanaren eraginez, eta hala, sorterriko kleroak taldearekin atzerrian eman nahiko zukeen irandarren irudia eraldatzen dute (Foer, 2004: 198). Atzerrira joandako jokalarien joerak eta, oztopoak oztopo, kanpoko prestatzaileen etorrerak futbolearen gizartearen hein bateko irekiera ikusarazi zuten. Halaber, Christian Brombergerren hitzetan Munduko Koparako nazio taldearen ibilbide kaotikoa herrialdea nazioarteko eremuan txertatzeko konplexutasunaren karikatura parabola erakoa izango litzateke (Bromberger, 1999: 177-178). Futbolaren oihartzuna eta nolakotasuna Iranen bilakaerarekin uztartzen du horrenbestez ikerlariak, borroka librearen nagusitasunetik futbolaren sugarrera izandako igarobidean denek ere hautematen dute bilakaeraren pare.

Zoriak Frantziako 1998ko Munduko Kopan Irango eta AEB Ameriketako Estatu Batuetako nazio taldeak alderatu zituen. Nazioarteko begiraleek ikusmina zuten Irango nazio taldearen parte-hartzearen inguruan, hots, futbolarien bidez nazioarteko ekitaldian igorriko zuten mezuaz. Bada, partida abiatu aurretik bi taldeetako jokalariek nahastuta argazki bateratua atera zuten, futbolaz gaindiko adiskidetze mezua helaraziz bide batez, eta lehenago etengabe entzun ohi ziren AEBen kontrako mezuen jarrerarekin alderatuz, irandarrek selekzioaren garaipena ospatu zuten sorterrian AEBei futbolearen irabazi izana baino gehiago. AEBetan arreta murrizta eskaini zioten, ohi dutenez, futbol neurketari, baina Bill Clinton presidenteak irandarrak zoriondu zituen garaipenagatik, eta Khatami presidenteak halaber, kirol izaeraren alderdia goratua zuen (Chehabi, 2006: 251). Kirol ekitaldiek funtsezko zantzuak eskaintzen dituzte, askorentzat garrantziarik gabeak eman dezaketen arren, Irango eboluzioaren izaera ezagutzeko (Bromberger, 1999: 175). Hala, 1990eko hamarkadako futbol irrikak, Houchang E. Chehabik baieztatzen duen moduan, nazio integrazioari indarra eman zion. Irandar arruntak nahiz erlijio eledunak, emakume eta gizonezkoak, hiriburuko jendea eta probintzietakoa, guztiak nazio taldeari sostengua emanaz batu ziren, eta gorabeheraz betetako bere bidea pozez eta urduritasunez jarraitu zuten. Jaioterriarekin harreman korapilatsuak zituzten diasporako kideek ere partekatu zuten herrikideen irrika bizia (Chehabi, 2006: 251). Pozak nahiz atsekabeak erakarriko zuen jendetza aurrerantzean futbol partiden ostean biltzera, 2002ko Japoniako eta Hego Koreako Munduko Koparako sailkatu ezinaren 2001eko udazkeneko liskar giroak esate

baterako. Bat egin zuten nazio taldearen galerak sortutako etsipenak Irango erreformen etenak sortutakoarekin, eta zurrumurruek piztu ziren 1998ko gisako ospakizunak ekidin ahal izateko gobernuak futboleko taldeari galtzeko agindu ziola. Liskarretan eraikinetan lapurretak egin zituzten, eta ehunka atxilotu izan ziren. 2006.urteko Munduko Kopako ekitaldirako hirugarrenez sailkatu zen Irango nazio selekzioa. Herri babesak ez du inoiz txapelketetako final zortzirenetaraino bultzatu.

3.3.4.4-Ekialde Hurbileko herrialdeetan futbola nazioartean eragiteko gailu sinboliko nagusietakoa da

Oro har Irango adibideak begien bistan azaltzen du politika eta futbolaren arteko lotura, ohi denez, nazioaren barnean eta baita kanpora begira ere, zilegitasuna helburu. Islamisten atsekabea eta ezintasuna eragiten duen futbolaren ospeak aditzera ematen du irandarrek ez dutela mundutik bakandu nahi, agintariak inperialismoaren ikurra bailitza ikusarazi dieten arren. Hein batean, Iranen futbolarik gizarte oihartzuna hartzea bideratu zuten gizarte aldaketak oro har gertatu ziren Ekialde Hurbileko gainontzeko estatuetan ere. Itsaso Gorriak Afrikatik banatzen duen hegoko muturrean hasita, Yemenen, futbola besteetan bezala, kirolik ospetsuena da, baina politika eta ekonomia egonkortasun ezak azpiratu izan dute Bahreingo nazio taldearekiko lehen futbol garaipena arreta handirik gabe igarotzeraino. 1990.urtea bitartean burujabetza erdiesteaz geroztik Ipar Yemen eta Hego Yemengo bi estatuen artean banatuta egon zen nazioa, kapitalismoaren eraginpean iparrekia eta eredu sozialistaren baitakoa hegokoa. Hala, futbol klubak eta txapelketak bitartez erregio eta nazio nortasunak sustatu zituzten 1970eko hamarkadatik 1990ekora.

Ideologia ezberdintasunak zirela eta, bi estatuen harremanak malkartsuak ziren, eta horrenbestez, bi nazio nortasun bereizi sustatzen zituzten hartara, hainbat politikarik eta idazlek estatu bateratuaren jomuga aldarrikatu arren. Hainbatetan jokatu zituzten aro horretan mugaz gaindiko partidak. Hedabide ofizialek ikusarazi zuten bi aldeak arteko ezinikusia askatzen laguntzeko balioko zutela futbol hartuemanek, eta Yemen batuaren asmoa sustatuko zutela. Nolanahi ere, argi zegoen erregimen bakoitzak lehiak baliatzen zituela bere politika sistema zilegitzeko (Stevenson eta Alaug, 2010: 17). Futbol zaleek batasunaren aldeko pankartak agertzen zituzten bitartean. Kirol diplomazia ahaleginok ez zuten urte gutxi batzuetako ahalegina gainera igaro. Urtetan elkarri etsaitzat begiratu

ostean batasunezko gobernuak sortu beharra zuen hiritarrek identitate bera partekatzen zutenaren lilura, eta denak berdintasunez epaituko zituztenarena. Sortzezko estatuetako pertsonen kopuru parekidea erabat bermatu nahi izan zuten zegokien parlamentuetan eta ministerioetan helburu horretarako. Lehenengo futboleko denboraldi bateratua izan zen parekotasuna adierazteko ahalegin ikusgarriena (Ibid., 18). Ildo berean, nazio taldearen osieran nazio identitate berria sustatzeko ekimena begi bistakoa zen. Taldearen osaera jakitera eman zutenean jatorrizko estatu bakoitzeko hamasei futbolari ageri ziren. Estatu bakoitzeko entrenatzailearen laguntzaile bana zegoen, eta kapitain kargua ere txandaka aldatzen zuten. Txapelketaren eta nazio taldearen ekimenarekin gobernuak batasunerako ezarritako helburua erakutsi nahi zuen, eta hiritarrak gogatu estatu-nazio jaio berriarekin identifika zitezten. Ezina da futbolearen eginiko ahaleginen epe luzeko arrakasta neurtzea, politika eledunen gatazkak 1994an atzera ere banaketa burutzeko saioa amildu baitzuen. Yemendar askorentzat itxi gabe daude artean luzaro gatazkak zabalduak zauriak, eta futbolaren adiskidetzarako ahalmena apaldu dute horrenbestez. Esan nahi baita futbolak nekez gauzatuko duela bere kabuz integrazioa eta irudiz helburutzat hartzen den nazio batasuna politikak gutxieneko baldintzak ahalbidetzen ez baditu. Adiskidetzarako gune sinbolikotzat nonahi onetsia dela nabarmendu behar da edonola ere, helburu partekatua jomuga duen taldearen kirol patua nazioenarekin beti ere partekatzen den heinean alegia.

Horrez gain, Saudi Arabian ere futbolak funtzio gailenena betetzen du gizartean. Izan ere, islamiar legedia zurrunki betetzea nahi duen erregimenak onartutako ikuskizun bakanetakoa da. Areago, nazioaren kanpo ordezkartzarako tresna garrantzitsutzat jotzen dute 2002ko Japonia eta Koreako Munduko Kopan 8-0 galdu izanaren ostean agintariak galera nazioarentzat desohorea bailitzan aurkeztu izanak adierazten duen moduan. Saudi Arabiako Defentsa ministro Ben Abdel Azizek jokalaria salatatu zituen, eta dei egin zien “beste beheramendu bat eragozteko ahalegin guztiak egiteko eta herrialdeaz baikortasun irudia emateko” (cfr. Alcaide Hernandez, 2009: 45). 1974tik Saudi Arabiako 3.000 odol printzeek milaka euro mahaigaineratzen dituzte urtero beren herrialdearen gaineko irudi baikorragoa helarazteko (Boniface, 2002: 130). Saudi Arabiaren ekialdean, ia begiztatu ezina den herrialde murrizta da Qatar, baina munduan lurpean gas gehien duen estatuen artean dago eta ekonomia ahaltsuaren jabetza du ondorioz. Inondik ere, horrek erakarri zuen FIFA 2022ko Munduko Kopa bertan ezartzera, eta baita hango aberatsek futbolearen ezarri duten arretak ere, Europako klub ospetsuen jabetza bereganatu edota babesle gisa jendaurrean agertzera bultzatu dituen. Pertsiar Golkoko uda aldiko 40 graduz gaindiko

beroak jokalarien eta lehiaketaren mesedetan Munduko Kopa usadiozko sasoiari jokatu ahal izatea baztertzeko duen arren, eta txapelketaren bideragarritasunaz gain, herrialdean giza eskubideen alorrean harreman homosexualak zazpi urteko kartzela zigorra dakarten arren, FIFAk besteak beste Australia, Japonia eta AEBen aurretik hobetsi zuen Qatarren hautagaitza. Joseph Blatter, aztoramendu eta zurrumurruen baitan beti ere, FIFAko buru berriz hautatu berriak 2022ko ekitaldia neguan jokatzeko iradoki zuen, horretarako gaur egungo futboleko denboraldi hertsia, erabat irauli beharko balitz ere. Bahrein eta Qatar mapan herrialde antzeman ezinak petrolioak emandako aberastasuna baliatuta atzerriko futbolariak gogatzeko ari dira herrialdeotako hiritartasuna eskuratu eta nazioarteko futbol taldearen maila indar dezaten, eta bide batez Raffaele Polik dioen moduan, futbolarik jarri ohi duen herrialdeen arteko mailaketan euren izaera aldarrikatzeko eta goratzeko (Poli, 2006a: 48). Estatuaren izen ona hauspotzen dute, inondik ere, erabaki horrekin, nazioa geroz eta gutxiago ordezkatzeko duen selekzioa osatzen duten bitartean. Lehentasuna da kanpo ordezkariak, nazioa ordezkatzeko ez badu ere, eta nazioarteko ekitaldien esanahia hein batean erasango duen arren.

Bestalde, Saudi Arabiaren iparraldean eta Iranen mendebaldean kokatutako Irak gorabeheratsuan ere joko hutsaz gaindikozko zeresan handiagoa esleitu diote futbol jokoa. Izan ere, Iraketik ihes egin zuen jokalaria batek emandako lekukotza ontzat hartuta, Uday Husseinek, Saddam Husseinen semeak eta Irakeko futbolaren arduradunak, selekzioko futbolariak torturatzeko agindua eman zuen porrot baten erantzuletzat egiten zituelako. Futbolariaren testigantzari jarraiki, Kazakstanen kontra galdutako neurketan taldearen kapitaina zen Rhadi Shanishal futbolaria elektrizitate kable batekin jo zuten ondorenean (Boniface, 2002: 29). AEBek Iraki eraso egiteko zeukaten egitasmoaren testuinguruan, 2003ko otsailean, Bagdad hiriburuko Al-Nafid deiturako futbol taldeak Iraken mendeko Kurdistango Irbil taldeari jarkitzera bidaia egin zuen. Partida atarian Saddam Husseinik sostengu erabatekoa eskaini zioten futbolariak eta soropilerak atera baino lehen “ez dugu gerra nahi” eta “Saddamengatik gure odola emango dugu” moduko deialdiak plazaratu zituzten (Cfr. Jarvie, 2006: 81). Zale kurduak Husseinen agintepean jasandakoa alboratu zuten behin-behinean eta turkiarren kontra zuzendu zuten futbol zelaiko aldarrikapena, AEBek gerrarako zuten aburuak Iraken mendeko Kurdistanera milaka turkiarren joana ahalbidetzen zuela protesta egiteko. Futbol partidak politika aldarrikapenentzat agertoki zuzena atondu zuen beste behin ere. Kurduak 1-0 irabazi zuten partida hura baina adiera futbolaz gaindikoa zen. Gerora gerra osteko berreraikuntzan laguntzeko erabili izan dute

Iraken eta baita Afganistanen ere futbola okupatzaileek, bertakoekin partidak antolatuta beren bihotzak eta adimenak irabazteko britainiar egitasmoaren barruan (Hough, 2008: 1295). Bietan ere nazioaren taldea ekoiztea berreraikuntzaren lehenetsitako ezaugarria izan da, are gehiago kontuan hartuz gero Afganistango talibanek futbola debekatu egin zutela eta Saddam Husseinen erregimenaren agintepean futbolarien kontra bortxa erabili zutela.

3.3.4.5-Indiako futbola kolonialismotik globalizazioaren menderaldira

Britainiar inperioak Indian barrena bere gizarte ikuspegia ezartzeko bitartekotzat erabili zuen futbola XIX.mende amaieran hasita, eta bide batez menderatutako hiritarrak inperioaren aginteari makurtuta hezteko asmotan, baina berehalakoan berena egin zuten indiarrek futbola, eta menderatzaileari jarki eta hori azpiratzeko gailutzat hautatu zuten, identitate eta nazionalismo ikur bihurtzeraino. Kolonizatzaileen kirola atxikitzea zetzan kontraesanak atzean utzi zituzten horretarako. Gero izango ziren hindu eta musulmanen banaketak eragindako gatazka eta estatu berrien sorrerak, eta gaur egunean globalizazio aroak kaltetutako eraginkortasuna. Indiarrek, ikus-entzuleek, eta hartara, iragarleek ere, satellite bidezko Europako txapelketetan jarri ohi dute arreta, 1990eko hamarkadan sortu zen Indiako liga txapelketaren eta horrek piztu nahi zuen nazio taldearen atsekaberako. Asiako lehen futbol elkargoak Britainia Handiko inperioaren kolonietan sortu zituzten: Singapurren, negozio etheen arteko lehiaren baitan gizarteratzeko bitarteko entzutetsua izaki, eta Indian, zeinean cricketaren aldaera ospetsua izan zen armada okupatzailearen baitan. Ondoren hedatu zen Ekialde Urruneko herrialdeetara (Manzenreiter, 2008: 416).

Misiolariak eta hezitzaileak gaur egunean India eta Pakistan dauden lurraldeetan gorputzak eta adimenak aldatzeko futbolaren boterearen jakitun ziren (Mangan, 2001b: 53), eta hala, menderatuei atzemandako talde lanaren gabezia futbolaren bidez hornitzea desio zuten europar kolonizatzaileek beren agintea burutzeko. Jokoen etika esamoldeak eta misiolariak hedatutako kristautasun giharren pentsamoldeak kirolari esleitzen zioten moralitate inperio pertsuasioaren xedea (Bandyopadhyay, 2008: 378). Ildo berean, Paul Dimeo eta James Mills bat datoz sortzez futbola barneratzearen arrazoibidea inperioaren funtsen baitakoa zela, batetik menderatua britainiar gizonezkoaren balioetara hurbiltzen

zuelako, eta bestetik indiarrengandik gutxieneko berme tartea ezartzen zuelako. Horrela, XIX.mendeko inperio agintearen paradoxak eta baita menderatuen erantzunarenak islatu eta osatu zituen futbolak, ikerlari horiek egoki diotenez. Britainiar egiturak arbuiatzeko presazko beharrizana, eta kolonizatzaileari bere jokoan aurre egin eta gailentzeko desioa kontraesanezko ihardespenak dira, baina erresistentziarako hunkipen bera dute iturburu gisa. Areago, Dimeok eta Millsek nabarmentzen duten moduan, britainiarren usadioak bere egitearena, kultur arrakastatsuagoaren zatitzat hartzeagatik, haratagoko kontraesana da (Dimeo eta Mills, 2001: 163). Gaur egunean India eta Bangladeshen artean banatuta den Bengala eskualdeko abertzale askok britainiar kirolak erabiltzeko aukera errefusatu zuten kultur inperialismo egokiera kaltegarriagozat iritzita, baina azkenerako, Bengalan bereziki, politika identitateekin eta kultura erresistentziarekin nahastu zen futbol jokia eta handik haratago orduko Indiako klub guztietan. XIX.mende amaierako Bengalako eta indiarren gailentasuna eta gizontasuna azaldu ahal izateko kultur gailutzat errotu zen futbola, eta bide batez, militarren eta hezkuntza sistemaren ³² aisialdiko osagaia izatetik britainiar eta indiarren arteko lehia eta gatazka eremua izatera. Futbol klubek hasieratik kirol eremuan sen nazionalista plazaratu zutela baieztatzea sobera izan daitekeen arren, Kausik Bandyopadhyay dioen gisara, mende aldaketarekin batera nazionalismo kultur indar berritzaile eta bakartzat hartu izan liteke, taldeen artean askotariko ezberdintasuna izanda ere (Bandyopadhyay, 2008: 378-379).

Mohun Bagan taldea izan zen nazionalismo izaera gehien hezur mamitu zuena, eta hala, 1911.urteko uztailleko finalean East York Regiment britainiar taldeari gailendu zitzaionean, nazio iratzarpenaren modukoa eragin zuen. 80.000 eta 100.000 futbol zale artean elkartu ziren futbol partida zuzenean ikusteko, eta funtsean indiar nazionalismoak Mendebaldeko kirola bere identitate bereizitasuna aldarrikatzeko bereganatu izanaren erakusgarri gailena izan zen, eta baita oro har indiar futbolaren loraldia ere. Kanpokoen aurka lortutako arrakasta oro nazionalismo sentipenak kolonialismoaren gaindi erdiesten zuen garaipentzat hartzen hasia zen. Indiarrek, klase, kasta edota komunitate banaketez gaindi, britainiar inperio aginte klasearen aurka lortutako garaipenekin bat egiten zuten. Futboleko jokatzek edota hori behatzek Indiako gizarteko kasta, klase eta komunitate indigenen atxikimenduak gainditzen zituen eta nazionalismo burutazioa zuten indiarrei gizarte baterazlea eskaintzen zien. Bengalako erregioan batez ere, britainiarren kontrako

³² Militarrek eta irakasleak ez ezik, besteak beste, Calcuttako, Bombayko, Madrasko eta Karachiko portu nagusietan itsas gizonak izan ziren Indian futbola aro goiztiarrean zabaltzearen aitzindari eta erantzuleak.

nazio kontzientziari alderdi berria gehitu zion. Hortaz, kolonia botere menderatzailearen aurkako politika borrokarekin batera, Bandyopadhyayri jarraiki, kultur jarduera bereziaz antolatutako nazio askapenerako gizarte borroka hasi zen (Bandyopadhyay, 2008: 381). Emoziozko gailurrak, hots, Mohun Bagan taldearen partidetan hautemandako bizipenari buruzkoak, nazio sentipenak plazaratzeko egokiera igortzen zuen indiarrentzat.

Bestalde, hainbatentzat indiarrek menderatzaileen aurrean lortutako garaipenak britainiar kultur inperialismoaren arrakastaren zantzuak ziren. Menderakuntzari lotutako aitortu gabeko indiarren mirespena, onarpena eta beheratzea hautematen zituzten horiek, izan ere, garaipenotan; futbolearen norgehiagokan irabazteko ahaleginduta, britainiarren kultur ondarea gailentzat hobesten zuten neurrian. Amerikan nahiz Afrikan, aro berean, nahiz beranduago, bertakoek europar kirolaren etorrera baliatuta menderakuntzari aurre egiteko egindako hautuaren parekoa da indiarrena, askotariko hausnarketei bide ematen diena. Inondik ere, kanpo etsaiaren kontra barne ezberdintasunak ezerezteko abagunea eskaini zuen neurrian futbola nazio nortasun emalea izan zela ezin ezeztatu. Dimeok eta Millsek diotenez, futbol garaipenen eta identitate eta politika hautu berrien arteko lotura zehaztezina da oraindik. Futbola soilki aurretik zeuden banaketak adierazteko abagunea izan zitekeen, baina horiek eragin izan zitzakeen edo ordu arte metafora edo ideia hutsa izan zena bizipen fisikoa bihurtzeko aukera gisa azaleratu zen (Dimeo eta Mills, 2001: 165). Nolanahi ere, 1930eko hamarkadatik aurrera futbolearen errotutako nazionalismoa zatitu egin zen, eta Mohammedan Sporting Club zeritzona arrakastatsua bilakatu ahala, Indiako etsaigoa ez zen aurrerantzean britainiar eta indiarren artean sustraituko. Lehen aldiz hinduen eta musulmanen komunitateen zatiketa adieraziko zuen (Bandyopadhyay, 2008: 382). Indian barrena musulman identitatearen adierazgarri ikusten hasi zen taldea, eta hinduek mesfidantzaz erreparatzen zioten horien gorentasun asmoari, oraindik ere britainiarren aurkako indiarren anaitasuna hala nola mantentzen bazen ere. Musulman taldeek futbol elkargoaren Mohun Bagaren taldearen aldeko jokabidea salatu zuten, eta erlijio kideek pairatzen zuten diskriminazioari gainjartzeko ikurtzat goratu zen. Halaber, hein batean politika arloan musulmanen eskubideak aldarrikatzen zituztenen sostengua hauspotu zuen. 1911n hindu anaien britainiarrekiko garaipena ospatu zutenaren gomuta oso urrunekoa zen jadanik, eta indiar futbolaren nortasuna nazionalismo indarra izatetik banatzaile eta komunitate identitateen pizgarri izaterako igarobidea 1947an gauzatu zen, India eta Pakistanen arteko estatu banaketarekin. Mohammedan Sporting klubak gerora

ez zuen 1930eko eta 1940ko hamarkadetako arrakastarik errepikatuko. Kolonialismotik independentziarako aldaketak haratagoko aldarte zatitzailea eman zion indiar futbolari.

Calcutta hiria erdigunean duen Bengala eskualdea bitan zatitu zen 1947an. Hala, ekialdea Pakistan jaioberriaren mende gelditu zen, eta mendebaldea India burujabearen agintepean. 1971n Bangladeshen izaera hartu zuen ekialdeak. Bada, Bengala ekialdetik Mendebaldeko Bengalara hinduen immigrazio eskerga izan zen, eta horrek artega sortu zuen etorkinen eta hango hinduen artean. Immigranteek gizarte berrian beren identitatea bermatu nahi zuten, eta beren izaera plazaratzeko etorbideen bila ari zirela futbola bere egin zuten kultur baliabide gisara. Identitate kontrajarriak hezur mamitu zituzten Mohun Bagan bertakoen taldeak eta East Bengal klubak, etorkinenak. Horiek ordezkatu ez ezik, haiek jasaten zuten diskriminazioari aurre egiteko gailutzat hartu zuten, futbol taldeek mundu zabalean gutxiengoekin maiz egin ohi dutenez. Etorkinek futbolaren bidez beren burua bereizi egin nahi zuten halaber, eta Calcuttakoek futbol atxikimenduaren bitartez euren izaera argi utzi. Hain zeuden kezkatuta etsaigoaren neurriaz ezen Mendebaldeko Bengalako Gobernuak erlijio, erregio edo etnia izaera adieraziko zuketan klub deiturak aldatzea iradoki zuela, handik urrun, Aljerian edo Australian, besteak beste, egin zuten moduan. Izenak adierazten edo ordezkutzen zuen talde nortasuna kentzea zuten helburu. Kroaziako presidente Franjo Tudjmannek alderantzizko joeraz, hots, izenaz nazioaren izaera nabarmendu nahirik, Dynamo Zagreb izena Kroazia Zagreb deituraz aldatu zuen, izena ordezkatzuz berak aldarrikatutako kroaziar nortasuna hobe ikusaraziko zuelakoan.

Bada, bi aldeen arteko futbol eremuko gerra eta karriketako guda batu egin ziren Calcuttan 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, eta futbol eta politikaren arteko elkargo ia banaezina ekoitzi zuten (Bandyopadhyay, 2008: 387), betidanik hauteman ezina gertatu ohi dena. 1970eko hamarkadan Indiako futbola eskualde azpiko eremuan erroto izanak areagoko oldarkortasun tankera hartu zuen. Pakistanen mendean zen Bengala ekialdeak independentziarako gudari ekin zion, eta horren bidetik, 1971.urtean Bangladesh estatu burujabea sortu izanak Mendebaldeko Bengalarentz hinduen immigrazio oldea sorrarazi zuen berriz ere. East Bengal klubari babes handiagoa eman zion demografia aldaketak, etorkinek partekatzen zituzten kultur identitateen baterazlea izateagatik. Mohun Bagan eta Mohammedan Sporting taldeekin batera askotariko talde nortasunen ordezkari gisara erroto izaki, Indiako futbolaren gizarte ikusgarritasuna eta ekonomia bideragarritasuna sustatu zuten. Herritarren gehiegizko atxikipena piztu ere muturreko egoeretan, galerak

ezin onartuta bere buruaz beste egiten baitzuten jarraitzaileek, edo European hasitakoaren antzera liskarrak eragin. Bitartean, Paul Dimeok eta James Millsek estu lotuta azaltzen duten Indiaren politika eta ekonomia bakantzearen eta hango kirola nazioartetik aldendu izanaren bilakaera gertatu zen XX.mendeko azken herenean. Hala, nazioarteko arrakasta lortzetik arreta urrunduta, eta lehia handiko neurketak, eta estatuen barruko txapelketak irabazi izateari garrantzia esleituta, erregio eta komunitate izaeren presiopean Indiako nazio identitateak jasandako zatiketa adieraz lezake futbol eremuan (Dimeo eta Mills, 2001: 166). Bat nator bi ikerlariok futbol eta estatu-nazioaren bilakaeraren elkarrekintza nabarmentzeko plazaratzen duten irudiarekin. Izan ere, 1930eko hamarkadan futbolearen sustraitutako nazionalismo aldaera zatitu zenetik, klubengatik atxikimenduek nazio interesak menderatu zuten (Bandyopadhyay, 2008: 388). XX.gizaldiko amaieran FIFAk bultzatutako Indiako nazio lehiaketaren egitasmoak ez zuen, ordea, begiz jotako emaitza eduki, hedabideek ahalbidetutako futbol globalizazioak erasanda hein handi batean, eta horrenbestez indiar futbola oro har, nahiz nazio taldearen eraginkortasuna ez dira sobera handitu. Ezin ahortzi futbolaren gaineko nazio atxikimendua eta futbol hamaikakoaren nortasun indar baterazlea taldea irabazlea izaten denean azaleratzen dela oroz gain.

2002ko Munduko Kopan Brasilek irabazi zuenean Kolkatakoko karriketara aterata ospatu zuten indiarrek milaka kilometrora jaiotakoaren garaipena berena eginez. Funtsean Mendebaldeko herrialde gehienek antzera Indian ere kirola aisialdi industria globalean txertatu dute, eta ildo horretan futbola masaren aisialdia bihurtu da globalizazio garaian, eta bertako kirolaren maila are gehiago ahuldu da FIFAk eginiko selekzioen mailakate zerrendaren beheko postuetan egokitzeraino. Indiar jarraitzaileek europar futbolaren ikusle sugartsuak izatea adierazten duten bitartean, oro har ere indiar futbola ahaztu dute (Bandyopadhyay eta Boria, 2005: 259). Horrela, bertako klubek babesleengandik geroz eta diru gutxiago jasotzen dute, eta futbolzaleek europar futbol txapelketetako neurketak ematen dituzten kable eta satelite bidezko telebista kateetarako harpidetzarako gehiago ordaintzeko prest dira. David Beckham futbolaria izar aski ezaguna da gaur eguneko Indian nahiz Bangladeshen, estatu horietan cricketa lehenesten badute ere. East Bengal eta Mohun Bagan taldeen arteko partidek, behinola gau osoan itxarote ilarak sorrarazten zituztenek, ez dute orduko aintzarik, eta telebistaz gutxi ematen dituzte. Hala, babesleek edo iragarleek hobesten dute Europako partidetak publikitate tarteetan dirua erabiltzea eskualdeko futbolearen inbertsioak mahaigaineratuz hura hauspotu beharrean. Esan liteke sortzez nazionalismoarekin parekatzean Indiako futbolak gorenko gailurra heldu zuela,

baina estatu berrien sorrerak gertatu zirenean, hots talde nortasunen arteko gatazka hein batean apaltzean, eta batez ere hedabideen bilakaeraz globalizazioak futbolari eragitean, behera egin zuela nabari, eta baita nazio nortasunak elikatzeko bere gaitasunak ere.

Indiar Ozeanoan kokatuta dagoen Sri Lanka uharteari dagokionez, AGSEP asiar eta alemaniar elkarlaneko GKE Gobernuz Kanpoko Erakundeak ISM kultur arteko kirol bilgunearekin kirolaren oihartzunaz etnien gatazka giroa amaiaraztea helburu hartu zuen 2007an. 1948tik da independentea Sri Lanka, eta 1956tik tamilen kontra diskriminazio neurriak hartu zituen sinhalesen gehiengoko gobernuak. 1976an gerra lehertu zen ipar-ekialdeko eskualdean independentzia aldarrikatu zuten tamil tigreen ekintzaile armatuen eta armadaren artean, eta 2009an gobernuak gailendu baldin bazen ere, auziaren zauriak itxi gabe dira. Amnesty Internationalen arabera, giza eskubideen egoera kezagarria da uhartean. Bada ataka horretan zortzi eta hamasei urte bitarteko haurrak eta sendikoak etnia ezberdinekoekin nahastu zituzten kirol ekitaldietan talde anitzak osatzeko. Helburu komunak partekatuz eta elkar ezagutzuz ezinikusia murriztea zuten xede antolatzaileek, eta futbola baliatu zuten besteren artean kirol horri aitortutako batasun indarra hobetsita. Nico Schulenkorfek dio kirol ekitaldiak erabiltzen dituztela botereek azpikomunitateen jariora oroz gaindiko komunitate osoan biribiltzeko (Schulenkorf, 2010: 278). Cricketak erdietsi du Sri Lankan etnia eta erlijio gainazalak gainditzea eta Sri Lankako nazioaren partaide izatearen sentipena une batez bederen sustraitzea, baina ekimenean parte hartu zutenek aitortu zuten antzerako sentipena bizi izan zutela orduan ere. Bateratze gailurra sortu zuen horientzat ekitaldiak, baina, ohi denez politikan aurrera pausoak eman ezeari kirolaren ekarpena murrizta izango da, erabat mendekoa, gizarte aldaketa lortzeko elkar ezagutzan oinarritutako abiatze aukera gutxietsi ezina den arren. Orokorrean ikerlariek adostasunez hartzen duten ikuspegia da, Nico Schulenkorf kirolaren balioaz diharduena.

3.3.4.6-Futbola Tibeten tradiziozko kulturarentzat mehatxua eta bere burujabetasunarentzat bitartekoa

Bestalde, XX.mendeko hastapeneko Tibetentzako bilakaerari dagokionean, Asian oro har nonahi bideratu ohi zuten helburu menderatzaileari jarraiki britainiarrek Tibetentzako kirola eta futbola baliatu zuten beren nortasuna gizarte horretan ere txertatzeko. Bazuten beste jomugarik ere, ordea, hau da, tibetarren artean nazioaren zentzua sustatuko zuten

sinboloak sortzea. Historia begiz joz gero, bazen tibetar identitate bereziaren osaerarik, besteren artean hizkuntza partekatuan, erlijioan, elikaduran, janzkeran eta oro har kultur ondarean oinarritua. Baina tibetar nazio nortasunaren zantzua edo abiapuntua lausoa zen artean. Herritarren atxikimenduak erregioari, herri buruzagiei edota sendiari lotuta ziren nazioari beharreen. Arrazoi pragmatikoak zirela medio zuten hainbeste irrika europarrek kontraesana irudi dezakeen nazio identitatea eragiten saiatzeko, eta tibetarrak nortasun horren baitako sinboloekin bat eginaraztea lortzeko. Tibetekin landutako harremanetan lehentasuna zen britainiarrentzat lurraldea muga egonkorra izan zedila britainiar-indiar inperioarentzat. Hala, Tibeten legezko izaerak gutxi kezkatzen zituen Asia erdigunean Britainia Handiaren arerio nagusia zen Errusiaren aurrean galdegindako segurtasuneko hesiaz hornituko zuen heinean (McKay, 2001: 96-97). Londresko gobernuak ez zeukan Txina haserrerazteko asmorik eta horrenbestez nazioarteko hitzarmenen baitan ez zuen Tibet estatu nazio independentea bailitzan aitortu. Dena dela, britainiarren ordezkariak herrialdeak norabide hori har zezan sustatu zuten aldi berean. Futbola nazio sentipenak bultzatzeko ez ezik bertakoekin adiskidetzea bideratzeko ere erabili zuten britainiarrek, lagunarteko partidak eginda. Politika helburuak zituzten oroz gain kirolaren ezarpenaz, eta 1944an Tibeteko Gobernuak berehalakoan ezabatu zuen arte futbola son handieneko atzerriko kirola izan zen. Monasterioetako botereak gizarte sistema eta egituretan gerta zitekeen aldaketa ororen aurkakoak ziren, euren abantailak erasango zituztenaren ikaraz. Indiatik joandako britainiarrek kolonialismo eta modernizazio gailutzat era kontzientean Tibetentz hedatu zuten tresna izan zen, eta hori hautemanda kendu zuen monasterioetako elite botereak.

Gaur egunean TAR Txinako tibetar erregio autonomoan ez da kirolik ospetsuena futbola. Euren kulturaren askotariko adierazpideak plazaratu ohi dituzte tibetarrek nazio nortasunaren ikurrak eta sinboloak bailiran, eta futbolak bertakoa ez den neurrian, ez du bere erabilera sustatzeko adina politika edo nazionalismo kutsurik. Txinatarrek halaber, aise ulertzeko moduko arrazoibideagatik, ez dute tibetar kirol taldeak sustatzeko inongo borondaterik, alegia, munduko herrialde askotan gertatzen den bezala, klubak gutxiengo nazionalismoaren sinbolo baterazleak bihurtuko ziratekeenaren beldur. Are eta gutxiago tibetar nazio taldearen sortzezko urratsei dagokienean. Indian aritutako jokalariai lehen aldiz Danimarkaren mendeko Groenlandiakoari jarki zitzaizkien 2001eko uztailak 28an Kopenhageko aldirietan jokaturako partidari. Futbol zelairik ez dago Groenlandia osoan, eta FIFAk ez du bere altzoan hartzen. Faroe Irlekin egiten duenaren antzera Danimarkak

nazioartean aritzea baimentzea desio du Groenlandiak. Partidaren ofizialtasunik gabeko adiera ere ez zuen onartu du Beijinek futbolaren ordezkaritza ahalmenaren adierazgarri. Groenlandiako taldeak 4-1 azpiratu zuen Tibetekoa, baina partidaren amaieran herrialde horretako kulturaz inguratuta zegoen zelaiaren barruan ohorezko itzulia eman zuten, eta 2008ko Beijingko Olinpiar Jokoen aurkako aldarria burutu ondoren. Ezin izan zuten lehia Danimarkako futbol elkargoaren jabetzako futbol zelaian jokatu, udal soropilean baizik, Txinak Groenlandiako otarrainskak inportatzeari uztearekin mehatxatu baitzuen. Hala, Hong Kong eta Taiwanen ordezkaritza halaberrez onartu egin behar ditu Beijingek, funtsean Txinarekin bat egin aurretiko aroan FIFArekin kide zirelako, baina ez du Tibeten nortasun burujabea aitortzen, kirolean bere independentzia politikoaren aitzindaritzazko sinboloa bailitza hartua izango zelako Pascal Bonifacek dioen moduan (2002: 69). Are gehiago, Tibeteko erbesteko futbol taldeak Taiwanen aurka jokatzeko aurreikusten zuten, hala nolako estatu nortasuna izanagatik Txinak etengabe beretzat aldarrikatzen duena.

Globalizazioak erasaten du Tibet, *The Cup* filmak azaltzen duen modura, Indian erbesteratutako monjeak beren monasterioko barealdia eten, eta Frantziaren eta Brasilen arteko 1998ko Munduko Kopa finala telebistaz ikustera bultzatu zituen (Norbu, 1999). Iranen pare, Tibeten ere modernitatearen ikurra da futbola. Hain justu, Alex McKayren esanetan, herrialdean tibetar nazionalismoaren zentzua indartu asmoz futbola sustatzeko britainiarren ahaleginak porrota eman zuen jokoa modernitate egitasmo zabalagoarekin uztartua izan zelako, zeinak elitearengandik eta monasterioetako botere eremuengandik aurkaritza nabarmena piztu zuen. Mendebaldeko berrikuntzak indarrean zegoen gizarte sistemarentzat mehatxutzat jo zituzten, eta eliteek arrakastaz egin zieten aurre. Hala ere, modernizazio eza Tibetek burujabetza galdu izanaren iturburuan dagoela iradokitzen du McKayk, eta ildo horretan estatu-nazio gisa aitortua izan zedin nazioarteko lehiaketetan arituko zen tibetar futbol taldeak gutxieneko ekarpena egin izango zukeela. Hala, futbol debekua tibetarrek galdutako abagunetzat definitzen du hark (McKay, 2001: 102). Zaila da futbolaren eraginaz tankera horretako zehaztasuna arrazoitzea, baina inondik ere hark sinesmena dauka, futbolaren gizarte sona ikertzen duten askotariko behatzaileei jarraiki, nazio nortasunak suspertu eta estatu-nazioen iragarle eta bultzatzaile bilakatu daitekeela.

3.3.4.7-Txinaren xedea ordezkaritza eta gizarte aldarrien artean

Txinatarrek futbol aitzindaria duela 5.000 urte Txinan jaio zela berresten badute ere, futbolaren aldaera garaikidearen lehen partidak 1890eko hamarkadan egin zituzten Britainia Handiko inperioa kudeatzen zuten militar indarrek eta salerosketan ziharduten komunitateetako kideek. Hong Kongeko itsas bazterretik hasita Shangai eta Beijingera, besteak beste barreiatu zuten ondoren futbola. Ekialde Urrunera lehenik Japoniara heldu zen, 1873an hain zuzen ere, britainiar itsas armadako buru L. Douglasek, gerra aholkuek gain, futbolaren arauak igorri baitzizkien bere ardurapeko soldaduei. Korean, britainiar itsas gizonak 1880ko urteetan zabaldu zuten kirola Incheon eta Seoul hirietatik abiatuta (Manzenreiter, 2008: 416). Nolanahi ere, itsas bazterretik europarrek futbola hedatzeko aginte egokiera baliatu eta gutxira Ekialde Urrunean AEB Ameriketako Estatu Batuen geroz eta eragin handiagoaren aurrean amildu zen europar kolonialismoa. Ildo horretan, amerikar jatorriko kirolek aise azpiratu zuten, beisbolak bereziki. Hala, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean ere Japoniako Inperioa eredu demokratikora aldatu zenean, Korea mendeko kolonia gerra zibilera bidean askatu zutenean eta Txinak nagusiki komunismo agintepeko nolakotasuna hartu zuenean, futbolak beisbolaren gaineko herri atxikimendu gainjartzailearen itzalpean jarraitu zuen. Hori horrela, futbolak ez zuen Mendebaldeko botere menderatzaileen eta kolonien arteko loturaren etorkizuneko izaera baldintzatzeko moduko tankerarik eskuratu, eta Hego Amerikan eta Afrikan gertatu zenetik berezi zen.

Gerra ostean 1949ko urrian Txinako Herri Errepublikak sortu izanak ere futbolari nabari eragin zion, kirolak erakunde egitura hartu, ogibide bilakatu eta politika tankera hartu zuelako. Kirolen osotasuna barnean hartzen zuen egitasmo zabalagoaren alderdia zen futbolaren erabilpena. Nortasun komunistako gobernu aginte berriak, beste zenbait eremutan gisara, presa zuen ahalik eta denbora murriztuz txinatar futbola munduko mailara parekatzeko. Guztiak ere politika funtsa zuen, munduko herritarren helmenera zabalduetako kirolak bereziki politika ideologiaren ospea, maila eta bizitasuna hedatuko zuketan modernitate adierazpenak izan behar ziratekeen (Jinxia eta Mangan, 2001: 81). Txinako Herri Errepublikaren historian kirola hobe uler liteke, Xin Xuk esana hobetsita, beste bitarteko batzuekin politikaren jarraipena bailitzan. Parte-hartze handia eduki zuen

kirolak komunismo ikusmoldeak gidatutako gizarte eraldaketan, eta hartara, berehaldiko funtzioa izan zuen estatu eta gizartearen arteko ubidean zubibidea egiten (Xu, 2006: 92).

Sobiet Batasunak eta Europa ekialdeko herrialdeek ildo horretan egindako futbol eta kirolaren erabilpena parekatuko zuen horrenbestez Txinarenak, baina nazionalismo funts are eta handiagoa izango zukeen, Dong Jinxiak eta J.A. Manganek diotenez. XIX. eta XX.mendeetan Mendebaldeko botereengandik jasandako umiltzeak ahaztu nahian eginiko areagoko erabilpenaz dihardute, zehazki esanda (Jinxia eta Mangan, 2001: 83). Dena dela, 1960ko ekonomia krisiak aurreko hamarkadan Asiaren baitan eskuratutako futbol eraginkortasuna eten zuen, eta Alderdi Komunistak ondoren burutu zuen kultura iraultzak areago kaltetu zuen, nazioarteko isolamendua babestu baitzuen eta bide batez kirol nagusien kontrako jokabidea hartu ere. 1.124 jokalaria eta 115 entrenatzaile futbol zelaietara sartu ezinik utzi zituzten, eta 1970eko lehen urteak iritsi arte ez zen pixkanaka berriro prestakuntza eta joko abiaturik. Horrela, 1974an Asiako Jokoen zazpigarren aldian parte hartu zuen Txinako komunismo joerako gizartearen ordezkariak Taiwanen auzia zela eta hamabost urtetan nazioarteko kirol ekitaldi nagusietatik bere burua bakandu eta gero. Taiwanek AEBen sostengua zeukan Gerra Hotz aroko Txina arerioaren kontra, eta baita ildo horretan, Nazioarteko Olinpiar Batzordean eta beste kirol erakunde gailenetan ere. Erdi bideko ebazpenaren gisakoa eman zuten bada Txinan bi ordezkari aitortuta, eta Beijingek haserretuta 1958an nazioarteko zortzi kirol erakundetatik irteteko erabakia hartu zuen, eta futboletik bereizi zen luzaroan. Ebazpenak erasan egin zuen futbolarekin bere buruaren berri emateko burutazioa. 1974an porrot egin zuen Asiako Kopako azken gailurretara sailkatzeko ahaleginetan, esaterako, eta atsekabea sorrarazi zuen gizartearen (Jinxia eta Mangan, 2001: 83). Kirol modernoek duten nazio ordezkari gaitasunaren aurrean makurtu ziren behin betiko txinatar gobernuak eta gizarteak. Izan ere, 1978.urtean Beijinek ekonomia eta gizarte pragmatismorako aldatu egin zion, eta futbol alorrean ere isla argia izan zuen. Hala, salerosketa, lehiakortasun eta kontsumitzaile kulturarako hausturan kirol komunitatea aurrealdean kokatu zen. Muturreko aldatuak gertatu ziren bere altzoan. Kirol klubak enpresa eta norbanakoen babes zabal txertatu zituzten. Estatuak kirolaz zuen kudeaketa erabatekoak bide eman zion estatuaren, erakunde publikoen eta norbanako pribatuen arteko babes bateratuari (Ibid., 84). Herrialdean barrena futbolaren sustapenak lehentasuna hartu zuen. Merkatu indarrek sozialismotik aldentuta egindako igarobidean geroz eta garrantzia gehiago hartzen hasiak ziren, eta klubak eredu hedatu zituzten nonahi 1988tik aurrera. Pribatizazioa ez zen erabatekoa jatorri publikoa zuten diru

iturriek babesten zituztelako oraindik futbol taldeak nolabait. Gobernuaren erreformen kontra atsekabea adierazteko aukera zen futbola Txinan ere 1988ko maiatzean jazotako liskarrek adierazten dutenez. Sichuan eskualdeko Nanchong hirian Polizia etxeak apurtu eta auzoei su eman zieten futbolean piztutako oldarraldiaren ostean. Gazte langabetuak ziren erantzuleak, erreformen baitan sortutako gizarte ezberdintasunen aurrean herriaren ezatsegina agertzea helburu zutenak (Ramonet, 1999a: 132). Wolfram Manzenreiterrek dioen moduan, Txinan eta Ipar Korean futbol estadioa da osterantzean zentsura jasaten edo debekatuak izaten diren adierazpen kritikoak publikoan agertzeko bermedun eremu bakarra (Manzenreiter, 2008: 424). Kontrako usteak askatasunez plazaratzea oztopatzen duten erregimenetan bereziki gauzatzen da futbolaren eta politika aldarrikapenen arteko uztarpena, harmailen babesean eta beste bitartekorik ezean.

Txinako nazio taldearen maila haztea izan zen gobernuaren ahaleginen uzta, eta 1982ko Espainiako Munduko Koparako sailkatzeko bidean Kuwaiti azkeneko neurketan irabazi izanak milaka lagun bultzatu zituen herrialdeko karrketan garaipena ospatzera, eta nazionalismo olatua altxa zuen txapelketarako sailkatzeko saioan porrot egin bazuen ere. Ekitaldi handienetarako bidean nazio taldeak erdietsitako garaipenek eta pairatutako galerek nazioaren arreta pizten zuten, harrotasuna hainbatetan, atsekabea askotan. Maila berean hazi zen bitartean hirien mailako atxikimendua ere, eta ildo horretan futbolzaleen indarkeriazko adierazpenak. Bartzelonako 1992ko Olinpiar Jokoetarako norgehiagokan futbol nazio taldeak berriro porrot egin izanak, eta sorterrian sortu zuen atsekabe giroak, herrialdearen ordezkari biziberritzeko moduko erabakimena hartzera bultzatu zuten Txinako futbol elkargoa. Ekimenetako batek zetzan etorkizun oparoa zuten futbolariak bertako ingurumenetik aldentzean. Hala, 1992an hamalau eta hamasei urte bitarteko 22 jokalaria aukeratu zituen federazioak herrialde osoko 500 futbolari gazte onenen artean, eta Brasilerara bidali zituen bost urteko aldirako. Jianli Bao Drinks Group izeneko babesle etxeak 1,66 milioi dolar bideratzea hitzeman zuen helburu horretarako. Egitasmoak argi plazaratzen du nazioaren futbol eraginkortasuna indartzeko Txinaren irrika bizia (Jinxia eta Mangan, 2001: 91). Munduko futbol arrakastatsuagoetatik ikasgaia erdietsi asmoz, 2000 urtearen amaiera aldera 60 atzerritar prestatzaile lanean ari ziren bertan. Txinaren ordezkari nazio duintasunez hornitzea zuten helburu. Entrenatzaileez gain, atzerriko futbolariak ere heldu ziren gainera. Horrez gain, emakumezkoen futbolari zegokionean, nazio taldearen bizi baldintzak ez zeuden ohi denez gizonezkoen luxuzko maila berean, baina euren arrakastak eta Txinaren izen ona zabaltzen lagundu izanak estatuarengandik

eta ekimen pribatuarengandik babes geroz eta handiagoa lortuko zuela iradokitzen zuen. Izan ere, Xin Xuri jarraiki, Txinako atletek, armadako soldaduen pare, Txina berriaren aintzaren alde nazioarteko eremuan borroka egitea espero zen (Xu, 2006: 92), emakume nahiz gizon izan, gudan defendatzen den nazio ikurraren kirol aldaera estadioa bailitzan.

Gizonezkoen nazioarteko futbol ezinaren arrazoia ezagutzeko askok herrialdeko kulturaren erroetara jo zuten, hein handi batean jokalaria hobeak zituzten herrialdeen uzta aintzat hartu gabe, eta kultur ondareak futbolaren gainean zuen eragina onetsiz. Txinatar futbola heldutasunik gabeko gaztaro aldia dagoela diote, ordea, Jinxiak eta Manganek. Globalizazioak eta merkatu ekonomiaren ezarpenak, herrialdearen biztanleria zabalari uztartuta, luze baino lehen Txinako futbolaren urrezko aldia gerturatuko dutela uste dute (Jinxia eta Mangan, 2001: 95). Bertan antolatutako 2004ko Asiako Kopa aukera egokia zen goranzko abiapuntua adierazteko, nazio taldeak irabazteko abagune gertagarria zuen eta. Beijingo finaleraino sailkatu zen bada, eta japoniar futbol ordezkari izango zuen aurkari. Inondik ere partidaren esangura irabazteko aukeraren haratagokoa zen, Japonia eta Txinaren arteko sakoneko historia eta politika etsaigoaren zama aintzat hartuta. Izan ere, XX.mende hasieran Korearen gainean kolonia menderakuntza ezarri izanak gerora herrialde horrekin askatu gabeko oroitzapena betikotu bazuen, Bigarren Mundu Gerrako gomuta gaur egunean ere japoniarrei egotzi beharreko zauria da txinatarrentzat, eta era horretara islatzen da futbol eremuan. Txinatarren aburuz, japoniarrek ez zuten inperioak gerra garaian eginiko hilketengatik barkamenik eskatu, eta ez zituzten gutxieneko kalte ordainak helarazi ere. Areago, Tokioko agintariek gerra kriminalak ere ohoratzen dituen Yasukuniko gerra oroitarria eginiko joanaldiak deitoratzen ditu Txinak, eta baita eskuin muturraren hazkundera ere. Diaoyu Uharten gaineko eskuduntza bi herrialdeen gatazka iturri garaikidea da, bestalde. Horrela, futbolaz gaindiko giroak inguratu eta baldintzatu zuen hain justu ere Txina eta Japoniako futbol taldeen arteko finaleko norgehiagoka, eta lehiaketaren izaera orokorra. “Historiari erreparatu eta barkamena eskatu asiar jendeari” eta “Diaoyu Uharteak itzuli” gisako mezuak agertu zituzten txinatarrek, horren lekuko, japoniar kirol ordezkariaren aurrean, eta bide batez, futbolari hedabideen bozgorailuek eskainitako oihartzunari jarraiki, Japoniako gizarte osoaren helmenaren aurrean. Partida orotan txinatar jarraitzaileek atarian japoniarren ereserkiari, eta ondoren, futbol taldeari txistu eta oihu egin zieten (Manzenreiter, 2008: 423).

Japoniako lehen ministro Junichiro Kaizumik agerpen publikoan txinatar zaleei galdegin zien japoniar jokalariai abegi hobez hartzea, eta Atzerri ministroak ohartarazi zuen futbol zale txinatarren jarrerak bi herrialdeen arteko harremanak kaltetu zitzakeela. Txinako japoniar enbaxadorearekin batera futbol ekitaldira joandako herrikideen kontra agertutako portaeragatik eta beren herrialdeko sinboloen aurkakoagatik, protesta igorri zion antolakuntzari eta Beijinggo gobernuari. Tokioko hainbat politikariek zalantza jarri zuten Beijingek hartu zuen 2008ko Olinpiar Jokoen ardura ongi betetzeko prest zegoela. Bada abuztuaren 4an Japoniako Gobernuak ofizialki kexu agiria igorri zion Txinakoari, eta zaleak kontrolpean izan zitzala galdegin zion. Beijingen jendaurreko erantzuna izan zen muturreko jarraitzaileen jarrera salatzearena. Liskarra eragiten zutenak gutxiengoa zirela nabarmendu zuen ostera, eta japoniar hedabideak kritikatu egin zituen arazoa zena baino handiagoa agertzeagatik (Lee, 2009: 196). Diplomazia parte-hartze oro eta 6.000 segurtasun indarretako kideen erabilpena ez ziren aski izan Txina antolatzailearen nazio taldeak Japoniakoarekin 3-1 galdu ondoren oldartutako etxeko jarraitzaileek estadioaren kanpoaldean Poliziari aurre egitea eragozteko. Partidan japoniar zaleei botilak eta beste hainbat gauza jaurti zituzten, eta ozen oihukatu zituzten harmailetan kolonialismoaren aurkako askapen gerran zabalduko japoniarren kontrako abestiak (Manzenreiter, 2008: 423). Futbolak hondoan zegoen auzia indartu zuen adiskidetu gabeko estatu-nazio bana ordezkatzeko zuten bi talde aurrez aurre alderatuta. Funtsean nazio nortasunak bizitu ez ezik bien talka hauspotu zuen futbol kitzikadurak eta ordezkaritza gaitasunak, nagusiki txinatarrek salatzen zuten hedabideen bitartekaritza funtsezkoarekin. Nazio auziak nahiz politika futboletik munduko edozein zokotan bereizi ezinak direla berresten du jazoerak.

Txinaren irizpidetik futboleko mundu mailan gertatu ohi diren liskarrak kontuan hartuta zaleek ohiko jarrera izan zuten, eta arestian aipatu bezala hedabideek gehiagotu zuten arazoa izan zen, hots, kirola eta politika nahasi zituzten. Txinako Atzerri ministro Kong Quanekek deitoratu zuen japoniar politikariek eta hedabideek lotura hori egin izana. Japoniarrek bestalde, antzerakoa leporatzen zieten bizilagunei, Beijingek eta ekitaldiko antolakuntzak oro har Asiako Kopan gertatuaz egindako kudeaketa desegokia arbuaiatuz. Wolfram Manzenreiterrek dioenari jarraiki, harmailetan azalduko japoniarren aurkako ihardespenak ez ziren ikusiak izan orainaldiari eragiten zion iraganari uztartuta baleude bezala, botereko eliteak nazioaren kohesioa sustatzeko eta gizarte txinatarraren barneko ezberdintasun geroz eta handiagoak estalarazteko erabilitako hezkuntza nazionalistaren eraginpekoak baizik. Japoniarren aurkako sentipenak eragiteak gobernuari ahalbidetzen

zion bere politiken gaineko kritikak aldentzea eta boterea menderatzea, bere herritarren haserrea arerio nagusiarengana zuzenduta, hots, Japoniarengana (Ibid., 424).

Bestalde, 150 urtetan britainiarren mende egondako Hong Kong hiriarentzat, 1997an Txinaren jabetzara itzuli zenarentzat, kirolean oinarritutako nazionalismo izaera egokia zen bertako herritarrentzat behetik gorako nazio atxikipena ahalbidetzen zuelako. Honela arrazoitzen du Francis L.F. Leek. Nahiz eta Hong Kongeko txinatar nazioaren gaineko atxikimendua geroz eta handiagoa izan, nazionalismoaren inguruan ez zeukaten hausnarketarik gabeko berehalako adostasunik. Hori horrela, kirol modernoaren balioak eta arauak baliatzen zituzten hango herritarrek zentzua ateratzeko eta sentipenen beraien egiturak berriz antolatzeko. Leeren esanetan, kirol nazionalismo zibilizatuaren abagunea hiriaren muineko balioak baztertzeke abertzale izatearen egokiera zen (Lee, 2009: 205). Asiako Koparen gisako ekitaldiek norabide horretan lagunduko zuten, Txinak antolatua izaki baterazle indarra izateagatik. 2008ko Olinpiar Jokoen hartzaile izateak biribilduko zuen norabide hori. Beijingeko jokoek aukera franko eskaini zizkieten txinatarrei David Schragek komunitatearen osotasuna deritzon taldeko bizipena irudikatu eta hautemateko (2009: 1088-1089). Lehenago, 2002ko Munduko Kopan, Txinako Alderdi Komunistak futboleko nazio taldearen jokoaren inguruko kritikak botereari buruzko ezadostasunezko kritikak bailiran har zitezkeela konturatuta, gutun bana igorri zien hedabideei taldearen jokoari kritikarik egin ez ziezaioten (Alcaide Hernandez, 2009: 45).

Beijingeko 2008ko Olinpiar Jokoen agente ereduarekin bat egingo zukeen gizarte zibila sortzeko aukera ziren estatuarentzat. Irekiera ekitaldian militarren handikeriarekin batera XX.mendeko bigarren zatia desagertarazi zuten irudikatutako nazioaren narrazio dramatikotik, nazioaren iragana berregituratuz. David Schragek arrazoizko eran azaltzen du Txinak historiako ataka horretan botere bigunaren teknologia gisara sustatu beharra zuela nazio ideologia, hau da, estatu nazioarekiko identifikazio berezko eta zabalagoan onargarri bilakatuko ziren estatu propaganda formak aurkitzean. Hain zuzen ere, masa kirol ekitaldiak Txinarentzat nazio atxikimendua hedatzeko abaguneak dira, ez bakarrik irekiera ekitaldian nazio bandera zerura igotzen duten soldaduen irudiaren tankerakoak ekoitzita, baita marka marketinga bezala nabarmentzen duenarekin, herritarren berezko banderaren haizatzea bideratuta (Schrag, 2009: 1096-1097). Hala ere, hiritarrek bandera astintzean erabat hertsu gabeko ospakizunen beldur zen gobernuak, gehiegizko atseginak agente zurrunaren mugak gaindituko zituenaz ikaratuta. Xin Xuk gizarte ikerlariak ados

dauden herrialde hartzailearen kirol ekitaldiaren onura gardenki adierazten du: “Olinpiar Jokoak eta Munduko Kopa bezalako kirol ekitaldi eskergak elitezko atletek gailentasun fisikoaren eta bikaintasun lehia nazioak ordezkatzeko dituzten erdigunezko antzeztokiak bihurtu diren neurrian, estatu nazioak hornitu dituzte mundu mailan zilegitutako nazio nortasunak eta kulturak aurkezteko eta sustatzeko bidez; oroz gain egitatea da herrialde hartzaileei dagokienean” (Xu, 2006: 90-91). Schragek dioen moduan, Olinpiar Jokoak hartze hutsarekin, demokrazia liberaletan oro har baimendutako gizarte zibilaren alorren eta jendaurreko protesten gabezia zuen herrialdeak gutxienez gizarte zibilaren itxurakoa irudikatze gaitasuna zeukan nazio adierazpeneko antolatutako drama espontaneoaren bidez (Schrag, 2009: 1097). Berezko atxikimendua hala nolakoa eta oroz gain estatutik zuzendua izan zen heinean, Beijingeko Olinpiar Jokoak ez ziren nahikoa izan nazioaren geruza zabalak txinatar nazioarekin identifika zitezten. Futbolarekin eta oro har kirolaren bidez, elitearen nazio ereduarekin herritarrek bat egitea du helburu Txinako Gobernuak funtsean, eta adierazpen espontaneoaren gabezia goitik osatzen ahalegintzen da. Hala ere, herritarren parte-hartzea bideratzen duten heinean, kirol ekitaldiek eliteak maite ez duen politika eta gizarte aldarrikapeneko alderdia ere badute, orduan, gainera, berez sortutako ekimena izaki. Estatuaren eta gizartearen arteko atxikimendu zubibidea bihurtuko bada, ezinbesteko ezaugarria izango da hori ere. Halaber, nabarmentzekoa da mundu zabalean eta nazioarteko harremanetan Txinaren nortasuna hauspotzeko eta aginte eredu zilegitu asmoz zeregin nagusia esleitu diola herrialdeak kirolari eta futbolari, geroz eta gehiago.

3.3.4.8-Bi estatutan zatitutako Korea nazio antzinakoaren adiskidetzaz: futbola bereizteko eta elkartzeko erabilia

Korear zibilizazioa oinordetza zaharrena dutenen artean da. 5.000 urte inguruko aintzintasuna dauka. XX.gizaldiko gertakizunek neurri handi batean baldintzatu zuten bilakaera garaikidea. 1910etik 1945ean Bigarren Mundu Gerra amaitu arte, japoniarren menderakuntzak lehenik, eta ondorenean, amerikar eta sobietar irabazleek, gizartea, ipar eta hego, bitan zatitu izanak bestetik, Gerra Hotzaren abiatzean bi estatu aski bereizituen sorrera eragin zuena: Koreako Errepublika hegoaldean, AEBen gizarte eta ekonomiaren ikusmoldeari lotua, eta Herri Korear Errepublika Demokratikoa iparraldean sobietarren eraginpean. Bada, 1948ko udan milaka urtetako zibilizazioa bi estatutan erkatu egin zen, eta etsaitutako ideologiei jarraiki gizartea ere sakonean banatu zen hegoaldeko 48 milioi

biztanleen eta iparraldeko 23 milioi herritarren artean. Biek ala biek beren burua jotzen zuten korear zibilizazioaren oinordeko zilegi bakartzat. 1950eko ekainaren 25ean Hego Korea indarrez menderatzen ahalegindu zen Ipar Korea bere apetari jarraituta batasuna burutu nahirik, baina hiru urte iraun zuen guda garailerik gabe bukatu zen, eta bakerako itunik hitzartu barik. Bien artean militarretatik salbuetsitako esparrua hitzeman zuten 38. paraleloan, eta orduz geroztik irudikatutako muga horrek aldendu ditu. Gerra Hotzaren munduko etsaigoaren gune adierazgarrietakoa bilakatu zen horrela, eta hori amaitzean ere ez ziren hamarkada askotan sustraitutako alderaketak itzali, historiaren abagunea eraldatu izanak bi aldeen arteko erabakimen baikorragoa ahalbidetzen bazuen ere. Hala, aurrerantzean kirol ekitaldiek oro har, eta futbolak nagusiki, garrantzia handia hartuko zuten harremanen hurbiltzea bideratzean. Iparraren eta Hegoaren arteko kirol topaketen areagotze eskergak kirol diplomazia erabilpen garaikidearen izaera aldakorraren gainean hausnartzea eta bere eraginkortasuna neurtzea bideratzen du Udo Merkelek argudiatzen duenez. Norbanakoen arteko harremanetatik haratago kirol ekitaldien sinboloen baitako oihartzuna elkarriz politika mezuak bidaltzearen gaitasunean datza (Merkel, 2008: 292). Ildo horretan, bi estatuen artean kirola atzerri politika modura erabili izana harremanen onbideratzearen alde egindako hautuaren isla litzateke, eta bien arteko kirol ekitaldiekin etnia lotura irmoen eta kultur oinordetza partekatuen ospakizuna egiteak publikoaren diskurtsoan ezarri du artean zerumuga berantiarrean dirudien batasunaren auzia gainera.

Izan ere, Guy Podolerrek kaleratutako arrazoibidea hausnarketa egokitzen hartuta esan beharra dago futbolak Koreako estatu bakoitzeko nazionalismo eta politika ekimen ezberdinak islatzen dituen bitartean, era berean zatitutako nazioak kirola baliatzen duela partekatutako aberri emozioak eta harrotasuna besteen aurrean jarki asmoz plazaratzeko. Ildo horretan etnia nazio bakarraren zantzua bermatzeko abagune bakanetakoa emango luke futbolak (Podoler, 2008: 2). Urteotako ekitaldietan bi estatuetako korear kirolariak irekiera ospakizunetan beren burua ordezkari beraren baitan agertu izanak eta geroari begira batera lehitzeko gurariak hori adierazten dute. AEB Ameriketako Estatu Batuen helmenak XX.mendeko hasieratik futbolaz gaindi Ekialde Urrunean beisbola gainjarri bazuen ere, futbola luze baino lehen nazionalismo ekinari atxiki zitzaion hunkipenezko sinboloa izan zen, 35 urte iraun zuen japoniar inperioaren kolonia menderakuntzan hain justu ere. Japoniak Mendebaldeko kolonizazio eredu berdindu zuen heinean, kirolaren baitako etsaigoak esanguratsuak bilakatu ziren Japoniaren eta haren mendeko Korearen eta Txinaren hartuemanak sinbolikoki agertarazteko (Manzenreiter, 2008: 416). Halaber

korearrek Mendebaldeko kultur ideia eta jardunak bereganatu zituzten estatu burujabea eta arrakastatsua eraikitzeko, eta ekinean kirol moderno berebiziko alderditzat jo zuten; sustraitu egin zen beraz (Podoler, 2008: 2-3). 1920ko hamarkadan nabarmendu egin zen Japoniaren kirolaren gaineko arreta nazioarteko onspena erdietsi asmotan eta barneko kohesioa ziurtatzea helburu hartuta. Kirolaren bitarteko nazio ordezkariaren talkaren ezinikusia une gorenera 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoetan heldu zen hartara. Kiroleko nazionalismoaren adibide adierazgarritzat azaltzen du Podolerrek, eta argudioa gardena da inondik ere. Son Gi-jeong korearrak irabazi zuen Japoniaren izenean urrezko domina maratoin, eta jatorri bereko Nan lasterkariak brontzezko domina erdietsi zuen gainera. Japoniar izenarekin eta soinean herrialde horretako banderarekin lasterka aritzea behartu zituzten biak ala biak eta euren garaipenaren omenez japoniar ereserkia entzutean zutik jarrita doinuok ohoratzea. Gerora, estatuak bere mendeko koloniaren gazte ordezkarien garaipena ospatzen zuen bitartean *Dong-A Ilbo* izeneko korear kazetako argitaratzaileek argazkia moldatu zuten sari banaketan japoniar banderaren zantzurik gabe agertzeraino. Aberri berraxikipenezko ekintza hori berehala zigortu zuen kolonia aginteak, egunkaria behin-behinean itxi baitzuen (Manzenreiter, 2008: 416). 1936.urteko Olinpiar Jokoetako futbol lehiaketan japoniarrek suediarren aurka 0-2ko galera irauli egin zezaten Koreako futbolariak eginiko lan ezezagunagoa ere oroitzekoa dela dio Wolfram Manzenreiterrek. *Berlingo Miraria* bailitzan batailatuta zuten ordukoan japoniar taldearen futbol lorpena.

Bada, 1920ko eta 1930eko hamarkadetan, hau da, Bigarren Mundu Gerrak eten zuen arte, futbolarik adiera nagusia izango zuen korearrentzat japoniar taldeei gailentzen zitzaizkien eremua zelako eta nazio prestigioaz hornitzen zituelako. Japoniak burututako asimilazio politikaren testuinguruan nazionalismo harrotasun iturburua zen futbola Guy Podolerrek dioten moduan, eta baita kolonia agintearen aurkako erresistentzia sinboloa ere (Podoler, 2008: 3). Japoniar arerioei jarkitzearen atarian hau ohartarazi zien korear entrenatzaile batek bere gidaritzapeko jokalariei: “Ez zaudete soilik futboleko jokatzen. Korear jendearen independentziaren alde borrokatzen ari zarete” (Ibid.). Hartara beraien nortasunari eusteko egokiera zuten korearrek kirolean oro har eta futboleko alderaketan neurri handi batean. Pascal Bonifacek dioten moduan, eta munduko hainbat zokotan sarri hauteman dugunez, 1910 eta 1945 bitarteko japoniarren okupazio aldirian futbol estadioa zen nazio sentimendua kanporatu zitekeen eremu bakanetako bat (Boniface, 2002: 146). Horrez gain, AEBek Japoniako inperioa Bigarren Mundu Gerran garaitu zutenean, eta Koreak bi estatu ezberdindutan bazen ere burujabetasuna berreskuratu zuenean, futbolarik

bere gain gailentasunezko funtsa izaten jarraitu zuen. Wolfram Manzenreiterren ildoari jarraiki, behinolako menderatzailearen aurka eta Txina lehengo gerrako etsaiaren kontra jokatutako kirol demek erritoen eremuan behinik behin bideragarri egiten zuen inperio agintea eta gerrak arrazoibidezkoak bihurtu zituzten kultur gailentasunezko eta politika gorentasunezko aldarriak ezerezteko aukera. Nazio irrikak bideratzeko duen gaitasunean gerraren pare errito bihurtutako borroka bailitzan deskribatua izan dela gogorarazten du Manzenreiterrek (2008: 417). Etengabe berretsitako ikusmoldea da, inondik ere, horixe.

Alde batetik, Hego Korearen ildoari dagokionean, Syngman Rhee presidentearen agintearen lehentasun gailena Koreako gerrak utzitako gizarte eta ekonomia zauriei buru ematea zen, eta horrenbestez futbol lehiakortasuna bizitzen ez zuen sustapenik egin. Ez du esan nahi, ordea, kirolaren politika funtsaren aurrean itsu zegoenik, politika bitarteko gisa erabili baitzuen 1950eko hamarkadan gerrak eta nazionalismoak girotutako garaian. 1954ko Suitzako Munduko Kopan lehiatuko zen taldea erabakitzeke Japonia eta Hego Koreako nazio taldeek joan etorriko sailkapen neurketa jokatu behar zuten, baina Rhee presidenteak hiru hamarkadako Japoniaren menderakuntza oroitarazita menderatzaile ohiaren aurkako jarrera barreiatu zuen eta ildo horretan eragotzi egin zuen estatu horren futbol ordezkaritza Hego Korea bertaratzea. Futbolaren, politikaren eta nazio muineko sentipenen arteko lotura estua arbuizaten dutenen ekimena eta hein batean arrazoibidean oinarritutako asmo ona kolokan jarriko zukeen gertaera horrek ere, futbol zelaiko jokoaz askoz haratagoko agintarien erabakimena bultzatu zuelako. Bada, bi neurketak Tokyon jokatu zituzten, eta lehenengoan 5-1 gailendu ostean eta bigarrean bina berdindu eta gero, nazio heroien pare itzuli ziren sorterrira futbolariak. Areago, *Korea Times* izeneko kazetak gogorarazi zuen moduan (cfr. Podoler, 2008: 4), jokalariek Rhee presidentearen ohartarazpenari men egin zioten, alegia, irabazle gisara itzultzea edo osterantzean beren burua Ekialdeko Itsasora bota zezatela. Munduko Kopan jokatutako bi norgehiagoketan porrot handiak jasan zituen Hego Koreako ordezkaritzak, baina 1960. urteko Erromako Olinpiar Jokoetako futbol ekitaldirako sailkapen lehian eta 1962ko Txileko Munduko Koparako bidean Japoniako ordezkaritza azpiratu zuen berriz ere, eta bide batez ekitaldi horietarako sarbidea ziurtatuta nazioarteko laudorioa erdietsi. Aldi horretan jokatu zuen estreinakoz Japoniako talde batek Koreako lurraldean, hegoko Seoulgo hiriburuan hain justu artega zen giroan, eta Rheek dagoeneko agintea utzia zuela. Bada Park Chung Hee izeneko jeneralak estatu kolpea emanda eskuratu zuen boterea, eta 1965eko itunarekin biribildu zen Japoniarekiko hurbiltzea burutu zuen, Hego Koreako ekonomia suspertzea

ahalbidetu zuena. Parkentzat kirolak berebiziko garrantzia zeukan atleta arrakastatsuen bitartez nazioaren izen ona atzerrian goratzeko eta baita ildo berean muge barruan ere bere militar agintea zilegitzeko (Podoler, 2008: 5). Halaber, 1980ko hamarkadan Chun Doo Hwan izeneko jeneral ohiak zortzi urteko agintaldia ezarri zuenean, eta gero Hego Koreak demokraziarako pasabidea hasi zuenean, kirolaren eta gobernuaren arteko lotura mantendu zen, ekonomia hazkundearekin batera Hego Koreako kirolaren arrakasta piztu zuena. Gerra Hotzean oro har nazioarteko kirol ekitaldiek korear nazioa banatzen zuten bi estatuentzat ideologia guda eremua egokitu zuten, non arestian aipatu denez, biek ere korearren egiazko ordezkariak euren gain izatea aldarrikatzen zuten. Bestearen kiroleko ordezkariarekin topo ez egiteko nazioarteko ekitaldietan ez parte hartzea hautatzeraino edo elkarri jarkitzen ziotenean muturreko etsaigoa sortzeraino (Merkel, 2008: 296-297).

Izan ere, Hegoaldeak ez ezik Ipar Koreak ere lehentasuna esleitu zion futbolari eta bere politikaren mendeko egitekoari. Munduko Koparen lehen galbahea igarotzen zuen estreinako Asiako selekzioa izan zen Ingalaterrako 1966.urteko Munduko Kopan final laurdenetaraino iritsita, eta 2002ko Munduko Kopa arte korear futbolaren mugarría jarri zuena bide batez. Ipar Koreako jokalariei nazio heroiak bailiran egin zieten harrera, eta titulu erako onespén ofiziala emanda ohoratu egin zituzten. SESB Sobiet Batasunak eta Europako ekialdeko herrialdeek ohi zuten, sozialismoaren sisteman lerrotutako Koreako estatuak ere berebiziko arreta bideratu zuen nazioarteko kirol norgehiagokekin erregimenaren zilegitzeari. Ia bost hamarkadetan Ipar Koreako buruzagia izan zen Kim Il Sung agintari gorenak jokalariei harrera egin zen Ingalaterrara joan aurretik eta futbol europar nagusitasuna amaiazteko partida bat irabaztea galdegin zien. Ri Chan Myong atezainak era honetara hezurmamitu zuen gerora demaren izaera: “Gol bat sartzea uzten banuen Ipar Korearen izen ona beheratuko zen. Agintari gorenaren eginbeharrean huts egingo genukeen. Ondorioz atea nire bizitza jokoan balego bezala defendatu nuen” (Cfr. Podoler, 2008: 10). Laudorioz mamitutako harrera beroa eduki izanagatik, Ipar Koreako iheslarien lekukotzak adierazten du futbolariak ere sistemaren muturreko nolakotasuna pairatu zutela, alderdiko eledunen aurkako jazarpen aldiaren erdian harrapatu baitzituen itzulerak, eta futbolarietako gehienak kartzelan sartuak edo landa eremuko inguruneetan lan nekezak egitera lekualdatzera behartu zituztelako. Portugalen aurka galdu izanaren atarian emakumeekin ospakizuna egin izana egotzita ikerketa abian jarri zuen ordukoan Ipar Koreako Gobernuak. Selekzioak ez zuen aurrerantzean 1966ko lorpena berdintzea lortuko, baina nazionalismo eta politika irrika hunkigarriak sortzeko Munduko Koparen

eginahala ez zen itzali. AEBetako 1994ko Munduko Koparako sailkatze bidean porrot egiteagatik Kim Jong II agintariak jokalaria eta entrenatzailea zigortu zituen, eta behar besteko gailentasunaz estatua nazioartean ordezkatzeko gai izan arte Munduko Kopako neurketatik bakantzea agindu zuen. Horrela, 1998ko Frantziako ekitaldirako eta 2002ko Hego Koreako eta Japoniako Munduko Koparako sailkapenetan ez zuen parte hartu Ipar Koreako futbol ordezkariak. Bestalde, 1990eko hamarkadan abiatuta emakumezkoek hartu zuten futboleko oinarritutako nazionalismo harrotasunaren gidaritza, 2001ean eta 2003an, besteren artean, Asiako Futbol Txapelketa irabazita. Munduko talderik onenen artean egokituta izaki, aintzat hartzekoa izango da emakumeen taldeak ere gizonezkoen ildotik nazionalismoaren historian txertatzeko ahalmena izango ote duen begiztatzea.

Seoulgo 1988ko Olinpiar Jokoek Hego Korearen industria ekonomia hazkundera erakutsi zuten eta baita militarren diktaduraren amaiera agertu ere. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak Seouli ekitaldiaren antolaketa esleitzeko mahaigaineratutako argudioetako bat izan zen Ipar Korea eta Hego Korea gerturatzeko ibilgua elikatuko zuela. Kirolaren Arkadiako nortasuna defendatzen dutenak, hau da, politika eta nazioarteko harremanak lehiaketa garbitik bereizi behar direla diotenak alderatzen ditu, ustezko xede baikorrekin bada ere, Olinpiar Jokoak zatitutako nazioa biltzeko erabili izanak. Ipar Koreak boikota ezarri zion ekitaldiari gainera. Kirola nazioarteko harremanen baitan erabiltzearen beste aldaera nagusia agertarazi zuen bide batez. 2002ko Japonia eta Hego Koreako Munduko Koparen biko hautagaitza arrazoitzean ere FIFAk argudiatu zuen ekimen bateratuarekin bi herrialde hartzaileak adiskidetzen lagundu zezakeenaren itzaropena zuela. Helburua erdietsi ote zuen geroagoko gogoeta izango da, baina nabarmentzekoa da Ipar Koreako estatu prentsak aldizka Hego Koreako selekzioak 2002an izan zuen arrakasta handiaren tamainaren berri eman zuela, zeina, Udo Merkelek (2008: 292) zioen moduan, politika ezberdintasun sakonak gaintzen zituen nazionalismoko adierazpide berriztatzailea zen. Areago, Ipar Koreako futbol elkargoko buruak Hego Koreakoari zorion mezua helarazi zion 2002ko Munduko Kopan final erdietaraino sailkatuta izan zuen arrakastagatik, eta korear nazioaren gailentasunaren isla zela nabarmendu zuen. 1966. urteko Ipar Korearen lorpenarekin berdindu zuen gainera, eta bi mugarriok herrialdearen bat egitearen bidean konfiantza iturri zirela goraiatu zuen (Cfr. Podoler, 2008: 13). Horrez gain, zaleengan ere sustraitu zen anaitasun pentsamoldea, Hego Koreak Italiaren aurka irabazitako final zortzirenetako partida 1966an Ipar Koreak garaitutakoarekin parekatu baitzuten *berriro 1966* gisako mezuak futbol zelaian irudikatuta, eta estatuen arteko bereizketa alboratuz.

Japoniaren mendeko kolonia garaiari eskainitako Koreako erakustoki handiengan, hots, Independentziaren Aretoan, *Deabru Gorriak* zeritzen Hego Koreako futbolarien irudia kokatu zuten, 2002ko abertzaletasunarenugarra orduko askatasun aldarrien antzerakoa zela iradokitzeko. Politika borrokaren gomuta eta futboleko mugarría maila berean jarri zituzten bada nazio osan funtsezkoa den iragan aintzatsuan antolakuntzan. Halaber, hamarkada askotan iparreko nazio kidearen ideologia gorrotatua ezaugarritu zuen kolore gorriaren inguruko erdeinua gainditu zuen Hego Korea futbolaren bidez. Podolerrek dioenez, estatuak bultzatu zuen aldaketa *Deabru Gorrien* ikurra maiz erabilita. Kolonia aroko Koreako nazio taldearen oinordeko zilegia zela aldarrikatzen zuen bitartean, Ipar Koreako *deabruaren* gaineko herri hautemateak eraldatu egin zituen (Podoler, 2008: 8). 2002ko Munduko Koparen ondorengan, irailean, Koreen arteko batasun partida jokatu zuten Seoulen, eta jokalariek batasunaren bandera eraman zuten elkarrekin. Diplomazia arazoak saihesteko debekatu egin zuten estatuaren bandera bereziak haizatzea.

XX.mende amaieran eta XXI.mendea abiatzean Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko hartuemanak hobetzen hasi ziren. Gerra Hotzaren aroa amaitua zen jadanik, biko ideologia mundua ere bai, eta Hego Korea hazten ari zen bitartean Ipar Korea amiltzen hasi zen Sobiet Batasuneko babes ahitzean. Kim Dae Jung Hego Koreako presidentea Pyongyang Iparraldeko hiriburura Kim Jong II agintariarekin biltzera egindako historia gailurreko gomuta zuen bisitaldiak azaltzen du harremanen hobekuntza, eta kirolean era berean, Sydney 2000ko, Atenas 2004ko, eta Beijing 2008ko Olinpiar Jokoetako irekiera ekitaldietan, besteak beste, bi ordezkariak batasunaren banderapean elkarrekin agertu izanak. Nolanahi ere, esan liteke hein batean kirola adiskidetzeko bidearen abiatzean aitzindaria izan zela, alegia, gerora politikaren alderdian emandako pausoak ahalbidetu zituela. Gizartearen isla izan ez ezik, besteak beste, batasun aldeko joeraren bideragarria gertatu zen. Udo Merkelek dioen moduan (2008: 291), nazioarteko kirol neurketak bide zuzenak dira bakantze egoera arintzeko, eta ondorioz, hartuemanen lehen urratsa bailiran arintzeko ordu artekoak gabeziazkoak izan direnean. Diplomazia aurrekaritzaren adibide dira, esaterako, AEBetako borroka libreko kirolariak Irango nazioarteko lehian aritzera 1998an eginiko bidaia, eta Indiako cricket taldeak hamabost urtetan lehen aldiz 2004an Pakistanera burututako bira, politika hitzarmenen inguruan txertatu zena. Guy Podolerrí jarraiki, Koreako futbolaren nazionalismo eta politikaren aldarria baldintzatu dute estatu bakoitzaren berezko historiak, ezaugarriak eta interesak (Podoler, 2008: 12), eta estatu auziak eragin izan du beti ere futbolaren bilakaera. Modu horretan, XX.mendearen eta

XXI.mendearen arteko igarobidean nazio berdinen partaideak diren bi estatuen arteko elkartasun borondatea agertzeko eta artega iturriak murrizteko lehenetsitako zeregina hartzen hasiko zuen, sinbolikoki harremanak onbideratzekoa, horrenbestez.

Hori horrela, 1990.urteko urrian jokatu zuten bi belaunaldiko zatiketaz geroztiko joan etorriko adiskidantzazko lehenengo neurketa 38.paralelo irudikatuaren segurtasun tartearen alde banatako bi taldek. Horrez gain, 1991ko ekainean Portugalgo hogeitaz azpikoen lehiaketarako futbol talde bateratua osatu zuten korear estatuetako futbolariak batasunaren banderaren azpian. Biak ala biak NBE Nazio Batuen Erakundeko erabateko kide gisa aitortu zituzten giro horretan, eta beste aldi bat iragartzen zuten ituna hitzeman zuten adiskidetzeari buruz, bortxa ez erabiltzeaz eta elkarkidetzaz 1991n. Are gehiago, Kim Dae Jung Hego Koreako presidentek *eguzki argia* zeritzon Ipar Koreari begirako egitasmoak bi estatuen arteko hurbiltzea areagotu zuen. Bakearen Nobel saria jaso zuen agintari horrek 2008 arte iraun zuen baretze eta adiskidetze politika ildo ezartzeagatik, eta Hego korear aberatsenek gogosez jotako Iparraldeari laguntzeko inbertsioak egin zituzten oraindik burutu ezina dirudien bat egitearen aurrean Ipar Koreako lurraldearen gutxieneko egonkortasunari hala nola eusteko. Bi estatuek, ordea, lehentasuntzat jotzen dute Korearen batasuna eta kirolak bere gain errotutako sinboloek ere asmo hori berretsi nahiko lukete. Ipar Korea nazio osoaren lurraldea agertzen duen urdin ilunezko irudiaz hornitutako bandera zuria onetsi zuen kirol ekitaldien irekiera ospakizunetan bi estatuen kirolariak ordezkatzeko, horien jomuga bat egitea dela argudiatuta (Merkel, 2008: 298), eta Hego Korea bat etorri zen. Batasunaren banderak hainbesteko atxikimendua erakarri zuen ezen elastiko modura soinean jantzi zituzten zale gehienek 2005.urteko bi Koreen arteko partidari.

Hedabideek batasuneko giroa hauspotu egin zuten era berean. 2004ko Atenasko Olinpiar Jokoetan Iparraldeko atleten lorpenak ospatu zituzten Hegoaldeko kazetek, eta 2006ko Alemaniako Munduko Kopara bidean Ipar Koreako taldeak jokatuak partidak telebistak zuzenean eman zituen. Kazetak Iparraldeko kirolariak berenak bailiran bezala hartzen hasiak ziren, eta oro har ikus-entzunezko kontaktak eta prentsa idatziarenak bi Koreen artean sakonean ziren loturak azpimarratu ohi zituen (Ibid., 301). Anaitasunezko giro horretan, irekiera ekitaldietako ordezkariak bateratuaren nazioaren irudia igaroko zuen urratsa egitea hausnartu zuten bi estatuetako kirol arduradunek, hau da, elkarrekin besteen aurrean lehiatzea, kirol eremuan Korearen bat egitea irudikatzea eta aitzindaria

bihurtzea. Politika eremuan gertatuek zapuztu zuten hein handi batean guraria, funtsean 2006ko urriaren 9an Ipar Koreak misil nuklear batekin saioa egin izanak. Kirol alorrean lotutako hurbiltzea etengabe mantendu zen bakarra izan zen. Hala, nazioarteko auzietan aditua den Pascal Bonifacek dioen eran, bi Koreek politikoki elkarrengana gerturatzea hobesten badute futbola ez da gauza izango bere kabuz bat egitea burutzeko, baina hori erraztuko du bere muinari atxikitako sinbolo izaerarekin ingurumen baikorraz hornituta (Boniface, 2002: 62). Gatazka atzean utzi eta nazio eraikuntza ahalbidetuko luke hortaz, abiapuntuan batasunerako gutxieneko zintzotasunezko politika borondatea egotekotan.

Udo Merkelek nabarmentzen du Beijingeko 2008ko Olinpiar Jokoei zegokienez begiztatzen zen korear nazio taldearen abagunearen aurrean Txinak agertutako atsegina. Zentzu onez azaltzen du herrialdearen giza eskubideen inguruko jokabideaz etengabeko eztabaida alboratuko zuela, eta bide batez gainera, Beijingeko Olinpiar Jokoak politika ekarpenaz hornituko zituela (Merkel, 2008: 299). Kirol ekitaldiak eta politika etekinaren xedea bereizi ezinak dira beti ere. Ildo horretan, Guy Podolerrek zuhurki ondorioztatzen du alde batetik futbola estatu bakoitzaren nazionalismo gailentasun tamaina erakusteko eremua dela, eta bestetik Koreen arteko elkarkidetzaz zubibidea egitekoa, etnia bakarreko Korearen nazionalismo agerpea izan daitekeena (Podoler, 2008: 14). Kontraesankorra dirudien alderaketa horretan futbolaren eta talde nortasunaren joeraren nolakotasunaren mamia ageri da, hots, batasunaren eraikuntza batzuetan, alderaketarena besteetan. Hala, Udo Merkelek eraldaketa hautematen du 1988ko Seulgo Olinpiar Jokoen eta 2002ko Munduko Koparen biko antolakuntzaren osteko Hego Korearen kanpo politikan. Kirola nazioarteko onespenera lortzeko eta nazio harrotasuna eta sona bideratzeko erabiltzeaz gain Iparraldearekin elkarrizketa indartzeko baliatzen duela nabarmentzen du. Esan nahi baita bereizketan eta etsaigoan arreta jarri beharrean antzekotasunean eta elkartasunean ezartzen duela (Merkel, 2008: 303), batasunean eta nazioaren eraikuntzan alegia. Batera besteen aurka lehiatzeko egokierak horrenbestez korearren nazio nortasuna hauspotuko luke hiritarren begietara alderaketaren muga Koreako nazioaren kanpoko herrialdeekin ipinita, bi estatuen arteko bereizketan jarri beharrean. Bi estatuen arteko muineko kultur uztartzea kirol lehiaketen bidez nazio batasunezko hunkipenezko ospakizunekin garatu da hein handi batean, 2005ean Seoulen japoniarren menderakuntzaren amaieraren 60. urteurrena ospatzeko antolatutako bi selekzioen adiskidantzazko partidaren gisakoekin. Orduan ere, estatuetakoa banderen orde, batasunaren bandera astintzera gogatu zituzten bertaratutako 50.000 futbolzaleak (Podoler, 2008: 13). Ipar Koreari dagokionez, Arirang

gimnasia eta artisten ospakizun handian erregimenak behar zuen nazioarteko onespena bilatu ez ezik, batasunezko hunkipen begi keinuekin biribildu zuen 2005eko ikuskizuna.

Oroz gain, korear adibidea kirol eta futbolaren sinbolo izaeraren hunkipenezko balioaz ekarpen oparoa da, estatu bakoitzaren nazioarteko onespeneren helburuko tresna izatearekin batera, bi estaturen eta nazio bakarraren bereizitasunarekin, hurbiltzerako eta nazioaren berreraikuntzarako gailu sinbolikotzat erabiltzen baitute arrazoibidetik kanpo beti ere emozioen baitan barreiatzen dena. Atxikimendua politika ekimenen baitan dago neurri handi batean, baina esan bezala kirolean goraiatzeko duten batasunak, eta irekiera ekitaldietako ordezkariak bateratuak politika hautuentzat inguru aiseagoa bidera lezake.

3.3.4.9-2002ko Munduko Kopaz eta Japonia eta Korea hurbiltzeko ahaleginaren ekarpenaz

Aurreko ataletan aipatutakoa errepikatzeke, 2002an Japoniak eta Hego Koreak elkarrekin atondu zuten Munduko Kopak bizilagun arerioen arteko harremanak bideratu ahal izateko arrakastazko egokiera ahalbidetu zuen. Ekialde Urruneko futbolaz eta nazio harremanaz ikertu izan duen Wolfram Manzenreiterrek hausnartzen duen eran, Asiako kontinentean lehenengo aldiz ospatutako futbol ekitaldi gorenaren lorpen eztabaidaezina herritarren oroimenean bi herrialdeen arteko harremanak eraldatu izanaren sinbolo gisa atxiki izana da (Manzenreiter, 2008: 420). Ekitaldia amaitzean bi estatuetakoa agintariak adierazpen bateratua helarazi zuten antolakuntza arrakastatsuari jarraiki elkarkidetzazko harremanak sustatzeko borondatea agertuz. Areago, Japoniako lehen ministro Junichiro Koizumiren hitzetan Hego Korearekiko politika eta ekonomia harreman onak erdiesteko Munduko Kopa giltzarria izan zen (Ibid.). Hein handi batean arrazoizkoa da japoniarren baikortasunezko jarrera, lehiaketaren atarikoan legelari korearrek ezbaian jarri baitzuten biko antolakuntza Japoniako Hezkuntza Ministerioak oniritzia eman baitzuen herrialde horretako armadak Bigarren Mundu Gerran egindako sarraskiak aipatu gabe utzi zituen historiako testu liburuei. Txinarekin gertatu antzera gerra horretan Japoniako Inperioak irekitako zauriak itxi gabe zeuden oraindik. Kolonia menderakuntzako eta gerra garaiko oroitzapen horiek eta XXI.mendeko nazioarteko harremanen baitako irrika garaikideek baldintzatu zuten ekitaldia, eta esan daiteke bigarrena gainjartzean kanpora begira irudi adeitsua ematea lehenetsi zutela Japoniak eta Hego Koreak iraganeko auziak askatzeke.

Pascal Bonifacek dioenez, argia zen Hego Koreak lehiaketarekin eskuetan zuen erronka, hau da, Asia hego-ekialdean bere modernitate eredua garatu eta berrestea, bere eragina hedatzea, eta 1988ko Seoulgo Olinpiar Jokoen antolakuntza arrakastatsutik hamarkada bat igaro ondoren mundu mailako onespina eskuratzea (Boniface, 2002: 147). John D. Hornek eta Wolfram Manzenreiterrek argudiatzen dute 1964.urteko Tokyoko Olinpiar Jokotan Japoniak Bigarren Mundu Gerrako hondamena eta gero agertu ahal izan zituen nazio garapenak eta dohainek nazioarteko eremura itzultzen lagundu ziotela, eta gainera teknologia nazio moderno bezala bere burua ikusaraziz (Horne eta Manzenreiter, 2004: 193). Izan ere, Tokyoko Olinpiar Jokoa lehenak izan ziren itsasoz bestaldeko zuzeneko emanaldia ziurtatu ahal izateko satelite bidezko teknologia erabiltzen. 1960. hamarkada zen. Bada, lau hamarkada igarota Japoniak ez zuen horrelako beharizanik, baina Hego Koreak Munduko Kopa baliatu zuen gizarte eta ekonomia modernoa zuen estatu gisara nazioartean irudikatzeke. Ildo horretan, irekierako ekitaldian azalduko zuten estatuaren irudia iragarri asmotan, harreman publikoen multimedia kanpaina antolatu zuten korear tradiziozko kultura eta teknologia aurreratuenaz uztartuko zituena. Modernotasun izaeran japoniarrak berdintzea eta baita aurreratzea ere azaldu nahi zituzten kirol ekitaldian ere.

Halaber estatuaren prestigioa indartzeko abagunea zen txapelketa agintearentzat, eta hartara jendea bat eginda estatuaren eta agintepeko alderdiaren babesean ezartzekoa. Japoniak ontzat eman zuen azkenean FIFAk biko antolakuntza proposatzeko igorritako iradokizuna, Hego Korearekin tentsioa jaitziko zuela onetsita, eta aurrez aurreko lehian ekitaldia hartzeko abagunea gal zezakeenaz jabetuta. Guy Podolerrek nabarmentzen du kirol ekitaldi handi bat hartzeko lehiatzen den estatu baten xedeez gairik zirela bi herrialde lehiakideen emozioz betetako harremanei lotutako nazionalismo eta prestigio irizpideak (Podoler, 2008: 8). Ekonomia etekinen pizgarria bestalde, gardentasun osoz herrialde antolatzaileek bazter batera utzia dela azaldu beharko luketela argudiatzen du Stefan Szymanskik, hots, nazio sustapenerako inbertsioak bailiran soilik agertu beharko liratekeela kirol ekitaldi handiak eta horien hautagaitzak (Cfr. Horne eta Manzenreiter, 2004: 192). Areago biko hautagaitzak finantza errentagarritasunezko gutxieneko gurari oro zapuztu zuen, funtsean bi Munduko Kopa lehiaketa gertatuko baitziren aldi berean, eta oso zaila zatekeelako herrialde antolatzailearen irudi bereizitua sortzea eta horretatik etekina erdiesta. Ikus-entzunezko ekoizpenaren eta behaketaren teknologia hornikuntzak izan ziren 2002ko Munduko Kopatik etekin hobari handiena erdietsi zutenak; telebista

kateek ez zuten, ordea, lehiaketa emateko ordaindutako kirol eskubideen salneurriaren tamaina, inoizko gailur handiena, harpidetzen hazkunderen bitartez alderatzerik izan.

Ekitaldiaren abiapuntuan zetzan futbolak bi herrialdeen arteko bestelako zubiak apurtuta zeudenean diplomaziaren eremuan gutxieneko zeregina bete zuela harremanak estutzen. Ildo horretan, Japoniako Futbol Federazioko idatziek adierazten dute Korearen aurkako partidetan etengabe jasandako galerak zeudela 1990eko hamarkadan Japoniako liga erabat profesionala sortzearen erabakimenaren iturburuan. Herrialdearen ekonomia ahalmenaren pareko nazio ordezkariak erdiesteak zen jomuga (Manzenreiter, 2008: 417). Liga sortu arte industria taldeen deiturapean jokatzen zuten talde ez erabat profesionalak lehiatzen ziren nagusiki. Lehiaketa profesionalaren sorrerarekin bat taldeei eskatu zieten izena aldatzeko, enpresen iragarle soilak izateari utz diezaioten, eta era horretara, herri eta lurraldean atxikipena sorrarazita futbolzale gehiago erakar zituzten. Futbolak egiteko garrantzitsua zuen John Hornerren eta Wolfram Manzenreiterren arrazoibideari jarraiki, japoniar izaera hezurmamitu zuen ekonomia hazkunde apartekoaren geldiduna eta gero japoniar nortasunari bestelako tankera eskaintzea (Horne eta Manzenreiter, 2008: 367). Bi ikerlariok diote Japonia berriarentzat metafora eskaini zuela futbolak. Kirola ogibide bilakatu izanak, hedabideen iraultzaren bidetik jazotako futbolaren nazioartekotzeak eta diru iturrien areagotzeak, nazio taldearen maila hobetzen lagundu zuten, eta era horretan nazio harrotasuna plazaratzeko abagune berria bilaka zedila, maiz azaleratu den bezala, selekzioaren maila onak baldintzatzen baitu neurri batean nazio nortasunak hauspotzeko izan dezakeen gaitasuna.

Bada, nazio selekzioa 1998ko Frantziako Munduko Koparako sailkatu zenean, herrialdeko telebista ekoizpenaren historian ikus-entzuleria gailur handienetakoak ezarri zituzten Japoniako nazio taldearen partidek. Aurretiaz liga txapelketak herrialde osoan zehar barreiatu zuen futbola, eta kirolaren inguruko atxikimendua bizituko zuen horrela. Hamarkada baten buruan zalego leiala izatea lortu zuen futbolak Japonian, baina sumoa eta beisbola hobetsi egin zituzten hedabideek nazio taldeak parte hartzen zuen Munduko Koparen gisako ekitaldiak salbuetsita audientzia handiagoen onura zutelako. Dena dela, 2002ko Munduko Kopak une batez bederen futbolaren azpirakundea irauli zuen Ekialde Urrunean, eskualde horretako hiru nazio talde boteretsuren parte-hartzearekin. Hamalau milioi lagunek baino gehiagok, hau da, Hego Koreako balizko audientziaren %56k piztu zuten telebista beren selekzioa lehen partidari nola jarkitzen zitzaion ikusteko.

Japoniak Errusiari 1 eta 0 irabazi zion norgehiagoka herrialde horretako etxebizitzetako %66,1an ikusi zuten, eta futbol partida bati zegokion telebista jarraipen handienera iritsi zen. Nielsen Media zundaketa enpresak burututako alderaketazko neurketaren arabera, lehiaketan ordezkartzarik ez zeukan Thailandiako herrialdeak izan zuen Asian guztizko audientzia maila handiena, 269 milioi ikus-entzuleko audientzia eman baitzuen partida guztien batuketak. Ostean Hego Korea sailkatuko zatekeen 266 milioi ikus-entzulerekin, eta Txinak 263 milioi ikus-entzule izango zituen partida guztien audientziaren tamainak batuta. Manzenreiterrek emaitzon eta ligako partidek eduki ohi duten jarraipen txikiaren arteko alderaketa nabarmendu nahi du arrazoitzeko nazio taldeak nazioarteko eremuan estatusa eta boterea gisako balioak sinbolikoki lehiatu izanak, sortzen duen arreta handia (Manzenreiter, 2008: 419). Bada, Japonia eta Hego Korearentzat futbolari harrera duina egiteak mundu osoan hedatzen duen nazioaren baikortasunezko ideiaz gain soropilean nazioa ordezkatzeko duen futbol taldeak eman beharreko gailentasunaren garrantzia, eta horrek gizarte antolatzailea izateak eta mundu osoaren begirada eurengan hautemateak herritarrengan sortzen duen hunkipena gehitzen zaio, telebista eskubideak lortzeko saio handia egin duten telebista kateen sustapenak eta horiek hauspotzen duten nazio irrikak gaineratuta. Futbol zelaitik urrunekoak diren ekitaldiaren abiatzeko helburuek frogatzen dute futbola nazioarteko harremanetan diplomazia auzietan bete-betean sartuta dagoela, horiek berbideratzeko duen gaitasuna mugatua izanik ere, baina inolaz ere erdeinagarria.

Eta futbol zelaian Hego Koreak Asiako selekzio batek inoiz lortutako emaitzarik oparoena lortu zuen final erdietaraino helduta, final zortzirenetan eta final laurdenetan epaileen jardun eztabaidagarriek hein batean lagundu bazuten ere. Taldeak txapelketan aurrerantz egin zuen heinean geroz eta jende gehiago erakarri zuen kaleetako ospakizun jendetsuetara, eta Alemaniarekiko final erdietako partidaren karietara zazpi milioi lagun inguruk parte hartu zuten partida ikusteko karriketako bilguneetan. 1980ko hamarkadan egindako demokraziaren aldeko manifestazioen ostean tamaina horretako elkarretaratze handiena izan zen futbol bitarteko aldi horretakoa (Whang, 2006: 220). John D. Hornek eta Wolfram Manzenreiterrek arrazoitzen duten erara, futbolari atxikitako nazionalismo adierazpena ez zen berehalakoan eta halabeharrez agertu Koreako gizartean, Munduko Koparen aurretiazko hilabeteetan zehatz-mehatz prestatua izan zen. Japoniar kazetarien lehentasuna hiritarrak jokoaren arauetan hezte baldin bazen, Hego Koreako hedabideek nazio arrakasta goraiatzeko prestatu zuten nazioa (Horne eta Manzenreiter, 2004: 194-195). Estadioez kanpoko futbolaren bizipen publikoei eta jendetsuei zegokienez ere bi

estatuek alderatutako erabakimena hartu zuten. Hego Korean herri eta lurralde aginteez toki asko atondu zituzten partidak bertatik bertara ikusi ahal ez zituztenentzat, beste zale batzuekin batera jendartean zuzenean ikus ahal zitzaten. Japonian, alabaina, karriketako emanaldiak debekatuta zeuden eta behaketa publikoak mugatuak. Indarkeria gertaeren eta gehiegizko nazionalismo adierazpenen beldur ziren agintariak. Hego Korean, ostera, Poliziak eta segurtasun indarrek beren onetik kanpo zeuden zaleak ere onartzen zituzten orokorrean, eta hedabideek adierazpen baikor erara jorratu zituzten (Whang, 2006: 222).

Nolanahi ere, Japonian ere estatuaren parte-hartzerik edukitzeke gaztedian errotu ziren nazionalismo sentipen berriak goratu zituzten gerora agintariak, eta ildo horretan, Manzenreiterrek eta Hornek diote Japonia berriaren bila guda eremu sinbolikoa bilakatu zela futbola, zeinean nazio ereserkia nazionalismo militar oldarkorrarekin lotzen zuen gisako eztabaidak kolokan jarri zituzten. Alemaniako Munduko Kopan lau urte geroago eta ondoren Txinako Olinpiar Jokoetan gertatutakoaren antzera, estadioa nazionalismo adierazgarriaren aldaera ziurtzat barneratu zuten. Batez ere japoniar zalegoaren alderdi nagusia ziren heldu gazteei eta gaztetxoei, Manzenreiter eta Hornerri jarraiki, Munduko Kopak eskaini zien 1945.urteaz geroztik jende askok nazionalismo agerpen gardenen eta nazio identitate adierazpenen inguruan zuen segurtasun gabezia gainditzeko abagune urrietako bat (Horne eta Manzenreiter, 2004: 195). Bigarren Mundu Gerrako galbidera eramanean zuen muturreko nazionalismoaren beldur ziren japoniarrak, alemaniarrek nazien gomuta beldurgarriarekin lotsatuta zeuden neurri berean. Bada futbol harmailak egokiak izan ziren beldurrik gabe gerra eta inperio zaletasunarekin bereizitako nazionalismoaren agerpen jendetsua egiteko. Futbol neurketan final zortzirenetaraino heldu baldin bazen, Turkiarekin galduta herrialde antolatzaile baten gutxieneko helmenera heldu zen, jokoaz kanpo bi jomuga burutu zituen Japoniak. Batetik, iragan nazionalismo mamua ezereztea eta nazio izaera eraberritua begiztatzea, eta bestetik aitzinean aipatzen abiatutako korear agintari eta gizartearekiko berradiskidetzea. Hala, 2002ko Munduko Kopa atontzen ari zirela Japoniako enperadore Akihito aitortu egin zuen japoniar inperio sendia Paekche Erresumaren oinordekoa zela, hau da, behinolako korear zibilizazioarena (Jarvie, 2006: 115). Ekitaldiaren aurretik 35 urteko japoniarren kolonia menderakuntzaren oroitzapena aldarazi nahi zuen agintariak, eta bide batez lehia bi estatuen harremanak onbideratzeko erabili adiskidetzeko adierazpenekin. Munduko Kopa lehen aldia gertatu zen Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik Japoniak eta Koreak ekitaldi baterako elkarkidetzaz jardun zutena. Ekitaldirako bidean bi herrialdeek harremanak normaltzeko saioak egin zituzten.

Hego Koreako iraupen murrizteko bisitariarentzat bisa eskakizuna ezereztu zuen Japoniak eta Seoulek japoniar musika igortzeko debekua kendu. Hala, Japonia final zortzirenetan Turkiak kanporatu zuenean norgehiagokan mantentzen zen Asiako talde bakarrarengana zuzendu zuen nazio hedabideak japoniarren sostengua, hau da, hego koreararengana, eta hartara Hego Koreako taldearen ondorengo partidek japoniar jendetzak jarraitu zituen, telebista sharearen %48,3ko tamainara iristeraino Alemaniarekiko final erdietan (Horne eta Manzenreiter, 2004: 196). Asiarren hala nolako harrotasuna bideratu zuen ondorioz.

Munduko Kopan laugarren sailkatuta heroitzat ohoratu zituzten hego korearrak, eta oroz gain goratuena Guus Hiddink Herbehereetako entrenatzailea izan zen *Hiddink eragina* bailitzan definitutako bilakaeran. Gizarte klase, eskualde, sexu eta adin aldaerak gainditu zituen. Kaleetako ospakizunetan askotariko adineko jendea hauteman zitekeen, eta oro har japoniarren aldean gertatu zen antzera, emakume jarraitzaileen gehiagotzea azaleratu zen (Whang, 2006: 218). Hiddinken lanaz eta lorpenaz erreferentziak politika adierazpenetan eta ekonomia kudeaketa ereduetan txertatu ziren. Areago, aurrekaririk ez zuen gertaeran, Koreako Justizia ministroak ohorezko hiritargoa eskaini zion Hiddinki, zeina Kim Dae Jung presidenteak eman zion entrenatzaileari 2002.urteko uztailaren 2an egindako ospakizun berezian (Podoler, 2008: 8). Inondik ere, futbol mugarriak sorrarazi zuen nazionalismoaren uholdea erabiltzeko gertu zen gobernua. *Asian Times* egunkariak jaso zuenez, Kim presidenteak final laurdenetan Espainia garaitu zueneko unea Koreako historiako gogoangarrienetzat jo zuen, 5.000 urte aurretik Dangun errege jainkotiarrak aberria sortu zuenetik (Cfr. Horne eta Manzenreiter, 2004: 195). Lorpenaren ohorezko opor eguna izendatu zuen Hego Koreako Gobernuak eta ondorengo eskolako liburuetan Munduko Kopari buruzko eta *Deabru gorrien* bilakaeraren inguruko testuak eta irudiak txertatu zituzten. Horrez gain, Soon-Hee Whangen esanetan, Hego Korean txapelketak utzitako uzta adierazgarriena kaleetako ospakizunak izan ziren. Arrazoitu zuen Seoulgo eta Hego Koreako karriketako jarraitzaileek erakutsi zutela nola kolokan jar zitekeen eta berreraiki kirol ekitaldian oinarrituta korear publiko kulturaren usadioa (Whang, 2006: 230). Gisa horretako futbolerako bilguneetan jendearen ohiko tartekak eraldatzen direla oroitarazten du Soonek. Karriketako jarraitzaileek aldarte bizia sorrarazten dute, zeinak solidaritate zentzua bideratzeko joera duen eta nazio nortasunerako egokiera era berean. “Selekzioa irrika handiz hauspotu izanaren bizipenarekin jendeak esanahiak eta oroimen kolektiboak eransten dizkio denbora eta kokapen jakinari” (Ibid., 229). Hala eta guztiz ere, Japoniak baino futbol emari zaharragoa izanagatik, eta final erdietarainoko ezusteko

bidea burututa futbola herrialdean biziberritu bazuen ere, oraindik beisbolak azpiratzen du futbola Hego Korean ere (Gillon, 2006: 110).

Berriz ere futbolaz gairik lehiaketaren ondorioetara itzulita gogoan hartzekoa da *Chosun libo* izeneko Hego Koreako kazetaren editorialaren mamia. Munduko Kopak Koreako Errepublikaren inguruan gazteen harrotasun sentipena esnarazi zuela adierazi zuen, eta futbol selekzioaren emaitza onak japoniar gazteengan Hego Korea primerakoa zenaren hautematea utzi zuela (Cfr. Jarvie, 2006: 122-123). Manzenreiterrek gaineratzen du (2008: 420) iritzi zundaketek azaltzen zutela bi herrien arteko kultur hurbiltzeak eta elkar ulertzeak aurrekaririk gabeko gailurra harrapatu zuela Munduko Koparen bitartez. Areago, bi estatuen arteko turismoak eta telebista serien, pop musikaren, arropa eraren, sukaldaritzaren eta hizkuntza ikasketaren gisako kultur elkar trukeek futbol sugarraren iraungitzeko data pasa zuten (Horne eta Manzenreiter, 2004: 200). Soon-Hee Whangek dio Munduko Koparen inguruan Hego Koreako gaztedi berria irudikatu egin zela, nazio bandera eta beren nazio identitatearen gorri konplexua begiztatu zutenak (Whang, 2006: 230). Manzenreiterrek era berean japoniarren artean zabaldu zen elastiko urdinen ikurra nabarmentzen du talde atxikimendua erakusteko erarik errazena eta beharbada nagusia dela adierazita (Manzenreiter, 2006: 150).

Horrenbestez, esan genezake hego korearren gorriaren atxikimenduak hein handi batean lagundu zuela, Munduko Kopa futbol ekitaldiaren bitartez, Ipar Koreari etsaigo hautemateez esleitu izan zitzaion gorri kolorearen ikara gainditzen, eta ondorioz, nazio eraikuntza hauspotzen, Japoniarekiko harremanak onbideratzeaz gain. Kapitalismoaren baitako globalizazio olatuetan txertatuta heldu zen futbola Ekialde Urrunean txapelketa antolatzeraz, eta herrialde hartzaileentzat diru etekinik utzi ahal zuen itaunduz gero, maiz gertatzen denez esan beharra dago FIFA nazioarteko erakundea izan zela hobariak lortu zituenak, eta kirol ekitaldiaren bidezko epe motzeko ekonomia xede handinahiak zapuztu zituela bide batez. Montrealgo 1976ko Olinpiar Jokoen ekonomiako galera oroimenean atxikita dago oraindik ere, XXI. mendea arte ez baitzioten utzi kanadarrek zergen bidez burututako ahalegina ordaintzeari. Nazio nortasunen biziberritzea eta gizartearen arteko hurbiltzea izan zen 2002ko ekitaldiaren berehaldiko uzta oparora, hainbatetan bi xedeok kontraesankorrak eman badezaketen arren, FIFAREN gogoetan kapitalismoak gidatutako globalizazioaren uztaian futbola atxikitze saio arrakastatsu errentagarria zen bitartean.

3.3.4.10-Indonesian nazio sorkuntza eta etnia bereizketa baliabidea futbola

Japonia eta Herbehereen kolonia menderakuntza igaro ondoren Bigarren Mundu Gerra eta gero burujabetza eskuratu zuen Indonesiak. Milioika biztanle elkartzen dituen uhartedia da herrialdea, ehunka etnia eta hizkuntza desberdin estatu beraren agintepean ezartzen dituen. Eliteak berehalakoan erabili zuen kirola Jakarta hiriburuaren inguruan jendea bateratzeko eta haien atxikimendua ziurtatzeko (Moser, 2010: 59). Horrez gain, Sukarnok 1962ko Asiako Jokoen harrera lortu zuen estatuarentzat, eta Herbehereetako menderatzaileek inperio kontrol gailu gisara ezagutarazitako Europako kirol modernoak sustatu zituen estatu burujabearen nazioarteko onespina eta besteekiko erkaketan nazio harrotasuna lantzeko. Sobiet Batasunaren eta Txinaren kirol ekimenaren nolakotasunean oinarritu zen hein handi batean. 1963an, Olinpiar Jokoei erronka bota asmoz, GANEFO izeneko jokoak antolatu zituen Indonesiak. Sukarno GANEFO elkargo berriaren burua izendatu zuten eta Jakarta etorkizunera begirako txapelketaren erdigunea. Olinpiar Joko modernoak abian jarri zituen Coubertinen pentsamoldea traditza egotzi zion Sukarnok mugimendu horren agintariei, eta ordena zaharra gotortzeko lanabes gisara erabili izana (Meynaud, 1972: 312). Dena dela, beti ere ekimenaren baitan zegoen kirol ekitaldiaren bitartez Mendebaldeari jarkitzeko moduko indar erakustaldi sinbolikoa plazaratzea.

Futbolari dagokionean, herrialdearen eta kirol horren arteko lotura gehien aztertu duen Freek Colombijn ikerlariaren hitzetan, futbola da uhartediko kirol nagusia, eta aro ezberdinetan, kolonia aldiaren eta ondorengoan, aginteak politika funtsekin erabilia izan da. Gaineratzen du berebizikoa izango dela kirolaren azterketan sakontzea Indonesiako nazionalismoaren muina hauteman ahal izateko (Cfr. Moser, 2010: 58). Izan ere, halako aniztasunean errotutako nazioan batasuna agertzeko ez ezik bereizitasunerako bitartekoa da inondik ere futbola, eta kirola oro har. Bi eraginen etorria legoke hartara, partidetan. Colombijnek dioen moduan, futbola aldi berean beste etnia taldeen aurrean identitatea agertzeko gailua izan da. Talde gehienak etniaz atxiki izan dira (Colombijn, 1999: 136).

3.3.5-Ozeaniako futbola alboratua izanagatik nazioen agertokia izan da, kirol globalizazioaren adierazgarri

Ozeaniako konfederazioa eta hango futbola oro har nazioarteko kirol guneetatik bakanduta egon dira usadioz, eta Australian nahiz Zeelanda Berrian futbolaren gainetik errugbia nahiz bestelako kirolak gainjarri izanak areago alboratu dute FIFA nazioarteko kirol agintari botere guztidunaren begietara. Non ezarri ez zeukaten lau federaziok sortu zuten Ozeaniako elkargo urrunekoa. Bakantzearen joa zela medio hartu zuen Australiak Ozeaniako futbol eremua utzi eta 2006a ondoren AFC Asiako Futbol Konfederazioaren baitan jokatzeko erabakimena. Aurretik ere saioak egin zituen mundu kirolaren egiturak bere futbola erasan zuela deitoratuta, adibidez 2002.urteaz geroztik Munduko Koparako sailkatu ahal izateko Hego Amerikako bosgarren talde sailkatuarekin jokatzeko beharra, baina AFCk ezetza eman izan zion bat egiteari 2005ko martxoan asiar kideek aho batez onartu zuten arte. Tamainako etsairik gabe hil ala biziko kanporaketa arte nagusitasunez agintzen zuen futbol lehiaketa antzutik Munduko Koparako eta Asiako Koparako bidean ohikotasunez partida esanguratsuak lehiatzera igaro zen *socceroos* deituraz izendatutako nazio taldea, eta bide batez hedabideen eta funtsean hiritarren arreta handiagoa lortzera, eta nazio nortasuna hauspotzera horrenbestez, artean herrialdeko kirol nagusia ez baldin bada ere.

Australiako A-Ligako taldeek Asiako Txapeldunen Ligan jokatzeko abagunea dute orain, eta horrek denak ekonomia errentagarritasunerako egokiera ahalbidetzen die. Gainera, James Skinnerrek, Dwight H. Zakusek eta Allan Edwardsek elkarrekin eginiko azterketan (2008: 402) dioten moduan, Australiak Asiarekin ekonomia eta kultur loturak indartu nahi dituen aldian futbolaren atxikipenak aski indartu dezake integrazioa. Hain zuzen ere, 1960. hamarkadan hasi zitzaion funtsean Australia Asiako ekonomia lorratzei eta merkatuari erreparatzen Britainia Handiko kultur eta ekonomia ainguratik askatzeari ekin zion heinean (Ward, 2009: 540). Bada Ozeano Barean barreiatutako kontinentearen geografia eremutik Asiara aldatu zen Australia hein batean politika eta ekonomia zioak tarteko zirela, eta baita ordezkaritza nabarmenagoaz hobaritzen zuelako nazio selekzioa. Askotariko ekimenek bideratu dute Ozeaniako herrialdeetan ere futbola kirol ospetsua izatea, eta mundu zabalean bezala naziotasunaren plazaratzearekin harremanetan egotea. Izan ere, Australiaz gain errugbi taldearen nazioarteko sonari emana dagoen Zeelanda

Berrian ere oso gogoan dute 1982ko Espainiako Munduko Koparako sailkatzea oraindik ere, eta inguruko uhartedi txiroagoetan ere futbolak jendetza erakartzen du, batasunezko talde lilura sortzeraino. Hasierako aurreiritzietatik eta hala nolako behaketen gabeziatik harago joanda ez da erdeinagarria futbolak Ozeanian XIX.mende bukaeran britainiarrek txertatu zutenetik nazio eraikuntzetan edukitako zeresana, beste behin ere kirol globalaz eta futbolari emandako lur planetaz mintzo dakiguna. Askotariko kulturen onarpenaz eta mahaigaineratutako integrazio ereduaz berri ematen du futbolak ere leheneko begiradan. XIX.mendeko hirugarren herenean britainiar inperioaren hezkuntza sistemarekin hedatu zenak munduko zoko gehienetan ez bezala antzerako kirolen aurrean amore eman zuen.

3.3.5.1-Australia: futbola nazio gutxiengoen integrazioaren estatu eztabaidaren erdian kokatuta

Australian errotutako futbol aldaera berezia, errugbia eta futbola tartekatzen dira garrantziazko hurrenkera horretan Ozeaniako herrialde handiengan, bertako ohituretan oinarritutako kirola salbuetsita, britainiar kolonia agintaldiaren eraginpean heldutakoak. Hiruetan publikoaren irrikari, hedabideen arretari eta ekonomiaren babesari dagokionez gabezia eta gorabehera gehien jasandakoa futbola izan da XIX.mendea amaitzean ezarri zenetik belaunaldi askoan. 1880ko hamarkada berantiarrean ezagutza dagoen lehenengo partida jokatu izanagatik ordurako Australiako komunitateek klubak sortuak zituzten eta partidak antolatzen (Skinner et al., 2008: 395). Britainiar komunitate menderatzailearen baitan sustraitu zen ondorioz futbola aro goiztiarrean, eta parte-hartzaile eta ikusle ugari erakarri zituen partidetara. Bestalde, europarrak heldu baino askoz lehenago ere kirolean ohituta zeuden Australiako aborigenak, eta australiar aldaerako futbolaren aitzindaritza beraiena dela dioten arrazoibideak plazaratu izan dira. 1788.urtean hasitako britainiarren okupazioak oinazeko ondorio ezin okerragoak eduki zituen sortzeko biztanleentzat eta haien kulturarentzat, eta kirolean ere 1850eko hamarkada arte menderatzaileen taldeko aisialditik baztertu zituzten. Kristauek eta misiolariak bertakoak zibilizatzeko lan tresna gisara erabili zuten orduz geroztik. Dena den, XIX.mendearen bukaera aldera australiar gizartetik bakandu zituzten aborigenak, eta gobernuaren kontrolpe zurrunean inguratu. Horrenbestez, ezina izan zitzaien laneko giroan nahiz horretatik kanpo kirolean aritzeko egokiera sortzea. Soilik gobernuaren erabakimen banatzaileari ihes eginda meatzaritzan lanean hasten ziren indigena bakanek zuten egokiera kirolean aritzeko, eta bide horretan

horieta hainbat izar bilakatzeko ere. 1901ean burujabetza bereganatu zuen Australiak, eta kolonia izandakoek ohi dutenez lehenagoko menderatzailearengandik bereizita nazio identitatea adierazteko edo eraikitze askotariko moduak bilatu zituen. Nazio identitate indartsua sustatzeko eremuetako bat kirola izan zen John Maynarden arabera (2009: 42). Horren adierazgarria da Australiar aldaerako futbol elkargoak kirola sustatzeko aukeratu zuen leloa, “bandera bat, jomuga bat, futbol joko bat”, hau da, estatuaren emari bereizia nabarmentzen zuena. Esan bezala, aborigenek kirolean jarduteko egokierak oso txikiak ziren orduan, eta hartara agerian gelditzen zen horiek australiar nazioaren komunitatetik kanpo nahi zituztela, eraiki nahi zuten naziotik at alegia. Izan ere, hoteletan, igerilekutan eta hainbatetan hirietako karrketan ere sarrera debekatua zuten. Are gehiago, 1870eko hamarkadan gobernuak indigenen haurrak lege ekimenez gurasoen eskuetatik kentzeko ekimena hasi zuen britainiar nortasuneko balioetan hezteko eta, besteak beste, sortzeko australiarren enda kentzeko. Mende luze iraun zuen egitasmo horrek, eta XXI.mendeko lehen hamarkada arte ez zuen gobernuak aborigenen zapalkuntzazatik damurik agertu.

Futbolaren, nazio eraikuntzaren eta integrazioaren arteko hartuemanak kirolaren bilakaera ezaugarrituko zuen heldutasun aroan barneratu zen Bigarren Mundu Gerraren ondorenean britainiar jatorriko gabeko Europako immigrazio bortitzarekin. Australiako Gobernuak populazio hazkundera bultzatzeko sustatu zuen etorrera onetsi zuten gerraren oinazea jasandako ekialdeko Europako herritar askok, baina gizarteak egin zien harrerak ez zuen horien egoera hobetu. Baztertutako landa eremuetan lan egitea egokitu zitzaieen immigrante askori, soldata murrizaren trukean eta beheramendua pairatuta. Atzerrikoen aurkako hautematearen sorburuan lekutu liteke burujabetza aldarrikatu eta mende erdia igarota ere australiar gizarteak atxikipen baidan eta kultur arloan Erresuma Batuekin zuen lotura estua. Izan ere, Gallup enpresak eginiko inkestari jarraiki (Cfr. Ward, 2009: 536), 1946ko uztailean australiar biztanleen %60k bere burua britainiartzat zeukatzen, eta soilik %37k australiartzat. Horrez gain, 1947an herritarren %90 Australian jaioa zen, eta gainontzekoetatik gehienek britainiar jaiolekua zuten. Horrenbestez, inperioaren kultur jario elebakarrean oinarritutako gizartetik babes bila heldutako milioika immigranteen etorrerak utzitako gizarte anitzeko igarobidearen aurrean azaldutako etsaigoa izan zen australiarren abegi txarra indartu zuena neurri handi batean. Ataka horretan bizirauteko herrikideekin biltzera bultzatu zituen immigranteak, eta etnia aingura guneak sortu ziren horrenbestez. Eratatutako jarduera eta elkartearen artean maiz ageri ziren kirolaren alorreko klubak eta lehiaketak, bilgune horien nolakotasunaren adierazgarri. Etorkinetako askok

sorterriarekin hunkipenezko atxikipenari eutsi zioten, eta kirolak beraiekin eramandako kultur ondarearen alderdia bailitzan etxearekin lotura eskaini zien ingurumen arrotzean (Vamplew, 1994: 208). Sorterrira itsatsi zituen halabeharrez eta ez hartzailera barneratu. Bigarren Mundu Gerra osteko etorkin gehienak ekialdeko Europatik zetozenez, futbola nagusi zen kirol hautuan. Hala, Skinnerrek, Zakusek eta Edwardsek dioten eran (2008: 395), etorkinen komunitateok Australian futbola hedatzen lagundu zuten euskarriak izan ziren, baina aldi berean gizartean baztertuta zeudenez gero, futbola are gehiago bakandu zedin eragin zuten. Gerra ondorengo Australia ezaugarritzen zuen xenofobia arrazakeria giroan jokia beheratua izan zen, eta John Maynardek (2009: 46) oroitzen duenez, xede horretan hedabideek lehentasunezko parte-hartzea izan zuten beste kirol aldaera batzuk hobesten zituztelako estatuko nazio eraikuntzarekin bat egiten zutelakoan, iritsi berriak ezaugarritzen zituen arrotzutako kirolaren aurrean. *Wogball* deituraz izendatu zuten era horretara atzerritarren kirol gisa erdeinatzeke, britainiar aurretiazko ekarpena izan arren.

Hori horrela, Australiako futboleko garapen garaikidea immigrazioaren fluxuen historiari hertsiki atxikita dago. Bada, 1950eko hamarkadatik aurrera hiriguneetan bizi ziren eta ingelesez mintzo ez ziren komunitateen kultur adierazpenerako eremu nagusia bihurtu zen (Hughson, 1997: 242). Besteak beste, greziar, serbiar, kroaziar, mazedoniar, hungariar, poloniar, italiar eta judu etnia jatorriko klubak jaio ziren Australia ekialdeko hirigune jendetsuetako aldirietan Europatik joandako milioika lagunak ordezkari gisara. Aborigenak, aitzinean aipatu bezala, hiri handietatik baztertuta ziren, eta hortaz, orduan ere nekeza zuten futbolak hartutako bizi berritze berrian parte-hartzea. Hesia gainditzea erdiesten zutenek, ordea, europar immigranteengandik australiarrengandik eduki ohi ez zuten begirunea jasotzen zuten, aurreiritzirik gabekoa. Izan ere, jokalariek aborigenak eta immigranteen komunitatea ingeles mintzairako Australia zuriaren errotutako politikaren aurrean kideak eta biktimak ziren (Maynard, 2009: 46). Lantokiak ez bezala, futboleko eremuak ingelesean erraztasunik izateke beren gaitasuna agertzeko egokiera eman zien etorkinei, komunitate zentzua eta Australian jaiotako seme-alabak gizarteratzeko erroa. Etnia gizarte klubetatik eratorritako futbol taldeek jatorri hori adierazten zuten deituraz sortu ziren, eta bereziki 1950eko hamarkadaren amaieran talde menderatzaileak bihurtu ziren (Vamplew, 1994: 209). Hasieratik eztabaiden iturri izan zen futbolaren kudeaketa, etnia klubak eta ingeles joerako futbol taldeen talkaren inguruan. Egituran eta jokatzeko moduan ezberdintzen ziren. Lehenek identitate bereziekin jokatu nahi zuten, europarren jokatzeko moduarekin, britainiar joko ereduarekin alderatuz. Ekonomia ahalmenean ere,

europar nazio nortasunen ordezkariak klubak orduan aberatsak ziren bitartean, oro har gainontzekoak estu eta larri baitzeuden. Sorterriko jokalariek erakargarrienak hartzeko ahalmena zeukaten etnia taldeek, horrek gerora Australiako liga txapelketaren debekua amilduko bazuen ere, eta hala, beraien ahala are gehiago hauspotu zuten (Skinner et al., 2008: 396). 1950. hamarkada osteko futboleko nazioen ordezkariak nagusiak izan ziren.

Melbourneko aldirietan jaiotako Preston Macedonia Lions kluba kirolari gaitzak Australiako 1950eko hamarkadan barrena hedatu ziren etnia taldeak bere gain hartu zuten esanguraren adierazgarria da. 1959. urtean sortu zen, eta orduz geroztik Mazedoniatik at herrialdeko klubik garrantzitsuenaren ekimena hartu zuen. Kirola ez ezik gizarteratzeko eta kultur oinordetzari erreparatzeko abagunea ematen du erakundeak. Izan ere, futbola, ohi denez, lehentasuna izanik ere, erkidegoari eskaintzen dion zerbitzua haratagokoa da. Mazedoniar elizekin, komunitateekin eta hizkuntza eskolekin lotura dauka, eta kultura hitzorduak antola daitezten laguntzen du. Australiako diren milaka mazedoniarrei biltokia eskaintzen die horrenbestez. Estadioan agertutako sinboloei erreparatuta klubaren izaera mazedoniarra agerian gelditzen da eta australiar eragina bigarren mailakoa da (Bosevski eta Hallinan, 2009: 100). Antzekoa esan liteke, besteak beste, Kroaziar komunitatearen isla izaki Sydney Croatia izenaz jaio zen klubaz nahiz West Adelaide Hellas greziarren komunitatearen ordezkariak ere. Roy Hayk dioen moduan, Australiako etorkin taldeek bere gain hartu zuten erantzukizuna eta egitekoa futbol taldeen ohiko ordezkariak zereginetik gaitzakoa zen, kroaziar klubek esaterako gizarteratze eta integrazio egitekoa baitzuten. Etorkinen futbol klub batzuek hizkuntza ere irakasten zuten (Hay, 1998: 58).

Australiar gizarte eta ekonomia mailaketan europar etorkinek hartu zuten beheko kokapenak eta politika arloan hartu zuten botere gabeziak norbanako eta taldearen atsekabea sortzen zuten bitartean, diskriminazioaren aurka futbolak aukera bideratzen zien abagune berdintasunean lehiatzeko. Horrez gain, etnia taldeek jatorrizko atxikimenak indartzen zituzten neurrian usadiozko gorrotoen adierazpide ere baziren, eta horrenbestez, besteak beste, kroaziarrek eta serbiarrek elkarren aurka jokatzeko futbolaz gaitzak nazio nortasun auziak zeuden norgehiagokan, Bigarren Mundu Gerrak utzitako zaurien sinbolo jazoera, inondik ere. Dena dela, esanguratsua da futbola inguratu duen indarkeriari dagokionez Wray Vamplew (1994: 212) eta Chris Hallinan eta John Hughson (2009: 1) bat datozela dena baino gehiago agertzeko nahia egon dela iradokitzen. Hala, etnia multzoen arteko artega iturri izan duten liskarrak futbol partidetan noizbehinka azalerazi direla aitortuta

ere, Hallinanek eta Hughsonek diote hedabideek gertaerok zabaltzeko prestutasuna izan dutela eta australiar izaeratik kanpokoak bailiran agertzekoa. Hartara, nazio eraikuntzan nahastuko ziratekeen hedabideak, eta futbola baztertuko zuketena australiar nortasunaren hautemate irmoarekin bateraezina zelako. XX.mendeko azkeneko laurdenean etorkinak Australia zurian onartu zituztenean hasi zen futbolaren hedatze ibilbide gorabeheratsua, herrialdearen aniztasun eta integrazio borondatea ezbaian jarri zuena.

Nazio taldea 1974an Alemaniako Munduko Koparako sailkatu izanak bultzada eman zion futbolari. Taldeko partaideen artean zegoen Harry Williams izeneko jokalaria aborigena ere, Australiako sortzezko biztanleek kirolean barneratzeko zituzten oztopoak jausten ari zirenen adierazgarri. Hainbatek aborigenen eskubideen aldeko jardunetara jo zuten futbol aroa amaitzerakoan. Giro horretan 1977an osatu zuten NSL futbol nazio txapelketa, eta kirol ororen artean lehena izan zen izaera hori edukiko zuena. Dena dela, hastapenetik arazoz eta gorabeheraz beterikoa izan zen, futbola herrialdean elite kirola bilaka zedin zailtzen zuena. Skinnerrek, Zakusek eta Edwardsek (2008: 397) futbolari onak erakartzeko gaitasun ezaz, europar gatazketatik eratorritako klub eta jarraitzaileen arteko tentsioaz eta finantza ezegonkortasunaz dihardute. Beraz, askotariko arazoez ari dira etnia ordezkartzari hedabideek eta futbol arduradunek esleitutako erantzukizunera mugatu gabe. ASF Australiar Futbol Federazioak hasieran nazio nortasunen agerpenean oinarritzen ziren izenak eta sinboloak alboratzea errefusatzen zuten taldeak debekatzeko erabakimena hartu zuen. Izan ere, liga abiatzearekin batera hedabideetatik zabaldu zuten klubuen etnia loturak kendu ezean ezinezkoa zatekeela futbolak gizartean onarpen handia eskuratzea. Horrezaz gain, kirola atzerriko atxikimenduetatik askatzea beharrezkoa zela arazoitzen zuten oro har (Hallinan eta Hughson, 2009: 2). Esaterako, South Melbourne Hellas izeneko taldeak Grezia adierazten zuen azken elea kendu zuen. Hala ere, 1983an atzera egin zuen futbol elkargoak neurri horrekin klub edo babesle nahikorik erakarriko ez zuenaz jabetu ondoren. Bitartean, garai horretan Australiako estreinako kirol ministro John Brownek nazioaren garapenean kirolek orokorrean zuten eginkizun menderatzailea nabarmendu zuen, arraza, adina, sexua eta klaseen galbaheak zeharkatzen zituelako, eta Australiako “gizartearen lantegian” sakonki itsatsita zegoela hautemanda (Cfr. Rowe et al., 1998: 125). Kirolaren gaineko agintarien burutazioak nazio lehentasunezkoak ziren.

Era berean jarraituz, 1990eko hamarkadan ageriko egin zen futbolak gizartearen gehiengo erakartzeko ezintasuna, Skinner, Zakus eta Edwardsen ustez (2008: 397), oro

har hedabideek eta agintariak bultzatzen zuten ikusmoldea ontzat emanez, kirolak etnien banaketekin zuten loturak bakantzen baitzuen. Hallinan eta Hughsonen aburua aurkakoa da ordea (2009: 3). Esan nahi baita ingeles australiar kirolzaleek futbola berena egiteko zuten oztopoa dagoeneko eztabaida publikoan azalerazi den kultur xenofobia zabalaren isla dela, nazio nortasunen ordezkartzen arteko aldizkako liskarren talkaren ezatsegina baino gehiago. Biak osagarriak dira, baina atzerritar kirola iritzita hedabideen futbolaren kontrako jarrera eta gobernuaren ondorengo debekuak asimilazio politikaren isla ziren. Dena dela, etniari dagokionean bereizitako taldeak aritzen ziren hirigune jendetsuetan zen bereziki ospetsua futbola, herrialde osoan zehar jokatzen zen arren, eta horrenbestez kirolaren izaera aldatuz gero azken hamarkadetako zaleen gehiengoak bizkarra emateko arriskua zegoen.

Hori hala, *Bradley Report* izeneko Graham Bradleyren aholkularitza txostenak ildo beretik etnia loturak futbolaren hedapenerako kaltegarriak zirela plazaratu zuen, eta hartara zuzentarauak burutu zituzten kirol arduradunek nazioaren mailan eta estatuetako eremuetan futbolaren eta talde nortasunen lotura ezerezteko. Bada, ingeles nortasuneko australiarren gehiengoa kirolera erakartzeko, eta horretarako urtetan gizartean heldutako atzerritarren kirolaren zama askatzeko, txapelketa maila guztietan etnia edo nazio lotura zuten izendapen guztiak ezabatu zituen futbol txapelketak, eta klubak sortzezko deitura eraldatzera eta nazio ordezkartzen izaera baztertzerantz behartu ondorioz (Skinner et al., 2008: 397). Hala Sydney Croatia eta Melbourne Croatia klubek esate baterako, hurrenez hurren, Sydney United eta Melbourne Knights deitura eskuratu zuten. Bad Blue Boys izeneko Sydneyko muturreko jarraitzaileek izenari arbuigarria iritzi zioten, eta bozkatu baino lehenago Sydney Diaspora izendapenaren aldeko kanpaina burutu zuten. Izan ere, beren ikuspegitik txapelketaren araubideak betetzeaz gain, kroaziar identitateaz adierazi gabeko lotura mantenduko zukeen izendapen horrek. Ez zieten, ordea, biltzar nagusian proposamena egiten utzi eta Sydney United deitura berretsi zuten (Hughson, 1997: 254).

Gobernuak eta futboleko arduradunek ezarri zuten presiopean asaldatuta amore ematen hasiak ziren taldeak ekonomia arrazoiak zirela medio babeslerik ez aurkitzearen beldur. Gutxienik barrutiaren deitura taldearen izendapenean gehitzeko ligak egindako iradokizunetik etnia jatorria guztiz kentzeko agindura igaro ziren. David Rowek, Toby Millerrek eta Jim McKayk antzematen duten bezala, kontraesankorra dirudi NSL nazio ligak gutxiengoan nazio nortasunak agertzen zituzten klubei jatorri zantzu oro kentzeko

eskatzen zien bitartean, Coca Cola eta Ericsson nazioarteko babesle etxeekin txapelketa izendatzeko erabakia hartu zuela. Enpresa horien jatorriak futbolaren australiar tankera arrotzen ez al zuen galdetzen zioten beren buruari egileok (Rowe et al., 1998: 131-132). Oroz gain, Chris Hallinanek eta John Hughsonek egoki azaltzen duten moduan, futbola nahita ez australiartzat jotzen dutenek ukatu egiten dute jokoak izandako esanahia. Esan nahi baita historian Australian futbola askotariko kulturen jarduna bailitzan garatu dela, eta izaera horregatik modu berezian australiarra dela (Hallinan eta Hughson, 2009: 3).

Nahiz eta aldaketak pairatu, oraindik etnien zeukan erroa taldeen atxikimenduak. Ligan hiru etnia komunitate lotzen zitzaizkien bereziki futbol taldeetako aldekotasunari, kirol eta nazio nortasunen loturak erbesteko europar nazio komunitate ugari bateratzen bazituen ere: batetik, italiar, greziar eta kroaziar komunitateak Sydney eta Melbourneko aldirietan, eta bestetik, italiar eta greziar komunitateak Adelaidakoan (Hughson, 1997: 243). Preston Mazedonia Lions eta Heidelberg Alexander taldeen arteko norgehiagokan esate baterako, liskarrak sortu zituena Australiatik milaka kilometrotara Mazedoniaren estatu berriaren sorreraren ganean izendapenak piztu zuen eztabaida bizia zen, Greziak izendapen hori historiari so bere bilakaera izendatzeko bakarrik zegokiola aldarrikatzen baitzuen Nazio Batuen Erakundearen aurrean Mazedoniaren izendapena orain arte ere galerazteraino. Bada, Wray Vampleyk egoki aipatzen duen moduan, australiar hirietako etnien nahasketak eragiten du Europako historia eta auzi garaikideak hala nolako eremu txikian bateratzea (Vamplew, 1994: 215), zeina australiar elitearentzat arbuiagarria den. Europako gatazka urrunekoen isla Australian jazotzea aldarte txarrez hautematen dute australiar eliteek eta are gehiago indarkeria adierazpenak bizilagun izanez gero. Futbola alboratzeko aitzakia ere bazen, aniztasuna mugatzeko benetako helburuarekin. Izan ere, Chris Hallinanek eta John Hughsonek egoki dioten moduan (2009: 4), futbol partidetan liskarrak ez leherrarazita ere, horien jarraitzaileek *Kroazia*, *Grezia*, *Serbia* edo bestelako nazio atxikipenen aldeko kantuak entzunaraztea australiar batasunarentzat mehatxutzat hartua zen.

Kroaziako selekzio jaioberriak 1992an Australiako nazio taldearekin jokatzeko burutu zuen bidaia baliatu zuten diasporako hiritarrek Bosniako gerraz protesta egiteko, eta hedabideen asaldura eragin zuen atzerriko auziek herrialdeko nazio izaerari eragiten jarraitzen ziotelako (Rowe et al., 1998: 132). Etnian oinarritutako klubak, arduradunen eta jarraitzaileen jatorrizko nazionalismoaren eta imajinatutako komunitatearen adibide

litzateke gertatutakoa. David Rowek, Jim Mckayk eta Toby Millerrek adierazten duten moduan, futbolearen zatitutako herrialdearen ikuspegia irudikatuko zuketen gehiengoaren begiradapean, eta horregatik kirolari nazio eraikuntzan garrantzia handia esleitzen dion herrialdean onartezina zen atxikipen arrotzak gainjartzea. Wray Vamplewek (1994: 214) dio hein batean kirolaren inguruan garatutako nazionalismoa indar gizarte baterazletzat hartua izan daitekeela historian barrena kirola Australiak bere burua naziotzat plazaratu izan duen etorbide nagusia izan delako. Futbolearen nekez gertatzen den arren, orokorrean kirolak ahalbidea ematen dio Australiari nazioarteko eremuan gutxitan ez bezala botere handiei jarkitzeko. Futbol nazio taldearen aldizkako partiden eta iraungitze data laburra izan duten garaipenen harira, litekeena da europar jatorriko etorkinek eta baita britainiar jatorriko gehiengoak ere, luzaroan beraien jatorriko nazio taldearen gaineko leialtasuna Australiaren gainetik jarri izana. Tony Warden (2009: 532) esanetan, alabaina, estatuan politika atxikimendua errotu baino lehen kirol ekitaldietan nabari zen nazio partaidetza sentimendua. Ildo berean, Chris Hallinanek eta John Hughsonnek berresten dute oro har kirola australiar nortasunaren muineko sinboloa izan dela luzaroan eta horrela dela orain ere. Nazio taldeak australiar harrotasun kolektiboaren emale gorenak bailiran aurkezten dira sarritan (Hallinan eta Hughson, 2009: 1). Horrenbestez, kirolek, eta baita futbolak ere australiar nazio eraikuntzan hainbesteko zeresana dutela hausnartuz gero, futbolearen etnia gutxiengoaren ordezkarietzekin hartutako erabaki murriztatzailak lotura dute eraiki nahi den nazioarekin.

Preston Lions Mazedoniako taldea ahuldu egin zen zaleak Jugoslaviako auziaren ildoko politika eztabaidetan barneratu ziren neurrian, eta bereziki Heidelberg Warriors – izena aldatu behar izan zuen klub horrek ere – eta Oakleigh Cannons Greziako jatorriko taldeekin harmailetan topo egitean liskarrak sortu ohi zirelako. Hedabideen, agintarien, eta Victoriako estatuko futbol eledunen jomuga bilakatu zen taldea hartara, eta puntuak kenduta eta isun handiak jarrita zigortu zuten (Bosevski eta Hallinan, 2009: 101). Gisa berekoa zen zale kroaziarrek eta areago Bad Blue Boys izeneko muturreko jarraitzaileek zeukaten egoera. Etnia komunitateari hertsiki atxikitako talde nortasuna plazaratu asmoz erabiltzen zuten futbola eta iraganarekin jarraipena bermatzekoa. Australian baztertuta zegoen etorkinen multzokoen partaideak izaki futbol estadioa kroaziar erako komunitate bizipena sentitzeko aterpea zatekeen jarraitzaile kroaziarrentzat. Bad Blue Boys zaleen taldeko kide baten hitzetan, etxetik urruneko etxea bezalakoa zen (Hughson, 1997: 244). Ildo horretan, John Hughsonen hitzetan, kroaziarrek emigranteen komunitatea bailiran

mantentzeko joera betikotu zuten Australian, Kroaziak Jugoslavia ohiean aginte berezia zuten Serbiarengandik independentzia eskuratzeko beharrezana etengabe buruan izanda. Balkanetako 1990eko hamarkadako gerra oso gertutik hauteman zuten urrun izanagatik.

Ildo horretan, Roy Hayk egokitasun osoarekin azaltzen du kroaziarrentzat futbol klubetan oinarritutako bizimoduak izandako eragin bikoitza. Alde batetik, komunitateen baitan identitate zentzua eta kohesioa eman zuten baikorki. Kroaziar izenari eutsi zioten futbol klubek naziotasuna adierazteko zilegitasunezko beste hainbat eremu geldiarazita zeudenean. Jugoslavia ohiko gerra garaian bereziki herrialdearen alde dirua eskuratzeko iturri nagusia bihurtu ziren. Beste aldetik, ordea, onura horiek kalte ordaina izan zuten Hayk oroitarazten duen moduan. Izan ere, Australiako kroaziarren artean inguratuak edo jazartuak izatearen sentipena errotu zuen gehiengoaren komunitatean txertatzea zailduz. Integrazioa gertatzen bazen klub horiek izanagatik jazoko zela dio Hayk, eta ez taldeon mesedeagatik. Aitzitik, beste etnia talde batzuek integrazioa laguntzen zutela alderatzen du (Hay, 1998: 61-62). Esan beharra dago kroaziarren jarreran eragin handia izan zuela gizarte hartzailearen begirune ezak, eta Europako auzien ildoko liskarretatik gaindikoa zela etniei loturiko kirol izaera ere, hedabideek nahiz agintariak nahita ezkutatu zutena. Gainera estadioan ingelesa ez ziren hizkuntzak galarazteraino eta atzerritartzat egozten zituzten banderak debekazteraino iritsiko zen politika eta futboleko agintaritzaren bikoia.

Futbola nazio nortasunez eta etnia auziez bereizteko saioak arazo franko eragin zituen, eta horien artean nagusia taldeen, eta bereziki, jarraitzaileen aurkaritza izan zen. West Adelaide Hellas Sharks izeneko taldearen jarraitzaileek ez zuten taldearen deitura oihukatzen etxeko partidetan, *Hellas*, hau da, Grezia goratzen zuten. Hamaikakoen berri ematean ingelesa ez beste hizkuntzak erabiltzearen debekua saihestu zuten klubek. Hala, Wray Vamplew azaltzen du kultur aniztasunaren aurkako neurriok orduko australiar politika filosofia eta legediarekin bateraezinak zirela, zeinak kultur bizipenen aniztasuna bultzatzen zuen kultur nagusiaren gaineko asimilazioaren ordeztu (Vamplew, 1994: 217). Bada, XX.mende amaieran are gehiago bizitu zen izendapenetan, elastikoetan, ikurretan eta estadioetako zaleen mezuetan eta abestietan Europako nazioen inguruko atxikipena agertzen zuten klubak aurkako erabakimena. 1996an David Hill izenekoak Australiako futbol federazio eraberrituaren gidaritza hartzean erabakitako lehen neurrien artean izan zen klubei europar nazionalismo zantzu oro ezabatzea galdegitekoa. Marconi Fairfield italiar jatorriko kluba ligatik kanporatu egin zuten 1996ko abuztuan italiar banderaren

koloreak bere logotik kentzea errefusatzegatik. Sydney United eta Melbourne Knights klubak ere bota zituzten, hau da, lehenago Kroazia izendapena kentzera behartutakoak, nazio ikurra alboratu ez zutelako. Bad Blue Boys izeneko Sydney Unitedeko muturreko zaleen taldeak nazio bandera haizatzen jarraitu zuen harmailetan eta *Kroazia* oihukatzen zuten partidetan, futbol agintariek helarazi zituzten zuzentarauak arbuatuta. Segurtasun indarrekin eta esate baterako greziar jarraitzaileekin istiluak eragin zituen jarrera horrek (Skinner et al., 2008: 398).

David Hillen aholkularitzaren burutazioak asaldura sorrarazi zuen taldeengan eta zaleengan eta gainera ez zuen jokoaren bitartez plazaratutako etnia komunitateen arteko etsaigoak eta tentsioak baretzeko balio izan (Ibid.). Futboleko norgehiagokaren eremuan askotariko talde nortasunen eta atxikipenen Australiaren izaera anitza azalduko zukeen ororen aurkako ekimena indartzea 1996tik aurrera lehen ministro kargua eskuratu zuen John Howard politikari kontserbadorearen norabide berean hauteman daiteke. Izan ere, arrazakeria adierazpenak ezagun zituen politikariaren ia hamarkada beteko agintaldian futbolaren etnia izaera bateraezina zen hark imajinatutako Australia kultura bakarraren irudiarekin. “Futbolaren bakantzea, zeinak askotariko kulturen begirunearen goreneko garaian ere Australiako kazetetan eta telebistan jarraitu egin zuen, are agerikoagoa izan zen Howarden gobernuaren iraunaldian” (Hallinan eta Hughson, 2009: 2). Inondik ere futbolak plazaratutako herrialdearen ikusmolde kultur anitzaren eta integrazio zabalaren irudiaren aurka bideratutakoa da futbolaren nortasuna itxuraldatu bitartean bazter batean uzteko egitasmoa. Orain arte aipatutako hedabideen zuzeneko parte-hartzeaz gain, Wray Vamplewri jarraiki (1994: 209) futbolaren kirol atzerritarraren enda bizitu zuen halaber lehenik futbol partidak *Special Broadcasting Service* deritzon etnia taldeei zuzendutako katean eskaintzeak. Gero, Howarden gobernuak kable bidezko *Foxsports* katera aldatu izanak Australian oro har kirolak izandako babesa gutxietsi zuen (Skinner et al., 2008: 396). 2005ean nazio ligaren ordezkoa hartu zuen Hyundai A-League izeneko lehiaketak, eta nazio futbol txapelketan jokatu ahal izateko politika lotura ororen debekua erabaki zuen. Hallinan eta Hughsonen aburuz (2009: 2) 1970eko hamarkada aurreko etorkinen inguruko asimilazio politikara itzulera adieraziko luke sinbolikoki lehiaketaren izaerak.

“Futbola, baina ez ezagutzen zenuen moduan” lelopean iragarri zuten txapelketa berria, australiar gehiengoaren aurrean aspaldi futbolari esleitu izan zitzaion etnia lotura aldaketa hezurramitu asmotan. Telebista eta audientziak jomuga hartuko zituen futbol

norantza aldaketa ageri zen, futbol taldeen ohiko ordezkari izaeratik aterata merkatuaren ildoko begirada hobetsiko zuena (Skinner et al., 2008: 401). Zurruntasunez burututako hautatze lanaren ondoren Australiako zazpi talde eta Zeelanda Berriko beste bat hautatu zituzten jaitsierarik gabeko txapelketari ekiteko. 1992an besteak beste, Sydney Croatiak, Heidleberg Alexandriak, Melbourne Croatiak, Preston Macedoniak, South Melbourne Hellasek eta Adelaide City Juventusek jokatzen zuten nazio ligan. Hamarkada bat igaro ostean Adelaide United, Sydney FC eta Melbourne Victory erako izen lausoko klubak ziren Hyundai A-League lehiaketan (Hallinan eta Hughson, 2009: 5). Etnian sustraitzen zen jarraitzaile andanaren zutabea liga berritik kanporatua izan zen hortaz, eta nortasuna iradokitzen zuten deitura guztiak izen lausoengatik ordezkatu zituzten. Preston Lionsek Victoria estatuko bigarren mailako lehiaketan jokatzen du askotariko ekonomia arazoak tarteko, baina jarraitzaileek ez diote mazedoniar nortasunari atxikipena erakusteari utzi Victoriako futbol federaziotik eta A-League txapelketa nagusitik bideratutako irizpideei kontrajarrita. Sua erabiltzeaz gain elkargoak debekatu egin zuen etnia izaerako ikurrak agertzea eta mezuak entzunaraztea. Kirol nahiz ekonomia zigorrak eragingo zituzkeen agindu horiek ez betetzeak. Preston Lions taldearen gidaritza enpresa zioei jarraiki hartu zuen zuzendaritza berriak legez kanpo jo zuen mazedoniarrez abestea eta baita nortasun horretako jantziekin janztea ere. Zale askok kluba nortasuna galtzen ari zela hauteman zuten orduan, eta horietako asko zaleen multzoetan elkartu ziren zuzendaritzaren aurka erresistentzia gisara (Bosevski eta Hallinan, 2009: 105, 107).

Herrialdetik kanpo Europa urrunean jokatzen ari diren futbolarien joanaldiak eta herritarrek ordaindu bidezko telebista kateekin kontinente horretako maila handieneko futbola ikusteko erraztasunak Australiako ligaren erakarpen ahalmena zaildu egiten du. Ligaren osaerako aldizkako aldaketek ere ez dute lagundu ikus-entzule leiala bermatzen (Skinner et al., 2008: 399). Hala ere, Australiako nazio taldeak, *socceroos* ezizenekoak, 2006ko Alemaniako Munduko Koparako sailkapena erdietsi izanak futbolari abagunea eman zion australiarren gehiengoak atzerritartzat jotzen zuenaren irudia iraultzeko, eta gizartean kirol nagusiei lehia egiteko. John Maynarden ahotan (2009: 52), lehiaketarako sailkatzeak mundu mailan kokatu zuen australiar taldea eta baita herritarren iruditerian ere. Inoiz ez bezala hunkitu zuen Munduko Kopa parte-hartze duinak bertakoen bihotza eta hala behinolako jokoaren hesi gaindiezinak ezerezten hasiak ziren Maynarden ustez. Australiako kirol nagusietako zale eta iruzkin egileek ere aitortu zuten futbol bultzada berria. Gainera, Asiako konfederazioaren baitan jokatzeke burututako erabakiak nazio

taldearen eremuan eta baita klubengatik ere hauspoa eman zion futbolari, ekonomia errentagarritasuna bizitu zuelako hedabide eta babesleentzat egokiera berriak helarazita. Futbol oparogoa eta nazio talde indartsuagoa bermatzeko eginahalean merkatu indarrei zuzendu zizkien itzaropen denak Australiak, eta aldaketaren aitzakian aniztasuna kendu.

John Howard lehen ministroaren alderdiko buruzagi Peter Costellok australiar gobernuaren nazio ikusmolde zurruna hezurramitu zuen Sydney Institute deritzon egingako adierazpenetan. Costelloren ustez australiar hiritargoak hartzeak norbanakoaren identitatea hainbeste aldatzen zuen ezen aurretiazko kultur atxikipenei, egotekotan, uko egin beharko zitzaiekeen nolabait herrialde berriak txertatzea zailduz gero (cfr. Hallinan eta Hughson, 2009: 4). Sorterriaz lotura bermatzearen onurez aritzen ziren politikariak kritikatu zituen eledunak, askotariko kulturen eredu lausoa plazaratzen zutela adierazita. Ildo horretan, futbolak etorkinarentzat nortasun berria eta banaezina zin egiteko aukera eskaintzen zuen. Costellori jarraiki nazio leialtasun azterketa gisara hartua izan zitekeen futbola, Norman Tebbit deiturako politikari kontserbadoreak 1990. urtean Ingalaterrako cricket taldeari babesa ematea etorkinentzat atxikimenduaren neurtzailea izan zitekeela defendatu zuen moduan (Ibid., 5). Bistan denez, nazio taldea sostengatzea, are gehiago jatorriko nazio nortasuna ordezkatzeko duen selekzioarekin neurketan baldin bada, nazio komunitatean atxikipena frogatzen duen hunkipenezko adierazpena da politikariontzat, eta nazioaren muineko balioen garraiatzea bide batez. Askotariko nortasunen bizikidetzaren errefusatzeko duen asimilaziozko hausnarketa da azaleratzen dena, australiar hiritar izan ahal izateko futbola bidelagun hartuta nazioa goratzea behartzen duena eta sorkuntzazko talde nortasuna bazterrean uztera.

A-League txapelketa berriak, etnia jatorria ordezkatzeko zuketeko talde oro ukatu zituenak, futbolaren parte hartzaile kopuru eskergaren eta australiar nazio taldearen ospe eraberrituaren arteko lotura ezarri zuen audientzia kopuru duinak eskuratuta. FoxSports katearen emanaldiak errugbi txapelketakoen jarraipena parekatzera heldu ziren (Skinner et al., 2008: 401-402). Nolanahi ere, James Skinnerrek, Dwight H. Zakusek eta Allan Edwardsek ohartarazten duten moduan, ikusteke dago oraindik FFA Australiako futbol federazio sortu berriak zenbateraino aldatuko duen futbola etorkinen baitako erroetatik kirolen merkatu nagusira (Ibid., 396). Philip Mosely herrialdeko futbol historian adituak Australiako Kirol Batzordearen babesean kaleratutako ekarpenean 1990eko hamarkadan aipatu zuen merkatu ikuspegitik erreparatuta ere futbolak etnia komunitateak erakartzen

jarraitu behar zuela nitxo merkatuak bereganatu ahal izateko (Cfr. Hughson, 1997: 254). Eztabaida bada etnia identitatearen oinarriaren eta kirolaren merkatuaren araubidearen artean oreka lortzeko beharraz (Rowe et al., 1998: 131). “Naziotasunean eta etnizitatean errotutako futbol komunitateak besterendu gabe zale berriak erakartzea da beharrezana, etnia eta nazio irizpideetan sustraitutako bereizketak igarota” (Skinner et al., 2008: 402).

Hein handi batean, Australiaz kanpoko ordezkartza zantzu denak ezereztearen norabidekoa izan da, ordea, gobernuaren eta futbol elkargoaren erabakimena, Europatik immigrazioa gutxitu den heinean ordezkartza hori izan ohi zuten taldeak areago ahuldu dituen. Chris Hallinanek eta John Hughsonen futbolaren bilakaeratik ondorioztatutakoa aski zentzuduna da (2009: 5-6), ildo horretan. Alegia, futbola etnia eta nazio nortasunen loturez askatuta harmailak ingurumen ziurra izatea al den xedea edo kultura ezberdinen bizikidetzaren arrotza hautemanda hori kentzea al den galdetzen dute, inondik ere bigarrena ihardetsita. Askotariko etnia jatorritako jokalaria erabiltzea ahalbidetzen die lehiaketak taldeei baina taldeek ezina dute Australiako hiriguneen aldirietan ageri den eremu anitza ordezkartzea. Oroitu beharra da taldeok etnia jatorria agertu arren hamaikakoa osatzean askotariko jokalaria erabili izan dituztela, eta hala ekonomia zioak eta eraginkortasuna onetsi dituztela. “Australiar futboleko izandako askotariko kultura harremanen bizipena zalantzarik gabe arazoz bete izana da, baina hartara errealitate kosmopolitari darizkion tentsio saihestezinak islatu eta kultura negoziatorako zeregina betetzen du kolektiboki sortua izandakoak” (Ibid., 6). Bada, kirolak duen integratzaile gaitasuna errefusatzen dute agintariak askotariko kulturen bizikidetzaren eta asimilazioaren arteko jarraipenean bigarrenaren aldeko hautua egiten dutelako nazio nortasunaren eraikuntzan hainbesteko zeresana duen kirolaren sinbolo izaerako eremuan. Tony Wardek dioen moduan (2009: 540-541), nazio nortasunaren alderdietan izandako aldaketek eragin adierazgarriak izan dituzte kirolean eta kirolek edukitako bilakaeran, bien arteko lotura irmoaren adierazle.

Sydneyko 2000ko Olinpiar Jokoetan biribildu zuten aborigenei eman beharreko aitortzearen eztabaida³³ eta horiek futboleko lortu duten geroz eta parte-hartze duinagoa aldaketa horren lekuko dira. Futbolaren hedapenarekin indigenen presentzia gehiagotu egin da izan ere, baita nazio taldean ere (Maynard, 2009: 52), eta maila berean Olinpiar

³³ *Council for Aboriginal Reconciliation Act* izeneko aborigenen gaineko adiskidetzaren egitasmoa 1991n abian jarri zuen Australiako Legebiltzarrak gehiengo osoz, eta hamar urteko legegintza epean, Australiak 2001ean burujabetzako mendeurrena ospatzerako alegia, adiskidetzaren burututa izatea aurreikusten zuten, hain zuzen ere Sydneyko Olinpiar Jokoen nazio ospakizunari atxikita.

Jokoetan duten oihartzuna eta onespena ere. Luzaroan nazio eraikuntzatik baztertu izana aldatu da horrenbestez, ez ordea aldi horri buruzko australiar gehiengoaren hausnarketa. Olinpiar Jokoak aborigenen eta gainontzekoen artean adiskidetzea burutzeko abagunea bailiran aurkeztu zituzten, eta hartara kanpora begira nazio batu gisara agertzekoa. Izan ere, ekitaldiaren aurretik hein handi batean hedabideetatik gidatu zuten nazioari buruzko barne begirako gogoetan, eta bideratu beharreko narrazio kolektiboan, nazio harrotasuna eta adiskidetze prozesua uztartu zituzten (Elder et al., 2008: 187), munduaren begirada zuzenaren aurrean gailentasunezko irudia igortzeko. Catriona Elderrek, Angela Prattetek eta Cath Ellisek diotenez, Olinpiar Jokoen hartzaile izateko eboluzioak, Munduko Kopa prestatzearenak halaber, gehitu dakiok, nazioaren arazoan azaleratzea dakar lotuta, eta antolatzailearentzat irtenbidea nazio batuaren baitan arazook direna baino gutxiagotzat azaltzea izan ohi da. Hala, Cathy Freeman 400 metrokoen irabazle aborigenak lagundu egingo ziokeen Sydneyri hedabideen bidez batasunezko irudia igortzen, eta gizartearen bizikidetzat goratzen (Ibid., 188). Irekiera ekitaldiko Freemanen parte-hartze entzutetsua goraiatu zuten hedabideek, eta areago berradiskidetzearen goreneko unetzat agertutako garaipena. 100.000 ikuslek australiar ereserkiarekin bat egin zuten, garailearen omenez entzunarazitako doinuekin. Mende erdi lehenago, 1952ko Helsinkiko Olinpiar Jokoetan, *God Save the Queen* ereserkiarekin batera plazaratu zuten Australiako ereserkia Shirley Strickland korrikalariaren omenez (Ward, 2009: 535). 1984.urtean bilakatu zen *Advance Australia Fair* deritzona ereserki ofiziala, eta Sydneyko ekitaldian nazio hunkipenezko sinbolo baterazlea izatera heldu zen. Britainiar izaeratik hasita nazioaren bilakaeraren berri ematen du ereserkiaren eboluzioak, eta ikurrek historiako aro ezberdinetan atxikita izan dezaketen adieraren erakuslea da, hau da, kirolaren bilakaerari ere uztar dakiokkeen esangura aldaketa. Freeman nazio heroitzat azaldua izan zen hedabideetan 2000.urtean, eta haren aborigen izaera australiar nortasunean azpiratua (Elder et al., 2008: 192).

Atleta indigenentzat baldintzapekoa da nazioaren partaide izateko gonbitea, eta gehiengoaren arraza harremanei buruzko hautemate menderatzailearen kontsentsu irudia zilegitzen duten bitartekoa. 2000ko uztailean bere amona indigena senditik bereizia izan zela aitortzean eta Howarden gobernuari lapurtutako aborigenen belaunaldiaren gainean aritzean gizatasunik ez izatea egotzi zionean, Freemanen nazio ikur irudia ezabatu egin zuten hedabideek (Ibid., 191) behin behinean, geroago Olinpiar Jokoetan berreskuratuko zutena. Australiako Gobernuak 1992an zehaztu zuen emanaldi legediaz ikus-entzunezko esparrua. Horren arabera australiar nortasuna garatzean eta islatzean datza hedabideon

lehtasunetako batek kultur aniztasunaren aipamena ere tarteko dela (Nicholson, 2007: 87). Australiar legedia Europako ikus-entzunezko mugarik gabeko zuzentarauren erakoa da. Esan nahi baita nazio nortasuna eta kultura hauspotzea helburu dutela biek ala biek, eta abiapuntutzat daukatela hainbat ekitaldi nazioarentzat hain garrantzitsuak direla ezen doako telebista kateen bidez eskaini beharrekoak direla (Jeanrenaud eta Késenne, 2006: 14-15). Hedabideen lehtasunezko borondatea da horrenbestez, kirol ekitaldien bitartez australiar nazio nortasuna sendotzea, eta neurri handi batean nazioaren ikuspegi nagusia, askotariko nortasunen bizikidetzaz gaindi estatu-nazioarena lehenetsiko duena futboleko bilakaerarekin ondorioztatu daitekeenez, zeinean hedabideek ere kirolari buruzko irudi ezkorra hedatu zuten asimilatu gabeko askotariko kulturen agertokia zen heinean. Argia da oroz gain, Chris Hallinanek eta John Hughsonnek ondorioztatzen duten bezala (2009: 6), australiar nazio kontzientzia eta aniztasunari buruzko eztabaida garaikidean futbolak daukan etengabeko garrantzia. Horrez gain, esan beharra dago talde kirolei dagokienez, harrotasun iturria kolektiboa bihurtzen denean, emakumeei ukatu egiten zaiela gizonei estatuak eta hedabideek esleitzen dieten nazio ezaugarrien zaindari izatearen gorespena (Rowe et al., 1998: 126), hots, nazio eraikuntza maskulinitatean oinarritzen da. 2007ko hauteskundeetatik laboristek agintea eskuratu izanak, bestalde, eragin zuen Australiako Gobernuak lehen aldiz 2008an aborigenen jazarpenagatik barkamena eskatu izana, eta baita hartara horien egoera hobetu ahal izateko neurriak abian jartzeko ekimena izatea.

3.3.5.2-Errugbia hedabideek Zeelanda Berriko ikur burutu zutena

Britainiarren ekarpen gisara futbola eta cricketa lehenago zabaldu ziren Zeelanda Berrian errugbia baino, eta Ingalaterran bezala, futbolaren bi aldaera ezberdinak direnen arteko eztabaida gertatu zen hobetsi beharreko araudiari dagokionean, hau da, gaur egun futboltzat hartua den kirolaren eta errugbiaren artean. Horrela, 1870eko hamarkada erdi bitartean aldaeren arteko anabasa zen Aucklandeko taldeak besteak beste 1875ean landa eremuan partida bira egin zuen arte. Errugbiarentzat pizgarri gisa jazotzeaz gain, erregio identitate sentipena sortu zuena izan zen, Zeelanda Berriko Gobernuak aurretiaz abiatu zuen zentralizazioaren ostean beharrezana ase zuena. Bira hori izan zen, Nick Guothen hitzetan, jokoaren funtsa ordez, errugbiak kazeten eta jendearen arreta nagusia izatearen arrazoia (Guothen, 2006: 199). Eliteen eskoletan eta unibertsitatean 1870eko eta 1880eko

hamarkadetan errugbiaren aldaera futbolaz gaindi aukeratu izanak ere eragin funtsezkoa izan zuen (Little, 2002: 45-46). Kirol muinaren eta nazio nortasunaren arteko lotura nazionalismoaren iruditeriaren baitakoa da horrenbestez, eta ez jokoa baldintzatu zuena.

Prentsa idatziak funtsezko eragina izan zuen errugbia herrialdeko kirol gailena bilaka zedin, futbol aldaeretatik nagusia inondik ere. Kirola jendetzari igortzean gainera, garraio bide eta teknologiaren garapenarekin ekitaldien baitan nazio kontzientzia pizteko gauza izan ziren. Probintzien taldeen arteko etengabeko partidek areriotasuna bideratzea ahalbidetzen bazuten eta bide batez probintziaren harrotasuna, 1888an Zeelanda Berrian ingelesek egindako birak nazio nortasunaren eremura goratu zuen errugbiaren inguruko atxikimendua (Guoth, 2006: 202). 1905. urtean Zeelanda Berriko errugbi nazio taldeak, jadanik *all blacks* izenekoak, 33 partidetatik 32 irabazi zituen Britainia Handian eginiko biran. Behinolako metropolia azpiratzeak esangura berezia zuen, eta gailentasun horrek noski garrantzia handia zuen errugbia Zeelanda Berriko joko gisara ezartzearen hautuan (Maynard, 2009: 42). Bestalde, futbolaren hasierako garapena eten egin zuen errugbiak probintzia identitateak plazaratzeko gabezia asebeste izanak eta Ingalaterrako ezen taldek aro goiztiarrean Zeelanda Berrian eta Australian partida bira egin ez izanak. 1922a arte ez zuen Zeelanda Berriko futboleko nazio taldeak berezko nazioarteko partidarik jokatu (Guoth, 2006: 200), mende hasieratik herrialdean parte-hartzaile ugari izanagatik.

Errugbian nazio taldeak mundu mailan lortutako ospearen itzalpean futbolaren eragina beheratu izan da, Zeelanda Berriko nazio taldeak 1982ko Espainiako Munduko Koparako sailkatzea lortu bazuen ere. Cricketaren jarraipenak ere gainditzeko du futbola, baina 2001ean egunkariak atsekabez kaleratu zuten parte-hartzaileen kopuruan futboleko nazio harrotasuna eskaintzen duen errugbia gainditu zuela (Little, 2002: 38). Australian bezala, futbola izan zen Zeelanda Berrian 1970eko hamarkadan nazio mailako lehiaketa egituratzen lehena, kirola garatzeko diru iturri gehiago edukitzeko aukera ematen zuena, eta hedabideen arreta handiagoa jasotzekoa. Orotara, herrialdeko behaketatik ondoriozta daiteke historiaren gorabeheren uzta dela errugbia kirol nagusia bilakatu izana batetik, eta gailentasuna eskuratu zuen heinean nazio kirola bihurtzea bestetik. Jokoa funtsak nazioarenarekin izandako balizko berezko uztarpenaz errugbiaren halabeharrezko ospea arrazoitu nahia nazionalismoaren iruditeriaren baitakoa da. Errugbian maorien kultura oinordetzaren gudu kantua abesten dute jokalariek lehia orenen atarian, ondasun hori

nazio bereizgarritzat agertzen den ekintzan. Bitartean, herrialdeko futbolari behar baino garrantzia murriztagoa eman zaio, Charles Littlek deitoratzen duen moduan (Ibid., 46).

Australiaz eta Zeelanda Berriaz haratago Ozeano Bareko uhartedi txiroagoetan ere milaka lagun elkartzen ditu futbolak, Ozeaniako Txapeldunen Ligan bereziki, nazio kirolaren pare bihurtzeraino. Futbolaren mende bateko mundu hedatzearen helmenaren zantzua da. Samoak, Kaledonia Berriak eta Cook Uharteek FIFAk babestuta nazioartean lehiatzen dute, NBE Nazio Batuen Erakundeak bere altzoan estatu gisa aitortu ez arren.

3.4-Atalaren ondorioak

Leheneko begiradan futbolaren globalizazioaren berri ematen du aurreko ataleko azterketak. Ingalaterran XIX.mendean sortutako aisialdi modernoa, lehiako izaeraz eta kodetutako araudiaz hornitua izaki kiroltzat definitua, ia gizarte orotan kirol nagusia eta ildo horretan gizarte gertaera bilakatu zen. J.A. Manganek dioen eran (2001a: 268-269), zoko gehienetan bereganatu egin zuten, maiz moldatu eta aldi gutxitan ukatu. Munduko mailatik jaitsita, nazioen bilakaeraz, eta historia garaikideaz jabetzeko ahalmena ematen du futboleko zeharko behaketak. Albrecht Sonntagek dioenez, futbola aldi berean hartua izan daiteke nazioez osteko globalizazio prozesuaren alderdi gisa, eta sortzen ikusi duen modernismoan zurruntasunez ainguratuta balego bezala. Eraitza identifikazio euskarri anbigua da, soziologoak azaltzen duen moduan, zeinak gaur egungo aroa ezaugarritzen duen identitate nahasmenduarekin bat egingo lukeen (Sonntag, 2010: 220). Bi alderdiko errealitatearen isla da, bada, futbola. Hala, Richard Giulianottik eta Roland Robertsonek diote nazio nortasuna eta estatu-nazioak funtsezko abiapuntuak izan zirela futbolaren globalizazioan, eta are gehiago, gaur egunean estatu-nazioak oraindik boteretsuak izaten jarraitzen duten moduak islatzen dituela kirolak, eta globalizazio garaikidearen barruan aski moldagarriak direla (Giulianotti eta Robertson, 2009: 97). Estatuaren arteko lehiaren barruan hazi zen futbola, britainiar irletan lehenik eta behin, eta horrela iraun du, 1920. hamarkadako bi gerren arteko nazionalismoaren gorakada arotik hornitutako ereserkien zeremoniarekin inguratuta. 1966ko Munduko Kopan ereserkien ekoizpena atarikora eta finaleko partidara mugatu bazuten ere, kirolera uztartuta izan da ia mende batez.

Ildo horretan, nahasgarria dirudi Joseph Blatter FIFAk buruak partida atarian ereserkien ekoizpena bertan behera uzteko abagunea plazaratu izana, 2006ko Munduko Koparako sailkapeneko ligaxkan Turkiaren eta Suitzaren arteko partidari izan zen gerra tankerako giroaz asaldatuta (cfr. Yonnet, 2010: 169). Izan ere, UEFAko idazkari nagusi Lennart Johanssonek beste adierazpenetan zehaztu zuenez, futbola usadiozko balioetan oinarritzen da, elastikoen koloreen gaineko maitasunean, nazio eta erregio nortasunetan eta ekonomikoak ez diren beste gizarte eta kultur faktoreetan. Bada, telebistentzat hain produktu erakargarria bilakatu bada, futbolaren biziraupena ziurtatzeko biziki bermatu behar diren ardatzongatik dela nabarmendu zuen Johanssonek (cfr. Poli, 2006a: 50). Ildo horretan, *La Marseillaise* frantziar ereserkiari Afrika iparraldeko nazio taldeen aurkako partidaren karietara etorkinen ondorengo belaunaldiek jotako txistuek eta geroko politika eztabaidak azaltzen dute zein estua den futbolaren eta nazio komunitate imajinatuen arteko sinboloen lotura, 1920. hamarkadako futbolaren zabaltzetik eta nazionalismoaren hauspotze garaitik eratorria. Adierazgarria da 2012an Serbiako entrenatzaileak jokalaria bat behin behinean taldetik kanporatu izana nazio ereserkia ez abesteagatik. Elkargoko araudian abestea betebeharra zen. Futbola eta komunitate izaeraren giza premiaren asean izakin beraren bi alderdiak dira. Industria Iraultzaren sorreran eta iraunaldian arestian, tokian-tokian, XVIII. mendetik XX. mende berantiareraino luzatu zen historiaren aldia. Eta ondoren, postmodernitatez jotako XXI. mende hastapeneko ziurgabetasun garaian.

Horrela, futbolaren ekonomia izaera talde nortasunei gainjarriko bazitzaie, eta areago, hainbatek batutako aberastasunak jokoari esleitutako emaitzaren ziurgabetasuna narriatuko balu, futbolaren ospea kolokan izango zatekeen. Izan ere, taldeen arteko lehia are eta estuagoa izan, orduan eta biziagoa da ikusleen eta 11 jokalarien ordezkartzaren arteko uztarpena. Paul Yonneten hitzetan (2010: 72), kirol-ikuskizun bikoaren erregaiak ziurgabetasuna eta identifikazioa dira. Bestela esanda sortzezko giza emozioak eta talde edo komunitate baten kide izatearen beharrezko bateratzen dira futboleant, ikerketaren hastapenean zehaztu denez, eta areago azaleratzen da hori nazioen arteko txapelketetako azkeneko norgehiagoketan. Nazio nortasun ezberdina islatzen duen ordezkartzarekiko muturrera eramandako alderaketa sinbolikoan gizarteant imajinatutako komunitatea oroz gain haragitzen da, batasunezko sentimendua irudikatu, eguneroko bizimodutik kanpo. Bairnerrek bezala, Sonntagek ere argudiatzen du (2008: 82) murrizak direla gaur egun talde nortasuna kaleratzeko egokierak, eta kirol ekitaldiek aukera ematen duten heinean direla entzutetsuak. Egoki gehitzen du hedabideen ikuskizun ekoizpenak bi alderdiak

ardatz beraren aurpegiak bailiran agertzen dituela, eta harremanaren eraginkortasuna indartzen duela era horretara. Hedabideok, geroago sakonduko duguna aurreratuz esan dezagun, hiritarrak gogutzen dituztela kirola eta nortasuna baliatuz, eta lehenago behatu dugu futbolaren hedapena horrela bultzatu zutela XX.mendearen hasieran. Bada hori da futbolaren arrakastaren giltzarria, munduko beste talde kirolekin alderatutako araudiaren erraztasunaren eta Britainiar Inperioaren eta behe klaseen atxikimendu goiztiarraz gain. Munduko ikusmoldearen osotasunarekin behatu ahal izan dugunez, talde nortasunen eta futbolaren biko bilakaera banaezina da. Luis V. Solar Cubillasek egoki dio (2007: 102) kirola politikatik bereiztea ezinezkoa dela, talde nortasunen gauzatzea eta norgehiagoka politika auzietan txertatuta dagoela aintzat hartuta. Bestela da kirolean administrazioen esku hartzea epaitzea. Hori mugatu daiteke. Afrikan esaterako, gobernuen alderdia dira elkargoak eta banaketa hautemanezina da, eta FIFA araudiaren bidez ildo hori murrizten ahalegintzen da. Alabaina, futbola talde eta nazio nortasunen ordezkartzarako baliatzea eragozten saiatzea edo hori aldarrikatzea zentzugabekeria gisakoa da, sortzetik eta gaur egun arte bata eta bestea lotuta izan direla ebatzi dugunez, eta bi alderdiek harremanetik onura atera baitute. Hori ezeztatu nahia bada egiazki politika futbolaren baitan nahastea.

Nazio modernoek bezala futbolak ere XIX.mendearekin zantzurik ez duen aldian kokatzen erdietsi du. Bien patua lotuta dagoela ere iradoki daiteke. Dietschyk egoki dio futbol nazio taldeen txapelketen ospea estatu-nazioaren ereduaren arrakastaren adierazle izateaz gain munduaren Mendebaldetzearena ere badela (Dietschy, 2011: 44). Munduko zoko denetako gizarteek estatu-nazioaren eraikuntza eta nazio taldearena errepikatu egin zuten eta ildo berean kapitalismoaren norgehiagokaren izaera zerion kirolaren bizi era bereganatu ere. Kultur globalizazioaren alor erabakiorra ere bada futbola, bistan denez, mundu osoko berezko adierazpen anitzei gainjartzen zaiena. Salbuespena da AEBetako zuzendaritza ez duela futbolaren zabaltzeak. Esan genezake gaur egun futboleko ospea duten herrialdeetatik aski haragoko ikusmira eman duela behaketak. Zernahi ezaugarria duten gizarteetan artean den nazio atxikimenduzko afektibitatea asetzeko erantzukizun nagusia bere erantzukizunpean dauka futbolak Pierre Brochandek arrazoitzen duenez:

“Nazio berriei dagokienean, hein batean, Afrikan eta Latinoamerikan bezala, non futbolak gizarte lotura nagusiaren betekizuna egingo duen; nahiz nazio zaharren inguruan mintzatzean, pixka bat akituta daudenak, eta futbola nazio sentimenduaren azken gotorlekuetako bat denean” (Brochand, 1998: 73-80)

Areago, nazio adierazpen eta futbolaren arteko loturaren adibide garaikideenekin behatu ahal izan dugunez, nazioek eta futbolak biziberritzea izan dute globalizazioaren areagotzearen aroan, eta aurrerantzean ildo berean jarrai dezakeela aurreikustea zilegia da, bide batez. Alberto Melucciren hitzetan, mundu garaikidean norbanakoak bere ahala gainditzen duen, eta ondorioz, gainezka eginarazten dion, etengabeko hautuen beharrari buru ematen dio, eta horrek ziurgabetasunez betetzen du (Melucci, 2001: 121). Hartara, etnia nortasuna mundu ziurgabeen norbanako eta taldeei bermea eman ahal dien gunea da, ezberdintasunarena eta egonkortasunarena. Meluccik iraganetik datorren nortasuna den neurrian oroimenaren ainguraz betetzen dituela arrazoitzen du. Hala, nahiz eta etnia izaeraren usadiozko erroak asimilazioagatik, migrazioengatik eta masa kulturarengatik lausotzen ari diren, identitateari hala nolako bizirautea ziurtatzen dion identifikaziorako irizpideagatik aukera daitezke (Ibid., 115). Etnian oinarritutako nazionalismoa Manuel Castellsek definitzen duen moduan atxikimenduak lausotzen dituen globalizazio aroaren aurrez aurreko defentsazko ihardespina da (Castells, 2003: 89). Ildo horretan jarraituta, Albrecht Sonntagek dio, eta nazio talde berrien sorkuntzak eta txapelketen hartzaile eta irabazle izandako herrialdeei loturiko nazio ardatzeko ospakizunek batez ere berresten dute, 1990eko hamarkadan futbolak biziberritze nabarmena izan zuela, eta sekula baino gehiago kirolen eremuan gailentzen dela. Hain justu ere, indartze hori gertatu zen nazio balioen erakargarritasun berriarekin batera, mundu garaikidearen konplexutasunaren eta ziurgabetasunaren aurrez aurrean (Sonntag, 2008: 103). Globalizazioaren bizitzean, edo nahi bada, Roland Robertsonek izendatutako globalizazio garaian, nazioaren garrantzia eta nazio nortasunarena handiagotzea eta futbolarena ere gehiagotzea aldi berekoak dira, bistan denez.

Horrez gain, Eric Dunning kirol soziologian adituarentzat (2003: 16) taldeekiko leialtasunak gaur egunean ezjakintasunaz ezaugarritzen den garaian aingura erabilgarria eman dezake. Klub batekiko atxikimenduak alderdi politiko edo ideologia batenganakoa gaindi dezake (Serna eta Carnero, 2003: 41). Bideanabar, delako klub hori nazio taldea izatean, futbola dela medio, nazioaren inguruko atxikipena luzaroan bizitzen lagunduko duela esan daiteke. Oparoa deritzot Sonntagen arrazoibide honi: “Futbolak ez ditu nazio nortasunak sortzen, baina oso era eraginkorrean erantzuten dio talde baten kide izateko beharrizan arkaikoari, guk hautatua ez izanagatik era naturalean eta bistakoan ezartzen dena” (Sonntag, 2008: 274). Nazio nortasunez ari da norberak aukeratuak izan ez direla dioenean. Oro har, eraiki dugun argudio bideari jarraiki esan genezake sarrerako atalean

erabili dugun Eric Hobsbawm historialariaren arrazoibidea, azaletik begiraturaz hainbatek gehiegizkotzat hartuko dutena, historikoki eta munduko askotariko adierazpenei sakonki erreparatu ondoren egitatetik nahiko gertu dagoela. Egiazki, nazioa haragitu ahal izateko beste zutabeak ahitzean futbola da 11 jokalarien taldearen bidez gaur egun irudikatutako komunitatea aski “ukigarria” bilakatzen duena. Bestela esanda, Bonifacek egoki ebazten duenez, futbolak subiranotasunaren eta eguneroko bizimoduaren artean lotura burutzea ahalbidetzen du (Boniface, 2002: 64). Uztarpen horren zaindaria da FIFAREN agintaritza gainera.

FIFAK futbola, ahaidea zuen behinolako futbol aldaeratik, errugbitik, nabarmen bereizi du nazio taldeetan aritzeko jokalarien betebeharreri dagokienez. Hain da FIFAK nazio taldeen ordezkari zentzuari ematen dion garrantzia ezen beste kiroleretan jokalaria atzerritarrek beste selekzioekin ari badaitezke ere, futbolean ezinezkoa dutela, eta beste nazio nortasuna hitzemanaz gero ere, futboleko erakundeak baldintzak zurrundu dituela nazioarteko mailan lehen aldiz euren ez den herrialde batekin jokatzeko ahalbidetzeko. 1964an ebatzi zuen FIFAK futbolari beren kirol bizitzan nazio talde bat baino gehiago ordezkatzeko eragozteko, ekialdeko herrialdeen presiopean, zeinek Altxairuzko Hormaren Mendebaldera futbolaren ihesa eta beste nazioak ordezkari zitzatela eragotzi nahi zuten (Sonntag, 2010: 225). Litekeena da futboleko erakundeak gogo onez hartutako erabakia izatea. Futbolaren sendiko errugbian berriz, gaur egun atzerriko liga lehiaketa baten hiru urtetan aritzen den kirolari batek federazio horren eskumeneko selekzioan aritu ahalko du, aurretik, gaztetan ere, zegoen nazio taldean jokatu ez izanaren baldintzapean. Ez du horretarako kanpoko hiritargoa hitzemandako beharrik edukiko. Futboleko osterak bai, eta FIFAK ezarritako baldintza gehigarri berriak bete beharko ditu, jokatzeko. Qatarrek, besteak beste, diruaz jokalaria atzerritarrek bere nazio taldea indartzeko eginiko saioaren aurrean hartu zuen erabakimena futboleko erakundeak, hau da, nazio taldeen eta horiek ordezkatzeko duten nazioaren arteko lotura erasan ez zedin. Irlandako Errepublikak Ipar Irlandako jokalaria hartzen zituela eta, FIFARI zehaztasun handiagoak eskatu zituzkion iparraldeko elkargoak, eta hark oraindik zirrikituak uzten dituen araudia plazaratu zuen.

Futbolariak estatu bat ordezkatzeko delako elkargo horren lurraldean jaioa izan behar da, bere ama edo aita biologikoa edo bere aitona-amonak federazio horren mugen barruan jaioak izan behar dira, edo atzerritarra izanez gero, lurralde horretan bi urtetan bizitzen egona izan behar da. Bistan denez, futbolaren eta nazio nortasunen hastapeneko

uztarpena betikotu nahi du FIFAk Munduko Kopen bitartez ekonomia etekin nabarmena ematen diola ondorioztatuta. Izan ere, Anaclet Ponsel egoki dioen moduan, futbolaren hazkundera gertatu zen politika komunitate garaikidearen hedapenarekin batera, hau da, estatu nazioaren egituraketarekin (Pons, 2003: 73-74), eta hedabideen sorreraz halaber. Estatuaren hegemonia ziurtatzen du FIFAk, salbuespenak salbuespen, estatuaren jabetza ez duten nazioei eta horien elkargoei nazioarteko lehiaketetan sartzea ukatuz. Futbola eta nazio nortasuna historian barrena aztertu duen hirugarren kapitulu amaierako koadro batean ageri da FIFA kide izateko onarpen araudian estatua dela muina. Jarraian dagoen koadroak berresten du estaturik ez duten nazio taldeen onarpena salbuespenekoa dela.

Estatuaren hegemonia: Politika burujabetza eta futbol ordezkariak uztartuta

FIFAn bai eta NBEn ez: Uhartediak, koloniak eta britainiar irlen salbuespena*
AEBetako Virginia Uharteak, Aruba, Bermuda, Britainiar Virginia Uharteak, Cayman Uharteak, Cook Uharteak, Eskozia, Faroe Uharteak, Gales, Guam, Herbehereetako Antillak, Hong-Kong, Ipar Irlanda, Kaledonia Berria, Macau, Montserrat, Palestina, Puerto Rico, Samoa, Turks eta Caicos Uharteak.

*Eskoziak, Galesek, Ingalaterrak eta Ipar Irlandak federazio bana dute FIFAn, baina Nazio Batuen Erakundearen Erresuma Batuen barruan daude lau lurralde horiek.

NBEn bai eta FIFAn ez (Salbuespen bakanak)

Marshall Uharteak, Mikronesiako Federazio Estatuak, Monako, Nauru eta Palau.

Westfaliako 1648ko bake itunetik eratorritako munduaren estatu-nazioen arteko lurraldetasunezko mugen arteko ereduaren biziraupena defendatzen du futbolak oro har eta FIFAREN gidaritzapean hein handi batean globalizazioaren baitako bere gaineko eta azpiko eraginaren aurrean. Europarren kolonia menderakuntzak bi alderdiak hedatu zituen munduan Europaz kanpoko gizarteak euren etorkizuna eta burujabetza irudikatzeko bide bera errepikatzen bultzatzeraino, nazioaren eta futbolaren bikoan. Hobsbawmek dioen gisara (1992: 136), europar nazionalismoaren hizkera hartu zuten kolonien askatzaileen buruek, sarritan euren bizipenetara egokitzen ez zen arren. Horrela, zentzugabea dirudi epe motzera nahiz ertainera estatu-nazioen amaiera iragartzea, eta eurozentrismo adurra dario, Europatik at estatuak heldutasunera bidean ari direnez gero. Futbolaren bitarteko nazio eraikuntza ikusi dugu Afrikan eta Hego Amerikan bereziki, askotariko gizartearen komunitate bateratua haragitzeko xedez. Hurrengoak dira xeheeki, mundu behaketatik atera genitzakeen lerroburu zehatzagoak. Hedabideez hausnartutako ondorioez dagokion atal bereizitua izango da ostean.

1-Futbol taldeek komunitate beharrizana ase dute modernitatean eta orainaldian.

XIX.mendean gizarteak pertsonen arteko zuzeneko harremanak gaindituta zeharkakoak eta irudikapenezko komunitateak bihurtu zirenean, hiritartze prozesuan talde nortasunek eta futbolak identitatezko aingura eman zieten norbanakoei. Hedabideek bultzatu zuten futbolaren ospea eta baita bere bidezko nazio nortasunak, nazio futbol estiloak asmatuta. Argentinako *El Grafico* deiturako aldizkaria izan zen aitzindarietakoak. Argentinan hain justu, auzuneak baino lehenago sortu ziren klubek ondoren joandakoen talde nortasunak sustraitu zituzten, eta Eskozian, Glasgoweko Celticek Irlandatik joandako immigranteei inguru arrotzean beren komunitate sentipenari eusteko aingura eman zien. Handik urrun, Indiako Bengala eskualdea 1947.urtean, Pakistan sortzean, bitan zatitu zenean, hinduen immigrazio eskerga izan zen Mendebaldeko Bengalara, eta East Bengal izeneko futbol kluba beren identitatea mantentzeko euskarri nagusietakoak izan zen. Australian, halaber, futbol klubak Bigarren Mundu Gerra osteko ingeles mintzairarik gabeko immigranteen kultur adierazpenerako eremu nagusi bihurtu ziren. Australiako Gobernuak immigrazioa bultzatu egin zuen arren, etorkinak beheratu egin zituzten anglo saxoi izaerako gizarte xenofoboan, eta inguru arrotzean komunitate zentzua sustraitzeko aukera eskaini zieten etnia bilguneetatik sortutako futbol klubek. Eztabaida daitekeena da urruneko sorterriaz loturari eusten lagundu zieten aldi berean herrialde berrian integratzea oztopatu ote zien, eta gisakoa gerta zitekeen Celticen inguruko komunitate irlandarraz. Ordu arte alabaina, segregazioa eta etorkinen bazterketa hobesten zuten estatu-nazioek. Halaber, Jordanian errefuxiatu palestinarrentzat At-Wihdat izeneko kluba komunitate baterazle nagusia izan da, transjordianarren estatuan arrotz gisa eta arriskutzat hartzen dituzten ingurumenean. Oro har Paul Yonnetek arrazoitutakoari jarraiki, kirol identifikazioa, funtsean identitate eletik eratorria dena, askotariko tamainetako gizarteek beren izate kolektiboa agertzeko eta besteen aurrean ikusarazteko duten beharraren adierazpena da (Yonnet, 2010: 192). Bestalde, zaleak futbol klubuen jabeen helburu kontrajarrien aurrean taldearen muineko balioen azken gotorlekua direla esaten da. Patrick Mignon soziologoari jarraiki, 1980ko hamarkadan bereziki zabaldu zen askotariko hooliganismoa eta muturreko ideologiekin lotura, gazteek ikusmiran duten artegazko etorkizunaren ondorio da (Mignon, 2006: 42).

2-XX.mendetik estatuen arteko harremanetan eragiteko lehenetsitako ekimena da.

Nazioarteko harremanetan futbola *soft power* esaeraz definitua, alegia botere bigunaz, XX.mendeko nazioarteko harremanen muinean txertatu zen. Munduko auzien hurbiltze usadiozkotik haratago ikusmolde pluralistagoa galdegiten du kirola behar bezala aintzat

hartzeak, eta futbol joko izaeraz gaindi bere eragina hautemateak. Lehen Mundu Gerran, bi mundu gerra arteko aroan, Gerra Hotzean eta deskolonizazioan nahiz XX.mendearen amaieran, estatu-nazioen mailaketari uztartu zitzaion, nazionalismoen irriken zerbitzura. Demokrazia aginte eredia zuten estatuak, hasieran kirolaren eta politika edo naziotasun adierazpenaren arteko hartuemana errotik ukatzen zuen Erresuma Batua barne, Italiako faxismoaren eta Alemaniako nazismoaren izaerako estatuak horiei gaineratuz, SESB eta Mendebaldearen kolonizazioak eragindako Amerikako estatuetara eta Ekialde Urruneko herrialdeetaraino, futbola bitarteko gisara erabili izan dute euren nazioaren gailentasuna adierazi asmoz. Demokrazia liberalek, faxismoek, estatu sozialistek nahiz kapitalismoak baliatu izan dute. Nazioarteko harremanetan keinuak egiteko eta hurbiltzeak adierazteko eremu sinbolikoa da, boikotekin adibidez, edo Ingalaterrako jokalariek Bigarren Mundu Gerra hasieran Italia eta Alemaniaren aurrean aritzean agur faxista egin zutenean bezala, adiskidetze nahia plazaratzeko. Kirolak Gerra Hotzean aukera ematen zien osterantzean mundu mailan bakanduta zeuden estatuei boikotekin alde batera edo bestela lerrokatuta beren izatea adierazteko. Futbolaren eta politika ekimenen harremana banaezina izan da. Horrez gain, Senegalentzat 2002an Frantziari irabazi izana futbolaz gaindi kolonialismo osteko garaiko harremanetan beste inon ez bezala bere izatea aldarrikatzeko aukera zen, eta Hegoafrikako 2010eko Munduko Koparen antolakuntza Afrikaren ahultasun izaera futbolak erakarritako arretaz iraultzekoa. Turkiak ere Europarengandik beheramenduzko jokabidea jasaten duela antzematen du, eta futbol eremuan aldatu nahi du hori. Bestalde, 2002ko Munduko Koparen kariatara, Japoniaren eta Hego Korearen hurbiltzea adierazi zuen Munduko Koparen biko antolaketak, eta 2004ko Asiako Kopan Txinako harrerako ikusleek japoniarren aurka agertu zuten erdeinua ere nazioarteko harremanetan txertatu zen.

3-Nazioak munduan kokatzeko eta prestigioa sustatzeko ahala eskaini du futbolak.

Uruguai 1930eko historiako lehen Munduko Kopa, Independentziaren mendeurrenean, munduan bere burua ezagutarazteko nahiaz antolatu zuen, eta ahalegin handia egin zuen antolakuntza jasotzeko. Mussolinik agindutako Italiak ez zuen krisialdi osteko garaian 1934ko bigarren ekitaldia atontzeko dirua xahutzeko arazorik, 1978.urtuko Argentinako militarren antolakuntzak herrialdeko krisialdia areagotu zuen futbolari harrera egiteko, eta Angolak 2010eko Afrikako Koparako ekonomia inbertsio eskerga burutu zuen, bere herritarren %70 pobrezia atalasearen azpitik izanagatik. Futbol ekitaldi nagusiek mundu begirada herrialdean ezartzen dute ia beste ezerk ez bezala, eta arrazoi baikorra tarteko,

eta agintariak edozein ahalegin egiteko gertu dira horiek bereganatzeko. Kanpora begira onespena lortzeko batetik, eta munduaren begirada antzemandak gizarte hartzailean sortu ohi den nazio sentipena baliatzeko bestetik. Frantzia 1998an gertatu zenez, sorterriko taldeak garaipenarekin biribiltzen baldin badu, nazio harrotasun berriaz kaleratzen dena. Hain da futbol taldeak nazioa ordezkatzeko sortzen duen prestigio abagunea, ezen kirol emaitzak txarrak izatekotan nazioarentzat desohore larria bailiran hartuak direla aurkako kasuetan. Saudi Arabiako Gobernuak horrela definitu zuen 2002ko Munduko Kopan 8-0 galdu izana. Boli Kostako presidentek 2000ko Afrikako Koparen ondoren futbolariak militarren gune batean atxilo hartu zituen arrazoi berarengatik. Horrez gain, Nigeriako Gobernuak, ebazpena hartu zuen, futbolak eta politika aginteak Afrikan duten erabateko loturaren isla, bi urtez nazio selekzioa txapelketetatik bakantzekoa, nazioa gailentasunez nazioartean ordezkatu arte. Handik urrun, Kim Jong II izeneko Ipar Koreako agintariak entrenatzailea eta jokalaria zigortu zituen AEBetako 1994. urteko Munduko Koparako sailkatu ez izanagatik, eta 1998ko eta 2002ko Munduko Kopetarako sailkatze ligaxketan ez parte hartzea agindu zuen, eraginkortasunez nazioa ordezkatzeko prestatzeko. Txinak atzerrira bidali izan ditu jokalaria prestatzera eta Sobiet Batasunaren inguruko estatuek legez kanpoko elikagaiak baliatu zituzten nazioaren eta ideologiaren maila goratzeko.

4-Futbolekoa 90 minutuko nazionalismo herri agerpen iragankorraz gaindikoa da.

Afrika eta Hego Amerikan bereziki, gerrek, etnien etsaigoek eta gizarte ezberdintasunek nazioa eraikitzea ia ezinezko egiten duten estatuetan, futbol partidek 90 minutuko aldian gutxienean nazio taldearen bitartez, etnia, klase, arraza eta erlijio auziak ahazterazteko gaitasuna dute. Futboleko ospakizuna iraukitze eskasekoa delako beheratzen dutenak oker daudela argi hautematen dut, aldi batez behintzat, lehiaketa batean, komunitatearen izaera haragitzeko gauza baitira. Liberian, Boli Kostan, Ruandan, Bolivian, Venezuelan, Frantzia nahiz Belgikan, besteren artean, futbola eta nazio selekzioak komunitatearen batasuna irudikatzekeo itsasgai nagusietakoak dira, eta beraz, ez da zilegi hori gutxiatea. Funtsean nazio proiektu bateraturik ez dagoen gizartean nazioaren ideia ernetzen dute, kanpoko etsaiaren aurka lehiatuta. Amaitzean, aztarna uzten du batasunezko gomutak. Izan ere atxikimendu iragankorra baino gehiago, Christian Bromberger antropologoaren hitzak neure eginda, nazioak beharrezkoa duen erregenerazio sinbolikoa eskaintzen du futbolari loturiko ospakizunak, garaipena ez erdietsita ere, parte-hartzea duina denean. Ernest Renanek eguneroko plebisituaren izaerakoa definitzen zuen nazioa, eta definizio horretatik abiatuta, beharrezko dituen ekitaldiak esleitzen dizkio futbolak. Hori horrela,

Pascal Boniface nazioarteko harremanetan adituak dioen gisara, nazioaren atxikimendua eguneroko erreferendumaren parekoa izatekotan, nazioarteko txapelketek ahalbidetzen dute ohikotasunez 90 minututako galdeketak egitea (Boniface, 2002: 105). Ildo berean, Peter Sloterdijk filosofo alemaniarraren hitzetan, nazioak talde histeria sorrarazten duten ekitaldien beharra du agerizko kohesio falta edota etnia, kultur eta ekonomia solidaritate eza estaltzeko (cfr. Sonntag, 1998: 36). Michael Billigen aitzineko hausnarketa oroitarazi behar dugu hemen, zeinak ekitaldi nagusiak baino are garrantzitsuago, nazioen elikagaia egunerokoan, errepikakorrak izateagatik, oharkabean igarotzen diren zantzuek osatzen dutela zioen, nazionalismo hutsala – *banal nationalism* – bailitzan definitu zuen estatu agintearen zilegitze ekimenaren baitan. Billigentzat nazionalismoaren agerpena ekitaldi handietara mugatzea okerra da, ohiko adierazpena gutxiesten delako. Banderen haizatze etengabekoa eta hedabideen nazioaren maiztasuneko oroitaraztea gainjartzen ditu hark, jendeak bizimodu arruntaren alderditzat jotzen dituenak (Billig, 1998: 50-51). Batetik, futbolarekin ezberdindua da bere hausnarketa, ekitaldi handien ekarpenari duen adiera mugatu nahi baitio, baina bestetik baikortasunez eta esanahi handiegirik ez balute bezala haizatzen diren sinboloez diharduenean, futbolarekin zinez bateragarria da. Jim Sillars SNP Eskoziako alderdi independentistako eledunak Eskoziako nazionalismoa futbolera mugatzen zela deitoratu zuen behinola, politikako auzi serioagoan berretsiko ez balitz bezala, baina munduko adibideek oroitarazten dute, Jugoslavia ohiean, SESBen, nahiz Aljerian, futbolak etorkizuneko ebazpen politikoa iradoki eta lehenetsi duela. Funtsean, 11 jokalarien demaren gizarte oihartzunaz erabat jakitun izaten dira futbol jarraitzaileak. Norbert Eliasen eta Eric Dunningen gogoeta giltzarria aipatu dut hastapenean, zeinean, bizitzako arazoez babesteko gisara, ekintza mimetikoekin, kirolari dagokionez taldeen ordezkariarekin, eta arriskurik izateke, norbanakoek eguneroko sentipen gogorreki eta artegei ihesbidea eskaintzen dieten. Norbanakoen emoziozko gainjarpenak, edo histeria moduko komunitateen ospakizunak, ez dira 90 minutuko tartean iraungitzen, eta uztarik gabekoak izaten. Nazioari eta norbanakoari behar duen bizipena ematen diote. Maizago kirolean izaten den bandera haizatzea, Billigen eleei jarraiki, ez da ahaztu behar gainera. Horrenbestez, esan daiteke munduko futbola bertatik bertara sakon behatu duen Simon Kuper berri emailea oker dagoela futboleko nazionalismoen bukaera hautematen ari dela esatean, eta politika futbola inguratzen duen apaingarri soila dela gaur egun berrestean. Nazionalismo adierazpenei loturiko jarraitzaileen arteko liskarrak apaldu eta bizikidetzaz

hobetu delako ondorioztatzen du hori, bestelako heldulekurik gabe (Kuper, 2012b) ³⁴. Billigen nazionalismo hutsalaren, ez kontzientearen, irizpideak oro har ezeztatuko luke hausnarketa hori, eta oroz gain ikerketan helarazitako mundu osoko guztizko adibideek.

5-Nazioen oroimeneen narrazioaren sinbolo izaerako ekitaldi nagusiak sortzen ditu futbolak. Tesi hasieran aipatutako Anthony Smithen eta Eric Hobsbawmen hausnarketa gogora ekarrita, funtsean asmatuak diren sinboloen erabilerak, nazio ekitaldienak barne, kideei ohartarazten die partekatzen duten ondasuna, eta orduan dira bereziki kontziente hiritartasunaz. Hurrengo hitzok tentuz hartzekoak izanik ere, Kim presidenteak 2002ko Munduko Koparen final laurdenetan Koreako taldeak Espainiakoa garaitzea herrialdeko 5.000 urteko aroaren une gogoangarrienetzat jo zuen. Halaber, Costa Ricako Gobernuak hamar egunetan aurreratu zuen independentziaren urteurrena 2001ean selekzioak AEBei irabazita 2002ko Munduko Koparako sailkatzea erdietsi zuela gomuta horrekin batzeko. Frantziari irabaztearen biharamuna jai egun izendatu zuen Senegalgo Gobernuak. Bada, futbol garaipenak nazioen gertaerazko bilakaeran lehenetsitako ekitaldiak bailiran hartu ohi dira. Albrecht Sonntagek hitzetan, nazioak bere burua zuritzeko duen premian lagun diezaioten, nazioarteko kirol adierazpen handien sostengua bakarrik ziurta dezake, aldez aurretik aurreikusi daitezkeen jazoera baterazle eta ohiko bakarrak izateagatik (Sonntag, 1998: 36). Futbolak bere burua berriz eraberritzeko ahala ematen die ekitaldi handietako nazio parte-hartzaileei. Alemaniak 1954an nazismoaren ondoren erdietsitako garaipena, Ingalaterrak 1966an estreinakoz sorterrian lortu zuena, Argentinak 1978an erdietsitakoa, junta militarren erabilpenetik harago, Frantziaren 1998ko aniztasunaren laudoriozko garaipena, Hego Korean 2002ko Munduko Koparen antolaketa zela eta gertatu zena, eta Espainiak 2010ean Hegoafrikan lehenengo aldiz eskuratu zuena, besteren artean, nazioa aldizka elikatzearen beharizanaren isla dira, eta futbolaren hornigaiiaz modu horretan. Gehienetan garaipenekin lotua da, baina galerak ere nazio oroimenean txertatu izan dira, 1950ean Brasilek etxeko Munduko Kopa ekitaldian finalean Uruguaiaren aurrean jasan zuen ustekabeko porrota lekuko, zeina nazio atsekabe nagusien zerrendan ezarri zuten. Talde nortasuna zilegitzeko, iraganetik orainerako jarraipena eta gerorakoa bermatua da.

³⁴ “Soft carnival nationalism” hau da, mozorroaren gisako abertzaletasun biguina, eta “political heritage is decoration”, alegia futbola osagarria, hondoan dagoena, dela esanda definitu zuen gaur egungo egoera eta etorkizunerako joera Simon Kuperrek Bilbon futbolaz eta globalizazioaz 2012an eginiko mahai-inguruan.

6-Nazio identitatea eraberritzeaz batera nazio izaera berhausnartzea indartzen du.

Muturreko nazionalismoarekin, gerrekin eta giza eskubideen bortxarekin uztartzen ziren Japonia, Alemania eta Espainiako nazio sentipen agerpenak onbideratzen lagundu zuten futbolari loturiko herri ospakizunek, bandera eta ereserkien sinboloak gizartean baikorki hedatzeraino. Hurrenez hurren, 2002an, 2006an eta 2010ean, nazio harrotasuna gerraren oroitzapenetatik bereizita plazaratzea ahalbidetu zuen futbolak nazio selekzioen bitartez. Ingalaterrako 1996ko Europako Kopan britainiar izaeratik bereizitako ingeles nortasuna irudikatzeke abagunea eman zuen futbol ekitaldiak San Georgeren gurutzearen bandera haizatuta *Union Jack* britainiar sinboloaren orde. Bereziki futbol ekitaldien hartzaileari dagokionez eta emaitza ona lortu duenarentzat, nazio identitate berriaren eta baikorraren aldarriaren parekoa da, eta oro har nazioaren alderdi gehienak ildo positiboaz agertzen laguntzen du, munduaren arreta eurengan somatzen dutenez. Frantzian 1998an, 1966ko Ingalaterrako txapelketan emaitza ona lortu zuen Portugal arraza anitzarentzat, eta batik bat 1960ko hamarkadan abiatutako Brasilgo selekzio anitzarentzat, nazio nortasunaren izaera birdefinitzearen arduradun nagusia izan zen, nazio ahaltsua agertu zuen neurrian. Futbolak aniztasuna eta etorkinen barneratzea hobesten zuen eredia berresten zuelakoan hartzen zuten, eta garaipenek nazio heldutasuna eta goratzea frogatzen zutelakoan ere.

7-Nazio izaera gisara futbolaren zentzua eta hautematea denboraz aldakorra da.

Hasieran menderakuntzarako eta britainiar muskulu kristautzaren ikuspegia zabaltzeko erabilia zen futbola britainiar inperioaren agintepean edo eraginpean ziren gizarteentzat, aurretiaz egituratutako kolonialismo hausnarketaren ondorio izan ez bazen ere. Hala ere, Indiako adibidea adierazgarria da futbolak har ditzakeen askotariko zentzuez. Izan ere, hastapenean Mendebaldeko balio eta agintearen bidelagun izan zen arren, berehalakoan Indiako nazionalismoaren sinboloa eta baterazlea bihurtu zen Mohun Bagan deiturako taldearekin XX.mendearen hasieran, hots, menderakuntzari aurre egiteko sinbolo tresna, eta hamarkada batzuk igaro ostean Indiako nazio eraikuntzaren banaketaren isla, erlijio zatiketarik tarteko, Mohammedan Sporting klub izeneko taldearen ordekaritzaz funtsean. Horrez gain, Irlandan, beste gizarte askotan gertatzen zenez, kirol arrotzari mesfidantzaz erreparatzen zioten hasieran, euren usadioentzat mehatxu gisa, baina beste inguruetako talde nortasunei jarraitzea ahalbidetzen zenez, laster euren egin zuten. Euren muineko identitatea ezaugarritzen zuten joko gaelikoen gaindi futbola hobetsi zuten nazioarteko neurketan beste nazioei gailentzea ahalbide ziezaikeen hizkuntza mundutierra zelako eta harrotasuna eman ziezaikeelako. Iranen, aginteko boterearen nortasunaren arabera,

eta hark eraiki nahi izan zuen nazio eraren baldintzapean, futbola sustatua ala beheratua izan zen XX.mendean. Izan ere, Modernitate eta Mendebaldeko nortasunari atxiki zaio orokorrean, eta bereziki Irango gizartean, eta erlijio gizarte zurrunaren irekiera galdegin dutenentzat futbol eta nazio taldearen arrakastak ospatzea ildo berari dagokio. Zeelanda Berriari dagokionez, errugbiaren izaera nazio muinarekin lotzen dutelako, nazio taldea beste ordezkartzei neurtzean garaitsua baita, futbola bigarren mailan jarria da. Inondik ere nazio ikur asmakuntza da kirolaren izaera nazioaren ezaugarriekin lotzea. Bestalde, Eslovenia adibide oparoa da futbolaren unean uneko adiera nazio nortasuna indartzeko erabiltzeari dagokionez. Nazionalismoak hasieran baztertu egin zuen Jugoslavia hegoko herrialdeetatik horrela bere burua bereizteko, baina burujabetza izatean bereganatu zuen munduan herrialdea ezagutarazteko. Nazioak eta nazio nortasunak etengabe bilakaeran diren izateak dira, eta hala, era berean futbolaren gaineko hautematea eta erabilpena ere.

8-Herri futbol atxikimendua ez da amarrua, nazioa eliteen eraikuntza soila ez den gisara. Anthony Smithek azaldutako nazioaren definizioari jarraiki, eliteen eraikuntza soila ez den bezala, futbol zaleak ez dira Brombergerrek dioen moduan, kultur arloetak ez eta norbaitek zuzendutako fanatikoak ere, inguratzen dituen munduaz jarrera kritikoa izateko ez gaiak (Bromberger, 1995: 196). Urugain 1980.urteko Gabonetan ospatu zen Mundialito izeneko FIFArekin lehiaketan gertatua esandakoaren argigarria da. Diktadurak bere agintea zilegitu nahi zuen nazio taldearen garaipenari uztarturiko nazionalismoaren adierazpenarekin, baina uruguaiarrek garaipena ospatzen zuten aldi berean diktaduraren amaiera eskatu zuten. Izan ere, futbol nazio selekzioari loturiko sugarra aginte izaeraren gairikoa dela argi ondorioztatu daiteke behaketatik. Argentinan junta militarrek preso zituztenek ere ospatu zuten selekzioak irabazi izana. Marc Augek (1999: 59, 61) dioen gisara, futbola ezin da manipulazio tresna izatera gutxietsi, eta opiotzat eta aldaketaren eragiletzat hartzeko moduko nortasun bikoitza du. Nabarmentzekoa da, zentzu horretan, estadioetako harmailak herrialde askotan agintearen aurkako ezadostasuna plazaratzeko azken eremua izan direla. Korean, japoniarren menderakuntza garaian, Austrian nazien mendean, Vichyko erregimenean, gaur egungo Aljerian – Kabiliar nazioa aldarrikatzeko erabilia besteak beste – Tunisian, Ipar Korean nahiz Txinan, estadioa politika aldarriak egiteko azken askatasunaren eremua izan dira, eta artean badiraute. Montesquieuk 1734. urtean argitaratua da, nazio baten barruan gatazkaren hotsa entzuten ez bada, ziur egon daitekeela norbera bertan askatasunik ez dagoenaz (Montesquieu, 1734). Brombergerrek dioen moduan, estadioa eremua bakanetakoa da non zehaztutako mugen barruan emozio

kolektiboen kontrolik gabeko ihesa onargarritzat joa den (Bromberger, 1995: 9). Ezin da uka futbola auzien lokarazletzat erabilia izan dela. Naziak adibidez, futbolaz bizimodu arruntaren itxura ikusarazi nahi zuten okupatutako lurraldeetan, baina, euren kontrako oldarkortasunaren isla izan zitekeela susmoa izatean eteten zuten. Portugal, Brasil nahiz Argentinako diktadorek lokarazteko, eta hartara beren agintea zilegitzeko, erabili zuten, nazionalismoaz futbolaren loturak euren erabilera gainditzen badu ere. Dena dela, bistan da gatazken oroitarazlea izan dela maiztasun berarekin behinik behin. Izan ere, Jeremy Mcclancyrekin batera ondoriozta dezakegun modura, futbola masa gizarte ordenarekin adosteko manipulazio bitarteko gisara erabilia izan daitekeen arren, menderatuek jokoon antolakuntza bere helburuetako abileziarekin erabil dezakete kontrolari aurre egiteko eta beraien berezko balioak aldarrikatzeko (MacClancy, 1996b: 11). Eta eliteen ekimenetik haratago herritarren nazio ospakizun berezkoa ahalbidetzen du futbolak, Iranen modura.

9-Zatitutako nazioetan erabilpen anitza: Irlanda, Alemania, Zipre, Yemen, Korea.

Ipar Irlanda ordezkaten duen futbol selekzioa Irlandako uharteko iparreko gizartearen banaketaren adierazgarria izan da protestanteen talde nortasunaren sinboloa delako, eta hegoarekin dagoen bereizketa nabarmentzen du nazioarteko erakustokian agertzen den aldiro. Katolikoek Irlandako Errepublika ordezkaten duen taldearekin jokatzeko hartu ohi duten erabakimenak atxikimenduen konplexutasuna adierazten du. Ezberdinak dira zinez Alemaniako eta Koreako adibideak. Bigarren Mundu Gerra amaitzean bi nazioak bi estatutan banatu ziren Gerra Hotzeko biko munduan alde banatara lerratuta, eta euren mundu ikuskera zilegitu nahi izan zuten kirolaren ordezkari eta mailaketa baliatuta. Hala ere, estatuen futbol bidezko hamarkada luzaroko ezberdintzeko ekimenak ez zituen nazioen loturak deuseztatu. Izan ere, Gerra Hotza amaitzean Alemania elkartu egin zen, baita berehalakoan nazio taldea ere, eta Ipar Korearen eta Hego Korearen artean kirola bitarteko hurbiltzea gertatu zen, batasunezko adiskidantzazko partidak tarteko, Koreako sinbolo bateratuen haizatzearekin. Beraz, nazioarteko lehietan ordezkaturako futbolak ez zuen ahalbidetu Ekialdeko Alemaniako nazio bereizitua eraikitzerik, ez eta 5.000 urteko oinordetza zuen Korean 50 urtetako aldian nazioa zatitzerik. Zipren alderantzizkoa jazo zela arrazoi daiteke. Izan ere, greziar gehiengoko Zipreko Errepublikaren eta Turkiaren mendeko uhartearen iparraldearen arteko hurbiltzea sustatzeko uhartearen nazioarteko futboleko ordezkari bakarra sortzeko elkargoen arteko hizketaldiak galera izan zuten, Turkiaren mendeko iparraldeko politikariek greziar izaerako ordezkari elebakarrean jausarazteko beldur baitziren. Alemania eta Korean ez bezala, Zipren greziar nazioa eta

turkiarra kontrajartzen dira, eta kirolaren bat egiteko ahal sinbolikoa gizartearen batasun desio aurretiazkoaren arabera dela ondoriozta genezake. Futbolak nazio nortasunean eragiteko duen ahala dena baino gehiago agertzea ez da komeni, ez eta gutxiestea noski. Yemenen, britainiarren agintaldia amaitzean Gerra Hotzeko egokieran bi estatutan zatitu zen nazioa, eta 1990. hamarkadan berriz batu zenean, futbola baliatu zuten aurretik bien ezberdintasuna irudikatu zuten moduan, oraingoan batasuna ikusarazteko. Nolanahi ere, bi aldeek ordezkaritza parekidea ziurtatu behar izan zuten, zatiketak bazirauela aditzera emanaz, eta futbolak nekez lortu du oraindik gizartean eragindako zatiketa ahaztarazten. Nazio eraikuntza bilakaeran adiskidetzarako baliabide gisara erabilia izan da futbola, bi estatutan zatituta egotean eta baita estatu barneko etnia etsaigoen anabasa bateratzeko. Giuseppe Garibaldi XIX. mendean Italiako gaur egungo lurraldeko erresumen bat egitea gidatu zuenak esana da: “Italia eraiki dugu, orain italiarrak sortu behar ditugu”. Estatuak nazioa aitzinetu zuela iradoki zuen eta nazionalismoaren parte hartzea azpimarratu ere. Afrikan oroz gain, futbolarekin naziorik ez zegoen lurraldean hori sortzen saiatzen dira.

10-Futbolaren eragina gutxiestea nahiz gehiegizkotzat azaltzea, biak okerrak dira.

Futbola eta kirola politika edo nazio nortasunen auzietatik askatu behar direla adieraztea hutsalkeria dela esateko moduko errealitatearen jabetza hurbilekoa egituratu dugula uste dut. Futbolaren beheztatzea eta bere esanahia ukatzea da hori, hastapenetik uztartua izan baita futbola talde nortasunen ordezkaritzara. Nazioarteko kirolaren politika zurtasuna aldarrikatzeari ez bidezkoa zeritzaion egokitasunez Jean Meynaudek (1972: 306). Alde batetik, hori aldarrikatzen dutenek kontrajarritako pentsaera izan dute auzi politikoaren arabera, eta bestetik, egiturazko ezberdintasunak dituen munduan neutraltasuna azaltzea bidegabekeriok betiketzaaren parekoa izango litzateke. Igarobide labainkorra da inondik ere, baina politika harremanak kirolek bereiztea ezinezkoa dela azaltzen duena. Hautu bat egin nahiz bestea egin, politikaren barrukoa da, Britainia Handiak 1930eko urteetan ondorioztatu zuenez. Hala ere, hori horrela izanik ere, ez da komeni futbolaren ahalmen eragilea gehiegizterik. Izan ere, orain arte aipatutako adibideez gain, SESBen agintearen kirol eta futbol kudeaketa ahalmena ez zen nahikoa izan barruko nazioen identifikazioa ezereztu eta kapitalismoaren aurkaritzazko nazioan batzeko. Halaber, tentuz ibili behar da jarraitzaileen harmailetako politika adierazpenak eta beste komunitate baten ordezlea den taldearen aurkako irainei soberazko garrantzia ematean. Ezberdintasuna adierazteko futbolaren emoziozko egokieraren baitan ulertu beharra dela gogorarazi digu Christian Brombergerrek lehenago. Izan ere, Meynaudek oroitarazten duenez, futbol harmailetan

talde bat eta hark ordezkatzeko duen komunitatea iraindu dezake norbanakoak eta ostean politikan herrialde horrekin gertuko harremanak edukitzea aldarrikatu (Meinaud, 1972: 260). Lehenago hainbatek orokortzen duten futbol eremuko atxikimendu iragankorraren ideia gertaera honekin bateragarria da. Guztiz nabarmentzekoa da klubaren inguruan maiz nazio nortasuneko mitoa esleitzen bada ere, objektu beretik askotariko gizarte eta nazio atxikimenduko jendeak zentzu ezberdina bereganatzen dutela horrekiko loturatik, baina denek ere klubaren inguruan bat egiten dutela. Nazio bateko bereizketen gainjartzailea izateaz batera, hiri edo eskualde bateko ideologiaren baterazlea gertatzen da futbol taldea.

11-Estatu gabeko nazioek futbol selekzioa dute xede nazio izaeraren adierazlea delako. Aljeriar selekzioaren partida birak estatuaren sorrera aitzinetu zuen, eta eredu bihurtu zen xede hori lortua ez zuten nazioentzat. Estatu izaera ez zuenari ordezkari emana ziotelako FIFAk mehatxatu zituen nazio arerioek bidezidorrak aurkitu behar izan zituzten. Hungariako erbesteko nazio taldearen Gerra Hotz aroko bira ere aipagarria da, eta baita politika eremuan jasandako zailtasunak. Horrez gain, adierazgarria da Tibeteko selekzioari 2001ean Groenlandian lagunarteko partida jokatzeko Txinak jarritako oztopo sorta, bertako otarrainskak inportatzeari uztea mehatxatzeraino. Tibetek futbol eremuan nazioartean jokatzeko bazuen hari nazio izaera ematearen parekoa zela bazekien Txinak. Futbol independentzia burujabetza politikoaren parekotzat eta horren islatzat hartua da, FIFAk hasieratik salbuespenak salbuespen, estatu bakoitzeko futbol elkargo bakarra eta nazio talde soila aitortzen zenez. Bohemiari jadanik 1912ko Olinpiar Jokoetako futbol ekitaldian aritzea eragotzi zioten. Korsikaren selekzioa errotzeko saioa antzua izan zen XX.mendean, eta XXI.mendean bizitu arte, korsikar gutxi duten klubekin plazaratu dute nazioa. NON FIFA NF Batzordeak estatua ez izateagatik eta euren estatuko federazioek ez baimentzeagatik FIFAn aitortzarik ez duten nazio eta erregioen ordezkariak barne hartzen ditu, eta VIVA deritzon Munduko Kopa antolatzen du ekonomia zailtasunekin, 2012.urtean Kurdistanen jokatu zena. Tibetez gain, Iparraldeko Ziprek, Mendebaldeko Saharak, Kurdistanez, Groelandiak, Guadalupek, Zanzibarrek, Somalilandiak, Valoniak, Laponiak, Gibraltarrak eta Okzitaniak jokatzeko dute hor. Halaber, Proventzak eta Italia iparrean Liga Norte izeneko eskuin muturreko alderdiak irudikatutako Padania deritzon erregioak ere. NF Batzordean sartzeko elkargoak baldintza soila bete behar du: jendea, nazioa, gutxiengoa edo bakandutako lurraldea ordezkatzeko. Guztiek futbolaz aitortpena nahi dute, erakundeak gaitasun handiagoa erdietsi eta FIFAn eragingo duen itxaropenaz. Independentzia aldarrikatu zuen Kosovo ere hor da. Maila apalekoa izaki, eta munduko

hedabideen arretaz hobaritu gabe, VIVA txapelketak ez du jendetzarik erakartzen, baina Zipre turkiarrean gertatu zenez, nazioarteko politika gorabeherak hor ere ez dira urrun, turkiar izaerako zipretarrek Kurdistanen ordezkariarekin ez lehiatzea desio baitzuten. NON FIFA NF erakundeak turkiar zipretarrei taldeak hautatu nahia egotzi zien. Haiena hain zen handia ordezkari irrika, ezen beraien txapelketa antolatu zutela 2006an, eta parte-hartzaileen bidaia kostuak ordaindu. Halaber, UEFAk atondutako erregioen kopan Euskal Herria gisako taldeak aritzen dira, baina amateurra izaki, ez dute arretarik pizten. Euskal Herriko futbol bitarteko nazio adierazpena eta Kataluniarena, tesiaren azkeneko ataleko kasu azterketan aztertuko dira sakonki.

Bestalde, klubek beren nazioen sinboloak ezagutarazten dituzte nazio talderik ez badute. Jugoslavia eta SESB zatitu aurretik klubaren partidek nazio nortasunen neurketak haragitu zituzten futbol zelaian, eta hala gero politikako banaketa iradoki zuten. Bada, Jugoslavia eta SESB hainbat estatutan zatitzean herrialde berrietan futbolak garrantzia galdu zuen, nazio atxikimenduen alderaketan oinarritutako partidak funtsean ezereztean. Futbolak bere ospea neurri handian talde nortasunen ordezkari alderaketan errotzen duela azaleratu zen horrela. Horrez gain, erbesteko nazio klubak nabarmentzekoak dira, Ararat izeneko kluba, Irango Teheran hiriburuan armeniar nazio gutxiengoa ordezkari duena, eta Preston Macedonia Lions Melbourneko aldirietako taldearen esangura kasu. Kievko FC Start taldearen – Dynamoren jarraipenaren – Bigarren Mundu Gerra garaiko futbol partiden gainean Sobiet Batasunak lehenago eta Errusiak geroago, eta Ukrainak, eraikitako nazio narrazio kontrajarriek adierazten dute futboleko partidak nazio ekitaldi nagusiak izateaz batera, nazio oroimenean txertatzen direla. Hain da handia futbolaren sona ezen Pascal Bonifacek dioen moduan, estatuaren ohiko hiru alderdiko definizioari – lurraldea, populazioa eta gobernuari – garrantzia bereko futbol nazio taldearen erpina gaineratzen zaiola, zeinak armadaren esku den nazio mugen defentsa nazioarteko futbol partidak jokatzearen bidez ere osatzen duen (Boniface, 1999: 91). Hala, nazio izatearen babesean armadaren pare ezartzen da futbol talde sinbolikoa, eta horregatik azaldu izan dira bien arteko iruditeriazko berdinketak han eta hemen, eta jokalaria nazio soldaduen pareko baketsuak liratekeenaren nabarmentzea. Izan ere, gerrarekin parekatua da maiz futbola eta harmailetatik lubakietara igarotako Jugoslavia ohiko gerra horren zantzua da. Kroaziak hain justu, nazio taldearen bitartez 1998ko Munduko Kopan ezagutarazi zuen bere estatu jabetzazko herrialde izaera munduaren aurrean, hirugarren postua erdietsita. El Salvadorren eta Hondurasen arteko futbolaren gerra zeritzona, gerraren eta futbolaren

arteko bikoaren eta hedabideek askotan sustatukoaren adibide argiena izango zatekeen. Aitzitik, bi herrialdeek eragindako gorrotozko nazionalismoaren emaitza izan zen gerra.

12-Estatu-nazioen azpiko erregioekin atxikipena bai, baina estatuz gaindikorik ez.

Alemaniko Ruhr eskualdearen adibidea, eta bereziki, ingurukoek beheratzen dituztela hautematen baitute, Napoli eta Marseilla hirietan futbol klubek hartu duten defentsazko nortasuna eta hiriaren imajinatutako balioekin parekatzea nabarmentzekoa da. Parisekin eta hiriburua ordezkatzeko duen PSG taldearekin etsaigoak indarkeria adierazpen biziak sortu ohi ditu futbol partiden inguruan. Brombergerrek alderatzen du inoiz ez direla hain hurbil izan paristarrak eta marseillarrak bizimoduari dagokionez, baina inoiz ez bezala elkarren artean ezberdinak direla hautematen dutela (Bromberger, 1998: 74-75). Azken hamarkadetan globalizazioak sortutako bizi eren berdintze joeraren aurrean altxatutako harmailetako adierazpenekin arrazoitzen du berak. Komunitateetan babesteko futboleko alderaketa partidak besteekiko ezberdintzean talde nortasuna sustraitzen laguntzen duela ondorioztatu behar genuke. Klubuen atxikimendua etnia, erlijio eta klase zioen arabera, taldearen eta arerioen eraikitako irudiaren arabera, osatu ohi dela ikusi dugu, eta jadanik ez dago gertuko komunitatean bakarrik sustraitua. Izan ere, satelite bidezko hedabideen helmenaz urruneko atxikimenduak indartzen dira geroz eta gehiago, Eskandinavian klub ingelesekin gertatzen denez, eta etxeko ligen hazkundea eta nazio taldearen ordezkari-tza ahalmena narriatu ohi dira maiz, Asian nahiz Ozeanian. Juduen taldeak Daviden izarraz jokatzeko hasi ziren Lehen Mundu Gerra ostean, eta musulmanek hasierako ezkortasuna gainditu ostean Indiako Mohammedan Sporting Club gisako ordezkari-tza ikurrak sortu zituzten, baina Israelgo musulmanen liga ere bai, futbolaren nortasuna kontrolpean izan nahirik. Italian gizarte klaseen arabera biko alderaketak ikus daitezke, jarraitzaileen begietara bederen. Erroma beharginen klaseaz lotua da eta hiriburu bereko Lazio kluba aristokraziarekin. Torinon langileriak Torino taldea sostengatuko duela aurreikusita da, Juventus-en loria aberatsenekin uztartua den bitartean. Mundu ikuskerak banatzen ditu taldeak ildo horretan, baina funtsean klubak askotariko pentsamoldeen bilguneak gertatu ohi dira, eta hainbat ideologiatako norbanakoak ia beste inon ez bezala elkartu ohi dira.

Eskualdeen atxikimenduek nazio taldeak islatu nahiko lukeen batasuna kolokan jar dezakete, Eskozian Celticekin eta Rangersekin agerian dagoenez. Aitzitik, estatuek gaindi, estatu-nazioen futbol ordezkari-tzak ez du areriorik globalizazioak oro har goiko eta azpiko eremuetako atxikimenduetatik erronkak botatzen dizkion garaian. Izan ere,

Europako estatu nazioez gaindiko proiektua, ustez politikaren boterea estatuen gaineko eremuetara lekualdatzeaz diharduen globalizazioaren adierazgarri izan daitekeena, ez da gauzatu futbolearen ere, estatu-nazioek futbol selekzioen ordezkari eta identitatezko zentzuari eskaintzen dioten garrantziaren zantzu gisara. Ildo berean, futbolaz agertutako panafrikanismoak ere ez die lehia egiten nazio nortasunei. Hartara, futbolak ez die bidea uzten estatu gabeko nazioei ez eta estatuz gaindiko balizkoei ere, globalizazioan behetik eta goitik mehatxatuta egonda ere, bere ahalari eusten dion egitura zurrunaren adierazle.

13-Gizonen ordezkariaren izaeran errotutako futbol bitarteko nazio eraikuntza.

Brombergerrek eta Dunningek oroitarazi diguten gisara, gizonezkoaren lehentasunezko izaeraren ikurra izan da futbola, eta hala, muturreko adierazpenen agertokiak izaten dira harmailak hainbatetan. Dena den, Ingalaterrako 1966ko Munduko Koparen telebistako emanaldien emakumezkoen ia gizonen pareko jarraipenak, Iranen 1997an nazio taldea Munduko Koparako sailkatu izanaren ospakizunetan emakumeen adierazpenek, 2006an Alemaniak antolatu zuen ekitaldiaren nazio liluraren baitan barneratu ziren emakumeen kopuru handiak eta Israelen emakumezkoengan futbolak hartu duen garrantziak, bestek beste, adierazten dute maskulinitatearen esparrua izateari utzi diola. Iranen, emakumeei, modernitatearen aldeko aldarria lotu zitzaion 1997ko futbol ospakizunean parte-hartzea galarazi nahi izan zieten agintariak, eta haiek nazioaren parte ez al ziren alderatu zieten. Hain zuzen ere, nazioen arteko alderaketa denean gehiagotzen dira hasiera batean kirol horrek erakartzen ez dituen norbanakoak telebistaz jarraitzera. Funts sinbolikoagoa da, ezbairik gabe, kirol eskola izanik ere. Nazioaren heroiak gizonak izan dira nagusiki gaur egun arte, eta hortaz, zelaiko 11 jokalaria nazioaren ordezkariak dira emakumezkoentzat ere. Horretan bai gizonen esparrua izaten dirauela.

Olatz Gonzalez Abrisketa euskal antropologoak genero hurbiltzeaz arrazoitzen duen moduan, nazio sorkuntzazko narrazioak gerratik bereiziezinak dira eta hain justu alderdi horretan da nabarmenena emakumeen ahaztura edo alboratzea. Horiei amatasun eginkizun nagusia esleitzen dieten bitartean, nazioarentzat gorputzak sortzea, gizonek ematen dute beren gorputza, horiei dagokie, nazioaren defentsan (Gonzalez Abrisketa, 2013: 92, 93). Nazioen ohorea babesteko gerraren eta futbol neurketaren artean egin ohi den parekotasunari jarraiki, futbolaren eremuan ere gizonezkoak gainjartzen dira artean nazio interesen defentsan. Horrela, neurri handi batean, emakumezkoen nazioa edo talde nortasunak haragitzeko ezintasunean datza nesken futbolaren ahultasuna ere, AEBetako

salbuespenetik at. Futbola nortasunen ordezkartzarekin lotu da arrakasta eskuratu duen herrialde guztietan, eta hor futbola erantzulea ez den eza du nesken futbolak. Esan nahi baita komunitate ordezkartza eta ohorearen defentsa nagusiki eta usadioki gizonezkoek burututako ordezkartzari uztartu izan zaiola, eta futbolak bere nortasun ordezkartzailan gizarteetako joera horri eusten diola. Emakumeek hori hezurmamitzen ez dutenez, beste arrazoiak ere tarteko direla – ustez gizonen indar nagusitasunaren hautematea ere zentzu berean – emakumeen futbola ez da mundu osoan gizarte ikuskizun izatera heldu. Oroz gain, kirolak gizartearen irudia ematen du, eta politika eremuan estatu-nazioaren egitura bermatu duen gisara, gizartean gizonezkoen lehentasun izaera mantentzen lagundu du. Munduko kasuei erreparatuz, gizonen parte-hartzearen hegemoniak hori erakusten du.

14-Nazio taldeen osaerak XXI.mendeko nazioen aniztasun saihestezina agertu du.

Futbol selekzioak nazio kontzeptu abstraktua eta partaideen adimenean imajinatua dena zilegitu eta haragitzen duela ondorioztatu ahal izan da orain arte, eta bidenabar, zelaira ateratzen den taldearen osaeraren arabera unean-unean gainjartzen den nazio proiektua azaleratua da. Frantziak eta Portugalek adibidez, asimilazioan oinarritutako hiritartasuna eta lur eskubidean – *ius soli* – errotutakoa plazaratu izan dute futbolaren bidez nazioaren ordezkartzan. 1966ko Ingalaterrako Munduko Kopan emaitza ona izan zuen Portugalgo nazio taldea eta Frantziako 1998ko Munduko Kopan garailea izan zen etxeko selekzioa dira horren sinboloak, baina oroz gain kolonietako futbolariak zelairatzen lehenak izan ziren. Aurrez aurre izan ziren luzaroan Ingalaterra eta Alemaniako nazio taldeak, haiek, ordezkartzen zuten nazioaren hiritartasuneko segregazio hautua irudikatu baitzuten, eta batik bat Alemaniari zegokion odolean – *ius sanguinis* – oinarritutako estatu-nazioaren partaidetza. Ia XXI.mendea iritsi arte bi herrialde horiek ez zuten atzerriko jatorria zuen jokalaririk hautatu. Oro har selekzioa komunitate mugetan nazio homogeneous sortzeko XIX.mendeko tankerako nazionalismoaren ametsaren azken gotorlekua izana da. Iragan hitzetan zehaztasunez mintzo gara, globalizazioak estatu-nazioak eta nazioak amilarazi ez, eta horren ordezkartza moldatu egin baititu, eta mundu osoko selekzioek nazioaz helarazi nahi den irudia plazaratu duten heinean, bilakaeraren isla dira. Ikusgarria da Alemaniak bereziki berriki taldean aniztasunerantz izandako eraldaketa. Azterketan behatuak izan diren herrialde gehien-gehienek azalerazi dute futbolaren bitartez XXI.mendeko nazio eraikuntzan aniztasunaz bizikidetzeko proiektuen ezbaia, XXI.mendean immigrazioari bizkarra ematea ezina izango dela jabetu baitira. Eptacio Pessoa izeneko XX.mendeko hasierako Brasilgo agintariak adierazi zuen ez zela egokia beltzek futbolarekin nazioa

ordezkaterik. Nazio talderako ez hautatuta komunitateaz eraiki nahi zen irudiaren berri ematen zuela hausnartuta zuen 1920ko hamarkada goiztiarrean. Horrez gain, Holandako nazio selekzioan Atlantiko Ozeanoaren bestaldetik etorritakoen zelairatzeak nazioaren proiektuaren nolakotasunaren ezbaia agertu izan du, eta baita Italiako nazio taldean ere, Mario Balotelli Ghanan sortutako futbolariaren parte-hartzearen inguruan. Esloveniako hedabideek halaber, ezberdintasuna nabarmendu zuten Esloveniako muineko jokalarien eta Balkanetako beste herrialdeetako jatorria zutenen artean, immigrazioak ezinbestekoa bihurtzen zuen aniztasunezko nazio eraikuntzari oztopatuta. Bestalde, Estonian, errusiar jatorriko jokalaria alboratu zituzten independentzia ondorengo nazio talde jaio berrian, SESBen menderakuntza aldian joandako errusiarrak nazioaren partaide gisa aitortzen ez zituztenaren adierazle. Gaur egun, selekzioko jokalarien abizenek adierazten dute futbol hautua eta gizartearena bestela dela, hots, onarpenarena, edo asimilazioarena gutxienik. Israelen, jokalaria juduak bakarrik hautatuta proiektu sionistaren ispilu izatetik, futbolari arabiarrek txertatuta integrazioaren agertokia bihurtu zen nazio taldea, baina gutxitutako arabiarren asimilazioan errotua, proiektu sionistaren sinboloez bat egin behar baitzuten Israelgo selekzioan jokatzeko aukeratuz gero. Liga txapelketan ere antzerakoa gertatu ohi da. Esan nahi baita arabiarrek futbolaren bidez integratzen dituztela baina beren sinbolo bereizgarriak haizatuko ez dituzten baldintzapean. Nolanahi ere, estatu mugen barruan nazio homogenea eratzeko nazionalismoen nahia ezina dela azaldu du futbolak, Eric Hobsbawmen eta Anthony Smithen teoria berretsita. Alberto Meluccik ebazten duenez (2001: 118), zinez ezberdindutako munduan ezin dira balioak gehiago absolutuan ezarri.

15-Integrazioaz zilegitasuna galtzeko beldur asimilazioa bultzatzen dute estatuak.

Will Kymlickak (2003: 187) asimilaziotik kultur aniztasunerako igarobidea hautematen du azken mende laurdenean jatorri anglo saxoiko AEB Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan eta Australian, etorkinei beraien etnia oinordetzako alderdi batzuk mantentzea ahalbidetzen diena. Aitzitik nazio atxikimendu ezberdinen kudeaketan bestelako irudia azaltzen du futbolak oro har, nortasun kolektiboak adierazteko eremu saihestezina izaki. Estatu-nazioen errealitate nazio anitzari – irudiz kontraesanekoa zatekeen parekotasuna, nazio bakarra babestea helburu baitzuen estatuak – asimilazioaz erantzuten dio estatuak, futbolearen ere. Homogenea ezina izanagatik, asimilazioa du helburu, nazio nagusiaren ikuspegiak gain bestelakoak bizikidetzan txertatzen baditu bere zilegitasuna narriatuko den beldur. Horretatik eratortzen da futbol txapelketetan gutxiengoaren nazio ordezkariak plazaratu nahi duten klubei izendapena aldarazteko eta nortasun euskarria deuseztatze

ekimena. Brasilen, Aljerian, Kamerunen, Errusian eta Australian erabakimen hori hartu izan dute gobernuek futbolean ezberdintasunik gabeko batasuna irudikatzeko. Horietan adibiderik adierazgarriena Australiarena da, mintzaira ez ingeleseko immigranteei beren hizkuntza estadioetan plazaratzea ere ukatu baitzieten. Talde horien erbesteko nazioaren ordezkariak zantzua erasatea kontraesankorra dirudi, futbolaren ahala talde nortasunen ordezkarietan errotu dela ondorioztatu baitugu. Aitzitik, hain justu futbola baliatu nahi izan du Australiako Gobernuak harmailetako etsaigo indarkeriaren aitzakian etorkinen sorterriko aingurak ezerezteko eta asimilazioaz batasuna irudikatzeko. Jakiteke da neurri baztertzailak epe motzera futbolaren bideragarritasunari nola eragingo dioten. Izan ere, Japonian alderantziz jardun zuten, eskualdeko ordezkariak atxikimenduak sorraraziko zituzten klubak bultzatu, futbola entzutetsuagoa eta errentagarriagoa izan zedin. Aljeria eta Jugoslaviari dagokionez, independentzia osteko estatuak futbolarekin nazio batasuna ikusarazi nahi izan dute, eta behinola borrokatzen zuten nazio eraikuntza gainjartzailea berdindu dute zilegitasun xedeaz. Bosnia-Herzegovina, gerrako etsaigoak hirutan zatitu zuen estatua, eta hartara munduan bere baitako komunitateei eskumen gehien eskaintzen dien estatuen artean dagoena da horietan kontrajarria dena, baina beren borondatez hiru komunitateek futbolean hurbiltzea bideratu dute bertan, adiskidetzea heldu ez den arren. Indian, East Bengal, Mohammedan Sporting eta Mohun Bagan klubak talde nortasunen euskarri izaerari eta horien alderaketari eskerrak futbolak etekinak ahalbidetzen ditu.

Bestalde, esanguratsua da Europako kolonia menderatzaileak, Kenyan adibidez, futbolean islatutako herrialdeko aniztasuna bultzatu izana, beraien kontrako azpiratuen batasuna ekiditeko. Eskozian azkenik, Celticeko zaleei irlandar sinboloak agertzeagatik Eskozia eta Irlandaren artean aukeratu behar dutela egozten diete. Eskoziara sorterriko gosetetik ihesi joan ziren irlandarren oinordekoek ordea, Celticen bidez, eztabaidatzen ari den, eta estatu berriari biribil daitekeen eskoziar nazio nortasunaren eboluzioan beren izaera aintzat hartua izan dadila bermatzen dute. Horrez gain, adierazgarria da etorkinak nazioaren kide aitortzeko herrialde berriaren nazio taldearekin atxikimendua burutzera behartzen dituen gogoeta asimilatzailea, sorterriarekin identifikazioa haustea behartzen duena. Alemaniako Hessen estatuan alemaniar hiritartasuna erdiesteko galdekizunean, eta immigranteek Alemanian txertatzeko borondatea epaitzean, nazio taldeari buruzko jakintza galdegiten dute. Peter Costello Australiako Gobernuaren kide ohiaren hitzetan halaber, nazio leialtasun azterketa gisara har zitekeen futbola. Era berean, Ingalaterran,

Norman Tebbit politikari kontserbadoreak adierazi zuen Ingalaterrako cricket taldearen aldekotasuna asiar etorkinek estatu berrian txertatzeko desioaren ebazgarria izango zela.

16-Jokalari atzerritarrez beteriko taldeek ez dute zaleen identifikazioa deuseztatu.

Raffaele Polik egoki azaltzen duen modura, agintariak gizartea ahalik eta homogeneousen eraikitzeke gurariaz futboleko klubetan mailan eta selekzioetan eragin zuten. Alde batetik, futbolari atzerritarren parte-hartzeari kuotak jartzen zizkioten klubetan mailan, eta nazio taldeei aberriaren desiotako ustezko purutasun etnikoa haragitzeko betebeharra esleitzen zieten (Poli, 2004). Hala ere, azken hamarkadetan futbol klubek haiek ordeztu dituzten hiriez etnikoki irudi ez hain homogeneousoa aurkezten dutela, eta nazio taldeek immigrazio fluxuen eraginez kanpoko jatorriko geroz eta jokalaria gehiago dituztela egoki alderatzen du Polik. Nazio osakerak nazioa hezuramaitzen jarraitzen du gaur eguneko, eta ikerketa abiatzean aipatutako hedabideen nazio estilo sorkuntzak ere bai, globalizazioa bizitzean futboleko era gehienak berdindu diren arren. Izan ere, gutxienezkoa da asmatuak izatea nazioaz ezagutarazi nahi den irudia emateko balio badu, Esloveniari dagokionez berriki aipatu dugunez. Dena dela, klubetan mailan, jokalaria taldeak ordezkatzeko duen eskualdekoak izateari utzi diote lehiaketa nagusietan, eta horrek ez du atxikipena erasan. Paul Yonnetek arrazoizkoa dirudien azalpena helarazi zuen. Bere hitzetan, jarraitzailea futbolariarekin identifikatzen da hark kluba ordezkatzeko duen neurrian. Jokalaria ez du lehenik bere burua ordezkatzeko, bera txertatuta dagoen kluba baizik (Yonnet, 2010: 24-25). Bada taldearen irudikatutako nortasuna hobetsia da, eta emaitza onen baldintzapean zalegoa bermatua. Brombergerrek dio azken bi hamarkadak arte taldeak estiloarekin eta osakerarekin ordezkatzeko kolektiboaren egitatezko eta imajinatutako nortasuna era sinbolikoan hezuramaitzen zuela eta ikusgarria egiten zuela, eta orain, nahiz eta zaleen sugarra itzali ez, atxikimenduaren adiera aldatu egin dela (Bromberger, 1998: 88-89).

Futboleko bertako beste bestelako xedea duten zuzendaritza arrotzek esku hartu dute berriki, eta zalerik sutsuenek aurkaritza agertu izan diete. Hala ere, kirol ziurgabetasuna mantendu heinean emozio eta ordezkartzeko arrakastari eutsiko diote taldeek. Joseph Blatter FIFAREN presidentek klubetan gaineko atxikipen gabeziaren arriskuaz ohartarazi izan du, eta erakundeak ekonomia alorreko *fair play* ekimena ezartzea du xede, klubek dituzten diru sarreren arabera dirua xahutu dezaten, eta horrela klubetan artean den alde murrizteko. 2011n Paris Saint Germain taldea erosi zuen Qatarren sendiak, eta inbertsio eskerga burutu zuenak, ordea, taldeari bere jabetzako bankuarekin publizitatearen truke

dirutza ordainduta zilegitzekotan zen FIFArean aurrean. Kluben nazio taldeen boterearen kontrako aldarriei erantzuna eman behar izan die bestalde, futbol erakundeak. Enpresa izaera duten klubak ekonomiaren ohiko bilakaerarekin kontrajarrita salbuespen egoeran daude Bastien Drutek arrazoitzen duenez, FIFAk behartzen baititu aldiro nazio taldeei soldatapeko jokalaria uztera (Drut, 2011: 45). 2008tik, ordea, klubek txapelketetarako jokalaria uzteagatik dirua jasoko dute, eta futbolariak min hartzekotan, kalte ordainak.

17-Hedabideak gabe futbolak ezina zukeen imajinatutako komunitatea haragitzea.

Laugarren boterea gisara ezaguna den hedabideen bitartekaritza ezean futbolak ezina zukeen nazioa etengabe eraberritzeko eta zeharkako komunitate hori elkartzeko moduko hunkipenezko ekitaldirik antolatzea. Hastapeneko kazetetatik irratietara, eta 1966. urteko Ingalaterrako Munduko Kopatik bereziki, txuri beltzean oraindik, telebistaren iraultzara, hedabideak ezinbestekoak izan dira futbol taldeek lotura zuzenik gabeko komunitateen hartuemanan elikatu dezaten. Alemaniak 1954an Suitzan irabazitako Munduko Kopa, eta 2002ko ekitaldiko korearren nazio ospakizuna horren adierazgarri dira. Orduan, gainera, joera aipagarria errotu zen, alegia pantaila handien bitartez neurketak kalean jarraitzeko usadioa, zeinak estadioetan izan ohi den komunitate bizipena errepikatzen zuen. 2002an Ingalaterrako pubetan ordutegi ezerosoan sortu zen giroa ere telebistaren bidezko talde sentipenaren adierazgarria da. Hedabideek 1996an Ingalaterrako ikus-entzuleria elkartu zuten alemaniarren kontrako historiako oldarkortasunezko etsaigoa hauspotuta. Halaber, 2004ko Txinako Asiako Kopan japoniarrek euren aurkako asaldura hauteman ahal izan zuten telebistaz, non futbol lehiaketa haserrea plazaratzeko egokiera izan zen. Urruneko atxikimenduak ahalbidetzen dituzte hedabideek futbolaren bidez, Eskandinavian, talde ingelesei lotua, eta Asian eta Afrikan nagusiki, behatu dugunez. Futboleko globalizazioa bizitzearen erantzuleak ere badira, eta baita estatuen azpiko nazioen ezintasunarena ere.

Europako lehiaketa handien eragin globala dute estaturik gabeko nazioek ere. Eskozian, britainiar ikus-entzuleria egituran txertatuta izateak, bertako klubak eta nazio selekzioaren bidez nazio harrotasuna piztea zailtzen du, britainiar irletako salbuespenaz hobarrituta estaturik izateke nazio taldea baldin badauka ere. Ildo horretan, esan beharra dago hedabideek estatu-nazioaren nazio eraikuntza asimilatzailea egiten dutela kirolean. Kirolariak nazioaren elitearen irudia baikorki ordezkatzeko heroien pare hartzen dituzte, bestela beheratu, eta immigrante gisa edo bestelako izaera ezkorrekin deskribatu. Ben Johnson kanadarrarekin eta Cathy Freeman australiar aborigenarekin gertatu zen hori.

Halaber, Mendebaldeak zuzendutako Alemania elkartuan hedabideek Michael Ballack erdilaria, selekzioko kapitaina zena, kritikatu zuten behinolako Ekialdeko Alemaniako ezaugarriekin ezkortasunez agertuta. Batasunaren aurreko garaipenak errepikatu ezina futbolearen beharretako ekialdeko gizarteko hezkuntzari egotzi zioten. Alemanian modu berean, Leni Riefenstahl zinegilearen 1936ko Olinpiar Jokoei buruzko ikus-entzunezko lan gogoangarria eta 1954an *Bernako miraria* ezizenaz nazio oroitzapenean errotu zuten finalari buruzko film garaikidea, zinemaren baitan oraingoan, hedabideen eta futbolaren uztarpenaren lekuko da, eta handik kanpo, oroz gain, Ukrainako 1942ko kievtarren eta alemaniar nazien arteko partidari buruzko filmaren ekoiztea, nazio nortasunen erabilpenei dagokienean. Hurrengo atalean hedabideei buruzko atal bereizituan gehiago sakontzeko beta izango da, 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa ekitaldiko espainiar eta frantziar telebista erretransmisioen kasu azterketarekin hornitua. Futbolaren eta nazio nortasunen bikoaren behaketa hedabideen alderdiarekin osatzeko sortzeko xedearekin, inondik ere.

4.Atala:

**Telebista, futbolaren eta nazioaren
arteko bitartekari: 2010eko Munduko
Koparen erretransmisioa Espainiako eta
Frantziako kateetan**

4- Telebista, futbolaren eta nazioaren arteko bitartekari: 2010eko Munduko Koparen erretransmisioa Espainiako eta Frantziako kateetan

“Nazioaren politika, ekonomia eta militar subiranotasuna are eta erasanago egon, geroz eta nabariagoa da estatuentzat semiotikoki kultur nazio indartsua eraikitze beharra. Ez dago ziur asko nazio batasunaren iruditeria sortzeko egitekoan nazioarteko kirol eta hedabideen multzoak adinako kultur indarririk duenik” (Rowe et al., 1998: 133).

Aipu biribil horrekin David Rowek, Jim McKay eta Toby Millerrek futbolaren bidezko nazio eraikuntzan hedabideek duten parte-hartze giltzarria azaltzen dute, zeina artean hauteman ahal izateko moduko zantzuak bereganatu ditugun, baina aurrerantzean zehatz hartuta jorratuko dugun. Hiru autoreontzat litekeena da mundua izaera globalaren kontzienteena den garaian Olinpiar Joko eta Munduko Kopako aldizkako hedabide kirol ikuskizunetan identifikazio nazionalistek gailurra jotzea. Jeremy MacClancyk dioenari jarraiki, kirolaren, identitatearen eta nazioen edota estatu-nazioen arteko hartuemanaren nolakotasuna epaitzea helburu duen edonolako hurbiltzeak berebizikoa du hedabideen parte-hartzeaz eztabaidatzea. Gaur egungo mundu modernoan kirolek hainbeste eragin baldin badute, hedabideen ekoizpenari zor diote hein handi batean (MacClancy, 1996b: 13). Telebistak nazio taldeen estatusa ezinbestean eraldatu egin zuen, irratiak abiatutako

kontaketa osatuta. Hurbileko taldea sostengatzea ez ezik nazioarena babestea ahalbidetu zuen hedabideak (Boniface, 2006: 22), eta bide batez, nazio nortasuna bihurtu da kirolaz salerosketa egin eta etekina lortzeko osagai nagusia Lincoln Allisonen hitzetan (2000: 346). Futboleant, Munduko Kopako azken norgehiagoken ebazpenean nabarmentzen da nazio nortasuna telebistaren bitartez, nazio selekzioen eta horiek ordezkaturako nazioen arteko talka agerikoena denean, telebista iruzkinek hauspotzen duten nazio nortasunen hunkipenezko bereiztean. Izan ere, Rafaele Polik arrazoitzen duenez, telebistako iruzkin egileek, nazioen arteko partidetan funtsean, beraien ekimenez ikus-entzuleriaren arreta euren gantzeko nazio identitateen garrantzia nabarmentzeko joera daukate (Poli, 2005: 23). Nazio nortasuna hedatzea telebista berri emaileen ardurako ekimena ote den, irudi edo etekin ekonomikoa erdiesteko bitartekoa, nahiz biak diren ebaztea itaun konplexua da, baina nortasun kolektiboen adierazpena emanaldien ildoan denaren zalantzarik ez da. Matthew Nicholsonentzat garden dago: Hedabideak ez du kirolarekin gizarte ekarpena betetzeko irrika eta kirolak ez du hedabideen sarrera ahalbidetzen gizartean bere burua ezagutarazteko helburu soilaz. Kirol eta hedabideen lotunea etekinen jazarpenak sustatu ohi dute (Nicholson, 2007: 13).

4.1-Futbola eta telebista

Brombergerrek dioen erara, telebista ekoizpenak partidaren artea giroa bizitzen du (1998: 51), zeina futbol partidaren erakargarritasun iturri nagusia den, hortik abiatuz talde nortasunen ordezkartzen arteko alderaketak eta horien gaineko identifikazio ahala bultzatzen dituena. Yonnetek egoki gogora zekarren identifikazioa errazago gauzatzen dela emaitzaren ezbaia, lehiakortasuna eta ziurgabetasuna bizia izatean (2008: 21), hau da, hunkipena eta giza sortzeko emozioen azalratzea nagusitzean. Albrecht Sonntagek zehazten duen eran, nazionalismoek esleitzen duten emozio eskerga tarteko, aisialdiaren industriarentzat baliabide zinez erakargarriak dira (Sonntag, 2008: 254). Ikus-entzuleak hunkitzeko nahian bat datoz bada hedabideak, futbola eta nazio eraikuntza aldi berean. Hala, herritarrek denaz gain ikuspenetik emozio baikorrak bereganatuko dituztelakoan jarraitzen dituzte hedabideek bitartekotutako kirolak, zeinak, orain arte behatu dugunez, lehian diren taldeetako baten gaineko atxikipenen arabera diren (Raney, 2006: 315) Arrazoibideaz gaindiko eremuan norbanakoak eraginterrazagoak al diren begitatztea ez da erraza, baina futbolarik nazioen bilakaeran uzten duen lortatza ondorioztatu ahal izan

dugu orain arte, eta areago hedabideen ahalaz inguratuta. Sonntagentzat bederen, zuzena da gaur egun adieraztea jende askorentzat nazio baten partaidetza sentipenarekin duten lehen bizipena, identitate alderdi horren lehen hautematea, telebistaren aurrean gertatu ohi dela bi nazio talderen arteko erkaketan. Orduan hartzen du norbanako haurrentzat nazio kategoriak eremu zehatza, emoziozkoa den neurrian (Ibid., 51). Unescok eginiko azterketa bati jarraiki, munduko haurren %93k daukate eskura telebista hargailu bat, eta Afrikan ere bost haurretatik lauk telebista ikus dezakete aldizka (Eisenberg et al., 2004: 264). Telebistako futbolaren aitzindaria Lumiere zine sortzaileen XIX.mende amaierako filmetan lekutzen da. Luzaro izan zen bakarra zinema gainera ikus-entzunezko eremuan futbola eskaintzen (Blociszewski, 2007: 19). Gainera, hurrengo azpiatalean sakonduko denez, hedabideen bidezko kirola nazio xedeetarako erabiltzearen aitzindaria ere bada.

Benedict Andersonnek nazioaren komunitate imajinatuaen sorrera uztartu zuen XVIII.mendean abiatu ziren eleberrien eta egunkarien bidetik (Anderson, 1991: 24-25). Zientzia sekularren garapenari lotutako aldiberekotasun kontzeptua nazio modernoaren iturburuan egokitu zuen, eta hedabideen aitzindariak ahalbidetu zuten. Bada, futbola eta prentsa idatziaren elkarkidetzaren sorburuetako batek datza biak gizarte egitura gisa aro berean sustraitu izatean (Eisenberg et al., 2004: 256), nazionalismoen hazkundearen epe berdinean inondik ere. Irratiak eta telebistak futbolari eta kirolari dagokionez zuzeneko emanaldiekin komunitate beraren partaide izatearen hautematea hein handian handitu zuten, inoiz elkarrekin izan ez zen jendea eta etorkizunean ere elkar hartuko ez zutenak egunkariak baino gehiago hurbilduko baitzuten. Telebistak halaber, futbola jarraitzeko espazio eta denbora mugak hautsi zituen, eta hurbilekoaz gaindiko atxikipena ahalbidetu (Sandvoss, 2003: 88-89). Ludovic Lestrelinek adibidez, Marseillako Olympiquen hiritik urruneko zaleen atxikimendu izaera aztertu zuen (2010). Dena den, Raymond Thomasek dioen moduan, ez zen aurretiazko prentsa idatziaren desagerpenik izan, telebistak irratia amilarazi ez zuen bezala. Hedabide berriek lehenagokoa sustatuko zuketela ematen du, bakoitzak nortasun ezberdina eta jendeari zuzentzeko bitarteko ezberdina jorratzen duen heinean (Thomas, 1993: 16). Telebistak, prentsa eta irratia ez bezala, emanaldien kirol eskubideengatik ordaintzen hasi behar izan zuen (Eisenberg et al., 2004: 258). Jacques Blociszewskiren hitzetan (2007: 20), 1936an eta Alemaniako ekoizleen ardurapean izan zen lehen partida emanaldia, Italia eta Alemaniaren arteko partidari, eta arazo askorekin.

4.1.1-Hedabideen eta kirolen hartuemanen historiako aitzindaria: Riefenstahlen 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoen Olympia filma nazien kirol eta hedabideen bikoaren nazio erabilpenaren isla

Leni Riefenstahlek Nurembergen 1934an Alderdi Naziak burututako biltzarrean oinarrituta zuzendu zuen *Gogoaren garaipena* filmak Hitlerrekin Alemania salbu zela ikusarazi zuen moduan, 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoei buruzko filma bitartekoa izan zitekeen mundu guztia harekin salbu zela sinestarazteko. Ikus-entzunezko ekoizpen hori zehazki, adierazgarria eta aitzindaria izan zen hedabideen eta kirolaren arteko loturaz, zineman orduan, eta arreta berezia merezi du ondorioz. Leniren Nurembergen gaineko filmak herrikideentzat “Alemania berriaren” iritsiera ospatzen bazuen, areago Olinpiar Jokoei buruzko filmak aro berria definitu zezakeen nazioarteko ikus-entzuleen aurrean, zeinak sinesgogor ageri ziren Hitlerrek esandako hitz hauen benetako izaeraren gainean: “Alemaniak bakea behar du eta bakea desio du”. Olinpiar Jokoen ikuskizunak irudiak gehitu ahal zizkion erretorikari, eta mundu osoa liluratu zezakeen, Steven Bachek dioen moduan, Hirugarren Reicharen modernotasuna, eraginkortasuna eta borondate zintzoa ikusarazita (Bach, 2008: 175). Olinpiar Jokoei buruz eta oro har tamaina horretako kirol ekitaldiaz historian lehenengo aldiz ekoitziko zen filma izango zen Hitlerrek Riefenstahl zinemagile begikoari proposatutakoa, eta propaganda politikorako funts ukaezina zuen. Kirola, erregimenaren aintzari lotuta izanik ere, nazio nortasunaren gorespena, eta ikus-entzunezko hedabideen erabileraren garrantzia batasun trinkoan ageri dira hor, non eta propaganda politikoa nazien agintaldiaren erdigunean kokatu zuen Goebbelsen itzalean.

Propaganda ministroak Hitlerren oniritzia lortu zuen *Olympia* filma ekoitzi ahal izateko 1.500.000 marko xahutu ahal izan zitezen. Hala ere, burokraziatzko oztopo bat traban zegoen. Nazioarteko Olinpiar Batzordearen aurrean independentzia politikoaren tankera izatea. Izan ere, Goebbelsen mende zen Zinema Kreditu Kutxaren finantziazioa ekoizpen pribatu komertzialentzat soilik zegoen onartuta. Hala, baldintza hori betetzeko Olympia-Film-GmbH konpainia sortu zuten, filma ekoizten zuen Riefenstahlen talde pribatua bailitzan. Goebbelsek ohiko grinaz lau haizeetara barreiatu zuen filmaren sona eta proiektuaren egitasmoa. Barrura begira, ministerioak argi adierazi zuen konpainia Reichak eskatuta sortu zela eta haren funtsekin. “Konpainiak filma burutu ahal dezan

erabilitako funtsak ere Reicharen aurrekontuaren barruan erabilgarriak bailiran kontuan hartuko dira. Enpresaren sorkuntza beharrezkoa da Reichak ez duelako publikoki bere burua agertu nahi filmaren ekoizle modura” (Ibid., 180). Ondorioz, filmaren egikaritza abiatzeko bidea zabalik zegoen, luzaroan Alemania naziaren handinahia islatuko zuena.

Aurrekontuaren tamaina handiak Olinpiar Jokoei Reichak eman zien garrantzia adierazten du. Riefenstahlek kaleratutako oroitzenetan zinemagileak propagandarako ministroarekin edukitako ezinikusia azaldu zuen, eta filmaren postprodukzioan kostuak aldeztuetatik zehaztutakoak baino handiagoak izan zirenez, atzerriko lau hizkuntzetan aldaerak egitea nahi zuten besteak beste, Adolf Hitlerren sostengua galdegin behar izan zuela (Riefenstahl, 1991: 191-192). Ekitaldiko oroimena filmaketaz betiketzea giltzarria zen *Alemania Berria* munduari adur baikorarekin aurkezteko Goebbelsek irudikatutako propaganda kanpaina handienaren barruan, horrela arreta arraza lege errepresiboetatik urrunduz. Jokoen ospakizuna gerturatzen ari zela, Berlin “hiri erdua” bezala agertarazi nahian, eta turistentzat ziurrak izango ziren kaleak bermatzea helburu hartuta, eskaleak, zorro-lapurak eta gizarteak zokoratuak bilatu eta atxilotu egin zituzten, “badaezpadako zaintzapean”, tentalditik urruntzeko aitzakia jarrita. Inondik ere naziek eginikoa ekimen deitoragarria den arren, gerora ere, XXI.mendearen atarian, eta bertan murgilduta ere, antzerako jarrera eduki zuten 2000.urteko Sydneyko Olinpiar Jokoetako antolatzaileek eta 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopakoek, besteren artean. Bada, Uztailaren 16an, Olinpiar Jokoei hasiera eman baino bi aste lehenago, Berlingo ijitoak –zeinak judutarrak bezala, “atzerriko odoleko” pertsonak bailiran izendatuak izan ziren, eta Nurembergeko legeei jarraiki alemaniar hiritartasunetik baztertuak – hiriburuko aldirietako Marzahneko zarama gunetan egokitu zituzten, turisten ikuspegiaren helmenetik kanpo. Neurri hori behin-behinekoa izan zen, eta Olinpiar Jokoei iraun zuten bitartean mantendu zen. Hain zuzen ere, berriz beste nonbait jarri zituzten arte izan zen indarrean, gehienak Birkenaun eta Auschwitzten. “Ia hauteman gabe pasa den ironia izan da Hirugarren Reicharen lehen atxiloketa gunea Olinpiar Jokoen ospakizunak sorrarazi zuela” (Bach, 2008: 181-182).

Inoiz ez zen lehenago Olinpiar Jokoen osotasunaz filmik egin, eta horrenbestez ez zegoen aurrekaririk erabili behar ziren baliabideek sortzen zituzten erronken gainean. Areago, *Olympia* filmaren hasierako lanetan irtenbideak bilatu ahala premiak biderkatu egiten ziren. Beti bezala, kamaren kokapena garrantziazkoa zen, obsesioaren mailakoa ia. Udako jokoak ez ziren Berlingo Kirolen Foroan bakarrik egingo, urruneko kokagune

ezezagunetan ere bai, eta horietako bat bera ere ezin zen arretarik gabe baztertu. Ekitaldi bakoitzak, kamarak egokitzeko kokaleku aproposena behar izateaz gain, zeluloidearen edo zinema-filmaren, iragazkien eta kamara onenen premia zuen. Argazkien tolerantzia mugatua zen zeluloidea abiadura motelean aritzen zen aro hartan, eta soinudun kamarak pisutsuegiak ziren erosotasunez garraiatzeko. Filmaketa koloretan izatea aztertu zuten, baina azkenean uko egin zion Riefenstahlek aukera horri. Bere estiloa moldatu beharko zukeela zehaztu zuen zuzendariak. Kamaren artean munduko azkarrenak zeuden kamara moteleko argazkietarako, eta baita munduko txikienak ere ikusle baten begiradaren edo erreazioaren uneko argazkia ateratzeko – Hitlerrena barne –. Aipatu baliabide horiek guztiak areago oparotzen zituzten eskura zituzten munduko teleargazki lente luzeenak, mugimenduan kirolarien lehen planoak eskuratu ahal izateko funtsarekin, beraiengana hurbiltzea ezina zenean, eta maiz gertatu ohi zen hori (Ibid., 183). Are gehiago, 1936ko abuztuaren 1ean Berlingo estadioan Olinpiar Jokoak abiatu zirenetik grabaketa egitean Goebbelsengandik oztopo ugari jasan zuela adierazi zuen Riefenstahlek oroitzapenetan, agintarien harmailetan kamarak ipintzerakoan besteren artean (Riefenstahl, 1991: 181). Zinemagileak uneoro hobezintasuna zuen helburu, eta hasierako aurrekontua gainditu zuen horregatik filmaketak. 400.000 metro luzera zuten hartutako irudiek. *Olympia*-ren grabaketarekin bi film egitea hobetsi zuen beraz zuzendariak, eta Hitlerren urtebetetzean estreinatu zuten, 1938ko apirilaren 20ean. Buruzagi naziak asebeste zituen emanaldiak, baina Britainia Handian eta AEBetan ez zuen bilatzen zuen oniritzirik lortu.

Riefenstahlek zentzu onez adierazi zuen filmak ez zuela atzerriko lehiakiderik gutxiesten, ezta atleta alemaniarrik hobesten, eta ez ziola ezta ere Alemaniak Olinpiar Jokoetan erakutsitako gailentasunari zeharka aipamenik egiten, urrezkoak, zilarrezkoak eta brontzezkoak batuta 239 domina erdietsi arren. Zuzendariak Jesse Owens AEBetako atletak kamaren aurrean izandako agerpen nagusia aipatu zuen Olinpiar Jokoei buruzko filmak Hirugarren Reicharen arraza politikarekiko zuen burujabetasuna frogatzeko. Hori egia izanagatik egiazkoa zen halaber bat zetorrela Propaganda Ministerioak Alemaniako hedabideei emandako argibideekin. Hala, filmaren “izaera apolitikoak” ez zuen urratzen Goebbelsek Olinpiar Jokoen inguruan aurreikusitako gidoia, alderantziz, osotasunean bat zetorren ideia horrekin, Alemania Berria politika gerizpean lagatzen zuen argiarekin aurkezten zuelako, eta juduen aurkako ikurren desagerpena eta ijitoen itxialdia bezalako benetako gertaerak ezkututzen zituelako. Filmak bideratutako teknika lorpenen egungo jarraitzaileek haren propaganda izaera onartzea arbuiatzen dute, gobernuaren ezkutuko

babesa eta finantziazioa onartzen badute ere. Izaera berriko Alemaniaren erretratua aski onartu zuten atzerrian, baina arbuia egin zuten Leni Riefenstahlek bereziki limurtu nahi zituen entzuleek, batez ere, filmaren ondoren garaipen biran zegoela Sudetei eta Txekoslovakiari eragin zien krisiagatik (Bach, 2008: 203-204). Izan ere, bai Erresuma Batuan eta baita AEB Ameriketako Estatu Batuetan ere filmak gaitzespena jasan zuen nagusiki. Leni AEBetan filmaren berri ematen zegoela Kristal Hautsien Gaua gertatu zen Alemanian eta Austrian. Juduen saltokiak suntsitu eta sinagogei su eman zieten, eta milaka judutar kontzentrazio guneetara eramane zituzten. Ehunka judu hil egin zituzten 1938ko azaroaren 9ko egun zital hartan. Beraz, *Olympia* filmaren aurkako gaitzespena bizitu zen komunitate judu indartsua zuen AEBetako gizartean. Bide batez, nazismoaren nortasun hiltzailearekin kutsatu zen filma garai hartan, eta Olinpiar Jokoak erregimen hori zilegitzeko baliabide politikoa zirela errotu egin zen erregimenaren arerioen artean. Nolanahi ere, kirolaren eta hedabideen batura baliatuta helburu politikoak eskuratzeko egindako erabilpenaz oroitu beharreko kasua da Leni Riefenstahl et *Olympia* filmarena. Hurrengo koadroan bestalde, Bigarren Mundu Gerraren ondorenean telebistak futboleko ekitaldiekin batera nazioaren mesedetan egindako bidea laburtu asmo du, aurrerantzean sakonduko duguna. Kirol txapelketek ikus-entzunezko teknologiaren aurrerapenak islatu eta arindu zituzten hein handian nazioa irudiekin geroz eta nabarmenago irudikatzea eta nonahi igortzea ahalbidetzen zuten bitartean.

Hedabideek bitartekotutako futbolaren bilakaera

Lehen hedabideek, eleberriek, eta kazetak bereziki, aldiberekotasun kontzeptua ahalbidetu zuten, eta irratiak zuzeneko kirol erretransmisioez 1930.hamarkadan futbolaren bidez komunitate imajinatuaren hautematea bizitu zuen.

Telebistaren etorrerari mesfidantzaz erreparatu zioten kirol arduradunek

1954ko Suitzako Munduko Kopa telebistaz eskaini zen lehena. Txartel nahikoak saldu zituzten partidetan bakarrik baimendu zuten telebistaren sarbidea. 1966ko Ingalaterrako Munduko Kopa munduan zehar ikusi zuten telebistaz Zuzenean satelitez. Telebistari egokitutako estadioetan izan zen. 1974ko Alemaniako Munduko Kopa koloretan osoki eman zen estreinakoa.

Telebistak futbola eraldatu zuen nazioarteko neurketetatik hasita

1980ko eta 1990eko hamarkadetan ikus-entzunezko esparruaren liberalizazioa Futbol edukien eskaera handia eta nazioen arteko partiden berme berezia.

Ildo berean, Pascal Bonifacek oroitarazten duenez, gaur egunean zinez agerikoa dirudien futbolaren eta telebistaren arteko ezkontza ez zen hain aisea izan hastapenean. Aldi luzean futbol arduradunek telebista erretransmisioak arbuiaitu zituzten estadioetako harmailak hustuko zituztenaren beldur (Boniface, 2002: 22). Suitzako 1954ko Munduko Kopan jazo zen telebista ekoizpenaren iritsiera kirolera neurri handi batean, nazioarteko partiden erakustokian gertatu ere. Irekiera ekitaldia eta txapelketaren lehenengo partida telebistaz lehenik eskaini ziren Munduko Kopako irudiak izan ziren (Tudor, 2006: 218). Txapelketa telebistaz 20 milioi lagunek ikusi zuten Europan (Alcolea eta Blanco, 2006: 57). Orduan, gaur egungo egoeraren alderantzizko ildoan, antolakuntzaren arduradunek estadioak betetzea hobetsi zuten telebistaren hazkundeak Suitzako hartzaileei eta FIFARI eman ziezazkiokeen diru etekinen gainetik. Izan ere, 1950ean sortutako Europako irratia hedapeneko batasuneko antolakuntza sortu zuten estatuek ez zeukaten kirol eskubideen truke ordaintzeko beharrik, eta telebista errentagarria izango zenaren zantzurik ez zuten oraindik. Txartel asko saltzea lortu zuten partidetan bakarrik utzi zuten kamarak sartzea, eta zazpi herrialdek bakarrik hartu zuten hamar partida eskaintzeko erabakimena, final erdiak eta finalak barne hartuta. Telebista hargailuak bakanak ziren artean gerra osteko Europan. Suediako 1958ko Munduko Kopan berriz, bertako antolatzaileak aseguru bat hitzartzen ahalegindu ziren telebistak partidak emateagatik bertaratutako ikusleak uxatu eta diru galerak gertatzekotan (Dietschy, 2010: 448). 1960ko hamarkadan eraldatu zen telebistaren gaineko futbol arduradunen mesfidantza, telebista hargailuak Europa osoan zabaldu ziren aldi berean. 1962ko Txileko Munduko Kopari dagokionez, artean satelitea baliatu gabe, hegazkinez garraiatu behar izan zituzten hango partidez hartutako irudiak, eta horregatik 48 orduko atzerapenaz eman zituzten Europan (Blociszewski, 2007: 20).

Satelitea bidelagun, 1966ko Ingalaterrako Munduko Kopan gauzatzen hasi zen bada telebista eta futbolaren bikoia, nazio ordezkarien arteko lehia testuinguruan. Fabio Chisarik nabarmentzen duen gisara (2006: 228, 236), historian lehenengo aldiz, 1962an hasi ziren prestakuntza lanetatik, telebista emankizunaren egokitzapena erabakigarritzat hartua izan zen. Estadioak kamaren beharrianak asetzeko moduan aukeratuak zituzten, eta hedabideen arduradunek partiden egutegietan eragin ahalko zuten. Halaber, kamara geldoa lehenengoz erabili izanagatik ezaguna da Ingalaterrako 1966ko Munduko Kopa, kirol erretransmisioak aldi askotan teknologia aurrerapenen pizgarri izan zirenaren isla. Erresuma Batuko Gobernu eta lehiaketako partidak eman zituen BBC katea publikoa aitzindariak ziren kirol ekitaldiak naziotasun jaialdi gisara erabiltzen (Rowe, 2004: 23)

Zuzeneko satelite bidezko emankizunak halaber, 1964ko Olinpiar Jokoetan lehenengoz erabiliak, Munduko Kopa egiazki mundukoa egiten hasiak ziren. Erretransmisioak zuri beltzean ziren oraindik. Alemaniako 1974ko Munduko Kopa izan zen koloretan guztira eskaintzen lehena, 1970ean, Mexikon hala nolako aitzindaritzza izan bazen ere. Herrialde horretan hain justu telebistaren kirolaz gaindiko erabakimena gainjartzen hasi zen. Izan ere, europar ikus-entzuleria hobaritzeko eta dagoeneko telebistaren bidezko diru iturriak lehenesteko helburuaz, partida nagusiak eguerdiko hamabietan ezarri zituzten, futboleant aritzeko Mexikoko eguzki udatiarraren sargoriak ezarritako baldintzak kaltegarriak izan arren (Dietschy, 2010: 455). 1986an Mexikon berriro ere ospatu zuten Munduko Kopan telebista kateen beharrianak eta Europako ikus-entzuleen egokitzapena onetsi zituzten. 1950eko hamarkadako futbol arduradun eta ekitaldien antolatzaileen jarrera iraulia zen horrenbestez. Telebistak futbolari munduan zehar areago barreiatzea ahalbidetu bazion, futbolak neurri berean telebistaren arrakastari biziki lagundu zion (Boniface, 2006: 23).

1980ko hamarkada, European behinik behin, ikus-entzunezko merkatuan sartzeko hesien gainbeherak ezaugarritu zuen, parte-hartzaileen liberalizazioak, alegia. Telebista kate publikoek sortzetik edukitako monopolio hobaria galdu zuten, hedabide pribatuen onbiderako lehenik, eta ordaindu bidezko telebista kateen iraultzaren karietara ondoren. Ildo horretan, telebistaz jarraitutako futbolaren gaineko ikus-entzuleen irrika areagotzen zihoan bilakaeran, ezina zen ekoitzi ahal izateko moduko ekitaldiak kopuruz handitzea, horien bila ari ziren telebista kateen galdegitea geroz eta nabarmenagoa zen aldi berean. Eskaria eskaintzari gainjartzen zaionean jazo ohi denez, joera horrek futbola eman ahal izateko kirol eskubideen salneurria neurri eskergan handitu egin zuen 1980 eta 1990eko urteetan. Europako telebista kate askok futboleant inbertsio handia burutu zuten merkatu kokapena hobetu asmotan. Horren ondorioz, telebistaren ekarpenak futbol federazioen eta klubentz diru iturri nagusiak bilakatu ziren 1990. hamarkadan, zaleentz harpidetzarenak aise gaindituta. Wladimir Andreffek eta Jean-François Bourgek iradokitzen duten eran, finantza arloan, Europako futbola bederen, telebistari lotu zitzaion, eta are gehiago esan daiteke telebistaren mendekoa dela orain (Andreff eta Bourg, 2006: 45-46). Kirola eta hedabideak bata besterengandik estu uztartuta daude oro har, telebista eskubideak kirol askorentzat, eta bereziki futbolarentzat, diru sarrera nagusiak baitira, eta kirola baita, era berean, ikus-entzuleak erakartzeko eragile giltzarria (Jeanrenaud eta Késenne, 2006: 5). Matthew Nicholsonentz nabarmentzen du hedabideentz hastapeneant kirolent arduradunent estadioant izango zen jendeent bertaratzea lehenent bazuten ere, gaur egun telebistaz

duen loturari ematen diotela garrantzia (Nicholson, 2007: 11), eta hedabideen interesei, estadioak bakandu arren³⁵. Lawrence A. Wenner eta Walter Gantzen abiapuntua hartuz gero, telebistako kirola bi eremutan txertatzen da. Alde batetik, estadiora kirol ekitaldia jarraitzera joatearen baitakoa litzateke, eta bestetik bestelako telebista emanaldia ikustea bezalakoa (Wenner eta Gantz, 1998: 234). Hori horrela, inoiz baino gehiago ondoriozta daiteke, egiazki beste telebista hautuetatik ezberdina den arren, telebistarako lehenetsia izateko bidean dela estadioan kirola bertatik bertara jarraitzeko bizipen erari gailenduta.

Telebistaren eraginaren ardatzari jarraiki, Harry Arne Solbergek zehazten duenez, eskubideen prezioa hauspotzeaz gain, eskumenon jabeei – futbol arduradunei eta baita *upstream* edo handizkako eskubideen salerosketa merkatuan multzo handian eskubideak eskuratzen zituzten enpresa bitartekariei – eskari handiak ahalbidetu zien hitzarmenen baldintzak ezartzerakoan nagusitasunezko egokieran egotea, eta hartara, kirol ekitaldiez aurretiazko itxitako salerosketa akordioak finkatzea. Horrenbestez, futbol emankizunek, ordaindutako diruarekin alderatuz emaitza txarrak ematekotan, telebista kateek bakarrik buru eman beharko zieten galerei (Arne Solberg, 2006: 110), eta bide batez inbertsioak horientzat aski arriskutsuak ziratekeen. Hala eta guztiz ere, ekonomia gaitasun nahikorik duten kateek eginahala egiten dute futbol ekitaldi nagusietako ekoizpena bereganatzeko. Hala, TF1 Frantziako telebista kate pribatuak 250 milioi ordaindu zituen Hegoafrikako 2010eko eta Brasilgo 2014ko Munduko Koparen ikus-entzunezko eskubide bateratuak lortzeko. Telebistarenaz gain, sakeleko telefonoena eta Interneten ustiapena ere eskuratu zituen epe luzeko inbertsioarekin (Blociszewski, 2007: 21). Nahiz eta 2002ko ekitaldian Frantziako selekzioak lehen ligaxka gainditzea erdietsi ez izanak galera handiak eragin zizkion, bertako nazio-taldearen kirol eraginkortasunaren arabera oso ezberdinak baitira iragarkien salneurriak, Frantziako kate nagusiak futbolaren eta nazio taldearen apustuari eutsi zion. Kontuan hartzeko modukoa da Munduko Koparen gisako ekitaldien telebista eskubideen esleipena burutzen dela parte-hartzaileak sailkatu ere baino lehenago, edota txapelketaren kokapena, eta horrenbestez, ekitaldiaren ordutegia, jakiteke dagoela. Hala, Europako telebista kate askok 2002ko txapelketarekin batera 2006ko Munduko Kopen eskubideak hartu behar izan zituztenez, ez zekiten zehatz-mehatz bigarrena Alemanian

³⁵ Ingalaterrako futbol klubek 1967an errefusatu egin zuten partidak telebistaz emateko milioi bat liberako BBC kateak eginiko eskaintza, zaleek harmailak hustu eta futbola telebistaz ikusiko zituztenaren beldur (Drut, 2011: 50). Gaur egun, ordea, Espainiako Ligan eztabaida iturri dira telebista kateek maiz zaleentzat ezerosoak diren ordutegietan partidak egokitzen dituztela, eta txapelketako arduradunek oniritzia ematen diotela telebisten erabakimenari. Txapelketa horretako sarrera txartelen salneurri garestiaz, eta ekonomia krisiaz uztartuta harmailak bakantzea eragin du horrek, eta ekitaldiaren izaera areago telebistari uztartzea.

jokatuko zela (Arne Solberg, 2006: 113). Nolanahi ere, Espainiari dagokionez, adibidez, Telefonica komunikazio enpresak *upstream* handizkako merkatuan FIFARI eskubideak aurrez erosi eta gero, Espainiako nazio taldearen 2006ko Munduko Koparako sailkatzea ezagun egin zenean negoziatu zuen *downstream* edo beheko ikus-entzunezko merkatuan futbol ekitaldia emateko prest zeuden telebista kateekin (Alcolea eta Blanco, 2006: 40).

Telebistak bere seinalea plazaratzen duen estatu nazioko nazio taldearen parte-hartzearen kirol eraginkortasunak erabat baldintzatzen du nazioarteko futbol ekitaldian hedabideak izango duen ikusleria eta bideragarritasuna, eta zio horrengatik lehiaketaren bilakaeraren arabera kirol eskubideak eskuratzea arrisku handiko inbertsioa izan daiteke telebista kateentzat. Nazio taldeak kanporatuak izatean futbol erretransmisioen ratingak, hau da, populazio osoa kontuan hartuta telebistaz futbol partida ikustea aukeratu duten herritarren portzentajeak, behera egingo du, eta horrekin batera iragarkien ordainsariek ere. Abagunerik ezkorrena nazio taldearen sailkapen eza izango zatekeen, esan bezala, kateak hainbatetan aurretiaz erosi behar baititu eskubideak, eta ez sailkatzea ere hortaz, gertagarria delako (Arne Solberg, 2006: 122). Areago, TF1 telebista pribatuaren 2002ko Japonia eta Hego Koreako Munduko Koparen emankizun sorta inongo balizkotan ere ez zitekeela zuzenean errentagarria izango arrazoitu zuten hainbat behatzailek, txapelketa Frantziako nazio taldeak irabazi izan balu ere. Michel Debordsek egoki alderatzen du, besteak beste, kontuan hartu behar dela Munduko Kopa eskaini zuen hedabidea izateak TF1-i uzta modura ikus-entzunezko merkatuan eta futbol arloan esleituko zion irudiaren hobekuntza (Desbordes, 2006: 132-133). 2012.urtean Espainian Ukraina eta Poloniako Europako Kopa Tele 5 eta Cuatro kanalen bitartez eskaini zuen Mediaset komunikazio taldeak ere ekitaldiaren emankizunetik eratorritako 40 milioi euroko galera iragarri zuen ondorenean, espainiar selekzioak txapelketa bigarren bezala irabazi arren. Dena dela, nazio taldearekin eta horren inguruan eginiko nazio eraikuntzarekin bere izaera uztartzea aski onuragarria zen katearentzat futbol zelaiaren zoriak hein handi batean finantza ekimena erasan edo onbideratu zezakeen arren. Ekonomia etekinez gaindi prestigioa da jokoan.

Matthew Nicholsonek dioen gisara, kirol, nahiz zehazki esanda, futbol emanaldi batek, ez du ordezkorik telebistak herritarren eskura jarritako eduki aukera askotarikoan. Telebista eskubideak erdietsi dituen kate hori hautatu beharko du halaberrez futbolaz interesa duen ikus-entzuleak (Nicholson, 2007: 59). Hala, hain dira handiak eskubideen jabeek jartzen dituzten ordainketa prezioak, ezen telebista kateek dirua galdu ohi dutela

horiek erosterakoan, eta galerak izanagatik jarrera hori berresten dutela. Izan beharreko zerbait da, katea ospez hornitzen duena eta programazioaren osotasunaren gainean irudi ona esleitzea bideratzen duena. Ekonomia zio soila baino gehiago aintzat hartu beharra dago horrenbestez kateen jarrera aztertzerakoan (Durand et al., 2010: 56). Berehalakoan zuzenean nekez gauzatuko diren diru etekinez gaindi, izan ere, kirola emanda telebista kateek euren irudia eta nortasuna hobetzea dute helburu eta programazio osotasunerako ikusleak erakartzea (Jeanrenaud eta Késenne, 2006: 2). Kirolaren ezaugarriek katearen telebista parrila zipriztintzen dute, eta gehienetan hedabide batek eskaintzaren eskumen eksklusiboa bere egiten duenez, katearen irudiaz nahastuko du kirol emankizun ospetsua ikus-entzuleak (Rojo Labaien, 2007)³⁶. Kirolaz lotzeak, epe luzean, ekonomia hobaria emango dielakoan hartzen dute arriskua, inondik ere, eta nazio ospakizunaz uztartzeak prestigio ziurtagiriaz hobarituko dituelakoan. Dena den, Michel Debordsek Frantziako TF1 katearen eta 2002ko Japonia eta Hego Koreako Munduko Koparen emankizunaren azterketarekin ondorioztatzen zuenez, sarritan kostuak gehiegizkoak dira aurreikusitako diru sarrerak uste baino murriztagoak izatean (Desbordes, 2006: 144-145). Alemaniako 2006ko Munduko Kopa emateko La Sexta Espainiako kate pribatu jaioberriak inbertsio eskerga burutu zuen, futbol ekitaldiak ziurtatuko zion ikus-entzuleria zabala bere burua ezagutarazteko baliatzeko. Gema Alcoleak eta Maria del Mar Blancok azaltzen dutenez, programazio taulak elkarren artean antzekoak izaki, iragarleak beren kateetara erakarri ahal izateko, kateek futbola gisako emanaldi mota ziurretara jotzen dute digitalizazioak geroz eta gehiago zatitutako ikus-entzuleria beren barruan batzeko (Alcolea eta Blanco, 2006: 49-50). La Sextak Lurrazaleko Telebista Digitalaren ezartze goiztiarrean kokatzen zen katearentzat hazkunde azkarra xede zuen.

Adrian Fikentscherren esanetan, ekitaldion eragin laburraz diharduen ardatzari jarraiki, nekeza da Munduko Kopa edo Europako Koparen moduko iraungitze laburreko lehietatik zernahi telebista katek marka irudia osatzea, audientzia handia ziurtatuta ere. Partidak maiztasun handikoak diren Europako Txapeldunen Ligarekin eta estatuetako ligako txapelketekin alderaezinak ziratekeen (Fikentscher, 2006: 85). Gertaerek oster, ideia hori ezeztatzen dute, doako kateek iragarleen ekarpenez zuzenean lortzen ez duten irabazia epe ertain luzera gainontzeko kateekin norgehiagokan ebatzea espero dutelako

³⁶ 2007.urteko martxoan bukatu eta urte bereko ekainaren 22an defendatu nuen *Kirol emankizunak Euskal Herriko ikus-entzunezko hedabideetan* ikerketa lanean nabarmendu nuen ondorioetakoa izan zen telebista kateek kirola emanaz lorturiko irudi hobekuntza. Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria lortzeko lana izan zen.

errentagarriak ez diren inbertsioak egiten baitituzte ekitaldion, eta horrenbestez lotura gehiago du ikus-entzuleen leialtasuna eskuratzeko saioarekin, epe motzerako inbertsioaz baino. Bada telebista pribatuez gain, ordaindu bidezko harpidetzazko kateek ere, futbola harmailetan sartzeko ordainpekoa bihurtu eta gero kirolari bigarren hesia ezarri ziotenek (Gerrard, 2006: 30-31), futbola bereziki harpidetzak erakartzeko eduki nagusizat hartu zuten (Durand et al., 2010: 57). Hala, Sky katearen ikusleriaren erdiak baino gehiagok beren harpidetza eten egingo zutela neurtu zuten Irlanda eta Erresuma Batuko telebista horretako arduradunek, kateak futbola emateko eskubideak galtzekotan (Arne Solberg, 2006: 114). Stefan Szymanskik arrazoitzen duenez, gainera, AEB Ameriketako Estatu Batuekin alderatuta, Europako kirol erretransmisioen eredia futbol elebakarrekoa da ia, eta horrenbestez ikus-entzuleek, emanaldi eduki ordezkorik ezean, joera handiagoa dute erretransmisioak eskuratzeko ordaintzeko (Szymanski, 2006: 157-158). Zerk eragotzi du orduan merkatu ekonomia askeari jarraiki nazio taldeen partidak bezeroen ordainketatik eratorritako finantza ahalmen handiagoa daukaten ordaindu bidezko telebista kateetara igarotzea? Osterantzean merkatuaren bilakaera askea babestu izan duten Mendebaldeko gobernuen esku-hartzeak ekidin du nazio selekzioen neurketak harpidetzazko telebista kateek bereganatzea, nazio taldearen partidak berme bereziaz babestu beharrekoak eta doako telebista kateen bitartez igorri beharreko emankizun bereziak direla argudiatuta.

4.1.2-Futbola estadioetako bizipena izatetik nagusiki telebistaren ekoizkin izatera

Nolanahi ere, ikus-entzunezko teknologiaren garapenak telebista ekoizpenaren eta errealizazioaren ahalmena indartu izan dute azken hamarkadetan, eta zentzu horretan erretransmisioen arduradunek ikus-entzuleriarekin uztartu nahi zuten loturarena ere bai. 2002ko Munduko Kopan dagoeneko 20 kamara baliatzen zituen telebistak gutxienik, eta oro har telebista digitalaren iritsierak biribildu zuen erretransmisioen urrats teknikoaren eboluzioa, errealizatzaileen abaguneak biderkatu zituen. Hori horrela, Blociszewskiren hitzetan, telebistak ez du gehiago estadioko emozioa islatzen, ezein alderditan, berezko emozio ezberdina sortzen du (Blociszewski, 2007: 76). Garry Whannelek arrazoitzen du telebistako kirola eraikuntza prozesua tarteko dela ulertu beharra dagoela, non kamaren kokapenak eta horien erabilera motak ekitaldiaren tankeran eragina daukaten (Whannel,

2000: 295). Ildo berean jarraituz, Gran Jarviek oroitarazten du kirolaren eta hedabideen uztarpen sinbolikoa hain handia den arren, eta ezen badirudien gauza bera direla, ez dela berezko kirola biko horretan agerian dena, kirol eta hedabideen multzoak hedatzen duen kirola baizik (Jarvie, 2006: 133-134). Telebistak kirolaren izaera irauliko zukeen, beste ekitaldi bat sortu. Ikus-entzunezko hedabidearen bitartekaritzaren eragina argi laga gabe ezin da futbol partiden emankizunen gizarte garrantzia kontuan hartu, eta bidezkoak dira erabat futbola geroz eta gehiago hedabideen ekoizkina denaz ohartarazten duten adituen arrazoibideak. Jarvie, aurreko kirolaren adierari kontrajarri gabe, eta kirola hedabideen arauen mendean dagoela baieztatuta ere, kirolak bere funtsa galdua ez daukala zehazten du. Baina, iruzkinak eta kirol irudien aurkezpena ez dira berezkoak, testuak eta irudiak aurrez hausnartutako istorioa kontatzeko osatzen baitituzte (Ibid., 140). Garcia Ferrando eta Duran Gonzalez Espainiako soziologoaren aburua ere orain artekoaren ardatz berekoa da. Alegia, telebista errealizazioak hainbeste aldatu dituela erretransmisioak ezen bertan kirol egoitzan ikusi daitekeenaren bestelako ikuskizuna azaltzen dela (Garcia Ferrando eta Duran Gonzalez, 2002: 226). Dena dela, Jarviek zuzen dioen bezala, futbolak bere izateari eutsi dio, ez baitu esate baterako, iragarkientzat sarbidea ahalbidetuta telebisten errentagarritasuna handiagotuko zukeen hutsarte edo atsedenaldi gehiagorik gaineratzea onartu. Joao Havelangek, FIFAko buru zela, AEBetako 1994.urteko Munduko Koparen atarikoan hausnartu zuen partidei tarte bakarraren ordezkari bi atsedenaldi gehiago gehitzea, publizitatearentzat onuragarriagoa izan zedin. Ordaindu bidezko telebistaren agerpenak oster, aurrerantzean abagune hori alboaraziko zuen, baliabide ekonomiko handiagoak ziurtatzen baitzituen. Bidenabar ikus-entzunezko ekoizpena hein handian hobetu zuen, ordu arte etxeetara doan heltzen ziren hainbat partida ordainaraztea zilegitzeko baliabide gehiago ipini baitzituzten harpidetzazko kateek, plano hobek eskaintzea ahalbidetzen zuten kamara gehiagoren ezarpena, datu eta xehetasun gehiagoren eskaintza eta iruzkin berritzaileak tarteko (Relaño, 2001: 151). Dena den, oro har telebista kateak futboleko eta beste kiroleko erretransmisioetan iragarkiak txertatzen hasi dira, leihatila txikiekin hainbatetan, telebista eskubideen salneurri handien ordainketari aurre egin ahal izateko.

Hedabideen mezuari dagokionez, Alan eta John Clarke gardenki azaldu zuten XX.mendean, telebistaren hedapeneko azken aroaren aurretik, telebistak ikus-entzuleei kirolek zentzua ateratzeko, errealitatea interpretatzeko, giltzarriak igortzen dizkietela, alderdi batzuk aukeratzeaz gain. Hedabideek kirolek ideologia balioak nabarmentzen dituztela argudiatzen dute (Clarke eta Clarke, 1982: 69). Hori dena berezkotasunez, hau

da, errealitatearen zentzuzko irakurketa bakarra denaren itxura emanaz, burutzen dute, ekitaldiaren eta herritarraren artean dagoen telebista bitartekaritzari hala nahita, eragina gutxietsita bide horretan. Hain justu aurkezpen horrek erraztu egiten du, kitzikadurazko emanaldi giroan sartuta beti ere, nazio nortasun mezuak ez ohikoa den ageriko moduan helaraztea. Ikus-entzuleen arreta erakartzeko telebista iruzkin egileak ahalegintzen dira horiek aldekotasunezko parte-hartzea izan dezaten beren etxeetako ikuspenean (Blain et al., 1993: 46). Izan ere, futbol alderaketaren emozioaz hunkitzeko baldintza nagusia da, eta areago nazioarekin lotzen denean. Hedabideen mezuak herritarrengan duten eragina zehaztasunez neurtzea ezina da, baina orain arteko zantziek diote zuzeneko emanaldiek ikus-entzuleen oroimenean hunkipenezko uzta lagatzen dutela. Garry Whanneli jarraiki, orain arte eginiko ikerketa gehienetatik ondoriozta liteke hedabideek herritarren jarreraren berrespena lortzeko ahala daukatela, izatekotan, jarrera aldaketa sorraraztekoa beharrean (Whannel, 2000: 294).

Paul Dietschyrekin bat nator esatean 1950. hamarkadan abiatutako emankizunek partidek sortutako kitzikadura indartzen lagundu zutela. Areago, historialari frantziarrak gaineratzen duenez, asmatutako nazio estiloen alderaketa ikusgarri egitea bideratu zuen, eta nazioa bera irudietan isla zedila taldeen hamaikakoaren osaerarekin (Dietschy, 2011: 43). Horrela, Thomasek dio lurralde ezberdinez osatutako estatuan, nazio taldeak parte hartzen duen lehiaketaren telebista ikuskizunak batasunezko hautematea indar dezakeela (Thomas, 1993: 19). Telebista mito kolektiboez eta batasunekoez baliatzen da ahozko iruzkinen bitartez taldeko ordezkariak haragituta jotzen den nazioa nabarmendu asmoz (Rowe et al., 1998: 129). Paul Yonnet soziologo frantziarrak arrazoitzen zuen moduan, telebistak estadio handia gisakoa eraiki zuen, kirol lehiaren irudiak zuzenean jarraitzea ahalbidea bihurtzen zuena, eta irratiak jadanik zartatu zuen hertsipena ezereztu zuelarik (Yonnet, 2010: 186). Estadioa planetaren tamainara handitu zuen Raymond Thomasen hitzetan (1993: 105). Ildo berean, Sonntagentzat aski da jabetzea hedabide modernoek mugagabeki handiagotzen dutela nazio nortasunak indartzen dituzten ekitaldien iritsiera (Sonntag, 2008: 40).

Zeharkako hartuemanek ezaugarritzen zuten norbanako anonimoen baturazko osaera arrotzetik komunitate hautematerako pausoa ematen lagundu zuen kirolaren eta hedabide goiztiarren bikoak, eta oroz gain XX.mendeko hamarkadek aurrera egin ahala, futbol erretransmisioen inguruan. Craig Calhoun gizarte antolakuntza aldaeren inguruko

kontzeptu abstraktuetatik zentzua ateratzeko egunerokotasunean dagoen erronkaz ari da, zeharkako loturek ezaugarritutako gizarteez diharduela (1991: 114) eta egungo hedabide garaikideek egokiera horretan imajinatutako komunitateak sortzeko funtsezko ekarpena egiten dutela aurretiaz aitzinetuta. Hurbileko komunitate giroa ere sortzen dute inondik ere, Thomas Kirschek dioenez, telebistaz partidak lagun eta senitartekoekin jarraitu ohi baitira, eta horrela, integrazio bizipena bilatzen du emanaldiaz norbanakoak, tentsioa eta gozagarriaz gain (Kirsch, 2008). Anderson eta Calhounen ildotik, Billigen hausnarketak berebizikoak dira hedabideen kirolaren bitartezko nazio nortasunaren hedapenaren ildoak begiz jotzeko. Kazeten albiste kontaketa sorterrira zuzenean adierazteke plazaratua da testuinguruaz. Gutasunaren zehaztapenaz eta kokapenaz ia aintzat hartzeke ohartarazten gaituztela hiritarrak azaltzen du Billigek, maiz “gu” izenordea aipatu beharrik izan gabe (Billig, 1995: 109). Deixia, hots, erreferentzia, gehiegi zehazteke egiten da hedabideen jardunean, nazioaren eta nazio nortasunaren eremua guztiek jakintzat hausnartua izango balute bezala betikotua. Billigek oroitarazten du nazionalismoa gutasunaren ideologiaz lotu daitekeenez, haiengandik bereizteko jarrera ere azaleratzen dela, eta estereotipoak ziratekeela haiek ezberdintzeko gailuak (Ibid., 78-79). Espainiar eta frantziar selekzioen 2010eko Munduko Kopako partiden ganean herrialde horietako telebista kateek eginiko iruzkinen azterketan egiaztatuko dugu hori, hunkipenezko nazioen alderaketa gailurrean denean. Horrezaz gain, kirol erretransmisioetako estereotipo erabilera, Sonntagek dioen moduan (1998: 33), datza herrialdeen irudikapen kolektiboekin geroz eta konplexuagoa eta ziurgabeagoa den munduan ezagutzazko aurreiritzizko aingura betikotu nahi izatean.

4.1.3-Telebistako kirol emanaldiak mundu aisialdiaren ardatzak

Paul Yonnetek zioen moduan, aski nabarmentzekoa da telebistaren kontsumoak, aisialdiaren betekizun erabat nagusia izateaz batera, gainditu egin duela, Mendebaldeko gizarteetan batez bestekoa hartuta, norbanakoek lanari eta gainontzeko bizitza jarduerari esleitzen dioten denbora (Yonnet, 2008: 20). Euskal Autonomia Erkidegoan esaterako, 2012ko irailean 223 minutuko eguneroko telebista kontsumoa zuten herritarrek, guztien batez bestekoa eginda, eta espainiar estatu osoaren batez bestekoa 234 minututakoa zen (Kantar Media, 2012). Jakina denez, oroz gain mundu osoan ikus-entzule gehien batzen

duten emankizunen artean kiroleko erretransmisioak eta oro har futbolekoak gainjartzen dira. Television Key Facts izeneko argitalpenak Europako estatu gehienetan, AEBetan eta Japonian urteroko emanaldi arrakastatsuenak neurtu ohi ditu, eta horietan, aurreikusi zitekeenez, kirol emankizunak gailendu ohi dira. Telebistako kirolez eginiko behaketan Thomas Kirschek nabarmentzen zuen ikus-entzuleria kirol ekitaldiek erakarrira dagoela, eta 2005a gisara aparteko kirol ekitaldirik ez zegoen urtean ere islatzen zuela arrazoitu zuen (Kirsch, 2008). Frantziako telebistaren gailurra 1998ko Munduko Koparen futbol jarraipenaren ondoren 2006ko Alemaniako Munduko Kopan gertatu zen, frantziar nazio taldeak selekzio portugaldarraren kontra jokaturako final erdietako neurketan. 22 milioi lagunek ikusi zuten telebistaz Frantzian. Espainian berriz, 2008ko Austria eta Suitzako Europako Kopako finalak ezarri zuen telebista jarraipenaren mugarrira batez beste 14,5 milioi lagunek jarraitu baitzuten Espainia Alemaniarekin alderatu zuen neurketa. Dena dela, Espainiako eta Portugalgo taldeen arteko 2012ko Europako Kopako final erdietako luzapenak eta penalti jaurtiketek are gailur handiagoa jarri zuten. Hurrenez hurren, 16,4 milioi eta 18,1 milioi ikus-entzule elkartu zituen Tele 5 kateko erretransmisioak. Horrez gain, aintzat hartu behar da telebista neurketen hargailuek ez dituztela zenbatzen taberna edo futbol ekitaldi nagusien inguruan kalean plazaratu ohi diren telebista erraldoietako datuak, eta horrenbestez ikus-entzuleria are eta handiagoa zatekeela.

Lehenik eta behin, telebista erretransmisioen ikus-entzuleria gailur jarraikorren berrespen horretatik nabarmendu beharra da, Emmanuel Durandek, Victoriano Melerok, Laurent Valleek eta Yves Wehrlik arrazoitzen dutena onetsiaz, ikus-entzunezko edukien kontsumorako teknologia berrietatik eratorritako lehiakideen aurrean kirola eta futbola telebista kateen arduradunentzat abantailazko ondasuna direla. Futbol partiden indarra zuzenekoan datzanez gero, zinema gisako bestelako emanaldietatik bereizita usadiozko telebista kateei hobaria eskaintzen die, eta telebistaren gailentasunezko tokia ziurtatzen du ikus-entzunezko iraultzaren egokieran (Durand et al., 2010: 61). Horrela, zilegia da futbol eta telebistaren bikoari munduko hiritar gehien erakartzen duen ekoizkina delako gutxienean ikerketa esleitzea. Paul Dietschyk dioen modura, telebistak futbolaren lilura handiagotu zuen herri globalaren kirol gisara eraldatuta (Dietschy, 2010: 487). Afrikan esate baterako, Europako futbol klubuen inguruko norgehiagoken inguruan liskarrak eta hildakoak eragitera heldu dira satellite bidezko futbolaren helmeneko partidak. *The Cup* izeneko filmak bestalde, erbesteko monje tibetarrek barealdia eten eta 1998ko Munduko Koparen finala telebistaz jarraitzeko egindako ahaleginaren istorioaz dihardu. Nolanahi

ere, ikus-entzunezko futbolaren behaketa hain entzutetsua baldin bada, nazio nortasunen ordezkartzen arteko taldeen alderaketari dagokio, eta hori izango da azterketa giltzarria, 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa azterketa enpirikorako jomuga gisa eta teoriaren osagarri modura hartuta. Tesiaren lehenengo kasu azterketa izango da hori.

Egoki iritzi diot Albrecht Sonntagen arrazoibidea berriro berreskuratzeari. Bere esanetan, nazio sentipena eraikitako ezaugarria dela oroitarazita eta nazio atxikimendua sorrarazten zuten eskola eta armada bezalako usadiozko egituren ahalaren ahuleziagatik, hedabideek nazioen bilakaeran estreinakoz lehentasunezko kokapena dute nazioarekin lotura eratzean. Futbola hedabideen edukietan lehentasunezkoa izaki, ondoriozta daiteke nazio nortasunak hauspotzerakoan osagai gailena dela (Sonntag, 2008: 50). Horretarako, Norbert Eliasek eta Eric Dunningek aisialdiari eta horren baitan kirolari lotuta hausnartu zuten eguneroko bizimoduaren asebetetzko emozioen gainjarpen kontrolatua goratzen du ikus-entzunezko hedabideak, nazio nortasunezko sentipena muturrera eraman eta ahalik jarraipen handiena ziurtatzeko, sarritan nazio ordezkartzen alderaketaren tamaina muga gabe ikusarazita. Hori horrela, zilegia deritzot FIFAk 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa ekitaldiko ikus-entzuleria datu orokorretatik hautemandako lerroburu nagusietako batzuk hemen aurreratzeari futbol emanaldietan nazio nortasunaren eragin ebazgarriaren adierazleak direlakoan. Nazio taldearen arrakastaren baldintzapean, aipatutako herrialde horietako bakoitzeko hiritarrek orokorrean telebista hautu oso ezberdina burutzen dutela ondoriozta daiteke, aurretiazko Munduko Kopa ekitaldiekin alderatzeaz hain zuzen ere.

-Lehenik eta behin, futbolaren eta nazioaren biko errentagarriaz hitz egitean azpimarratu beharra dago telebistak barreiatutako Hegoafrikako lehiaketaren emankizunak 3,2 bilioi laguneko audientzia izan zuela munduan, gutxienean erretransmisioen minutu bat ikusi zutenak zenbatuta. Ondorioz, munduko biztanleen %46,4 telebistaren aurrean izan ziren une batean bederen futbol ekitaldia jarraitzeko. 2006ko Alemaniako ekitaldiaz alderatuz %8ko hazkundera izan zen ikus-entzulerian Kantar enpresak FIFAREN mesedetan eginiko zenbaketari jarraiki. Horrez gain, Espainia eta Herbehereen arteko finalean, emankizuna uneren batean gutxiarik 20 minutuko jarraikortasunezko tartean hautatu zuten munduko herritarrei dagokienez, 619,7 milioi ikus-entzule eduki zituen, eta minutu batez bederen erretransmisioarekin bat egin zutenak aintzat hartuta 909,6 milioi ikus-entzule elkartuko ziratekeen. Etxetik kanpoko ostatu eta pantaila erraldoien gisako ikuskerak zenbatuak ez direnez, litekeena da mila milioiko ikus-entzuleria maila gainditu izana. Hori horrela,

Jerome Valcke FIFAn idazkari nagusiak nabarmendu zuen jendeak zatitutako hedabide ingurumenean askotariko hautatzeko ahala izanagatik Munduko Kopak horrelako lilura sortzeak adierazten duela ikuskizun erakargarria izaten dirauela munduan (FIFA, 2011).

-Bigarrenik, aipagarria da Hegoafrikan eta Espainian hurrenez hurren %18ko eta %19ko hazkundera izan zuela Munduko Koparen jarraipenak lau urte lehenagoko lehiaketarekin alderatuta, eta Alemanian eta Herbehereetan telebistako audientziaren mugarria gainditu zutela hurrenez hurren bertako nazio ordezkariak final erdietan eta finalean jokaturako partidek. NED1 Holandako kanalaren emankizunarekin bat egin zuten batez beste 8,5 milioi lagunek, hau da, populazio guztiaren erdiak baino gehiagok. Hala, %91ko sharea izan zuen, alegia, orduan telebista ikusten ari ziren ia guztiak erakarri zituen. Bide batez gainditu egin zuen emankizunak 2004ko Europako Kopako final erdietako Herbehereen eta Portugalen arteko partidaren erretransmisioan jarritako aurreko mugarria. Kontrako joera izan zuten bestalde, besteren artean, Frantzia, Italia eta Australia. 2006. urteko ekitaldian finala jokatu zuten lehen biek, luzapen eta penaltietako hunkipenezko gailurra eta guzti, eta Australia final zortzirenetarako sailkatu zen, Hegoafrikako ekitaldirako ez bezala. %10, %3 eta %19 egin zuen behera hiru estatu horietako bakoitzean Munduko Koparen jarraipenak. Frantziari dagokionez, Raymond Domenech entrenatzailearen eta futbolari arteko liskarrek amildu zuten audientzia lehen faseko kanporatze goiztiarraz batera. Kirschekin batera ebatzi genezake patriotismoak nazioarteko kirol ekitaldietara ikusleak erakartzen dituela, eta sarri patriotismoak edo nazionalismoak eragiten dutela telebistaz kirola jarraitzeko ohiturarik ez dutenak hori egitera bultzatzea (Kirsch, 2008).

Emakumeak dira zinez nabarmentzekoa den joera islatuta, selekzioak jokatzean bestela ez bezala telebistaz futbola jarraitzera murgiltzen direnak, eta bidenabar nazioen arteko txapelketetako neurketetan audientzia mugarriak gauzatzea ahalbidetzen dutenak. Lincoln Allisonen (2000: 346) zioenari jarraiki, emakumeek futbol zalegoaren barruan alderdi txikia baina hazten ari dena betetzen dute, eta 1990eko Italiako Munduko Kopan Ingalaterrako partidaren emanaldietan esaterako bertako guztizko ikus-entzuleriaren %44a osatzen zuten. Horrenbestez, nazio taldeak jokatutako nazioarteko txapelketen inguruan emakumeak ere bat egiteak bidezko egiten du adieraztea nazio komunitatea haragitzeko eta eraberritzeko gailu nagusienak direla futboleko nazioen taldeen lehien emankizunak. Hala ere, David Rowe, Jim McKay eta Toby Millerrek dioten moduan, kirolaz nazioa genero hausnarketa modu bereziari jarraiki eraikitzen dute hedabideek, zeinean gizonek

eskuratzen duten nazioaren izaera femeninoaren alde borrokatzeko eskumena. Horrela, kirola taldekoa bilakatzean eta ordezkari taldeko harrotasunaren iturburua bihurtzean, emakumeei ukatu egiten diete nazio ezaugarrien eramaleak izatearen estatusa, hedabide eta estatuak ohikotasunez gizonezkoei esleitzen dietena (Rowe et al., 1998: 126).

Oro har Neil Blainek, Raymond Boylek eta Hugh O'Donnellek ondorioztatuari jarraituta (1993: 51), arrazoizkoa da nabarmentzea komunikazio sare globalek ez dutela erasan telebistak nazioaren garrantziaren berezko ikuspegia kirol emanaldiekin errotzea. Hedabideen hautua ote da futbolaren bitartez nazio eraikuntzazko emankizuna igortzea? Bistakoa da telebista kate publiko zein pribatuak onuradunak direla nazio hunkipenezko alderaketekin lortzen dituzten audientzia maila mugarririk. Horrela jazo zen sortzezko hedabideekin eta baita gaur egungo telebista ereduarekin ere. Hala ere, estatu agintarien aurretiazko esku hartzea agerikoa da ikus-entzunezkoen bilakaera garaikidean, nazioen arteko futbol neurketen salbuespen bermea aginduta, eta beren herrialdeko hedabideak behar izanez gero, eta jabetza pribatukoak izanik ere, erretransmisioak doanik igortzeko estututa. Lehenago futbolaren eta nazio nortasunen aldarrikapenen arteko hartuemanen uztarpen ikusaraztea burutu badugu, ekitaldi horren ezinbesteko bitartekaria, telebista, aztertzeak ebazpen hori gehiago irmotzen du.

Ildo horretan, aurreko ataleko ondorio nagusietan azaldu da futbolak hasieratik estatu-nazioen egitura bermatu eta betikotu zuela. Ondorioztapen hori zehaztu nahi bada ezinbestekoa da nabarmentzeke ez lagatzea XX.mendearen hirugarren herenetik aurrera telebista partiden erretransmisioek izaten zuten garrantzia. Izan ere, FIFAk antolatutako nazioarteko partidetan, bestelako adibide bakanak salbuetsiz, estatu-nazioen ordezkariak aritu izan badira, neurketa horiek nazio ekitaldi bihurtuta iruzkindu dituzten hedabideak estatu bakoitzeko nazio proiektu gainjartzailearen ekintzaileak izan dira. Esan nahi baita nazioen arteko neurketa ofizialak eskaintzeko eskumena izan dutenak estatu-nazio proiektu nagusia herritarrei helarazi dieten telebista kateak izan direla. Kate publikoak ia erabat hasieran, eta kate pribatuek ildo berean, ikus-entzunezko esparruaren irekierak hedabide ugariaren parte-hartzea eta futbol emankizunen eskaria bultzatu zuenean. Hori horrela, ikus-entzunezko kontaketa eginiko errealitatearen eraikuntzak estatu-nazioen zilegitasuna areago indartzeko funtsa du, estatuko eliteen nazio proiektua haragitzekoa. Eskoziak esaterako, nahiz eta futboleko nazioaren ordezkari ofiziala daukan, telebista egituren oraindik Erresuma Batuko hedabide sarearen mendean dagoenez, zailagoa zaio

futbolaren bidez nazioaren komunitatea gizartean plazaratzea. Horren adierazgarria da nazio taldeak bere herrialdean jokatutako partidak ordaindu bidezko kateetan eskaintzen direla, estatuetako ordezkariak izaten duten berme bereziarekin kontrajarrita. Horrez gain, estatuek gabeko herrialdeek oro har nazioa eraikitzeke gabezia bikoitza daukate, telebistazko nazio futbolaren erabilpen ezina, eta estatuen nazio eraikuntzaren eragina. Eta estatuek aparteko legedi bereziaz ziurtatzen dute futbol partiden erabateko helmenean, berezko komunikazio sistemaren berebiziko abantailak nazio eraikuntzarako bermatuta.

4.1.4-Telebista bidezko estatu-nazioen eraikuntza eta nazioaren intereseko ekitaldien aparteko lege bermea

1989ko EBren 89/552/CEE zuzentarauak, *Mugarik gabeko telebista* izenekoak, estatu kideen artean ikus-entzunezko ekoizpenen eta emankizunen oinarritzko legedia ezarri zuen (Europako Batasuna, 1989), eta 1997ko 97/36/CE zuzentarauak (Europako Batasuna eta Kontseilua, 2007) moldatu eta osatu egin zuen harpidetza telebista kateen hedapenaren aurrean emanaldi batzuei salbuespen berme nagusia ematea onartuz. Estatu bakoitzari ahala esleitzen zion Bruselak direktiba horren hirugarren artikuluarri jarraiki, bere gizartearentzat garrantzia handikotzat hartutako ekitaldiak hedabideetako batek era eskusiboan eta biztanleriaren zati handiaren helmenetik kanpo eman zitzala eragozteko. Estatu kide bakoitzari uzten zion ekitaldien zerrenda egituratzeko ardura, horiek zehaztu gabe. Dena den, Viviane Readingek, Gizarte eta Hedabide alorreko komisarioa zelarrik, emandako azalpenek europar irizpidez zehaztaper handiagoa ematen dute. Gaur egun Europako Batzordeko presidenteorde den eledunaren ustez, ikus-entzunezko hedabideek gizarte balioen garapenean eta hedapenean funtsezko zeregina daukate, eragin nagusia baitute hiritarren ezagutzan eta sinesmenetan, eta berebiziko eginkizuna baitute kultura identitatetzat jotzen dituen nortasunen igorpenean, garapenean eta baita eraikuntzan ere (cfr. Jeanrenaud eta Késenne, 2006: 14). Hala, Albrecht Sonntagek nabarmentzen duen moduan, Europako Batasuneko estatuek EBren zuzentzarua egokitzerakoan, garrantzia handiko ekitaldiak bailiran hartutako gehien-gehienak kirol txapelketenak izan ziren, eta gizartearentzat babestu beharrekoak nazio nortasunaren bermearekin parekatu zituzten (Sonntag, 2008: 47). Aintzat hartu beharrekoa da 1997ko zuzentzarua futboleko estatuen mugak gaitzen zituen 1995eko Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Bosman

ebazpenaren ondorenean kaleratu zuela Bruselak, hein handi batean kirolari uztartutako nazio nortasunen adierazpena bermatu nahian ikus-entzunezko eremuan. Herrialdeetako EBren araudiaren egokitzapena ere testuinguru horretan txertatu behar da, Espainian eta Frantzia adibidez. 2007/65/CE izeneko zuzentarauak 1989koa orokorrean hartuta osatu zuen, ikus-entzunezko teknologian urte bitarte horretan izandako aurrerapenetara estatu kideen araudiak egokitzeko helburuarekin.

Madrilgo gobernuak betearaztea behartu zuen legea, Kirol Emankizunen Legea (1997), telebistaren futbolaren iraultzan iritsi zen, ordainduzko futbol erretransmisioen merkatua ustiatzen hasi ziren komunikazio taldeen arteko borroka gorenean zegoenean, eta ligako partida gehienak harpidetzazko telebista kateetan ikusgai izaten hasi zirenean. Ildo horretan, futbola da legedian aipamen berezia jasotzen duen kirol bakarra. Legeak kirol horri aitortzen dion garrantziaren eta oihartzunaren isla da idatzian jasotzen duen tratamendua. Horregatik, 21/1997 legea *Futbolaren legea* bailitzan ezagutu zuten askok. Aurre paragrafoa irakurri hutsaz jabe gintezke kirol emankizunei agertutako begiruneaz. Testuaren esanetan, “transzendentzia berezia daukaten kirol ekitaldien erretransmisioak garrantzia handia dute gizartean eta horren eraginez, interes publiko eztabaida ezina dute beregain. Horregatik, Konstituzio babes argien bitartez, bermatu behar dira emankizun horiek ikusi ahal izateko kontsumitzaileek dituzten eskubideak, eta baita tartean dauden kirol eta merkatuaren interesak ere”. Interes orokorreko babesa izateko ikus-entzunezko emanaldiek hiru baldintza hauetako bat bete beharra zuten. Lehenik, ofizialak eta estatu mailakoak izatea. Bigarrenik, Espainiako nazio selekzioei eragitea. Hirugarrenik, gizarte eragin eta oihartzun nabarmena edukitzea. Esan bezala, futboletik at ez zen gero interes orokorreko ekitalditzat hartuak izan zitezkeen beste kirol hitzorduen inongo aipamenik zehazten.

Espainian eginiko 7/2010 legeak (2010) Europako 2007ko direktibara moldatzea zuen xede, eta bide batez 1997ko estatuko legearen interes orokorreko ekitaldien funtsa indartu zuen, eta futbolaz gain kirol arloko ekitaldien sorta luzatu zuen 20.artikuluaren bitartean, interes orokorreko babesa edukiko zuten ekitaldien zerrenda arrazoitua aipamen horietatik osatzea agindu zion Ikus-entzunezko bitartekoen estatu kontseiluari. Olinpiar Jokoetako eta Munduko Kopa eta Europako Kopako une erabakiorrenez gain, eta futbol klubuen arteko Europako nazioarteko neurketa nagusienak ere barnean hartuta, Espainian ospatzen diren kirol gertaera nagusiak, eta bereziki Espainia nazioarteko txapelketetan

ordezkutzen duten nazio talde ofizialen norgehiagoka nagusiak ziurtatzen ditu legediak: Futbol eta saskibaloiko partida guztiak, eskubaloiko Europako eta Munduko lehiaketako selekzioaren parte-hartzea, teniseko Davis Koparen nazio taldearen partidak eta Roland Garroseko amaierakoak, tenislari espainiarrak balira, Europa eta Munduko atletismo eta igeriketa txapelketetako espainiarren parte-hartzea eta estatu barruan antolatutako Sari Nagusiak gobernuen laguntza jaso izatekotan. Edonola ere, Nazioarteko Bat Formulako eta motoziklismoko Sari Nagusiak interes orokorrekoak jotzen ditu, eta Txirrindularitza Munduko Txapelketa eta Espainiako Itzulia ere. Horiez gain, aipamen berezia merezi du Espainiako kirolaren ikus-entzunezko merkaturan kirol arduradunen eta ikus-entzunezko ekoizleen eta Madrilgo gobernuaren artean ezbaia sortzen duen liga txapelketako partida bat interes orokorrekotzat jotzen duen irizpidea, eta horrenbestez doako kateen bitartez eman beharrekoa. 2010eko legeak aurreikusten zuen ikus-entzunezko bitartekoen estatu kontseilurik ez zen azkenean sortu, eta 2012an Espainiako Gobernuak esku artean zuen lehiari buruzko aurre proiektuari jarraiki, Presidentetza Ministerioari egokituko zitzaion aurrerantzean 2007ko legearen zerrendatik interes orokorreko emankizunak, esan nahi baita, kirol erretransmisioak, ebaztea, eta hortaz, izan zitekeen epe motzera hamarkada askotako gizarte usadioagatik bermatu zen futbol liga lehiaketaren partida baten doako emanaldiaren bermea ezereztea (Ferrerias, 2012). Nolanahi ere, asteroko ligako irekian eskainitako partida erretransmisioak tesi ikerketa hau amaitzeko orduan bere horretan eusten zion, 2015 urte arteko Mediaset komunikazio taldearen kontratuaren eraginpean.

Bestalde, Frantzian gaur egunean indarrean den ikus-entzunezko kirol ekitaldien lege babes berezia Gobernuak eman zuen 2004-1392 arau izaerako dekretua da (2004), eta 1986ko irailaren 30eko Frantziako komunikazio askatasunaren legeari erreferentzia egiten diona. Europako 1997ko zuzentarauari moldatzeko, horren helmena zabaltzen du, eta bermea jartzen du bide batez, garrantzia nagusikotzat hautematen dituen ekitaldien erretransmisioa ordaindu bidezkoak edo harpidetzazkoak diren kateei, hasieran bederen, ukatzeko. Espainiako sortzezko legetik berezita, askotariko kirolen zehaztapan zerrenda ageri da hasieratik. Espainian geroago hedatu zen futboletik, kirolean beti ere. Frantzian futbola aparteko aipamenik gabekoa da. Hala, hiru multzotan sailka daitezke garrantzia handikotzat hartuta doako kateetan eskaini beharrekoak direla ebazten dituen ekitaldiak, guztiak ere kirolekoak. Hala, batetik, Olinpiar Jokoetako eta futbol eta errugbi Munduko Kopa lehiaketetako, besteren artean, ekitaldi nagusien bermea azaltzen du. Bigarrenik, frantziar lurraldeko kirol ekitaldi entzutetsuenena, txirrindularitza tourrarena eta futbol

kopa lehiaketaren finalarena tarteko, eta hirugarrenik, saskibaloia eta eskubaloia Munduko eta Europako txapelketetan erretransmisio nagusitzat hartzen dira baldin eta Frantziako nazio taldeak jokatzen duen. Frantziaren parte-hartzea goraipatuko duten kirol ekitaldi nagusien berme bereziaren ondotik, bertan ospatzen diren ekitaldiena eta gainontzeko frantziar nazio taldeen ekimena dira horrenbestez hiritar guztien helmenean ezarri nahi direnak. Espainian eta Frantzian bada gisakoak dira legearen helburuak, kirola eta nazio ordezkariak uztartzen dituzten ekitaldien erretransmisioak merkatu ekonomiatik salbu babes bereziaz hornitzea Europako Batasuneko zuzentarauari jarraiki. Munduan zeharko joera da hori gainera. Aurreko atalean eginiko mundu azterketan aipaturiko Australiako 1992ko Ikus-entzunezko zerbitzuen legeak adibidez, hedabideei nazio nortasuna islatu eta garatzeko betekizuna esleitzen zien, eta orduz geroztik zabalduzko lege irizpideetan arautu zuten nazio interesekoak jotako kirol ekitaldiak, doako, edo zehazki adierazteko, beren seinalea irekian igortzen duten telebista kateen bitartez helarazi behar zirela.

Osterantzean merkatu askearen lehia babestu duten estatu aginte politikoek, edo gutxienean horietara makurtu direnek, Europako Batasunari jarraiki, telebista futbolaren eremuan hesiak jarri izana emankizunon bereizitasunari buruz aski nabarmentzekoa da. *Mugarik gabeko telebista* zuzentarauaren sakonean zen hein batean adibidez, Europako ikus-entzunezko ekoizpenaren interesa eta ekonomia zaintzea, baina futbolaren babesa bestelakoa da. Lehen begiratuan behintzat, begiztatzen nekeza da estatuak merkatuaren bilakaerari telebistazko futbolearen adina muga gardena jarri duena, handizkako negozio tamaina sorrarazten duen eremua dela aintzat hartuta gainera. Nazio eraikuntzan estatu aginte politikoek ezarri dioten lehentasun garrantziaren isla da ez bairik gabe, bestelako irakurketa balizko oroz gaindi. Esanguratsua da ildo horretan, Javier Tebas gaur egungo Espainiako Ligako presidenteordeak helarazitako aurreikuspena. Tesia idazteko unean erakunde horren buruzagitzak eskuratzeko aukera handia ditu Tebasek. Haren esanetan, Espainiako legediak astero partida bat irekian eskaini behar dela behartzeak 150 eta 200 milioi euro galarazten dizkie urtero klubei (cfr. Libertad Digital, 2011). Esan nahi baita interes orokorreko legediaz ekonomia onurarentzat kaltegarria den erabakimena hartzen dela, osterantzean errentagarritasuna ohiko bizimoduko ekimen oro epaitzeko neurgailu nagusietakoa den garaian. Komeni da zehaztea Javier Tebasek kirol ekitaldiaren onurak ahalik eta gehienak izatea duela helburu, eta litekeena dela galeraren aurreikuspen hori muturrera eramatea asteroko doako partidaren emankizunaren betebeharra Gobernuari aldarazteko. Jaume Roures Mediapro komunikazio taldeko arduradunak ere, Espainiako

ikus-entzunezkoen merkatuan ordaindu bidezko futboleko inbertsio eskergak egin izan dituenak ere antzerako galera aurreikusi eta deitoratzen zuen astero doako kateen bidez partida emateko betekizunagatik. Futbolaren arduradunak eta aktore nagusiak, futboleko klubak ligako ordezkariaren bidez, ados daude ondorioz ekonomia irabazien kontrako legea zela adierazten. Hain zuzen ere, 2011ko apirilean partidak ez jokatzeari mehatxatu zuten, hau da, lanuztea egitea, Espainiako Gobernuak legea aldatzera behartzeko. Doako partidak horretan zirauen 2013an ere, baina 2012-2013 futbol sasoian liga txapelketako talderik boteretsuenak, hobekien sailkatuak, Bartzelona eta Real Madrid nagusiki, doako telebistaren eremu horretatik kanpo utzi zituzten, eta interes orokorraren esanahia hein handian lausotu, inondik ere. 2014-2015 futbol denboraldia bitartean Tele 5 eta Cuatro kateen jabe den Mediaset taldeak erosiak dauzka irekian, ordainarazi gabe, ematen diren partida horien telebista eskubideak.

Hau guztia kontuan hartuta ere, deigarria da nazioarteko partiden gainean gisako irakurketa ez egitea. Alegia, harpidetzazko edo ordaindu bitarteko telebista kateak izan daitezkeen selekzioen partidak emango dituztenak eskatzeko ez da adinako aldarri izaten, izatekotan, maiz politikariengandik aurkakoak, ordaindu bitarteko enpresetara joan ez daitezkeen emankizunok. Futbol nazio federazioak ez ezik, *upstream* handizkako inbertsio-entzunezkoen merkatuan, komunikazio talde handiek salerosten dute kiroleko telebista eskubide horiekin, eta diru gehiago lortuko zuketena partidak emateagatik ordainaraziko balute. Konplexua da neurtzea, Tebasek Espainiako liga txapelketari dagokionez egiten duen mailan, zenbat diru galtzen duen FIFAk, funtsean txapelketa handion jabea denak, Munduko Kopako partida oro, tokian tokiko nazio taldeenak, harpidetzazko hedabideek igortzen ez dituztelako, baina esan bezala, diru errentagarritasuna denaz gain lehenesten duen XXI. mendeko mundu gizartean salbuespen oso nabarmentzekoa da. Ildo horretan, ezin da aipatu gabe utzi ere, UEFAk eta FIFAk helegitea jarri zutela Europako Justizia Auzitegian EB Europako Batasunak eta Erresuma Batuak nazio taldeen arteko futboleko partiden erretransmisioei emandako babes bereziaren aurka. Ordaindu bidezko telebista kateek ekitaldiok emateagatik eskainitako dirutza baliatu nahi zuten futbol erakundeok. 2011an epaileek arrazoiak kendu zieten UEFA eta FIFArri orain arte xehetutako araudian oinarrituta. Futbol zaleetatik harago hiritarrentzat Europako Kopak eta Munduko Kopak duten garrantzia nabarmendu zuen bereziki Europako Justizia Auzitegiak jakitera eman zuen ebazpenean. Bi kirol erakundeok errekurtsioa jarri zuten erabakiaren aurka. 2012ko abenduan, alabaina, auzitegi horretako abokatu nagusi Niilo Jaakinenek galdegin zuen

helegitea errefusatzea. Nahiz eta abokatuaren iritzia erabakiorra ez izan, aldi gehienetan Europako Justizia Auzitegiak ontzat eman izanaren balioa zuen (Vingt minutes, 2012). Nahiz eta nazio nortasuna eta ordezkari-tza futbolaz zabaltzea baliagarria zaiela jabetuta dauden, ekonomia hobariak ere zaindu nahi dituzte nazioarteko erakundeok.

David Fraser eta Kathryn McMahonen arrazoizko hausnarketaren ildotik (2003: 35) deigarria da legegileek eta auzitegiek jakintzat ematen dutela, eta uztarturik balego bezala, kirol ekitaldi batzuek nazio garrantzia, interesa eta adiera dutela, hori zilegitzeko arrazoibide sakonegia behar izanik gabe. Fraserrek eta McMahonek diotenez, badirudi guztiek barneratua dela Munduko Kopa telebistaz ikusteak norbanakoa hiritar osoagoa bihurtzen duela. Zilegia da esatea Kirchmedia zeritzon Alemaniako komunikazio taldea saiatu zela estatuek futbolaren inguruan batez ere nazio nortasunaren izenean jarri zuten babes oskoletik hobaria lortzen. Hala, nazio ordezkari-tzen arteko futbola igortzeagatik herritarrek ordaintzea lortzen ez baldin bazuen, telebista publiko edo pribatuei bederen emanaldiek zuten zeresanagatik eztabaidatu ezingo zuten salneurri handia ordainaraztea hausnartuta izan zezakeen. 2002ko eta 2006ko Munduko Koparako telebista eskubideak erosi zizkion FIFARI eta herrialdeetako hedabideei salerosi zizkien ostean bitartekaritza gisako eginkizuna beteaz. Estatu bakoitzeko audientzia aurreikuspenen arabera salneurri bereizitua aurkeztu zien. Nolanahi ere, hedabide publiko askok Kirchmediaren eskaintza ukatu egin zuten 1998ko Frantziako Munduko Koparako eskubideen kostua hirukoiztu egiten baitzuen, eta Japoniako eta Hego Koreako ekitaldiak Europan partiden emanaldia goizean egokitzen baitzuen, audientzia handia eta iragarleak erakartzeko ez abantailazko kokapenean. Hori horrela, politikariek beren herrialdeko telebista kateak estutu zituzten Munduko Kopa bertan irekian eman zezaten (Desbordes, 2006: 129-130) eta ildo berean Kirchmediaren aurka ekimen anitza sortu zen Alemanian, han zuzenean bere harpidetza kanalaren bitartez eskaini nahi zuelako Munduko Kopa eta nazio taldearen partidengatik ordainarazi (Sonntag, 2008: 46). 2002an ordainketen etetea aurkeztu zuen komunikazio taldeak eta 2003an desagertu egin zen pilatutako zorren eraginez. Futboleko burututako inbertsioak ez zion beraz hobaririk eman Kirchmediari, ez eta erretransmisioen gaineko estatuen berme bereziak ere.

David Fraserrek eta Kathryn McMahonek merkatu irriken eta nazioen interesen arteko nahasmenduzko legea iritzi diote Europa eta Australiako ikus-entzunezko berme ekimenari (Fraser eta McMahon, 2003: 42). Matthew Nicholonek halaber, kritikazko

gogoetaren bidetik arrazoitzen du ikusteke dagoela ekonomia funtsa kirolei gainjartzen bazaie nazio interesen izenean kirol erretransmisioei eskainitako zentzu bereziak zilegi izaten jarraitzen ote duen (Nicholson, 2007: 203). Bidezkoa da diru etekin jazarpenaren eta nazio nortasuneko interesen eztabaia aurkeztea, ikus-entzunezkoena gainontzekoen gisako merkatua baita, eta hedabide publikoez gaindi, telebista kate pribatuek ogibidea bideragarria eta errentagarria izatea ziurtatu behar baitute gutxienik. Dena dela, estatuek oro har merkatuaren arautze eza hobetsi dutela aintzat hartuta, eta futbol norgehiagokak halabeharrez nazio nortasunaren osagarritzat jotzen direnez, ez dirudi gertagarria denik gizartearen begietara diru hobarien bilako negozio iturri soila edo arrunta dela ikusaraztea. Espainiari dagokionez, 1983tik lehenengo aldiz telebistaz eskaintzeke izan zen 2014ko Munduko Koparako sailkapenezko partida, Bielorrusia eta Espainiako nazio selekzioen artekoa, 2012ko urriaren 12an. Interes orokorreko legediak Espainiako federazioak bere lurraldean antolatzen dituen partidei eragiten die bereziki, eta politikariek eta elkargoak presioa egin izanagatik ezein katek ez zuen ordaindu Sport Five Alemaniako enpresak, partiden eskubideen jabe bitartekariak, ordainaraztea galdegiten zuena. 2014ko Brasilgo Munduko Koparen telebista eskubideak ez ditu artean ikerketa lan hau amaitzeko unean Espainiako ezein katek eskuratu.

Ildo berean, 1997ko legeak arautu zuen Espainiako ligako partida bat doako kate batek igorri behar zuela, gizartearentzat interes orokorrekoa jotzen baitzuen. 2012-2013 liga txapelketa sasoi arte hiru hamarkadatan larunbat gauekoa zen irekian ematen zen partidaren ordutegia, baina sasoi horretan liga antolakuntzak ostiral nahiz astelehenetan egokitu zuen, eta Real Madrilen eta Bartzelonaren neurketak interes orokorreko tartetik salbuetsita. Horrela, litekeena da joera izatea epe motzean, harpidetzazko komunikazio taldeek eta futbol talde boteretsuenek galdegiten dutena kontuan hartuta, eta Europako txapelketa nagusien joerarekin bat, liga txapelketako partidak doako kateetan eskaintzea behartzen duen baldintza ezereztea. Espainian esaterako, telebistaren ekarpenak klubuen aurrekontuen erdia hornitzera heldu dira, eta hortaz, hain eragingarriak dira ezen euren diru beharren arabera telebista ordutegiak ezartzen dituztela bertaratutako jendearentzat ezerosoak eta berantiarrik diren abaguneetan. Ez hori bakarrik, Ingalaterra, Frantzia eta Alemaniako txapelketen moduko multzokako telebista eskubideen salmenta egin ordez Espainian klub bakoitzak eskubideok banaka salerosten dituenek, Bartzelonak eta Real Madrilek txapelketaren hedabideen ustiapenak – irratiei ere ordainarazi zieten 2011tik – sorrarazitako diru sarreren erdia baino gehiago eskuratzen dute. Horrenbestez, telebista

etekinen banaketa eredu horrek lehia hein handian apaldu du txapelketan, Bartzelona eta Real Madrilen nagusitasuna handiagotu, eta emaitzaren ziurgabea eta ezjakintasunean erabat oinarrituriko ikuskizuna kolokan jarri, telebista ustiapenaren galbidea sorraraziko lukeena. Wenner eta Gantzen hitzetan, beste telebista emankizun moten ezberdina izaki, kirola zuzeneko eta egituratu gabeko drama da, baina ebazpena ziurtatzen duena (1998: 235). Horrela, Carmen Garcia Monerrisek (2003: 97) aipatzen duen arrisku gertagarriak futbola funtsean kaltetuko luke, alegia, ekonomia funtsek aisialdia betetzeko eta sinbolo identifikazioa bideratzeko duen bere ahalmena mugatzea. Dena dela, harpidetza kateek futboleant orain arteko inbertsioen tamainari etorkizunean eutsi ahalko dioten ziurgabea da. Liga lehiaketako klub askoren telebista eskubideen jabe zen Mediapro komunikazio taldeak Espainian ordainketen etetea aurkeztu izana da horren adierazgarria. Espainian eraikuntza alorrean oinarrituriko hazkundearen burbuilak gerora utzitako ekonomiaren hondamena futboleant ere gertatzeko arriskua dago, telebista kateak aurrez hitzartutako ordainketak betetzeko gai izaten ez badira. Esan nahi baita, futbolarena, eraikuntzaren ekonomiako lehentasunezko alorrearekin gertatu zenez, eztanda egin dezakeen bestelako puztutako burbuila izan daitekeela, estatu horretan, eta maila ezberdinetan kanpoan ere.

Orotara futbolaren eta telebistaren arteko bikora teoria hurbiltze sakonak azaldu nahi izan du nazio eraikuntzan ekoizkin horrek duen izaera apartekoa, bere helmena eta komunikazio sistema kudeatzen duten estatu-nazioek ematen dioten erabilpen nagusia.

4.2-Kasu azterketa: Espainiako emanaldia etengabe emozioa eta identifikazioa sortzen eta Frantziakoa nazio taldearen aldekatasunera mugatzen

Futbolaren eta nazio nortasunen uztarpenaren munduko azterketatik ondorioztatu izan ahal da, loturaren mende eta erdi igarota, eta areago, epe ertaineko geroari behatuta bederen, joera oparo bera aurreikusteko zantzuak badirela. Nazioen arteko futbol lehia gizakien adimenean txertatuta dauden nazio komunitate ideia zehatzgabeak haragitzeko eta zilegitzeko gailu ikusgarrienetakoa da. Berriki burutu dugu, helburu horrekin hainbat erpinetatik behatuta, komunikazioaren, politikaren, legediaren eta ekonomiaren ildotik, besteren artean, hedabideak, eta oraindik orain, telebista erdigunean dutela, futbolarekin

nazioa eraikitzeke eta plazaratzeko gailu nagusiak eta ezinbestekoak direla. Ezin arbuia daiteke hedabideak norbanakoengan eta taldeengan askotariko eragina dutela, hori erraz neurtzea ezina izanagatik, eta are eta gutxiago bere ondorioa. Bada, futbolarekin baturak nazioen eraikuntzarako baliabide ahaltsuenetakoa bilakatzen dute, indartsuenen parean. Berehalakoan asma ezina da behintzat hedabideen bitartekaritzako futbolak hainbesteko nazio sinbolo ahala daukan bestelako jarduera edo ekimenik, komunitate beharrizaneke giza sentimenduetan horrela barneratzen denik. Bada, honek guztiak zilegi bihurtzen du futbolak nazio nortasunetan duen ekarpena epaitzeko 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa gisako ekitaldiaren telebista erretransmisioen eduki azterketa egitea. Frantzia eta Espainiako nazio taldeen erretransmisio nagusien lagin ulertteraza hautatu da xede hori egiteko, TF1 eta Tele 5 kateenak hurrenez hurren. Espainian Canal + harpidetza kateak ere eskaini zituen Espainiako nazio taldearen partidak zuzenean, Frantziako Canal +-ek Frantziarenak errepikatuta. Beren izaeragatik, audientzia askoz murriztagoa eduki zuten.

Espainiar selekzioak Munduko Kopan jokaturako zazpi partidetatik hiru hautatu dira aztertzeke. Hasteko, Espainia eta Suitzaren artekoa, Espainiaren lehena, eta ostean, Alemaniaren aurkako final erdia eta Herbehereekiko finala. Partida denetako iruzkinak xeheki behatzeak ez zuen berritasunik emango, eta lehena, galdutakoa, emozio handiena zuten amaierako ebazpeneko lehiekin alderatzea oparoa zatekeen. Bestalde, Frantziako selekzioak jokaturako hiru partiden kopuruaz parekatzea nahi zen. Bi estatuotako kateek beren futbol ordezkarietz osaturako erretransmisioak aukeratu dira Euskal Herrian diren hiru nazio eraikuntzetatik bi estatu naziook sortzen baitituzte. Analisi unitatea (Zabaleta Urkiola, 1997: 207) partida izango da, atarian izan ohi den ereserkien ekitalditik partida amaierako lehen iragarkien tartea arte.

Horrez gain, askotariko futbol emanaldietatik zuzeneko erretransmisioak zehazki behaketarako hobetsi izanak ere arrazoibide gardena du. Esan nahi baita ikus-entzuleria handiena elkartzen duten emanaldi mota berezia izateaz gain, beren izaera ezaugarritzen duten futbol ekitaldiaren gaineko hunkipen eta emozio sentipenezko sorkuntzagatik eta nazioen alderaketan oinarrituriko identifikazio saio handienagatik parekaezinak baitira. Andrew Tudorrek dioen moduan (2006: 227), litekeena da telebistazko ikus-entzunezko diskurtsoari ikerlariak behar adinako arreta eman ez izana, baita futboleko kontaktaren analisiari ere. Crolley eta Handen azterketa ezagunak kazeten futbol bidezko Europako nazioen eraikuntzara jo dute esate baterako, eta Emma Poultonen 1996. urteko Europako

Kopaz Erresuma Batuko telebista kateek eginiko ekoizpenaren behaketa (2004) eta Paul Fryk telebistako kirolaren nazio eraikuntzaz tesi ikerketan burututakoa (2010), besteren artean, zehaztasunezko azterketak diren heinean, bakanak dira. Bestela da, nolahi ere, telebistako futbolaren baitan osatutako zientzia hausnarketa mardula, gizarte zientzietan futbolari oniritzia ematearen ondorioz ere loratu egin zena. Hori horrela, Grant Jarvie arrazoitzen du kirolari, kulturari eta gizarteari dagokion hedabideen ikerketa zabalagoan telebista gailentzen zaiola prentsa idatziari (Jarvie, 2006: 138). Dena dela, telebistaren berezko ezaugarriek eta futbol garaikidea bestela ezagutezin egingo luketenak, eta nire ikasketen izaerak, ikus-entzunezko komunikazioak, zuzendu dute tesia, nortasun krisia gisakoa jasaten ari den eta ataka batean den prentsa idatziaren aurrean hemen aztertzea. Zehaztu behar da nahiz eta telebista ekoizpena eta eraikuntza ahots iruzkinez eta irudien hautaketaz osatzen den, aurrerantzean kazetarien esatarien eta iruzkin egileen azalpenen alderdiari emango zaiola arreta guztia behaketan, estatu nazioetako hedabideek ahalmen murriztagoa baitute irudien hautaketarekin ikus-entzulerian eragiteko, errealizazioa hein handi batean, ia osoki, FIFAk mundu osora helarazten duen bateratuan oinarritzen baita. Ez hori bakarrik, Andrew Tudorrek azaltzen duenarekin bat etorrita, bidezkoa da bestela ere neurri handi batean erretransmisioen diskurtsoaren azterketa gainjarri izana irudien behaketaz gaindi, etnia estereotipoak, etnozentrismoa, ideologia eta nazio identitatearen askotariko diskurtsoen hartueman konplexutasunaren azterketak erakarri izan dituelako ikerlariak oroz gain (Tudor, 2006: 222-223), futbol emankizunez ikertu duten aldietan.

Emma Poultonek arrazoitzen duen moduan, telebista bitartekoaren nolakotasuna aztertze hurbiltze kuantitatiboa ez da sobera egokia eta testu analisis argigarriagoa da diskurtso praktika konplexuak ebatzi ahal izateko (Poulton, 2004: 441), eta horrenbestez behaketa enpiriko honetan erabiltzeko. Gailu kualitatiboaren bidez, euskarri enpirikoaz telebistazko futbolaren eta nazio nortasunaren arteko harremanaren teoria zehaztasunez osatzea da helburua. Esan nahi baita, hedabidearen mezu sortaren bitartez gauzatzen den nazio eraikuntza epaitzea. Paul Fryk gogorarazten duenez, ez dagokio kirol ekitaldian zer gertatzen den azaltzeko ekintza soilari, telebista tarte hori sortzean, interpretatzean, iruzkintzean datza erretransmisioak, eta kontaketa modu ageriko edo ez hain agerikoan kultur balioekin uztartzean (Fry, 2010: 48). Semiotika ikurren zientzia izaki, esanahien sorkuntzaren ikerketa baliabidea da. Hazkunde goiztiarrean aztertu zuen hizkuntzak zein modutan egokitzen duen edo barneratzen duen irakurlea edo ikus-entzulea. Whannelek azaltzen duen gisara, testuak bere barruan irakurleek beteko dituzten subjektu posizioak

daramatza, eta horren adibide dira nazioarteko futbol partiden iruzkinak eraikitzen duten identifikazio abertzalea, hedabidearen mezuaren hartzaile dena nazioa ordezkatzeko duen taldearen aldeotasunezko subjektu izaeran jartzen duen neurrian (Whannel, 2000: 295). Roland Barthesek arrazoitu zuen testuak esanahia hartzeko unean jasotzen duela, idatzi edo ekoizteko unean baino gehiago (cfr. Fry, 2010: 52), eta hartara eragingarria denaren abiapuntutzat har daiteke. Ildo horretan, hedabideek bitartekotutako kirolaren inguruko ikerketa gehienek arreta handiena ezarri dute ekoizpen prozesuaren bitartez helarazitako esanahiak, mezuak eta errepresentazioak aztertzean (Jarvie, 2006: 133-134). Kontaketan erabilitako irudi, metafora eta konparazioen moduko hizkuntza baliabideei erreparatzea lehenetsitako egitekoa da horrenbestez telebista erretransmisioen bitartez plazaratu nahi den nazio eraikuntzaren nolakotasuna epaitzeko. Horrez gain, Frantziako eta Espainiako telebista erretransmisioen erkaketak alderdi bakoitzetik ondorio zuzenagoak eskuratzea bideratzen du, beti ere alderaketazko metodologia ezagutza erdiesteko tresna egokitzat hartzen dugula. Gainera, galeraren eta ezkortasunaren hedabide eraikuntza eta garaipen zorianarena kontrajartzen direnez, hedabideen erabileraz gehiago jakiteko abantaila zen.

4.2.1-Espainia eta Frantziako emanaldien testuingurua

Erretransmisioen helmena zuzen aztertzeke ezinbestekoa da arestian Espainiako eta Frantziako selekzioen 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopa ekitaldirako iritsieraz eta hedabideen jarraipenaz eta horren bitartezko nazio eraikuntzaz testuinguru azalpena plazaratzea. Areago bi nazio taldeak eta horien inguruko nazio kontaketa kontrajarritako ildoan heldu zirela aintzat hartzen badugu. 2009ko azaroaren 18an Parisen Frantziak eta Irlandak jokaturako sailkapenezko azken kanporaketarako itzulerako neurketan Thierry Henry Frantziako aurrelariak luzapenean baloia eskuarekin nahita eraman zuen William Gallas atzelariari partida bana berdintzeko goleko pasea eman ahal izateko eta ondorioz bere nazio taldearen Munduko Koparako sailkapena erabakitzeko, Frantziak joanekoan 0-1 irabazi baitzuen Irlandan. Hala, Henryren eskuaren amarrua nazio auzia bihurtu zen, hainbat politikariren adierazpenak sorrarazteraino. Christine Lagarde orduko Frantziako ekonomia ministroak eta gaur egungo Nazioarteko Diru Funtseko agintariak esaterako, Irlandako Gobernuak partida errepikatzeke FIFARI eginiko eskaera zilegitzat hartu zuen (Grynbaum eta Schneider, 2010: 42). Futbol erakundeak osteratu egin zuen partida epailearen akatsagatik errepikatzea eta Frantzia Hegoafrikako ekitaldirako sailkatu zen.

Nolanahi ere, gertaera horrek eta Raymond Domenech entrenatzailearen aurka prentsan hedatua zen giroak baldintzatu zuen nazio taldearen etorkizuneko ibilera. Urrun zegoen 1998an eta 2000.urtean selekzioak sortutako batasunezko nazio sentipenaren liluratik.

Oso bestelakoa zen Espainiako nazio taldearen gaineko iritzi publikatua, 2008an Austria eta Suitzako Europako Kopa irabazi izanak baldintzatu zena. Hala, Handek eta Crolleyk eginiko kazeten azterketari jarraiki (Crolley eta Hand, 2002: 110), Espainiako nazio taldeak 2008an Europako Kopa irabazi baino lehenago espainiar nazio nortasuna ez berezko ekoizkin artifiziaila bailitzan aurkeztua zen, zeina espainiar zaleen leialtasun etaugar ezaren erantzulea, eta are eta garrantzitsuago, emaitza txarren arduraduna zela aditzera ematen zen. Esan nahi baita estatuaren lurraldearen barruko herrialdeen arteko elkarkidetza gabeziak galarazten zuela horietatik joandako jokalariek, futboleant, egiazki ez zegoen batasuna, zelaian, talde gisa irudikatzea eta garaipena erdiestea. Ildo horretan, Rafael Benitez espainiar entrenatzailearen adierazpen hauek nazio taldeak jarraian hiru lehiaketa irabazi aurretiko ezkortasuneko giroa hezurramitzen dute, aldi berean futbol taldeari eta estatuaren nazio nortasun proiektuari buruzkoa. Hala, Espainiako selekzioa, beste nazio taldeetatik ezberdintzen zuena adimena zela esan zuen, hau da, Argentinak, Brasilek, Uruguai eta Frantziak, besteren artean, abertzaletasun sentipen sustraituagoa zutelako (cfr.Gomez, 2007: 100). Selekzioaren ezina eta nazioarena arrazoibide gehiegi behar izateke elkartzen zituzten Espainian. Dena dela, garaipenak lortzen ohituta zeuden selekzio horiek baino behar handiagoa zuen espainiar estatuak futbolaz nazio nortasuna hauspotzekoa. Enrique Gil Calvo soziologoak *El Pais* kazetaren 1998ko ekainaren 13ko alean (cfr.Crolley eta Hand, 2002: 108-109), Frantziako Munduko Kopa lehiatzen ari ziren giroan, azaldu zuen Espainiak Europako beste estatu-nazioetatik bakanduta, nazio nortasuna eraikitzeke eginahalean huts egin zuela, eta hala, sinbolo baterazleen gabezia zeukala. Besteek hunkipenezko sinboloen multzo zabala zutela gehitu zuen, bandera eta ereserkia tarteko, nazio bizipenezko harrotasuna ematen ziena, eta horientzat futbola eta nazio taldea multzo horren baitako osagarria zatekeela. Egiazki tesi honek ondorioztatu du hausnarketa hori okerra dela, eta selekzioa herrialde horietako nazio eraikuntzan ere alderdi soila baino askoz gehiago dela. Dena dela, Gil Calvoren gogoetaren amaiera da aintzat hartzekoa. Bere hitzetan, Espainiak nazio kultura hutsunea zuenez, nazio futbol taldea zen funtsean, Olinpiar Jokoetarako hainbat talderekin batera, nortasun kolektibo partekatua adierazteke ahalmenezko sinbolo bakarra, herritarrak multzo beraren kideak sentiarazteke adinako emozioz hornitzeko. Espainiar izateke harrotasuna soilik nazio

taldeari loturiko futbolak sor dezakeela ebatzi zuen. Hausnarketa antzerakoa agertu zuen Alfredo Relaño Espainiako *As* kirol egunkariko zuzendari ezagunak kazetaren 2010eko maiatzaren 25eko alean, hau da, Munduko Koparen atarian: “Alaitasun eta bere buruan konfiantza ezaugarri zantzuak ageri dira talde honetan, Eurokopako txapeldunean, soilik kirol arrakastak poza eta batasuna ematen duten nazio zaharraren ordezkarian” (Relaño, 2010)³⁷. Bistan denez, estatu-nazioaren nazionalismoari buruz sinesmen gabezia onartua da. Manuel Castellsen hitzetan, Espainiako estatu-nazio moderno eta zentralizatuaren erroak hain ahulak ziren, ezen altxamenduek hartutako ia hiru mende, errepresioa, gerra zibilak, terrorismoa eta erakundeen ezegonkortasuna utzi zituela (Castells, 2003: 299).

Hori horrela, futbola eta selekzioa, nahiz eta deitoratua zen nazioaren ahuleziak erasaten zituela esan, eta zernahi dela, nazioartean nazio harrotasuna sortzeko adinako arrakastarik eduki ez, Espainiako estatu-nazio egitasmoaren ardatz garrantzitsuenetakoa zen. Hartara, futbol nazio taldeak 2008ko Europako Kopan 44 urteren ostean Europako Kopa irabazi zuenean, arrazoizkoa da hautematea funts horrekin futbolaren erabilpena handiagotu zela. Horren lekuko da adibidez, Espainian AEB Ameriketako Estatu Batuek zuten enbaxadoreak, Eduardo Aguirrek, 2008.urtean herrialde horretako nazioen arteko tentsioei buruzko behaketa burutu zuenean, besteak beste, nabarmendu zuela Espainiako selekzioak Europako Kopa irabazi izanak eduki zuen indar bateragilea, areago estatuko lurralde askotatik etorritako futbolarietaz hornituta zegoenean garrantzia ezarrita (Noguer, 2010). Halaber, 2010eko Munduko Kopan lortutako estreinako garaipenak eta 2012ko Europako Kopan berriz ere erdietsitakoak biribildu zuten gainera. Bide batez, ordu arte Espainian futbolak eragiten zuen sugarrak eta eragindako ekonomia fluxuaz kontrajarria zen garaipenen eskasia nazioaren ahultasunari egozten bazitzaion, nazio taldea garaitsua bihurtu zenean nazioaren biziberritzearekin eta horren proiektuaren onbidearekin uztartu zen zuzen-zuzenean. 1998an Frantziak Munduko Kopa estreinako irabazi zuenean izan zen tankerako hausnarketa agertu zuten hedabideetako iruzkin egileek, hau da, futbolearen irabazita beste herrialdeen pare jarri zela Espainia eta herrialde gisa heldutasunera iritsia zela. Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako orduko presidentearen aburuz, Munduko Kopa irabazteak ekonomia krisiaren testuinguruan autoestimua emango zion Espainiari

³⁷ Kirol arrakastek Espainiako nazio nortasunaren izaeran duten garrantzia garden islatu zuen Frantziako Canal + kateko *Les guignols de l'info* parodia eta umore aldarteko telebista saioan Espainiako kirolariak doping auziekin nahastu zituztenean, 2012ko otsailean bereziki, telebista kate gehienetan asalduraz agertu zutela Espainian, eta politikariak kexu adierazpenak egitera heldu zirela. Emanikizunean areago irri egin zioten Madrilgo agintarien kritikari (As.com, 2012)

(Cadena Ser, 2010). Hori azaldu zuen *El Larguero* irratsaioan egin zioten elkarrizketan. Bada, frantziarren eta espainiarren gogoeta gisakoa izan zen, Frantzian estatu-nazioaren eraikuntza burutuagoa egon arren. Alvaro Nietok eta Antonio Rodriguezek, esaterako, *Tiempo* aldizkarian aipatua da futbol garaipena nazioaren eboluzio baikorraz uztartzen duena, eta Espainiaren lehen ospakizun kolektibo handitzat jo izana Munduko Koparen baitakoa (Nieto eta Rodriguez, 2010). Lau hamarkadako frankismo diktadura aginteaz lotzen zen Espainiako bandera gizarteratzen ahalbidetu zuela futbolak ohartarazi zuten, ildo berean. Hain zuzen ere, Japoniarekin eta Alemaniarekin parekatzen den gertaera da hori, luzaroan iragan ezkorrekin eta nazionalismo oldarraldiekin berdindutako bandera baikorki haizatzen lagundu baitzuen futbolak herrialde horietan ere, eta nazio nortasuna plazaratzen bidenabar. Horrela, Espainiari bereziki, sinbolo baterazleen hutsa betetzeko onura eman zion telebistaren bidez urrunean izandako futbol ekitaldiak, hilabete beteko ospakizunaren iraugitzetik haratago zihoana.

Lluís Catala Oltra soziologoak 2008tik 2010era bitarteko espainiar selekzioaren garaipenezko ibilbideaz nazio nortasuna irimozteko erabilpenaz egindako hausnarketatik (2012), bi alderdi bereziki nabarmentzekoak dira. Alde batetik, hedabideek jendetzaren herri adierazpenetan zeresan giltzarria izan zutela adierazi zuen, nazio harrotasunera eta sinboloak kaleratzera deituta. 2008. urtean Luis Aragones nazio taldearen hautatzaileak *La roja* izenarekin batailatua zuen selekzioa, eta munduko selekzio gehienek gizarteratu ohi duten izendapena berdindu zuen horrela, hedabideen laguntzaz barreiatu izan zena. Horrela, Hego Korean futbolak 2002an selekzioaren elastikoez komunismo izaerarekin eta Ipar Korearekin uztartutako gorri kolorearen aurkaritza gainditzea bideratu bazuen, Espainian 2008an hasita XX. mendeko ezkerreko eta eskuineko nazio proiektuen arteko gatazka, sinboloen baitan bederen, atzean gelditzen ari zela iradoki zuen. Catala Oltrak aipatutako bigarren alderdi aipagarria, garaipenek sustatutako nazio taldearen elastikoen salmenta handiaz gain, futbol eremuan sustraitu zen eta estatu osoan zabaldu zen nazio harrotasun abestia zen: *Kalinka* errusiar abestiaren doinuekin *Yo soy español, español, español* – “ni espainiarra naiz, espainiarra, espainiarra” – nortasun aldarria. Demokrazia ereduko 30 urtez politikariek lortu ez zutena jokalariek burutu zuten Catala Oltrarentzat.

Frantziako 1998. urteko Munduko Koparen ospakizunaren ondorena eta gerokoa ezagututa, ordea, jakina da ez dela zuhurra futbol lorpenak aro berriaren hasiera bailiran sobera goratzea, bestalde nazio ospakizunaren epe luzerako zama gutxiestea okerra den

era berean. *Time* AEBetako astekariaren berriemaile Lisa Abendek, esaterako, atzerriko adibideaz osatzearren, idatzi zuen futbolak ez zituela erregioen arteko tentsiotzat jotzen zuten estatuaren barne nazioen arteko auziak ezereztuko (Abend, 2010). Zehaztu zuen Hegoafrikako futbol finalaren bezperan ere Bartzelonan manifestazio jendetsua antolatu zutela Espainiako Konstituzio Auzitegiak Kataluniar herritarrek erreferendumean onartu zuten *estatut* berriaren aurka, hots, Kataluniarentzat eskumen gehiago aurreikusi zituen, eta Katalunia nazio gisa definitzen zuen autonomia antolamendu eraberrituaren kontra, plazaratutako ebazpen berantiarren aurka, protesta adierazteko. Auzitegiak ebatzi zuen Konstituzioan Espainia zela nazio bakarra eta Katalunia ez zela. Milioi bat lagun baino gehiago batu ziren martxara Bartzelonako Udaltzaingoaren arabera. Hurrengo egunean, berriz, uztailearen 11ko final egunean, 75.000 lagunek ikusi zuten Bartzelonako Udalak prestatu zuen kaleko telebista pantaila handian Espainia eta Herbehereetako selekzioen finala. Espainiar nazio taldean Bartzelonako futbolariak, eta kataluniar izaerakoak asko, egoteak hautu konplexua bihurtu zuten hainbat kataluniarrentzat Espainia ordezkatzeko zuten selekzioaz aldeketasuna edo aurkaritza agertzea. Dena den, kataluniar eta espainiar banderen talka islatu zen asteburu horretan Katalunian, eta nolabait bi nazio sentipenen artekoa. Erroma egun batean eraiki ez zuten bezala, Espainia ere ez dela futbol partida batzuren bidez batuko esan zuen Munduko Koparen biharamunean Andreas Selliaasek (2010). Ezin esan ekitaldia irabazi izanak ekonomia hauspotuko zuela. Espainiaren izen ona eta nazio konfiantza bai, baina hortik haratago ez (The Wall Street Journal, 2010). Izan ere, geroz eta aditu edo iritzi emaile gutxiagok azaltzen dute kirol garaipenek edota ekitaldi horien harrerak zuzenki herrialdearen ekonomia suspertzen duenaren ikuspegia.

Hegoafrikako txapelketaren finala amaitzean, ospakizunetan futbolariak egin ohi duten futbol zelaiko itzulian, Carles Puyol Bartzelonako jokalaria Kataluniako bandera haizatzen eman zuen bira, eta estatuko beste erkidegoetako jatorriko futbolariak halaber euren ikurrak plazaratu zituzten ospakizunetan. Dena den, Xabi Alonso Liverpooletan ari zen Gipuzkoako jokalaria eta Javi Martinez Athleticen ari zen nafarrak, biharamunean Madrilgo kaleetan zehar estali gabeko autobusean eginiko biran inguruko zaleren batek utzitako Realeko eta Athleticen ikurrak hartu zituzten soinean. Milaka zalek egin zuten 2010eko uztailearen 12an harrera txapelaldiei, ohiko nazio ospakizunetan haizatu ohi diren bandera eta bestelako ikur nagusiak nabari gehiagotuz. Telebistaren bitartekaritza gauzatu zen futbolaren eta nazioaren loturaren isla Espainiako estatuaren lurralde osoan plazaratu zen gainera, hiri askotan udalek kokatu zituzten pantaila erraldoiak bidelagun.

Euskal Herrian eta Katalunian liskarrak izan ziren kaleko emanaldien karietara. Iruñean adibidez, Alemaniako eta Espainiako nazio taldeen final erdietako partida zela eta, San Fermingo jaietako peñen eta Gazteluko Plazan Espainia eta Alemaniaren arteko partida ikusteko bildutakoen artean istiluak izan ziren. Bilboko Moyua enparantzan Espainiako banderekin ospatzera batzartu zen ehunka lagun selekzioak txapelketan aurrerantz egin ahala, frankismoaren ondorengo garaian Euskal Herrian inoiz ez bezala, eta Espainiaren aldeko bibekin eta “ni espainiarra naiz” kantuekin girotuta. Espainiako nazio taldearen atxikimendurekin kontrajarria bestalde, euskal abertzaletasuneko joerako *Deia* kazetak Bilbon bizitzen jarritako Herbehereetako bikote baten harridura kaleratu zuen, Munduko Koparen finalaren atariko egunetan hiriko Alde Zaharreko etxeetan bandera laranja asko hauteman zituztelako (Oyarzabal, 2010). Hain zuzen ere, futbol partidak Euskal Herrian atxikimendu kontrajarriak sortu zituela adierazi zuen egunkari berdinak finalaren osteko biharamuneko alean uztailaren 12an, Espainiaren alde batzartu zirenen, eta bere porrota nahi zutelako Herbehereen kolore laranja beraiena egin zutenen artean. *En Bilbao cabe de todo* izenburupean hirian askotariko jarrerentzat tokia zegoela adierazi zuen kirolen ataleko lerroburu batean (Martinez, 2010). Nazio taldearen eta horrek ordezkatzan zuten Espainia estatuaren arteko uztarpenean agerikoa zen horrenbestez, garaipena nahiz galera desio zutenentzat. Katalunian halaber, Herbehereetako selekzioaren aldeko begi keinuak hedatu ziren, usadioz estatu horretako udatiarren jomuga izan ohi den lurraldean.

Futbol bidezko espainiartasun adierazpenak ekidin nahi izan zituzten hainbatek. Barakaldoko pilotalekuan adibidez, bigarren zatian, 700 lagunek finala ikusten segitzea eragotzi zuen pantaila handiaren hornikuntzan norbaitek nahita sorrarazi zuen matxurak. Katalunian antzera gertatu zen 2009an Hegoafrikan jokatu zen Konfederazio Koparen Espainia eta Hegoafrikaren arteko partidaren kale emankizunari zegokionez. Terrasako Udaletxearen aurrean ezarritako pantaila handiaren ondoan eragin zuten suteak jendeak batera partida jarraitzea eragotzi zuen (E-Notícies, 2009). Bistakoa da futbolarik batasuna eta bereizketa adierazi zituela Espainiako selekzioaren ospakizunaren gainean estatuko lurraldean. *Euskal Herriko Kazeta* Ipar Euskal Herriko egunkariak *Un semblant d'unité* – batasunezko itxura – lerroburuaz hezurmamitu nahi izan zuen 2010eko Hegoafrikako garaipenaren biharamuneko ospakizunarena, eta arrakastak luzaroan errealitatea estaliko ez zuela gaineratu azpiko lerroburuan. Hala, Frantzia 1998ko uztailaren izandako giroaz alderatu zuen kazetak (Le Journal du Pays Basque-Euskal Herriko Kazeta, 2010). Iñigo Urkullu gaur egungo Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, eta orduko EAJko presidentek

ildo beretik ebatzi zuen: “La euforia por ‘la Roja’ pasará y quedará un Estado en crisis” (El Correo, 2010a). Alegia selekzioak piztu zuen zoramena igaro eta krisian sartutako estatua geldituko zela. Alderdi bereko politikari Iñaki Anasagastik ildo berean, Vicente Del Bosquek gidatutako futbol taldeak Euskal Herrian lortu zuen atxikipen eza ikusarazi zuen, eta selekzioari Madrilén eginiko harrerari buruzko telebista saioa espainiartasun jaialdi gehiegizkotzat epaitu zuen. Bestalde, PSOEko eledun Ramon Jauregiren aburuz, Euskal Herrian ere poztasun adierazpena gertatu zen, eta “askatasunaren berreskuratzea ere”, bertan espainiartasun izaera agertzea aisea ez zenaz arrazoituz (Santamaria, 2010).

Euskal Herriari dagokionez, Iruñean, Zarautzen, Beasainen eta Bilbon, besteren artean, istiluak izan ziren Espainiaren garaipena ospatu zutenen eta aurkarien artean, eta hainbat pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak Espainiako ikurrak zeramatzen pertsoneri eraso egiteagatik (Diario Vasco, 2010a). Bestalde, Bilboko Plaza Eliptikoan Espainiako selekzioaren lorpena ospatzeko bildutako jendearen artean zeuden Bizkaiko PP Alderdi Popularreko eledunek Ercilla kaleko Jose Antonio Agirre lehendakariaren oroimenezko oroitarriaren inguruan ospakizuneko argazkia atera izanak ezbaia sortu zuen, espainiar muturreko nazionalismoak, frankismoak, erbestean bizitzera behartutako agintaria izan zela kontuan hartuta (Nuñez, 2010). Politikariok barkamena galdegin zuten argazkiaren argitalpenaren berri izatean. Donostian ildo berean, Espainiako Guardia Zibilaren autobatek erdiguneko kaleak zeharkatu zituen finala amaitu ostean, bozgorailutik “Munduko txapeldunak gara” esanez. Hurrengo koadroan biharamuneko kazeten goiburuak daude.

Munduko Koparen biharamuneko egunkari nagusien goiburuak (2010-VII-12)

(Marca): “¡Que sí, que somos Campeones! [Baietz, txapeldunak garela]
(El País): “Campeones del Mundo” [Munduko txapeldunak]
(El Mundo): “... De aquí a la eternidad” [Hemendik betikotasunera]
(ABC): “11 j para la historia de España. CAMPEONES”. [Uztailak 11 Espainiaren Historiarako. Txapeldunak]
(La Razón): ¡Gracias España! [Eskerrik asko Espainia]
(La Gaceta): “Orgullosos de ser españoles” [Harro espainiarrak izateaz]
(La Vanguardia): “Reyes del mundo” [Munduko erregeak]
(El Correo): “Los más felices del mundo” [Munduko zoriontsuenak]
(Diario Vasco): “¡Campeones!” [Txapeldunak]
(Diario de Navarra): “Campeones del Mundo” [Munduko txapeldunak]
(Deia): “Iniesta conquista el mundo” [Iniestak mundua mendean hartu du]
(Gara): “Espainiako selekzioak Munduko Kopa irabazi du lehen aldiz”
(El Punt): “L’estil del Barça guanya el Mundial” [Barçako estiloak Munduko Kopa irabazi du]

4.2.1.1-Prentsa idatziaren nazio narrazioa futbol partiden ikus-entzuleria mailak islatutako ekitaldi kolektiboarekin

Aurreko orrialdeko Espainiako mailako eta Euskal Herriko 2010eko uztailaren 12ko eguneko, Munduko Kopako finaleko biharamuneko, egunkari nagusietako goiburu nagusiek adierazten dute futbolaren ekitaldi gailenenaren ebazpena Espainiarekin bildu izanak hartu zuen sona. Euskal Herriko *Deia*-n eta *Gara*-n eta Kataluniako *El Punt*-en izan ezik, besteetan Espainiaren lorpena zen lerroburu nagusia. Areago, bost zutabetara edo orrialde osoarekin hartuta agertua zen Espainiako nazio taldearen argazkia, *Gara*-n eta *El Punt*-en salbu. Horietan hiru zutabetara eta estaldura murriztagoaz zen. Bestalde, Nafarroako *Diario de Navarra* egunkarian, Kataluniako *El Periódico*-n eta *Marca* kirol egunkarian azala eta kontrazala eman zioten futbol partidari aparteko baliabidea eginaz.

Munduko Koparen finalaren biharamunean, uztailaren 12ko egunez, lehen orrian egokitu zuten espainiar estatuko kazeta gehienek Espainiako nazio taldeak eskuratutako garaipena, futbol ikuskizunak arreta handia merezi duen herrialdean iragarri zitekeenez. Madrilen argitaratutako egunkari nagusienek, lerroburu barnerakoiak aukeratu zituzten, gutasunezko izenordeen deiktikoekin, imajinatutako komunitateari erreferentzia eginez, eta Espainiako historian gogorarazteko data zenarekin eta nazio harrotasunezko deiekin orokorrean. *ABC*, *La Razón* eta *La Gaceta* eskuineko jarrerako kazetak ziren garaipena nazioaz garbien uztartzen zutenak. Edonola ere, denetan, kirol kazetaritza jorratzean usu ohi dena baino nabarmenago, informaziozko izenburuak alboratu zituzten deigarriak eta hunkipenezkoak hobetsita. Euskal Herriko egunkarietan berriz, espainiar erreferentziako egunkarien eta euskal nazioaren aldekoen arteko alderaketa sinbolikoa azaleratzen zen futbol ekitaldi sinbolikoaren bitartez. *El Correo*, *Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* kontrajartzen ziren *Deia* eta *Gara*-rekin. Lehenengo hiruek “Txapeldunak” izenburua goratzen zuten harridura ikurrez, informazio gabe, arrazoitzeke, eta beren irakurlea kirol garaipenean barneratu asmo zuten. Beste bien goiburuak ez. Prentsan futbolaz Espainian burutu ohi den nazio eraikuntzaren isla ikusgarria da Munduko Koparen ondorena, eta baita Euskal Herrian kazetetatik igorritako nazio atxikipenen talkaz. Hurrengo orrietan uztailaren 12ko egunkari azal horiek dira txertatuta. Beti ere telebista emankizunen kasu azterketaren testuingurua jarri nahi da honekin, eta baita balioetsi ere ikus-entzunezko ekoizpeneko partiden helmenaren gizarte eragina. Izan ere, neurri batean, esan daiteke

prentsa idatziak laguntzen duela telebistaren bitartekaritzak ahalbidetzen duen nazio komunitatearen haragitzea nazio ekitaldia bihur dadin, nazio narrazioan txertatu dadin.

Marca egunkaria

LA COLECCIÓN DEL MUNDIAL RESERVA EL MIÉRCOLES LOS DVD DE LOS PARTIDOS DE SUIZA Y HONDURAS

MARCA 1-0  

Todos a una con La Roja

¡QUE SÍ, QUE SOMOS CAMPEONES!

Y A TUNDES LA GOLFELAN no elipen que MARCA no me jo anelak

Un golazo de Iniesta en el 116' nos da el Campeonato del Mundo • San Iker salvó el partido con dos para das antológicas

(*) Tengo unad 100 años, heya cumplido 80 años en los 80 jamás había visto esto: **¡ESPAÑA LEVANTANDO LA COPA DEL MUNDO!**

EL BES DE ESPAÑA

25 MILLONES DE ESPAÑOLES FESTEJAN LA VICTORIA EN LA CALLE

A pesar de salvajadas como esta patada de kárate...

...y de los robos de éste ¡¡ganamos el Mundial!!!

PATROCINADOR OFICIAL DE LA ALEGRÍA MÁS GRANDE QUE TE HAS LLEVADO EN TODA TU VIDA



EL PAÍS

www.elpais.com

EL PERIÓDICO GLOBAL EN ESPAÑOL

LUNES 12 DE JULIO DE 2010 | Año XXXV | Número 12.075 | EDICIÓN MADRID | Precio: 1,20 euros

EUFORIA EN ESPAÑA TRAS CORONAR POR PRIMERA VEZ LA CIMA DEL FÚTBOL

Campeones del mundo

- ▶ La Roja vence 1-0 en la prórroga a Holanda con un gol de Iniesta
- ▶ La selección consolida el liderazgo de una generación deslumbrante



Los jugadores de España celebran la victoria tras doblegar a Holanda 1-0 a cuatro minutos del final de la prórroga. Iker Casillas alza la primera Copa del Mundo de La Roja. / ALEJANDRO RUEGSA

JOSÉ SÁMANO
Johanesburgo

Un himno a la felicidad, sin demagogias: España es campeona del mundo, la epopeya que le faltaba al deporte español, que vive en la gloria tras una catarata de bienaventuranzas. Un gol de Iniesta para la eternidad se cantó en todo el país, y en otras fronteras, como un do de pecho. Un tanto romanceado que se demoró entre estremecedoras angustias hasta el minuto 116, en la prórroga. Una oda a la alegría, la que despierta en el vencedor esta misa pagana que es el fútbol, ese juego que desertiza las calles, congela algunas penalidades y lleva la rutina al olvido. España logró una inyección de uni-

versalidad, una derivada del fútbol pese a quienes lo desdennan, después de un partido emotivo, turbado. Lo hizo ante una Holanda áspera, recia y con menos dicha, que evitó ese juego de orfebrería que distingue a la selección española. Sucumbió de igual forma ante un adversario tan capaz en el arte de lo imprevisto, tan embriagador y maduro. De todo le demandó Holanda, caída en su tercera

final, pero España superó uno a uno cada examen. Lo ha hecho durante todo el Mundial. Y cada examen aprobado rearmaba la confianza de un país en una generación tan prodigiosa de futbolistas, tan sencillos como geniales. El país creía en ellos y ellos se sabían queridos. La química no era nada artificial. Por eso las calles españolas estallaron tras 120 minutos con el corazón en un puño. En Barcelona, en Madrid, en Bilbao. Era la selección global de un país global que hoy homenajeará a sus héroes más cotidianos. Una selección que nació en Viena y se doctoró en Sudáfrica.

EDITORIAL
Esplendor en la hierba

PÁGINA 28

MÁS INFORMACIÓN EN PÁGINAS 48 A 76

Llama gratis 900 80 88 09 www.jazztel.com

Promo verano

antes 29'95

ahorro de más de 200

ADSL + llamadas a fijos nacionales GRATIS hasta octubre

Router wifi GRATIS

Servicio Técnico GRATUITO


JAZZTEL

El precio de ADSL con llamadas a fijos nacionales hasta octubre es de 29'95€ al mes más impuestos. Incluye un router wifi gratis. El precio de ADSL con llamadas a fijos nacionales hasta octubre es de 29'95€ al mes más impuestos. Incluye un router wifi gratis. El precio de ADSL con llamadas a fijos nacionales hasta octubre es de 29'95€ al mes más impuestos. Incluye un router wifi gratis.

• Si eres el primero eres el primero. Si eres el segundo no eres nada (Shankly) •

EL MUNDO.es

LUNES 12 DE JULIO DE 2010. AÑO XXII. NÚMERO: 7.509. EDICIÓN NACIONAL. PRECIO: 1,20 €.



... en el estadio Soccer City de Johannesburgo. En primer término, y con bufanda blanca, el presidente de la FIFA, Joseph Blatter, y el presidente de la República de Sudáfrica, Jacob Zuma. (PARTITA PRESS/EPAP)

... De aquí a la eternidad

Un golazo de Iniesta en la segunda parte de la prórroga da el Mundial a España

ORFEO SUÁREZ / Johannesburgo
Enfado especial
Acaba el mes que cambió nuestras vidas y amanece un país pintado de dos colores que dejan de fusionarse en el odio para hacerlo en el orgullo. Espera a los héroes que llegan de ultramar con las velas inflamadas por un viento distinto. Velas rojas que cargan el viento del éxito porque quienes

las despliegan nunca escucharon las miserias que susurraban las sirenas del pasado. Son catalanes de firmeza como Xavi, castellanos de alma como Casillas, asturianos de braveza como Villa o vascos de piedra blindada como

Xabi Alonso, labrados como la tierra, áerosos como las alas. Son esos hombres imaginarios a los que cantó Miguel Hernández como parte de una España que nunca conoció. Son quienes siempre quisimos ser y nunca fuimos. Son

los campeones de la unidad. Son los campeones del mundo.

España es un equipo en el campo como en la calle. Lo es por el poder del fútbol, capaz de desnudarnos, de elevar a la superficie nuestro subconsciente, de mostrar

realmente cómo somos, en lo bueno y en lo malo, y descubrir nuestros deseos. Si algo demuestra este título Mundial es que los españoles queremos sentir cosas juntas.

Sigue en **DXT 4**
Editorial en **página 5**

Iker: el beso de España

EDUARDO MENDICUTTI
DXT 14

Los 7 DVD que valen un Mundial

El miércoles con EL MUNDO, entrega doble: España-Suiza y España-Honduras
DXT 21

YO SOY AHORRADOR cuenta NARANJA

35% TAE*
LIBRO + FONDOS INVERSIÓN
SIN COMISIONES. SIN CONDICIONES.

901 020 020
www.ingdirect.es
¡Y en tu oficina!

ING DIRECT
Un Gran Banco que hace Fresh Banking

*TAE calculada para cualquier importe. Al menos mensual de referencia. Tipo de interés nominal anual capitalizable a partir de la fecha del primer depósito. 3,49% (DXT 24). El interés de emisión y el depósito de reserva son de 0,05% en el caso de NARANJA. Actualización IAPV. Anuncio autorizado por la CNMV (SAI). Financiación catalana para nuevos clientes hasta el 31/03/2010. 100/000027. Si lo deseas en francés, la cuenta NARANJA es sobre distribución de valores. N.º I.B.A. 1030002


Menos del 1% de los catalanes asistió a la marcha contra España

175 fotos aéreas de Lynce prueban que no hubo más de 64.400 personas

AGUSTÍN YNHEL / Madrid
De las imágenes ofrecidas por las televisiones y de las fotografías aéreas se concluye una cosa: en la manifestación celebrada el sábado en Barcelona es posible que participaran más ciudadanos de los

56.000 que ha calculado la empresa Lynce, pero muchísimo menos del 1.100.000 que dijo la Guardia Urbana o del 1.500.000 que estimó Omnium Cultural, que organizó la protesta.
Sigue en **página 5**
Editorial en **página 5**

MADRID | 1,20 euros | Año CVII | Número 34.534




ABC
— Lunes 12-7-2010 / www.abc.es —

11-J PARA LA HISTORIA DE ESPAÑA
CAMPEONES

El gol de Iniesta en la prórroga cierra el círculo de una generación prodigiosa que conquistó por vez primera para nuestro país el título mundial tras derrotar a Holanda en la final por 1-0 [78 a 106]

Editorial, Viñetas de Mingote y Martín Morales; y artículos de Ignacio Camacho, Juan Manuel de Prada, José María Carrascal y Félix Madero [13 a 16]
Enfoque: Artículo de Fernando Rodríguez Lafuente. Crónica gráfica, minuto a minuto, del partido. Galería fotográfica de personalidades y celebraciones [5 a 10]

AFP



LA GACETA 

DE LOS NEGOCIOS Número 6.506. Lunes 12 de julio de 2010. Precio 120€. www.gaceta.es



**ORGULLOSOS DE
SER ESPAÑOLES**



LUNES, 12 DE JULIO DE 2010

www.lavanguardia.es Número 46.247 1,20 euros

LA VANGUARDIA

1881 POR DON CARLOS Y DON BARTOLOMÉ GODÓ

UNIVERSAL
EXPOSICIÓN

2



Reyes del mundo

ESPAÑA gana su
primer Mundial
con una generación de
virtuosos del fútbol

INIESTA da la gloria
a la selección con
un golazo en el minuto
116 ante Holanda



CUPON
Muebles plegables
Panama Jack

El héroe. Iniesta hizo historia en Sudáfrica, arropado por un equipo forjado en buena parte en la Masia del Barça. **DEPORTES 46 A 71 Y EDITORIAL**

SIPRIANE SIBIKO / REUTERS

EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO. DESDE 1910. www.elcorreo.com

ÁLAVA
Lunes 12.07.10
Nº 31.759-110E

EL CORREO

100
AÑOS



Fernando Llorente alza la Copa del Mundo en medio de una explosión de alegría. EFE

España se proclama campeona al vencer a Holanda en una agónica prórroga. Es el mayor éxito deportivo en la historia del país

SUPLENTO CENTRAL EDITORIAL P.28

104 PÁGINAS | CIUDADANOS 2 | ENLACE 12 | ESQUEMAS 20 | ACTUALIDAD (Política 22 | Opinión 28 | Mundo 32 | Economía 36) | TUS ANUNCIOS 38 | CULTURAS Y SOCIEDAD 46 | DEPORTES 52 | TIEMPO 65

V. SUPLENTO Y PASETIEMPOS 9 | CASTELLANO 10 | AGENDA 11 | TELEVISIÓN 12

EL FINANCIAMIENTO SU COCINA A 3 AÑOS (100 cuotas)

SCHMIDT
WWW.SCHMIDT-COCINAS.COM
Portal de Gamara, 9 - VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 252 309

PROMOCIÓN
Del 1 al 31 de Julio

De Distribución

DECANO DE LA PRENSA GUIPUZCOANA www.diariovasco.com

EL DIARIO VASCO

SAN SEBASTIÁN
Lunes 12.7.10
Nº 24.545 • 1,10 euros



Los mejores. Iker Casillas, capitán de 'La Roja', levanta la copa de campeones del mundo arropado por la alegría desbordante de sus compañeros de equipo. :: REUTERS

V. LAS BARDENAS SE EROSIONAN v2 | **MÁS CONTROLES DE ALCOHOLEMIA POR LOS SANFERMINES** En un operativo en Andoain se realizaron 48 tests en dos horas P2

TOUR DE FRANCIA
Samuel rozó el triunfo, Contador cedió y Armstrong se hundió P66

POLÍTICA
La Generalitat insta al Gobierno a rehacer los «puentes rotos»
Los socialistas catalanes quieren trasladar la unidad de acción del tripartito y CIU al Congreso
La Generalitat insta al Gobierno de Zapatero a rehacer los «puentes rotos» y a que defienda el Estatuto sin recortes tras la multitudinaria manifestación del sábado contra la sentencia del TC. José Montilla afirma que «no se puede hacer como si nada hubiera pasado». P24

AL DÍA
18.200 personas se 'mojaron' ayer en Gipuzkoa en favor de la esclerosis múltiple P6
ECONOMÍA
La fusión de Tecnalia y la integración de IK4 abren una etapa en la I+D vasca P34

112 PÁGINAS | AL DÍA 2 | OPINIÓN 18 | ESQUELAS 21 | ACTUALIDAD 24 | MUNDO 30 | ECONOMÍA 34 | TUS ANUNCIOS 36 | CULTURA 42 | DEPORTES 47 | TIEMPO 83

V. SUPLEMENTO V
Pasatiempos 9 | Cartelero 10 | Agenda 11 | Televisión 12

Sexo es vida!
¿Problemas de Erección?
¿Eyaculación Precoz?
• Sólo una consulta es necesaria
• Salas de espera individuales
• Tratamientos personalizados, seguros y efectivos
• Nuestros médicos pueden ayudarte
• Más de 500.000 pacientes tratados con éxito

BOSTON MEDICAL GROUP
LÍDERES EN SALUD SEXUAL MASCULINA
902 903 555
www.boston.es

DIARIO DE NAVARRA

PAMPLONA, LUNES 12 DE JULIO DE 2010

www.diariodenavarra.es

AÑO CVII. N.º 35.103 35.103. PRECIO 1.20 EUROS



SANFERMINES10



Miura deja su huella

Juan Pedro Lecuona fue empitonado en el callejón

SANFERMINES 18-26

QUINTO ENCIERRO

Las peñas no fueron a la corrida y montaron un acto de protesta en Carlos III

SANFERMINES 12

DN

Lunes, 12 de julio de 2010
www.diariodenavarra.es

Administración: Zapatería 49, Apartado 5, 31001 Pamplona
Redacción: Carretera de Zaragoza s/n, 31191 Cordovilla, T. 948 236050
Tudela: Plaza Sancho el Fuerte 7, T. 948 415310 y 948 948408
Estella: Carlos II el Malo 7, T. 948 546301 y 948 546330

SANFERMINES10



SANDUA

www.aceitesandua.com

En Nuestra Tierra
El Aceite tiene
Nombre Propio

Ablitas - Tel. 948 813 338

Noticias de Bizkaia

Deia

ÉXITO DOBLE
Alrededor de 77.000 personas han disfrutado de buena música en Kobetamendi

bilbao
bbk
live

PÁGINAS 64-65

ENTREVISTA

MURIEL CASALS

PRESIDENTA DE ÒMNIUM CULTURAL, ORGANIZADORA DE LA MANIFESTACIÓN DE BARCELONA

“Al Gobierno catalán no le queda más que la desobediencia ante el Ejecutivo de Madrid”

PÁGINAS 22-23



El jugador del Athletic Fernando Llorente levanta la copa del campeones del mundo tras el triunfo logrado gracias a un gran gol del barcelonista Iniesta. FOTO: AFP

0-1 INIESTA CONQUISTA EL MUNDO

Lo único básico es el precio:
13.950€

MINTEGUI
BILBAO • LEIOA • GERNIKA

Feel the difference

ESCASO USO DE LA BICICLETA
Sólo uno de cada diez vizcainos la utiliza

PÁGINAS 6-7

Confunden los cadáveres de dos de las cooperantes fallecidas en Perú

PÁGINA 18

ISABEL CELAÁ PONE A LA FP AL BORDE DEL COLAPSO

El cese del viceconsejero Urzainqui destaca el ahogo de la Formación Profesional

PÁGINAS 14-15

Mueren ahogados dos hombres en La Arena y Lekeitio

BILBAO. Los cadáveres de dos varones fueron rescatados ayer de las aguas en Las Arenas y Lekeitio.

PÁGINA 8

Gara egunkaria

Kirolak
astelehena

TOUR 2010 >30-35

Andy Schleck supera en el último metro a Samuel Sánchez



REMO >37

Astillero se impone en Portugalete

ITSASOA

Jeffreys Bay, una ola muy especial >42-43

GARA 

2010eko uztaila
ASTELEHENA **12**

1,30 euro
www.gara.net

Las peñas toman las calles de Iruñea por unas fiestas populares

Las peñas tomaron ayer festivamente las calles de Alde Zaharra para reivindicar unos Sanfermines populares, participativos y para todos.

La iniciativa de las peñas resultó absolutamente novedosa, dado que los tendidos y grada de la Plaza de los Toros se quedaron vacíos por una tarde. Las

peñas se marcharon con sus meriendas y txarangas a la Avenida Carlos III, y de ahí marcharon en dos kalejiras festivas hasta la Plaza del Ayuntamiento.

Los únicos incidentes fueron provocados por una persona vestida con la bandera española que portaba un porra extensible. >SUPLEMENTO ESPECIAL

REPORTAJE

Electos encausados por realizar una labor pública

Manex ALTUNA

El 15 de julio comienza en la Audiencia Nacional el juicio contra Udalbiltza. Veintidós ciudadanos vascos, la mayoría de ellos concejales y alcaldes en el momento en el que fueron detenidos y encausados en 2003, irán a Madrid a un juicio en el que las peticiones fiscales van de 10 a 15 años de prisión, mientras que las de la acusación popular ascienden a entre 14 y 22.

Todo por una labor en favor de la construcción nacional que todos esos electos desarrollaron siempre de manera pública y transparente. La semana pasada los encausados recibían la noticia de que 120 de los 140 testigos presentados por su defensa han sido rechazados por el tribunal, así como las pruebas periciales y documentales. Han denunciado que todo ello supone una grave situación de indefensión. >2-5

Justizia eske jarraitzen dute Srebrenican sarraskiaren 15. urteurrenean

50.000 lagun inguru bildu zen atzo Srebrenican (Bosnia), duela hamabost urte bertan erail zituzten 8.000tik gora gizonezko musulmanak gogoratu eta omentzeko. Gainera, urtemugarekin bai eginez, azken hilabeteotan identifikatutako 775 gorpuk lurreratu zituzten, horietan 4.524 dira jadanik Potocariko zentro memoriallean ehortzita daude. Urteen joana, halere, ez da nahikoa izan zauriak ixteko, eta sarraskiaren biktimek, oraindik ere, egieren eta justiziaren aldarrikapena dute ahotan. Atzo ere, sarraskia gertatu zenean serbobosniarren Armadako buru zen Ratko Mladic izan zuten hizketagai bai kalteuek bai politikoez. Izan ere, 15 urte igaro ostean, ihes eginda jarraitzen du genozidio delitua bizkar gainean duen militarrek. >18



ESPAINIAKO SELEKZIOAK MUNDUKO KOPA IRABAZI DU LEHEN ALDIZ

Andrés Iniesta, gola ospatzeko prest, Mathijsenek eskuak burura daramatzan bitartean. Fitze/Philippe PHELICQ | AFP PHOTO

Deiñat ZARRABETIA

Andrés Iniestak luzapeneko azken minutuetan sartutako golak bere historiako lehen Munduko Kopa eman zion atzo Espainiako selekzioari (1-0). Herbehereek bikain eutsi zioten defentsan Europako txapeladunari, eta beren aukerak ere izan zituzten, baina Johannesburgon jokatutako finala Bartzelonako erdilariak erabaki zuen. >6-7

POLÍTICA

La unitat catalana després del 10-J queda a les mans del PSC

- L'estratègia catalana al Congrés depèn ara dels socialistes catalans
- CiU, ERC i ICV traslladaran el rebuig a la sentència del TC al debat a Madrid
- Montilla es felicita per l'èxit de la marxa i Mas parla de canvi històric ■ Pàg. 12 a 16

PAÏSOS CATALANS

Els madrilenys guanyen el concurs de focs

■ Pàg. 5

PAÏSOS CATALANS

La Cooperativa de Cambrils no serà a la Firagost

■ Pàg. 6

ECONOMIA

Fusionaran les seccions de crèdit agràries

■ Pàg. 22

SOCIETAT

L'Ebre lidera el retrocés en el nombre d'estrangers

■ Pàg. 28

EL 9



Iñiesta, en el moment de marcar el gol que va donar la victòria del mundial a Espanya ■ EFE

L'estil del Barça guanya el mundial

- Iñiesta dona a Espanya el primer títol mundial amb un gol en la pròrroga (0-1)
- Sis futbolistes catalans van participar en la final
- Holanda va disputar un partit dur i violent

SOCIETAT

Dos joves dels Pallaresos, sepultats per una allau

L'accident es va produir dissabte al Parc Natural d'Ordesa, quan van quedar colgats en una cavitat

■ Pàg. 29

PAÏSOS CATALANS

Repsol traurà cru dels pous nous durant deu anys

L'estudi d'impacte ambiental justifica el projecte, però reconeix el valor natural de l'entorn, a prop del Delta

■ Pàg. 2 i 3

Fleca Cafeteria

Newton

Variedad de pan y pastas, pastelería, auténtico pan artesano. Servicio de cafetería. Abrimos de lunes a domingo. **Se hacen bandejas por encargo.**

Av. Països Catalans, 23
43007 Sant Pere i Sant Pau - Tel. 660 11 71 01

Bestalde, hurrengo taula egituratua da hedabideek Espainian Kantar Mediak eta Frantzia Mediametriek Hegoafrikako Munduko Kopaz eginiko neurketetatik argitaratu zituzten emaitzez. Behaketa horiek ez dituzte zenbatzen selekzioen partidentzat jarri ohi diren hiri enparantzeko pantaila handiak eta tabernetako ikuspena. Halaber, Espainiari dagokionean, aztergai izango dugun Tele 5 telebista kateaz gain, Canal + katearen bi kanaletako une bereko emanaldiaren ikus-entzuleria gehituta ageri da parentesi artean. Ahala ematen du partida erretransmisioaren guztizko helmena ikusi eta doako katearen erabateko lehentasunaz jabetzeko. Nabarmentzekoak dira taularen eskuinean ipini diren sexuen arteko sharearen ezberdintze datuak. Hiru kanalotako audientziaren azterketatik aterata daude, lehen bi partidetakoz zenbaketa izan ezik. Neurketa horrekin adierazi nahi da une horretan espainiar estatuan telebista ikusten ari ziren gizon edo emakumezkoen populazioekin konparatuta, futbol partida hautatu zuten gizonen eta emakumeen aukera zenbatu dela. Sharea bereiztea da, populazio ezberdinak bailiran neurtzearen parekoa. Hala, gizonetan ikus-entzuleria maila gailendu arren, emakumeengan neurketei jarraiki Munduko Kopako Espainiaren eta Frantziaren partidek piztu zuten arretak azaltzen du, jarraipenari dagokionez bederen, nazioa irudikatuzko gailu aipagarriak izan zitezkeela.

Hegoafrikako Munduko Koparen erretransmisioen ikus-entzuleria

| Partidak (Emaitza) | Ordua | Audientzia (osoa) | Sharea (osoa) | Share:gizon/emakume |
|---------------------------|-------|---------------------|---------------|---------------------|
| Espainia-Suitza (0-1) | 16:00 | 9,7 milioi (-----) | %58,7 (-----) | %68,2 %49,5 (t5) |
| Espainia-Honduras (2-0) | 20:30 | 12,7 milioi (-----) | %69,1 (-----) | %75,0 %62,7 (t5) |
| Espainia-Txile (2-1) | 20:30 | 10,8 milioi (11,5) | %69,7 (%74,3) | %81,0 %67,1 |
| Espainia-Portugal (1-0) | 20:30 | 12,5 milioi (13,3) | %71,2 (%75,7) | %81,5 %69,4 |
| Espainia-Paraguai (1-0) | 20:30 | 10,2 milioi (10,9) | %73,2 (%78,1) | %83,6 %73,2 |
| Espainia-Alemania (1-0) | 20:30 | 13,2 milioi (14,0) | %77,3 (%81,5) | %85,7 %77,1 |
| Espainia-Holanda (0-0) | 20:30 | 12,9 milioi (13,9) | %77,2 (%82,9) | %87,1 %80,6 |
| (Luzapena) (1-0) | 22:20 | 14,5 milioi (15,6) | %80,3 (%85,9) | %87,1 %80,6 |
| Frantzia-Uruguai (0-0) | 20:30 | 15 milioi | %57 | %54 |
| Frantzia-Mexiko (0-2) | 20:30 | 15,2 milioi | %56 | |
| Frantzia-Hegoafrika (0-2) | 16:00 | 8,4 milioi | %73 | |

Iturriak: Formula Tvren bidez Kantar Mediaren datuak, eta Mediametrie-renak

*Oharrak. Audientzietan Tele 5 eta TF1eko ikus-entzuleria ageri da eta Espainiako partiden kasuan parentesi artean Canal + eta Canal + Ligako kanalen audientzia eta sharea Tele 5renari gehituta. Gizon eta emakumezkoen sharea bereiztean Espainiaren kasuan Tele 5 katearen emankizunean ez ezik besteetan ere oinarritu da, lehen bietan salbu.

Frantzian ez bezala, espainiar estatuko lurraldean autonomia bakoitzeko datuak biltzen dituzte audientzia ikerketek, eta hainbat kazetak Del Bosqueren taldeak lurralde denetan lortu zuen audientzia tamaina goraiatu zuten, Katalunia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako probintziataraino ere barreiatu zela bereziki ikusarazteraino. Selektzioaren jarraipena bere aldeko jarrerarekin, batez ere, ordezkatzan zuten espainiartasunaz, lotu zuten hainbatek, gizartearen ezaugarrien ezagutzazko inongo arazoibide mardulik eskaintzeke. Bada, bereziki Euskal Herriko ikus-entzuleria datuok egunkariaren nazio ikusmoldea zilegitzeko funtzioa zeukaten. *Diario Vasco* egunkariak esate baterako, Alemaniako eta Espainiako nazio taldeen arteko final erdian ondorenean nabarmendu zuen EAEko lau ikus-entzuletik hiruk elastiko gorridun taldearen neurketa ikusi zutela (Veiga, 2010). Euskal abertzaletasun izaerako *Noticias de Gipuzkoa* izeneko kazetak, ordea, arreta jarri nahi zuen Katalunia eta EAEn finala espainiar estatu barruko beste erkidegoekin alderatuta gutxien ikusi izanaren alderdian (*Noticias de Gipuzkoa*, 2010). Intereconomia Espainiako eskuin muturreko jarrerako taldeko *La Gaceta* kazetak bestalde, Katalunian eta Euskal Herrian izandako ikus-entzuleria maila goraiatu zuten, Portugalgo eta Espainiako nazio taldeen arteko final zortzirenetako partidaren karietara (*La Gaceta*, 2010a). Futbolaren bidezko nazio eraikuntza estatu lurralde osoan zabaldu zela, eta bestelako nazio nortasunen eraikuntzari gainjartzen zitzaiela zilegitu nahi zuten era horretara.

Ondoriozta daitekeenez, partida hauen audientzien irakurketak, erretransmisioen erabilpenak ez ezik, espainiar estatu barruko nazio proiektuen lehiaren berri ematen du. Eta bidenabar, espainiar kirol ordezkartzaren garaipenak, euskal jokalaria eta bereziki Kataluniako jokalaria asko barnean hartzen zituenak, sortutako espainiar estatu-nazioaren batasunezko ekimenak, askotariko nazioen izaera desagerrarazi ez zuela adierazi zuten. Estatu nazioak erdietsia ez zuten batasunaren saioa zen hainbat kazetek burutzen zutena, eta horren aurreko aurkaritza nazio txikiagoek baliatutako erabilpena. Kantar Mediaren neurketaren arabera, ikusgai ziren hiru kanalen jarraipena elkartuta, Munduko Kopako luzapenaren erretransmisioak, alegia, ekitaldiaren ebazpeneko une gailenak, Andaluzian %88,1eko sharea izan zuten, Katalunian %78a eta EAEko hiru probintzietan %75,3koa (*FormulaTv*, 2010). Nafarroako Foru Komunitatearen zehaztapenik ezina da ateratzea, Kantar Mediaren datuetatik Barlovento komunikazio enpresak eginiko datu antolaketan Gaztela Leon, Errioxa, Kantabria, Extremadura eta Nafarroa erkidegoen ikus-entzuleria emaitzak batez bestekoa eginda batera plazaratzen baititu.

Hori horrela, orain arte aipatutakoari jarraiki, eta Liz Crolley eta David Handen arrazoibidearekin bat etorrita, Espainian bereziki futbolak nazio nortasunak eraikitzeke gailu giltzarriaren eragina duenez, garrantzia are gehiago du hori kontatu eta iruzkintzen den erari erreparatzea. Futbola modu saihestezinean politikoa dela eta hori plazaratzeko diskurtso moldeak arreta handiaz aztertu beharrekoak direla ohartarazten dute (Crolley eta Hand, 2002: 109). Kazeten analisisiaz dihardute Crolleyk eta Handek, baina, inondik ere, neurri berean, edo erretransmisioen gizarte helmenari erreparatuta, gehiago, aplikatu ahal dakioke ondorioztapen hori telebistako futbol kontaketen nazio eraikuntza izateko diskurtsoen ereduari.

Espainiako nazio taldearen Hegoafrikako ekitaldiaren bilakaerarekin eta hartara, erabilpenarekin, zantzurik ez zuen eduki Frantziako nazio taldearen parte-hartzearenak. Bide batez, 1998ko Munduko Koparen harrera eta garaipenarekin frantziarrek nazioaren batasuna irudikatu nahi izan bazuten, espainiar iruzkin egileak eta politikariak 2010ean saiatu zirenez, Hegoafrikako ekitaldian Frantziako jokalariek adierazitako irudi txarrak frantziar onen eta txarren gizarte alderaketa eta nazioaren zatiketa berragertarazi zuen. Antoine Grynbaumek eta Romain Schneiderrek arrazoitzen dute alderaketa nabarmendu zela nazio taldearen jarraipenean (Grynbaum eta Schneider, 2010: 26-27). Alde batetik, *Racaille* izenaz deitutako – alegia gaizkiletzat jotako – eta entrenatzea errefusatu zuten Anelka eta Evra gisako futbolariak; eta bestetik, Yoann Gourcuffen modura, aurrekoek mendean hartuta zituzten frantziar onen ordezkariak. Eta bi kazetariontzat horrek lotura izango zukeen Nicolas Sarkozyk 2007. urteko presidentetzarako bozetan bultzatu zuen bi gizartetan banatutako Frantziaren ideiarekin. Bat dator hori Jerome Cahuzac PS Alderdi Sozialistako eledunak ekainaren 20an jokalariek greba iragarpena jakinaraztean eginiko adierazpenekin: “Funtsean Frantziako taldean gailentzen den giroa da Nicolas Sarkozyk bultzatu zuena. Indibidualismoa, berekoikeria, norbera bere buruaren alde ari denarena da, eta giza arrakastako balio irizpide bakarra hilabetero eskuratutako soldatarena dena” (cfr. Grynbaum eta Schneider, 2010: 20).

Aldirietako auzuneetan hezitako etorkin jatorriko jokalariek izandako jokabidea, iragan hurbilean baikortasunezko gizarte islatzat erabilia izan zena, aldi honetan gizarte osoaren bizikidetzaren adierazletzat erabili zuten. Munduko Koparen nazioarteko erakustokian izandako parte-hartzearen nolakotasunak nazioaren unean uneko egoeraren berri emango zukeen kazetarietako eta ikus-entzunezko hedabideetako kirol eztabaidetan

plazaratutako iruzkinak kontuan hartuz. Egiazki, Frantziako nazio selekzioaren ibilbidea baldintzatu zuen lehenago aipatutako Munduko Koparako sailkapen gorabeheratsuak eta Raymond Domenech prestatzailearekin hedabideek izandako harreman txarrak. Horrela, Frantzia Uruguarekin bana berdinduta eta Mexikorekin 2-0 galduta final zortzirenetara sailkatzeko ia aukerarik gabe gelditu zenean, giroa areago gaiztotu zen. Nicolas Anelka aurrelariak Domenechi ustez esandako irainak azaldu zituen *L'Équipe* kirol egunkariak, eta futbol elkargoak horregatik aurrelaria selekziotik bota egin zuen. 2010eko ekainaren 20ean Patrice Evra kapitaina Robert Duverne prestatzaile fisikoari oldartu zitzaion, eta Domenehek biak banandu zituenean futbolari guztiak entrenatzen jarraitzea errefusatu zuten. Futbolariak Frantziako selekzioa Hegoafrikara bertaratutako berri emaileen arreta gune bihurtu zuten taldeko autobuseko bilkura ezaguna egin zuten. Prentsa oharra idatzi zuten han eta Raymond Domenechi irakurtzeko eman zioten. Anelkarekin elkartasunez jokalariek entrenatzeari utzi egingo ziotela irakurri zuen selekzioaren hautatzaileak berri emaile guztien aurrean. Frantziako futbol federazioa kritikatu zuten jokalariek oharrean, *L'Équipe* kazetak plazaratu zuenagatik Nicolas Anelka kaleratu zutelako (Magro, 2010). *Le Monde* egunkariaren Frantziako nazio taldea jarraitzeko berri emaile Gerard Davetek jokalarien nahasmendua nabarmendu zuen Hegoafrikarekin jokatu beharreko hirugarren partidaren atarian. Eta adierazlea da nazio selekzioa naziotik bereizten zuela hirugarren pertsonako izenordea erabilia lerroburuan eta testuan: “Sens dessus dessous: Grève, démission, psychodrame... Une seule question subsiste: les Bleus peuvent-ils tomber plus bas? [Nahasmendua: Greba, dimisioa, psikodrama... Galdera batek eusten dio... Urdinak [selekzioko jokalariez dihardu] are beherago erori al daitezke?”] (Davet, 2010).

Marine Le Penek, Front National eskuin muturreko alderdiko buruzagiak, Kirol ministroak dimisioa eman zezala galdegin zuen “herrialdeak jasandako mundu mailako lotsariagatik” (cfr.Grynbaum eta Schneider, 2010: 19). Antoine Grynbaum eta Romain Schneiderren hitzetan (2010: 17), eskandalua nazio drama bilakatu zen laster. Roselyne Bachelot Frantziako orduko Kirol ministroak, eta Hegoafrikara joanak, jokalariei kargu hartu zien greba egiteagatik. Futbolariak Hegoafrikaren aurka 2-1 galdu zuten azkeneko partida, eta horrenbestez Munduko Kopatik etxera itzuli beharrean izan ziren. Jokalarien jokabidea, entrenatzailearen izaera, federazioaren antzukeria, dena eguneroko mintzagai bihurtu zen aurrerantzean. Areago, eremu politikoan lehenetsitako eztabaidagaia bihurtu zen FIFArekin haserretako. 2010eko ekainaren 24an Thierry Henry aurrelaria hartu zuen Eliseoan Sarkozyk sindikatuek erretretaren edo erretiroaren erreformaren kontra estatu

mailako protesta antolatu zuten egun berean. Ekainaren 29an, zentzu berean, Jean-Pierre Escalettes federazioko presidentea eta Raymond Domenech prestatzailea deitu zituzten Frantziako Legebiltzarrerera, Kultura eta Hezkuntza auziak jorratzen zituen batzordean azalpenak ematera. Handik egun gutxitara Escalettesek dimisioa eman zuen. Hurrengo bi orrialdeetan txertatuta dira *l'Équipe* egunkariko 2010eko ekainaren 18ko aleko azala, Mexikorekin Frantziak galdutako partidaren eta selekzioa funtsean kanporatu zuenaren biharamunekoa, eta ekainaren 19koa, kirol egunkariak ustez Anelkak Domenechi esana lerroburuan dakarrena eta azkenean auzia lehertu zuena. Bistakoa da espainiar kazetekin aldea, galera egokitu baitzitzaien frantziarrei. “Iruzurtiak” eleaz salatu zituen *L'équipe*-k jokalaria Mexikorekin galdu ostean, nazio ordezkariak kaltegarria egitea egotzita edo.

Futbolaren nazio oihartzunaren adierazgarria da selekzioaren jarreraren inguruko adierazpen eta ekimen sorta, beste behin nazio ereduaren gogoetarekin eta integrazioaren helmenaren ezbaiarekin nahastu zena. Espainiako nahiz Frantziako selekzioen 2010eko Munduko Kopako ibilbidearen inguruan eratutako testuingurua eta prentsaren kontaketa abiapuntu komenigarriak dira telebista erretransmisioekin helarazitako mezuen esanahia eta zentzua hobekiago ulertzeko. Horrez gain, telebista iruzkinekin esatariek eraiki nahi duten nazio mota argitara ateratzeko. Alde batetik nazio ordezkariak garaitsua, eta hala, kazetariak helarazitako nazio harrotasun sentipena, eta bestetik, galbidea eta nahasitako giroa izateak alderaketarako bide oparoaz hornitzen du. Horrez gain, esanguratsua da bi estatu-nazioen futbolaren bidezko nazio eraikuntza kontrajartzea. Esan nahi baita begiz jotzea ea Espainiak hurbileko herrialdeek baino gehiago estatu nazioa futbolaz haragitu edo zilegitzeko beharra duen, eta Munduko Koparen kontaketa argitara ateratzen den.

Aipatzea merezi du Frantziako eta Espainiako nazio selekzioen erretransmisioa bi herrialde horietan ikus-entzuleria gehien izan ohi duten kate pribatuek burutu zutela Hegoafrikako Munduko Kopari dagokionez, TF1ek eta Tele 5 kateak. Lehenak frantziar taldearen neurketa nagusiak eskaini ditu azken urteetan, eta 2014ko Brasilgo Munduko Koparako eskubideak ziurtatuak ditu. Espainiarrak lehenengoz eskaini zuen nazioarteko futbolaren ekitaldi garrantzitsuena. Lekukoa hartu zien aurreko ekitaldiak eman zituzten kate pribatuei, Antena 3 kateak 2002an eta La Sextak 2006an. Izatez izaera pribatukoak etekin ekonomikoen mendean gehiago daude jabetza publikoa dutenak baino. Bestalde, hedabide publikoek, emango luke nazioaren interesa eta kasu honetan, eginiko legediari

(L'équipe)2010eko ekainaren 19a



4.2.2-Espainiaren partidak nazio auzitzat emanak dira

Barneratua dugu dagoeneko eta jabetuta daude telebista kateen arduradunak ere, futbol partiden erretransmisioarekin sorrarazten eta eraikitzen duten emozioa geroz eta nabarmenagoa izan, are eta biziagoa izango dela ikus-entzuleak limurtzeko identifikazio erakarpena. Futbolaren sortzezko alderaketako izaera muturreraino eramateko gaitasuna dute kitzikadura eraginda esatariek, bi talde ordezkari, bi nazioen ordezkari, kontrajarri egiten dituztenean. Hori modu agerikoan burutu zuten Tele 5 telebista katearen 2010eko Munduko Kopako Espainiako selekzioaren partiden narrazioan. Izan ere, Paco Gonzalez esatariak zuzendutako telebista kontaketa kitzikadura eta urduritasuna eta etengabeko identifikazio ohartarazpena nagusitzen ziren. Zilegi da esatea, adibideekin jakinaraziko denez, bi alderdiok ezaugarritu zutela Espainiako nazio taldearen inguruko eraikuntza. Bidezkoa da aipatzeke utzi gabe uztea halaber, selekzio hori Munduko Kopan emaitza onak lortzen joan ahala eta lehenengoz txapelketaren ebazpeneko azken partidetara iritsi neurrian, ikus-entzuleria geroz eta gehiago lortu zuela. Emaitza onen parekoa da beraz, lehengo audientzia datuen karratuari erreparatuta, telebistak bultzatutako berezko futbol aurkaritzak herritarrengan helmen zabalagoa izatea. Espainiako futbol taldearen ikusle mailak zazpi partidetan oro har goranzko joera izan bazuen, Frantziako nazio taldearen jarraipenak kontrako beheranzko bilakaera izan zuen. Identifikazio ohartarazpenei eta emoziozko kontaktari emaitza onak gaineratuz, ikus-entzuleen nazio taldearen gaineko atxikimendua aiseagoa da, eta identifikazioak neurri berean handiagotzen du herritarrek telebista ekoizketatik lortzen duten gozamena, Espainian jazo zenez. Frantzian, ostera, TF1en ekoizpena Frantziako taldearen aldekatasunezko narraziora soildu zen, nazioen arteko kontrajartzea eta ikus-entzulearentzat identifikazio gida ez hainbeste agertarazita. Aurrerantzean sailkatuta dauden partiden esanak emanaldien joera orokorraren isla dira. Naziotasun zantzu gehienak aztertu ondoren adierazgarrienak diren iruzkinak bildu dira hemen. Parentesi artean partidaren unea ageri da bakoitzean, irakurleak hobe lekutzeko.

Espainia eta Suitzako taldeen lehen partidaren kontaktetik hartutako aitzineko aipuak argigarriak dira, hasteko. Jose Antonio Camachoren emanaldiko lehen iruzkinak bereziki. Paco Gonzalez esatariarekin batera, Guillermo Amor futbolari ohiak, JJ Santos Tele 5-ko kirol emanaldien arduradunak, Camacho entrenatzaileak eta Sara Carbonero futbol zelai beheko berri emaileak osatzen zuten Espainiarako iruzkin egileen multzoa.

“Es emocionante y bonito. Por que estamos a tantos y tantos kilómetros de España y nos sentimos más españoles que nunca” [Hunkigarria eta polita da. Zeren Espainiatik hainbeste eta hainbeste kilometrora gaude, eta inoiz baino gehiago espainiar sentitzen gara]

Horren ondoren, herrialdeen ereserkien ekitaldiak eragindako abertzaletasunezko emozioa hezurmamitu zuen Camachok ere denbora gutxira:

“Y al que no lo sienta por dentro lo siento por él” [Hau barrutik hautematen ez duena hor konpon]

Nazioarekin identifikazioa eta besteekin bereizketa berehalakoa zen Camachoren ahotan, erretransmisioen joera oro hartzailea aurreratuko duena. Alan eta John Clarkek dioten gisara (1982: 80) nazionalismoa bi norantzetan gorpuzten den ideologia da. Alde batetik, multzoa besteengandik bereizteari dagokio, eta bestetik, gutasuna eratzen duen taldea biltzeari. “Gu” eta “haiek” izenordeen arteko erkaketa ikusgarria da hastapenetik Espainiako nazio taldeari buruzko Tele 5-ren erretransmisioan, identifikazioa gidatzeko.

“Que tengan que correr detrás de nosotros” [Gure atzetik lasterka aritzeko beharra izan dezatela].

Camachok adibide horretan ez zuen besteak izendatzeko izenorderik erabiltzen, gu izenordea erabiliagatik. Dena dela, esanguratsuena da, hurbiltze teorikoan aipatuari jarraiki, bi alderdiren arteko bereizketa arrazoibide gehiagorik izan gabe plazaratua dela, zelaian erkatzen ari diren bi lagun taldeen artean ikus-entzulearen atxikimendua aurrez jakintzat emanda denez. Espainiar estatuan Tele 5ren emanaldia hautatu dutenek beraien herrikideekiko atxikimendua eta aldekotasuna izango dutela zalantza ezineko abiapuntu gisara hartzen da. Hor sustraitzen da hain justu neurri handi batean futbolarekin nazio nortasun sentipena eta harrotasuna adierazteko telebista emanaldiaren ahalbidea. Denak darama ikus-entzulea futbolak proposatzen duen talde ordezkartzen alderaketan bietako batenganako leialtasuna eta atxikipena, hausnartzeke, aukeratzera. Areago, azpimarratu beharra da nazio nortasunak haragitzeko abaguneak murrizak diren bitartean, telebistak futbolaren bitartekaritzarekin nazioarekin lotura irudikatzen duela sortzezkoa, izadikoa, naturala, balitz bezala. Hain justu osterantzean nekeza dena emozioaz aise eraikitzen du.

Frantziak Uruguaiaren aurka Hegoafrikako Munduko Kopan jokaturako hasierako partidari, bestalde, TF1eko esatariek edo iruzkin egileek ez dute abertzaletasunezko begi keinurik egiten, ez eta sentimenduei erreferentzia zuzenik egiten ere. “Gu” eta “haiek” izenordeen kontrajartzea errepikatzen da frantsesez, eta esatariek nazio taldea gutasunaz uztartzen dute Espainiako kontaketa gisara maiz. “Gu” nazio taldea gara, “haiek” beste talde nortasuna ordezkatzeko duten arerioak dira. Dena dela, maiztasun berdinez bereizi egiten dira narrazioan selekzioarena eta gutasuna. Christian Jeanpierre esatari nagusiak, Jean Michel Larque iruzkin egileak eta Arsene Wenger Arsenal klubaren entrenatzaile frantziarrak osatzen zuten TF1en emanaldiaren taldea, David Astorga izeneko kazetaria futbol zelaiko beheko berri emaile lanean ari zelarik. Wengerrek futbol jokoaren baitako analisia egitean bi aldeen arteko bereizketa adierazten zuen estreinako partida ataririkotik.

“On peut estimer que l’on aura un avantage numérique au milieu de terrain et il faut voir si l’on pourra en profiter” [Pentsa liteke kopuruari dagokionez, abantaila izango dugula zelai erdian, eta ikusteke dago baliatu ahalko dugun]

Christian Jeanpierre, ordea, partida hastear dagoenean kontaketa ia beti ahotan izango duen “Frantziako taldea” esaera erabiliko zuen, eta taldea eta gutasuna bereiziko zituen. Hala, esatari nagusiak aldeotasuna azaltzen du, gutasun desioa, ikus-entzuleek partekatzen dutena aurreikusten dena, komunitate imajinatua izatera jakintzat ematen duena. Hala ere, futbolariak, taldea, eta esatariak, ikus-entzuleria eta nazioa orokorrean, ez dira bat. Nazioaren ordezkariak dira jokariak, baina esatari nagusiak ez zukeen oro har lehen personaren plurala erabiliko Frantziako futbolariari erreferentzia egiteko.

“Le coup d’envoi donné dans quelques secondes, le grand début de cette équipe de France, dans cette XIXème Coupe du Monde, on espère qu’elle ira loin, le plus loin possible” [Igortze kolpea segundu gutxitan, Frantziako talde honen hastapen handia, hemeretzigarren Mundu Kopa honetan, espero dugu urrun iritsiko dela, ahalik eta urrunen]

Munduko Kopako sei futbol emankizunen diskurtso analisia, mezu eta hizkuntza behaketa izango da funtsean, nazio nortasun zantzuena, neurri handi batean erreparatuko zaie izenordeen esleipenari. Matthew Nicholonek ohartarazten duenez (2007: 101), ez da egokia analisia erabat “gu eta haiek” hedabideen biko aurkaritzara mugatzea, mezuen

igorpena eta antolaketa hori baino konplexuagoa delako. Hala ere, ezin nabarmentzeke utzi, ez eta Espainia eta Frantziako eraikuntzen artean legokeen erabilera ezberdintasuna aztertzeke laga. Izenorde deiktikoak ikus-entzuleen identifikazioa gidatzeko hizkuntza baliabideak dira erretransmisioetan, eta nazioarteko mailako ekitaldiotan, nazio nortasun atxikipenen zuzendari. Billigek azaldutako deixia, erreferentzia eremuaren zehaztapena, izenordeoz egiten da, naturaltasun itxuraz, eta identitateak behar duen bereiztea gauzatu.

Hemendik aurrera Espainiako nazio taldearen hiru partidaren eta frantziar nazio taldeak jokatutako hiru partiden erretransmisioen banan banako azterketa helaraziko da hautatuko aipuekin. Mezuak izatez horien aldartea islatzen dute, eta harridura zeinuz azpimarratuta dira emozioa handia denean. Hiru behaketen zehaztasunak eman ostean, zeinak irakurleak bere berezko hausnarketa egitea ahalbidetuko duen, Espainiako nahiz Frantziako emanaldien izaeraren eta nazio eraikuntzaren tankera adieraziko da. Ondoren biak alderatuko dira, konparazioaz helmen handiagoko gogoeta lortzeko. Batetik, estatu horien futbolaren bidezko nazio eraikuntzaz zehaztasunak bereganatu ahalko ditugu, eta baita, oro har ere, hedabideen futbolaren bitartezko nazio eraikuntzaren ezagutza ere.

Futbol norgehiagokaren bitartez nazioaren geroa ezbaian dagoenaren hautematea plazaratzen dute Tele 5 kateko erretransmisioan parte hartzen duten hizlariak espainiar selekzioak jokatzen duen aldiro. “Gure” taldearen eta arerioek ordezkatzten duten kanpo etsaiaren arteko lehiaren kontaketa urduritasunaz eta artegaz inguratzen dute, nazioaren izatea jokoan bailitzan. Espainiako selekzioak galdu egin zuen Suitzaren aurkako lehen partidari. Alemaniaren aurkako final erdian eta Herbehereen kontrako finalean zentzu horretan bereizitasunak ageri dira, baina joera orokorra hori da. 2008ko Europako Kopa irabazi ondoren, nazio taldeak berriki ezer irabazi gabeko ezkortasuna gainditu zuen, eta kazetariak 2010eko Munduko Kopan areago faboritotzat zeukaten beren nazioaren talde ordezkaria. Nazio harrotasuna galtzeko urduritasunaz tartekatzen da, eta drama bideratu.

A) Espainia-Suitza (2010eko ekainaren 16ko 16:00etan)

Identifikazioa eta futbolaren izaerazko alderaketa nabarmentzeko ekina gardenak dira esatari guztien ahotan. “Beraiek” edo “haiek” izenordea aldi ia denetan Espainiako nazio taldeari jarkitzen zaion suitzar arerioei erreferentzia egiteko baliatzen dute. Haien

futbol maila aitortzen dute hizlariak hemen beheko aipuetan jasotzen denez. Gonzalezek gidatzen duen kontaketa oso bizia da, segundo gutxiren buruan ele asko hartzen dituena.

JJ Santos: “La ventaja para nuestras defensas es que es un hombre muy veterano” [Gure atzelarientzat abantaila da oso gizon heldua dela] (2:11)

Paco Gonzalez: “Ellos son buenos” [Beraiek onak dira] (3:34)

JJ Santos: “Seguimos con el 77 % y solo hemos hecho una falta mientras que ellos han hecho cuatro” [%77koaz jarraitzen dugu eta falta bat bakarrik egin dugu, beraiek lau egin dituzten bitartean] (12:55)

Camacho: “Ten en cuenta también que estamos en los primeros minutos y ellos están muy frescos” [Kontuan izan lehen minutuetan gaudela eta beraiek nekatu gabe daudela] (13:16)

Goiko azken esanotan alderaketa are eta nabarmenagoa da adierazpen berdinean “gu” eta “haiek” ezberdintzen baitira. Behin baino gehiagotan errepikatzen den joera da hori gainera. Hurrengo Paco Gonzalezen iruzkinean bestalde, jokalariari gomendioa edo aholkua ageri da, aldizka egin ohi duena eta kontaketa biziaren barruan txertatzen dena.

Paco Gonzalez: “Ramos, tranquilo, vuelta a empezar que no tienes ayudas” [Ramos, lasai, hasi berriro laguntzarik ez duzu eta] (14:59)

Paco Gonzalez: “Quiere adelantar la línea de presión la selección de Suiza, cada vez que hacen eso deberíamos de intentar de jugar en largo porque dejan huecos atrás” [Presio maila aurreratu nahi du Suitzako selekzioak, hori egiten duten aldiro luze jokatzeko saiatu beharko ginateke atzean hutsuneak uzten dituztelako] (18:36)

Amor: “Ellos cada vez están más atrás” [Beraiek geroz eta atzerago daude] (23:31)

Guillermo Amor jokalaria ohiak halaber, gehien hitz egiten duten Gonzalezek eta Camachok bezala, “beraiek” izenordea erabiltzen du suitzarrez mintzatzeko, adierazpen

gehegirik egiteke. Horrez gain, beheko aipuan ageri da Camacho entrenatzailek sarritan futbol taldea sostengatzeko eginiko aldekotasunezko deien adibidea, goleko abagunean.

Camacho: “¡Vámonos!” [Goazen!] (23:39)

Paco Gonzalez: “Huggel viene a hacer de pantalla para que no sepamos como lo van a hacer” [Huggel pantaila gisa aritzera dator ez dezagun jakin nola egingo duten] (25:31)

JJ Santos: “Ocho faltas han hecho ellos, solo tres nosotros” [Zortzi falta egin dituzte beraiek, hiru bakarrik guk] (27:45)

Paco Gonzalez: “¡Vamos España! ¡Hay que buscar el primero!” [Goazen Espainia! Lehena bilatu behar da] (32:54)

Esatari nagusiak Espainiaren aldeko deiadarra azaltzen du, kirol kazetaritzan ohi den taldearen eta herrialdearen arteko parekotasuna emanda. Hain barneratua da futbol selekzioak herrialdea ordezkatzeko duela ezen estatuaren izendapenez aipatzen dela, eta hala, nazio taldea goratzean, nazioa ere goraiatzen dutela. Horrez gain, beheko aipuan jasotzen da bakana den Espainia barruko jokalaria baten erkidegoaren aipamena, jokalaria baten jatorria aipatzean. Eta beherago, estuasunari eta artegari erreferentzia. Kontaketa urduria da, eta horrelako esanek areago nabarmentzen dute eman nahi den nortasun hori.

Paco Gonzalez: “Qué pena que no haya quedado el balón para el canario” [Zer pena baloia kanariarrarentzat gelditu ez izana] (34:34)

Paco Gonzalez: “Si no nos quejamos, lo que pasa es que tenemos prisa para que España gane ya y nos quite los nervios” [Ez gara kexu, gertatzen dena da Espainiak irabazteko presa dugula estuasuna ken diezagun] (42:41)

Paco Gonzalez: “¡Vamos Villa!, ¡Vamos Villa!, ¡Vamos Villa!, Villa, Villa, ¡Villa recorta!, ¡Villa tira!” [Goazen Villa, Villak iskin, Villak bota] (43:59)

Paco Gonzalez: “Es que este equipo nos ha hecho campeones de Europa jugando de una manera que es teniendo el balón y jugándolo rápido” [Talde honek, izan ere, Europako Txapeldun egin gaitu baloia edukitzean eta azkar jokatzeko ezaugarritzen den joko eran] (Atsedendian)

Futbol selekzioak hedabideak biltzen duen imajinatutako komunitateari ekarpena egin ziola azpimarratu nahi du hizlariak. Nazio haragitzea esanguratsua da ildo horretan.

JJ Santos: “Hablando de faltas, más del doble ellos, once Suiza, cinco España” [Faltei buruz mintzatuko bagara, bikoitza baino gehiago beraiek, 11 Suitzak eta bost Espainiak] (46:48)

Paco Gonzalez: “Encárate que estás sólo contra él” [Aurre egin iezaiozu, bere aurrean bakarrik zaude eta] (...) “Xabi Alonso no te compliques, no te compliques Xabi” [Xabi Alonso ez nahastu, ez zaitez nahastu Xabi] (48:33)

Talde nortasuna irudikatzeko beharrezkoa den bi aldeen arteko ezberdintzea sarri plazaratzen dute hizlari guztiek partidari, eta nazio nortasunarekin uztarpena bideratzen dute horrela. Halaber, Gonzalezek nagusiki, beren jokalariei, espainiarrei, helarazitako mezu zuzenak maiztasun handikoak dira erretransmisioan. Suitzak Espainiari gola egin izanak atsekabe nabaria eragin zuen esatariengan. Camacho entrenatzaileak izenorderik aipatzeko hirugarren pertsonako aditz soilaz gutasunaren etsaiei erreferentzia egiten die.

Camacho: “Han tenido suerte, están esperando esto, una jugada de este tipo, la fortuna les acompaña” [Zortea izan dute, horren zain daude, halako jokaldi batez, zorteak lagundu ditu] (52:17)

Camacho: “No hay que perder la fe ni mucho menos. Ha sido un accidente el gol y punto” [Ez da itxaropa galdu behar, ezta gutxiagorik ere. Istripua izan da gola eta kitto] (54:42)

Camacho: “¿Pero éste que pita? [Baina honek zer adierazi du?] (55:00)

Itxaropena ez galtzea darabil ahotan Espainiako selekzioko entrenatzaile ohiak, subjekturik gabeko esaldia erabilita. Litekeena da horrela bere esatari kideez gain, nazio kideei ere zuzentzea, alegia beren ordezkaritza emaitza onean sinets dezatela esanda. Hurrena epailearen erabaki baten aurka asaldatuta egindako galdera da. Epailea aipatu gabe hurbileko izenorde erakuslea erabiltzeak hizkuntzaren errejistro maila beheratzen du hein handi batean, eta Camacho bereziki alderaketaren bizitasunak menderatua duela agertzen du bide batez. Emozioa eta talde nortasun adierazpena lotzen dira futbolarekin.

Paco Gonzalez: Estamos perdiendo, España pierde cero uno con Suiza
[Galtzen ari gara, Espainia huts eta bat galtzen ari da Suitzarekin] (56:40)

Hurbileko hurrenkeran gutasuna eta Espainia parekatzen ditu Gonzalezek nazio selekzioaren bidez. Amor futbolari izandakoak ohiko gutasunaren eta besteen bereiztean sakontzen du, eta Gonzalezek urduritasuna ikusarazten du etengabe, ikus-entzuleei ere, bide batez, artgazko hautemate hori igorrita.

Amor: “Intentan que nuestros atacantes siempre tiren hacia dentro” [Saiatzen ari dira gure aurrelariak beti barrurantz egin dezaten] (58:29)

Paco Gonzalez: “Me pongo más nervioso cada vez que miro el reloj”
[Urduriago jartzen naiz ordularia begiratzen dudana aldiro] (63:49)

Camacho: “Tranquilo, tranquilo” [Lasai, lasai] (63:52)

Amor: “Y va a costar porque el partido está donde les gusta a ellos y donde no nos gusta a nosotros” [Eta konplexua izango da, partida beraiek atsegin duten egokieran baitago eta ez guri gustatzen zaigunean] (66:10)

“Guri” atsegin ez zaigun abagunea aipatzean, esatariez baino gehiago, espainiar futbolarietaz mintzo da Guillermo Amor, beste taldekoekin kontrajarriz beti ere. Azalpen handiegirik gabe, futbolaren kirol gatazka izaeraz, irudikatzen den bitasuna islatzen da. Ildo berean JJ Santosen hurrengo iruzkinean ere, partida estatistikak ematen dituen.

JJ Santos: “Hemos tirado 16 veces a puerta, aunque solo cinco han ido entre los tres palos. Y ellos han tirado dos, las dos entre los tres palos, y una de ellas gol [16 alditan bota dugu atera, hiru ateen artean bost soilik joan diren arren. Beraiek bi bota dituzte, biak hiru atean eta horietatik bat gola (67:59)

Camacho: “¡Venga hombre! ¡Que esto no es justo! [Ez da bidezkoa!] (70:04)

Justizia aipatzen du entrenatzaileak, futbolak bidezkotasunaren moduko izateak islatzen dituela adierazita. Halaber, futbol zelaian jokoan denari eragin handia esleitzen dio Camachok. Emozio handiko partida amaieraren narrazioaren adibidea da era berean.

Paco Gonzalez: “¡Dios mío que agobio!” [Ene jainkoa, zer itomena!] (73:57)

Amor: “Y ellos en defensa están muy atentos y con mucho acierto además en los despejes, en segundas jugadas” [Eta beraiek defentsan oso adi daude eta asko asmatzen ari dira alderatzeetan eta bigarren jokaldietan] (81:42)

Paco Gonzalez: “Vamos España hay que buscar el empate” [Ekin Espainia, berdinketa bilatu beharra dago] (90:00+0:24)

Nazioarteko partidaren errealizazioak aldizka agintarien irudiak eskaintzen ditu, eta horietan palkoan diren Espainiako printzeen artega ageri da gol abagune bakoitzean. Gonzalezek esatarien atsekabea eta ikus-entzuleengan aurreikusten dena adierazten ditu.

Camacho: “Es que hay 200 de ellos en el área” [Euretako berrehun daude arean] (90:00+2:12)

Paco Gonzalez: “España pierde uno cero con Suiza, vaya palo que nos estamos llevando” [Espainia bat huts galtzen ari da Suitzarekin, zer kolpe hartu dugun] (90:00+3:00)

Paco Gonzalez: “Tenemos a toda España en el area salvo Navas en la frontal y Casillas” [Espainia guztia dugu arean Navas alderatzean eta Casillas salbu] (90:00+3:58)

Camacho: “¡Vamos España vamos!” [Ekin Espainia ekin!] (90:00+4:19)

Camacho eta Paco Gonzalez amaieran mintzo dira Espainiako ikus-entzuleriaren jakintzat emandako atsekabeaz. Milioika herritarrek estatuan tristura partekatzen dutela zalantza ez du egiten hedabideen mezuak. Komunitate imajinatua azaltzen da. Espainia osoa dago atsekabetuta futbol taldearen porrotagatik Camachoren hitzetan. Gonzalezek halaber, zuzenean egiten die dei telebista ikusten ari diren espainiar hiritarrei. Europako txapeldun egin zituztela jokalariorik espainiarrak futboleak aritzen oroitarazten die.

Camacho: “Pues nada, tendremos que ganarlo y punto. No hay que perder la moral. O sea, está claro que nos hemos llevado todos, toda España, un palo, pero hay que seguir teniendo plena confianza en este equipo porque se la merece” [Ba irabazi egin beharko dugu eta kito. Ez da adorea galdu behar. Hau da, argi dago guztiok, Espainia osoak, kolpea jaso dugula, baina talde honekin konfiantza osoa izaten segitu behar dugu merezi baitu] (90:00+5:26)

Paco Gonzalez: “Claro, estos nos han hecho campeones de Europa así que tenemos que estar con ellos ahora, en las malas. Y las malas han llegado, señoras y señores, porque termina el partido. Hemos perdido. Suiza uno, España cero [Noski hauek Europako txapeldun egin gaituzte, hortaz eurekin egon behar dugu orain, une txarretan. Eta txarrak iritsi dira, jaun andreok, partida amaitu delako. Galdu dugu. Suitzak 1 Espainiak 0] (90:00+5:39)

Espainiaren futbol ordezkariak galdu du, eta “guk” galdu dugu beraz. Espainia eta gutasunaren berdintzea maiz gertatu zen erretransmisioan, hurbileko hurrenkeran.

B) Espainia-Alemania (2010eko uztailaren 7ko 20:30ean)

Lehen ligaxkan Hondurasko eta Txileko nazio taldeei irabazi ondoren, eta final zortzirenetan eta final laurdenetan hurrenez hurren Portugalgo eta Paraguaiako futboleko ordezkariari 1-0 gailenduta, Munduko Koparen final erdietara iritsi zen futbolaren aro garaikidean lehen aldiz Espainiako selekzioa. Lehen partidaren esatariak ustekabea hartu zuten porrotaren ostean nazio taldean sinesmena bazuten, areago indartu zen taldearekin lotura Alemaniarekiko final atarira heltzean. Hizlariak urduritasuna igortzen dute beti.

Paco Gonzalez: “La recupera España que de momento no está sufriendo nada salvo los nervios que tenemos. Pero claro si no tenemos nervios en una semifinal de un Mundial es que somos una lechuga” [Espainiak berreskuratu du, zeina oraindik ezer sufritzen ari ez den, dugun artega salbu. Baina, noski, Munduko Koparen final erdietan urduri ez bagina, letxuga ginateke] (4:23)

Camacho: “Es bueno que les metamos ya un susto ¿ehh? [Ona da dagoeneko ikara ditzagun] (6:19)

Amor: “Estamos mandando, estamos jugando más en campo de ellos, teniendo el balón, asegurándola, un poco nuestro fútbol, incluso hemos tenido alguna ocasión” [Agintzen ari gara, gehiago ari gara beraien zelaian jokatzeko, baloia izaten, ziurtatzen, pixka bat gure futbola eginez, abaguneraren bat ere izan dugu gainera] (11:07)

Gonzalezek eta Camachok bizitasuna helarazten dute, eta Amorrrek, JJ Santosek gehienetan bezala, patxada gehiago ematen dio narrazioari, eta futbol analisiak adierazi. Jokoaren azterketa egiten duenean ere, ostera, bitasunezko alderaketa darabil oso maiz. Camachok “Espainiako selekzioa” esaera darabil hurrengo aipuan. Gutasuna adierazten duten esanekin alderatuz, oso bakana da hizlari denen hitz jarioan erabilera hori. Horrez gain entrenatzailea Espainiako futbol taldearen estilo bereizgarriaz ari da, ildo berean.

Camacho: “En cuanto recuperamos, además, la echamos abajo y empezamos a jugar, algo característico de la selección española” [Berreskuratzen dugun bakoitzean (baloia) gainera, behera botatzen dugu eta jolasten hasi, zeina Espainiako selekzioaren adierazgarria den] (11:40)

Paco Gonzalez: “Estamos en la semifinal de un Mundial, señoras y señores, hay que disfrutarlo, que esto no lo habíamos visto nunca” [Munduko Kopako final erdietan gaude, jaun andreok, gozatu beharrekoa da, hau inoiz ikusi gabea baikeneukan] (14:01)

Ikus-entzuleei zuzentzen zaie Gonzalez, selekzioaren emaitza onez gozatu behar dutela oroitarazteko, eta “inoiz ikusi gabe genuena” espainiarren nazio oroitzapena da.

Paco Gonzalez: “Es que queremos ir ganando cuatro cero en el minuto veinte para no sufrir. Pero es la semifinal del Mundial y claro que cuesta alcanzar la gloria” (...) “Si es que estos lo llevan en los genes pero ahora nosotros también” [Izan ere, 20.minutuan lau eta huts irabazi nahi dugu, ez sufritzeko. Baina Munduko Koparen final erdia da, eta noski loria erdieste nekeza dela. (...)] “Izan ere, hauek geneetan daramate, baina orain guk ere] (17:41)

Urduritasunaz gain, Gonzalezek futbolaren historiako alemaniarren ospe ona eta eraginkortasuna oroitarazten ditu, eta bere selekzioaren aurkariarekin begirunea. Aintzat hartu behar dute espainiarrek, bere ustetan, beren futbolariak ematen dieten harrotasuna. JJ Santosek “arriskua” aipatzen du arerioak “guztion” taldeari, eta nazioari, ondorioz, gola egin dakiokenean. Beheko aipuan, espainiar jokalaririk denak Alemaniaren zelaiaren alderdian sartu direla adierazteko gerra erako esaera darabil Gonzalezek, eta hizkuntz baliabidez, Espainiako jokalaririk denak Espainiaren herrialde osoarekin berdintzen dira.

Paco Gonzalez: “Ese control Sergio, muy bien Sergio” [Kontrol hori Sergio, oso ongi Sergio] (18:42) “Toda España en territorio alemán salvo Puyol” [Espainia osoa alemaniar lurraldean Puyol izan ezik] (19:53)

JJ Santos: “Cuidado ahora, ahí son muy peligrosos” [Tentuz orain, hor oso arriskutsuak dira] (28:39)

Paco Gonzalez: “Hay que tratar a Alemania con mucho respeto porque más respeto y cariño con el que nos han tratado a nosotros... O sea Joachim Low, el seleccionador, ha que dicho que España tiene varios Messis” [Alemania begirune handiz tratatu behar dugu, beraiek guri eskaini diguten begirune eta maitasuna baino handiagoa (ezina baita). Hau da, Joachim Low hautatzaileak esan du Espainiak Messiren moduko ugari dituela] (28:52)

Paco Gonzalez: “Pues esa norma hay que acabar con ella porque te da un infarto” [Arau hori kendu behar da bihotzekoa eragin dakizukeelako] (36:08)

Paco Gonzalez: “¡Venga España hay que dar un sustito antes del descanso!” [Goazen Espainia, atsedendaldi aurretik izualditxo eman beharra da] (39:39)

Paco Gonzalez: “Está jugando y dominando España a una gran selección ¿eee? que llegó aquí después de golear a Inglaterra y Argentina. Hay que valorar eso, le estamos dominando nosotros”. [Espainia jokatzen ari da eta mendean hartzen selekzio handia, hona Ingalaterra eta Argentinari gol sorta eginda heldu dena. Hori balioetsi behar da, gu menderatzen ari gara] (55:54)

Futbol selekzioaren patuagatik ezinegonean diren Espainiako lurralde askotako herritarrez mintzo da Gonzalez, eta futbolaren bidez nazioaren lurraldetasuna ikusarazi. Ikus-entzuleei oroitarazten die bere bizipena partekatzen ari diren nazio kideen zabalera. Sara Carbonerok, halaber, Espainiako nazioa zilegitzen du iraganeko gutasuna eta gaur egungoa uztartzen dituen heinean.

Paco Gonzalez: “¿Cómo estará toda esa gente que antes nos ha transmitido tanta emoción en el Bernabeu, en Pamplona, en Zaragoza, en Camas (...) ¡Vamos España! Hay que buscar la final” [Nola egongo da Bernabeun, Iruñean, Zaragozan, Camasen hainbeste emozio helarazi digun jende hori guztia. Ekin Espainia! Finala bilatu behar dugu] (56:58)

Sara Carbonero: “Estábamos esperando que llegara el minuto 58 porque España consigue un nuevo record, iguala los 282 minutos sin recibir un gol en un Mundial, lo teníamos en el Mundial del 50” [Zain geunden 58.minutua iristeko, Espainiak mugarri berria erdietsi baitu. Munduko Kopan golik jaso gabeko 282 minutu berdindu ditu, 50eko Munduko Kopan genuena] (58:26)

Paco Gonzalez: “No nos crezcamos ¿ee? que son alemanes”. [Ez gaitezen harrotu, alemaniarrek dira eta] (58:50)

Futbolarietara ez ezik, pentsa daiteke mezua esatari kideei eta espainiar ikus-entzule guztiei zuzentzen diela, sobera ez harrotzeko esaten duenean. Bestela nekez agertarazten den komunitate kontzeptua osatzen du maiztasunez emankizunak, normaltasun izaeraz. Datorren aipuan bitasuna esanguratsua da. Gutasuna, espainiarrena, jakintzat emana da.

Paco Gonzalez: “Somos tres y hay seis alemanes” [Hiru gara eta sei alemaniar daude] (66:11)

Halaber, Amor ere kezka mintzo da, eta futbol analisia egitean bitasuna bizitzen du beti. Bitasuna, urduritasuna eta espainiar lurraldeetako jendearen erreferentziak dira emanaldiak ikus-entzuleen lotura eta identifikazioa erdiesteko erabilitako bide nagusiak.

Amor: “No hay nada que temer. El hecho de que ellos aprieten un poco también es normal, que se vayan arriba. Igual nos puede beneficiar en alguna ocasión” [Ez da deus beldurtzeko. Beraiek piska bat estutzea ere normala da, gora joan daitezela. Agian egokieraren batean hobarituko gaitu] (70:00)

Paco Gonzalez: “¡España uno Alemania cero! ¡El sueño está más cerca!. ¡Díos mío que pedazo de alegría!” [Espainia bat Alemania huts! Ametsa gertuago dago! Ene jainkoa zer nolako poztasuna!] (72:54)

Espainiako taldeak Alemaniakoari gola egin izanak esatariengan euforia sortzen du eta gutasunaren eta besteen arteko alderaketa bizitzen dute, bukaera bitartean are eta urduriagoa den narrazioan. Beste xehetasun bat gogora ekarriko badugu, aipagarria izan liteke Gonzalezek maiztasunez “jainkoa” hitza erabiltzea, eta baita saildua ere Puyolen golari buruz. Herrialde osoaren ametsa bete zuen jokalaria, hizlari nagusiaren hitzetan.

Camacho: “Vamos a ver si se abren ahora, vamos a defender y ahora a pillarlos nosotros” [Ea orain zabaltzen diren, goazen defendatzera eta orain kontra erasoan harrapatzera] (73:35)

Paco Gonzalez: “España estará saltando. El sueño de un país lo ha hecho realidad Puyol. Dios que cabezazo. Qué santo” [Espainia jauzika egongo da. Herriaren ametsa bete du Puyolek. Jainkoa, ze burukada. Ze saildua] (74:27)

Amor: “Donde son más fuertes que es a balón parado y en la estrategia fíjate que les hemos sorprendido” [Beraiek indartsuenak diren alderdian, geldikako jokaldietan eta estrategian, eta hain justu hor gainditu ditugu] (74:37)

JJ Santos: “Cabeza fría ahora y en cuanto tengamos el balón a tocar y a marearlos” [Burua hotz orain, eta baloia dugunean baloia ukitu eta beraiek nahastera] (74:54)

Camacho: “¡Vamos, vamos un poco, venga, vamos, ánimo chavales!” [Ekin, ekin pixka bat, ekin, goazen, ekin mutilok] (83:10)

Camacho harmailetan, palkoan, dagoen Espainiako erreginari buruz mintzatzen da. Estatuaren sinboloa futbolera dakar, eta nazioarentzat auzi erabakiorra dela aditzera ematen du horrela. Amaieran, zoriona ikusarazten du Gonzalezek, Espainiako lurralde osoan aurreikusten eta jakintzat ematen duen atsegina. Ikus-entzuleak barneratua dauka estatuaren futbol ordezkariak kanpotarren aurka lortutako garaipenaz poztu behar duela. Hori dela hain zuzen ere, herritarraz espero den ohiko jokabide zentzuzko eta ulergarria.

Camacho: “La reina diciendo que se ha acabado” [Erregina amaitu dela esanez ari da] (90:00+2:36)

Paco Gonzalez: “Dios que alegría, dios qué miedo” [Jainkoa ze poza, jainkoa ze beldurra] (90:00+2:38)

Paco Gonzalez: “¡Qué felicidad! ¡Qué alegría! Esa felicidad inexplicable que provoca el fútbol. España entera saltando. El sueño está más cerca, estamos en la final, contra Holanda, el próximo domingo” [Zer zoriona! Zer poza! Futbolak sortzen duen zorion azalezin hori. Espainia osoa jauzika. Ametsa gertuago dago, finalean gaude, Herbehereen aurka, hurrengo igandean]

Alderaketa muturrera eramana izan zen erretransmisioan, bizitasunez eta bitasun irudikapenez. Urduritasuna eta atsegin adierazpena helaraziz, esatariek ikus-entzuleekin enpatia sortu ahalko zutela pentsatzekoa da, eta azkenerako, denaren baturaz, atxikipena eta identifikazioa. Nazio nortasun harrotasuna ere, iraungitze murriz edo luzaroagokoa.

D) Espainia-Herbehereak (2010eko uztailaren 11ko 20:30ean)

Lehen aldia zen Espainiako nazio selekzioak Munduko Kopako finala jokatzen zuena. Erretransmisioan areago bizitu zen bi aldeak eta bi nazio nortasunak alderatzeko jarrera ezkutaezina, muturreko emozioari lotuta. Oraingoan, aurkaritzat ez ezik, etsaitzat

hartuak dira holandarrak maiz, *zintzotzat* aurkezten diren espainiarren xedearen kontra ari direnak. Espainiar nazioaren izateari erreferentziak nabarmenak dira hasi eta bukatu.

Camacho: “Este es el sueño de miles y miles de futbolistas, de entrenadores, de árbitros, de aficionados y de todos los españoles” [Hau milaka jokalariren ametsa da, entrenatzaileena, epaileena, zaleena eta espainiar denena] (Ataria)

Paco Gonzalez: “Todo un país en las calles, en las casas, todos reunidos, para ver como España intenta ser por primera vez, campeones del mundo” [Herri osoa kaleetan, etxeetan, denak bilduta, ikusteko Espainia nola saiatzen den lehen aldiz munduko txapeldunak izan gaitezen] (10:09)

Espainiar izateko harrotasun agerpena aurreko partidetan baino are argiagoa da oraindik. Ordu arteko espainiar futbolaz eta entrenatzaileen ekinaz ari da Camacho, eta espainiar denen ametsa izateaz. Iraganetik orainerako nazio nortasun jarraipena azaltzen du. Gonzalezek berresten du, espainiar guztiak xede horrekin elkartuta direla gaineratuz.

Amor: “Somos de los más limpios” [Jokoan garbietetakoak gara] (15:21)

Paco Gonzalez: “¡Está en fuera de juego juez de línea por favor!. ¡Es que nos va a dar un infarto!” [Jokoz kanpo dago, marrazaina, mesedez! Bihotzekoak emango digu!] (20:46)

Paco Gonzalez: “No entremos en su provocación” [Ez gaitezen beraien jokoan jausi] (22:07)

Camacho: “Nosotros cuando tenemos el balón siempre queremos jugar pero el problema es que ellos están haciendo todo lo posible para que no juguemos” [Guk baloia dugun aldiro beti jokatu nahi dugu, baina arazoa da beraiek eginahalak egiten ari direla guk joka ahal izan ez dezagun] (50:26)

Urduritasuna eta Espainiako selekzioaren aurkariaren izaera *gaiztoa* irudikatzea dira hasieratik emanaldia ezaugarritzen dutenak, eta nazio identifikazioa sustatzea xede dutenak. Kanpo etsai *maltzuraren* aurka gutasuna indartua da guda bailitzan. *Gureek*,

zintzoek, *gaiztoen* aurrean irabazi behar dutela islatzen da. Horrela, bildutako adibideek narrazioaren joera azaltzen dute. Halaber, hurrengo esanean Gonzalezek *Asturias patria querida* abestiari erreferentzia egiten dio, David Villa *guaje* deritzonaren jatorriagatik.

Paco Gonzalez: “Vamos guaje que aquí cantamos si la metes el Sudáfrica patria querida, lo que haga falta” [Ekin *guaje* Hegoafrika aberri maitea abestuko dugu hemen, sartzen baduzu] (73:17)

Camacho: “Ellos van nada más que a esto” (...) “De víctimas encima” [Hori bakarrik bilatzen ari dira beraiek (...) Biktima gisa agertzen gainera] (78:14)

JJ Santos: “Claro, te ponen de mala uva” [Noski, asaldatzen zaituzte] (81:19)

JJ Santos: “Ellos están...” [Beraiek daude...] (89:03)

Sara Carbonero: “Provocadores es la palabra” [Probokatzaile da elea] (89:05)

Herbehereetako jokalariek asaldatuta dituzte esatariak, partidaren eta Munduko Koparen ebazpen kitzikagarrira iritsi ahala. Nazio lurraldea haragitzen du Gonzalezek futbol selekzioaren garaipea desiatzen ari diren hirietako herritarren aipamena eginda.

Paco Gonzalez: “Otros treinta minutos de fútbol y de agonía porque estamos ya muertos de los nervios” [Beste 30 minutu futbolekoak eta oinazekoak, urduritasunak itota baikaude] (90:00+2:57)

Paco Gonzalez: “Bueno seguimos, seguro los miles de españoles que estaban en las plazas en Barcelona, en Valencia, en Madrid, en Camas, en Vitoria, en Pamplona en toda España, seguro que seguimos teniendo el mismo sueño, treinta minutos para ser campeones del mundo” [Jarrai dezagun, ziurtasunez, Bartzelonan, Valentzian, Madrilen, Camasen, Gasteizen, Iruñean, Espainia osoan plazetan zeuden milaka espainiarrek, ziur amets bera izaten jarraitzen dugula, 30 minutu munduko txapeldun izateko] (Luzapen atsedenaldea)

Paco Gonzalez: “Dios mío el corazón” [Ene jainkoa, bihotza] (95:24)

Camacho: “Quieren ir a los penaltis está claro, ellos no quieren ganar el partido” [Penaltietan erabaki nahi dutela argi dago, beraiek ez dute partida irabazi nahi] (107:29)

JJ Santosek eta Gonzalezek ikus-entzuleen aurrean nazio taldearen eta nazioaren arteko lotura irudikatzen dute. Bide batez, erretransmisioa jarraitzen ari diren milioika herritarrei maiz oroitarazten diete euren bizipen bera izaten ari diren herrikideen izateaz.

JJ Santos: “Por los miles que han venido a la una de la madrugada” (...) “Los millones que hay en España” [Goizeko ordubatean etorri diren milaka horiengatik (...) Espainian dauden milioiak] (109:30)

Paco Gonzalez: “Todo un país está con vosotros, nos hicisteis campeones de Europa y nos podéis hacer campeones del mundo” [Herri oso bat zuekin dago, Europako txapeldun egin gintuzuen eta munduko txapeldun egin ahal gaituzue] (111:07)

Camacho: “Mira como protestan todo” [Begira nola denagatik protesta egiten duten] (114:55)

JJ Santos: “A lo nuestro, venga a lo nuestro” [Geurera, geurera] (115:02)

Camacho: “¡Iniestaaa de mi vida!” [Nire bizitzako Iniesta!] (116:01)

Partidaren nazioarteko errealizazioan printzeen poza eta espainiar futbolzaleena agertzen dituzte, Iniestak luzapenean Espainiaren gola egitean, eta baita Herbehereetako jokalariek beren atsekabea epaileari protesta egiten adierazten dutela. Paco Gonzalezek dio espainiarrak, “gu”, txapelduna direla, eta mundua liluraz Espainiari begira ari zaiola.

Paco Gonzalez: “¡Gooooooooool de Iniesta, gol de España!. ¡A falta de cuatro minutos somos campeones del mundo!” [Iniestaren gola, Espainiaren gola! Lau minuturen faltan munduko txapeldunak gara] (116:07)

Paco Gonzalez: “De Fuentelbilla para todo el mundo, el planeta mira, todo el planeta mira cómo juega y gana España” [Fuentelbillatik mundu osoari, planeta begira dago, planeta guztia ari da begira Espainiak nola jolasten duen eta irabazten duen] (117:04)

Paco Gonzalez: “Estamos todos los españoles con el puño cerrado, España entera estará botando” [Espainiar guztiok ukabila itxita gaude, Espainia osoa saltoka ariko da] (119:01)

Camacho: “Vamos hombre si hay que romper con todos gafes hombre” [Ekin, balbe guztiokin apurtzeko garaia dela, goazen] (119:06)

Camacho: “¿Me imagino que le darán el mejor jugador del mundo a un jugador español no?” [Espero dut munduko jokalaria onena (izendapena) espainiar jokalaria bati emango diotela, ezta?] (119:34)

Paco Gonzalez: “Decía el príncipe que te hace sentirte todavía más orgulloso de ser español” [Printzeak zioen espainiar izateaz are eta harroago egiten zaituela] (119:53)

Paco Gonzalez: “Hay que sacar eso por favor” [Hau aldendu behar da mesedez] (120:00+0:53)

Camachok Espainiako selekzioek izan ohi zuten ezintasuna eta balbea apurtzeaz dihardu, eta espainiar bati munduko jokalaria onenaren saria eman behar diotela adierazi. Espainiar izatearen harrotasuna areagotu izanaz mintzatzen da Gonzalez. Ebazpenean gero eta gardenagoak dira futbol eta nazio nortasun zantzuen loturak esatarien ahotan.

JJ Santos: “Ahí están las lágrimas del capitán que son nuestras lágrimas” (...) “Esa es la selección, de buena gente, de buenos chavales, aquí no cabe la miseria” [Hor dira kapitainaren negar malkoak, gureak direnak (...) Hori da selekzioa, jende zintzoa, mutil onena, hemen ez da onartzen zekenkeria]

JJ Santos: “Aquí está nuestra reina también entregando... nuestra reina está participando en esa entrega” [Hemen dago gure erregina ere banatzen... gure erregina banaketan parte hartzen ari da]

Jokalariak ez ezik, esatariak eta espainiarrak negarrez ari zirela iradoki zuen JJ Santosek, negar malkoak gutasunarekin uztartu baitzituen. Espainiar erregetzaren nazio sinboloa eta futbolarena elkartu zituen erretransmisioaren bukaeran Tele 5 kateko futbol emankizunen arduradunak.

4.2.3-Frantziako emanaldia taldeko liskarrek eraginda

Nazioarteko futbol neurketen erretransmisioetan esatariek ohi duten zirrarekin konparatuz gero, Frantziako partiden kontaketa astiroagoa izan zen 2010eko Munduko Kopan bederen. Nazio taldearen eraginkortasun ezagatik izan, nahiz TF1en emanaldiak eta eraikuntzak esaterako 2012an zendutako Thierry Roland esatariaren narrazio mota ³⁸ atzean utzi duelako izan, futbol taldearen eta nazioaren artean ezberdintzea gardenagoa da. Esan nahi baita tartea ikusarazten dela futbolarien eta herritarren artean. Izan daiteke TF1en Frantziaren ikuspegi muinekoarekin alderatuta selekzioaren izaera arraza anitza delako gertatzea urruntzea. Ohiko integrazioaren eztabaida izan daiteke arrazoia. Edota gerta daiteke futbolaz nazio balioak gizarteratzean esatariek bestelako ordezkari nahi izatea, eta Frantziar balio ezberdinak helaraziko dituztenak. Hala ere, hori, arrazoietakoa bat izan zitekeen. Munduko Koparako sailkatzeak polemika eragin zuen, baina liskarrak hirugarren partidaren atarikoan lehertu ziren. Ezin uka edonola ere, taldearen inguruko aurretiazko ezkortasunak eraginik izan zuela. Horrez gain, arrazoitu daiteke, Frantziak bere estatu-nazioaren eraikuntza nagusiki burutua duenez gero, futbolarekin etengabe bere burua zilegitzeko beste herrialde batzuek adina behar ez duela. Baina beharra badu jakina, munduko azterketan, eta Frantziari emandako atalean bereziki, behatu dugunez. Hemen partiden kontaketatik hartutako esan adierazgarrietatik eta narrazioaren ildo orokorraren aipu ordezkatzailenak direnetatik aztergai izango da erabilpen mediatikoa.

³⁸ Thierry Rolandek 1998an TF1en Frantziako selekzioaren partiden kontaketa egiten zuen nazio taldeak Munduko Kopa irabazi zuenean. Brasilen aurkako finala amaitzean, hauek izan ziren aski oroituak diren bere hitzak. “Je crois qu’après avoir vu ça, on peut mourir tranquille. Enfin, le plus tard possible mais on peut” [Uste dut hau ikusi ondoren lasai hil gintezkeela, ahalik eta beranduenen baina ahal dugu]

A) Frantzia-Uruguai (2010eko ekainaren 11ko 20:30ean)

Abiatzean Uruguaiako jokoari buruzko futbol analisia eskaintzen dute esatariek, eta herrialdeko kulturarekin uztartzen dute horko futbolaren ezaugarria, datorren aipuan adibidez. Frantziako taldearen aurkari denaz mintzatzeko “talde urdin argia” edo “urdin argia” esamoldeak darabilzkite emanaldian, nazio taldearen elastikotik eratorriak diren definizioak hain justu. Bestalde, haiek babesten duten eta ordezkatzten dituen selekzioaz hitz egiteko *les bleus* edo “urdinak” gizarteratutako adierazpena erabili ordez, ia kasurik gehienetan “Frantziako taldea” definizioa hobesten dute. Frantsesez esamolde horrekin taldearen jatorria ez ezik herrialdearen ordezkari izatera ere barnean hartzen da, baina ez dut uste euskaratuta “Frantziaren taldea” itzulpena aproposa zatekeenik, naziotasun kutsu agerikoagoa izango zukeena, hots, nazioarena den taldearen izendapena. Beheko hurrengo iruzkinean “Uruguaiako taldea” dio Jean Michel Larquek. Edonola ere, oro har, gehiago aipatzen dute elastikoaren koloreko deituraz Uruguairi buruz aritzean.

Jean Michel : “En sachant aussi que l’équipe d’Uruguay n’a jamais été une équipe soucieuse de faire le jeu” (...) “La culture uruguayenne c’est plutôt attendre et voir” [Jakirik Uruguaiako taldea ez dela inoiz jokoa egiteaz asko kezkatu den taldea (...) Kultura uruguaiarra gehiago da itxoitearena (2:48)

Jean Michel : “Il faut se méfier parce que, maintenant, la céleste, pour l’instant, n’a aucun temps de préparation, des qu’ils ont le ballon ils cherchent soit Forlan soit Suarez. Ça fait nos affaires parce qu’ils perdent rapidement le ballon” [Mesfidatia izan behar da orain arte urdin argiak ez duelako inolako prestatze denborarik, baloia duten orduko Forlan edo Suarez bilatzen dituzte. Abantaila lortzen dugu baloia azkar galtzen dutelako] (6:01)

“Gu” eta “Haiek” bitasun talka agerikoa da, eta hizlariak bietako ezein zehaztu beharrik ez dagoela aditzera ematen dute. Ikus-entzuleriak barneratua du gutasuna nork ordezkatzten duen eta arerioa zein den. Christian Jeanpierre emozioa eta aldekotasunaz hornitzen du kontaketa. Arsene Wenger entrenatzaile iruzkin egileak ia aldi gehienetan futbol jokoz analisia egiten duenean biko alderaketa azaltzen du, beheko adierazpenean bezala. “Guk” delako jokaldia hobesten eta baliatzen “dugu”, eta “haiek galduta daude”.

Christian : “Le centre de Ribery, peut-être le premier but !!!!!!! L’occasion pour Govou, quel dommage! Quelle occasion pour l’équipe de France !! C’est bien” [Riberyren erdiratzea, agian lehen gola! Govourentzat aukera, ze pena ! Zer nolako abagunea Frantziako taldearentzat! Ongi dago] (6:21)

Arsene : “On gagne les duels. Et puis surtout la défense centrale à trois ne joue que contre un seul attaquant. Ils sont un peu perdus” [Demak irabazten ditugu. Eta gainera hiruko erdiko defentsak aurrelari soilaren aurka jokatzen du. Pixka bat galduta daude] (7:42)

Jean Michel : “L’équipe de France domine pour l’instant” [Frantziako taldea nagusi da oraingoz] (9:29)

Christian : “Sachez que pour ce match la France est favorite avec une cote de deux L’Uruguay n’ayant remporté aucun de ses douze derniers matchs de Coupe du Monde face à des adversaires européens” [Jakin ezazue Frantzia faborittoa dela partida honetarako, biko mailaz, Uruguai ez duelako eskuratu aurkari europarren aurrean Munduko Kopan jokatutako azkeneko hamabi partidetatik bat bera ere] (9:34).

Frantzia eta Uruguai deiturak aurrekoan, maizenen nagusitzen den “l’équipe de” izendapenaren orde. Subjekturik gabeko esaldiek frantziar jokalaria egin beharrekoaz ohartarazten dituzte. Christian Jeanpierre Forlan deabruzat jotzen du, beti ere arerioen futbolarien maila goratzeko joeran txertatuta, eta *gureek* daukaten arriskua ikusarazteko. Jean Michel Larquen beheagoko iruzkinean “uruguaiarrak” deitura agertzen da, baina ohikoagoa da kontaketa “urdin argien” taldearena, edota “beraiek” izenordea baliatzea.

Arsene : “Alors ils nous installent toujours sur ce faux rythme, les sud-américains. On a l’impression qu’ils ne veulent pas vraiment attaquer” [Bada, hegoamerikarrek gezurrezko erritmoan barneratzen gaituzte beti. Irudipena dugu ez dutela egiazki erasorik egin nahi] (11:58)

Christian : “Le départ de Forlan. Il faut le suivre, dans la surface. Attention c’est un diable! ” [Forlanen irteera. Jarraitu behar zaio, arean. Adi deabrua da!] (15:46)

Jean Michel : “Leurs changements de rythme nous font du mal pour l’instant” [Beraien erritmo aldaketek min egiten digute oraingoz] (19:13)

Jean Michel : “On est en train de tomber dans le jeu des uruguayens” [Uruguaiarren jokoan erortzen ari gara] (21:53)

Frantziako taldearen Munduko Koparako sailkapena polemikaz betea izanagatik bertakoek frantziar ordezkariari abegi ona egin dietenaz poza adierazten du Jeanpierre.

Christian : “Un climat assez intéressant pour l’équipe de France avec beaucoup de supporters dans ce stade, beaucoup de sud-africains qui sont contents de voir l’équipe de France ici. Et c’est une bonne chose car on a dit et écrit beaucoup de choses après la qualification de l’équipe de France, on pensait qu’il y aurait une animosité ici en Afrique du Sud contre le français, et bien pas du tout, les sud-africains sont ravis de voir les bleus” [Giro aski abegikorra Frantziako taldearentzat, jarraitzaile asko tarteko estadio honetan, hegoafrikar asko pozik daude Frantziako taldea hemen ikusteaz. Eta gauza ona da, gauza asko esan eta idatzi direlako Frantziako taldearen sailkatzearen ondoren, uste genuen aurkaritza egongo zela hemen Hegoafrikan frantziarren aurka. Ba inolaz ere, hegoafrikarrak oso pozik dira urdinak ikusteaz] (24:11)

Jean Michel : “Ils sont quand même un petit peu excédés, les deux attaquants vedettes de cette cèleste” [Egiazki pixka bat gehiegi ari dira talde urdin argi honen bi aurrelari entzutetsuak] (24:48)

Zinez nabarmentzekoa da uruguaiarrek jokaldi ona burutzen duten aldiro txalotu egiten dutela esatariek, Larquek hemen. Christian Jeanpierre esatari nagusiak Frantziako taldearen egoera gorabeheratsuz mintzatzean, hirugarren pertsona, hura, baliatzen du, ohiko joeraren baitakoa. Wengerrek, bestalde, arerioen izaera bizkorra deskribatzen du, beti ere hirugarren pertsonaz, haiez, arerioei erreferentzia egiteko ildo nagusian ezarrita.

Jean Michel : “Ohhh bonne passe!” [Pase ona!] (26:01) (Uruguaiaren eraso)

Christian : “Et comme cette équipe de France n’est pas au mieux sur le plan psychologique c’est le moins que l’on puisse dire” [Eta Frantziako talde hau psikologikoki onenean ez dagoenez, esan dezakegun gutxiena da] (29:03)

Jean Michel : “On est un petit peu plus en difficulté sur le coté droit plus fluide coté gauche” [Eskuin hegalean zailtasun handiagoak ditugu, errazago ezker hegalean] (34:57) (Frantziako taldeaz ari da)

Arsene : “Ils ont des joueurs de la rue. Malins comme des joueurs de la rue” [Kaleko jokalariai dituzte. Kaleko jokalarien modura maltzurak] (36:40)

Partidaren narrazioan esatari nagusiak Uruguako gizarteak frantziar kulturarekin izan duen hurbiltasuna oroitarazten du, eta hortaz, frantziarren izaera eta jokatzeko era ezaguna dutela. Estiloa eta nazioaren kultur izaera batzen ditu bada, Jeanpierrek. “Gure futbola” gutasunezko adierazpena ageri da. Ondoren, Frantziako selekzioari zuzentzeko “les bleus” esamoldeagatik sailkatu dut hurrengo aipua. Bere erabilpena, azaldu bezala, murrizta da erretransmisioan. Geroago, frantziar herrikideen aldeko babesa ikusarazten du, hirugarren pertsonan.

Christian : “Vous savez que l’Uruguay est un pays francophile et que le français était première langue obligatoire jusqu’au début des années 90 et donc notre football n’a pas de grand mystère pour eux, il y a une vraie culture là bas” [Badakizue Uruguai Frantziaren aldeko jarrerako herrialdea dela, eta frantsesa lehen hizkuntza derrigorrezkoa zela 90eko urteen hasiera arte, eta horrenbestez gure futbol erak ez ditu ezustean harrapatuko, benetako ezagutza dago bertan] (37:07)

Christian : “Les bleus, qui n’ont pas perdu contre une équipe sud-américaine en fase finale du Coupe du Monde depuis 1978” [Urdinek, zeinek ez duten galdu 1978tik talde hegoamerikar baten aurka Munduko Kopako azkeneneko fasean] (46:43)

Christian : “Allez les français, les pieds sur le ballon. Il faut une réaction” [Ea, frantziarrek hankak baloian. Erreakzioa behar da] (50:44)

Jean Michel : “Oh quelle peur” [Ze beldurra] (51:05)

Partidaren bigarren zatitik aurrera jokoaz gain emankizuna emozio handiagokoa da. Frantziako taldeari sostengua eta ohartarazpenak zuzentzen dizkiote esatariek. Baina oro har taldea eta gutasuna, esatariena, ikus-entzuleena nahiz nazioarena, bereizten dira.

Jean Michel : “Et attention surtout à ce coup franc à suivre parce que nous n’avons pas profité de celui que l’on en a obtenu il y a quelques minutes” [Eta kontuz batez ere jarraitu beharreko falta jaurtiketa horri, guk ez dugulako abantailarik lortu duela minutu batzuk izan dugunetik] (62:49)

Christian : “Allez les bleus pour le dernier quart d’heure” [Ekin urdinak, azken ordu laurdenerako] (75:42)

Jean Michel : “On va y arriver, on va y arriver!” [Lortuko dugu!] (76:06)

Arsene : “On n’arrive pas à enchaîner sur des combinaisons autour la surface de réparation” [Ez dugu lortzen pase loturak jarraikortasunez egitea arearen inguruan] (78:07)

Subjektu gabeko esaldi inbertsonalak, datozen lau adierazpenetan aipatu direnen gisakoek, laburbiltzen dute erretransmisioaren bukaera bizia. Jokalariei zuzentzen zaie, baina esatariak ez dira aldirik gehienetan futbolarien tokian jartzen lehenengo pertsona erabilia. “Frantziarrei”, futbolarietara, adorea izateko eskatzen die Christian Jeanpierrek.

Christian : “Il faut en profiter coté français. Il faut terminer ce match par une victoire. Ce serait capital pour la suite” [Abantaila atera behar da frantziarren aldean. Partida hau garaipenaz amaitu behar da. Funtsezkoa izango litzateke ondorenerako] (81:59)

Christian : “Allez les derniers minutes, il faut y aller, il faut y aller. Ils sont à dix” [Tira azken minutuak, ahalegindu behar da, ahalegindu behar da, hamar (jokalarirekin) daude] (85:16)

Christian : “Allez du rythme dans les dernières minutes, les français, il faut y croire. Avec Evra peut être!” [Tira erritmoa azken minutuetan, frantziarrok sinetsi egin behar da. Evrarekin beharbada!] (86:35).

Azpimarratzeko modukoa da partida ebazpenean, eta emozioa gorenean denean, hizlariak ez dutela “gu” eta “haiek” arteko bereizketa hauspotzen, eta areago, epaileen erabakiak onartu – Arsene Wengerrek – eta aurkarien joko ona aitortzen dutela. Penaltia zitekeen frantziarren alde, baina aurretiaz atezainari falta egin diotela dio Wengerrek.

Arsene : “Il y avait faute sur le gardien au départ, il faut le reconnaître” [Atezainari egindako falta zegoen hasieran, aitortu beharra dago] (88:37)

Christian : “Bien joué. Bien joué Pereira. Il s’en sort bien avec du courage l’uruguayen. Il écarte le danger” [Ongi. Ongi jokatua Pereira. Ongi moldatzen da uruguaiarra, kuraiaz. Arriskua aldendu du]. (90:00+1:03)

Christian : “Maintenant il faudra marquer des buts face au Mexique avant de jouer le dernier match contre la nation hôte, contre l’Afrique du Sud” [Orain Mexikoren aurka golak sartu beharko dira, azken partida nazio hartzailearen aurka, Hegoafrikaren kontra, jokatu aurretik]

Partida amaitu berritan Mexikoren aurkako datorren partidari golak egin beharko direla ohartarazten du Christian Jeanpierre esatariak. Frantziarren eginbeharra berriz ere zeharkako adierazpenen bitartez, hau da, subjekturik gabeko esaldiekin jakinarazten du. Jakinik ematen da guztiok ere, ikus-entzunezko emankizuna jarraitzen ari diren frantziar denek, helburu hori partekatzen dutela, baina horretarako lehen pertsona baliatzeke.

B) Frantzia-Mexiko (2010eko ekainaren 17ko 20:30ean)

Estatu-nazioen omenez ekoizitako ereserkien atariko ekitaldian futbol eta nazio harrotasunaren arteko harremana zuzenean aipatzen dute erretransmisioan, gainontzean gutxitan gertatzen denez. “Mexikar izateaz harro zeuden”. Frantziar taldearen aurkariet mintzatzean jazotzen da. Hasieratik agerikoa da ohiko zeharkako esaldi inpersonalekin Frantziako taldearen aldeko sostengua. Baita “haiek” eta “gu” ezberdintzea, gehienetan

bata nahiz bestea nor diren inolako zehaztapenik egiteke. Nolanahi ere, alderaketa hori eginagatik aurkarien futbol mailari gorazarre egiten diete esatari guztiek. Baita Carlos Vela aurrelari mexikarraren lesioa deitoratu ere lehen zatiaren erdialdean.

Jean Michel: “Les mexicaines le savent et les mexicains étaient fiers d’être mexicains au moment de l’hymne nationale” [Mexikarrek badakite eta mexikarrak harro ziren mexikar izateaz nazio ereserkiaren unean] (Atarian)

Christian : “Allez! Il faut y aller!” [Ekin ! Ahalegindu behar da! (6:31)]

Jean Michel : “Là encore, heureusement pour l’équipe de France” [Hor ere zorionez Frantziako taldearentzat] (11:15)

Jean Michel : “Ils sont extrêmement offensifs et on devrait trouver à un moment ou a un autre des espaces” [Erabat erasokorrak dira eta une batean edo bestean pasabideak aurkitu beharko genituzke] (13:59)

Arsene : “Oui, parce que leurs trois attaquants se regroupent, resserrent nos défenses latérales pour ouvrir les espaces” [Bai, izan ere, beraien hiru aurrelariak elkartu egiten dira, gure hegaleko defentsak estutu egiten dituzte, pasabideak ireki asmoz] (18:05)

Jean Michel : “Et ils le font bien” [Eta ongi egiten dute] (18:11)

Arsene : “Ils le font extrêmement bien” [Biziki ongi egiten dute] (18:13)

Jean Michel : “Non non, Il ne peut pas il ne peut pas, malheureusement aie aie” [Ezin du, ezin du, ezin du, zoritxarrez] (29:10)

Futbolari mexikarren frantziarrekiko gailentasuna deskribatzen dute bigarren zati hasieran iruzkin egileek. Hainbatetan “mexikarrak” izendapena baliatzen dute “beraiek” erabili ordez, baina gutasuna adierazten duten izenorde eta aditzen deiktikoak baliatzen dituzte bestalde. Mexikoko nazio taldeak bigarren zatian partidako lehen gola egitean

esatariek Frantziako taldearen galera adierazteko izenondo kitzikagarriak, muturrekoak, erabiltzen dituzte, jokoan dagoena ikus-entzuleen aurrean handiagotzeko.

Arsene : “Oui si la possession de balle est assez équilibré les mexicains nous ont mis beaucoup plus en danger sur les actions joués dans nos vingt derniers mètres” [Bai, baloi jabetza nahiko orekatua izanagatik, mexikarrek askoz gehiago sortu digute arriskua gure azken 20 metroetan izandako jokaldietan] (50:52)

Christian : “Ils sont mieux que nous en ce moment, les mexicains” [Gu baino hobeak dira mexikarrak une honetan] (51:50)

Christian : “La France est menée un zéro. C’est tout simplement catastrophique” [Frantzia bat huts menderatua da. Hondamena da] (63:32)

Mexikarren garaipenaren atseginarene irudia baikortasunez azaltzen du Christian Jeanpierre esatari nagusiak, Frantziako nazio taldeak galdu arren. Azkar erreakzionatu beharra dagoela dio Arsene Wengerrek, frantziar futbolarietara erreferentzia eginaz, baina ekintzaren subjektua esateke jakintzat emanda oro har. Jeanpierre era berean. Bestalde, Frantzia arrisku handian dagoela aipatzen du aldi batez, “Frantziako taldea” esan ordez. Herrialde osoa ordezkatzeko duen izendapena futbol taldea deitzeko baliatu izanak, kirol kontaketa ohikoa den hizkuntza baliabidea esan nahi du, taldearen estatuaren ordezkari izaera nabarmentzen duena. Adibide honetan, Frantzia arrisku bizian dela adierazten duenez, Christian Jeanpierre esatari nagusiak areagoko garrantzia ematen dio neurketari.

Christian : “Oh! La belle image de joie de Hernandez, qui libère cette équipe mexicaine” [Hernandezen zorionaren irudi ederra, Mexikoko talde honek igortzen duena] (64:09)

Arsene : “Là, il faut réagir vite” [Orain azkar suspertu behar da] (64:17)

Christian : “Le temps tourne, la France est en grand danger” [Denborak aurrera darrai, Frantzia arrisku handian dago] (64:38)

Christian : “Il faut y croire du côté des bleus” [Sinetsi beharra dago urdinen alderdian] (71:06)

Jean Michel : “Allez, frappe, frappe !” [Tira, bota bota!] (73:34)

Hurbileko planoak, geldoak, ematen ditu nazioarteko errealizazioak futbolarien atsekabea darienak. Domenech hautatzailea bakarrik lehenago, pentsakor. Aurkariantzat arriskuari lotutako adjektiboak aipatzen dituzte eta baita frantziar jokalariai kritikatu ere uruguaiarrei behar bezala ateratzea eragozten dietenean. Horrez gain, aski nabarmendu behar da Mexikok bigarren gola sartzen duenean, eta ondorioz, selekzioaren porrota eta Munduko Kopako final zortzirenetara sailkatuko ez dela berresten denean, Jeanpierrerek urdinentzat, *les bleus* deritzaienentzat, lazgarria dela adierazten duela, ez Frantziarentzat edo gutasunari uztartutako izatearentzat. Emozioa igortzen duten izenondoak baliatzen dituzte maiztasunez partidaren hondarrean, eta Frantziako taldeak Mexikoko selekzioaz alderatuz duen maila ahulagoa nabarmendu. Talde izaerarik gabeko mosaikotzat dute.

Christian : “Ce diable Hernandez” [Hernandez deabru hau] (74:15)

Jean Michel : “Pas ça Mathieu pas ça Mathieu pas ça! Ça c’est pas bien [Hori ez Mathieu, hori ez Mathieu! Hori ez dago ongi]” (77:55) Mexikoko jokalariai penaltia lasai botatzea oztopatzen ahalegintzeagatik salatzen dute.

Christian : “Le Mexique qui mène deux zéro face à l’équipe de France !!!! ” (...) “C’est dramatique, dramatique, dramatique pour les bleus, terrible” [Mexiko, zeina bi huts mendean hartzen ari den Frantziako taldea (...) Lazgarria, lazgarria, lazgarria da urdinentzat, ikaragarria (78:27)

Jean Michel : “C’est la différence entre une belle équipe et une mosaïque qui n’a jamais réussi à faire depuis des années et des années un match de haut niveau et aujourd’hui la sanction est terrible” [Talde on baten eta urteak joan eta urteak etorri maila handiko partida bat egitea erdietsi ez duen mosaiko baten arteko ezberdintasuna da, eta gaurkoan zigorra ikaragarria da] (79:19)

Christian : “Allez! Il faut s’arracher maintenant Franck” [Ekin! Borroka egin behar da orain Franck (Ribery)] (80:18)

Arsene : “Évidemment, mais c’est pas encore perdu quand même. Restons, restons optimiste. On ne sait jamais” [Noski baina oraindik ez dago galdua. Baikorrak izaten jarrai dezagun. Inoiz ez da jakiten] (81:07)

Arsene : “Comparé aux mexicains nous sommes dans l’après technique” [Mexikarrekin alderatuz teknika aurreko garaian gaude gu] (82:07)

Wengerrek lehen pertsonan baikor jarraitzeko galdegiten duenean pentsa daiteke ikus-entzuleei zuzentzen zaiela hizlari kideei batera. Halaber, hemen aipatzea mereziko du frantziar taldean afrikar jatorriko futbolari ugari daudela oroitzen duela Jeanpierrekin. Horientzat Afrikan ospatutako lehen Munduko Kopa esanahi berezikoa dela arrazoitzen du. Deskribapen soila dirudien arren, aipamena bidezkoa da, futbol taldearen osaera eta nazioaz igortzen duen irudia aldizkako mintzagai nagusia izaten baita Frantzian, nazio proiektuei eta aniztasunaren, integrazioaren eta bizikidetzaren auziei lotuta.

Christian : “Tous ceux qui étaient d’origine africaine, ils sont nombreux dans ce groupe de 23. Ces joueurs. L’histoire risque de se terminer très vite” [Afrikar jatorria zuten horiek guztiek, asko dira 23 jokalariko talde honetan. Jokalari horiek. Dena azkar amaitzeko arriskua dago] (88:55)

Arsene : “Admiratif en même temps de cette équipe du Mexique” [Dena dela miretsita (nago) Mexikoko talde honetaz] (90:00+0:41)

Jean Michel : “Totalement désorganisée, notre équipe maintenant” [Erabat antolatu gabea (ageri da) gure taldea orain] (90:00+1:46)

Christian : “On est triste, on est triste pour l’équipe de France, pour tous ses supporters” [Triste gaude, triste gaude Frantziako taldeaz, bere jarraitzaile guztiengatik] (90:00+2:16)

Christian Jeanpierrek Frantziako taldearen jarraitzaileengatik eta jokariengatik triste daudela esaten du, herrialdeari oro har, herritarrei, nahiz nazioari erreferentziarik zuzenean egiteke. Lege onean onartzen dute, inondik ere beren ordezkariak dituztenen futbolarien galera eta mexikarrak zoriondu. Gu-haiek bitasun erkaketa bigun gisakoa da.

Jean Michel : “Mais il y a aussi une certaine logique dans cette défaite. Il y a surtout un adversaire nettement supérieure à l’équipe de France” [Baina bada hein batean logika ere porrot honetan. Bada bereziki Frantziako taldea baino askoz gailenagoa den aurkaria (90:00+2:22)]

Christian : “Chapeau messieurs, chapeau, vous l’avez méritée” (...) “La France est quasiment sortie de cette 19^{ème} Coupe du Monde. C’est terrible, c’est terrible” (...) “On est triste évidemment, on est triste pour ces joueurs de l’équipe de France” (...) “Patrice Evra, d’origine sénégalaise sait que le film risque de se terminer très vite” [Zorionak mutilak, zorionak, merezi izan duzue. Frantzia kanpora irtena da ia hemeretzigarren Munduko Kopa honetatik. Ikaragarria da, ikaragarria da (...) Triste gaude noski Frantziako talde honen jokari hauengatik (...) Jatorri senegaldarra duen Patrice Evrak badaki filmak azkar bukatzeko arriskua duela] (90:00+2:45)

D) Frantzia-Hegoafrika (2010eko ekainaren 22ko 16:00etan)

Hegoafrika herrialde antolatzailearen futbol selekzioaren aurkako azken partida erretransmisioa jokariei eta entrenatzaileak atarian izandako liskarraren ondorena da. Abiatzetik, ereserkien ekitalditik, islatzen da, arrazoizkoa denez, emanaldian Frantziako taldean dagoen egoera txarra. Jean Michel Larquek futbolari frantziarrei nazio sugarrak, edo bederen, nazio sentimendurik ez adieraztea leporatzen die. Futbolari hegoafrikarrek ereserkia entzutean duten sugarraz bekaizkeria daukala deitoratzen du, eta, pentsatzekoa da, Frantziako jokariei zuzendutako ez oso zeharkako kritika dela. Greba egin izana eta nazioarteko hedabideen hizpide bihurtu izana nazio leialtasun gabezia uzta ditzake Larquek. Izan ere, aurreko partidetan, ez zuen horrelako estalitako kritikarik plazaratu.

Jean Michel : “Et revenant simplement sur l’hymne national, c’est une ferveur qui nous fait envie, on était presque jaloux quand on entendait cet hymne et la façon de se comporter des joueurs” [Eta soilki nazio ereserkira itzulita, bekaizkeria sortzen digun sugarra da, jelsia geneukan ia ereserki hau entzuten genuenean eta jokalariek zeukaten jokabidea] (Atarian)

Christian : “Ce sera une touche pour les bleus” [Urdinentzat sakea da] (0:42)

Christian Jeanpierrek Frantziako taldean dagoen banaketaz dihardu, Hegoafrikan izandako liskarretan eta entrenatzeko ukoan ardura izan zutenen eta besteen, isilik izan zirenen, bereizketa azalduta. Hegoafrikako jokalariez eta taldeaz hitz egiteko askotariko bideak baliatuko dituzte hizlariak. “Talde hegoafrikarra” eta “bafana bafana” izengoitia nagusiki, eta maiztasun gutxiagoz “beraiek” izenordea – Arsene Wengerrek oroz gain – eta “Hegoafrika” herrialdearen izendapena, partidaren emaitza aipatzean ia soilik.

Christian : “Squillaci comme Bakary Sagna qui font parti des silencieux de ce groupe ont pris un gros coup sur la tête avec toutes ces histoires [Squillacik, Bacary Sagnak bezala, talde honetan diren isilen parte dira, eta buruan kolpe handia jaso dute gertaera hauekin guztiekin” (8:36)

Arsene : “Cette équipe sud-africaine est avant tout concentrée pour conserver le ballon” [Talde hegoafrikar hau bereziki baloia izaten saiatzen da] (9:04)

Jean Michel : “Ce sera le premier coup pied pour l’équipe des bafana bafana” [Lehen jaurtiketa geldoa da bafana bafanen taldearentzat] (19:17)

Arsene : “Ce leur a donné de la confiance” [Konfiantza eman die] (21:49)

Christian : “À l’heure où je vous parle l’équipe de France est dernière de son groupe” [Zuei hitz egiten ari natzaizuen unean Frantziako taldea bere taldean azkena da] (23:35)

Frantziako taldearen Munduko Kopako hirugarren emaitza txarra hondamentzat jota futbolaren emozioa hezurmamitzen du esatariak. Baina, aurretiazko joerari jarraiki, ez da lehen pertsonaren deiktikorik orokorrean. Noizbait ageri da, nolanahi ere, hemen

beheko bigarren iruzkinean biltzen denez. Epaileak Gourcuff egoztean “Frantzia” eta ez “Frantziako taldea” erabiltzen du, ia salbuespenez, hizlariak, eta emaitza esatean ere bai.

Christian: “Incroyable coup de théâtre, quelle Coupe du Monde catastrophique pour l’équipe de France, mais catastrophique !” [Sinesgaitza gertakaria, zer Munduko Kopa hondamenezkoa Frantziako taldearentzat, baina hondamenekoa!] (25:09) (Gourcuff ukalondokoagatik egozteko unean)

Christian : “Connaissant Yoan Gourcuff (...) C’est pas le style de bon homme à aller se défausser” (...) “La France à dix, expulsion” (...) “Djibril Cissé, désespéré, par ce qui arrive à l’équipe de France qui vit un véritable calvaire en Afrique du Sud, on aura tout vu, tout connu, rien ne nous sera épargné” [Yoan Gourcuff ezagututa, ez da gizon zintzoaren tankera horrela bere burua kanporatzea (...) Frantzia hamarrekin (...) Djibril Cisse jota dago Frantziako taldeari gertatzen ari zaionaz, Hegoafrikan benetako gurutzbidea jasaten ari da, guztia ikusi dugu, dena ezagutu, ez zaigu ezer barkatu] (27:04)

Christian : “Deux zéro !!!! Mphela. L’Afrique du Sud, dans une ambiance indescriptible, mène deux zéro. La France est chaos, l’équipe de France est chaos, l’équipe de France est chaos! C’est terrible!” [2-0!!! Mphela. Hegoafrika deskriba ezineko giroan 2-0 irabazten ari da. Frantzia kaosa da, Frantziako taldea kaosa da, Frantziako taldea kaosa da. Ikaragarria!] (36:21)

Gutasunaren eta besteen bereizketa plazaratzen da batzuetan, hurrengo aipuetan sailkatu bezala, baina aipagarria da frantziarrak deitzeko hirugarren pertsona ere erabilia dela, frantziarrez mintzatzen ari direla zehaztuta beti ere. Hegoafrikan joko onesten dute iruzkin egileek bi aldean artean eginiko alderaketa bortitza ez denaren adierazgarri. Aurkariak “beraiek” izenordeaz eta sor dezaketen arriskuaz azaltzen dira esaldi honetan.

Christian : “Ils ont des hommes de feu, ils ont des hommes de feux, ils sont portés par leur public, ça va être dangereux” [Sua duten gizonak dituzte, beren zalegoak hauspotuak dira, arriskutsua izango da] (37:16)

Jean Michel : “On a peut être oublié en France, toujours dans notre bulle” [Frantziar agian ahaztu dugu, beti gure burbuilan] (...) “S’il y avait un score de 2-0 de leur côté, ils pourraient commencer à y croire très sérieusement” [2-0 beren aldeko emaitzaz benetan sinets lezakete (Hegoafrikarrek)] (38:49)
Jean Michel : “Oooohh le contrôle! Magnifique le contrôle!” [Ohhhh a zer kontrola. Zoragarria kontrola] (39:47) (Hegoafrikar defentsa baten jokaldiaz)

Christian : “Ils sont sonnés les français” [Jota daude frantziarrak] (42:25)

Jean Michel : “Il n’y a pas beaucoup de coéquipiers qui vont s’inquiéter de l’état de santé d’André Pierre Gignac, chacun pour soi et chacun de son côté” [Ez dira asko Andre Pierre Gignacen egoeragatik kezkatzera doazen taldekideak, bakoitza bere alderako eta bakoitza bere aldean] (45:00+0:08)

Jean Michel Larquek selekzioak berekoikeria eta talde izaera eza islatzen dituela deitoratzen du, Munduko Kopako giroa azaldu dugunean jaso den iritzia izaki. Gutasuna Frantziako taldeak eragindako oinazeaz lotuta eta besteentzako onespina hemen behean.

Jean Michel : “On est quasiment dans la dernière station du calvaire avec ce sélectionneur et avec cette équipe” [Gurutzbidearen azken geltokian gaude ia hautatzaile honekin eta talde honekin] (45:00)

Christian : “Que c’était bien joué !!” [Zer ongi jokatua zegoen!!] (50:15)

Gutasunaren deiktikoak, gu izenordeez adieraziak, *les bleus*, *l’équipe de France*, *la France* eta *football français* erreferentziaz tartekatuta dituzte bigarren zatiko esanotan.

Jean Michel : “L’accélération, une touche de balle, nous avait laissé sur place” [Abiadura hartzeak, baloi ukitzeak, tokian bertan utzi gaitu] (50:55)

Christian : “Dans une ambiance bien bien triste, bien tristounette pour le bleus” [Urdinentzat giro oso oso tristean] (54:12)

Arsene : “Pour nous il n’est plus question de nous qualifier, il est question de sauver l’honneur” [Guretzat dagoeneko ez dago jokoan sailkatzea, ohorea salbatzea dago jokoan] (57:49)

Frantziako futbolarien afrikar jatorria edo ozeanoez bestaldekoa oroitarazten du Christian Jeanpierrerek amaieran, Mexikoko taldearen kontrako partida bukatzean bezala.

Christian : “Dix dernières minutes de cette équipe de France en Afrique du Sud. Je vous rappelle que sept joueurs français avaient des origines africains ici, alors c’est une fête de venir participer à cette Coupe du Monde. Nous avons également beaucoup de joueurs issus des départements des territoires d’Outre mer qui se sentaient extrêmement concernés par le fait qu’elle se joue ici, et la France sera passée totalement mais totalement à travers” [Azken hamar minutuak Frantziako taldearentzat Hegoafrikan. Oroitarazten dizuet hemen zazpi jokalarik frantziarrek afrikar jatorria zutela, eta horregatik festa zela Munduko Kopa honetara parte hartzera etortzea. Jokalari asko genituen era berean, itsasoaz bestaldeko departamentuetatik, lurraldeetatik, etorriak, zeinek garrantzia handia ematen zieten hemen jokatzen zenari, eta Frantzia erabat, baina erabat, zeharka pasata izango da] (80:38)

Jean Michel : “L’antagonie d’un football français en ruine” [Deseginda dagoen frantziar futbolaren antagonia] (81:28)

Christian : “Le supplice jusqu’au bout pour l’équipe de France” [Oinazea amaitu arte Frantziako taldearentzat] (90:00+0:04)

4.2.3-Erretransmisioen analisiaren ondorioak

Tele 5 Espainiako telebista kateak Hegoafrikako 2010eko Munduko Kopan bere herrialdeko futbol ordezkariak jokatutako partidez antolatutako erretransmisioa xehatu ondoren zerbait nabarmentzekotan ikus-entzulea identifikatzeko eginahal amaiezina da. Gutasunaren eta gure helburuen aurkari diren besteen arteko alderaketa etenik gabekoa da aztertutako ikus-entzunezko emanaldi orotan. Eta telebistaren aurrean gozatu asmoz

dauden milioika herritarrek, aldizka aldizka ekintza bera egiten eta desio bera daukaten herrikideen izateaz ohartarazten dituzte, estatu-nazioaren lurraldetasunaren hiri askotako izenak eta herritarrak aipatuta. Suitzaren partidaren atsekabearen adierazpen barnerakoiak igortzen dituzte esatariek eta beste bi partidetan milioika herritar parekideen zorientasun adierazpenak jakintzat eman. Kontaketaren muturreko emozioak eta esatari nagusiaren urduritasun adierazpen eta aitopenei alde batetik, eta selekzioa naziotasunaz uztartzeko ekimenak bestetik, selekzioak, lehen pertsonan esanda, espainiarrak munduko txapeldun egin zituela adierazita besteren artean, ikus-entzulearengan empatia modukoa bideratzea dute helburu. Milioika herrikidek antzerako desioa dutela ikusarazi baitzaie aurretik, eta selekzioak haragitutako gutasuna arrazoibide gehiegirik helarazteko beharrik ez balego bezala igorri, sortzeko tankera emanez, naturala, inork eztabaidagai ez duena. Horrela, gu eta haiek izenordeen artean egituratzen da diskurtsoaren ardatz nagusia, eta izenorde horiei loturiko aditzen eta bestelako objektu zuzeneko adierako izenordeekin. Ebazpena geroz eta gertuago izan, partidena eta baita finalean txapelketa osoarena, nabarmenagoa da alderaketa eta espainiar nazio nortasunarekin lotura. Herbehereetako nazio taldearen kontra jokaturako finalean, holandarren falta gogorrek baliatzen dituzte etsaigoa indartu eta era horretara, identitateen arteko aldea bizituta, gutasuna hauspotzeko. Espainiako Erregetzari aipamenak egiten dizkio Camachok ebazpenetan, kiroleko ordezkariarekin batera herrialdeko nazio sinbolo nagusienetakoari. Paco Gonzalez esatari nagusiak oso hurbileko hurrenkeran gutasuna eta Espainia lotu ohi ditu maiz futbol taldearen bitartez. Osterantzean kontaketa guztiaz gardenki hautematen da eraiki nahi duten parekotasuna. Nekez erabiltzen dute “Espainiako selekzioa” esaera eta futbolari espainiarrak aipatzeko hirugarren pertsona. “Gu” izenordea da nazio taldeaz aritzeko erabateko hautu nagusia.

TF1 Frantziako telebista kateak bestalde, bertako nazio selekzioa aipatzen duen aldiro “Frantziako taldea” deitura hobesten du bestelako edozein aukerarekin alderatuta maiztasun askoz handiagorekin. Askoz bakanagoak dira herrialdearen deituraz deitzeko hautua eta *les bleus* izengoitia eta baita gutasunezko izenordeak ere. Arsene Wengerrek, futbol entrenatzaileak, baliatzen du hiru iruzkin egileen artean sarrien, kirol kazetaritzan usadioa dagoenez, futbol analisia egitean, gu eta haien alderaketa. Christian Jeanpierre edo Jean Michel Larquek emozioa gorenean dagoenean antolatzen dute horrela bereziki kontaketa, izenorde horiek erreferentzia egiten dieten izateak sobera zehaztu gabe. Hala ere, esan bezala, gainjartzen da “l'équipe de France” izendapena, eta horren arerioetaz mintzatzean *la céleste, les uruguayens, les mexicains* eta *bafana bafana* izengoitiak edo

jatorriaren izenondoak erabiltzen dituzte gehien bat, besteak beste. Partiden ebazpenean eta partidaren emozioa, eta nahita, kontaktarena, gorenean daudenean, ez dute bitasun alderaketa muturreraino eramaten, eta futbolari aurkarien zoriona eta burututako jokaldi onak txalotzen dituzte, adibidez. Ildo horretan, aurkaritza biguna denaren maila berean, esatariek nazio taldearengandik hutsunezko bereizketa tarte bat ezartzen dute, eta modu horretan gidatzen dituzte milioika frantziarrak ere. *On* gutasunezko izenorde deiktikoaz bertako futbolari erreferentzia egiten diete noizean behin eta zeharka subjektu gabeko esaldiez jokalariori aldekotasunezko mezu zuzenak helarazten dizkiete. Baina, taldearen eta esatarien, ikus-entzuleen edo oro har nazioaren subjektua bereizten dituzte narrazio ildo nagusizat. Frantziarrak mexikarren aurka bigarren partida galtzekotan direnean eta amaieran, final zortzirenetarako sailkatzea ezina izango dutela konturatzean – 2006ean finalera iritsi zen Frantziako selekzioa – izenondo eta aditzondo hunkigarriez inguratuta, futbolariengatik eta zaleengatik tristura hautematen dutela diote, ez milioika herritarrei ez eta nazioari orokorrean erreferentzia eginda. Hirugarren eta azken neurketan epaileak Yoan Gourcuff kaleratzean bestalde, futbolariak, esatariak eta herritar guztiak barnean hartzen dituen iruzkina eman zuen Christian Jeanpierrek hizlari nagusiak. “Guztia ikusi dugu, dena ezagutu, ez zaigu ezer barkatu”. Larquek beranduago selekzioarekin eta bere hautatzailearekin gurutzbidearen azken geltokia daudela adierazten duenean esatariei eta ikus-entzuleei egiten die erreferentzia. Salbuespenekoa da hori nolana ere, emanaldia funtsean ezkuta ezinezko eta arrazoitu beharrik gabeko aldekotasunera mugatzen baita.

Frantziako selekzioak Hegoafrikako egonaldian izandako liskarraz, Jean Michel Larque iruzkin egilea da bereziki jazoera hurbiltze kritikotik ukitzen duena, Jeanpierre iruzkina egoera txarraren deskribapen eta deitorapen izaerakoa da gehiago. Futbolari berekoiak izatea egozten die Larquek eta Hegoafrikako futbolariekin konparatuta, nazio sentimendurik ez izatea. Nazioen ereserkien partidaren atariko ekoizpenean egiten die zeharka kritika hori futbolari, nazioa eta futbola zuzenki lotzen duena. Bestalde, zilegi deritzot hemen berriz nabarmentzeari Jeanpierre frantziar futbolarien jatorri afrikarra eta ozeanoez bestaldeko frantziar lurralde eta departamenduetakoa oroitzen diela ikus-entzuleei Afrikan jokatzeko lehena Munduko Kopan emaitza txarra izateak areagoko atsekabea sortuko diela zehaztean. Bereziki aipatzekoa da urruneko jatorria oroitaraztea futbola nazio eta integrazio proiektuen joko eremua izana den eta baden herrialdean.

Tele 5 katearen Espainiako nazio taldearen emankizuna (Garaipenarena)

-Gu eta haien arteko nortasunezko ezberdintzea emanaldian etengabekoa da. Espainiako selekzioa izendatzeko hautu nagusia “gu” da, eta aurkariak deitzeko “beraiek”. Bakanak dira “Espainiako selekzioa” eta hirugarren pertsonako aipamenak bertako jokalariez hitz egiteko, eta “Espainia” deituraz deitzean “gu” izenordeaz hurrenkeran lotuta dago maiz. Futbol taldearen bidez esataria keta ikus-entzuleak nazio komunitatean elkartuak dira.

-Partiden ebazpenean, galdutako lehenengoan, nahiz final erdietan eta finalean, jakintzat ematen dute, gutasunezko izenorde barneratzaileekin zeharka, nahiz garaipenetan, estatu osoko herritarren zoriona jakinarazita, imajinatutako komunitatearen izatea, sortzekoa eta naturala bailitzan. Ikus-entzuleek bere komunitate kideen antzera ari direla badakite.

-Urduritasunezko muturreko erretransmisioa da, sortzeko sentipenak, beldurrarenak eta zorionarenak igortzen dituenak. Gure talde nortasunarena aurkarien bereizketa bizitzen dute ebazpenean, gutasun izaera indartzeko, eta finaleko egunean etsaigoa bihurtzen da.

TF1 katearen Frantziako nazio taldearen emankizuna (Galerarena)

-Frantziako selekzioa aipatzeko “Frantziako taldea” deitura eta hirugarren pertsonaren erabilera gainjartzen dira erretransmisioetan. Eta aurkariak mintzatzean selekzio horien izengoitiek edo herrialde horretako jatorria adierazteko izenondoekin deitzen dituzte. Frantziarrekiko Aldekotasuna ezkutatu gabea da, eta “gu” edo “haiek” aipatzean denek aurretiaz ulertzen duten izateari erreferentzia egiten dietela jakintzat emana da.

-Gu eta haien talka aldizkakoa eta biguna da, emozioa izanagatik muturreraino eraman gabea. Hala, bide batez nazio taldearen eta esatarien, ikus-entzuleen eta nazioaren artean ezberdintzea plazaratzen da aldekotasunetik haratago joan gabe gehienetan. Futbolarien tristuragatik eta zaleenengatik atsekabetuta daude esatariak, baina ez dute nazioa esaten.

Futbolaz nazioa eraikitzeke espainiarren hautua hautemangarriagoa edo bederen zuzenagoa da frantziarrena baino, bistan denez. Jakina da espainiar taldea garaitsua zen aldiaren egokitzeak eta frantziarren aro gorabeheratsuan, eraginik izan zezakeela. Halaber, lehenago aipatu den Espainiak beste herriek baino gehiago futbola naziotasuna bizitzeko erabiltzeko beharrezko islatzen da hemen, Frantziarekin alderatuz bederen. Antzerakoa da bestalde, biek ere gehiegi zehaztu behar izanik gabe, gutasuna jakintzat emana bezala

haragitzen dutela, funtsean egunerokoan, hamaika zalantza eta ez bai sortzen dituenean. Ildo horretan, batasunezko estatu-nazioaren lilura ikusarazten dute futbolaz, gatazkarik ez duen gutasunaren gisakoa. Frantziaren kasuan futbolariak kritikatzten dituzte berekoi izaera egotzita, baina zatiketa ez da nazio izaerara barreiatzen. Barneko nazio gatazka dituen Espainian, bestalde, hizlariek gutasunaren deiktikoak etengabe erabiliz, auzioi gainjartzeko ekimena, eta futbolaz batasuna agertzekoa eta indartzekoa nabari da, barne nazioen atxikimenduak beheratzekoa. Erretransmisioetan gutxitan esaten dute espainiar jokalarien erkidegoetako izenondoa, eta espainiar estatuko erkidegoen aipamena. Baina ospakizunetan futbolariak beren erkidegoetako bandera ikurren bat soinean hartu zuten.

Horrela, 2010eko Munduko Kopako erretransmisioetako bi kasu erkatu eta gero, ondoriozta daiteke nazioa bakartzat agertzearen lilura ikusaraztearen xedea azaleratzen dela, Munduko Kopa ekitaldietan hedabideek ohi dutenez (Blain et al., 1993: 81). Estatu nazioaren helburu asimilatzaile eta homogeenaren adierazgarria da. Bestelako estatuen ordezkarien kanpo mehatxuez estatu-nazioaren zilegitasuna gidatzen dute esatariek beti ere eta, oharkabean ia, Michael Billigek zionez, gutasunaren eta nortasun kolektiboaren baitan barneratu. Usadioz hedabideentzat nazio identitateen futbol zelaiko adierazpenak ziratekeen nazio estiloek ez zaie telebista erretransmisioetan aparteko begi keinurik egin, espainiar jokoaren bereizgarritasuna deskribatua izanagatik. Litekeena da globalizazioak selekzioen estiloak berdindu izana.

Bukatzeko erretransmisioetatik kanpo gelditzen den Munduko Koparen finalaren osteko sari banaketan Tele 5 kateak Espainiar estatuko hiri hauetan zuzenean konexioa egin zuela gehitzea bidezkoa da: Madrilen, Zaragozan, Bartzelonan, Gasteizen, Iruñean, Valentzian, Camasen – Sergio Ramosen hirian – eta A Coruñan. Erretransmisioan baino are ageriago, egokiera lasaiagoa baliatuz, estatu-nazioaren lurraldetasuna irudikatu zuen telebistak. Nazio nortasuna eta harrotasuna eraberritzeko erabiltzen dituzte hedabideek, izan ere, Munduko Kopak, emaitzak aldekoak direnean askoz erraztasun handiagoaz.

5.Atala

**Espainiar estatuaren kasu azterketa:
estatu nazioa futbolean Euskal Herria
eta Kataluniaren nazioei alderatuta**

5-Espainiar estatuaren kasu azterketa: estatu nazioa futbolean Euskal Herria eta Kataluniaren nazioei alderatuta

Espainiar estatuaren kasu azterketa oso adierazgarria da futbolaz eta hedabideen bidez egiten den estatu nazioaren zilegitasunaren eta estaturik gabeko nazioen aldarrien arteko lehia aztertzeko. XIX.mende amaieran, bertako Industria Iraultza berantiarraren egokieran, Ingalaterrako maila handiko beharginek eta Ingalaterrara ikastera joandakoek ezagutarazi zuten kirola urte gutxiren buruan, 1920ko hamarkadan bereziki, jendetzaren ikuskizuna bihurtu zen, eta hasi eta berehala estatu barruko nazio nortasunen adierazlea izan zen. Andrew Michael McFarlandek espainiar nazio irrikaren sorreraren lehen urteei zuzendutako doktorego tesian arrazoitzen duenez, futboleko klub jaioberriek herritarren arreta eta identifikazioa berenganatzeko eta beren imajinatutako komunitateak sortzeko, usadioak asmatu zituzten. Beren burua erregioen, auzuneen ala gizarte klaseen ordezkari gisa aurkezten zuten sorkuntzok, etsaigoen, koloreen, banderen eta bestelako sinboloen bitartez, eta estreinakoz masa audientzia sortu zuten 1910eko hamarkadan abiatuta eta 1920koan gauzatuta (McFarland, 2004: 222, 273). Horrela, XIX.mendean Filipinek eta Kubak Espainiarengandik independentzia lortu zuten testuinguruan izan zen futbolaren iritsiera, estatu nazioaren nortasuna abailduta zenean, eta Euskal Herrian eta Katalunian nazionalismo berantiarrek bestelako nazio proiektu bereizituarekin estatuarenari erronka jotzeko jaio berri zirenean. Futbolaren gizarteratzea, nazionalismoen norgehiagoka eta prentsa idatziaren loraldia hamarkada antzerakoetan gertatu ziren espainiar estatuan ere.

Ildo horretan, Euskal Herrian nazio eraikuntzen eta futbolaren arteko uztardura eta harreman horretako hedabideen eragina aztertzeko espainiar estatua guztiz hartuko dut lehen aztergai gisa, ikuspegi osoturik ezean ulertezina zatekeelako osterantzean. Ipar nahiz Hego Euskal Herria izate berdinen alderdiak bailiran hartuko dut abiapuntutzat. Euskal abertzaleek proiektu politikotzat daukate, euren naziotzat Espainia edo Frantzia dutenek, ordea, oinarririk ez duela alderatzen dute. Gutxi arbuiatzen dute ostera, kultur eta hizkuntza harremanen izaera, nahiz eta egiazki, nazio politiko osoa bideratu ez duen. Ipar Euskal Herrian – antzekoa da joera Frantziaren mendeko Katalunian ere – futbolak ez du hegoaldearen pareko gizarte oihartzunik inoiz izan, eta ez du Hego Euskal Herrian bezala, espainiar estatuaren bilakaera politikoan sartuta XX.gizaldiko bere historia osoki baldintzatu. Horregatik, Frantzia atal bereizituan aztertu dut, Euskal Herriarekin lotura izanagatik. Espainia, ordea, gaur egungo legedi eta lurralde mugei dagokionez, eta baita elkarreaginari dagokionean ere, arrazoizkoa da Kataluniako eta Euskal Herriko izaera bereizituarekin batera osotasunez aztertzea. Izan ere, kasu azterketa honek ahalbidetzen du estatu nazioen indarra bermatzean futbolak duen ekarpena begiztatzea, eta estaturik gabeko nazioen futbolaren bitarteko abagunea epaitzea, ildo berean. Aurreko atalarekin lotura zuzena du honek, telebista mezuen bitartez eraikitako espainiar nazio nortasunaz eta frantziar nazio nortasunaz ziharduelako, eta oraingoan lehen alderdia historiaz osatu eta Euskal Herriko eta Kataluniako nazio aldarriekin batera testuinguruan ezarriko baita. 2009ko eta 2012ko Espainiako Errege Koparen finalari buruzko gogoeta horren lekuko. Galizia zatekeen espainiar estatuan, Espainia estatu nazioaz gain, eta Euskal Herria eta Kataluniari batuta aipa daitekeen laugarren nazioa. Futbolaren erabilpena, nazio taldeaz esaterako, irmoagoa da biotan Galizian baino, nazionalismoak Galizian erro txikiagoak dituenarekin lotuta. Egoki iritzi diot, eta aurrerantzean hori azaltzen ahaleginduko naiz, Phill Ballen futbola eta Euskal Herria eta Kataluniaren historia politikoa estu uztartzeko arrazoibideari, eta Galizian bestela dela dioenari (Ball, 2010: 183-184). Espainia estatu nazioaren, Euskal Herriari zuzendutako azterketa bereziaren eta Kataluniaren behaketaz osatutako hirukoaren erakoa izango da hartara, espainiar estatuko nazio nortasunen eta futbolaren loturaren hurrengo behaketa.

5.1-Anberesko 1920ko Olinpiar Jokoen futboleko ekitaldia abiapuntua

Futbol selekzioak nagusiki eta nazio ordezkariak egin izan duten futbol klubak ere izango dira aztergai atal honetan. Bada, espainiar selekzioa, euskal selekzioa – gaur egunean Euskal Selektzioa izen berezia duena eta horri buruz mintzatzean letra larriekin aipatuko dena – Kataluniakoa alde batetik, baina baita Real Madril, Athletic, Realak eta Bartzelona gisako taldeen nazio adierazpena ere. Euskal selekzioari dagokionez, Joseba Gotzonek, bere mende inguruko ibilbidea liburu batean hezuramitu duenak, hiru aldiz historiko ezberdintzen ditu. Lehena, 1915etik 1936ra, Espainian gerra zibila hasi artean. Abiapuntua zen eta askotariko deiturak izan zituen. Bigarren aroa, gauzatzea, 1937tik 1939ra Euzkadiko selekzioaren atzerriko bira, eta azkena 1979tik gaur egun arteko aro garaikidea, frankismoak behartutako lau hamarkadako etenaren ostean (Gotzon, 1998). Horri gehi dakioke oraingo aldia, adiskidantza partidetatik haragoko urratsa nahi duena.

Hasteko, munduko kasuen azterketan eginikoari jarraiki, hurbileko kasu honetan ere historian atzera begirakoa eginez, nabarmendu behar da gertaera batek eragin handia eduki zuela futbolariek espainiar estatuan berebiziko ospea izan zezan. 1920ko Anberesko Olinpiar Jokoa izan ziren jazoera, eta espainiar selekzioa lehen aldiz beste estatuetako nazio ordezkariekin futbol lehiaketan alderatzean bigarren postuan sailkatzea (Gonzalez Aja, 2002: 179). Espainiako futbolariek jokatzeko modu oldarkorra definitzeko kazetari belgikarrek *la furie espagnole* – espainiar amorrua, euskaratuta – esaera erabili zuten, 1576eko espainiarren Anberes hiriarren arpilatzeatik eratorritzen zen esamoldea. Espainiar berri emaleek eta kazetariak ontzat eman zuten euren izaera egoki hezuramitzeko zuela iritzita, eta aurrerantzean hedatu egin zuten (Relaño, 2001: 36). Kazetariak ohitura duten gutasunaren eta beraien, aurkariaren, arteko ezberdintzea baliatzen zuten jadanik partiden berri jakinaraztean (Ball, 2010: 156). Olinpiar Jokoa espainiarren ordezkariak zuten 21 jokalarietatik 14 euskal herritarrak ziren, lau kataluniarrak eta beste hiru galziarrak. Gainera, nagusiki espainiarren izaera oldarkorraren berri eman zuten Suediaren aurkako partidaren, bederatzi futbolarik euskal herritarrak ziren eta beste biak kataluniarrak. Beraz, hein handi batean, hamarkada luzaroan betikotu zen joko era, espainiarren nortasunaren erakusgarritzat hedabideek hobesten zutena, euskal herritarren jokoa errota izan zen. McFarlandek hitzetan, espainiar selekzioak ekitaldian lortutako bigarren postuak nazioa,

espainiarra, harrotasunez bete zuen aurreko hogeitun urteetan ezerk ez bezala, nazioartean berriz Espainia garaitua izan zitekeela adierazi zuelako (McFarland, 2004: 290)

Anberesko Olinpiar Jokoek hedabideek futbolaz espainiar harrotasuna goratzeko erabili zuten lehen egokiera izateaz gain, estatuaren baitako nazioen norgehiagoka islatu zuten. Izan ere, Phil Ballen arabera (2010: 29), Madrilgo prentsak kritikatu zuen mugez gaindi futbol ordezkariak egingo zuen lehen bidaia ezagunean jokalarien gehiengoak euskal herritarrek zirela. Orduko espainiar lurraldeko futbolari onenak, izan ere, euskal jatorrikoak ziren eta baita klub eraginkorrenak ere. Dena dela, hasieran futbolari horiek selekzioetik kanpo uzten ahalegindu zen Espainiako futbol elkargoa, eta jokalariek euskal herritarrek, bestalde, beren jatorria zuten futbolariekin bakarrik jokatzeko galdegin zuten, gaur egunetik zehatz-mehatz epaitzea konplexua den arrazoiak tarteko (Ball, 2010: 31, 155). Izan liteke futbol eraginkortasuna lehenestea, adiskidetasuna edo abertzaletasuna. Dena dela, handik gutxira, 1922an, Gipuzkoa eta Bizkaiko jokalariek bakarrik osatutako euskal futbol selekzio batek Amerikan barrena partida bira aitzindaria egin zuen. Bidaia horretan euskal nazionalismoaren inguruko ikusmoldeek futbolarien arteko harremanak baldintzatu zituztela, eta modu berean bertan ziren diasporako espainiar komunitateekin izandako hartuemanak ere eragin egin zituztela kontatzen du Alfredo Relaño kazetariak (Relaño, 2001: 50-51). Joseba Gotzonek euskal futbol nazio selekzioaren historiak egin zuen kontaketa historikoari jarraiki, “Euskaldunen bidaia” bailitzan ezaguna egin zuten Hego Amerikan zeharko partida bira hori, Euskal Herria ordezkatu duen nazio taldearen bilakaeran hastapeneko lehenengo aroan kokatu behar da. Aurretik, 1915ean eta 1916an espainiar estatuko erregioen partidak jokatu zituen selekzioak, Kataluniarekin bereziki (Gotzon, 1998: 13-21). Lehen Mundu Gerraren ondorena, futbol hedapenak eta estadio jendetsuen eraikuntzak ezaugarritu zuen Espainian ere, eta aurreko hamarkadan osatzen hasi ziren lehiaketak eta elkargoak indartu, eta 1929rako lehen liga lehiaketa ahalbidetu zuten, bertan ere futbola amateur izaeratik azaleratzen ari zen ogibide bihurtzeko zenean.

Lehenagotik zetozen politika etsaigoekin uztartu ziren klubak arteko banaketak, Bartzelona hirian besteren artean, atzerritarrek sortua izanagatik lasterrean kataluniar izaera bereizgarria hartu zuen Bartzelonaren eta espainiar nortasuna ezkututzen ez zuen Español – azken hamarkadetan katalanerazko Espanyol deitura hartu duena – taldearen artean. Phill Ballek oroitarazten duen gisara, Woodrow Wilson AEBetako presidentek 1918. urtean nazio guztien autodeterminazioarako eskubidea aldarrikatu zuenari jarraiki,

Katalunian autonomia politikoaren aldeko kanpaina indartu zuten. Espāñolek uko egin zion askotariko mugimendua sostengatzeari eta autonomiaren aurkako ekimena bideratu zuen bestalde (Ball, 2010: 78). Bartzelonako klub horrek *Real* deitura zuen, Donostiako futbol klub nagusiak, Real Sociedad izena hartu zuenak, 1910etik bezala. Erregetzarekin uztartutako izenondo hori daukate, eta taldearen ikurraren gainean koroa, Alfonso XIII.a erregeak behinola onartu zuelako horietan ohorezko harpideduna izatea (Relaño, 2001: 30). Horrela, 1911n jadanik Bartzelonako jokalariek Kataluniako Sant Jordiren gurutzea soinean janzten zuten bitartean, herrialde horretako marra gorri eta horiez hornitutakoa, Espāñolekoek espainiar erregetzaren koroaren ikurrarekin eta izenondoarekin jokatzen zuten (Ball, 2010: 82). McFarlandek egoki azaltzen zuenez, futbol taldeek asmatu egin zuten gizarteko talde nortasunen ordezkari-tza bereganatzen gizartean milaka lagunetara, batez ere gizonezkoengana heltzeko. Talde eta nazio egitasmoentzat irtenbidea bihurtu zen era berean. Elkarriz lagundu zioten. Anberesko Olinpiar Jokoen ondorenean, gainera, kirol argitalpenen betirako loraldia gertatu zen espainiar estatuko lurraldeetan (Castañon Rodriguez, 1993: 12). Ez da funtsik gabekoa elkarriz lotzea futbolaren, nazio nortasun adierazpenen eta hedabide aitzindarien hasierako loraldia. Are gehiago, 1923an Miguel Primo de Rivera jeneralak Alfonso XIII erregearen oniritziarekin estatu kolpea eman eta diktadura agintea ezarri zuenean handiagotu egin zen futbolaren ordezkari-tza garrantzia eta kirolari buruz idazten zuten argitalpenen talde nortasunen igorpenarena.

Espainiako 1920ko hamarkadako diktadurapean Bartzelonako bandera haizatzea Kataluniakoa astintzearen parekoa bihurtu zen herritarrentzat. Euskal Herrian, estatuko lehen kirol egunkaria sortu zen *Excelsior* izenarekin, Bilbon. Euskal abertzaletasunezko ideiak hedatzen zituen argitalpen multzoaren baitan txertatu zuten, eta *Euzkadi* izeneko kazetarentzat ekonomia oinarria izan zen, 20.000 aleko salmentara iritsita. Are gehiago, euskal abertzaletasunaren mundu ikusmoldearen bozgorailua izan zen espainiar aginte baterazleak politika eta kultur guneak itxi zituen aroan (Castañon Rodriguez, 1993: 47). Espainiar nazionalismoak diktadorearekin nazio harrotasuna berrezartzea zuen helburu, XIX.mende amaierako kolonia galerak zartatua, eta estatu nazio eraikuntza homogenea burutzea. Indarra hartzen ari ziren Katalunia eta Euskal Herriko nazionalismoek oster, beren burua naziotzat hartuta autonomia eskatzen zuten gutxienean. Bada, estreinako, era ikusgarrienean bederen, Bartzelonako Les Corts futbol estadioa espainiar estatuaren antolaketaren inguruko bi errealitate bereizi eta kontrajarri horien lekuko izan zen. Egun

hori baino lehen, Miguel Primo de Riverak katalaneraz publikoan mintzatzea galarazi egin zuen.

Bartzelona eta Jupiter hiri bereko taldearen arteko partidari gertatu zen, 1925eko ekainaren 14an, Bartzelona taldearen izaera kataluniarra bizitu zuen partidari. Britainia Handiko itsas armadaren orkestra musika jotzera gonbidatu zuten atsedendian. Haiiek, gonbitari esker onez Espainiako ereserkia jo zuten milaka ikusleren aurrean, gehiengoak txistua egiten ziela ohartuta eten zuten arte. Ondoren, britainiar ereserkia jo zuten, *God save the queen* deritzona, eta milaka futbolzaleek txaloka hartu zuten orduan. Espainiar ereserkia erdeinatu zuen ikuskizuna bideratzeagatik isuna ezarri zien Madrilgo aginteak Bartzelonako zuzendaritzakoei, taldearen jardunak sei hilabetez etenarazi egin zituzten, eta Joan Gamper, taldea sortu zuen etorkin austriarra, herrialdetik joatera behartu zuten (Ball, 2010: 84). Hartara, Bartzelona kluba Primo de Riveraren erregimenaren kontrako nortasun iturri gisa sustraitu zen kataluniar izaeraren defentsan, 1929an Espainiako Liga txapelketa antolatzearen atariko urteetan. 1931n Espainiako II. Errepublikari eratu zen, eta bost urteren buruan erabat zatituta zegoen Espainiaren egoerak gerra zibila amildu zuen, bozetan espainiarrek onartutako erakundetze politikoaren aurka altxatu ziren militarrek bultzatuta. Bartzelonak berriro jasan zuen diktadura erregimenak bultzatutako espainiar nazionalismoaren ekimenaren eragina, oraingoan gerraren testuinguruan. Josep Sunyol Bartzelonaren presidentea hil zuten militar altxatuek Madrilgo Guadarrama mendizerran 1936. urteko abuztuan. ERC Esquerra Republicana de Catalunya alderdiko diputatua zen Madrilgo legebiltzarrean. Hortaz, gerran frankistak edo nazionalak deituraz ezagun egin ziren altxatutako militar eskuindarren alderdiak gorrotatzeko ezaugarri asko bazeuzkan. Madrilgo hegoaldeko errepublikazale batzuekin hitzordua egiteko xedez joan zen, baina falangistek – Miguel Primo de Riveraren semeak, Antonio Primo de Riverak, sortutako mugimenduaren jarraitzaileek – atzeman eta hil egin zuten. Phil Ballen hitzetan, futbola eta politika Espainian estuki lotuta daudenaren frogari saihestezina da hilketa, eta gudaren ondoren Francisco Francoren diktadurak estali izana (Ball, 2010: 89-90). Modu berean, Lluys Companys, Kataluniako gobernu autonomoaren, Generalitatearen, presidentea ere hil zuten frankistek 1940ean, gerra zibila amaituta bazen ere. 1932an eratu zen espainiar errepublikaren baitan Generalitatea, iraganeko mende askotako izatea berrezarri zuena. 1937an Bartzelonak Mexikon eta AEB Ameriketako Estatu Batuetan futbol bira burutu zuen Kataluniako eta Espainiako gobernuen alde dirua bildu eta gerraren berri ezagutara

emateko propaganda funtsaz (Dietschy, 2010: 364). Oihartzun handiagoa izan zuen, ildo berean, Euzkadi izeneko selekzioak 1937an Europan barrena hasi zuen partida birak.

5.2-Euskal nortasuna futbol estiloaz islatzeko bidea

Euzkadiko futbol selekzioaren nazioarteko partida biraren garrantziaz ohartzeko komenigarria da Euskal Herrian futbolaren hastapena ere zehaztasunez jorratzea. Joseba Gotzonek euskal selekzioaren bigarren aroa bailitzan definitzen du bira hori, aurretiazko espainiar estatuko erkidegoen partiden ondoren emandako jauzia nabarmenduta. Euskal Herriko lehen futbol partidaren ezaguera 1894ko maiatzekoa da. *El Noticiero Bilbaino* egunkariak Areetan jokaturako partidaren berri eman zuen orduan (Castañon Rodriguez, 1993: 42). Urte berean sortu zen euskal nazionalismoa mugimendu karlistatik eratorria. Bigarren gerra karlistaren bukaeratik hogeitau urte baino gutxiago igaro zirenean, Sabino Aranak EAJ Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen eta “Euzkadi” izena asmatu zuen euskal nazioa deitzeko (Iztueta, 1991: 230). Horrela jauzia gertatu zen. Sabino Aranak Erdi Arotik eratorritako euskal foruen babeslea definitzen zuen foruzalea izateari uzten ziola adierazi zuen, eta aurrerantzean bere burua nazionalista gisara izendatuko zuela. Foruak Euskal Herriaren subiranotasunaren kodeak zirela zehaztu zuen, eta 1876.urteko foruen deuseztatzea Euskal Herriaren eskubide historikoen galera izan zela (Larronde, 1977). Hizkuntzan eta arrazan errotutako euskal nazionalismoa euskaraz hitz egiten zuten landa eremuan izan beharrean, zabaldu zen hirialdeetan. Hala, kontserbadoreek, katolikoek eta burgesia txikiak bereganatu zuten mugimendua nagusiki Bilbo inguruko industrializazio bortitzari ihardetsi asmotan, eta horrek berarekin ekarritako kristautasun federik gabeko langileriaren kontra. Euskal burgesia handia arbuiatu zuten aldi berean horiek, espainiar monarkiari lerratuta ikusten zutelako (Larronde, 1977) (Elorza, 1978). Ondorioz, euskal nazionalismo goiztiarra, hurbileko gisa bereko mugimenduen antzera arrazaren izatean hein handi batean oinarritzen zena ez zen atzerriko eraginen aldekoa. Mesfidantzarekin erreparaten zioten futbolari. Nolanahi ere, pixkanaka-pixkanaka, 1910eko eta 1920eko hamarkadetan futbola barreiatu egin zen Hego Euskal Herrian. Erkuden Ruiz Barrosok 1920 eta 1930 urte bitartean *Argia* aldizkariaren kirol ekarpenaz eginiko ikerketa lanari jarraiki, ezina da baieztatzea aldi horretan bederen, euskal abertzaleek futbola errefusatu ohi zutela. Bestela da ondorioztapena (Ruiz Barroso, 2012). Bere arrakastaren iturburua neurri batean zetzan bateragarria zelako aurretiaz zeuden eta baikorki hartutakoak ziren

euskal izaera indarrarekin, boterearekin eta gizontasunarekin harremanetan jartzen zuten hautemateekin. John K Walton historialariak era horretara definitzen du kirolaren sona, eta kirol prentsa berriak egoki jotako izaera hori indartu zuela dio (Walton, 2011: 456).

Olatz Gonzalez Abrisketa euskal antropologoak euskal pilotaren adiera aztertzen zuen tesian ebatzi zuen euskal nortasunaren eraikuntzan erdigunezko sinboloa izan dela pilota. Bere hitzetan, frogatu ahal izan den bost mendeko historian eta batzuek aspaldiko iraganeraino atzeratzen duten iraupenean, pilotak errito eta estetika forma bereziak hartu izan ditu lotura estua daukatenak euskal herritar askok bere buruaz duten ikuspegiarekin eta euskal herritarrek besteek ikusita duten irudiarekin (Gonzalez Abrisketa, 2005: 15). Zehaztapenik egiteke onargarria den baieztapena da hori, baina futbolarekin alderatuta, umiltasunez, ezberdintzea gehi dakioke. Esan nahi baita, Mike Croninek joko gaelikoez arrazoitu zuenari jarraiki (Cronin, 1998: 171), pilota Euskal Herriarentzat, Irlandarentzat joko gaelikoak gisara, garrantzia bereziko kirola dela bere kultur ondasuna hezurramitu dezakeena. Aitzitik, nortasunezko benetako azterketa eta mailaketa besteekin neurtzean gertatu ohi da, Croninek egoki zioen moduan. Litekeena da, horretan ezartzea hain justu futbolak 1920ko hamarkadan hasita Euskal Herrian hartu zuen sona, beste herrialdeekin indarrak eta gaitasuna konparatu izatean. Euskal pilotak ezina du hori egitea, futbolaren mailako kirol global eta entzutetsua ez izateagatik. Horrenbestez, ebatzi behar da Lehen Mundu Gerra ostetik bereziki futbolak ahalbidetu duela bertan talde nortasunak bizitzea, eta indartzea, beste nazioekin aukera berdintasunean erkatuta atxikimenduak bateratuta.

Futbola arrazan oinarritutako euskal nortasunaren nolakotasuna islatzeko tresna izan zitekeela ondorioztatu zuen, bada, euskal nazionalismoak eta areago bere helburuak gizarteratzeko baliabide oparoa izan zitekeela. Ingalaterratik industria iraultzan aritzera etorritako behargin kualifikatuek eta Ingalaterran ikasitako ikasleek ekarritako jardueraz lehen aurkaritza gainditua zuen, hala. Dena den, William MacAleveyk zehazten duenez, futbolak ez zuen oraindik euskal gizarte osoaren leialtasuna erdietsi. Landa eremuetako apaizek ez zituzten futbolearen bertuterik onartu, eta tentsioak gertatu ziren horrenbestez kirolaren inguruan. Alde batetik, hiriguneetako, liberal izaerako, espainiar mintzairako eta ingeles eta futbolaren aldeko euskal nazionalistak zeuden. Bestalde, landa eremuan, tradizionalagoak, kontserbadoreagoak eta erlijio izaera gehiago zuten, euskaraz mintzo ziren eta pilota maite zuten nazionalistak zeuden. MacAlevey historialariaren esanetan, liberalismo eta karlismo ideologiaren talkan oinarritzen zen banaketa hori. Geografikoki,

ildo berean, Bilboko industria hirigunea kontrajartzen zitzaion Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriko landa eremuei. Frantziaren mendeko Iparraldean errugbia hobetsi zuten beraien identitatea adierazteko (MacAlevey, 2001: 112). Zinez nabarmentzekoa da Espainiaren mendeko Hego Euskal Herrian futbola gizarte ikuskizuna bihurtu zen bitartean iparrearan errugbia gizarteratu izana. Inondik ere Euskal Herriaren lurraldeen arteko muga zatiketa handitu egin zuen gizartearen talde nortasuna adieraztean kirol ezberdinak erabili izanak. Waltonek azaldu zidanez, litekeena da bi arrazoik eragin izana gizarte ikuskizunetan ere Euskal Herria bitan zatitu izana, espainiar eta frantziar hizkuntzek banatu zuten modura. Batetik, euskal nazionalismoak ez zuen Ipar Euskal Herrian Hegoaldean adina oihartzun lortu. Bestetik, futbola Bilboren inguruan ezarri zuten etorkinak eta Ipar Euskal Herrian eta Biarritzen bizi izandakoak ezberdinak ziren. Iparraldekoek aisialdizko egonaldiak egin ohi zituzten Londresen inguruko klase ertainekoak ziren. Hego Euskal Herrikoak, berriz, Bilbon lanean ari ziren Ingalaterra iparraldetik etorritako behargin kualifikatuak. Iparraldean errugbiaren eta euskal pilotaren alderaketa ez zen hain bizia izan. Populazio eta industria jarduera askoz txikiagoa izateak pilotak artean herritarren kirol begikoena izaten jarraitzea baldintzatu zuen (Diaz Noci, 2000)

Euskal nazionalismoak ebatzi zuen futbolaren hedapena geldiarazi ezina zuenez, hori bere helburuetarako baliatu behar zuela. Esan bezala, euskal futbol joko era gogorra asmatu zuten eta Ingalaterrako kirol arrotza bere egin. Gizentasunezko euskal arrazaren izaera islatuko zuen futbolearen aritzeko modua era esanguratsuan, aipatu denez, espainiar nortasunaren ezaugarri bilakatu zuten hango hedabideek Belgikako Anberesko Olinpiar Jokoetan. Dena dela, euskal nazionalismoaren eta futbolaren arrakasta ia elkarrekintzan gauzatu ziren 1920ko hamarkadatik aurrera futbol klubak beren inguruko komunitateen ordezkari sinboliko bihurtu ziren neurrian. Anberesko ekitaldiaren ondoren sustraitu zen ildo horretan gaur egun mundu mailako futbolaren salbuespen gisara hartua den Bilboko Athletic futbol taldearen euskal bereizitasuna, Euskal Herritik kanpoko futbolaririk ez zelairatzeko erabakimenaz (Unzueta, 1999: 148). Lehenago, XX.mendearen hasieran, Bilboko Athleticek futbolari ingelesekin ere osatzen zuen bere taldea, Donostiako Real Sociedad izeneko klubak bezala (Walton, 1999: 270). Espainiar estatuko futbolaren eta talde nortasunaren adierazpenen arteko uztarpena deskribatu duen Phill Ballen hitzetan, Athleticeen hurbileko jokalariekin aritzeko ametsa, hain zuzen ere ametsen ingurukoa da gehiago, osoki egiazkoa baino, bere harrobitik kanpo ordutik gaur egunera ekarri dituen futbolarien kopurua argudiatuz (Ball, 2010: 70). *L'équipe* Frantziako egunkariak, ordea,

1960ko hamarkadan mundu osoan bakarrik bailitzan definitu zuen Athleticen nortasuna (cfr.Unzueta, 1999: 150). Nabarmendu behar da, nahiz eta nazioartean Athleticen kasu bereizgarriari bakarrik erreparatu izan zaion, 1990eko hamarkada arte Donostiako futbol taldeak ere euskal futbolarietaz eta hurbileko jokalarietaz hornitzeko izaera betikotu zuela, gaur egun artean hein handian mantendu egin dena, eta 1920ko hamarkadan abiatu zena.

John K Walton historialariari jarraiki, bai Athleticetik eta bai Realak ere sortzezko urte horietan aldarrikatzen zuten euskal nazionalismoak bertako futbola lotu zuen euskal izaera gogorraren adierazgarri izatea futbol jokoa bitartez. Ondorioz, futbolaren lehia izaerako garapenak hiri eta probintzien arteko bereizketak indartu zituen, nazio elkartua eraiki beharrean (Walton, 2011: 458-459). Fernando Estomba Etxepare historialariaren hitzetan, ildo berean, aurrerantzean Athletic bizkaitar nortasunaren sinboloa izango zen, beste ideologekin bateragarria zena, eta hurbiltze edo ikuspegiaren arabera, euskal edo espainiar nortasunaren sinbolotzat agertua izango zena. Hori hala, Estomba Etxeparearen hitzetan, sortzez behintzat, ez da erraza taldean euskal jokalaria bakarrik zelairatzeko bereiziera euskal nazio nortasunaren isla zela adieraziko duten aztarnak nabarmentzea (Estomba Etxepare, 2007: 792). Horrek ez du esan nahi ez dagoenik, jakina, inolaz ere. Futbolaren baitan sortzen ari ziren atxikipenen amarauna konplexua zenaz ohartarazten du, eta bere gainean eraikitako nazio nortasunenaz, gaur egun ere indarrean dirautenak. Donostiako Realaren baitan ere euskal nazio nortasunaren eta gainontzekoen, eta herri, probintzia eta euskal izaera zabalagoko mailen artean bizikidetzaz zailaz mintzatzen da Walton (1999: 288). Iruñeko Osasunak halaber, euskaraz jaio zen talde nagusiak, euskal abertzaleen joera nahiz erkidego bereziarena bildu zituen (Caspistegui, 2001: 213-214).

Miguel Primo de Riverak diktadura ezarri zuenean, eta espainiar nazionalismo ekimenak estatuaren barruko nazio ezberdintasunak ezereztea helburu zuenean, euskal abertzaleek futbola baliatu zuten euren izaerari eutsi asmoz. Lizarran, Nafarroan, Izarra taldea sortu zuten (Unzueta, 1999: 161). Diktadura amaitzean zela, 1929an, Espainiako liga lehiaketa sortu ostean, Euskal Herriaren eta futbolaren arteko uztartzea azaldu zuen lehiaketaren bigarren ekitaldian ziren hamar taldeetatik bost euskal herritarrak izateak. Hortaz, Waltonek dioen moduan, oroitzekoa da Euskal Herriak futbol sorterritzat duen garrantzia, Ingalaterrako Lancashire eskualdearen maila berdinean (Walton, 1999: 261). 1927ko Errege Koparen finala izan zen Espainian zuzenean, irratiz, lehenik eman zuten partida, Zaragozan, Irungo Real Union eta Getxoko Arenasen artean (Relaño, 2001: 63).

Hori horrela, 1930eko hamarkadan, Espainiako Bigarren Errepublikak diktadura agintea eta monarkia ordeztu zuen garaian, nazionalismoa indartu ez ezik, Hego Euskal Herrian futbola funtsezko lehenetsitako masa ikuskizuna izatera iritsi zen (Unzueta, 1999: 161). Euskal selekzioak, Vasconia izenaz, Kataluniako selekzioaren aurka bi adiskidantzazko partida jokatu zituen 1930ean eta 1931n. Euren nazioentzat autonomia lortzekotan ari ziren bi herrialdeen arteko anaitasuna indartu zuten futboleko topaketek (Gotzon, 1998: 34). Orduko espainiar estatuko futbolari onenak Euskal Herrikoak ziren (Relaño, 2001: 74). Realak, errepublika agintaldian espainiar monarkiaz lotura azaltzen zuen izenondoa alboratu eta Donostia izena hartu zuen (Walton, 1999: 286). *Excelsius* izeneko kazetak, *Excelsior* aitzindariaren jarraipenak, 1934an Euskal Kopa antolatu zuen hurrengo talde hauen parte hartzearekin: Athletic, Donostia, Barakaldo, Arenas, Real Union, Alaves eta Osasuna. Euskal nazionalismoaz bat egiten ez zuen prentsak ekimena kritikatu zuen, eta euskal liga sortzeko amarrutzat gaitzetsi zuen (Unzueta, 1999: 162). Kirolaren eta nazio adierazpenaren arteko hartueman aldiero irmoagoa zen, bistan denez, eta ildo horretan, nazio proiektu kontrajarrien alderaketaren agertokia era berean. Waltonentzat, nahiz eta futbol barne alderaketek eta ezinikusiek euskal nazioaren batasunezko irudia plazaratzea zailtzen zuten, 1936rako futbola bihurtua zen euskal identitate zentzua mundu zabalera igortzeko tresna garrantzitsu (Walton, 2011: 458). Estomba Etxeparearentzat (2007: 791) ildo berean, kirolaren baitan identitateen arteko benetako gerra jazotzen ari zen 1930eko hamarkada hasieran, hazten ari zen euskal nazionalismoaren eta espainiar estatu nazio nortasunaren artean. Euskal taldeak eta Athletic bereziki, ligako nagusiak ziren urteotan.

Hala, 1936ko uztailean, herritarrek hautatutako errepublika eredia jausarazteko estatu kolpea eman zuten eskuin izaerako militarrek. Espainiar nazionalismoa suspertu helburu zuten, Primo de Riveraren aurretiazko diktaduraren bidetik. Hala, gerra ez ezik, futbola ere izan zuen jokaleku hein handi batean nazio nortasunen talka zen alderaketak. Nabarmenena Euzkadi deiturako euskal selekzioak nazioartean egin zuen bira, eta lehen esan bezala, neurri murriztagoan Bartzelona klubak Ameriketara burutu zuena. Bestalde, 1937an, Donostian, Espainiako futbol elkargoa berrantolatu zuten altxatutako militarren aldekoek, euskal eta kataluniar futbolariak beraien gobernuen alde egindako nazioarteko partiden propaganda zentzuari kontrajartzeko (Castañon Rodríguez, 1993: 52). Halaber, 1936ko udan guda hasi zenean legezko Espainiako futbol federazioak Errepublikarekin leialak zirenekin hornitu zuenez erabatean zuzendaritza, 1937ko urriaren 17an altxatuek sortu zutenak futbol arloan ere gerraren erakoa bideratzen zuten. Paul Dietschky dioen

gisara, baloia ere propaganda baliabidea bihurtu zen (Dietschy, 2006: 80). FIFAk lehen aldiz estatu baten bi federazio ezberdin aitortu zituen zalantzaz bete zuen aldian 1938an, gerrak iraun bitartean (Eisenberg et al., 2004: 277). Bartzelonan Errepublikak 1937an kokatu zuena eta frankistek Donostian sortutakoa. Gerra amaitzean azken hori aitortu zuten. Euzkadiko taldearen partida bira, hain justu ere, ez bai giro horretan txertatzen da.

5.2.1-Euzkadi taldearen 1936ko gerra garaiko atzerriko partida biraren nazio adierazpena

Euskal futbol selekzioak eta nazio adierazpenak hezurmamitu zuten uztartzearen adierazgarria da, Waltonek dioen moduan (2011: 458), 1937.urtean Europan partida bira hasi zuen selekzioa deitzeko izendapena *Euzkadi* izatea, hau da, Sabino Aranak, euskal nazionalismoaren sortzaileak, euskal nazioa izendatzeko asmatu zuen nazio izena. Dena den, “Euzkadiko Selekzioa” izen berezia erabiltzeari uko egin zion Eusko Jaurlaritzaren bidez antolatutako euskal selekzioak. Fernando Estomba Etxepareren hitzetan, litekeena da FIFAk jarri zekizkiokeen oztopoak saihestea izatea funtsa. Esan nahi baita espainiar estatuaren nazioarteko ordezkari bakarra egin zezan FIFAk ahala eman zion espainiar federazioaren eta espainiar selekzioaren bestelako nazio taldea osatzeagatik oztopatuko zutenaren beldur zen. Izan ere, nazioarteko futbol erakundeak ordutik ere estatu burujabe bakoitzeko selekzio soila onartzen zuen. Beraz, euskal selekzioak, 1950eko hamarkadan Aljeriakoak egin zuen eran, nazio ordezkari estali egin zuen indarrean ziren estatuen zilegitasuna bermatzen zuen FIFAREN galerazpena ez izateko. Aljeriakoak nahiz Euskal Herrikoak talde gisa aurkeztu zuten beren burua izendapenez – Aljeriakoak sindikatuen eta korporazioen aurka jokatzeko zuela aditzera eman zuen – egiazki nazio ordezkari egin zutela agerikoa izanagatik. Gainera, Euzkadi izeneko selekzioak Europan partida bira amaitu eta Amerikan zehar hasi zenean, FIFAREN ukoei aurre egin behar izan zien. Halaber, bi atzerriko partiden birek antzekotasuna izan zuten nazioarteko harremanetan eta goi politikan txertatu izanean. Esan nahi baita, Euzkadiko taldeak jaso zuen abegia baldintzatu zuela, delako herrialde horietan, Bigarren Mundu Gerraren atariko urteetako baldintzetan, euskal herritarrez eta bereziki Eusko Jaurlaritzaren izaeraz zuten aburuak.

Espainiako mediterraneanar kostaldean ez bezala, Hego Euskal Herrian futboleko partidak osoki geldiarazi zituen gudaren hasierak. Gerrako egokiera horrek baldintzatuta esaterako, hiriburuaren ingurua gerra eremua zenez, Real Madril kluba, espainiar nazio nortasunarekin uztartzen dena, Kataluniako ligan jokatzear egon zen (Relaño, 2001: 75). 1937ko lehen hilabeteetan gerrarako dirua lortzeko helburuarekin partida bakan batzuk antolatu zituzten Bizkaian; Araba eta Nafarroa ez ezik, Gipuzkoa ere jadanik, altxatuen mendean zenean. EAJ-PNV Eusko Alderdi Jeltzalea alderdiaren eta EAE-ANV Eusko Abertzale Ekintzakoaren artean hiru partida jokatu zituzten, eta beste bat Gipuzkoako eta Bizkaiko selekzioen artean (Gotzon, 1998: 37). Nabarmenena 1937ko otsailaren 7an Bilboko San Mames zelaian EAJkoek eta EAEkoek 20.000 lagun ingururen jendartean jokatu zutena izan zen. Harmailetan Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi eta Zuberoako banderak jarri zituzten eta Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzaren lehendakariarekin batera gobernu horretako sailburu ugari izan ziren (Estomba Etxepare, 2007: 793). Hala, partida horien ekonomia arrakasta izan zen Euzkadiko selekzioaren nazioarteko partida biraren ideiaz Eusko Jaurlaritza gogatu zuena. Helburu bikoitza edukiko zuen. Lehena, propaganda funtsa. Espainiako Bigarren Errepublikaren baitan Euskal Herriko gobernu bazela ezagutara ematea eta Espainiako gerraren inguruan zuen hausnarketa ikusaraztea. Bigarrena, ekonomia lehentasuna, atzerrian errefuxiatutako haurren bizierari laguntzea (Gotzon, 1998: 45). Bidenabar, futbol taldea identifikazio ardatz baterazlea bihurtu zen aldi horretan (Unzueta, 1999: 164). Taldearen armarrria izan zedin Eusko Jaurlaritzarena aukeratu zuten, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroakoak elkartzen zituena. Halaber, jokalarien jantziak ikurriñaren koloreak islatu zituen lehenengo aldiz, Eusko Jaurlaritzak herrialdeko bandera ofiziala izendatu berria zuena. Elastiko berdeaz, galtza zuriekin eta galtzerdi berdeekin jokatu behar zuten (Estomba Etxepare, 2007: 794). Lehen neurketa 1937ko apirilaren 26an jokatu eta irabazi zuten Parisko Racingen aurka, 3-0eko emaitza lortuta. Partidaren ondoren jokalariek Gernikaren bonbardatzearen berria jaso zuten, eta partida garaipenaren eta aldarri ekitaldiaren ospakizuna ilundu zuen (Relaño, 2001: 74).

Estomba Etxepareri jarraiki, jokalariek partidaren inguruko abagune oro ontzat baliatzen zuten Euskal Herriaren egoera ezagutara emateko. Luis Regueiro selekzioaren kapitainak Radio Paris irratian egindako adierazpenak Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren ildo berekoak zirela zehazten du adibidez, kanpoko erasoak jasan zuen herritzat aurkeztu baitzuen Euskal Herria, eta horko erlijio hautu askatasuna jakinarazi (Estomba Etxepare, 2007: 797). Frantzian futbolzaleek betetako estadioetan hainbat partida jokatu eta gero

Txekoslovakiara aldatu zen taldea. Joseba Gotzonen arabera Frantzia bi partida jokatu eta etxera itzultzea ei zen hasierako asmoa (1998: 47), baina Europan zehar hedatu zen bira. Poloniako Varsovia hiriburuan partida bertan behera gelditu zen, liskarrak gertatu zirelako zenbait poloniarrek selekzioa komunismoaz lotzen baitzuten, eta hartara ulertu gabe baitzeuden zergatik beren burua katolikotzat zutenek Francoren aurka Errepublika hobetsi zuten (Estomba Etxepare, 2007: 798). Hain zuzen ere, 1937ko ekainean Euzkadi komunismo tankerako agintearen sorterrira heldu zen, SESBera. Moskun zeudela jakin zuten Bilbo frankisten eskuetan erori zela eta Eusko Jaurlaritzarentzat gerra galdua zela. Dena den, Errusian, Bielorrusian, Ukrainan eta Georgian partidak jokatu zituzten gerora udan ere. Varsovian, Espainiako Errepublika babesteagatik hainbat poloniarrek Euzkadi etsaiak zituzten komunistekin lerratu zutelako liskarrak sortu bazituzten, hain zuzen ere arrazoi horrengatik Moskun harrera beroa egin zieten selekzioko futbolarietara. Euzkadiko taldea tren geltokian bertan hartu zuen jendetzak eta kirol, gizarte eta politika eledunek. Aurkeztu zituzten Espainiako Errepublikaren armadak gerran Espainia askearen alde hil zirenen emazteen eta seme alaben alde dirua eskuratzeko bidalitako ekintzaileak bailiran (Gotzon, 1998: 67). SESBen kidea zen herri errepublikaren ordezkariak hartu zituzten.

Kontraesanekoa zen izatez, Euzkadiko jokalariek gehienak katoliko fededunak, eta jarrera iraultzailerik gabeak baitziren (Estomba Etxepare, 2007: 799). Euzkadik 100.000 futbolzale inguruko jendartean jokatu zuen, eta 1937ko ekainaren 25ean SESBeko kirol ministroak hartu zituen (Ibid., 801). Moskutik gertu euskal haur errefuxiatuen egoitza bisitatu zuten (Relaño, 2001: 75). Futbol maila handia zeukatenez, partida ugari irabazi zituzten. Jendaurrean irudi ona igortzen zuen nazio selekzioaren propagandako helburua burutu asmoz, jokalariek sobietar irradian mintzatu ziren eta kazeta nagusietara gutunak bidali zituzten (Estomba Etxepare, 2007: 802-803). Norvegian eta Danimarkan jokatu, eta han ere harrera jendetsua jaso ondoren, Parisera itzuli zen Euzkadiko taldea, eta han egoerari buruz hausnartu zuten futbolarietara eta taldearen ingurukoek (Relaño, 2001: 75). Gerra hasierako baldintzak eta taldearen funtsa eraldatu zen frankistek euskal lurraldeak mendean hartu izanak. Mexikon selekzioaren propaganda helburuekin jarraitzea erabaki zuten, hots, futbol partiden bitartezko oihartzunarekin Euskal Herriaren egoera jakitera ematen, gerra Eusko Jaurlaritzarentzat galdutzat egonik ere. Paul Dietschy historialariak dioen moduan, Euzkadiko selekzioaren nortasuna erabat aldatu zen aurrerantzean. Izan ere, xede bidezkoa babesten zuten jokalariek bidaiariak izatetik frankistek eratutako futbol federazioak etorriarazi nahi zituen erbestera bidaltzeko bailiran izatera bihurtu ziren (Dietschy,

2010: 225). Elkargoak itzultzea erabakitzen zuten futbolarien aurka mendekurik hartuko ez zuela hitzeman zien (Estomba Etxepare, 2007: 804). Taldeko futbolari bakanek hartu zuten etxera itzultzeko erabakia, askotariko arrazoiak tarteko (Gotzon, 1998: 103). Hala ere, gehienek Mexikorako bidaia egin zuten. FIFAk baimendu zion Euzkadiko taldeari, bertako taldeei jarkitzeko Eusko Jaurlaritzaren eskaera egokitzat jota (Eisenberg et al., 2004: 277). Baina Estomba Etxeparek zehaztuari jarraiki (2007: 804-805), Amerikarako jauzia zailtasunez beterikoa izan zen hastapenetik selekzioarentzat, propaganda alorrean ez zen hain onuragarria izan, eta European izandako ospe ona lausotu egin zen erbestean, futbol zelaian garaipenek ezaugarritzen bazuten ere, milaka ikusleren aurrean egin ere.

FIFAk Espainiako talde ororen aurka partida oro debekatu zituen, baina Euzkadi taldeari Mexikon partidak jokatzeko baimena eman zion sorterrira itzultzeko dirua lortu ahal izan zezanaren argudioaz (Dietschy, 2010: 225). Gainera, 1937ko abenduan Vigon, Espainia frankista ordezkatzeko zuten futbol taldearen eta Antonio de Oliveira Salazarren Portugalen futbol haragitzea zen taldearen arteko adiskidantza partida ontzat eman zuten FIFAk, Franco eta Salazar ikusle zirela izandako partida. Dena den, futbol erakundeak Portugalari ohartarazi zion espainiar taldeen aurkako partidei ezin ziela eman nazioarteko partidaren izatearrik (Ibid., 226). Neutral agertu nahi zuten FIFAk, eta bide batez espainiar estatuak federazio eta selekzio bakarra izan zezala ziurtatu ezin zuten bitartean, herrialde horren ordezkari kentu antzera egin zuten. Mexikotik Euzkadi selekzioa Kubara joan zen, non Espainiako frankisten gertukoa zen Gobernuaren agintepean giro ezkorragoaz aritu behar izan zuten, eta 1938ko otsailaren 25ean Argentinara lekualdatu zen selekzioa, bost talderen aurka partidak jokatzeko asmoz (Estomba Etxepare, 2007: 809). Aitzitik, FIFAk presioa egin zuten partidak jokatzeko talderik aurkitzeko modurik izan ez zezan (Relaño, 2001: 75). Sortu zenetik erakundeak zaindu nahi izan zuten ezaugarria bermatu nahi izan zuten, hau da, estatu eta federazio bakoitzeko selekzio ordezkari bakarra izatea. FIFAk 1938ko irailean euskal jokalariei jokatzeko debekua altxa zien gerra irabazten ari zen futbol federazio frankistaren presioen kalterako, lau asteko epean haien onartutako elkargo batean izena emateko baldintzapean, eta bi jokalarik itzuli zirenean soilik (Dietschy, 2010: 225-226). Erakundeak adierazi zuten ezin ziela futbolearen aritzea ukatu, eta betiko zigortu frankisten mendeko Euskal Herrira itzuli nahi ez zuten futbolariak (Eisenberg et al., 2004: 277).

Argentinan hiru hilabetez jokatu ezinik pasa ostean, eta egonaldia luzatzeko diru gehiagorik gabe, Mexikora itzuli zen selekzioa. Horrela, 1938ko urrian hasi eta 1939an amaitzen zen Mexikoko liga txapelketako talde gisa onartu zuten Euzkadikoa. Bigarren sailkatu zen. Nolanahi ere, Euzkadi taldea propaganda funtsa galtzen ari zela hauteman zuten EAJko eta Eusko Jaurlaritzako politikariek, eta 1939ko udan, Francisco Francoren militar altxatuak Espainiako gerran gailendu eta hilabete gutxitara, Euzkadiko selekzioa desegitea erabaki zuten (Estomba Etxepare, 2007: 814-815). Manuel de la Sota Eusko Jaurlaritzaren ordezkariarekin, eta bereziki 1937tik Euzkadiko selekzioaren ordezkari lanak egin zituenarekin, gutun bidez hausnartu ostean ebatzi zuten (Gotzon, 1998: 124) Futbolari gehienek Amerikan jarraitu zuten jokatzeko, eta baita gerora han bizitzen jarri ere. Beste batzuk itzuli egin ziren futbol bizieran jarraituz, eta Espainian gerra ostean boterea hartu zuen diktadura frankistak ez zien eragozpenik jarri (Relaño, 2001: 74-75). Jules Rimet FIFAREN presidentea zela, Mauro izeneko presidenteordeak frankistak beti sostengatu zituen, eta 1939ko apirilean gerra amaitu berrikan Donostian militar altxatuen aldekoek sortutako futbol federazioa Espainiaren elkargo bakartzat aitortu zezan FIFAK bideratu zuen (Eisenberg et al., 2004: 277). Aipatzeko modukoa da, 1938ko abenduan, Donostian, partida izan zela soldadu frankisten aldekoa, Real Sociedad izena bereganatu zuen Donostiako taldearen eta Espainia frankista ordezkatzeko zuten selekzioaren artean. Egun gutxira *Marca* espainiar kirol kazeta nagusia sortu zen Donostian (Ball, 2010: 87).

Espainiako gerra zibilaren inguruko futbolaren erabilpenari jarraiki, gutxienean ondoriozta daiteke Euzkadi euskal selekzioa Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzat dirua eskuratzeko gizarte bitartekoa izateaz gain euskal nazioaren izaera eta egoera munduan zehar ezagutara emateko baliabidea ere zen neurrian, historian egiazki lehenengo aldiz nazioaren kirol ordezkari batzuek zentzua hartu zuela, areago gerra egoera zailean, eta Eusko Jaurlaritzak Bizkaian estatu burujabearen gisako eskumenak lantzen ari zela. Milaka lagun aurrean bere izatearen berri jakinarazi zuen munduan zehar, baina bere ospea eta Euskal Herriaren ezagutarazpena Bigarren Mundu Gerra aurrean gorabehera baterikoz futbolaz gaindiko nazioarteko multzo kontrajarrien baldintzapean gertatu zen.

5.3-Berrogei urteko Francoren diktadura: futbolaz Espainia batua eta garaitsua azaltzeko erabilpena

Marca kirol hedabidearen 1938ko abenduaren 21eko lehenengo alean Moscardo jeneralak eta frankistek kontrolatutako lurraldeko Kirol Nazio Kontseiluko burua zenak, jakinarazi zuen gerra irabaztean estatuak kirolean izango zuen parte-hartze arautzailea eta esku-hartzailea. Moscardo ezagun egin zen 1936.urtean Toledoko Alcazar gotorleku sinbolikoa Errepublikako indarren aurrean defendatu izateagatik. Moscardo izendatzeak kirolaren erabilpen politikoarekiko erabateko menderakuntza iragarri zuen. Dena estatu agintearen mende izango zela ezagutarazi zuen *Marca*-n, frankisten aldean gudako heroi izateagatik hautatu zuten jeneralak. Futbol elkargoak aginte frankistak izendatuko zituen eta aberriaren mesedetan jotzen zituzten ekimenak hartuko zituzten (Bahamonde Magro, 2002). *Marca*-ren Donostian argitaratutako lehen aletik nabarmentzekoagoa da, Teresa Gonzalez Ajak dioen moduan (2002: 180), Jacinto Miquelarenaren artikulua, urte gutxi batzuk lehenago *Excelsior* euskal abertzale ildoko espainiar estatuko lehenengo kiroleko kazetaren sortzailearena. *Fútbol sin política* goiburuz, bestelako hausnarketa burututa, salatu zuen futbola Errepublika agintaldian erregioen adierazpen banatzaileen agertokia izan zela.

“El fútbol era entonces una orgía de las más pequeñas pasiones regionales y de las más viles. Lo dije claramente. Casi todo el mundo era separatista – y grosero – frente a un match para el Campeonato de España. El bizcaitarrismo se daba tan bien en las gradas de San Mamés como en la tribuna de Chamartín. En la mayoría de los casos, el madridista era un bizcaitarra de Madrid; es decir, un localista, un retrasado mental (...)” (Miquelarena, 1938).

Hitzez hitz artikuluko deitorapenezko paragrafo nagusia itzuli behar izanik gabe, espainiar estatuaren barruan banatzailetzat jotzen zituen talde nortasunen aldarrikapenen aurkakoa da muina, espainiar nazio batuaren eraikuntza erasan egiten zuena. Izenburutik futbolak politika egitea gaitzetsi zuen. Baina Bahamonde Magro historian katedradunak dioen moduan, artikuluan Miquelarenak zehaztu zuen futbolaren izaera eraldatu beharra zegoela. Pasiarik eta gatazkarik gabeko futbola antolatu, aberriaren batasunaren sinbolo iruditatzat balio izan zezan. Hain zuzen ere, kazetariak arrazoitu zuen futbola Errepublika

aldian Espainiaren zatiketa adierazgarria izana zela (Bahamonde Magro, 2002). Erregio izaerako aldarrikapenekin lotzen zuen politikaren erabilpen deitoragarria Miquelarenak, baina nazio batasunaren zerbitzura futbola jartzeak ez zuen politika kutsurik harentzat. Inondik ere jadanik futbola espainiar nazio eraikuntzari eta nazionalismoari alderatutako beste nazionalismoen agerpidea zela ezagutara ematen du Miquelarenaren deitorapenak. Esan nahi baita Espainiako Liga txapelketa, bere estreinako urteetatik, askotariko nazio adierazpenen izatearen zantzua izan dela, aldi berean espainiar estatuaren lurraldetasuna irudikatzen duen bitartean.

Hala, 1939ko apirilaren 1ean frankistek gerra irabazi eta gutxira, futbola oso arin suspertu zen espainiar estatuko beste gizarte alorrekin alderatuta. Bi urtetan Errepublika aroko harpidetza eta ikusle maila berdindu zuten. Arrazoizkoa da Ramon Llopi Goigen argudio bidea, esanez futbolak biziera zailean sendabide moduko ihesbidea ahalbidetu zuela. Frankismoaren erabilpen goiztiarra izan beharrean, Bigarren Mundu Gerra ostean Europako beste herrialdeetan errepikatu zen futbolaren hazkundea gauzatu zen espainiar estatuan 1940ko hamarkada hasieran (Llopi Goig, 2005: 5). Madrilgo Athleticcek izena aldatu zuen, aireko armada frankistarekin bildu zelako, eta horrela, urte batzuetan, 1946 urtea arte, Atletico Aviacion izena hartu zuen. Frankismoak talde horrekin islatu nahi zituen futbolaz desio zituen arrazazko eta batasunezko balioak. Osasunari ligako lehen mailan tokia ziurtatzekotan izan zen futbol federazioa gerran frankisten aldeko Iruñeak izandako adieragatik, baina ondoren, Atletico Aviacionekin sailkapen partida jokatzera behartu zuten, eta Atletico gailendu egin zen (Bahamonde Magro, 2002). Osasuna eta, bereziki, Bartzelonako Español taldeari diktaduraren aldeko irudia zerien, Bartzelonako beste talde nagusiarekin eta Bilboko Athleticorekin alderatuta, horiek urteak aurrera joan ahala euren nazioen ikur eta agerpide bihurtuko baitziren frankismoaren espainiar nazio eraikuntza zurrunaren aurrean (Gonzalez Aja, 2002: 179-180). Frankistek eta kirolaren zuzendaritza hartu zuten falangistek futbolera hedatu zuten estatu frankistak orokorrean abian jarri zuen espainiar nazio eraikuntzaz kanpoko estatuko beste nazioak ezerezteko ahalegina. Hala, Euskal Herriko eta Kataluniako hizkuntza jatorrizkoak mintzatzea eta kultura plazaratzea debekatu zuen gisara, Bilboko Athletici eta Football Club Barcelona izenaz sortu zen taldeari izendapena espainiartzea behartu zieten atzerriko zantzu denez soiltzeko. Munduan zehar askotariko aginteko herrialdeetan, diktadura aginteetan, nahiz bestelakoetan, kaleratutako jokabidea parekatu zuen hartara Espainia frankistak. Euskal taldeak euskal herritarrekin bakarrik jokatzen jarraitu zuen, baina horrek ez zuen aginte

frankista irudiz gehiegi asaldu, espainiarrez bakarrik hornitzen zen talde leiala baitzen beretzat. Taldeen zuzendaritzetan falangistak izatea behartu zuten gainera. Hori horrela, giro falangista ekintzailean barneratu ziren euskal taldeak 1940ko hamarkada hasieran, eta partiden atarian agur faxista egiten zuten horren adierazle (Shaw, 1987: 189). Esan gabe doa, euskal selekzioaren euskal nazioaren hezurmamitza luzarorako ezereztu zela.

Francisco Francoren erregimenaren kirol izaerak Italia faxistarekin eta Alemania naziarekin antzekotasun handia zuen, gutxienean antolakuntza aldetik. Francok 1941eko otsailaren 22an DND *Delegación Nacional de Deportes de Falange Tradicionalista y de las J.O.N.S* zeritzon kirol erakunde nagusia sortu zuen *Movimiento Nacional* izeneko bere mugimenduari hertsiki lotua, zeinak falangistak, karlistak eta monarkikoak biltzen zituen. Erakundearen buru Jose Moscardo jenerala izendatu zuten (Dietschy, 2010: 362-363). Dena den, Alemania nazian Adolf Hitler kirolaren bidez nazio gailentasuna azaldu asmoz dirutza handia erabiltzeko prest zen bitartean, Franco ez (Shaw, 1987: 24). Ildo horretan, futboleak Real Madrilen garaipenak, gimnasian Blumerenak, Bahamontes eta Timoner txirrindularienek eta Santana tenislariarenak, nagusiki, bestela ahula zenaren espainiar estatuko kirolaren egoera estali baino gehiago ez zuten egin. Teresa Gonzalez Ajak dioen moduan, kirol prentsak eginahalak egin zituen DND aipaturiko erakundeari jarraiki, lorpen bakanok goratzeko (Gonzalez Aja, 2002: 185-186). Olinpiar Jokoetako emaitzek, ordea, ez zuten estalkirik onartzen. Diktadurapean Espainiak parte hartu zuen sei ekitaldiotan urrezko domina bakana lortu zuen bere ordezkariak, eta zilarrezko eta brontzezko bina, Italia eta Alemania faxisten gorazarreak berdintzetik urrun. Frankismo garaiko kirola definitu zuen biko alderaketa nagusia futbolak jendetza erakartzeko zuen ahala batetik, eta gainontzean kirol azpiegituren egoera txarra, bestetik, zatekeen (Shaw, 1987: 29). Bigarren Mundu Gerra amaitze aldera Francok bere burua bereizi nahi izan zuen galtzaileak ziren faxismo erregimen kide horiengandik, eta futboleak ere 1945eko irailaren 7an bertan behera utzi zuen partiden atarikoan agur faxista egiteko betebeharra (Gonzalez Aja, 2002: 190). Espainiako selekzioan ere plazaratu zen sinboloen aldaketa. Horrela, Gerra Zibila bukatu eta Bigarren Mundu Gerraren amaiera arte, hau da, 1939tik 1945era espainiar futboleak aro urdina gisara ezagun den urte bitartean, elastiko urdinez jokatu zuen gorriaz ordezkariak bertako selekzioak, erabateko iruditeria faxistan txertatuta. Sei adiskidantza partida izan zituen nazioarteko harremanen nolakotasunaz hertsiki lotuta. Salazarren Portugalen aurkakoak bi, Vichyko Frantziaren aurka bat, Suitza neutralaren kontra beste bat eta Italia eta Alemania adiskideen ordezkariak aurrean gainontzekoak

(Shaw, 1987: 81). Bada, Bigarren Mundu Gerra amaitze aldera hori guztia amaitu zen, nahiz eta erregimenak ezbairik gabe, ez zuen bere aldarre faxista alboratu, estali baizik.

Frankismoaren lehen urteetan kirola zuzentzen zuen falangismoaren helbururik behinekoenak Teresa Gonzalez Ajak ongi jasotzen duen eran, modu honetara laburbildu daitezke. Estatuaren banderapean masa erakartzeko bitartekoa zen, espainiar gizontasun balio usadiozkoak jotakoak adieraztekoa, eta batik bat mundu osoaren aurrean “Espainia berriaren” ahala ikusaraztekoa (Gonzalez Aja, 2002: 189). Espainiako herri ezberdinak batzeko ahalmena zeukala futbolak zilegitzen zuten halaber falangistek (Dietschy, 2010: 367). Nazioarteko kasuak aztertzean ondorioztatu ahal izan ditudan ezaugarrien erakoak dira inondik ere frankismoak baliatu nahi zituenak. Alegia, barnean batasuna hauspotu, eta nazio bereizitasunak egotekotan desberdintasunak ezerezten saiatu, eta nazioartean futbolaz nazioaren gailentasuna aditzera eman besteekin neurtzean. Helburu horretarako frankismoan loraldia hasi zuen kirol prentsak berebiziko eginkizuna bete zuen. Partida ororen atarikoan espainiar nazioarentzat futbol neurketak zeukan garrantzia ikusarazten zuten kazetariak eta “espainiar amorrua” estiloa betikotu nazio kirol erakundetik horrela galdeginda (Shaw, 1987: 80-81). Hala ere, selekzioari dagokionez, eginahal antzua izan zuen Bigarren Mundu Gerra amaitu eta urte luzaroan, frankismoa nazismo eta faxismo erregimen garaituen kideztat zutenez gero, aliatu garaileek nazioartean baztertu zutelako Espainia. Futbolearen ere baztertu zuten bere selekzioari funtsean ezina eragin baitzioten bere ordezkariak zilegitu egingo zuketena nazioarteko partidak jokatzeko nazio taldeak aurkitzea (Gonzalez Aja, 2002: 190). Halaber Real Madrilek eskuratuko zuen urte gutxiren sasoian, 1950. hamarkadan, Espainia frankistaren nazioarteko ordezkariaren erantzukizuna, Espainiako selekzioaren hasierako bakantzeak lehenik, eta gero garaipen bakan batzuek inguratu bakarrik egin zutena. Real Madrilen eta Bartzelonaren futboleko partida kanporaketak espainiar erdiguneko ordezkariaren eta kataluniarraren talka islatu zuen frankismoak aurkaritza zantzu oro erail, erbesterratu edo azpiratua zuen arren.

Espainiak estatu mugez gailendu futbola baliatzeko ezina izan bazuen, bere baitan batasuna irudikatze helburuaren zailtasuna adierazi zuen 1943ko Kopak, Errege Kopa eta Errepublikako Kopa izendatua izatetik Francoren omenez *La Copa del Generalísimo* izendapena hartzera bihurtuak. Finalerdietan Bartzelona eta Real Madril alderatu zituen lehiaketak. Joanekoan 3-0 gailendu ziren kataluniarrak, baina emaitzaz haratago partida inguratu zuen etsaigo giroa izan zen nabarmenena, eta azkenerako politika auzia eragin

zuena. Madrilgo prentsa asaldatu zuen gertatuak. Itzulerako partidari 11-1 gailendu zen Real Madril, jarraitzaile madrildarren arerioenganako antzerako jokabide gatazkatsuan. Phill Ballen arabera, atsedendian estatu segurtasun zuzendariak aldageletan bisita egin zien Bartzelonako jokalariei partida gal zezaten mehatxu erara (Ball, 2010: 24). Zernahi dela ere, Paul Dietschyren ondorioztapenari jarraiki (2010: 367), bi zalegoen eta taldeen arteko ezinikusiak frankistek futbolari esleituriko batasunezko eta adiskidetzazko funtsa amildu zuen. Angel Bahamondek hausnarketa hori berresten du, eta erregimenak atsegin gabekoa izateaz batera, ezustekoa izan zela gaineratzen du. Egoki zehazten duenez gero, gainjarriarazi nahi zuten batasunezko sentimenduaren isla izango zen gatazkarik gabeko futbolaren teoria ezereztu zuen kanporaketa horrek (Bahamonde Magro, 2002). 1948an erregimenak kirol kazetariei galdegin zien partiden garapenari buruz soilki hitz egitea, eta taldeen arteko etsaigoak bizitu egin zituzkeen gertatutako liskarren aipamen guztiak debekatu egin zituen, gatazkarik ez zela itxura eman nahian (Adan Revilla, 1998: 111) DND kirol erakundeak isunak ezarri zituzkien bi taldeei eta presidenteei dimisioa ematera behartu. Real Madrilgo presidente kargua Santiago Bernabeuk hartu zuen, 1938.urtean Kataluniako guda eremuan Francoren alde borrokan aritutakoak (Dietschy, 2010: 367). Bernabeuk 1969an adierazitakoa da “futbolak herrialde honi laguntza handia eman dio” esaldia (cfr.Ball, 2010: 110), gerra zibilaren osteko adiskidetzeari lagundu zuela aditzera eman. Futbola Francoren diktaduraren izaera estaltzeko eta masak apaltzeko baliatua izan zela zantzua adierazi zuen Real Madrilgo presidentek. Konplexuagoa zen, ordea.

5.3.1-Real Madrilgo garaipenak Espainia frankistaren aldekoak

Paul Dietschy historialari frantziarrak babesten du (2010: 363-364) Real Madril erregimenaren talde begikotzat aurkeztu den arren, Kataluniatik sarrienen, diktaduraren estreinako urteetatik bere garaipenak laguntzeko epaileen erabilpenaz eta amarruez ari den teoria okerra dela. Hausnarketa berdina du Duncan Shawk ere (1987: 54). Atletico Aviacion zeritzona zen hastapenean frankisten hurbileneko taldea bihurtu behar zuena, eta lau liga eskuratu zituen 1940ko hamarkadan. Hala ere, aldi horretan futboleko nagusi izan ziren taldeak frankismoaren aurka gerran bereizitasuna hezurramitu zuten Euskal Herriko eta Kataluniako nazioen talde erakusgarrienak izan ziren, Bilboko Atletico eta

Bartzelona. Athleticek liga txapelketa bat eta hiru kopa irabazi zituen. Hala, Dietschyren hitzetan, aski da hori frankismoak lehiaketaren bilakaeran bere politika nahiak betetzeko eragin zuela dioen ikuspegia osoki deuseztatzeko (Dietschy, 2010: 363-364). Bartzelona ere, 1940ko hamarkadan, gerraren ostean, berpiztu egin zen, eta hiru liga txapelketetan gailendu zen (Ball, 2010: 91). Nolanahi ere, 1950eko hamarkadan hasita Bartzelonaren gainbehera gauzatu zen, eta aldi berean Real Madrilen guztizko futbol nagusikoa errotu ere. Futbola eta frankismoa aztertu zituen Duncan Shaw eta arlo bereko ikerlari Teresa Gonzalez Aja bat datoz arrazoibidean esaten dutenean erregimena 1950eko hamarkadan ohartu zela, hots, futbola jadanik bere ekimenik gabe gizarte ikuskizun nagusia zenean, kirol horrekiko herritarren lilurak baketzeko eta jendetza aldarrikapenetatik urruntzeko eskaintzen zion ahalbidez (Shaw, 1987: 110). Telebista 1956ko urrian era berantiarrean espainiar estatura heldu zenean hauspotu ahal izan zuen egiazki erregimenak futbolaren lilura eta bere onerako baliatu (Gonzalez Aja, 2002: 201). Bada, ikerlari horien argudio bidea ontzat emanda, nabarmendu behar da behintzat, frankismoaren erabilpenaren eta Madrilgo futbol taldearen guztizko nagusiagoaren arteko denborazko uztarpena, kausa ondorio harremana egon zitekeenaren aukera begiztatzeaz bederen ohartarazten duena.

Real Madrilek eta beste hainbat futbol taldek ikuskizunaren industria sorrarazten lagundu zuten kirol hedabideez, kazeta eta irratiez hasieran, lagunduta. *Marca* egunero 400.000 ale saltzera heldu zen. Zinemak, antzerkiak, herri literaturak halaber, besteren artean, jendetza mendean hartzea, baketzea bailitzan ulertarazia, eta gizarte edo politika aldarrien tentaldia izatetik jendetza urrunarazteko funtzioa zuten (Dietschy, 2010: 371). Frankismoa ezaugarritu zuen ihesbidearen kulturaren alderdietako bat zenaz soilik hartu behar da futbola, Duncan Shawk oroitarazten duenari jarraiki (1987: 97). Partida ororen berri aldi berean ematen zuen *Carrusel Deportivo* irratsaio ospetsuaren sorrerarena eta kiniela apustuena izan zen 1950. hamarkada, futbolaren areagoko loraldiarena. 1959ko otsailean ildo horretan, 6.000 telebista hargailu inguru saldu zituzten Bartzelonan, Real Madrilen estadioan futbol taldeak jokatu behar zuen partida ikusteko irrikak bultzatuta. Hirian 5.000 telebista hargailu zeuden partidaren emanaldiaren iragarpena baino lehen. Hedabidea zabaltzen lagundu zuen futbolak espainiar estatuan ere (Relaño, 2001: 112).

Mundua Gerra Hotzean bitan zatitu izanak Espainiak nazi eta Italiako faxistekin izandako lotura ahantziarazi zien aliatuei, eta batik bat AEB Ameriketako Estatu Batuei. Horrela, Espainiaren nazioarteko bakantzea arindu zuten, eta mundu harremanen baitan

mugitzen zen futbolearen ere. 1950eko Brasilgo Munduko Kopan parte hartu zuen nazio taldeak, baina Teresa Gonzalez Ajak dioen moduan, FIFAk arretaz antolatu behar izan zituen multzoak etsaitutako herrialdeen ordezkariak zuzenek elkarrekin topo ez egiteko (Gonzalez Aja, 2002: 197). Espainiarrek irritati bitartez zuzenean jarraitu ahal izan zuten lehen lehiaketa nagusia izan zen, eta Matias Pratsen irritati emankizuna nazio oroitzapena bihurtu zen, Herbert Zimmermann esatari alemaniarrek 1954ko Munduko Kopari buruz eginikoa Alemanian izan zen antzera. Zarra Bilboko Athleticoren jokalaria Ingalaterrari sartu zion golagatik oroitu da lehiaketa hori, milioika espainiarrek baztertu egin zituen Ingalaterraren kontra futbolearen mendekuaren parekoa hartu zutelako (Ball, 2010: 169). Matias Pratsen partida osteko elkarrizketan Armando Muñoz Calero Espainiako futbol elkargoko buruak Francori luzatu eskaintza gogoratzekoa da ildo berean: “*¡Excelencia! ¡Hemos vencido a la Pérfida Albión!*” esan zuen hark, garaipena nabarmentzeaz batera Ingalaterra iraintzeko erabiltzen den esamoldea baliatuta. Ingelesek protesta egin zuten, eta Muñoz Calerok dimisioa eman behar izan zuen (Relaño, 2001: 92). Frankistek itxura ona eman nahi zutenaren adierazgarria da Ingalaterraren presiopean hartutako ebazpena. 1962ko Munduko Kopan lau jokalaria atzerritarrekin jokatu zituen Espainiako selekzioak – zilegia zen ordu arte – partidak, baina porrot egin zuen edonola ere (Shaw, 1987: 27).

Nazio taldeen arteko 1964ko Europako Koparen bigarren ekitaldian Espainiako selekzioak erdietsi zuen garaipena izan zen maila horretan frankismoaren futbol lorpen handiena, aurrerantzean lau hamarkada baino luzaroagoan espainiar nazio selekzioaren garaipen bakarra izandakoa. Madrilen ospatu zen, baina orduan final atarikoak eta finala hartzen zituen bakarrik herrialde antolatzaileak. SESB Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko selekzioari finalean 2-1 irabazita eskuratu zuen Europako Kopa. Espainian ekitaldiaren bukaera jokatzeko eta Jose Solis Ruiz frankismoko ministro idazkariak eta kirolerako eleduna zenak konbentzitu zuten Francisco Franco SESB Sobiet Batasuneko ordezkariaren kontra bazen ere, jokatzeko egokitasunaz (Ibid., 120). Izan ere, lau urte aurretik, Europako Koparen lehen ekitaldiaren final laurdenetako kanporaketan SESBen ordezkariaren aurka lehiatzea galarazi egin zuten erregimenak Espainiako nazio selekzioari jokalariei, Bigarren Mundu Gerran nazien alde Errusian borroka egin zuten espainiarren Siberiako erbestea gogora ekarrita, eta taldeak lehen Europako Kopa utzi zuten ondorioz (Dietschy, 2010: 357). 1964ko udan bestalde, garaipenaren biharamunean *ABC* kazetak futbol garaipena eta erregimenaren aldeko nazio adierazpena uztartuz nabarmendu zuen. Eurovision Europako telebista sare berriaren bitartez munduko milioika biztanlek Real

Madriren estadioan bildutako askotariko izaerako 120.000 lagunek Francori eman zioten txaloaldia ezagutu ahal izan zutela goratu zuen. Halaber, diktadurak ia mende laurdena betetzen zuen garaian frankismoak 25 urte horietako sostengu adierazpen handiena jaso zuela gaineratu zuen *ABC*-k, eta Europako Kopako finalean espainiarrek plazaratu zuten jokabide ona eta sobietarrekiko begirunea goratu espainiar nazioaren izaera onaren isla (*ABC*, 1964).

Nolanahi ere, esan bezala, frankismoa futbolaren balioaz ohartu zen aldi berean Espainiako klubek arteko lehia erabat gailendu zen Real Madriren lorpenak izan ziren espainiar selekzioaren aldizkako uneez gaindi nazio harrotasuna bideratzea ahalbidetzen zutenak. Erabakiorra izan zen Alfredo Di Stefano aurrelari argentinarra Real Madrilera jokatzera joatea. Historiako jokalaririk onenen artean aitortua den futbolariaren jokoarekin 1953tik aurrera Real Madrirek hurrengo hamazazpi liga txapelketetatik hamabi irabazi zituen, eta atzerrian taldearen ospea eta Espainiarena oroz gain zabaldu zuten, eta sortu berria zen, klubek arteko bost Europako Kopa lortu ere. Santiago Bernabeu presidentek eta Real Madrirek zerikusituzena izan zuten, *L'Équipe* egunkariarekin batera, klubek arteko Europako Koparen antolakuntza (Ball, 2010: 109). Bartzelona ere Di Stefanoren fitxaketa lortzen saiatu zen aldi berdinean, Hungariatik ihes egin zuen Ladislao Kubala aurrelariarekin batera talde boteretsua eratzeke. Kontaketa kontrajarriak daude azkenean Di Stefano Real Madrilera bultzatu zuten baldintzei buruz. Alfredo Relaño kazetariaren esanetan, okerra da frankismoak espainiar ordezkariak zuzenena hobaritzeko fitxaketan eraginik izan zuela dioen zabaldutako ustea (Relaño, 2001: 107-108). Phil Ballen ustez oster, litekeena da erregimenak parte-hartze zuzena izan zuela Di Stefanoren fitxaketa gorabeheratsuan eta erabakigarrian (Ball, 2010: 114-115). Zernahi izanda ere, atzerriko futbolari izarrak zelairatzen zituen Real Madrirek Espainiaz, politikoki eta ekonomikoki ahuldutako herrialdeaz, bestelako irudi baikorra hedatu zuen aurrerantzean nazioartean. Horren adierazgarri dira Jose Solis kirol arduradunak 1959ko urriaren 21ean futbolariak eskaini zizkien laudoriozko eleak, Real Madril Luxenburgora Europako Kopako partida jokatzera joatean. “Gorrito zigun jendeak zuei eskerrak orain ulertu egiten gaitu, zeren hainbat harresi eraitsi dituzue zuek... Zuen garaipenek bidezko harrotasuna sortzen dute espainiar guztientzat, aberriaren barruan nahiz kanpoan” (cfr. Dietschy, 2010: 370). Ildo horretan, Teresa Gonzalez Ajak, besteren artean, ezbaian jartzen du Real Madril zuzen zuzenean frankismoarekin uztartzen duen abiapuntua. Futbola eta Real Madril Espainia frankistaren irudi txarra hobetzen ekarpen handiena egin zutenak direla argudiatzen du,

edonola ere (Gonzalez Aja, 2002: 199). Arrazoizkoa da modu berean Eduardo Gonzalez Callejaren arrazoibidea ere. Mende beteko historian Real Madrilek begirunezko jarrera izan duela boterearekiko argudiatzen du, agintea zernahi gisakoa izanda ere, monarkia, errepublika, diktadura nahiz demokrazia garaian, eta aro horietako bakoitzean hartara, askotariko politikariekin harremanak landu dituela (Gonzalez Calleja, 2007: 307). Iritzi hori bateragarria da Argentinan eta Uruguain esaterako diktadurak nazio taldeaz eginiko erabilpenaren gainean lehenago ondorioztatuarekin. Alegia, nahiz eta erregimenek euren hobarirako futbol selekzioen garaipenak nazioarentzat berebizikoak bailiran goraiatu zituzten, egiazki euren aginteaz haragoko uztardura izaten zela futbolaren eta nazioaren artean. Bada, antzerakoa esan daiteke Real Madrilez eta frankismoaren erabilpenaz.

5.3.2-Espainia nazio anitzaren futboleko iratzarpena 1960ko hamarkadan

Teresa Gonzalez Ajak dioen moduan (2002: 200), ez da harritzekoa futbola izan zedila 1960ko hamarkadan espainiar estatuaren barruko nazio adierazpenak agertu ziren eremua. Argi utzi behar da iratzarpena urte horietan hasi zela, aurreko bi hamarkadetan Francoren aurreko oposizioa ezereztua baitzegoen. Bidenabar, Real Madrilek haragitzen zuen espainiar nazio identitatearen adierazpenari Katalunian Bartzelona taldea alderatu zitzaion, eta Euskal Herrian Athleticena eta Realarena. Horrenbestez, futbolak hasieratik adierazi zuen espainiar estatu nazio anitzaren izaera berragertu zuen diktaduran irekiera hala nolakoa gertatu eta berehala. Espainiako estatu nazioaren zilegitasuna eta inguruko nazioena kontrajarri ziren, gaur eguneraino heldu den joeraren adierazle. Duncan Shawk aztertutari jarraiki, lehenago frankismoarekin lerratuta behar zuten klubak zuzendaritzan belaunaldi aldaketa izan zen. Hori horrela, Katalunian eta Euskal Herrian apurka-apurka azaleratzen hasiak ziren politika eta kultur mugimenduak sostengatzeko nahia zeukaten klubak buruzagiak sartu ziren. Are gehiago, 1960ko hamarkada amaitzerako Real eta Athleticen zuzendaritzak hein handi batean EAJ Eusko Alderdi Jeltzalearen inguruko negozio gizonen hornitu ziren. Argigarria da bada, Shawren ondorioztapena, futbolaren politika funtsa frankismoaren aurkako norabidean eraldatzen hasia zela adieraziz (Shaw, 1987: 186, 192). Jimmy Burns Marañonek ildo berean, honela definitzen du *Barça* gisa ezagun den Bartzelona taldeak hartutako adiera politikoa, alderdi askotakoa:

“Atzerritarrek sortua izanagatik, taldea oso azkar kataluniar izaera garatzeari lotu zitzaion, klub soila baino askoz gehiago izateraino. Erakundeak gizarte klase guztietako eremuak barneratu zituen, eta immigrante belaunaldi osoen integrazioa erraztu zuen. Francoren aldiaren erregimenarekin kolaboratu zuten zuzendariak izan ziren, baina gizarte masak ez zion inoiz utzi kluba hartzeari Kataluniako usadiozko balioen azken gotorlekua bailitzan. Politika Barçaren zainetan zabaltzen da hunkipenezko energia bizigarri gisara, eta hori da herri baten pasioa bihurtzen duena” (Burns Marañon, 1999: 430)

Chris Kennettek halaber, frankismoan, Primo de Riveraren diktaduran hauteman zitekeenez, Bartzelonaren Kataluniaren ordezkari bizitu zela nabarmentzen du. Izan ere, osterantzean debekatuta zegoen katalanez mintzatzea eta Kataluniako sinboloen eta banderen haizatzea ahalbidetzen zuen Camp Nou estadioak (Kennett, 2006). Futboleko estadioa agintearen kontrajarritako aburuen iritzi askatasuna bermatzeko gotorleku erara epai daitekeela berresten du espainiar estatuko adibideak ere zentzu horretan. Kennetek ere azpimarratzen du taldeak frankismoan Kataluniara heldu ziren milaka espainiarrak integartzeko zeresan giltzarria izan zuela. Esan nahi baita, Bartzelonarekiko zaletasuna agertzeak gizarte onarpena aisetzen zuela, gaur egunean espainiar estatu kanpotik joaten diren etorkinekin gertatzen denez. 1974koa den taldearen ereserkian gogoratzen da hori: *“Tant se val d’on venim, si del sud o del nord, ara estem d’acord, estem d’acord, una bandera ens agermana – Ez du axola nondik gatozen, hegotik edo iparretik, orain ados gara, bandera batek batzen gaitu –. Katalana ikasteaz batera norbera bertakotzat onartua izateko, horkoek kataluniarizat aitortua izateko, bigarren ardatza zen (Crolley eta Hand, 2002: 132). Ildo horretan, Barça taldeari esleitu izan zaion estaturik gabeko nazioaren enbaxadorearen izaera frankismoaren bigarren aldiaren hezurmamitu zen nagusiki. Zinez ez da harritzekoa, Shawk azalduaz bat etorrita, Katalunian nahiz Euskal Herrian euren nazioen eta kulturen bestelako adierazpen oro – hizkuntza mintzatzea, literatura egitea, banderak plazaratzea erreprimituak izaki – ia erabat ezereztua zenean kirola bizigarritzat aritu izana (Shaw, 1987: 183). Kontrajarria da Phill Ballen hausnarketa. Bere esanetan, Franco konturatu zenean espainiar estatuko aniztasuna menderatu bai baina deuseztatu ezina zuela, eta futbolaren erabilera aintzat hartu zuenean, hau erabili zuen kataluniarrek politika aldarriak egiteko ihesbidea izan zezaten, eta frankismoarentzat egiazki mehatxu handia izan gabe era horretara asebeste zitezten (Ball, 2010: 110-111). Futbolaz jendetza lokarazteko eta funtsezko politika aldarrietatik urruntzeko erabilpenaren argudiobidea*

da hori, baina beheratu egiten du futbolak sortutako nazio adierazpenaren adiera, kanpo etsaiaren aurrean nazioa elkartzea ahalbidetzen zuena gainera.

5.3.3-Frankismoaren amaiera: Bartzelonaren garaipen sinbolikoa Madrilen eta Realaren eta Athleticen arteko ikurriñaren jende agerpena Donostian

Zentzu horretan 1974.urteko otsailaren 17an Bartzelonak Real Madril etsaia 0-5 irabazi izanak partida soilez zinez gaindiko adiera izan zuen Katalunian, frankismoaren amaiera antzematen zen politika eta gizarte giro aldakor eta gorabeheratsuan. Aspaldian deus irabazi gabe zegoen Bartzelona, eta Johan Cruyff izar holandarraren parte-hartzeaz Espainiaren sinboloa zen Real Madril luzaz azpiratu izanak komunitatearen zorientasun kolektiboa eragin zuen gaueko orduetan. Adin guztietako jendea, emakume zein gizon, kaleetara atera ziren ospatzera, eta Kataluniako bandera hori gorriak Bartzelonako gorri urdinei gainjarri zitzaizkien, eta jendetzak *El Segadors* Kataluniako ereserki debekatua abestu zuen (Alcaide Hernandez, 2009: 59). Hain zen handia futboleko garaipen hutsak gizartean eragin zuen nazio nortasunezko oihartzuna *New York Times* egunkariko berri emaileak modu honetara plazaratu zuela: Cruyffek gehiago egin zuela laurogeita hamar minutuan Kataluniako nazioa suspertzeko politikari askok frankismotik gordean urtetan eginiko ezkutuko lanak baino (cfr.Burns Marañon, 1999: 273). Orduetik urte asko igaro diren arren, holandarrak gogoan du 1974ko Espainiako liga txapelketa irabazi zutenean, jendeak kalera irteteen garaipenagatik “zorionak” esan beharrean, “eskerrik asko” esan ohi zuela (Saura, 1999). Bartzelonaren garaipenak Kataluniaren ordezkari gisara sortzen zuen sentipenaren aztarna agerikoetakoa da hori. Ramon Llopis Goigi jarraiki, futbolari atzerritar izarren etorrerak Real Madrili erronka bota nahian, 1990. hamarkada bitartean arrakastarik eskaini ez bazion ere, Bartzelona Kataluniako nazio taldea bihurtu zuen, eta herrialde horretako erakunde garrantzitsuenetakoa ekonomia eta gizarte arloetan (Llopis Goig, 2005: 6).

Euskal Herrian, Realean eta Athleticen, bi taldeetako zuzendaritzek atzean utzi zituzten diktadura hasierako harreman txarrak. Shawren hitzetan, probintziarekin lotura sustraitu nahi zuten falangismoarekin lerratutako hasierako klubetako buruek, eta euskal

izaera orobat estali. 1970eko hamarkadan, euskal nazionalismoaren berpizkundearekin uztartuta, bi zuzendaritzen arteko hartuemanak hobetu egin ziren. Testuinguru horretan, Jose Luis Orbegozo Realeko presidentek 1967an partiden txartelak gazteleraz ez ezik, euskaraz ere jartzea erabaki zuen besteren artean, eta jokalaria euskaraz ikas zezatela bultzatu zituen (Shaw, 1987: 191, 193). Athleticen bitartean, urte horietan zabaldu egin zuen bertako jokalariekin bakarrik aritzeko nortasun izaera, eta bere taldea ordezkatzeko modukoak izendatu zituen euskal probintzietan jaio ez, baina urte gutxirekin hara joan zirenak ere (MacClancy, 1996a: 184). Kataluniara bezala, Espainiatik Euskal Herriraino joandako immigranteen integrazioari egokituko zitzaion horrela, euskal nazionalismoak, edo zehatzago, horren aldaera ezkertiar berriak, egin zuen modura. “*Aupa Athletic, que ya nos entendemos* esan ohi zuten Athleticen zaleek euskal nazionalismoaren berpizte garaian. Athletic sostengatuta Bilboko taldeaz gaindiko, eta legez kanpo jota zegoenez, kalean adierazi ezina zen, euskal nazioaren aldeko atxikimendua aditzera ematen zutela partekatzen zuten jarraitzaileok. Futbol zelaian era berean, Jose Anjel Iribar Athleticen atezain ospetsuak, eta ordu arte espainiar estatuan atezain onena zela aitortua izateagatik eta Espainiako selekzioan aritzeagatik ligako estadio guztietan miretsia zenak, diktadura haserretzeko moduko hautu politikoa egin zuen. Taldekideak konbentzitu zituen eskuko beltza eramateaz Granadan jokatuako partidari, Francok, hil baino bi hilabete lehenago 1975eko irailaren 27an fusilatzen agindu zuen ETAko bi kideen eta F.R.A.P.eko hiru ekintzaileen omenez. Prentsaurrean keinua mozorrotu egin zuen argudiatuz urte bat lehenago data horretan bertan hil zen Luis Albert taldeko zuzendaritzako kidearen alde eginiko omenaldia zela (Shaw, 1987: 193). Sasoi horretan bertan Iribarrek uko egin zion Espainiako selekzioarekin 50. partida izango zena jokatzeko gonbiteari. Aurrerantzean, Espainiako estadioetan txistuka hartu zuen jende askok, ordu arte miretsi egin bazuten ere (MacClancy, 1996a: 193). Iribarrek ukoa erabaki zuela ezeztatu zuen egiazki, azaldu zuen batzuek hori bere lekua gehiago ez zela ebatzi zutela. Ignacio Kortabarria Realeko kapitaina zenak behin bakarrik jokatu zuen espainiar nazio taldearekin eta etorkizunean ez zen gehiago joan. Phill Ballen ustez, litekeena da Kortabarriak uko egin izana berriro jokatzeari (Ball, 2010: 164).

Dena dela, bi euskal taldeetako kapitainek, Iribarrek eta Kortabarriak, esangura handiko adierazpen politikoa egin zuten Reala eta Athleticen artean Donostiako Atotxa estadioan 1976ko abenduaren 5ean jokatu zuten partidari. Artean ikurriñak legez kanpo jarraitzen bazuen ere, milaka zaleren jendartean nazioaren bandera eskuetan zirela atera

ziren zelaira bi kapitainak, beste denak atzean zituztela. Daniel Gomez kazetariak dioen moduan, keinuaren politikazko esanahia ezeztazinekoa da, milaka lagun hunkipena sortu baitzuen debekuzko lau hamarkada ostean euskal bandera publikoki agertu izanak. Espainiako Gobernuak 1977ko urtarrilaren 19an legeztatu zuen ikurriña (Gomez, 2007: 63). Hori horrela, futbolariek euskal nazioaren sinboloaren berreskuratzea aitzinetu zuen. Iribar atezainak eta Roberto Lopez Ufarte Realeko aldi hartako jokalariek 2011n *El Pais* Espainiako egunkarian egindako elkarrizketan kontatu zuten Donostiako taldearen ideia izan zela ikurriña ateratzearena, eta Iribarrekin, Athleticen kapitainarekin, guztia adostu ostean, Bilboko taldeko gainontzeko futbolarien aho bateko oniritzia lortu zutela legez kanpoko izanagatik ikurriña agertzeko (Iribar eta Lopez Ufarte, 2011). Euskal Herriko bi talde nagusietako jokalarien artean harreman estua zela adierazi zuten, zeina zetozen urteetako ezaugarria izango zen.

Euskal Herrian bezala, Katalunian ere bai, Bartzelonan, 1979an Barçak Suitzako Basilea hirian irabazi zuen Kopako txapelaren Europako Kopa tituluak zuen esanahia goraiatu zuen Josep Tarradellas erbestetik itzultako eta oraindik berezari gabekoa zen Kataluniako Generalitateko behin behineko presidentea. Bartzelonarentzat lorpena ez ezik, historian ataka erabakiorrean zen Kataluniako nazioarentzat garaipena zela azaldu zuen (cfr. Burns Marañon, 1999: 352). Camp Nou Barçaren estadioan zaleen gehiengoak hasi zen frankismo aldiaren gutxiengoak haiztzen zuen *senyera* kataluniar nazio bandera astintzen eta *Els Segadors* nazio ereserkia abesten. Euskal Herrian, eta baita Katalunian ere – azken honetan gaur egun hein batean leundu duen jarrera espainiar zalea mantendu zuen Español taldeak, eta katalanerazko Espanyol deitura hartu duenak – errepikatu egin zen 1936 eta 1937 urteetako demokraziaren eta nazioen autonomiaren aldeko aldarrien adostasuna taldeetako zuzendaritzen, futbolarien eta jarraitzaileen artean (Shaw, 1987: 194). Nazionalismoen berpizkundearen garraibidea izan zen kirola diktadura agintetik demokrazia ereduko monarkiarako igarobidean, Euskal Herrikoa eta Kataluniakoaz gain espainiar baterazlearena. Futbol partidak identitate kolektiboen norgehiagokaren tarreak izan ziren are eta biziago. Horrez gain, estaturik gabeko nazioen futbol zelaiaren baitako nazionalismo keinuak aldatu ziren jazaritutako abertzaletasunaren sinbolo izatetik, garai berrian autonomia, burujabetasuna eta independentzia galdegiteko adierazpenak izatera (Castañon Rodriguez, 1993: 69). Estadioak diktaduran estalitako politika aldarrikapenak plazaratzeko eremu aproposak ziren trantsizioetat ezagun den aldi politikoan, eta jarrera hori mantendu egin da gaur egun arte espainiar estatuko zelaietan. Katalunia eta Euskal

Herrian bereziki. Euskal Herrian zehazki independentziaren aldeko oihuak eta Espainia eta Frantziako espetxeetan urrunduta dauzkaten ETA talde armatuaren presoen Euskal Herriratzearen aldekoak, besteren artean.

Hala, ondoriozta daiteke nahiz eta frankismoa lau hamarkadetan ahalegindu zen espainiar estatuaren barruko nazio bereizitasunak espainiar estatu nazio eraikuntzarekin gainjartzen, 40 urte igaro ondoren eta bi belaunaldi tarteko, futbolak hastapenetik islatu zuen nazioen arteko alderaketa betikotu zuela berriro ere. Zernahi izanda frankismoaren nahia, hau da, futbol estadioetan gizartean oro har baino gehiago politika aldarrikapenak onartuta bestelako kaleko ekimenetatik jendea aldenaraztea eta lokartzea, nahiz nahitaez onartu beharreko estadioetako askatasunen ohiko gotorleku mundutiarra izan arrazoia – neroni bigarren aukerarekin hurbilago nago, lehen hamarkadetan diktadura, menderatze ahalmena izan zuen arte gutxiengoaren oposiziozko keinuak zapaltzen ahalegindu baitzen – ez zuen futbolaz helbururik erdietsi erregimenak, ez Real Madrilen ez eta Espainiako nazio taldearen balentriak hedabideez muturrera eramanda. Estatu nazio batek barneko estatuen izaera azpiratzeko futbola baliatzearen mugez dihardu gertatuak, edota aurkako alderditik erreparatuta, nazioak ordezkatzeko zituzten estaturik gabeko taldeen helmenaz.

5.4-Demokrazia ereduko konstituzio monarkiak ez du nazio aniztasuna aitortzen, futbolak oster, bai

Ramon Llopis Goig soziologoaren argudio bidearekin bat etorrita, nabarmendu behar da, batez ere 1978ko Espainiako Konstituzioak horrela aitortu ez zuelako, estatua ezaugarritzen duen nazio aniztasunaren agertokia izan zela futbola 1980ko eta 1990eko hamarkadetan estadioetako harmailetan, eta gaur egun arte ere ildo berean. Estatu eredu berriak bere barruko kultur aniztasuna onartu zuen, baina ez nazio mailan. Soziologoak gaineratzen du futbol eremua inguru plurala eta konplexua bihurtu zuela, eta hainbatetan atxikimendu kontrajarri bide eman ziezaiekeena, beti ere estatu nazioaren ildoko nazio nortasuna ezerezteko arriskurik gabe (Llopis Goig, 2005: 7, 8). Estatu nazioaren aurrez aurreko beste nazioen agerpenari jarraiki, 1979an euskal selekzioaren bersorrera gertatu zen, frankismoaren osteko euskal lurralde autonomoaren izendapen berdinez ariko zena: Euskadi deituraz. Sustriak elkarteak bultzatutako “Bai Euskarari” kanpainaren barruan

San Mames zelaian Euskadiren eta Irlandaren arteko futbol partidak biribildu zuen jai. Nahiz eta Espainiako Gobernuak politika eta administrazio oztopoak jarri, futbol partida burutu zen, eta Euskadik 4-1 irabazi zuen. Karlos Garaikoetxea, Eusko Jaurlaritzaren sortu aurreko Euskal Kontseilu Orokorreko presidente kargua zeukanean, asaldatuta joan zen agintarientzako harmailetik, Espainiako Gobernuak debekatu zuelako *Gernikako Arbola* Euskadiren ereserki gisara hautatutakoa partidaren atariko ekitaldian jotzea. Ondorioz, Irlandakoaz gain Espainiako ereserkia entzunarazteko eginbeharra ez betetzeko, bata ez bestea ez jotzea erabaki zuten. San Mames estadioa bete egin zen ia, Arkonada, Iribar, Zamora, Dani eta abarrak Euskadi ordezkatzeko ikusteko (Gotzon, 1998: 131, 134).

Gero Sustraiak elkarteak Donostian eta Gasteizen antolatu zituen futbol partidak hurrena, eta euskal nazio selekzioak Bulgariari 4-0ko emaitzaz irabazi zion lehenik, eta 1-5 Hungariaren aurka galdu ostean. Lehenean Osasunak errefusatu egin zuen Euskadiri futbolariak uztea. Nafarroa barnean hartu edo ez hartu eztabaida politikoa eraginik ez zuela izan nahi argudiatu zuen, baina funtsean erabaki horrekin izan zuen. Bigarrean, Gasteizen 1980ko denboraldi aurreko sasoiaren jokatuak, Realak uko egin zion egokiera horretan Euskadiko selekzioari futbolariak uzteari (Ibid., 137, 139, 141). Galera ikusita, emaitzan eragin zuenik ezin uka. Realak eta Athletic 1980ko hamarkadako lehen zatian nagusi izan ziren, Realak bi liga lehiaketa irabazi baitzituen eta Athleticek beste bi gero.

Euskal taldeen artean euskal herritarren anaitasuna atzeman zitekeen, 1983-1984 futbol sasoiaren esate baterako, Peio Uraldek Realeko jokalaria zela, Athleticen aurka San Mamesen gola egin eta Bilboko taldeak liga txapelketa eskuratzea arriskuan jarri zuela, Donostiako taldean inork gutxik ospatu izanean. Amaieran Athleticek 2-1 irabazi zuen, eta liga txapelketa eskuratu horrenbestez. Dena dela, Santiago Segurok kazetariak uste du hedabideetatik Donostia eta Bilboko taldeen arteko bereizketa eta etsaigoa hauspotu eta sortu zutela (Leguineche et al., 1998: 96). Donostiako prentsari leporatzen dio gaur egun *Marca* egunkarian idazten duen Barakaldoko zuzendariordeak probintzia gorrotoa dei dakiokkeen indartu izana eta euskal herritarren arteko kidetasuna erasatea ondorioz. Zernahi dela, XX. mendearen lehen herenean eta frankismoan ere gertatu zen bereizketa izan zen futboleko euskal herritarren artekoa, euskal selekzioa bezalako batasun uneekin bizikidetzen zuena nahiz politika ekimenekin. Futbolak bereizi eta elkartu egin ohi ditu nortasunak alderaketa eta egokiera bakoitzean, eta Espainiako liga txapelketan oroz gain Euskal Herriko bi talde nagusiei dagokionez, probintzia edo lurraldeen talde nortasunak

azpimarratzen eta ezberdintzen ditu, euskal nazioa irudikatzea baino gehiago. Bilakaera horretan, gainera, bidelagun dituzte probintzia mailako egunkari nagusiak, zeinak euskal nazio nortasuna irudikatu ordez, lurralde bakoitzarena eta Espainiako estatu nazioarena plazaratzen dituzten, bertako selekzioak jokatzeko duenean adibidez. Honela, Espainiako liga txapelketak, estatuaren lurraldetasuneko liga antolamendu eta partidekin hornituta bere baitako nazioak espainiar egiten al ditu edo osteraz nazio horiek bere bereizitasuna ager dezaten lehentasuneko eremua al da? Ihardespena konplexua da eta Jugoslavia eta SESB bezalako hurbileko estatu nazio anitz ohien adibideak eskaini ahal du hala nolako lortzea. Bai batean zein bestean estaturik gabeko nazioak ordezkatzeko zituzten taldeek nazio nortasunen arteko neurketak haragitu zituzten futbol zelaian eta nolabait etorkizun ildoko banaketa politikoa aitzinetu eta iradoki zuten. Espainiako Ligan ere bereziki Real Madril Bartzelonarekin eta Euskal Herriko taldeekin alderatzean, eta Bilboko Athleticen eta Donostiako Realak kanpoan jokatzeko dutenean, zaletuen artean azaleratzen da argiki nazio nortasunen sinboloak diren neurrian, horien arteko alderaketa. 1998ko abenduan Atletico Madrileko zale talde batek Aitor Zabaleta Realeko jarraitzailea labankadaz erail izana, Euskal Herrikoa izate soilagatik, futbolaren baitan batzuetan muturrera eramaten diren nazio nortasunen alderaketen zantzu ezin ezkorragoa da.

Nolanahi ere, ez da ahantzi behar Realak eta Athleticen bereziki, eta baita neurri txikiagoan Osasunak – zeinak Nafarroako Foru Erkidego bereizituko Iruñea hiriburuan jokatu arren, futboleko euskal taldeetat hartzen duten askok euskarazko deiturari jarraiki – eta Alavesek espainiar taldeekin partidak jokatzean euskal nortasuna agertzen badute ere, euskal futbol klubak urte askotan gatazka politikoan etsaitutako jendea atxikimendu beraren inguruan bateratzeko gai izan diren izate konplexuak direla. Ibon Zuazo Iturbek modu horretara, Athleticen gizarte esanahiaz egin zuen doktorego tesian arrazoitu zuen talde horrek igande guztietan bertan elkartzeko diren izaera kontrajarrikoak adiskidetzeko miraria ekoizten duela (Zuazo Iturbe, 2000: 384-385). Ez dira, sortzez ere ez ziren izan, euskal abertzaletasunaren esparruak. Aldi berean, ordea, espainiar taldeekin lehiatzean, Espainiako zaleek espainiar harrotasun mezuak nabarmendu egiten dituzte beren aurka.

1980ko hamarkada hasieran, euskal taldeak Espainiako ligan gailenenak zirenez, euskal jokalarik asko joan ohi ziren Espainiako selekzioa. Horrela, 1982an Luis Miguel Arconada Realeko atezainak estatuaren armarririk eta koloreak zituen nazio selekzioaren galtzerdiak ipintzeari uko egin zionean, eztabaida politikoa eragin zuten hedabideetatik.

Arconadak argudiatu zuen Realeko galtzerdi zuriekin jokatzeari nahiago zuela, eta gerora ez zuen aurkaritzarik adierazi taldeko kapitain izatearen Espainiako eskukoa eramateko. Espainiar estatuan antolatu zen 1982ko Munduko Kopan selekzioak emaitza txarra izan zuen. Lehen ligaxkaren ostean orduan antolatuta zen bigarren ligaxkan kanporatu zuten. Frantziako 1984ko Europako Kopan, ostera, bigarrena izan zen Espainia, Frantziarekin finalean galduta. Txapelketa horretarako sailkatzeko, nazio taldeak Maltari 12-1 irabazi behar izan zion, hots, hamar gol baino gehiagoko aldeaz gailendu, Phill Ballen hitzetan Espainiaren nazio kondairen artean bilduta dagoen partidari (Ball, 2010: 173).

5.4.1-Euskal klubaren salbuespena: euskal futbolariak nagusiki hornitzea, osaketa, talde identitate iturria

Taldearen osaketa eta plazaratzen duen estiloa izan ohi dira gardenen herritarrekin identifikazioa sortzen dutenak. Euskal Herrian taldeak bertako jokalariekin hornitzea era bereizgarrian lehenetsi dute klubek beren nortasun iturri gisa. Bestalde, nazio nortasuna hezurmamituko zukeen euskal estiloaz behinola baino gutxiago aritzen dira kazetariak, euskal selekzioari buruz aritzean adibidez (Crolley eta Hand, 2006: 132). Ingalaterran sorburua zuen joko zuzen eta irmoak zerikusi gutxi du gaur egun Athleticek eta Realak sarritan azaldu ohi duten joko finarekin. Javier Clemente Espainiako nazio selekzioaren entrenatzaile luzaroan izandako euskal herritarrak, alabaina, uste du jokatzeko erantzeri adierazten den nortasun berezia duela Euskal Herrikoa denak (cfr.Unzueta, 1999: 155). Identifikazio iturri izan ohi diren alderdi bata zein bestea epaitzeko egokiak dira hemen txertatzeko Jose Mari Amorrortu gaur egungo Athleticen kirol zuzendariari eta Euskal Selekzioaren hautatzaile nagusia denari 2012ko apirilean Lezaman Athleticen egoitzan egin nion elkarrizketaren hainbat erantzun. Amorrortuk joko estiloari ez dio garrantzia nabarmena ematen, inguruko jokalariekin osatutako taldeko haztegiaren erroten dituzten harrobia deritzaionaren balioak lehenesten ditu. Euskal jokalarien apustuaz edota Euskal Herriko klubaren haztegiaren gaztarotik hazitako kanpoko futbolarien aldekoaz itaunduta honela definitzen du Athleticen kirol zuzendariak:

“Filosofiarik atxikitzea funtsezkoa iritzi diot. Identitatea sortzen duen filosofia da, partaidetza sentimendua, leialtasun handia eragiten duena, tradiziozko eta

modernitate balioak elkartzen dituen. Identifikatzen gaituen eta harrotasuna ere sortzen duen garrantzia handikoaz mintzatzen ari gara, zeinak bideratzen duen herriak, probintziak, Euskal Herriak, erreferentea izan dezan” (J.M. Amorrortu, norbere iturria, apirilak 12, 2012, Lezama)

Bosman legedia deituraz ezagun egin zen 1995eko EBko Luxenburgoko Justizia Auzitegiaren epaiak futbolari europarren lekualdatze askea behartu zuenez gero, areago erabakimen hori Europako Batasunaz nolabaiteko lotura zuten beste hainbat estatutako jokalarientzat ere balekoa zela aintzat hartuta, ordu arte herrialdeek beren txapelketetan futbolari arrotzei ezarritako mugak ezereztu zituen hein handi batean. Ondorioz, klubak inguruko jokalariez oroz gain hornitzeari utzi zioten eta ekin zioten batez ere atzerriko futbolariak ekartzeari ordaindu bidezko telebistak handiagotutako dirua sarreren aroan. Christian Brombergerren hitzetan, klubek beren osaeraren bidez inguruko komunitatea islatzeari utzi diote nazio taldeek nazioa haragitzen segitu duten bitartean (Bromberger, 1998: 88). Arsene Wenger Frantziako entrenatzaileak zuzendutako Londresko Arsenal taldea zatekeen adierazgarri gardenetakoa, jokalaria ingelesik gabe jokatzera heldua izan baita. Espainiar estatuan, Galiziako klubak luzaroan kanpoko jokalariekin bete izan dira, eta horrek zaildu egiten du Phill Ballek dioen moduan, A Coruñaiko Deportivo eta Vigo hiriko Celta kluba galiziar nazionalismoaren sinboloak bihur daitezen (Ball, 2010: 183).

Hori horrela, euskal taldeak, Athletic hein handi batean, eta baita Realak ere, kasu bereziak dira, munduko liga eraginkorrenei dagokienean, Euskal Herriko eta harrobiko jokalaria ia osoki zelairatzen dituzten heinean. Haztegi gisako harrobi politika taldeon erakusgarria da. Kontrajarri egiten dute bada, klubak gaineko atxikimendua ziurtatzeko, bertako jokalaria zelairatzeari garaipenak lehenestea gainjarri zaion jokabide orokorra. Euskal Herriak oro har kirolen garrantzia lehenetsi du klubak mailan, nazio selekzioaren gabeziak bultzatuta, bere nazio izaera aldarrikatzeko. Euskal futbolarien parte-hartzeaz norbere nortasuna ezaugarritzea horren adierazgarria da. Nahiz eta nazioarteko ikerlariei Bilboko Athleticen adibideak bereziki arreta sorrarazi dien, euskal herritarrekin bakarrik jokatzeko jokabideagatik (Vaczi, 2011) (MacClancy, 1996a) (Tintori, 2011), horretara behaketa mugatzea errealitatea adibide aisea hartuta mugatzea da. Izan ere, Donostiako Realak 1989a arte Athleticen izaera bera mantendu zuen John Aldridge Liverpooletan jaio zen aurrelaria erosi zuen arte. Harrobiko jokalarien joanak, Loren aurrelaria Athleticera joan izanak kasu, atzerritarrek ekartzera bultzatu zuten. Horrela zilegitu zuen behintzat

talde donostiarrak ordu arte izan zuen izaeraren aldaketa. Euskal Herriak guztira hartuta, hiru milioi biztanle baino gutxiago dituela aintzat hartuta, bi talde nagusi lehen mailan bertako jokalariekin bakarrik aritzea konplexua zela zalantzarik ez da, eta Athleticen ere aldizka agertu izan dira atzerritarrak ez erabiltzeko hautua dudan jarri dutenak, emaitza txarrak izatean. Horrela, 1995eko udan Joseba Etxeberria Realeko aurrelaria Athleticera joan izanak, bi taldeek akordioa hitzartzeke, bi euskal klubak arteko harremana kaltetu zuen, eta zale eta euskal batasunarena ere, probintzia eta estatu atxikipenen mesederako.

Athletic euskal nazio nortasunaren adierazpide gisara baino gehiago, askotariko jendea bateratzen duen bitartekotzat definitzen du Amorrortuk. Horregatik, txapelketak jokatzeko ezintasuna duen Euskal Selektzioaren ordezkotzat har ote daitekeen itaunduta, askotan ildo horretan definitu baitute barruko eta kanpoko ikerlari hainbatek, hark ezetz dio, Euskal Selektzioa talde askotako jokalariez hornitzen delako. Hala, Athleticez gain Realak ere bere haztegia heldutako, nagusiki, euskal jokalariez, aritzeko duen jarrerari buruz – Amorrortu 2004tik 2006ra Realeko entrenatzaile izan zenean taldearen harrobi izaera indartu zuen – galdetuta horren garrantzia goraiatzeko Athleticen kirol ardura nagusia duenak eta Euskal Selektzioko entrenatzaileak. Nazio edota probintziaren izaera horko jokalariai klubari atxikiz igorriko ziratekeen, euren eta zaleen leialtasuna izateko.

“Atzerrira joatean jendea harritzen da nola mantendu gaitezkeen. Bistan da, begiratu Real eta Athletic, osotasunean bi milioi biztanle baino gehiago ez dituen lurraldean bi talde ari dira maila gorenean. Hain justu, horren barruan dago nire iritziz zenbatezina den indarra, talde hauek bereziak egiten dituenak. Jokalariai taldearen baitan duen balioa dago, bere egituraren parte bailitzan. Horrek askoz... prestakuntza handiagoa edukitzea ahalbidetzen dio”

Athleticek euskal sendiekin nolabaiteko oinordetza lotura izaten duten kanpoko futbolariak ere bere taldean zelairatzeko egokitzat jo izan ditu, eta urteotan arindu egin du nahitaez aurreko baldintza zurrinak izan zitezkeenak. Esan nahi baita, XXI. mendean etorkinen fluxuak halabeharrezkoak izango direla ohartu dela euskal taldea ere, eta garai berrira egokitzeko urratsa egin duela bere funtsa ahazteke. Aymeric Laporte Frantziako Agen hirian jaiotako erdiko defentsa gaztea 2012-2013 sasoiaren taldeak gehien zelairatu zituen artean funtsezkoa bihurtu izanak, taldearen jarrera barnerakoia aditzera ematen du. Lehenago ere Euskal Herritik at jaiotako ziren futbolariak sarritan zelairatu izan zituen

taldeak, baina Baionako Aviron futbol taldetik ekarritako futbolari frantziarrarena joera orokorragoaren alderdia da. Athleticekin lehen mailan 2011ko sasoiari debuta egin zuen Jonas Ramalho atzelaria taldeko lehen futbolari beltza bihurtu zen. Horrez gain, *Spiegel* izeneko Alemaniako hedabidean argitaratutako Athletici buruzko erreportajearen Walter Mayr egileak zioen epe ertainera taldeko lehen jokalaria musulmana ere gertagarria dela. Athleticek Nafarroa hegoaldeko hartutako Binke Diabate deiturako futbolari gaztea zen 2008an argitaratu zenean, arrazoibide horren euskarria. Nahiz eta aita eta ama Malikoak izan, Bilboko taldearen harrobi haztegi arduradunek taldean aritzeko modukoa epaitu zuten (Mayr, 2008). Bilboko taldean hautematen den bestelako joera berezia da jokalaria nafarrak luzaz gainjartzen zaizkiela Bizkaiko bertako probintziako futbolariari. Bestalde, Donostiako Realean atzerritarrok erosteko bideari ekin ziotenean, luzaroan espainiarrak ez erosteko isilpeko arbuioa zegoela zirudien (Ball, 2010: 66-67), baina azken urteetan usadio hori aldatu du euskal talde horrek ere. Biek ala biek ezberdintasunezko pausoak eman dituzte, baina nazioarteko futboleko euskal bereizitasunari uko egin gabe. Horrela, zentzuzkoa da euskal taldeak eta kataluniarrak alderatuz Liz Crolleyk eta David Handek egiten duten hausnarketa. Beren hitzetan, Euskal Herriaren talde askok dute euskal izaera ordezkatzeko enbaxadore arduraren erantzukizuna, eta kanpokoan aitortza dago Euskal Herriaren erakusgarriak direnarena, Athleticek ereserkiaren hitzak erabilia. Katalunian, oster, Bartzelonak hartzen du bere gain ia osotasunean Kataluniaren ikur eta ordezkari nortasuna (Crolley eta Hand, 2006: 133). Waltonek Espainiako Gerra Zibilaren aurreko aldia deskribatzean azaltzen zuen euskal aniztasun horrek batasuna ekidin eta probintzia atxikimenduak bideratzeko joera zuela, eta gaur egunerako ere arrazoizkoa izan daiteke. Hala ere, deigarria da adibidez Realak Osasunari irabazteko ahalegin eskasa egin izana 2001eko ekainean talde nafarrak lehen mailari eustea lor zezan, eta jarraitzaileek nahiz beste futbol zelaietako arerioek euskal herritarren arteko aniztasun keinuaz hartu zutena.

Bartzelona, bestalde, helmen globala duen taldea da garaipenezko urteei jarraiki, baina ez du Primo de Riveraren diktaduratik zuen kataluniar nazioaren ordezkari adiera galdu, izatekotan areagotu egin du. Klub soila baino gehiago denaren taldea definitzeko eskerari eusten diote horrenbestez, jarraitzaileek. Are gehiago, XXI. mendeko taldearen garaipenak Kataluniako harrobiko futbolariaren gehiengoarekin errotu dira, Carles Puyol, Xavi Hernandez, Victor Valdes, Sergio Busquets, Cesc Fabregas, Gerard Pique tarteko. Entrenatzaile karguan Pep Guardiola izana zen, kataluniar nazio nortasuna ezkutatu izan ez duen futbolari ohia, eta Joan Laporta presidenteak Bartzelonaren kataluniar izaeraren

sinbolo nortasuna indartu egin zuen bere agintaldian. Atzerriko futbolariak katalaneraz ikastera ere gogatu zituen, besteren artean. Laportak 2010ean Bartzelonako presidente kargua utzi zuen, bi agintaldi egin ondoren klubaren legediak horrela zehaztuta. Hala, politikarako jauzia eman zuen handik hilabete batzuetara, independentzia helburu zuen Democracia Catalana alderdiarekin. Kataluniako Parlamentuko diputatu aukeratu zuten. Barçako presidentetzako azken hilabeteetan *El Mundo* kazetari eman zion elkarrizketan hau zen egunkariak azaleko elkarrizketaren aurrerapenean ezarri zuen esaldi lerroburua: “Barçak haragitzen du menderatutako herriak askatasunera zuzentzen dituen kondaira” (Laporta, 2010). Thierry Henry Bartzelonan jokatzeko ari zen aurrelari frantziarrak ere honela adierazi zuen Katalunia eta Espainiaren arteko aldea eta bereizketa: “Katalunia ez da Espainia eta hori sentitu egin behar da” (Henry, 2009).

5.4.2-Athleticen eta Bartzelonaren 2009ko Espainiako Errege kopa finala: bi nazioaren anaitasuna estatuaren eta bere hedabideen nazio eraikuntzaren aurrean

Espainiako Errege Koparen 2009ko finalean txapelketak Athletic eta Bartzelona alderatu zituenean, hedabideek aurreikusi zezaketen partidaren atarikoan gertatuko zena, Espainiako errege erreginak agintari harmailean agertu, bertaratutako bi taldeen zaleak agurtu eta estatu agintari horien ohorez nazio ereserkia jo zutenean. Independentziaren aldeko taldeek eta ekintzaileek aurretik galdegin zieten Euskal Herritik eta Kataluniatik joandako jarraitzaileei ereserkiari txistua jotzeko, eta Valentziako Mestalla estadioa bete zuten milaka lagunek, gehien gehienek, eskatutakoa bete zuten. Hala, 2008an espainiar selekzioak arrakastarik gabeko hamarkada luzeen ondoren Europako Kopa eskuratzeak, Xabi Alonso euskal futbolaren ordezkaria eta bereziki Carles Puyol eta Xavi Hernandez, besteren artean, Kataluniarren aldetik izan zituenak, ez zuen erdietsi espainiar estatuko barruko nazioak espainiar nazio eraikuntza bakarraren baitan barne hartu eta elkartzerik. Nahiz eta futbolaren oihartzuna, 2010eko Hegoafrikako Munduko Koparen azterketan aipatu denez, Espainian handia izan, eta garaipenaren bidetik nazioa zilegitzeko jomuga baliatu, ez zuen lortu futboleko hamarkada askotan, estatu eredu eta agintea zernahi zela ere, errepikatu izan diren Euskal Herriko eta Kataluniako nazioaren aurkaritza keinuak desagertarazterik. 1925ean Camp Nou de Riveraren diktadurapean Espainiako

ereserkiari helarazitako txistuak erregimenaren asaldura eragin bazuten, Frantzia XXI. mendearen hasieran Chirac nahiz Sarkozy presidenteen haserrera sorrarazi bazuten, era berean 2009ko maiatzaren 13an Valentziako Errege Koparen ingurukoan ere. Gainera, TVE 1 kanalaren partida erretransmisioak areagoko garrantzia eman zion gertakizunari, ereserkiaren kontrako txistuak aurreikusita ohiko emanaldi mota eraldatu, eta jokalariai banan-banan ereserkiaren zuzeneko doinuaz kamararen pasaeraz aurkeztu ordez, Bilbon zeuden Athleticeko jarraitzaileen irudia eskaini baitzuen. Gero partidaren atsedendian eman zuten espainiar ereserkiaren txistuen unea, baina horien soinu maila errealizazioaz era agerikoan murriztuta. Baina, ETBk Euskal Herrirako eta TV3 kateak Kataluniarako ere partida zuzenean eman zutenaz, TVE1en amarrua agerian gelditu zen. Nahi gabeko akatsa egin zutela argudiatu zuten, baina errealizazioaren arduradunak dimisioan eman behar izan zuen biharamunetik piztutako politikaren baitako polemikak bultzatuta. Hura edota bere ardurapeko taldea eta hedabide publikoari uztartutako aginte politikoa saiatu ziren estatu nazioaren eraikuntzari kontrajarritako nazio adierazpen sinbolikoa ekiditen.

Jendartean *We are nations of Europe. Good bye Spain* mezua altxa zuten zaleek, eta Poliziak sarreran galarazi egin zuen sartzea *Catalonia is not Spain* – Katalunia ez da Espainia – zioten 5.000 mezu paper inguru. Bartzelonak 4-1 emaitzaz irabazi zuen Kopa finala, baina alde hori baino garrantzitsuagoa izan zen partidaren amaieran bi taldeetako jokalariek elkarri eta elkarren zaletu eta herrialdeei adierazi zieten anaitasuna. Barçako kapitain Carles Puyolek eta bere taldekide Samuel Eto' o aurrelari kamerundarrak ohiko garaipen itzulia ematean euskal jarraitzaileak txalotu zituzten ikurriña hartuta. Inondik ere adierazpen esanguratsua eta berritzailea da futbol neurketetan, alderaketak bi taldeen arteko eta horien nortasunen bitarteko aurkaritza nabarmendu ohi baitu normalean. Hala ere, aldi honetan litekeena da oroz gain aditzera ematea maila berean egongo ziratekeen bi estaturik gabeko nazioen arteko kidetasuna. Antzik ez du bederen, 1990. urteko egun berean, maiatzaren 13an, Zagrebko Dynamo eta Belgradeko Izar Gorriaren partidarekin. Ordukoan, data berdina konparazioa egiteko baliatuta, kroaziarren eta serbiarren arteko liskarrek aditzera eman zuten Jugoslaviako estatu nazio anitzaren gainbehera eta handik gutxira gauzatuko zen zatiketaren aurrekarizko iragarpena. Valentzian, 2009an, ostera, kataluniarrek eta euskal herritarrek bi nazioen anaitasuna adierazi zuten estatu nazioaren sinboloen aurkakoan futbola ere baliatuta. Espainiaren baitako futbol ekitaldia erabili ez ezik, bertako hedabideek horri esleitutako nazio gertaeraren pareko arreta handia baliatu zuten euskal eta kataluniar klubengatik zale gehienek estatu-nazioaren eraikuntzaren aurkako

beraien ikuspegia agertoki horretan agertzeko. Umberto Eco “gerrila semiotiko” gisara definitu zuenaren adibidea da 2009ko Kopa finala (Eco, 1988). Hark erakutsi zuenez, hedabide hegemonikoen kontraerabilera egiterik badago, eta zenbaitetan emankorra izan daiteke.

2012an bi taldeen arteko finala errepikatu zen, Madrilen ordukoan, eta partida ataria baldintzatu zuen hiru urte lehenagoko txistu jotzeak. Izan ere, Esperanza Aguirre Madrilgo Komunitateko presidentek espainiar ereserkiaren aurkako aukera gertagarria ez errepikatzeko partida bertan behera uztea edo atea itxita jokatzearen aukera kontuan hartzea galdegin zuen. Litekeena zen Madrilgo agintariak, ekonomia krisian bete betean hartuta, 2011ko aurrekontuaren defizita aurreikusita zegoena baino handiagoa zenaren jakinarazpena estaltzeko, futbolaren eztabaida sorrarazi nahi izana. Baina, kontuan hartu behar da Frantzian ere antzerako adierazpenak nagusitu ohi zirela afrikar immigranteen ondorengo belaunaldiek hango ereserkiari txistu egin ziotenean. Nolanahi ere, eztabaida politikoa mahaigaineratzea lortu zuen. Azkenean, ereserkiari berriro txistu egin zioten, baina antolakuntzak soinua neurri handi batean handiagotu zuenez – 2011n Bartzelonan eta Real Madrilek jokatu zuten Espainiako Errege Koparen finalean antzera egin zuten Valentzian – bere eragina murriztu zen, eta gainera 2009koaren errepikapena izateak ere oihartzuna murriztu zuen. Ez da jadanik hain berritasuna ereserkiari txistukatzea. Horrez gain, urte horretan erregea ordez Espainiako printzea izan zen Koparen sinbolo nagusia, erregea zeresana eman zuen Botswanako bidaiako ehizako ezbeharraren ostean osatzen ari baitzen. Horren ondorioz, ereserkiaren 27 segundoko aldaera laburtua eskaini zuten. Nolanahi ere, 2012ko erretransmisioan TVEk zuzenean eman zuen ereserkien unea, eta txistuak jo zituztela jarraitzaile askok jakinarazi zieten ikus-entzuleei iruzkin egileek.

5.4.3-Espainiako nazio selekzioaren 2012ko Europako Kopako ospakizuna krisiak azpiratua eta Kataluniaren independentzia herri aldarri jendetsuek inguratuta

Errege Kopako 2009ko maiatzaren 13ko gertaera eta 2012koa – saskibaloian ere izan dira erregeari txistuak, 2010eko Bilboko Errege Koparen finalekoa eta 2013an ildo berean Gasteizen jokatu zenekoa, baina ez dute futbolaren adinako oihartzunik – estatu

nazioaren futbol bitartezko eraikuntzaren eta Euskal Herriarenaren eta Kataluniakoaren arteko norgehiagokaren historiako beste urrats bat bailitzan hartua izan behar da. Zilegi da aipatzea, 2012ko uztailean Espainiako selekzioak Ukrainako eta Poloniako Europako Kopa irabazi izanak ez zuela estatuan aurreko garaipenetako hainbesteko nazio atsegina sortu, eta nagusiki herrialdearen krisiaren gordintasunak itzali zuela oso aste gutxitan, Bankia bankuaren hondoratzea eta diru galera tarteko zela. Mariano Raxoi Espainiako presidenteak lehiaketaren aurretik selekzioko jokalariei harrera egin zienean, garaipena galdegin zien, espainiarrek krisiak beheratutako adorea altxatzeko sustatze handia behar zutela esanda. Vicente Del Bosque entrenatzaileak, alabaina, ihardetsi zion Espainiaren irtenbidea futbol garaipen hori ez zela esanez. Iruñean, finala ikusteko pantaila erraldoia jartzea ahalbidetu zuen bertako Udalak, UPN Union del Pueblo Navarro alderdiarenak, PP Espainiako eskuineko alderdi kontserbadorearen gertuko Nafarroako erregionalistak. Bartzelonan berriz, CIU Kataluniako alderdi abertzaleak agindutako alkatetzan, pantaila erraldoia egokitzea errefusatu zuten. PPK bada, Mariano Raxoiren adierazpenei jarraiki, kritikatu zuen krisialdian herritarrei poza saihesten zien erabakia zena (Mondelo, 2012).

Krisiak ez zituen uxatu, ordea, 2011-2012 sasoiari Athleticen milaka zale Europa League txapelketan kontinentean zeharko partidetan taldea ikustera joatea. Amorrorturi horren gainean galdetu nion Lezaman 2012an eginiko elkarrizketan, eta bere erantzuna hau izan zen: “Arrazoia oso erraza da. Zeuretzat duzun zerbait bailitzan sentitzen duzula da. Eta sentimendua dagoenean ez duzu lotzen horrek balio duenaz, horrela hautematen duzulako egiten duzu, horrek ez dizulako ahaleginik eragiten”. Oroitu behar da 2009ko Kopa finalean, 50.000 Athletic zale inguru joan zirela Valentziara taldea babestera, eta bidaia askoz laburragoa egin behar zuten Bartzelonako jarraitzaileak askogatik gainditu zituztela kopuruan. Athletici buruz ikertu duen Mariann Vaczi antropologoaren hitzetan, Bilbon gelditu zirenak gehituta 5,5 milioi euroko dirutza mugarrira xahutu zuten 2009ko maiatzaren 13ko egun bakarrez (Vaczi, 2011: 26-27). Bada, 2012an, Bilbon zoramena gaineratu zien bere zaleei taldeak hainbat astetan, eta Europa Leagueko finalera heltzeaz batera, lehenago aipaturiko Madrilgo Errege Kopako finalera heldu zen. Biak galdu egin zituen, 3-0. Bestalde, 2012-2013 denboraldian dena okertu zen talde bizkaitarrentzat, eta eztabaida handia sortu zuen Javi Martinez erdilariak Municheko Bayern taldera joateko hautua egin izanak eta Fernando Llorente aurrelariak, taldeko izarrak, taldean jarraitzea arbuiatzen zuela jakinarazteak. Hainbat jarraitzailek Llorenteren errioxar izaera leporatu zitoten, eta espainiarren salatatu zuten ondorioz. Nortasunaren baitakoa zen, modu berean,

Jose Antonio Camachok 2010ean Iruñeko Osasunako taldeko entrenatzaile zela hainbat zaleren partidetak bere aurkako deiadarrak politikaren barrukoak zirela deitoratu izana. Camacho 2002ko Munduko Kopan Espainiako nazio taldearen entrenatzailea izana zen nagusiki, eta lehenagoko ataleko partiden analisisian hauteman dugu futbolaz espainiarren nortasuna eta harrotasuna plazaratzeko Camachoren jarrera. Ildo berean jarraituz, arreta piztu zuen 2011ko hemeretzi urtez azpikoen Europako txapelketan Espainiako taldeak txapelketa irabazi ostean, Gines Melendez entrenatzaileak futbolarietako bati Asturiasko bandera kendu ziola, agintarien harmailetako podiumeko sarien banaketara igo zirenean. Hark argudiatu zuen Espainiako futbol elkargoaren agindu berria zela protokolo ekintza hori betetzean, espainiarra ez zen beste banderarik eramatearen galaraztea. Politikarekin uztardura handia duen futbolaren argibideei jarraiki, ezin aipamenik egiteke utzi Josetxo Ibazeta Donostiako alkate Juan Karlos Izagirreren hurbileneko idazkariak, eta zinegotzi ohiak, hiriko Alde Zaharrean gazte batzuekin izan zuen liskarra 2012ko Europako Kopa lehiatzen ari zen Espainiako selekzioaren jantzia soinean zutelako. Zaleek telefonoaz grabatu zuten Ibazetaren mehatxua eta estatu mailako hedabideetan zabaldu ostean, hark dimisioa eman behar izan zuen Udal Gobernuaren irudia ez zikintzeko. Azkenik, ezina da aipatu gabe uztea futbolaren eta nazio nortasunei loturiko eguneroko politika lehien uztartzearen adierazle, Markel Susaeta Athleticetako futbolaria Espainiako selekzioarekin Panamaren kontra adiskidetzazko partida jokatzera lehenik deitu zutenean prentsaurrean eginiko adierazpenengatik sortu zen polemika. 2012ko azaroan zen partidaren atarikoan Eibarko jokalaria nazioarteko txapelketako lehia ez izan arren, adiskidetzazkoa baizik, “gauza bat” ordezkatzeko zutela zalantza egin zuen “Espainia” nazioaren ordezkartzakoa zela esan beharrean. Esan hori kritikatu zuten hainbat hedabidetatik, Euskal Selekzioaz mintzo direla hedabide horiek beraiek politika eta kirola ez lotzea galdegiten badute ere.

Horrez gain, Kataluniaren 2012ko uda bukaera eta udazkena, independentziaren aldeko inoizko herri adierazpen jendetsuenek ezaugarritu zuten, irailaren 11n, urteroko Kataluniako nazio egunean, Bartzelonan Kataluniarentzat estatu izaera eskatzeko burutu zuten manifestazioa erdigune bezala hartuta. Mezu garbiarekin milioi bat eta erdi lagun inguruk zeharkatu zituzten hiriko kaleak, eta horien artean Sandro Rosell Bartzelonaren presidentea. Martxaren antolatzaileek bideo batean azaldu zituzten mezuen artean Pep Guardiola Barçaren entrenatzaile ohiaren atxikimendua nabarmentzen zen, futbol taldea bere borondatez utzi ondoren New Yorken atsedenezko urtea hartzen ari zenarena. Hain zuzen ere, futbol taldeak ordu arte hartu zuen Katalunia herrialdearen ordezkartzarekin

norabide berean jarraitu zuen 2012ko urriaren 8an Kataluniako koloreekin soilik estadio osoaren mosaikoa lehenengoz eginda adibidez. Real Madrilen aurkako liga txapelketako partida sinbolikoa zen, inondik ere. *El Mundo* Espainiako hedabide kontserbadorearen lehen orrian nabarmenduta ageri zen, argazki nagusi eta guzti eta izenburu hau zuelarik: “Barçak bere estadioa independentziaren aldeko poster bihurtu du”. Goiburu behealdean lau zutabetara ere, Andres Corpas kazetariak deskribatu zuen independentziaren aldeko banderen agerpen zabala, eta baita independentziaren aldeko oihu jendetsuenak partidak hamazazpi minutu eta hamalau segundo betetzean gertatu zirela. Corpasek esan bezala, 1714.urtea oroitzen zuen keinu horrek, Borboiek Kataluniari berezko erakundeak kendu zizkienekoa (Corpas, 2012). Katalunia nazioaren narrazioa egin eta gizarteratzea erraztu zuten horrela, futbol partidek. Ordutik aurrera, Barçaren neurketetan, independentziaren keinuok errepikatu zituzten, munduko talderik onenenetakoa izatearen arretaz baliatuta.

5.5-Euskal nazio taldearen Gabon partiden usadioa eta ofizialtasun xedeko ekimenen muga eta ezbaiak

Urte batzuren etenaldiaren ostean 1988an itzuli zen Euskadi selekzioa, euskara eta ikastolen aldeko “Bateginik” izeneko Bai Euskarari gisako egitasmoarekin itzuli ere, Tottenham Ingalaterrako klubaren kontra. Geroago, 1990ean jokatu zuen beste partida bat euskal selekzioak, Errumaniako nazio selekzioaren aurrez aurrekoa. Hori horrela, 1993.urtean ekin zion Gabonetako urteroko adiskidantza nazioarteko partiden usadioari selekzioak. Donostiako Anoetako estadio sortu berrian ezina izan zuten nazio ereserkien doinuak ekoiztea, FIFAk artean baimentzen ez zuelako (Gotzon, 1998: 151). Nahiz eta adiskidantzazko neurketak izan, erakunde horrek baimendu behar ditu partidak, eta baita Espainiako Futbol Federazioak ere bere legediaren 254.3 artikuluari jarraiki. Euskadiko Futbol Federazioa, 1988an sortu zen eta 1992an abiatu zen funtsean, beti ere Espainiako aginpidearen mendean, horren baitako elkargoa izaki. Horren ekimenez errotuko ziren neurri handi batean Eguberriko partidak, EAeko erkidegoko futbol taldeei diru sarrerak helarazten zizkienak. FIFAk 1993an nazio ereserkiak entzutea galarazi izana, eta hartara nazioarteko ekitaldi izaera kendu nahi izateak erakusten du nazioarteko erakundeak beti ere bermatu nahi izan zuela indarreko estatuen legezatasuna eta zilegitasuna. Halaber, futbolearen eta kirolearen ereserkien esangura erabatekoa ebatzen du debekuak ere, 1979an

Garaikoetxearen haserrea sortu zuena bezala, eta azaldutako munduko adibideei jarraiki. Juantxo Landaberea Unzuetak eta Borja Osés Garciak (2004) Euskal Kirol Federazioen Batasunaren babesean argitaratutako liburuan arrazoitu zuten kirol askotako nazioarteko elkargoetan estaturik gabeko nazioak onartzen dituztela, nortasun pribatukoak direla, eta deusek ez duela behartzen kirola eta estatu ordezkari berdinak. Egokia da ekarpena, baina futbolaren baitan estaturik gabeko nazioen salbuespenetan sartuta Euskal Herriko selekzioarentzat zilegitasuna aurkitu nahia funtsean irakurketa mugatua da, nazioarteko futbola estatuekin batera heldu baitzen eta estatuen mailako lehie zilegitasuna emanez. Gainera, futbolaren oihartzuna beste kirolenei luze gainjartzen zaie, horien barruan ere estatuen eta estaturik gabeko nazioen artean ordezkari lehiak egon arren. Espainia da horien artean bere baitako nazioen nazioarteko ordezkari ekiditen nabari saiatu dena.

Dena dela, urteko partida maiztasunak euskal selekzio ofizialaren aldeko aldarria indartzea ahalbidetu zuen, areago taldeak historian barrena beti bezala adiskidantzazko partidetan eraginkorra zela erakusten zuen neurrian. ESAIT Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi Taldea, euskal selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzen duena, 1995eko udazkenean sortu zen. Bidezkoa da argudiatzea, 1936ko Gerra Zibilean eta lau hamarkadaren buruan euskal selekzioa sortu zenean dirua biltzeko xedea izan zuela, eta 1990eko hamarkadan funtsean aldatu egin zela bere nortasuna, eta Munduko Kopa jokatzeko eskubidea izatea galdegiten hasi zen multzo ordezkariarengana bihurtu zela. Egiari zor, Euskadiko Futbol Federazioaren lehenetsitako helburuetako bat adiskidantzazko neurketekin EAE Euskal Autonomia Erkidegoko klub txikien diru beharrak laguntzea da. Baina, nortasuneko edo politikari loturiko izaera saihestezina bihurtu zen bereziki gizartearentzat, eta oroz gain euskal abertzaleentzat. Horrenbestez, 1998an Eusko Legebiltzarrak EAJ, EA, HB eta IU alderdien botoekin gehiengo osoarekin onartu zuen Kirolaren Legea (Gomez, 2007: 96). Haren 16.artikulu jasota zen honako hau: “Euskal federazioei baino ez dagokie euskal kirol federatua Estatuan eta atzerrian ordezkariak, bakoitza bere kirol aldaeran. Beraien kirol selekzioek Estatuko eta nazioarteko kiroleko ekintza eta lehiaketetan parte-hartzea sustatu eta bideratu beharko dute euskal federazioek” (1998). Horrela, EAEko legearen edukia bateraezina zen Espainiako Kirolaren Legearen ahal gainjartzailearekin (1990). Horri jarraiki, Espainiako elkargo eta kirol selekzioei zegokien nazioarteko lehiaketetan Espainia osotasunean ordezkariak. Hortaz, Jose Maria Aznarren gobernuak Konstituzio helegitea jarri zion, eta Konstituzio Auzitegiak urte askoan betikotu zuen auzia ebatzea.

Kataluniako nazio taldea epe horretan biziberritu zen halaber, 1993an hasita, eta urtero partida egiteko borondatea errotu zuen (Crolley eta Hand, 2006: 121). Espainiar estatuko beste hainbat erkidego Gabonetan nazioarteko adiskidantza partidak jokatzeko ohitura berdintzen hasi ziren futbolarien oporraldia baliatuta ere, eta festa giroa emanez. 2005ean adibidez, Katalunia-Paraguai, Euskadi-Kamerun, Andaluzia-Txina, Valentzia-Kolonia, Murtzia-Lituania eta Galizia-Uruguai partidak ospatu ziren. Naziotzat hartzen den Galiziako selekzioa 69 urteko etena eta gero itzuli zen, Euskal Herria eta Katalunia baino beranduago. Uruguairi 3-2 irabazi zion (Gomez, 2007: 188). 2006an, Aragoik ere jokatu zuen, Txileren aurka, eta urte berean, urrian, Kataluniako eta Euskadiko nazio selekzioek bereziki adiskidantzazkoa zen partida sinbolikoa jokatu zuten Camp Nou, estatu gabeko bi nazioen kidesun aldarrikapenezko giroan inguratuta. Luzaroan euskal selekzioak bere herrialdetik kanpo jokatzen zuen estreinako neurketa izan zen. Ez zen horretan gelditu, 2007ko ekainean, futbol sasoi amaiera baliatuta, Euskadiko selekzioak Venezuelan jokatu, eta 3-4 irabazi baitzuen atzerriko adiskidantza nazioarteko neurketa. 2007an, Kanaria Uharteeak eta Extremadura erkidegoek ere jokatu zuten partida bana, eta Kataluniaren nazio taldeak Bilbon jokatu zuen aurreko urteko itzulerakoa (Alcaide Hernandez, 2009: 62-63). Gerora, nazio atxikimendu bereziak bideratu zuen selekziook iraunaraztea, bestelako erkidegoenak ikusleen arreta gabeziagatik pixkanaka-pixkanaka bertan behera gelditzen zihoazen bitartean, baita hiru urtez jokatu zuen Nafarroakoa ere. Nafarroako Gobernuak futbol selekzioa osatuz eta partidak jokatuta, EAEko erkidegotik bereiztea zuen xede, euskal selekzioak Euskal Herria osoki hartuta jokalaririk ere deitzen dituela aintzat hartuta. Jokalariei bien artean erabakitzeke betebeharrak jarri ziren hartara, besteak beste, Ismael Urzaiz, Carlos Gurpegui eta Roberto Martinez Ripodas Tikori. Hiru horiek Athleticen jokatzen zuten eta euskal selekzioaz aritzea hautatu zuten (Gomez, 2007: 163-164).

5.5.1-Nazio deituraren adostasunik ez duen ordezkartza

Kataluniaren aurka 2007ko Gabonetan euskal selekzioak jokatu zuen neurketan jokalariek historian lehenik, Euskadiko Futbol Federazioaren oniritziarekin, Euskal Herria izendapenaz jokatu zuten. Euskadi izena EAEko hiru probintzien erkidegoaren deituraz baldintzatua zegoenez, eta selekzioak mugez gaindi, eta autonomia erkidegoen gaineko, euskal zazpi lurraldeetako futbolariak hartzen zituenez, Euskal Herria izena onetsi zuten

jokalariek. Aitzitik, gerora atzera ere Euskadi izen historikoa berreskuratzea nahi zuten EAJk agindutako Eusko Jaurlaritzak eta futbol federazioak, eta arrazoi horren ondorioz, besteak beste, futbolariak adiskidantzazko partidak ez jokatzea erabaki zuten. Eztabaida politikoa eragin zuen erabakimenak, euskal nazionalismoaren eskuineko eta ezkerreko alderdi eta pentsaeren artean bereziki, euskal selekzioarekin hunkipeneko atxikimendua zutenen artean alegia. Izatez, 1993an errotutako Gabonetako partidaren usadioa gelditzea zen soilki, baina nazioaren izena, lurraldetasuna eta euskal selekzioaren erabilpena, eta, ezin uka, alderdikeria, izan zituen ezaugarri gertatuak, jokalaria ere barne hartutakoak. Selekzioak Eguberritik haratago partidak joka zituzten federazioak aditzera eman zuen ekimen gabezia izan zen, bigarrenik, futbolariak kaleratu zituzten azalpenezko oharretan arrazoitu zutena. Irango selekzioaren aurka futbol elkargoak 2008ko abenduan hitzartuta zuten neurketa ez ezik, 2009an ere ez zen selekzioko partidarik izan. ESAITek eta euskal jokalarien gehiengoak bat eginik futbol federazioari ofizialtasunerako helburuan urrats gehiago egitea galdegiten zieten, eta 2010ean zentzu horretan adostasunera iritsi ostean, euskal selekzioa Gabonetan Bilboko San Mames zelaian Venezuelari jarki eta gailendu zitzaion. Hain zuzen ere, Euskal Selekzioa izendapena, deitura berezia, hartu zuen orduz geroztik selekzioak, Euskadi eta Euskal Herria nazio deituren ez baitik ihesean nolabait. Partida atarian jokalariek multzo gisa plazaratu zuten oharretik hau nabarmendu daiteke:

“Euskadiko Futbol Federazioak ez du Euskal Herriko selekzioaren ofizialtasunaren bidean urratsak ematen saiatzeko borondaterik”.

“Partidak, etekin ekonomikoa ateratzeko helburu soilarekin antolatu nahi ditu, hori da selekzioaren inguruan duten benetako kezka eta arrazoi nagusia”.

“Guk, euskal futbolariok, Euskal Herriko selekzio ofiziala lortzeko bidean ahalegin pixka bat eskatzen dugu, besterik ez; munduko beste edozein futbol jokalarik bezala zein selekziotan jokatu erabakitzeke eskubidea baino ez”.

“Baina azken urteotan ohartu garenez EFFren helburua ez da gure bera, ez da zazpi euskal lurraldeetako jokalaria bilduko gintuzkeen selekzioaren ofizialtasuna lortzea” (Euskal Herriko futbolariak, 2010).

Bistan da nazioarteko lehiaketetan jokatu ahal izateko pausoak emateko eskatzen diotela alde batetik, eta Euskal Herriko zazpi probintziak, Espainiaren mendekoak nahiz Frantziaren mendekoak, barne hartzen dituela bermatzea. Egiazki Euskadi izendapeneko selekzioak ere Iparraldeko eta Nafarroako futbolariak kontuan hartu izan ditu taldearen osaerarako. Bixente Lizarazu atzelari lapurtarra izan zen elastiko berdea janzten lehena Iparraldetik. Behin soilik jokatu zuen, 1993an euskal selekzioak Boliviarekin izandako partidari (Gomez, 2007: 165). Bere ondotik beste hainbat izan dira, Didier Deschamps Frantziako selekzioko gaur egungo entrenatzailea, adibidez. Lizarazuk aitortu zuen ETA talde armatuaren mehatxuarekin izan zela ordainarazi nahi zion dirua helarazi ez ziolako. Beste euskal futbolari batzuek ere talde armatuaren bortxa jasan zutenaren aztarnak izan dira, Aitor Begiristain Realeko eta Bartzelonako jokalariei eta gaur egun Manchester City Ingalaterrako taldeko kirol zuzendari denak, esaterako (Luis Barberia, 2008). Orotariko bortxa eta erasoak bertan behera uztea 2011n erabaki zuen ETA talde armatuak 2010ean euskal futbolari erreferentzia argia egin zion euskal hedabideetan argitaraturiko agirian. Bidezkoa da talde horren ekintza armatuek eragin izan duten oinazea ahaztu gabe bere gogoeta hemen plazaratzea, euskal politikan nahitaez eragin duen izatea izan delako.

“Horregatik urte luzetan zehar adierazpen eta lanabes desberdinak izan dituen borroka politikoan urratsak ematen joan gara. Oraindik ez, baina etorriko da gaurko etsaiekin beste terreno batzuetan elkarri aurre egingo diogun garaia. Agian batzuk nahi eta uste dutena baino lehen ikusiko dugu bi Herri subiranoren selekzioak norgehiagoka, eta agian, soilik agian, lasaiago hartuko dugu garaipena nahiz porrota, kirol kontua bilakatuta, bata ala bestearen biziraupena jokoan egongo ez denean” (cfr.Gara, 2010b)

2010eko abenduaren 29an Euskal Selekzioa deituraz Euskal Herria ordezkatzeko taldeak Venezuelarekin adiskidantza partidaren usadioa berriz hartu zuenean, ESAIT Euskal Selekzioen Aldeko Iritzi Taldeak Bilboko Alde Zaharretik San Mames zelairaino zaleen kalejira antolatu zuen tradizioz egin ohi zuen bezala, “Nazioa gara, ofizialtasuna. Lortu behar dugu, lortuko dugu” lelopean. Nazio izaera selekzioaren jabetzarekin lotzen duen ideia aldi gehienetan nabarmentzen du ESAITek. Talde horrek euskal selekzioaren partidetan ez ezik, euskal klubetako partidetan, nagusiki Athletic eta Realak elkartzen dituenetan, ere antolatzen ditu hirietako Alde Zaharretik futbol zelaietarako kalejirak bi taldeetako jarraitzaileen arteko euskal anaitasuna nabarmendu nahian. Venezuela nazio

selektzioaren aurkako partida horretan independentziaren aldeko oihuak eta partidari izan ez zen Patxi Lopez PSE-EEko lehendakariaren kontrakoak nabarmendu ziren. Aurreko eta ondorengo EAJren lehendakari abertzaleak agintarien harmailean izan dira besteetan euskal selektzioa aritu den bakoitzean. “Gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak” kantu herrikoa baliatu zuten maiz zaleek garaipena lortu zuen taldea babesteko, eta espainiar nortasunetik bereizteko “*español el que no vote*” – jauzi ez duena espainiarra da – erako deialdara. Atarian, bozgorailuetatik “Guk euskeraz zuk zergatik ez” Urkok abestutako eta Gabriel Arestik idatzitako kantua jarri zuten, baina baita, Euskal Selektzioa jokatzen egonda, era harrizkeoan, Athleticen ereserkia ere. Euskal herritarrek 3-1 irabazi zuten.

2011ko maiatzaren 25ean Euskal Selektzioak Tallinen Estoniako nazio taldearen kontra jokatu eta 1-2 irabazi zuen partidari, Euskal Herriko 50 zale baino gehiago izango ziren. Horien artean izan zen, Bilbon egin bezala, harmailetan, tesi ikerketa honen egilea ere. Taldearekin batera hegazkinean futbolariekin joandako hainbat, Estonia hurbileko lanaldia baliatuta bertara hurbildutako beste batzuk eta Erasmus Europan ikasteko beka baliatuta beste herrialde hurbilekoren batean ikasten ari ziren gazteak nagusiki. Tallinen zehar euskal herritarrak topatu nituen, eta horietako baten hitzetan, partida jokatze soila garaipena zen selektzioarentzat. Aritz Adurizek partida aurretik estadiora irtetear zirela honakoa esan zidan euskal taldeak etxetik kanpora partida jokatzeak zuen oihartzunaz:

“Nik uste dut etxetik kanpo euskal selektzioa etortzea pixka bat gure herria kanpoaldean ezagutaraztea, eta hona gatozena euskal selektzioaren garrantzia eta esanahia Euskal Herritik ateratzera”

“Euskal nazioa Euskal Herritik kanpo ordezkatzan du, eta horrek ere bere erantzukizuna dauka eta gu ahalik eta hoberen egiten saiatuko gara” (A. Aduriz, norbere iturria, maiatzak 25, 2011, Tallin)

Partidari euskal jarraitzaile gazteenek oihukatu zituzten kantu eta mezuak hauen baitari izan ziren. “Ikusi mendizaleak” kantu herrikoa, “Ikurriña bai espainola ez”, maiz oihukatu zuten “Independentzia”, “Euskal presoak etxera” aldarrikapen politikoa, joera bereko “Borrokalari kalera” Telesforo Monzonek egindako abestia, “Guk euskeraz zuk zergatik ez”, Aitor Zabaleta 1998an Atletico Madril taldeko zaleek erail zuten Realeko jarraitzailearen omenez aipamena, “Goazen Euskal Herria goazen txapeldun” selektzioa

sostengatzeko kantua. Bi horiek Donostiako Realeko zaletuen abestiekin lotura zuzena dute. “Euskal Herria” oihuak maiz, “We are basques no terrorists” – Euskal herritarrak gara ez terroristak – aldarrikapen politikoa, “Euskal Herria, Euskal Herria, beti beti Euskal Herria” kantuan. “Euskadi” oihukatzen zuen noizbehinka nonork, baina “Euskal Herria” oihua erabat gainjartzen zen. “Euskal Herria bildu da” kutsu politikoko oihuzko mezua ere bai, Bildu koalizioak 2011ko Euskal Herriko Foru eta Udal Hauteskundeetan emaitza oparoak izan berritan. “Ofizialtasuna” oihua, euskal nazio selekzioak txapelketa ofizialetan jokatu ahala izateko aldarria. “Nazio bat selekzio bat”, era berekoa, ESAITek maiz hezurmamitu duena. “Lepoan hartu eta segi aurrera” Pantxoa eta Peio Iparraldeko abeslari bikotearen kantua ere. Herrikoi bihurtua zen 1970eko hamarkadatik aurrera, eta kutsu politikokoa ere zen, hein handi batean.

Oroz gain, beti ere, orduko jarraitzaileen izaera Euskal Selekzioarekin atxikipena izan dezaketen herritarren ordezkatzaila ez dela zehaztuta, nabarmentzekoa da Euskal Herria deitura gainjartzea Euskadi izendapenaren gaindi zaleen sostenguzko oihuetan, euskal selekzioaren partida garaikideetan azaleratu den joera izaki. Horrez gain, ezker abertzaleko ideologiarekin uztartzen diren mezuak aipagai dira, banatzaileagoak, beste ideologiatako selekzioaren aldekoak – askotariko abertzaleak, ez eta euskal abertzale ez direnak – barne hartzen ez dituztenak. Partida amaieran, kanpoan, futbolariak zaleekin elkartu ziren anaitasunezko giroan autobusean sartu baino lehenago, eta besarkadak eta argazkiak eskaini, A. Le Coq Arena Tallingo estadioaren kanpoaldean. Euskal Herriatik urrun, sendia, taldea, nazioa islatu zuen hein batean jokalarien eta jarraitzaileen loturak. Kontuan hartu behar da futbolariak ez zutela soldatarik jasotzen Euskal Selekzioarekin aritzeagatik. Ondorio modura, esan beharra dago euskal selekzioaren alde Tallinen batu ziren zaleen artean Erasmus bekaz inguruko herrialdeetan ikasten ari ziren Gipuzkoako gazteak gainjarri zirela, baina helduak baziren nolana ere, partida amaieran ikurriñaz jokalarien ingurura gerturatu nahian zelaira jauzi egin zuen gizon bat tarteko, segurtasun indarrek berehalakoan harrapatu zutena. Baina baziren lan loturagatik Helsinkira joanak ziren bizkaitarrak ere, eta Estoniara selekzioa ikustera hurreratutakoak. Zernahi izanda ere nazio taldearekin zuten atxikimendua, Euskal Selekzioaren nazio ordezkari izaerak denak bateratu zituen sorterritik urrun, euskal komunitate imajinatuaren partaide gisara. Aurreko nazioarteko partidetan, bereziki Venezuelen jokatutakoan, EAJren gobernuak selekzioaren bidaia diruz lagundu bazuen, PSE-EEk zuzendutako Eusko Jaurlaritzak ez.

Tunisiarekin Euskal Selekzioak 2011ko abenduaren 28an Bilboko San Mames estadioan hurrena jokatu zuen neurketan, 0-2 galdutakoan, Donostiako hiri erdiguneko tabernetan itzuli ingurua egin nuen kanpotik, partida ETB1eko emanaldiaz jarraitzen ari ote ziren ikusteko. Erdietan baino gehiagotan, Alde Zaharrea eta Grosen, beste zerbait zegoen telebistan, eta baita Eskoziako Ligako partidaren bat ere, zeina Espainiako nazio taldeak Munduko Txapelketako partida bat jokatzen duen aldi berean izatea pentsaezina izango zatekeen. Eguraldi umela zen, tabernetan partidak jendea bateratzea zaildu egiten zuena. Hurrena, 2012ko ekainaren 23an Donostiako Anoeta estadioan, emakumezkoen euskal selekzioaren lehen nazioarteko partidak hartu zuen lekukoa. Euskal Herria Kirola izeneko elkarteak, Kontseiluak eta ESAITek elkarlanean Hamaika Gara lelopean atondu zuten ekitaldia. Euskal Herria deiturarekin zelairatu zen eta Eslovakiari 1-0 irabazi zion. 4.000 lagun inguru izan ziren 30.000 lagun inguru har ditzaketen estadioko harmailetan. Ospakizun giroko partida izan zen, alderaketan eta bereizketan errotutako nortasunezko aldarrikapena baino gehiago. Ereserki bat asmatu egin zuten partida horretarako, euskal jokalarien omenezkoa, gizonezkoek Euskadiko Futbol Federazioaren babespean erabili ohi duten *Gora ta Gora* nazio ereserkiaren orde. Litekeena da adiskidantzako partiden izaerak ekidin izatea futbolaz nazio ereserkia, gizarteak partekatua dena, ezagutaraztea. Anoeta estadio kanpoaldeko postuetan salgai ziren lepokoetan “Euskadi” nahiz “Euskal Herria” izena aurki zitekeen. Futbolak zentzu horretan islatzen du euskal nazio izaeraren gaineko akordio zabalaren gabezia, Euskal Herria deitura oro har, hedabide publikoetan ere, askotariko abertzaleek gehien balioesten duten izena izanagatik.

Bestalde, azkenik jasoko dudana Euskal Selekzioaren partida Donostiako Anoeta estadioan Boliviako nazio taldearen aurka 2012ko abenduaren 29an jokatutakoa da, 6-1 emaitzarekin irabazitakoa. Xabi Alonso Real Madrileko futbolariak eta Beñat Etxebarria Betisekoarekin gidatutako erdiko jokoarekin, Aritz Aduriz golegilea aurrean zutela, aise gailendu zen nazio taldea, itsasoz bestaldeko bidaia luzea igarri zuen Boliviaren aurka. Emaitzaz haratago, ordea, hainbat lagunek etengabe bengala jaurtiketekin eta eserlekuak hautsita helarazi zuten itxura txarrak ezaugarritu zuten partida eta ondorengo eztabaida politikoa. Osterantzean, ESAITek ohi duenez antolatu zuen kalejiran, lehergailu txikien etengabeko danbatekoek aparte, mezu politikoak nagusitu ziren. “Selekzio bat, nazio bat”, Espainiaren eta espainiarren kontra oihukatutako irainak, “Gu euskaldunak gara Euskal Herrikoak”. “Ofizialtasuna”, zerion ESAITen manifestazio hasierako pankartari, eta atzetik gaztetxoek gehiengo multzoa zetorren norbere pankartekin. Euskal presoen

aldeko oihuak nahasten ziren nazio taldearen inguruko mezuekin, eta independentziaren aldekoekin. ESAITek adiskidantzazko neurketaren atarikoan burutu zuen aldarrikapen ekitaldian ere, selekzioaren baitakoa eta geroagoko euskal presoen aldekoa ia lotuta uztartu ziren, ideologia politiko mugatu batek euskal nazio selekzioaren aldeko aburu edo atxikimendu hedatuagoa lausotu egingo balu bezala. ESAITen Anoeta kanpoaldeko ekitaldia “Gora Euskal Herria” eta “Nazio bat, selekzio bat” esaera adierazgarriekin, eta ekimena oro har laburbiltzen dutenekin, amaitu zen.

Ezin aipa gabe utzi, partida atarrikoko ekitaldiko antolatzaileek oholtza gainean Nafarroako bandera jarri zutena, aurreko kalejiran aurrealdean ESAITek eraman zuena, eta ikurriñaren ondotik sinbolo hori futbolaren bidez berreskuratzeko hausnarketa islatu ahal zukeena. Alegia, Nafarroako armarrria euskal nazioaren ordezkatzaille biziberritzeko nahia, futbolaz. Gogoan hartu behar da, aldeak alde, 1996an Ingalaterran antolatu zuten Europako Kopan bertako banderaren erabilpena hedatu zela jendartean selekzioarekin batera, britainiar banderak adierazi ohi duen talde nortasun zabalagotik nazio nortasun ingelesa bereiztea xede hartuta. Litekeena da Euskal Selekzioari lotuta mugimendu edo gizarte eragile edo politiko batek pentsatuta, nahiz gehiegi hausnartzeke, gisako xedea betetzea. Esan nahi baita, Nafarroako bandera berreskuratzea euskal nazioaren sinbolo erakusgarriena gisa, futbolaren zio sinbolikoa baliatuta. Beste hitz batzuetan adierazita, euskal nazioaren biziberritze sinbolikoa ikurriña baino sinbolo zaharragoak hauspotuta.

Jose Mari Amorrortu 2011tik Euskal Selekzioaren hautatzaile nagusia denaren hitzetan – Mikel Etxarri du laguntzaile – euskal futbolaren adierazgarria da nazio taldea eta munduari bertako ekarpena erakusteko leihoa. Futbolariak euskal taldearekin duten hitzeman goraipatzen du, Xabi Alonso Real Madrileko futbolariarena esaterako, talde horrekin goizean entrenamendua izanagatik iluntzean betebeharrrik gabe selekzioarekin jokatzeko eginahala egiten duena. Bestela da Espainiako nazio selekzioarekin hautatuak izanez gero parte-hartzeko daukaten betekizuna. RFEF Espainiako Futbol Federazioaren araudi orokorrari jarraiki – Hirugarren liburuan, seigarren tituluan, lehen atalean, 254.3 artikuluan – futbolarien eginbearra da selekzio horren deialdietara joatea. Aipatu diren Iribar eta Kortabarriaren ukoez gain ezagun egin ziren 1990eko eta 2000ko hamarkadan, hurrenez hurren, Nacho jokalaria galiziar ohiaren eta Oleguer kataluniarraren ezezkoak. Azken horretan, Luis Aragones orduko entrenatzailearekin selekzioaren prestaketa egun batean hitz egin ondorenean bertara ez deitzea hitzartu zuten. Nolanahi ere, nazioarteko

sona eta garaipenak eskuratu ahal izateko askok Espainiarekin jokatzeari onartu ohi dute bestelako aukerarik izan bitartean. Esaterako, Javier Clemente Bizkaiko entrenatzaileak 1990eko hamarkadan Espainiako nazio selekzioaren prestatzaile karguan euskal herritar ugari deitu izana – historian askotan gertatu den joera izaki, 1920ko urteetatik abiatuta – nabarmendu zuten Madril hiriburuan errotutako hainbat kazetarik. Horrela, Liz Crolley eta David Handen hitzetan (2002: 136-137) hedabideetatik Clemente kritikatzeko zuten aldiro, irakurleei oroitarazten zieten euskal herritarra zenaz.

Espainiako selekziora kirol garaipen soilen bila, horrek ordezkatzen zuen nazio nortasunaz sentipenezko atxikimendurik izateke, zihoazen Espainia barruko nazioetako jokalarien auzia selekzioaren eraginkortasun ezaren azalpen modura azaleratu ohi zuten kazetariak Espainiak 2008tik 2012ra bi Europako Kopa eta Munduko Kopa bat irabazi zituen arte, kataluniarren gehiengoaz irabazi ere. Espainiar amorruan errotzen zen indar ahaleaginean oinarrituriko joko estiloa, espainiarren nortasuna hezuramaitzen zuelakoan kazetariak behinola asmatutakoa, ere aldatu zuten, garaipenak joko teknikoan oinarritu zituzten heinean. Espainiaren modernitaterako igarobidearen jauzitzat aurkeztuko zuten, gainera. Euskal Selektioari dagokionez, Amorrortuk ez du estiloaren bidez azaleratzen den nortasunean sinesmenik eta jokalarien izaeraren araberakoa dela zehazten du. Beste selekzioekin txapelketetan lehiatzeko moduko taldea duela aldarrikatzen du, eta kazeten eta ikus-entzunezko hedabideen arreta handiagoa eta herritarrena ofizial izaerak sortuko zukeela sinetsita dago.

5.5.2-Kontrajarritako futbol bidezko nazio sentipenak Euskal Herriko alderdi politikoetan eta hedabideetan

Liz Crolleyren eta David Handen ustetan (2006: 131), euskal selekzioaren ohiko partida arinkeriak jotzen da hedabideetatik, jaitzat eta kultur adierazpentzat aurkezten duten neurrian, ordezkaritzazko eta nortasuneko futbol bidezko ekimena izan beharrean. Inondik ere, talde horren gaineko atxikimenduari dagokionez, euskal abertzaletasunezko jarrerako hedabideek nazio selekzio nortasuna nabarmentzen dute, *Gara* egunkariak eta EAJren inguruko Noticias komunikazio taldearen kazetek. Bestalde, Vocento multzoko probintzia mailako eta espainiar ildoko egunkariak, *El Correo* eta *Diario Vasco* kazetek,

urteroko partidaren inguruan hedapen zabalak eginagatik ez dute haratagoko harrotasun eta nazio nortasunarekin uztartzen. *Diario Vasco*-k esaterako, Euskal Selekzioaren eta Tunisiaren arteko 2011ko abenduko partida azalean bost zutabeko argazkiarekin bildu zuen, eta kirol sailean partidaz azalpen zabala burutu. “*Euskal Selekzioa no se mereció semejante castigo*” – Euskal Selekzioak ez zuen hainbeste zigorrrik merezi – izenburuak oro har partidaren kontaktaren informazio kutsua ezaugarritzen zuen (Arenaza, 2011). Bestela izan zen, adibidez, *Deia* euskal abertzaletasunezko ideologiako kazetaren joera Estonian 2011ko maiatzean Euskal Selekzioak etxetik kanpora jokatu zuen neurketaren inguruan. Kataluniakoaren eta Venezuelakoaren ondotik, Euskal Selekzioa kanpoaldean ezagutarazteko bilakaeraren adierazlea zenean³⁹. Lehen orriko argazkian esanguratsuki idatzita ageri zen, “*Aduriz muestra a Euskadi en Europa*” – Adurizek Euskadi Europan erakusten du – lerroburu txikia. Barnealdean, ildo berean, “*Aduriz consume una doble reivindicación*” – Adurizek aldarrikapen bikoitza gauzatu du – zen albisteko izenburua. Aritz Aduriz aurrelariaren joko onak ahalbidetutako 1-2 emaitzako garaipena nazioaren ezagutaraztearekin eta aldarrikapenarekin uztartu zuen hastapenetik, hala, *Deia*-k (Ruiz, 2011) *Diario Vasco* egunkariak ez bezala. 2010eko Hegoafrikako Munduko Kopari eta Espainiako nazio selekzioaren parte-hartzeari emandako aurreko atalean hautemandako erabileraren erabat kontrakoa da. Esan nahi baita, hedabideon hunkipen lotura aldatzen dela eta horiek igortzen duten nazio atxikimenduarena, jokoan dagoena Espainia gertatu edo Euskal Selekzioa izan.

ETB1en Euskal Selekzioaren partiden euskarazko emankizunei dagokionez, bide berean, kazetekin gertatzen den antzera, adiskidantzazko partidak izateak baldintzatzen du hein handi batean nazio nortasunarekin lotura. Ondorioztatua da jadanik, naziotasun edo talde identitate sentimendua Munduko Kopen lehia estuenetan areagotu egiten dela, hedabideek gu eta haiek erkaketa eta horren bitartezko identifikazioa bizitzea bideratzen duten egokieratan. Adiskidantza partidek ez dute aukera hori ematen, Euskal Selekzioak jokatzen duenean bezala, sarritan festa gisara soiltzen baitira hainbatetan identifikazioa alderaketan bideratu ordez. Areago, ETBren sortzezko helburuari jarraiki, hau da, kirol emanaldiez, eta bereziki futbolekoen, osterantzean euskarazko telebista gutxi edo sekula ez ikusiko ez zutenak bertara eta hizkuntzara erakartzea (Diez Urrestarazu, 2003: 123),

³⁹ 2012an ere ahaleginu zen maiatzerako, estatuetako liga denboraldiak amaitzerako, adiskidantza beste partida bat atontzen. Georgia, Mazedonia, Eslovenia, Estonia, Maroko eta Montenegroko federazioekin hitzartzen saiatu zen. Hala ere, Athleticen sasoi apartak, UEFA eta Errege Kopako maiatzeko bi finalera iritsi zen euskal taldea, ezina egin zuen Poloniako eta Ukrainako Europako Koparen atarian data lekutzea.

Euskal Selektzioaren partidak euskaraz eskaintzeak zailago bilakatzen du, lehen begiratuan behinik behin, Euskal Selektzioaren emankizunak euskal nazio nortasunaren baterazle bihurtzea, garrantzia funtsezkoa duen esatarien kontaketa eta gida ulertu ezina bihurtzen baitu ordezkatu nahi duen nazioaren kide askorentzat. Euskara ez da euskal lurraldeen arteko itsasgarria gaur egun, Euskal Herriko herritarren laurdenak mintzatzen baitu (Eusko Jaurlaritza, 2006), askotariko ulermen maila askoz ere handiagoa bada ere. Unescoren arabera, Ipar Euskal Herrian desagertzeko arriskuan dago euskara (Unesco, 2010). Bestalde, arrazoizkoa da pentsatzea euskal selektzioak lehiaketetan parte hartzeko eskumena izango balu, ikus-entzuleria handiagoa edukiko zukeela eta arreta handiagoa ezarriko zukeena. Hortaz, euskararen zabalpenean lagunduko zukeen. Dena dela, orain arteko egoeraren isla da Euskal Selektzioak eta Tunisiak Bilboko San Mamesen 2011ko Gabonetan jokatu zuten partidaren erretransmisioak % 15,3ko ikusle kuota eragin zuela, EAEn bederen, 123.000 ikus-entzule. Urrun daude emaitzok Espainiako eta Frantziako nazio taldeek beren estatuetakoa lurralde osoan txapelketetan elkartzen dituzten telebista ikus-entzuleen %70etik gorako mailetatik.

Hedabideetan antzematen den futbolaren eta nazio atxikimenduen lotura alderdi politikoen lehian are nabarmenagoa da. Euskal alderdi abertzaleek euskal selektzioaren ofizialtasunaren aldeko hautua eta atxikimendua jakinarazten duten bitartean, espainiar estatu mailako espainiar nortasuneko alderdi politikoei Espainiako selektzioa hobesten dute, Munduko Kopa jokoan denean bereziki. Hori horrela, 2009an, ezker abertzalearen hautagaitza legez kanpo utzia zutela, espainiar nazio nortasuna hobesten zuten alderdiek hauteskundeetan gehiengo erdietsi zutenean, EAJren aurreko gobernuek lege ekimenez Euskal Selektzioaren alde Parlamentuan hartutako ebazpenak osoki aldarazi zituzten, eta espainiar nortasunarekin lotutako kirol adierazpenak sustatu. Bidezkoa deritzot Joseba Egibar EAJren Eusko Parlamentuko bozeramailearen adierazpen hauek hemen egokitzen ematea: “Ez dago ezer politikoagorik nazio selektzioa baino”. 2010eko abuztuko esanak dira horiek, PSE-EEren eta PPren estatu mailako eta espainiar nazio nortasuneko Eusko Parlamentuko gehiengoak Espainiako Txirrindularitza Vuelta urte ugari eta gero Euskal Herriko errepedetatik pasako zela erabaki zuenean. 2010ean Espainiako Kopako finala ere Bilbora bertaratu zen Legebiltzarreko espainiar Konstituzioaren aldeko gehiengoak, alegia, estatuaren nazio eraikuntza bultzatzen zuenak, bideratuta. Horrez gain, 2009ko azaroan Espainiako futbol elkargoari eskatu zion PSE-EE, PP eta UPyDren gehiengoko Legebiltzarrak Espainiako selektzioaren partidak antolatzean Euskal Herrian jokatzearen

egokitasuna aintzat hartu zezan, hots, erkidegoa ordu arte izan zen bezala, estatu-nazioa ordezkatzeko zuten selekzioarentzat salbuespena izan ez zedin. Futbol elkargoak oster, nahiz eta galdegitea atseginezkoa eman, politikariei oroitarazi ziren futbol klubaren ardura zela beren estadioetara Espainiako selekzioa gonbidatzea, eta klubek ez dute urrats hori oraindik egin. Euskal alderdi abertzaleek kirolaz gizartea espainiar estatuaren nahia egotzi zieten.

Ezin zehaztu gabe utzi gainera, euskal abertzaleen eta aberritatzat Espainia estatu nazioa dutenen arteko banaketa ez ezik, euskal selekzioaren gainean 2008tik 2010erako ezbaia ere, nagusiki alderdi euskal abertzaleak etsaitu zituen, besteren artean Euskadi deitura historikoaren eta Euskal Herria izendapen zabalagoaren aitzakian, alderdikeriak tarteko. Nazio proiektuak alderatzeko balio izan du euskal selekzioaren auziak azken urteetan horientzat. Izendapenetik bertatik hasita, nazioa besteen aurrean eta bere baitan definitzeko adostasun ezak eta nazioaren lurraldetasunari buruzkoak euskal nazioaren zehaztu ezina eta askotariko atxikimenduen arteko akordio eza ikusarazten ditu. Izan ere, futbolarekin eta euskal selekzioaren auziarekin euskal abertzaleek, euskal nazioaren izate bereizituan sinesten duten horiek ere, ez daukate horri buruzko abiapuntuzko bat egiterik. Selektzioaren ofizialtasunaren, hots, txapelketa ofizialetan jokatzeko eskumena aldarrikatzen dutenen lelo zabaldua da “Nazio bat, selekzio bat” dioena. Nazio horren deituraz gizarte gogoeta zabala ere falta da oraindik, eta futbol selekzioari dagokionez, kanpoko ohiko salmenta postuetako zaleen lepokoetan ere ageri da amarauna. *Euskadi* eta *Euskal Herria* izeneko taldearen oroigarriak saltzen dituzte aldizkatuta. Litekeena da 2011n ETA talde armatuak bortxazko ekintzak amaiarazi izanaren ostean hasitako aldi politiko berriak euskal nazioaren gainean hausnartzeko egokiera berritua sorrarazi izana, Kataluniako independentziaren aldeko gizarte adierazpen jendetsuek eta mugimenduek ere hezuramamitutako espainiar estatuko nazio auzien gaurkotasun aroan txertatuta.

Konstituzio Auzitegiak 2012an ebatzi zuen 1998ko gehiengo euskal abertzaleko alderdien Kirol Legearen Konstituzioa auzia⁴⁰, eta Kataluniako Legebiltzarrak (1999)

⁴⁰ Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren hiruko alderdiko – EAJ, EA eta EB – gobernuak 2003an onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoa izan zuen estatutu politiko berriaren proposamenak, bertan jasotzen zuen EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren nazioarteko kirol ordezkariaren nahia. Erakundetzeko lege proposamenaren 47.artikuluan jasota zegoen Euskadik kirolaren eremuan berezko nazio selekzioak izateko eskubidea, zeinak ahala izango zuten ofizialki nazioarteko lehiaketetan aritzeko. Halaber, 1998ko Kirolaren Legeari jarraiki, adierazten zuen espainiar estatuak bermatu egingo zuela euskal identitatearen nazioarteko ordezkariaren begirunea kirolaren eremuko kultur adierazpen orotan, zeinak barne hartuko zukeen Euskadiren ordezkariaren nazioarteko egituretan eta euskal kulturaren kanpo hedapena, eta helburu

onartu zuen gisa bereko Kirolaren Legearen inguruko Konstituzio egokitasuna ere bai. Epailleek Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Legearen aipatutako 16.artikulua ontzat eman zuten, baina baldintzatu. Euskal Herriko selekzioek nazioartean parte hartuko zuketena “baldin eta espainiar federaziorik ez den kiroltakoak diren, eta ezein kasutan espainiar kirolaren nazioarteko ordezkariak egitearen estatuaren koordinazio eta errepresentazio eskumenak erasan gabe” (cfr.EFE, 2012c). Historian behatuta, Konstituzio Auzitegiaren erabakiak bazeukan antzekotasunik 1839.urteko urriaren 25eko euskal foruen berrespen legearekin. Lehen Gerra Karlista amaitu berritan Gobernuak aditzera eman zuen foruak onartzen zituela baldin eta Konstituzio batasuna, hots Espainia herrialdearentzat legedi, lurraldetasun eta nazio batasuna bideratzen zuena, kontrajarriko ez zuen neurrian. Foru bereizitasuna indargabetzeko hitzen erabilera zen orduan, baldintza betetzeko ezinezkoa aurreikusten zuena. 2012ko Konstituzio Auzitegiaren urtetan atzeratutako erabakimena ere, bidezkoa da, nolakotasun berekoa dela arrazoitzea, euskal selekzioei eta hurrengo ebazpen baten, Kataluniakoei, nazioartean aritzea baimenduagatik, espainiar elkargorik ez selekziorik ez egotea kirol horretan baldintza jartzen baitzieten. Nazioaren batasuna bata, eta kirol batasuna bestea, nazio anitzaren aurrez aurrean auzi beraren adierazpide antzerakoak dira, garai ezberdinetan, baina Espainiaren bilakaera politikoa ezaugarritu duten barne nazioen arteko askatu gabeko norgehiagoken isla, eta bistan denez kirolean, eta futbolean, bereziki azaleratzen dena gaur egun. Esteban Gonzalez Pons PP Alderdi Popularreko eledunak egin zituen adierazpenetan gardenki azaldu zuen futbol bitarteko nazio ordezkariak zeukan garrantzia: “Munduaren begietara Espainiak azkarki utziko ahalko zion nazio bakar gisara hautemana izateari kirol eremu bat kirol selekzio askotan banatuta zanpatuko zuen unetik bertatik” (cfr.Gomez, 2007: 99).

FIFAREN araudia ere, esan denez, orainaldian estatua direnen mesedekoa da, eta elkargo bat onartzen du estatuko, 1904an ekiniko bidetik, zirrikituak zirrikitu. Erresuma Batuaren kontrolpean den Iberiar Penintsulako hegoaldeko lurmuturrak, Gibraltarrek, 1997an UEFARI eskaera egin zion bere futbol federazioa onar zezan. Aitzitik, hasieratik Espainiak oztopoak jarri zizkion Gibraltarri nazioarteko kirol ordezkarietarako herrialde aitormena erdietsi ahal izan ez zezan (Gomez, 2007: 197). Jakina da Utrechteko 1713ko bake hitzarmenetik britainiarren mendean dagoen lurralde murrizta, Europa eta Afrika banatzen dituen Mediterraneo Itsasoaren itsasarte estrategikoan kokatua, beretzat eskatu

hori erdiesteko ahalbidea izango zuen nazioarteko erakunde eta izateekin edota beste herrialdeetakoekin akordioak hitzartzeko (Eusko Jaurlaritza, 2003)

duela Espainiak, Iberiar Penintsulan kokatua denez, bertakoen iritziari jaramon egiteke. UEFAk behin behinean bere kide onartu zuen 2012ko urrian, TAS Kirola Arbitratzeko Epaitegiaren aldeotasunezko ebazpenari jarraiki. Aitzitik, 2013ko maiatzeko UEFAREN kongresuan berresteko beharra zuen erabakiak, 2006an ere behin behinean onartua izan zela aintzat hartuta gainera. Gibraltarreko Gobernuak, edonola ere, atseginez hartu zuen UEFAREN behin behineko erabakia, eta era adierazgarrian Espainiako Gobernuari egotzi zion “politika eta kirola nahastea” (Europa Press, 2012). Izan ere, akusazio berdina egin izan ohi diete Espainiako agintariek Kataluniako eta Euskal Herriko abertzaleei beraien berezko selekzioen ofizialtasuna aldarrikatu dutenean. Salaketa horietako bakoitza, hala esatea baldin badago, egokia da, bata nahiz bestea, futbola eta kirola lehentasun tresnak baitira nazio izaera eta harrotasuna plazaratzeko. Okerra, eta hutsala da, ostera, besteen jokabidean ezkortasunezko ezaugarriak hautematea eta norbereenean egokitasunezkoak.

5.5.3-Euskal Herria Kirola eta ESAIT elkarteen saioak Euskal Selektzioaren estatu gabeko izaerari dagozkion mugak eraisteko

ESAIT Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi Taldearekin batera, Euskal Herria Kirola erakundeak zuzentzen du askotariko kirolen euskal selektzioen aldeko aldarrikapenaren zuzendaritza gaur egun. 2009ko abenduaren 27an Donostiako Belodromoan ospatutako KirolHerria jaialdian izan zuen sorburua, hainbat kirolariren ekimenez eratutako aldarri festan. Euskal Herriko txapelkunaren titulua osatzea helburu hartu zuten, eta horretarako eremu geografiko horretako txapelketak antolatzea. ESAIT eta Kontseiluarekin batera Euskal Herria eta Eslovakiaren arteko emakumezkoen lehen nazioarteko norgehiagokaz gain, Euskal Herria Kirolaren sortzezko ekarpenik esanguratsuena izan zen errugbian 2012ko abuztuan eratu zuen Euskal Kopa, Biarritz Olympique Pays Basque eta Aviron Bayonnais Lapurdiko talde entzutetsuak Donostiako Anoeta estadioan alderatu zituena. Nazioarteko txapelketetan aritu ezina argudiatzeko Espainiako hedabideetatik Katalunia eta Euskal Herrian jomuga hori dutenei berezko txapelketak osatzeko gabezia eta ezina egozten diete. Nahiz eta izatez Andorrak, Monakok eta bestelako herrialde burujabeen klubek, eta nazio selektzioa dutenek, arazorik gabe jokatzeko duten berena ez den ondoko estaturen batean, Euskal Herria Kirolak euskal eremuko txapelketak egitearen eginkizun

hori hartu zuen, Espainiaren mendeko eta Frantziaren mendean diren euskal probintzia historikoak, denak, erreferentzia eremu bezala hartuta. Jon Esturo erakundeko eledunari elkarrizketa egin nion etorkizunera begira elkartearen erronkak eta jomugak ezagutzeko. Esturoren esanetan, alderdi politikoetatik bereizten da ESAIT baino gehiago, eta euskal kirolarien antolamendua dela zehazten du. Nolanahi ere, euren ekimenak ezin bestela, hautatuko erreferentzia egitura politikorik ez daukan Euskal Herriaren osotasuna izanda, eragin politikoa duela aitortzen du. Herrialde independentea bailitzan jokatu nahi dutela gaineratzen du, eta bide horretan kirol kontseilu nagusia sortzea bideratu Euskal Herriko esparruarekin bat egiten duten alderdi politiko eta kirolariek. ESAITen ofizialtasuneko galdegiteekin bereizita, eurek hori eskatuko ez dutela argitzen du, ofizialak bailiran lan egingo dutela. “Eurek egiten dute ekintza politikoa kirolarekin eta guk egiten dugu kirol politika, ezberdina da” (J.Esturo, norbere iturria, urtarrilak 24, 2013).

Hala, Euskal Herriko erreferentzia mailako ligako lehiaketa antolatzeko urratsak aurreratuak dituzte, Esturoren esanetan, norbere ekimenaren adierazgarri. Ingalaterrako ordezkoen ligaren parekoa izango zatekeen, hamabi taldez osatua. Osasunaren hasierako ezezkoa salbuetsiz, Athleticek, Realak, Alavesek, Sestaok, Amorebietak, Eibarrek, Real Unione, Peña Sportek eta Aviron Bayonnaisek, besteren artean, baiezkoa eman zioten ekimenari Euskal Herria Kirola elkarteko eledunaren hitzetan. Lehiaketaren tankeraren mugak onartuta ere, Europako txapelketa garaikide batzuk baino indartsuagoa bihurtuko litzatekeela ziurtatzen du. Ipar Euskal Herriko futbol taldeentzat egokia izango zatekeen Hegoaldekoekin jokatzeari, futbolariak bertan beren burua ezagutaraziko zuketelako, eta are gehiago, Frantziako osoko eredu zentralistagatik futbol ligako beheerenerako mailetatik behartuta dauden bidaia luzeak egiteko oztopoa eraitsiko zuketena eta.

ESAITek 2014ko urterako Brasilgo Munduko Koparen aurreko asteak baliaututa Euskal Selekzioarekin eta Katalunia gisako selekzioekin nazioarteko txapelketa sortzea proposatu izanaren ildoko ekimenen aldeko da Euskal Herria Kirola. FIFAk bere baitan onartu ez dituen selekzioen NF Board izeneko lehiaketaz antolamendu aldetik gabezia askokoa dela uste du, eta FIFAk etorkizunean bere baitan onartzera erakartzeko moduko osara egokia izan beharko duela, telebistak gogatzeko dituen eta estadioak betearaziko dituen nazioarteko txapelketaren izaerakoa. Esturok Pazifikoko uharteetako txapelketa baten adibidea ipintzen du ahaleginaren zentzua azaltzeko. FIFAREN barruan ez zeuden selekzioek jokatu behar zuten lehiaketako garaileari futbol erakundeak eskubidea emango zion

Munduko Kopako atariko lehian parte-hartzeko Ozeaniako kontinentean. Epe ertainera Europan, Euskal Selektzioak ahalbide berdina izango zuen lehiaketa atontzea da Euskal Herria Kirolaren jomuga, Esturoren arabera. “Adibidez, esaten digutenean zuek zer plan duzue ofizialtasuna lortzeko? Gure plana ez da eskatzea, zeren eskatzea libre da, baina ez ematea ere bai. Gure plana da eginen bitartez lortu bidea”. ESAITek hasitako bidean aurrera egitea, ekimen egituratuagoa sorraraztea, da elkartearen xedea. Martxel Toledo ESAITeko eledunak tesi honen egileari adierazia da Euskal Selektzioaren adiskidantza partiden aroa agortua dela. Aurrerabidea politikarien baitan eta borondate politikoaren inguruan betikotzen du, nolana ere: “Elkarri errua botatzen diote Euskal Herriari kirol federazioek eta politikariek ere” (M.Toledo, norbere iturria, urtarrilak 24, 2013). Euskal Herria Kiroleko eledun Jon Esturok, bistakoa denez, kirolaren baitan ere zuzentzen du eginahala, politika alorraren sostenguari ezinbestekoa iritzi izanagatik. Ekinaren ekinaz, estatuen selektzio eta elkargoen egituran sustraitua dagoen eta Espainiak irmo babesten duen nazioarteko futboleko zirikituak lekutzea dute xedea.

Esturok modu baikorrean hartzen du Luis Maria Elustondok 2013ko urtarrilean Santiago Arostegi ordu arteko burua Euskadiko Futbol Federazioaren presidentetzarako bozetan gainditu izana. Arostegik ez bezala, Elustondok ofizialtasuneko bidean pausoak emateko borondatea daukala uste du. Hori eratortzen da gainera, neronek Internet bidez aurreko federazioaren zuzendaritzaren agintaldian posta elektronikoz igorri nien galdera sortaren ihardespren laburrei jarraiki. Azalpen gehiegi emateke Arostegiren federazioak erantzun zidan urtero bi adiskidantzazko partida jokatzeko zela guztizko xedea, bestelako aipamen edo xederik gabe. Dena dela, zuzendaritza horren jarrera ere bazen federazioa EAE Euskal Autonomia Erkidegoko esparrura mugatu arren, horretaz haratagokoa zela elkargoaren izaera, Euskal Herriaren mailakoa pentsa daitekeenez. Ondorioz, Irlandako Errepublikaren selektzio ofizialarekin antzekotasunak izango lituzke, nazio talde horrek bere federazioaren lurralde esparruaz gaindiko nazioaren futbolariak zelairatzen baititu. Deigarria da federazioak onartzen duela jende asko berarekin harremanetan jartzen dela Euskal Selektzioaren bereizitasuna ezagutzeko eta ofizialtasun bideko pausoak jakiteko, Euskal Herriatik nahiz kanpoan bizi diren euskal herritarrak eta beste jatorritakoak. Ildo horretan, Luis Maria Elustondo 2013ko urtarriletik presidente berria denak honela esan zuen *Diario Vasco* egunkarian egin zioten elkarrizketan bere zuzendaritzaren helburua Euskal Selektzioak nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko bideari buruz: “Selektzioaren ofizialtasunaren aldeko borroka egingo dugu, baina zuzenbidearekin eta zentzuarekin”

(Elustondo, 2013). Kataluniako federazioarekin hartuemanetan izan eta FIFA eta UEFA erakundeen mugen baitan urratsak egitea da Elustondok adierazten duen xedea. Helburu horrekin gizartearen ekimen handiagoa eta jokalaria dagoela nabarmentzen du. Kirol zuzenbide alorrean adituak direnen taldea izango dutela dio, eman ahal dituzten pausoak begiztatzeko, eta esan bezala zuzenbidearen bideko urratsak egiteko.

Zentzu berean mintzatzen da 2012ko urriaren 21eko EAeko hauteskundeetatik eratorritako Iñigo Urkullu lehendakariaren Eusko Jaurlaritzako gobernu berriaren Kirol Zuzendari Jon Redondo ere. Euskal abertzaleak diren neurrian ofizialtasunaren aldeko ekimena beren izaerari atxikita dagoela azaltzen du. Hala ere, Redondori *Berría* kazetan egindako elkarrizketatik eratorritzen da Euskal Herriak zehazten ez den estatus politikoa erdietsi bitartean ia ezinezkoa izango duela nazioartean ofizialtasunez lehiatzea, eta ildo horretan, politikaren mendean dagoela erabat Euskal Selektzioaren neurketa bakanetatik gaindikoa izatea. “Baina horrek ez du esan nahi hori lortu bitartean geldirik egon behar dugunik. Zirimiri moduan egin behar ditugu gauzak, pixkanaka-pixkanaka baina etengabe. Hori bai, egiten dugunak serioa izan beharra dauka” (Redondo, 2013). Jon Redondok euskal kirol selektzioen saioa Eusko Jaurlaritzari eta EKFB Euskal Kirolen Federazioen Batasunari dagokiola argi utzi nahi du, eta horrenbestez bereizketa, eta bide batez zatiketa ere, adierazten du ezker abertzaleko ideiekin uztartu ohi den ESAITekin, eta baita aipamenik egiteke uzten duen Euskal Herria Kirolarekin ere. Ondorioztatu ahal da EAJren gobernu berriak estatuaren sorkuntzara behar duela Euskal Selektzioaren nazioarteko txapelketetan aritzeko aukera, eta hartara, bilakaera politiko konplexuaren baitan dagoela futbol ordezkariak aitortzen du, Euskal Herria Kirolak irauli nahi duena.

Hori horrela, Euskal Herriko selektzioen ezintasuna, eta bereziki, futbolekoarena, azaleratzen denean, iraganetik berreskuratzeko modukoa da Peio Etcheverry-Ainchartek *Enbata* Ipar Euskal Herriko hilabetekariaren 2006ko uztaileko alean iritzi artikulu bidez egin zuen arrazoibide hau. Futbol eta nazio nortasunen loturaz, nazio sentipenak pizteko duen garrantziaz eta Iparraldeko bizipen osagarriez balioesteko moduko hausnarketa da.

“Mais pour nous abertzale, c’ est un sacré problème. Nous pouvons rédiger les projets politiques les plus sérieux, les discours les plus convaincants, leur portée sur la population sera toujours infiniment plus faible que l’émotion suscitée par une victoire de l’équipe qu’ils ont appris à soutenir. Je dis bien

appris, car à chaque âge tout porte à l'identification des Français vis-à-vis des "*Bleus*" (...) Là réside un enjeu de taille. L'abertzalismo ne doit pas être que raisonné, réfléchi. Il doit aussi être ressenti pour être réellement partagé par une communauté" [Guretzat abertzaleontzat, arazo handia da. Egitasmo politiko osotuenak biribil genitzake, diskurtso sinesgarrienak, baina beraien helmena herritarrengan zinez askoz ahulagoa izango da babesten ikasi duten taldearen garaipenak sorrarazitako emozioa baino. Eta ongi diot ikasi dutela, adin guztietan denak baitarama frantziarrek "urdinekin" identifikazioa eduki dezaten (...) Horretan erronka handia datza. Abertzaletasunak ez du bakarrik arrazoitua eta hausnartua izan behar. Sentitua izan beharko da komunitateak egiazki partekatuko badu" (Etcheverry-Ainchart, 2006)

Futbolaren bidezko euskal nazionalismoaren eta euskal nazio nortasunaren muga aditzera ematen duen heinean eta atxikipen eta sentipenok hunkipenezko eta sortzezko giza emozioarekin lotura dutela argudiatzen duen neurrian, bateragarria da gogoeta hori ikerketan zehar bildutakoarekin eta defendatu izan den ardatzarekin. Frantziaren kasuan nahiz Espainiarenean, futbol selekzioek estatu-nazioaren eraikuntza aldiro biziberritzen dute, eta Euskal Herria eta Katalunia bezalako estaturik gabeko nazioen nazionalismoen futbol sentipenen bidezko hedapena hein handi batean zailtzen dute aldi berean nazioak gisara nazioartean lehiatu ezina dutelako, eta horrenbestez, beren baitako bereizitasunak futbolaren bidezko besteen aurkako aurkaritzan gainditzeko ahala ez dutelako. Hartara, XX.mendean gipuzkoar eta bizkaitarren arteko alderaketetan azalerazi diren probintzien arteko lehiek nazio bateratuaren sentipena erabat ezartzea oztopatu dute, egiazko futbol lehia eta norgehiagokak Espainiako liga txapelketaren baitan piztutakoak izan direlako. Jakina da futbolak egokiera bakoitzean talde atxikimendu bat sustatzen laguntzen duela, eta askotan kontrajarriak izan daitezkeela beste abagune batzuetan gertatutakoekin. Hala eta guztiz ere, espainiar estatuan izan den futbol bidezko nazio eraikuntza kontrajarrien azterketatik ondorioztatu ahal da, espainiar nazio eraikuntzaren estatu nazio zilegitasuna ez zaiola Kataluniaren eta Euskal Herriaren adierazpenei gainjarri 1920ko hamarkadatik mende luzaroan, horiek bereziki beren nortasun babesleku bezala baliatu baitute futbola.

5.6-Euskal Herriko azterketaren ondorioak

Azaletik kontraesanaren gisakoa da euskal nazio nortasunaren futbol erabilpena, Kataluniarena ere, Espainia eta Frantziako estatu nazioen jardunak azpiratuta. Jabetuak daude euskal nahiz kataluniar abertzaleak futbola beren nazioaz identifikazioa lortzeko bide nagusi eta ikusgarrienetakoa dela, hots, gizartean beren nazionalismo mugimendua indartzeko alderdia, baina bide hori era berean, futbolaren antolaketagatik, aurretiazko aldaketa politikoen mendean dago, estatuaren sorrerara hurbiltzearen mende. Eta horrek egungo estatu nazioen osoko aurkaritza du. Futbola nazioa haragitzeko lehentasunezko bidea da, baina bide hori baliatzeko dagoeneko estatu burujabea izateko baldintza bete behar da, funtsean nazioa ziurtatzen duena. Adiskidantzazko partidek ez dute neurketek izaten duten nazio garrantziarik erdiesten, ez eta ezberdintasunak bateratu eta sinboloak gizarteratzen, eta kanpoan nazioa ezagutarazten. Gerora begirako ikerketak nire ustetan, kontraesan hau askatuko ote den aztertu beharko luke. Alegia, begiztatzea ea futbolaren gaur egungo estatuen mantentzearen aldeko izaeratik gaindi, eta hedabideek joera hori betikotzen dutela aintzat hartuta, kirolaren ordezkari eta alderaketazko izaerak Euskal Herria bezalako estaturik gabeko nazioetan nazio nortasunen hauspotzea eragingo ote duen, eta politikaren inguruko aurrerapenak bultzatuko ote dituen, politikaren bilakaera konplexuek futbolaren arloko aurrerapenak eragin baino lehenago, aski nekeza dirudien Euskal Selektzioaren ofizialtasuneko izaera funtsean.

Ikertzeko etorkizun bideak dira ere Euskal Herria Kirola elkarteak bideratutako Euskal Herriaren lurraldetasun historikoa aintzat hartzen duten txapelketa egitasmoek Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko banaketa ezerezteko gauza izango diren aintzat hartzea. Ipar Euskal Herria errugbiarekiko irrikak ezaugarritu izana alde batetik, eta Hegoaldean futbola gizartearen ikuskizun eta atxikimenduen baterazlea bilakatu izanak, bestetik, kirolaren, bereziki futbolaren, bitartez nazio mailako atxikimendua sorraraztea eragotzi dute orain arte. Litekeena da Euskal Herria Kirola bezalako herri mugimenduek joera hori iraultzea helburu izatea, eta kirolaren bidez euskal nazio nortasunari buruzko kidesun sentimendua azaleratzea helburu izatea nazio mailako txapelketak antolatuta, taldeko kirolek funtsean emoziozko lotura irmoak osatzen dituztelako. Ezin ahaztu ere ESAIT Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi Taldeak 2014an nazioarteko futbol txapelketa egitea xede hartuta duela Euskal Selektzioaren ofizialtasunaren aldeko urratsak egiteko,

eta FIFAREN onarpen ofizialik gabeko pausoak ematen joateko, Kataluniako federazioaz elkarlanean eman nahi dituzten pausoak. Bi nazio horietako zaleek 2009ko eta 2012ko Espainiako Errege Kopako finalak erabili zituzten espainiar estatu nazioaren futboleko egutegiaren data nagusietakoak, espainiar hedabide nagusiek nazio ekitaldiari emandako arreta baliatuz beren nazioen aurkaritza agertarazteko. Ekitaldi horiek polemika biziaz gain, espainiar politika antolamenduaz hausnarketa eragin zuten Euskal Selekzioaren eta Kataluniako nazio taldearen adiskidantzazko partidez haratago. Erakutsi zuen futbolak ahalbidea ematen ziela Euskal Herriko eta Kataluniako klubentzat aurkaritza azaldu ahal izateko. Bestela da nolana ere beren gutasuna eraiki ahal izateko gaitasuna izatea.

Euskal Herria, hiru nazio nortasunen eraikuntzaren ingurumena den neurrian, eta baita Espainia ere guztiz burutu gabeko estatu nazioaren eraikuntzaren eta bere barruko nazioen norgehiagoka eremua, eta futbola guztietan gizarte ekitaldia izan dela kontuan hartuta, mende bateko bilakaera politikoa eta geroa behatzeko lehentasunezko ikergaia izan da. Are gehiago hedabideen eraikuntza Frantzia eta Espainiako erretransmisioetako telebista iruzkinei erreparatuta, eta 2009ko eta 2012ko Errege Kopako finalen aipamena eginik, epaitzeko ere futbolaz nazio nortasunak eraikitzearen gainean. Hori biribiltzeko aberasgarria da alderaketazko metodologia baliatuta beti ere aztertuak izan diren mundu mailako adibideekin uztartzea zientzia ekarpena osatzeko. Eskoziarena, Euskal Herriko hurbiletik erreparatu beharreko ispilua da. Izan ere, estatu izaerarik gabeko nazio horrek bere selekzioaz Munduko Kopan aritzeko abagunea izan ohi du, estatuen pare. Aitzitik Erresuma Batuko hedabideen egituraren mendean izanda, maiz ezin izan du telebistaren bitartez futbol nazio eraikuntza biribildu, nazio selekzioaren partidak batzuetan herritar askoren helmenetik urrundu baitira, ordainduzko telebista kateetara. Osterantzean estatu nazioek ohiko merkatu ekonomiaren askatasunari mugak jartzen dizkiote nazio telebista kate nagusiek igorritako partidak nazio ekitaldi izan daitezen. Bi alderdien garrantziaz dihardu Eskoziak. Erreparatzekoa izango da epe motzean egingo duten erreferendumean herritarrek estatu burujabea sortzea erabakitzen badute nazio selekzioaren erabilpen berria. Euskal nazio taldeaz, ETBek futbolaz euskara hedatzeko nahiak adiskidantzazko partiden ekoizpenaz Euskal Selekzioarenganako atxikimendua hauspotzea eta nazioaren baterazlea izatea zailtzen duela argudia daiteke, kontraesana eman arren. Izan ere, nahiz eta sortzeko hizkuntza baden, ez da euskal herritar guztien ezagutzakoa eta baterazlea. Kontaketa eragingarriaren ulermenak garrantzia du. Dena dela, txapelketa ofizialetan aritu ezina eta hori goratuko duen komunikazio sistema berezkoaren eza dira mugak.

Horrez gain, Euskal Herria osoki hartuta, hau da, Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria, futbolarik askotariko jazoerak tarteko zatitutako nazioak hurbiltzeko eta elkartzeko eskaintzen duen baliabide den gisa, Irlanda, Alemania, Zipre, Yemen eta Koreako urruneko gertaerekin alderagarria da, nazioa bateratzeko itsasgarria. Izan ere, nahiz eta Euskal Herrian historia gertaerek etsaitutako komunitate talkarik ez dagoen, Euskal Selektzioa bi aldeetako herritarrek bere egingo bazuten, gaur egun arte estatuen mugak euskal herritarrak mendetan banatutako gizarteak hurreratzeko moduko baliabide sinbolikoa zatekeen. Zipren greziar jatorriko zipretarrak eta turkiar jatorriko iparraldeko zipretarrak saiatu ziren elkargo eta selektzio batua sortzen, ezberdintasunak gainditzeko, baina politikak futbol bitartezko ekimena zapuztu zuen, politikaren aldeko sostengua ere giltzarria den adierazle. Zipreko bi aldeek bi estatuen nazio eraikuntzaren oinordetza dutenez, Euskal Herriko egoerarekin antzekotasuna izan dezake. Afrikan, Yemenen, eta Europan, Alemanian, estatuaren batasun eraberritua adierazteko baliatu zuten futbolaren aldarre sinbolikoa, eta Korean gisako saioak izan dira. Irlandako Errepublikako futbol selektzioak bestalde, bake itunei jarraiki, nazio osoko futbolariek deitzeko eskubidea du, Euskal Herriko adiskidantza partidetan bezala. Jokalariak norbere hautua egin dezakete.

Ildo berean jarraituz, futbolarik nazioak sinbolikoki biziberritzeko ahalmena eman ohi duen heinean, garaipenaz inguratua denean batez ere, banderak, sinboloak eta nazio ereserkiak gizarteratzeko gailuak hornitzen du nazioa. Esan nahi baita, nazioa zeharkako komunitatea, izate abstraktua, nolabait hunkipenez zilegitu eta haragitzeko bideragarria. Ingalaterran 1996an herrialdeko bandera hedatzea bultzatu zuen, eta 2002an, 2006an eta 2010ean, Hego Korean, Alemanian eta Espainian hurrenez hurren nazio bandera aldarre baikorraz onartzea. Litekeena da antzera gertatzea, eta bestelako nazio osagaiek baino baterazle nagusiagoa bihurtzea futbola Euskal Herrian ere, Afrikan eta Hego Amerikan aipatzen denez, hots, nazio eta etnia askoren itsasgarri apartekoa. Euskal Herrian euskal identitatea eta nazio nortasuna askotariko ezaugarriez hautematen dute herritarrek toki batetik bestera. Iparraldean, bertan jaioa izana eta hizkuntza lehenetsitako definigarriak badira, Hegoaldean norbere borondatea gainjartzen da. Atxikimendua adierazteko bidea, Katalunian esaterako, bertako talde ordezkariari aldeotasuna erakustea izan ohi da, eta bide batez askotariko ezaugarritako jendea gutasun sinbolo beraren gainean elkartzekoa. Futbolaz naziotasuna plazaratzeko bi bide nagusitzat definitu izan dira zelairatzen diren jokalarien osaera – telebistako irudiekin indartua – eta nazio nortasunaz uztartu ohi den plazaratutako estila. Euskal Herriko klubek osaeraren bereizitasunaz plazaratzen dute.

6.Atala

Tesi Ikerketaren ondorio orokorrak

6-Tesi ikerketaren ondorio orokorrak

Lehenik eta behin, ondorioztatu ahal da futbolaren munduko arrakastak nortasun kolektiboen ordezkariak ahalbidean datzala. Gutasuna hezuramaitzen duen multzoaren eta besteenaren biko alderaketa ahalbidean dute sinboloez hornitutako futbol partidek, eta komunitatearen partaide sentitzeko beharra asetzeko aingura dira. Bi alderdiok, hau da, kirolarena eta emoziozko identifikazioa, bereiztekoan futbolaren geroa, gaur egun ezagutzen dugun modukoa, kolokan izango zatekeen. Futbolaren arrakastaren eta talde nortasunen ordezkariak gertaera berdinen ezaugarriak direla frogatzen du ikerketak, bereziki nazio nortasunen haragitzean nabarmentzen dena. Egiazki, batik bat historiaren bidean estatuaren jabetza eskuratu duten nazioek baliatzen dute, eta nazioartean estatu izaera politikoa babesten du beraz. Nazio irudikatuaren haragitzea 11 gizonen eratuak taldeaz burutzen da, ordezkari maskulinoa orobat. Baina, telebista kateen nazioarteko partiden ikus-entzuleriak adierazten du nazio osoa barne hartu ohi dutela lehiaketetako partidek, eta emakumei ere eragiten diela. Alegia, nazio osoa ordezkari dutela nazio taldeek. Garaipenen baitan biltzen den nazioaren ospakizuna, ildo berean, 90 minutuko iraukitze motzaren eta ondorengoaren gaitikoa da. Nazioa zilegitzen duen oroimenen narrazioa osatzea ahalbidean du, nazio ekitaldia eta sinboloa sorraraztea. Konplexua da, hasieran aipatutako nazio definizio anitzei jarraiki, nazioa definitzea, baina futbolak nazioa hezuramaitzen hainbeste indarra hartu badu bere baitako sinbolo ondasunagatik jazo da inondik ere, ezezagunen zeharkako komunitatea 11 futbolarien taldearen baitan elkartzea bideratzen duena. Nazioak definitzean sinboloez daukaten garrantziaz dihardu, nazioaren ustezko ezaugarri objektibo eta subjektiboetatik gaitik dena, Afrikan bereziki bezala, sekula nazioa osatu gabeko komunitateetan nazioa eraikitzen laguntzen duena.

Horrez gain, estatu-nazioaren ekimena bideratzen duten nazio taldeez eta futbol klubez aparte, Australiako adibideak, Indiakoak eta Eskoziako Glasgoweko Celticenak, besteak beste, estatuaren eraikuntzaren aurrean etorkinen eta baztertuei ordezkari eta babesa ematen dietenez dihardute. Ildo berean jarraituta, Alemaniako Ruhr eskualdean, Italiako hegoaldeko Napoli hirian eta Frantzia hegoaldeko Marseilla hirian, baztertutako edo narriatutako inguruetan, futbolak harrotasun berezia eskaintzen die hangoei, sarritan estatuaren erdigunearekin etsaigoan gauzatu ohi dena alderaketetan. Futbolak gizartean babesteko edo integratzeko duen ahalbidea adierazten du horrek guztiak. Australiako eta Eskoziako kasuetan jatorriko nazio ondarea mantentzea bermatzen duten futbol taldeek herrialde hartzailean integratzen zailtzen dutela argudiatzen dute hainbatek. Dena dela, estatuaren nazio proiektuan gutxiengo bereizitasuna aintzat har dadila eragiten dute. Katalunian Bartzelona taldearen loturak espainiar etorkin fluxuen gizarteratzea lagundu zuen, eta XIX.mende amaieratik munduan hirigune handietan immigrante uholdeak jaso zituztenean, identifikazio eta iturri bihurtu ziren klubak, nazio taldeen pareko aingurak. Afrikan gerrak zartatutako herrialdeetan haurtzarotik liskarretan barneratutako gazteak adiskidetzera ahalbidetu dute futbol ekimenek, Liberiako gatazkan tarteko. Hondurasen eta El Salvadorren arteko 1969ko gerraren txinparta izatea egozten zaio, nazionalismo muturreko adierazpenen iturburua bihurtzea, baina Afrikan bereziki futbolak eta kirolak ikusarazi dute bakerako ekarpena ere egin dezaketela. Izan ere, Hegoafrikan, errugbiak ez ezik, 1996ko futboleko Munduko Kopak banaketa zauriak ixten hasten lagundu zuen.

Bigarrenik, futbola nortasun kolektiboak betetzeko erabiltzean estatuaren ahala gainjarri dela ebatzi ahal izan da ikerketatik, eta baita baliabide horren askotariko izaera ere. Kanpoan nahiz bere baitan erabili du futbola nazio eraikuntzarako estatuak, besteen aurrean bere nortasun bereizitua aldarrikatzeko eta bere baitan ezberdintasun eza azaldu eta batasuna gauzatu asmotan. Esana denez, 1904.urtetik FIFAk estatuen boterea zaindu du futbolaren antolamenduan, nazioarteko ordezkarietan nahiz etxeko lehia antolaketan. Bada, alde batetik, nazioartean, ia denek partekatzen duten hizkuntza globalaren gisako futbol bitartekoan, besteen aurrean mailakatzen laguntzen die kirolak, nazioa erakustea. Mundu osoko adibideetatik ondorioztatu ahal izan da hori ikerketan, futbol nagusitasuna duten selekzio boteretsuenen herrialdeetan, nahiz Asiako eta Ozeaniako nazio ordezkari ez hain eraginkorretan. Hain izan da bizia futbolak eskaintako ordezkari eta ahala, ezen estatu izaera eskuratu duten nazioen lehen erabakimenean artean izan dela FIFAk onartu egingo duen nazio taldea bideratzea, munduaren begietara nazio eta estatu estatusaren

emakida eta adierazlea den neurrian. Kolonizazio arotik askatutako Afrikako selekzioei zegokienean, nahiz 1990eko hamarkadan SESB eta Jugoslaviako estatu nazio anitzetatik ateratako nazioen adibidean. Bestalde, burujabetza erdietsi asmo duten herrialdeei euren jatorrizko estatuek ahalik eta muga gehienak jarri nahi dizkiete FIFAREN sostenguarekin, nazio izaera aldarrikatzeko modurik izan ez dezaten. Espainiari dagokionez, Katalunia, Euskal Herria eta Gibraltarren kasuak adierazgarriak dira, Txina eta Tibetena, Ekialdeko Alemaniaren nazioarteko parte-hartzea galarazi nahi zuen Mendebaldeko Alemaniarena, Taiwanen eta Txinaren auzia eta baita Afrikan inperioko kolonien arteko partidek nazio izaera har zezaten ekidin nahi zuten europarrena. Halaber, estatuentzat futbola atzerrian beren ideologia beste mundu ikuskeren aurrean kontrajartzeko eta zilegitzeko bitartekoa izan da maiz, Lehen Mundu Gerra eta Bigarren Mundu Gerra arteko aroan, nahiz Gerra Hotzeko ondorengo garaian. Areago, herrialde batzuk futbolaren kanpo ordezkartzarrik gabe zilegitzeko bitartekoa ere, Hegoafrika eta Jugoslaviaren adibideekin besteak beste, eta gerra galtzaileen zigorrekin. Nazioarteko harremanetan eragiteko tresna da oro har, eta estatuen artean egituratua dagoenez gero, estatuen zilegitasuna indartzen du. Yemen, Korea nahiz Alemaniako adibideek erakusten dute bestalde, eta baita Japonia eta Hego Korearen artekoek, futbolaz aurrez etsaitutako eta bereizitako nazio zatituek edo estatu etsaiek hurbiltzea bideratzeko urratsak eman dituztela.

Kanpoan adina, bere baitan nazioa sortzeko edo birsortzeko baliatzen du futbola estatuak eta bere botere politikoa herrikideen artean zilegitzeko, globalizazioaren uhinaren eta beheragoko atxikimenduen eraginpean. Nazioaren batasuna ikusaraztea du helburu estatuak futbola dela medio, eta horretarako XIX. mendeko bukaeratik jadanik anitza zen komunitatea kudeatu behar izan du aginteak, XXI. mendearen hasieran immigrazioaren fluxuen poderioz are askotarikoagoa dena. Batasun xede horrekin, futbolak bideratutako sinboloekin hornitzen du nazioa estatuak, futbolaz independentzia egunen pareko nazio ospakizunak bihurtuta – Hego Ameriketara batez ere – eta nazio ereserkiak eta banderak gizarteratuta oroz gain. Lehen Mundu Gerraren ondoren nazioarteko futbol partidei lotu zitzairen ereserkien atariko ekitaldien garrantziaren adierazgarria da horiei txistu egiteak gizararte dagoen gatazka azaleratzen izan duten eragina, Frantzia eta Espainian esate baterako. Oro har, nazioan kultur aniztasuna kudeatzen den moduan buru ematen diote estatuek nortasunen irtenbide sinboliko ikusgarria den futbolearen ere aniztasunari. XIX. mendeko estatu-nazioen loralditik eratorritako homogeneotasunean nazioa eraikitzeo, politika eta kultura batzeko, nazionalismoen irrika amildu dela azaltzen du nazio taldeen

osaerak gaur egun. Aniztasunean eraikitako mundu ziurgabea iragartzen du futbolak ere, baina estatu-nazioek etorkinen fluxuen aurrean emandako erantzuna asimilazioa izan da. Afrikako kolonia agintaldian europarrek mendeko lurraldeetako taldeek aditzera ematen zituzten etnia ezberdintasunak nabarmendu zituzten beren aurka oldar zitezten, hots batu ez zitezten. Alabaina, ohiko jokabidea ezberdintasunok lausotzea izan da, azken urteetan etorkinen integrazioari bizkarrik eman izan ahal gabe, multikulturalismoa talde osaeran eta nazioaren izaeran agertuta, baina asimilazioa bultzatuta. Etnia izaera agertuko zuten klubei ordezkari hori kentzeko egindako urratsak lekuko. Inondik ere, selekzio anitza onartzera heldu dira estatuak beren nazioen agerpide, nazio bakarraren irudipean, baina selekzio ugariaren abaguneari parez pare kontrajarrita. Izan ere, Espainiari buruz mintzo zela, Gonzalez Pons PP alderdiko eledunak esana da herrialde horrek azkar utziko ziola nazio bakartzat hautemana izateari selekzio askotan zatituta agertuko balitz nazioartean.

Horrez gain, bere mugen baitan baliatzen du futbola estatuak, nazioaz gain, bere agintea ere zilegi bihurtzeko. Nazioarteko eremua izan liteke bitartekoa, kanpokoak bere barrura begirako nazio eraikuntzan ere eragina baitauka, Uruguai 1980ko Eguberritan antolatu zuen Mundialito izeneko eta FIFAk babestutako estreinako txapelketan gertatu zenez. Agintean zegoen militarren diktadurak boterean betikotzeko Konstituzio aldaketa galdegiten zuen erreferenduma futboleko nazionalismo ospakizunaz inguratu nahi zuen, eta bere agintea indartu bide batez. Ildo berekoa izan zen Benito Mussoliniren 1934ko Munduko Kopako erabilpena eta Videlak gidatutako Argentinak harrera eginiko 1978ko ekitaldiarena, besteren artean. Nazioaren gorespena beren agintaldiarekin uztartzea nahi zuten menderakuntza aginteok, baina Uruguain bezala, Argentinan ere, biak bereizi egin zituzten herritarrek. Ez zuten erdietsi bada, futbolaren zoramenearekin herritarrek gizarte auziez eta aldarri politikoetatik urrunduta lokartzerik, futbola herritarren opioa bailitzan erabiltzerik. Frankismoak nahiz Portugalgo diktadurak egindako futbolaren erabilpenak ez zituzten azkenerako estali herritarren aldarriak, ez eta Espainiaren kasuan gutxienean nazio aniztasuna desagerrarazteko asmoari horiek men egiterik. Eztabaida politikoa bere interesen mende bideratu eta desbideratzen ahalegintzen da estatua futbolarekin, gizarte kontraesanak estaltzen, askotan herritarrek duten lilura baliatuta, baina emaitzak ez dira gehienetan estatuak nahi adinako eraginkorrak, Espainiaren 2012ko Europako Koparen garaipeneko nazio ospakizuna oso gutxira krisi ekonomikoak itzali izana lekuko. Nazio eraikuntzak bezala, estatuak futbolaz egindako erabilpenak ere muga jakinak ditu. Esan

nahi baita, agintariek ez dutela lortzen maiz indarra erabilia, ez eta futbolaren baliabide sinbolikoa baliatuta ere, herritik ere sortzen den nazio proiektua norbanakoei inposatzea.

Hirugarren ondorioa, hain zuzen ere, aipatutako azkenaren joerakoa da, kirolaren estatuaren amarruzko erabilerari alderatzen zaiona. Futbola gizarte jarduera den heinean gizarte gatazkak eta nazio auziak adierazten dituen zelaia da, eta aldi askotan, gainera, horiek agertarazteko azken gotorlekua izan da munduan barrena. Estaturik gabeko nazio txikiek futbol selekzioen birak baliatu dituzte –Aljeria eta Euzkadiko taldearena horren lekuko – nazioartean beren egoeraren berri emateko, eta SESB Sobiet Batasunaren eta Jugoslavia desagertuen baitako liga txapelketa nazio anitzetan beren izaera azaldu zuten klubak estatu nazioen sorreran iragarleak izan ziren. Esanguratsua da Aljeriako FLNren futbolaren erabilera. Independentzia helburu hartuta gerraren parean futbola erabili zuen Frantziarengandik bereizteko bitarteko modura. Gero, independentziaren biharamunean, bere barruko futbol taldeen etnia ordezkari ezerezteko egitasmoa abiatu zuen, futbol erabilpenak orduan berari kalte egin ziezaiokeenaz jakitun. Futbola Espainiar estatuaren XX.mendeko bilakaera politikoa begiratzeko irizpidetzat hartu izanak estaturik gabeko nazioen aldarrikapenez eta nazio gatazkaren agerpenaz adibide adierazgarria eskaintzen du. Izan ere, 1920ko hamarkadan futbola masa ikuskizun bihurtu zenetik, Euskal Herria eta Kataluniako nazio adierazpenen eremua izan zen estatuak eginiko nazio eraikuntzari kontrajarrita. Francoren diktadurak bake aldarteko batasuna ikusarazi nahi izan bazuen futbolaz, estadioetako harmailak munduko toki askotan gisara, ostera, zanpatutako nazio nortasunen adierazpideak izan ziren, aurkaritzazko aldarrien azken gotorleku gisakoak. Athleticen eta Bartzelonaren arteko 2009ko Espainiako Errege Koparen finala esanaren adibide paradigmaticoa da. Futbolaren eta hedabideen baterako bozgorailu nortasunaz baliatu ziren hurrenez hurren euskal herritarrak eta kataluniarrak elkarrekin Espainiako estatu-nazio eraikuntzaren aurkako mezua igortzeko erregetzaren sinboloari txistua jota. Ipar Irlandako futbola bertako gatazkak hezurmamitua izana da halaber, eta ildo berean, Jugoslavia ohiean zalego taldeen arteko liskarrek gerrarako jauzia amildu zuten gainera. Futbol harmailak gizarte borrokaguneak dira, mezuak zabaltzeko abagunea, eta ez nazio nortasunen baitan soilik. Futbol partida alderaketa bakoitzak, klub bakoitzak zaleentzat eta arerioentzat ordezkatzeko duen irudiari jarraiki, gizarte klaseen araberrako alderaketak sor ditzake ere, Italiako estadioetako *curva* deritzonetan esaterako, goratzen dituztenak.

Laugarren ondorioa, tesiaren sorburuan zegoena, ikerketak egiaztatu eta berretsi duena da, futbolarik komunitateak ordezkatu eta haragitu ahal izan ditzan funtsezkoa izan dela hastapenetik hedabideen bitartekaritza. Prentsa idatzitik abiatuta, irratitik pasata eta gaur egungo telebistaraino, milioika lagunek aldi berean komunitate bizipen partekatua izan dezaten gertagarri egiten du. Nazio ekitaldiak eta oroitzapenak errotzen dira horiei eskerrak, Alemaniako *Bernako miraria* oroimenaren lekuko, eta tesian zehar aipatutako futbolarik lotutako edozein ospakizun handik frogatzen du baieztapen hori. Inondik ere, hedabideek nazio nortasunaren eta futbolaren bikoiz bizitzen dute, emozio bizipenaz eta alderaketa nabarmenduz partidak kontrajartzen diren alde batenganako identifikazioaz ikus-entzuleria handia erakartzen duelako. Modu horretara, nazioaren izaera objektiboa edo sortzezkoa bailitzan igortzen dute nazioarteko partidetan esatarien iruzkinak, aztertu dugunez, arrazoitzeko beharrik gabe ikus-entzuleek barneratzeko gisan, eta herrikidetzat dituzten milioika ezezagunek ekimen eta desio berbera partekatzen duten irudia igorrita. Maiz neurketen ekoizpena hedabideentzat dirutan errentagarria ez izanagatik, katearen irudiari ikus-entzuleria mugarririk esleitzen dion hobariagatik gutiziazko emankizuna da. Estatuentzat ere ekonomiaren arrazoibidetik haratagoko auzia da telebista bitarteko nazioarteko futbolaren emankizuna. Europako Batasuneko estatu kideek nagusiki, nahiz Australiako Gobernuak, nazioarteko partidak nazioarentzat garrantzia berezikoak direla ebazten dute, eta berme berezia ezarri diete. Doako kateek helarazi behar dituzte beraien selekzioen partidak, nazio komunitatearen herritar guztiengana oztoporik gabe heltzeko, eta nazioa beste herrialdeen ordezkarien aurrean elkartu eta biziberritu dadin, ondorioz. Nahiz eta harpidetzazko edo ordainduzko kateen bitartez, estatuaren liga txapelketetan zabaldu denez, etekinak askoz handiagoak izango ziratekeen, estatuak hor bere agintea ezarri dio merkatuari beste hainbat alorretan ez bezala, eta nazio ekitaldiak ahalbidetzea ekonomia diru sarreren gaindi lehenetsi. Nazioa sinbolikoki birsortu asmoz futbola eta hedabideen bikoiz garrantzia nabarmentzen du estatuaren salbuespenezko ekimenak. Horren aurrean estaturik ez daukaten nazioek, Euskal Herriak kasu, nazioartean aritzeko FIFAREN onarpenik gabe eta eremu horretan futbolarik nazio nortasuna hauspotuko duen berezko komunikazio sistema edukitzeke daude, biak ala biak estatuaren jabetzakoak dira eta. Nazioa irudikatze baliabide nagusienetakoa edo ikusgarrienetakoa, behinik behin, baliatzeko abagunerik gabe dira, estatuaren nazio proiektuek bitartean erabilpen horretaz beraien nazio eraikuntza erasaten duten bitartean. Bestalde, gaineratu behar da telebistaz futbolarik urruneko talde atxikimenduak sustatzen dituela, Afrikan eta Asian nabarmenki

Europako futbol taldeekiko loturan eta bereziki Eskandinavian, Ingalaterrako klubekin hurbiltzea eta talde nortasuna bideratuta, ikerketan zehar hauteman ahal izan denez.

Bostgarren eta azken ondorio nagusia da – tesiak irakurleak berezko ondorioak lehenesteko bidea ematen duela ahaztu gabe – futbolak XIX.mendeko gizartean eta gaur egunekoetan, bien artean egiturazko aldaketak gertatu arren, bietan ere, gizarte gertaera izaten segitzen duela eta komunitateen ordezkari eta adierazpena. XX.mendeko estatuen birsortzailea izana da munduko bost kontinenteetan barrena, eta XXI.mendean, nazioak haragitzeko bestelako ondasunak ahultzen ari diren bitartean, globalizazioak eragindako gizartean norbanakotzean taldearen aingura ematen du. Robertsonen globalizazioaren kontzeptua egokia dela aditzera ematen du futbolak, hau da, fluxu globalen hazkunderaz batera nazionalismoaren eta nazioen indartzea dagoela postmodernitate esaera lausoaz definitzen den ziurgabetasunezko garaian. Inondik ere, XIX.mendeko gailurrean erroten zen estatu-nazioaren kontzeptuaren gainbehera aurreikustea okerrekoa dela frogatzen du tesi ikerketa honek. Anthony Smithen ikerketaren hastapeneko hausnarketa berresten du burututako azterketak. Izan ere, haren hitzetan, estatu-nazioaren homogeneousasunezko ikusmolde klasikoa ordezteko bultzatu dute indar globalek, beraren baitan dauzkan etnien eta nazioen beharrak egokituko dituen estatu-nazio postklasikoaren norantzan. Nolanahi ere, bata da horretara bultzatu izana, eta bestea, estatu garaikideak, mundu garaikidearen politikako antolaketa oinarria denak, aniztasuna kudeatzen asmatu eta onartu izana.

Westfaliako 1648ko itunetik eratorritako estatuaren egitura politikoak geroz eta anitzagoak izango diren gizarteak kudeatzeko duen ezintasuna adierazten du Australiak adibidez, kanpotarren integrazioa asimilazioaz egiten baitu, hau da, etorkinen sortzezko nazio nortasunaren oinordetza ezabatu behartzen duena, baita futboleko ere, onartuak izateko. Ekialdeko Europako nazioen erbesteko sinboloak ziren taldeei adierazpide hori aditzera emango zuketenez ezaugarri oro ezabatzerako behartu zituzten izendapenetik hasita estadioetan erabilitako hizkuntzaraino. Areago, nahiz eta etorkizuneko estatu-nazioaren iraupenaren inguruan futbol ordezkartzaren antolamenduak hein handi batean zalantzak alboratzen dituen, estatuaren gizarte pluralak barnean hartzeko zailtasuna agerian uzten du neurri berean. Mende bateko futbolaren bilakaera aztertuz ondorioztatzen da estatuak bere baitako aniztasuna kudeatu beharraz jabetu dela, baina bere burua zilegitu asmotan pluralitatea desagerraraztea hartu du xede, bere eraikuntzaz ezberdinak diren sinboloak deuseztatzeko ekimena bere gain hartuz. Argudia daiteke *ius sanguinis* deritzonetik, hau

da, estatu-nazioaren kide onartua izateko odolaren sendi oinordetza ezaugarria edukitzea behartzen zuenetik *ius solis* lurreko eskumenera, hau da, lurraldean jaioa izatera behartu izanera, pasa dela naziotasun emakidaren baldintza, nazioaren proiektua hezurramitzen duten selekzioei dagokienez. Alabaina, nazioaren partaidetzat onartuak izateko kanpotik etorritakoen bertakotzea, immigrazioak ezaugarrituko duen XXI.mendean, berehalakoan onargarria ez denaz ohartarazten du futbol selekzioaren ispiluak. Oroz gain, komunitate pluralak barneratzeko, hots, integrazioa burutzeko, estatu antolaketa politikorako eredu garaikide gainjartzailea denak duen ezintasuna hezurramitzen du futbolak. Hausnarketa sakonagoa zabaltzen du horrenbestez, ikerketa lerroa ere, estatuaren eraldaketaz harago. Ezin ahaztu futbola beste taldekako kirolak baino zurrunagoa dela immigranteen nazio ordezkari-tza baimentzean, nazio ordezkarien eta nazioaren lotura bermatzeko helburuaz.

7.Atala

Tesiaren frantsesezko aldaera

7-Tesiaren frantsesezko aldaera laburtua

Résumé de la thèse doctorale

Le binôme du football et des médias, terrain de jeu contemporain des identités nationales: l'Ancre d'identité entre le XIXème et le XXIème siècle

7.1-Présentation, problématique, objectifs et cadre théorique

Quand j'ai pris la décision de mener à bout cette recherche, cette thèse doctorale, j'avais notamment et premièrement un objectif clair, celui d'éclairer le manque que j'estimais au Pays Basque et en Espagne quant aux approches scientifiques autour du sport et surtout du football. Bien entendu, comme presque partout dans le monde, le football est beaucoup plus qu'une activité de loisir pour la société basque et espagnole, il est étroitement lié à l'évolution politique du XXème siècle, et il n'y a aucune raison pour envisager un changement au XXIème siècle. Le nationalisme espagnol, celui de l'État-nation, et également les nationalismes basque et catalan, ont appris très tôt à se

servir de l'engouement des citoyens pour la nouvelle activité de loisir exportée par les expatriés anglais à la fin du XIX^{ème} siècle. Les différents régimes qui ont dirigé l'Espagne pendant un siècle sont les signes des bouleversements politiques qui se sont suivis, les dictatures ayant marqué parmi elles l'Histoire récente de l'État espagnol. Mais il faut noter que soit les systèmes politiques plus démocratiques comme la République qui fut élue par les citoyens en 1930, soit la dictature franquiste au pouvoir pendant quatre décades, l'État nation a tout essayé afin de compléter à l'aide de la force symbolique du football la légitimité nationale qu'il n'avait pas pu obtenir avant, à cause des guerres internes qui avaient frappé l'Espagne au XIX^{ème} siècle. Cependant, les nationalismes basque et catalan grâce à leur sélection qui ne sont pas reconnues officiellement par la FIFA et la UEFA, ne formant pas un État, et surtout les clubs représentatifs, l'Athletic et la Real Sociedad du côté basque et Barcelone – le *Barça* – côté catalan, ont réussi à faire face à la force unificatrice de l'État, voire ils sont devenus le dernier bastion des nationalismes quand les dictatures espagnoles du XX^{ème} siècle ont essayé de faire disparaître tous les signes nationaux opposés à la construction de l'État Nation. Effectivement, l'aspect multinational de l'État espagnol, la tendance que l'on perçoit presque partout dans le monde, va de soi dans cette thèse.

Comme Montesquieu avait déjà sagement expliqué il y a deux siècles, “si dans l'intérieur d'un État vous n'entendez le bruit d'aucun conflit, vous pouvez être sûr que la liberté n'y est pas”. Ainsi, quand le système démocratique s'est installé en Espagne en 1978 le championnat est devenu le reflet de l'État plurinational n'étant pas reconnu par la Constitution. La finale de la Coupe du Roi qui a eu lieu à Valence en 2009 où la plupart des supporters basques de l'Athletic et des fans catalans du Barcelone qui remplissaient le stade avaient sifflé l'hymne espagnol en honneur du roi Juan Carlos, a très certainement laissé entendre à travers le spectacle du football le malaise des deux nations sans État dans l'organisation politique espagnole. Egaleme nt la confluence entre les deux nations face aux symboles espagnols. Ainsi on a pu conclure de la même manière que les victoires obtenues par l'équipe nationale espagnole à la Coupe d'Europe de 2008 – précédente datait de l'année 1964 – et celles obtenues en Afrique du Sud, lors de la Coupe du Monde, et la victoire consécutive à la Coupe d'Europe de 2012 en Pologne et Ukraine, n'ont pas eu la force unificatrice pour effacer les sentiments nationaux au Pays Basque et en Catalogne. Donc, cela permet de relativiser la force du football quant à construire une nation et mettre fin aux différences et

